

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal Haur eta Gazte Literatura garaikidean**

**Doktoregaia:** Ainhoa Urzelai Vicente

**Tesi zuzendaria:** Mari Jose Olaziregi Alustiza

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2024





*Ustelak lurpera,  
bizitza da handiena,  
galtzea litzateke  
galtzea dena*  
(Laboa, 1980)

*Gure hitzak  
Esan berriz esan  
Ez daitezela ahaztu  
Ez daitezela gal*  
(Laboa eta Atxaga, 2000)

## ESKER-EMATEA/ACKNOWLEDGEMENTS

Lehenik eta behin, bereziki eskerrak eman nahi dizkiot nire tutore eta tesi zuzendari izan den Mari Jose Olaziregiri. Eskerrik asko karrera amaieratik gaur arte ikerketan jarraitzera animatzeagatik eta laguntza emateagatik.

UPV/EHUko Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikertaldeari. Zuen alboan joan naiz eskuratzen tesi hau egiteko behar nituen tresnak. Bereziki aipatu nahi ditut lankide eta lagun izan ditudan Ane, Nagore eta Nerea: doktoregaion arrangurak, zalantzak, penak eta pozak partekatzeagatik; baita barrenak arintzen laguntzeagatik ere.

Ikerketa-egonaldietan lagundu didaten irakasleei. Moltes gràcies a Gemma Lluch de la Universitat de València, per la teva generositat i predisposició. Esker anitz Baionako IKER-ekoei, zuen ikergunean hartzeagatik. Vielen Dank an Georg A. Kaiser, für den Aufenthalt an der Universität Konstanz.

Etxekoei, emandako sostenguagatik. Zuei esker eman ahal izan ditut hainbeste ordu tesia egiten. Eskerrik asko nire kezkak entzun eta pazientzia handiz tratatzeagatik, baldintzarik gabe maitatzeagatik.

Moltíssimes gràcies a la meua família del Col·legi Major Rector Peset de la Universitat de València, i sobretot a Marc, Nerea, Elena i Stefano; per totes eixes hores en la biblioteca. Agraïsc també a Carles, per haver-nos ajuntat i haver cuidat de nosaltres durant la pandèmia; perquè vaig poder seguir amb la tesi quan el món estava del revés.

*Nitakupenda* taldeari. Karrerak eman didan onena zarete. Eskerrik asko zuen euskalkiak irakasteagatik eta hamaika abenturatan bidaide izateagatik. *Nakupenda*.

Arrasateko betiko kuadrillari, burua paperetik altxatu eta kalera irteteko aitzakiak antolatzeagatik. Mendi irteerak, bazkariak, parrandak eta solasaldiak. Horiek guztiagatik. A Sara, por estar. Por los paseos allá por donde pasa el Tormes, por enseñarme mis primeras palabras en francés. Maddiri, hausnarketa sakonen konplize izateagatik, *egon behar gea* horiengatik eta barrengatik.

Azkenik, eskerrik asko lan honetan behin eta berriz aipatu ditudan egileei, aurrekari izateagatik eta bidea zabaltzeagatik. Eskerrak bideari, eta eskerrak.



## AURKIBIDEA

### EUSKAL HERRIKO GATAZKA ARMATUEN ERREPRESENTAZIOA

### EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURA GARAIKIDEAN

<b>1. SARRERA</b>	<b>9</b>
1.1. Memoria eztanda	11
1.2. Tesiaren egitura	13
1.3. Aurrekariak	15
1.4. Helburuak	28
1.4.1. Helburu orokorrak	28
1.4.2. Helburu espezifikoak	28
1.5. Hipotesiak	29
<b>2. HAUR ETA GAZTE LITERATURA</b>	<b>31</b>
2.1. Kontzeptuaz hausnartzen	31
2.2. HGL eta kritika literarioa	46
2.3. Euskal HGLri buruzko doktore-tesiak	54
2.4. HGLren funtzioak: Gozamena eta helburu utilitaristak	62
2.5. Errealismo kritikoa HGLn	69
<b>3. EUSKAL GATAZKA</b>	<b>73</b>
3.1. Zer da euskal gatazka?	73
3.2. Euskal gatazkaren bilakaera eta gertaera nagusiak	80
<b>4. MEMORIA HISTORIKOA ESKOLAN LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK</b>	<b>90</b>
<b>5. MARKO TEORIKO METODOLOGIKOA</b>	<b>94</b>
5.1. Memoria Ikasketak	95
5.2. Genero Ikasketak	113
5.3. Narratologia	121
5.4. Analisirako baliaututako eskema	129
<b>6. CORPUSAREN AURKEZPENA ETA AZTERKETA KRITIKOA</b>	<b>130</b>
6.1. Corpusaren hautapenerako irizpideak	130
6.2. Corpusaren azterketa kritikoa	132
6.2.1. Gerra Karlistak	134
6.2.1.1. Buruntza azpian	135
6.2.1.2. Sara izeneko gizona	140
6.2.1.3. Din, dan, don... Kanpai lapurrak non?	148
6.2.1.4. Jose Maria Iparragirre. Haizearen semea	153
6.2.1.5. Karlisten altxorra	155
6.2.1.6. Argiaren alaba	159
6.2.1.7. Gerra Karlistak. Beste obra batzuk	163
6.2.1.7.1. Iparragirre	163

6.2.1.7.2. Lur zabaletan	164
6.2.1.7.3. Gizon izandako mutila	165
6.2.2. Lehen Mundu Gerra	166
6.2.2.1. Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!	166
6.2.3. Espainiako Gerra Zibila	172
6.2.3.1. Pottoko	172
6.2.3.2. Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak	174
6.2.3.3. Basarri	180
6.2.3.4. Euskal Herriaren Historia XXI. mendeko hurrei kontatua	182
6.2.3.5. George L. Steer, Gernikan izan zen kazetaria	186
6.2.3.6. 1936ko gerra hurrei kontatua	192
6.2.3.7. Urtebete itsasargian	198
6.2.3.8. Negu luzearen atarian	213
6.2.3.9. Jose Miguel Barandiaran. Herria bihotzean zuen jakintsua	217
6.2.3.10. Gerrak ez du izenik	219
6.2.3.11. Beroki gorria	224
6.2.3.12. Pikondoaren balada	229
6.2.3.13. Amonarenean kea	236
6.2.3.14. Arrastoa	240
6.2.3.15. Itsas azpiko sekretua	248
6.2.3.16. Elur gorrituaren egunak	251
6.2.3.17. Espainiako Gerra Zibila. Beste obra batzuk	254
6.2.3.17.1. Sagitario	255
6.2.3.17.2. Munduko zazpi herrialdetako ipuinak	255
6.2.3.17.3. Zer du aitonak?	256
6.2.3.17.4. Memoriaren zuhaitza	256
6.2.3.17.5. Portuak	257
6.2.4. Bigarren Mundu Gerra	257
6.2.4.1. Anbroxio	258
6.2.4.2. Arriskupean!	268
6.2.4.3. Azken garaipena	272
6.2.4.4. Mattin. Basoko gidaria	278
6.2.4.5. Bigarren Mundu Gerra. Beste obra batzuk	280
6.2.4.5.1. Haur besoetakoa. Itsasoan urak handi	280
6.2.5. Frankismoa	282
6.2.5.1. Herrialde berdea	283
6.2.5.2. Behi euskaldun baten memoriak	287
6.2.5.3. 1948ko Uda	294
6.2.5.4. Ikastola armairu barruan	301
6.2.5.5. Hari single bat	304
6.2.5.6. Sasi artean Elgeta	308
6.2.5.7. Begi bat kokotean	312
6.2.5.8. Frankismoa. Beste obra batzuk	316
6.2.5.8.1. 20 Ipui eta antzerkitxo bat ikastolatarako	316

6.2.6. Euskal gatazka	318
6.2.6.1. Ainhoari gutunak	318
6.2.6.2. Pike eta Pitito	324
6.2.6.3. Harri barruko bihotz-borrokak	328
6.2.6.4. Txakurraren alaba	335
6.2.6.5. Tunelaz bestaldean	348
6.2.6.6. Kixmi elurpean	352
6.2.6.7. Osaba Patxiren koaderno	356
6.2.6.8. Oihanaren koaderno	358
6.2.6.9. Pikolo	362
6.2.6.10. Zer da, ba, maitasuna?	372
6.2.6.11. Larunbatean Bukowskin	379
6.2.6.12. Kandela bat pizteko behar dena	383
6.2.6.13. Hiru sopranoak	384
6.2.6.14. Haizea	389
6.2.6.15. Nemo kapitainaren azken bidaia	391
6.2.6.16. Maritxipi eta Amatxo	396
6.2.6.17. "Lekukoa" bilduma: Sasieskola, Mehatxua eta Esanezinak	398
6.2.6.18. <i>Antipodak</i>	403
6.2.6.19. Para bellum	410
6.2.6.20. Euskal gatazka. Beste obra batzuk	416
6.2.6.20.1. Marigorringoak hegan	416
6.2.6.20.2. Nire eskua zurean	417
6.2.6.20.3. Benetako laguneren aterbea	418
6.2.6.20.4. Gerturik daukagu odola	418
6.2.6.20.5. Kandinskyren tradizioa	420
6.2.6.20.6. Goizeko zazpiak	420
6.2.6.20.7. Zimaren abenturak	422
6.2.6.20.8. Pistolak eta epistolak	423
6.2.6.20.9. Martxa eta borroka!	425
6.2.6.20.10. Santa familia	427
6.2.6.20.11. Txori mezulariak	428
6.2.6.20.12. Amonaren ipuin magikoak	429
<b>7. ANALISIAN LORTUTAKO EMAITZAK</b>	<b>430</b>
<b>8. ONDORIOAK</b>	<b>473</b>
<b>9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b>	<b>484</b>
9.1. Corpusean sartutako literatur obrak	484
9.2. Aipatutako bibliografia	487
<b>I. ERANSKINA: OBREN KATALOGOA</b>	<b>519</b>
<b>II. ERANSKINA: ANALISIRAKO BALIATUTAKO ESKEMA</b>	<b>541</b>

## 1. SARRERA

Gerrak eguna urratzen du, gaixotasun xuxurlatu eta bizkor batek bezala.  
Gerrak ez du entzuten, ez ikusten, ez sentitzen.  
Gerrak beti daki non diren bere beldur eta bere zain.  
Gerrak beldur guztien forma basatia hartzen du.  
Gerra gorrotoak, zapaldu nahiak eta ezinikusiak elikatzen dute.  
Gerrak indarrez hartzen du errugabeen amets leuna.  
Gerrak gaitzaren aurpegi guztiak ezartzen ditu.  
Gerra inoiz ez da historiak kontatzeko gai izan.  
Gerrak goibeldu, zanpatu eta isilarazi egiten du.  
Gerra oinaze makina bat da, amorru guztien fabrika gaiztoa.  
Gerrak altzairuzko eta itzal ezaguneko seme-alabak sortzen ditu.  
Gerrak loria ametsak ditu, eta den-dena erretzen dute.  
Gerra gure atsekabearen helmuga da.  
Gerrak gogoko du hondarren artean nagusitzea.  
Gerra heriotzaren azken gordelekua da.  
Gerra burrunba eta kaosa da.  
Gerra isiltasuna da  
(Letria, 2022).

*Gerra* hitza, tamalez, ohikoa bihurtu da gure jendartean. Gure ezpaineek gehiegitan ahoskatzen dute silaba bi baino ez dituen hitz gogor hori. Telebista piztu eta ez gara harritzen albistegiari Ukrainako gerrak ematen badio hasiera; ez zaigu bitxia irudituko egunkarietako orrietan txikitutako ukrainar herri bat ikusten badugu. Baina Ukraina eta Errusiaren arteko gatazka armatua ez da tesi honen idazketaren momentuan bizirik dirauen guda bakarra. Borrokan ari dira Palestinan eta Israelen, Afganistanen, Yemenen, Birmanian, Etiopian, Sirian, Libian, Haitin eta beste hainbat tokitan. Hedabideetan ez eze, literaturan ere aurki daitezke gatazka horien oihartzunak eta literatur testuek gerrek eragiten duten sufrimenduaren testigantza helarazten diote irakurleari. Duela gutxira arte, ustez haurrak sufrimendutik babesteko helburuarekin, gerra, heriotza eta biolentzia, besteak beste, gai tabuak izan dira HGLn<sup>1</sup> (Colomer, 2010; Cerrillo, 2013; Oittinnen eta Roig, 2016; Franco-Vazquez eta Roig, 2017; Hanán, 2020). Espainiar Estatuko testuinguru soziopolitiko eta kulturalak haur eta gazteei zuzendutako liburueta gaien inguruko kontrol zorrotza ezarri zuen 80ko hamarkadara arte eta ondorioz, gai ugari tabu bihurtu ziren (Roig, Lucas eta Soto, 2008).

---

<sup>1</sup> Hemendik aurrera HGL laburdura erabiliko dut haur eta gazte literatura izendatzeko.

Fernandez-Zabala, Urzelai-Vicente eta Villagran-Arrastoa ikertzaileen lanak (2022) 1975 eta 1983 urte bitarteko euskal HGLko zentsura txostenak aztertzen ditu eta argi erakusten du zeintzuk ziren Espainiar Estatuan argitaratzen ziren HGL obrek kontuan hartu beharreko alderdiak eta zentsuratzen ziren eduki edo gaiak.

Gaur egun, gerra, indarkeria eta heriotza bezalako gaiak HGLn lantzeko interesak gora egin du, izan ere, Hunttek (2005: 13) dioen moduan, “children and childhood need to be protected, but there is a difference between protection and deprivation, and between innocence and ignorance”. Kenfel eta Housek (2020) azaltzen dutenez, azken hamarkadetan ugaritu egin dira heriotza lantzen duten haur eta gazteei zuzendutako fikziozko argitalpen, doktore-tesi eta hitzaldiak. Devereaux eta Huppek (2008) gehitzen dute HGLn heriotzari buruzko obrak ugaritzeaz gain, liburu horiek sarituak izan direla, eskuragarritasuna eta hedapena zabalduz. Ez hori bakarrik, diotenez, azken urteotan ugaritu egin dira haurrek heriotzari buruz duten ulermena aztertzen duten ikerketak, eta horietako batzuen berri ematen dute: Slaughter, Jaakkola eta Carey, 1999; Nguyen eta Gelman, 2002; Poling eta Evans, 2004; eta Slaughter eta Griffiths, 2007. Arnalek (2011) bere doktore-tesian eta Rodriguezek (2016) bere lanean aipatzen dutenez, Espainiar Estatuan, XXI. mendetik aurrera ugaritu egin dira heriotzari buruzko lan literarioak, nahiz eta heriotza azaltzeko orduan metaforen, animalien eta irudien erabilera egin askotan, gaiaren gogortasuna arintzeko asmoz. Leunduta bada ere, haur eta gazteekin literaturaren bitartez edozein gai landu daitekeela defendatzen dut, baita tamalez gaurkotasun handikoa den gerra ere (heriotzarekin eskutik helduta doana ia salbuespenik gabe). Hori horrela izanik, uste dut haurrak gerratik babesteak ez duela esan nahi errealitate horren ezagutza galarazi behar zaienik. Liburuen bitartez komunikazio irekia bidera dezakegu haur eta gazteekin eta zuzenean lantzen zailak diren gaietara hurbil gaitzke horien laguntzarekin.



## 1.1. Memoria eztanda

Gerraz eta garai gatazkatsuen oroimenaz hitz egitean, ezin aipatu gabe utzi memoriaren gaineko diskurtso eta lanak, hala teorikoak nola fikziozkoak, izugarri ugaritu direla azken hamarkadetan. Fenomeno hori memoriaren eztanda (*memory boom*) terminoarekin izendatu zuen Jay Winter (2006) historialariak eta esan daiteke 80ko hamarkadan izan zuela gorakada. Gainera, Elizalderi (2015) jarraikiz, gertakari horrez gain 90eko hamarkadako *cultural turn* edo *the turn to culture* (Chaney, 1994) delakoak (euskaraz, kulturara itzultzea<sup>2</sup>) eragina izan zuen memoriaren auzia lantzeko eran. Olaziregik (2008a, 2009, 2012) azaltzen duen moduan, Bigarren Mundu Gerraren eta Holokaustoaren ostean, Irabazleen Historiatik (edo Friedrich Nietzschek<sup>3</sup> zioen bezala, “Historia Monumentala” delakotik) Galtzaileen Historiarako aldaketa bat egon zen. Helburua hamarkada luzez isilarazitako bizitzei ahotsa eta protagonismoa ematea zen eta hori da Carlo Ginzburg historialariak (1994) eta beste zenbaitek mikrohistoria gisa definitu dutena, urte batzuk lehenago Primo Levik (1975) erabili zuen kontzeptua<sup>4</sup>. Michael Foucault, Hayden White eta bestek baieztatu bezala, historia diskurtso narratibo bat baino ez da, irabazlearen ikuspuntutik egindakoa gehienetan. Horregatik, partziala eta osatugabea izan ohi da askotan (gainera, iraganari buruzko kontakizun orok interpretazio bat dakar berarekin). Beraz, kontakizun ahalik eta osatuena emateko, beharrezkoa da zokoan lagatako esperientzia horiek ere jaso eta papereratzea. Errelatu historiografikoaren objektibotasuna eta autoritatea zalantzan jartzearen ondorioz, argudiatu izan da literaturak ere balio dezakeela Historiak bere diskurtso epikotik alboratutako “beste egia batzuk” kontatzeko, gureak ere badiren egiak kontatzeko hain zuzen.

Irabazlearen ikuspuntutik eraikitako diskurtsoaz aritu naizela, esanguratsua da Peter Burke historialariak (1989: 106) irabazlearen jokabideari buruz dioena. Berak galdetzen du ea zergatik dagoen hain kontraste handia kultura ezberdinetan iraganarekiko jarrerei dagokienez. Honako erantzuna ematen dio galderari: Historia garaileek idazten dutela esan ohi da. Historia garaileek ahazten dutela ere esan liteke. Irabazleek ahanzteko luxua har dezakete. Galtzaileak ordea, ez dira gertatutakoa onartzeko gai. Hartaz hausnartzera eta momentua birbizitzera kondenatuta daude, egoera zein desberdina izan zitekeen pentsatzera kondenatuta daude. Azalpena sustrai kulturekin lotutako beste adibide batekin jantzi daiteke. Talde batek

---

<sup>2</sup> Manterolak (2012), itzulpengintzari buruzko doktore-tesian, *kulturaranzko bira* deitzen dio fenomeno horri, Arroitak (2015) *bira kulturalista* izena ematen dio tesian eta Olaziregik (2020) berriz, *bira kulturala*.

<sup>3</sup> Nietzsche, F. (2018) [1874]. *Sobre la utilidad y el perjuicio de la historia para la vida: segunda consideración intempestiva* (J. B. Linares, Itzul.). Tecnos.

<sup>4</sup> Ginzburgek berak (1994) terminoa azaldu eta haren jatorriaren gaineko azalpenak ematen ditu, besteak beste, Giovanni Levik terminoaz egindako hedapena eta kontzeptuak izandako erabilera azalduz.

ondo errotutako sustrai kulturalak baditu, jakintzat eman ditzake eta ardura handirik gabe jokatu; baina sustrai horiek galduz gero, bilatu egiten ditu. Beraz, Burkeren hitz horietatik uler daiteke galtzaileei eta isildutakoei ahotsa emateko aldarrikapena. Gorago aipatutako memoriaren eztanda hori eragin duten faktoreak asko dira, baina gure testuinguru zehatzari dagokionez, badira gogoan hartu beharreko hainbat datu. Francisco Franco diktadorea 1975ean hil zenetik, eta batez ere 1978an estatu demokratiko baten markoan Espainiar Konstituzioa onartu zenetik, Trantsizioako hasierako urteetan iragan hurbilaren inguruko “ahantzura paktu” moduko bat hedatu zen, 1977ko Espainiako Amnistia Legeari esker hein handi batean (lege horrek Gerra Zibilean eta Frankismoan burututako krimenak salatu eta zigortzea ezinezko egin baitzuen). Iraganera begiratzeak bakea eta demokrazia kolokan jarriko zuen ustea zabaldu zen (gogoraraztekoa da arrakastarik gabeko 1981ko otsailaren 23ko estatu kolpe saiakera) eta zauriak berriz ireki ez zitezten, Trantsizioako Gobernuak ez zuen atzera begiratzeko ahaleginik egin (Resina, 2000; Juliá, 2003; Errazkin, 2009; Arroita eta Otaegi, 2015; Serrano, 2019). 90eko hamarkadaren erdialdera arte eragile kultural eta politikoek ez zuten Gerra Zibilarekiko interes publikorik azaldu eta 1996tik aurrera hasi ziren isiltasun hitzarmena atzean laga eta iraganaren berreskurapenari ekiten. Euskal Herriari dagokionez<sup>5</sup>, fusilatutakoen gorpuen berreskurapena, hobiak ikertu eta aurkitzeko batzordea, biktimekiko zorra aitortzen zuten adierazpenak eta beste etorri ziren gero (Serrano, 2019). Espainiako Bigarren Errepublikaren 75. urteurrenaren harira, 2006a Memoria Historikoaren Urte izendatu zuten, Gerra Zibilaren biktimen eta ondorengo errepresio frankista jasan zuten guztien omenez. Horrekin batera, 2007an Memoria Historikoaren Legea (52/2007 Legea, abenduaren 26koa) jarri zen indarrean, “gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen”. Urte batzuk beranduago, 2022ko urriaren 21ean, Memoria Demokratikoaren Legea (20/2022 Legea, urriaren 19koa) sartu zen indarrean, 2007ko legea ordezkatu zuena. Arestian aipatutako memoriaren eztanda horrek bere isla izan du literaturan (oro har kultur produkzioan) eta hainbat dira iragana gogora ekarri eta jendarteak jasandako gatazka latzenak errepresentatzeko ahalegina egin duten literatur lanak. Euskal letretan ere presentzia nabaria izan dute, batez ere, 1939ko Gerra Zibilak eta euskal gatazkak, eta asko ugaltu dira gai horiek jorratzen dituzten literatur lanen azterketa teorikoak. Gainera, esan daiteke ikerketa horiek ez direla genero literario bakarrera mugatu, eta beraz, euskal literatura barruan panorama zabal baten berri ematen saiatu direla idazleak.

---

<sup>5</sup> Trantsizioaren garapenak Euskal Herrian izan zuten berezitasunetan sakontzeko, interesgarriak dira Mees (2003) eta Llera (2009) ikertzaileen lanak.

## 1.2. Tesiaren egitura

Doktore tesi hau 8 atal nagusitan banatuta dago. Sarrera deitu dudan lehenengo kapituluak ematen dio hasiera. Tesiaren aztergaia HGL den heinean, iruditzen zait lan hau hankamotz geratuko litzatekeela ez banu HGLz beraz hausnartuko. Horixe da bigarren kapituluaren helburua. Bertan, HGLri buruz mintzatuko naiz, berau sistema gisa hartuta. *Haur eta Gazte Literatura* terminoaren definizioak arazoak sortzen ditu, zailtasunak berriazko ezaugarriak zehazterakoan eta baita muga zurrunik ezartzerako orduan ere. Hori horrela, eta arlo honetan adituak diren ikertzaileen arteko erkaketa egin ostean, lan honetan erabiliko dudan definizioa azalduko dut, hau da, HGLz mintzo naizenean nire tesian zein testu motaz hitz egiten dudan argituko dut. Horrekin batera, kritika literarioaren egoeraz eta irisgarritasunaz arituko naiz eta euskal HGL hizpide hartu duten tesi lanak erreparatuko ditut. Nire corpusa osatzen duten obrek, gozamina sortzeaz gain, beste hainbat funtzio bete ditzakete eta horri ere lerro batzuk eskainiko dizkiot. Bigarren atal horri itxiera emateko, errealismoak, eta bereziki errealismo kritikoak, HGLn izan duen garrantzia azpimarratuko dut eta azalduko dut korrante horrek berrikuntza nabarmena ekarri ziola euskal HGLri, gaien aldetik eta gai horiek lantzeko moduagatik batez ere. Injustizia, arrazakeria, askatasuna, indarkeria, heriotza, gerra edo gatazka armatua bezalako gaiak agertzen hasi ziren, eta azalduko dudan moduan, korrante horren bitartez, hain zuzen, landu dituzte euskal idazleek Euskal Herriak bizi izan dituen gatazka armatuak, besteak beste, Gerra Zibila eta euskal gatazka.

Hirugarren kapituluak, euskal gatazkaz arituko naiz. Adiera eta ertz asko dituen terminoa izanik, hura definitzen eta mugatzen ahaleginduko naiz. Horrekin batera, euskal gatazkaren kronologia arin bat marraztuko dut, azalpen horrek tesiko corpuseko obrak hobeto testuinguratzen lagunduko duelakoan; eta era berean, corpusean agertzen diren eta euskal gatazkarekin zuzenean lotuta dauden gertakariak azalduko ditut. Laugarren kapituluak, memoria historikoa eskolan lantzeko egin diren proposamen didaktikoak izango ditut hizpide.

Bosgarren kapituluak, marko teoriko metodologikoa zehaztuko dut. Memoria Ikasketetatik bideratu dut tesi hau eta bertan erabiltzen diren kontzeptuak azalduko ditut, lanean zehar hainbat aldiz egingo baitiet erreferentzia horiei. Azalpen terminologikoez gain, Memoria Ikasketetan HGLren azterketa txertatzeko beharra eta egokitasuna azpimarratuko dut. Ezin aipatu gabe utzi analisi oro genero begirada batetik bideratu dudala eta horretarako, Genero Ikasketetatik ere hurbilduko naiz testuetara. Literatur lanetako pertsonaiak aztertzeko

baliatuko dudan ereduaz azalduko dut Genero Ikasketei eskainitako azpiatalean. Hori guztia, noski, narratologiak eskaintzen dituen analisi metodoekin uztartuko dut, corpusa literatur testuez osatuta egoteak hori eskatzen baitu ezinbestean. Kontzeptu, analisi sistema eta ikuspuntu metodologiko horien guztien gurutzaketarekin osatu dudana eskema ezagutzera emango dut, liburuen analisirako baliatutako jarraibide-orria hain zuzen. Ikuspuntu metodologiko batetik aztertuta, tesi lan honek bi norabide ditu, kuantitatiboa edo analitikoa batetik, eta kualitatiboa edo interpretatiboa bestetik. Hau da, Euskal Herriak bizi izan dituen gatazka armatuak hizpide dituzten HGL lanak bildu, sailkatu eta azterketa zientifikoa egiteaz gain, horien interpretazioa eta balorazioa eskaintzen dut, betiere nire ondorioak aurrekari izan diren ikerlanekin erkatuz.

Seigarren kapituluak corpusaren azterketa dakar. Bertan, liburuak aurkeztu eta gaika sailkatu ostean, bana-banako analisi kritikoa eskainiko dut. Batetik, ipuin edo liburu bakoitzari buruzko laburpen txiki bat eskainiko dut, berau irakurri ez duenak kontakizunaren nondik norakoak ezagutu ditzan. Bestetik, harrera kritikoari erreparatuko diot eta jarraian, obraren analisi narratologikoa eskainiko, besteak beste, kontakizunak espazio eta denboran kokatuz edo narratzaile zein pertsonaia nagusienak azalduz. Horrekin batera, Memoria Ikasketetan ohikoa den hurbilpena neure eginez, obraren testuinguru historikoaren errepresentazioa aztertuko dut. Atal honetan narrazioan ageri diren memoria guneak edo transmititzen diren memoria motak azalduko ditut, baina lotura intertestualei ere erreparatuko diet. Aztergai ditudan gerra edo gatazkak gai zentral gisa agertu ordez aipamen huts gisa ageri direnean, eskainitako analisisia ez da hain zatikatua izango eta argumentuaren laburpena eta gatazkaren zein alderdi aipatzen den azaltzera mugatuko naiz. Aurreratu nahi dut kapitulu hau oso deskriptiboa izango dela, mamitsua, testu bakoitzaren baliabide guztiak azaltzea izango baitut helburu. Corpusaren analisi kritikoaren sintesia ordea, hau da, ikerketa marduletik lortutako emaitza esanguratsuenak, zazpigarren kapituluaren eskainiko ditut, emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartuz.

Zortzigarren atal bat atondu dut ondorioekin batera etorkizuneko ikerketen aurrekariak iradokitzeke; izan ere, tesi lan honetan galdera batzuk erantzun ditut, baina ulertzen dudanez, ikertzea bera galdera berriak egitea da. Hori horrela izanik, tesi honen azken hitzak hurrengo ikerketen abiapuntu izatea gustatuko litzaidake. Eranskin gisa apailatutako memoria historikoari buruzko HGLko obraren katalogoak ematen dio itxiera Euskal Herriko gatazka armatuen irudikapenak euskal HGLn ikertzea helburu nagusi duen tesi lan honi.

### 1.3. Aurrekariak

Aurreko atalean ahotan hartutako azterketa teoriko horiek izan dira tesi lan honen aurrekari izan direnak, gaian murgiltzeko eta lehen pausoa emateko bidelagun izan ditudanak. Jarraian datozen lerroetan aipatuko ditut horietako batzuk.

Lehenik eta behin, Xabier Etxanizen hainbat lan aipatu beharko nituzke. Etxaniz irakaslea aspaldidanik ibili da (euskal) HGLren gainean ikertzen eta bere liburuetan noiz edo noiz aipatu izan du Euskal Herriak bizitako gerrak hizpide izan duen obrarik. Euskal HGLren historia eskaintzen duen bere doktore-tesian (1996), errealismo kritikoak HGLn izan duen eragina aztertzen du eta korrante horren bitartez euskal HGLra askatasunik eza, militarizazioa, bakea eta bestelako gaiak iritsi direla baieztatzen du. Gaikako sailkapen bat egiten du eta aipatzen dituen liburuen artean, tesi honetan azterkizun diren obra batzuk aipatzen ditu: Frankismoarekin lotu daitekeen eta Iharrak idatzitako *Herrialde berdea* (1974) obra, karlistaldien aipamen txiki bat duen Lurdes Iriondoren *Buruntza azpian* (1979) antzezlan, Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), Patxi Zubizarretaren *1948ko uda* (1994) edo modu sinbolikoan bada ere euskal gatazkarekin lotu daitekeen Zubizarretaren *Marigorringoak hegan* (1994). Tesi horren ondoren argitaratutako hainbat lanetan (1997, 2004a) ere aurki daitezke zerrenda labur batzuk, aurreko corpusa osatzeko balio dutenak: Xabier Agurrutzak idatzitako *Pike eta Pitito* (1994), Frankismoa islaturik ageri den eta Javi Cillerok idatzia den *Eddy Merckxen gorpila* (1994), guda karlistak atzeko plano gisa dituen Pako Aristiren *Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?* (1996) eta Atxagaren *Sara izeneko gizona* (1996) nobela; Joxerra Garziaren *Tunelaz bestaldean* (2000), gatazka ukitzen duten Juan Luis Zabalaren *Harri barruko bihotz-borrokak* (1999), Xabier Mendigurenen *Txakurraren alaba* (2000), Ramon Saizarbitoriaren *Kandinskyren tradizioa* (2003) eta Zubizarretaren *Pikolo* (2008). Etxanizek (2004: 93) aipatzen duenez, arestian zerrendatutako obra fantastiko edo errealista horietan, besteak beste, irakurlearen hausnarketa bilatzen da eta ezaugarri komun bat errepikatzen da: biolentziarik gabeko askatasun espazio berriak bilatzeko beharra. Horrez gain, egoera biolentoen errepresentazioak euskal HGLn helburu ideologiko garbia duela azpimarratzen du.

2005ean *Mundos en conflicto: Representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil* liburua kaleratu zen, Veljka Ruzicka Kenfel, Celia Vázquez eta Lourdes Lorenzoren koordinaziopean. Hainbat ikertzailearen lan bilduma bat da eta HGLn aditu den Peter Hunt literatur kritikariaren artikuluak ematen dio hasiera. Bertan

tesi lan honen ernamuin izan den ideia baten defentsa egiten da, Hunttek aldarrikatzen baitu haur eta gazteei ezin zaiela gerrari buruzko ezagutza ezkutatu. Horrekin batera, gerrari buruzko zein informazio eman, nola eta zergatik galderei erantzuten saiatzen da. Euskal HGLri dagokionez, Etxanizen artikulua labur bat aurki daiteke, zeinetan HGLn indarkeriak oro har izan duen agerpenaz hitz egiten duen. Euskal Herritik kanpo kokatutako gatazkez mintzo diren zenbait obra aipatzeaz gain, euskal HGLko *Gerturik daukagu odola* (1999) aipatzen du, Joxean Sagastizabalen banpiroen inguruko nobela fantastikoa, zeinetan biolentziaren erabileraren ikuspegi kritikoa eskaintzen den. 2006an, Kenfel, Vázquez eta Lorenzoren ediziopean, HGLri buruzko hainbat artikulua biltzen dituen monografikoa kaleratu zuen ANILIJ (Asociación Nacional de Investigación en Literatura Infantil y Juvenil)<sup>6</sup> elkarteak. Bertan, Mari Jose Olaziregik artikulua bat eskaini zion ETArekin indarkeriaz mintzo den euskal HGLri. Ikuspegi orokor bat eman ondoren eta helduentzako fikziozko lanak zerrendatu ondoren, irakurleari galdetzen dio ea azken hamarkadetan biolentzia politikoa eta terrorismoa gai nagusi bihurtu den HGLn. Olaziregik ezetz esaten du, ez behintzat anglo-amerikar kulturaren edo Ipar Irlandan gatazka HGL lanetan ageri den neurri berean. Azaltzen duen moduan, egungo euskal HGLn errealismo kritikoa gailendu arren, espero baino txikiagoa da indarkeria politikoaren gaia ukitzen duten lanen kopurua. Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) aipatzen du Olaziregik, eta 1997an defendatutako bere doktore-tesian egindako ikerketan oinarrituta, baieztatzen du liburu hori gazteen 10 liburu gogokoenen zerrendan aurkitzen dela. Horrekin batera, Etxanizen lana hartzen du ahotan errepikatuko ez ditudan izenburuen berri emateko eta Joseba Sarrionandiaren *Ainhoari gutunak* (1990), Juan Luis Zabalaren *Harri barruko bihotz borrokak* (1999) eta Xabier Mendigurenen *Txakurraren alaba* (2000) iruzkintzen ditu laburki.

2006an, Ibon Egañak eta Edu Zelaietak koordinatutako *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan* liburua argitaratu zen, zeinetan hainbat idazlek eta kritikariek euskal gatazka euskal literaturan izan duen presentzia aztertzen duten. Euskal literaturaz hitz egiten da oro har eta ez da berariaz aipatzen HGL. Dena den, liburua biziki interesgarria da gatazka kontzeptuaz beraz hausnartzen delako, baita gaiaz idazteko edo ez idazteko dauden arrazoiez eztabaidatzen delako ere. Bidenabar, ezin aipatu gabe utzi urtebete lehenago, Egañak artikulua bat eskaini ziola euskal gatazkari buruzko euskal literaturari *Cuadernos de Alzate: revista*

---

<sup>6</sup> ANILIJ HGLn aditu diren Espainiako ikertzaileak biltzen dituen elkarte da. Haien webgunean (<http://anilij.uvigo.es/>) irakur daitekeen moduan, elkartearen helburua HGLri buruzko diziplinarteko ikerketak bultzatzea da, hala nazio mailan nola nazioarteko testuinguruan. Haien ekarpenak, besteak beste, ANILIJ (Anuario de Investigación en Literatura Infantil y Juvenil) izeneko aldizkarian ematen dituzte jakitera.

*vasca de la cultura y las ideas* aldizkariaren 32. zenbakian (“Despertando del letargo. Identidad, conflicto, literatura”), gaiari buruzko helduentzako liburu aipagarri batzuei buruzko irakurketa pertsonala emanaz. 2009an, eta Ana Toledoren koordinaziopean, *Gerra Zibila eta euskal literatura* obra eman zen argitara Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian. Bertako edukia, urtebete lehenago antolatutako uda-ikastaroan esandakoek osatu zuten. Lan monografiko horretan Jon Kortazarrek Gerra Zibilarekin lotutako euskal kontagintza du aztergai, eta hainbat izenbururen artean, HGLko klasiko bihurtu den *Behi euskaldun baten memoriak* aipatzen du. Liburuan parte hartu zuten gainerako egileek berriz, literatur lanen zerrendak aipatzen dituzte, baina horietan ez dago HGLrentzako kabidarik. Urte batzuk beranduago, 2011n, Asier Barandiaranek *Gatazka Nafarroako euskal literaturan* liburua argitaratu zuen. Liburu horrek euskal gatazkaren gaia euskaraz ari diren egile nafarrek nola baliatu duten aztertzen du. Narrazioa, poesia eta bat-bateko bertsolaritza ditu aztergai (gatazkaz diharduten 17 eleberri, 19 poema-liburu eta 4 bertsolariren bertsoak zerrendatzen ditu) eta HGLko obrarik aipatzen ez duen arren, nire tesiari begira, Barandiaranen lana interesgarria da *gatazka* terminoaz hausnarketa egiten duelako eta kontzeptu zabal horrek dituen ertz batzuk ikusarazten dituelako. Lanean aurrerago zehaztuko dut zer ulertzen dudan *euskal gatazka* terminoa erabiltzen dudanean.

Beste aldetik, 2011n, Mari Jose Olaziregiren zuzendaritzapean, *Literaturas Ibéricas y memoria histórica* liburua eman zen argitara RIEV monografiko gisara, Gerra Zibilarekin lotutako memoria historikoari buruzko nazioarteko mintegitik eratorritako lana. Bertan, iberiar literaturetako memoria historikoari buruzko etorkizuneko ikerketen gaineko hausnarketa teoriko metodologikoak aurki daitezke, baita eremu iberiarreko literaturetako diskurtso memorialistikoaren gaineko ikerketa kritikoa ere. Euskal literaturari dagokionez, Gerra Zibilaz zein euskal gatazkaz idatzi duten Bernardo Atxagaren eta Ramon Saizarbitoriaren lanak aztertzen dira, eta hainbat lan iruzkindu arren, HGLri dagokionez *Behi euskaldun baten memoriak* aipamen hutsa baino ez dakar monografikoak. Mintzagai dudan liburu kolektibo honetan, Olaziregi eta Otaegi bat datoz baieztatzean Euskal Herriak jasandako gerretatik Gerra Zibila dela diskurtso memoristiko handiena sortu duena. Gehitzen dutenez, 80ko hamarkadan kaleratutako hainbat nobela aipagarriren ostean, 90eko hamarkadatik aurrera izan zuten gorakada garbia Gerra Zibilari buruzko euskal nobelek. Aipatutako monografikoa oso garrantzitsua izan zen, besteak beste, bertatik eratorri baitziren Red de Investigadores sobre la Memoria Histórica en las Literaturas Ibéricas ikertzaile-sarea, Olaziregi buru duena eta, 2 urte beranduago, MHLI ikertaldea, Memoria Historikoa Literatura

Iberiarretan, Eusko Jaurlaritzak 2013an deitutako ikertaldeentzako diru-laguntzetara lehenengoz aurkeztu zena<sup>7</sup>. Dena den, 2011n, oraindik ere jarraian datozen honako adierazpen hauek egin zituzten Xabier Etxanizek eta José Manuel López Gasenik euskaraz idatzitako HGLz mintzo zirela: “Baina indarkeriak, gure artean garrantzia izan badu 1936ko gerra eta azken hamarkadetan bizi dugun egoeragatik izan da. Hala ere, oso obra gutxi idatzi dira euskarazko haurrentzat gerra horren inguruan eta gaur egungo errealitateaz” (2011: 38). ETA erakundeak armak utzi zituen urtean, oraindik ere, hutsunea nabari zuten ikertzaileek HGLn euskal gatazkaren lanketari dagokionez. Urte berean, Gerra Zibila eta euskal literatura hizpide hartu zuen *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas* aldizkariaren 45. zenbakiak. Gaiari buruzko hainbat artikulu aurki daitezke bertan eta Etxaniz eta López Gaseni arduratu ziren, beste behin, HGLri zegokion atala ontzeaz. Gerra Zibilari eta euskal gatazkari buruzko HGL obra batzuk aipatzen dituzte (aurreko urteetako lanetan aipatutakoak) eta horrez gain, helduen literaturakoak diren baina gazteek irabazitako literaturatzat har litezkeen obra batzuk daudela iradokitzen dute, Iñaki Alkain eta Antonio Zavalaren *Gerrateko ibillerak* (1982) liburua adibide gisa emanez.

2012an Jon Kortazarrek eta Amaia Serranok koordinatutako *Gatazken lorratzak* liburua kaleratu zen, zeinetan 1936ko Gerra Zibilak eta euskal gatazkek euskal literaturan izandako eragina aztertzen den. Bertan, “1936ko gerra euskal haur eta gazte literaturan” izena daraman bigarren artikuluan, Etxanizek eta López Gasenik HGLn gaia nola landu den aztertu zuten. Egile berberak izenburu bera daraman artikulu luzeago bat argitaratu zuten 2008an Xerais argitaletxeak kaleratu zuen *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil* liburuan. Aipatutako obra hau, editore gisa Blanca Ana Roig, Pedro Lucas eta Isabel Soto dituen, biziki interesgarria da, izan ere, LIJMI (Literatura Infantil y Juvenil del Marco Ibérico e Iberoamericano)<sup>8</sup> ikertaldeko kideek Espainiako Gerra Zibilak HGLn izan duen eraginari buruz idatzitako zenbait artikulu biltzen ditu. Olaziregirena da sarrera artikulua eta bertan, (iberiar literatura oro har hartuta) proposamen literario zein kritikoek planteatu duten iraganaren berraztertze eta berregitea benetan garrantzitsua eta iradokitzailea izan dela baieztatzen du. Gaineratzen duenez, gaiak erakargarritasuna izaten jarraitzen du gaur egun ere eta Gerra Zibila gazte nobela entzutetsu zenbaiten ardatz tematiko gisa eraikia izan da. Hala ere, aitortzen du agian HGLren gainean ezartzen den kontrol pedagogiko eta moralak eragina

---

<sup>7</sup> Ikertaldearen webgunean (<https://mhli.net/>) aurki daiteke, besteak beste, taldearen aurkezpena, kide bakoitzaren informazioa, proiektuak eta argitalpenak.

<sup>8</sup> LIJMI Iberiar penintsulako eta Iberoamerikako HGL aztertzen duten ikertzaileen sarea da. Haien ikerketak, besteak beste, Xerais argitaletxeak argitaratzen dituen monografikoetan aurki daitezke: <https://www.xerais.gal/autores.php?tipo=autores&id=100012939>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].



izan duela gerrak oro har landu dituzten testuen bakantasunean. Ez hori bakarrik, HGLn Gerra Zibilaren presentzia aztertzen duten lan kritikoaren katalogoa oso txikia dela azpimarratzen du. Etxaniz eta López Gasenik, goian aipatutako izenburua daraman artikuluan, Olaziregiren bide beretik jotzen dute. Diotenez, ez dira asko euskal HGLn 1936ko gerrari edo gerraosteari buruzko obrak, baina helduen literaturan gertatu den bezala, azken urteotan hainbat lan argitaratzen hasi direla gaineratzen dute. Adibide gisa lan honetan aztertuko dudan Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) eta Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2006) nobelak aipatzen dituzte eta biei artikulua labur bana eskaintzen zaie liburuan. Euskal Herriko gatazkaz ere gauza bertsua iradokitzen dute, alegia, lan gutxi ageri direla HGLn. Iruzkintzen ez diren arren, Etxaniz eta López Gasenik nola edo hala 1936ko gerra ukitzen duten beste 3 obra zerrendatzen dituzte: Patxi Zubizarretaren *Emakume sugearen misterioa* (1993) eta *1948ko uda* (1994), eta Koldo Izagirreraren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (1991). Horrez gain, Karlistaldiekin lotutako Pako Aristiren *Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?* (1996) nobela, eta Bernardo Atxagaren *Sara izeneko gizona* (1996) aipatzen dituzte. Azkenik, euskal gatazkarekin lotutako *Kandiskyren tradizioa* (2003), Ramon Saizarbitoriarena; Mariasun Landaren *Nire eskua zurean* (1995); Joxerra Gartziaeren *Tunelaz bestaldean* (2000) eta Xabier Mendigurenen *Txakurraren alaba* (2000) aipatzen dituzte. Mintzagai dudan liburu kolektibo honetan, hainbat hizkuntzatan idatzitako literatur lanak aipatzen dira (euskaraz, galizieraz, katalanez, gaztelaniaz, alemanez eta portugesez). Zehatzago esateko, Gerra Zibilaz mintzo diren 73 liburuz osatutako hautaketa bat aurkezten dute. Horietatik 16 lan iruzkintzen dira sakonago, tartean, eta nire tesiaren helburuari begira garrantzitsuenak, *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Urtebete itsasargian*. 2012an, aurreko lerroetan aipatu berri dudan monografikoaren hedapena den liburu bat argitaratu zen, gaztelaniaz, Blanca Ana Roig, Veljka Ruzicka Kenfel eta Ana Margarida Ramosen zuzendaritzapean, *La guerra civil española en la narrativa infantil y juvenil (1936-2008)* izenburuarekin. Euskal liburuak Olaziregik hautatu zituen. 1936 eta 2008 bitartean Gerra Zibilari buruz espainiar estatuan zein atzerrian hainbat hizkuntzatan kaleratutako liburuak epeka sailkatu eta zerrenda luzea (167 guztira) eskaintzen dute: 1936-1940 urteen tartean 15 lan, 1940-1960 bitartean 6, 1960-1975 epealdian 9, 1975-1980 bitartean 2, 1980 eta 1990 epealdian 25, 1990-2000 tartean 36 eta 2000tik 2008ra doan epean berriz, 74 literatur lan. Euskal HGLri dagokionez, egileek hiru obra baino ez dituzte aipatzen, gorago aipatutako *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Urtebete itsasargian* eta Patxi Zubizarretaren *1948ko uda* (1994).

Bada *Euskal gatazka haur eta gazte literaturan* izeneko 140 bat orrialdeko lan bat, 2012an Eztitxu Albisturrek egindakoa, master amaierako lan bat; baina argitaratuta ez dagoena. Berau Ur Apalategi irakasle eta idazleak zuzendua da. Lan horretan, HGLko bi obra aztertzen dira, frantsesezko *Terreur Muette* (2004), gaztelaniazko bertsioan *Amordazados* izenburupean, Santiago Herraizena; eta euskarazko *Pikolo* (2008), Patxi Zubizarretarena, nire tesi lan honetan sakonki aztertuko dudana aurrerago. Albisturrek, euskal gatazkaz ari dela, haurrek euskal gatazkaren berri izateko eskubidea aldarrikatzen du eta honakoa ondorioztatzen du: “Euskal haur eta gazte literaturak, izigarri gutxi aipatu du, konfliktu hori. Oro har espainol haur eta gazte literaturak ere” (31). Beraz, Albisturren arabera, oso gutxi aipatu da euskal gatazka euskal HGLn eta espainiar HGLn. 2015ean, Unai Dominguezek, Txabi Arnal irakaslearen zuzendaritzapean, “Euskal Herriko gatazka politikoa. Haur eta gazte literaturaren tabuak” izeneko gradu amaierako lana ondu zuen. UPV/EHUko lan horrek 30 orrialde besterik ez ditu eta espero den moduan, ez du gaia sakontasun handiz lantzen. HGLn euskal gatazka gutxi landu dela aipatzen du egileak eta ikerketak oso urriak direla. Oso zabal jokaturik Euskal Herriko gatazkarekin edo gerraren batekin lot litezkeen zortzi obrak osatutako corpusa aurkezten du Dominguezek: *Marigorringoak hegan* (1994), *Pike eta Pitito* (1994), *Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?* (1996), *Eddy Merckxen gurpila* (1994), *Harri barruko bihotz-borrokak* (1999), *Amona, zure Iholdi* (2000), *Txakurraren alaba* (2000) eta *Pikolo* (2008). Ikusten denez, gradu eta master amaierako lanetan ez da askotan landu azterkizun dudana gaia eta landu den kasuetan, memoria historikoak oro har HGLn duen errepresentazio urria azpimarratu da behin eta berriro.

2014. urtean, *The Representations of the Spanish Civil War in European Children's Literature (1975-2008)* izenburupeko liburua argitaratu zen, MINECOk babestutako nazioarteko ikerketa egitasmoaren fruitu. Hemen ere gaia lantzen duten obrak aipatzen dira eta 2012ko liburuarekin alderatuta, euskal HGLri dagokionez, zerrendan ez da izenburu berririk ematen. Sarrera baten ostean, hiru kapitulu nagusitan banatuta dago liburua. Lehenengo kapituluak, “The Representations of the Spanish Civil War in Children and Young Adult's Narrative in the Languages of the Spanish State” izena daramanak, zortzi artikulua barnebiltzen ditu. Olaziregirena da artikulua horietako bat: “Gernika Revisited: Representation of the Spanish Civil War in Basque Children and Young Adult's Literature”. Bertan, Gerra Zibilak eta memoria historikoak HGLn izan duten presentziaz jarduten da Olaziregi eta dioenez, oro har berantiarra izan da euskal literatura Gerra Zibilaren gaiari heltzerako orduan, eta hala izan da ere euskal HGLn (bi euskal obra aipatzen ditu: *Behi euskaldun baten*

*memoriak* (1991) eta *Urtebete itsasargian* (2006)). Bigarren kapituluak bederatzi artikulua biltzen ditu eta Gerra Zibilaren errepresentazioak aztertzen ditu haur eta gazteei zuzendutako narratiban, baina Espainiar Estatukoak ez diren beste hizkuntza europarretan zentratuz (alemanieraz, ingelesez, frantsesez edo portugesez idatzitakoetan, besteak beste). Hirugarren eta azken kapituluak, espainiar HGLko iruditeria hartzen dute aztergai egileek. Lehenengo, Gerra Zibilaren garaian lan egin zuten espainiar artisten lanik enblematikoenak aurkeztu eta ezaugarriak aipatzen dira. Jarraian, gerrari buruzko iruditeriak haurrengan duen eragina aztertzen da, baita argitaletxeek erabilitako irizpideak liburuetako azalen irudiak hautatzerakoan. Horrez gain, hautatutako liburuetako irudiak aztertzen dira.

2015ean, Izaro Arroita eta Lourdes Otaegiren zuzendaritzapean, *Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontraera historiko-politikoak* izeneko liburua eman zen argitara. Bereziki XX. eta XXI. mende hasierako euskal kulturaren eta eremu iberiarraren esparruetan Memoria Historikoaren kultur errepresentazioak ikertzea helburu duen Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikerketa taldearen ekimenez kaleratutako monografikoa da. Euskal Ikasketen arloan Kultur Ikasketek, eta zehazki Memoria Ikasketek, zein toki duten azaltzen dute egileek eta Gerra Zibileko zein euskal gatazkako memoria lekuen azterketari ekiteko ikuspegi kritiko eta anitza eskaintzen dute. Memoria historikoaren ikuspuntutik egindako lan, ikastaro eta mintegi ugari aipatzen dira liburuan, baita gerra edo euskal gatazkari buruzko literatur lanak ere. Esanguratsua da, besteak beste, Mikel Ayerbek Iban Zalduaren ipuingintzari buruz egindako artikulua, zeinetan argudiatzen duen euskal gatazkaren gaiak alderik alde zeharkatzen duela Zalduaren narratiba, Ayerbek (2019) beste lan batzuetan ere frogatu duena. Arroita eta Otaegik koordinatutako liburu honetan ez da HGL berariaz aztertzen eta haur eta gazteei zuzendutako obra bakarra aipatzen da, Zalduaren *Azken garaipena* (2011). Dena den, tesi hau Memoria Ikasketetatik bideratu dudan neurrian, Arroita eta Otaegik koordinatutako liburua nire ikerketaren abiapuntu izan da, gaiaz zer egin den eta nola egin den jakiteko lagungarri izan baita. 2015ean, Lorea Agirrerren zuzendaritzapean, *Jakin* aldizkariak euskal gatazkari buruzko monografikoa argitaratu zuen eta liburua osatu zuten ikertzaileek euskal gatazkari heldu zioten diziplina anitzetatik, besteak beste, literaturatik, artetik, musikatik, kazetaritzatik, zinemagintzatik edo feminismitik. Eremu horietan gatazka nola islatu den izan zuten hizpide egileek. Ibon Egaña arduratu zen euskal literaturari dagokion atala egiteaz eta ahotan hartzen dituen obra eta erreferentzia guztiak helduen nobelak diren arren, euskal gatazkaren errepresentazioari buruz eta errealismo korronteari buruz ateratzen dituen ondorioak oso

esanguratsuak dira gai berari buruz HGLn gertatzen denarekin alderatzeko. 2000. urtetik 2015a arte kaleratutako euskal nobelak gatazka nola landu duen ikertzea helburu duen artikulua horretan, Egañak baieztatzen du 2011n ETAk ekintza armatuari amaiera emateko erabakiak eragina izan duela gaiari buruzko obren ugaltzean. Ugaritze hori zalantzan jarri bada helduen literaturan (ikus Olaziregi, 2019a), HGLren kasuan frogatzeke dago balizko ugaltze horrek ezaugarri berberak dituen kronologia aldetik eta ezaugarri kualitatiboek dagokienez. Gatazkaz ari naizela, baliagarria da Zuriñe Rodríguezek feminismitik gaiari buruz egindako irakurketa. Bere artikuluan aurkeztzen duen ikuspegia biziki interesgarria da tesiko corpuseko pertsonaien azterketa egiteko, baita Rodríguezek Oihana Etxebarrietarekin (2016) batera argitara emandako laneko ekarpenak ere. Bide batez, tesi lan honetan zinemagintza landuko ez dudan arren, interesgarria da zinez Josu Martínez zinemagile eta ikertzailearen atala. Bertan, uste orokortuaren aurka, frogatzen du ez dela egia euskal gatazka zineman gutxi landu denik eta Santiago De Pablo historialariaren (2012) lana erreferentziatuz, azpimarratzen du badirela gaiari buruzko 50 bat film luze, 100 labur eta telefilm gutxienez. Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta katalanezko hainbat film iruzkintzen ditu Martínezek, gaiari buruz ekoitzi diren produktuen aniztasuna frogatzeko<sup>9</sup>.

2016an, Riita Oittinenek eta Blanca Ana Roigek koordinatua eta ANILIJ elkartearen osatzen duten beste hainbat ikertzaileekin batera, *A Grey Background in Children's Literature: Death, Shipwreck, War, and Disasters / Literatura infantil y juvenil con fondo gris: muerte, naufragios, guerras y desastres* izeneko liburua kaleratu zen. Monografiko horretan, heriotza, gerrak, naufragioak eta bestelako hondamendiak gaitzat hartzen dituzten HGLko obren hautaketa bat eskaintzen dute egileek eta gaiaren inguruko hausnarketak plazaratzen dituzte. Iberiar Penintsulan argitaratutako HGL aztertzen da eta artikulugileen artean bada euskal HGL aztertzeri dedikatzen den ikertzailearik. Dena den, ez da gerra hizpide duen euskarazko obrarik aztertzen, nahiz eta monografikoko egileek darabilten ikuspuntu teoriko metodologikoa baliagarri izan tesiko corpusari heltzeko. 2016an, *Reflexos das duas Guerras Mundiais na LIX* liburua kaleratu zen, Blanca Ana Roig, Isabel Soto eta Marta Neiraren ediziopean. Euskal HGLz arduratzen den atala, "Mundu-gerrak euskal HGL-n: itzulpenaren nagusitasuna" izeneko, Xabier Etxanizek egin zuen. Ikertzaileak dioenez, Bigarren Mundu Gerrari buruzko obrak itzulpen bidez sartu dira euskal HGLn eta Lehen

---

<sup>9</sup> Zinemaz ari naizela, interesgarria da Ander Goikoetxeak 2021ean UPV/EHU defendatutako doktore-tesia: *Memoria historikoa XXI. mendeko zineman. II. Errepublikak, guda zibila eta gerraosteko irudikapena Espainiar Estatuaren ikus-entzunezko fikzioetan*. Tesi horren helburua memoria historikoa jorratzen duten azken mende honetako fikziozko filmak aztertu eta zein oroimen historiko mota helarazten duten ikertzea da.

Mundu Gerrari buruzkoak berriz, irabazitako literatura barnean kokatzen dira. Tesiko corpusean ordea, bada berariaz HGL gisa eta jatorriz euskaraz argitaratutako obrarik, aurrerago erakutsiko dudan moduan. 2017an, Carmen Franco-Vázquez eta Blanca Ana Roigek koordinatutako *Educación literaria y artística: conflictos sociales y bélicos* liburua kaleratu zen. Gatazka sozial eta belikoak HGLn nola errepresentatu diren aztertzen duten hainbat ikerketek osatua dago liburua. Gerrak, biolentzia, arrazakeria, inmigrazio ilegala, tratatu txarrak, abusuak, sexu-jazarpena eta bestelako gatazkak hizpide dituzten lanak aztertzen dira eta euskal HGLz hitz egiten ez den arren, liburua bera baliagarria izan da tesiko corpusaren azterketa kritikoari heltzeko.

2019an Amaia Serranok “1936ko gerra euskal nobelagintzan: memoria ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik” izenburupean aurkeztu zuen doktore-tesia. Ikertzaileak euskal historiografia literarioak (ikus Olaziregi, 2009, besteak beste) etengabe errepikatu dituen datak eta argitalpenak errepikatu zituen eta hala, Gerra Zibilari buruzko aurreneko euskarazko nobelak 1937 eta 1957 urteen bitartean plazaratu zirela gogoratu: *Loretxo* (1937), *Ekaitzpean* (1948), *Bizia garratza da* (1950) eta *Laztantzua eta Betargi* (1957). 1937koa salbu, gainerako guztiak Hego Euskal Herritik kanpo argitaratuak (idazleen erbestealdiagatik edo zentsura saihesteagatik), eta guztiak helduei zuzendutakoak. Serranok baieztatzen duen moduan, “36ko Gerrari buruzko euskal eleberrigintzaren ibilbide historikoa, oro har, oroitzapen prozesu publikoekin bat etorri da, nobela kopuruari dagokionez” (409-410). Gaiari buruzko diskurtsoari dagokionez, eleberrien azterketetatik ondorioztatzen du askotariko ahotsak agertzen direla, ideologikoki ezberdin pentsatzen duten pertsonaiak eta diskurtsoak ageri baitira. Dena den, aztertzen eta aipatzen dituen literatur lan guztiak helduen literaturakoak dira eta beraz, faltan nabari da HGLko ekarpenen gaineko erreferentziaren bat, ikuspegi aniztasun hori haur eta gazteei zuzendutako nobeletan ere betetzen den jakiteko. Serranok genero arrakalari buruz ondorioztatzen duena interesgarria da HGLn betetzen den ikusteko. Aztertu dituen obretan emakume eta gizon irudikapenak ez dira berdin eraiki: Gizonezkoek dute, oro har, narrazioaren ardura eta haiek dira biktima nagusi. Emakume gehienak (biktima) pasiboak eta bigarren mailakoak dira. Ahots narratiboa emakumeen esku dagoenetan emakumeen aurkako jazarpen esplizituagoa ageri da. Esan bezala, aztertzeke geratzen da ezaugarri hori HGLn betetzen den ala ez. Amaierako ondorio orokorretan, Serranok paragrafo labur bat eskaintzen dio euskal HGLri eta gazteei zuzendutako obrak aztertzeak duen interesa azpimarratzen du, 5 izenburu aipatzearekin batera: Martin Ugaldere *Itzulera baten historia* (1990), zeinetan aurreneko aldiz hartzen duen neska gazte batek ahots

narratiboa; Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da* (2003), Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2006) eta Patxi Zubizarretaren *Hiru gutun Iruñetik* (2012). Ugalderena ez da berariaz HGL eta gauza bera esan daiteke Sarrionandiaren eta Zubizarretaren lanaz.

2019an Eider Rodriguezek artikulu bat eskaini zion gatazka hizpide duten helduen literaturako hiru libururi, baina bidenabar bada ere, lerro batzuk eskaintzen dizkio HGLri. Dioenez, Jonan Aranguren eta Jose Benitoren *Herrialde berdea* (1974) albumaz gain, 1990. urtean hasten dira euskal gatazkari buruzko obrak argitaratzen eta horren adibide gisa honako lanak aipatzen ditu: Joseba Sarrionandiaren *Ainhoari gutunak* (1990), Javi Cilleroren *Eddy Merckxen gorpila* (1994), Patxi Zubizarretaren *Marigorringoak hegan* (1994) eta *Pikolo* (2008), Xabier Agurrutzaren *Pike eta Pitito* (1994), Pako Aristiren *Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?* (1996), Mariasun Landaren *Amona, zure Iholdi* (2000), eta Xabier Mendigurenen *Txakurraren alaba* (2000). HGLko izenburu horiez gain, 2000. urtetik aurrera plazaratutako helduen literaturako zerrenda mamitsua eskaintzen du. Olaziregik (2020a) berriro heldu zion gaiari artikulu batean. Iragan gatazkatsu eta traumatikoa berreskuratzeko xedeari heldu dion fikzio garaikideak garrantzi berezia lortu duela adarrikatzen du. Sintesi lan baten ondorio den artikulu labur honetan, Olaziregik Gerra Zibila eta euskal gatazka (baita bi Mundu Gerrak ere) euskal narratibak nola eta zein asmorekin errepresentatu dituen aztertzen du. HGLn kokatutako obrei dagokienez, Eneko Bidegainen *Anbroxio* (2002) eleberria hartzen du mintzagai, baita Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2006) ere. Obra hori jotzen du azken hamarkadetan ugaritu diren idazle femeninoen memoria historikoari buruzko eleberrien adibide eredugarritzat.

Euskal Ikasketetan, ezaguna da exiliatutako hainbat idazlek atzerritik ekin ziotela euskarazko lanak idazteari eta dagokigun gaiari lotuta, esanguratsua da erbesteratutako Martin Ugalde (1921-2004) idazle, kazetari eta politikaria aipatzea. Gerra Zibilaren ondorioz, Euskal Herria utzi eta atzerrira abiatu behar izan zen. Eusko Jaurlaritzak antolatutako kolonietara joateko itzuli zen Ugalde Euskal Herrira, baina handik gutxira, Bigarren Mundu Gerra lehertzean, Gurseko kontzentrazio-esparrura eraman zuten. 1947an ordea, 25 urterekin, berriz abiatu behar izan zen atzerrira, Venezuelara, eta handik idatzi zuen (irakurle helduentzako) *Iltzalleak* (1961) ipuin bilduma, zeinetan Euskal Herriko gerra garaia eta ondorengo errepresioa hartzen diren mintzagai (Torrealdai, 2003). Jakin badakigu exiliatutako zenbait idazlek, hala euskaldunek nola beste literatura batzuetako idazleek, gaiari heldu diotela haien literatur lanetan. Ildo horretan, bada Espainiatik exiliatu ziren autoreek atzerrian

idatzitako HGL biltzen duen liburu bat, Berta Muñoz eta María Victoria Sotomayorrek 2021ean argitaratua: *La literatura infantil y juvenil de exilio republicano de 1939*. Bertan Gerra Zibila amaitu eta erregimen diktatorial berriaren menpeko HGL ezaugarritzen dute egileek: erregimen frankistaren dirigismo ideologikoaren menpeko literatura. Dena den, liburu horretan ez dago nire tesiko aztergai diren gatazkak lantzen duen euskarazko obrarik.

Goian aipatutako lanez gain, badira beste hainbat liburu eta artikulu Euskal Herriak jasandako gerra eta gatazkak euskal literaturan nola landu diren aztertzen dutenak. Dena den, euskal literatura oro har hartzen dute, eta tamalez, ohikoa den moduan, ez dute HGL hizpide hartzen. Horren adibide da Zalduak 2005ean kaleratutako *Animalia diseatuak (Libeloak, panfletoak eta beste zenbait taxidermia-lan)* obra. Kritikariak euskal literaturari buruzko hainbat auziri erreparatzen dio liburu honetan, baita euskal gatazkari ere. Azaltzen duen moduan, usu aurpegiatu zaio euskal literaturari ez diola aurre egin azken hamarkadetako gatazka politiko-armatuari, baina baieztapen horren aurka egiten du Zalduak, gogoraraziz euskal gatazkaren gaineko literaturak bide luzea egin duela, gutxienez Saizarbitoriaren *100 metro*-tik aurrera (1975). Ez hori bakarrik, gaineratzen du ordutik hona bideak jarraitu duela eta aldiro itzuli dela indar eta ikuspegi berriez horniturik. Aurreko baieztapen horrez gain, gatazka hizpide izan duten lanen zerrenda bat ematen du, gatazka gai zentral duten (helduentzako) 14 izenburu emanez. Gai horren bueltan idatzi zuen ere 2012ko *Ese idioma raro y poderoso. Once decisiones cruciales que un escritor vasco está obligado a tomar* saiakera lana (2013an Euskadi Literatura Saria irabazi zuen gaztelaniazko saiakeraren alorrean). Euskal literatur sistemari buruzko hainbat alderdiri erreparatzen dio, baina aztergai dudan gaiari dagokionez, V. eta VI. atalak dira azpimarragarrienak. 2005eko lanetik hona, gatazkari buruzko fikziozko lanek (hala euskarazkoek nola gaztelaniara itzulitakoek) gora egin dutela baieztatu daiteke bertan ematen diren datuak ikusita eta bilakaera literario horretan, lanen kopuruaren igoeraz gain, kalitateak ere gora egin duela ondorioztatzen du. Ez hori bakarrik, 90eko hamarkadatik aurrera gaiari buruzko lanak ugariak eta askotarikoak izan direla azpimarratzen du; alegia, idazleek ikuspuntu anitzetatik heldu diotela. Gorago aipatu dut euskal gatazkak presentzia nabarmena duela Zalduaren obran eta azpimarratzekoa da bera ere 90eko hamarkadan hasi zela gaiari buruz idazten (aurretik zientzia-fikziozko, beldurrezko eta oro har genero fantastikoko ipuinak idazten zituen, gaztelaniaz) eta gaur egunera arteko lanetan nonahi aurki dezakeela irakurleak afera horri buruzko aipamenik.

2006an argitaratu zuen Joseba Gabilondok *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. ETAren terrorismoa gaitzat hartu

duten hainbat obra hartzen ditu ahotan, baina ematen dituen izenburuen artean (eta eskaintzen duen analisi sakonean) bakarra ere ez da HGLkoa. Lehenago esan bezala, gauza bertsua gertatzen da beste hainbat liburu eta artikulurekin, alegia, memoria historikoaren berreskurapena edo Euskal Herriak bizi izandako gerrak/gatazkak hizpide hartzen dituzten arren, haien ikerketak nagusiki helduen fikziozko lanetan oinarritzen dira. Gainera, ikertzaile horietako batzuek sistematikoki ikertu dute gaia urtez urte eta Olaziregi da horren adibide adierazgarriena, haren bibliografia zabalak agerian jartzen duen moduan gorago aipatutako lanez gain beste hainbat argitaratu baitu hala euskal eremuan nola nazioarte mailako argitalpenetan (1999a, 2009, 2011b, 2012, 2016, 2017a, 2019a-b-c, 2020a-b, 2022).

Aurrekarien atal honetan aipatu ditudan lanetan bi errealitate nagusi ikusi ditut. Batetik, euskal ikasketetako lanetan, asko hitz egin da Gerra Zibilak eta euskal gatazkak literaturan izan duen agerpenaz. Ikerketek argi utzi dute helduen euskal literaturak, eta batez ere 90eko hamarkadatik aurrera, heldu egin diola gaiari, oso modu zabal eta anitzean gainera. Aniztasuna diodanean, ikuspuntu ideologiko desberdinetatik idatzi dela esan nahi dut, baita korrante, genero literario eta estilo edo teknika narratibo ezberdinak erabiliz. Argitaratu diren literatur lanek ertz askotatik heldu diote gaiari eta gero eta polifonikoagoa bihurtu da gai horiek hizpide dituzten liburuen corpusa. Desoreka, egotekotan, 2000. urtera arte behintzat, ikuspuntu maskulinoaren nagusitasunean egon da, Rodriguezek (2019) agerian jarri duen moduan. Oro har helduen literaturari erreparatu zaio eta HGL hizpide hartu denean, obra berberak errepikatu dira behin eta berriro (*Urtebete itsasargian* eta *Behi euskaldun baten memoriak* nagusiki). Euskal Herriak bizitako gerrak hizpide dituzten zerrenda luzeak aurkitu ditut lan askotan, baita horien azterketa sakonak ere. HGL lanekin ordea, obra bakan batzuk baino ez dira aipatzen eta azterketa kritiko eta sendo baten falta agerikoa da. Gainera, berariaz HGL ez diren zenbait obra aipatzen dira haur eta gazteentzako irakurketak aipatzen direnean, multzo berean sartuta maiz. Haientzat egokiak izan litezkeen irakurketak dira, baina bereiz sailkatu behar direnak nire ustez. Aurreragoko atal batean arrazoituko dudan moduan, dena nahasteak objektibotasuna, sistematikotasuna eta analisisa bera auzitan jar dezake, izan ere, ez dago irizpide objektibo eta neurgarririk dena delako liburu bat “haur eta gazteentzako egoki edo haiek bereganatutakoa” dela zehazteko. Are gehiago, gaiari buruzko HGLk dituen ezaugarri bereizgarriak ikertzea galarazten du eta beste literatur sistemekin alderaketa kuantitatibo eta kualitatiboak egitea eragozten. Bestetik, berariaz HGLri eskainitako monografikoei dagokienez, hala hemengoetan nola erdaretan idatzitakoetan, gauza bertsua esan daiteke. Oso gutxi dira aztertzen diren euskarazko literatur lanak eta aipatzen direnean,



Gerra Zibilarekin lotutakoak ekarri dira gogora. Horietan ere analisi kritiko sendo baten beharra antzeman dut. Literatur lanez mintzo diren azterketetan oinarrituta, ezin daiteke jakin zenbat eta nola landu duen HGLk Euskal Herriak bizi izan dituen gatazka politiko armatuak. Egin diren lan apurrek gaia gutxi landu dela iradokitzen dute.

HGLri dagokionez, inguruko literaturetan, hau da, galiziar, katalan eta espainiar literaturan, 1980 eta 1990 urteen bitartean hasten dira Gerra Zibilari buruzko obrak nabarmenki agertzen eta kopuru horrek era agerian egiten du gora hurrengo hamarkadetan (Roig, Kenfel eta Ramos, 2012; Regueiro eta García, 2022). Hori horrela, pentsatzekoa da euskal literaturan ere tarte horretan hasi zirela ugaltzen gaiari buruzko HGL lanak, nahiz eta ikerketa-lanek euskarazko izenbururik apenas eman. 1980ko hamarkadaren hasieran, hurrengo atal batean azalduko dudan moduan, euskal HGL modernoari hasiera eman zitzaion eta estilo zein gai aldetik berrikuntza handiak gertatu ziren. Nazioarte mailan gaitan eta tratatzeko moduetan ere aurrerapauso batzuk eman ziren. Teresa Colomerri jarraituz (Colomer, 1999: 115 apud Etxaniz eta López Gaseni, 2011: 32), balioen aldaketa gertatu zen HGLn eta hainbat gai (ekologia edo bakezaletasuna, besteak beste) landu ziren, baina batez ere jarrera berriak azaldu ziren. Hots, aurreko urteetako korrante eta filosofien aldean, irakurlearen nortasuna eta autonomia bultzatu ziren. Literatura berri horrek irakurleak idazlanen bidez errealitatea (dituen ertz eta ikuspegi ezberdinetatik) ezagutu dezala eta ondoren bere irizpidea garatu dezala bilatzen du. Euskal letretara 1980ko hamarkadan hasi ziren ideia eta gai horiek iristen, eta handik aurrera etengabe hasi dira errealismo kritikoaren barruan koka daitezkeen idazlan hauek. Egungo gizarteko arazo ezberdinen aurrean haurren jokabidea azaltzen edo egoera horiez gogoeta egin dezaten idatzitako literatura lanak dira (Etxaniz eta López Gaseni, 2011: 32-33).

Etxanizek (2007a: 54) gogorarazten duenez, Zohar Shavit kritikoak aipatu izan du literatura sistema baten erdian dauden korrante eta gaiak bazterreko produkziara ere iritsi ohi direla. Etxanizek dioenez, gure gizarte honetan argi eta garbi dago HGL bazterrekoa dela, periferiakoa (nahiz eta batzuetan erdigunetik nahiko gertu egon, euskal literaturan gertatu izan den bezala garai batzuetan). Zehazten duenez, erdian dagoena helduen narratiba da; baina korranteak, gaiak, estiloak eta abar hizkuntza bateko literaturatik beste batera igarotzen dira gero eta errazago. Hori horrela, gaineratzen du euskaraz (baina baita inguruko literaturetan), gerraren gaiak helduen literaturan lekua irabazi duen bezala, orain badirudiela HGLra iristen hasi dela. Bere ustez, Ramon Saizarbitoria edo Javier Cercas bezalako obren ondoren 1936ko gerra heldu da HGLra. López Gaseni eta Etxanizek (2008: 314) iradokitzen

dutenez, akaso hain eztabaidatua izan den “oroimen historikoarekin” zerikusia duen itxura didaktikoago batekin aurkitu du Gerra Zibilaren gaiak HGLn bizirauteko aterpe. Egia esan, gorago ikusi den moduan, aditu askok azpimarratu izan dute ez soilik Gerra Zibilaren lanketa falta HGLn, baita bestelako gatazka politikoen lanketa falta ere.

#### **1.4. Helburuak**

Tesi lan honi ekin nionean, hainbat galdera erantzutea izan nuen jomugan eta azterketan sakondu ahala, itaun berriak joan dira sortzen, haiei erantzuna emanez gaiari buruzko ikerketa osatzeko eta aberasteko balio izan dutenak zinez. Lan honekin lortu nahi ditudan helburuak zerrendatuko ditut jarraian datozen lerroetan, helburu orokorrak eta helburu espezifikoak bereiziz.

##### **1.4.1. Helburu orokorrak**

- A) Euskarazko HGLri buruzko hurbilpen teoriko eta praktikoa garaikideen bilakaeraz jabetzea.
- B) Euskal literaturan eta HGLn oro har memoria historikoa nola landu den berriaz ikertu duten lanen azterketa egitea.
- C) Memoria Ikasketen arloan baliatzen diren kontzeptu eta tresna metodologiko desberdinen berri ematea eta tesiko corpusean aplikagarriak direnen zerrenda bat osatzea.
- D) Genero ikuspuntutik egindako analisi kritikoa HGLn eta bereziki nire tesiko corpusean nola balia daitekeen zehaztea.
- E) Euskarazko HGL garaikidean memoria historikoaren errepresentazioa nola egin den aztertzea.
- F) Memoria historikoa eskolan lantzeko sortu diren proposamen didaktikoen diagnostikoa egitea.

##### **1.4.2. Helburu espezifikoak**

- A) Helburu kuantitatiboa. Karlistaldiak, Lehen Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, Frankismoa eta euskal gatazka euskal HGLn zenbat landu den aztertzea.
- B) Helburu kualitatiboa. Zehaztutako corpora ikertu eta honako alderdiok aztertzea: Liburuek izandako harrera (kritikoa), idazleek baliatutako korrante eta genero literarioak, analisi narratologikoa, gerra/gatazkaren gainean erakusten diren alderdiak, diskurtsoaren

analisia eta narrazioetan transmititzen den ideologia (esplizitua eta inplizitua), ETAREN indarkeriaren inguruko literaturak sortutako diskurtsoa, tabu izan diren gaien agerpena, biktima/biktimario dikotomiak eta haien arteko harremanak, eta ikuspuntu konparatibo batetik abiatuta, HGLk gai berbera lantzen duen helduen literaturarekin daukan berezitasuna.

- C) Arestian aipatutako gatazka politiko-armatu horiez gain, corpuseko obretan zein beste gatazka ageri diren ikertzea. Besteak beste, Euskal Herritik kanpoko gatazka historiko zein garaikideak ageri diren, langile gatazkek tokirik duen edo genero gatazkarik ageri den aztertzea (kontuan hartuz gerra testuinguruetan are gehiago polarizatzen direla gizon eta emakume kategoriak).

## 1.5. Hipotesiak

Honako hiru hipotesi nagusiok bideratu dute nire ikerlana:

- A) Lehenengo hipotesia: Helduen literaturari erreparatuta, behin eta berriz esan izan da euskal literaturak ez diola nahikoa erreparatu euskal gatazkari, eta beste horrenbeste aldiz gezurtatu dute hainbat eta hainbat ikertzailek baieztapen oker hori, gatazka hizpide duten literatur lanen zerrendak emanez. Pentsatzekoa da gauza bertsua gertatu dela HGLn ere, alegia, ikertzaileek urritasunaren uste oker hori elikatu dutela ikerketa sakonik egin gabe. Nire hipotesia da, helduen literaturan bezala, euskal HGLk 90eko hamarkadatik aurrera heldu diola ez soilik euskal gatazkaren errepresentazioari, baita Gerra Zibilaren gaiari eta historian zehar Euskal Herriak bizi izandako egoera politiko latzei ere. Dena den, kontuan hartuta ETAk 2011n erabaki zuela jardun armatua betiko uztea eta horrelako gaiek denbora behar dutela literaturara salto egiteko (oraindik ere oso presente daude euskal gatazkaren ondorioak euskal gizartean), pentsatzekoa da gai horrek besteek baino agerpen berantiarra izan duela.
- B) Bigarren hipotesia: Mintzagai ditudan gaiak HGLra estetika errealista baten eskutik sartu direlako hipotesia da bigarrena, errealismo kritikotik eta errealismo fantastikotik hain zuzen, korrante literario horiek baitira euskal HGL modernoaren hastapenean errealitateko alderdirik konplexuenak irudikatzeko idazleek erabili zuten modua. Dena den, bigarren hipotesi hau apur bat zehaztuz, nire ustea da haur eta gazteei zuzendutako obretan sinbolo eta metaforen bidez irudikatu direla gerren alderdirik gordinenak;

heriotzak, bonbardaketak eta bestelako sarraskiak adibidez. Pentsatzekoa da ez direla hain gordin eta inplizituki irudikatu, ez hitzaren bitartez, ezta irudien bitartez ere; eta errealitatea irudikatzeko gordintasun maila (fideltasuna edo errealismoa, esan nahi bada) adinean igo ahala areagotzen dela.

- C) Hirugarren hipotesia: Jakin badakit HGL didaktismoari eta helburu hezitzaileari oso lotuta egon dela bere sorreratik bertatik. Hori horrela, pentsatzekoa da gatazka politiko armatuak hizpide dituzten lanetan mezu ideologiko edo morala nahiko era agerian ematen dela. Dena den, nire hipotesia izan da adinean gora joan ahala mezuak era inplizituagoan transmititzen direla, eta narratzaile orojakile eta iritzi emailearen ordean, pertsonaien jarrera eta bizipenetatik iradokitzen zaizkiola irakurleari mezu jakin batzuk.

## 2. HAUR ETA GAZTE LITERATURA

### 2.1. Kontzeptuaz hausnartzen

We are always dealing with historical definitions, and so it would be wrong to work towards an eternal, universal concept of children's literature. In my view we should not even assume that there are concepts of children's literature whose validity has lasted beyond the period of their creation, as has been shown to be possible with some children's literary norms (Ewers, 2012: 123).

HGL ikergai hartzen duten lan teoriko asko terminoaren gaineko definizioak ematen saiatzen dira, aztergaia nolabait mugatu nahian. Baumgärtnerrek (1974:11) dioen moduan: “Quien se proponga escribir o hablar sobre la literatura juvenil se verá abocado a la curiosa situación de tener que explicar previamente cuál es en realidad el objeto que va a abordar”. Ewersen goiko aipuak gogorazten du zein zaila den HGLren definizio unibertsal, estatiko eta betiereko bat onartzea<sup>10</sup>; baina Baumgärtnerrek esandakoari jarraikiz, lan honetan beharrezkoa iruditzen zait tesi honen egileok kontzeptua nola planteatuko dudana adieraztea, kontzeptuaren mugapenak baldintzatuko duelako tesiko corpusaren izaera. HGL hertsiki definitu ordez, egokiagoa iruditzen zait bere ezaugarri nagusiak zerrendatzea eta nolabaiteko argazki orohartzailea ematea, gaian adituak direnek emandako azalpenetatik abiatuta. Horixe da, hain zuzen, atal honen helburu nagusia, HGLri buruzko hausnarketa zenbait plazaratzea eta kontzeptua ezaugarritzea.

Literaturaren historiari erreparatzean, argi dago HGLren existentzia eta existentzia horren errekonozimendua duela gutxiko kontua dela (Calleja, 1994; Etxaniz, 1997a; Colomer, 1999; Olaziregi, 2002b; Kortazar et al., 2011; Cerrillo, 2013; Albistur, 2017; Fernández Vázquez, 2017; Sánchez, 2018). Colomerrek dioen moduan: “Sólo a partir del siglo XVIII puede hablarse propiamente del nacimiento de una literatura para niños, ya que fue entonces cuando la infancia empezó a ser considerada como un estadio diferenciado de la vida adulta” (1999: 82)<sup>11</sup>. Beraz, baieztapen horri jarraikiz, hemezortzigarren mendera arte ezin da haur eta gazteei berariaz zuzendutako literatura batez hitz egin. Lluch eta Sanzek (2021) baieztatzen dute XVIII. mendera arte ez zela haurtzaroaren eta helduaroaren arteko bereizketa egiten eta gaineratzen dute XIX. mendean sendotu zela European HGLko irakurleria, orduan hasi

---

<sup>10</sup> Robert Escarpit soziologoa duela asko saiatu zen literaturaren mugak definitzen eta honakoa aldarrikatu zuen: “Nada menos diáfano que el concepto literatura. La palabra misma comporta una gran variedad de usos y su contenido semántico es tan rico como incoherente. Resulta de hecho imposible aprehender la literatura en una sola operación intelectual” (1974: 13).

<sup>11</sup> Jean-Jacques Rousseau filosofoa izan zen haurtzaroa aintzat hartu eta balioan jarri zuen lehenengoetakoa.

baitziren haurrentzat pentsatutako, idatzitako, editatutako eta zuzendutako irakurketak sortzen. Euskal Herriari dagokionez, gogoraraztekoa da 1804an kaleratu zuela Bizenta Mogelek (1782-1854) *Ipui onac*, euskaraz argitaratutako lehenengo HGL liburua kontsideratzen dena. Edonola ere, luza gaitezen amiñi bat euskarazko HGLren hastapenean. Xabier Etxanizek (1997, 2011a) gogorarazten du euskaraz idatzitako estreinako haurrentzako liburua 1803an Juan Bautista Agirre “Agirre Asteasukoa”-k (1742-1823) plazaratutako katixima bat dela, *Confesioco eta comunioco Sacramentuen gañean Eracustaldiac, lenvicico Comunioraco prestatu bear diran Aurrentzat, eta bidez Cristau acientzat ere bai*. Liburuko izenburuari erreparatuta, argi dago umeentzat idatzitako lana dela, baina hala ere, ikuspegi literario batetik aztertuta, Etxanizek dio Bizenta Mogelen lana dela aitzindaria. Dena den, ikertzaile horrek berak aitortzen du helburu didaktiko eta morala izan zuela Mogelek eta lan hori idaztera animatu zuena ez dela estetika, ez eta hitzaren edertasuna. Horregatik, ondorioztatzen du zorrotz jokaturik, Mogelena ez genukeela literatur lantzat hartu beharko. Gaurtik begiratuta, deigarria egiten da baieztapen hori, besteak beste, haur eta gazteentzat idatzi diren hainbat obra, hala nola, alegiak, helburu didaktiko argia izan ohi dutenak, corpusetik kanpo geratuko lirakeelako. Bistakoa da literatur lan bakoitza bere garaiaren fruitu dela eta sortu zen testuinguruan ulertu behar dela. Horretaz gain, literaturaren beraren kontzepzio eta ulerkera aldatu egin da mendeetan, eta holaxe jaso du historiografiak, gaur egun literaturatzat hartuko ez genituzkeen lanak onartuz. Euskarazko literaturaren kasua, noski, horren adibide da, XIX. mende amaiera arteko produkzioaren gehiengoa katixima, debozio liburu eta bestelakoek osatzen baitute. Bizentaren lanaren didaktismoa onartuz ere, Mari Jose Olaziregik *Ipui onac*-en garrantzia azpimarratu nahi izan du, ez bakarrik euskal literaturaren tradizio androzentrikoa pitzatu zuelako, baita irakurketa-modu berri bati ateak ireki zizkiolako ere (2012: 140):

Although the didactic style and sense of moral purpose is prevalent in the text, we should underscore the importance of the book as a primary example of a new type of fiction as well as being an exponent for a new type of reading public, more literary but still somewhat removed from a more controlled aestheticism.

Esandakoaz bat, bistakoa da berantiarra dela euskal letretan HGL. Irakurle gazteei zuzendutako lehenengo lanak helburu hezitzaileari estuki lotuta egon dira hastapenetatik, eta ezin esan gaur egun ezaugarri hori arrotz zaionik, oro har, HGLri. Olaziregiri (2005) jarraikiz, batez ere 1960ko hamarkadatik aurrera hitz egin daiteke sistematikoki eta helburu estetikoarekin idatzitako euskal HGLz. Ildo bertsutik jotzen du Seve Callejak (1994) ere.

Ikertzaile horrek dio 1960a euskal HGL zeharo aldatuko den hamarkadaren hasiera dela kritiko gehienen ustez. Fernandez-Zabala, Urzelai-Vicente eta Villagran-Arrastoak (2022) aldaketa horren eragileak azaltzen dituzte haien lanean eta batez ere honako faktore hauek aipatzen dituzte 1960tik aurrerako HGLren susperraldia azaltzeko: Ikastolen mugimendua, euskara batuaren sorrera, euskararen ofizialtasuna, umeentzako liburuetan espezializazioa, eraberritze pedagogikoa, berrikuntza tematikoa eta merkatuaren irekitzea. Garai horretan hasten da egoera kuantitatiboki zein kualitatiboki aldatzen, eta hainbat adituren lanak (Arriolabengoa, 1983; Calleja, 1994; Etxaniz, 1997a, 2012a) aztertu ostean, esan daiteke benetako *booma* 80ko hamarkadan gauzatzen dela.

Aipatutako hamarkada horietan koka daiteke euskal HGL modernoaren hasiera. Callejak (1994) 1960-1986 urteen artean zehazten du hastapena, Zubeldiak (2006) berriz, 1970eko hamarkada jartzen du mugarriz eta beste zenbait aditu (Etxaniz, 1997, 2012a; Etxaniz eta López Gaseni, 2011; Kortazar et al., 2011; Albistur, 2017), bat datoz baieztatzean 1980ko hamarkadatik aurrera hasten dela euskal HGL modernoa. Olaziregik (2006) azaltzen du modernizazioa eta egonkortzea 60ko hamarkadan hasi zela, nahiz eta 80ko hamarkadara arte ez ziren literaturaren sistemaren egonkortzerako baldintza sozio-historikoak eman. 1990eko hamarkadara itxaron behar da egonkortze hori erabatekoa izan dadin (Etxaniz eta López Gaseni, 2011). Esanguratsua da gogora ekartzea 1990an sortu zela Galtzagorri Elkarte, Euskal Haur eta Gazte Literatura elkarte, zeinaren helburua den haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzea eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatzea eta ezagutaraztea. Grosso modo esan daiteke IBBY (International Board on Books for Young People) nazioarteko erakundearen euskal sekzioa dela. Gainera, Galtzagorri Elkarteak argitaratzen du HGLri eskainitako euskarazko aldizkari bakarra: *Behinola*<sup>12</sup>. Arestian aipatutako modernotasun horren aitzindaritzan Marijane Minaberi (1926-2017) idazle behenafarra aipatu behar da. Etxanizek eta López Gasenik (2011) diotenez, euskal HGLko aldaketarik handiena Minaberriren eskutik heldu zen eta bere liburuek eman zioten hasiera HGLri. Haurrentzako ipuinak eta poemak idatzi zituen, baita antzerki lanak ere. 1961. urtean argitaratu zuen haurrei zuzendutako bere lehen lana (*Marigorri*) eta bi ikertzaileen aburuz (2011: 19), Minaberrik abiarazi zuen euskarazko haur literatura berria, haren lanetan argi antzematen delako egilearen helburu nagusia estetikoa dela, ez boladan zegoen korrante hezitzaileari jarraitzea. Hamarkada batzuk beranduago, euskal HGL modernoaren sorrera

---

<sup>12</sup> Hemen aurki daiteke Galtzagorri Elkartearen web-orria, baita *Behinola* aldizkariara sarbidea ere: <https://www.galtzagorri.eus/eu>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

markatu zuten obrak kaleratu ziren: Kutsu fantastikoa duten Anjel Lertxundiren *Tristeak kontsolatzeko makina* (1981) eta Bernardo Atxagaren *Chuck Aranbarri dentista baten etxean* (1982) batetik, eta Mariasun Landaren *Txan fantasma* (1984), bestetik. 80ko hamarkadan argitaratutako obra moderno horietan, helburu estetikoak nagusi izateaz gain, gai, estilo, egitura eta teknika berriak azaldu ziren. Etxanizek (1996: 374) dioten moduan, “euskal haur literatur modernoaren hasierak errealismo fantastikotik etorri ziren 80ko hamarkadaren hasieran” eta aurrerago zehaztuko dudan moduan, errealismo kritikoaren bidetik heldu zen euskal HGLra gizarteko arazoak, eguneroko errealitatea eta ordura arte landu gabeko gaiak lantzeko joera, umorearen erabileraz lagunduta maiz. HGLra modernotasuna ekarri duten ezaugarriak ikertzen ditu Colomerrek (1998) eta fantasia, umorea, jolas literarioak, psikologizazioa eta tabu tematikoen apurketa aipatzen ditu; arestian aipatutako ezaugarrietako batzuekin bat datozenak hain zuzen.

Lehen aipatu dudan moduan, haurrentzat bereziki argitaratutako liburugintzaren historia ez da oso zaharra. Ez Europa osoan, eta are gutxiago gure artean (Mendiguren, 1994: 51). Hala ere, gaur egun ia inork ez du zalantzan jartzen hurrei edo gazteei berariaz zuzendutako literatura bat badagoela (nahiz eta neurri txikiagoan onartzen den haren beharra). Horren erakusgarri dira, besteak beste, gaiaren gainean burututako doktore-tesiak, HGLri buruzko lan monografiko eta aldizkari espezializatu guztiak, liburutegietan genero honi eskaintzen zaion sekzio beregaina, argialetxeetako katalogoetan esleitzen zaion aparteko atala, sariketak, HGLren gainean ematen diren eskola, ikastaro zein bestelako formakuntza saioak edo haur eta gazteei zuzendutako literatur testuetan espezializatutako adituen kopuru esanguratsua, handituz doana urtez urte. Jada 1997. urtean Etxanizek (1997a) zioen HGL bazterreko literatura izatetik erdiratzen ari den literatura izatera pasa dela eta Euskal Herrian haur eta gazteei zuzendutako literatur testuen gainean eraikitako sistema guztia aipatu zuen horren erakusle<sup>13</sup>. Aditu horrek (1997) gaineratu zuenez, aurrerapausoak benetan nabaritu izan dira HGLri buruzko saiakera eta ikerketan, baina gabezia literatur kritikan dagoela azpimarratu zuen. Dena den, urte batzuk pasa dira Etxanizek baieztapen hori egin zuenetik, eta beraz, “HGL eta kritika literarioa” deitu dudan hurrengo atalean helduko diot HGLren kritikaren auziari. Esan daiteke, edonola ere, azken urteotan HGLk (eta ondorioz baita euskal HGLk ere) garrantzi gero eta handiagoa hartu duela oro har.

---

<sup>13</sup> Euskal HGLren instituzionalizazioaren erakusgarri dira sariketak (Euskadi Saria edo Lizardi Saria adibidez), HGL argitaratzen duten argialetxeen kopuru altua, elkarteak (Galtzagorri Elkarte), komunikabideetan HGLk duen oihartzuna, hainbat esparrutan ematen diren ikastaro eta formakuntza saioak eta abar.



Eremu nolabait akademikoan duen agerpen horrez gain, HGLk merkatuan daukan pisuari errepara diezaiokegu. Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXV. txostenari begiratuta (Eusko Jaurlaritzaren, 2020)<sup>14</sup>, zeinetan 2019ko ekitaldi ekonomikoari dagozkion EAEko argitalpen enpresa pribatuen argitalpen eta fakturazio datuak biltzen diren, ikusten da 2019an EAEn paperean argitaratutako izenburuetatik HGLk %21'9 hartzen duela eta helduentzako fikzioak berriz, %11'8<sup>15</sup>. Gainera, aurreko urteetako datuekin alderatuta, HGL testuen ekoizpenean gorakada izan dela ikus daiteke: 2017an %20'1 eta 2018an %20'2. Helduentzako fikziozko testuetan, ordea, beherakada txiki bat egon zen, 2017an kopurua %12'1ean baitzegoen eta 2018an %12'2ean. HGLra itzulita, izenburu kopuruaren gorakadaz gain, ale kopuruari erreparatuta ere igoera txiki bat dakusagu 2019. urtean, izan ere, HGL sailak %25'5 hartzen du, aurreko urtearekin alderatuta %1,8 handituz (helduentzako fikzioak berriz, %8'7 hartzen du eta jaitsiera bat izan dela ikus daiteke, aurreko urtean %9 hartzen baitu). Paperean bakarrik argitaratutako izenburuen batez besteko tiradei erreparatzea eta helduentzako fikziozko liburuen datuekin alderatzea esanguratsua izan daiteke. Honetan ere, HGL liburuak gailentzen dira, batez besteko tirada 2.937 alekoa delako, eta helduentzako fikziozko liburuen berriz, 1.868 alekoa. Aurreko datuetan ez da hizkuntzaren gaineko zehaztapenik egin, EAEn argitaratzen den HGLk (hala euskaraz nola beste hizkuntza batzuetan idatzitakoak) argitalpen merkatuan zer nolako tokia betetzen duen jakitea interesatzen zaidalako. Dena den, tesiko corpusean jatorriz euskaraz sortutako literatur testuak bakarrik sartu ditudanez, ez dago soberan esatea 2019an guztira 541 izan zirela argitaratutako HGLko liburuak eta horietatik, euskarazkoak 289 izan zirela, hain zuzen %53'4 (helduentzako fikzioari dagokionez, kaleratutako izenburu guztietatik % 48'45 izan ziren euskaraz). Fakturazio zenbatekoari erreparatuta, HGLk gorakada izan du aurreko urteekin alderatuta, eta 2019an, fakturazio osoaren %15'7 betetzen du (10'19 milioi euro). Helduen fikzioak, berriz, %5'2 besterik ez. Euskararen kasuan, soilik “unibertsitatekoak ez diren testuak” sailak (HHko, LHko, DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako edo bestelako liburu eta material osagarriak) fakturatu du HGLk baino gehiago. Oro har, euskarazko fakturazioa igo egin da. Orain arte emandako datuek argi erakusten dute HGLk hainbat eremutan izan duen gorakada eta genero gisa duen garrantzia. Datu gehiago eta zehatzagoak ematen mugagabe luza ninteke, baina ez diot atal honen helburuari iskin egin nahi. Jarrai dezadan, beraz, haur eta gazteei zuzendutako literatura zer den zehazten.

---

<sup>14</sup> Txosten honek, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Euskadiko Editoreen Elkartearen laguntzarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenen barne merkataritzari buruzko azterketa aurkezten du.

<sup>15</sup> Kopuru absolutuak ikusteko, ikus datuen iturri izan den dokumentua.

Mintzagai dudana literatura horrek ezaugarri bereizgarriak ditu, helduen literaturatik edo literatura orokorretik bereizteko balio dutenak; baina batez ere, balio dutenak HGLren izaera, independentzia eta heldutasuna aldarrikatzeko. Inolako bereizkuntzarik egiten sartu aurretik, eta Cerrilloren (2001: 87) hitzak neure eginez, HGL da, ezereen gainera, literatura. Baieztapen inozoa irudi lezake, baina hura onartzeak hainbat inplikazio dakartza. Batetik, literariotasuna daukaten testuez ari garela esan nahi du, eta beraz, hura aztertzeke erabiltzen diren tresna teoriko eta metodologikoak behar beharrezkoak izango dira tesiko corpusa osatzen duten obrak aztertzeke. Literatur teoriaren ikerketan, asko idatzi da literariotasunari buruz. XX. mende hasieran, Roman Jakobsonek (1921) termino hori (*literariness*) asmatu zuenetik, eztabaida horrek gaur egunera arte iraun du. Zalantzarik gabe, historian zehar literariotasunari buruz sortu diren eztabaidei heltzea zinez interesgarria izango litzatekeen arren, lan honetan ez dut zehaztuko zerk egiten duen testu bat literario, eztabaida horrek nire helburuetatik urrunduko nindukeelako. Lan honen ikertzailearen juzguetan oinarritu ordez, eta eztabaidagarriak zein subjektiboak diren irizpideetan oinarritu ordez, irizpide objektibo eta sistematiko bat erabili dut obrak testu literariotzat hartzeke: aztergai ditudan obrak argialetxeetako katalogoetan HGL obra gisa sailkatuta egotea. Erabaki horrek normalean HGL barruan sartzen den zenbait material auzitan jartzera eramango gintuzke, besteak beste, paraliteratura gisa etiketatzen diren lanak. Dena den, afera horri dagokionez, lan honetan ez dut juzgu subjektiboen araberrako bereizketarik egingo eta argialetxeetako katalogoetan zehazten den irizpideari helduko naitaio. Finean, Literaturaren Teoria eta Kritika garaikideak literaturtasuna ikuspuntu esentzialistaz definitzen zuten planteamenduetatik (Errusiar Formalistak, bereziki), ikuspuntu pragmatikoa bere egiten duten planteamenduetara emandako pausoa ikus genezake nire proposamenean; literaturtasuna zer den baino gehiago, irakurle edo argialetxeek erabakitzen dutena dela baieztatzean, hartzailearen esku jartzen baitugu erantzuna. Bestetik, arestian aipatutako baieztapenarekin jarraituz, onartu behar da HGLk, literatura den heinean, Literatur Teoria eta Literatur Kritika behar beharrezkoak dituela, besteak beste. Helduen literatura ikertzeke erabiltzen diren metodo berberak erabili daitezke (eta erabili behar dira). Ez hori bakarrik, aurrekoek gain, HGLk berezkoak dituen ezaugarriak aztertzeke metodologiez baliatu behar da ikertzailea. Antzekoa aldarrikatzen du Cerrillok ere (2013: 31-32).

Metodologiaren atalean zehaztuko ditut tesiko corpusa aztertzeke erabilitako tresna metodologikoak, baina aurrera dezadan, dena den, diziplinartekotasunaz eta ikuspegi multidimentsionalaz baliatu naizela. Horretarako, ikuspuntu sistemiko batetik abiatuko naiz,

bereziki Itamar Even-Zoharren (1990) polisistemen teoriatik. Ontzat emango dut, beraz, HGL sistema edo polisistematan egituratzen dela eta literatur (poli)sistemaz gain, beste hainbat sistema dinamikorekin duela hartu-eman, helduen literaturak bezala<sup>16</sup>. Baina goian aipatutako ezaugarriez gain, haur eta gazteei zuzendutako literaturak badu helduen literaturatik bereizten duen zenbait ezaugarri. Bereizgarri nagusia berariazko hartzailearen izaera da (García Padrino, 2001: 15). Irakurle jakin batzuentzat idatzitako literatura da, zeinak haur eta gazteak dituen berariazko hartzaile. Ildo horretan, Ewerek (2012: 9) argi dauka zein izan behar den HGLren ikasketa literarioaren aztergaia: “All literary communication in which children and young people are the addressees”. Beraz, aipatutako ikertzaileek testuaren beraren berezko ezaugarri formalei edo ezaugarri inmanentei baino, testuaren hartzaile motari begiratzen diote, horrek ekar litzakeen berezitasun kontraesankorrekin. Hunten (1995: 1): aipu honek jartzen du agerian HGL bere hartzailearen ezaugarrien arabera definitzeak dakarren bereizgarritasuna:

This is a species of literature whose boundaries are very hazy; it cannot be defined by textual characteristics either of style or content, and its primary audience, 'the child-reader', is equally elusive. [...] All of this suggests a species of literature defined in terms of the reader rather than the authors' intentions or the texts themselves. It also demonstrates the closeness of the relationship between text and reader, and, consequently, the peculiar honesty and realism required of the children's book critic.

Cerrillok (2001: 83-84) gogorarazten duen moduan, helduentzako lanetan, berdinen arteko komunikazioa gertatzen da: egilea eta irakurlea testu batean komunikatzen dira, biak partaide diren testuinguru batean, nahiz eta denbora berdina ez izan. Haur eta gazteentzako lanetan, ordea, komunikazioa berdina ez diren egile baten eta irakurle baten artean gertatzen da, irakurlea heldu batek idazten dion haurra delako, eta, gainera, irakurle-haurrak ez dituelako beti bere irakurgaiak aukeratzen, batez ere lehen adinetan, ez baititu horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen, hazten amaitu ez duen eta bere gaitasunak garatzen bukatu ez duen irakurlea baita. Hori horrela, HGLk bere hartzaileen ezaugarri bereziak kontuan hartzen ditu, harrera-literarioarekin lotutakoak hain zuzen (Cerrillo, 2013: 13).

---

<sup>16</sup> HGL, ez euskalduna soilik, literatur polisistemaren periferian kokatzen da (Shavit, 1986; Olaziregi, 2002a; Diaz-Plaja, 2011; Cerrillo, 2013). López Gasenik *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura. Funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak* izena daraman doktore-tesian (2000) euskal HGL polisistemaren deskribapena eskaini zuen, bere ikergaia hastapenetatik 2000. urtera mugatuz. Zubillagak (2013) bere tesian aipatzen du literatura orokorrarekin erkatuta, HGLk literatur sisteman nahiz hezkuntza sisteman hartzen duela parte eta bi sistema horien bilakaeratik sortu zela. Hori horrela, azpimarratzen du literatur nahiz hezkuntza munduko eragileek esku hartzen dutela eta ondorioz, hezkuntza-helburuak bete behar izaten dituela HGLk, hau da, irizpide literarioek buruz buru egiten dutela irizpide pedagogikoekin.

Shavitek (1986: 42) dioenez, idazle gehienek kontuan hartzen dute nolabaiteko irakurle inplizitu gaztea, batez ere honako alderdi hauei dagokienez: testuaren konplexutasuna, narrazioaren egitura, maila estilistikoa eta gaia. Ewerek (2012), HGL ezaugarritzeko asmoz, literatura mota horrek denboran zehar izan dituen arauak aztertzen ditu eta bigarren arau nagusi gisa aipatzen du haur eta gazteei egokitzeko beharra. Ildo horretan, eta arestian aipatutako Shaviten esanak osatzeko helburuarekin, Ewersen aipu hau gehituko nuke:

Concern for the receivers and their individual capabilities has to be inscribed in the arrangement of the message, that is, it must find expression in specific features and characteristics of the text. A text is defined as suitable for children and young people if it contains sufficient features that are regarded as suitable for them. One can imagine features that would be considered suitable for children and young people at all levels of the text and the paratext aimed at them: thus one could speak of the 'child suitability' of the layout and illustrations, the language, the style, the narrative mode, the characters, the motifs and of the themes of a literary message, to name but a few of the possibilities (2012: 116).

Komunikazioaz mintzatu naizela, azal dezadan sakonago zein nolako forma hartzen duen HGLren komunikazio literarioak (ing. *literary communication*). Horretarako, Jacobsonen hitzezko komunikazioaren eskema oinarri, Even-Zohar ikertzaileak (1990) osatutako literatur sistemaren eskema ekarri behar da gogora (sei elementu horien arteko erlazioek zertzen dute literatur (poli)sistema). Parentesi artekoak Jacobsonenak dira, eta besteak berriz, Even-Zoharrek proposatutako terminoak: Ekoizlea (igorlea), kontsumitzailea (hartzailea), merkatua (kanala), produktua (mezua), errepertorioa (kodea) eta instituzioa (testuingurua). Arestian aipatutakoa kontuan hartuta, eta Lluchi (1999, 2003) jarraikiz, bitartekariak (editoreak, pedagogok, irakasleak edo eskola zein bestelako erakundeak) editoreen bitartez proposamenak egiten dizkiete egileei: gaiei, pertsonaiei, baloreei edo estiloari dagokionez, besteak beste. Baina era berean, obra zehatzak balekotzat jotzen dituzte, hau da, hartzaile gazteak irakurtzeko egokiak direla baieztatzen dute, eta irakurketa gomendatzen dute<sup>17</sup>. Ewerek (2012: 11) haur eta gazteen komunikazio literarioa azaltzen du. Mezu literarioa igortzen duten hainbat agente mota bereizten ditu, eta jatorrizko mezua sortu ez baina berau irakurle gazteari igortzen dioten horiei *resenders* deitzen die. Funtsean, idazlearen mezu literarioa birbidaltzen diote haur edo gazteari, eta horregatik deitzen die

---

<sup>17</sup> Tesi lan honetan ez dira bereiziko Lluchek (2012) desberdintzen dituen "bultzada bidezko erosketa" (*compra por impulso*) eta "gomendatutako literatura" (*lectura recomendada*) edo eskola zirkuituko irakurketa, jakin arren bi irakurketa motek komunikazio sisteman desberdintasun batzuk dituztela. HGLko komunikazio sistema orokorra hartuko da oinarri, azalpena zehatzago egiteko helburuarekin.

*resenders*. HGLren kasuan, hartzailea bikoitza da, berariazko hartzailea den haurraz edo gazteaz gain, helduaz ere hitz egin behar baitugu ezinbestean (Ewersen hitzak erabiliz, heldua *resender* eta *adresser* litzateke era berean). Lehenik, liburua erosten duen guraso edo hezitzailea dugu, zeinak obra irakurri edo/eta bigarren hartzaileari gomendatzen dion. Bigarren irakurle haur edo gazteak maiz ez ditu bere liburuak aukeratzen, helduak egiten baitu hautaketa, batez ere irakurle gazteenei dagokienez. Ikusten den moduan, HGLko komunikazio literarioa helduena baino konplexuagoa da eta agente gehiago sartzen dira jokoan. Shavitek (1986: 37) gogorarazten du HGL idazleak erronka gehigarria duela sortze prozesuan:

The children's writer is perhaps the only one who is asked to address one particular audience and at the same time to appeal to another. Society expects the children's writer to be appreciated by both adults (and especially by "the people in culture") and children.

Esan berri dudanak ez du esan nahi helduen literaturan bitartekari lana egiten duen agenterik ez dagoenik (adibidez, editorea, liburu-saltzailea edo bibliotekaria), baina HGLn bere eragina agerikoa eta nabarmena da, eta eragin handiagoa du irakurlearen hautuan. Lluchén (1999: 22) hitzak ekarriz:

Posiblemente, el elemento más característico de la comunicación literaria infantil es el que propongo denominar agentes de transformación de los objetos de comunicación literaria. Porque son los que más condicionan y diferencian este tipo de comunicación. Pienso que son característicos por dos razones: en primer lugar, porque las personas que actúan como agentes no son críticos literarios, o no son solamente críticos; y en segundo lugar, porque la finalidad del trabajo que realizan no es o no solo es declarar estos textos como literarios sino declararlos como aptos para el consumo infantil.

Ikertzaile horrek berak (1999) dio agente sozial horiek eragiten dutela testuak proposatzen duen irakurle motan, izan ere, haurrentzat gomendagarriak diren liburuen gaineko lege, zentsura eta gomendioak sortzen dituzte. Funtsean hiru transformazio edo eraldatze agente mota bereizten ditu: instituzionala (haurrentzako liburuek bete behar dituzten ezaugarriak agintzen dituzten instituzioek sortutako legeak), hezkuntza arlokoa eta editoriala. Ez naiz bakoitzak nola eragiten duen azaltzen luzatuko, baina nire ikerketa osatzen duen corpusa aztertu ostean, ikusiko da zer nolako eragina duten, batez ere, hezkuntza arloko eraldatze agenteek, aztergai ditudan literatur obren zirkulazioari eta kontsumoari dagokionez.

García Padrinok (1992: 29) ildo beretik jotzen du, gaineratuz HGLn editorearen figura funtsezkoa dela bitartekari gisa:

El editor llega a convertirse en mediador decisivo entre el autor y el destinatario. Ese papel, presente en cualquier tipo de publicación, toma unos peculiares en las ediciones dedicadas a la infancia. La función editorial orientada hacia la infancia se convierte, de tal modo, en factor determinante para el acceso de ese público específico a unas obras literarias, toda vez que la concepción del editor sobre las condiciones convenientes en ellas puede condicionar incluso la actitud creativa del propio autor a la hora de afrontar su relación con los destinatarios infantiles.

Arestian ikusi den moduan, testua sortzen duen idazlearen eta irakurle gaztearen arteko distantzia handia izan liteke komunikazio literarioan tartean sartzen diren agente edo bitartekarien eraginez. Baina bada, aipatutakoaz gain, bien arteko distantzia hori handitzen duen beste faktore nabarmen bat: konpetentzia linguistikoa. Bistakoa da, lehen aurreratu dudan moduan, HGLren berriazko hartzailea oraindik garatzen ari den pertsona dela, garapen linguistiko betean aurkitzen dena, batez ere adin txikieneko irakurleak, eta beraz; egileak ezaugarri hori izan behar du kontuan testuaren sortze prozesuan zehar, hartzailearen beharretara moldatuz. Hori da, hain zuzen, HGL ezaugarritzean Mínguezek (2014: 26) aipatzen duena, hizkuntza moldearen eta bestelako baliabide literarioen egokitzapena.

Euskal HGLn erreferente den Mariasun Landak behin baino gehiagotan aipatu du haur eta gazteentzat idaztean arreta handia jarri behar dela erabiltzen diren hizkuntza-baliabideetan eta idazleak berak elkarrizketa batean aitortu zuen gauza serio eta garrantzitsuak adierazi behar direla, baina modu erraz eta sinplean, formari garrantzi handia emanez (Sala, 2000).

Landaren hitzetan ageri den termino bat azpimarratu nahiko nuke: *sinpletasuna*. Bat nator idazle errenteriarraren baieztapenarekin, eta gaineratu nahiko nuke *sinpletasuna* ez dela *sinplekeriarekin* nahastu behar. Azken hori da HGLn saihestu behar den gaitza. Esan gabe doa, konpetentzia linguistikoaz gain, ezagutza kulturala, jakinduria entziklopedikoa edo bestelako konpetentziak nabarmen txikiagoak direla haur eta gazteengan. Lluhek (2003: 72-74) dioenez, testu orok lau konpetentzia mota eskatzen dizkio irakurleari eta honela izendatzen du bakoitza: Jada aipatu dudan konpetentzia linguistikoa, generoari dagokiona (hau da, genero motarekin lotutako ezagutza multzoa), literarioa (adibidez, esanahiaz haragoko irakurketa egiteko konpetentzia, testuak proposatzen dituen figura erretorikoak edo irakurketa konnotatiboa ulertzeko gai izatea, edo inferentziak formulatzeko gaitasuna) eta konpetentzia intertestuala (testu batek tradizio bat osatzen duten bestelako testu literarioekin

mantentzen dituen erlazioak). Zenbat eta gehiago doitu irakurlearen konpetentziak testuarenera, orduan eta egokiago gauzatuko da irakurketa. Ondorioz, txikiengat idazten duen idazleak bere diskurtsoa egokitu behar du mezua hartzailearengana iristeko. Ewarsek (2012) bere liburuko laugarren atalean (“Children's Literature as Literature Suitable for Children and Young People”), lau kapitulutan azaltzen du mintzagai hartu dudana egokitzapen hori nola gauza daitekeen. Dena den, ezin ahaztu egokitzapen hori ez dela literaturaren kaltetan izan behar nahitaez, izan ere, Román Lópezek (1990: 27) dioen moduan, “la adecuación a la infancia no es negación del arte”. Edo aldarri bertsua Cerrilloren hitzetan: “La naturaleza infantil o adolescente del destinatario no debe ser motivo para alterar cualitativamente las exigencias específicas del lenguaje artístico” (2007: 53) edo “sería comprensible que los textos literarios que se les ofrecen se correspondieran con esas diferencias, pero sin que ello afectara a su calidad literaria” (2013: 19).

Arestian aipatutako idazlearen eta irakurle gaztearen arteko konpetentzia desberdintasunak, baina, ez du esan nahi sortzez helduentzat idatziak izan diren obrak haurrentzat egokiak ez direnik. Are gehiago, noiz edo noiz, gertatu izan da helduei zuzendutako obra horiek gazteen erreperitorio literarioaren parte bihurtu direla denborarekin, egokitzapenak jasoz batzuetan. Ildo honetan, irabazitako literaturaz edo gazteek bere egindako literaturaz hitz egin beharko genuke (*irabazitako literatura* terminoa erabiltzen da euskal letretan, ikus adibidez, Etxaniz 1997a; Kortazar, Etxaniz eta López Gaseni, 2011). Horixe da, Etxanizen (1996: 67) arabera, HGLko klasiko ia guztien kasua. Bide batez, aukera baliatu nahiko nuke zehazteko tesi honetan, Cerveraren (1991) arrazoibideari jarraikiz, uko egiten diodala *berreskuratutako literatura* terminoa erabiltzeari gazteek bere egindako literatura mota hori izendatzeko, izan ere, ikertzaileak (1991: 18) azaltzen duen moduan:

Algunos la llaman *recuperada* empleando una mala traducción del francés –*dérobée*–robada–; está claro que no puede ser recuperado lo que nunca perteneció al niño. En esta *literatura ganada* se engloban todas aquellas producciones que no nacieron para los niños, pero que, andando el tiempo, los niños se las apropiaron o ganaron, o los adultos se las destinaron, previa adaptación o no.

Irabazitako literaturaz ari naizela, hau da, berariaz haur eta gazteentzako sortu ez ziren baina irakurle gazteek (moldaketen ostean edo moldaketarik gabe) bere egindako literaturaz ari naizela, bidenabar aipatzekoa da Marisa Bortolussik (1985) bi hartzaile mota bereizi nahi izan zituela *destinatario* eta *receptor* hitzak baliatuz, bata eta bestea ongi bereiziz. Ikertzaileak azaldutakoaren arabera, ez da berdina haurra *destinatzaile* gisa hartzea edo haurra

*hartzaile/jasotzaile* gisa hartzea. Cerverak (1991: 13) ematen du horren gaineko azalpen gehiago, Bortolussiren terminoaz ari dela honakoa azaltzen baitu:

El interés y la aceptación del niño pasan por delante de la intención del autor y demás personas que destinan sus obras al niño, y que éste puede aceptar o no. Esta aceptación voluntaria por parte del niño justifica como literatura infantil la que llamamos *literatura ganada*.

Beraz, Bortolussiren terminoak erabilia, egilearen hasierako asmoaren arabera, bi irakurle mota bereiz daitezke: sortzez berari zuzendutako testua irakurtzen duen destinatzailea batetik; eta zuzenean berari zuzenduta egon ez arren, testua berarentzako hartzen duen irakurlea bestetik. Noski, beste aukera bat ere posible litzateke, eta horixe da Cerverak azaltzen duena: gerta daiteke ekoizleak (Even-Zoharren terminoa erabiltzearen) testua irakurleari zuzentzea, baina horrek ez hartzea produktua berarentzat. Puntu honetan, eta orain artekoa biltzeko asmoz, Lluhek (2015) elkarrizketa batean HGLri buruz emandako definizioa ekarri nahiko nuke:

La LIJ es básicamente diferentes tipos de textos literarios o paraliterarios (igual que en la literatura de adultos) que son pensados o comercializados o editados en colecciones dirigidas sobre todo a un público infantil y juvenil. Aunque sabemos que hay libros que no están escritos inicialmente para niños y jóvenes y que son leídos mayoritariamente por ellos, y hablamos como LIJ también de estos libros. También hay libros que inicialmente estaban escritos para niños y jóvenes y son leídos por adultos.

Ikerketa honetan irabazitako literatura HGLtzat hartuko da baldin eta obra hori HGL gisa sailkatua izan bada argitaletxeetako katalogoetan. Aurrerago azaldu dudan moduan, irizpide hori nire juzgu subjektiboak saiheste aldera hartu dut eta objektibotasunaren eta sistematikotasunaren izenean, argitaletxeetako katalogoetara jo dut HGL gisa sailkatuta dagoela ziurtatzeko eta ikerketa-corpora zehazteko. Jakin badakit tesi honetan aztergai dudan gaia jorratzen duten baina HGL gisa etiketatuta ez dauden liburu batzuk eskola batean baino gehiagotan erabiliak izan direla, hau da, irakurle gazte askok irakurri eta landu dituztela obra horiek. Dena den, corpusetik kanpo utzi ditut. Nire ustez, bi multzoak batera eta inolako bereizkuntzarik egin gabe aztertzeak ikerketa emaitzak zeharo lausotuko lituzke. Argitaletxeek egindako katalogazioari ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan dauden liburutegien (300 bat) katalogazioari ere erreparatu diot. Azken horretan, ordea, ikusi dut obra bera ez dela beti modu berean sailkatzen, hau da, liburu zehatz baten bilaketa eginda, liburutegi batzuetan helduen sailean ageri dela baina beste



liburutegi batzuetan ordea, haur eta gazteentzako literaturaren atalean. Bat ez etortze horrek, agerikoak diren arazoak dakarzkiz, berriro ere, ikertzailearen irizpide subjektiboaren esku uzten baitu erabakia. Hori horrela, arestian zehaztutako irizpideari helduko natzaio eta HGL gisa aztertuko ditut argitaletxeetako katalogoetan hala sailkatuta badatoz.

Orain arte, mintzagai hartutako gaiari *Haur eta Gazte Literatura* izendapena eman diot, baina ezin dut aipatu gabe utzi termino horrek bi azterkizun biltzen dituela bere baitan: “Haur Literatura” batetik, eta “Gazte Literatura” bestetik. Edo nahiago bada, esan daiteke termino horrek oso adin tarte zabalari zuzendutako literatura hartzen duela bere baitan, eta beraz, ezagutza eta gaitasun literario zein kognitibo oso ezberdina duten irakurleak biltzen dituela. Ezaugarri hori kontuan hartuta, aditu asko banaketa zorrotza proposatzen ahalegindu dira, baina haien hitzetan ikus daiteke ez dagoela erabateko adostasunik mugak jartzeko orduan. Diaz-Plajak (2011: 34), adibidez, banaketari buruz ari dela, aipatzen du gazte literaturak haur literaturak baino arazo terminologiko eta kontzeptual handiagoak sortzen dituela. Gaineratzen duenez, gazte literatura zalantzan jarria eta ukatua izan da, adin jakin batetik aurrera irakurleak espezifikotasun tenporal hori utzi eta literatura orokorreko irakurle izatera igarotzen baitira. Ildo beretik jotzen du Pérezek (1989: 15) ere, honako adierazpen hauek egiten baititu banaketaz ari dela:

El concepto de lo infantil está hasta cierto punto claro, aunque en ocasiones se llegue a él por pura decantación o por eliminaciones sucesivas. En lo “juvenil”, en cambio, queda una vasta zona oscura, difícil de delimitar, en la que *todavía* vale lo infantil, en algunos casos, pero también *empieza* a valer lo adulto en otros.

Colomerrek (1998: 33-34), bere aldetik, arazo hori bera aipatzen du HGL definitzen saiatzean: “La ampliación del libro infantil hacia los adolescentes plantea también el problema de incorporar o no las obras situadas en una franja ambigua entre lo que puede considerarse literatura juvenil y literatura de adultos”. Egile horrek berak, urte batzuk beranduago, zehaztaper bat gehitu zion auziari:

A ello hay que añadir que en los últimos tiempos, han empezado también a invertirse los términos del problema, puesto que están apareciendo libros que, aunque adopten las características formales de una obra infantil, parecen dirigirse, en realidad, a un público adulto, por lo cual se ha argumentado que no deberían formar parte de la historia de la literatura infantil y juvenil (2001: 68).

Goiko hitzetan ikus daitekeenez, maiz lausoa da adinarekin estuki lotutako banaketa eta ez da erraza muga zorrotz zehaztea. Etendura espezifikatzeko eragozpenaz gain, HGLri buruzko azterketa egiten ari den ikertzaileak beste zailtasun bati egin behar izaten dio aurre: Nazioarteko ikertzaileen artean ez da beti batasunik egon ikerketa gaiari esleitu beharreko termino zehatzaren inguruan, eta horrek nahasteak sor ditzake. Askotan *haur literatura* izendapena erabili da HGLri osotasunean erreferentzia egiteko<sup>18</sup>, baina beste batzuetan, lehen termino horrek ez ditu kontuan hartu gazteei zuzendutako literatur testuak. Diaz-Plajak (2011: 34) dioenez, ingelesak asko sinplifikatzen du, izan ere, *children's literature* izendapenak berdin balio du txikienen literatura adierazteko zein gazteentzako literatura izendatzeko, nahiz eta *teenage literature* edo *for young adults* izendapenak gordetzen dituzten espezifikoki nerabeentzako egiten den literaturaz jardutean. Frantsesez, ordea, oztopo handiagoak daude, *littérature de jeunesse*, *enfantine* eta abar baitaude. Terminoen arteko dantza horren berri eta sor daitezkeen nahasteen berri ematen dute Marc Sorianooren (1975: 15) hitzek, urteen poderioz interesa galdu ez duten hitzak zinez.

L'expression la plus courante pour désigner ce secteur de la production est en effet *la littérature pour la jeunesse* et j'ai dû l'adopter sur la couverture de ce volume, pour ne pas déconcerter mes lecteurs dès la première ligne. En fait, la formule n'est pas heureuse, la préposition *pour* exprime une intention délibérée. En conséquence, cette étiquette ne peut désigner qu'une partie de cette littérature, celle que les adultes, d'une manière autoritaire et souvent arbitraire, préparent à l'intention des enfants. Mais c'est là exclure la partie la plus importante du répertoire de l'enfance, les livres qu'ils choisissent eux-mêmes dans la littérature adulte. Autre expression usuelle et que j'ai utilisée dans un livre antérieur: celle de littérature enfantine<sup>19</sup>. Elle serait acceptable si l'adjectif qualificatif dénotait une simple attribution; or, la plupart du temps, se trouve connoté un jugement de valeur qui est facilement dépréciatif. Enfantin devient alors synonyme de puéril ou même de simpliste, nuance qui n'est pas négligeable puisqu'elle nous révèle, comme le note avec profondeur G. Devereux, que nous superposons la réalité de l'enfance et l'image que nous nous formons d'elle. De surcroît, le mot enfance reste imprécis dans le temps. Il désigne aussi bien la première enfance que les stades qui la prolongent. Le terme de jeunesse est certainement préférable, car c'est le seul qui désigne l'ensemble des classes d'âge que traverse un être en formation. C'est pourquoi j'emploie dans ce livre l'expression générique *littérature de jeunesse*, utilisée pour la première fois en Belgique et que

---

<sup>18</sup> Adibidez, Hans Heino Ewers-ek (2012) idatzitako *Fundamental Concepts of Children's Literature Research. Literary and Sociological Approaches* liburuan, *Children's literature* aipatzen da izenburuan, baina lehenengo kapitulu bertan (ikus 9. or.), esplizituki adierazten da liburuan haur eta gazteei zuzendutako literatura aztertuko dela.

<sup>19</sup> Hau da aipatzen duen liburua: *Guide de la littérature enfantine*, Flammarion argitaletxeak argitaratua 1959an.

j'ai, je crois, contribué à répandre. C'est la seule, me semble-t-il, qui convienne à la fois aux albums et aux livres d'adolescents, à la littérature «octroyée» par les adultes et à la littérature «dérobée» par les enfants eux-mêmes.

Gaztelaniaz badirudi *literatura infantil y juvenil* sintagma ezarri dela, LIJ siglarekin laburtzen dena (Cerrillo, 2013), eta esango nuke azken urteotan euskaraz ere *haur eta gazte literatura* terminoa nagusitzen ari dela. HGLren ikerketa alemaniarretan “spezifischen Kinder- und Jugendliteratur” (berariazko haur eta gazte literatura) hitza erabili da mintzagai dudan ikerketa gaiari erreferentzia egiteko (Doderer 1977: 162; Brüggemann/Ewers 1982: 4; Eckhardt 1987: 31; Ewers 2000: 22 apud Ewers 2012: 20). Terminologiarekin lotutako nahasteak saihesteko asmoz, nire tesian *HGL* siglak erabiliko ditut haur eta gazteei zuzendutako obrei erreferentzia egiteko, multzo gisa, nahiz eta kontuan izango dudan sail horretan oso testu ezberdinak batzen direla. *Haur Literatura* terminoa erabiltzen badut, berariaz lehen irakurle horiei erreferentzia egiteko baliatuko dut, zentzu jakin horrekin. *Gazte Literatura* terminoa darabildanean ordea, irakurleria helduagoari berariaz zuzendutako testu literarioei egingo diet erreferentzia. Argi gera dadila, beraz, bi literatura “mota” horietako bati erreferentzia egin nahi diodanean entitate gisa, letra larriak baliatuko ditudala. Terminologiarekin lotuta, noiz edo noiz ez da argi geratzen ikertzaileak HGLz ari diren, berariaz helduei zuzendutako literaturaz mintzo diren edo oro har literaturaz ari diren. Jakin badakit, gehienetan, ikerketak adjektibatu gabeko literaturaz mintzo direnean, ez dutela HGL kontuan hartzen. Hori horrela, tesi honetan *literatura* terminoa kategoria gisa erabiltzen dudanean, kontzeptu orohartzaileari erreferentzia egiteko erabiliko dut (hala HGL nola helduei zuzendutakoa barne hartzen duena). Bereizketarik egin nahi dudanean ordea, *helduen literatura* terminoa baliatuko dut, HGLren kontraste gisa.

## 2.2. HGL eta kritika literarioa

Le goût que les enfants ont pour certains livres,  
me disait en 1956 l'éditeur Michel Bourrelier,  
me fait penser à celui qu'ils ont pour le chocolat.

Les nourrira-t-on exclusivement de chocolat?

Les intérêts qu'expriment les enfants ont une grande importance  
et ce serait une folie et une sottise que de ne pas chercher à les connaître;  
mais il s'agit malgré tout de données que l'adulte doit encore comprendre et interpréter.

Tout ce qui plaît aux enfants n'est pas nécessairement bon pour eux.  
Et tout ce qui serait bon pour eux et qu'ils aimeront par la suite ne leur plaît pas immédiatement.

Il faut donc considérer leurs goûts comme une donnée qui se transforme et s'approfondit  
(Soriano, 1975: 452).

Aurreko atalean aipatu dudan moduan, 1997an Etxanizek euskal HGLri buruzko saiakera plazaratu zuen (ikus Etxaniz, 1997a) eta gabezia literatur kritikan dagoela azpimarratu zuen. Urte batzuk beranduago, ikertzaile horrek berak (2012a: 309) honako adierazpenak egin zituen:

The evolution of the last few years in both the quantity and quality of books has not generated a literary critique. There have been seminars, courses, and publications, and some university doctoral theses are now being read, but studies about the importance of CYPL in terms of its production and its repercussion in the media and in specialized critique are clearly lacking. [...] At the moment there are different levels of critique, from reviews and critiques in the media and journals, both specialized and otherwise, to academic critique. It should be noted that almost all forms of media in Euskara publish such reviews and critiques, from the press to academic journals. Besides, as has already been noted, almost all Basque publishers produce works of CYPL and offer a wide range of collections. And the fact that the Basque literary, commercial, and social world is so small allows for the presence of CYPL in areas that would be inaccessible in other cultures, such as television and radio. Several institutions also show their support for this literature, and the Basque government awards the Euskadi Prize to the best publication of the year.

Goiko aipuan ikus daitekeen moduan, adituak gabezia bat sumatzen du euskal HGLren kritika espezializatuari dagokionez, izan ere, azken urteotako bilakaera kuantitatibo zein kualitatiboa ez da kritika literarioan islatu. Gaineratzen duenez, HGLk ekoizpenean duen garrantziari eta komunikabideetan eta kritika espezializatuan duen oihartzunari buruzko

azterketak falta dira. Interesgarria da, kritikaren alorrean, Ibon Egañak 2013an aurkeztutako doktore-tesia: *Kritikarako hurbilketa literaturaren soziologiatik. Egunkari eta aldizkarietako euskal literatur kritiken analisia (1975-2005)*. Bertan, izenburuak iradokitzen duen moduan, euskal literaturaren inguruan hedabideetan 1975 eta 2005 bitartean argitaratutako kritikak aztertu zituen kuantitatiboki zein kualitatiboki. Dena den, tesi horretan, corpusa osatzean, egileak ez ditu kontuan hartzen HGLko liburuen kritikak (salbu eta kritikak helduen literaturaren parekotzat hartu dituen HGLko lan zenbaiten gainekoak, *Behi euskaldun baten memoriak* edo *Kandinskyren tradizioa*, besteak beste).

HGLren ekoizpenari dagokionez, aurreko atalean (ikus 2.1.) HGLk merkatuan duen garrantziaren irudi orokor bat eskaini dut. Bigarren hutsuneari dagokionez, tesi honetan, liburu bakoitzaren analisia egitean, kontuan izango dut aztergai dudan literatur testuak hainbat mediotan izandako oihartzuna. Horretarako, aldizkari espezializatueta erreseinak, egunkarietako aipamen eta iruzkin deskriptiboak, telebistako programak, sariketetako aktak, online dauden blogak edo bestelako baliabideak arakatuko ditut. Azterketa horrek hiru datu nagusi eskainiko ditu. Batetik, medioetako agerpen kopuruak aztarnak emango ditu obraren irismena edo oihartzuna zenbatekoa izan den testatzeko. Bestetik, obrari buruz egindako aipamen edo kritika horren nolakotasuna aztertu ahalko dut, alegia, ikusi ahal izango dut ea azaleko iruzkin bat egin den kontakizunaren gaia eta datu txiki batzuk emanez, edo kritika literario osatu bat eskaini den. Eta azkenik, balorazio kualitatiboa egiten den kasuan, liburuak kritika positibo edo negatiboa jaso duen jakingo dut.

HGL obren gaineko kritika, erreseina, iruzkin eta abarrak oso modu ezberdinetan egin ohi dira komunikabideetan. Batzuetan testu laburrak edo erreseinak aurki daitezke, kritika lanak baino testu deskriptiboak izan ohi direnak, zeinetan liburuaren gaineko informazio laburra eta zenbait kasutan balorazio txiki bat aurki daitekeen. Beste batzuetan ordea, iruzkin tematiko-deskriptiboak aurki daitezke eta zenbait kasutan erreseinak baino luzeagoak izan ohi dira. Horietan batik bat argumentua, pertsonaiak, egoerak edo tramak azaltzen dira, baina balorazio edo kritikarik gabe. Iruzkin subjektiboak ere aurki daitezke, zeinetan egileak, inolako analisisirik egin gabe, iruzkin pertsonala eskaintzen duen (zer sentitu duen kontakizunaren aurrean, gogoko izan duen edo asebeste duen). Iruzkin analitikoetan literatur testuaren gaineko analisi bat eskaintzen da, zeinak osteko balorazioa egitea ahalbidetzen duen. Azkenik, liburu zerrendak aurki daitezke, bestelako baloraziorik gabe (Vázquez, 1993; Etxaniz, 2002 eta Mendoza, 2004). Euskal HGLri dagokionez, noiz edo noiz aurki daitezke

erreseina laburrak Euskal Herriko aldizkarietan. Tesiko corpuseko obraren erreseinak aurkitu ditut, besteak beste, *Berrian*, *Argian*, *Garan*, *El Diario Vascon*, *El Correon*, edo gaur egun desagertu diren *Egunkarian* eta *Egin* egunkarian). Horietan guztietan, normalean, argumentua eta balorazio txiki bat aurki daiteke, baina iruditzen zait ez direla obraren mekanismoetan sartzen, erreseinaren luzera ikusita aurrean daitekeen legez. *Behinola* da HGLri eskainitako euskarazko aldizkari bakarra. Urtean bitan argitaratzen da eta bertan liburuen gaineko iruzkin subjektiboak (zeinetan Euskal Herriko pertsona ezagunek beren liburu kuttunaz hitz egiten duten “kuttuna” atalean) eta iruzkin literarioak aurki daitezke. Dena den, aldizkari honetako erreseinak edo kritikek luzera laburra izaten dute, eta beraz, ezin daiteke esan bertan analisi sakona egiten denik. *Behinola* aldizkariako liburu iruzkinak urteetan zehar izandako bilakaerari erreparatuz gero, aipatzekoa da lehenengo aletik 27. alera arte (1999tik 2013ko ekainera bitartekoak) “Hitz beste” atalaren barruan ageri zela “Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseina” deituriko sekzioa eta bertan, 28. aletik aurrerako liburu iruzkinekin alderatuta, analisi luzeagoa (apur bat sakonagoa) eskaini ohi zela. Nabarmentzekoa da, halaber, hasierako aleetako “Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseina” sekzioaren ordean “Iruzkinak” atala ageri dela 28. aletik aurrera. Oro har, *Behinolako* iruzkinetan, argumentua labur kontatu eta (amaieran) obraren balio positibo bat aldarrikatzen da<sup>20</sup>. *Positibo* hitza aipatu dut berriaz, oro har inoiz ez baita kritika txarrik agertzen. Beste egunakarietan, liburuen ahulguneak aipatzen dituzten iruzkinak errazago aurki badaitezke ere, normalean balorazioak positiboak izan ohi dira. Baieztapen horrek bat egiten du Egañak (2013: 255) ohartarazten duen euskal literaturaren gaineko kritikari buruzko ustearekin:

Bigarren salaketa garrantzitsua, baina, kritika baloratzailerik eza izan da (eta sarritan “kritikarik eza”-ren inguruko salaketek hau berau adierazi nahi dute, kritikarik eza baloraziorik ezarekin parekatuz). Hirugarrenik, eta aurreko baieztapenen bien ildo berean, kritika positiboek eta laudoriozkoek luketen leku gehiegizkoa kritikatu zaio euskal kritikari azken urteetan.

Egañaren hitzekin jarraituz, interesgarria da tesiko corpusean jasotako 1975 eta 2005 bitarteko kritiken analisisia egin ostean ondorioztatzen duena, alegia, prentsako euskal kritika baloratzailerik dela % 85ean. Edonola ere, gaineratzen du kritikaren funtzio baloratzailerik ezaz egindako adierazpenen atzean beste zerbait ezkuta litekeela; hots, balorazio negatiborik eza dela salatzen dena, baloraziorik egiten ez dela esatean (2013: 256-257). Ikertzaile horrek berak aipatzen du balorazio negatiborik ezak dakartzan ondorioak, besteak beste, balorazio

---

<sup>20</sup> HGLko *CLIJ* aldizkari espainiarrean ere aurkitu dut euskal obraren bati buruzko erreseinarik, bertako ikertzaileek egindakoak guztiak.

positiboen sinesgarritasuna eta efektibotasuna ezbaian jartzea. Kritika negatiboen absentziak eta liburuaren argumentua kontatzen pasatzen ez diren kritikek dakartzaten kalteez mintzo da Iban Zaldia (2005) ere bere lanean. Arestian aipatutakoa ikusita, batek pentsa lezake euskaraz ez dela HGL obren kritika literario sakonik egiten helduenean ez bezala. Jarraian azalduko dut zer ulertzen dudaneuk sakoneko kritika literarioa diodanean, baina aurrera dezadan kritika akademikoa egin egiten dela, urteek aurrera egin ahala, gero eta gehiago, publiko orokorrarentzako (helduentzako) liburuekin baino askoz gutxiago bada ere. Nire ustez HGL kritikaria gai izan behar da argumentua kontatzen duen erreseina hutsetik harago joateko, balorazio bat eskaini ahal izateko. Ez zait nahikoa iruditzen deskribapen hutsean geratzea. Kritika literarioa, kritika publikoa, behintzat, ez da hainbat analisi metodo erabilita ezaugarri formal eta estilistikoak azaltzea soilik, baizik eta osteko balorazioa eskatzen du, aurretik lortutako datuetatik abiatuta. Horrekin ez dut esan nahi kritikariaren balorazio pertsonala (gustatu zait *vs* ez zait gustatu estilokoa) espero dudarik, baina bai balorazio literario-estetiko bat. Kritika bat zeinak balioko duen testu bat edo beste hobesteko, obraren kalitate literarioa epaituko duen kritika bat, adibidez. Kritikaren funtzio baloratiboari buruz aditu guztiak ez datoz bat. Zenbait adituk (Lasagabaster, 2002; Egaña, 2013) funtzio baloratiboa egozten diote prentsako kritikari, baina ez hainbeste kritika akademikoari. Honako hauek Lasagabasterren (2002: 20) hitzak dira:

Honelako [kritika unibertsitarioaz ari da] lan kritikoaren helburua ez da, ezin du izan, balorazio bat egitea, hau da, testu literario bat edozein ikuspegitik ona ala txarra den erabakitzea, edo bere meritu estetiko edo ideologikoak zertan oinarritzen diren adieraztea,... edo irakurle potentzialen ikuspuntutik irakurtzea merezi duen ala ez esatea [...] kritika unibertsitarioaren helburua zientifikoa dela eta ez didaktikoa.

Hitz hauek, ordea, Antonio Mendozak (2001: 31) berariaz HGLri buruzko kritikaz ari dela aipatzen dituenak dira: “La crítica es (o debería ser...) una valoración, un juicio, una aportación analítica e interpretativa de una obra. Y el crítico es un lector –un especial lector– que comenta, enjuicia y aporta su interpretación y su valoración”. Bat nator Lasagabasterrekin dioenean kritika akademikoaren edo unibertsitarioaren helburua ez dela liburu bat irakurtzea merezi duen ala ez esatea, eta ados nago, halaber, zientifikotasunaz dioenarekin. Ez dut uste kritikariak esplizituki adierazi behar duenik obra bat ona ala txarra den, edo irakurri behar den edo ez<sup>21</sup>; baina liburuaren osaerari eta engranajeari buruzko

---

<sup>21</sup> Ewarsek (2012: 85) dioen bezala:

azterketa egitean, uste dut nola edo hala azaleratzen direla balorazio zantzu batzuk (inplizituki bada ere). Egañak (2013: 255) dioen moduan, “kritikaren funtzio deskribatzaile edo interpretatzaileak ere maiz eduki baloratzailerak izan dezake”. Baieztapen horri beste bat gehi dakioke: Ezin uka daiteke kritika akademikoak kanon bat zehazten duela, eta hori, funtsean, balorazio bat da. Lasagabasterrek goiko aipuan ahotan hartzen duen helburu didaktikoari dagokionez, testuaren azterketa zientifikoaren emaitzak azaleratzen dituen kritika literario osotu bat ez al da nolabait didaktikoa kritika horren hartzailearentzat? Ez al dira bateragarriak helburu zientifikoak eta didaktikoak? Nire ustez, kritikaria literatur aditua bada, gai izan behar da irakurleari orientazio tresna batzuk emateko eta testuak gordetzen dituen irakurketak azaleratzeko. Kritikariak ahalik eta objektiboena izaten saiatu behar du eta ezin uka daiteke balorazio bat emateak beti dakarrela subjektibotasunetik zerbait. Dena den, testuaren analisia metodologia egokiarekin eginez gero, eta balorazioa datu horietan oinarrituz gero, uste dut hortik irtendako balorazioa funts handiagokoa izango dela. Eta balorazio mota hori kritika akademikoan agertzea, nire uste apalean, ez da kaltegarria. Aurrera egiteko, Lasagabasterrek (2002: 25) euskal literatur kritika orokorraz ari zela aipatutakoa ekarri nahiko nuke, HGLren arloaz hitz egiteko ere balio duelako:

Ausartago izan beharko luke egunkarietan edo aldizkarietan kritika literarioa egiten duenak. Ezin da neutrotasun hotz eta ia anonimo baten segurantzaz geratu eta atsedean hartu. Irakurleriari jakinarazi behar zaizkio testu baten ezaugarri narratiboak, poetikoak... edo semantikoak, baina, aldi berean, bere kalitate estetikoaz mintzatu behar da, ona ala txarra den adieraziz kritikariaren beraren irizpide pertsonalaren arabera. Subjektiboegia dela? Bai, baina kritikari baten subjektibotasuna fidagarria da edo izan beharko luke. Honetan dago kritika publikoaren arriskua, baita bere eginbeharra ere. Eta nik uste dut gaur egun, euskal kritika publikoak, gehienetan behintzat, ez duela eginbehar hori betetzen.

Balorazioaren auzia ez eze, formari edo balorazio estetikoari buruzko azterketa kritikoaren inguruko kezka hainbat adituren ahotan entzun daiteke. Honako aipu honetan, formaren azterketari heltzea aldarrikatzen du Eagletonek (2010: 25):

---

In the ideal case literary critics do not pre-select, nor do they give recommendations or warnings. They reveal to the reader no more and no less than their personal evaluation of the relevant literary work. Whether readers agree with the critics' assessment or not is up to them. [...] In terms of communication theory, literary critics do not wish to be gatekeepers of literary communication, but simply add their judgement to the literary message without preventing it from being passed on. They respect the freedom of all those who take part in literary communication-not just that of the receiver, but also that of the sender, which is why I suggest that one should describe the critic as a liberal mediator.



La crítica literaria está en riesgo de incumplir sus dos funciones tradicionales. Si la mayoría de sus profesionales se han vuelto menos sensibles a la forma literaria, algunos de ellos también contemplan con escepticismo las responsabilidades sociales y políticas del crítico. En el presente, gran parte de ese análisis político ha sido transferido a los estudios culturales; pero los estudios culturales, por el contrario, a menudo se han desentendido del proyecto tradicional del análisis de la forma. Los dos campos de estudio han aprendido muy poco el uno del otro.

Eagletonek goiko aipuan bezala, horixe bera defendatzen dut neuk ere HGLz aritzean: Forma literarioari erreparatzea eta horren berri ematea. Bestelako ikasketek (tesi honetan baliatuko ditudan Memoria Ikasketak, Genero Ikasketak eta abar) eskaintzen duten teoria eta metodoak erabiltzea guztiz zilegi iruditzen zait, horixe egingo dut neuk ere; baina ezin zaio muzin egin forma literarioaren azterketa kritikoari. Esan gabe doa kritika literarioak, hitzezko esanahiari erreparatu ez ezik, irudien konstelazio osoari ere erreparatu behar diola, eta horren berri eman behar duela. HGL obren literatur kritikan, maiz(egi) ikusi den ezaugarria da literatur liburuaren azterketa eta balorazioa bera obraren erabilgarritasun didaktiko edo pedagogikoan oinarritzea eta analisi guztia horren bueltan ardaztea. Ildo horretan, tamalez, jarraian datorren Cerrilloren (2013: 11) aipu honek ez du gaurkotasunik galdu euskal HGLri dagokionez behintzat:

Durante muchísimo tiempo las creaciones literarias infantiles y juveniles han sido ignoradas por la crítica literaria, la historia y la filología; y, cuando se valoraron y enjuiciaron, lo fueron con criterios moralizantes, pedagógicos o doctrinales, y no literarios.

Oraindik ere, irizpide horien arabera epaitzen dira liburu asko, batez ere alderdi pedagogikoari dagokionez. Jakina da askotan literatur testuak eduki/gai jakin batzuk lantzeko tresna gisa erabiltzen direla, eskolan batez ere (2.4. atalean hitz egingo dut sakonago literatur testuak instrumentalizatzear edo gozamen estetikoaz aparteko helburuetarako erabiltzeaz). Alde horretatik, hezitzaileei baliagarri suerta dakieke aplikazio didaktikoan oinarritzen diren erreseina laburrak. Hala ere, zinez uste dut ongi bereizi beharko lirakeela liburuaren erabilgarritasun didaktikoa eta liburuaren balioa alderdi estetikitik erreparatuta, ez baitira inolaz ere gauza bera. Bereizketa hori ez egitea larriagoa iruditzen zait unibertsitate mailako kritikan edo kritika akademikoan, nolabaiteko iruzkin luzeaz hitz egiten ari baikara, zeinetan kritika espezializatuago bat eskaintzen den. Horietan ezinbestekoa iruditzen zait obraren alderdi estilistiko eta formalei erreparatzea, barneko egiturak azaleratzea, zeinu eta sinboloen esanahiak argitzea, testuen arteko loturak azaltzea eta abar. Gainera, lehen esandakoaz batera, Harrera Teoriaren jarraitzaileek hastapenetik adierazi duten moduan, obraren eta bere

irakurleen arteko erlazioa aztertzea ezinbestekoa da ikerketa kritikoetan, are gehiago irakurlearen adinak ezaugarritutako literaturaz ari bagara. Horri lotuta, eta Mendozaren (2001: 31, 36) hitzak parafraseatuz, geure buruari galdetu behar diogu ea HGLren kritikak obra sakonki aztertu eta baloratzen duen irakurle modelo edo implizituaren posiziotik. Zentzu horretan, HGLren kasuan salbuespena da Olaziregik 1997an defendatutako bere tesian egindako ikerketa. Bertan, Harrera Teoriaren ildotik gerturatu zitzaion *Behi euskaldun baten memoriak* obrari. Dena den, ez da kasualitatea literatur lan hori izatea salbuespena, kontuan hartuta obrak izan duen zirkuitu literarioa eta jakinda egilea guztiz kanonikoa bihurtu dela euskal letretan. Chambersek (1985) aspaldi aldarrikatu zuen haurra irakurle gisa kontuan hartuko duen metodo kritiko baten beharra; hura baztertu baino, kontuan hartuko duena; liburua hobeto ulertzen eta testuak bilatzen duen irakurlea deskubritzen lagunduko duena. Kritikak irakurle mota horri dagozkion ezaugarri baldintzatzaileak eta ezaugarri orokorrak hartu behar ditu kontuan. Bat etorri behar du berariazko hartzaileen ustezko maila kognitibo, ludiko eta errezeptoreekin. Era berean, kritikak agerian jarri beharko lituzke obra baten muga edo gabeziak, besteak beste, diskurtsoa ez denean irakurlearen ezaugarrietara egokitzen.

Tesi honetan aldarrikatzen den kritika mota bat dator Vásquezek (2002) defendatzen duenarekin: Kritika literario integrala da literatura orokorraren parametroetatik bereizten ez dena, eta, aldi berean, haurtzaroaren berezitasun diskurtsiboetan sakontzen duena. Kritika horrek haurra edo gaztea benetako hartzaile gisa tratatu behar du (ez iritzirik gabeko ontzi gisa) eta komunikazio-sistema dialektikoaren barruan dagoen subjektu gisa aztertu behar du. 2002an Hans Christian Andersen saria eskuratu zuen Aidan Chambers idazle eta kritikariak hurrek berezko gaitasun kritikoa dutela defendatzen du. Dioenez, instintiboki kuestionatu, erkatu, loturak egin eta epaitzen dute. Uzten bazaie, haien iritzia eta sentimenduak adierazten dituzte eta lagunaren sentimenduekiko interesa adierazten dute. Liburuez edo filmez hitz egiten dutenean, informazio bilaketarekin disfrutatzen dute eta gai dira heldu batek bezala liburuen balorazioak egiteko edo haiek baztertzeke (2007: 39). Egia esan, euskal letretan faltan botatzen da kritika bat zeinak erreparatuko dion obra batek irakurle gaztearengan izandako harrerari. Bidean, azpimarratzekoa da Chambersek bere lanetan txertatu zituela hurrek literatur lanen aurrean duten harrera kritikoa. Tesi lan honetan corpuseko obrak irakurle gazteekin lantzeko zenbait gako emango ditut, eta ikusiko den moduan, irakurle gazteen inpresioei erreparatzea eskatuko du horrek. Colomerri (2005) jarraikiz, kontuan hartuta liburuak publiko ezberdinak irakur ditzakeela (haurrak eta helduak), literatur kritikariak bi irakurle motei lagundu behar die, bientzat baliagarriak izango diren

orientabideak eskainiz. Haur eta gazteen harrerari erreparatzeak duen garrantzia aipatu dut gorago eta ildo horretan, irakurle gazteak benetako hartzaile gisa tratatzea aldarrikatuko dut. Dena den, bistakoa da, Mendozak (2001: 33) dioen moduan, gazteek ez dituztela normalean kritikak irakurtzen:

En el caso de la LIJ, la crítica orienta a un mediador –profesor, educador, bibliotecario, animador cultural...–, no al verdadero lector destinatario [...] Los artículos o reseñas críticas se proyectan hacia unos destinatarios que, en el caso de las críticas de la LIJ no son, en principio, sus lectores implícitos. El experto que elabora la crítica la concibe para otros especialistas –que son los mediadores entre la obra y los destinatarios implícitos–.

HGL obren kritikak heldua du hartzaile nagusi, izan ere, gurasoek, irakasleek, liburuzainek zein bestelako hezitzaile helduek (bitartekariak) dute, oro har, hautatzeko ardura eta erosteko ahalmena. Haiak erabakitzen dute zein irakurgai diren egokiak eta zeintzuk ez. Noiz edo noiz gazteei zuzendutako erreseina edo artikulua laburrak aurki daitezke, baina normalean, argitaletxeek eurek egindako gomendioak izaten dira edo irakurzaletasuna sustatzea izaten da helburua. Gerta liteke ere erreseinak aurkitzea eskolako testuliburuetan (euskara eta literaturako ikasgaietan normalean), baina horrelakoetan testua ulermen ariketa baterako euskarri gisa agertu ohi da, edo hizkuntzazko ariketak egiteko. Puntu honetan, interesgarria da Lasagabasterrek (2002) eta Olaziregik (2002a) egiten duten bereizketa, kritika unibertsitaria alde batetik, eta egunkari-kritika edo kritika publikoa bestetik bereiziz:

Euskal literatur kritika zientifikoa unibertsitatean, Euskal Filologia Fakultateetan, sortzen da<sup>22</sup>. Baina badago unibertsitateetatik kanpo egiten den beste kritika arrunt bat, egunkarietan edo aldizkarietan zabaltzen dena gehienetan, nik “egunkari-kritika” deitu dudana eta Mari Jose Olaziregik, adibidez, kritika “publiko” deitzen duena. Eta benetan, kritika “publiko” esatea egokiago iruditzen zait, kontuan izanik kritika unibertsitaria edo akademikoa, tesiak, adibidez, argitaratzen badira ere, esparru unibertsitarioan eta akademikoan, adituen eskuetan, alegia, geratzen direla, maila “pribatu” batean, alde edo moldez (Lasagabaster, 2002: 24).

Goiko aipu horri jarraikiz, esan daiteke kritika literario osotuenak, hau da, analisi zientifikoak, arlo akademikoan geratzen direla, berez, “pribatuagoa” den sarean geratzen direla (kritika publikoaren esparruak bere gain hartzen duenarekin konparatuta). Kritika horren berri izateko aldizkari espezializatuetara jo behar izaten da, eta horietan, maiz oso sakabanatuta ageri dira HGLko analisiak. Beste batzuetan, doktore-tesien kasuan adibidez, eta

---

<sup>22</sup> HGLz ari garenez gero, Filologia Fakultateaz gain, Hezkuntza Fakultateak gehituko nituzke aipu horretan.

batez ere argitaletxeren batek argitaratzen ez duenean, ikusgarritasuna edo irisgarritasuna oso txikia izan ohi da publiko zabalarentzat, hau da, lan horien zirkulazioa mugatua izaten da oso. Kritikaren destinatzailearengana iristeko zailtasuna hainbat adituk aipatu duten kontua da (Moreno, 2000; Etxaniz, 2005a; Etxaniz eta López Gaseni, 2011). Irisgarritasunaren aferaz gain, HGL obren kritika literario sendoa egitea lan konplexua da, zeinak ezagutza eta kompetentzia handiak eskatzen dizkion ikertzaileari (Soriano, 1995; Aguilar Ródenas, 2007):

La función de la crítica de los libros para niños –al igual que de los libros para adultos– es la de presentar un libro de calidad, resumiendo su contenido sin marchitarlo, señalando el interés que merece y, si corresponde, adelantando alguna crítica, algo que exige mucha cultura y además, en este campo particular que nos ocupa, ciertas destrezas y competencias específicas (Soriano, 1995: 431, azpimarra nirea da).

Zailtasunak zailtasun, tesi honetan ikertuko den corpuseko liburuek hainbat mediotan izandako oihartzuna eta jasotako kritikak ikertzeaz gain, eta horien berri emateaz gain, obren azterketa kritiko literarioa eskaintzen ahaleginduko naiz, arestian aldarrikatu den kritika literario integrala eskaintzen saiatuz. Hezkuntzari begira, hezitzaileentzako baliagarriak izango diren gakoak emango ditut, baina horrez gain, literatur testuaren berezko ezaugarriei, alderdi estilistikoari eta abarri ere erreparatuko diot, testuek irudikatzen duten irakurle modeloa (cf. Eco) edo irakurle inplizitua (cf. Iser) argitze aldera.

### **2.3. Euskal HGLri buruzko doktore-tesiak**

Kritika akademikoa aipatu dudanez, atal hau azken urteotan euskarazko HGLri buruz defendatu diren tesi lanak gainbegiratzuz bukatu nahiko nuke. Bilaketa egiteko, Espainiako Ministerioak kudeatzen duen Teseo datu-basea arakatu dut, bertan biltzen baitira Espainiar Estatuko unibertsitateetan irakurritako tesiak. Horrez gain, Ipar Euskal Herrian defendatutako tesirik dagoen ikusteko, Frantziar Estatuko tesiak biltzen dituen Theses.fr gordailua aztertu dut. Gauza bertsua esan nezake Nevadako Unibertsitateari buruz, bertan euskal ikasketetan espezializatzeko doktorego programa eskaintzen denez (Basque Studies PhD); hura ere arakatzeari egoki iritzi diot euskal eremu akademikoa bere osotasunean kontuan hartzeko. Dena den, euskal gatazkari buruzko tesirik aurki daitekeen arren (Murua, 2014), unibertsitate horretan ez da euskal HGLrekin lotutako lanik defendatu. Esandakoaz bat, Cervantes Institutuaren Portal del Hispanismo datu basean ere egin ditut bilaketak, hispanismoarekin lotutako mundu mailako baliabideak biltzen baitira bertan, baita tesiak ere. Dena den, bertan

ez dut euskal HGLri buruzko tesi lanik aurkitu. Azkenik, bilaketa orokorrago bat egin dut Open Access Theses and Dissertations (OATD) delakoan, tesiak mundu mailako 1.100 unibertsitatetik jasotzen dituen baliabidean. Aurkitutako tesi horiek guztiek zein aztergai duten eta zein ikuspuntutik landu duten biltzea da jarraian datorren atal honen helburua.

Lehenik eta behin, Xabier Etxanizek 1996an UPV/EHU defendatutako tesia aipatu beharko litzateke, *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* izena daramana eta Juan Kruz Igerabideren zuzendaritzapean burutu zuena. Bertan, izenburuak iradokitzen duen moduan, euskal HGLren historia aurkezten du egileak. Lehenik HGL kontzeptua bera mugarriztatzen du, baina horrez gain, nazioarte mailan HGLk izandako bilakaera eta horretan eragin duten faktoreak aipatu eta ikuspegi horretan euskal HGL nola garatu den aztertzen du Etxanizek. Funtsean euskal HGLren gaineko historiografia bat eskaintzen du tesi lan horrek.

Bernardo Atxagaren obra, eta bereziki, *Behi euskaldun baten memoriak* liburua sakon aztertzen duelako, azpimarratzekoa da Mari Jose Olaziregiren tesia, UPV/EHU defendatua 1997an: *Literatura eta irakurlea. Soziologiatik testu-estrategietara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*. Jesus Mari Lasagabasterren zuzendaritzapean ondutako tesi lan honetan, Olaziregik ikuspuntu soziologikotik eta Harrera Estetikatik aztertu zuen Bernardo Atxaga idazlearen irakurleria. Zehatzagoak izateko, *Obabakoak* (1988) eta *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) obretako irakurle inplizitua ikertu eta alderatu zituen (ondorioztatuz bi obretatik eratortzen den irakurketa desberdintasuna irakurle inplizitu desberdinetan oinarritzen dela). Gainera, azterketa zehatz hori liburuak nazio mailako zein nazioarteko prentsa eta aldizkako argitalpenetan izandako harrera kritikoaren analisiarekin osatu zuen.

Urte eta unibertsitate berean, *Euskal haurtzaroaren asmakuntza 1976-1990 urte bitarteko ipuingintzan isladatu denez* izeneko tesia irakurri zuen Eukene Martinek. Jon Kortazarren zuzendaritzapeko lan horretan, euskal jatorrizko haur ipuingintzari buruzko deskribapena eskaintzen da eta horretarako 1976-1990 urte bitarteko ipuingintza aztertzen da, 304 ipuin aztertuz guztira. Ikus daitekeenez, Martinek narratologia baliatzen du batez ere. Pertsonaiak aztertzen ditu eta testuetan agertzen diren irakurle-ereduak ateratzea du helburu nagusi. Funtsean, esan daiteke haurraren irudikapena nola agertzen den aztertzea eta horren berri ematea dela tesi horren ekarpen nagusia.

2000. urtean UPV/EHU defendatutako José Manuel López Gaseniren tesia aipatu beharko litzateke, *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta*

*estrategiak* izenburua duena eta Xabier Etxanizen zuzendaritzapean burutu zuena. Bertan, euskal HGLren arloko itzulpenak historikoki nola egin diren, jatorrizko produkzioarekin zer nolako harremanak izan dituzten, zein funtzio bete dituzten eta euskal HGLren sistemari zein ekarpen egin dioten argitzea izan zuen helburu ikertzaileak.

2003an, Carmen Saralegui eta Manuel Casadoren zuzendaritzapean, Miren Itziar Enecoizek *Lengua vasca y traducción: la connotación en las traducciones vascas de la literatura infantil y juvenil. El caso de Roald Dahl* izeneko tesia defendatu zuen Nafarroako Unibertsitatean (UNAV). Itzulitako HGLk euskarazko produkzio literarioan duen garrantzi kuantitatiboaz jabetuta, tesi honen helburu nagusia itzulpenak euskararen normalizazio-prozesuari egindako ekarpena aztertzea da, bai eta euskal hiztunen artean itzulitako HGLk izan duen hedapena ere. Horrekin batera, itzulpenak beste literatura batzuetarako ate eta beste espresio moduen erakusgarri diren heinean, itzulpenak euskararen modernizazioan eta eraberritzean izandako zeregina aztertzea du helburu Enecoizek. Ikerketa lexikoan zentratzen da batez ere eta HGLko euskal itzulpenen ezaugarri orokorrak aztertzen ditu, itzultzaileek ikuspuntu didaktikotik, ideologikotik edo kulturaletik egindako egokitzapen mailaren berri emateko.

Urte berean, Nerea Alzolak, Maria Concepción Medranok eta Carmen Gonzalezek zuzenduta, *Propuestas éticas en libros-álbum de literatura infantil. Diseño y aplicación de un modelo para el análisis de valores* izeneko tesia aurkeztu zuen UPV/EHU. 2 helburu nagusi ditu lanak. Batetik, HGLko albumetako balio etikoak ateratzeko analisi eredu bat diseinatzea, aplikatzea eta berrikustea. Eta bestetik, eredu hori HGLko 50 albumen analisisian eta interpretazioan aplikatzea. 50 lanez osatutako corpus horretan euskarazko 6 obra sartu zituen, 2 jatorriz euskaraz argitaratutakoak eta beste 4 erderetan ekoitzi eta euskarara itzulitakoak.

Genaro Gomez Zubiak, José Manuel López Gaseniren zuzendaritzapean, 2004an defendatu zuen tesia UPV/EHU, *Grimm anaien Kinder-und Hausmärchen euskaraz: Itzulpenen eta egokitzapenen azterketa* izena daraman lanarekin. Euskarara itzulitako eta egokitutako Grimm anaien ipuin klasikoak aztertu zituen ikertzaileak eta erakutsi zuen jatorrizko testuarekin alderatuta, aldaketa handiak jasaten dituztela euskarazko egokitzapenek, baina baita itzulpenek ere, neurri txikiagoan bada ere.

Mónica Domínguezek, Fernando Cabo eta Blanca Ana Roig-en zuzendaritzapean, *Las traducciones de literatura infantil y juvenil en el interior de la comunidad interliteraria*

*específica española (1940-1980)* izeneko tesia defendatu zuen 2008an, Universidade de Santiago de Compostela (USC). Itzulpengintzatik abiatuta, eta polisistemen teoriari jarraikiz, 1940 eta 1980 bitarteko Espainiar Estatuko HGLko itzulpenak aztertzen dira, hainbat literaturen arteko harreman literario eta kulturalak ulertzeko helburuz (itzulpengintza intersistemikoari erreparatuz). Itzulpenetan erabili diren mekanismo kulturalak ulertzea du helburu, bere inplikazio eta ezaugarri baldintzatzaile guztiekin: ideologikoa, ekonomikoa, kulturala eta abar. Euskal eremuari dagokionez, euskal HGL polisistema beregain gisa hartzen da lan honetan eta Joan Mari Torrealdairen katalogotik egin da HGL obren hautapena. Euskal itzulpenen datu kuantitatiboak ematen dira, xede hizkuntza eta helburu hizkuntza adieraziz.

Aurrekoarekin alderatuta, lan desberdina aurkeztu zuen Idurre Alonsok 2009an UPV/EHUan aurkeztutako tesian. Jon Kortazar eta Patxi Juaristi zuzendari zituela, euskal literaturaren irakaskuntzari begiratu zion *Euskal literaturaren irakaskuntza hego euskal herriko batxilergoan. Ezagutza kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean* lanean. HGL baino, euskal hizkuntza eta literaturako irakasgaia, Hezkuntza Curriculum eta testuliburuak aztertu zituen: lortu nahi diren helburuak, baliatzen den metodologia eta lantzen diren edukiak. Dena den, Alonsok egiaztatzen du batxilergoan oraindik ere HGLko obrak irakurtzen direla eta sail horretan emandako Euskadi Sariak Irakaskuntza Sistemari eraginik duten ikertzen du bere tesian, nahiz eta ez duen obren gaineko azterketa kritikorik eskaintzen.

2010ean, Miren Josune Beldarrainek, José Manuel López Gaseniren zuzendaritzapean, *Alegia klasikoak euskaraz: Isopeteko, La fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa* izeneko tesia aurkeztu zuen UPV/EHUan. Izenburuak iradokitzen duen moduan, ikertzaileak alegia klasikoaren euskarazko berridazketak izan zituen aztergai, 1804tik (Bizenta Mogelen *Ipuin onak* plazaratu zenetik) 2003. urtera artekoak. Itzulpen ikasketetatik heldu zion Beldarrainek azterketari eta bere lanak alegia klasikoaren berridazketek izandako garapena erakusten du, baita zein funtzio izan duten euskal HGLn.

2012an, Elizabete Manterolak, Ibon Uribarriren zuzendaritzapean, *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa* izeneko tesia aurkeztu zuen unibertsitate berean. HGLn zentratuta egon ez arren eta obren analisi kritikorik egin ez arren, ez dira gutxi itzulitako HGLri egiten dizkion aipamenak. Horregatik, tesien atal honetan sartzea erabaki dut, kuantitatiboki bada ere HGLk pisua hartzen duelako Manterolaren azterlanean. Bernardo Atxagaren HGL liburuak bildu eta haien itzulpenen gaineko informazioa emateaz gain, euskal literaturaren eta itzulpenaren

historia laburbiltzen du, HGLk izandako bilakaera, bilakaera horren arrazoiak eta merkatuan kuantitatiboki duen garrantziaren berri emanez.

Neurri txikiagoan bada ere, arrazoi beragatik aipatzekoa da Gema Lasartek 2012an UPV/EHU<sup>n</sup> aurkeztutako tesia: *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*. Corpusari begiratuta, pare bat liburu baino ez dira HGLkoak, baina tesi honek euskal ikertzaileengan izan duen oihartzun nabarmenari liburuen gainean egiten duen azterketa kritikoa gehituz gero, tesien atal honetan aipatu beharreko lana iruditzen zait.

2012an Simone Silene de Sousak *Los valores en narraciones infantiles y juveniles escritas en castellano y publicadas entre los años 2000-2007* izeneko tesia defendatu zuen UPV/EHU<sup>n</sup>, Xabier Etxaniz eta Fco. Javier Ruizen zuzendaritzapean. Helburu nagusia HGLko narrazioetan dauden balioak aztertzea, profil ideologikoa finkatzea eta baloreak aztertzen lagunduko duen analisi literario eredu bat eskaintzea izan zen. Horretarako, diskurtsoaren analisitik gertu dagoen metodologia erabiliz, 2000-2007 bitartean gaztelaniaz edo Estatuko beste hizkuntzetatik (euskara, galiziera eta katalana) gaztelaniara itzultitako eta saritutako HGLko obrak aztertu zituen, 95 kontakizun guztira. Sortzez euskaraz argitaratutako 7 obra sartu zituen corpusean.

Pare bat urte beranduago, alemanetik euskarara itzultitako HGL izan zuen aztergai Naroa Zubillagak 2014an UPV/EHU<sup>n</sup> defendatu zuen tesian, Ibon Uribarrik zuzendutakoa eta *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez* izenburua daramana. Itzulpena egiteko moduari erreparatu zion ororen gainetik eta HGL obrez osatutako alemanezko/euskarazko corpusa baliatu zuen alemanezko hainbat elementu euskarara nola itzuli diren ikusteko (adibidez, burlak, madarikazioak eta partikula gramatikal zenbait).

Beste mota bateko tesia ondu zuen 2016an Mikel Ayerbek, *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai* izeneko tesia argitara ateraz, Mari Jose Olaziregi eta Aurelia Arkotxaren zuzendaritzapean, UPV/EHU eta Université Bordeaux Montaigne unibertsitateen arteko kotutelan. Izenburuan aurreratzen den moduan, kritika genetikoari heldu zion Ayerbek, lau euskal idazle kanonikoren testu eta aurre-testuak ikertzeko helburuz. Tesiak ez dio berariaz HGLri heltzen, baina interesgarria da ikuspuntu berritzaileaz gain (testu genetikaren ikerlerroari loturiko euskaraz idatzi den aurreneko tesia delako) euskal



HGLri ere eskaintzen diolako tartea, batez ere Bernardo Atxagaren obrari erreparatzen dionean eta haren testuen arteko loturak eta berridazketak azaltzen dituenean.

2017an, Xabier Etxanizen eta Arantzazu Rodriguezen zuzendaritzapean, euskal HGL modernoan emakumea nola errepresentatu den ikertu zuen Eneko Fernandezek UPV/EHUa aurkeztutako tesian: *Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera*. Genero begirada batetik heldu zion ikertzaileak 144 obrez osatutako corpusari, emakumea eta gizon kategoriaren irudikapenean bilakaerarik egon den aztertzeke. Azterketa analitikotik ondorioztatu zuen desberdintasunak egon arren (adibidez, zaintza lanak eta etxeko ardurak emakumeekin lotzen direlako oro har) parekidetasuneranzko bilakaera egon dela.

Urte berean, Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA) unibertsitatean, *L'évolution du didactisme dans la littérature de jeunesse basque de la fin du XIXème siècle au XXIème siècle* (euskaraz: didaktismoaren bilakaera XIX. mendearen amaieratik XXI. mendera arteko euskal haur literaturan) izeneko tesia aurkeztu zuen Eztitxu Albisturrek, Ur Apalategiren zuzendaritzapean. HGLn ohikoa izan den (eta oraindik ere askotan baden) didaktikotasunaren eboluzioa erakusten duen corpus bat osatu zuen Albisturrek, haur eta gazteei zuzendutako lanetan irakaspenak eta bestelako mezuak nola transmititu diren ikertzeke. Bizenta Mogelen *Ipuin onak* (1804) eta Ixaka Lopez Mendizabalen *Xabiartxo* (1925) dira 18 liburuz osatutako corpuseko obrarik zaharrenak, eta garaikideena berriz, Mariasun Landaren *Galtzerdi suizida* (2001). Ikertzaileak ondorioztatzen du XIX. mende hasieratik amaierara arte mezua esplizituki transmititzen den arren, pixkanaka-pixkanaka agerikotasun hori gutxitu egiten dela XX. mendean zehar, eta batez ere 80ko hamarkadatik aurrera, mezua gero eta inplizituago agertzen dela denboran aurrera egin ahala.

Beatriz Soto ikertzaileak, Dora Sales irakaslearen zuzendaritzapean, *La traducción de literatura infantil y juvenil de temática árabe e islámica al castellano: ideología y recepción* izena daraman tesia aurkeztu zuen 2017an, Universitat Jaume I-ean. Tesi lan hau Itzulpen Ikasketetatik abiatzen da eta arabiar mundura gerturatzeko aukera ematen duten HGL liburuak biltzen dituen Simsim gida du abiapuntu. Hortik abiatuta, gaztelaniara itzulitako arabiar eta islamiar gaiko HGL lanak aztertzen dira, analisiaren diskurtsotik batez ere, espainiar gizarte garaikidean arabiar eta islamiar kulturaren irudikapenak izan duen garapena aztertzeke. Bere corpusean euskal HGLko obra gutxi batzuk sartzen ditueneguz, egokia iruditu zait Sotoren ikerketa atal honetan aipatzea.

Ezin esan daiteke Karla Fernández de Gamboak Teresa Colomerren zuzendaritzapean 2018an Universitat Autònoma de Barcelonan defendatutako tesiak (*A través del nuevo milenio y lo que el lector literario encontró allí: La narrativa infantil para lectores de 8 a 10 años*) euskal HGL duenik aztergai nagusi, baina zeharka bada ere, ikergai hori ukitzen du. Fernandez de Gamboak egindako ikerlana xeheki aztertu ostean, ikusi dut 36 obraz osatutako corpusetik liburu bakarra dela jatorriz euskal HGLren parte dena: Bernardo Atxagak eta Mikel Valverdekin ondutako *Shola y Angeliño* (SM, 2006). Fernández de Gamboak gaztelaniazko itzulpen hau gaztelaniazko literatur sistemaren baitan ulertzen du, logikoa denez.

Urte horretan bertan, *Hacia un reconocimiento de las víctimas de la violencia de intencionalidad política mediante la lectura de la narrativa literaria vasca* izeneko tesia defendatu zuen Irene Gantxegik Deustuko Unibertsitatean, Angela Bermudezen eta Galo Bilbaoren zuzendaritzapean. Euskal Herriko testuinguru politiko gatazkatsutik abiatuta, tesi honen helburua da aztertzea ea biktimaren ikuspuntuari heltzen dioten fikziozko literatur lanen irakurketek aukera ematen duten harekiko sentsibilitate bat pizteko irakurlearengan. Horrekin batera, Gantxegik ikertu nahi izan zuen ea modu egokian landuta irakurketa horiek bide ematen dioten biktimaren errekonozimenduari. Horretarako, euskal idazleek idatzitako eta nola edo hala euskal gatazka lantzen duten liburu batzuk bildu ostean (euskarazkoak zein gaztelaniazkoak), 4 obra hautatu zituen esperimentua aurrera eramateko, horietako bat euskal HGLren parte dena: *Pikolo*, eta nik tesi honetan aztertu dudana.

Esandakoaz bat, Idurre Alonsok eta Ur Apalategik zuzenduta, *Literaturaren ikas-irakaskuntzan aurrera egiteko album ilustratuak eta ikasgelako elkarrekintzek eskaintzen dituzten aukerak* izeneko tesia defendatu zuen 2018an Haizea Galarragak, Mondragon Unibertsitatean (MU). Album ilustratuaren gainean ardaztu zuen ikerlana, eta genero literario horri buruzko azalpen teorikoak emateaz gain, ikasgelan album ilustratua bide eta bitartekari izanik, hezkuntza literarioa eta ikas-irakaskuntza prozesua nolakoa den aztertu zuen, ikergaia Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora mugatuz. Esan gabe doa baliatu zituen album ilustratuak HGLkoak izan zirela.

Hiru urte beranduago, 2021ean, Iraide Talaverak hainbat hizkuntzako HGL (tartean euskal HGL) izan zuen aztergai UPV/EHUa aurkeztutako eta Mario Saalbach-ek zuzendutako tesian: *Las niñas tienen la palabra. El valor reivindicativo de la literatura infantil y juvenil alemana, inglesa, española y vasca de autoría femenina desde comienzos del siglo XX hasta*

*los inicios del siglo XXI*. Euskal HGLri dagokionez, Mariasun Landaren eta Asun Balzolaren obra aztertzen du, “Iholdi” saila (1988-2005) eta “Munia” saila (1982-1990), hurrenez hurren. Pertsonaien azterketa eskaintzen du Talaverak eta hortik abiatuta, genero rolak, haurren eta helduen arteko talkak edota haurren barne-mundua jartzen du agerian.

Urte berean, baina Mondragon Unibertsitatean, Maialen Arnedok *Bularretik Mintzora egitasmoa: haur literatura sistematizatzeko esperientzia bat* izeneko tesia ondu zuen, Idurre Alonso eta Alexander Barandiaranen zuzendaritzapean. Galtzagorri Elkarteak 2008an abian jarritako Bularretik Mintzora proiektuak (0-8 urteko haurren hezitzaileei baliabideak eskaini eta irakurketa ohiturak indartzeko helburua duenak) hezkuntza formalean izan ditzakeen indarguneak eta erronkak antzematea du helburu tesi honek. Ikerketa Eibarko eskola batera mugatzen da, hau da, Bularretik Mintzora egitasmoak Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan nola funtzionatu duen aztertu zuen Arnedok eta horrez gain, HGLren bilakaeraz, HGLk hezkuntza literarioan izandako bilakaeraz eta irakasleak hezkuntza literarioan duen eginkizunaz mintzo da ikertzailea.

Modu batera edo bestera euskal HGL mintzagai hartzen duten tesi lanen gaineko berrikustea egin ostean, ateratako ondorio nagusiak bildu nahiko nituzke jarraian<sup>23</sup>. Lehenik eta behin, argi geratu da UPV/EHU dela arloari buruz tesi lan gehien sortu duen unibertsitatea (%65) eta Mondragon Unibertsitateak (MU) jarraitzen diola ondoren (%9). Gainerako tesiei dagokionez, bakoitza unibertsitate batean defendatu da: Deustuko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean (UNAV), Universidade de Santiago de Compostela (USC), Université Bordeaux Montaigne-n (UPV/EHUrekin kotutoretzan), Université de Pau et des Pays de l'Adourren (UPPA), Universitat Jaume I delakoan eta Bartzelonako Universitat Autònoman. Gehienak euskaraz egindako tesiak dira (%61), baina badago erdaretan egindako tesirik ere: gaztelaniaz (%35) eta frantsesez (%4) hain zuzen. Berariaz HGL aztertu duten tesietan (%74), bi hurbilpen nagusitzen dira: batetik, liburuak narratologiatik edo nolabaiteko analisi kritikotik aztertzen dituztenak daude (%47); eta bestetik, itzulpengintza ikasketetatik heldu diotenak HGLren azterketari (%41). Bi ikertzailek ez dituzte liburuak aztertu album ilustratuek literaturaren irakaskuntzan eskaintzen dituzten aukerak eta irakurzaletasuna sustatzeko programa baten aplikazioa ikertzen dituztelako, eta beste batek historiografiatik heldu dio HGLri. Badira sei tesi euskal literatura oro har hartzen dutenak ikergai, baina nola edo hala HGL ere barne hartzen dutenak. Horietako hiruk Atxagaren obrari erreparatzen

---

<sup>23</sup> Ehuneko guztiak borobilduta ageri dira.

diote, Harrera Estetikatik eta soziologiatik, itzulpengintzatik (azterketa kuantitatiboa eginez nagusiki) eta kritika genetikotik. Beste batek euskal literaturaren irakaskuntzan lantzen diren obrak eta edukiak aztertzen ditu; beste batek protagonista femeninoen bilakaera deskribatzen du, genero begiradan oinarritutako analisi kritikoa eskainiz; eta eta azkenak, dimentsio etikoarekin lotutako kasu azterketa bat egiten du, literatur testua bitartekari hartuz.

Arestian aipatutakoa kontuan hartuta, esan daiteke euskal eremuan kritika akademikoa gutxi egin dela, nahiz eta azken urteetako tesietan apur bat igo den. Bilaketa Espainiar Estatura zabaldua eta HGLren gaineko tesi guztiak kontuan hartuta, ikus daiteke HGLri buruzko ikerketak ugari egin direla eta ikertzaileek era askotako hurbilpenetatik heldu diotela HGLren azterketari. Gaia ikertzeko egin diren hurbilpen diferenteetatik, ikusi dut XXI. mendetik aurrera genero begiradatik egindakoak areagotzen hasi direla eta azken urteetako tesietako batzuek teknologia berriek eta digitalizazioak HGLn izan duten eragina hartu dutela kontuan. Azkenik, atzerriko unibertsitateetan egindako bilaketak erakutsi du euskal esparru akademikotik kanpo Euskal Herriak bizi izandako gatazka politiko armatuak interesa piztu duela eta interes horrek bultzatuta sortu direla hainbat tesi, baita literaturan (helduei zuzendutakoan) zentratu direnak ere, adibidez, AEBko Brown University-ko Colbertena (2013), University of Michigan-eko Collingerena (2015), University of Illinois-eko Ezkerrarena (2019) edo University of Cincinnati-ko Hernándezen (2019) tesia.

#### **2.4. HGLren funtzioak: Gozamina eta helburu utilitaristak**

El libro no es un simple objeto material  
(Escarpit, 1971: 106).

Amaigabe luza gintezke HGLk betetzen dituen funtzio ezberdinen gainean eztabaidatzen eta luze joko luke horien guztien arteko ranking bat egin eta adostasuna bilatzeak. Atal honetan HGLren funtzio nagusiak deskribatuko ditut, baina nire asmoa ez da inolaz ere lehentasunak jartzea batoren eta bestearen artean. Atal honetan, nire tesiko corpusa osatzen duten obrak zein helbururekin erabiliko ditudan zehaztuko dut, hurrengo ataletan emango den informazioa ulertzen lagunduko dutelakoan. Halaber, arestian aipatutakoa zehazteak laguntzen du ulertzen zergatik aztertu dudana obra bakoitza ikerketa honetarako propio diseinatutako (diziplina anitzeko) metodologia batekin.

Funtzio batzuk literaturari oro har dagozkionak dira. Beste batzuk berriz, HGLrekin lotzen dira; eta beste batzuk, euskara bezalako hizkuntza minorizatuekin lotzen dira gehiago. Goian esan dut nire helburua ez dela funtzioen artean lehentasunak gartzea, eta hemendik aurrera ez dut hori egingo. Dena den, ezin aipatu gabe utzi, nire ustez, literaturaren funtzio behinena irakurlearengan gozamina (edo gozamen estetikoa, nahiago bada) sortzea eta entretenitzea dela. Testu literarioak irakurleari gozamina sorrarazteko balio behar dio beste ororen gainetik. Horrekin lotuta, literatura errutinak edo egunerokoak sortzen dituen hersturetatik ihes egiteko modua dateke, adibidez, barne-mina sendatzeko. Funtzio terapeutikoa bete dezake mintzagai dudan arteak (funtzio horretatik eratortzen dira “biblioterapia” gisa ezagutzen diren liburuak), funtzio katartikoa, baita norbere burua ezagutzeko edo onartzeko ere. Adibidez, jendarte heteropatriarkalak araututako eredutik kanpo aurkitzen diren irakurle gazteak identifikatuta senti daitezke obretako pertsonaiaren batekin eta askatasun lurralde gisa bizi dezakete literatura. Fikzioak irakurle gazteari aukera ematen dio bere nahiak pertsonaia baten bidez adierazteko, baina baita bere arrangurak, beldurrak eta gatazkak istorioko pertsonaietan antzemateko eta egoera horiekin identifikatzeko. Identifikazioa aipatu dudanez, adibide anekdotiko gisa aipa daitezke literaturak jaiotzear dagoen haurren eta gurasoen arteko lotura indartzeko balio duela. Gutierrez eta Ezeizabarrenak (2022: 110) azaltzen duten moduan, haurdunaldiaren bosgarren hilabetean, fetua edo umekia gai da amaren sabeletik kanpoko hotsak hautemateko, eta aste batzuk geroago hizkuntza-hotsak eta hizkuntzazkoak ez direnak bereizten ditu. Hizkuntzalari horiek (2022) diotenez, umekiak erreakzionatu egiten du estimuluak (olerki bat, amaren ahotsa edo beste ahots batzuk) entzuten ditunean eta gai da estimuluak ezberdintzeko. Gerora, haurra jaiotzen denean, gai da gurasoen ahotsa identifikatzeko eta bere ama hizkuntzaren parte diren fonemak identifikatzeko. Beraz, esan dezadan haurdunaldian haurrari irakurtzea onuragarria dela, aipatu ditudan identifikazioak gauzatzeko. Noski, gerora ere, literaturak haurren garapen intelektualean eta psikoafektiboan laguntzen du.

HGL hezkuntzari zein lotuta dagoen erakutsi dut lehenago, eta horri dagokionez, aipatu behar dut gozamenerako tresna gisa baino, irakurketa literarioa lanketa jakin batzuk gauzatzeko erreminta gisa ikusten dela, bere balio estetikoa guztiz erauziz gehienetan. Duela hamarkada batzuk Shavit (1986) HGLren estatus bereziaz mintzatu zen eta hezkuntza eta literatura sistemen artean kokatu zuen HGL. Berau hezkuntza sisteman sartzeak HGLri, literatur sistema gisa, ekarri dizkion ondorio kaltegarriez hitz egiten du aipatutako lan horretan. “Hizkuntza eta Literatura” ikasgai adibidez, maiz ikusi dut testu literarioak

erabiltzen direla ulermen ariketak edo hiztegiari lotutako jarduerak egiteko. Hizkuntzak ikasteko eta hura hobetzeko baliatzen da literatura. Hizkuntzen lanketari dagokionez, interesgarria da hizkuntza gutxituak dituzten hiztun komunitateek literaturari eman diezaioketen funtzioa. Paula Kasares (2014) soziolinguistaren lana aztertuta, bistakoa da euskal HGLk euskara indarberritzeko estrategietan eta euskarazko sozializazioaren sendotzean betetzen duen funtzioa: Erdara nagusi den testuinguruan, euskarazko HGLk eskolaz kanpo euskarazko testuinguruak sortzeko balio dezake. Ildo honetan, hizkuntza jakin batekiko atxikimenduaz gain, Colomerrek (2010) gogorarazten du kulturarekiko lotura sor dezakeela HGLk. Gizarte jakin batean literaturaren bidez eskaini eta partekatzen den errealitatearen irudikapen sinbolikora (imajinario kolektibora) haurra hurbildu eta harekin harremanetan jartzea bideratzen du HGLk. Irudikapen sinboliko hori, esanahi partekatu edo komun gisa, munduarekin eta gure ondokoekin ditugun harremanak ulertzeko behar dugu. Hau da, imajinario kolektibo hori partekatzen dugulako sentitzen gara kultura bereko partaide. Beraz, esan daiteke identitate kulturalaren eraikuntzan laguntzen duela literaturak, Cultural Memory Studies-eko ikertzaileek sarri azpimarratu dutenez. Gainera, HGLk, Colomerrek (2010) gaineratzen duenez, heziketa literarioari laguntzen dio. HGLri esker haurrak bere kulturako diskurtso literarioa bideratzen den forma narratibo, poetiko eta dramatikoak (besteak beste) gero eta gehiago ezagutzen ditu. Aurrera egin aurretik, tarte hau baliatu nahiko nuke hezkuntza formalean, hau da, derrigorrezko hezkuntzan, kompetentzia literarioaren lanketak duen garrantzia azpimarratzeko, izan ere, Idurre Alonsok (2008) bere doktore-tesian agerian jarri zuen kompetentzia horrek landu gabe jarraitzen duela oro har gurean. Halaber, eta oraindik ere nahi baino gehiagotan nahasten diren bi termino direlako, ondo azpimarratu nahiko nuke, Roigen (2017: 151-152) hitzak erabiliz, hezkuntza literarioa eta literaturaren irakaskuntza ez direla gauza bera. Hezkuntza literarioa metodologia bat da, zeinak irakurleari ematen dizkion ezagutza kultural, literario eta sozialak, baita tresneria mailakoak ere, irakurle kompetente bat lortzeko, hau da, irakurle bat gai dena bere kabuz testuei heltzeko, gai dena testu mota desberdinak irakurtzeko eta horiek interpretatzeko zein epaitzeko irizpidea duena.

Nortasunaren eraketan laguntzen du HGLk (Colomer, 2010) eta Cerrillok gaineratzen duen moduan, irakurle gazteek haien ikuspegi kritikoa sortzeko balio dezake, baita sormena garatzeko ere. Gogorarazten duenez, HGL da haurrak sorkuntza literario idatziarekin eta kultuarekin duen lehen harremana (2001: 94). Gainera, obra batek hartzaileari gatazka

kognitibo-emozionala<sup>24</sup> sortzen badio, bere garapenean (garapen kognitiboan) eragingo du. Jendartea hobeto ulertzeko balio liezaioke HGLk irakurle gazteari. Lerro batzuk gorago iradoki dudan moduan, testuek gizarte jakin batek partekatzen dituen ohiturak, arauak, jokaerak eta abar isla ditzake. Horregatik, gazteen sozializaziorako tresna izan daitezke. Ildo beretik, irakurleak partekatzen ez duen beste eredu/kultura/gizarte mota baten berri izan dezake literatur testuaren bidez. Hori horrela, literatur testuak balio lezake ikuskera eta munduari buruzko ezagutza zabaltzeko. “La literatura abre hasta el infinito esta posibilidad de interacción con los otros, y por lo tanto nos enriquece infinitamente”, zioen Tzvetan Todorovek (2017: 17). Bestearen sentimendu eta emozioak ezagutzeko abagunea eskaintzen du literaturak, hau da, bestearen tokian jartzeko aukera, eta ondorioz, harekin enpatizatzen.

Ikusi denez, HGLk bitartekari rola betetzen du. Literaturak jakintza batzuk transmititzeko, propaganda egiteko, ideia jakin batzuk indartzeko, adoktrinatzeko edo balore moral batzuk transmititzeko funtzioa bete dezake. Esanguratsua da garai jakin batzuetan HGLk izan duen paper doktrinatzaila, adibidez, Frankismoan. Fernández-Zabala, Urzelai-Vicente eta Villagrán-Arrastoa (2022) lanak erakusten du, esaterako, nola baliatu zen Francoren gobernu HGLz, Erregimenaren ideiak eta baloreak zabaltzeko. Era berean, egileek (*ibidem*) azaltzen dute garai hartako zentsura mekanismoak erabat kontrolatu zuela HGL, hain zuzen, Erregimenarekin bat ez zetozen ideiak ezabatzeko, jakitun zein paper garrantzitsua jokatzen duen HGLk ideien transmisioan edota ideologiaren eraikuntzan (HGLko irakurlearen iritzi kritikoa oraindik osatze bidean dagoela aprobetxatzen zen, ideia jakin batzuk eztabaidarik gabe asimilatzen). Haur eta gazteei zuzendutako liburuen kontrol zorrotz hori mundu mailan gertatu den fenomeno da. Ideologia aipatu dudanez, ez nuke aurrera egin nahi uste oker bat gezurtatu gabe: Literatur testu orok ideologia transmititzen du. Sarlandek dioen moduan, idazkera oro ideologikoa da; izan ere, esplizituki defendatu ez arren, idatzi orok balioak hartzen ditu bere gain. Testuak marko sozial eta kultural jakin batean sortzen eta irakurtzen dira, zeina halabeharrez baloreez (hau da, ideologiaz) blaituta

---

<sup>24</sup> Gizapediaren (2022) arabera,

gatazka kognitiboa gertatzen da subjektu batek bere ideia, kontzeptu eta ikusmoldeekin bat ez datozen informazioa jaso eta esperientziak bizi dituenean, eta beraz errealitate berri hori bere eskema kognitiboetan besterik gabe barneratu ezin ditzakeenean. [...] Gatazka kognitiboak subjektuaren eskema kognitiboetan gertatzen diren perturbazioak dira eta haiek orekatze edo ekilibrazioa eragiten dute subjektuaren eskema kognitiboen baitan, asimilazio eta akomodazio prozesuen bitartez, subjektuak perturbazio horiek bere eskema kognitiboetan barneratu (asimilazioa) eta eskemak perturbazio horietara moldatu egiten dituenean (akomodazioa). Hala eta guztiz ere, subjektuak gatazka saihestu eta bere eskemak kolokan edo desorekan jartzen ez duten beste jarduera edo esperientzietara aldatu ere egin ditzake.

dagoen (1999: 41). Gauza bertsua defendatu zuen ere Robert Escarpit soziologoak (1971: 99-100), esaten baitzuen idazle oro dela ideologiaren gatibu, bere hartzaillearen mundu-ikuskerarena. Hura onar dezake, alda dezake edo uko egin diezaioke osoki edo partzialki; baina ezin dio ihes egin. Era ageriagoan edo ezkutuagoan izan daiteke, baina literatur liburuetan beti transmititzen dira ideia batzuk, eta Lluchek (2003: 33) zein Etxanizek (2007b: 10) dioten moduan, HGLn fenomeno hori are nabarmenagoa eta azaleratuagoa da, hartzaillea sozializazio bidean dagoen irakurlea baita. Argi dezadan zer ulertzen dudana ideologiaz ari naizenean:

Conjunto de conceptos, creencias e ideales que propone y que sustentan una manera de ver el mundo. En el caso de la ideología y la literatura infantil y juvenil, hablaríamos de ideas, normas, valores, creencias, opiniones, prejuicios o actitudes próximas a la emotividad y creada a partir de los múltiples mecanismos que permite una narración (Lluch, 2003: 33).

Aurreko aipurekin, beraz, argi utzi nahi dut ideologiaz ari naizenean ez diodala soilik testuek transmititzen duten ideologia politikoari erreferentzia egiten, baita ideologia ekonomikoari, sozialari, generoari lotutakoari eta bestelako ideia edo ereduak ere. Egia da gaur egungo literatur testuekin alderatuta, garai bateko obretan nabarmenagoa zela helburu didaktiko-moralizatzailea eta beraz, errazagoa da testu horietan joera ideologikoak antzematea. Hori horrela izanda ere, metodologia osatu bati esker, lan garaikideen atzean ezkututzen den ideologia eta asmo didaktikoa antzeman daiteke. Tesi lan honetan, corpuseko liburuek ezkututzen duten ideologia azaleratzen ahaleginduko naiz, izan ere, Colomerrek (1998: 101) defendatzen duen moduan, “aprender a localizar la ideología implícita en las obras de ficción es importante, por ejemplo, para los sectores educativos que tienen que enseñar a los niños y adolescentes a leer sin quedar a merced de lo que se lee”. Mintzagai dudana mezu ideologiko hori hitzaren bidez ager daiteke, baina baita irudien bitartez ere. HGLren ikerketan aritzen diren adituek (Etxaniz, 2007b; Colomer, 2010; Franco-Vázquez eta Agra, 2014; Lluch eta Sanz, 2021) azpimarratzen duten moduan, haur eta gazteei zuzendutako obretan, nahitaezkoa da idatzizko testua eta irudiak, biak, xehe aztertzea, azken horrek garrantzi handia baitu HGLn. Horregatik, ikerketa honen corpusa osatzen duten lanak aztertzeko orduan biei emango diet garrantzia eta agerian jarriko ditut obra bakoitzak helarazten dituen ideiak eta nola egiten duen transmisio hori. Arreta berezia eskainiko diot analisisian genero ikuspegia txertatzeari, formazio bidean dagoen irakurle gaztea helburu duten literatur testuak izanik, ezinbestekoa iruditzen baitzait ikertzea zein estereotipo sexista, sexuaren araberako rol banaketa eta abar transmititzen duten.



Aurrera jarraitu aurretik, adierazi nahiko nuke gatazka armatuak lantzen dituen kalitatezko literaturak, nire ustez bederen, ez dituela diskurtso itxiak eta sententzia erakoak ematen (arau preskriptibo gisakoak). Horren ordeztan, diskurtso irekiak eskaini behar ditu, irakurleari bide emango diotenak galderak sortzeko, zalantza egiteko, gaiaren gainean hausnartzeko eta bere interpretazioa eratzeko. Aztergai ditudan obrak interesgarriak iruditzen zaizkit irakurle gazteekin memoria historikoa lantzeko. Dena den, lanean zehar ohartaraziko den moduan, uneoro kontu handia izan beharko genuke utilitarismoan ez erortzeko eta ez gailentzeko helburu ideologikoa irakurketaren gozamenari. Hunttek (1991: 171) dioen moduan, “the book and especially the children’s book cannot be used as a weapon”. Antzekoa defendatzen du Minguezek (2014: 38) ere, HGLren funtzio nagusia gozamina dela azpimarratuz, hezkuntza sistema seinatu eta ohartarazten baitu HGL ez dela arma gisa erabili behar eta literatura mota honek duen alderdi hezigarria ez dela haurra hezteko helburu hutsarekin erabili behar.

Arestian aipatu dudan moduan, HGLk balio du eredu edo ideia batzuk transmititzeko eta irakurleengan erreproduzitzeko, baina era berean, funtzio zuzentzailea ere badu. Obra baten irakurketari esker, irakurle gazteek batzuetan kontzientzia hartu eta erreakzionatu egin dezakete, haien jokabideak aldatuz (zerbaitegatik esaten da literatur lan baten kontsumoa ez dela kontsumo pasiboa). Gizarte jakin batek, obra literarioen bidez, belaunaldi berriei erakuts diezaiekete nola irudikatu nahi duten etorkizuneko gizartea. Horren oihartzuna dakusagu Bernardo Atxagak eta Koldo Izagirrek 1975ean *Panpina Ustela* aldizkariaren lehenengo alean argitaratu zuten “Ez dezagula konposturarik gal, halare” manifestuan, euskal letretan aski ezaguna dena eta literaturak gizartean duen garrantzia aldarrikatzen duena, abangoardia literarioek bere egin izan duten helburua onartuz:

Literatura bait da herriaren boza: gizarte-aldaketan lagungarri denez, beste Euskal Herri baten lorketa lagundu behar du euskaldunon literaturak. Laguntza hau exkaxa ta ahula izanen da noski, literaturak zerbait aldatzekotz sentsibilitatea aldatzen bait du, ta ez besterik (...) Literatura espresabide da lehen lehenik, eta ondorioz, komunikabide.

Jakin badakit mintzagai dudan literatura mota honen berariazko hartzailearekin zailagoa dela gai batzuei buruz hitz egitea, heriotzari edo gatazka armatuari buruz, besteak beste. Zailagoa izan arren, horrek ez du esan nahi ezin direnik gai zailak landu. Izan ere, HGLk balio du tabuez edo gai zailak hitz egiteko, tesi honetako corpusarekin frogatuko dudan moduan. Literatur testuek distantziatik begiratzeko modua eskaintzen digute, toki segurutik

arriskuari erreparatzeko aukera<sup>25</sup>. Tesiko corpusaren kasuan, hautatutako liburuekin gerra eta horrek dakarren mina esperimenta daiteke testuen bitartez, baina gerra bera bizi gabe. Ez hori bakarrik, elkarrizketarako baldintzak betetzen ez diren bitartean, fikzioak aukera ematen du korapiloak askatzeko eta zenbait gauza ahoskatzeko. Gai konplexuak landu ez eze, HGLk parada ematen du munduaren konplexutasuna ertz ezberdinetatik azaltzeko, kontraesanetan sakontzeko eta errealitatea beste modu batera ikusteko.

Doktore tesi lan hau Memoria Ikasketetatik bideratu dut eta horrekin lotuta, ezin aipatu gabe utzi literaturaren indarra memoria eraikitzaile gisa. Memoria Ikasketei atal beregaina eskaini diodanez, hemen ez dut gaian sakonduko, baina aurreratuko dut HGLk, eta bereziki tesiko corpora osatzen duten obrek, Euskal Herriak bizi izan dituen gatazka armatuen kontakizunak biltzen dituztela eta memoria horiek jaraunsten dituztela irakurle gazteek. Fikziozko testu hauek ahalmena dute iraganeko esperientziak sortu eta moldatzeko, bizi izandako gatazka armatuak birgogoratzeko eta memoria historikoa berreskuratzen laguntzeko. Cerrillo eta Sotomayorrek (2016: 20) dioten legez, “la literatura es como un depósito universal que alberga la memoria colectiva”. Ez hori bakarrik, literaturak beste egia batzuk kontatzeko balio du, historia ofizialak bere diskurtso epikotik kanpo utzi dituenak alegia. HGLk, fikziozko kontakizunen bidez, ñabardurak gehitzen dizkio historiak emandako errelatu edo kontakizunari. Amaitzeko, azaldu dut HGLk hainbat funtzio bete ditzakeela eta nik egozten diodan funtzio nagusiaz gain (gozamina sortzea), tesi honetako corpora osatzen duten obrek memoriaren eraikuntzan funtzio azpimarragarria betetzen dute, aurrerago sakondu eta erakutsiko dudan moduan. Horrez gain, aurrerago azalduko dudan legez, tesiko corpuseko kontakizunek “bestearen” tokian jarri eta enpatia lantzeko aukera eskaintzen dute, enpatia Kohut psikoanalistak (1984) definitzen duen gisan ulertuta, hau da, “the capacity to think and feel oneself into the inner life of another person”. Ez hori bakarrik, gatazka armatuez mintzo diren obrak izanik, zeinetan heriotza, indarkeria eta gerraren krudelkeria ageri diren, esan daiteke gai zailen mediazioa ahalbidetzen dutela.

---

<sup>25</sup> Escarpiten (1971: 96-97) hitzak datozkit gogora distantziaren abantaila aipatzean:

El lector (...) es como un ser invisible que lo ve todo, lo oye todo, lo siente y lo comprende todo sin tener participación en un diálogo que no es el suyo. El placer que encuentra, por resonancia, dejándose llevar por los sentimientos, las ideas y el estilo, es un placer gratuito, porque no le compromete a nada. Todo placer estético y, por lo tanto, todo intercambio literario, sería imposible si el público perdiera la seguridad de un anonimato, de una distancia que le permite participar sin comprometerse.

## 2.5. Errealismo kritikoa HGLn

Lo fantástico, a mitad de camino entre lo real y lo irreal,  
es una zona fronteriza inasequible,  
media luz, luz crepuscular cuyos contornos se esfuman,  
ese “otro lado del sueño”, del que habla Victor Hugo,  
ese “detrás del espejo”, de Lewis Carroll,  
perspectiva en la que lo cotidiano asume un rostro diferente  
y en la que vemos todas las cosas bajo otro aspecto  
(Held, 1981: 29).

Aurrerago ikusiko den moduan, tesi lan honetan aztertutako obrak errealismo korronte estetikoaren barruan sartzen dira, eta batez ere, errealismo kritikoa deitzen den azpi-korronte literarioan. Tesiko corpusa osatzen duten lanak hobeto ulertu eta kokatzeko asmoz, atal labur honetan, errealismo kritikoa euskal HGLn izan duen eragina aztertuko dut. Ezer baino lehen, eta gaizki-ulertuak saihesteko, argi utzi nahi dut *errealismo kritikoa* terminoa erabiltzen dudanean HGLn ohikoa den zentzuan baliatzen dudala. Arlo horretan, errealismo kritikoa hitz egiten denean ez da errealismoa ulertzen fantasiari kontrajarrita, aurkako adierazpideak balira bezala, biak nahasten baitira. Termino horrek esan nahi duena da errealitatea ikusteko modu kritikoa lehenesten dela. Errealismo kritikoa gain, badira errealismoaren barneko bestelako azpi-korronteak ere, errealismo soziala, errealismo magikoa edo errealismo fantastikoa, besteak beste. Aurreratu dudan moduan, tesiko corpuseko ia obra guztiak errealismo kritikoa barruan kokatzen dira, baina badago errealismo fantastikoa adibide den lanik ere tesiko corpusean. Azpi-korronte horretako HGL lanetan, Caterina Valriu ikertzaile katalanak (1994: 147) zehazten duen moduan, denbora eta espazio konkretu batetik abiatu eta horietatik guztiz irteten ez den arren, elementu fantastikoa txertatzen dira kontakizunean. Elementu fantastiko horiek pertsonaiak, botereak, lekuak eta abar izan daitezke eta ez dute zertan loturarik izan behar tradizio herrikoiarekin. Beraz, errealitatea islatzen da, baina elementu fantastikoa txertatuz. Baieztapen horri Vásquez ikertzaileak (2003a) egiten duen zehaztapena gehitu behar zaio. Gogorarazten duenez, haurrari erakusten zaion mundua hedatzeko balio du fantasiak eta erabilera horrek ez du zertan irakurlea bere errealitate konkretutik abstraitzeko helburua izan behar. Are gehiago, fantasiako liburu asko errealitatetik abiatzen dira eta hartaz kontzientzia hartzea bultzatzen dute, obra errealistek bezala. Olaziregik (2003b: 437-438) ere gauza bertsua dio korronte fantastikoa errealitatea islatzeko duen gaitasunaz: “La ficción más fantástica o surrealista puede resultar más realista

que cualquier otra [...]. El concepto de género fantástico es, hoy por hoy, tan resbaladizo y variable como el propio concepto de realismo”. Fantasiaren eta errealismoaren arteko alternantzia horri buruz argi hitz egiten du Carreterok (2003: 533) ere:

Aunque la literatura fantástica es con frecuencia tildada de meramente escapista, la fantasía puede utilizarse y se utiliza como instrumento de crítica social. La alternancia mundo real primario/mundo fantástico secundario se ofrece como escenario idóneo para este tipo de juego intelectual, al tiempo que da expresión a una de las fantasías infantiles más recurrentes: la de la víctima en el mundo primario que pasa a ocupar una posición privilegiada en el mundo secundario.

Horrelako kontakizunetan, garrantzia hartzen du egileak irakurleekin ezartzen duen hitzarmenak (itun fikzionalak). Ondorioz, magia, misterioa eta bestelako osagai fantastikoak asmatutako unibertsoaren parte izan daitezke eta horrek ez du obren egiantzekotasunean edo sinesgarritasunean eragiten; aitzitik, elementu fantastikoak era harmonikoan integratzen dira elementu errealago eta konketuagoekin. Etxanizek (1997a) dioen moduan, euskal HGL modernoaren hastapenak errealismo fantastikoaren eskutik heldu ziren 80ko hamarkadaren hasieran eta horren lekuko honakoak aipatzen ditu: Fantasia eta errealitatea uztartuz 1981ean Anjel Lertxundik idatzitako *Tristeak kontsolatzeko makina* (1981) eta *Gizon kabalen piurak* (1982), eta Bernardo Atxagaren *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982), *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (1980) eta *Ramuntxo detektibea* (1980).

Egin dezadan jauzi orain errealismo kritikora, tesiko corpuseko obrei erreparatuta, korronte honi buruzko informazio zabalagoa ematea ezinbestekoa iruditzen baitzait. Michi Strausfeld-ek (1989) azaltzen duenez, irakurle gazteei zuzendutako errealismo kritikoko obrak XIX. mendetik aurrera daitezke, batez ere herrialde anglosaxoietan eta Europa iparraldeko herrialdeetan (nahita uzten du kanpoan irabazitako literatura), baina gizartean eragin handirik izan ez duten obra bakanak direla azaltzen du. XX. mendearen bigarren herenean ordea, literatur korronte honen joera hasten da, Erich Kästner idazle alemaniarraren *Emilio eta detektibeak* (1925) eta Astrid Lindgren suediarren *Pippi Kaltzaluze* (1945) liburuekin. Urte horietan joera hasi, 70eko hamarkadan goraldia izan eta urtez urte hazi egin den korronte da errealismo kritikoa. Strausfeldek berak (1989) duela hamarkada batzuk baieztatu zuen errealismo kritikoa gailentzen zela mundu guztiko HGLn. Etxanizek (1997) dioen moduan, errealismo kritikoa indar handiz eman da Alemanian eta oro har Europa iparraldean (bere sorlekuan) eta bertakoak dira idazle esanguratsuenak: U. Wölfel, F. Hetmann, M. Gripe, Ch. Nöstlinger, P. Härtling edo T. Haugen, besteak beste. Ikertzaileak

dioenez, 80ko hamarkadaren erditik aurrera bereziki, idazle horien lanak euskaratu ziren, literatura aberastuz, gai eta ikuspuntu berriak sartuz euskal HGLn<sup>26</sup>.

Puntu honetan, euskal letretara begira interesgarria den informazio bat eman nahiko nuke, errealismo kritikoko lehen idazle horiek euskal HGLn izan zuten eragina argi erakusten duena. Gorago Mariasun Landa aipatu dut euskal HGL modernoaren sorreraz ari nintzelarik. Orain beste ezaugarri hau gehitu behar da: Landa izan zen errealismo kritikoa euskal HGLra ekarri zuen idazlea. Landak berak Galtzagorri Elkartearen *Gonagorri* podcastean (Luki, Egaña eta Agirrezabal, 2022) kontatu zuen Christine Nöstlingerren eskutik deskubritu zuela HGL modernoa, gizarteko arazoak plasmatzen zituena eta umorea erabiltzen zuena hori adierazteko. Landak idazle austriarraren *Konrad edo kontserba poto batetik atera zen haurra* (1975) liburua aipatzen du<sup>27</sup>, esanez liburu horrek zabaldu zizkiola begiak; alegia, lan horri esker ikusi zuela HGL egiteko beste modu bat zegoela, beste estilo bat, eta errealismo kritikoa korronteari esker ikusi zuela gizartean zeuden arazoak isla zitezkeela HGLn. Euskal testuinguruari dagokionez, Mariasun Landa da, Etxanizek (2011a) baieztatzen duen moduan, errealismo kritikoko idazlerik garrantzitsuena eta berak idatzitako *Txan fantasma* (Elkar, 1984) har daiteke errealismo kritikokoaren korrontea euskal literaturara ekarri zuen lehenengo idazlan garrantzitsutzat (baita euskal HGL modernoaren lehen obretakotzat). Lizardi Saria eskuratu zuen lan horretan izebarekin bizi den Karmentxu neskato umezurtza eta bere mamu taldea utzi duen Txan fantasma bakarti eta tristea agertzen dira, eta bien arteko harremanaren bitartez, bakardadeaz eta maitasun faltaz mintzo da liburua. Beraz, esan daiteke hein handi batean Mariasun Landari eta Cristine Nöstlinger idazle arrakastatsuari (Hans Christian Andersen sariduna) zor zaiela errealismo kritikokoaren sorrera euskal HGLn. Nöstlingerrez gain, Etxanizek (1997a) Gianni Rodari italiarraren eragina azpimarratzen du, euskal HGLko idazleengan eragina izan duelako (berak ere eskuratu zuen Hans Christian Andersen saria). Gaineratzen duenez, fantasia errebindikatuz, errealitateari buruzko kritika aurki daiteke bere liburuetan (Nöstlingerren kasuan, umorea eta fantasia baliatuko ditu gizarteko arazoei buruz edo gai serioei buruz hitz egiteko). Landak Nöstlingerrri egindako omenaldia azaleratu zuen Olaziregik *Amona zure Iholdi* izeneko ipuinari buruzko kritikan (Olaziregi, 1999b), edo

---

<sup>26</sup> Interesgarria da Etxanizek eta López Gasenik (2011: 87-88) egiten duten oharra, adierazten baitute 1980tik aurrera errealismo kritikoa garrantzia izan duen arren, XXI. mendean joera horrek indarra galdu duela eta istorioa modu ederrean kontatzea lehenetsi dela, nahiz eta horrek ez duen esan nahi gizarteko arazoak agertzen ez direnik.

<sup>27</sup> Joxe Mari Iturraldeak 1992an itzui zuen euskarara. Jatorrizko izenburua: *Konrad oder Das Kind aus der Konservenbüchse*.

Rodariren hainbat ipuinekin lotura duten harreman intertestualak analizatu zituen Landaren obrari buruzko atal ezagunean (Olaziregi, 1999b).

Gaur egun, literatura kritiko errealistak askotariko gaiak barne hartzen ditu: gerrak, heriotza, kriminalitatea, arrazakeria, immigrazioa, abandonua, ulertezintasuna, dibortzioa, maitasuna, sexualitatea, ekologismoa, bereziki haur eta gazteak kezkatzen dituen gaiak (lehen maitasuna, adopzioa, eskola-jazarpena) eta abar luze bat<sup>28</sup>. Funtsean, gizartean dauden arazoak lantzen ditu mintzagai dudan korronteak eta auzi horiek literaturaren bitartez erakustez gain (helburu estetikoaren lehenetsiz), hartzaileren jarrera kritikoa eta gogoetara bideratutakoa lortu nahi da. Horrekin lotuta, Michi Strausfeld-ek (1989) errealismo kritikoa maiz ekar ditzakeen arriskuez ohartarazten du: “El problema literario radica en la dificultad de no caer en las trampas y tentaciones de la didáctica, subyacente a toda literatura de corte crítico-realista” (83). Errealitatea irudikatu nahian eta hori irakurle gazteei egokitzearen ondorioz, idazle asko sinplifikazio baldarretan erortzen direla eta istorioei irtenbide sinesgaitzak ematen dizkiotela aipatzen du. Era berean, haurren erresistentzia gainditzen duten kontakizun ilunak errefusatzen ditu eta horren ordez, azpimarratzen du garrantzitsua dela itxaropena, poztasuna eta barrea mantentzea liburuetan, optimismoak ahalbidetzen duelako egoera negatibo baten aldaketa. Horrek azaltzen du, Strausfelden (1989) ustez, literatura fantastikoaren pizkundea 80ko hamarkadan. Amaitzeko, aipatu nahiko nuke literatur lan bat azpi-korronte jakin bati atxikitzeak buruhaustea ekar ditzakeela maiz, irizpideak ez baitira beti zurrinak. Zailtasun horrek Vásquezen (2003b: 249) hitzak dakarkit gogora:

Cuando se pretende asignar un determinado calificativo a las obras, debe tenerse muy en cuenta que sólo se trata del predominio de ciertas características, muchas veces reiterativas, y no de un simple afán clasificador que minimiza el potencial semántico. Este predominio, de ningún modo, puede ocultar o negar la posibilidad de otras lecturas que arrojen nuevas perspectivas de interpretación. El proceso de búsqueda de elementos asociados a una orientación estética no debe ser exclusivo. Así, una obra puede admitir diversos enfoques que permitan encontrar en ella aspectos realistas, románticos, fantásticos, religiosos, etc., los cuales dialogan en el espacio textual.

Horregatik, ezaugarriak aztertuta sail batean baino gehiagotan sailka daitezkeen liburuen kasuan, irizpide garbi bat hartu dut: Nagusitzen den ezaugarria hartu dut erabakigarritzat azpi-korronte batean ala bestean sailkatzeko.

---

<sup>28</sup> Errealismo kritikoko gaiak aipatu ditudanez, interesgarria da Etxanizen (2011a) lana, korronte horretako euskal HGLko lan ugari zerrendatzen baititu, gaika antolatuta (41-66 orrialdeetan aurki daiteke esandakoa).

### 3. EUSKAL GATAZKA

Ezin ditu burutik kendu telebistako irudietan ikusitako manta horiek guztiak,  
auto hondar belztu haien inguruan barreiatuta.

Manta horietako bat altxatu nahi luke, azpian zer dagoen ikusteko  
(Muñoz, 2003: 45).

#### 3.1. Zer da euskal gatazka?

Aurreko atalean aipatu dut HGL zer den definitzea uste baino zeregin konplexuagoa dela eta hainbat adituren esanak ekarri ditut horren erakusle. Tesi lan honetan maiz baliatu dudana beste termino labainkorretako bat *euskal gatazka* da eta hitz horren erabilera egiten duen ikerlanak kontzeptua bera definitzea eskatzen du. Batetik, termino anitz erabili izan dira gauza bera izendatzeko; eta bestetik, termino berbera erabili denean ere, zentzu bat baino gehiago eman zaio, hau da, adierak ez dira beti bat etorri. Euskal gatazkaz dezente hitz egin du Iban Zalduak, hala fikziozko lanetan (2021, 2018<sup>29</sup>, 2014, 2004, 2001) gaia hizpide hartu duelako nola bere saiakera lanetan (2005, 2012), artikuluetan (2016) edo emandako elkarrizketetan ahotan hartu duelako; eta berak erakusten du ongien euskal gatazka izendatzeko erabili diren eufemismo eta bestelako terminoen ugaritasuna. (*Gure gauza (hori)*, *La Cosa (vasca)*, *El Conflictio* edota *nuestra Cosita* (euskal gatazka mundu mailako terrorismoarekin erkatzen duenean, euskal gatazkak horrekin alderatuta duen dimentsio txikiagatik) deitu izan dio Zalduak mintzagai dudana gaiari.

Potitikan, eta jendartean oro har, *Euskal arazoa* (el *Problema vasco*) edo *Euskal afera* deitu izan zaio maiz. Terminoa zabal, eta beraz, zehaztugabe horren ordean, apur bat zehatzagoak diren berbak ere erabili izan dira: *Euskal Herriko gatazka politiko armatua*, *Euskal Herriko borroka armatua*, *ETAren terrorismoa*, (*Espainiar*) *Estatu Terrorismoa* (batez ere 70eko eta 80ko hamarkadetan *Gerra Zikina* ere deitu izan zaiona) edota (*Espainiako/Frantsiako*) *Estatu indarkeria*, besteak beste. Terminologia dantza horrek ikertzailearen lana zailtzen du, batetik, gaiari buruzko literaturan bilaketak egiterako orduan item ugari arakatu behar direlako; eta bestetik, hitza definitzen ez denean, tentuz ibili beharra dagoelako jakiteko zein den kontuan hartzen den dimentsioa. Leyre Arrieta (2015)

---

<sup>29</sup> Bi liburu hauetan Zalduak euskal gatazkari buruz idatzitako ipuinak bildu zituen, euskaraz eta gaztelaniaz hurrenez hurren. Bide batez, interesgarria da Mikel Sotok editatutako *Haginetako mina* (Txalaparta, 2008) liburua, euskal gatazkari buruzko ipuin-laburren antologia bat; edo Mikel Ayerbek editatutako eta 2012an Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies delakoak argitaratu emandako *Our Wars. Short Fiction on Basque Conflicts* liburua, zeinetan 1936ko Gerra Zibilari eta euskal gatazkari buruzko ipuinen hautaketa bat aurki dezakeen irakurleak.

historialariak edota Edurne Portela (2016) idazleak ere *euskal gatazka* terminoaren erabilerari buruzko ohar batzuk egiten dituzte, baita Olaziregik (2017b) ere. Azken horrek zehazten du euskal testuinguruan *euskal gatazka* hitza ezker abertzalea ETAREN hasierako garaitik (1958-1968) sortzen joan zen kontakizunari dagokiola. Arrietak (2015) zehazten duenez, ETAREN ikuspuntu doktrinalean berebiziko eragina izan zuten Julen Madariagaren *La insurreccion de Euskadi* (1979) lanak zein Federico Krutwigen *Vaconia* (1963) liburuak, eta apurka-apurka ezker abertzale erradikalaren kultura politikoan euskaldunen eta espainiarren arteko liskar mitikoari buruzko narratiba sortzen joan zen, aspaldiko garaietatik zetorren gatazka historiko baten ikuskerara, independentzia lortzearekin eta euskal estatu sozialista ezartzearekin soilik amaituko zena. Dioenez, kontakizun hori izan da ezker abertzaleak defendatutako argudioaren oinarria. Ildo horretan, interesgarria da Portelak (2016) gaineratzen duena:

Me sitúo totalmente en contra del uso de la palabra «conflicto» que hace la izquierda *abertzale*, según la cual Euskal Herria es un territorio ocupado en el que se ha vivido una guerra entre «el pueblo vasco», el Estado español y, en menor medida, el francés (19).

Portelaren (2016) hitzei jarraikiz, gizartean hain zatiketa sakona eragin duen auzi hau ezin daiteke *A ala B* erako eskema soilarekin azaldu, ezta euskaldunak vs Estatu Espainiarra/Frantsesa dikotomia hutsera mugatuta. Hori horrela, tesi honetan *euskal gatazka* hitza erabiliko dut ETA (Euskadi Ta Askatasuna) sortu zenetik gaur egunera arte iraun duen fenomeno konplexu bati erreferentzia egiteko, hau da, Euskal Herriak tarte horretan bizi izan duen indarkeriazko testuinguru politiko-armatuari erreferentzia egiteko. Jakin badakit bestelako periodizazio bat gailendu dela hala ikerketetan nola iritzi orokorrean, euskal gatazkaren amaiera ETAREN disoluzioarekin mugatzen duena (2018an), baina nahita zabaldu dut kronologia gaur egunera arte; izan ere, nire ustez borroka armatua amaitu den arren, gatazka hori oraindik ez da guztiz itzali, jendartean oraindik nabari baitira haren ondorio zuzenak eta diskurtso politikoak oraindik ez baitio amaiera eman fase horri. Hori bakarrik ez, kultura-produktuetan gatazkak oraindik zeresan handia ematen du, besteak beste, literaturak gure oroimen historikoa eta traumak bideratzeko duen gaitasun duda ezinezkoagatik.

Tesi honetan erabat errefusatzen dut eskuin erradikalak (Vox eta PP) euskal gatazkari buruz egiten duen irakurketa, zeinaren ustez ETAK oraindik bizirik dirauen eta horrez gain, eragina duen hainbat alderdi politikorengan. Nik neuk euskal gatazka bere gordinean amaitu egin dela ulertzen dut, baina gatazka ETAREN existentzia baino gehiago dela onartzen dudana



neurrian, iruditzen zait ez dela guztiz zuzena amaiera zehatz eta itxi bat ematea, ETaren jardun armatuaren amaierarekin bat datorrena (2011) edo ETaren disoluzioarekin bat datorrena (2018). Gainera, denfendatzen dut gatazka baten konponketa ez dela biolentziarik ezazko egoera batera soilik mugatzen eta esparru askotan uzten dituela konpondu beharrekoak. Hori horrela, epe hori luzatzen dut soilik aditzera emateko euskal gizarteak oraindik ere gatazka horren hondarrak bizi dituela, eta halaxe irudikatzen dute ere tesiko corpusean aztertu ditudan literatur lanek. Gatazka kontzeptu horren barruan sartuko lirateke azken hamarkada hauetan gurean hizpide izan diren hainbat eta hainbat gertakari. Batetik, amaiera eman zaio 35 urtez euskal presoek ezarri zaien sakabanaketa politikari<sup>30</sup>. Dena den, oraindik ere indarrean diraute hainbat salbuespen politikek. Bestetik, euskal errefuxiatu eta deportatuen afera aipatu behar da, Panisellok (2022) dioen moduan, oraindik errealitate bat baitira Euskal Herrian<sup>31</sup>. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi gatazka armatutik beste gerra batera igaro garela, hermeneutikarekin lotura duena; alegia, errelatoaren gerrara igaro garela dirudi, Euskal Herrian bizitako indarkeriazko historia azalduko duen errelatu edo kontakizun guztietatik zein gailenduko den, zeinek hartuko duen nagusitasuna liburuetan, ikus-entzunezkoetan eta iritzi publikoan. Horiek bihurtu dira garrantzitsu aro honetan. Horixe bera dio Jon Maia bertsolari eta idazleak (2017: 271):

Euskal gatazkaren errelatoaren historiaren aro jakin honetan, *errelatoaren gatazka* deritzon kontzeptua ezagutuko dugu. Politikarien, instituzioen, eragileen eta erakundeen guda zelaia bihurtu da errelatoa, nor utziko ote historiaren bertsio nagusia, betiko.

Errelatuaz ari naizela, eta Euskal Herriari begira ari naizenez, hitz horren esanahia zehaztu beharra daukat, izan ere, Olaziregik (2019c: 343) dioen moduan, euskal testuinguruan hitz horrek estatu espainiarrean ez daukan polisemia baitakar:

El término mismo de ‘relato’, un vocablo que en el contexto vasco incorpora una polisemia ajena al resto del estado español, por cuanto en éste se refiere, mayormente, al relato sobre la memoria de la Guerra Civil. En efecto, hablar del ‘relato’ entre nosotros significa, ante todo, hablar de la narrativa/discurso que incluya también el dolor de centenares de víctimas del terrorismo de ETA. En este sentido, podríamos decir que, desde las instituciones vascas, hasta

---

<sup>30</sup> ETako presoen edo motibazio politikoko euskal presoen urrutze politika hori 1988tik 2023ra bitartean ezarri du Espainiako Gobernuak, eta Frantzia berriz, 2019. urtera arte mantendu zuen indarrean neurri hori. Dena den, Espainiako Gobernuak lehenagotik hasi zen euskal presoak Euskal Herritik kanpoko espetxeetan kartzelatzen. Aipatzekoa da 2021eko urrian lortu zuela Eusko Jaurlaritzak EAEko espetxeak kudeatzeko eskumena.

<sup>31</sup> Gai zehatz horren gainean gehiago sakontzeko, irakurleak Paniselloren *Los deportados de ETA. Los olvidados del conflicto* (Txertoa, 2021) saiakera lanera jo dezake, ikertzailearen doktore-tesitik eratorritako liburura.

los creadores culturales más actuales, la reflexión en torno a las peculiaridades y contenidos que debían regir dicho relato han sido constantes.

Batzuetan, adostasunetik eta adiskidetzetik sortutako historia hurbila kontatuko duen errelatuaz hitz egiten da, kontakizun bakarraz; baina beste batzuetan berriz, biktima guztiak eta sufrimendu guztiak barne hartuko dituen errelatu anizkoitza sortzeaz hitz egiten da. Horrekin lotuta, interesgarria da Portelak Jokin Muñoz egindako elkarrizketan azken honek esandakoa (2015: 210):

En cuanto a los asesinatos de ETA, y sin ánimo de equiparar las dos cuestiones, habría que construir desde la política un único relato a transmitir a las siguientes generaciones, como ejemplo de lo que fuimos capaces de hacer, permitir y soportar. Sin embargo, en el terreno literario, mantendremos el plural, por supuesto. Cuantas más voces se oigan, mejor. Y cuanto más diferentes sean, mejor también.

Beraz, Muñozen goiko hitzei jarraikiz, bi errelatu mota bereiz daitezke, bata literaturaren esparrukoa (plurala, anitza eta ahots kontrajarriez osatutakoa), eta bestea maila politikoan eraikitako kontakizun kontsentsuatuak. Azken hori lortzea ordea, ez dirudi lan erraza denik. Mintzagai dudan errelatuaren edo diskurtsoen talka horren adibideak edonon aurki daitezke, baita euskal gatazka itxitako prozesua ez dela adierazten duten gertaerak ere. Esandakoa agerikoa da, besteak beste, zenbait politikariren hitzartzeetan. Oraindik ere, eskuin muturreko alderdi espainiarrek ez dute ETA haien berbalditik ezabatu eta ezkerreko alderdiak (eta ez soilik alderdi abertzaleak) haren mende daudela salatzen dute noiz edo noiz. Gaia lantzen duten filmak, dokumentalak edo material didaktikoak argitaratzen direnean ere, maiz polemikaz inguratuta ikusi dute argia. Urrutira jo gabe, 2023ko otsailean, Vox alderdi ultraeskuindarrak Goya Sarietako antolakuntzari ETA zuritzea leporatu zion, Fermin Muguruzaren *Black is Beltza II: Ainhoa* (2022) filma animaziozko pelikula onenaren sarirako izendatzeagatik<sup>32</sup>. Denboran atzerago eginda, gertaera serioago bat aipa daiteke: Altsasuko gazteen auzi entzutetsua, erabat mediatizatu zena eta atzerrian ere oihartzuna izan zuena, Europako Parlamentura iritsi baitzen kasua. Gorabeheretz eta irregulartasunez betetako auzi hori 2016ko urrian hasi zen Altsasuko taberna batean, bertako gazte batzuk eta bi guardia zibilen arteko liskarra estatu mailako gertaera bihurtu zenean, Auzitegi Nazionalak terrorismoa egotzita (nahiz eta azkenean ez zieten terrorismoa leporatu) hainbat gazte

---

<sup>32</sup> Informazio zabalagorako eta sortutako erreakzioen berri izateko, *Berriak* argitaratutako albisterra jo daiteke: <https://www.berria.eus/albisteak/224203/voxe-fermin-muguruzari-eraso-dio-sare-sozialetan-goya-sarietan-jasotako-izendapenagatik.htm>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

espetxeratu baitzituen. Epaiaren gaineko balorazioetan sartuko ez naizen arren, interesgarria da Altsasuko kasua Algeciraseko auziarekin erkatzea, konparaketa hori eginez erraz uler baitaiteke euskal gatazkaren oihartzuna zein errotuta dagoen sektore jakin batzuetan. Algeciraseko kasua 2018ko maiatzean hasi zen zen, Jaunartze bat ospatzen ari zen talde batek (40 pertsonen osatutakoa) bederatzi guardia zibil erasotu zituenean. Zortzi guardia zibil ospitalera eraman behar izan zituzten (Altsasuko liskarrean guardia zibil batek orkatila hautsi zuen), baina kasu hura ez zen terrorismo ekintzat hartu (Altsasuko kasua ez bezala), ezpada kale-biolentzia eta bandalismo ekintza gisa. Altsasukoen kasuan, akusatuek 50 bat urteko kartzela zigorra eskatu zuen 8 gazteentzako, nahiz eta epaiketaren ostean gehienei 13 eta 9 urteko kartzela zigorra ezarri eta geroko helegitearen ostean berriz, 9 urtetik beherako kartzela zigorretara murriztu kondena. Algeciraseko kasuak ez zuen inondik ere Altsasukoak izandako transzendentzia edo garrantzia izan, ezta erasotzaileei ezarritako zigorrak ere.

Esandakoaz bat, euskal gatazkari buruzko material didaktikoak argitaratzen direnean desadostasunak sortu ohi direla aipatu dut. Horren adibide Eusko Jaurlaritzak 2018an egindako *Herenegun!* material didaktikoa aipa daiteke. Hezkuntza programa horrek Euskal Herriaren memoria hurbila (1960-2018) lantzea du helburu<sup>33</sup>. Zortzigarren atalean helduko diot berriz material horri, baina jakinarazi nahi dut eztabaida handia sortu zuela unitate didaktikoak. Aurkeztu eta egun gutxitara, PSE eta PP alderdi politikoek, baita Covite (Colectivo de Víctimas del Terrorismo) kolektiboak eta AVT (Asociación Víctimas del Terrorismo) erakundeak ere kritika gogorrak egin zizkieten, batzuen ustez programak ETA zuritzen zuelako eta beste batzuen aburuz ez ziolako zilegitasuna kentzen ETaren terrorismoari. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide eta Bizikidetzarako idazkariak azpimarratu zuen materialak ondorio bakarrera eramaten duela ikaslea, alegia: eraso terroristek eta era guztietako indarkeriek ez dutela ez justifikaziorik ezta lekurik gure jendartean. Azalpen horiek, dena den, ez zuten urak baretzeko balio izan. Gainerako taldeak ere, EAJk izan ezik, programaren aurka azaldu ziren. EH Bilduren ustez, materialak ez zuen jasotzen haiek gatazkari buruz egiten duten irakurketa; eta Elkarrekin Podemosek, berriz, argudiatu zuen materialak ez zuela bi bandoren arteko gatazka argi gezurtatzen. Azkenean, Eusko Jaurlaritzak plana gelditu, elderdi politikoaren zein biktimen elkartean ekarpenak bildu eta

---

<sup>33</sup> *Herenegun!* material didaktikoari buruzko informazio zehatzagoa aurki daiteke lotura honetan: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/49023-herenegun>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

aldaketak egin zizkion proiektuari<sup>34</sup>. Dena den, pare bat ikasturtetan hainbat ikastetxetan pilotatu ostean, oraindik ere aldaketak egiteko beharra ikusten dute zenbait eragilek.

Diskurtsoen polarizazioa aipatu dut gorago eta horrekin lotuta, esanguratsua da memoria historikoarekin lotutako egun seinalatuetan alderdi politikoek nahiz gizarteak oro har erakusten duten bateraezintasuna. Urtero Eusko Legebiltzarrak ospatzen duen Memoria Egunean, adibidez, PP, Cs eta Vox taldeko ordezkariak uko egiten diote parte hartzeari. Beste adibide bat aipatzearen, hortxe daukagu Gasteizen eraiki zuten Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa, zeina polemika artean inauguratu baitzuten, hainbatek salatu zuen zentroaren “eredu baztertua” dela kausa. Irekierari buruzko erreportajea osatu zuen kazetariak (Buruaga, 2021) esan bezala, jendartearen zatiketak eta iritzi kontrajarriak markatu zuten zentroaren irekiera.

Azkenik, biktimen aferari errepara dakioke euskal gatazkak utzitako zauriak orbaindu gabe daudela ikusteko. Alde bateko zein besteko biktimek egia, justizia, aitortza eta erreparazioa eskatzen dute oraindik. Biktima estatusa nori aitortu, nori eman ikusgarritasuna eta ahotsa; horrek hautsak harrotzen ditu oraindik gurean. Batzuentzat biktima direnak biktimario dira beste batzuentzat, askorentzat torturatzaile eta hiltzaile izan direnak ohoragarriak eta eredugarriak dira hainbatentzat. Adibide garbi bi aipa daitezke esandakoa argitzeko. Duela gutxira arte ongietorriak egiten zitzaizkien ETako presoak espexetik irtetean. Ekitaldi horietara bertaratzen zirenek harrera goxoa egiteaz batera, batzuetan etakidearen militantzia goraipatzen zen. ETaren indarkeria jasandako biktimak eta haien gertukoak, ordea, irainduta sentitzen ziren. Txanpon horren ifrentzuan tortura erabili, hilketak burutu edo agindu/baimendu dituzten agintari, guardia zibil zein bestelako kargudunei emandako sari edo errekonozimenduak leudeke, haien bortxa pairatu dutenek eta haien inguru hurbilak sufrimendu handiz ikusi behar dutelako behiala borrero izandako pertsonak eredugarri eta ohoragarri gisa. Adibide bat ematearren, lerro hauek idazten ari naizen momentuan, 1986ko Mikel Zabalzaren heriotzan parte hartzeagatik akusatutako Guardia Zibileko teniente jeneral eta Laguntzarako Zuzendariordetza Nagusiko buruari maila-igoera eman diote. Horrek zalaparta handia sortu du eta EAJk zein EH Bilduk azalpenak eskatu

---

<sup>34</sup> Esteka honetan azaltzen den berrian irakur daitezke PSE, PP, Covite eta AVT taldeek *Herenegun!* programa didaktikoari egotzitako kritikak eta horren aurrean programaren sortzaileek emandako erantzuna: <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoa/5928786/herenegun-programa-pse-pp-covite-eta-avtren-kritikak-2018ko-urriak-18/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20]. Berri honetan berriz, parlamentuko gainerako taldeek emandako erantzuna eta sortutako polemikaren ondorioz programari egin zitzaizkion aldaketak azalzen dira: <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoa/6815874/jaurlaritzak-herenegun-programa-aldatu-du-biktima-geh-iagoren-testigantzekin/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

dizkiote Espainiar Gobernuari. Zabaltza terrorismoarekin loturarik ez zuen autobus gidari bat zen, ETAREN aurkako operazio batean etakide zelakoan guardia zibilak atxilotu, torturatu eta hildako euskal herritarra<sup>35</sup>.

Euskal gatazkaren hasiera ETAREN sorrerarekin lotu badut ere, ezin aipatu gabe utzi data hori atzerago bota daitekeela, baldin eta onartzen bada gatazka horren arrazoiak Gerra Zibiletik datozela, Etxanizek eta López Gasenik (2008) iradokitzen duen moduan. Markos Zapiainek (2015: 175) gaineratzen duenez “esan liteke euskal literaturak, oro har, gerra zibilari eta errepresio frankistari lotu diola ETAREN agertzea eta lehenbiziko urteak, eta erantzun hura onetsi duela”. Dena den, tesiko corpusa sailkatzeko periodizazio zehatz bat behar dudanez eta ikerketan oro har gatazkaren hasiera talde armatuaren sorrerarekin hasten denez, irizpide hori baliatu dut hemen ere.

Arestiko lerroetan jada iradoki dudan arren, argitu nahi dut euskal gatazka ez dela soilik ETAREN ekintzetara mugatzen, Espainiar eta Frantziar Gobernuek testuinguru horretan burututako biolentziazko ekintzak ere euskal gatazkaren parte ulertzen ditudalako. Hainbat erakunde armatuk parte hartu dute gatazka horretan: ETA, GAL (Grupo Antiterrorista de Liberación), BVE (Batallón Vasco Español) edo Triple Ak (Alianza Apostólica Anticomunista), besteak beste. Alde bateko zein besteko partaideek egindako atentatuak, bahiketak, mehatxuak, tortura, indarkeria, terrorismoaren biktimak, preso politikoak eta sakabanaketa pairatzen duten presoak. Horiek barnebiltzen ditu euskal gatazkek. Era berean, ohartarazi nahi dut indarkeriazko egoera oro ezin dela euskal gatazkarekin lotu eta ongi bereizi behar dela euskal gatazkarekin lotutako bortxaren erabilera bestelako indarkeria mota batzuetatik. Atal hau Portelaren (2016: 120) aipuarekin amaitu nahiko nuke, bikain definitzen baitu euskal gatazkek sortutako egoera:

En nuestra sociedad se ha visto con bastante normalidad que algunas personas, debido a sus cargos políticos, su ocupación profesional o su ideología y/o clase social, hayan sido el objetivo de ETA y de sus colaboradores. También significa aceptar que, debido a sus vínculos con la izquierda abertzale, sospechosos de pertenecer al entramado de ETA sean torturados, encarcelados con largas sentencias lejos de sus familias, o que los asesinatos del GAL estuvieran justificados en su momento.

---

<sup>35</sup> Irakurleak kasu honi buruzko informazio zabalagoa nahiko balu, *Non dago Mikel?* (2020) dokumentalera jo lezake: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/programa/non-dago-mikel/5259/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

### 3.2. Euskal gatazkaren bilakaera eta gertaera nagusiak

Tigre batekin bizi gara, bai;  
baina ez ditugu elkarren begiak ezagutzen  
(Cano eta Gurrutxaga, 2017: 23).

Atal honetan ez dut euskal gatazkaren kronologian gehiegi sakonduko, dimentsio zabala duen gatazka izanik, ikuspegi osotu bat emateak tesiaren mugak gaindituko lituzkeelako. Dena den, tesiko corpusa osatzen duten obrak ulertzeko beharrezkoa den testuingurua plazaratu nahiko nuke. Uste dut atal honetan emango den informazioak aztergai ditudan literatur testuetan aipatzen diren gertaera eta erreferentziak ulertzen lagunduko duela.

Gorago iradoki dudan moduan, euskal gatazkaren jatorria ulertzeko Gerra Zibil garaira eta osteko errepresio frankistara jo beharko litzateke. Halaxe iradoki dute helduentzako euskal literaturan Gerra Zibilera jo duten zenbait idazlek, besteren artean, Ramon Saizarbitoriak jada *100 metro* (1976) eleberrian, Bernardo Atxagak *Soinujolearen semea* (2003) edo Jokin Muñozek *Antzararen bidea* (2007) eleberrian. Gogora dezadan errepresio frankista izugarria izan zela Euskal Herrian, estatu espainiarreko gainerako tokietan baino askoz handiagoa, batzuen ustez (Gurrutxaga, 1985). Testuinguru errepresibo horretan sortu zuen ETA ikasle talde batek, 1959an. EAJrekin desados zeuden eta gerraondoan sortutako EKIN talde politiko abertzale klandestinoko kideek sortu zuten eta Euskal Herriaren independentzia lortzeko borroka armatua defendatzen zuten. Imanol Muruaren (2014: 70-71) doktore-tesiak aditzera ematen duen moduan, ETAk bere aldizkari propioan (*Zutabe* agerkariko 113. zenbakian) esplizitatu zuen gerraosteko muturreko errepresioari eta ukapenari aurre egiteko sortu zela erakundea. Hori horrela, Frankismoaren azken urteetan jaio eta Trantsizioan zehar indartzen joan zen talde armatua. Jesús Izquierdo historialariak (2021) dioen moduan, espainiar estatuak oso justizia trantsizional berezia bizi izan zuen, zeinetan ia-ia deuseztatu egin ziren biktinario izan zirenen eta biktima gisa sufritu zutenen ikusgarritasuna. Ez zen hil zituzten pertsonen memoriarenganako justiziarik ez erreparaziorik egon. Boterean zeudenek biktimak isilean gordetzen zituen memoria hegemonikoa ezarri zuten, baina biktimak isiltzeaz gain, haien hiltzaileak ere ikusezin bihurtu ziren. Andreas Langenohl soziologoak (2010) dioenez, XX. mendeko demokratizazio prozesuan 3 olatu bereizten dira eta 3. olatuan sartzen ditu Latinoamerikako, Asiako eta Europa hegoaldeko herrialdeak (Portugal, Grezia eta Espainia), 1970eko hamarkadan zehar

garaitu baitzitzuten erregimen diktatorialak. Gure testuinguruari dagokionez, honakoa gaineratzen du (*ibidem*, 163-164):

It introduced the problem of a possible contradiction between politically pragmatic and juridical-morally just ways of addressing the past, as all three transitions (and especially the Spanish one) were accompanied by impunity for the perpetrators on the part of the democratic regime [...] While this strategy was legitimate insofar as it aimed at the successful completion of the democratic transition, it also triggered reproaches by the victims of authoritarianism and therefore kept the authoritarian legacy on the agenda.

Euskal Herriak Gerra Zibiletik ordura arte bizitakoak eragina izan zuen Trantsizioan eta etapa horretan ere prozesu errepresibo latzak gertatu ziren (Arrieta, 2015), horietako batzuk ikertu, epaitu eta justizia egin gabe jarraitu dutenak. Espainiar gobernuak ETAren aurkako neurri bereziak abiatu zituen, *gerra zikina* deitu izan zaiona maiz; baina horrek egoera are gehiago korapilatzea eragin zuen, aurretik zegoen indarkeriazko testuinguruari biolentzia handiagoa gehituz. Euskal gatazkaren ondoriozko lehenengo biktima mortala 1961eko martxokoa da. Espainiar Guardia Zibilak nahaste baten ondorioz kotxe bat tirokatu zuen eta ETAko hiru militante bertan zihoaztela pentsatuz 33 urteko Javier Belarrita enpresaria hil eta José Antonio Ballesteros larriki zauritu eta elbarri utzi zuten. Haiak izan ziren lehenengo biktimak (Murua, 2014). Dena den, ezagunagoa da 1968. urteko gertaera, ETAk urte horretan burutu baitzuen bere lehenengo hilketa eta ekintza horren ondorioz beste hainbat hilketa egin baitziren. Urte horretako ekainaren 7an, Guardia Zibilak kotxean zihoazten bi etakide (Txabi Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa) gelditu zituen eta José Pardines polizia hil zuen horietako batek, Etxebarrietak. Azken hori ordu gutxira hil zuten guardia zibilek. Ekintza horrek hirugarren hilketa bat ekarri zuen, handik bi hilabetera, abuztuaren 2an ETAk Melitón Manzanos hil baitzuen, Espainiako Brigada Politiko-sozialaren Donostiako burua, atxilotuekin tortura gogorrek erabiltzeagatik ezaguna zena (ekintza hau izan zen erakundearen lehenengo ekintza planifikatua). Hilketa hark errepresio bortitza ekarri zuen eta militante ugari atxilotu zituzten. Ildo honetan, ezinbestekoa da Burgosko prozesuari aipamena egitea, zeinetan 16 etakide epaituak izan ziren eta akusatuetako seiri heriotza zigorra ezarri zitzaien. Diktadura garaiko mobilizaziorik jendetsuena izan zen, Euskal Herriatik kanpo ere mobilizazioak sortu zituena eta nazioarteko interesa ere lortu zuena (tartean ETAk Eugen Beihl alemaniako kontsula bahitu zuelako mehatxu gisa). Azkenean, kanpo presioek eraginda, heriotza zigorrak espetxe zigorreatatik ordezkatu zituen Francok. Hurrengo gertakari entzutetsua (hala Euskal Herrian nola atzerrian) 1973ko abenduaren 20an

izan zen, ETAk Espainiako presidente Luis Carreo Blanco hil zuenean Madrilen, Francoren oinordekoa izango zena. *Operación Ogro* deitu zioten atentatuari. Benetan entzutetsua izan zen atentatu hura, horren erakusgarri da Eva Forestek (Julen Agirre ezizenaz) 1974an kaleratu zuen *Operación Ogro* liburua edo obra horretan oinarritutako Gillo Pontecorvoren izen bereko filma, baita Etxamendi eta Larraldeek gertaera horri buruz idatzitako *Yup La La* kantua.

Frankismoaren amaieraren atarian, 1975ean, diktadura garaiko azken fusilamenduak gauzatu ziren, Francoren gobernuak FRAPeko hiru kide eta bi etakide fusilatu zituztenean (Jon Paredes “Txiki” eta Angel Otaegi). Orain arte ez dut ezer aipatu Ipar Euskal Herrian sortutako erakundeez eta bidenabar bada ere, aipatu nahiko nuke 1973an Iparretarrak (IK) sortu zela, Ipar Euskal Herriarentzako autonomia estatutua aldarrikatuz bere burua abertzale eta sozialistatzat zuen talde armatua. Batez ere sabotajeak eta eraikinen aurkako atentatu materialak burutu zituen eta 2000. urtean egin zituen azken ekintzak (Bidegain, 2007). Franco hil osteko demokrazia finkatu berriak, Juan Carlos Borboikoa estatuburu eta Adolfo Suarez gobernoburu zuenak, lehen esan bezala, ez zuen biolentzia eta errepresio maila txikitu. GALek, Espainiako gobernuaren onespenezekin, bere lehen jardura burutu zuen 1983an, Jose Antonio Lasa eta Jose Ignazio Zabalaren bahiketa, tortura, hilketa eta desagertzeekin (Lasa eta Zabala kasua izenarekin ezagutzen dena). Ipar Euskal Herrian errefuxiatuak zeuden bi etakide gazteak tiroz hil ostean kare bizian lurperatu zituzten haien gorpuzkiak. 1995ean egin zen kasua publiko eta 2000. urtean epaitu zituen Auzitegi Nazionalak hilketaren arduradunetako batzuk. 80ko hamarkada benetan gogorra izan zen Euskal Herrian eta horren adierazle da garai horri erreferentzia egiteko erabili den deitura: berun urteak. Alde bateko zein besteko taldeek indarkeria bortitza erabili zuten. ETAk inoiz baino atentatu odoltsuagoak egin zituen, 1987ko ekainaren 19ko Bartzelonako Hipercor hipermerkatukoa (21 pertsonen bizia kendu eta 45 zauritu eragin baitzituen), edo urte bereko Zaragozako kuartel-etxearen aurkako atentatua (11 pertsona hil eta 50 bat zaurituz), adibidez. Espainiar Gobernuak preso hartutako etakideen aurka izandako jarrera azaltzen du Muruak (2014: 96):

Torture of detainees was a systematic practice of the Spanish police forces under Francoism, but it did not stop after a political reform that left the police and military intact. In addition, the renewed anti-terrorism legislation enabled the police interrogators to hold ETA suspects in incommunicado detention for days.

Esan gabe doa inkomunikazio-atxiloketa horietan tortura baliatzen zela atxilotuari hitz eginarazteko tresna gisa eta praktika hori zenbait hamarkadaz luzatu dela, ez soilik etakideen



aurka, baina baita inguru abertzaleko jendearen kontra ere (Murua, 2014; Etxeberria, Martín, Pego, 2017). Azken urteotan egindako ikerketa ofizialek agerian utzi dituzte euskal herritarrek pairatutako tortura kasuak. Kriminologiaren Euskal Institutuak egindako txostenen arabera (1960-1978 eta 1979-2015), Nafarroan 1960 eta 2015 bitartean 1.068 tortura kasu egon direla baieztatu zion Institutuak Nafarroako Gobernuari. Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokionez, berriz, 2017an aurkeztutako txostenean, Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak eta maila askoz txikiagoan ertzaintzak burututako 4.113 tortura kasu jaso zituen Kriminologiaren Euskal Institutuak, nahiz eta txostenean bertan honakoa zehazten den:

Zifra horiek kaltetuen kopuruaren benetako dimentsioa baino txikiagoak dira; izan ere, diktadura garaian eta trantsizioaren lehen urteetan, 1978ra arte, 1.081 soilik erregistratu ditugu (erregistratutako guztien % 26,4), baina garai hartan tortura oso ohikoa zen, eta dimentsio askoz ere handiagoa izan zuen (Etxeberria, Martín, Pego, 2017: 13).

Beraz, Kriminologiaren Euskal Institutuak torturaren inguruan egindako txostenen arabera, eta datu ofizialen arabera, 1960. urtetik Hego Euskal Herrian gutxienez 5.181 tortura kasu egon dira (ikerketek aurrera jarraitu dute eta txostenetan emandako kopuruak gora egin du). Ez hori bakarrik, azken urteotan Nazio Batuen Erakundeak hainbat aldiz zigortu du Espainia tortura kasuengatik. Azalpen zehatzagoa ematen du Kriminologiaren Euskal Institutuaren txostenak:

Azken hamarkadetan, nazioarteko hainbat erakundek (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Torturaren Aurkako Batzordea, Giza Eskubideen Batzordea) Espainia kondenatu dute tortura ikertzeko eta prebenitzeko betebeharrak ez betetzeagatik. Horrenbestez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak lau kasutan eman ditu Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonentzako ebazpenak (2002ko, 2003ko eta 2011ko gertaerak, Guardia Zibilak egindako atxiloketekin lotuak), eta Nafarroako Foru Erkidegoko hiru kasutan (2009ko eta 2011ko gertaerak, Guardia Zibilak egindako atxiloketekin eta Polizia Nazionalak egindako atxiloketa batekin lotuak). Gertaera horiek guztiak inkomunikazio-erregimeneko atxiloketetan izan ziren, ETaren kolaboratzaile edo kide izateaz akusatutako pertsonen aurka. Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak hiru kondena-irizpen eman ditu praktika horiek behar bezala ez ikertzeagatik eta ez zigortzeagatik (1992ko eta 2002ko gertaerak, bi kasutan Guardia Zibilak egindako atxiloketekin lotuak, eta kasu batean Ertzaintzak egindako atxiloketarekin lotua). Azkenik, Giza Eskubideen Batzordeak Espainia kondenatu du Guardia Zibilak egindako atxiloketa batekin lotutako kasuan. Kasu horietan, nazioarteko erakundeek Espainiako estatua kondenatu zuten salaketak ez ikertzeagatik, auzitegiko medikuen txosten eta frogen erabilera eskasa egiteagatik, egin behar ziren probak ez egiteagatik, edo torturaren ondorio psikologikoak ez ebaluatzeagatik (2017).

80ko hamarkadaren amaieran, ETAk eta Espainiar Gobernuak elkarrizketan jardun zuten, Argeleko elkarrizketak izenez ezagutzen diren negoziazio-mahaietan. Horren harira, hainbat su-eten adostu zituen gobernuak ETArekin, baina negoziazio haiek huts egin zuten eta atentatuak egiten jarraitu zuen azken horrek. Garai horretan hasi zen Espainiako Gobernuaren presoen dispersioarekin eta Euskal Herritik kanpoko kartzeletara bidali zituen ehundaka preso (Frantziak ere politika horri heldu zion). 90eko hamarkadak bide beretik jarraitu zuen. ETAk bere historiako bahiketarik luzeena burutu zuen: 1996ko urtarrilean José Antonio Ortega Lara (orduan kartzelako funtzionarioa zena) preso hartu eta 1997ko uztailean arte mantendu zuen gatibu (532 egunez). Bahiketa horrekin ETAko presoak Euskal Herriratzea eskatzen zuen erakunde armatuak. Handik egun gutxira Miguel Ángel Blanco Ermuako PPko zinegotzia bahitu zuten helburu berberarekin, baina Gobernuarekin adostasunik lortu ezean, Blanco tiroz hil zuten. Gertaera horrek inflexio-puntua suposatu zuen askorentzat eta ETAren biolentziaren aurkako gaitzezpena eragin zuen gizarteko kopuru zabal batean, baita ordura arte posizionatu ez zen edo ETAren ideiekin hala edo nola bat zetorren jendearengan. Manifestaldi jendetsuak egin ziren hainbat tokitan eta mugimendu horri *Ermuako Espiritua/Espíritu de Ermua* izena eman zitzaion. Lehenagotik ere gizarte zibilak sortuak zituen bakearen alde eta ETAren aurka egiten zuten erakunde baketsuak, adibidez, *Gesto por la Paz de Euskal Herria/Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea*. Talde hau 1985ean hasi zen mobilizazioak egiten eta arrazoi politikoek bultzatutako hilketa bat zegoen aldiro manifestaldi isilak antolatzen zituen. 1992an sortutako *Elkarri* gizarte mugimendua ere aipatu beharko nuke, euskal gatazkari irtenbide baketsua eta elkarrizketa bidez adostutakoa ematea eskatzen zuena, eta harengandik sortutako *Lokarri* gizarte mugimendua, bakearen aldeko ekimen garrantzitsuak burutu zituena, besteak beste, aurrerago azalduko dudana Aieteko Konferentzia. Beste modu batean bada ere, baina aurrekari izan zelako aipatu beharrekoa da 1980ko maiatzaren 27an argitaratu zen manifestua, “Aún estamos a tiempo” izenburua zuena eta *33en manifestua* edo *33en gutuna* izenez ezagutzen dena. Berau euskal kulturako 33 ordezkariak sinatu zuten Euskal Herriak bizi zuen indarkeria salatzeke. Alex Gurrutxagak (2020: 132) ematen du manifestu horren garrantziaren berri:

*33en manifestua* ETAren indarkeria kondenatuz argitaratu diren hainbat dokumenturen abiapuntutzat har daiteke. Lehenetakoa izateaz gain, goiztiarra da historikoki: apala da sinatzaileen kopurua, ezaguna ez sinatzea hobetsi zutenen kezka. Agiria argitaratu eta urte erdira etorri zen Euskadiko Ezkerrak egindako kondena, Inazio Ustaranen hilketaren ondoren.

Talde armatuez gain, ezin aipatu gabe utzi *kale borroka* (batez ere Herri Batasunak 1994an *Oldartzen* izeneko txostenean “sufrimenduaren sozializazioa” izeneko estrategia abiatu zuenetik), protesta, greba eta bestelako manifestaldiak; eta horren aurrean indar polizialek baliatzen zuten indarkeria. Maila politikoan, Jose María Aznar buru zuen PP alderdiak gobernuko agintea hartzeaz bat (1996), Gobernuak eta Auzitegiak ETAREN eta ezker abertzalearen aurkako hainbat neurri hartu zituen. ETAREN inguruneaz ez ezik, ezker abertzalearen kriminalizazioa aipatzen du Portelak (2016: 55)<sup>36</sup>, eta horren harira, Martxelo Otamendi kazetariak (2013) salatzen du ezker abertzaleak pairatutakoa:

Giro horretan, “dena da ETA” irizpide suntsitzailea jarri zuen martxan [Baltasar] Garzon epaileak, ezker abertzalea jomugan jarritz. Ezker abertzalekoak ziren eta ez ziren erakundeen aurkako ehiza hasi zuen Garzonek, Espainiako Gobernuaren, Kongresuaren, alderdi gehienek eta komunikabide handienek babesarekin. Helburu nagusia lortzeko, aldatu beharreko legeak aldatu zituen Espainiako Kongresuak, eta sortu beharreko legeak sortu. Legeen, Zigor Kodearen eta jurisprudentiaren irakurketa askoz zabalago eta orohartzaileago egin zituzten epaitegietan, ordura arte astakeria judiziala zena irizpide onartu eta txalotua bihurtzeraino.

Otamendiren arestiko hitzak kontuan hartu edo ez, bada guztia ETA erakundearekin lotzeko obsesio hori erakusten duen adibiderik, “dena ETA da” izendatu den fenomeno, 18/98 makrosumarioarekin lotuta dagoena. 18/98 sumarioa edo makrosumarioa 1998an Espainiako Auzitegi Nazionalak abiatutako prozesu judizial sorta izan zen, zeinetan ETAREkin lotura zutelakoan, hainbat eta hainbat euskal erakunde eta pertsonaren aurka egin zuten. Batetik, 1998ko uztailaren 15ean, Espainiako Auzitegi Nazionalako Garzón epaileak *Egin* egunkaria eta *Egin irratia*ren itxiera agindu zuen, ETAREN menpeko zela leporatuta. Horrekin batera, zuzendaritzako kideak eta hainbat langile atxilotu eta zigortu zituzten (ETAREkin lotura izatea egotzita). Itxieratik hamaika urtera, Espainiako Auzitegi Gorenak bidegabetzat jo zuen itxiera. Dena den, *Egineko* langile zenbaitek hainbat urte igaro zuten espetxean eta bestelako zigor ekonomikoak ordaindu zituzten. Bestetik, historia hori bera errepikatu zen euskarazko beste egunkari batekin: *Euskaldunon Egunkaria* ixteko agindua eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak (Juan del Olmok) 2003ko otsailaren 20an, arrazoi berberak argudiatuz. Egunkariko hainbat langile atxilotu zituzten eta ezarri zieten inkomunikazioaldian torturak sufritu izana salatu zuten horietako zenbaitek. Zigor

---

<sup>36</sup> Portelak (2016: 52) kontuan hartu beharreko zehaztasun bat ematen du. Ikertzaileak ohartarazten duenez, ezker abertzaleaz hitz egiten denean, duela gutxira arte borroka armatua defendatu dutenekin parekatu izan da maiz; dena den, ezkerrekoa eta abertzalea den pertsonak ez du zertan borroka armatua defendatu behar ideologia ezkertiarretik egindako proiektu sozial eta ekonomikoak defendatzeko.

ekonomikoak ere jaso zituzten. Itxiera horrek izugarrizko manifestazioa eragin zuen otsailaren 22an Donostian, eta hainbat liburu, dokumental eta ikus-entzunezkoak jaso zuten kasu horren berri<sup>37</sup>. *Eginekin* gertatu bezala, justiziak 7 urte beranduago egiaztatu zuen itxiera ez zela legezkoa izan, *Euskaldunon Egunkariak* ez zuela loturarik ETArekin eta atxilotuak errugabeak zirela. Halaber, frogatuta geratu zen zuzendariak torturak jasan zituztela atxiloaldian, guardia zibilen partetik. Ezin aipatu gabe utzi Espainiak ez zituela tortura kasuak ikertu ere egin (are gehiago, kaltetuetako bati zigor gehigarria ezarri zion segurtasun-indarrak kalumniatzea egotzita) eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainia zigortu zuela Martxelo Otamendiri (*Egunkariaren* zuzendaria) emandako torturengatik eta kasuak ez ikertzeagatik. ETArekin lotu eta beranduago talde armatuarekin zerikusirik ez zuela frogatu zen beste kasuetako bat 2004ko martxoaren 11ko Madrilgo atentatuak lirakeke (Espainiako historiako atentatu terroristarik handiena). *IIM* izenez ezagutzen diren atentatuak Madrilgo lau trenetan talde jihadistak batek burututako eraso terroristak izan ziren, 192 hildako eta ia 2.000 zauritu eragin zituen. Eraso gertatu eta berehala, orduan Espainiako presidentea zen PP alderdiko Jose María Aznarrek ETari egotzi zion errua eta frogak aurkakoa adierazi ostean ere, postura horri eutsi zion, hedabideetan gezur hura zabalduz. Hiru egun beranduago, Espainiako hauteskunde orokorrak ospatzen ziren eta PP alderditik aurkeztzen den Mariano Rajoy hautagaiak ere bolo-bolo zabaldu zuen atentatuaren egiletza ETarena zela.

Plano politikoaz ari naizela, ezin aipatu gabe utzi 2002ko ekainean 27an Espainiako Alderdien legea onartu zela, zeinetan zehazten zen alderdi guztiek konstituzioa eta demokrazia onartu behar zutela eta hori betetzen ez zutenak legez kanpo geratzen zirela. Lege hori aplikatzearen ondorioz, 2003an legez kanpo geratu ziren hainbat alderdi politiko eta talde: Euskal Herritarrok hautes elkarteak, Batasuna (nahiz eta Ipar Euskal Herrian jarraitu) eta Herri Batasuna (HB) alderdi ezkertiar eta abertzalea, besteak beste. 1997an Baltasar Garzón epailearen aginduz jada kartzela zigorra ezarri zieten 23 burukideri ETArekin elkarlanean aritzea egotzita, nahiz eta 1999an Espainiako Konstituzio Auzitegiak baliogabetu egin zuen Auzitegi Gorenaren epaia eta aske utzi zituen. Esan bezala, ezker abertzalearekin lotutako hainbat talde legez kanpo utzi zituzten talde terroristak zirelakoan eta kide ugari kartzelatu zuten.

---

<sup>37</sup> Interesgarria da 2021ean Josu Martinezek eta Samara Veltek zuzendutako *Paperezko hegoak* dokumentala (<https://www.eitb.eus/eu/nahieran/dokumentalak/paperezko-hegoak/paperezko-hegoak/osoak/7425/187666/>). [Azken kontsulta: 2023/10/20].

Gatazkaren bilakaerarekin amaitzen joateko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi hainbat elkarrizketa eta akordio saiakera egon zirela ETA eta beste agente batzuren artean, lehenengoak ekintza armatua utz zezan, adibidez 2006an espainiar gobernuak ETArekin Suitzako Geneva hirian egindako elkarrizketak, aurretik Jesús Egiguren (Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSE-EE) alderdiko burua) eta Arnaldo Otegi (ezker abertzaleko burua) arteko elkarrizketetatik abiatuta. Egiguren bera 2005an bildu zen Genevan ETArekin, bake prozesuaren bide-orria adosteko (Romero, 2013). Hainbat elkarrizketa nazioarteko eragileen laguntzarekin burutu ziren; Genevakoak adibidez, Suitzako Henri Dunant Elkarrizketa Humanitariorako Zentroarekin. Brian Currin abokatu (besteak beste, Ipar Irlandako eta Hego Afrikako bake prozesuetan bitartekari lanak egin zituen) eta Jonathan Powell (Erresuma Batuko Lehen Ministro Tony Blairren kabineteko buru ohia, Ipar Irlandarekin bitartekari lana egin zuena) ere elkarrizketa horietan ibili ziren. 2010eko martxoan, Frantzia, etakide eta gendarme batzuen ustekabeko liskar baten ondorioz, ETAk Jean-Serge Nérin brigadierra hil zuen. Huraxe izan zen ETAREN azkeneko biktima mortala. Urte horretan bertan talde armatuak iragarri zuen jarduera armatu guztiak bertan behera utzi zituela eta 2011ko irailaren 28an Nazioarteko Egiatzatze Batzordea (NEB) aurkeztu zuten, ETAREN indarkeriaren behin betiko amaiera egiaztzeko eratutako komisioa. Murrak xehetasun handiz ematen du batzordeko kideen berri (2014: 249).

2011ko urriaren 17an, Gatazkaren Konponbidea Sustatzeko Nazioarteko Konferentzia ospatu zen Donostian, Aieteko jauregian (horregatik deitu izan zaio biltzarrari Aieteko Konferentzia). Euskal Herriko politikariez gain, nazioarteko politikariak bildu zituen konferentziak, tartean 6 lider politiko internazional (*Aieteko Seiak* deitu izan direnak): Kofi Annan (Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi ohia eta Bakearen Nobel Sariduna), Gerry Adams (orduan Sinn Féineko lehendakaria zena), Gro Harlem Brundtland (Norvegiako Lehen Ministro ohia, orduan Munduko Osasun Erakundeko zuzendari nagusia zena), Pierre Joxe (Frantziako Defentsako eta Barne Arazoetako Ministro ohia), Jonathan Powell (lehen esan bezala, Erresuma Batuko Lehen Ministro Tony Blairren kabineteko buru ohia) eta Bertie Ahern (Irlandako Lehen Ministro ohia). ETARI jarduera armatua uzteko eskatzeaz gain, Espainiako eta Frantziako Gobernuak elkarrizketarako deia egin zitzaion. Aieteko Adierazpena ezinbesteko pausua izan zen bakearen aldeko jardunean aurrera egiteko. Konferentzia ospatu eta egun gutxira, 2011ko urriaren 20an, ETAK jardun armatua betiko uzten zuela berretsi zuen. Luze joko luke ordura arteko negoziaketa eta elkarrizketetan, baita ondorengoetan ere, hala ETAK nola gobernuak edo bestelako agenteek egin zituzten eskariak

azaltzeak (Bildu alderdi politikoaren legeztatzealegeztatzea, gaixorik zeuden presoan afera eta bestelako transferentzia batzuk). Dena den, horien gaineko informazio zehatzagoa aurki daiteke Muruaren (2014) doktore-tesian, ikertzaileak ETA sortu zenetik hainbat erakunderekin izandako elkarrizketa eta negoziaketak azaltzen baititu.

ETAk jardun armatua uzten zuela iragarri eta gutxira, Espainiako Hauteskunde Orokorrak ospatu ziren 2011ko azaroaren 20an, 2004tik gobernuan zegoen Jose Luis Rodríguez Zapateroren eskariz zegokien data baino 4 hilabete lehenago. PPK gehiengo osoa lortu zuen. Ezker abertzaleak ordezkariak izan zuen hauteskunde horietan, Amaiur koalizioan bilduta. 2011ko Hego Euskal Herriko Udala eta Foru Hauteskundeetan, Bildu koalizioak hautagaitza aurkeztu ahal izan zuen eta 2012ko urriko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako ordea, koalizioa EH Bildu (Euskal Herria Bildu) deiturarekin aurkeztu zen, baita 2015eko Espainiako Hauteskunde Orokorretan ere (EH Bildu koalizio barruan sartu zen Amaiur).

2014. urtetik aurrera, ETAREN armagabetzea gradualki eta atzerriko agenteen laguntzarekin antolatu zen, hau da, Nazioarteko Egiatutze Batzordearen laguntzarekin. Esnaolaren (2017) lanak zehaztasunez ematen du ETAREN armagabetze zibilaren berri eta irakurleak liburu horretara jo dezake informazio xeheagoa nahiko balu. Prozesua laburbilduz, azpimarratzekoa da 2017ko apirilaren 8an, armagabetzea burutu zela Baionan, ekitaldi batez lagunduta. Gizarte zibila testigu zela (*Bakegileak* edo *Bakearen Artisauak* deitu direnak, Ipar Euskal Herriko 172 behatzaile orotara), Polizia Frantsesak ETAREN zulo edo armategien kokalekuen berri jaso zuen. 2018ko maiatzaren 4an berriz, ETAREN disoluzioa eszenifikatzeko ekitaldia egin zen Kanbon, nazioarteko politikarien presentziarekin. Han izan ziren Brian Currin, Gerry Adams eta Jonathan Powell, besteak beste. Era berean, 2018ko maiatzaren 3an ETAK euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez idatzitako gutuna (taldeak sinatutako azken agiria) Genevako Henri Dunant zentrori bidali ostean, zentroak berak baieztatu zuen ETA erakundearen desagertzea.

Ez da erraza euskal gatazkak eragindako kalteak neurtzea. Zaila da hildako kopuru zehatza ematea eta horien hiltzaileak izendatzea, eta are zailagoa da tortura edo bestelako indarkeria jasan zutenen zenbaketa egitea. Jende ugari pasa zen espetxetik eta familia ugariak sufritu zuten senide edo lagun baten galera. Beste asko mehatxupean bizi izan ziren, beldurra gainetik kendu ezinka. Biolentzia zuzena pairatu ez arren, gizarte osoak nozitu zituen gatazka armatuaren ondorioak. Hori horrela, jarraian ematen diren datuek hurbilpen bat

egiteko balio dute soilik. ETAk hildako kopuruari dagokionez, aipatu behar da batzuetan hari egotzi zaizkiola beste talde armatu batzuek eragindako hilketak, adibidez, Komando Autonomo Antikapitalistek (KAA) eragindakoak. Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2016ko urrian aurkeztutako txostenaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2016), 1960tik 2013ra bitartean ETAk (ETA(pm), ETA(m), ETA VII, ETA VIII), Komando Autonomo Antikapitalistak (KAA), Askapenerako Iberiar Direktorio Iraultzaileak (DRIL), Iparretarrak (IK), Iraultzak eta beste talde batzek 837 hildako eta 2.500 zauritu inguru eragin zituen burututako 2.000tik gorako atentatuetan eta 1.500-2.000 bitartean kokatzen da bizkartzainak izan zituzten herritarren kopurua. Estatu Espainiarreko Segurtasun Indarrek, arestian aipatutako tartean, 94 hildako eragin zituzten, horietako 30 manifestazio eta mobilizazioetan. 746 zauritu eragin zituzten, horietako 641 manifestazioetan larriki zauritutakoak. 5.500 tortura salaketa publiko egin zirela aipatzen da, aitortuz ez dagoela datu nahikorik zifra zehatzagoa emateko. Eskuin muturreko talde parapolizialek berriz, 73 pertsona hil zituzten, horietako 2 emakume bortxatu egin zituzten aurretik. Zauritutakoen kopurua 426ra igotzen da eta horietako 13 emakumek jasan zituzten bortxaketak.

Azkenik, atal honi amaiera emateko, aurreratu nahi dut hemen bildu ditudan gertaerek bere isla izan dutela literatur lanetan, eta corpusaren azterketak erakutsiko duen moduan, euskarazko HGLk ez dio garai konplexu eta gogor hori errepresentatzeari ihes egin.

#### 4. MEMORIA HISTORIKOA ESKOLAN LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

Gerrara ohitu zintezke  
Baina gerra egon badago  
(Hertzainak, 1991).

Ezer baino lehen, aipatu nahiko nuke Gerra Zibilaren lanketa helburu duten hainbat proiektu eta unitate didaktiko aurki daitezkeela sarean, modu librean eta doan erabili daitezkeenak, horietako batzuk hezkuntza erakundeek babestu edo onetsitakoak. Horren adibide da *Oroimenaren Harra* izeneko egitasmoa, zeinak memoria historikoa (berezi 1936ko gerra eta Francoren diktadura) haur eta gazteekin lantzeko sortu diren era askotako materialak (unitate didaktikoak, webguneak, testuen lanketarako baliabideak, liburu zerrendak eta abar) webgune bakarrean biltzea eta edonorentzat eskuragarri jartzea helburu duen<sup>38</sup>. Gasteizko Koldo Mitxelena institutuan du abiapuntu egitasmo honek, nahiz eta beste eragile batzuek sortutako materiala ere biltzen duen, eta gehienbat DBH eta batxilergoko ikasleekin lantzeko baliabideak daude eskura. Egitasmoa publikoki aurkeztu zuten eta sekulako harrera izan zuen, bai hedabideetan bai irakaskuntzan. Era berean, aipatzekoa da Nafarroako Memoriaren Institutuak eta Nafarroako Gobernuak onetsitako *Amonarenean Kea* unitate didaktiko eredugarria, tesiko corpusean sartu dudana *Amonarenean kea* obran oinarritzen dena eta Lehen Hezkuntzara bideratuta dagoena. Material hori azpimarragarria iruditzen zait memoria historikoaren gaia (nagusiki Gerra Zibila) etapa horretako ikasleekin lantzeko dagoen material apurretakoa delako, literatur lan batetik abiatzen delako eta curriculumari erreparatzen diolako. Ez hori bakarrik, ariketen sekuentzia bat aurkeztetik harago doa materiala, gaitasunak, helburuak, kompetentziak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa (besteak beste) zehaztasunez azaltzen direlako<sup>39</sup>.

Dimentsio zabalagoa duen arren, ezin aipatu gabe utzi *Memoria duten eskolak* hezkuntza proiektu transbertsala, Nafarroako Gobernuaren baitan dagoen Memoriaren Nafarroako Institutuak garatutakoa eta batez ere errepresio frankistaren inguruan ardaztutakoa. LHko, DBHko, batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleei zuzendutako jarduera hezigarriak, unitate didaktikoak, belaunaldiarteko elkarguneak, hitzaldiak, bideoak zein bestelako jarduerak sortu dituzte, baita irakasleentzako formakuntza

---

<sup>38</sup> Oroimenaren Harra webgunea: <https://oroimenarenharra.koldomitxelena.net/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>39</sup> Unitate didaktikoa euskaraz eta gaztelaniaz aurki daiteke esteka honetan: <https://memoriahistorica.educacion.navarra.es/eu/blog/2021/11/16/amonarenean-kea-u-d/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].



saioak ere<sup>40</sup>. Ildo berean, Memoriaren Nafarroako Institutuak *Memoria duten eskolen sarea* sortu zuen, ikastetxeek etapa ezberdinetan sor ditzaketen proiektu propioak bildu eta elkarbanatzea helburu duena, eta etengabe ari da sare hori hedatzen eta sendotzen (egun Espainiar Estatuko hainbat hezkuntza erakunde batu dira ekimenera). Memoriaren Nafarroako Institutuak bultzatuta ere, arestian aipatu dudana proiektuaren osagarri den *Bakea eta Bizikidetzaren lantzen duten Eskolak* programa sortu zuen, zeinaren helburua den Nafarroako ikastetxeei bake eta bizikidetzaren balioekin eta giza eskubideekin lotutako hainbat jardueraren eskaintzea (LHTik gorako ikasleekin egiten dute lan). Aniztasuna, arrazakeria edo xenofobia bezalako gaiak lantzen dituzte, baina baita memoria historikoarekin lotutakoak ere. Horri lotuta, *Eskutik. De la mano* izeneko programa abiarazi zuen 2018-2019 ikasturtean. Hezkuntza formaleko ikastetxeetan (DBHko 4. mailatik gorako ikasleekin) bere testigantza emateko prest zegoen biktimen talde bat hautatu zuten eta ikasleek biktimengana egindako hurbilpena elkartasunetik, enpatiatik, errespetutik eta etiketik egitea ahalbidetu zuten<sup>41</sup>. Proiektu esanguratsua iruditzen zait, baina ezin aipatu gabe utzi ETAk sortutako kaltearen biktimen testigantzetan soilik ardaztutakoa dela.

EAEra jauzi eginda, ezinbestean aipatu behar da Eusko Jaurlaritzak 2018an sortutako *Herenegun!* hezkuntza programa, jada aurreko atal batean (3.1.) aipatu dudana. Samara Velte ikertzaileak dioen moduan, Hego Euskal Herriko ikastetxeetako testuliburu gehienetan, material teorikoaren eduki garrantzitsuenak 1978. urtera arteko epea hartzen du aintzat (Frankismo osteko Trantsizioa), baina ondorengo hamarkadetako garai armatuak, ordea, apenas hartzen du lekurik. Ondorioz, ikasle gehienek ez dute euskal gatazkaren gaineko informaziorik izaten (2019: 42-43). Testuinguru horretan eman zen argitara *Herenegun!* programa didaktikoa, zeinak 1960 eta 2018 bitarteko Euskal Herriko historia gatazkatsua DBHko 4. mailan eta batxilergoan lantzea helburu duen. Asmo hori duen aurreneko saiakeretako bat da, baina programaren aurkezpenetik bertatik polemika handia sortu zuen eta hainbat alderdi politikoren kritikak jaso zituen. Prozesu parte-hartzaile baten bidez, Eusko Jaurlaritzak biktimen elkarte eta talde politiko ezberdinen proposamenak bildu zituen eta aldaketa nabarmenak egin zizkion. 2021-2022 ikasturtean 8 gunetan jarri zen martxan (994

---

<sup>40</sup> Web-orri honetan sartuz eskura daiteke egitasmoari buruzko informazio zabalagoa <https://pazyconvivencia.navarra.es/eu/web/paz-y-convivencia/memoria-duten-eskolak>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>41</sup> Hona hemen programaren azalpena eta esperientzia pilotuaren gaineko informazioa biltzen duen txostena: <https://pazyconvivencia.navarra.es/eu/programa-de-victimas-educadoras>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

ikaslerekin) eta 2022-2023 ikasturtean, berriz, 15 gunetan (1.460 ikaslerekin). Dena den, gaur gaurkoz ez du “esperientzia pilotu” fasea gainditu<sup>42</sup>.

Arestian deskribatutako *Herenegun!* programaren aurretik bestelako egitasmo batzuk ere jarri zituen martxan Eusko Jaurlaritzak, adibidez, 2013an *Adi-adian* proiektua (biktima hezitzaileen programa) aurkeztu zuen, zeina GALen zein ETaren biktimen testigantzetan ardaztuta zegoen. 2014an EAEko eskoletan jarri zen martxan eta hasiera batean DBHko 4. mailako ikasleekin erabiltzeko pentsatua zegoen arren, ikasle nagusiagoek ere erabili zuten. Urte batzuk beranduago, Eusko Jaurlaritzak (Gogora Institutuak) *Memoriaren plaza* izeneko egitasmoa aurkeztu zuen, hezkuntza formalera mugatzen ez dena baina eskoletan erabiltzeko materiala ere barne hartzen duena. Herritarren testigantzak jaso ostean, herriz herri ibili zen lekukotza horiek biltzen zituen *plaza* edo erakusketa hori. Herritarren testigantzak aipatu ditudala, bide batez aipatu nahiko nuke *Ahotsak.eus* egitasmoaren parte den “Gerrako ahotsak” material sorta, Gerra Zibileko eta Frankismo garaiko testigantzak biltzen dituen bilduma<sup>43</sup>.

Ipar Euskal Herrian ez dut euskal gatazka lantzeko programa edo unitate didaktikorik aurkitu eta gaur gaurkoz ez dago instituzio edo erakunderen baten babesa duen programarik. MHLI ikertaldeko kide gisa parte hartu dudana proiektuetan eta Euskal Herri osoko hezkuntza-eragileekin izandako hartu-emanen (FFI2017-84342-P proiektuaren baitan antolatutako *Memoria eta gatazka euskarazko hezkuntzan: literatura eta beste arteak (baliabide)* workshop sorta eta izen bereko ikastaroa<sup>44</sup>) ikusi dudanagatik, hainbat arlotan diharduten eragileek aldarrikatu dute funtsezkoa dela unibertsitatean gai honen inguruan lanean ari diren irakasleen artean eta ikastetxeetan dabilzanen artean elkarlana egitea, unibertsitatean egiten diren teorizazioak ikasgeletara eraman ahal izateko. Ikusi dudanez, oso garrantzitsua da diziplina anitzeko ikerketa taldeetan batera lan egitea, proposamen didaktiko onak (kalitatezko proiektuak) sortzeko. Orain arte egindako proposamen gehienak DBHko

---

<sup>42</sup> Gomendagarria iruditzen zait Velteren (2019) artikulua, zeinak *Herenegun!* material didaktikoak Johan Glatungen baketze inklusiboaren printzipioak betetzen dituen aztertzen duen. Ikertzaileak ondorioztatzen du hezkuntza programa horrek bake negatibo baten ideia elikatzen duela, besteak beste, gatazkaren barruan eraikitako eskema polarizatuei eusten dielako, bakea alde baten interesen arabera soilik eraikitzen delako, garaile bakarreko ikuspegia elikatzen duelako, biktimen hierarkizazio bat antzematen delako eta ez duelako narratiba-aniztasunerako tokirik uzten. Horren aurrean, gatazkaren esperientzia ez hain polarizatuak ikusarazten dituzten material didaktikoak sortzea proposatzen du.

<sup>43</sup> Materialera sarbidea ematen duen esteka: <https://gerra.ahotsak.eus/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>44</sup> Helbide honetan ikus daiteke MHLIko kideekin batera workshopean parte hartu zuten adituen zerrenda: <https://mhli.net/5200/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20]. Hemen, berriz, izen bereko ikastaroko hizlariak eta programa zehatza eskura daiteke: <https://www.uik.eus/en/activity/memoria-gatazka-euskarazko-hezkuntzan-literatura-beste-arteak-baliabide>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

etapatik gorako ikasleentzat sortu dira eta ezer gutxi egin da LHko ikasleekin lantzeko. Horrez gain, proposamen gehienak arlo jakin batera bideratu dira (euskara eta historia ikasgaira) eta Gerra Zibilaren zein Frankismoaren lanketa izan dute helburu. Beraz, esan daiteke ez dagoela euskal gatazka lantzeko ia proposamenik, eta hutsunea benetan nabarmena da LHko etapari dagokionez (gauza bertsua ikusi dut hainbat argitaletxetako LHko eta DBHko testuliburuak aztertu ditudanean). Azkenik, diziplinartekotasunaren beharra ikusi dut, alegia, jakintzagai edo diziplina anitzen uztarketatik egindako proposamenen beharra antzeman dut. Literaturak ekarpen eztaba daezina egin diezaioke memoria historikoaren lanketari (2.4. atalean literaturaren funtzioez hitz egin dudanean azaldutako arrazoiengatik), baina historiatic, geografatic, musikatic, antzerkitic, arte plastikoetic zein bestelako arteetic egindako hurbilpenak biziki aberastuko luke dena delako esperientzia didaktikoa.

Arestian aipatutako behar horietatik abiatuta, partaide naizen MHLI ikertaldeko Hezkuntza Azpitaldeak, “Memoriaren Artea eta Artearen Memoria hezkuntzan” proiektuaren baitan, Gerra Zibila eta euskal gatazka lantzeko unitate didaktiko bana diseinatu du eta Erein argitaletxeak emango du argitara 2024ko udazkenean<sup>45</sup>. LHra bideratutako proposamenak dira, euskarazko hezkuntza eskaintzen duten lurralde eta zentro guztietarako baliagarria dena. Diziplinarteko unitate didaktiko horien helburu nagusia da hainbat arte adierazpenen bidez gatazken ertz eta dimentsio ezberdinak ulertzea eta sentitzea; eta horrekin batera, arteen botere eraldatzaileaz baliatzea enpatia historikoa lantzeko. Horretarako, euskal HGLko liburu baten irakurketa oinarri hartu eta irakurketan zehar etenak eginez, hainbat jarduera interartistiko proposatzen dira.

---

<sup>45</sup> Hauek dira argitaratze bidean dauden bi proposamen didaktikoen erreferentziak (zeinetan koordinatzaile gisa eta egile gisa hartu dudanez hurrenez hurren):

1) Arroita, I. eta Urzelai, A. (Koord.) (prentsan). *Artearen memoria. Gatazken lanketarako proposamen didaktikoa*. (+10). Erein. ISBN 978-84-9109-926-0.

2) Elizalde, A. eta Villagran, A. (Koord.) (prentsan). *Artearen memoria. Gatazken lanketarako proposamen didaktikoa*. (+8). Erein. ISBN 978-84-9109-925-3.

## 5. MARKO TEORIKO METODOLOGIKOA

HGL hainbat jakintza alorren topagunean kokatuta dago, eta beraz, Cerverak (1991), Sorianok (1995: 214) eta Colomerrek (1998) aldarrikatzen duten moduan, diziplinarteko metodo batek soilik hel diezaioke haren azterketari. Minguezek (2015: 111) dioen moduan, gaur egun, eklektikotasun metodologikoa da nagusi literatur ikasketetan. Zaila da literatur testura ikuspuntu bakar batetik hurbiltzen diren iruzkin edo azterketa kritikoak aurkitzea. Hunttek (1995: 148) eklektikotasun hori aipatzen du HGL kritikaren indargunetzat: “I have suggested that one of the great strengths of children’s literature criticism is that it is necessarily eclectic, and, by being so, often finds itself on the leading edge of critical developments”. Lluhek ere (2003: 11) bide bertsutik jotzen du, honakoa aldarrikatzen baitu: “Un método ecléctico que permita analizar la literatura infantil y juvenil desde los mismos métodos aplicados a otras literaturas, pero sin olvidar las particularidades de la literatura infantil”.

HGLren berezitasunetako bat ilustrazioak testu idatziari ematen dion osotasuna da, baina nire ustez, alderdi hori hankamotz geratu ohi da zenbaitetan. Irudiaren azterketari dagokionez, honakoa da Etxanizek (2002) dioena: “Testuaren eta irudiaren kritika behar dugu; are gehiago haur txikientzako liburuetan, hauetan irudiaren lengoaiak sarritan testuarenak baino gehiago komunikatzen baitu”. Nire ustez, testuaren eta irudiaren uztarketaz hitz egin baino, zuzenagoa da multimedialitateaz hitz egitea, hau da, nire corpuseko HGL obrak aztertzean, obra ukitzen duen testuinguru multimedialari erreparatu behar zaiola defendatzen dut. Arestian egindako baieztapenei jarraikiz, nire azterlanean historiak, filologiak, (literaturaren) soziologiak, literaturaren didaktikak, pedagogiak, psikologiak eta bestelako sistemek egindako ekarpenak baliatuko ditut, metodoen heterogeneotasun horrek hainbat alderdi xeheki aztertzeko parada emango duelakoan. Dena den, hurbilpen plural hori ezin da sistematikotasunaren kalterako izan eta beraz, metodologia koherente, zehatz eta kuantifikagarri bat sortzeko, eskema bera baliatuko dut corpuseko liburu guztiekin (ikus txantiloia II. eranskinean). Gainera, aitortu behar dut hainbat jakintza arlotatik edan arren, bereziki jarraian azalduko ditudan hiru ikerlerro nagusitak izan direla tesi lan hau elikatu dutenak: Memoria Ikasketak, Genero Ikasketak eta Narratologia.

## 5.1. Memoria Ikasketak

Denok ez dugu berdin  
kontatzen historia  
zaila da ulertzea  
bestearen egia  
(Ken Zazpi, 2005).

Ikerketa hau Memoria Ikasketatik bideratu dut eta eremu horretan erabiltzen diren kontzeptu eta tresna metodologiko ohikoenak erabili ditudanez, egoki deritzot horiek azaltzeari. Tesi honen hasieran aurreratu dudan moduan, oro har euskal literaturan 1990eko hamarkadatik aurrera ekin zaio memoria historikoaren berreskurapenari (80ko hamarkadan emandako memoriaren eztagarriaren ondorioz) eta harrez geroztik argitara eman diren ikerlan kritikoek izugarri aberastu dituzte Euskal Ikasketak. Azken hamarkadetan etengabeak izan dira Memoria Ikasketatik egin diren azterlanak, tesiko aurrekarietan aipatutakoak adibidez; baina baita Arroitzaren (2015) eta Serranoren (2019) tesi lanak edo Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikertaldeak berak aurrera daramatzan proiektu eta ikerketa sorta ere. Horietatik abiatuta, eta mundu mailako oinarrizko beste hainbat azterlan kontuan hartuta, tesia honetan baliatuko ditudan kontzeptuak azalduko ditut jarraian.

Tesia honetan ez dut historiaren eta memoriaren arteko desberdintasunetan sartzeko beharrik ikusten, ez eta horren inguruan sortu diren eztabaidetan sartzeko ere. Hirschen (2012: 33) esanak neure egiten ditut eta onartzen dut memoriak iraganarekiko lotura afektiboa adierazten duela; konexio bizi bat sortzen du eta testigantzak, argazkigintzak edo literaturak egiten du horren bitartekaritza lana. Orokortuz, esan daiteke historiak unibertsaltasuna eta egiazkotasuna bilatzen duela eta ez dela memoria bezain zaugarria aldaketarekiko. Dena den, ezin ukatu historiak eta memoriak elkar elikatzen dutela. Goiko lerroetan aipatutakoa argi utzita, lehenik eta behin, Marianne Hirsch-ek (1997, 2008) definitutako *postmemoria* kontzeptua argitu behar da, alegia, gertaera traumatikoen lekuko zuzenak izan ez ziren belaunaldietan bizirik dirauen memoriak. Honela definitu zuen Hirschek (1997: 22):

Postmemory is distinguished from memory by generational distance and from history by deep personal connection [...]. Postmemory characterizes the experience of those who grow up dominated by narratives that preceded their birth, whose own belated stories are evacuated by the stories of the previous generation shaped by traumatic events that can be neither understood nor recreated.

HGL izanik nire ikergai nagusia, ezin ahaztu tesiko corpusaren hartzaileak ez dituela zuzenean bizi liburuetan mintzagai hartzen diren gerra eta gatazkak, baina zuzenean ez bizitze hori ez da eragozpen oroitzapen horiek barneratu eta sentitzeko. Hirschek Holokaustoarekin lotutako fenomeno bat azaltzeko sortu zuen kontzeptua, alegia, biktimen seme-alabek liburuetan txertatutako Holokaustoko traumari erreferentzia egiteko. Gaur egun ordea, bestelako gertaera traumatikoen jaraunspena azaltzeko balio du terminoak, adibidez, Gerra Zibileko biktimen ondorengoek zeharka jasotako (post)memoriaz hitz egiteko. Hori horrela, euskal literatur esparruan Serranok (2019) egiten duen moduan, *memoria* baliatuko dut zuzenean bizitako esperientzien oroitzapenez berba egiteko eta *postmemoria* berriz, dena delako esperientzia (traumatikoa) zuzenean bizi ez duten belaunaldien memoria izendatzeko. Ikertzaile batzuek (Sarlo, 2005; Van Alphen, 2006; Ulanowicz, 2018) postmemoria kontzeptuaren erabilgarritasuna eztabaidan jarri dute eta beste zenbaitek bestelako izendapen batzuk eman dizkiote, arras zabaldua dagoen *prosthetic memory* edo *memoria protesikoa* (Landsberg, 2004) adibidez. Landsbergen ustez, behin publikoa esperimentatu gabeko iraganeko gertaerak errepresentatzen dituzten artefaktuekin aktiboki lotzen denean, haren erreperitorio mnemonikoan txertatzen ditu, gorputz organiko batek gorputz-adar artifizialak eransten dituen modu berean. Zentzu horrekin ematen die memoria horiei protesiko izendapena, hasieratik geure ez izan arren, propio egiten ditugulako. “Prosthetic memories thus become part of one's personal archive of experience, informing one's subjectivity as well as one's relationship to the present and future tenses” (Landsberg, 2004: 26).

Mintzagai dudan memoria horren transmisioan familia filiazio bat egon bada, (adibidez, guraso batek seme-alabei egindakoa) *memoria filiatiboaz* hitz egingo dut, Hirschek *postmemoria familiarra* deitzen zuena, familia-esparruan bertikalki pasatzen dena. Tesiko corpusaren ezaugarriengatik, lehenengo belaunaldia (biktimena) eta bigarren belaunaldia (biktimen ondorengoak) bereiziko ditut soilik, eta ez dut hirugarren belaunaldia bezalako terminoak erabiliko (adibidez, biktimen bilobei erreferentzia egiteko). Belaunaldien zehazte xehe hori nahasgarria izateaz gainera, ikerlan honetan ez dut beharrezkoa ikusten eta ez dauka ondoriorik corpusaren analisisian. Tesi lan honetan *bigarren belaunaldia* terminoaz egiten dudan erabilera bat dator, besteak beste, Anastasia Ulanowicz HGLko ikertzaileak bere liburuan (2018: 5) egiten duen erabilerarekin, honakoa azaltzen baitu:

I use the term “second-generation” figuratively rather than literally in order to signal a recent expression of memory—a production or “generation of memory—that exists in a contingent, “second” relationship to earlier articulations of the past.<sup>46</sup>

Eta gaineratzen du:

The term “second-generation memory” implies a later or “secondary” production— a re-creation of a previously articulated and collectively shared memory. In other words, the term second generation memory does not merely apply in a literal sense to the memory experienced by a particular demographic—specifically, the immediate progeny of survivors—but also to the processes of memory that operate in response to a recollected event. For this reason, even the vicarious memories posited by grandchildren of survivors or those memories posited by individuals with no immediate, biological connection to survivors might be considered “second-generation” in that they offer a contingent, supplementary, or in effect “secondary” interpretation or reformulation of previously articulated memories. Children’s literature is especially well suited to the representation of such memory, because—like second-generation memory itself—it depends upon the reiteration and reinterpretation of previously articulated memories with respect to a new generation of readers (*ibidem*, 11).

Memoria filiatiboaz hitz egin dut gorago, baina aurreko aipuan lotura biologikorik gabeko memorien transmisioa aipatu dut. Esan dezadan, memoria filiatiboaren ifrentzuan, nolabait esateko, *memoria afiliatiboa* legokeela (*postmemoria afiliatiboa*, Hirschen terminoa baliatu nahi bada).

Affiliative post-memory would thus be the result of contemporaneity and generational connection with the literal second generation combined with structures of mediation that would be broadly appropriable, available, and indeed, compelling enough to encompass a larger collective in an organic web of transmission (Hirsch, 2008: 115).

Sebastian Faberrek (2014) Hirschen kontzeptua espainiar testuingurura egokitu zuen (Gerra Zibileko eta Frankismoko memoria azaltzeko) eta Serranok (2019) berriz, euskal testuinguruaren berezitasuna ulertzeko xehetasunak gehitzen dizkie Hirsch eta Faberren azalpenei. Esanak esan, memoria afiliatiboaz hitz egingo dut delako gertakaria ez duenean familiako kide batek bizi izan, baina horrekin bat egiten duenean memoria hori jasotzen duen norbanakoak. Azken horren adibide litzateke euskal gatazkari buruz hedabideek transmititutakoa. Ezingo nuke aurrera egin Pierre Nora historialariak definitutako *memoria*

---

<sup>46</sup> Esan bezala, Ulanowiczek (2018) trabak ikusten dizkio Hirschen *postmemoria* terminoari, *post-* aurrizkiari zehazki. Horregatik Hirschen kontzeptuan oinarrituta, *second-generation memory* hitza formulatzen du.

*gune* (“lieux de mémoire”) kontzeptua aipatu gabe. Berak zuzendutako *Les lieux de mémoire* liburu-bilduman garatu zuen kontzeptua, 3 tomotan banatuta: *La République* (1984), *La Nation* (1986), eta *Les France* (1992). Bertan frantziarren memoria nazionala irudikatzen duten leku eta objektuen inbetario bat osatu zuen. Euskal tradizioan hainbat modutan itzuli da Noraren termino ezaguna, baina batez ere *memoria leku/gune* eta *oroimen leku/gune* aldaerak erabili dira. Serranok (2019) bere tesian *gomuta-leku* gisa itzultzen du, eta horrela izendatzeko zergatiak ongi arrazoitzen dituen arren, nire ikerketan *memoria gune* edo *memoria leku* hobetsi ditut, euskal literatur ikasketetan eta esparru akademikoan duten tradizioagatik. Nora berak (1996: XVII) horrela definitu zuen kontzeptua:

If the expression *lieu de mémoire* must have an official definition, it should be this: a *lieu de mémoire* is any significant entity, whether material or nonmaterial in nature, which by dint of human will or the work of time has become a symbolic element of the memorial heritage of any community.

Definizio horri jarraikiz, memoria kristalizatu eta gordetzen duten elementuak dira memoria guneak. Leku fisikoak izan daitezke, edo objektu material eta ukigarriak, baina baita abstraktuak ere: Monumentuak, museoak, artxiboak, jaialdiak/jai egunak, abestiak, pertsonak eta horiekin lotutako objektuak... horiek eta gehiago izan daitezke memoria gune, eta esanai handia eskain dezakete zeinu kopuru minimoa erabiliz. Historiaren eta memoriaren interakziotik sortzen dira eta zerbaitetaz oroitzea dute helburu; iragana oroitarazten dute. “Without an intent to remember, *lieux de mémoire* would be *lieux d'histoire*”, dio Norak (1996: 15). Ezin aipatu gabe utzi memoria gune horiek dinamikoak direlako irauten dutela. Aldakorrek dira denborarekin: esanhai zaharrak berpiztu eta berriak sortzeko gaitasuna dute. Gizatalde batek garrantzia ematen dietelako, gero eta urrunago dagoen iragan bat gogoratzeko nahita egindako ahaleginaren emaitza dira memoria guneak. Paradoxikoki, ahanzturatik sortzen dira, hau da, eguneroko bizitzan kontuan hartzen ez direlako sortzen dira eta gizarteak iragan horri arreta ekainiko diola segurtatzen dute. “We speak so much of memory because there is so little of it left”, dio Norak (1989: 7); alegia, gutxi geratzen zaigulako hitz egiten dugu hainbeste memoriarekin. Jay Winterrek (2010) dioen moduan, memoria guneak historia bizia duten elementuak dira. Hasierako fase kreatiboa daukate eta oroitzapenezko ekitaldi jakin baterako eraikiak edo egokituak dira. Gero, instituzionalizazio garaian sartzen dira eta errutina baten barnean sartzen da memoria gune horien erabilera. Beren esanahia eta garrantzia belaunaldiz belaunaldi transmititzen da eta bigarren mailako memoria guneak bihurtzen dira ezinbestean, hau da, orainaldiko herritarrek aurrekoen memoriak oroitzen



dituzten leku edo elementuak dira. Memoria gune bihurtu diren egun seinatuak hartzen badira adibide, oroipen momentuak adierazten dituzten egutegiko marka horiek hamarkada luzez iraun dezakete, baina bapatean eten daitezke ere. Gehienetan, memoria guneen esanahia ohitura hori sortu zuen talde sozialen desagertzearekin batera galtzen da. Errefortzu publikoek oroitzapen errituala eta praktika bizirik mantentzen lagun dezakete eta oroitzapenezko lekuak eta praktikak berpiztu eta berreskuratu egin daitezke. Horrez gain, arestian aipatu dudan moduan, aldakorrak dira memoria guneak eta memoria gunea berdina izan arren, helburu baterako edo beste erabil daitezke. Bizirik mantentzen saiatu arren, gehienetan, haien bizi-zikloa betetzen dute, eta izaki bizidunekin bezala, halaber, desegin edo desagertzen dira. Desegite-prozesu natural horrek itxi egiten du oroimen guneen zirkulua eta haien inguruan gertatzen den oroipen publikoa. Bilakabide naturala dela esan liteke, izan ere, gizatalde batek haien bizitza iraganeko gertakari azpimarragarriekin lotzeko beharrik sortzen dira memoria guneak; eta beraz, premia hori desagertzean, galdu egiten da oroimen praktika soziala lotzen duen soka. Memoria kolektiboa desagertu egiten da orduan eta memoria guneak galdu edo paisaia desegiten dira.

Aurreko lerroan, *memoria kolektiboa* aipatu dut, funtsezko terminoa Memoria Ikasketetan. Maurice Halbwachs soziologoak (1925, 1950) bere bi lan aitzindarietan definitu bezala, memoria kolektiboa iragana eta oraina, eta norbanakoa eta taldea lotzen dituen sorkuntza soziala da. Komunitate edo herri baten memoria da eta taldearen esperientzia komuna biltzen du, orainaldian presente mantenduz eta birmoldatuz. Ezin aipatu gabe utzi Halbwachsentzat (1968) ez dagoela memoria indibidualik. Memoriaren marko sozialak aipatzen ditu frantziar soziologoak (1994) eta pentsamendu indibiduala, hau da, pertsona bakoitzaren oroimena, gizarte markoetan kokatuta dagoela argudiatzen du. Memoriaren marko sozialen laguntzari esker gogoratzen ditu gizabanakoak bere oroitzapenak. Horrek esan nahi du gizarteak eta testuinguru sozialak (markoak) norbanakoaren memoria hori baldintzatzen duela. Era berean, memoria mota honek identitate kulturalaren mantenua bermatzen du<sup>47</sup>. Bide batez, azpimarratzekoa da memoria kolektiboa gordetzen duten arrastoak direla arestian azaldutako memoria guneak, euskal kasuari aplikatuta Arroita (2015) frogatu bezala. Memoria Ikasketetan funtsezkoak dira Jan eta Aleida Assmann-ek proposatutako memoria mota desberdinak, dela *komunikatiboa*, dela *kulturala*.

---

<sup>47</sup> Interesgarria da Pennebaker, Paez eta Rimé-ren (1997) lana, literatur ikasketetan zentratu ez arren, gertakari sozialetan oinarritutako memoria kolektiboen sorkuntza, mantentzea eta eraldaketak aztertzen dituelako, hainbat ikuspegi psikologiko eta sozialetatik.

Assmannarrek memoria kolektiboaren barruan bi azpiklase bereizten dituzte: memoria komunikatiboa batetik, eta memoria kulturala bestetik.

The term “communicative memory” was introduced in order to delineate the difference between Halbwachs's concept of “collective memory” and our understanding of “cultural memory” [...] We preserve Halbwachs's distinction by breaking up his concept of collective memory into “communicative” and “cultural memory”, but we insist on including the cultural sphere, which he excluded, in the study of memory. We are, therefore, not arguing for replacing his idea of “collective memory” with “cultural memory”; rather, we distinguish between both forms as two different *modi memorandi*, ways of remembering (J. Assmann, 2010: 110).

Memoria komunikatiboa eguneroko komunikazioan oinarritzen da. “For us the concept of ‘communicative memory’ includes those varieties of collective memory that are based exclusively on everyday communications”, dio J. Assmannek (1995: 126). Eguneroko komunikazioa ez da espezializatua, ez da insituzionalizatua. Ez du inolako ikaskuntza, transmisio eta interpretazio erakunderen laguntzarik jasotzen; ez du adituen lanketarik jasaten eta ez dago ospakizun-egunekin lotuta. Ez dago inongo materializazio sinbolikok egonkortua, eta esan bezala, eguneroko elkarrekintzan eta harremanean sortzen da. Horregatik, denbora-tarte mugatua hartzen du, 80-100 urte, elkarri eragiten dioten hiruzpalau belaunaldik irauten duten denbora. Eguneroko elkarrekintzan komunikatzen den ezagutza hori hizkuntzaren eta kompetentzia sozialari esker erdiesten dute partaideek (J. Assmann, 2010). Gainera, memoria komunikatiboaren edukiak aldakorak dira eta ez diote oinarri edo euskarri finkorik ematen taldeari bere iraganarentzat (Arroita, 2015).

Memoria kulturala ordea, memoria kolektibo objektibatua da, hau da, instituzionalizatuagoa, finkatuagoa, egonkorragoa; testu, tradizio, erritu edota zeremoniei lotua. Transmittitu eta iraun dezan, ezagutza materializatu egiten da, testu, pintura, monumentu, irudi edo errituen bidez, besteak beste. Talde-identitatearen sorkuntzan eragiten du eta balio sistema bat sortzen du. Iragan mitikoari lotuta dago eta finkatuago daude edukien transmisioa eta interpretazioa. Denbora-tarte luzeagoa irauten du. Elite espezializatuak iraunarazi ohi du, memoria komunikatiboan ez bezala, azken horretan edonork transmititu baititzake oroitzapenak, espezializatorik gabe. J. Assmannek (2010) dioen moduan, memoria kulturalak beti izan ditu adituak, hala gizarte letratuetan nola ahozkotasan oinarritutakoetan: ikertzaileak, irakasleak, artistak, apaizak, xamanak edo bardoak, besteak beste. Elina Liikanen ikertzaileak (2015: 12) bere tesian azaltzen duen moduan, nahiz eta

Assmandarrek eta Astrid Erll-ek *memoria kulturala* terminoa baliatu, egile horiek ez dute berdin ulertzen. Assmandarrek *kultura* terminoa zentzu mugatuan baliatzen dute, “goi” kulturari edo kultura jasoari erreferentzia egiteko. Erlllek, berriz, zentzu antropologikoago batekin erabiltzen du, eguneroko bizitzako praktikak eta herri-kultura ere barne hartzen dituena. Assmandarrentzako, esan bezala, memoria kolektiboaren azpiklase bat da memoria kulturala; baina Erlllek berriz, sinonimo gisa baliatzen ditu. Harentzako (2011) memoria kulturalak testuinguru soziokulturaletan gertatzen den giza oroitze ekintza oro barne hartzen du. Erllentzat (2010: 2) hauxe da memoria kulturala: “The interplay of present and past in socio-cultural contexts”. Assmandarren zentzuan erabili edo Erllen adiera baliatu, ezin daiteke ukatu memoria kulturala taldearen behar eta interesen arabera moldatutako eraikuntza bat izateaz gain, aldakorra ere badela:

Our memory is highly selective [...]. On the level of cultural memory, there is a similar dynamic at work. The continuous process of forgetting is part of social normality. As in the head of the individual, also in the communication of society much must be continuously forgotten to make place for new information, new challenges, and new ideas to face the present and future (A. Assmann, 2010: 97).

Ikertzaileak (2010: 97-99), ahazteko modu *aktiboaren* eta *pasiboaren* arteko bereizketa egiten du eta bere azalpenak corpuseko liburuetan aurkituko duguna ulertzen laguntzen duenez, lerro hauetan horiez mintzatzea ezinbestekoa iruditzen zait. Lehenengoa, ekintza intenzionalekin lotua dago, adibidez, memoriaren eramale diren arrasto edo artefaktu kulturalak era kontzientean suntsitzen direnean. Ahanzte pasiboa ordea, nahitasunik gabeko ekintzekin lotzen da, besteak beste, galdu, ezkutatu, sakabanatu, arduragabekeria utzi, abandonatu edo zerbait atzean uzten denean. Era berean, ahanztearekin bezala, oroitze ekintzarekin ere aktibo eta pasiboaren arteko bereizketa egiten du. Memoria aktiboa gauzatzen duten instituzioek *iragana presente* gordetzen dute, *kanon* gisa eta memoria pasiboa burutzen duten instituzioek berriz, *iragana iragan* gisa mantentzen dute, *artxibo* gisa.

Aktiboki zirkulatzen duen memoriari dagokionez, memoria kultural aktiboaren parte izatera iritsi den orok hautapen prozesu zorrotza gainditu du eta horri esker lortzen dute zenbait artefaktuk toki iraunkor bat gizarte baten memoria kulturalaren lanketan. Prozesu horri kanonizazioa deitzen zaio eta *kanonizazio* adierak esan nahi du testu, pertsona, artefaktu edo monumentuei estatus berezia eman zaiela, gainerakoengandik bereiziz, esanahi zein balio handiagoa emanez. Hori horrela, kanoneko elementuek hiru ezaugarri betetzen dituzte:

hautaketa, balioa eta iraupena. Kanona ez da berriz eraikitzen belaunaldi bakoitzarekin; aitzitik, belaunaldi berriekin biziraun egiten du eta haiek dira garaiazen arabera berrinterpretatu behar dutenak. Memoria kultural aktiboak oinarriko hiru esparru ditu: Erljioa, artea eta historia. Artearekin lotuta, ezin uka dezakegu kanonean sartzen diren testu (klasiko)ak belaunaldiz belaunaldi irakatsi eta lantzen direla eta merkatuan eskuragarritasun egonkorra lortzen dutela. Horrez gain, bestelako arte adierazpenen bidez interpretatzen dira (antzerkian adibidez). Margolan, eskultura eta instalazio artistikoekin ere antzekoa gertatzen da, museoetan eta erakusketa ibiltarrietan aurkezten baitira. Historiari dagokionez, nazio-estatuak haien iraganari buruzko bertsio narratiboak sortzen dituzte eta historia nazionala historiako testuliburuaren bidez irakasten da. Baina horrez gain, historia nazionala eremu publikoan ere erakutsi edo adierazten da, monumentu eta oroitzapen-egunetan adibidez. Oroimen nazionalen parte hartzeak nazioaren historiaren funtsezko gertaerak ezagutzea, haren sinboloak besarkatzea eta haren jai-egunekin lotzea eskatzen du.

Memoria kultural pasiboa ordea, kanonaren eta ahazturaren artean kokatzen da, oroipenaren eta ahanzturaren mugen artean. Artxiboa da bere instituzio nagusia, hura baita etorkizunean orainaldiaz esan ahal izango denaren oinarria (orainaldia iragan bihurtu denean). Dena den, denborak berehala deseguneratzen ditu artxibo hauek eta behin desfasatuta, garrantzia eta funtzio politikoa galtzen dute. Guztiz desagertzen ez badira, artxibo historikoen multzoan sar daitezke. Iraganeko aztarna horiek ez dira zabor bihurtzen jendarteak interes edo balio historiko edo akademikoa ematen diolako. Artxibo historikoetan gordetzen dena kontserbatu eta katalogatu egiten da; erraz aurkitzeko aukera ematen duen antolaketa-egitura baten parte izatera pasatzen da. Hala ere, memoria kulturalaren dimentsio pasiboaren zati gisa, artxiboan gordetzen dena ezagutza inerte da, egoera latentean geratzen baita; hau da, biltegiatuta eta erabilgarri geratzen da, baina ez da interpretatzen. Horrek artxibozainaren eskumena gaindituko luke eta horregatik, ikertzaile akademikoaren, artistaren edo bestelakoen zeregina da artxiboaren edukia aztertu eta informazioa berreskuratzea, testuinguru berrian kokatuz. Horregatik esan daiteke artxiboaren erakundea memoria kulturalaren parte dela, baina kontserbazioaren eta zaintzaren dimentsio pasiboan.

Memoria kulturala, beraz, bi funtzio ezberdinetan oinarritzen da: Batetik, testu sakratuen, maisulan artistikoen edo gertaera historiko giltzarrien aurkezpenean; eta bestetik, iraganeko dokumentu eta artefaktuen biltegiatzean (garrantzitsu edo interesgarritzat hartzen direlako eta beraz, ahanzturaren bidean erortzea ekidin nahi delako gordetzen direnak). Estimazio enfatikoa, *performance* errepikatua eta arreta indibidual zein publiko jarraitua

memoria kulturala (aktiboki) lantzeko objektuen ezaugarri bereizgarriak dira. Kontserbazio profesionalak eta objektua arreta orokorretik kentzeak ostera, memoria erreferentziala (artxibokoa) ezaugarritzen du. Arestian deskribatutako memoria kulturalaren bi eremu horiek ez dira finko eta itxiak, eta ez dira elkarren aurkakoak, izan ere, hainbat modutan eragiten diote elkarri. Erreferentziako memoriak, adibidez, memoria aktiboari oinarri edo jakintza aberatsa eskaintzen dio eta horrek esan nahi du kanonean dauden elementuak arrotz bihurtu eta berrinterpretatu egin daitezkeela, artxiboko elementuekin kokatuz (horixe da Historizismo Berriaren metodoa). Beste adibide bat aipatzearren, kanoneko elementuak artxiboan desegin daitezke eta ez hori bakarrik, artxiboko elementuak berreskuratu egin daitezke, kanonera igaroz.

Tesi honetako aztergai nagusia literatur lanak direnez, Erllek (Erll eta Rigney 2006; Erll, 2011) landutako ildotik joko dut memoria eta literaturaren arteko harremanaz hitz egiteko, hau da, literaturak memoria kulturalean eragiteko (hura sortzeko eta moldatzeko) duen ahalmenaz berba egiteko; izan ere, jarraian datorren aipuan ikus daitekeen moduan, literaturak hainbat modutan eragiten du memoria kulturalean:

As a medium of cultural memory literature is omnipresent [...]. They fulfil a multitude of mnemonic functions, such as the imaginative creation of past life-worlds, the transmission of images of history, the negotiation of competing memories, and the reflection about processes and problems of cultural memory. Literature permeates and resonates in memory culture (Erll, 2011: 144).

Goiko funtzio horiek betetzeko, hau da, literatur lanek memoria kulturalean eragiteko, Arroita (2015: 113) dioen bezala, obrek oinarrizko bi baldintza bete behar dute: “Gizartean harrera garrantzitsua izatea eta memoriaren bitarteko gisa hartzea literatura lan hori”. Erllek (2010) dioenez, literaturak eta filmek (fikziozko komunikabideak deitzen dituenak) tresna indartsuak bihur daitezke gizarteko toki askotara zabal daitezkeelako eta maila internazionala ere erdiets dezaketelako. Gaineratzen duenez, memoria kulturalean eragiten duten fikziozko komunikazio horiek gutxitan izaten dira eztabaidarik gabekoak. Memoria egiteko daukaten efektua ez da transmititzen duten irudien batasunean, koherentzian eta zalantzarik gabeko ideologian oinarritzen. Horren orde, ematen duten irudien gainean eztabaidatzeko aukera ematen dute, eta nire ustez, hori da interesgarriena, ekarpenak zalantzan jarri, galderak piztu eta elkarrizketak sustatzea. Ez nuke azalpenetan aurrera egin nahi Erllek (2010: 397) defendatutakoa adierazi gabe: “The “cultural mind” is in many ways a “medial mind”: It is

the patterns derived from the media cultures we live in, especially (albeit often unintentionally) from fictions, that shape our idea of reality and our memories”. Literaturak eta Erlek aipatzen dituen bestelako komunikabide horiek memoria gordetzen dute, denboran zehar eskuragarri eginez; baina horrez gain, beste espazio eta komunitate batzuetara hedatzen dute, baita oroitzapen kolektiboak piztu ere. Ezin ahaztu gertaera bera hainbat komunikazio eta sistema sinbolikotan zehar zabaldu daitekeela, corpusaren azterketak erakutsiko duen moduan. Horrekin esan nahi dut gertaera historiko bera, besteak beste, monumentu forman materializatu daitekeela, edo literatur lan bateko gai nagusi bihurtu daitekeela, edo familia testuinguruan ahoz transmitituko diola pertsonaia batek haren ondorengoari (memoria komunikatiboaren forma hartuz).

Aurrerago iradoki dut literaturak iragana birsortzen duela eta garrantzitsua da hori argi uztea. Memoriari buruzko fikzioetan, literatura kritikariek “memoriaren mimesia” deitu dutenaren bidez ekarri ohi da oroitze ekintza paperera. Literatur testuek memoriaren lanketa eszenifikatzeko eta irudikatze baliatzen dituzten forma narratibo eta teknika estetikoei egiten die erreferentzia termino horrek. Literaturak mimesirako duen gaitasunari baino, terminoak literaturaren ezaugarri produktiboa azpimarratzen du: Eleberriek ez dituzte memoria errealak imitatzen, deskribatu nahi duten iragan hori sortu baizik. Istoria bat modu zehatz, xehe eta bizian kontatu dezake eta ondorioz, mimesi irudipena (edo mimesi ilusioa) sortu. Eleberriek testu mailako memoria eredu berriak sortzen dituzte. Memoria errepresentazioak konfiguratu dituzte, kulturalki emandako diskurtsoetik elementuak hautatu eta orrazten dituztelako. Nobelek benetakoa eta alegiazkoa, oroitutakoa eta ahaztutakoa konbinatzen dute, eta baliabide narratiboen bidez memoriaren lanketa esploratzen dute imajinarioa erabiliz, iraganari buruzko ikuspuntu berriak eskainiz. Azken horiek irakurleak iraganari buruz duen ulermenean eragin dezakete eta ondorioz, baita kulturaren nagusi diren memoriaren bertsiotan ere. Hori dela eta, literatura inoiz ez da diskurtso kulturalen isla soila, memoria kulturalaren negoziazioan proaktiboki eragiten baitu (Neumann, 2010: 334-335).

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, badirudi norbanakoak partaide den gizarte edo taldeko memoriarekin bat egiten duela soilik, eta horregatik, ezinbestekoa da Michael Rothberg-ek (2009) proposatutako *memoria multidirekzionala* edo *norabide anitzeko memoria (multidirectional memory)* azaltzea. Ikertzaileak testuinguru multikultural eta transnasionaletan sortzen den memoria kolektiboa berkontzeptualizatzen du, erakutsiz indarkeriazko hainbat memoria kolektibok (Holokaustoa eta kolonialismoa) elkarri eragiten

diotela eremu publikoan. Memoria kolektiboen izaera dinamikoa eta eraikitzailea azpimarratzen du eta eremu diskurtsibo gisa kontzeptualizatzen du eremu publikoa. Bertan talde sozial ezberdinak etengabe eraikitzen eta birdefinitzen dira, gainerako taldeekiko interakzio dialektikoaren bidez. Ondorioz, memoriak edo identitateak inoiz ez dira itxiak, beti baitago “besteak” kontsideratzen ditugun horiekin batzen gaituen loturarik. Pentsamendu konparatiboa aldarrikatzen du Rothbergekin, izan ere, indarkeria kolektiboko historia baten singularitasuna edo berezitasuna erreklamatzeko arriskua dakar berekin: sufrimenduen artean hierarkiak sortzea eta sufrimendua deskonektatzea agentzia zein erantzukizun historikotik. Gainera, berezitasunaren diskutso horrek iraganeko edo orainaldiko bestelako biolentzia kasuen errekonozimendua eragotz dezake. Rothbergekin jakintzat ematen du bi gertaera historiko inoiz ez direla berdinak, baina hala eta guztiz ere, esperientzia historiko ezberdinen arteko loturak bilatzea defendatzen du, talde desberdinen arteko elkartasun eta enpatia harremanak sortzeko helburuarekin. *Memoria multidirekzionala* oso kontzeptu baliagarria da tesiko corpusa aztertzeko eta aurrerago erakutsiko dudan moduan, literatur lan zenbaitetan agerian jartzen da gureak ez diren esperientzien errekonozimenduak gainerako komunitateekiko elkartasuna, ulermena eta errespetua sortzeko balio dezakeela, nahiz eta horiek beste garai, erlijio, lurralde edo nazio batzuetakoak izan.

Testuinguru multikulturaleraz eta memoriaren aniztasunaz aritu naizela, Neumannen (2010) hitzak ekarri nahiko nituzke gogora. Hark dioenez (*ibidem*, 341), iraganeko hainbat bertsio biltzeak (baita itxuraz bateraezinak direnak ere) bizirik iraunarazi dezake errelatuaren gatazka, hau da, zerk errepresentatzen duen iragan kolektiboa eta nola oroitu behar den berau. Era berean, aniztasun eta talka hori etengabeko berrikuntzarako eta berrikuntza kulturalerako indar bihurtu liteke, eta horrela, kulturalki existitzen diren memoriak iraunaraztera mugatu beharrean, memoriari buruzko fikzioek eragin handia dute memoriari buruzko kontzeptu berriak sendotzen. Arestian *enpatia* aipatu dut eta ez nuke aurrera egin nahi kontzeptu horren gainean jardun gabe. Landsbergen (2004: 47) hitzak dira hauek:

Empathy is learned and acquired through work and knowledge [...] Technologies of mass culture [horien artean literatura] are a prominent site for the production of empathy. The wide circulation of mass-mediated images brings people into contact with other people, other cultures, and other histories divorced from their own lived experience. Through mass culture, people have the opportunity to enter into a relationship with the “foreign”. Gradually, they learn to feel emotionally connected to what is intellectually at a great remove.

Aurreko baieztapenei jarraituz, azpimarratu behar da empatia lantzea ezinbestekoa dela, horrek ahalbidetzen baitu klase, arraza edo etnia desberdineko pertsonenganako konexioa sortzea eta pertsona batek zuzenean bizi ez dituen esperientziak bere gorputzean esperimentatzea. Portelak (2016) defendatzen duenez, literaturak imajinazio etikoa esnatzen du, inplikazio etikoak dituen irudimenezko aldaketa bat, eta honakoa gaineratzen du:

La imaginación del semejante -cómo lo imaginamos- tiene que ver con los afectos propios; la imaginación nos pone en la tesitura de comprender, compadecer, relacionarnos con el dolor del otro. De hecho, la imaginación es la clave de nuestro reconocimiento del mal ajeno, es la clave para *despertar* el reconocimiento, la empatía, incluso la compasión hacia el que sufre. Sin la imaginación, esto es imposible (*ibidem*, 16).

Literaturaren alorrean giza eskubideak eta tortura landu dituen Madelaine Hron ikertzaileak (2018) dioen legez, imajinaziozko eremu horretan sartzeak ez du bestearen ikuspuntu partzialtasuna alde batera utzi behar dugunik esan nahi, ez eta gure zalantzak eta sineskortasuna desagerrarazi behar dugunik ere. Hala ere, beste errealitate baten edo beste pertsona baten errealitate baten aukera kontuan hartzera konprometitzen gaitu. Memoria Ikasketetan aritzen diren hainbat ikertzaile (Ignatieff; 1997; Cohen, 2001; Moeller, 2016; Hron, 2018) kezkatuta agertu dira sare sozialek eta komunikabideek gerraz eta giza-sufirimenduaz ematen duten informazio bonbardaketarekin eta horrek gudan sor dezakeen neke, empatia falta edo axolagabetasunarekin. Tamalez, egungo komunikabideetan ohikoak bihurtu dira gerra, hondamendi, indarkeria eta sufrimenduzko irudiak eta ikertzaileek galdetzen dute ea ez ote garen besteen minaren ikusle bihurtu. Ildo horretan, hainbat teoriarik aldarrikatu dute hainbeste erruki sentitzearen ondorioz ikusle gisa nekea sufritzen dugula, gure neke morala eta akidura morala biziraute mekanismo baten emaitza direla. Hainbeste irudi hunkigarriren ondorioz, argudiatu izan da gure prozesu kognitiboek informazio gainkarga jasaten dutela eta horrek gure garunak entrenatzen dituela irudi asaldagarriak iragazteko. Ez hori bakarrik, honek guztiak badu ondorio larriagorik: egunero ikusten dugun sufrikario kantitatea dela eta, oinaze mota batzuk normalizatu edo errutina bihur daitezke, eta era berean, sufrimendu modu batzuen aurrean gero eta insentsibilizazio handiagoa izan dezakegu. Horrek ez du esan errealitateaz kontziente ez garenik. Beste zenbaitek argudiatu dute urrutiko sufrimendua erakusten duten irudien aniztasunaren arazoa ez dela askotasuna bera, baizik eta distantzia moral eta psikologikoa. Honek lotura zuzena du gorago ahotan hartu dudana empatiarekin, izan ere, distantzia hori ikusleak besteen



sufrimenduarekin sentitzen duen identifikazio faltaren ondorio dateke edo beren burua egoera horretan imajinatzeko gaitasun faltarena.

Milan Kundera idazleak (2009) zioen nobelak (literaturak oro har) errealtatearen konplexutasuna erakutsi behar zuela, eta baieztapen horri jarraituz, Portelak (2016) sinplifikaziotik irtetea bilatzen duen literatura defendatzen du, definizioak zabaltzen dituena, ñabarduretan sartzen dena, zuri ala beltz edo biktima ala biktimario erako binomioetatik harago doana. Euskal gatazkari lotuta, indarkeriari, haren egileei eta biktimei buruzko bertsio irudimentsuak eskaintzen dituzten errepresentazio artistikoak interesatzen zaizkio, betiere afektuen esku-hartzetik eta pentsamendu konplexutasunarekiko konpromiso seriotik abiatuta eraikiak badira. Era berean, irakurleak gertakariekin duen harremana irudikatzen, pentsatzen eta sentitzen laguntzen dioten irudikapen horiek interesatzen zaizkio, ez salaketa moraletik edo ideologiatik; deserosotasun eta ziurgabetasunezko eremu afektiboetatik baizik. Haren iritziz, imajinazio etikoak irakurlea gaitu eta bere afektuak handitzen ditu, “bestearengana” gerturatzea ahalbidetuz.

Memoria Ikasketen aztergaitik apur bat urruntzen hasi naiz eta eremu akademiko honetan maiz baliatzen den beste termino bat azaldu gabe utzi dut, tesiko corpusean maiz agertuko dena: *trauma*, literaturarekin lotuta Cathy Caruth ikertzaileak (1995, 1996) sakonki landu duena, baita Shoshana Felman literatur kritikariak (Felman eta Laub, 1992; Felman, 2002) ere. Maila orokorrago batean, ezin aipatu gabe utzi traumaren gaineko Dori Laub psikiatraren (Felman eta Laub, 1992) eta Dominick LaCapra historialariaren (1994, 2001, 2004) ikerketak. Gaur egun, baieztza daiteke gai horrek interes handia piztu duela literatur ikerketetan eta arlo honi ekarpen interesgarriak egin dizkiola, literatur testuak ulertu eta aztertzeko ikuspuntu berriak eskainiz (Kurtz, 2018; Davis eta Meretoja, 2020). *Trauma* hitza grekeratik dator eta *zauria* esan nahi du. Baina gurputzak jasaten duen zauria baino, buruan edo gogamean sortutako zauria da trauma, denboraren, munduaren eta “ni”-aren esperientzia mentalean haustura bat sortzen duena. Ez da, gorputzeko zauria bezala, gertakari arrunt eta sendagarri bat, baizik eta goizegi edota ustekabeen bizitzen den gertaera bat. Ezaugarri horiek betetzen dituelako, indibiduok ez du gertaera bere osotasunean ezagutzeko eta prozesatzeko aukerarik eta ondorioz, kontzientziak ez dauka oroitzapen hori eskuragarri harik eta biziraulearen ametsetan eta ekintza errepikakorretan berriz inposatzen den arte (Caruth, 1996: 3-4). Trauma pairatzen dutenek jasanezina den historia bat daramate haien baitan, edo haiek bihurtzen dira erabat barneratu ezin daitekeen historiaren lekuko (Caruth, 1995: 5). Trauma maila indibidualean paira dezake norbanakoak, baina Memoria Ikasketetan diharduten

ikertzaileek (Alexander, Eyerman, Giesen, Smelser eta Sztompka, 2004; Hirsch, 2012; Madigan, 2020) *trauma kulturala* gisako terminoak baliatu dituzte ankerkeria masiboek gizarte-kohesioan eta egonkortasun demokratikoan dituzten epe-luzeko ondorioak deskribatzeko. Langenohlek (2010) dioenez, masiboki biktimizatuak izan diren taldeak trauma kulturalen mende daude, baita makrokrimenak eragin dituzten kideak ere: lehenengo kasuan, tradizioen eta balioen jaraunspena posible egiten duen mekanismoak haustura sakona pairatu duelako; eta azkeneko kasuan berriz, beren historiaren irudikapenak iragan makrokriminalarekiko urruntze masiboaren eta haren ukapen nabarmenaren artean kokatzen direlako. Ildo horretan, *erru kolektiboa* eta *erantzukizun kolektiboa* aipa daiteke, eta era berean, bi termino horiek Rothbergekin (2019) ezaugarritutako *implicated subject* kontzeptura garamatzate ezinbestean.

Biktima, perpetratzaile/delituagile eta lekuko kategoriak oinarritutakoak dira indarkeriari eta traumari buruzko kontakizunetan, baina Rothbergekin (2019) defendatzen du kategoriatan horiek ez direla nahikoak iraganeko zein etorkizuneko injustiziekin dugun harremana azaltzeko. Horregatik, erantzukizun historiko zein politikorekin lotutako figura berri baten beharra aldarrikatzen du; alegia, subjektu inplikatuak deitzen duena. Subjektu horiek ez dira ez biktimak, ez delituagileak ez eta lekuko pasiboak ere. Aitzitik, kaltearen eragile zuzenak ez izan arren, boterearekin eta pribilegioarekin bat egiten duten posizioak betetzen dituzte. Subjektu inplikatuak biolentziazko eta menderaziozko erregimenak sortu edo kontrolatzen ez dituzten arren, haiek sostengatzen dituzte, aurrekoengandik jaraunsten dituzte, haietan bizi dira edo haietatik onura ateratzen dute. Laburbilduz, haietan inplikaturik daude. Ez daude egileak bezain aktiboki inplikatuak, baina ez dira ikusle pasiboak moldean sartzen. Subjektu inplikatuak zeharkako ekintzek edo ekintzarik ezak biktima eta delituagilearen posizioak sortzen eta erreproduzitzen dituzte. Beraz, kontzeptu horrek iradokitzen du indarkeriak eta berdintasunik ezak ezaugarritutako egoera batean inor ez dela guztiz errugabea eta denok dugula erantzukizun politikoa. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi Susan Sontag idazle eta pentsalariak (2003) autoritatearen eta erantzukizunaren gaineko auzia mahaigaineratzen duela bere saiakeran, gure pribilegioek besteen sufrimenduarekin duten loturaz hausnartzera bultzatzeaz batera, eta besteen minari begirada sentikorrez erreparatzea proposatzen du. Hannah Arendt pentsalariak (1987) ere aski ongi landu zuen erantzukizun kolektiboaren gaia eta argi bereizi zituen *errua* eta *erantzukizuna*, edo hobeto esanda, *erru pertsonala* eta *erantzukizun kolektiboa*. Argudiatzen duenez, egin ez ditugun gauzengatik erantzukizuna

senti dezakegu, hau da, ekintza horien erantzuletzat har gaitzakete. Baina ezin gaituzte guk geuk aktiboki parte hartu ez dugun ekintzen erruduntzat hartu<sup>48</sup>.

Guilt, unlike responsibility, always singles out; it is strictly personal. It refers to an act, not to intentions or potentialities. It is only in a metaphorical sense that we can say *we feel* guilty for the sins of our fathers or our people or mankind, in short, for deeds we have not done, although the course of events may well make us pay for them (Arendt, 1987: 43).

Aurrerago erakutsiko dudan moduan, gorago azaldutako trauma (kolektibo) horren testigantza interesgarriak ageri dira tesiko corpusa osatzen duten obretan eta ikusten da nola eragiten duen trauma horrek iraganari buruzko ezagutzaren transmisioan edo transmisiorik ezan. Aurrera dezadan, baina, HGLri dagokionez, 90eko hamarkadaren hasieran ugaldutako zirela traumari buruzko liburuak (batez ere Holokaustuari buruzkoak) eta hamarkada horretatik aurrera argitaratutako literatur lanek agerian jarri dute HGLren egokitasuna traumaren lanketarako. “Izugarrikeriei buruzko HGL” izendapena erabiltzen du Kenneth B. Kidd ikertzaileak (2005, 2011) XX. eta XXI. mende hasierako hainbat gertakari lazgarri (Holokaustoa, Hiroshimako bonbardaketa atomikoa edo AEBko 2001eko irailaren 11ko eraso terroristak) lantzen dituzten literatur lanak izendatzeko.

There seems to be consensus now that children’s literature is the most rather than the least appropriate literary forum for trauma work. Subjects previously thought too upsetting for children are now deemed appropriate and even necessary (Kidd, 2005: 120).

Duela hamarkada batzuk, hezitzaileek eta idazleek gurasoei eskatzen zieten ez zitzatela haurrak betiko traumatizatuko zituen materialekin kontaktuan jarri, baina orain ordea, HGLk eta hura babesten duen hezkuntza sistemak, aparatu psikologikoak eta marketin sistemak agerian uzten dute haurrak iraganeko gertaera aztoragarriekin kontaktuan jartzeko nahia. Eta ez hori bakarrik, HGLk bere burua iragan historikoko mamu liskartiak kanalizatu edo bideratzeko bitarteko gisa irudikatzen du (Ulanowicz, 2018: 2-3).

Memoria Ikasketen atal hau amaitzeko, gerrak eta horiek dakartzaten ondorioak haurrekin lantzeko arrazoiez eta horiek HGLren bidez lantzeko zergatiaz hitz egin nahiko nuke. Gaur egun, telebistaren bidez edota sare sozialen bidez haur eta gazteek munduari buruzko informazio zabala dute eskura eta gerrako irudiak edota bestelako biolentziak irudikatzen dituzten mezuak erraz aurki ditzakete. Alzolaren (2004: 205) ustez, telebistak

---

<sup>48</sup> “Denok gara errudun” gisako leloak baztertzea proposatzen du Arendtek (*ibidem*), asmo zintzoa duen arren, hein handi batean benetako errudunak errugabetu ditzakeelako.

ezabatu egiten du haurrentzako egokia denaren eta helduentzako denaren arteko muga, eta ondorioz, helduen gauza bertsuak entzuten/ikusten dituzte hurrek. HGLk ordea, irakurlearen adinari egokitutako baliabidea izanik, neurtu eta egokitu egiten du hartzaileari eman beharreko informazioa. Esan gabe doa, fikzioak gerraren bizipena esperimentatzeko aukera eman diezaiokeela irakurleari, baina kalteetatik babestuz. Kate Agnew and Geoff Fox-ek (2001) haurrak literaturaren bidez gerraren esperientziarekin kontaktuan jartzea defendatzen dute, gizakiak eragindako zorigaitzez kontziente izateko, jarauntsi duten munduari zentzua emateko eta etorkizunari aurre egiteko. Ez hori bakarrik, baieztatu daiteke hurrei gerraren gaia eskaintzen zaienean, hura berriro errepika ez dadin egiten dela eta historia eredu izan dadin egindako akatsetatik ikasteko. Bide horretan, garrantzitsua da hurrek, oso txikitatik, pertsonaia batzuek agertzen duten sentimendu biolentoen eta jarrera gatazkatsuen aurrean erreakzionatzen ikastea. Hurrek ulertu behar dute indarkeriazko ekintza oro onartezina dela eta ez duela konponbide egokirik ekartzen. Haur-ipuinek “guraso txar” baten figura (amaorde gaiztoa edo errege autoritarioa adibidez) arbuiatzeko aukera emateaz gain, testuinguru moral bat ematen dute; ipuin horretan birsortutako egoerak “ekintza oker” bat aurkezten badu, narratzaileak aukera bikaina izango du haurra bere hausnarketan gidatzeko, pertsonaia “gaiztoari” eta haren ekintzari buruzko bere balio-iritzia lortu arte. Benetan garrantzitsua da haurrari etsaitasunezko jokaerak aurrez aurre ipintzea, baita abusu fisiko eta emozionalak erakusten dituzten egoerak ere, umeak horiek antzematen ikas ditzan eta gai izan dadin bere bizitzan zehar aurkituko dituen antzeko egoerak epaitzeko, ez dadin tranpan erori eta egoera horiek onartu erdi ezkutuan edo maskara faltsu baten pean mozorratuta azaltzen bazaizkio (Malpica eta Montijano, 2005).

Tesiko corpusean gerra edo gatazkaren gaia presente egoteaz gain, testuinguru horretatik kanpoko bestelako indarkeria egoerak zein ekintza arbuiagarriak ageri dira. Horrekin batera, heriotza ageri da askotan, gerraren ondoriozkoa maiz. Gai horrekin arestian esandakoa errepikatu nahiko nuke: HGLko liburu askok heriotzaz jarduteko parada ematen dute, betiere haurra atsekabetik babestuz, kontakizuna plano fikzionalan geratzen delako eta haurrak ez duelako min hori kudeatu behar bizitzan errealean, ez behintzat galera zuzenean jasango balu bezala. Heriotzaz ari naizela, ez dago soberan argitzea nola interpretatzen duten hurrek berau. Hainbat ikerketen arabera (Spiecker-Verscharen, 1982 eta Hopp, 2010 apud Kenfel eta Lorenzo, 2016), lau garai bereiz daitezke hurrek heriotza ulertzeko duten moduan. Sei urte bete arte, aldi baterako loaldi gisa ulertzen dute heriotza, hau da, behin behineko jazoeratzat hartzen dute. Lehen hezkuntzako hurrek (6-12 urte) ordea, bizitzaren

amaiera gisa ulertzen dute heriotza, behin betiko zerbait dela konprenitzen dute, baina ez du haiengan inolako beldur sentimendurik eragiten. Heriotzarekiko beldurra, eta batez ere maite den norbaiten galerarekiko beldurra, bederatzi urtetik aurrera hasten da sortzen. Hamabi urterekin jada haur gehienak jabetzen dira heriotzak izaki bizidun baten behin betiko desagertzea dakarrela, eta izugarritzko tristura eragiten duen galera berreskuraezin gisa bizi dute. Hamahiru urtetik aurrera galdera existentzialak hasten dira planteatzen: Zer esan nahi du heriotzak? Benetan ote da sufrimendutik, gaixotasunetik eta gure bizitza lurtarren zorigaitzetik askatzea? Adin horretan hasten dira horrelako itaunekin<sup>49</sup>. Literaturak laguntza handia eskain dezake erantzunen bilaketan. Haurrari heriotzaren kontzeptua garatzen lagun diezaioke eta fenomeno horri buruzko ulermena areagotu. Ezin aipatu gabe utzi haurrari ulermenean laguntzeaz gain, HGLk tabuen eta gai zailen mediazioa ahalbidetzen duela eta hezitzaile helduari balia bideak eskaintzen dizkiola gai sakontzeko.

Literaturak, historia testu batekin alderatuta, errazago transmiti dezake pertsona batek sufritutakoa, izan ere, historia liburuek datu “objektibo” edota estadistiko bihurtzen dituen pertsonen orde, literaturak arima duten pertsonak erakusten ditu eta gerrak eragindako sufrimendua hobeto helarazten diote hartzaileari. Irakurlea pertsonaiekin identifikatzeak kontakizunak garrantzi pertsonal handiagoa izatea eragin dezake, eta ondorioz, bere sinesmen eta jarretan eragin handiagoa izatea. Trauma eta enpatia landu dituen Pumla Gobodo-Madikizela psikologoak (2015) dioenez, enpatia-gaitasunaren garapena sakon errotuta dago lehen haurtzaroaren garapenean. Beraz, pentsatzekoa da etapa horretan dauden haurrak gai direla (adinaren arabera maila txikiagoan edo handiagoan) haien egoera mentalaren eta gainerakoenaren gainean hausnartzeko. Badirudi haur txikiak gai direla, imajinazioa erabiliz, besteren esperientzia irudikatzeko. Ariketa horrez gain, eta historiarekin alderatuta, literaturak, hainbat ikertzailek (Erll, 2011; Neumann, 2010) defendatu duten moduan, erraz eman dezake ikuspuntu aniztasuna (*mnemonic multiperspectivity*). Mikrohistorian sartzeko, konplexutasuna eta talkak erakusteko edo kontraesanetan sakontzeko aukera ematen du ere. Ondorioz, HGLk erraztasun handiagoa du irakurlearengan galderak planteatzeko, hausnarketa sustatzeko eta elkarriketak pizteko.

Imajinazioaz aritu naizela, etikaren lanketan eta emozioen ikerketan aritzen den Martha Nussbaum filosofoaren lanak (1990, 1995, 1997 eta 2013, besteak beste) aipatu behar

---

<sup>49</sup> Jokin Apalategik (2000) gerraren eta bakearen kontzeptuak euskal haurrengan nola finkatzen diren aztertu zituen eta horretarako, Piaget eta bestelako teorialarien lanetatik abiatuta, EAEko 6-14 urte bitarteko 225 haur ikertu zituen.

dira, izan ere, imajinario narratiboak enpatiaren lanketan duen zeregina, gizatasunaren eta urrikimenduaren lanketa nola bideratu, emozioen garrantzia, desiragarriak diren emozio publikoak lantzeko estrategiak eta baliabideak, eta horietan guztietan hezkuntza sistemak duen ardura eta literaturaren ahalmena aldarrikatzen baititu bere lanetan. HGLren funtzioez aritu naizen atalean (2.4.) eta atal honetan bertan defendatutakoa ikusita, harrigarria da zein gutxi ikertu diren memoria historikoari buruzko HGL lanak euskal ikasketetan. Ildo horretan, bat egiten dut Ulanowiczek (2018: 6) egiten duen hausnarketarekin:

Curiously, however, although many of these critics have paid particularly close attention to the representation of second-generation memory within narratives of childhood produced by and for adults, very few have studied the depiction of such memory in texts written specifically for children. Such a lapse in attention might be ascribed to the still-contested status of children's literature in literary and cultural studies: although the scholarly field of children's literature has earned institutional acceptance and respect within the larger critical arena in the past quarter-century, books for young people nevertheless may not appear “serious” or “complex” enough to critics who wish to explore the memory of grave historical events. Nevertheless, juvenile literature is the ideal venue for the representation of second-generation memory.

Ulanowicz ez da berariaz euskal HGLz mintzo, baina bere esanek berdin balio dute tesi honen ikergaiak mintzatzeko. Memoria historikoari buruzko HGL aztertzen duten ikerlanen falta somatzen du ikertzaileak eta aurreko ataletan erakutsi dudana moduan, hutsune hori antzeman dut euskal ikasketetan ere. Memoria Ikasketetan edota Kultur Ikasketetan diharduten ikertzaileek helduei zuzendutako literaturara jo dute gehienbat gertaera historiko traumatikoen errepresentazioak aztertzeko, nahiz eta HGL baliabide aproposa den gertaera horien memoria irudikatzeko. Hori horrela, ezinbestekoa iruditzen zait euskal letretan Memoria Ikasketetatik ikertzea HGL eta tesi lan honen bidez frogatuko dut emaitza interesgarriak lor daitezkeela Memoria Ikasketen tresna teoriko metodologikoak HGLn aplikatuz gero.

## 5.2. Genero Ikasketak

Gure sarea, gure literatura zulatuta nabaritzen dugu eta, gehienetan, emakumeen izenak, liburuak eta lanak amiltzen dira zulo horietatik.

Beraz, sarein batzuek erabaki dugu jartzea eta konpontzen hasia.

Badugu sarea, euskal literatura; badugu haria, kritika literarioa; badugu jostorratza, teoria feminista, eta, jakina, badugu gogoa, sarean sare aritzeko (Sareinak<sup>50</sup>, 2007).

Ezer baino lehen, argi utzi nahiko nuke atal honetan ez dudala kritika feministaren eboluzioa aztertuko. Halaber, Genero Ikasketek euskal literaturan izan duten ibilbidea laburtzea interesgarria datekeen arren, ez naiz horretan sartuko<sup>51</sup>. Sekzio hau baliatu nahiko nuke tesiko corpusari genero begirada batetik erreparatzea ezinbestekoa dela aldarrikatzeko eta oro har HGLren azterketak genero begirada integratu behar duela azpimarratzeko. Halaber, corpusaren azterketan Genero Ikasketek eskaintzen dituzten metodo eta tresnak HGLren analisisian nola aplikatuko ditudan azalduko dut.

Gaur egun, baieztatu daiteke Genero Ikasketak eta kritika feminista erabat interatuta daudela euskal literatur ikasketetan, eta ondorioz, baita euskal HGL ikasketetan ere. Gure arloan egindako lehenengo lantzat hartzen da Linda Whitek Nevadako unibertsitatean (AEB) 1996an defendatutako doktore-tesia (*Emakumeen hitzak euskaraz: Basque women writers of the twentieth century*) eta ordutik hona asko izan dira Genero Ikasketak euskal literaturan aplikatu dituzten lanak. Euskal letretan erreferente bihurtu diren Gema Lasarte, Iratxe Retolaza, Ibon Egaña, Amaia Alvarez Uria, Joseba Gabilondo edo Mari Jose Olaziregi aipa daitezke beste askoren artean. HGLz Lissa Paul (1999: 114) ikertzaileak aipatzen dituen jarduerak euskal HGLn betetzen ari direla esango nuke, poliki eta pauso txikiz bada ere:

Three broad areas of academic children's literature criticism influenced (un anxiously) by feminist theory: the rereading of texts for previously unrevealed interpretations; the reclaiming of texts that had been devalued or dismissed; and the redirection of feminist theory into providing a welcoming climate for texts by people marginalised by patriarchal colonial societies.

---

<sup>50</sup> Sareinak 2007an Euskal Herriko hainbat emakume ikertzaile feministek sortutako taldea da, zeinaren hasierako helburuen artean zegoen euskal literaturaren gaineko kritika literario feminista egitea. Hona ekarri dudana aipua haien manifestuaren zati bat da. Manifestua osorik irakurri nahi izatekotan, hona helbidea: <https://sareinak.net/acerca-de/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>51</sup> Irakurleak horren informazioa nahiko balu, Epelde, Aranguren eta Retolazaren (2015) lanera jo lezake. Bertan, Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat egiteaz gain, oso labur azaltzen dira Genero Ikasketek euskal literaturan emandako lehen pausuak eta egindako ibilbidea.

Tesi honetan gerra hartu dut mintzagai nagusi eta jarraian azalduko dudan moduan, ikergai horrek ezinbestean eskatzen du genero ikuspuntutik egindako begirada. *Gerra* hitza irakurri edo entzutean, gizonak etorri ohi zaizkigu gogora. Gerra irudikatzean, gizonazko soldaduak datozkigu gogora. Eta Svetlana Aleksievitx nobel saridunaren liburuko (2017) izenburua parafraseatuz, badirudi gerrak ez duela emakume aurpegirik. Baina Aleksievitx idazle eta kazetariak historia liburuetan agertzen ez diren emakumeen kronika latza eman zuen ezagutzera, erakutsiz, emakumeek ere gerra egin eta bizitzen dutela (armak hartuz, gerrillari gisa, mediku gisa edo erizain gisa, besteak beste); eta gerran zehar baina baita ostean ere, gerraren ondorio garratzak pairatzen dituztela. Esan bezala, gerrak hartu ditut mintzagai tesi honetan, bereziki gatazka politiko armatuak. Baina bada historian zehar eta mundu mailan gaur egun arte iraun duen gerra zaharrago bat: Genero gatazka. Ukaezina da gerra testuinguruetan (baita gerraosteko garaietan ere) genero gatazka nabarmenago geratzen dela, guda kontestuetan areagotu egiten baita gizon eta emakume kategorien polarizazioa, generoen arteko desberdintasunak areagotuz, estereotipoak bikoiztuz eta bi kategoria horiek hermetikoagoak eta bereziagoak bihurtuz. Haatik, kategoria bateraezinak izan arren (emakumeari eremu pribatua esleituko zaio eta ezingo du espazio publikoa bete, hori gizonak beteko duelako), bateragarri bilakatuko dira, arlo pribatua egoteak bermatuko duelako atal publikoa egotea, edo bestela esanda, emakumea arlo pribatuaz arduratzeak bermatuko du gizona eremu pribatuan egon ahal izatea. Beraz, gizon eta emakume kategorien arteko banaketa eta oreka hori are garrantzitsuagoa izango da gerra testuinguruan (Rodriguez eta Etxebarrieta, 2016). Literatura gizartearen ispilu den heinean, tesiko corpusean ere azalduko fenomenoak aurki daitezke eta beraz, lan hau osatugabe geratuko litzateke auzi horri erreparatuko ez banio. Corpuseko liburuetan hainbat gerra eta gatazka politiko-armatu hartzen dira mintzagai eta kronologiaren arabera, emakume eta gizonen esleitutako rola ezberdinak izango dira, nahiz eta azpimarratu behar den oinarrian ideia eta estereotipo berean funtsatuko direla. Genero-historian aditu den Nerea Arestiren hitzekin hasi nahiko nuke azalpena:

The Spanish civil war was fought on many fronts. The evolution of gender relations during the twenties and early thirties awoke fears and uncertainties among vast sectors of the population, particularly the most conservative who were very alarmed as they perceived a threat to social stability, moral order, and sacred institutions: family, religion, and nation unity. For the rebel generals in July 1936, the war meant, among other things, the search for an authoritarian solution to this threat to traditional institutions but theirs was also a strong attempt to restore gender order (2014: 147).



Miren Llona ikertzaileak dioenez (2013), gudaren hasieran, herria berehala militarizatu behar izan zen II. Errepublikaren defentsan eta testuinguru horretan emakume milizianoak azaleratu ziren, zeinak gerraren hastapeneko borroketan parte hartu zuten klase baxuko emakume gazteak ziren. Gerrako lehen asteetan, genero erlazioekin lotutako aldaketa batzuk gertatu ziren, emakumeak gerrara heltzearen eta espazio publikoaren berrantolatzearen ondorioz. Aldaketa garrantzitsuena emakumeak hitzaldi publikoak egiten hastea izan zen. Egia da II. Errepublika garaian hasi zirela ekintza horiek egiten, baina gatazka garaian jendetza mobilizatzea lortu zuten. Gerraren lehenengo fasean, 1936ko udan, milizianoen irudia iraultza sozialaren sinbolo bihurtu zen. Hala ere, haien irudi positiboa gerrako hasierako fasera mugatu zen. Emakumeen parte-hartzea frontean sexuen arteko erabateko berdintasun seinale moduan interpretatu zen, baina, milizianoen figurak desoreka sinbolikoa eragin zuen. Emakume horien aurka sortutako haserreak erakusten du genero-erlazioetan eragindako aldaketak zein neurriraino piztu zuen kezka soziala eta asaldura. Genero-oreka berriz finkatzeko saiakeraren ondorioz, 1936ko abenduan ia-ia ez zegoen milizianoen irudiak erakusten zituen propagandarik (erizainaren figura otzanarekin ordezkatu zituzten) eta 1937ko hasieran emakume milizianoak desondratzen zituen kanpaina burutu zen, prostitutekin identifikatzen baitzituzten (prostitutaren figura hori oso elementu sinboliko boteretsua bihurtu zen). Horrela, emakumeak milizietan sartzea eragotzi nahi zen (eredu hori feminitate hegemonikoarekin bat ez zetorrelako).

Lehenago aipatu ez badut ere, II. Errepublikak lehen euskal gobernuaren antolaketari bide eman zion eta Hego Euskal Herriko autonomi estatutuaren aldeko politika bideratu zuen Euzko Alderdi Jeltzaleak. Nahiz eta ezegonkortasunez betetako egoera izan, euskal gobernuak egoera kontrolpean zuela adierazi behar zuen, eta autoritatea irabazi behar zuen. Garai hartan, Gobernuaren boterearen adierazletzat hartzen zen genero anbiguotasunik ez onartzea eta beraz, euskal gobernuak kosta ala kosta lortu behar zuen lehen aipatutako genero-oreka ezartzea. Hori horrela, ahalegin handiak egin zituen bere diskurtso nazionala lortzeko eta horretarako, genero aldetik eduki sakona zuten bi irudi sortu zituen: *gudaria* (fronteko bizkarrezurra izango zena) eta *emakumea* (edo ama, bizi-emaile eta zaintzaile, atzeguardia berrantolatzeaz arduratuko zena). Bi figura horiekin lotutako eta genero bereizketan oinarritutako ordenaren berrezarpena funtsezko osagaia izan zen euskal gobernu legitimatzeako orduan, eta baita bere helburu nagusia (euskal estatuaren osaketa) legitimatzeako orduan ere. Ez hori bakarrik, *gudari/emakume* oposaketa bitar horri esker gerrako garaipena bermatu nahi zen. Testuinguru honetan, desoreka sexuala eta emakume milizianoaren

existentzia eragotzi beharreko kontua zen. Proiektu hau bat zetorren nazionalismoak aldarrikatzen zuen idiosinkrasia moralarekin. Horrela, milizianoaren irudia neutralizatzeko asmoz, erizainaren rolak indarra hartu zuen, hau baitzen sexu eta genero bereizketaren adierazpen garbiena: milizianoak gudariaren rola betetzen bazuen, erizainak berriz, zaintzailearen rola betetzen zuen (Llona, 2013). Arestiko ideiekin lotuta, gogorarazi behar da garai hartako imajinario nazionalistan Euskal Herria ama baten gisan sinbolizatzen zela. Semeek (gudariak) beren bizitza sakrifikatu behar zuten aberriaren alde eta alabek, beren burua ama gisa irudikatuta, beren seme propioei gerrara joaten utzi behar zieten, aberria seme propioak baino gehiago maite zutela adieraziz. Bientzat aberriarenganako maitasuna balio gorena zen (Llona, 2013). Are gehiago, Rodriguezek eta Etxebarrietak (2016) iradokitzen duten moduan, historikoki emakumeek bizi emaile subjektu modura eraiki dute haien identitatea, eta ondorioz, emakumea bizitza kentzearen aurkakoa den ikusmolde biologizista hedatu da. Ideia horrek ere dualtasun patriarkalari eusten dio, nahiz eta banaketa horrek ez duen inongo loturarik biologiarekin.

Arestian iradoki dudan moduan, gatazka armatuetan sistema patriarkala ahultzen duten erresistentzia prozesuak gertatzen dira. Hutsuneak sortzen dira eta emakumea den hori birdefinitzeko aukerak irekitzen dira. Okasio horiek baliatu izan dituzte historikoki feminista askok, eta subertsiorako espazio bilakatu dituzte gatazka armatuko hainbat une eta toki. Hala ere, historialari zenbaitek adierazi dutenez, egia da gerrak genero norma horien askatzea eragin dezakeela, baina normalean, soldadua/ama oposaketa bitarraren indartzearekin erantzuten zaio, izan ere, badirudi genero bereizketan oinarritutako ordena zorrotza ezartzeak segurtasuna ematen duela ezegonkortasun egoeretan eta garaipen berme bat ematen duela liskarrak daudenean. Horren ondorioz, gatazka egoeran dauden gizarteetan genero-balio horiek gehiago indartzeko arriskua dago (Llona, 2013; Rodriguez eta Etxebarrieta, 2016: 22). 1922an EAJ barruan sortutako Emakume Abertzale Batza abertzaletasun tradizionalaren adierazle garrantzitsuena izan zen eta emakumearen irudi feminizatua bultzatu zuen. Ereku pribatuan antolaketa lanak egitera bideratu zituen emakumeak. Errefuxiatuei laguntzen, arropak egiten, gudariei janaria prestatzen, jangela sozialak antolatzen, erditze bidean zeuden amei laguntzen edo atzeguardian zeuden gaixoei laguntzen aritu ziren, eta frontean zeuden gudariei zerbitzu erlijiosoak bermatzeaz ere arduratu ziren. Kontraesankorra badirudi ere, Emakume Abertzale Batzak emakumeen antolakuntza eta lankidetzak bultzatu zuen (emakumeen sarea sortu eta antolatu zuen: ospitaleak edo intendentzia adibidez) eta eremu publikoa hartzea sustatu zuen (ikusgarritasuna lortu zuten mitinak emanez plazetara ateraz,

hau da, politikan muturra sartzeko aukera eman zitzaien), euskal nazionalismoak aldarrikatzen zuen imajinarioari nola edo hala aurka eginez. Horrek, ondorioak ekarri zituen eta Guda Zibilaren ondorengo urteetan emakume askok zigorrak jasan zituzten: kartzela batzuetan, heriotza kondena bestetan (Rodriguez eta Etxebarrieta, 2016: 62).

Jakina den moduan, Erregimen Frankistak, Eliza Katolikoarekin batera, maskulinitate eta feminitate eredu (kontserbadore) zurrinak ezarri zituen eta zorrotz zigortu zuen normatik aldentzen zen saiakera oro. Erregimenak espazio domestikora mugatu zituen emakumeak eta gizonaren menpe zegoen ama/emazte eta etxeakoandre otzan gisa ikusten zituen emakumeak. Rambladok (2014) dioen moduan, emakumea nazionalkatolizismoaren betiketzaile gisa taxutzera bideratutako genero-eredu bat ezarri zuen Erregimenak eta diktaduran zehar, emakumeen aurkako era askotako estrategia errepresiboak gauzatu zituen. Asko ikertu da Gerra Zibilean eta Frankismoan emakumeen aurka egindakoez eta azalpen sakonetan sartu ordez, tesiko corpusari begira esanguratsuenak diren datuak laburbilduko ditut. Diktadura garaiko generoaren historia ikertu zuen Aurora Morcilloren (2010) lanak erakusten duen moduan, sexu-indarkeria gerrako arma bat da, baita konnotazio politikoak dituen sinbolo bat ere. Ez du axola non eta noiz, beti aurki baitaiteke emakumeen gorputzak suntsitzen dituen gatazkarik<sup>52</sup>. Kanpaina militarretan, emakumeak konkista planaren parte izaten dira eta haien aurkako abusua etsaia menderatzeko bide bihurtzen da (bortxaketak garaipen gorena irudikatzen du). Epelde, Aranguren eta Retolazak (2015) argi azaltzen dute ekintza horren sinbologia:

Gatazka egoeretan, emakumearen gorputzek herriaren territoria pertsonifikatu ohi dute, eta gizon inbasoreek inbaditutako emakumeengan euren konkistaren pertsonifikazioa irudikatzen dute. Nolabait emakume horiek irudikatzen duten aberri imajinarioa eta territoria mendean hartzen dute bortxaketa ekintzaren bidez. Halaber ikuskera patriarkalaren ondorioz, emakumeak komunitate etsaiaren jabetza direnez, etsaien emakumeak bere eginez eta bortxatuz, komunitate erasotuarengan desohorea sortzea dute helburu.

Testuingurua orokortuz, ildo beretik jotzen dute ere Arruza, Bhattacharya eta Fraser ikertzaileek (2019: 39), baieztatzen baitute jendea kontrolpean izateko mekanismo gisa erabili direla generoarekin lotutako erasoak. Arrazializatutako komunitateak beldurtu eta azpiratzea

---

<sup>52</sup> Barbara Kruger artista kontzeptualaren lan famatuetakoa batek (1989) salatu zuen gizarteak emakumearen gorputza gudu-zelai bihurtu duela (*Your body is a battleground* zioen emakume aurpegi batek lagunduta ageri zen leloak) eta Adrienne Rich poeta eta saiakeragile feminista estatubatuarrek ere aski ezaguna den leloa utzi zuen idatzita *Of Woman Born: Motherhood as Experience and Institution* (1976) izeneko lanean: "The woman's body is the terrain on which patriarchy is erected".

indartzeko, esklabizatutako eta kolonizatutako emakumeak bortxatu izan dituzte; trafikatzailak eta proxenetek ere andrazkoak bortxatu dituzte haiek meneratzeko, eta gerran, etsaien emakumeak era planifikatuan bortxatu dituzte, aipatu bezala, gerrako taktika moduan. Gerra Zibilean eta Frankismo garaian, zigor fisikoaz gain, zigor psikologikoa ezartzen zieten emakumeei. Aski ezaguna da larru-arras uzten zietela ilea emakume errepublikarrei eta zigor horrek feminitatea erauztea zuela helburu (garaiko genero eredu tradizionalaren arabera ilea feminitate ezaugarrietako bat zen). Gainera, errizino-olioa edanarazten zieten beherakoa eragiteko eta jendearen aurrean paseatzera behartzen zituzten<sup>53</sup>. Adituek argi esan dute, hala nola Josu Chueca historialariak (2016), zigorren izaera publikoak bereizten zituela maiz gizonezkoei eta emakumezkoei ezarritako zigorrak, azken hauen kasuan, lotsa, gutxiespena eta iseka lotuta joaten baitzen ezarritako zigorrari. Hala gizonak nola emakumeak pasa ziren kartzelatik, baina hainbat ikerketak (Rodríguez eta Etxebarrieta, 2016; Ruiz, 2017; Ruiz, Etxebarrieta eta Vara, 2019) erakusten duten moduan, espetxe-sistemak genero rolak betikotzen ditu eta emakume gisa irakurriak diren gorputzek zigor bikoitza jasaten dute (gizonek bezala, legea edo kode penala hausteagatik, baina baita emakume gisa dagokien rola hausteagatik jasotako kondena morala). Esanguratsua da ere gizonen espetxeetan eta emakumeen espetxeetan presoek eskaintzen zaizkien jarduerak alderatzea (adibidez, zeinetan eskaintzen diren joskintza tailerrak eta zeinetan mekanikarekin lotutako ikastaroak), eta gauza bera presondegietakako espazio banaketari erreparatzeari dagokionez (adibidez, non dauden kiroldegiak). Lehenago aipatu dut gerra edo gatazka bakoitzak ezaugarri bereizgarriak dituela, baina genero rolekin lotutako gatazkak mentendu egiten direla. Ildo horretan, nahiz eta orain arte ez dudan euskal gatazkaz ezer aipatu, azpimarratu behar da orain arte esandakoek balio dutela gai hori ere lantzeko, euskal gatazkan ere agerian geratzen baitira gizon eta emakumeei esleitutako genero rolak eta horiek gatazkaren testuinguruan duten eragina, hainbat lanek (Zulaika, 2006; Hamilton, 2007; Rodríguez eta Etxebarrieta, 2016) ikerketu duten moduan.

Gehiago luzatu gabe, tesiko corpusaren analisia genero begirada batetik egiteko urrats nagusiak deskribatuko ditut jarraian datozen lerroetan. Lehenik eta behin, pertsonaien generoari erreparatuko diot eta haien ezaugarriak arakatuko ditut, jarraian zerrendatutako ezaugarriak betetzen dituzten ikusteko, hau da, genero rol tradizionalak jarraitzen dituzten


---

<sup>53</sup> Errizino-olioaren bidez egindako purga horrek esanahi sinboliko handia zuen: garbitasun-ezpurutasun dikotomiarekin lotuta eta aberriaren higienizazioarekin eta garbiketarekin lotuta (Hernández, 2003).

zehazteko (ezaugarri gehienak Reizabalen (2015) liburutik eta Rodriguez eta Etxebarrietaren (2016) lanetik hartutakoak dira).

- Gizona: maskulinoa, espazio publikoa, aktiboa, independentea, subjektua, tolesgabea, gudaria, indarkeria, indarra, ausardia, produkzioa, arrazionala, emozionalki egonkorra/psikologikoki indartsua, lehiakorra, boterea, oldarkorra, prestigioa, politika, armak.
- Emakumea: femeninoa, espazio pribatua (domestikoa), pasiboa, menpekoa, otzana, objektua, ulerkorra, zaindaria, bakea, ahulezia, erakargarritasun sexuala, beldurra/koldarkeria, erreprodukzioa, irrazionala/sentimenduak, hunkibera, menderakuntza, diskrezioa, kultura, hitzak.

Zerrenda horrekin batera, biziki argigarria iruditzen zait Rodriguezek (2015: 92) bere lanean erakusten duen taula, tesiko obretan aplikatzeko baliagarria dena zalantzarik gabe:



1. irudia: Rodriguezen (2015: 92) lanetik ateratako taula.

Lasartek eta Serranok (2016) maskulinitate berriak aztertu zituzten euskal HGLko 3 liburutan eta pertsonaien azterketa egiteko erabilitako metodologia tesiko corpuseko obretan aplikatuko dut. Hiru alderdiri erreparatzea proposatzen dute. Lehenik, paradigma aktantzialari, hau da, pertsonaiek istorioan betetzen duten funtzioei. Bigarrenik, kontakizunean hartzen duten esanahiari (besteak beste, goiko zerrendan oinarrituta), eta hirugarrenik, pertsonaien arteko harremanei eta jokabideei. Pertsonaiek xeheki aztertzeaz gain, obren egiletasunari erreparatzea interesgarria da, hainbat ikerketak (Olaziregi eta

Ayerbe, 2016; Olaziregi, 2020a) iradoki dutelako desberdintasun formalak daudela emakumeek eta gizonek euskal gatazkari buruz idatzitako nobelen artean (dirudienez, emakume idazleek eredu autobiografikoaren aldeko hautua egin izan dute eta gizonek, berriz, egitura metafikzionalen aldekoa). Ildo horretan, Elaine Showalter ikertzaile feministak (1985) garatutako *ginokritika* kontzeptua eta horri lotutako teorizazioak neure egingo ditut. Horrez gain, emakumeen rolen irudikapenarekin lotuta, egile femenino eta maskulinoen obretan ezberdintasunik dagoen ikustea interesgarria iruditzen zait.

Gorago esan bezala, obren analisi kritikoa egingo dut, baina horrez gain, irudiei erreparatuko diet, pertsonaia karakterizatzen duen zantzuak aztertzeko. Batzuetan, testuaren osagarri gisa funtzionatzen dute irudiek, baina beste batzuetan, testu idatzian ez dagoen informazio gehigarria gaineratzen dute. Nor ageri da harrikoa egiten eta plantxatzen? Nor ageri da haurrak zaintzen? Nolako jantziak dituzte pertsonaiek? Nor ageri da eremu pribatuan? Nor espazio publikoan? Nork ditu armak? Horrelako xehetasunak oharkabean pasa daitezke, baina horietan arreta jartzea ezinbestekoa da, irudietatik eratortzen den esanahia oso garrantzitsua baita HGLn bereziki, izan ere, literatura mota horren hartzaileak sozializazio betean dauden irakurleak dira eta hausnarketa kritikorik gabe, erraz beregana eta erreproduzi ditzakete estereotipoak. Ildo berean, Colomerrek (2005: 181) dioenez, literaturak sozializazio kulturalerako bitartekari gisa funtzionatzen du eta funtsezkoa da belaunaldi berriei zer mezu ematen zaien jakitea. HGLz ari naizela, eta genero rola zein estereotipoak hizpide hartu ditudala, ez nuke aurrera egin nahi tradiziozko ipuingintzari egotzi zaion misoginiari erreferentzia egin gabe. Ildo horretan, ezinbestekoa iruditzen zait Adela Turinek HGL ez sexistaren alde egindako ekarpena aipatzea, edo Euskal Herrira etorrira, Mariasun Landak ikuspuntu feminista batetik egindako aldarria eta bide horretan argitara emandako lanak kontuan hartzea<sup>54</sup>.

Gerrak eta gatazka armatuak hizpide hartzen dituzten eskolako testuliburuak, edo oro har, historia liburuak, gertakariak, faseak eta bestelako datu teknikoak deskribatzera mugatu ohi dira. Baina mikrohistoria edota intrahistoria defendatzen dutenek aldarrikatu duten bezala, gertakariak aztertzeko beste begirada baten beharra dago: historia hurbilago batena, begirada xeheago batena, eguneroko kontuetan arreta jarriko duena eta historiografia ofizialak bere diskurtso epikotik at lagatako esperientziak ikertuko dituen. Isilean geratu diren ahotsei tokia

---

<sup>54</sup> Landak koherentziaz jarraitu dio bere lanen hastapenetatik erakutsi duen konpromiso feministari. Jardunbide hori sarituz, Errenteriako udalak 2010ean Mariasun Landa Saria ezarri zuen, zeinaren helburua den emakumeek Errenteriarri egindako ekarpenaren berri ematen duten lanak saritzea.

emango diena. Ikerlarak ikuspegi hori hartzen hasi direnean azaleratu dira milaka eta milaka emakumeren testigantzak: Gerra Zibilean fronteetan ibilitako emakumeen lekukotza, gerraostean pairatutako zigorrak, kartzelaldian bizitakoak edota euskal gatazkan eta borroka armatuan izandako papera. Irantzu Mendia soziologoak elkarrizketa batean iradoki bezala (Elustondo, 2019), emakumeen lekukotzei sinesgarritasuna eta ikusgarritasuna ematea justizia feminista egitea da.

Literatura gizartearen ispilu den heinean eta xehetasunetara jotzeko aukera eskaintzen duen neurrian, tesiko corpusean ere azaleratuko dira beste kontakizun horiek eta Historiak isildutako emakumeen memoriak. Mikrohistoria aldarrikatzeak eta Memoria Ikasketetan genero begirada txertatzeak memoria kolektiboan emakumeen esperientziak txertatzea ekarri du eta ikuspuntu hori analisi narratologikoarekin uztartuz aztertuko dut tesiko corpusa.

### 5.3. Narratologia

Aurreko ataletan aurreratu dudan moduan, literatur testuek sortzen eta transmititzen duten memoria mota aztertzeko, ez da nahikoa obraren edukiari eta mintzagai hartzen duen gaiari bakarrik erreparatzea. Ezinbestekoa da testuek baliatzen dituzten teknika eta estrategia narratiboak ikertzea, horien erabilerak erabat baldintzatzen baitu iragana errepresentatzeko modua, eta ondorioz, irakurlearengan sortuko duen efektua. *Narratologia kulturala* deitu diote zenbait ikertzailek narratologiaren eta Ikasketa Kulturalen arteko uztarketa baliatzen duen metodoari (Bal, 1990; Nünning, 2004-2009; Erll eta Sommer, 2019). Analisi narratologikoa erabiliko dudanez, narratologiak eskaintzen dituen eta tesi lan honetan baliatuko ditudan termino eta kontzeptu nagusiak azalduko ditut jarraian datozen lerroetan.

Kontakizunak denboran eta espazioan kokatzeko, literaturaren teorian Mikhail Bakhtin literatur kritikariak (1989) sortutako *kronotopo* kontzeptua erabiliko dut, zeinak literatur testu batek artistikoki asimilatzen duen denbora eta espazioaren konexioari erreferentzia egiten dion. Era berean, kontakizunetako espazioak errealak ala fikziozkoak diren eta denbora kronologiko zehatza ematen den adieraziko dut. Fikziozko espazioen kasuan, bi mota bereiz daitezke, egiantzeko fikziozko lekuak eta egiantzekotasunik ez duten fikziozko espazioak (fantasiatzko liburuetan ageri direnak adibidez).

Pertsonaien azterketa xehea egiteko, Edward Morgan Forster-en (1985) pertsonaien sailkapenaz baliatuko naiz. Hori horrela, pertsonaia *lauak* (ezaugarri bakar baten inguruan

ardaztutakoak, garapen handirik gabekoak, narrazioan zehar bilakaerarik ez dutenak) eta *biribilak* (narrazioan zehar bilakaera dutenak, konplexuak) bereiziko ditut. Aurreko atalean esan bezala, pertsonaiek narrazioan betetzen duten funtzioei erreparatzea ezinbestekoa da, eta horretarako, Algirdas Julius Greimas (1966) ikertzailearen sistema aktantzialaz baliatuko naiz. Argumentuaren edo istorioaren garapenerako pertsonaiek duten erlazioa eta kontakizunean betetzen dituzten eginkizunen egitura sinplifikatua biltzen du eredu horrek, *subjektua*, *objektua*, *igorlea*, *hartzailea*, *laguntzailea* eta *aurkaria* bereiziz. Mikel Hernandezek, *Narrazio tailerra* (2011) liburuan, *igorle* hitza darabil, baina Gema Lasartek (2013) ordea, *eragile*. Egia da *igorle* terminoa Greimasek baliatutakotik gertuago dagoela (*destinateur*-en itzulpen literala), baina iruditzen zait *eragile* hitzak jasotzen duela hobekien kontzeptuaren esanahia. Greimasek haien arteko harremana zehaztuz azaltzen du aktante sistema. Hori horrela, *subjektuaren* eta *objektuaren* harremana desiraren bitartez azaltzen du, hau da, *subjektuak* (protagonistak) *objektua* nahi du (berau abstraktua izan daiteke). *Igorleak* ordea, *objektua* lortzeko ekintza gauzatzera bultzatzen du *subjektua* (*igorlea* ez da nahitaez pertsona bat izan behar, *subjektuak* duen nahi edo desio bat izan baitaiteke ekintza bultzatzen duena (horregatik ikusten dut egokiagoa *eragile* terminoa). Ekintzaren etekina *hartzaileak* jasoko du (berau *subjektua* izan daiteke, baina baita *igorlea* ere). *Objektua* lortzeko bide horretan, *laguntzailea* ager daiteke (*subjektuari objektua* lortzen laguntzen diona) ala *aurkaria* (zailtasunak ipiniko dizkiona). Egia esan, tesiko corpusera begira, deskribatutako sistematik, *laguntzaile* eta *aurkari* funtzioak zein pertsonaiek betetzen duen esplizitatzea interesatzen zait gehien. Bide batez, lan honetan ez dut beharrik ikusten rol edo paper tematikoak identifikatzeko. Arestian aipatutako ezaugarriez gain, pertsonaien sexua, adina (haurrak/gazteak ala helduak) eta biziduntasuna garrantzitsua da. Biziduna edo bizigabea den jakitea baino, garrantzitsuagoa da gizakia, (humanizatutako) animalia edo izaki fantastikoa den zehaztea. Pertsonaiek indibidualak ala kolektiboak diren zehaztu daiteke ere. Esan gabe doa hori guztia Genero Ikasketen atalean deskribatutako ezaugarriekin kontrastatu behar dela.

Pertsonaien azterketaz gain, ezinbestekoa da istorioa zein ikuspuntutik ematen den ikertzea, besteak beste, horrek eragina izango duelako irakurlearengan. Gérard Genette (1972) teoriarariaren ekarpenei jarraikiz, hiru fokalizazio mota bereiz daitezke: *Kanpo-fokalizazioa* (narratzaile *kanpodiegetikoa* edo *estradiiegetikoa*, objektiboa, *behaviorista*, kontakizuna istoriotik kanpo dagoen norbaitek ematen du, zentzumenen bidez hautemangarriak diren gauzen berri emanez, pertsonaien sentimendu eta pentsamenduen berri eman gabe), *barne-fokalizazioa* (narratzaile *barnediegetikoa* edo *intradiegetikoa*, istorio barruko



pertsonaia batek ematen du informazioa eta pertsonaia horren barne-mundura sarbidea ematen du) eta *zero fokalizazioa* edo *fokalizatu gabekoa* (narratzaile orojakilea, pertsonaiek ikusten eta pentsatzen dutena kontaktzen du). Foku *finkoa* erabiliz, fokua pertsonaia bakarrarengan jar dezake narratzaileak, pertsonaia horri nagusitasuna emanaz kontakizun osoan zehar; edo foku *aldakorra* baliatuz, hainbat pertsonaiarengan jar dezake arreta narratzaileak, kontakizuna hainbat pertsonaiaren perspektibatik jantziz.

Narratzaileari dagokionez, beste xehetasun bat egin beharra dago. Narratzailea *heterodiegetikoa* da kontaktzen duen istorioaren parte ez denean, hau da, beste baten istorioa kontaktzen duenean. Narratzailea istorioaren parte denean aldiz, *homodiegetikoa* izan daiteke (lekuko edo ikusle gisa jokatzeko duenean) edo *autodiegetikoa* (kontaktzen duen istorioaren protagonista denean). Colomerrek (2002) dioten moduan, narratzaileak denbora guztian hitz egiten duen lanetan ere, literatur lanek elkarrekin hitz egiten duten eta kulturaren eta gizartearen diskurtsoak txertatzen dituzten ahots ezberdin asko barne hartzen dituzte. Ahots aniztasun horrek, hau da, egiletza eta ikuspuntu ezberdinen aldibereko agerpen-(dialogiko)ak, literatur teoriaren eremuan Mikhail Bakhtinek Dostoevsky-ri buruzko lanean (1984) definitu zuen bezala, *polifonia* moduko bat eratzen du, edozein istorio interpretatzeko ikuspuntuak biderkatuz. Monologismoari kontrajartzen zaio polifonia, izan ere, azken horrek askatasuna ematen dio ahots bakoitzari, haien arteko hierarkiarik egin gabe eta ez ditu ikusmolde nagusi baten mende jartzen gainerako ikuspegi ideologikoak<sup>55</sup>. Aurreko lerroetan narratzaileari buruz emandako zehaztapenak kontuan hartzea ezinbestekoa da, besteak beste, testuak transmititzen duen ideologiari eta irakurlearengan izan dezakeen eraginari erreparatzeko.

Denboraren tratamenduari dagokionez, istorioaren linealtasunari edo hurrenkerari erreparatzean, zailtasun berezirik ez duten bi termino baliatzen dira narratologian. Iraganera salto egiteari *analepsia* deitzen zaio (zinemaren arloan *flashback* teknikarekin ezagutzen dena), eta etorkizunera egindako jauziei berriz, *prolepsia* (*flashforward* zinemagintzan). Azken horiek ez dira analepsiak bezain ohikoak, eta gainera, tesiko corpora memoria historikoari buruzko obrek osatzen dutenez gero, espero izatekoa da kontakizunean analepsiak aurkitzea, besteak beste, pertsonaiak iraganera begira jartzen direnean gertaeraren bat gogora ekartzeko. Denbora jauzi horietan *elipsiak* gerta daitezke eta interesgarria da alderdi horri erreparatzea, esan gabe edo ezkutuan uzten dena aztertzeke eta elisio hori hartzaile gaztea babesteko helburuarekin egin den ikusteko. Iragana irudikatzeko, hainbat

---

<sup>55</sup> Irakurleak *dialogismo* eta *polifonia* terminoen arteko ezberdintasun kontzeptualen gainean sakondu nahiko balu, Ivan Igartuaren (1997) lanera jo lezake.

modu balia daitezke. Erllek (2011) dioen bezala, oroitze-moduak estuki lotuta daude irudikatzeko modu (narratibo) ezberdinekin eta irudikatzeko moduan gertatzen diren aldaketek iraganari buruz gordetzen dugun memoria motari eragin diezaiokete. “Literary works represent the past in varying combinations of experiential, monumental, antagonistic, historicizing, and reflexive modes”, dio Erllek (*ibidem*, 158) eta errepresentazio modu horiek azaltzen ditu. Oroitzapen modu *esperientzialak* bizitako esperientzia gisa errepresentatzen du iragana. Historia garaikideko memoria bizia, belaunaldien arteko memoria edo memoria familiarra gogora ekartzen du, hau da, Assmandarrek memoria komunikatiboaren barruan sartzen dituztenak. Oroitzapen modu *esperientziala* duten testuek memoria komunikatiboaren iturri nagusia errepresentatzen dute: lekukoaren oroimen episodiko eta autobiografikoak. Oroitzapen modu literario honetan eguneroko bizitza erakusten da, lehen pertsonan kontatua eta orainaldiko formak erabilita. *Monumentalak*, ordea, iragana mitiko gisa ulertzen du, hau da, memoria kulturalaren parte gisa, eta modu *historizistak*, gertakari literarioak eta pertsonak historiografia akademikoaren objektu balira bezala transmititzen ditu. Modu *antagonikoak* iraganeko bertsio jakin bat sustatzen eta beste bat baztertzen laguntzen du. Oroimen modu hori talde identitarioak eta iraganari buruzko haien bertsioak errepresentatzen dituzten literatur lanetan ager daiteke, baita joera politikoko literatura engaiatuan ere. Talde jakin bateko memoriak soilik aurkezten dira egiazko gisa eta gatazkan dauden beste taldeen memoriak deseraiki egiten dira, faltsutzat joz. Modu antagoniko bat ezartzeko teknikarik bistakoena estereotipo negatiboen erabilera datza. Azkenik, oroimen modu *erreflexiboak*, iraganari buruzko informazioa emateaz gain, errepresentazio horri buruzko hausnarketa kritikoa eskaintzen du. Memoria prozesuetan eta memoriaren arazoetan arreta jartzen du, adibidez, memoriaren funtzionamenduari buruzko iruzkin esplizituak eginez edo iraganari buruzko bertsio ezberdinak emanez.

Gerra Zibilak galizieraz idatzitako HGLn izan duen irudikapena aztertzen duen Marta Neiraren doktore-tesiak (2015) aipatutako gerra oroitzeko bi modu azpimarratzen ditu. Bata Gerra Zibila *bizitako esperientzia* gisa kontatzen duena, hau da, Gerra Zibilean edo aurreko uneetan osoki garatzen diren narrazioak (Erllek deskribatutako modu esperientzialarekin bat datorrena). Bestea berriz, *oroitutako gerra* gisa kontatzen duena, hau da, pertsonaiek gerrarekin lotutako gertakari, momentu edo ondorioren bat oroitzen dutenean. Horrelakoetan, obrako ekintza nagusia gerra ostean edo gaur egunean kokatzen da. Espainiar eleberrigintzak Gerra Zibila eta Frankismoa errepresentatzeko erabili dituen moduak aztertzen ditu Elina Liikanen ikertzaileak (2015) bere tesian eta hiru modu bereizten ditu. Batetik, iragana *bizi*

*izandako esperientzia* gisa aurkezten duena. Modu hori baliatzen duten kontakizunek irakurlea iraganera eramatea dute helburu, dena delako gertaera historikoa bizi duten pertsonaien esperientzia partekatzeko. Iraganera sarbide zuzena ematen diote irakurleari eta testuak irudikatzen dituen iraganeko gertaeren lekuko bikario bihurtzen dute. Berau istorioan murgiltzeko, irakurlearen eta protagonisten arteko lotura afektiboa sortzen saiatzen dira obrak eta errealitate efektu indartsua sortzen saiatzen dira. Normalean, pertsonaien ingurune fisiko eta soziokulturala deskribatzeaz gain, pertsonaiaren barne-munduaren berri ematen da. Bestetik, iragana irudikatze *modu berreraikitzaileak*, iragana eta iraganeko protagonistak orainetik ulertzen saiatzen diren horiengan jartzen du fokua. Beti agertzen da iraganeko gertaeraren bat ikertzen duen narratzaile-protagonista bat (dokumentu historikoak edo testigantzak interpretatu, bildu edo bilatzen dituen). Ekintza bi planotan edo bi denbora ezberdinetan aurkezten da (batean iraganeko gertakariak, eta bestean berriz, narratzailearen ikerketa prozesua) eta narrazioaren pisua orainaldiak hartzen badu ere, iraganak garrantzia hartzen du, orainaldia baldintzatzen duen neurrian. Iraganeko gertaeraren lekuko bihurtu ordez, ikertzaile lana egiten ari den protagonistaren ikerketaren lekuko egiten du irakurlea. Kontakizun hauek oroitzapenen transmisio intergenerazionala edo transmisiorik eza arakutzen dute eta iraganak narratzaile-ikertzailearen identitate pertsonalean duen garrantzia azpimarratzen dute. Are gehiago, iraganaren ezagutza horrek botere eraldatzailea du protagonistarengan, zentzua edo azalpena aurkitzen diolako gertaeraren bati. Azkenik, iragana irudikatze *modu ihardukitzaileak* 1936ko estatu kolpea eta diktadura frankista salatzen du, baina ez du lehen helburu gisa iragan ezezagun edo ezkutu baten berri ematea (aurreko bietan ohikoa dena). Literaturak memoria kolektiboan duen zereginean jartzen du arreta, baita gerrak irudikatzeo literaturak duen moduan ere. Errealismoa zalantzan jartzen du, edo hobeto esanda, iragan hurbila irudikatzeo errealismoa baliabide onena edo bakarra dela dioen baieztapena zalantzan jartzen du. Are gehiago, aurreko bi moduek ez bezala, modu ihardukitzailea baliatzen duten obrak ez dira kontakutakoaren sinesgarritasunean eta egiazkotasunean tematzen, kontakizunen fikziozko izaera azpimarratzen baitute, hau da, eraikitako istorioak direla gogorarazten dute. Obra ihardukitzaileen helburu nagusia ez da iraganen benetan gertatutakoaren berri ematea, asmoa honakoa baita: iraganari buruzko kontakizunek egileen ikuspuntua eta interesak islatzen dituztela erakustea, eta ikusaraztea maiz obrak sortzen diren gizartean nagusi diren diskurtsoak errepikatzen dituztela egileek. Ildo horretan, iraganari buruz gailentzen diren kontakizunak deseraikitzen dituzte. Horregatik, zaildu egiten dute irakurlearen eta liburuko pertsonaiaren arteko identifikazioa eta zailago

egiten dute irakurlea narrazioaren espazioan murgiltzea. Iragana irudikatzeko azken modu hau Erlren modu erreflexiboarekin pareka daiteke.

Esandakoaz bat, HGL aztertzen duen analisi kritikoak liburuen amaierari erreparatu behar dio ezinbestean. Colomerrek dioen moduan (2010: 170), obren amaiera aztertzeko interesa ez dator kontakizunaren elementu eraikitzaile gisa duen garrantzi ukaezinetik, baizik eta kontakizunak eman nahi duen mezu hezigarriagatik:

El interés por observar el desenlace de las obras no deriva de su indudable importancia como elemento constructivo del relato, sino de su posible conexión con la propuesta educativa que subyace en los libros infantiles y juveniles. Los estudios de la literatura infantil han contemplado siempre el desenlace de la obra como un punto clave para el mensaje educativo transmitido, ya que el lector puede deducir normas de conducta a partir del éxito o fracaso del personaje.

Duela gutxira arte, amaiera zoriontsuak ziren ohikoenak HGLn, zeinetan bukaerak arazoaren amaiera ekartzen zuen. Horren beste aldean legoke amaiera negatiboa. Baina bada tarteko amaiera bat, positibotzat har daitekeena, zeinetan pertsonaiak arazoa onartu eta harekin bizitzen ikasi behar duen. Azkenik, amaiera irekiak, izenak berak dioen moduan, zabalik uzten ditu irakurlearen interpretazio aukerak eta nolabait esatearren, bere esku uzten du kontakizunaren bilakaera. Amaiera mota honek, negatiboarekin batera, egokiagoak dira konplexutasun morala adierazteko eta tesiko corpuseko obrei dagokienez, kontakizunak sinesgarritasun handiagoa lortzen du, izan ere, zaila da gerra hizpide duen liburu batek amaiera zoriontsua izatea. Gainera, amaiera zoriontsu eta itxiak ez luke irakurlearengan hainbesteko inpaktua izango eta ez luke berau hausnarketara bideratuko.

Orain arteko kontzeptuek narrazio lanen alderdi diskurtsiboa aztertzeko balio dute, baina obren alderdi paratestualari ere erreparatzea beharrezkoa da. Genettek (1982) abiatu zuen paratestuaren azterketa eta sakon garatu zuen terminoa *Seuils* (1987) lanean. Testua osatzen eta inguratzen duen orok osatzen du *paratestua* eta bi multzotan bereizten da: *peritestua* eta *epitestua*. Lehenengoari dagokionez, testuarekin kontaktu zuzena duten elementuek osatzen dute: izenburuak, hitzaurreak, eskaintzak, kapituluetakoko izenburuek, epigrafeek, oharrek, letra-tipoek, ilustrazioek, azalak, kontrazalak, babes-orriak eta bizkarrak, bestak beste. Epitestua berriz, testutik kanpo dauden baina liburuarekin lotura duten beste alderdiek osatzen dute: webguneek, blogak, sare sozialetan argitaratzen diren eduki eta bideo laburrek, prentsako elkarrizketek, liburu aipamen eta kritikek, interneteko baliabideek eta abar. Lluhek eta Sanzek (2021) *epitestu publiko birtual* terminoa proposatzen dute interneteko baliabideekin eta

plataformekin sortzen diren elementu paratestualei erreferentzia egiteko. Egia bada ere obra bakoitzaren azterketa hainbeste alderditara zabaltzea zeregin konplexua izan daitekeela ikertzailearentzat, gaur egun horiek duten garrantzia eta hedadura ikusita, ezin zaio alderdi honen azterketari bizkar eman.

Paratestuek garrantzi handia dute HGLn eta horregatik, ikerketa honetan arreta berezia eskainiko diet. Haur eta gazteei zuzendutako liburu-tako irudiak aztertzea ezinbestekoa da, helduen literaturan baino gehiago agertzen baitira. Testua eta ilustrazioak elkarren osagarri izan ohi dira eta bien baturak eskaini ohi dio irakurleari mezua. Kontatzen den hori bezain garrantzitsua da nola kontatzen den aztertzea. Hori horrela, tesi lan honetan liburu-azale-tako alderdi ikonografikoari erreparatuko diot, baita testuarekin batera tartekatzen diren irudiei ere. Paratestuaren parte diren atalen izenburuek oinarritzko funtzioa betetzen dute HGLn: irakurle gazteari laguntzea. Kontakizunak jasango dituen aldaketen berri emateko eta irakurlea kokatzeko balio dute, izan ere, denbora aldaketa, toki aldaketa edo narratzaile aldaketa gertatuko dela aurrera dezakete. Testuen ulermena errazten dute, beraz. Horrez gain, izenburuek kapitulu-tako edukia laburbiltzen dute maiz, edo etortzeke dagoena aurrera dezakete. Ildo beretik, liburuko babes-orriek ere funtzio garrantzitsua bete dezakete HGLn, nahiz eta azterketa kritikoetatik at uzten diren maiz. Elena Concejok (2011) aztertutakoari jarraikiz, HGLko babes-orriak garrantzia hartzen ari dira diskurtsoari erantzen zaion estrategia narratologiko gisa. Testua eta liburuko azala batzeko jatorrizko funtzioaren aldean, gaur egungo askok istorioaren parte funtzionatzen dute, eta beraz, irakurleak esanahiak inferi ditzan funtsezko elementuak dira. Babes-orri batzuek funtzio dekoratiboa betetzen dute, baina beste batzuek testuinguratzeko espaziala edo tenporala ematea dute zeregin. Elementu paratestualek testuaren irakurle potentziala iragartzen dute, baita irakurle implizitua ere. Era berean, testua irakurri aurretik, irakurleak seinale batzuk jasotzen ditu paratestuetatik eta espektatiba batzuk sortzen ditu. Testuari heldu aurretik irakurleak dituen espektatibei *igurikimen horizontea* deitu zion Hans Robert Jauss teorialariak. Irakurle oro ez da hutsetik abiatzen testua irakurtzera, suposizio eta espektatiba marko batekin abiatzen baita testua interpretatzera eta osatzera (irakurketa ekintzak ematen baitio zentzua testuari). Espektatiba eta aurreste horiek irakurlearen esperientziak baldintzatua izango da, marko sozial eta kulturalak, testuinguruak, eta aurretik irakurritako testuek eraginda (Jauss, 1970).

Puntu honetan, irakurlearen garrantzia azpimarratu behar da, eta horretarako Harrera Estetikaren ekarpenak funtsezkoak dira. Hans Robert Jauss eta Wolfgang Iser aurrekari dituen teoria literario honek irakurketa-ekintzan eta irakurlearengan arreta jartzea aldarrikatzen du,

hau da, irakurlearen ikuspuntuan oinarritutako literatur testuen interpretazioaren eta ulermenaren azterketari heltzea. Iserrek *Der Akt des Lesen* lanean (1976) (ingelesez: *The act of reading*, 1978) azaldu zuen egileek espazio hutsak edo hutsuneak sortzen dituztela (indeterminazio-guneak), irakurleek beren esperientzia eta kompetentziarekin bete beharrekoak. Roman Ingardenen fenomenologia ikerketatik datorren hutsuneen kontzeptu horrek irakurketa ekintzan gertatzen den irakurlearen parte-hartze aktiboa eskatzen du (zenbat eta indeterminazio-gune handiagoa, orduan eta parte-hartze aktiboagoa). Azaldutako termino horrekin batera, Iserrek, *irakurle implizitu* terminoa garatu zuen, urte batzuk lehenago *Der implizite Leser* (1972) laneko (ingelesez: *The implied reader*, 1974) izenburura eraman zuen terminoa alegia. Ikertzaile alemaniarraren arabera, testu guztiek irakurle implizitu bat aurreuposatzen dute. Bernardo Atxaga idazlearen irakurlea aztertu zuen Olaziregik (1998a: 23-24) dioenez, irakurle implizituak testuek barneratzen duten irakurle rolari egiten dio erreferentzia eta testu orok barneratzen duen aldez aurretiko irakurketa orientazioa da. Testu guztiek dute bere interpretazioa gidatuko duen irakurketa egitura eta berau hainbat narrazio-estrategiatan zertzen da (besteak beste, izenburua, metairuzkinak, testuartekotasuna, informazio-hutsuneak edo ironia). Testuaren eta irakurlearen elkarreraginez sortzen den kontzeptu teorikoa da irakurle implizitua. Iserren (1978: 37-38) hitzak dira honakoak:

The fact that the reader's role can be fulfilled in different ways, according to historical or individual circumstances, is an indication that the structure of the text allows for different ways of fulfillment. [...] The process of fulfillment is always a selective one, and any one actualization can be judged against the background of the others potentially present in the textual structure of the reader's role. Each actualization therefore represents a selective realization of the implied reader, whose own structure provides a frame of reference within which individual responses to a text can be communicated to others. [The implied reader] provides a link between all the historical and individual actualizations of the text and makes them accessible to analysis. [...] The concept of the implied reader is a transcendental model which makes it possible for the structured effects of literary texts to be described.

Irakurle implizituaren nozioak antzekotasunak ditu beste teorialari batzuek proposatutako irakurle motekin, besteak beste, Umberto Ecoren (1987) *irakurle modelo* kontzeptuarekin. Edonola ere, ez da nire asmoa irakurle-mota derberdintasun horretan zehaztaperik kontzeptualak finkatzea. Horretarako, Olaziregiren doktore-tesiaren irakurketa (1997) gomendatzen dut.

#### 5.4. Analisisirako baliatutako eskema

Lehenago esan bezala, corpuseko obra guztiak aztertzeke balio duen analisi-eredu bat sortu dut, tesiko liburuen ikerketa xehea egiteke balio duen oinarri metodologiko bat (ikus II. eranskina). Lehenik eta behin, obra baten ezaugarri teknikoak eta ezaugarri orokorrak bildu ditut: Obraren izenburua, errepresentatutako gatazka(k), egilea(k), hartzailearen adina, genero literarioa, lehen argitalpen data eta argitaletxea, eta gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak. Informazio horrekin katalogo bat sortu dut, lanaren amaieran txertatu dudana (ikus I. eranskina). Iruditzen zait horrela aurkeztea lagungarri izan daitekeela inork Euskal Herriko gatazka armatuei buruzko obrak zeintzuk diren jakin nahiko balu. Era berean, gomendatutako adina, genero literarioa edota lantzen den gatazka mota zehazten denez, irakurleak edo hezitzaileak modu azkarrean egin lezake hautaketa, bere interesen arabera gai zehatz bat, genero konkretu bat edo adin jakin bati egokitutako lanen bat hautatuz.

Bigarrenik, obraren harrera kritikoari erreparatzeko eta alderdi horri buruzko balorazio bat eskaintzeko, honako puntu hauetan jarri dut arreta: sariak eta bestelako errekonozimenduak, itzulpenak, edizio edo argitalpen kopurua eta prentsak edo kritika akademikoak egindako balorazioa.

Hirugarrenik, obra bakoitza xeheki aztertzeke eta informazioa biltzeko eskema diseinatu dut. Horretatik eratorritako datu esanguratsuenak “Corpusaren azterketa kritikoa” izeneko atalean (6.2. atala) eman ditut jakitera. Analisi narratologikora bideratutako eskemari dagokionez, oinarrizkoak izan dira Colomer (2002, 2010), Lluch (2003, 2021) eta Hernandez Abaitua (2011) ikertzaileen lanak. Dena den, azpimarratu behar dut Genero Ikasketetatik eta Memoria Ikasketetatik eratorritako itemak gehitu dizkiedala narratologiakoei.

Ideologiaren azterketarako eta liburuek eman dezaketen mezu moral eta hezitzailea antzemateko, irakurketa analitikoak eta diskurtsoaren analisia egiteaz gain, alderdi zehatz batzuei erreparatu behar zaie, besteak beste, narratzaileak betetzen duen funtzioari edo ematen duen ikuspuntuari, pertsonaien bidez transmititzen diren balio ideologiko, moral eta didaktikoei (inplizituak zein esplizituak) edo obren amaieran gerrari buruz egiten den balantzeari. Liburu bakoitza aztertzeke sortutako eskema zehatza eranskinetan gehitu dut.

## 6. CORPUSAREN AURKEZPENA ETA AZTERKETA KRITIKOA

Paradoxa polita da: iraganak irautera egiten du.

Eta narrazio batean sartzen dugu iragana,  
zentzu bat ematen diogu orainetik, zentzu bat ematen diogu oraindik;  
ondo asko dakigu, finean, iragan baten hondarrak garela.

Hondarren hondarrak, nahiago bada.

Eta narrazio horri historia izena ematen diogu,  
argi gera dadin, ez dezagun nahastu literaturarekin,  
inork ez dezan pentsa asmatua denik, bere fikziozko izaera ezkutatzeko.

Historia fikzioa da erabat, narrazioa, kontakizuna  
(Gantzarain, 2018: 9).

Seigarren atal luze honetan, tesiko corpusa aurkeztu eta haren azterketa eskainiko dut. Baina lehenik, tesi honen corpusa osatzen duten obrak hautatzeko irizpideak zehaztuko ditut, horietako batzuk lanaren hasieran aurreratu ditudan arren.

### 6.1. Corpusaren hautapenerako irizpideak

Lanaren hasieran aurreratu bezala, sortzez euskaraz ondutako liburuak ikertu ditut, euskarara egindako itzulpenak alde batera utziz. Irizpide linguistiko horrez gain, liburuko paratestuan edota argialetxeetako katalogoetan berariaz HGLtzat hartutako lanak sartu ditut corpusean, jakin arren badaudela beste hainbat liburu hasieran helduei zuzenduta egon arren haur eta gazteek ere irakurri eta landu dituztenak, eskola-zirkuituaren bitartez batez ere. Argialetxeek egindako katalogazioari erreparatu diot eta horrelako liburuak biblioteketan nola sailkatu diren ere aztertu dut. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan dauden liburutegien (300 bat) katalogazioari erreparatu diot, baina ikusi dut obra bera ez dela beti modu berean sailkatzen, hau da, liburu zehatz baten bilaketa eginda, biblioteka batzuetan helduen sailean ageri dela baina beste liburutegi batzuetan, ordea, haur eta gazteentzako literaturaren atalean. Bat ez etortze horrek, agerikoak diren arazoak dakartza, berriro ere, ikertzailearen irizpide subjektiboaren esku uzten baitu dena delako obra HGL den edo ez erabakitzea. Bestalde, nire ustez, bi multzoak batera eta inolako bereizkuntzarik egin gabe aztertzeak ikerketa emaitzak zeharo lausotuko lituzke. Horregatik guztiagatik, tesiaren hasieran aurreratu bezala, dena delako obra HGLtzat hartu dut soilik liburuko paratestuan hala ageri bada edota argialetxeetako katalogoetan hala



sailkatuta badator. Irizpide hori, esan bezala, nire juzgu subjektiboak saiheste aldera eta objektibotasunaren eta sistematikotasunaren izenean hartu dut.

Kronologiari dagokionez, tesiko izenburuak berak adierazten duen moduan, euskal HGL garaikidea aztertu dut. Izendapen horrek, ordea, azalpen gehigarria eskatzen du. Historiak ematen duen periodizazioaren arabera, Aro Garaikideak Frantziar Iraultzatik (1789-1799) gaur egunera arteko epea hartzen du. Dena den, HGL kontzeptuaz aritu naizen atalean (2.1. atala) esan bezala, XVIII. mendera arte ezin da haur eta gazteei berariaz zuzendutako literatura batez hitz egin eta euskal HGLri dagokionez, XIX. mendeko lehen hamarkadakoak dira berariaz haurrei zuzendutako lanak. Gainera, tesian aztergai ditudan gaiak XIX. mendetik aurrera jazotakoak dira, beraz gerra edo gatazka bakoitza literaturan islatzeko epea gatazkaren hasiera unetik aurrera hasten da. Corpuseko obra guztiak etiketa bakarraren barnean biltzeko balio duen izendapena baino ez da garaikidetasuna. Bestalde, adierazi nahiko nuke tesiaren erredakzio unera arte argitaratutako lanak hartu ditudala ikergai, hau da, 2023ko abendura bitartekoak. Hala ere, denboran aurrera egin ahala argitara emango diren lanak aztertzea interesgarria izango da, batez ere euskal gatazkari buruzkoak, bilakaerarik egon den ikusteko. Esan gabe doa Karlistaldiak, Lehen Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, Frankismoa edota euskal gatazka hizpide dituzten literatur lanek osatzen dutela ikerketa-corpusa.

Genero literarioari dagokionez, ez dut mugarik jarri, nahiz eta aitortu behar dudan corpusaren izaeragatik beragatik narrazioaren generoa nagusitu dela. Emaizta hori espero izatekoa zen, izan ere, narratiba da genero nagusia euskal HGLn eta antzerki-lanak oso urriak dira sistema honetan. Haur eta gazteei zuzendutako saiakera lanak ere oso urriak dira eta maiz ez da erraza horiek testuliburuetatik bereiztea, muga oso lausoa izan baitaiteke. Saiakera liburuetan, gai aldetiko batasuna egoteaz gain, idazleak bere ebaluazioa ematen du, hau da, subjektiboagoa da eta balio-iritziak nahiko era agerian eman ohi ditu (objektibotasuna bilatzen duten testuliburuetan ez bezala). Horrez gain, testuliburuak curriculmeko irakasgai edo edukiekin hertsiki lotuta egon ohi dira eta saiakerak, aldiz, transbertsalagoak izan daitezke. Corpusean sartu ditudan saiakera-lanak literatur lan gisa aurkezten dira elementu paratestualetatik bertatik eta horietako batek eskaintza bat dakar (testuliburuetan ezohikoa dena). Ez hori bakarrik, aipatutako eskaintzan egileak esplizituki adierazten du Gerra Zibilean hildako haurren oroimenez idatzi dituela liburuan datozen *gogoetak*.

Azkenik, argitu nahiko nuke gerra/gatazka bakoitzaren amaieran “beste obra batzuk” atala apailatu dudala. Bertan bildu ditut aztergai ditudan gatazkak gai zentral gisa ez baina testuinguruan edo aipamen soil baten bidez agertzen dituzten obrak. Mundu Gerrekin lotutako HGLko oso obra gutxi argitaratu dira jatorriz euskaraz eta itzulpen bidez iritsi dira gerra horien testigantzak gure literatur sistemara. Esan bezala, aztergai ditudan gatazkak gai zentral gisa ageri dira batzuetan, baina beste askotan, ordea, aipamen huts bat baino ez da egiten. Azken horien kasuan, trataera ezberdina izango da, hau da, aurkeztuko dudan azterketa askoz laburragoa izango da, gatazkaren alderdian indarra jarriz. Puntu honetan, Ewerek (2012: 157) *eduki eta gai* hitzen artean egiten duen bereizketa ekarri nahiko nuke hizpidera:

We nevertheless consider the distinction between content and theme to be as indispensable as that between material and content. Wolfgang Kayser has already pointed out that “works on the same theme” do not necessarily have to have the same content or to demonstrate “external similarity of material” (Kayser, 1948: 62). Themes are abstract and intellectual in nature and can therefore be represented or structured in different ways.

Ewersi (2012) jarraikiz, gai berbera aurkezteko hamaika modu daude eta genero eta azpi-genero literario diferentea erabili daiteke deskribatzeko garaian. Adituak gaineratzen duenez, gaia modu zuzenean edo zeharka aurkez daiteke. Zuzenean aurkezten denean, gaiak eta edukiak bat egin dezakete, eta zeharka aurkeztean, berriz, gaia eta edukia oso bereizita egon daitezke<sup>56</sup>. Arestian aipatutako hitz horiek kontuan izango ditut nire azterketa aurkezterako orduan. Batetik, analizatuko dut gai berbera azaleratzeko zein mekanismo erabili dituzten egileek haien literatur testuetan, ikusteko ea patroirik antzeman daitekeen. Bestetik, erkatuko dut gaia berbera denean ea zein eduki (zein gertaera, zein data, zein leku, zein pertsonaia eta abar) errepikatzen diren.

## 6.2. Corpusaren azterketa kritikoa

Aurreko atalean zehaztutako irizpideak kontuan hartuta, 6 sail nagusitan sailkatu ditut obrak, bakoitzak lantzen duen gatazka armatuaren arabera. Euskal Herriak bizitako gerra karlistak aipatzen dituzten lanak multzo berean bateratu ditut, oso gutxi direlako eta antzeko ezaugarriak dituztelako. Mundu Gerrei dagokienez, bakoitzari aparteko tratamendua eman diot, gerraren beraren izaera desberdina dela iruditzen zaidalako. Espainiako Gerra Zibila eta

---

<sup>56</sup> Hirugarren konbinazio bat ere aipatzen du Ewerek (2012: 158): “Works with similar content can deal with completely different themes: A novel about American Indians may have as its theme general human values like courage, determination, robustness, asceticism etc.; but it may also be about dealing with ethnic differences”.

Frankismoa jarraian gertatu ziren arren, bakoitzari atal beregaina eman diot, naiz eta aitortu behar dudan liburu askotan bi gaiak batera agertzen direla. Azkenik, seigarren multzoan bildu ditut euskal gatazkaz mintzo diren obrak. Argitu dezadan, maiz, liburu batek gatazka bat baino gehiago hartzen dituela hizpide, eta beraz, sail baten baino gehiagotan sartu beharko nukeela. Dena den, kontakizunaren garapenean toki handiena hartzen duen gatazka izan da sail batean edo bestean sartzeko erabili dudan irizpidea. Bestelako gatazkak (genero gatazkak, klase gatazkak edo atzerrian gertatutako bestelako gerrak) hizpide dituzten literatur obrak aztertu ditut soilik Euskal Herriko gatazka armatuekin batera agertzen badira.

Corpusa gaika sailkatu ondoren, liburuak banan-banan hartu eta horien azterketa kritikoa eskaini dut. Egia esan, obra literario bakoitzaren banakako analisia egin ordez, laburpen bat eskaini nezakeen, guztien azterketatik eratorritako emaitza interesgarrienak soilik azaleratuz. Baina azterketa xehea ematea erabaki dut arrazoi garbi pare bategatik. Maiz, haur eta gazteekin aritzen diren hezitzaileak (izan guraso zein bestelakoak) kexu dira ustez ez dagoelako oso eskuragarri literatur testuen azalpen garatua ematen duen materialik. Katalogo soilak edo erreseina laburrak eman ohi dira gehienetan, kritika literarioari eskainitako atalean (2.2.) aipatu dudan moduan, baina horietan, ez dago tokirik liburuaren mekanismo eta edukietan sakontzeko (ez baita horretarako tokia). Irakasle gisa izandako esperientziak diost hezitzaileek eskertu egiten dutela katalogo batekin batera analisi sakonagoa ematea, hartara, oinarri fidagarri bat izan dezakete literatur testuaren lanketa egiteko, literaturan adituak izan ala ez. Agian batek pentsa lezake, irakurle gazteari zuzendutako lanez hizketan ari naizenez gero, helduak ez duela aparteko zailtasunik izango testu horien ulermenean. Baina onartuz gero (eta nik hori defendatzen dut) HGLk ere testu konplexuak barne hartzen dituela, zeinetan metaforen, testuarteko erreferentzien eta bestelako baliabideen bidez ematen diren lerro arteko mezuak, uste dut ez legokeela soberan oinarri edo laguntza gehigarri hori jartzea hezitzaileen eskura. Ez hori bakarrik, gaur egun asko hitz egiten da unibertsitatean egiten den ikerketa emaitzen transferentzia beharraz, hau da, testuinguru akademiko horretan sortutako ezagutzaren gizarteratze beharraz. Ildo horretan, eta tesi lan honek izan lezakeen zabalkunde ahalmen murriztasun kontziente izanda, iruditzen zait agian nik neuk egindako lanak beste norbaiti balio liezaiokeela. Analiaren atala osoki ematearen bigarren arrazoa gardentasunarekin lotutakoa da. Ikertzailearen printzipioetako bat da, edo izan beharko luke, datuak ahalik eta modu gardenean ematea. Horrela, baieztapenen fidagarritasunaz gain, jokabide horrek beste ikertzaileei ahalbidetzen die nik aurkeztutako datuetatik abiatu eta ikerketa berriak abian jartzea, edo jada egindako lanaren gainean ekarpen berriak egitea. Nire

datuak partekatze horrek eraman nau, baita ere, corpusean sartutako literatur lanekin katalogo bat egitera eta sarean eskuragarri jartzera<sup>57</sup>. Edonola ere, liburuen banakako azterketa eskaini dudan arren, beste atal bat apailatu dut analisisian lortutako emaitza interesgarrienen sintesia emateko (7. kapitulua)<sup>58</sup>. Esandakoak esanda, jarraian datozen ataletan liburuen azterketa xehea eskaini dut, gaika sailkatuta eta argitalpen dataren arabera kronologikoan.

### 6.2.1. Gerra Karlistak

Euskal Erriyak alkarren kontra  
utsetik dirade jira,  
obe luteke opiniyuaz  
azturik bizi balira;  
tema txar baten bidez benetan  
okerreratzen badira,  
penaz biyotza ilko zait eta  
ez naiz egongo begira.

Libertadien billa batzubek,  
bestiak berriz igasi,  
gutziz demanda aundiyan dira  
zenbait alkarrekin asi;  
len oso lagun ziranak ezin  
dute gaur alkar ikusi,  
ongi pentsatzen jarri ezkerotz  
ematen dute itxusi  
(Zavala<sup>59</sup>, 1997).

Ezer baino lehen, argi dezadan tesiko corpusean Lehen Gerra Karlista eta Bigarren Gerra Karlista aipatzen ditudanean, 1833tik 1840ra eta 1872tik 1876ra bitartean gertatutako gerrei egingo diedala erreferentzia eta ez dudala kontuan hartuko 1846 eta 1849 urteen artean

---

<sup>57</sup> Tesi honen eranskinetan txertatu dut aipatu katalogoa, eta sarean egindakoa, berriz, tesiaren defentsa ostean jarriko dut eskuragarri, CC by-nc-sa lizentziapean (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin).

<sup>58</sup> Aztergai ditudan liburuetako erreferentziak zehaztean, orrialdeak adieraziko ditut parentesi artean. Erabilitako edizioa analisiaren hasieran aipatuko dut eta zehaztapenik egiten ez badut, obraren lehenengo edizioa erabili dudala esan nahi du.

<sup>59</sup> Zavalak (1997) dioenez, 1869an idatzitako bertso horien egiletzaren atzean Ramon Artola dagoela pentsa daiteke, nahiz eta aitortzen duen ez duela ziurtatzeko frogarik.

izandako gerra, Martinarren Gerra izenez ezagutzen dena eta Euskal Herritik kanpo Bigarren Gerra Karlista izenez ere deitu izan dena (borrokaleku Katalunia izan zuena nagusiki).

### **6.2.1.1. *Buruntza azpian***

Ez dok amairu taldeko kide Lourdes Iriondo (1937-2005) euskal abeslari eta idazleak “Kimu” sailean 1975ean argitaratutako antzerki lana da jarraian aztertuko dudana, Bigarren Guda Karlistan girotuta dagoena. 70eko hamarkadaren hasieran, Gero-Mensajero argitaletxeak “Kimu” saila sortu zuen eta ikastola sortu berrietan erabiltzeko lanak eman ziren argitara bertan. Iriondok haurrentzako hainbat antzerki lan idatzi zituen, aipatu dudana gain, 1973an bi lan biltzen dituen liburua eman baitzuen argitara Gero argitaletxean: batetik, *Martin arotza eta Jaun deabrua*, eta bestetik, *Sendagile maltzurra*. Haurrei zuzendutakoak dira ere Gero argitaletxean plazaratutako *Asto baten malura* eta *Hego-haizearen ipuinak*, eta 1983an Erein argitaletxean argitara emandako *Lotara joateko ipuinak*.

### **Laburpena**

113 orrialdeko antzerki lan hau zortzi bat urtetik gorako haurrei zuzenduta dagoela esango nuke eta hainbat kontakizun tartekatzen dira. Batetik, antzerki obra bat sortzeko bildu diren Urnietako gazteak ageri dira eta horietako bik istorio bana kontatzen dute, bata Sanson harriaren istorioa; eta besteak, aitonarengandik jasotako Urnietako ipuin zahar bat. Bestetik, eta bi haurren istorioetatik abiatuta, haurrek sortzen duten antzerki obraren berri ematen da, Bigarren Guda Karlistan kokatuta dagoena.

### **Harrera kritikoa**

70eko hamarkadan argitaratutako lana izanik, ez da erraza jasotako harreraren berri ematea. Dena den, ezin aipatu gabe utzi haurrentzako antzerki lan hau argitaratuz Iriondok garai hartan bete zuen hutsunea. Etxanizek eta López Gasenik (2007: 27-28), haur antzerkiaz ari direla, aztergai dudana lanaren gaineko iruzkin labur bat eskaintzen dute, istorioan egiten den antzinako munduaren eta modernoaren arteko topaketa agerian jarritz, eta horrekin batera, obraren entretenigarritasuna aipatzen dute. Etxanizek (2012b) antzerki lanaren gainean egindako iruzkin osatuagoa aurki daiteke Kortazarrek zuzendutako *Eguno euskal antzerkiaren historia* (2012) liburuan. Bertan aipatzen denez, baliabide dramatikoak ez dira oso aurreratuak, alegia, oso lan sinplea omen da, baina Iriondoren lana garaiko beharrei erantzuten dien lan bizia dela azpimarratzen da.

## Analisi narratologikoa

Lehenik eta behin, alderdi paratestualari heldu nahiko nioke, marrazkiak Iriondok berak 8 eta 11 urte bitarteko beste haur batzuen laguntzarekin sortutakoak direla azaltzeko (Joxe Mari, Inmakulada, Iñigo Berastegi eta Javier Segurado Iriondo). Azalean, belaunikatuta dagoen abarkadun haur bat dakusagu, aurrean duen deabrua gurtzen ari dela dirudiena; alboan, sorgina dirudien emakume bat ageri da, erratza eskuan duela. Liburua bi atal nagusitan antolatuta dago. Lehenengo zatia 12 orrialdeko sarrerak betetzen du eta pertsonaiak, agertokia, janzkera eta bestelakoak zehazten dira. Sarrera horretan bertan antzezlanaren sortze testuingurua ematen da jakitera. Horretarako, Urnietako gazteek hartzen dute hitza irakurleri zuzenduz, haien burua aurkeztu eta antzerki bat prestatzeko ideia nondik etorri zitzaizen azaltzeko. Haur horietako bik istorio bana kontatzen dute, Gabrielelek Sanson-harriaren istorioa, eta Axunek bere aitona kontatutako Urnietako ipuin zahar bat:

Bigarren karlistadan gudari liberalak Urnietara sartu omen ziren, baserriak erre eta jendea preso jasoz. Jendeak, ikaraz beterik, Buruntza eta Adarra mendietara ihes egin zuen. Ihes egin zuten haien artean, herriko txistularia zegoen; beste pertsona batzuekin batera mendi aldera laisterka joaten ikusi omen zuten. Baiña jende guzti hura betirako izkutatu egin zen eta ez zuen inork gehiago herrian ikusi... Baiña baserritar batzuek diotenez, mendiaren barruan arrezkero noizpeinka txistu soñua entzuten omen da (7)<sup>60</sup>.

Bi haurren istorioetatik abiatuta, antzerki obra sortzen dute denen artean: *Buruntza azpian, edo dena ankaz gorako lurraldea* izenekoa. Ezin aipatu gabe utzi lehen atal honetan antzerkiaren aldeko aldarria egiteaz gain gazteak antzerkia egitera animatzen direla (9).

Liburuaren bigarren atalak, esan bezala, antzezlanak dakar eta antzeztutako gertakizuna Bigarren Gerra Karlistan girotua dago. Narratzaile gisa deabru bi eta sorgin bi ageri dira eta horiek dira antzerkia testuinguruan kokatu eta antzezlanari hasiera ematen diotenak (14-16), baita amaiera ematen diotenak ere (111-112). Goiko lerroetan Axun haurrak kontatutakoaren ildotik, gudari liberalak Adarra eta Buruntza mendien artean dagoen Goiburu herrian sartu, etxeak erretzen hasi eta jendea preso hartzen hasten diren momentuan abiatzen da kontakizuna. Egoera ikusita, batzuk Buruntza mendira ihes egin zutela ematen da aditzera, tartean Goiburuko txistulariak. Ehun urte beranduago (70eko hamarkadan), 10 eta 11 urteko bi haur protagonistak (Olatz eta Mari Karmen) Juanagorri izeneko agurearen atzetik abiatzen

---

<sup>60</sup> Liburua 70eko hamarkadako da eta ez dago Euskaltzaindiak emandako ortografia arauetara xeheki egokituta (1968an ospatu zen Arantzazuko Biltzarra eta bertan onartu zen euskara baturako txostena). Aipuak jatorrizkoan bezala kopia ditut, gaur egungo euskara batuaren ortografiara eguneratu gabe.

dira (jakin gabe hura dela duela urte asko Goiburutik alde egindako txistularia) eta begien aurrean aurkitzen duten leize baten barrura sartzen dira. Bertan duela 100 urte liberalak Goiburun sartzean mendira alde egindakoak bizi dira, izan ere, leize barruan denbora ez da pasatzen, eta beraz, ez da inor hiltzen (26). Dena den, luze bizitzeak badu bere kostua, belar batzuk hartzen dituen Juanagorri izan ezik beste guztiak ezin baitira handik irten bizirik jarraitu nahi badute. Koban bizi direnetako bat Arrastoa jauna da, karlisten ejerzitoan jeneral izandako gizona (28), gudari karlista. Liburuko 42. orrialdean bere irudia dator (arrosarioa lepotik zintzilik daraman Gastesi frailetarako ikaslearekin batera) eta horrez gain, akotazio eran, haren deskribapen idatzia ematen da (40).

Interesgarria da kobazuloan sartu berri den Mari Karmen neskatoaren eta Arrastoaren arteko elkarrizketan sakontzea, etsaiak hiltzeari buruz hitz egiteaz gain, irakurketaren aldeko deia egiten baita. Pasarte honek biltzen ditu bi gaiok:

-Arrastoa: Jeneral on eta ausarta izateko, denetan jatorrena izan behar da: jakintsu, gizalegetsu, errespetodun...

-Mari Karmen: Ez dakit zertarako. Etsaiak hiltzeko jakin behar den gauza bakarra etsaiak hiltzen jakitea da.

-Arrastoa: Etsaiak hil? Beste erremediorik ez dagoenean bakarrik hil behar dira... Barkatu egin behar da, barkatu.

-Mari Karmen: Baiña barkatzen baduzu, gerra bukatu egiten da. Gerran ezin da barkatu.

-Arrastoa: Bai, jauna, barka liteke! Nik barkatu egin nahi dut! Ni gudari jator bat naiz. Denetan ausartena, gizalegetsuena, jakintsuena... Ikusten zenbat medailla ditudan? Neri medaillak ez zaizkit batere ajola, baiña hemen daude... Irakurri egin behar da, irakurri! Ea, esan nerekin batera: Irakurri egin behar da, irakurri egin behar da! (42).

Goiko aipuan ikus daitekeen moduan, induljentiaren alde egiten du jeneralak, etsaien hilketa bestelako irtenbiderik ez dagoen kasuetara mugatuz. Horrez gain, esan bezala, neskatoari irakurtzearen garrantzia azpimarratzen dio. Pasarte batean agerian jartzen da Arrastoarekin batera kobazuloan bizi direnen eta "orainean" bizi diren bi haurren arteko talka, edo bestela esanda, hor geratzen da agerian lehen aipatutako antzinako munduaren eta modernoaren arteko topaketa eta talka; izan ere, koban bizi direnak biziki haserretzen dira haurren janzkeragatik (gorputza agerian uzten duten soineko motzegiak darabiltzatelako), baita dantza egiten dutelako ere, lizunak iruditzen baitzaizkie horiek (50-53). Ildo berean, Gastesi momentuko gizarteaz kexu da, penitentzia egiten duten kristauen ordezkorkeriaz eta lizunkeriaz beteta dagoelakoan (49-50).

Aurrera egin aurretik, ohartaraztekoa da aipatu ditudan pertsonaia horiez gain, kobazuloan izaki mitologikoak agertzen direla. Batetik, Sanson ageri da (62), Aranoko etsaiei botatzeko harria prestatzen ari dena, hura bota eta guztiak hil nahi dituen. Bestetik, Sansonekin borrokatzen duen Basajaun ageri da, eta Juanagorri bera ere erdi intxixua dela esaten da. Baina horiez gain, lau sorgin, hiru manu, bi deabru txiki, Marigorri deabrusa, Deabru jauna eta Basajaunen Konpañiya ere ageri dira. Noizean behin, Juanagorrik ardoa edan eta mozkortu ostean loak hartzen duenean, izpiritu guztiak agertzen dira. Horrelakoetan, Deabruak konjurua egin eta hankaz gorako leku bihurtzen du leizea (30). Hortik dator, hain zuzen, antezlanaren izenburua, kobazuloa Buruntza mendiaren azpian dagoelako eta dena hankaz gorako lurraldea delako. Hori gertatzen denean, sorginduta, bertan bizi direnek haien ohiko portaeraren aurkako jarrera erakusten dute. Ona eta lasaia zirudien Arrastoa jeneralak gerra hasteko aldarria egingo du eta ero basatien antzera jokatu du armekin mehatxuak eginez eta elizak, eskolak zein liburuak erreko lituzkeela oihukatuz (82). Gastesik, berriz, ardoa eman diezaioten pikardiaz oihukatzeaz batera, zertarako otoitz egin behar duten galdetuko du (81); eta hori gutxi balitz, haurren dantza ustez lizunak dantzatzera animatuko du Xerafina neskame arlotea (87). Leizeko izpirituak desagertzeko modu bakarra Juanagorrik txistua jotzea da eta hori da izpirituek trabak jarri arren Margaritak behin eta berriro egingo duen saiakera. Pertsonaia hori aipatu dudala, esanguratsua da lanaren amaiera aldera datorren pasarte. Margaritak, goizaldea hurbiltzen ari dela, izpirituek alde egin eta ilargiak kobako sarrera irekitzean ihesi joango direla oihukatzen du malkoak lehorteaz batera:

Bai, probatu egin behar dut... Jaunagorrik, probatu egin behar dela esaten du. Hemendik hil gabe ateratzen banaiz libre izango naiz. Libre! (Irrifarrez eta ameslari.) Libre! Loreak begiratu, mendietan ibiliko naiz... Errekatxoetan bainatuko [...]. Izarrak eta illargia eta eguzkia ikusiko ditut! Eta nere eskuen artetik udaberria jaioko da. Libre izango naiz! (92).

Goiko lerroetako Margaritaren pasarte hori oso esanguratsua da, izan ere, Etxanizek dioen bezala:

Margaritak presondegi duen leize hori 40 urtez euskal gizarteak preso izan duen diktadura besterik ez da; eta libre izateko pasio hori, desira hori, askatasunaren aldeko aldarrikapena dugu. Idazlana dramatizatzerakoan urtetako zentsura gainditzeko eta jendearen nahiak bideratzeko modua (2012b: 112).

Irakurketa horrekin bat egiten dut eta interesgarria iruditzen zait aipatzea liburuak 1975ean zentsura pasa zuenean irakurleak (liburuak zentsura pasatzen zuen ala ez erabakitzen



zuen pertsonak) ez zuela interpretazio hori egin. MHLI ikertaldearen baitan, Archivo General de la Administración (AGA) delakoan gordetzen diren euskal liburuen zentsura fitxen azterketa egin genuen eta liburu honi egindako zentsura-espedita irakurrita<sup>61</sup> argi nabari da irakurleak gaineratik pasa duela lerro arteko mezu hori. Lehenengo irakurleak hurrek antzetzeko antzerki piezak direla aipatzen du eta euskarako irakurlearen iritzia eskatzen du (suposatzen da euskaraz zekien irakurleak obraren edukia xeheki aztertuko zuela). Bigarren irakurle horrek emandako epaian ordea, argi ikusten da irakurleak euskararen ezagutza eskasa izateaz gain, ez duela obra bera oso ondo ulertu, honakoa baitio:

Es una pieza de teatro infantil: “Bajo en cazo (o Bajo el tridente) y todos patas arriba” es el título. La obra ingenua, es moralizante. Los consejos de hacer el bien, ayudar al prójimo, los juegos, las hadas y demonios forman un conjunto de fondo educativo general (AGA, 13141-75 esp., 73/05196 kaxa).

Gainera, aztergai dudan Iriondoren obra “aconsejable” gisa katalogatzen du, hau da, liburua gomendatzen du. Eduki moralizatzaileari dagokionez, egia bada ere mezu batzuk agerian ematen direla (Arrastoa jeneralak irakurzaletasunaren alde eta induljentiaren alde egiten duen aldarria), ez nuke esango oro har obran didaktikakeria gailentzen denik. Istorioak amaiera zoriontsua dauka, deabruak bi hurrei leizetik alde egiten uzten baitie. Liburua narratzaile lana egiten duten sorgin eta deabrutxoek hitzekin amaitzen da eta antzezlanean kontatutakoaren egiazkotasuna zalantzan jartzen dute (111-112). Ez nuke antzerki lan honen gaineko azterketa amaitu nahi balorazio orokor bat eman gabe. Egia bada ere baliabide dramatikoek dagokienez testua ez dela aberatsa, iruditzen zait obra sortu zen garaiko testuingurua ulertu behar dela eta hortik epaitu behar dela Iriondoren lana. Liburuaren lehenengo orrialdean esaten den bezala, 70eko hamarkadan apenas zegoen haur eta gazteentzako antzerki lanik (6)<sup>62</sup>. Egoera horretan, Iriondok lan arin eta entretenigarria sortu zuen (umeen parte hartzearekin), haurrak antzerkia egitera bultzatu nahi baitzituen; eta horretarako, eredu simple bat eskaini zien. Eredurik ez trebakuntzarik ez zuten haur euskaldunei obra simple bat eman nahi izan zien, abiapuntu bat. Fernández-Zabala,

---

<sup>61</sup> MHLI ikertaldearen webgunean aurki daiteke Iriondoren liburuak jasotako zentsura-espedita osoa: [https://mhli.net/fitxak/?\\_sft\\_egileafitxa=lourdes-iriondo](https://mhli.net/fitxak/?_sft_egileafitxa=lourdes-iriondo). [Azken kontsulta: 2023/11/04].

<sup>62</sup> Etxaniz eta López Gasenik (2007) aipatzen duten moduan, Tene Mujikak 1922an *Nekane edo Neskuntzaren babesa* idatzi zuen, haurrentzako lehenengo antzerki lana. Horren ostean, Martínez Sierraren antzerki motz bat itzuli zen euskarara, *Seaska-Abestia* (1932). Hamarkada batzuk beranduago, Nemesio Etxanizen *Lur Berri billa* (1966) liburua kaleratu zen, zeinetan besteak beste, ipuinak, poemak eta antzerkiak biltzen diren. 1973an, aztergai dudan obra argitaratu baino lehenago, Iriondok berak 2 antzerki lan eman zituen argitara, lehen aipatutako *Martin arotza eta Jaun deabrua*, eta *Sendagile maltzurra*.

Urzelai-Vicente eta Villagrán-Arrastoa lanak azaltzen duen moduan, 60ko hamarkadatik aurrera, eta batez ere Ikastolen bidez, eraberritze pedagogikoa jarri zen martxan:

Pedagogia sortzaileak garrantzia hartu zuen, hau da, haurrak hartzaile hutsak izatetik parte-hartzaile eta sortzaile izatera eramango zituena. Horrek HGLn eragina izango zuen, haurrak irakurle eta idazle izatera bultzatuko baitituzte 70eko hamarkadan, eta Ikastoletako haurrek ilustratutako edo idatzitako zenbait obra aurkituko ditugu garai honetan (2022: 128).

Horren adibide da Iriondoren lana, esan bezala, marrazkiak haurrek egindakoak baitira eta haiek sorkuntzara animatzeaz gain, testu barruan haurrak agertzen baitira antzerki obraren egile. Ezaugarri hori balioan jartzeaz gain, (euskal) izaki mitologikoak txertatzen ditu obran eta 70eko hamarkadako erretratu ematen du, bi mundu ikuskeraren arteko talka hori (kristaua eta aurrerakoiagoa) agerian jarritz.

#### **6.2.1.2. Sara izeneko gizona**

Bernardo Atxaga<sup>63</sup> (Asteasu, 1951) idazle ezagunak 1996an Pamiela argitaletxean argitaratutako lana da jarraian aztertuko dudana. Egileari dagokionez, ezin aipatu gabe utzi bera dela, zalantzarik gabe, euskal idazle garaikide unibertsalena (Olaziregi, 2005), baita itzuliena eta sarituena ere. Haur eta gazteentzako lan ugari idatzi ditu, baita helduentzako lan ugari ere, eta esan daiteke literatur genero guztiak landu dituela. Helduei zuzendutako lan bakar batzuk aipatzearen, Euskadi Literatura Saria eta Espainiako Narratibako Sari Nazionala eskuratu zuen *Obabakoak* (Erein, 1988), Espainiako Kritika Saria lortu zuen *Bi anai* (Erein, 1985), Euskadi Literatura Saria eta Espainiako Kritika Saria irabazi zituen *Nevadako egunak* (Pamiela, 2013) eta *Gizona bere bakardadean* (Pamiela, 1993), *Etiopia* (Pott liburutegia, 1978) poesia liburu mugarrria, Espainiako Kritika Saria eskuratu zuena, edo *Markak. Gernika 1937* (Pamiela, 2007) saiakera (*Markak* dokumentalaren abiapuntu izan zena) aipa daitezke. HGLri dagokionez, ordea, aurrerago aztertuko dudana *Behi euskaldun baten memoriak* (Pamiela, 1991) aipatu behar da ezinbestean, baina baita Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria eskuratu zuen *Xola eta basurdeak* (Erein, 1996), *Bambuloren istorio Bambulotarrak* trilogia (Erein, 1998-1999), *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (Erein, 1984), *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982) lana, euskal HGL modernoaren sorrera markatu zuten liburuetako bat, edo Ata Pank eta Ate Punky-ren ibilerak biltzen dituzten 3 liburuak (Pamiela, 2020-2022). Aipatutako lan horietako batzuek Euskal Herriak

---

<sup>63</sup> Joseba Irazu Garmendia ezkutitzen da Bernardo Atxaga goitizenaren atzean, Ekonomia Zientzietan lizentziatu eta 70eko hamarkadan literaturan murgildu zen idazlea.

bizitako gatazka politiko eta armatuak dituzte hizpide eta argi ikusten da hala helduei zuzendutako literaturan nola HGLn Atxagak ez diola euskaldunek sufritutako garai gatazkatuenak lantzeari ihes egiten. Bere lanetako batzuk pantaila handira eramanez, Montxo Armendarizen, Aizpea Goenagaren, Imanol Rayoren eta Fernando Bernuésen eskutik sortu baitziren, hurrenez hurren, *Obaba*, *Zeru horiek*, *Bi anai* eta *Soinujolearen semea* filmak (azken hori antzerkira ere eramanez). Era berean, musikari ugari hartu dituzte Atxagaren letrak oinarri, besteak beste, Ruper Ordorikak edo Mikel Laboak.

## Laburpena

12 urtetik gorako irakurleei zuzendutako 150 orrialdeko espia nobela hau Lehen Guda Karlisten garaian girotuta dago eta Martin Saldiasen ibilerak kontatzen ditu. Berau, Sara goitizenezarekin, Zumalakarregi jeneralaren zerbitzuan zelatari modura arituko den gizona da.

## Harrera kritikoa

Baiezta daiteke liburuak harrera ona izan duela, euskaraz gain, liburua gaztelaniaz, katalanez, galegoz, frantsesez eta italieraz aurki baitaiteke. Horrez gain, aipatzekoa da 10.000 alekoa izan zela lehenengo tirada eta jatorrizkoa argitaratu eta 9 urtera, edizio berritua atera zuela Pamielak, hurrengo atalean azalduko ditudan aldaketa nabarmenak eginez. Hainbat ikertzailek mintzagai dudan lan hau izan dute hizpide haien lanetan (Ayerbe, 2016; Manterola, 2012; López Gaseni, 2005 eta Apalategi, 1998, besteak beste), Atxagaren lan bat denez gero harriztekoa ez dena, hain egile ezagun eta kanonikoa izanik, bere argitalpenek beti sortzen baitute ikusmira. López Gasenik (2005) eta Ayerbek (2016) dioten bezala, literatur generoz mudatu da lan hau sorkuntza prozesuan. Lehen bertsioa Euskadi Irratiko “Antzoki iluna” irratsaiorako irrati-nobela moduan sortu zuen Atxagak 80ko hamarkadan, *Sara: Zumalakarregiren zelatari* izenarekin. Euskara ikasten ari ziren helduentzako sortu zuen eta 12 atalez osatua zegoen. 1990. urtean, irratiko grabazioarekin batera argitaratu zen. 1996an, berriz, “Un espía llamado Sara” eman zuen argitara prentsan (*El Diario Vasco* eta *El Correo* egunkarietan), gaztelaniazko moldaketa bat, 15 emanalditan zehar. Urte berean, *Un espía llamado Sara* (Acento, 1996) eta *Sara izeneko gizona* (Pamiela, 1996) eleberriak argitaratu ziren, gazteentzako bilduman<sup>64</sup>. Apalategik (1998: 78) dioenez, Atxagak berak aitortu zuen

---

<sup>64</sup> López Gasenik (2005: 76-82) xehetasun handiz deskribatzen du testu mota batetik bestera eta hizkuntza batetik bestera (autoitzulpenean) Atxagak egindako aldaketak.

euskarazko bertsioa sortu zuela lehenengo<sup>65</sup>. Jatorrizkoaren hizkuntza alde batera utzita, bertsio eta testu-genero batetik bestera egindako moldaketek iradoki lezakete irakurleek Atxagaren obrarekiko erakutsitako interesa eta harrera ona. Bide batez, aipa dezadan *Booktegik* Mikel Gartzia Santamariak egindako liburuaren irakurketa (audio-liburua) jarri zuela eskuragarri, 7 ataletan banatuta<sup>66</sup>. Ezin aipatu gabe utzi hainbat eskoletan aztergai dudan obraren irakurketa bultzatu dela eta zenbait ikaslek obrari buruzko *booktuberrak* egin dituztela (horietako batzuk sarean daude eskuragarri). Ez hori bakarrik, Galtzagorri Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean sortutako *Booktuberboom* egitasmoko 2019ko edizioko irabazleak Atxagaren obrari buruzko booktuberra sortu zuen eta bideo hori hainbat hedabidetan jarri zuten ikusgai (liburuaren ikusgarritasuna handitu zuena nolabait). Ez dezadan aipatu gabe utzi eleberria “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela Galtzagorri Elkarteak.

Eleberriak jasotako kritikari dagokionez, Javier Rojok (1997) sailkatzen erraza ez den iruzkina egin zion liburuari. Atxagaren lanak bi sailetan bereizten ditu, serioak batetik, zeinetan aukerak sakon aztertu eta gaiak goitik behera aztertzen dituen; eta bestetik, konpromisozko lanak deitzen dituenak, besteen mailara iristen ez diren arren, edozein gai hautatu eta narratzailearen abileziari esker lan *itxurosoa* izatera iristen direnak. Azken horien multzoan sartzen du aztergai dudana. Eleberri sinplea iruditzen zaio, joko tekniko korapilatsurik egiten ez duena, idazkera zuzen eta gardena darabilena, baina *folletoietatik hartuta dirudien teknika erabiliz*. Guda karlistari erreferentzia egiteko modua ez zaio aproposena begitandu, haren ustez, beste gatazka bati erreferentzia egiten ari zaiola dirudi, eta Atxagak lan sakonagoa eta jasoagoa egiteko aukera galdu duela uste du. Hori guztia kontuan hartuta, Rojok gaineratzen du “Atxagak lan polita egin du[ela]. Besterik ez”. Mikel Aldalurrek (1997), berriz, irakurleei hutsik egin ez dien obra atsegina dela esanez hasten du bere kritika, nahiz eta onartzen duen ez dela *Obabakoak* edo *Gizona bere bakardadean* bezalako obren mailara iristen, eta beraz, iruditzen zaio Atxagazalea den irakurleak faltan botako duela aurreko obrek darabiltzaten hizkuntza eta hitz jokoak. Hala ere, protagonistak biziko dituen gorabeherak eta istorioa lotzeko moduak irakurlea heldu eta haren interesa amaieraraino eusten duela aldarrikatzen du. Goraipatzen duen beste ezaugarri bat Atxagak kapitulu bakoitzaren amaieran epilogoak txertatzeko egin duen hautua da, izan ere, kritikariari

---

<sup>65</sup> Apalategik honakoa dio: “Sara izeneko gizona jadanik ez dakigu ondo ia euskaraz idatzi duen lehenik alal alderantziz (idazleak berak prentsan argitzen duenez, lehenik euskaraz, ondoren gaztelaniaz eta azkenik erreposo berri bat euskarazko bertsioari). Horrez gainera, gaztelaniazko argitalpena euskarazkoari aurreratu zaio liburudendetan, «argitaletxeen arteko koordinazio falta zela-eta» (dixit Atxaga)” (1998: 78).

<sup>66</sup> Hona hemen esteka: <https://www.youtube.com/watch?v=-rKNTGHdDag>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

iruditzen zaio obrako ezusteko handienak bertan aurki daitezkeela, eta beraz, ondorioztatzen du bete-betean asmatu duela epilogo horiekin. Kritikak irakurrita, iruditzen zait aztergai dudan liburuaren eta gerora argitaratu diren beste liburu batzuen “madarikazioa” dela Atxagaren beste obra goren edo bikain batzuekin erkatzeko arriskua. Iruditzen zait idazlearen itzal horrek eta beste lan batzuekin egindako erkaketa horiek kalte egiten diotela obrari, beste lan batzuk hartzen baitira abiapuntu eta neurgai, eta ondorioz, harekiko konparazioan eraikitzen baita kritika. Bide batez, HGLko lan batez aritzean, iruditzen zait kontu handia(goa) izan beharko luketela kritikariek helduentzako liburuekin alderatzen jartzen direnean. Horrekin, noski, ez dut esan nahi testuaren balizko sinpletasunari buruzko epaiak zilegi ez direnik, baina ongi bereizi beharko lirateke hartzailearen beharretara egokitzearen ondorioz testuak izan dezakeen egitura sinplea eta baliabide literarioak gehiegi apaltzeak ekar lezakeen balizko sinplekeria.

Testuaren berariazko hartzaileak aipatu ditudala, beti da interesgarria kritikarien esanak aztertzeaz gain, haur eta gazteen iritziei erreparatzea. Sarean begiratzuz gero, Alegiako Aralar BHI eskolan liburu landu ostean sortutako bloga aurki daiteke, zeinetan ikasleen iritziak biltzen diren<sup>67</sup>. Abentura liburuaren entretenigarritasuna, interesa eta irakurlea harrapatzeko gaitasuna da maiz errepikatzen dena. Hala ere, ikasle askok liburuaren hasiera kritikatzan dute, esanez lehenengo orrialdeak ez direla sobera dibertigarriak, nahiz eta onartzen duten kontaketa aurrera egin ahala irakurlearen interesa pizten dutela protagonistaren abenturek. Agerikoa den beste kritika negatibo bat pertsonaia ugariren agerpena da, izan ere, ikasle askok kritikatzan dute ugaritasun horren ondorioz, apur bat nahasgarria dela kontakizunaren haria jarraitzea.

### **Analisi narratologikoa**

Paratestuko irudiek irakurleak orriotan aurkituko duena aurreratzen dute. Josemi Goyenak egindako azalean, bibotedun gizon bat ageri da, jaka urdina eta txapel gorria jantzita duela. Txapelaren azpitik, eta gizonaren buruan sartuta, hontz bat ageri da. Animalia hori agertzea ez da kasualitate hutsa, haren sinbologia ezagutzen duenak jakin badaki sekretuen eramaile dela animalia harrapari gautar hori eta zelatari lanarekin lotzen dela. Ildo horretan, esan daiteke liburuko protagonista den Martin Saldiasi egiten diola erreferentzia, Sara goitzenaren atzean ezkutatuta, Zumalakarregi jeneralaren zerbitzuan zelatari modura arituko

---

<sup>67</sup> Hona hemen esteka: <http://aralarbhigazteliteratura.blogspot.com/2006/03/sara-izeneko-gizona.html>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

baita 40 urteko gizona. Liburua zabaldu eta irudi gehiago ageri dira barruan, istorioa girotzen dutenak hain zuzen. Batetik, fusilak, baionetak eta ezpatak daramatzaten tropa karlistak ageri dira basoan. Batzuk zaldi gainean doaz, beste batzuk oinez, eta gutxi batzuk, ordea, lurrian daude, hilik. Bestetik, karlisten txapel gorriak ageri dira. Horrez gain, Baroi G. von Rahden-en 1834ko zuri-beltzeko mapa bat ageri da (Euskal Herriaren zati bat erakusten duena), eta haren gainean hontz beltz bat. Hurrengo orrialdea hontz formako marrazki batekin hartzen du eta bertan karlistak ageri dira, burezurra daraman bandera beltz batekin. Ikus daitekeenez, hontzaren motiboak zentraltasun handia du, eta ez azaleko edo liburuako lehen orrialdetako irudietan bakarrik; kapitulu bakoitzaren hasieran, hontz batekin egingo baitu topo irakurleak. Liburua 7 kapitulutan banatuta dago eta bakoitzaren amaieran, epilogo gisa txertatutako 2 orrialde datoz, zeinetan istorioko pertsonaiaren baten pentsamenduak, susmoak eta usteak azaltzen diren. Kaleidoskopio gisako ikuspuntu aldaketa horrek, ikuspuntu aniztasuna emateaz gain, bizitasuna ematen dio kontakizunari.

Lehenengo kapituluan, istorioa testuinguruan kokatzeko oinarritzko informazioa ematen du narratzaile orojakileak. Lehen Guda Karlista nola hasi zen kontatzen du zehaztasun handiz. 1833ko martxoan, Espainiako Errege Fernando VII.ak anaia Carlosi ondorengotzari buruzko asmoa aditzera ematen zion gutuna bidali ziola azaltzen da, hau da, legearen arabera errege-aulkia Carlosi zegokion arren, bere alaba Isabel izendatu nahi zuela bere ondorengo, eta hura umea izaki, egoera hark erregearen emazte Maria Cristina egingo ziola mesede, baita Espartero jeneralari ere, ondorioz. Carlosek erabaki hori onartu ez eta 5 hilabete geroago, Fernando VII.a hil zenean, Carlosen jarraitzaileak matxinatzean hasi zen Lehen Gerra karlista (11-12). Gerran elkarren aurka borrokatu zuten bi bandoak ere zehazten dira: Matxinatuak alde batetik, Carlosen aldekoak edo *karlistak*; eta Isabelen gobernuaren aldekoak bestetik, *liberalak* (12). Informazio historiko horrez gain, istorioko protagonista aurkezten du narratzaileak. Marinela lanbidez, 1834ko uztailaren 14an zaldiz abiatuko da Bilbotik Irurtzunerara, tropa liberalen kontrolei itzuri eginez, buruan gordeta Zumalakarregi jeneralarentzat garrantzi handiko informazioa daramala. Bidean zailtasun ugari egin beharko dio aurre eta bando bateko zein besteko tropekin izango ditu liskarrak.

Mikel Ayerbek (2016) kritika genetikoaren ildotik Atxagaren obra landu zuen tesian eta mintzagai dudan liburuari buruzko idazketa eta berridazketa prozesuak izan zituen aztergai. Ikertzaileak dioenez, 2014ko edizio berrituan aldaketa nabarmenak egin zizkion Atxagak lehenbiziko kapituluko sarrerari eta arestian aipatutako Guda karlistaren aurrekariak ezabatu zituen. Edizio berrituan, beraz, Martinen bidaiak ematen dio hasiera kontakizunari,

baina bidaia 1834ko uztailean hasi ordez (lehenengo edizioan ageri den bezala), abuztuan hasten da. Beste aldaketa nabarmen bat kokalekuan egindako aldaketa da, lehenengo edizioan Irurtzunen gertatzen baitira ekintza nagusiak, eta edizio berrian, berriz, Lekunberrin. “Aldaera nagusi horiez gain, testua goitik behera eguneratua, zuzendua, moldatua eta, hitz batean esateko, berridatzia izan da. Eta Atxagak adierazi bezala, berridazketaren helburu nagusia testua arintzea eta argitzea izan da”, azaltzen du Ayerbek (2016: 214). Testu nagusitik kanpoko bestelako aldaketak ere aipatzen ditu ikertzaileak, besteak beste, bertsiio berrian erantsitako “sarrerako oharra” edo irudietan egindako aldaketak (babesorrietako marrazkien ordezkapenak edo edizio berrian erantsi diren karlistaldietako 2 ilustrazioak).

Liburuaren hasieratik bertatik aipatzen da bere gogoz abiatuko dela Martin gerrara (12) eta lehenengo orrietatik bertatik agerian jartzen da bere ideologia: “Laster ezagutuko zuen Zumalakarregi, *Osaba Tomas*, karlisten arteko gizonik bikainena [...] hainbeste miresten zuen militarren aurpegia” (23-24). Dena den, narratzailearen bidez, egileak gerraren zentzugabekeria agerian jarriz, indarkeriaren aurkako jarrera ematen du. Pasarte batean, Martin eta eraso egin dion goardia karlista hil ala bizi borrokatzen ari dira Irurtzongo kale batean, eta honakoa dio narratzaileak:

Zertan ari ziren pentsatzera gelditu izan balira, argitasun une bat izan balute Don Carlos edo Maria Cristinarekin inolako zorrik ez zutela konprenitzeko, beren jeneral edo kapitainei ere ez zieten ezertxo ere zor, zor bakarra beren buruarekiko, beren biziarekiko zutena zela, hartara, nola batak hala besteak segituan borrokatzeari utzi eta, elkarrekin barre eginez, mugako bidea hartuko zuketena, beste herri baterantz, beste jende batengana, bizitza ulertzeko beste modu baten bila. Baina, zorigaitzez, ez Martin Saldiasen eta ez eraso zion goardia karlistak ez zuten beren egoeraren ikuspegi egiazkoa iristeko inolako posibilitaterik; beren baitan sartuegiak zeuden, momentuari lotuegiak, eta beren burua defendatzean eta erasotzean bestetan ez zuten pentsatzen (29).

Borrokaldiaren zentzugabekeriaren gain, narratzaileak gaineratzen du Martin hiltzera doanean konturatzen direla bi lagunak aspaldiko ikasketa-lagunak direla (30), eta horrek are ageriago uzten du gerraren aurkako aldarria. Ez hori bakarrik, bi lagunak arteko elkarrizketa hitanoa erabiliz ematen da (31, 33, 34) eta gertutasun horrek ere eragiten du aipatu berri dudana zentzugabekeria efektuan. Ustezko aurkariaren arteko borroketan ez eze, bando berekoen artean ere elkar akabatzen zuten maiz, eta horixe da narratzaileak pasarte honetan agerian jartzen duena: “Gerra garaian, mundu guztia suminkor bihurtzen zen. Soldadu guztiak ez ziren bataila zelaietan hiltzen. Batzuetan, agintariak troparen aurka oldartu eta norbait

fusilatzen zuten, inozoena, edo zorterik txarrena zuena, edo heldu berria zena” (32). Beste pasarte batzuetan, bi bandoetan borrokan ari direnak humanizatzeko ahalegina egiten dela antzeman dut:

Idea liberalak karlisten kolore gorri eta urdinetan izkututzen [sic] zituen gizon harengan bestetan ez zuen pentsatu. Nolako ote zen? Bera bezalakoren bat? Bai, bera bezalakoa izango zen. Gizon arrunt bat, bizitzaren gorabeherengatik, leialtasunez, bide arriskutsu bat hartu beharrean egokitutakoa” (23).

Goiko pasarte horretan, elkarren aurkako bandoetan borrokan ari diren bi gizon jartzen dira parez pare, baina bien arteko ezberdintasunak agerian jarri ordez, parekatu egiten dira. Beste batzuetan, kontraste handia egiten da Martinek gerraz duen idealizazioaren eta bere barne-ahotsak<sup>68</sup> egiten dizkion epaien artean:

Eta den-denak, salbuespenik gabe, bizia emateko eta bizia kentzeko prest zeuden, idealaren alde beti. Ez al zen edertasun handia? Zaldiaren gainetik, boluntarioek beren txapelekin osatzen zuten lerro gorri, sigi-sagatsua ikusten zuen Martin Saldiasek, eta bere harrotasuna eta poza areagotzen sentitzen zituen. Bai, txapelak gorriak ziren; kasakak, urdinak; bide ertzeko belarra, berdea; udako zeruan ageri ziren hodeiak, txuriak; bai, ederra zen hura (55).

Baina berehala hausten du idealizazio hori bere barneko mintzoak: “«Zer txoroa zaren, Martin! Zer gutxi dakizun bizitzaz!», aditu zuen orduan. Halako hitzak esaten zizkion Arenal Kafeko ugazaba-andreak, berak gerrari buruz ondo hitzegiten [sic] zionero” (55-56). Gainera, mintzo horrek berak jakinarazten dio borrokara doazen horiek ez direla boluntarioak, “gerrara doazen bakarrak etxeko gordelekuan harrapatu dituztenak direla, edo mozkortuta zeudela izena eman zutenak” (56). Horregatik, galdetzen dio ea zer egiten ote duen gerran parte hartzen (111). Kontzientziako mintzoak ez eze, narratzaileak ere epaitzen du Martinen idealizazio hori, azpimarratuz gerran ez zegoela benetako boluntariorik eta guztiak behartuta edo engainatuta joaten zirela, “sekula bataila zelai bat zapaldu gabeko apaiz eta jende haundi-maundiak engainatuta, edo jadanik gerran sartuta egon eta zorigaitzean konpainia nahi zutenek behartuta” (56-57). Liburuko azken kapitulua esanguratsua da oso, protagonistak gerrako errealitatearekin izandako hartu-emanaren ondoren, handik alde egin, itolarritik libratu eta Arenal Kafeko lagunekin biltzea desio baitu lehenengoz (143). Hori horrela, inteligentziaz eta zentzuz jokatzeko eta etxera itzultzeko eskatzen dion mintzoari jarraitzen dio Martinek (147-148) eta militar bizimodua alde batera utzita, Arenal Kafeko

---

<sup>68</sup> Atxagaren obran ezaguna den barne ahots edo kontzientziako mintzo hori aurrerago aztertuko dudana *Behi euskaldun baten memoriak*en ere ageri da.



ugazaba-andreari harekin ezkontzeko interesa adierazten dio (149-150). Gerraren hasieran ikuspegi kontrajarria zuten bi pertsonak (Martinek ez bezala ugazaba-andreak ez baitzuen onartzen ideal baten izenean tiroka hastea) bat egiten dute istorioaren amaieran (ezkontzaren bidez sinbolizatzen den ekintzarekin), gerrarik gabeko testuinguru batean. Liburuan argi ikusten da Martin protagonistaren ideologia aldaketa. Gudara bere gogoz joaten da eta tropak bidean aurrera egiten ikustean, edertasunaren apogeoan balitz bezala deskribatzen du ekintza hori. Amaieran, ordea, gerraren ikuspegi idealizatua izatetik, bizimodu militarra alde batera utzi, gertatutakoa ahaztu eta etxera itzultzea baino ez du nahi<sup>69</sup>.

Martinen istorioak amaiera zoriontsua du, baina aurreratu dudan moduan, gerra egoerak sortzen duen ankerkeria erakusten du aztergai dudan liburuak. Pasarterik esanguratsuen fantasia ukitu batekin ematen da, izan ere, “Arranoak pentsatu zuena” epilogoak, animalia horrek soldadu karlista eta liberalak San Faustoko bataila egiten ari direla pentsatzen duena jasotzen du<sup>70</sup>. Borrokaldia hasi aurretik, arranoak aipatzen du gose izanda ere, ehiza geroko utzi zuela, jakin baitzekien “ordurarteko esperientziak erakutsita, kolore desberdineko txapelaz jantzitako bi soldadu multzo elkartzen direnean, berehala hasten dela lehia, eta emaitza ezin hobeekin” (70). Dena den, aitortzen du jakinaren gainean egonda ere, ezin izan ziola izuari eutsi. Deskribatzen duen eszena benetan gogorra eta bisuala da:

Eta une hartan begitaratu zitzaidana sekulakoa iruditu zitzaidan: ehundaka mutil zeuden odoletan eta begiak zabal-zabalik zituztela. Zuhurki, haietako batengana hurbildu nintzen: ez zen mugitu. Mokokada bat jo nion: mugitu gabe jarraitu zuen. Bere bular gainean jarri eta eta jaten jarraitu nuen lasaitasun osoz. Gero, mutil hura utzi eta beste batengana jo nuen, eta honengandik beste hirugarren batengana. Ezin uka batailaren emaitza bikaina izan zela (71).

Arranoak bapo jan ahal izateak, noski, hildako kopuru altua jartzen du agerian. Narratzaileak ere karlisten eta liberalen arteko borrokaldi hark eragindako ondorioak esplizituki adierazten ditu: “Kronikarien esanetan, San Faustoko bataila sekulako sarraskia izan zen. Bi suren artean harrapaturik, soldadu liberalek ez zuten ia erantzuterik izan. Asko izan ziren hildakoak, hirurehun gizon inguru [...] Beste asko zaurituta geratu ziren” (66-67)<sup>71</sup>. San Faustoko gudua aipatu dudala, gaineratu nahiko nuke benetan gertatutako konfrontazioa izan zela, 1934ko abuztuaren 19an gertatu zena, Zumalakarregik Lizarratik irteten ziren

---

<sup>69</sup> Ideal politiko batzuen aldaketa edo galera ikus daiteke hori, eta ezaugarri hori Atxagaren beste obra batzuetan ere aurki daiteke, adibidez, *Gizona bere bakardadean* eleberrian.

<sup>70</sup> Ukitu fantastikoa du ere “Valdivielso tenienteak hil ondoren pentsatu zuena” atalak, hila den pertsonaia baten hil-osteko gogoetak ematen baitira (128-129).

<sup>71</sup> Esanguratsua da aipatzea narratzaileak irakurleari jakinarazten diola batailan hildako boluntario gehienak hobi orokorretan ehorzten zituztela (137).

liberalei erasotzea erabaki zuenean. Fikziozko pertsonaiekin batera, istorioan aipatzen diren izenetako batzuk errealak dira, adibidez, Zumalakarregirekin batera, San Faustoko batailaren harira aipatzen den Carandolet jenerala (54, 67), nahiz eta benetako izena Carondelet izan; edo Rodil jenerala (105).

Ez nuke aurrera egin nahi genero aldetik esanguratsuak diren pasarte batzuk iruzkindu gabe. Batean, Martin eta Aranburu hizketan ari direla, honakoa esaten dio protagonistak: “Hik kozinatzen al duk, ba, ofizialentzat? Ez al ditek Irurtzongo andreek egiten?” (48). Laburra da bi gizonen arteko elkarrizketa, baina argi ikusten da sukaldea (espazio domestikoa) andreen kontua dela. Beste pasarte batean, Irurtzongo sakristia itxuraldatuta dagoela aipatzen da, gaineratuz, bertako emakumeak apainketa-lanean aritu direla eta horietako batzuk sutondoan lan eta lan ari zirela gero (99). Sukaldean ez eze, zerbitzari lanetan emakumeak ari direla ikusten da (101). Liburu honetan emakumeak ez dira pertsonaia garrantzitsu gisa ageri, ez baitute kontakizunaren norabidean aldaketarik eragiten. Gainera, pertsonaia kolektibo gisa ageri dira, eta garbiketa-, sukalde- eta zerbitzari-lanak dagozkie. Amaitzen joateko, testu nagusiarekin batera Atxagak beste testu-genero batzuk tartekatzen ditu. Horietako batzuk Saldiasen poema-liburutik irakurtzen dituen olerkiak dira (94, 95, 112, 143). Beste pertsonaia batek *Andre Madalen* kantua hartzen du ahotan (118), eta gutun zatiak ere ageri dira (142, 136-137). Umorearen erabileran sakonduko ez dudan arren, labor bederen aipatu nahiko nuke frantziar jatorriko pertsonaien bidez irakurlearen barrea eragiten duten pasarteak txertatzen direla, frantsesezko hitzak sartzeaz gain (94-97, 118-119). Aztergai dudan liburu honekin amaitzeko, esango nuke Atxagaren eleberri honek oso argi azaltzen duela Lehen Guda Karlistaren hasiera, eta bando batean zein bestean parte hartu zutenen deskribapenak eskaintzen dituela. Gerrek dakartzaten ondorioak aipatzen dira (fusilamenduak, tiroketak, heriotza, ihesaldiak, presoak, traizioak, mesfidantza giroa edo gosea, besteak beste) eta horren guztiaren aurrean, gerraren zentzugabekeria eta jarrera antimilitarista nagusitzen da.

### **6.2.1.3. *Din, dan, don... Kanpai lapurrak non?***

Pako Aristik (Urrestilla, 1963) idatzi eta Juan Inazio Mendizabalek (Donostia, 1964) ilustratutakoa da jarraian aztertuko dudana obra, 1996an Elkar argitaletxean kaleratutakoa. Idazleari dagokionez, hainbat genero landu ditu, hala nola poesia, eleberria, antzerkia, saiakera, kronika edo biografia. Hartzaille helduari zuzendutako hainbat lan argitaratu du, baina azken urteotan haur eta gazteei zuzendutako lanak kaleratu ditu batez ere. Helduen literaturari dagokionez, aipatzekoak dira Espainiako Kritika Saria eskuratu zuen *Urregilearen*

*orduak* (Erein, 1998) eleberria, *Josu Dukatiren proposamena* (Euskaltzaindia/BBK, 2009) antzezlan, euskal gatazkari buruz mintzo dena eta Toribio Alzaga antzerki saria irabazi zuena; *Rosa itzuli da* (Erein, 2018) eleberria, euskal gatazkaren gaia ukitzen duena, Beterriko Liburua Saria eskuratu zuen *Gauza txikien liburua* (Erein, 2004), Tene Saria lortu zuen *Plazer bat izan duk, Benito!* (Elkar, 2012) saiakera edo *Euskararen isobarak* (Erein, 2014) saiakera lana. HGLri dagokionez, atal honetan aztertuko dudan liburuaz gain, aurrerago *Jose Maria Iparragirre. Haizearen semea* (Elkar, 2011) eta *Benetako lagunaren aterbea* (Ibaizabal, 1998) analizatuko ditut, Guda karlistak eta euskal gatazka ukitzen dutenak hurrenez hurren. Horiez gain, beste hogeit hamar izenburu ditu argitaratuak. Deigarria da, zalantzarik gabe, Aristik 80etan idatzitako *Kcappo* (Erein, 1985), *Irene* (Erein, 1987) eta *Krisalida* (Erein, 1990) eleberriekin gazteengan lortutako arrakasta (Olaziregi, 1998b).

## **Laburpena**

Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendutako 63 orrialdeko eleberri honek Bigarren Guda Karlistan girotutako abenturazko istorio bat eskaintzen dio irakurleari, zeinetan Beizama herriko tona bateko kanpai baten lapurreta kontatzen den.

## **Harrera kritikoa**

Xabier Etxanizek (1997b), hasieratik irakurlea harrapatzen duen intriga azpimarratu eta amaieran zer gertatuko den jakin nahiak, irakurlearen arreta mantentzen duela baieztatzen du. Gainera, idazleak darabilen estilo arina eta ekintzen bizitasuna goraiatzen du. Bestalde, ilustratzailearen lana ere positiboki baloratzen du, iruditzen baitaio garaiko giroa eta jantziak islatzen dituzten ilustrazio errealistek balio erantsia ematen diotela liburuari. Felipe Juaristik (1999), balorazio ona egiten du. Abenturazko istorioaren erakargarritasuna aipatu eta ipuin polita irizten dio Aristirenari. Horrekin batera, badirudi kritikaria bat datorrela idazleak bere liburuan eman nahi izan duen lezioarekin: sentimendu onak ageri dituen pertsonak irabazten du jokia. Jasotako kritika horiez gain, aipatzekoa da Galtzagorri Elkartek “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela obra eta gerora, *Booktuberboom* lehiaketara parte hartzeko osatutako dokumentuan, izenburu hori agertzen dela (beste batzuekin batera). Zerrenda horretan egoteak ikusgarritasuna ematen dio lanari eta gazteek irakurtzeko aukera handiagoa ematen dio, izan ere, hezitzaile askok hortik hautatzen dituzte urteko irakurgaiak. Sare sozialetan egindako bilaketa labur batek agerian jartzen du esandakoa, hainbat baitira aztergai dudana liburuari buruz *youtuben* ikusgai dauden *booktrailerrak*. HGLko CLIJ aldizkari espainiarrak 1997ko ohorezko zerrendan sartu zuen Aristiren obra.

## Analisi narratologikoa

Liburua eskuetan hartu eta azaleko irudiak kontakizuna girotzeko testuingurua ematen dio irakurleari. Harrizko kanpandorretik kanpaia lapurtzen ari diren hiru gizon eta bi mando ageri dira. Gizonek mahoizko fraka urdinak daramatzate, baita artilezko galtzerdi zuriak eta abarkak ere, eta izenburuak iradokitzen duen moduan, irudian ageri diren gizonak kanpai-lapurrak dira. Eskaintza labur baten ostean, sarrera gisako atal batek ematen dio hasiera kontakizunari. Narratzaile orojakile eta kanpodiegetiko batek Unai eta Mireia neba-arrebak aurkezten ditu. Ekaitz batek argirik gabe utzi du auzoa eta bi haurrak beldurtuta daude (5-6). Lehen umoretsuak ziren haien gurasoak sesiante hutsak bihurtu dira eta azken aldian haserrealdi ugari izaten dituzte. Horrek, noski, ez du giro atsegina sortzen etxean (6). Gainera, anaia-arrebak kexu dira gurasoek ez dutelako haiekin denbora askorik pasatzen: “Gure gurasoek ez dakite istorio bat bera ere kontatzen [...] inoiz ez digute kontatu, aita beti futbola ikusten dago, eta ama rebistak leitzen” (19). Egoera horretan, kandelak saltzen ari den Leonidas agertzen da eta azaltzen die argirik gabeko gauetan istorioak kontatzen pasa litekeela gaua (10). Bi haurren prestutasunaren aurrean, eta kandelen argitan, Leonidas istorio bat kontatzen hasten da. Kontakizun hori da jarraian datozen 8 kapituluek gordetzen dutena.

Aurrera egin baino lehen, genero ikuspuntutik interesgarria den datu bat utzi nahiko nuke agerian. Liburuaren hasieran, irudi bat ageri da, zeinetan Leonidasekin batera eserita dagoen familia aurkezten den. Amantala darama amak eta narratzaileak jakinarazten du “amak, giro atsegina berreskuratzeko, esnea berotzen jarri du[ela]” (9-10). Liburuaren azken orrialdeetan, argia itzuli dela jakinarazten du narratzaileak eta aitarekin batera, bi haurrak mahaitik altxa eta telebistara joateko keinua egiten dutela, baina amaren errieta ostean (etxean gonbidatua dutelako), berriz esertzen direla mahaian (59). Pasarte horretan garbi geratzen da amaren zaintzaile rola edo etxekoen jokaera egokia bermatzeko duen ardura, eta aita, ordea, haurren gisara portatzen da, mahaiaren bueltan istorio bat kontatu dien gonbidatuaz ahaztu eta telebistara abiatzen baitira hirurak argia itzuli bezain pronto. Haurren jarrera horrek kontrastea egiten du narratzaileak hasieran dioenarekin, esaten baitu umeak istorioak entzuteko egarriz daudela eta gurasoek beste gauza batzuetan ematen dutela denbora (telebistan futbola ikusten, aitaren kasuan, edo aldizkariak irakurtzen, amaren kasuan); baina istorioak kontatzeko prest dagoen Leonidasekin bilduta daudenean, hura albo batera uzten dute telebista ikusteko aukera izan bezain pronto. Bide batez, interesgarria da gurasoen zaletasunez egiten den banaketan erreparatzea, ez baita kasualitatea gizonezkoa izatea futbola gogoko duena, eta ez ama.

Leonidasek kontatutako istorioari dagokionez, narratzaile orojakilearen ikuspuntua hartzen du, eta istorioa garaian girotuz ematen dio hasiera, irakurlea: “Mila zortziehun eta ez dakit zenbatgarren urtean, Bigarren Karlista Gerratearen garaian” kokatuz (13). Horrela abiatzen da kontakizuna, gau hartan, Baionako bitxigilerik aberatsenak Baptiste Lizarragari 500 kg brontze eta 500 kg zilarrezkoa den Beizamako kanpai berria ebastea eskatzen dionean (14). Eginkizun hori burutzeko, Baptistek aspaldiko lagun Jazinto Olariaga azkoitiarraren laguntza izango du, baita beste 4 gizonena ere<sup>72</sup>. Dena den, Baptistek ez die egia esango lapurretaren arrazoiari buruz, ezta geroko planari buruz ere. Jazinto lagunari mediku batek gaixoak sendatzeko kanpaia behar duela aipatuko dio (20-21) eta gizonak diru-beharrak bultzatuta onartuko du enkargua (20). Baina egia jakitean, Jazinto haserretu eta kanpaia elizara itzuli nahiko du. Bien arteko borrokaren ostean, Baptistek pistola sartuko dio ahoan lagunari eta mehatxupean onartuko dute guztiek bere plana (34):

Gerran ari dira liberalak eta karlistak. Nik ezagutzen dut liberal bat, Mendoza jenerala, eta zilar beharrean daudela aitortu dit, janariak, armak, jantziak erosteko. Berak zilarra erdi-prezioan erosiko digu, nondik datorren galdetu ere gabe. Ezti, abenduaren 31an [sic] Berastegiko bentara agertuko da jaun hori (34-35).

Lapurrak Berastegiko bentan daudela, Santa Kruz apaiz gerrillaria eta haren 20 mutil armatu agertuko dira (38), baita Santa Kruzen sekretario Kaperotxipi ere (benetako pertsonaia). Lapurrek, haiengandik libratzeko, Maria Catalina bentari ederra<sup>73</sup> hartu eta alde egiten utzi ezean neskatoa hilko duela esanez mehatxatuko du Santa Kruz (39). Liburuak eman lezakeen mezu ideologikoari begira, interesgarria da azken horren deskribapena nola ematen den aztertzea:

Ordurako kontu latzak esaten ziren Santa Kruz apaizari buruz, errukirik gabeko hilketak leporatzen zizkietenak, baina Baptistek bazuen itxaropena: neska hura errugabea zen, eta gaztea. Haren bizitza arriskuan zegoen bitartean, Santa Kruzek ez zuen ezer egingo [...] bazekien Santa Kruzek emakumeei beti errespetu berezia agertu izan ziela. Baina gauza bat ahaztu zitzaion Baptisteri: neska hura polita zela [...] Santa Kruzek ez zuen izaten kupidarik, ez barkamenik, saldukerian ibiltzen zen jendearentzat (39, 54).

---

<sup>72</sup> David Zapirain ikertzaileak 2007an aurkeztutako doktore-tesian, 1688 eta 1808 bitartean aritu ziren mikeleteak eta bidelapurak aztertu zituen eta Azkoitiko Jazinto Olariagaren gaineko datuak ematen ditu, hala nola, zein epetan aritu zen lapurretan, non eta norekin.

<sup>73</sup> Bitxia da Baptistek neska deskribatzeko erabiltzen duen *mari-urdin* izenondoa, ‘neska desiratua’ adiera duena, forma hori Ainhoa herriko hizkeran, baigorrieraz, zaraitzueraz edo erronkarieraz erabiltzen baita.

Karlistek kanpaia dutela, liberalak bentara gerturatu eta Mendoza jeneralaren soldaduek ostatua inguratuko dute (46). Narratzaileak bi bandoen arteko borrokaldiaren ondorioak azaltzen ditu: “Latza izan zen. Hamar karlista hilda, liberalak hogeita zortzi, benta balaz josia, kristalak hautsita, kanpoko arboladia kanoi tiroz zapuztua” (53). Horrez gain, zaurituak eta haien garrasiak ere aipatzen ditu (47) eta gaineratzen du “gerran, ezustean harrapatutakoak izaten dir[el]a sarraskirik handienak” (54). Dena den, irudietan ez da deskribatutakoa islatzen. Karlistek liberalen espioitzat hartuko dituzte lapurrak, baina era berean, liberalek karlisten aldekotzat hartuko dituzte. Narratzaileak aditzera ematen duen moduan, “hori gertatzen zaio sarri gerran ez batzuekin ez besteekin dabilenari: biek jotzen dute horrelakoa etsaitzat” (48). Aurrerago erakutsiko dudan moduan, parekoa etsaitzat hartzea tesiko corpuseko liburu askotan agertzen da. Istorioaren amaiera aldera, Santa Kruzek erbesterako bidea hartuko du (Kolonbiara), baina ez lehenago Berastegiko alkate liberala fusilatu baino lehen (53). Lapurrek Amasako Urrusta mendian lurperatuko dute kanoia eta inor ez da ausartuko bertara itzuli eta lurpetik ateratzen (58)<sup>74</sup>. Baptistek patu tragikoagoa izango du, izan ere, Baionako bitxigileak salatuta, preso hartu eta gillotinatu egingo dute (58). Ikus daitekeen moduan, lapurretan edo borrokan aritutako pertsonaiek ez dute amaiera onik izango, salbu eta kanpai urtzaileak, Maria Catalina bentariaren alboan geratzea erabakiko baitu. Maitasun istorio bat ehuntzen da bien artean eta narratzaileak ez du maitasunaren gaineko definizioa emateko aukerarik galtzen (45).

Azken orrialdeetan, Unai eta Mireiaren aitak istorioa kontatzen ari den Leonidasi galdetuko dio ea nola jakin duen lapurren eta urtzailearen istorio hori, eta erantzuna borobila iruditzen zait: “Gauzarik garrantzitsuenak jakiten diren moduan: gurasoengandik” (60). Esan gabe doa urtzailea Leonidasen birraitona zela (60). Transmisio filiatibo horren aldarrikapena liburuari amaiera emateko modu ederra iruditzen zait. Gainera, Leonidasek haurrei eta horien gurasoei ahoz egindako transmisio afiliatiboaren bidez, agerian uzten da gurasoek seme-alabekiko eduki beharko luketen ardura transmisioari begira. Azkenik, gaineratu nahiko nuke iragana modu berreraikitzailean irudikatzen duen kontakizun honek datu errealak fikziozko istorio batean sartuz, garai hartako testuinguruaren berri ematen diola irakurleari. Horretarako, testuaz ez eze, irudien laguntzaz baliatzen da, liburuan zehar ageri diren marrazkietan garaiko jantziak erakutsiz (15, 33, 40, 42, 45, 49, 57).

---

<sup>74</sup> Narratzaileak jakinarazten du urtzaileak ziria sartu ziela eta gaur egun arte lurpean egon den kanoiak ez duela zilarrik, urtzaileak kanpaia urtu eta zilarra kanoi-bolen barruan gorde baitzuen (62).

#### **6.2.1.4. Jose Maria Iparragirre. Haizearen semea**

Pako Aristik idatzi eta J. Carlos Nazabalek irudiz hornitutakoa da jarraian aztertuko dudana, 2011n Elkarren argitaratutakoa. Bost liburuz osatutako “Gure pertsonaiak” bildumaren parte da, zeinaren helburua baita Gipuzkoako pertsona famatuaren inguruko kontakizunak eskaintzea. Bost liburuez gain, materialak DVD bat dakar (ipuinaren edukia biltzen duena). Liburu guztietan Nazabal arduratu da ilustrazio lanez (batzuetan Imanol Zinkunegiren edo Jose Anjel Lopetegiren laguntzarekin), baina idazle diferente bat arduratu da pertsonaia bakoitzaren ipuin biografikoa sortzeaz (Pako Aristi, Mitxel Murua, Xabier Mendiguren eta Jesus Mari Olaizola “Txiliku”). Aristiren ibilbideari buruz aurreko atalean aritu naizenez, hemen ez dut informazio bera errepikatuko.

#### **Laburpena**

1877. urtean, Irunetik Tolosara doala, bidelapur batzuek diligentzia gelditu eta preso hartzen dute Iparragirre, beste bi kiderekin batera. Lapurrek erreskatea kobratu eta atxilotuak aske utzi bitartean, Iparragirrek bere ibilerak kontatuko dizkie beste bi lagunei, besteak beste, nola sortu zuen *Gernikako arbola* kantu famatua, nola ibili zen gerran karlistekin edo nola egin behar izan zuen alde Euskal Herritik. 30 orrialdeko lan hau 8 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta Iparragirreraren (Urretxu, 1820-Ezkio-Itsaso, 1881) gaineko datu garrantzitsuenak biltzen ditu.

#### **Harrera kritikoa**

Benetan zaila da lan honek edo proiektu honek izan duen harrera aztertzea, hainbat tokitan ikertu arren ez baitut inongo erreseina, kritika edo aipamenik aurkitu. Elkar argitaletxeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Kutxarekin lankidetzan eman zuen argitara proiektu hau, eta egindako aurkezpen publikoaz gain eta promoziora bideratutako bideoez gain, ez dut bestelako informaziorik aurkitu.

#### **Analisi narratologikoa**

Azal gogorreko irudian, Iparragirre ageri da gitarra eskuan eta atzean jende multzo handi bat duela. Janzkerari erreparatuta, kontakizuna iraganeko garai batean koka dezake irakurleak eta fusila eskuetan dutela ageri diren bi gizonen gerra testuingurua dakarte gogora. Laburpenean aurreratu bezala, Iparragirreri buruzko ipuin biografiko hau 1877an hasten da, Iparragirre Tolosara bidean doala, bidelapur batzuek diligentzia geratzen dutenean. Lapurrek

Iparragirre eta beste emakume batekin batera bidaian doan Pedro Egaña diputatuarengatik erreskatea eskatu nahi dute eta bitartean, preso hartzen dituzte hiru bidaiariak. Atxiloaldi horretan, Iparragirre bere ibilerak kontatzen hasten da. Batetik, 13 urterekin etxetik alde egin eta karlistekin gerran ibili zela aipatzen da, baita Karlos erregegaiaren bizkartzain izan zela ere (9). Lehen Gerra Karlista errepresentatzen duten irudiak ageri dira obran, zeinetan tiroka ari diren hainbat gizon ageri diren, Iparragirre gaztea barne (10). Gerra galtzean, Frantziara ihes egin zuela aipatzen da eta azpimarratzekoa da irudietan Errepublikaren aldeko eta Louis Philippe I.aren aurkako kartelak ikus daitezkeela (11-12). Iparragirrek sortu eta lehenengoz 1853an Madrilgo San Luis kafetegian abestutako *Gernikako arbola* kantu famatuari buruz ere hitz egiten du lan honek eta urtebete beranduago Loiolan abestutakoan jendearengan sortu zuen zirrara gogorarazten du, baita bere abestiengatik desterrura bidali zutela ere (13-16). Irudietako batean *Gernikako arbola* kantuarien partitura ageri da (32) eta *Ume eder bat zein Zibilak esan naute* abestiak aipatzeaz gain (19), *Gazte-gaztetatikan* kantuarien zati bat ematen da (27). Bide batez, *Marsellesa* ere aipatzen da, esaten baita Iparragirre Frantziatik bota zutela abesti hura kantatzeagatik (13).

Arestian Pedro Egaña (Gasteiz, 1803-Zestoa, 1885) diputatua aipatu dut eta zehaztu nahiko nuke abokatu, kazetari eta politikari foruzalea izan zela, liberalismo foruzalea korronte ideologikoa finkatzen lagundu zuena. 1868a arte iraun zuen *La España* aldizkaria sortu eta zuzendu zuen 1848an. Hainbat kargu izan zituen politika arloan. 1839an Diputatuen Kongresuan sartu zen Granadako probintzia ordezkatzuz. Ondoren, Araba ordezkatu zuen eta Gorteetako Diputatu izendatu zuten hurrengo hauteskundeetan (1868a arte egon zen kargu horretan). Azpimarratzekoa da ere 1876an Gipuzkoako ordezkari izendatu zutela, J. B. Acillona ahaldun nagusiarekin batera foruen antolamendua negoziatzean. Bide batez, lehenago aipatutako Karlos erregegiaia Karlos V.a (Aranjuez, 1788-Trieste, 1855) da eta esan bezala, Iparragirre harekin ibili zen, 1839an, Bergarako Hitzarmenaren ostean Frantziara erbesteratu ziren arte (itun hura onartu ez zuten beste batzuekin batera). Garaiko pertsonaia ospetsuez ari naizela, obran aipatzen den Mazarredo jenerala (13) Iparragirreri Espainiara itzultzeko indultua kudeatu zion politikari eta militar bilbotarra da.

Obraren amaieran, narratzaile heterodiegetiko eta orojakileak Iparragirre 1881ean bronkopneumonia batengatik hil zela jakinarazten du eta Bigarren Gerra Karlisten gaineko informazioa ematen du: “Bigarren Karlistaldia amaitua zen. Euskaldunek Foruak galduak zituzten, eta Iparragirreren kantez indar berri bat lortu zuten, euskal nortasunaren errebindikazio gisa. Askotan izan dira debekatuak; mila aldiz kantatuak ere bai” (31). Argitu



beharra dago Bigarren Guda Karlistak Ameriketara harrapatu zuela Iparragirre eta Alfonso XII.a tronura iristean, ezin zela “Gernikako Arbola” abestu, jendearengan Foruen aldeko jarrera pizten zuelakoan.

Azkenik, mintzagai dudaren obraren analisiarekin amaitzeko, kontakizunean zehar aldarrikatzen diren ideia edo balioak laburbildu nahiko nituzke. Batetik, barkamena aipatuko nuke, izan ere, Madrileko Kongresuan Iparragirreraren aurka hitz egin eta desterrura bidali zuen Pedro Egaña barkatzen du Iparragirrek, esanez zoritxarretik ere zerbait ona ateratekeela (17-19). Bestetik, indarkeriaren eta armen aurkako jarrera azpimarratu behar da. Dilijentzian Iparragirrerekin batera zihoan emakumeak (senarra bidelapur izateagatik preso duena) bidelapurrei errieta egiten die lapurretan ibiltzeak familian eta inguruan zoritxarra ekartzen duela esanez eta Iparragirrek abestu ostean bidelapurak hunkituta daudenez, hiru atxilotuak aske uztea erabakitzen dute (29). Baina Iparragirreraren aipu honek dauka mezurik azpimarragarriena:

Beste zerbait ere ikasi dut: armek ez dakarte ezer onik inorentzat, heriotza gehiago besterik ez. [...] Pertsonak ez dira arriskutsuak, sartzen zaizkien ideiak baizik. Ideiak onak badira, dena da ona. Ideiak txarrak badira, pertsonak ere bai. Zuk zer lortu zenuen ni desterratuta? [...] Kantak armak baino boteretsuagoak dira! (25-26).

#### **6.2.1.5. Karlisten altxorra**

Gaizka Arostegi idazleak (Portugalete, 1965) eta Julen Ribasek (Arrasate, 1981) batera ondutakoa da jarraian aztertuko dudaren liburua, 2014an Elkar argitaletxean argitaratu emandakoa. Idazleari dagokionez, irakurle helduari zuzendutako bost liburu argitaratu ditu, lau gaztelaniaz eta beste bat euskaraz. Horietatik, bereziki azpimarragarriak iruditzen zaizkit *El cálido julio del treinta y seis* (Ttartalo, 2003), zeinetan Gerra Zibila hartzen den hizpide, eta *Nocturno* (Ttartalo, 2014), Bigarren Mundu Gerran girotuta dagoena. Euskarazko lan bat ere kaleratu du, *Made in USA-Benetazko zapora amerikarra* (Elkar, 1988) ipuin bilduma. Haur eta gazteei zuzendutako lanei dagokienez, sei lan idatzi ditu, horietako lau Elkar argitaletxean, eta beste bi Ibaizabalen. Atal honetan aztertuko dudana gain, azpimarratzekoa da *Antipodak* (Ibaizabal, 2021) lana, euskal gatazka hartzen baitu hizpide, eta beraz, gai horri eskainitako atalean aztertuko dut. Horrez gain, *Urrezko orrazia* (Elkar, 2012) aipatuko nuke, Mikel Zarate Saria eskuratu baitzuen egileak lan horri esker. Ribas marrazkilariari dagokionez, Xabiroi euskarazko komiki aldizkarian ikus daitezke bere lanak, baina hamaika

lan hornitu ditu bere marrazkiekin. Bere irudiak dituzte tesi honetako corpusaren parte diren eta HGLko Euskadi Literatura Saria eskuratu zuten *Santa familia* (Ikastolen Elkarte, 2017) eta *Azken garaipena* (Ikastolen Elkarte, 2011) komikiak.

## **Laburpena**

Ikasturtean lan gutxi egin eta kurtsoa errepikatzearen ondorioz, aitak Baztango baserri batera bidaliko du semea, uda bertan bizi diren Irati eta bere amarekin igarotzeko. Bi haurrak lagun egingo dira eta abentura zirraragarri bezain arriskutsua biziko dute, Lehen Guda Karlista garaiko altxor baten bila abiatzea erabakiko baitute. Hamar urtetik aurrerako 135 orrialdeko lan honetan irakurlea 15 urteko Alex eta Irati gazteen atzetik abiatuko da eta haien barne-gatazkak eta bestelako kezak ezagutuko ditu.

## **Harrera kritikoa**

Irakurketa zaletasuna bultzatzeko asmoz Euskal Herriko ikastoletan antolatzen den Juul kanpainako 2016ko edizioan, 2. postua eskuratu zuen obrak (10 eta 12 urte bitarteko kategorian)<sup>75</sup>. Sariketa horri erreparatzea interesgarria iruditzen zait oso, izan ere, berriazko hartzaileak eurak dira liburu gustukoena hautatzen dutenak. Bestelako kritikei erreparatuta, Xabier Etxanizi (2014) arin irakurtzen den lana iruditzen zaio, bizia eta entretenigarria, baina aitortzen du kapitulu laburretan antolatutako egiturak istorioari bizitasuna emateaz gain, narrazioa arindu eta sinpletu egiten duela ondorioz: “Irakurteraztasunean irabazitakoa narrazioaren aberastasunean galtzen du, ordea; argumentuak deskribapen fisiko, sentimenduen kontakizun eta gogoeta gehiagorako ematen duelako”. Ikertzaileak aipatzen duen beste ahulgune bat gertakari ugarik duten auresangarritasuna da, iruditzen baitaio erraz antzematen dela hurrengo pausuak zeintzuk izango diren.

## **Analisi narratologikoa**

Izenburuarekin batera, azaleko irudiak irakurleak liburuan aurkituko duena iragartzen du. Altxorra begien aurrean duten Alex eta Irati neska-mutikoak ageri dira, txakurra lagun dutela. Alboetan baserri bat eta harrizko putzua ageri dira, baina irakurlearen arreta deitzen duena atzeko planoan ageri den espektro itxurako gizona da, eskuan kofre bat duena. Bere jantziengatik eta paparrean daramatzen gurutze eta dominengatik antzeman daiteke Karlos

---

<sup>75</sup> Orrialde honetan kontsulta daitezke edizio horretako liburu irabazle guztiak kategoriaz kategoriaz: [https://www.nafarroakoikastolak.net/nieikastola/Argazkiak/Dokumentuak/12\\_juul-2016-liburu-hautatuenak-ikas-toletan\\_20160422085701.pdf](https://www.nafarroakoikastolak.net/nieikastola/Argazkiak/Dokumentuak/12_juul-2016-liburu-hautatuenak-ikas-toletan_20160422085701.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/21].

V.a erregea errepresentatzen duela irudiak. Errepresentazio hori bera ageri da kontakizuna hasi baino lehen datozen orrialdeetan. Atzeko azalean, berriz, sinopsiaz gain, irakurlea tentsioan jartzen duen irudi bat ageri da: ezkutatuta dagoen Alex baserria zelatatzen ari da, gaez. Liburua 42 kapitulutan banatuta dago, baina kontakizunari ekin aurretik, istorioa girotzeko pasarte bat dator:

1839. urteko irailean, Don Karlos erregeak eta haren jarraitzaile karlistek, Espainiako tronua bereganatzeko gerra liberalen kontra galdu ondoren, muga zeharkatu zuten, Dantxarinean, erbesteko bidea harturik. Zenbaiten ustetan, kutxa handi bat zeramaten, urrez eta harribitxiz betea, matxinada berri bat sustatzeko. Baina altxor hura ez zen inoiz Iparraldera heldu eta Baztango laino artean galdu zen, arrastorik utzi gabe (5).

Ikus daitekeen moduan, narratzaile orojakileak Lehenengo Gerra Karlistan kokatzen du irakurlea. Dena den, “orainaldira” jauzi eginez, Alex eta Iratiren ibilerak kontatzen ditu, XXI. mendean gertatutakoak (38). Lehenengo orrialdeetan 15 urteko Alexen aurkezpena egiten da. Deskribapenen arabera, bolada txar bat izaten ari den mutikoa da. Ama duela gutxi hil zaio (9), eskolan ez da ondo ibili eta gainera, nerabezaroan ohikoa den nahasmena bizi du: “Azken boladan, zerbait arraroa gertatzen zaio, ulertzen ez duen zer edo zer. Ez dago batere gustura bere buruarekin, ezta gainontzekoen artean ere. Arrotz sentitzen da, galduta edo, bizitzaren itsasoan iparrorratzik gabe” (9). Ikasturtea errepikatzearen ondoriozko zigor gisa, aita Baztanen utziko du semea, Irati eta haren amarekin uda igaro dezan. Iratik sekula sentitu gabeko sentimenduak sorraraziko dizkio mutilari (19, 23, 29, 100) eta (lehen) maitasuna zer den ikasiko du Alexek, baita jelsia ere (23). Mattin auzokidearen agerpenak jelskor jarriko du Alex eta bi mutilak elkar joka hasiko dira (23, 25). Dena den, Mattinen baserriak su hartzen duenean, bi aldiz pentsatu gabe laguntzera joango da Alex eta bi mutilen arteko etsaigoa konponduko dute (68). Baina benetako abentura, euritik babesteko asmoz Alexek borda batean aterpe hartu eta karlisten altxor baten bila dabilzan bi gizonen elkarrizketa entzutean abiatuko da. Mutilak ez daki karlistak nortzuk ziren eta Iratik emango dio horren berri:

XIX. mendearen hasieran, Espainiako errege zen Fernando VII.a semezik gabe hil zen. Hori zela eta, tronuan nor eseriko zen erabakitzeak, bi talde osatu ziren. Bata, zenduaren alaba Isabelen eskubideen alde zegoen: liberalak. Besteak, ordea, hildakoaren anaia zen Don Karlosen aukera defendatzen zuen. Lege zaharraren eta erlijioaren sustatzaile sutsuak ziren azken hauek. Oso borroka latza izan zen. Gogor-gogorra. Euskal Herrian, hiri handietako biztanleak liberalismoaren alde zeuden. Herri txikietan, ordea, karlista amorratuak ziren [...] Gerrak zazpi

urte luze iraun zuen. Azkenean, odol eta malko anitz isuri ondoren, karlistek galdu zuten. 1839. urteko irailean, Don Karlosek muga zeharkatu zuen, erbestera bidea harturik (72-73).

Goiko azalpenaz gain, neskatoak gaineratuko du Don Karlosek urrez eta harribitxiz betetako kutxa bat eraman zuela desterrura, baina altxor hura ez zela inoiz Iparraldera iritsi, mugaz bertze aldera eraman behar zuen gizonak liberalek bidea moztu ziotela deskubritu eta kutxa ezkutatzeko erabakia hartu zuelako (72-74). Esan bezala, hainbat pertsona arituko dira altxor horren bila eta istorioko protagonistek momentu zailak pasako dituzte haien erruz. Pierrek, adibidez, haurrak erasotuko ditu eta bere kidea hilko du umeen aurrean. Gainera, Iratiri aitortuko dio bera izan zela bere aita eta txakurra hil zuena (95, 115). Alberto Irigoien lukurariak ere haurrak erasoko ditu (116) eta Iratiren amari intsinuazio sexualak egingo dizkio, zorrak ordaintzeko daukan epea luzatzea nahi badu berarekin oheratu beharko dela esaten baitio (70). Aipatu ditudan gaizkile horiek dira Mattinen baserria erretzen saiatuko direnak. Dena den, kontakizunak amaiera zorionsua du. Batetik, Irati eta bere amak baserria mantentzea lortzeaz gain, hainbestetan amestu duten Baionako gazta lehiaketa irabaziko dute (128) eta horrela, neskatoak defendatzen duenak zentzua hartuko du, hau da, gogoz saiatuz gero, zenbait amets egi bihur daitezkeela (21). Bestetik, Alexen baitan zerbait aldatuko da, izan ere, denbora luzean noraezean ibili eta gero, begiak eta bihotza estaltzen zizkion oihal beltza erori eta maite dutenekin zein ergela izan den ulertzen hasiko da (92). Ikusten den moduan, neskatoak Alexengan eragiteko gaitasuna izango du (hark aita galdu zuen duela urtebete), Iratiri kontatuko baitio lehenengoz bera izan zela amaren heriotza eragin zuen kotxe istripuaren erruduna (90)<sup>76</sup>. Eta ez hori bakarrik, Alexek aitari barkamena eskatu eta haien artean gauzak zeharo aldatuko direla promes egingo dio (132, 135). Azkenik, ezin aipatu gabe utzi bi gazteek maitasuna adieraziko diotela elkarri (42, 121, 130) eta liburua haien arteko musuarekin (eta bikotearen zoriontasunarekin) amaituko dela (135). Beraz, esango nuke karlisten altxorraren bilaketa gai nagusizat duen abenturazko eleberri honetan bestelako gai serio eta sakonagoak lantzen direla: Heriotza, maitasuna, laguntasuna, erruduntasun sentimendua eta barne-gatazkak nagusiki.

---

<sup>76</sup> Nahiko pasarte gogorra da hau. Narratzaileak kontatzen duenez, Alexek egundoko amorrua harrapatu zuen inolako arrazoirik gabe eta amari oihuka hasi zitzaion. Ama zerbait esateko biratu zenean, autoaren kontrola galdu eta kamioi baten kontra jo zuten. Talka gertatu eta handik gutxira, besoetan hil zitzaion ama Alexi.

### 6.2.1.6. *Argiaren alaba*

Yolanda Arrietak (Etxebarria, 1963) 2014an autoeditatutako lan honetan Lehen Gerra Karlista ez da gai zentral gisa ageri, baina gudaz ematen den informazioa nahiko zabala denez gero, iruditzen zait ezinbestean aipatu beharrekoa dela. Bide batez, gogorarazi nahiko nuke Arrietak helduei zuzendutako lehenengo obran, Irun Hiria saria eskuratu zuen *Jostorratza eta haria* (Alberdania, 1998) lanean, Euskal Herriko hainbat gerra aipatzen dituela, aipamen laburrak eginez bada ere: Gerra Karlistak, Gerra Zibila eta Frankismoa (estraperloa, errazionamendua, gosetea eta debekuak aipatzen dira). Idazle bizkaitarrak heldu zein haurrentzat idatzi du, baina horrekin batera, idazketa sortzailearen gaineko lantegiak gidatzen ditu, baita literatura lantzeko bestelako saioak ere. Antzerkigintzan ere aritu da eta alor horretan hainbat sari eskuratu ditu, besteak beste, Euskadi Antzerki Saria.

### Laburpena

Fikzioa eta errealtatea uztartzen dituen lan hibridotzat har daitekeen 12 urtetik gorako irakurleei zuzendutako 159 orrialdeko lan honen helburu nagusia irakurle gaztea Bizenta Mogel idazlearen (1782-1854) bizitza eta obrara gerturatzea da eta horretarako, gaurkotasunetik abiatzen da, Mirari izeneko egungo neskatila baten gorabeheren bitartez ematen baita Mogelen berri.

### Harrera kritikoa

Arrietak 2014an eman zuen argitara lana, autoedizioan, eta urtebete beranduago, Denonartean argialetxeak berrargitarapena atera zuen. Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuen lan hau eta abarmentzekoa da Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria irabazi zuela, sariketaren epaimahaikideek lan aparta zela iritzi baitzioten<sup>77</sup>. Obraren ezohikotasuna azpimarratu zuten, historia liburu bat izan gabe historia biltzen duelako, fikziozko lan bat izan gabe fikzioa duelako eta biografia izan gabe asko duelako hartatik. Horrez gain, epaimahaiak Bizenta Mogelen bizitza ezagutzera emateko Arrietak egindako ahalegina laudatu zuten, bai eta idazleak testuan darabilen hizkuntza ere. Imanol Mercero (2015), bere aldetik, obra gomendatzen du, Arrietaren jardun aniztuna aldarrikatzearekin batera. Azkenik, Amaia Alvarezek (2015), aurrekoen ildotik jotzen du, Bizenta Mogelen garrantzia azpimarratu eta gero, Arrietak bere ekarpena ezagutzera emateko

---

<sup>77</sup> Itziar Zubizarretak, Imanol Mercero, Elisabet Masek, Naroa Zubillagak eta Xabier Olasok osatu zuten epaimahaia. Lotura honetan irakur daiteke balorazio osoa: <https://www.euskadi.eus/informazioa/2015-euskadi-literatura-sariak/web01-a2kulsus/es/> [Azken kontsulta: 2023/10/31].

hartu duen lana aldarrikatzen baitu. Azkenik, Javier Rojok (2015), liburua interesgarri egiten duten alderdiak utzi zituen agerian, besteak beste, metafikzioaren alorrera egiten duen hurbilpena eta Mogelen itzala argitzeko Arrietak egindako hautua.

### **Analisi narratologikoa**

Hasteko, esan dezadan Arrietak berak aitortzen duenez (Oizmendi telebista, 2015), liburua idazten hasi zenean Jostein Gaarder idazle norvegiarrak *El Mundo de Sofia* (1991) lanean egindakoaren antzeko zerbait egin nahi izan zuela. Aztergai dudana liburua bi planotan egituratua dago. Batetik, Mirari protagonista (autodiegetikoa<sup>78</sup>) aurkezten zaio irakurleari, AEBn bizi den 17 urteko neskatua. Euskal Herrira lekualdatuko da Amaia izebarekin 2013ko uda Markina-Xemeinen igarotzeko, eta bertan hazi zen idazleari buruzko informazioa bilduko dute biek, benetako datuetan oinarritutako fikzio bat sortzeko<sup>79</sup>. Bestetik, iradoki dudana moduan, irakurlea iraganera, Bizenta Mogel bizi izan zen garaira, daraman kontakizuna aurkituko du irakurleak.

Iragana irudikatzeko modu berreraikitzailea aurki daiteke liburu honetan, zeinetan orainetik abiatzen den pertsonaia batek iraganeko gertakariak ikertzen dituen. Baina horrekin batera, modu historizista ere ageri da, hau da, historiografia akademikoa aurki dezake irakurleak. Liburuak Mogelen bizitza aurkezteaz gain, egileak berak liburua osatzeko ikerketaren kronika biltzen du, hura ere fikzionatua (Arrietak egindako lana egiten baitu eleberrian Amaia izebak).

Autofikziora gerturatuz, testuak hainbat narrazio-generotako teknikak eta hausnarketa metanarratiboak biltzen ditu (besteak beste, gutunak, egunerokoa, faksimilak edo hainbat euskal ikertzailek Mogelen gainean egindako lan akademikoak ageri baitira). Gainera, Mogelen gainean egindako “lantegi-hitzaldi-*performance*” delakoak osatzen du liburua, zeinetan Arrietak gidatuta, ikasleek 10 kutxatan banatutako dekalogo bat sortu zuten. Kutxa horietan kriseilua, abarkak, sendabelarrak, luma, ziba edo arrosarioa bezalako elementuak sartu zituzten (Mogelek erabili izan zituenak bezalakoak) eta objektu horiek guztiak dira

---

<sup>78</sup> Narratzaile motari dagokionez, kapitulu askotan Mirari ageri da narratzaile, baina beste pasarte batzuetan narratzaile orojakileak ematen du informazioa, adibidez, Mogelen gurasoen ezkontza biharamunaz hitz egiten den atalean (42). Horrez gain, badira iloba eta izebaren arteko elkarrizketa hutsez osaturiko kapituluak ere.

<sup>79</sup> Gurrutxagak (2018) liburuan sortzen diren hainbat ispilu-joko jartzen ditu agerian. Batetik, XXI. mendeko Mirari eta XIX. mende hasierako Bizenta jartzen ditu aurrez aurre (baita biek erakusten duten jakin-mina ere). Bestetik, neskatuaren izeba eta Bizentaren osaba Juan Antonio Mogel idazlea erkatzen ditu, biek gidatzen baitute ilobaren jakin-mina.

liburuko pertsonaiak, Mirari eta Amaia izeba, kontaketak aurrera egin ahala kaxetan sartzen joango diren objektuak.

Eleberriak bikain jartzen du agerian Mogeli bizitza egokitu zitzaion garaia testuinguru sozial, historiko eta kulturala. Liburuko izenburuak berak Ilustrazio garaian kokatzen du irakurlea eta testu barruan Ilustrazioak izan zuen eragina erakusten da (37-38). Horrekin batera, Konbentzio Gerra edo Roselloko Gerra (29), gerra napoleondarrak (88) edota Lehen Gerra Karlista (116) aipatzen dira. Pertsonaia ospetsu garaikideak ere agertzen dira, hala nola Frantziako Luis XVI.a, Xabier María Munibek (Peñafloridako kondea) gidatutako Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kideak, Wilhem Humboldt, Pablo Astarloa apologista, Fernando VII.a eta bere alaba Elisabet II.a Borboikoa, Carlos V.a, Maria Cristina, Tomas Zumalakarregi, Maroto, Espartero, “Bakea eta Foruak” mugimenduaren sortzaile izan zen Jose Antonio Muñagorri, Mozart, Beethoven, Jane Austen, Vargas Ponce edo Eusebio Maria Azkue idazlea (Lehen Karlistaldian karlisten alde borrokatu zuena).

Guda Karlista aipatu dudala, apur bat gehiago sakondu nahiko nuke, hura baita tesi honen aztergaia. Liburuko azalean bertan, Mirari neskatoa ageri da eta atzeko fondoan arbelean idatzitakoak diruditen ohar batzuk ageri dira: “1835eko abendua. Karlistek Bilbo setiatu” irakur daiteke bertan. Liburu barruan ere gerra horri egindako hainbat erreferentzia irakur daitezke. Batetik, narratzaile orojakileak 1833ko abenduan kokatzen du irakurlea eta gudaren leherketa azaltzen du (116). Bestetik, aipatutako data horretatik aurrera gerrak Euskal Herrian izan zuen eragina marrazten da, batez ere Bilbon zentratuz. 1834an Bizkaiko hiriburua bi alderdien arteko gatazka-gune bihurtu zela eta herritarrek ihesi joan zirela aipatzen da eta 1835eko abenduan, karlistek Bilbo setiatu zutela, borroketan hainbat eraikin suntsitu zirela eta kanoikadak zein bonbardaketa luzeak nagusitu zirela. Horrez gain, Bilboren lehen setioak eragindako hildakoak, zaurituak eta presoak zenbatzen dira (116-117). Zumalakarregi jeneralaren ibileren berri ematen da, baita haren heriotzaren berri ere (117). Interesgarria da azpimarratzea *militar trebe* gisa deskribatzen dela eta narratzaileak haren heriotza galera handia izan zela ondorioztatzen duela. Egia bada ere esplizituki adierazten dela Zumalakarregik ez zuela gune zibilen aurkako tiroketarik agindu, karlistak ageri dira batez ere kaltearen eragile zuzen gisa, esaten baita 1835eko ekainaren 16ko erasoaldian karlistek hiriaren erdia bonbardatu zutela (117). 1936ko Bilboko bigarren setioaren gaineko informazioa ere ematen da eta besteak beste, hildako zein zauritutakoen kopuruak, Lutxanako gudua edo herritarren ihesa aipatzen da (117). Indar handiko deskribapenak ematen ditu narratzaileak, adibidez, honako hau:

Negu benetan gordina aurtengoa. Borrokak iraun duen denboran, karlistek eta liberalek ekaitz handi bati egin behar izan diote aurre. Borrokaldien etenuneetan, soldaduak bata bestearen kontra jarri dira, elkarri beroa ematen, eta izan da hildakoengana hurbildu ez ezik, eskuak gorpu lurruntsuetan sartu dituenik ere (118).

Muñagorriren “Bakea eta Foruak” mugimenduaren berri ematen da, baita, nola ez, Maroto eta Esparteroren artean sinatutako Bergarako hitzarmena ere (119). Dakusagunez, memoriaren protagonistak eta guneak azpimarratzen dira narrazio honetan iraganaren beste bertsio bat ematen aldera. Karlistaldiarekin amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi narratzaileak gerraondoaz dioena: “Gero, gerra guztiei gehitzen zaizkien bisitariak heldu ziren, orduan ere: izarriak, lapurretak, kontrabandoa” (118).

Ez nuke aurrera egin nahi genero ikuspuntu batetik liburuan egiten diren aldarrikapenak iruzkindu gabe. Batetik, Gurrutxagak azaltzen duen moduan, “Mirarik historia bere eginez dihardu, harekin konfrontatuz, eta subjektu aktibo bihurtzen da gure historiaren idazketan” (2018: 249). Bestetik, ezin aipatu gabe utzi Mogekek euskal literatur tradizioan duen garrantzia aldarrikatzen dela liburuan, Olaziregik (2003a) bere lanean egin bezala. Horrekin lotuta, Arrietak tradizioa berrikusteko eta historia berridazteko aldarrkia egiten duela, urte luzez isilduak izan diren idazleak argira ateratzeko asmoz, “tradizioa, Historia bezalaxe, ezer izango bada, etenik gabe, astindu, ikusi, aztertu eta berregin beharreko zerbait bizia delako” (151). Arrietak tradizio anglosaxoian *herstory* deitu dena aldarrikatzen duela esan daiteke. Berak (2020) aipatua da duela askotik historiako gizarte rola lantzen dituela eta ikusi duela emakumea bigarren mailan geratu dela maiz, edo ezkutuan geratu dela (edo ez dela agertu). Beraz, ez da kasualitatea, bere lan askotan ikusezin geratu diren emakumeak ikusaraztea. Horren adibide garbia da, aztertu dudana lanaz gain, *Txokolategia* (Denonartean, 2020) lana. Irakurle gazteari zuzendutako eleberri horretan, autoreak galdera hau du abiapuntu: Zergatik ez da ageri inoiz txokolate-maistrarik Historian? Itaun horretatik abiatuta, erakusten du beti egon direla txokolatea egin duten emakumeak, nahiz eta txokolategiak gizonen izenean egon diren. Bide batez, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Arrietak baduela hurrei zuzendutako Mogeli buruzko beste liburu bat: *Bizenta txiki* (Denonartean, 2018). Azken horren azterketa, baita Arrietak Mogeli buruz egindako beste lan eta ekarpenak Urzelai-Vicenteren (2021) lanean aurki daitezke.



### 6.2.1.7. Gerra Karlistak. Beste obra batzuk

Atal honetan gehitu ditut Lehen eta Bigarren Guda Karlistak aipatu bai baina gai zentral gisa lantzen ez dituzten obrak, hau da, gerra atzeko plano gisa edo aipamen soil gisa hartzen duten obrak. Aurreko ataleko liburuekin alderatuta, jarraian datozen hauek askoz era laburragoan azaldu ditut, batez ere gerrez ematen den informazioari erreparatuz.

#### 6.2.1.7.1. *Iparragirre*

1981ean Elkar argitaletxearen eskutik Xabier Mendigurenek (Beasain, 1964) 9-15 urte bitarteko irakurleei zuzendutako “Sor” sailaren baitan nobela historikotzat har daitekeen 107 orrialdeko liburu bat argitaratu zuen, Jose Maria Iparragirrearen biografia biltzen duena. Pertsonaia horren gaineko aurreko liburuan bezala, hemen ere Lehen Guda Karlista aipatzen da, Iparragirre urretxuarraren bizitzan eragin nabarmena izan baitzuen (dena den, kontakizunean ez duenez toki nabarmenik hartzen, edo ez behintzat aurreko obran duen beste, atal honetan sartzea erabaki dut). Aita karlisten aldeko zuen Iparragirre gazte ameslariak, 14 urte zituela, karlistekin bildu eta Euskal Herriaren alde egiteko asmoz Madrilen zuen bizitokitik alde egin zuela aipatzen da, baita Zumalakarregiren aurrean boluntario aurkeztu zela ere (13). Gerraren ondorioz nozitu zituen zauri eta kolpeak ere aipatzen dira, baita Bergarako besarkadaren osteko erbestea ere (14, 16, 17). Aipatzekoa da liburuan zehar Angel Dominguezen irudiak tartekatzen direla eta Iparragirrearen marrazkiaz gain (21, 27, 39, 47, 84), Zumalakarregirena (15) eta Gernikako batzar-etxearena (96) ageri direla, besteak beste. Ezin aipatu gabe utzi *Gernikako Arbola* kantuari zentraltasuna ematen zaiola liburuan eta sortze testuingurua emateaz gain, entzuleengan piztu zuen erreakzioa deskribatzen dela, argi utziz foruen, euskal askatasunaren, maitasunaren, bakearen eta anaitasunaren adierazpide garbia dela zortziko famatua. Iparragirrek atzerrian egindako ibilerak eta Euskal Herrira itzultzean izan zuen bizimoduaren berri eman ostean, olerkaria hil ondorengo jendarteak Iparragirre nola irakurria izan den jasotzen du obrak. Laburbilduz, urretxuarrak Lehen Gerra Karlistan izan zuen parte-hartzea, Euskal Herriarenganako maitasuna, atxikimendua eta konpromiso politikoa, foruzaletasuna, emakumeekin izandako harremanak eta erbestealdia jartzen ditu agerian biografia honek<sup>80</sup>.

---

<sup>80</sup> Bide batez, ez nuke aipatu gabe utzi nahi 1981ean Erein argitaletxeak *Iparragirre: 1820-1881* izeneko 63 orrialdeko liburua argitaratu zuela, olerkariaren biografia biltzen duena komiki formatuan, Miguel Berzosaren gidioa eta marrazkiekin. Horrez gain, Iparragirrek sortutako abestien letrak tartekatzen dira, Xabier Letek atondutako azalpenarekin batera. Komikia (bere horretan 23 orrialde hartzen zituena) 1979an argitaratu zen lehenengoz *Ipurbeltz* aldizkarian.

### 6.2.1.7.2. *Lur zabaletan*

Aingeru Epaltzak (Iruñea, 1960) Pamiela argitaletxean 1994an argitaratutako abentura nobela hau 12 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta 18 urterekin, Nafarroako mendialdea utzi eta bizi hobe baten bila Kaliforniara emigratzen duen Pello gaztearen bidaia iniziatikoa irudikatzen da. Bidaian zehar pertsonaiek bizitako zailtasunak eta bestelako gorabeherak kontatzen dira, baita behin Ameriketara iritsitakoan duten bizimoduaren eta hango pasadizoen berri ere. Bide-lapurrak, piratak, indioak, esklabuak edota urre biltzaileak ageri dira 172 orrialde hartzen dituen eleberri honetan eta kronologia zehatzik ematen ez bada ere, XIX. mendearen amaieran girotua dago. Batetik, euskal artzainen emigrazioa aipatzen da; eta bestetik, Kaliforniako “Urre sukarra”, XIX. mende erdialdetik aurrera gertatu zen fenomeno<sup>81</sup>. Horrez gain, narratzaile orojakileak jakitera ematen du guda karlistak amaitu ondoren ekiten diola bidaiari Pello protagonistak.

Arestian aipatutako ildo horri dagokionez, egia bada ere kontakizuna ez dagoela guda karlistetan girotua, esango nuke horiek eragina dutela protagonistarengan, iradokitzen baita Karlistaldiak eragindako egoera zailak bultzatuta erabakitzen duela Pellok emigratzea, honako pasarte honetan ikus daitekeen legez:

Urte gaiztoak ziren, ordea. Karlistada bukatu berria zen orduan, eta gerlak utziriko ondorioak begibistakoak ziren: hondamendia eta heriotza nonahi. Pelloren etxean biak sufritu zituzten: anaia zaharrena gerlan hil zioten eta aziendak ere murrizturik gelditu ziren batzuen eta besteen soldaduen harrapaketen ondorioz (15).

Protagonistaren aitak, familia egoera horretan ikusirik, etxea utzi eta bizi hobe baten bila Ameriketara joatera animatzen du Pello. Pasarte horrez gain, eta Guda Karlistarekin lotuta, Jexux pertsonaia (“Makurra” deitzen dutena) nabarmenduko nuke, esaten baita azken gerlan soldadu ibilia zela eta orbain nabarmen batek gurutzatzen ziola aurpegia (16). Erreferentzia horiez gain, ez dago Karlistaldien bestelako aipamenik obra osoan zehar.

---

<sup>81</sup> Olaziregik (2010) diasporak euskal HGLn izan duen errepresentazioa aztertu zuen eta besteren artean, aztergai dudan liburua iruzkindu zuen.

### 6.2.1.7.3. *Gizon izandako mutila*

1997an Patxi Zubizarretak (Ordizia, 1964) Pamielan kaleratutako liburu honetan mendi inguruan dilijentziak eraso eta lapurretan aritzen diren bidelapurrak aurkezten zaizkio irakurleari, taldearen ibileren, ihesaldien, mendekuen, hilketen eta bestelako gertaeren berri emanez. Istorioa XIX. mendeko bigarren erdialdeko Euskal Herrian girotua dago eta atzeko planoan bada ere, Gerra Karlistak aipatzen dira. Fabian da narratzaile homodidegetikoa eta Antonio Mariaren ekintzak eta ihesaldiak kontatzen ditu, hau da, *Gizon izandako mutila* ezizenez ezagutzen den bidelapurren buruzagiari buruzko historiak eta Fabianek berak harekin bizitakoak. Aztergai dudan gaiari dagokionez, hainbat aldiz aipatzen da Lehen Guda Karlista. Fabianek egunkari batean argitaratu den albistearen berri ematen du eta bertan Isabel Erregina gaztearen zin-egitea eta Fernando Erregearen asmoak aipatzen dira (73). Jarraian, bi pertsonaiek Sevillako kartzelatik ihes egin eta mendirantz jotzen dute, “gerra hotsak sortarazten zuen giro nahasi hartaz baliatuz” (74), eta Fabianek jakinarazten du karlistaldiak aurrera egin ahala bidelapurren taldea handituz joan zela, desertoreak eta “gerrako txikizioetan ezertxo ere gabe geratu zirenak” taldean barne hartuz (74). Gerra giro hori behin baino gehiagotan agertzen da eta pertsonaiengan eragina du, zeharka bada ere. Guardia zibilen presentzia handiagoaz gain (84) eta haiekin izandako enfrentamenduez gain (106), gerraren beldurrez inguruan dabilzan dilijentziak gutxitu egiten dira, eta beraz, lapurretan ibiltzeko aukera txikiagoa dute pertsonaiek. Ez hori bakarrik, Fabianek kontatzen duenez, jendeak amorrua zien Espainia aldetik ihesi joan eta Pirinioetan barna zebiltzan errefuxiatu karlistei, eta Antonio Maria horietako bat delakoan, erretorearen desagerpenaren errua egozten diote hari (115-116), eta kartzelatu ostean gillotinatu (120). Zenbait testuartekotasun eta erreferentzia ugari aurki daitezke liburuan zehar, batzuk euskal tradizioari lotutakoak (18, 25, 93, 103) eta beste batzuk, berriz, kanpokoak, Cervantesen *Kixotea*, adibidez (61, 108, 110); eta pistolero zein bidelapurren istorio bat bada ere, maitasunak pisu handia du narrazioan. Azkenik, esan dezadan hamabi urtetik gorako irakurleriari zuzendutako 124 orrialdeko abentura eleberri honek 1998ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria eskuratu zuela eta Itziar Ortuondok gaztelaniara itzuli zuela *El chico que fue hombre: el azar, el azor y la zorra* (Anaya, 2000) izenburupean. Jatorrizko bertsioak, lehen argitalpenetik sei urtera, bigarren berrargitalpen bat izan zuen (aldaketa nagusia azala izan zen).

## 6.2.2. Lehen Mundu Gerra

Bere ama agurtu du  
etxolako atarian;  
bere amak bisitatuko du  
atzerriko hilobian.

Morts pour la patrie,  
morts pour la patrie,  
eskuara baizik etzekiten haiek,  
morts pour la patrie  
(Knörr, 1975).

1914tik 1918ra iraun zuen Lehen Mundu Gerrak eragin nabarmena izan zuen euskal herritarrengan, batez ere Ipar Euskal Herriko bizilagunengan, Frantziar estatuaren menpe izanik, Hegoaldeko euskaldunek baino hurbilagoetik bizi izan baitzuten guda. Espainiak neutraltasuna mantendu zuenez, Hego Euskal Herrian bestelako ondorioak izan zituen. Eneko Bidegainen lanek guda hark euskaldunengan izan zituen ondorioak aztertzen dituzte, eta bereziki gomendagarria iruditzen zait *Lehen mundu gerra eta Euskal Herria* (Elkar, 2014) izenekoa, zeinetan hildakoen kopurua ere ematen duen. Euskal HGLri dagokionez, guda hau hizpide hartzen duen euskarazko jatorrizko obra bakarra gehitu dut atal honetan, nahiz eta kontakizunean Lehen Mundu Gerra ez den gai zentrala. Dena den, ohartarazi nahiko nuke aurreragoko ataletan sartu ditudan liburu gutxi batzuetan Lehen Mundu Gerra aipatzen dela (aipamen hutsez bada ere); baina horiek, beste gerra edo gatazka bat lantzen dutenez nagusiki, dagokion atalean sartu ditut (eranskinetako katalogoan begiratuta, erraz jakin daiteke zein gatazka ageri den obra bakoitzean). Horren adibide dira aurrerago aztertuko ditudan *Arrastoa, Euskal Herriaren Historia. XXI. mendeko hurrei kontatua, Metxa esaten dioten Agirretar baten ibili herrenak* eta *George L. Steer, Gernikan izan zen kazetaria*.

### 6.2.2.1. *Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!*

Begoña Durruty (Arizkun, 1968) idazle eta ilustratzaileak ondutakoa da jarraian aztertuko dudana obra, Denonartean argitaletxeak argitara emandakoa 2016an. HGLko liburu gutxi batzuk ilustratu ditu, adibidez, Juan Luis Zabalaren *Aita oker dago* (Erein, 2014) eta *Mozoloaren bakardadea* (Erein, 2012), baita Amaia Elizagoienek hitzak dituen eta Amaiurko gudan oinarritzen den *Amaiur* (Gaztelu elkarte, 2022) ipuina ere. Aztergai dudana obraz gain,

Durrutyk idatzitakoa da *Mitxitxi Marriau* (Erein, 2011), baita publiko zabalago bati zuzendutako *Bereterretxeren kanthoria* (Denonartean, 2017) komikia ere. Horrez gain, nabarmentzekoa da Uxue Alberdik idatzi eta Begoña Durrutyk ilustratutako *Belarriko Kilkerra* (Elkar, 2023) ipuin liburua. Bertan, gerraosteko garaian girotutako hainbat ipuin irakur daitezke. Azkenik, Durrutyren irudiak dituen *Gerrateko ibilerak* (Hauspoa, 2018) lana aipatuko nuke, Iñaki Alkainek Gerra Zibilean bizitakoak biltzen dituen, lehenengoz 1981ean argitaratu zuena Antonio Zabalak.

## **Laburpena**

Hamabi urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako 58 orrialdeko nobela grafiko honetan bere familiaren bizipenak biltzen ditu egileak, Durrutyarren historiaren parte bat hain zuzen. Aitaren testigantza zuzena baliatu du egileak liburu hau ontzeko eta Frantzia eta Espainiaren arteko mugaren inguruan bizi den familia bat aurkezten du, zeina hainbat gerraren lekuko izan zen. Lehen Mundu Gerra, Bigarren Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Francoren diktadura eta Aljeriako independentzia gerra; maila txikiagoan edo handiagoan bada ere, horien guztien berri ematen du aztergai dudak obrak.

## **Harrera kritikoa**

2016an Cénlit argitaletxeak Juan Luis Zabalak egindako gaztelaniazko itzulpena argitaratu zuen. Galtzagorri Elkarteak (d.g.) argitaratutako kritikan, Durrutyk gudaren gainean kritika zorrotza egiteko baliatu duen hautua azpimarratzen da, baita bizitzak dakartzan gora-beherei buru egiteko adorea aldarrikapena ere. Horrez gain, testua idatzita dagoen Baztan aldeko euskarari egiten zaio erreferentzia, eta erdialdeko euskalkitik (Beterriko euskara) urruntzen den testu batzuekin kritikariek maizegi aipatzen duten ulermen zailtasunaren orde, aberastasuntzat hartzen da aldaera horren erabilera. Dena den, argi uzten da horrek ez duela irakurketan eragozpenik sortzen. Galtzagorri Elkarteko kide eta HGLn aditu den Asun Agirianok (2017) idazleak bere familiaren memoria eta Euskal Herriko historiaren parte den kontakizun hori jasotzeko egindako dokumentazio lana nabarmentzen du. Horrekin batera, trazuen eta koloreen erabilera egokia goraiatzen du, bereziki, gerraren kolore beltz eta ilun hori islatzen jakin duelako. Ildo beretik jotzen du ere HGLn aditu den Migel Anjel Asiain “Osio”-k (2017), kolorearen erabilera inteligenteak gaiaren iluntasuna nabarmentzen baitu bere ustez. Mintzagai dudak lana hainbat irakur gidatan aurki daiteke, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak (2017) argitaratzen duen HGLko irakur gidan. HGLren inguruan aritzen diren hainbat profesionalek osatutako

katalogo horretan, edizioaren edertasuna nabarmentzeaz gain, gudaren kontrako manifestu poetikoa irizten diote lanari. Ez dezadan aipatu gabe utzi eleberria “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela Galtzagorri Elkarteak.

### **Analisi narratologikoa**

Nobela grafikotzat har daitekeen liburua eskuetan hartu eta alderdi paratestualak bikain girotzen du kontakizuna, orrialdeetan barrena irakurleak aurkituko duena aurreratzen baitu. Azalean kolore marroi okre eta grisa da nagusi eta arropa hedatzen ari den pertsona bat ageri da. Kontrazalak ere tonu ilun hori dauka, eta beraz, esan liteke horrek giro ilun eta hotza ekartzen dutela, egun grisa irudikatzen baita kontakizunaren sarrera gisa jokatzeko duten azaletan. Egia esan, orrialde guztietako fondoan mantentzen da grisetik marroi okrera doan tonu hori. Kontrazalak dakarren sinopsian irakurleari zuzentzen zaio egilea eta liburuaren sortze testuingurua azaltzearekin batera, gerrek eragindako familiak hartzen ditu hizpide. Historia txikia aldarrikatzen da, eta baita behiala Euskal Herriaren memoria kolektiboan errotuta egon ziren bizipenen transmisioa ere. Laburpenean aurreratutakoari jarraikiz, narrazio biografikotzat har daiteke aztergai dudan obra, egileak berak azaltzen baitu liburuan ez dagoela fikziorik eta aitaren testigantza zuzena baliatu duela (memoria filiatibo eta komunikatiboa). Esangura berezia dute aurreko zein atzeko guardek. Fondo grisaren gainean, burumakur ageri da jendea. Gehienek mailetak daramatzate. Haurra gainean daramaten guraso batzuk ageri dira, haurra eskuetatik tiraka daramaten gurasoak, *chador*-a izan daitekeen velo islamikoa daramaten bi emakume, bastoi baten laguntzarekin dabilen herren bat, hanka erdia falta zaion pertsona bat edo gurpil aulkian dabilen bat, besteak beste. Atezko guardan, esan bezala, jendea ageri da burumakur, baina aurreko planoan irakurlearen atentzioa deitzen duen haur bat ageri da atsekabe aurpegiarekin, irakurleari zuzenean begira. Esku bat apur bat altxatuta dauka eta badirudi irakurleari galdetzen diola ea merezi al duen miseria hori guztia pairatzeak. Horrek, noski, lotura egiten du liburuaren izenburuarekin, ez baitago ulertzerik zergatik dagoen munduan hainbeste gerra. “Aux larmes citoyens!” deiadarraren ostean kontakizuna abiatzen da.

Esan bezala, obra honek Durrutyarren historia kontatzen du eta orainetik abiatuta, Lehen Mundu Gerraren garaira eramaten du irakurlea, ez ordea, tartean Euskal Herriak bizi izan zituen beste gatazka eta gerrak aipatu gabe. Espazioari dagokionez, Euskal Herriko hainbat toki ageri dira, baina batez ere, mugaren inguruko herri eta parajeak. Lehenengo orrialdeetan, Gregorio aitona erratzuarrak hartzen du garrantzia. Hura ospitalean dago

Elixabete eta Jone bilobekin batera eta Marsellesa abesten du: “Aux armes, citoyens, / Formez vos bataillons, / Marchons, marchons! / Qu'un sang impur / Abreuve nos sillons!” (2). Obraren amaieran, ordea, bestelako Marsellesa bat abestuko die aitonak: “Aux larmes citoyens! Fermez vos bataillons!” (57). Frantziako himnoarekin lotuta, soldadu zeneko eta Aljeriako gerran ibili zeneko garaia hartzen du ahotan, honakoa gaineratzeko: “Zuek ez dakizue zer den gerra? Aise hobe! Gerra itsusia da. Ez da konprenitzen ahal gerra! Basakeriak ezin kontatuak dira!” (4). 1958an, 20 urte zituela, gudara soldadu joateko gutuna jaso eta mandatua betetzera behartuta ikusi zuen bere burua Gregoriok (frantziar nazionalitatea zuten beste hainbatek bezala). Horri lotuta, interesgarria da gutuna jasotakoan protagonistak desertzioari buruz eta desertore izatearen ondorioei buruz egiten dituen hausnarketak (30). Gerrara zergatik joaten ziren ere ez zekiten gazteak aipatzen dira (36), eta Gregorio lehen lerroan tiroka aritu beharrean paraxutak tolesten aritu zen arren, argi adierazten du aljeriarrek soldaduei (boneta gorriei) zieten beldurra (37-38). Era berean, haiek aljeriarrei zieten beldurra ematen da aditzera, erabiltzen zuten indakeriaren larritasunagatik batez ere:

Hura ikaragarria zen! Han, behin Aljeriarren esku eroriz gero, ez zituzten bi tiro ematen, pin! pan! Ez, ez, ez! Tortura: bi begiak atera, edo barrabilak moztu... Harrapatzen ziren arboletarik dilindan mutikoak, bi begiak atereak, eta ez beleek preseski. Eta barrabilak mozte eta ahoan sartzea andreen lana omen zen (36).

Tesiko corpuseko obrei erreparatuta, azpimarratzekoa da emakumeak gutxitan ageri direla indarkeriaren erabileraz baliatzen. Gregorioren testigantzara itzuliz, ez da gerraren bilakaerari buruzko informazio askorik agertzen, baina ondorioak primeran ematen dira aditzera. Paraxutetik erortzearen ondorioz paralitiko geratu zen gizona eta Aljeriako Constantine ospitale militarrean egon ostean, Parisko ezinduen ospitalera (Hôtel National des Invalides) eramán zuten. Hainbat pasartetan deskribatzen ditu bertan ikusi eta bizitakoak, baina pasarte hau nabarmenduko nuke bereziki:

[Ezinduen ospitalean] baginen ehunetik goiti mutiko. Paraplegiko, tetraplegiko... Bertze hainbertze eta gehiago anputatu, itsu, aurpegi-hautsiak, erreak... Denak sailkatuak ginen, zoon bezala. Etxea kaskezurreraino betea zen orduan, Napoleon barne, han baitzuten altxatua haren gorputza, gaur bezala orduan ere. Han ezagutu nituen Munduko Lehen eta Bigarren Gerran, Indotxinan eta, ni bezala, Aljerian eroriak (47).

Aipatzen den ospitalea Parisen dagoen Hôtel National des Invalides da. Irudian aski ongi identifika daiteke eraikina (53-54), zeinak obran aipatzen den bezala, Napoleon

Bonaparteren gorpuzkia gordetzen duen. Bertako egoera deskribatzeaz gain, gerrak sortutako konpondu ezinezko kaltea irakur daiteke Gregorioren hitzetan:

Orduan Aljerian ez omen zen gerlarik. “Ordena zaintzea” deitzen zioten. Eta 80 kutxa etortzen ziren astero Aljeriatik Frantziara, jende hilarekin, defuntuekin. Han tiratzen zen, e! Hemen badira ehundik gora eskualdun ere hilak, xoko honetakoak, Aljerian! Itsasun bada oroitarria, han daude denen izenak zizelkatuak. Eta gu bezala kolpatuak, andana! Ikaragarrikeria! (30).

Itsasuko oroitarria memoria gunetzat har daiteke (baita lehen aipatutako Hôtel National des Invalides). Lehen Mundu Gerrarekin lotuta, Simon aita hazpandarrak gudan pasatakoak deskribatzen ditu, hala nola, trintxeretan pasatako negu gogorra: “Trintxeretan egiten zuten bizia. Negua terrible gogorra zen: hotza, hezetasuna, gosea... Jendea errautsian hiltzen zen!” (9). Simonek ere gerran galdu zuen anaia, “*mort pour la France*” (9). Irudietako batean kasko urdina jantzita eta fusilak eskuetan dituzten trintxeretako soldaduak ageri dira. Horietako batek beste gizon bat darama soinean, eta pentsatzekoa da Mattin dela hilda daramatena (10). Bide batez, esan gabe doa zein kontraesan handia suposatu zuen euskaldun askorentzat Frantziagatik gerra egiteak<sup>82</sup>. Fronteko bizipen horiez gain, esanguratsua da nola deskribatzen dituen Gregorio aitonak Hazparneko herritarrak, haien artean hankamotz, besamotz, oker eta itsu zenbait aipatzen baititu, gerraren ondoriozkoak guztiak (5). Bere aitaren ibilerak ere kontatzen ditu, desertorea bera, gerratik ihes egin eta bere burua poliziarri entregatu ostean, hilabete batzuk kartzelan pasa eta frantziar nazionalitatea berreskuratuta etxera itzuli zena. Espainiako Gerra Zibilaren berri ere ematen du Gregoriok, Alejandro anaia guda hartan hil baitzen (17, 21). Irudietan Alejandroren hilkutxa ikus daiteke, inguruan familiakoak daudela. Ama batek haur jaioberria du besoetan, gerraren erruz neba ezagutzerik izan ez zuen Gregorio hain zuzen (22). Francoren diktadura garaia dagokionez, eskolak nolakoak ziren deskribatzen du narratzaileak: gaztelaniaz egiteko obligazioa, besoa altxatuta egunero abestu beharreko *Cara al sol* kantua, bekatuaren itzala eta konfesatzeko beharra edo elizaren eragin erabatekoa, besteak beste (22-23).

Aurrera egin aurretik, genero ikuspuntutik azertzeko interesgarriak diren zenbait alderdi azpimarratu nahiko nituzke. Batetik, kontakizun honetan hainbat gerratara abiatzen diren gizonak ageri dira, baina horrekin batera, nolabaiteko kontrastea eginez, etxean zain geratzen diren emakumeak ageri dira. Gregoriok Aljeriako gerrara joateko gutuna jasotzen

---

<sup>82</sup> Kontakizunean zehar hainbat aldiz jartzen da agerian Frantziagatik gerra egitera behartu zituztela pertsonaiak eta horiek Frantziarekiko zuten distantzia agerian jarritz, are zentzugabeagoa bihurtzen da Aljerian gerran aritzea. Gregoriok adibidez, gerratik bueltan, ospitalean zela ikasi zuen frantsesa (54).



duenean, adibidez, arropa esekitzen ari den pertsona bat ageri da (27-28). Paraxutistak lur hartzen daudenean ere, haiekin batera emakumea ageri da arropa hedatzen (39-40) eta antzeko irudia ageri da (18) Lehen Mundu Gerra zela eta, Frantzia osoko gizonak frontera joan eta etxeetan emakumeak, umeak eta adineko jendea besterik ez zela geratzen aipatu ostean (9). Gregorioren emaztea hainbat aldiz ageri da gaztetan arropa esekitzen, baina kontakizunaren amaieran, ordea, lan horretan ari den ilea urdindutako amona bat aurki dezake irakurleak (57-58). Denboraren joana bikain antzeman daiteke marrazki horien bidez. Era berean, aipatutako irudi horiek guztiek iradoki lezakete gizonak gerran egon arren, bizitzak aurrera jarraitzen zuela eta emakumeek heldu ziotela etxeko lanari. Bestetik, gerra testuinguruari lotuago, erizain lanetan ageri dira emakumeak (43-44, 53-54). Hirugarrenik, ezin aipatu gabe utzi emakumeen bortxaketei egiten zaien aipamena (56), corpuseko hainbat liburutan errepikatzen dena.

Aurretik aipatu ez badut ere, ezin aipatu gabe utzi Gregoriok primeran laburbiltzen duela ezein gerrak soldaduei, haien familiei eta herritarrei oro har eragiten dizkien kalteak. Bilobetako batek gerraren alderdi gogorrenaz galdetzen dionean, hark etxkoak ikusi gabe emandako 3 urteak aipatzen dizkio, eta horrekin batera, 23 urterekin gerratik etxera paraplegiko itzuli eta nola bihurtu zitzaizkion amets guztiak amesgaizto (56). Baina batez ere, honako hau errepikatzen du: “Milaka hildako, mutiko gazte kolpatuak, erotuak, emazteki bortxatuak, ume gaixoak, familia xehatuak! Hainbertze sufrimendu! Zertako? *Cherch'pas à comprendre!*” (56). Ikus daitekeen moduan, liburuaren orriotan, izenburuan bezala, maiz azpimarratzen da gerraren zentzugabetasuna.

Amaitzeko, azpimarratu nahiko nuke liburu honek Euskal Herriko gatazkak hizpide hartzeaz gain, hemendik kanpoko beste batzuk hartzen dituela mintzagai; iragandakoak batzuk, baina egun pil-pilean daudenak beste batzuk. Aitona Gregoriok bilobei esaten dien moduan: “Ikaragarria da, bai! Gizakia bezain azienda gaixtorik ez da! Handik edo hemendik beti izan dira iheslari eta mugalariak. Gaur, afrikarrak heldu zaizkigu parrastan, gerretatik eta mixeriatik eskapo. Ez al dituzue ikusi Melillako hesian?” (11). Ezin uka daiteke aitonaren hitzok gaurkotasun handikoak direnik. Liburu honen berariazko hartzaile diren haurrek aniztasuna bizi dute eskoletan eta pentsatzekoa da guztiek ez bada ia gehienek badutela gerra egoeratik edo egoera ekonomikoagatik bere sorterrira utzi behar izan duen ikaskiderik. Ildo horretan, aztergai dudan liburu hau interesgarria da, migrazioak beti egon direla eta behiala euskaldunek egoera hori pairatu zutela erakusten duelako.

### 6.2.3. Espainiako Gerra Zibila

Regina Aldama  
Ume identifika ezina  
Aurelia Candes Lopez  
Clara Zaldunbide  
Gorputz zatiak  
Germana Basabe Ormaetxea  
Telesforo Elierobarrutia  
[...]  
Asto behi gorputz zati  
Neskato erre bat  
Ume identifika ezina  
Gernikan!  
(Ken Zapi, 2007).

#### 6.2.3.1. Pottoko

Pello Añorgak (Oiartzun, 1956) eta Jokin Mitxelenak (Donostia, 1962) ondutako lan hau 1984an eman zuen argitara Elkarlanean argialetxeak<sup>83</sup>. Añorga HGL idazteagatik da ezagun eta ipuin-kontalari gisa ibilbide luzea egin du. Esan daiteke hartzaile gazteek bere lanak gogoko dituztela, sei aldiz irabazi baitu Juul Saria. Bi sortzaileek askotan egin dute lan batera eta horietako batzuk sarituak izan dira. *Gerlari handia* (Pamiela-Kalandraka, 2007) eta *Munstroek ere pixa egiten dute ohean* (Pamiela, 2015) albumek Etxepare saria eskuratu zuten, *Jenio gaiztoa* (Aizkorri, 2007) lanak HGLko Euskadi Saria eta *Ipuin-kontalariaren lapikoa* (Aizkorri, 2009) obrak, berriz, ilustrazioaren arloko Euskadi Saria. Aurrerago aztertuko dudana *Memoriaren zuhaitza* (Elkar, 2012) lana ere bien artean hondutakoa da.

#### Laburpena

Zortzi urtetik gorako haurrentzat idatzitako 69 orrialdeko lan honetan gurasoekin batera baserrian bizi den Pottoko pertsonaia aurkezten da. 1936ko Gerra Zibila herrira heldu eta dena txikituta uzten duenean, protagonistak bere eskuzabaltasuna eta borondatea erakutsi eta herri berria sortuko du errautsetatik.

---

<sup>83</sup> Tesi lan honetan 1999ko edizioa erabili dut eta bertatik hartutakoak dira aipu eta erreferentzia guztiak.

## Harrera kritikoa

Lehen aipatu dudanari jarraikiz, esan daiteke haur eta gazteek Pello Añorgaren lanak gogoko dituztela, sei aldiz irabazi baitu Juul saria, liburu ezberdinekin irabazi ere. Aztergai dudan liburuak, ordea, ez zuen aipagai dudan sari hori eskuratu, baina sail bereko beste batek, ordea, bai: *Pottokoren usainak* (Elkarlanean, 1985). Liburuak ez du itzulpenik izan, baina jatorrizkoak sei argitalpen izan ditu lehenengoz kaleratu zenetik gaur egun arte. Egia bada ere hainbat euskarritan egindako bilaketaren ostean ez dudala erreseina zein bestelako aipamenik aurkitu, kontuan hartzekoa da 1984an argitaratu zela liburua lehenengoz eta beraz, ez dela hain erraza obraren gaineko azterketa kritikorik aurkitzea. Dena den, ezin aipatu gabe utzi Etxepare Euskal Institutuak Jone Arroitauregiren (2012) zuzendaritzapean ateratako *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren katalogo* hirueledunean Añorgaren ibilbidea eta liburuak aipatzen direla, besteak beste, *Pottoko* liburua.

## Analisi narratologikoa

Lehenik eta behin, aipatzekoa da Pottoko pertsonaia literarioaren istorioek sail bat osatzen dutela eta guztiak Elkar argitaletxeak kaleratu zituela 1984 eta 2010 bitartean: *Pottoko* (1984), *Pottokoren usainak* (1985), *Pottokoren izeba Juanita* (1986), *Pottoko tripontzia* (1999), *Pottokoren otsoa* (2000) eta *Pottoko hipermerkatuan* (2010). Aztergai dudan aurreneko liburua 7 kapituluz osatua dago eta istoriotik kanpo dagoen narratzaile orojakileak Pottoko protagonistaren berri ematen du. Gurasoekin batera baserrian bizi den haur lodia da eta bere loditasunaren ondorioz irain ugari jasotzen ditu herrira jaisten den bakoitzean. Herritar batzuek leihoetatik mandarina ustelak bota eta jateko eskatzen diote, beste batzuek kantuak erabiliz iraintzen dute, edo *Odolki*, *Tripaki* eta *Olentzero* deitzen diote ziurrenik baserritik jaisten delako edo gorputz lodia duelako (6-11, 17, 19, 26). Ez du lagunik eta animaliekin soilik hitz egiten du. Esanguratsua da nola esaten dion amari etxeko behiak direla munduko lagunik handienak (13). Haurrak jasaten duen jazarpen horrek, espero den moduan, gaizki sentiarazten du Pottoko. Dena den, egiten dizkioten mespretxuak jasota ere, ikusten da bihotz oneko mutikoa dela, herriko hurrei animalien gainean edo traktore gainean ibiltzen uzten baitie. Haurrak harengana hurbiltzen direla ikusita, protagonistak inozentzia osoz adierazten du herritarrak direla munduko lagunik onenak eta guztiek berarekin ibili nahi dutela (26), baina irakurleak antzeman dezake interesak bultzatuta jokatzeko dutela horrela. Egun batean, Pottoko eta etxekoak lo daudela, herrian gertatzen ari den bonbardaketa entzuten dute eta horrela deskribatzen du egoera narratzaileak:

Eta "BRROOUUMMMMmmmmmm!" urrutian entzun da berriz, "Broum!" da soinua, "Brroumm!" tximista, "Broum!" negar gorria, "Broum!" etxe puska, "Broum!" garrasi lehorra, "Broum!" odola eta mina. Heriotza. Metraila, hautsa eta nahigabea. Burdina, kea, hautsa eta antsia... Jo eta ke, gelditu gabe aritu dira hegazkinak, harik eta desagertu arte zeruan (38).

Irudietan (37) gerrako hegazkinak ikus daitezke, edo *suaren ereileak*, liburuan aipatzen den terminologia erabiliz (37). Gurasoekin batera herrira jaisten denean, Pottokok deseginda aurkitzen du herria, keak harturik, eta horixe adierazten dute irudiek ere (40-43). Bitxia eta esanguratsua iruditzen zait nola adierazten duen egileak protagonistak begien aurrean ikusitakoa, sarraskia hitzez adierazteko zailtasuna aditzera ematen baitu horrela:

TEILATUAKtrbvxcz. LURREAN. ñkjmnhgf. POSTEAK. ñlkmytrwxczbke ETZANDA. poñkytrw. BOLBORA. ñktyw. KEA. bnbmm. PORTALETAN. KARRETERA. klkõlk. ñlkn. klñlk. klñlk: ZULATUAK. pñkp. ODOLA. ñkjhj. JERTSE PUSKAK. mnbvc. LEIHO PURRUKATUAK. PARETA ERORIAK. KRISTAL HAUTSIK...NAHASMENDUA... (41).

Pottokok, gurasoekin batera, zauriturik eta itxaropena galduta daukaten herritarrek hondakinen artetik ateratzen ditu, heldu, zahar zein haurrak, (46-48) eta haren baserrian aterpetzen ditu dena galdu duten bizilagunak. Ez hori bakarrik, elkartasun mezu bat emanez, denok batera Pottokoren baserrian herri berria eraikitzea proposatzen du. Amaiera positiboa du istorio honek, herriaren bonbardaketaren aurrean zutik mantentzeko eta elkarrekin aurrera egiteko gogoaz azpimarratzen baita azken orrialdeetan. Gainera, lehen herritarren irainak jasaten zituen Pottoko guztien heroi bihurtzen da (67-68). Ez nuke aipatu gabe utzi nahi herriak sufritzen duen bonbardaketa Gerra Zibilarekin lotutakoa dela, "treintaiseisko bonbardaketaren urtemugan" (67) eraikitzen baitute monumentua. Azkenik, bitxikeria modura bada ere, aipatu nahiko nuke herritarren festan entzuten den "Aurrera bolie! Gora Pottoko" (68) aldarria ez dela nolana hiko, Txomin Iturbe ETako kide eta buruzagi historikoak (futboleko ibili zen garaian) sortu baitzuen *Aurrera bolie!* leloa, gerora ezker abertzaleak erabili izan duena.

### **6.2.3.2. Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak**

1991. urtean Koldo Izagirrek (Altza-Antxo, 1953) Elkar argitaletxean kaleratutako obra da jarraian datozen lerroetan aztertuko dudana, hurrei zuzendutako bilduma batean argitaratu eta gero helduei zuzendutako edizio batean kaleratu zena. Azpimarratzekoa da hainbat genero landu dituela Izagirrek, hala nola, poesia, eleberria, antzerkia, saiakera,

kronika, biografía, hiztegitza edo gidoigintza, besteak beste; eta hainbat literatur lan itzuli ditu euskarara. Bere ekarpena hainbat aldiz izan da saritua, baina gehienetan uko egin dio horiek jasotzeari. HGLn itzulpenak egin ditu Izagirrek eta helduei zuzendutako bere lanetatik, 1920ko eta 30eko hamarkadetako giro soziopolitikoaren berri ematen duen *Euzkadi merezi zuten* (Hordago, 1984) eleberria; 1975. urtearen bueltan girotutako *Franco hil zuten egunak* (Susa, 2016) ipuin bilduma; hamarkada horretan girotutako *Egarri egunak portualdean* (Susa, 2011); *Sua nahi, Mr Churchill?* (Susa, 2005) narrazio bilduma eta *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (Elkar, 1999) azpimarratuko nituzke. Azken lan horretan orain aztertuko dudana liburuko Agirretar Nicola pertsonaia berreskuratu zuen. Aipatzekoa da, halaber, 2002an *Metxa* izeneko antzerki-obra sortu zuela Eneko Olasagastik, 1999ko Izagirreraren testutik abiatuta.

## **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurlea helburu duen 126 orrialdeko umorezko lan honek Gerra Zibilean gudari izandako Agirretar Nicola, “Metxa” ezizenez, zaharraren ibilerak kontatzen ditu 15 ipuinetan bilduta.

## **Harrera kritikoa**

Liburuak gazteentzako Bilintx literatur lehiaketa irabazi zuen. Lehenengo aldiz argitaratu zenean, arestian esan bezala, gazteentzako bilduma batean ikusi zuen argia (“Branka” bilduman) eta 5 edizio izan zituen. Geroago, 2002an, helduei zuzendutako edizio batean argitaratu zen, testua gaurkotuta, orraztuta eta ipuin berri bat gehituta. Urte bat beranduago, bigarren argitalpen bat izan zuen. Jatorrizko bertsioa gaztelaniara itzuli zuen Bego Montoriok, *Malandanzas de un Aguirre llamado Mecha* (Hiru, 1997) izenburupean. Literaturari buruzko lan akademikoetan izan duen agerpenari dagokionez, esan daiteke aztergai dudana Izagirreraren lan hau ez dela oharkabean igaro, besteak beste, Etxaniz eta López Gaseniren (2008) lanean edo euskal literaturaren historiari buruzko Olaziregiren (2012) liburuan aipatzen baita. Jasotako kritikei begiratu bat emanez, Joxan Oiz kazetari eta idazleak (1992) Izagirrek gai serioak modu gozoan emateko duen modua azpimarratzen du eta idazlearen prosak darabilen euskara aberats eta idazkera joria ez ezik, umorearen eta ironiaren erabilera magistrala goraiatzen du. Edorta Jimenezek (1991) antzeko ildotik jotzen du, Izagirreraren prosaren maisutasuna nabarmendu eta sortutako narratzaileak kontaktari ematen dion bizitasuna, zuzentasuna eta ironia sartzeko aukera balioesten ditu.

## Analisi narratologikoa

Kontakizuna Euskal Herrian girotuta dago eta Agirretar Nicola “Metxa” da istorio honetako protagonista, jubilatutako agure kaskazuri eta txikia. Gerra Zibilean *Amaiur* batailoiko telegrafista izandako gizona da (10), baita Bizente Egia (benetako pertsona) kapitainaren laguntzaile (107) edo hegazkin pilotu ere, langileen errepublika eta bere herriaren eskubideak defendatzen (27). Azken lan horri dagokionez, *Polikarpov I-16* ehiza hegazkin sobietarrean Kondor Legioaren *Heinkel He 70F* eta *Fiat CR.32* hegazkinak botatzen ibilitakoa dela zehazten da (27-28). Esan dezadan hegazkin horiek guztiak benetakoak direla eta Gerra Zibilean erabili zirela. Baina Metxaren ibilerak ez dira horretara mugatzen, Alejo Bilbao komandantearen esanetara Matxitxakoko gerran *Bizkaia* itsasontziko konbaterako lemazain izan baitzen (42). Liburuan gehiago zehazten ez den arren, Bilbao benetako pertsonaia da, guda garaian hainbat enfrentamendutan jardun zuen bermeotarra. Gerratean bitartekari lanetan aritu zen Metxa, baita Bruneteko gerran (113), *Kirikiño* batailoian gudari (107) eta Intxortako ofentsiban ere (58). Gudan aritzeaz gain, edo horren erruz, Santoñako kartzelan preso eduki zuten (107), baita Larrinagakoan ere (72). Bitxia da liburuaren amaiera aldera ageri den kantua, Lehen Mundu Gerraren testuinguruan, Lekeitiarrek 1917ko uztailean sortutakoa baita, letra zertxobait aldatuta ageri bada ere (109)<sup>84</sup>. Bere ibilerez gain, beste pertsonaia batzuk aipatzen dira, besteak beste, anarkistak atzetik eduki zituen eta gerra ondorenean asko sufritu zuen Don Felix gizona (40) edo Francoren aurkako bertsopaperak saltzeagatik *txapelokerrek* kartzelan sartzen duten Besamotza (32, 35). Bizilagunak fusilatu eta hildako pertsonak ahoan, gerraostean pistola erakutsiz mehatxuka ibiltzen zen Pako “Katortze” delakoa ere aipatzekoa da (41, 100). Fusilamenduak aipatu ditudala, bada horren gaineko pasarterik:

Kanposantuko paretarena (...) Hantxe egon dira markak urteetan, eta denok genekien zerenak ziren, baina inork ez zuen hitzik ateratzen... Beldurra zegoen, eta beldurra zegoela aitortzeko beldurra ere bai, oraindik ere zenbaitzuek ez dute ikara hezurretatik atera (40).

Metxak dei bat jasoko du Beñat ilobaren ikastolatik, guraso askori ez baitzaio ondo irudituko agurea Gerra Zibileko edo Frankismo garaiko fusilamenduei buruzko informazioa ematen ibiltzea haurrei: “Haurrekin kontuz ibili behar dela... ez zaiela gezurrik esan behar

---

<sup>84</sup> Lekeitioko udal artxiboko langile den Maite Garamendik (2016) Lekeitioko *Kurik* aldizkariko 2. alean ematen du zehaztasun gehiago: <https://www.kurik.eus/wp-content/uploads/2019/03/KURIK2-OSORIK.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

noski, baina gauza gordinegiek ez dietela onik egiten... trauma bat zela” (41). Kexu horren aurrean, protagonistak adierazpen interesgarriak egingo ditu:

Nonbait nik hanka hautsi diot haurren bati han, kanposantuko paretan, eurek baloian jolasten duten leku berean, nire lagun asko fusilatu zituztela esan nienean. Esan zidaten ez zela komeni haurrek gauza hauek jakitea... Ni isilik... Kontuz ibili behar zela... Halako amorrua eman zidan... Dar-dar batean jarri nintzen... Baina bota egin nuen, ea han, bilera hartan, jende helduen artean, egia esatea gordinegia ote zen... Irri egin zuten, baina ongi mututurik gelditu ziren esan nienean niretzako ere trauma zela herri honetan gehiena fusilatu zuenaren semearengandik halakoak entzun beharra (41).

Interesgarria da nabarmentzea aurreragoko pasarte batean “gure jendea” deituko diela Metxak ikastola ondoko kanposantuko paretan fusilatutakoei (100). Gainera, narratzaileak jakitera emango du galtzaileen bandoan kokatzen dela: “Baina gerra irabazi ziguten italiano, aleman eta moruekin batera” (109). Beraz, argi dago zein ikuspegitatik dagoen kontatuta istorioa. Eskolako gertakari horren ostean, Beñaten bila ikastolara joatea debekatuko diote (100) eta horrek adieraz lezake, nolabait, herritarrek gertatutako indarkeriazko ekintzak isilarazi nahi izatea, baita ustez haurrak babesteko helburuarekin, iraganean herrian bertan gertatutakoak transmititzeko ezintasuna ere. Dena den, protagonistak gerra garaiko pasarteak kontatzen jarraituko du:

Gerra heldu eta erreketek sartu zirenean, halako istiluak zituzten askok aprobetxatu egin zuten auzoa salatzeko, gorria zela, edo ez zela mezetara joaten, edo nazionalista zela. Eta jendea hartu eta fusilatu egiten zuten gauero zuek jolasten zenuten paretan. Akabo orduan zorrak eta muga-auziak. Aunitz jende (102).

Beste hainbat anekdota ere gogoraraziko ditu, adibidez, gaztetan, Primo de Riveraren diktadura garaian, mendi-gailurretan ikurrinak jartzen ibiltzen zenekoa (57). Beste batzuk arbasoei gertatutakoak izango dira, Bigarren Guda Karlista garaiko hau adibidez:

Azken karlistadan, eman zioten jipoiarekin amona betirako herrendu zutenean senarra karlistetan zebilelako Duque de Granadaren aginduz Marques de Valdespinaren baserriak erretzen, liberalek gaztelu bezala hartu zuten eliza, handik ederki mendean baitzeuzkaten inguruko zelaiak eta bideak (43).

Esan gabe doa goiko aipuan ageri diren izenek benetan existitutako pertsoneri egiten dietela erreferentzia. Bigarren Mundu Gerra ere hartzen da ahotan, Metxak azaltzen baitu Afrikako Gerran egondako osaba baten semea erresistentzian sartu zela aliatuen espia bezala

nazien aurka. Hari horri jarraikiz, Frantziaren koloniak ziren Maroko eta Afrika iparraldea aipatzen dira, bai eta Frantziako Pétain mariskalak uzten zuelako, alemanek erdi hartuta zeukatela ere (73). Interesgarria da erresistentzian sartutako lehengusu horrek sasiko lanarekin lotutako zein zeregin eta zein patu izan zuen zehaztea, esaten baita Europatik Amerikarantz ihesi zihoazen judu eta ezkertiarrei bisatuak edo pasaporteak lortzeko ardura zuela (74), honakoa gaineratzeaz batera: “Seguru dakiguna da frantsesek detenitu eta naziek erail egin zutela (...) gero filmea egin zuten eta dena diruagatik egin zuela ageri da. Baina badakizue filmeetan gezurra izaten dela gehiena” (74). Pasarte horretan, ahoz transmititutako memoria filiatiboaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke, ikusten baita kontakizunean bide hori dela iraganeko gertakizunak hobekien ezagutzeko modua.

Frankismo garaiko euskararen debekuari buruz ezer esan ez badut ere, kontakizunean bada horri egindako erreferentziarik, esaten baita guardia talde bat Metxaren baserrira heldu eta isuna jartzeaz gain, Etxezuri izenaren ordean Casablanca izena jartzera behartu zituztela bertako bizilagunak (76). Euskal izenak jartzeko debekua bertan behera geratzean izen eta abizenak euskaratu ahal izango ditu protagonistak (108). Orain arte azaldutakoa kontuan hartuta, badirudi Metxa harro dagoela Gerra Zibilean gudari gisa egindako lanaz eta agian irakurleren batek pentsatuko luke ez dela indarkeriaren gaineko hausnarketarik egiten; aitzitik, honakoa bezalako baieztapenak aurki daitezke: “Gerrak ez dakarkio gauza onik azpian geratzen denari” (75). Edonola ere, zehaztu behar dut hitz horiek ez dituela ez protagonistak ez eta narratzaileak esaten, Metxaren anaiak baizik. Puntu honetan, esanguratsua iruditzen zait azpimarratzea Ginebrako ituna aipatzen duela Metxak polizia bere etxean agertu eta kuartelera preso eramaten dutenean (27-28), nolabait gerrako preso gisa dituen eskubideak aldarrikatuz.

Aurrera egin baino lehen, Metxaren eta Beñat ilobaren arteko harremanean sakondu nahiko nuke apur bat. Argi ikusten da zaharrak haurrarengan eragiten duela, memoria historikoari buruzko ahozko transmisio hori egiteaz gain, momentuko errealitateari buruzko interpretazioan eragiten baitu. Hauteskundeen harira, mutikoak etxean entzundakoa errepikatzen dio Metxari, alegia, “politiko guztiak berdinak direla, gezurra besterik ez omen dute[la] esaten” (63). Hori entzunda, eta haurrak ez traumatizatzeko gauzak modu gordinean kontatzea saihestu behar omen dela buruan izanda (behin gurasoengandik jasotako errietaren ondorioz), errealitatea ipuin itxuran ezkutatuta kontatzea erabakiko du:



Gizarteak behar du arauren bat, legeren bat. Guztien onerako lege bat, eta denek gordetzekoa. Hortxe dago koxka. Eta horretarako harizpekoa sortu zuten, haritz zaharraren azpian egin beharreko biltzarra, lege berriak sortzeko. Harizpekorako ordezkariak hautatzea erabaki zuten, eta orduan, bozkak biltzeko, hor jantzi da otsoa ardi larruz behiei larre puska bat kendu behar zaiela esaka, trikua berriz basurdetu egin da zerrien bozka bildu nahian, ardia otsotu da zakurra katetik libratuko duela zin eginez (64).

Txikiaren desengainuaren aurrean, katu oilotuari jaramon egin beharrean, katuak egunero zer egiten duen hartu behar dela kontuan gogoraraziko dio (65). Ikus daitekeen moduan, irakaspenak ematen dizkio Metxak, baina alegia itxuran. Dena den, esango nuke ez diola bere iritzia inposatzen. Adibidez, boto-paper guztietatik zeinen alde egin nahi duen esan ordez, egia batek barruan dituen egia ugariak jartzen dizkio begien aurrean eta hori esanda, 12 urteko txikiari uzten dio bere ordez nahi dionari bozka ematen, erabakia epaitu gabe (63, 66).

Aurrerago, politikan sartu, ikasketak utzi eta Iparraldera ihes egingo du Beñatek. Egoera horretan, Metxak lagunduko dio sasiko lanean, noizean behin ezkutuan bisitak eginez eta dokumentuak pasaraziz. Testuinguruagatik, eta Beñaten paper ilegalak tarteko, uler daiteke Beñat komandoren batean sartuta dabilela (57-58). Haren neska-lagun Anek ere ihes egin beharko du, polizia miaka jardun, mehatxuak egin eta atxiloketak egin ostean arriskuan ikusiko baitu bere burua (115). Metxak ere jasango du poliziaren miaketa eta interesgarria da nola deskribatzen dituen protagonistak: Hezurbeltzak (116). Maritxu hartuko dute lekuko gisa egon dadin eta poliziaren paperak sinatzeko eskaeraren aurrean, honakoa adieraziko du emakumeak: “Nik badakit zuek zeuek ekartzen dituzuela nahi dituzuen paperak eta madriak [sic] gero inori harrapatu dizkiozuela esateko” (118). Miaketaren arrazoari dagokionez, belarretan egindako letra batzuegatik poliziak Metxa fitxatuta zuela aipatzen da (120), baina poliziaren bisita protagonistarena omen den eta kartzelatik ihes egindako egile batena den liburuarekin lotuta egongo da. Satira edo umore handiz kontaktzen da liburua izugile talde batek On kixoteren hezurdura bahitua zeukan zuloan agertu dela eta horregatik, poliziak pentsatuko du hark eraman zuela liburua zulora edo komandoko norbaiti utzi ziola (124). Esanguratsua da galdeketa egin bitartean Metxak gogora ekarriko dituen hitzak aztertzea: “Ez hadila izutu, Metxa. Agirretarra beti. Ez haiz aurrenekoa ataka honetan, eta ez haiz azkenekoa izango noski. Aurrera bolie. Gogor” (124). Horrekin batera, honako hau gaineratuko du: “Egia esatea nahi ditek, beraiei komeni zaien egia” (126). Azaldu beharrekoa da *Aurrera bolie!* lema Txomin Iturbe Abasolo ETako buruzagi historikoarena dela, futbolearen aritzen zenekoa. Horrek guztiak, beraz, euskal gatazkaren testuinguruan kokatzen du irakurlea. Ez

hori bakarrik, pasarte batean, Metxaren baserrira gazte talde bat hurbilduko da, HETAkoak direla eta Herriko kale eta taberna izan guztiak euskaratzen ari direla esanez, protagonistari bere baserriaren izena euskaratu dezan eskatuz. Metxak ETAkoak deituko die, baina gazteek agurea zuzenduko dute HETAkoak, Herria Euskalduntzeko Taldea, direla azpimarratuz (72).

Ironiak liburu osoa zeharkatzen du eta ez dira gutxi irakurlearen irribarrea lortzen duten pasarteak. Batzuetan, absurdora eramaten dira protagonistaren esanak, adibidez, Metxak dioenean “Lenago il” bataloiko komisarioa izan zela eta kalamuaren defentsagatik kondekoratu zutela (72). Beste batzuetan, berriz, umorea erabiltzen da kritika egiteko. Hori antzeman daiteke, adibidez, protagonistak mugaren bi aldeetan euskaldunak daudela esan, bera eta solaslaguna euskaldunak direla gaineratu eta Iparraldeko bizilagunak bera ere espainola dela erantzutean Metxak erakusten duen erreakzioan, Larruneko puntara bidaltzen baitu torero traje bat erostera (60). Amaitzeko, aipatu nahiko nuke euskalduntasunari buruzko pasarte batzuk tartekatzen direla eta kontakizunean behin baino gehiagotan hizpide hartzen den “agirretartasun” horren atzean euskalduntasuna dagoela (59-60).

### **6.2.3.3. *Basarri***

Andoni Egañaren (Zarautz, 1961) hitzak eta Iker Aiestaranen (Donostia, 1976) ilustrazioak dituen *Basarri* (Sendoa, 1999) lanaren gai nagusia ez da Gerra Zibila, baina Basarriren biografian hartzen duen garrantzia eta liburuan hartzen duen espazioa kontuan hartuta, atal honetan ematea erabaki dut. Egañari dagokionez, batez ere bertsolari gisa da ezaguna, lau aldiz irabazi baitu Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia (txapelketa hori gehien irabazi duen bertsolaria da) eta parte hartutako txapelketa guztietan aritu da finalista. Hainbat literatur lan eman ditu argitara, besteak beste, saiakera lanak, pare bat biografia, eta narratiba lanak. HGL ere idatzi du, bost lan zehazki. Bertsolaritzan jasotako sariez gain, memoria historikoaren gaia jorratzen duen *Pausoa noiz luzatu* (Alberdania, 1998) lanarekin 1999ko Euskadi Sarietan emandako akzesita (zabalpen saria) nabarmenduko nuke.

### **Laburpena**

Zortzi urtetik gorako irakurleei zuzendutako 99 orrialdeko lan honek Iñaki Eizmendi *Basarri* bertsolariaren biografia eskaintzen du. Kontakizuna haren idazmakinarekin begiradatik ematen da eta Basarriren bertsogintza, arlo horretan egindako ibilbidea, txapelketak eta beste bertsolariekin izan zituen hartu-emanak ematen dira ezagutzera.

## Harrera kritikoa

Sarean eskuragarri dauden katalogo pare batetan obra aipatzen dela ikusi dut, baina liburuaren atzeko azalean bertan datorrenaren erreprodukzioa besterik ez dakarte. Ildo bertsutik, argitalpenaren berria (berri soila) ematen duten zenbait berri aurki daitezke, baina ez dut kritikarik, erreseinarik edo bestelako iruzkinik aurkitu.

## Analisi narratologikoa

Lehenik eta behin, aipatzekoa da liburu hau “Txirrita” sailaren parte dela eta bilduma horretan aurki daitezkeela hainbat bertsolari buruzko biografiak, betiere HGLra mugatuta. Azaletik bertatik Basarriengan jartzen da fokua. Ekaitzaren erdian, makila eskuan harrotutako itsasoari so dagoen gizona ageri da. Giro nahasi eta itsaso harrotu hori Basarrik aurre egin behar izan zion testuinguru korapiltsuari egindako erreferentzia gisa har daiteke. Azalaren goiko aldean, bertsolari errezildarra ageri da pipa ahoan duela, idazmakinan idazten. Barrura jauzi eginda, narratzaileak bere burua aurkezteko eta Basarriren etxera nola heldu zen azaltzeko baliatzen duen sarrera labur baten ostean, 13 kapitulutan banatzen da lana. Kontakizuna Euskal Herrian girotua dago, gehien bat Basarriren bizitokian, Zarautzen, eta 1935etik 1999ra doan epea hartzen du. 1946an munduratutako Etxintxoer idazmakina da narratzaile homodiegetikoa eta 1946an Iñaki Eizmendi *Basarri* bertsolariaren etxera eraman zutenetik harekin bizitakoak kontatzen ditu, baita bertsolariaren gazte garaiko kontuak ere. Funtsean, bertsolariaren biografia biltzen du liburu honek, besteak beste, haren bertsogintza eta bertsokeraren, bertsolari gisa egindako ibilbidearen, irabazitako txapelketen, ezagutu zituen bertsolarien eta egunkarietan argitara emandako lanen berri emanez. Azpimarratzekoa da liburuan zehar Basarriren hainbat bertso ematen direla eta horien sortze testuingurua azaltzen (22, 23, 33-34, 45-46, 52-56, 61-62, 64-65).

Aztergai dudan gaiari dagokienez, Gerra Zibila aipatzen da maiz<sup>85</sup>, liburuaren hasieratik bertatik esaten baita 23 urte zituela “anai arteko gerra” hartan ibili zela protagonista (13) eta ertzain izan zela Eusko Gudarostean (14). Kontakizunean aurrerago, Basarrik 22 urte zituela, 1936ko uztailaren 18an gerra piztu eta Loiola zeritzan guda-taldean sartu zela zehazten da, baita guda-ikasketak Bizkaian egin eta Arrate inguruan borrokan ibili zela. Francoren aldekoek Bilbo hartu ostean baina, Santanderrera ihes egin zuen, beste asko eta askok bezala (39). Ez hori bakarrik, Telesforo Monzonen laguntzarekin *Sarastone* itsasontzi

---

<sup>85</sup> Guda Karlistak aipatzen ez badira ere, pasarte batean Basarrik karlistek egindako bilkura baten harira botatako bertsoaren berri ematen da, zeinetan garbi utzi zuen ez zettorrela bat karlistekin (31-32).

ingelesean Frantziara ihes egitea lortu zuela jakinarazten da (39). Hego Euskal Herrira itzultzen saiatu zenean atxilotu eta “Trabajadores” zeritzaten lan taldeetan gogoz kontra lan egitera behartu zuten, Euskal Herrian lehenik (Aritxulegin), baina baita Afrikan ere (40). Liburuan adierazpen askatasunik ezarekin lot daitezkeen hainbat pasarte daude. Batetik, narratzaileak esaten du guda aurretik eta guda ondoren ezberdin idazten zituela bertsoak Basarrik: “Akaso gerra ondoren esan nahi zen hura esaterik ez zegoelako. Galtzaileek batik bat” (35). Bestetik, protagonista bertso saioak egitera Iparraldera joaten dela aipatzen da, Hegoaldean Francoren diktaduragatik ez baitziren halakoak egiten (62). Gerra iritsi aurretik bertsoaritzak eta oro har euskal kulturak erdietsi zuen pizkunde hori ezerezean utzi zuen gerrak eta Frankismoak hutsune hori luzatu zuela jartzen du agerian obrak (74). Orain arte ez dut bertsoetako edukiaz ezer aipatu, baina ezin esan gabe utzi horietako batzuetan 1936ko gerra dela gai nagusi eta herrikideen arteko gorrotoaren aurrean, maitasunean bizitzea aldarrikatzen dela (70-71).

Amaitzen joateko, genero aldetik aipagarria iruditzen zaidan pasarte bat ekarri nahiko nuke. Bi gizon eztabaidan ari dira ea gerran Basarri ertzain ala erizain izan zen eta batek dio ea nola izango zen erizaina, haietako gehienak zuriz jantzitako emakumezkoak baitziren (14). Emaitzen atalean sakonago aztertuko dudan moduan, obra baten baino gehiagotan ageri dira emakumeak erizain lanetan eta rol banaketa garbia egiten da maiz. Interesgarria iruditzen zaidan beste alderdi bat narratzailea da. Egañak Basarriren idazmakina hautatu du haren jabearen berri eman dezan, baina ezaugarri humanoak emateaz gain, gaztetasuna eman dio. Hori horrela, narratzailea gaztea denez, ez daki gerra zer den, baina gerra aurreko makina zaharrek ematen diote horren berri: “gerra zela munduko gauzarik itsusienetakoa, dena eztanda, su, ke, tiro...” (13-14). Azkenik, aipatzekoa da liburuaren amaieran irakurleari zuzentzen zaiola narratzailea, eta Basarriren berri ematerakoan egin ahal izan dituen idazkera akatsengatik aldeztu aurretiko barkamena eskatzen diola (98).

#### **6.2.3.4. *Euskal Herriaren Historia XXI. mendeko hurrei kontatua***

Iñaki Egañak idatzi eta Tasiok irudiz hornitutakoa da *Euskal Herriaren Historia. XXI. mendeko hurrei kontatua* (Txalaparta, 2001) lana eta “Axuri Beltza” bildumako parte da. Ez du soilik Gerra Zibila lantzen, baina bertan azaltzen diren gerra eta gatazketatik, iruditzen zait 1936koari ematen zaiola garrantzi handiagoa eta beraz, egoki ikusten dut atal honetan aztertzea. Aipatzekoa da 8 eta 14 urte bitarteko irakurleentzat pentsatua dagoen bildumaren

parte dela eta bertan haur eta gazteentzako beste hainbat saiakera liburu daudela (*saiakera* bere zentzurik zabalenean hartuta): Iñaki Egañak 2004an idatzitako *1936ko gerra haurrei kontatua* (gero aztertuko dudana) eta Gilles Perraultek idatzi eta Bego Montoriok 1994an euskarara itzulitako *Zergatik gerrak?* adibidez (corpusean sartu ez dudana itzulpena delako). Horiez gain, bilduma beraren parte dira beheago aztertuko dudan *George L. Steer; Gernikan izan zen kazetaria* liburua, Denis Langloisek idatzi eta 2000. urtean Pernando Barrenak euskarara ekarritako *Injustizia haurrei kontatua* (corpusean sartu ez dudana itzulpena delako eta ez dituelako berariaz Euskal Herriko gatazkak aipatzen), edota Xabier Agurrutzaren *Pike eta Pitito*. Era berean, bilduma horretatik interesgarriak dira pertsonaia famatuei eskainitako lanak, adibidez, Fidel Castrok idatzi eta 2000. urtean Gari Berasaluzek itzulitako *Askatasunaren eskola* (Fidel Castrok haurrei eskainitako hitzaldia jasotzen duena), Toti Martinez de Lezeak 2003an argitara emandako *Antso Nagusia, baskoien errege handia* edo Che Guevara, Malcolm X, Elkano eta Bob Marley-ren ibileren berri ematen duten liburuak.

Egaña (Donostia, 1958) historialari eta idazleari dagokionez, aipatzekoa da saiakera landu duela nagusiki eta Euskal Herriari buruzko gaiak landu izan dituela batez ere, euskaraz zein erdaretan, adibidez, Frankismoaren krimenak, ETAren historia, ETAren armagabetzea, Burgoseko prozesua, euskal testuinguruan desagertutakoak, errepresioa eta kartzela. Narratiba lanetan ere horrelako gaiak izan ditu hizpide, esate baterako *1936. Aquella soledad* (Txalaparta, 2003) obran. Bere lanek sari azpimarragarriak jaso ez duten arren, aipatzekoa da Euskal Memoria Fundazioko presidente gisa 2018an Elkar argitaletxeak ematen duen Ibilbideari Elkar Saria jaso zuela, memoria historikoaren alorrean egindako lanagatik.

Tasio marrazkilariari dagokionez, labur bada ere azpimarratu nahiko nuke ezizen horren atzean Javier Etayo Larrainzar (Sesma, 1954) dagoela, binetagle gisa ezaguna den nafarra. Umore grafikoa baliatuta, hainbat gai salatu izan ditu bere bineten bidez, besteak beste, tortura, gerra zikina, preso politikoaren gaia eta bestelako auzi politikoak. Hainbat sari eskuratu ditu egindako lanei esker, eta argitalpen bat nabarmendu beharko banu, beste egile batzuekin batera ondutako *Tirabirak. Tiras que aflojan: Euskal gatazka binetetan. El conflicto vasco en viñetas* (UPV/EHU, 2016) lana aipatuko nuke, zeinak izenak aditzera ematen duen moduan, euskal gatazkarekin lotutako binetak biltzen dituen.

## **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurleei zuzendua dagoen 74 orrialdeko liburu hau hamar kapitulutan banatuta dago eta gizakiak haitzuloetan bizi ziren garaitik hasita, historiako aro

eta gertaera nagusiak biltzen dira, erromatarren garaia; barbaro, franko eta arabiarren iritsiera; Baskoniako dukerria eta Iruñeko erresuma; Erdi Aroko Euskal Herria, Nafarroaren konkista, Inkisizioa, Frantziako Iraultza, Karlistaldiak, foruak, Modernitatea, Industrializazioa, Lehen Mundu Gerra, Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, Frankismoa eta Euskal Gatazka hizpide hartuz. Irakurketa osatzeko, azalpenez gain Tasio marrazkilariaren irudiak tartekatzen dira.

## **Harrera kritikoa**

Lehenengoz 2001ean argitaratu zenetik, gutxienez 6 argitalpen izan ditu liburuak. Egia bada ere eskolek edo liburutegiek sortutako katalogo gutxi batzuetan ageri dela erreferentzia-liburu gisa<sup>86</sup>, ez dut bestelako iruzkin, erreseina edo kritikarik aurkitu, ez bada *Behinola* aldizkarian (Galtzagorri Elkarte, 2002) anonimoan mantentzen den egile batek argitara emandakoa, zeinetan aitortzen duen aurreiritziz beteta ekin ziola liburuaren irakurketari eta irakurketan aurrera egin ahala aurreiritzi horietako batzuk lausotzen joan zitzaizkion arren, beste datu batzuek zalantza eragin diotela. Horren adibide gisa lau haizetara hauspotu den mito bat aipatzen du, zeinaren arabera euskaldunok aurre egin genien menpean hartzen saiatu ziren guztiei. Kritikariak obrak duen biktimismorako joera nabarmentzen du, baita euskaldunen gainean ematen den irudi idealizatuegia ere. Ildo horretan, kritikagarria iruditzen zaio guda karlisten eraginez Ameriketara emigratu eta bertako herrien independentziaren aldeko gerretan kolonizatzaile espainiarren aurka borrokan aritu zirela azaltzea baina ez aipatzea Hego Ameriketako diktadore eta esplotatzaile asko euskaldunak izan zirela. Azkenik, kritikariak datu batzuk faltan bota dituela azpimarratzen du, adibidez, Euskal Herriaren banaketa politikoa edota Francoren aurkako borroka armatuari ekin ziona eta hildakoak eragin zituen ETA izan zela aipatzea.

## **Analisisa**

Laburpenean aurreratu bezala, liburuak hainbat aro eta hainbat gatazka ditu hizpide, baina atal honetan tesiko corpuseko gaiei buruz zein informazio eta zein ikuspuntu ideologikotik ematen den azalduko dut. Lehenik eta behin, aurreko azalari dagokionez, azpimarratzekoa da nahiko erraz identifika dezakeela irakurleak Tomas Zumalakarregi jeneral karlista, txapela gorria, jantzi urdina, bularreko dominak eta bere bibote bereizgarria baitarama. Obraren muinera jauzi eginda, guda karlistak “Foruen defentsa” deituriko

---

<sup>86</sup> Ikus adibidez, Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuak hainbat adituren kolaborazioarekin 2005ean argitaratutako gidaliburua: [https://www.ikas.eus/IMG/pdf/erdi\\_aroa\\_nafarroako\\_erresuma\\_gidaliburua.pdf](https://www.ikas.eus/IMG/pdf/erdi_aroa_nafarroako_erresuma_gidaliburua.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].

kapituluan (59-64) lantzen dira. Foruak zer diren azaldu eta gero, Karlistaldiak nola hasi ziren kontatzen da. Karlistak eta liberalak bereizten dira eta gaineratzen da euskaldun gehienek Karlos hobesten zutela errege, hark foruak errespetatuko zituelakoan. Hegoaldeko euskal herritarrak Tomas Zumalakarregik gidatutako armada osatu zutela adierazi eta Zumalakarregiri buruzko datu biografiko gutxi batzuk eman ostean, Bergarako hitzarmena eta armada karlistako euskal batailoi gehienek desadostasuna eta gudari askoren atzerriratzea jartzen da agerian. Bigarren Gerra Karlistari dagokionez, antzeko egitura mantentzen da. Karlismoaren alde egin zuten hainbat euskal herritar aipatzen dira, besteak beste, Antonio Dorregarai jeneral karlista eta haren laguntzaile Nikolas Olo, Gerardo Martinez Velasco, Antonio Lizarraga, Eustakio Llorente edo Manuel Santa Kruz Loidi apaiz eta gerrillaria. Euskal armada garaitua izan ostean euskaldun askok atzerrira jo behar izan zutela azaltzen da eta foruak galtzearekin batera, Bigarren Karlistaldia galtzeak Euskal Herrian izan zituen ondorioak aipatzen dira: “Euskararen aurkako jazarpena izugarria izan zen, gazteek Espainiako Armadarekin halabeharrez egin behar izan zuten soldadutza, eta mugak, berriro ere, kostaldean eta Pirinioetan finkatu ziren” (64).

Arestian aipatutako kapitulu horrekin batera, tesiaren aztergaiari begira, biziki interesgarria da “Modernitatea” kapitulua (65-74). Hitz gutxitan bada ere, Lehen Mundu Gerraren ondorioak ematen dira: “Euskal gazte askok egin behar izan zuen borroka, halabeharrez, Frantziako Armadaren aldean. Hala, gazte haietako asko, bazenik ere ez zekiten hizkuntza bat -frantsesa- hitz egiten zuen aberri baten izenean hil ziren”(69). Bigarren Mundu Gerraren berri ere oso modu laburrean ematen da. Funtsean, Adolf Hitlerrek eta haren Alderdi Naziak munduko nagusi bihurtu nahi izan zutelako piztu zen gerla handia (71) eta Alemaniako armada Baionan sartu euskal lurraldea menperatu zuten 4 urtez, “harik eta 1944an aliatuek –Errusia, Ingalaterra eta EEBB– Europa nazietatik askatu zuten arte” (71). Arestian aipatu moduan, Gerra Zibilak azalpen luzeagoa hartzen du (69-71). Ezkertiarrek hauteskundeak irabazi eta Errepublika aldarrikatu ostean, Franco buru zuten militarrek “errepublikarren aurkako gerra beldurgarriari ekin ziotela” (69) aipatzen da, baita euskal herritar karlistak horien alde agertu zirela ere (70). Matxinatuek, nagusitasun armamentistikoa izateaz gain, estatu indartsuen laguntza (Hitlerrek zuzentzen zuen Alemaniarena) zutela jakinarazten da. Horren ostean, abioi alemaniarrek hiru hilabetez Bizkaia bonbardatu zutela esaten da, Durango eta Gernikako bonbardaketak azpimarratuz (70). Gerra Zibilak Euskal Herrian izan zituen ondorioetako batzuk laburbiltzen dira eta “gerra galdu genuen” (71) esaldiak garbi erakusten du zein posiziotik ematen duen informazioa idazleak (euskaldun eta

galtzaileen ikuspuntutik). Jose Antonio Agirre buru zuen Eusko Jaurlaritzaren eta beste 150.000 biztanleren atzerriratzea, mila pertsonen heriotza eta kartzelak euskaldunetz betetzea dira aipatzen direnak. Diktadurari dagokionez, funtsean Frankismoak Hego Euskal Herria krisialdi larrian utzi zuela (71) eta euskara eta ikurrina debekatzearaino euskal kutsua zuen aldarrikapen edo jarduera oro jazarria izan zela azpimarratzen da (72). Azkenik, labur bada ere, euskal gatazkari buruzko informazioa aurki daiteke (72):

Egoera horretan [Francoren aginteak eragindako egoeran], 50eko hamarkadaren amaiera aldera, gerra ezagutu ez zuten euskal gazteen belaunaldi berria matxinatu egin zen Euskal Herria zapaltzen zuen gobernuaren eta agintearen aurka. Erresistentzia giro hura, lan eta ekimen askorekin uztarturik, euskal pizkundearen abangoardia izan zen. Gazte haiek “Euskal Herria zapaltzen zutenen aurkako” borroka armatuari ekin zioten, eta 60ko hamarkadaren amaiera aldera lehen hildakoak izan ziren gatazkaren ildo berri hartan, 1973an, berriz, Luis Carrero Blanco hil zuten, Espainiako presidentea (72).

Egia esan, nire ustez oso modu *naifean* ematen da euskal gatazkaren berri eta agerian geratzen da idazleak hartu duen ikuspuntu ideologikoa. Batetik, ez da adjektibo baloratiborik erabiltzen (eskuinak eragindako kalteak deskribatzean ez bezala, balorazio-adjektiboak erabiltzen baitira). Bestetik, bitxia iruditzen zait ETA talde armatua ez aipatzea eta horren ordean borroka armatuari ekin zioten gazteak aipatzea eufemismo gisa. Liburu honen helburu informatiboa kontuan hartuta, faltan bota dut datu hori esplizitatzea. Gaineratu nahiko nuke Carrero Blancoren hilketaren agentzia ez zaiola inori egozten eta badirudi istilu baten ondorioz hil zela, ez ETAk prestatutako ekintza baten emaitza gisa. Aurretik azaldu moduan, kaltearen eragileak argi seinalatzen dira, baina kasu honetan ez. Ez hori bakarrik, badirudi aipatzen den erresistentzia horren barruan diluituta geratzen dela borroka armatua eta nahasgarri gerta liteke. Amaitzeko, esan dezadan oso era sinplean azaltzen zaiola informazioa irakurleari, zehaztasun handirik gabe baina gerraren edo gatazkaren bilakaera ulertzeko gertaera eta pertsonaia nagusiak aipatuz.

#### **6.2.3.5. *George L. Steer, Gernikan izan zen kazetaria***

Edorta Jimenezek (Mundaka, 1953) idatzitakoa da George Lowther Steer kazetari eta gerrako berriemailearen ibileren berri ematen duen eta 2004an Txalapartan argitaratu zen liburu honen egilea. Ezer baino lehen, argitu behar da Omar Nabarro deiturapean sinatu dituela poesia liburuak eta produkzio nabarmena bildu duela urte guzti hauetan zehar. 80ko



hamarkadan hasi zen literatura egiten eta garai hartan poesia lanak ondu bazituen ere, gero prosari lotu zitzaion. Irakurle helduari zuzendutako lanak idatzi ditu nagusiki, baina aztertuko dudana obraz gain, badu HGLko beste obrarik ere, adibidez, *Urdaibaiko ipuin eta kondairak* (Alfaguara-Zubia, 1996) liburua edo *Itzala itzuli zenekoa* (Elkar, 1997) misteriozko eleberria. Azpimarratzekoa da bere lanen atzean ikerketa-lan sakona ezkutatzen dela maiz eta baduela Euskal Herriko testuinguru gatazkatsuari (gerra edo gerraostea) buruzko lanik ere: *Azken fusila* (Susa, 1993) nobela, *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan* (Susa, 2003) saiakera-lana, *Kilkerren hotsak* (Susa, 2003) eleberria edo hemen aztertuko dudana George L. Steer kazetariari buruzko HGL lana. Jasotako sarien artean, Azkue Saria (*Azken fusila* obrarekin) eta bi aldiz irabazitako Julene Azpeitia Saria dira aipatzekoak. Azken sari hori *Hemen datzana da* narrazioarekin irabazi zuen lehenik, eta urte batzuk beranduago, *Akitaniatik datorren berba berria* ipuinarekin, *Laudanoa eta sutautsa* (Txalaparta, 1996) liburuan sartu zuena alegia.

## **Laburpena**

Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendutako lan honek *George L. Steer* kazetari britainiarraren biografia biltzen du liburuak dituen 50 orrialdeetan barrena. Bere jaioterria, burututako ikasketak eta kazetari gisa izandako lanak aipatzen dira, eta horrekin batera, Steerrek bizi izandako gerrak. Liburuaren izenburuak dioen bezala, Gernikan izan zen kazetaria, eta liburuak herri horrek jasandako bonbardaketa du hizpide, Bilboren erasoaz batera. Gainera, Bigarren Mundu Gerran Steer Finlandian ibili zenez gero, gerra haren berri ere ematen da.

## **Harrera kritikoa**

Jimenezen lanetako batzuk hainbat hizkuntzatan aurki daitezkeen arren, hau ordea, ez da beste hizkuntzetara itzuli, nahiz eta urte batzuk pasa diren lehenengoz argitaratu zenetik. Prentsan edo akademian izandako harrerari dagokionez, aitortu behar dut liburu hau oharkabean pasa dela, ez baitut ezer aurkitu. Euskal liburuaren gaineko 6.000tik gora kritika jasotzen dituen Literaturaren Zubitegian adibidez, Jimenezen liburuaren kritika dezente aurki daiteke, baina bertan ez dago aztergai dudana liburuari buruzko kritika bat bera ere. Bestelako sare-sozialetan bilaketa eginda ere, ez dut ezer aurkitu. Beraz, zaila da liburuak izandako harrerari buruzko daturik ematea.

## Analisi narratologikoa

Lehenik eta behin, aipatzekoa da liburu hau Txalaparta argitaletxeak gazteei zuzendutako “Axuri beltza” bildumaren parte dela eta kolekzio honetan historikoki garrantzia izan duten hainbat pertsonen biografiak aurki daitezkeela. Liburua eskuetan hartu eta Esteban Montoriok egindako aurreko azalean, hainbat irudi ageri dira *collage* teknika erabilia. Batetik, atzeko planoan ia oharkabean pasatzen den Picassoren *Guernica* koadroa identifika daiteke. Zehazki, kriseilua heltzen duen emakumearen eskua eta koadroaren goiko aldeko bonbilla antzeman daitezke. Bestetik, marko berak mugatuta, Steerren argazki bat ageri da, bonbak jaurtitzen ari diren hegazkin pare batekin batera. Azpian, *Guernica* koadroaren zati bat ageri da eta bonbak horixe bera suntsitzen ari direla dirudi: Gernika. Aitzeko azalean, ere, *Guernica* koadroa identifika daiteke. Hala aurreko nola atzeko guardetan, zuri-beltzeko munduko mapa ageri da. Idazleak Steer bizi izandako tokietara bidaia bat proposatzen dio irakurleari eskaintzan, eta horretarako, munduko mapa bat eskura izatea gomendatzen du. Horra hor guardetako mapen zergatia, irakurleari bidaia horretan kokatzen laguntzea. Liburuaren amaieran, Jimenez idazlearen eta Montorio marrazkilariaren informazioa dator. Biografia baino, sortzaileetako bakoitzak Gernikarekin duen lotura azaltzen da eta liburuaren idazteko arrazoitzat har daiteke berau. Gernikatik 10 kilometrotara jaio zen Jimenezen kasuan, bere amonaren oroimenez idatzi du liburuaren, hark Gernikara joaten ikusitako hegazkinak aipatzen baitzizkion. Montoriok, berriz, jakitera ematen du amak sarri kontatzen ziola zer nolako beldurra pasa zuen Gernikako zeruan hegazkin alemaniarrek ikustean. Bi sortzaileen adierazpenetan ikus daitezke liburuak mintzagai duen gaia nola edo hala gertuko zaiela. Gainera, memoria filiatiboaren eta memoria komunikatiboaren adibide dira amak eta amonak emandako testigantza horiek.

Idazleak ama eta amonari egindako eskaintzaren aurretik, Steerrek ingelesez idatzitako erreportajearen zati bat ageri da (egunkari zati bat), zeinetan Gernikako bonbardaketaren berri ematen den<sup>87</sup>. Liburuaren 9 kapitulu laburretan antolatuta dago eta garaiko argazkiak tartekatzen dira. Aztergai dudan obra Steer kazetariaren biografia dela esan dut eta espero moduan, haren berri ematen du narratzaile orojakileak. 1909an Hegoafrikako Errepublikan jaio zen, artean kolonia zela (kolonia bat zer den azaldu eta Afrikako toki asko Europako potentzien koloniak zirela jakinarazten zaio irakurleari). Steerrek Londresen egin

---

<sup>87</sup> Irakurleak Steerrek idatzitako berri osoa eskuratu nahiko balu, lotura honetara jo dezake: <https://www.eitb.eus/multimedia/infografias/nagore/gernika2/pdfs/STEERING.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

zituen kazetaritza ikasketak eta Abisiniara kazetari joateko aukera izan zuen, hain juxtu 1935ean, Abisiniako gerra hasi zenean. Bertan bizitako esperientziari kapitulu oso bat eskaintzen zaio eta besteak beste, gerraren hasiera eta Mussolinik izandako parte-hartzea azaltzen da, jakinaraziz, 1936an Abisinia faxisten mende geratu zela. Atal honetan diktadura zer den azaltzen du narratzaileak:

Zer da diktadura? Eskolan gertatzen den egoera baten antzekoa da. Batek diktatu egiten du, eta beste denek hark esandakoa kopian, obedituz. Pentsa dezagun norbaitek hori berori politikan, gizartean eta kulturean egiten duela. Horixe litzateke diktadorea, eta sistema osoa, berriz, Diktadorea ez da egoten bakarrik, noski, beti izaten baitu boteretsu talde bat inguruan. Obeditu egiten duena herria izaten da. Herri zapaldua (19).

Tesiko corpusari begira, goiko aipua interesgarria da, izan ere, hainbat obratan definitzen da diktadura eta erkaketa bat eginez ikus daiteke non jartzen duten fokua egileek. Bestalde, esanguratsua da jarraian datorren pasarte hau, zeinetan agerian jartzen den Abisinia gerraren bidez menperatu zutenen gizagabetasuna (Italiako armada), baita espainiarrena ere:

Italiarren hegazkinak bonbak jaurtitzen zituzten [...] italiarrek hegazkinak gas erikorrek hedarazteko erabili zituztela. Gas erikorrek, edo hil egiten dituzten gasak. Horiek Lehenengo Mundu Gerran erabili izan ziren lehenengoz. Eta haien eragina hain zen izugarria, non, gerra amaitu ondoren, debekatu egin baitziren. Zurien artean erabiltzeko! Halaxe ulertu zuten faxistek. Eta Abisianian gasak erabili zituzten. Lehenago espainiarrek Marokon erabili izan zituzten moduan (21).

Esplizituki adierazten da italiar faxistek Abisianian eragindako triskantza eta datuak (zifratu) ematen dira ere, besteak beste, asteburu batean Addis Abeban 3.000 abisiniar baino gehiago odol hotzean hil zituztela adieraziz (29). Abisiniako gerrari buruzko kapituluaren ostean, liburua Espainiako Gerra Zibilean zentratzen da. Steer Espainiara bidali zuten arren, 1936ko irailean handik kanporatu zuten (26) eta orduan ekin zion Zesar Abisianian izeneko liburua idazteari, jatorriz *Caesar in Abyssinia* (1936). Dena den, handik gutxira berriz deitu zioten gerrara joateko, oraingoan Euskal Herrira. Aztergai dudan liburuak, hasieran esan bezala, kazetariak euskal lurretan bizi izandako bi bonbardaketaren berri ematen du: Bilbokoa (urtarrilekoa) eta Gernikakoa. Lehenengoari dagokionez, hainbat dira azpimarratu beharreko pasarteak. Batetik, kaltearen eragilea garbi adierazten da: faxistak, baita alemaniar eta italiarrak ere. Gainera, azpimarratzen da Eusko Jaurlaritzaren menpeko armadak ez zeukala haiei aurre egiteko arma nahikorik (27), beraz, gutxiagotasun posizio batean zegoen Euskal

Armada. Dena den, errepublikarrek erabilitako indarkeria ere erakusten da, aditzera emanez, guda batean bi aldeek baliatzen dutela biolentzia. Hau da pasartea:

Aldiz, erasoaldi hartan agian harrigarriena zera izan zen: Errepublikaren aldeko hegazkinek alemaniar hegazkin bat jo eta behera bota zutela. Hegazkineko bik jauzi egin zuten, jausgailuez. Bilboko herriak pilotu haietako bat harrapatu zuen, Pagasarri inguruan. Bertan eman zioten heriotza, kolpeka (27-28).

Bestetik, bonbardaketa hartan haurrak ere hil zirela aipatzen da (27), eta datu hori azpimarragarria da, corpuseko obretan maiz jartzen baita agerian gerretan haurrak ere hiltzen dituztela. Gernikako bonbardaketa deskribatzean ere, hildakoen artean umeak egon zirela aipatzen da (11). Ikusitakoa ikusita, Steerrek posizionamendu garbia hartu zuen:

George L. Steer gertaera haien lekuko izan zen. Lekuko hotza, lehenik, baina gero bihotza berotu zitzaion, eta bere *aldea* hautatu zuen. Gerra hartan ez zegoen neutrala izaterik. [...] Euskadiko Errepublika Autonomoaren alde jarri zen, eta jarrera horretatik idatzi zuen (28, 33).

Esango nuke biografia honek azpimarra berezia jartzen duela Steerrek bere kazetari lanari esker Euskal Herriaren alde egindako ekintzetan. Batetik, Bilboko portua blokeatuta zegoen ustea gezurtatu zuen *The Times* egunkari famatuan idatzitako artikuluan eta ondorioz, *Seven Seas Spray* ontzia Bizkaira iritsi zen (32-33), gosez akabatzen zeuden herritarrei hainbat tona elikagai emateko. Bestetik, Gernikako bonbardaketaren berri eman zuen aipatutako aldizkarian, herria faxistek suntsitu zutela baieztatuz<sup>88</sup> (11).

Harrezkero ahaleginak egin zituen, munduak egia jakin zezan. Alemaniako Kondor Legioak eta italiar hegazkinek bonbardatu zuten Gernika. Franco eta bere Goi Estatuaren adostasunaz, haren oniritziaraz, haren aginduaz? Historialariek eztabaidan segitzen dute, aukeran diren erantzun horien artean egiazkoena zein den. Ala hirurak ez ote diren egiazkoak (35).

Gernikako bonbardaketari liburu hasieran ematen zaio sarrera, irakurlea Gernikan kokatuz, bonbardaketaren egunean bertan: “1937ko apirilaren 26a zen, astelehena. Beraz, plaza-eguna Gernikan” (9). Hasieratik ematen zaio irakurleari sarraskiaren berri, bai eta Noel Monks, Christopher Holme eta Mathiew Corman kazetariekin batera Steer bertara joan zela *The Times*en argitaratu zuen berria idaztera. Hala ere, kontakizunean eten bat egin eta Steerrek Euskal Herrira iritsi aurretik bizitakoak kontatzen ditu narratzaileak. Gainerako

---

<sup>88</sup> Liburuan bertan, idazmakina tipografian idatzita, 1936ko apirilaren 27an Steerrek *The Times* egunkarian idatzitako pasarte bat dator, euskaraz, zeinetan esaten den errebeldeen hegazkinen erasoaren ondorioz Gernika, euskaldunen hiririk zaharrena eta haien tradizio kulturalaren muina dena, erabat suntsituta geratu dela (49).

pasarteak hurrenkera kronologikoan ematen dira. Gernikan eragindako triskantza irudiekin adierazteaz gain, hitzekin ere esplizitatzen da: bonbak tantaka lehertzen, etxeak sutan, hildakoak nonahi (umeak barne), animalia hilak eta suak jandako herria (8, 11, 34, 36). Irudiak aipatu ditudala, ezin aipatu gabe utzi azalekoaz gain, Steer beraren hainbat argazki aurki daitezkeela liburuan (16, 24, 30, 36, 47), Abisinian kazetari ibili zenekoa edo 1938ko azaroaren 2an East London-eko aerodromoan ateratakoa, besteak beste.

Bilbo eta Gernikaren bonbardaketak aipatu ditut arestian, baina zehaztu beharra dago beste herri euskaldunetan gertatutako sarraskiak ere aipatzen direla (aipamen hutsa eginez), faxistek Otxandio, Eibar, Durango eta Gerrikaitz bonbardatu zituztela esaten baita (34). Era berean, Gernikako bonbardaketa kriminalagoa izan zela jakinarazten da eta bonbardaketaren garrantzia azpimarratzen da: “Gernika gero etorriko ziren bonbardaketen esperimentazio lekua izan zen” (34). Euskaldunen imajinario kolektiboan memoria gune garrantzitsu bihurtu diren toki horiez gain, Gernikako arbolari kapitulu bat eskaintzen zaio. 1937an idatzi eta 1938an argitaratutako *The Tree of Gernika* Steerren libururik ezagunena da eta haren ustez Gernikako Arbola da gerra hartako galtzaileen ikur nagusia (37).

Bigarren Mundu Gerrari buruz ere hitz egiten da Jimenezen liburu honetan, garai hartan Finlandiara eta Birmaniara bidali baitzuten Steer. Gudaren ondorioz Steerrek bizi eta ikusitakoak deskribatzen dira, zibilen aire-bonbardaketak eta hiri suntsituak nagusiki (42). Azken kapituluan britainiar kazetariaren heriotzaren berri ematen da, haren figura goraiatuz eta Agirre Lehendakariak zion miresmena aipatuz (Agirrek berak emandako urrezko erlojua zeraman Steerrek hil zenean, Gernikari buruz idatzitakoak eskertzeko emana). Horrekin batera, Gernikako bonbardaketak ekarritako inozentzia galera azpimarratzen da, alegia, zibilak gerran sakratuak zirelako ustea gezurtatu zela eta horren ordez, gerran denak balio duela dioen ustea zabaldu zela. Garrantzitsua den beste ideia bat azpimarratzen da: Gernika ez zutela desagerrarazi eta errautsetatik birjaio zela (50), itxaropenerako mezu garbia, nire ustez. Liburua Steer ohoratuz amaitzen da, honako hitz hauekin: “Pablo Picassok margotu zuen *Guernica* koadroaren parean, George L. Steerrek egin du horretan lanik ederrena, *The Tree of Gernika* idatziz. Agur eta ohore, George L. Steer” (50).

Analisiarekin amaitzeko, esan dezadan ongi bereizitako bi talde egin daitezkeela liburuan ageri diren pertsonekin. Batetik, Franco, Espainiako militar errebeldeak eta faxistak (horren barruan Mussoliniren Italia eta Hitlerren Alemania eta Kondor Legioa) leudeke. Bestetik, Steer bera (protagonista), Errepublikarrak (Errepublikaren alde agertu zen Sobiet

Batasuna ere), Eusko Jaurlaritza (Agirre Lehendakaria eta Euskal Armada) edo Nazioarteko Brigada leudeke. Kaltea lehenengoek eragiten dute nagusiki eta hainbat aldiz azpimarratzen da haien gizagabetasuna (nahiz eta azaldu bezala, errepublikazale batzuek pilotu alemaniar bat kolpeka hil zutela aipatu). Pertsona horiez gain, garaiko beste pertsona, itsasontzi eta abarrak ageri dira, errealak, espero izatekoa den moduan, biografia bat denez gero.

#### **6.2.3.6. 1936ko gerra haurrei kontatua**

Iñaki Egañak idatzi eta Esteban Montoriok irudiz hornitutakoa da jarraian aztertuko dudana, Txalapartak 2004an argitara emana “Axuri Beltza” bilduman. Egañari buruzko zertzeladak aurreko lana aztertzerakoan eman ditut, eta Montoriori dagokionez, azpimarratzekoa da diseinatzaile grafikoa eta Txalapartako arte zuzendaria dela 1990etik.

#### **Laburpena**

Hamahiru urtetik gorako irakurleei zuzendutako lan honek 65 orrialde ditu eta bertan, izenburuak aditzera ematen duen moduan, 1936ko Gerra Zibila azaltzen zaie haurrei, modu errazean eta irudiz lagunduta.

#### **Harrera kritikoa**

Hainbat egunkari eta aldizkaritan aurkitu ditut liburuari egindako aipamenak, baina horietan ez da baloraziorik eskaintzen, argitaletxeak berak emandako sinopsia errepikatu besterik ez baita egiten. Arantxa Iturbe idazleak (2005), ordea, kritika bat idatzi zuen eta gauza ororen gainetik, lantzen zaila den gai bat haur eta gazteei azaltzeko moduan landu izana eskertu zion Egañari. Liburuan haurrak erdigunean jarri izana goraipatu zuen, hau da, agerian jartzea hurrek Gerra Zibilaren ondorioz pairatutakoa, heriotza eta erbestea, besteak beste.

#### **Analisia**

Saiakera gisa sailkatu dudan liburu honen analisi kritikoak egitura berezia eskatzen du, izan ere, aurreko lanekin erabillitako eskemak ez du balio haren edukiaren berri emateko. Horregatik, batez ere, agertzen diren gertaerak, memoria gunek eta pertsonaia historikoak aztertzeaz gain, edukiak zein ideologiatik ematen diren jarriko dut agerian. Aurreko azalean hainbat irudi ageri dira *collage* teknika erabilia. Batetik, atzeko planoan ia oharkabean pasatzen den Picassoren *Guernica* koadroa identifika daiteke, kriseilua heltzen duen

emakumearen eskua eta koadroaren goiko aldeko bonbilla antzeman baitaitezke<sup>89</sup>. Bestetik, suak kiskalitako etxe multzo bat ikus daiteke. Horren gainean, garaiko kartel batetik ateratako irudia ageri da (Eusko Gudarostearentzako laguntza eskatzen duen 1937ko Gerra Zibileko kartel katalan baten goiko parte da, ikus 2. irudia): Behean, armekin borrokan ari diren soldatuak identifika daitezke. Zeruian gerrako hegazkin batzuk ageri dira eta horrekin batera, goiko aldean, ikurrina bat atzean duen emakume bat ageri da. Azkenik, deskribatu berri dudan planoaren gainean, haur batzuen argazkia ageri da eta nabarmentzekoa da horietako batek igeltsua daramala besoan (gerraren ondorio izan daitekeena). Atzeko azalean, berriz, Picassoren *Guernica* artelana gogorarazten duen irudi bat antzeman daiteke. Guarda delakoan, hala aurrekoan nola atzekoan, zuri-beltzeko irudi bera ageri da: Atsekabe aurpegia duten txapeladun gizon bat eta haurra besoetan duen emakume bat, buruko zapia jantzita duena. Biak burumakur doazen pertsona multzo bati begira ari dira. Irudi horiek ere garaiko kartel batetik ateratakoak dira (ikus 3. irudia). Nire ustez, biziki interesgarria da egileak garaiko benetako kartelak baliatu izana liburuaren paratestuak sortzeko.



2. irudia: Carmona delako batek egindako kartela, Eusko Gudarostearentzako laguntza eskatzen duena. 1937koa. 125 x 86 cm.

---

<sup>89</sup> George L. Steer, *Gernikan izan zen kazetaria* liburuan ere atzeko plano berdina (beste kolore batean) ageri da eta esan daiteke oro har “Axuri beltza” kolekzioa osatzen duten liburuak antzeko formatua dutela.



3. irudia: Serra Molist egileak egindako kartela, Barcelonan Delegació General d'Euzkadi a Catalunya-ren eskariz. 1937an egindakoa dela uste da. 64,8 x 50 cm.

Liburuaren izenburuak hurrak egiten ditu hartzaile, baina testua inguratzen duten bestelako elementu paratestualek ere hurrak jartzen ditu erdigunean. Batetik, testua hasi aurretik datorren orrialdean, izenburua ageri den orrialdean, neska eta mutiko gazte baten irudia ageri da. Bestetik, idazlearen hitzaurre batek eta zuri-beltzeko irudi batek ematen diote hasiera liburuari, zeinetan azaleko irudi bertsua ikus daitekeen: mutiko talde bat eta atzean kiskaltzen ari den etxe multzo bat, zeruan bueltaka ari diren hegazkinekin batera. Testuari dagokionez, 113 izen ageri dira<sup>90</sup> eta amaieran, “ume zinetelarik kendu zizueten bizitza 1936ko gerra madarikatu horretan, Gure ume euskaldunak! Zuen oroimenez idatzi ditut gogoeta hauek” (7) esanez sinatzen du Iñaki Egaña idazleak. Nabarmentzekoa da “gure ume euskaldunak” sintagmarekin idazleak markatzen duen gutasuna. Hitzaurre horrez gain, liburua 8 ataletan banatuta dago eta garaiko argazki zein irudi batzuk tartekatzen dira.

Liburuaren hasierak Errepublika garaian kokatzen du irakurlea, edo esaten den moduan, erregerik ez zegoeneko garaian (11). Lehen Errepublikari buruzko datu batzuk eman eta gero, Bigarren Errepublikari buruzko azalpena ematen da. Jarraian, 1933ko hauteskundeetan garaile irtendako eskuinak burututako sarraskiak agerian jartzen dira, lan eske borrokatu ziren pobre eta baserritarrei eskuindarrek bidalitako armada eta poliziak eragindako hildakoak eta espetxeratuak azpimarratuz (13-14). 1936. urte hasierako hauteskundearen harira, ezkertiarrek eta eskuindarrek bereizten dira eta esanguratsua da nola ezaugarritzen diren ikustea: “Normalean, eskuinak aberatsenen alde egiten du eta ezkerrek langilegoaren alde” (12). Ez hori bakarrik, hauteskundeak ezkerrek irabazi arren,

<sup>90</sup> Izen zerrenda horrek Ken Zazpi taldeak musikatu eta Joseba Sarrionandiaren letrak dituen *Gernikan* abestia dakarkit gogora, zerrenda-egitura horrez gain, izenen bat errepikatzen baita.



eskuindarrek indarkeria baliatu zutela aipatzen da (16-17). “Eta nor dauka, hein handi batean, indarkeriaren gaineko kontrol osoa? Militarrek, jeneralek, almiranteek... armak dituztenek, azken batean. Modu horretan ekin zioten gerraren prestakuntza lanari” (16).

Idazlea irakurlearengana zuzentzen da (“ezagun egingo zaizkizue basati honen izen-deiturak” (17), Emilio Mola jeneralari erreferentzia eginez) eta balio-iritziak emateaz gain, adjektibo baloratiboak ematen ditu, esaterako, “Francisco Franco diktadore beldurgarria” (48), “Franco gaizkilea” (60), eskuindarren portaera “kaskarra” (16) edo “arma beldurgarriak” (18). Eskuin eta ezkerre bereiztearekin batera, 1936ko estatu-kolpearen ostean Gerra Zibilean elkarren aurka aritu ziren bi bandoak azaltzen dira. Gerraren hasierari atal bat eskaintzen zaio eta bertan Otxandioko bonbardaketak eragindako kalteen berri ematen da: 84 hildako (erdia 15 urtetik beherakoak) eta 113 zauritu (23-24). 1936ko uztaileko Donostiako matxinatuen eraso odoltsua ere deskribatzen da (24-25), baita Araban eragindako sarraskia (26) edo Eibar inguruan izandako triskantza ere (29-30). Azken horri dagokionez, eskuindarrek hildako herritarren kopurua ematen da (1.100 bat pertsona) eta fusilatutako apaiz eta bestelako pertsona ezagunak aipatzen dira: Jose Ariztimuño eta Manuel Lekuona apaizak edo EABko Dominika Artola, besteak beste (30). Jarraian datorren pasarte hau adierazgarria da gertakizunak zein tonutan ematen diren ikusteko:

Nafarroan [eskuindarrak] herriz herri ibili ziren jendea atxilotzen eta heriotza-zigorra ezartzen, epaiketarako aukera ere bermatu gabe. Lotsagarria eta beldurgarria izan zen. Hilabete gutxi batzuetan matxinatuek 3.000 nafar hil zituzten, eta mendian, zelaietan eta bide bazterretan lurperatu zituzten gorpuak, animaliak izango balira bezala. Bazekiten izugarritzko basakeria eragin zutela, baina egindako sarraskia ezkutatzea lortu zuten. Kasu askotan familia osoak afusilatu zituzten, haurrak ere tartean [...] emakumeak bortxatu zituzten, mingainak josi zizkieten eta herri osoak isilpera kondenatu zituzten (25-26).

Ikusten den moduan, datuak ematerakoan, haurrak kaltetun ageri dira eta egileak haurrengan jartzen du azpimarra. Gerraren hastapenak azaldu ostean, liburuak Eusko Jaurlaritzaren sorrerari atal bat eskaintzen dio (31-38) eta bertan, Autonomia Estatutuaz eta horrek ematen zituen eskumenez eta Euskal Armadaz hitz egiten da (itsasontzi euskaldunen izenak eta lehorreko batailoien izenak aipatuz). Garai hartan sortutako euskarazko lehenengo egunkaria, *Eguna*, (32) eta Matxitxakoko gudua ere aipatzen da, hildako euskal marinela barne (36). Hurrengo kapituluan, gerraren bilakaeraren berri ematen da, betiere matxinatuen erasoaldiak deskribatuz (39-44). Soldadu italiar eta alemaniar hegazkinen laguntzarekin, Francisco Francok Euskal Herria inbaditu zuela aipatzen da eta jarraian, Elgetako, Elorrioko,

Otxandioko eta Durangoko bonbardaketak (40-41), Sabigaineko tontorraren hartzea (41), Bilbon egindako hiru bonbardaketak eta eragindako kalte mortalak (42), Intxortako euskal frontearen erorketa eta Elgetan sartzea (43-44) hartzen da hizpide. Kalteen balantzea egiterakoan, aurreko aipuan bezala, hemen ere hurrengan zentratzen da idazlea:

Durangon, guda osoan euskal lurraldean nozitu zen tragediarik latzena eragin zuten: 250 pertsona hil zituzten tragediarik latzena *Savoia* hegazkinek jaurti zituzten lau tona bonbekin. Ordu erdia iraun zuen sarraskiak eta txikituta gelditu zen Durango. Hildakoen artean ume franko aurkitu zituzten (40-41).

Gernikako bonbardaketak atal oso bat hartzen du (45-50) eta hainbat xehetasun eskaintzen zaizkio irakurleari, baina batez ere, 40.000 kilo lehergailu bota zuten hegazkin alemanen parte-hartzea, bando nazionalak eragindako kalteak eta azken horiek bonbardaketari buruz zabalduetako gezurretan (Gernika gorriek erre zutela) jartzen da azpimarra. Ezin aipatu gabe utzi bonbardaketaren ondoriozko hildakoak aipatzean, gehienak haurrak izan zirela jakinarazten dela eta jaioberria zen haur baten izena ere ematen da (47). Berriz ere, aurrekoetan bezala, azpimarra hurrengan jartzen dela ikus daiteke. Are gehiago, “Haurrak” izeneko kapitulu bat dago, zeinetan haurren ebakuazioak azaldu eta datuak (zenbakitan) ematen diren, irteerako portuak eta helmugako portuak barne (51-54). Interesgarria da nabarmentzea Francoren armadak Esteban Urkiaga *Lauaxeta* atxilotu eta fusilatu zuela aipatzen dela (47) eta espero izatekoa den moduan, Pablo Picassoren *Guernica* koadroari buruzko zertzelada batzuk ematen dira (48-49). Gerran zehar erasoak jasan zituzten bestelako tokiak ere aipatzen dira, Sollube, Bizkargi, Jata mendia eta Mungia (56), besteak beste. Azken horri dagokionez, Mungiako bonbardaketan hildako ama eta haren 4 seme-alaben izen-abizenak ematen dira (56), nire ustez, helburu bikoitzarekin: batetik, pertsona horiek ohoratzeko, eta bestetik, datuen atzean ezkututzen diren benetako pertsonak agerian jarri eta irakurlearengan emozioak pizteko. Gerraren ibilbide hori Santoñako errendizioan amaitzen da (61). Liburuaren azken atalak gerrako ondorioak ditu hizpide eta ederto adierazten da zer suposatu zuen Euskal Herriarentzat gerra galtzeak (61-65), baita Frankismoaren hasierak ere:

Garaileen mendekuari hasiera eman zitzaion. [...] Errepublikazaleen fusilamenduak eskuindarrak herri bakoitzean sartu orduko hasi ziren. [...] Kartzela izan zen mendekuaren bigarren urratsa. 1937. urte amaieran Euskal Herriko espetxeetan 17.900 preso zeuden. [...]

Eskuindarrek mendekuaren ondorengo urratsak ere bete zituzten [...]. Euskara debekatu zuten<sup>91</sup>. Ikastolak itxi zituzten. Ikurriña erre zuten. Langileen eskubideak zapaldu zituzten. Biztanlegoaren bizimodua kontrolpean jarri zuten. Erbestea izan zen milaka euskal herritarrek hartu behar izan zuten bidea. Erbesteak orduko herritarrak eta ondorengo belaunaldiak markatu zituen, kartzelak edo gerrak bezainbeste edo gehiago. Sekula ezagutu den euskal exodo handiena izan zen (62-64).

Liburu honetan ematen diren datuen artean irudiak tartekatzen dira eta horietan armez hornituta edota borrokan ari diren gizonak (38, 46, 47), txikitutako kaleak (44), behera botatuko eraikin eta zabor artean negarrez, goibel edo elbarrituta dauden haurrak (49) edo bonbardaketan ari diren hegazkinei izu ikaraz begira dauden haurrak (50) ageri dira. Horrez gain, Agirre lehendakaria izan daitekeen gazte baten argazkia ageri da (33). Ikus daitekeenez, marrazkiekin batera, argazkiak tartekatzen dira.

Aipatzekoa da Egañaren lan honetan aski ongi bereizitako bi bando ageri direla. Batetik, matxinatuak, alemanen, italiarren eta mairuen laguntza izan zutenak, baita Elizaren, bankuen eta enpresarien babesa eta militar eta polizia gehienena ere. Oro har, Eliza jomugan jartzen da eta elizgizon gehienak (ez guztiak) eskuindarrekin batu zirela azpimarratzen da. Esan gabe doa alderdi horri ezaugarri negatiboak baino ez zaizkiola egotzen: “Euskal Herriko alderdi eskuindarreko partaideak oso sinesdunak ziren, emakumeen zapalkuntzaren alde zeuden eta langileria etsaitzat zeukaten” (15). Francok Euskal Herriari eraso egin baino lehen Pio XI.ak matxinatuei oniritzia eman ziela azpimarratzen da (40), berriz ere, Elizaren inplikazioa agerian jarritz. Bestetik, errepublikazaleak (Eusko Jaurlaritza, euskaldunak) ageri dira eta idazlea ere alde horretan kokatzen da, iruzkinaren hasieran aipatutako “gure ume euskaldunak” horrek aditzera ematen duen moduan. Esan bezala, kaltearen eragiletzat matxinatuak seinalatzen dira uneoro. Ulertzen denez, errepublikarrek defentsarako baino ez zituzten armak erabili eta kaltea eragin zutenean ere, matxinatuen erasoetatik babesteko baliatu zituzten (19, 24, 25). Matxinatuek demokratikoki erabakitako hauteskundeak ez onartzeaz gain, behin eta berriro azpimarratzen da haien mendeku nahia (25, 29). Esaldi honek argi adierazten du batzuen defentsa eta besteen eraso: “Errepublikarrek defentsarako eta matxinatuek erasoerako, mendi gailur eta maldak kontrolatzeko lehian” (55). Liburuak gerrako pasarte eta pertsonaia ugari aipatzen ditu, baita euskal politika edo kultura arloko pertsonaiak ere. Politikaren eremuan Jose Antonio Agirre lehendakaria, Jesus Maria Leizaola

---

<sup>91</sup> Euskaraz hitz egiteko debekuaren harira, beste pasarte batean aipatzen da Arrasaten, Isidoro Iturbe Elkorobarrutia (esan gabe doa benetako izena dela), kalean bertan atxilotu eta torturatu zuela Guardia Zibilak emazteari euskaraz hitz egiteagatik (30).

EAJko burua, Santiago Aznar politikari sozialista, Juan Astigarribia politikari komunista, Franco, Hitler eta Emilio Mola jenerala aipatzen dira, besteak beste. Kulturari dagokionez, berriz, Jose Ariztimuño eta Manuel Lekuona idazleak, EABko Dominika Artola, Karmelo Etxegarai euskaltzalea eta Lauaxeta dira aipagarrienak. Pertsonaia horietako batzuk memoria gune gisa har litezke, aipatzen diren bestelako tokiekin batera (baita Carlton hotela edo *Habana* itsasontzia ere). Azkenik, genero aldetik arreta jartzeko moduko bi datu iruzkindu nahiko nituzke. Batetik, tesiko corpuseko beste obra batzuetan ikusten den moduan, emakumeen bortxaketak ageri dira (eskuindarrek egindakoak). Bestetik, gerra baten aurrean gizon eta emakumeei esleitzen zaien espazioa agerian jartzen du obrak: Gizonak frontera bidali zituzten eta emakumeak, berriz, soldaduentzako arropa eta kuartel barruko lana egitera (33-34).

#### **6.2.3.7. Urtebete itsasargian**

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962) da 1936ko Gerra Zibilaren gainean nobela bat argitaratu duen lehen emakume idazlea eta genero begirada batetik emakumeek guda hartan izandako parte-hartzea islatzen duena (Serrano, 2019). Jarraian iruzkinduko dut mugarri hori ezarri zuen obra, baina eleberriarekin hasi aurretik, komenigarri deritzot aipatzeari Meabe izan dela Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria gehien jaso duen emakume idazlea, *Itsaslabarreko etxea* (Aizkorri, 2001), *Errepidea* (Erein, 2010) eta *Urtebete itsasargian* (Elkar, 2006) obrekin hain zuzen. 12 urtetik gorako irakurleei zuzendutako azken obra horrek 2008an Galtzagorri Elkarteak antolatzen duen Liburu Gaztea saria irabazi zuen (sariketa berezia, izan ere, Galtzagorri Elkarteak proposatutako liburu zerrenda batetik abiatuta, DBHko irakurleak dira haien liburu gustukoena hautatu eta sariketako irabazlea izendatzen dutenak) eta IBBYren ohorezko zerrendan sartzeko hautagai izan zen. Beste liburu batekin bada ere, *Mila magnolia lore* (Mensajero, 2010) obrarekin, Meabek ohorezko zerrenda horretan sartzea lortu zuen. Helduentzat zein haur eta gazteentzat idatzi du idazle lekeitiarrak eta hainbat sari eskuratu ditu bere narrazio eta poesia lanei esker. Aurrez adierazitakoez gain, aipagarriak dira *Azalaren kodea* (Susa, 2000) poema bildumarekin eta *Bitsa eskuetan* (Susa, 2010) liburuarekin bi aldiz jasotako Espainiako Kritika Saria eta Espainiako Poesia Saria, *Nola gorde errautsa kolkoan* (Susa, 2020) lanarekin. Ezin aipatu gabe utzi azken sari horrekin beste mugarri bat jarri zuela Meabek, euskarazko lan batekin sari hori irabazi duen lehen egilea izan baitzen.

## Laburpena

Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendutako istorio honetako protagonista Jon Iturri da, hamahiru urte betetzear dituen bilbotarra. 1936ko Gerra Zibila dela eta, mutikoak Garraitzeta izeneko kostaldeko herrian igaroko du urte bat osaba Alejandro farozainaren etxean. Gerratik babesteko eramango dute gurasoek bertara, baina hala ere, Jonek gerra ezagutuko du, baita honen ondorio latzez jabetu ere. Nobela honek II. Errepublikako gobernuaren aurka egindako altxamendua gertatu zenetik matxinatuek Bilbo menpean hartu arteko aldia deskribatzen du, eta batez ere, Gerra Zibilak Euskal Herrian izandako eragina islatzen du. Era berean, liburuak hartzen dituen 132 orrialdeetan, garai hartako giro kulturalaren berri ematen da.

## Harrera kritikoa

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da oso harrera ona izan duela. Gorago aipatu bezala, nobela honi esker Meabek Euskadi Saria jaso zuen 2007an. Horrez gain, Liburu Gaztea Saria jaso zuen 2008an eta urte horretan bertan, IBBYren ohorezko zerrendan sartzeko hautagai izendatu zuten. Esan gabe doa Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela liburua. 2008. urtean ere, Meabek berak gaztelaniara itzuli zuen obra, *Un año en el faro* (Lóquez, 2008) izenburupean. Gutxienez 25 argitaraldi izan ditu liburua eta tesiaren hasieran jakinarazi dudan moduan, Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* liburuarekin batera, hauxe da Gerra Zibilari edo oro har memoria historikoari buruzko lan monografikoek gehien aipatu duten HGLko obra. Gainera, Heziberri 2020 Planaren bigarren egitasmoaren baitan, Eusko Jaurlaritzak onartutako Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean, eta zehazki 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailean<sup>92</sup>, euskal curriculumaren berariazko edukien zehaztapena egiten da eta literatura idatziari dagokion zerrenda orientagarrian hainbat egile aipatzen dira, horien artean Meaberen *Urtebete itsasargian*. Izenburu hori hor agertzea garrantzitsua da, suposatzen baita eskolek gida horri jarraitzen diotela haien programazioa antolatzerakoan. Eskoletan egin diren ekimenak ikusita, hala ikasleek sare-sozialetan egindako *booktrailerrak* nola bestelako lan idatziak, esan daiteke Euskal Herriko hainbat ikastetxetan landu dela obra. Bidenabar, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza esparruaren barnean txertatzen den Euskararen

---

<sup>92</sup> Interesa duenak lotura honetan eskura dezake aipatutako txosten osoa: <https://irale.hezkuntza.net/documents/55483/1253878/Heziberri+2020+Oinarrizko+Hezkuntza++curriculum+osoa.pdf/064da273-0e61-c16a-9197-5bab01bab72a>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak (EIBZ) Meaberen liburua lantzeko proposamen didaktiko bat eman zuen argitara 2019an, sarean edonoren eskura dagoena<sup>93</sup>.

Euskadi Sariaren epaimahai izan zirenen aburuz (Eusko Jaurlaritza, 2007), istorioa oso ongi egituratutako hari narratibo batean emana dago. Diotenez, hala pertsonaiak, nola une historikoko gainontzeko elementuak, irudi bisual eta zentzuen araberako hizkuntza sarritan poetikoan uztartzen dira. Gaineratzen dutenez, egoera bortitz batean, protagonista gai da bizitzari aurre egiteko eta etorkizunerako zubi bat eraikitzeko. Olaziregiri (2014) jarraikiz, benetan harrigarria da Gerra Zibilak Euskal Herrian izan zituen faseei egileak ematen dien zehaztasun eta arreta obra honetan. Etxanizek (2007a), berriz, nobela bizi, eder eta hunkigarritzat du Meaberen obra hau. Dioenez, hartzaile gazteenei Gerra Zibila ulertzen laguntzen die, baina ekarpen horren gainetik, bereziki azpimarratzen du literatura obra bat dela. Kritikari honek ez du ukatzen nobela errealista bat ez denik, baina bere ustez errealismo horrek huts egiten du protagonisten euskararekin, bai ahozkoan, bai idatzizko testuak (poemen aipuak kenduta) euskara batuan daudelako<sup>94</sup>. Hala ere, aitortzen du nobela honen helburua gerraren inguruko obra entretenigarri, erakargarri eta batez ere, gogoetara bultzatzen duena egitea izan dela eta egileak ederki betetzen duela helburu hori. Iruditzen zait López Gasenik (2011) helburu hori betetzeko nahia eta lorpena bera azpimarratzen duela, nahiz eta gerraren berri emateko xede horren ondorioz obrak tonu didaktiko nabarmena izan.

### **Analisi narratologikoa**

Nobela errealista honek hamahiru urteko Jon Iturri gaztearen istorioa edesten du eta pertsonaia horrek 1936. eta 1937. urteen bitartean bizitako historiaren berri ematen dio irakurleari. Ezer baino lehen, aipa dezadan, elementu paratestualaren zati den portadako Juan Luis Landaren irudiak ukitu berezia ematen diola liburuari. Batetik, itsasontziei argi egiten ari den faro bat ageri da. Itsasargiak sinbologia berezia du Meaberentzat. Idazleak berak elkarrizketa batean (Euskosare, 2007) azaldu bezala, odolak eta isiltasunak ezabatu ez duen herri baten memoriaren metafora gisa sortu zuen irudia, eta baita zigortu arren, munduan zehar dabilen hizkuntza eder baten metafora gisa ere, zailtasunen aurrean zutik jarraitzen duena, ikusgarri. Horrez gain, bizidunon metafora bezala ulertzen du faroa, bizitzaren argilunetan gure gogoia piztu eta itzali ibiltzen den arren, ulertzen duelako hala egin behar

---

<sup>93</sup> Proposamen didaktikoa eskuratzeko interesa duen edonork helbide honetara jo dezake dokumentua deskargatzeko: <https://drive.google.com/file/d/1GSAIMLrwD8AA3tvXkSPoTmXq8RURvz2q/view>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>94</sup> López Gasenik ere (2011: 228), euskalkiaren kontu hori aipatzen du, ez baitzaio aukera onena iruditzen 30eko hamarkadako pertsonaia bizkaitarrak euskara batuan hitz egiten jartzea.

dugula aurrera. Mintegi batean, idazleak berak (Meabe, 2016) esanahi zehatzago bat gehitu zion itsasargiari, esan baitzuen faroak Euskal Herria sinbolizatzen duela, zeinak administratiboki zatituta egonda, historian zehar sortutako tirainen erasoak pairatu duen, bere hizkuntza eta identitatea galdu gabe. Bestetik, liburuko azalean hegan doan hegazkin bat ikus daiteke, hegaletan nazien esbastika duena eta bonba bat jaurtitzen ari dena. Horrekin batera, hegan doan antzara zuri bat nabarmentzen da azalean. Irudian ageri diren bi “hegaztiek” kontraste handia sortzen dute, izan ere, bonbak jaurtitzen ditu hegazkinak, eta antzarak berriz, mokoan zeraman lorea askatu duela dirudi. Bi elementu horiek gerra eta bakea irudika dezakete hurrenez urren. Azkenik, behean, eskutik helduta dauden bi ume ageri dira, Jon protagonista eta Mirra izan daitezkeenak, antzarari mokotik erori zaiola dirudien lorea hartzeko asmoz. Niri bederen, azal honek iradokitzen dit gerra eta ankerkeria horren gainetik, bonben eta suntsiketa guztien gainetik, bizitzaz gozatzeko aukera dagoela, eta beti dagoela zirrikiturik itxaropenerako. Jakin badakit bakearen sinboloa mokoan olibondo adar bat daraman uso zuria dela, eta horien ordean hemen dakusaguna antzara zuri bat eta lore bat direla; baina hala ere, ilustrazioaren egileak bakearen aldeko aldarri bat eta itxaropenari dei egiteko asmoa duela iruditzen zait. Izan ere, liburuko azken lerroak dioen moduan, “itsasargiak ez dira betiko itzaltzen” (132). Ezin aipatu gabe utzi antzarak migrazioari egin diezaiokeela erreferentzia, edo liburuko argumentuarekin lotura zehatzagoa eginez, esan liteke erbesteratzeari egin diezaiokeela keinu. Azaleko esanahi horiek guztiak interpretatzeko, noski, testuaren muina ulertzea ezinbestekoa da.

Liburua bi zati nagusitan banatuta dago. Lehenengoa 1936ko abuztuaren erdialdera hasten da eta bertan pertsonaia garrantzitsuenak aurkezten dira. Horrez gain, gerra hasi baino lehenagoko giroaren berri ematen da. Bigarren atala ordea, zorigaitzokoagoa da eta Gerra Zibilak Euskal Herrian izan zuen bilakaeran zentratzen da. Hilabeteka antolatuta dago. Berau 1936ko irailean hasi eta 1937ko abuzturaino luzatzen da. Beraz, izenburuak iradokitzen duen moduan, kontakizunak urtebeteko iraupena du. Esan gabe doa narrazioko kontakizuneko denbora lineala jarraitzen dutela. Azpimarratzekoa da bigarren ataleko izenburuek irakurleari informazioa aurreratzen diotela, izan ere, denbora kronologikoa markatzeaz gain, hitz gutxitan iradokitzen diote irakurleari kapitulu bakoitzean aurkituko duen giroa. Hauek dira izenburuak: “Iraila: Izuaren labezomorroak”, “Urria: Tristuraren ontziak”, “Azaroa: Irrintzi sasoiak”, “Abendua: Bular gorriak”, “Urtarrila: Eleak eta balak”, “Otsaila: Gosearen hortzak”, “Martxoa: Odola uretan”, “Apirila: Zeruko deabruak”, “Maiatza: Dardarak eta marmarrak”, “Ekaina: Zuloa, zuloa, zuloa”, “Uztaila: Parte ez-ofiziala” eta “Abuztua: Agur, itsasargia”.

Horiek jarraian irakurrita, erraz auresan daiteke kontakizunak zein norabide hartuko duen. Espazioari dagokionez, Garraitzeta izeneko kostaldeko herrian gertatzen dira ekintza nagusiak. Fikziozko espazio literarioa da, baina guztiz egiantzekoa, euskal irakurleak Lekeitiorekin lotu dezakeena. Are gehiago, gaztelaniazko itzulpenean oin-ohar batean iradokitzen du egile inplizituak herri hori Lekeitio, Meaberen jaiolekua, izan daitekeela. Gainera, Lekeitio bertan Garraitz izeneko uharte bat dago eta ez da zaila garraitz eta Garraitzetaren arteko lotura egitea. Ezin aipatu gabe utzi Meabek fikziozko toki hori bere aurreko nobela batean, *Itsaslabarreko etxean* (Aizkorri, 2001), irakurle gazteei zuzendutakoa hori ere, erabili zuela. Garraitzeta fikziozko espazioa dela esan dut, eta Kalaportu ere ageri da (71), Joseba Sarrionandiaren hainbat lanetan ageri den fikziozko espazioa<sup>95</sup>, baina horrekin batera, espazio errealak ere ageri dira, Bilbo, Iruñea, Durango, Gernika, Elgeta, Eibar, Gasteiz, Intxorta, Saibigain, Larrinagako kartzela edo Santoña, besteak beste.

Kontakizuneko protagonista eta narratzailea (autodiegetikoa) Jon Iturri da, 13 urteko gaztea. Barne-fokalizazioa erabiliz, eta mutilak lehen pertsonan kontatutakoari esker, Gerra Zibilaren berri izango du irakurleak, baita bere inguruan gertatzen diren bestelako bizipenen berri ere. Sortzez Bilbokoa da, baina eztanda egitear dagoen gerratik alde egiteko asmoz, abuztuan gurasoek osabaren etxean uzten dute aldi baterako. Protagonistaren gurasoei dagokienez, haien abertzaletasunak eta erlijio katolikoarenganako fedeak erakusten du zein gertu dauden Sabino Aranak sortutako Euzko Alderdi Jeltzalearen goiburutik, “Jaungoikoa eta Lagi Zaharra” delakotik (Olaziregi, 2014: 97). Euskal nazionalistak dira biak, gerraren atarian Bilbon geratzea erabakitzen dutenak hiria nazionalen esku erortzen den arte<sup>96</sup>. Ama haurdun dago eta aita medikua denez, lan horretan arituko da gudariekin frontean. Kontakizunaren amaieran, Jon semea Santoñara abiatuko da aitaren bila. Garraitzetan Mirra izeneko neskatila ijitoa ezagutuko du protagonistak eta harekin estreinako maitasuna gozatu eta sufrutuko du. Azpimarratzekoa da pertsonaia horren bitartez, Meabek sexu-eraso baten berri ematen duela. Mirra neskato trebe, indartsu eta aktiboa da. Bere zaintzaren ardura duen gizonak (nolabait esatearren) erasotzen duenean, berau ez da beldurtuta eta ezer egin gabe geratzen, alderantziz baizik, erasotzailearengandik defendatu eta aurre egiten dio. Osaba Alejandrori dagokionez, itsasargian bizi den farozaina da. Nahiko kritikoa ageri da ingurukoek

---

<sup>95</sup> Sarrionandiaren *Lagun izoztua* (Elkar, 2001) eta *Kolosala izango da* (Txalaparta, 2003) liburuetan ageri da, baita haur eta gazteei zuzendutako *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako* (Xangorin, 2010) liburuan ere. Konpetentzia literarioa duen euskal irakurleak pentsa lezakeen moduan, ez da kasualitatea eta Meabek Sarrionandiaren obratik hartu du.

<sup>96</sup> 1937ko apirilaz geroztik, Bilbo inguratzen zuen Burdinazko Hesia zen Bizkaian geratzen zenaren azken defentsa aukera. Hala ere, hesiak ez zion faxisten eraso indartsuari eutsi eta Bilbo ekainaren 19an jausi zen (Chueca eta Fernandez, 1997: 153).



erlijioarekiko duten atxikimenduarekin, honako aipu hauetan ikus daitekeen legez: “Abertzaleak, bai, baina ez erlijioari hain atxikiak. Erlijioak lausotu egiten ditu begiak batzuetan” (18) edo “Jeltzaleak hain zarete elizkoiak, eskuinerantz paratzen zaizue bihotza” (28). Horrez gain, Etxanizek (2007a) aipatzen duen legez, Jonek osabaren ondoan ezagutuko ditu garaiko euskaltzaleak, abertzaleak, idazleak, euskarazko lehen egunkaria, Jaurilaritzaren osaketa, politika kontuak edo garai txarrenetan ere umoreak duen garrantzia.

Pertsonaia horrekin batera, ezin Katalin aipatu gabe utzi, herriko maistra eta osaba Alejandroren bikotea. Pertsonaia hau euskal *emakume* bat izan daiteke, Emakume Abertzale Batzakoia. Meaberen obrako protagonista ez den arren, ekarpen handia egiten dio kontakizunari, batez ere genero ikuspuntuari dagokionez. Katalinek biziki interesgarriak iruditzen zaizkidan emakumeen gaineko aldarrikapen zenbait egiten ditu. Adibidez, Batzokian egunkari bat sortzeko asmotan bildu diren gizonen honako hau leporatzen die: “Emakumeek oztopoa edo pentsatzeko ezgauza garelakoan, etxeetan eta sakristietan sartuta nahi gaituzue” (29). Gainera, aipatzen du gizonak beldur direla noraino sartuko diren emakumeak, eta ez hori bakarrik, protesta egiten du esanez ez dituztela umeak munduratzeko gero gizonen gerretan hiltzeko (29). Baieztapen horiek ulertzeko, gogorarazi behar da, genero ikasketen eskaintako atalean (5.2.) azaldu dudan moduan, sasoi hartako imajinario nazionalistak haien bizitza aberriaren alde sakrifika zezatela eskatzen zuela gizonen (gudariei), eta emakumeen (amei) berriz, seme propioei gerrara joaten utz ziezatela. Ildo horretan ulertu behar da Katalinen aldarrikapena. Goiko lerro horiez gain, esanguratsua da Katalinek miliziana talde bati esaten diona: “Badakizue zer esaten duten zuetaz, ezta? [...] Soldaduen putak zaretela<sup>97</sup> [...] Kaka botatzen digute, atzera egingo dugulakoan. Baina, badakizu, gure borroka aspaldikoa da [...] gizartea aldatzeko eta emakumeon eskubideak lortzeko” (77). Gaineratzen du ez direla konformatzen erretagoardia antolatzearekin; ez dela erraza lantokietako hutsuneak betetzea, gizonen ez dutelako nahi emakumeak soldatapeko lanpostuetan aritzea, haien ordezkari eskulana izatea nahi dutela, beti erreserban (78)<sup>98</sup>. Jonek, hitz horiek entzun ostean, honakoa aitortzen du: “Neska haiek ezagutzeak emakumeak beste begi batzuekin ikusarazi zidan [...] erresistentzia ziren” (79). Egia esan, Katalinez gain, Jonen pasarte batzuetan aski ongi ematen da ezagutzera garai hartan emakumeek betetako papera, pasarte honetan bezala:

---

<sup>97</sup> Rodriguezek eta Etxebarrietak (2016: 10) diotenez, badirudi emakumeek gizonen monopolizatutako gatazketan parte hartzeko, ama, putza, emazte edo zaintzaile-garbitzaile izan behar dutela.

<sup>98</sup> Kontuan hartzekoa da gizonak gerran zeuden bitartean emakumeek bete zituztela euren postuak, baina gerra amaitzean ordea, emakumea berriz itzuli zela eremu domestikora.

Ospitalean atentzioa eman zidan lanean zebilen emakume piloak. Mirra ere aldizka joaten zen hara [...] Herriko beste hainbat legez, lixiba egiten edo bendak josten laguntzen zuten, edonolako errekaduak egiten, gerrako kontsigna obeditu nahirik: “Gizonak frontera, emakumeak lanera”. Zertan zebiltzan, bada, emakumeak? Garraio bideetan lan egiten. Zaurituak sendatzen. Barrikadak sendotzen. Haurtzaindegiak eratzen. Errefuxiatuentzako eskolak sortzen. Arma-fabriketan munizioak prestatzen. Soldaduentzako arropak josten. Kuartel barruetako lanak egiten. Lantegietako postuak betetzen. Familiak aurrera ateratzen. Eta gerran borrokatzen (76).

Istorio honetan nahiko argi geratzen da zeintzuk diren maltzurak eta zeintzuk diren onak, eta nahiko garbi bereiz liteke zeintzuk diren gutarrak eta zeintzuk diren “besteak”. Katalinek esplizituki egiten du bereizketa, “gu” versus faxistak eta hauei laguntzen dieten italiar zein alemanak bereiziz (65). Aitaren egunerokoan<sup>99</sup> ere irakur daiteke Moroak, Italiako brigadak, soldadu matxinatuak eta hegazkin alemanak erasoan ari direla (122) eta “gu” versus faxistak bereizketa esplizitua egiten da (123), baita “gu” versus moroak bereizketa ere: “Afrikatik ekarritako moroen eraso itsuak erretirada eragin die gurei” (121). Hori gutxi balitz, itsasargia guardia zibilek hartu eta osaba bertan atxilotzen dute. Jon aurrean dela, guardia zibilek protagonistaren amari irainak eta mehatxuak egiten dizkiote: “Además de buena letra, buenas tetas” (106), “Eres brava, Marichu, pero no tengo prisa para domarte. Ya te llegará el turno a ti también” (112) edo “Todo tiene arreglo, si tú quieres [...] solo tienes que ser un poquito... ya sabes” (113). Gainera, Jonek kontatzen duenez, guardia zibilek osaba “paseatzera” ateratzen dute (112) eta ilobak beranduago pinu batean amarraturik aurkitzen du, hilda, buruan zaku bat duela eta tiro bat lokian (113). Hemen aipatuko ez ditudan beste pasarte batzuetan ere egiazta daitekeen moduan, guardia zibilek ez dute jokabide egokirik adierazten. Hala ere, adierazgarria iruditzen zait Jonen ondorengo adierazpen hau:

Pentsatu nuen, hirurek uniforme berdea jantzi arren, guardia zibil horiek ez zutela bezperan nik ezagututako karabineroaren antzik. Hura jatorra iruditu zitzaidan. Jendeak esaten zuen sardintzar guztiak ez zirela berdinak [...] militar batzuk, gutxienak, errepublikazale agertu ziren, eta gainerakoak [...] kolpearen aldeko (43-44).

Goiko lerroetan ikus daitekeenez, “beste” horiek erdaldunak dira beti. Karabineroak gaztelaniaz hitz egiten du (37), baita itsasargian agertzen diren guardia zibilek ere (41, 42, 43). Horiez gain, labe garai baten ugazaba den eta gurasoei traidore deitzen dien gizon bat agertzen da kontakizunean eta honek ere gaztelaniaz hitz egiten dio protagonistaren amari

---

<sup>99</sup> Hurrengo atalean hitz egingo dut aitaren egunerokoak memoriaren transmisioan duen garrantziari buruz, baina, azterketa narratologikoa egiten ari naizenez, ezin aipatu gabe utzi elementu honek *laguntzaile* funtzioa betetzen duela, izan ere, honi esker jakin dezake protagonistak non dagoen bere aita, *objektua*.

(105). Esan daiteke, beraz, heterolinguismoa bestetasuna adierazteko baliatzen duela Meabek<sup>100</sup>. Zuhur jarrita heterolinguismotzat hartuko ez bagenu ere, aipatzekoa da Mirra ijitoaren hizkera, euskaraz mintzo den arren, ez baita ondo moldatzen, aipu hauetan ikus daitekeen moduan: “Mirrak inoiz ez esan zuk ni ondo zaindu txabolan” (48) edo “Ni Mirra. Mirra gauzak hartzen” (38). Egia bada ere hasieran Mirra “bestea” bezala ageri dela (Jones ere modu exotikoan deskribatzen du), kontakizunean aurrera egin ahala bertakotuz doa pertsonaia. Batetik, euskara apur bat ikasten du (Jones irakurritako Lauaxetaren poemak errepikatzen ditu ere). Bestetik, garrantzetako familia batek etxean hartzen du eta euskal izena hartzen du: Mirari. Herriko plazan ikuskizuna eskaintzen ari diren titiriteroek ere gaztelaniaz hitz egiten dute eta Jones jakitera ematen duenez, antzezleetako batek mutiko baten oihuak jasotzen ditu, *maketo* deitzen baitio ozenki (22). Gertaera horrek pasarte interesgarri bati ematen dio bide, Jones aipatzen baitu haren etxean debekatuta daudela *maketo*, *belarrimotz*, *hezurbeltz* eta *muturzikin* bezalako deiturak, eta aitaren esana gogoratzen du: “Gu euskaldunak gara eta Euskadi da gure aberria [...] baina hona bizimodu bila etorritakoak gutxiesten baditugu, zelan geuretuko ditugu!” (22). Aipu horrek (euskal) identitateari eta identitate hori eraikitzen duten faktoreei buruz mintzatzeko aukera eskaintzen du. Aurreratu nahiko nuke gai hori corpuseko beste obra batzuetan ere ageri dela.

Mintzagai dudan obra honek garai hartan euskarak jasandako errepresioaren gaineko ideia bat egiteko nahikoa pista ematen du. Guardia zibilek euskarazko izenak gaztelaniara itzultzen dituzte (42, 106), euskarazko liburu batzuk eramaten dituzte osabaren etxetik (45) eta euskaraz egiteagatik emakume bati Nafarroan mihia josi diotela aipatzen da (56). Ez hori bakarrik, Jones amak gaztelaniaz idazten du semeari eta nebari bidalitako gutuna, zeina Molina guardia zibilak irakurtzen duen lehenengo. Gutun horretan bertan ikus daiteke María Mendieta gisa sinatzen duela idatzia (104), nahiz eta beste pasarte batean ikus daitekeen etxeok Miren deitzen diotela (27). Hizkuntzaz mintzatu naizela, lekeitiarrak darabilen hizkerari edo baliabide linguistikoei buruzko iruzkin txiki bat egitea gustatuko litzaidake. Harrera kritikoaren atalean aurreratu dudan bezala, Meabek hizkera poetikoa darabil sarritan, bere prosan ohikoa dena. Nire ustez, ezaugarri horren adierazle dira, besteak beste, ondorengo aipu hauek: “Nire abuztu grisari bere irribarrearekin argi egin zion neska” (48), “Iluntzeetan, itsasargiaren gailurrean egoten naiz zeruertzari begira. Ordu horretan itsasoa zilarrezkoa, edo elurrezkoa, edo esnezkoa bihurtzen da” (56) edo “Noizbehinka erreflektoreen argi-boladak

---

<sup>100</sup> Bidenabar bada ere, aipatzekoa da gaztelaniazko edizioan heterolinguismo hori galdu egiten dela, dena gaztelaniaz ematen baita eta hizkuntzaren aldetik ez delako bereizketarik egiten bestetasun hori adierazteko.

itsasoari galbahea pasatzen, heriotzaren orraziak bailiran” (90). Ikus daitekeenez, lirismo handiz josten ditu pasarteak Meabek.

### **Liburuaren euskal entziklopediaz: erreferentzia intertestualak eta kontestualizazio historikoa**

Lehenago Batzokia aipatu dudanean azpimarratu ez badut ere, toki honek garrantzi handia du. Batetik, bertan biltzen da osaba beste herrikide batzuekin geroz eta hurbilago dagoen gerrako kontuez hitz egiteko, Jon aurrean dela. Nire ustez protagonistak oro har toki honetan izaten du lehenengoz gizartean gertatzen ari diren gertaeren berri. Garai txarrak datozela aipatzen dute, faxistek estatu-kolpea eman dutela edo langileak armak lortzen ari direla Eibartik (25). Euskal gizartea bi bandotan banatuta geratu dela ere azaltzen da: “Uztailean banaketa gertatu zen gure artean. Batzuek, karlismotik<sup>101</sup> hurbil daudenek, matxinadan parte hartu dute; besteek, aldiz, errepublikarrekin bat egin dute. Alde batean, eskuina, urdinak; beste aldean, ezkerra, gorriak” (26). Gaineratzen denez, euskal agintari guztiak ez dira denak iritzi berekoak, baina Euskadi Buru Batzarrak Errepublikarekiko leial jokatu zuela zehazten da (26). Ez hori bakarrik, bildutakoetako batek adierazten du bi bandoen arteko borrokak ez duela luze joko, baina liburuan behin baino gehiagotan aipatzen den moduan, “halaxe hasi zen gerra, gerrarik izango ez zelakoan” (20). Bestetik, Batzokian bertan hitzaldi baten transkripzioa dakarren orri bat hartzen du Jonek. Protagonistak kontatzen duenez, hitz batzuk azpimarratuta daude: *Emakume Abertzale Batza, ikastola, ertzaintza, langileen bazkun, euskal irrati* edo *idazleen elkargo*, besteak beste (27). Esan gabe doa garai hartan edo beranduago sortu ziren erakundeak direla aipatutakoak. Horrez gain, Batzokian jakitera ematen da euskara hutsezko egunkari bat sortzeko asmotan dabilzala eta jendea behar dutela. Gogoraraztekoa da euskara hutsezko lehenengo egunkaria *Eguna* izan zela, 1937ko urtarriletik urte bereko ekainera arte argitaratu zena. Azpimarratzekoa da Espainiako Gerra Zibila hasi aurreko urteetan kultur arloan bizitasun handia egon zela Euskal Herrian. Ikustekoa da zenbat aldizkari egin eta argitaratzen ziren, garaiko bitartekoak kontuan hartuta: *Euzkerea, Euskal Esnalea, Euskalerraren alde, Jaungoikozale, Euzkadi, Bizkaitarra, Argia, Euzko, Amayur, Jagi-Jagi, Arabarra, Gipuzkoarra, Aberri Eguna* edo *Jaiki*, besteak beste (Etxebarria, 2000). Liburuaren erdialdera osabak ilobari esaten dio euskarazko lehenengo egunkaria ekarri diotela Bilbotik: *Eguna* (82).

---

<sup>101</sup> Pasarte batean Matias izeneko pertsonaia batek zurrumuru baten berri ematen du: Iruñeko seminarioan eskopetarekin aritzen direla apaizgaiak, gerrarako prestatzen, eta Urbasako mendietan instrukzioa egiten aritzen direla. Aurreko gerren ondarea izango dela aipatzen du, Karlismotik herentzia (70).

Esan bezala, kontakizunean jakitera ematen da euskara hutsezko lehen egunkaria sortu nahi dutela, eta zenbait izen aipatzen dituzte bertan bildutakoek: idazluma ondo erabiltzen duen Eusebio, Arranondoko Augustin eta Arrasateko Joxemari abadegaia adibidez (28). Eusebio delako hori Eusebio Erkiaga (1912-1993) idazle eta euskaltzain lekeitiarra da. Aipatzekoa da Errepublika garaian poemak argitaratzen hasi zela *Yakintza* eta *Euzkerea* aldizkarietan. Gainera, garai hartan kazetaritza-lanak argitaratzen zituen *Bizkaitarra* astekarian, *Ekin* aldizkarian eta *Euzkadi* egunkarian. Gerra-denboran Ziarsolok eta Zubikaraik zuzentzen zuten euskarazko *Eguna* egunkarian lan egin zuen (Eusko Jaurlaritza, d.g.). Meaberen obran benetako hainbat pertsonaiari egiten zaio erreferentzia. Gaztelaniazko itzulpenera joz gero, egile inplizituak oin-ohar bidez informazio guztia ematen du *background* historiko-kulturalaz, euskarazkoan ez bezala. Bistakoa da Meabek asumitzen duela euskaraz irakurtzen dutenei ezagunak zaizkiela erreferentzia horiek. Aipatzen den Augustin hori Augustin Zubikarai (1914-2004) ondarrutar idazle eta euskaltzaina da. Euskal aldizkarietako kolaboratzaile izan zen eta, besteak beste, *Jaungoiko-zale*, *Euzkadi*, *Gudari*, *Argia* edo *Ekin* aldizkarietan idatzi zuen. Horrez gain, gerran sorturiko *Eguna* egunkariko erredaktorea izan zen (Estornés eta Ibargutxi, d.g.). Bere bultzadaz kaleratu zen lehenengoz *Arranondo* aldizkaria<sup>102</sup>. Aipatzen den Joxemari hori Jose Maria Arizmendiari (1915-1976) markinar apaiz eta Arrasateko mugimendu kooperatiboaren arima da, 1936ko martxoan kotsakratu zena. Errepublikaren kontrako altxamendu militarra hasi zenean, 1936ko urrian sortu eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile euskalduna zen *Eguna* egunkarian aurkitu zuen lana (Molina, 2011). Zehatzagoak izateko, aipatzekoa da *Eguna* egunkaria egunero ateratzeko ardura lau kazetarik hartu zutela: Augustin Zubikaraik, Eusebio Erkiagak, Jose Mari Arizmendiari eta Alejandro Mendizabal mutrikuarrak (Rodriguez, 2016). Liburuan *Eguna* egunkariko pasarte bat agertzen da (82).

Bide batez, esanguratsua da Batzokian dagoen batek adierazten duena: “Etxepare zaharraren ametsa betetzea dagokigu ala?” (28). Euskal irakurle jantziak Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) liburuaren identifikatuko du aipu hori, izan ere, Etxeparek hitzaurrean bertan aldarrikatzen baitu euskaraz idatzi eta argitaratzeko beharra. Sorneren olerki bat ere aipatzen da, kutsu politikoa duen “Itxartu, eusko alabea” hain zuzen (29). Some Unzueta *Utarsus* (1900-1999) irakasle, Emakume Abertzale Batzako kide eta sortzaileetakoa, idazle, eragile eta politikako hizlari izan zen. Euskal Herriko XX. mendearen

---

<sup>102</sup> Aipatzekoa da Txomin Agirrerren (1864-1920) lanean ere Arranondo ageri dela, eta Ondarroarekin duen antza dudarik gabekoa dela.

hasierako mugimendu abertzalearen erakusgarri bete-betekoa da. Liburu honetan agertzen den olerkia, izenburuak berak adierazten duen moduan, emakumeei egindako deia da eta emakumeek aberrian duten zereginari lotua dago (Etxebarria, 2000). Batzokiarekin amaitzeko, esan dezadan bertan bilduta dagoen gizon batek olerki-liburu bat oparitzen diola Joni, zeinak “dana emon behar jako maite dan askatasunari” aipua irakurtzen duen (31). Irakurle inplizituak Lauaxetaren 1935eko *Arrats beran*-i egindako erreferentzia dela erraz suma dezake, “Mendigoxaliarena” poemaren esaldi ezagunena baita aipu hori.

Aurreko lerroetan kontakizuna girotuta dagoen garaiko zenbait pertsona garrantzitsu aipatu ditut, baina horiek ez dira irakurle inplizituak liburuan aurkituko dituen bakarrak. Liburuaren erdialdera adibidez, esaten da Lauaxetak jakinarazi duela bere lagun min bat, abade eta euskaltzale jakintsua, fusilatu dutela Hernaniko kanposantuan: Ariztimuño (69). Jose Ariztimuño *Aitzol* idazle, abertzale eta Euskal Pizkundea izeneko kultur mugimenduaren gidari izan zen, 1936ko urriaren 17an hil zutena. Horrez gain, aipatzekoa da ere protagonistak Jose Maria Garatek 1932an idatzitako *Eusko Gudariak* abesten duela (71). Eta ez hori bakarrik, Lauaxetaren poemak irakurtzen dizkio Mirrari, eta azken honek ere horietako batzuk errepikatzen ditu (48, 87). Hori gutxi balitz, guda garaian abesten ziren beste kantu batzuk ere ageri dira (76)<sup>103</sup>. Bidenabar bada ere, aipatzekoa iruditzen zait pertsonaia euskaldunez gain, Maupassant frantziar idazlearen aipua ere ahotan hartzen dela behin: “Abertzaletasuna omen da gerraren arrautza” (30) eta liburuan zehar behin baino gehiagotan ekartzen dela gogora arrautzaren metafora, mundua, arrautza bezala, kraskatzear dagoela adierazteko (109, 132). Beraz, ikus daitekeenez, liburu honetan ez da (euskal) literaturari egindako erreferentziarik falta, edo beste hitzetan esateko, euskal “entziklopedia” (Umberto Ecoeren terminoa erabiltzearen) bat iradokitzen dela esan daiteke.

Goiko lerroetako pertsona horiez guztiez gain, kontakizunaren garaia primeran girotzen laguntzen duten gerrako pasarte ugari ematen ditu liburuak: Herri Frontearen Espainiako hauteskundearen garaipena, altxamendua (20), faxisten sartzea Gipuzkoan (53), gerraren lehenengo asteetako Nafarroa eta Arabaren menperatzea, Gipuzkoarena (70), Durangoko triskantza (96), Burdinazko Hesiari egindako eraso, Bilboren erorketa ekainaren 19an (108), ehunka umeren ebakuazioa erbestera *Habana* itsasontzian (106) edo Santoñako

---

<sup>103</sup> Orrialde horretan ospitalean daudenek abesten duten gerra-kantuaren zati bat ageri da. Legezko orrian jakinarazten zaio irakurleari bertso hori Joxe Mari Lopetegirena dela, bertsolari eta politikari errepublikarrarena alegia. “Ekaitza” izeneko bertsoaren zati bat da Meaberen liburuan ageri dena. Lopetegiren bertsoa ezagun egin zen Joseba Tapiak “Agur Intxorta maite, 1936-37 gudako kantuak” (Gaztelupeko hotsak, 2001) diskoan argitara eman zuenean.

ituna (128), besteak beste. Horiez gain, apirilaren 26an Gernika kiskalita dagoela esaten da (96). Bistakoa denez, Gernikako bonbardaketak berebiziko garrantzia du istorio honetan. Batetik, Katalin bertako azokara joana dela esaten da, hazi batzuk erostera (97), baina inoiz ez da etxera itzultzen, bonbek hil egiten baitute<sup>104</sup> (130). Egun horretan bertan Mirrak Garraitzetatik alde egiten du (97) eta liburuan ez da haren itzuleraren berririk. Beraz, Jon protagonistak bi pertsonaia horien galera sufritzen du. Bestetik, ezin aipatu gabe utzi sarraskiaren berri jasotzera joana zen Lauaxeta Gernikan atxilotzen dutela (103) eta esanguratsua da Jonek Lauaxetaren fusilamenduarekin amets egiten duela pasarte labur batean (111). Gertakari horiez gain, aipatzen da lehendakariaren zin egitea Gernikako zuhaizpean egiten dela urriaren 8an (64) eta liburuak berak Jose Antonio Agirrek (1904-1960) egindako zina dakar (65). Ezin ahaztu, Jonek bere aitaren egunerokoa aurkitzen duela (119) eta bertan ere, gerrako pasadizoak jasotzen direla, 1936ko azaroaren 13tik 1937ko ekainaren 19ra bitartekoak hain zuzen. Semearen hitzak parafraseatuz, gerrako parte ez-ofiziala aurki daiteke koadernotxoan. Aurrera egin aurretik, egunerokoaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Bertan memoria gune garrantzitsu batzuk ageri dira, Intxorta edo Saibigain adibidez. Horrez gain, aitak bidalitako gutuna<sup>105</sup> aipatu behar da, izan ere horri esker jakin dezake irakurleak Eusko Jaurlaritzak Bilboko Carlton hotelean izan zuela egoitza. Gainera, ezin ahantz daiteke hala koadernoaren bitartez nola gutunaren bidez transmisio filiatibo bat egiten diola aitak semeari. Agian irakurleren batek esango luke memoria indibidual bat transmititzen diola, baina Halbwachsi jarraiki, memoria indibidualik ez dagoela defendatzen dut, eta beraz, memoria kolektiboa da transmititzen diona.

Pertsonaien arteko elkarrizketetan gerran parte hartu zuten itsasontzien izenak aipatzen dira, *Gipuzkoa*, *Nabarra* edo *Canarias* adibidez, baina baita Euskal Armada osatzen zuten *Itsasalde*, *Ibaizabal*, *Saco y Vanzetti*, *Amaiur*, *Eusko Indarra* edo protagonistaren aitak osatzen duen *Padura* batailoia ere. Datu historiko horiez gain, gerrak sortutako ondorio latzak eta bestelako izugarrikerien berri ematen da, betiere Jon mutikoaren ahotik. Zuzena iruditzen zait esatea lehenengo esperientzia gogorra Jon eta osabak Mirra erasotu zuen gizona uretan itota aurkitzen duteneko dela, baina askoz gogorragoa iruditzen zait protagonistak bere osaba buruan tiro bat duela aurkitzen dueneko pasarte (113). Hasiera batean gerrako kontuak

---

<sup>104</sup> Esanguratsua da osaba Alejandrok (Katalinen bikoteak) Katalin eta itsasargiaren artean egiten duen konparazioa edo lotura gogora ekartzea. Faroaren argiari Katalin deitzen dio eta azken hori hiltzean, itzalita utzi nahi du ere itsasargiko argia. Esan daiteke, beraz, aldartearen adierazle ere badela elementu hori, azaleko irudia iruzkindu dudanean zehaztutako esanahiez gain.

<sup>105</sup> Ezin aipatu gabe utzi liburuan ageri diren gutun batzuk bederen eskutitz ofizialen hitzez hitzeko kopiak direla, hartzailerearen izena izan ezik, noski. Ikus bedi 91. orrialdea.

entzun egiten baditu ere, mutikoa kontziente da lehenago edo beranduago haiek ere gerrak harrapatuko dituela: “Espainiako irriatiak zabaldu zuen gorriek erre zutela Gernika. Ez genuen sinistu. Baina bai etsaiak laster izango zirela Garraitzetan” (99). Gernikaren bonbardaketa tesiko corpuseko beste liburu batzuetan ere aurkitu dudanez, hemen ez dut memoria gune horrek euskal literaturan eta oro har euskal gizartean duen esanahia eta garrantzia azalduko, ez eta bonbardaketari buruz bando nazionalak hedatu zuen bertsio faltsua ere. Horri buruz emaitzen atalean mintzatuko naiz sakonago.

Gerra Garraitzetara ere iristen dela kontatzen eta deskribatzen du Jonek, eta horrekin batera, noski, bonbak eta hildakoak. Benetan eszena bisual eta gogorrek deskribatzen dira protagonistaren ahotik. Garraitzetara ebakatu pila bat iristen direla aipatzen du eta dioenez, hauek izugarriak kontatzen dituzte: “Emakumeak eta neskak bortxaturik ikusi zituztela, eta hildakoen tripak txakur gosetuek jaten zituztela kaleetan” (62). Errazionamenduari (85) eta goseari erreferentzia egiten zaio liburu honetan, nola jendeak katu-haragia, patata-azalak edo ogi lizundua jaten zuen gosearen gosez (85), izan ere, “gosearen hortzek haginka egiten ziguten urdailean” (86). Meningitisari ere keinu txiki bat egiten zaio, izan ere, protagonistak azaltzen du ez dela seme bakarra gurasoen gustuz, bere ostean izandako beste mutikotxo bat meningitisak jota hil zelako baizik (58). Atxiloketak eta salaketak ere ez dira falta. Jonek kontatzen duenez, herrian jende asko atxilotzen dute zergatia jakin ez arren: aspaldiko liskarren bat, ezinikusia edo inbidia aski baitzen zigorrak ezartzeko, “ez egiaren alde, ez justiziaren alde, ez sinesmenaren alde, gerrako piztiaren grina asetzearen alde baizik” (100). Azpimarratzekoa da ere protagonistaren lagun baten ama salatu egiten dutela, eta gau guztia kuartelean pasa eta gero, burua soildu eta utzitako ile-xerlo bakanetatik banderatzko espainiarrak jartzen dizkiotela, eta noski, gisa horretan paseatzera behartzen dutela, baina ez dutela Larrinagara eramaten (101). Aipatutako leku hori benetako tokia da, hau da, Bilboko kartzela bat izan zen, 1868an eraiki eta 100 urtez iraun zuena. Santoñako errendizioaren ostean, Jon eta bere familia Venezuelara exiliatzen dira<sup>106</sup>, amarruak, mendekuak eta abar atzean utzita baina guztiz utzi gabe (130). Bidaia horretan, Jonek urte gogor horretan bizitako guztiaz hausnarketa egiten du eta biziki hunkigarria iruditzen zait pasarte hau, nire ustez bederen, primeran laburbiltzen baitu haurrak momentu horretan bertan sentitzen duena eta gerrak eragindako galera:

---

<sup>106</sup> López Gaseni eta Etxanizek (2008) dioten moduan, ekainean Bilbo erori eta gero, Eusko Jaurlaritza errendizioa negoziatzen saiatu zen Santoñan, baina negoziazioek porrot egin zuten eta nork bere erbestea bilatu behar izan zuen: Frantzia, Belgika, Venezuela eta abar.



Matias elbarri geratu zen, eta berak ere utziko zuen bat baino gehiago malamaneran. Harekin batera, gerrako armadun guztiak bihurtu ziren biktima eta borrero. Katalin bonbek erre zuten. Eta harekin, pergamu kiskaliak bihurtu ziren umeei hazten irakasten zieten emakume guztiak. Mirrak alde egin zuen [...]. Hura desagertu zenean, hauts bihurtu ziren mamitu gabe genituen amodiozko amets guztiak. Estepan fusilatu egin zuten. Munduko itsasoetan bidaiatu behar zuen herri baten belak txirtxilatu zituzten. Osaba torturatu egin zuten, eta hil. Hari eztarria butxatu zioten bezala, gure ahotsa ere isildu zuten [...]. Ni erbestera nindoan. Eta neu legez, gerrako haur guztiak bihurtzen ziren aizkoraz ebakitako landareak.

Iruzkindu beharreko hainbat kontu biltzen ditu goiko aipuak. Batetik, esanguratsua da armadun guztiak bihurtzen direla biktima eta borrero aldi berean eta horrek iradoki dezake gerran ez dagoela garailerik. Bestetik, gerrak eragindako galera fisikoak aipatzen dira, baina horrekin batera, Euskal Herriak nazio gisa galdutakoa adierazten da: euskal hizkuntza eta literatura, andereñoak eta herri baten adierazpen askatasuna. Jon protagonistak, maila pertsonalean, familiako kideak galtzeaz gain, lehen maitasunaz gozatzeko aukera galtzen du. Liburuaren amaiera gordina da oso. Protagonista erbestera doala bukatzen da kontakizuna, irakurlearen esku utziz Jonen patuaren imajinazioa. Ildo horretan, 5.3. atalean deskribatutako bukaera motetatik, obra honek amaiera irekia duela esango nuke. Agian irakurlearen batek esango luke Meaberen obra honek bukaera positiboa duela, eta aitortu behar da liburuko azken pasartean badela itxaropenerako zantzurik, oso txikia bada ere:

Orain basamortu hotz bat zabaltzen zen, gerraz haratagoko lubaki handi bat, zeinaren beste alde ikusterik ez zegoen. Iruditzen zitzaidan enbor astunegia jarri zigutela bizkarrean eta ez genuela enbor hura gurutzearen antzera eramatea besterik, egunen batean lubakiaren beste aldera iristeko. Gerran hil ez ginenon memorian gerrako azken eguna, heltzen bazen, inoiz ez zen izango bakearen lehen eguna [...]. Eguna argitzen ari zuen. “Itsasargiak ez dira inoiz betiko itzaltzen”, pentsatu nuen. Eta antzarak ikusi nituen zeruertzean (132).

Itxaropenerako zantzurik bilatzekotan, amaierako azken bi lerroak azpimarratuko nituzke, itsasargiak betiko itzaltzen ez direla horrekin uler baitaiteke garai ilunak etorri arren, etorkizunean garai hobeak helduko direla. Era berean, Jonen zerumugan antzarak begiztatzeak iradoki lezake zerua garbi dagoela eta urrunean dagoena ikus daitekeela, alegia, etorkizunik badela iradoki lezake azken pasarte horrek. Lehenago sakondu ez badut ere, eta orain arte aipatutakoa kontuan hartuta, agerian geratzen da Meabek hainbat testu-genero baliatzen dituela aztergai dudan obran. Egiletza ezberdineko hainbat gutun ageri dira kontakizunean zehar (54-57, 91, 104), baina baita Jose Antonio Agirre lehendakariaren zina

(65), poema zatiak (30, 31, 48, 87), guda-kantuak (76), gabon-kanta bat (21-22), sehaska kanta bat (95), erronda-kantuak (80) eta eguneroko zatiak (119-122) ere. Pasarte batean esaten da etxe batzuetan gutunak jaso zituztela, frontean ziren familiarren portaera eta ausardiagatik, eta Paulok bere amak jasotako gaztelaniazko gutuna erakusten dio Joni (91). Euskarazko edizioan zehazten ez bada ere, gaztelaniazkoa joz gero, oin-ohar baten bidez jakinarazten da hartzailearen izena izan ezik, liburuan ematen dena gutun-ofizial baten hitzez hitzezko kopia dela. Gorago aipatu dut Jonen aitaren gutunak, aitaren egunerokoa dakarren koadernoarekin batera, memoriaren transmisioan funtzio garrantzitsua betetzen duela. Bi horiek Jon semearen esku geratzen diren momentan bertan, memoriaren transmisio filiatiboa gauzatzen da eta memoria komunikatiboa gauzatzen da. Esan gabe doa kontakizunean zehar ahoz transmititzen den memoria komunikatiboaren adibiderik ere aurki daitekeela.

Jon narratzaile autodiegetikoak lehen pertsonan eta iraganean ematen du berak bizitakoaren berri eta iragana irudikatzeko modu esperientziala da irakurleari eskaintzen diona. Zehatzagoak izateko, gerraren ikuspegi erabat negatiboa ematen du, ondoriorik gordinenak agerian jarriz. Esanguratsua da nola definitzen duen gerra mutikoak: “Bihotz guztiak karraskatzen dituen piztia izurritsu bat, zuzen eta eskuzabalak nahiz makur eta krudelak, denak nahasi eta berdindu arte” (61-62). Gerraren aurkako jarrera liburu osoan zehar antzematen den arren, benetan adierazgarria da kontakizunari itxiera ematen dion esaldia (gerrak eragindako galera guztiak zerrendatu ostean datorrena), liburuaren azken pasarte izanik, ideia hori geratzen baita iltzatuta irakurlearen gogoan: “Madarikatzen nuela gerra, neure bihotz guztiarekin, gerra hura eta beste edozein, orduan eta beti” (132). Jonena ez da gerraren kontrako ahots bakarra, Katalinek ere hainbat aldiz adierazten baitu aurkako jarrera: “Etxetik irakatsi behar zaie umeei askatasuna eta bakea batera maitatzen, gauza bakarra balira legez” (30) aipuan ikus daitekeen moduan edo lehenago aipatutako beste pasarte batzuetan. Bakezaletasun aldarriaz gain, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaz mintzo da pertsonaia hori (30) eta emakumeen aldeko aldarri ugari egiten ditu, besteak beste, emakumeek egindako lanaren aitortza eginez.

Esan dezadan gerra bere gordinean ageri dela Meaberen obra honetan. Gerraren eremu semantikoari erreparatuz gero, zerrenda luzea osa liteke eta baieztatu daiteke egileak ez duela sinbolo eta metaforen erabilera egiten gerraren krudelkeria leuntzeko, alegia, idazleak ez du eufemismoetara jotzen eta horren ordez, *hil*, *torturatu*, *bortxatu*, *heriotza-zigorra*, *lubaki*, *ebakuazio*, *desagertu*, *traidore*, *fusila*, *destruktore*, *bonba* edo *tiro* bezalako hitzak baliatzen dira, eszena biolentoak errealismo handiz deskribatuz, nahiz eta noizean behin “Hegazkinak

zetozen, zeruko deabruak gorozki erraldoiak jaurtitzen” (94) bezalako esaldi gutxi batzuk aurki daitezkeen. Dena den, kontuan hartuta narrazioa haur baten ikuspegitik emana dagoela, horrelako deskribapenek sinesgarritasuna ematen diote obrari.

Azkenik, *Urtebete itsasargian* lanaren iruzkinari amaiera emateko, esan dezadan, Olaziregik (2014: 98) dioen moduan, liburuak omenaldi argia egiten diola 30eko hamarkadako erresistentzia kulturalari eta euskal politikari. Horregatik, azpimarratuko nuke kalitate literarioari ihes egiten ez dion Meaberen lan honek ikuspegi zabala eskaintzen duela eta mintzagai duen garaiko testuinguru sozio-politiko eta kulturalaren berri emateaz gain, une entretenigarria eskaintzen diola irakurleari. Gainera, lotura eta erreferentzia guztiak jasotzeko, irakurlearen parte-hartze aktiboa eskatzen du. Liburua eskolan landuz gero, alderdi horiei guztiei erreparatzea gomendatuko nuke. Hizkuntzari dagokionez, idazleak darabiltzan baliabide literario edo poetiko-erretorikoak landu daitezke (metaforak, pertsonifikazioak eta konparazioak adibidez). Gainera, nahi beste sakon daiteke kontakizunean zehar egiten diren testuartekotasunekin eta gauza bera obrak mintzagai hartzen duen garaian buruzko erreferentzia kultural, politiko eta historikoekin. Hari ugari eskaintzen ditu obrak eta irakurle gazteari eska dakioke horietatik tira egin eta ikerketa lana egiteko, adibidez, Gerra Zibilean emakumeek izandako parte-hartzeari buruzko informazioa bilduz. Liburu honen gakoetako bat emakumeengan jartzen den begirada da, eta horrekin batera, eraikitzen den kontra-errelatua.

#### **6.2.3.8. *Negu luzearen atarian***

Xabier Mendigurenek (Beasain, 1964) idatzi eta Juan Carlos Nazabal eta Jose Angel Lopetegik irudiz hornitutakoa da *Negu luzearen atarian* (Elkar, 2010) ipuina. Lan hau Gipuzkoako historia ipuinen bidez ikasteko helburuarekin sortutako bildumaren parte da. Hamar ipuin dira guztira eta laburpen gisako bat eskaintzen duen hamaikagarren liburuxka batek ematen dio itxiera bildumari<sup>107</sup>. Geologia aroei buruzko ipuinak ematen dio hasiera eta hemen aztertuko dudanak ematen dio amaiera, tartean, besteak beste, Historiaurretik, Burdin Arotik eta Erdi Arotik pasatuz. Liburuez gain, bildumak bi DVD dakartza eta bertan hamar

---

<sup>107</sup> *Herriz herri, mendez mende* izenburua daraman hamaikagarren liburuxka horrek ipuin guztietako adukia biltzen du, bakoitzari bi orrialde eskainiz. Informazio entziklopediko soila ematen denez eta ez denez inongo narrazio literarioerik eskaintzen, ez dut nire corpusean sartu, eta beraz, ez dut azterketa sakonik eskainiko. *Negu luzearen atarian* ipuinaren edukiei dagokienez, 1936ko irailetik 1937ko apirilera bitartean Gerra Zibilaren frontea Intxorta mendian egon zela eta inguru horiek gudarien gotorlekua izan zirela aipatzen da eta garai hura gogoan, Elgetan interpretazio-zentro bat zabaldu zutela.

liburuxkak oinarri hartuta sortutako marrazki bizidunak eta jolasak datoz. Mendiguren idazle eta editoreari dagokionez, ekarpen handia egin du editore gisa eta horrez gain, lan ugari idatzi ditu, hala helduentzat nola haur eta gazteentzat. Hainbat genero landu ditu, besteak beste, nobela, kronika, antzerkia, artikulugintza edo ipuingintza. *Sei ipuin amodiozko* (Susa, 1986) ipuin liburuarekin ekin zion idazle bideari 1986an eta *Estitxuk pirata izan nahi du* (Elkar, 1987) lanarekin eman zion hasiera haur eta gazteei zuzendutako literatura sorkuntzari. Antzerki lanei esker hainbat sari irabazi ditu, adibidez, Toribio Altzaga Saria, Telesforo Monzon Saria edo Donostia Antzerki Saria. Ipuinekin, berriz, Tene Mujika Saria eta Bizenta Mogel Saria, eta HGLn, Lizardi Saria eskuratu zuen *Montse-txikiren azio handiak* (Zarauzko Udala, 1988) eta *Egun bat Petre Romanescuren bizitzan* (Erein, 2009) lanarekin.

Aurrerago erakutsiko dudan moduan, hainbat dira Mendigurenek memoria historikoari buruz idatzitako HGL lanak, hemen aztertuko dudana gain beste hiru obra baitira tesiko corpusaren parte (*Iparragirre, Txakurraren alaba* eta *Hiru sopranoak*). Horrekin batera, helduei zuzendutakoen artean, ezin aipatu gabe utzi *Oso latza izan da* (Elkar, 2023) nobela, Joxe Arregi etakidearen heriotzaren berri ematen duena; *Alsinia* (Elkar, 2016) eleberria, Gerra Zibileko kontuak, etakide izandako baten elkarriketak eta memoria historikoarekin lotutako beste hainbat kontu biltzen dituena; *Uda betiko balitz* (Elkar, 2003), 1976tik 1980ra bitarteko haur talde batzuen uda kontatu eta zeharka garai hartako giro liskartsua aipatzen duena; Guda Zibilaren jiran girotutako *Errautsen distira* (Elkar, 2002) ipuin liburua eta *Trip* testu laburra, autobusez kartzelara bisitan doazen emakumeak hartzen dituena hizpide<sup>108</sup>.

## Laburpena

Sei urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako 32 orrialdeko ipuin honek Iñaxi eta Antton ditu protagonista, bi anai-arreba gazteak, eta 1936ko Gerra Zibilak haien egunerokotasunean nola eragiten duen islatzen du. Bi lubakiren artean bizi dira eta haurrek alde bateko zein besteko tropekin duten harremanaren berri ematen du obrak.

## Harrera kritikoa

Guztira 3.100 aleko tirada eman ziren argitara eta horien erdia doan banatu zen ikastetxe, museo eta gazteen bestelako zentroetan. Baina egia esan, zaila da lan honek izan duen harrera neurtzea, aitortu behar baitut ez dudala ia analisi kritikorik, erreseinarik edo

---

<sup>108</sup> Testu osoa Debako udalak 1993an Elkar argitaletxean argitara emandako *Tene Lehiaketa 1993* liburuan aurki daiteke, baita Mikel Sotok apailatutako *Haginetako mina* (Txalaparta, 2008) ipuin bilduman ere.

bestelako iruzkinik aurkitu. Lanari egindako erreferentzia bakarrak bilduma osoaren gainean idatzitako berriak eta albisteak izan dira. Elkarreko zuzendari den Olatz Osak (Imaz, 2010) adibidez, bilduman parte hartu duten egileek Euskal Herriko gertakari nagusiak modu labur eta erakargarrian aurkezteko erronka zailari maisuki erantzun ziotela aipatu zuen, eta Markel Olano ahaldun nagusiak eta orduko kultura diputatu zen Maria Jesus Aranburuk (*idem*), berriz, materialen erakargarritasuna goraipatu zuten. Azkenik, aipatu nahiko nuke HGL zabaltzeko asmoz sortutako EITBko “Ipupomamua” saioak (2011eko apirilak 2) tarte bat eskaini ziola bildumari, batetik, sortzaileetako batzuek materiala aurkez zezaten (ipuinak, marrazki bizidunak eta jolasak); eta bestetik, Ixabel Agirresarobe ipuin-kontalariak aztergai dudan ipuina kontu zezan irudiez lagunduta.

### **Analisi narratologikoa**

Aurrerago esan bezala, ipuina Gerra Zibilaren garaian girotua dago eta zehazki, 1939ko abenduan hasten da kontakizuna, Korostieta baserriko Bittori amona eguneko lehen tiroekin esnatzen denean. Protagonistak Iñaxi eta Antton neba-arrebak dira, amarekin eta amonarekin aipatutako baserrian bizi diren haurrak. Bizitokia Angiozartik Elgetara dagoen bidean kokatuta dago, frontea finkatuta gelditu zen gunean. Narratzaile heterodiegetiko eta orojakileak jakitera ematen duenez, goian, Elgeta eta Intxortako partean, indar errepublikarrak daude; eta behean, Bergara eta Arrasatetik gertuago, frankisten tropak (3-4). Liburuko azaletik bertatik ematen zaio irakurleari giroaren berri. Aurreko azalean, mendian gora doazen bi haurrak ageri dira. Zeruan bonbak botatzen ari den hegazkina ikus daiteke eta haurren inguruan disparatzeko prest dagoen metrailadore bat, zapi more batez estalia eta ikurrina alboan. Baina gerraren bilakaeraren berri eman baino, Gerra Zibilak bi haurren egunerokotasunean nola eragiten duen erakusten da. Egia esan, gerraren bilakaerari buruz esaten den bakarra pasarte hau da:

1936ko abendua zen, negua sartu berria, eta gerrak ez zeukan amaitzeko itxurarik: uztailaren 18an militar frankistek estatu-kolpea jo zutenetik Araba eta Nafarroa berehala bereganatu zituzten, eta abuztu eta irailean zehar Gipuzkoa gehiena konkistatu zuten, herririk herri (1).

Hurrek, bidean tirokatuak izateko beldurratik, soldaduekin topo egiteko beldurratik eta bidean bomba batekin topo egiteko izuagatik, etxetik irteteko arriskua eta beldurra daukate: ezin dira eskolara joan, ezta lagunekin jolastera ere (5). Horrez gain, ezin dira sorora edo salerosketak egitera joan (7). Ondorioz, gosea bizi dute etxean, izan ere, gero eta janari gutxiago dute eta oinarrizko elikagaiak ere falta dituzte, olioak, azukrea eta kafea

adibidez (7). Irudietan bonbak botatzen ari diren hegazkinak ageri dira eta haurrak eskolatik korrika irteten (5-6). Baina ikus daitekeenez, gerrak sortutako ondorio horiez at, haurrek ez dute gerraren zergatia ulertzen, ezta axola ere (7). Amak soldaduengana ez gerturatzeko esan arren, entzungor egin eta soldaduengana abiatzen dira bi haurrak. Batek gorantz egin nahi du (errepublikarrak dauden tokira) eta besteak beherantz (frankistengana). Zoriz erabaki eta errepublikarregana joaten dira gaztainak eskaintzera. Beraz, ikusten da berdin zaiela bando bat edo beste eta ez dira benetako arriskuaz kontziente. Gerra jolas gisara hartzen dute, bi lubakien erdian elkarren aurka jolasten baitute anai-arrebek (3-4). Haurrek berez duten kuriositatea eta inozentziarik eza baliatuz, idazleak aukera ematen du gerraren bi aldeetan kokatutako pertsonaiak aurkezteko. Indar errepublikarrak dauden aldean ikurrina bat ikus daiteke (11) eta bertan (euskal) txapela jantzita daraman Kepa gudari zornotzarra ezagutzen dute haurrek. Protagonistek gerra zergatik egiten duten galdetzen die:

-Eta zergatik egiten duzue gerra?

-Guk, abertzaleok, Euskadiren alde eta Agirre Lehendakariaren alde. Gero, hemen badira sozialistak, anarkistak, komunistak...

Anttonek eta Iñaxik ez zuten ezer ulertu (18)

Errepublikarrekin egon ondoren, frankistak dauden aldera joaten dira, Kepak gozokien ordeztu nahi duen tabakoa lortzeko. Txapela frankista daraman Isidro leitzarrak erantzun ezberdina ematen die haurrei gerraren arrazoiei buruz galdetzean:

-Eta zergatik egiten duzue gerra?

-Guk Jainkoa, Espainia eta tradizioa defenditzen ditugu. Zuek ez zaudete konforme?

-Iñaxik eta Anttonek ez zekiten (17).

Orain arte aipatutakoa ikusita, badirudi bi bandoen arteko bereizketa bakarra batzuen ikurrinaren eta besteen bandera espainiarraren bitartez (eta janzkeraren bitartez) egiten dela, gerra egiteko ematen duten arrazoiaz gain. Dena den, azpimarratzekoa da frankistak direla indarkeriaren erabilera egiten dutenak eta kaltea eragiten dutenak. Lehenengo orrialdeko irudian bertan, espainiar bandera handi bat daramaten tropa frankistak ageri dira, ikurrina eta bandera errepublikarra daramatenei tiro egiten (1). Gainera, ipuinaren amaiera aldera, bat-batean lau militar frankista agertzen dira etxean (horietako bat hurrekin trukean ibilitakoa), pistolak eta fusilak eskuan, gaztelaniaz galdetuz ea gizonik baden etxean: "Soy el teniente Cayuelas. Obedezcan mis órdenes y no ocurrirá ninguna desgracia [...] ¿Es su hijo voluntario del glorioso alzamiento nacional? [...] ¿O es un rojo separatista?" (23). Irudiei

erreparatuz gero, kontraste handia nabari da (23-24). Batetik, bi haurrak amona eta amarekin ageri dira, kolore grisez marraztuak eta tamaina txikian, gora begira. Bestetik, orrialde osoa hartzen duen irudian, kolorez, lau militarrek ageri dira, amorru aurpegiz eta armak tiro egiteko prest dituztela. Txikitasuna eta izua alde batean, eta indarkeria beste aldean. Teniente “zitalak”, *Xabiartxo* liburua<sup>109</sup> etxean dutelako espainiar txarrak direla esan, haien okerrak zuzentzeko datozela gaineratu eta honakoa esan ostean sutara botatzen du berau: “¿Un libro en vascuence? Claro, empiezan con el vascuence, y acaban odiando a Dios y a España. ¿No les da vergüenza?” (25). Arma bila etxea miatu ostean, behia eramaten dute, lehenago behia eramane ez zezaten erreguka ibilitako amona mehatxatu ostean: “Cállese, vieja, si no quiere que la lleve a la cárcel por roja” (27).

Azkenik, iragana modu esperientzian irudikatzen duen ipuin honekin amaitzeko, aipatu beharrekoa da amaiera irekita uzten dela. Intxorta aldean borrokan dabilen aitak Gabon gaua etxean pasatzeko baimena lortzen du eta baserrian agertzen da txapela buruan eta fusila bizkarrean. Emazteak handik aurrera zer gertatuko den galderari ematen dion erantzunak nola edo hala pertsonaien patua aurreratzen du, nahiz eta esan bezala, amaiera irekita utzi:

-Ez dakigu, baina ez etsi, aterako gara, nola edo hala.

-Hala ere, negu gogorra datorkigu.

-Gogorra eta luzea. Oso luzea (31).

#### **6.2.3.9. Jose Miguel Barandiaran. Herria bihotzean zuen jakintsua**

Jesus Mari Olaizola “Txiliku” idazleak (Zarautz, 1951) idatzi eta Juan Carlos Nazabal eta Jose Angel Lopetegi ilustratzaileek irudiztatua da lan hau, 2011n Elkarrek argitaratutakoa. Helburu nagusia Barandiaranen (1889-1991) biografia jasotzea den arren, Gerra Zibilarekin lotutako hainbat pasarte ageri dira eta gudak Barandiaranen bizian eta obran bertan hartzen duen tokiagatik, corpusean sartzea erabaki dut, aurretik aztertu dudana *Basarri* liburua bezala. Aztergai dudana obra lehenago aipatu dudana “Gure pertsonaiak” bildumaren parte da.

---

<sup>109</sup> John Zabalo *Txikiren* irudiak dituen eta Ixaka Lopez de Mendizabalek prestatutako liburu hau euskaraz irakurtzen ikasteko testuliburu klasikoa da, lehenengoz 1925ean argitaratua. Aztergai dudana liburuan, irudian ere *Xabiartxo* liburua ageri da (25) eta bertako pasarte bat ematen da, neguari buruzkoa (22).

## Laburpena

Zortzi urtetik gorako irakurleei zuzendua dagoen 32 orrialdeko lan honek Jose Miguel Barandiaranen biografia eskaintzen du, paleontologian egindako lanean eta 1936ko gerrak haren bizitzan izan zuen eraginean zentratuz.

## Harrera kritikoa

Kolekzio bereko beste liburua iruzkintzean aipatu dudanaren ildotik, ez da erraza ipuin honek edo proiektuak osotasunean izan duen harrera aztertzea, hainbat tokitan ikertu arren ez baitut inongo erreseina, kritika edo aipamenik aurkitu. Elkar argitaletxeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Kutxarekin lankidetzan eman zuen argitara proiektu hau, eta egindako aurkezpen publikoaz gain eta promoziora bideratutako bideoez gain, ez dut beste ezer aurkitu, ezpada Berbaro Elkarteak 2010. eta 2011. urteko argitalpenekin eta liburu gomendagarriekin egindako gidan ageri den aipamena.

## Analisi narratologikoa

Arestian esan bezala, kontakizunak Barandiaranen biografia laburra jasotzen du eta ataundarra ibili zen tokiak agertzen dira, Euskal Herriko txokoak guztiak. Narratzaile homodiegetikoak lehen pertsonan kontatzen du berak 18 urte zituenean ezagutu zuela 75 urteko Aita Barandiaran, 1965. urtean Arrasateko Lezetxiki kobazuloan indusketa batzuetan laguntzen zegoela (1). Jarraian, Barandiarani buruzko biografia ematen hasten da, jaiotzari buruzko datuak, egindako ikasketak, arkeologiarekin izandako harremana edo parte-hartutako indusketak, besteak beste. Azalean informazio hori aurreratzen da. Aurreko azalean, Barandiaran ageri da mendian, txapela buruan eta laneko buzo urdinarekin, eta atzeko azalean, berriz, eskritorioan eserita ageri da, liburuz inguratuta eta idazketan kontzentratuta. Aralarren trikuharriak aurkitu eta Telesforo Aranzadi eta Egurenekin batera indusketak egiten ibili zen, harik eta Urtiagainen lanean zela, 1936ko gerra hasi zen arte<sup>110</sup> (14). Azpimarratzekoa da “Espainiako gerra” deitzen zaiola Gerra Zibilari (20). Lehenago aurreratu bezala, liburu honetan Barandiaranek gerra garaian bizitakoa kontatzen da, protagonistak berak Lezetxikin lanean zeudenetako batek galdetuta<sup>111</sup>, eta Bigarren Errepublikaren garaitik bizi izan zuen egoera islatzen da. Gasteizko apaiztegian bizi zen Barandiaran eta komentuen erreketengatik bizi izan zuen larritasuna jartzen da agerian (18).

---

<sup>110</sup> Hiruei *Los tres tristes trogloditas* deitzen ziela aipatzen da (14).

<sup>111</sup> Memoria komunikatiboaren adibide da transmisio hori eta horrez gain, transmisio afiliatiboa.



Irudietan, ikurrina eta bandera errepublikarra ikus daitezke, pozik eta bibaka ageri den jendearekin batera (19). Gerra piztu zenean, Barandiaranek ihesari ekin behar izan zion eta ezin izan zen askatasun osoz mugitu, salaketa baten ondorioz, frankistek fitxa bat egin baitzioten, euskaltzalea eta eta separatista izateagatik (26, 28). Horregatik, 17 urte egin behar izan zituen Ipar Euskal Herrian, harik eta 1953an, fitxa hori kendu eta Ataunera itzuli zen arte (28). Handik aurrera, gerra garaian bukatu gabe utzitako azterketekin jarraitu zuen.

Lehenago aipatu ez badut ere, gerra irudikatzen duten hainbat marrazki ageri dira obran: milizianoak defentsa eta erasorako prest (23), gerrako hegazkinak (16, 20) edo bonbardaketa sutsu bat (16-17). Azken irudi horretan, kiskalitako etxeak eta hegazkinek jaurtitako bonben erruz erretzen ari den paisaia ageri da, baita kanoi batetik zintzilik geratu den hildako gizon bat, zarrastatutako beso bat eta hildako zaldi bat ere. Horren guztiaren erdian, fusilarekin beste bat erasotzen ari den soldadu bat ikus daiteke, miliziano falangista batekin identifika daitekeena alegia. Baina gerra, irudietan agertzeaz gain, testuan ere ageri da. Barandiaranek gerra eromena dela esaten du (27) eta gerra garaia gogorra izan al zen galdetzen dion gazteari honako erantzun hau ematen dio, zeinetan argi laburbiltzen den gerrarekiko duen iritzia:

Pentsa ezazue ez dagoela gerra baino gaitz okerragorik munduan. Gerra da herri bati gerta lekiokoen gauzarik txarrena! Arrazoia eta jakituria ahaztu egiten dira, eta amorruek eta gorrotoak bakarrik irauten du bizirik. Gogoratzen dut gerra baino lehenago ere bazirela gorabehera batzuk [...], baina gogorrena gerrarekin etorri zen (17).

Azkenik, liburuaren amaieran, paleontologian, antropologian, etnografian, mitologia arloan eta oro har kulturaren egindako ikerketengatik euskal kulturaren Barandiaranek duen garrantzia azpimarratzen da. Irudietan, Lamia, Basajaun eta Tartalo ageri dira, Barandiaranek bere lanetan aztertutako izaki mitologikoak hain zuzen (33). Beste orrialde batean (32), Barandiaranek argitaratutako lan batzuk ageri dira, *Euskalerriko leen-gizona* edo *El hombre prehistórico en el País Vasco*, besteak beste) eta hark esku artean ibilitako beste obra batzuk ere agertzen dira, esaterako, Virgilioren *Eneida* obra (6).

#### **6.2.3.10. Gerrak ez du izenik**

Leire Bilbaok (Ondarroa, 1978) idatzi eta Maite Mutuberriak (Eltzaburu, 1985) ilustratutakoa da jarraian aztertuko dudana obra. Ondarroarrak 2006an hasi zuen bere ibilbide

literario, *Ezkatak* (Susa, 2006) liburu poetikoa eta *Amonak nobioa du, eta zer?* (Elkar, 2006) haurrentzako liburua argitaratu zituenean. Harrezkero irakurle gaztetxoenei zuzendutako hainbat lan argitaratu ditu, baita helduei zuzendutako poema liburuak ere. Mutuberriak, berriz, ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen eta ordutik hona liburu ugari jantzi ditu bere marrazkiz. Hainbat obra argitaratu dituzte batera bi sortzaileek eta horietako batzuk sarituak izan dira. *Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk* (Pamiela, 2021) eta *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (Pamiela, 2016) poema liburuek HGLko Euskadi Saria eskuratu zuten. Azken lan horrek, 2019an hobekien editatutako liburuen 3. Sari Nazionala lortu zuen, HGL kategorian. *Pikondoaren balada* (Elkar, 2017) lanak Lizardi Saria irabazi zuen eta jarraian aztertuko dudan *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013) liburuak, berriz, Etxepare Saria. Bilbaok, bere aldetik, Lauaxeta Poesia Saria irabazi zuen *Etxeko urak* (Susa, 2020) poema-liburuagatik. Mutuberriak ere, goian aipatutako sariez gain, beste hainbat eskuratu ditu, adibidez, berak bakarrik sortutako *Irrimola* (Ikaselkar, 2021) liburuarekin Euskadi Literatura Saria (ilustrazioaren alorrean) lortu zuen, Castillo Suarez idazlearekin ondutako *Zerua berun* (Ibaizabal, 2014) album ilustratuarekin, berriz, Peru Abarka Saria, eta Marta Nuñezekin batera osatutako *El país donde habitan las cigüeñas* (Del naranjo, 2014) lanarekin album ilustratuen Lazarillo Saria.

## **Laburpena**

Sei urtetik gorako irakurleei zuzendua dagoen kontakizun hau 1937ko martxoan abiatzen da, Durangon. Giro nahasia da nagusi hasieratik bertatik eta istorioak aurrera egin ahala, isiltzen joango dira biztanleak, harik eta lurrak dar-dar egiten duen arte. Hogeita hamasei orrialdeko obra honek Durangoko 1937ko bonbardaketa du gai nagusi eta gerra zein bere ondorioak azaltzen dira bertan, betiere Mirentxu izeneko neskatila baten begiradatik. Hainbat teknika erabiliz sortutako irudiek indar handia dute eta hartzaileari irakurketan aurrera egiten laguntzen diote.

## **Harrera kritikoa**

Mintzagai dudan azal gogorreko album ilustratu honek Etxepare Saria eskuratu zuen 2013an eta harrera ona izan du euskal irakurleen artean. Sariketa horretako epaimahaiko aktak dioenez (Alonso et al., d.g.), egileek ederki uztartzen dute hitza eta irudia, sentimenak eta gertaerak, errealitatea eta fantasia; gerra oren ezaugarriak agerira ateraz: gosea, beldurra, tristura eta abar. Gaineratzen denez, argazki errealez eta irudi marraztuez osaturiko planoek baliatzen dira, hitzari arnasa eman eta kontrapuntu egiteko; eta horrek guzti horrek,

armoniaz beteriko album ilustratu bat du emaitza gisa, epaimahaiaren ustez. Mercero (2014) obraren ilustratzaileak Gerediaga elkarteari esker eskuratutako argazkiekin garatu duen lana goraiatzen du<sup>112</sup>. Irudi gehienetan pertsona anonimoak ageri dira eta dioenez, horrek testuak aldarrikatzen duen mezuari indarra ematen dio, bereziki gerra-xedea herritar zibila denean (Durangokoan izan zen bezala). Gaineratzen duenez, irudiek gerrak berarekin dakarren hilketa kolektiboaren ideia erakusten du. Azkenik, hartzaile helduari gaztigatzen dio ankerkeria irudikatzen dela orriotan, eta album hau nekez eskain daitekeela haur bati helduaren bitartekaritza lanik gabe. Olaziregik eta Urzelaik (2018) ere, irudiek testu idatziari gehitzen dioten esanahia azpimarratzen dute, irudiek salaketa egiteko duten botere eztabaida ezina agerian jarritz. Ezin aipatu gabe utzi *CLIJ* aldizkariak 2014ko urteko 100 liburu onenak biltzen dituen ohorezko zerrendan sartu zuela mintzagai dudana obra hau.

### **Analisi narratologikoa**

Liburua eskuetan hartu eta azalean, zuhaitz batetik buruz behera zintzilik dagoen neskato batek deitzen du irakurlearen arreta. Izenburuaren disposizioa eta formatua bitxia da, izan ere, egunkari orrietako ebakinez sortua dirudi *gerra* hitzak. Izenburuaren gainerako zatia (*ez du izenik*) lerro gorri batez marratua ageri da, neskatoak eskuan daukan margo gorriaz hain juxtu. Natura ageri da azalean, baina ohiko kolore berdeez gain, beltza nagusitzen da. Atzeko azalean ere, kolore beltza da nagusi eta kiskalitako zelaia ematen duen irudian, herri bateko plano bat antzeman daiteke, beltzez hori ere. Liburua ireki eta portadan bertan, haur batzuen zuri-beltzeko argazki bat ageri da eta gainean eskuz margotutako lore batzuk ageri dira, azalean ere ikus daitezkeenak. Esan daiteke paratestuaren parte diren elementu horiek istorioaren nondik-norakoa eta tonua iragartzen dutela. Denbora eta espazioari dagokionez, hasieratik bertatik kontakizunak 1937ko Durangora eramaten du irakurlea. Istorioa martxoan hasten da, bonbardaketaren atarian, eta bonbardaketaren eguna biltzen du. Kontakizuna narratzaile orojakile estradiegetiko batek ematen du baina fokua neskatoarengan jarria dago. Horregatik esan daiteke irakurleak Mirentxu protagonistaren eskutik izango duela haren inguruan gertatzen denaren berri.

Lehen azaldu dudana legez, gerraz hitz egiten dute egileek lan honetan. Nire ustez, gerraren ankerkeria ez da era alegorikoan edo metafora artean erdi ezkutatuta azaltzen, modu

---

<sup>112</sup> Bilbaok (Euskal Idazleen Elkarte, 2013) elkarrizketa batean azaldu zuenez, lan honetan irudi marraztuak eta irudi errealak uztartu dituzte. Azken horiei dagokienez, Gerediaga elkartera jo zuten eta lortutako argazkiekin *collage* modukoak egin zituen Mutuberriak. Dioenez, itsasontziarena izan ezik, beste guztiak Durango aldeko irudiak dira.

zuzenean baizik. Are gehiago, obra osatzen duten irudi eta argazkiei esker aipatutakoa gehiago azpimarratzen dela uste dut. Egia da ez direla hildakoak ageri eta hitzen bidez ez dela bonbardaketa esplizitatzen, hau baino ez: “Hegazkin handi batzuen hegalek eguzkia ezkutatu dute. Lurrak dar-dar egin du Mirentxuren oinpean” (26). Eta jarraian bonbardaketaren onomatopeia ageri da orriaren erdian (29). Baina esan ohi den moduan, hitzek baino gehiago adieraz dezake irudi bakar batek. Haien bitartez bete-betean adierazten da gerraren krudelkeria: lehegailuek guztiz suntsitutako herri bat, kiskaldutako etxeak, Ingalaterrara, Frantziara edo Belgikara ihesean doazen itsasontziak edo ikaraz garrasika ari den neskatila aurki ditzake irakurleak orriotan. Pertsona anonimoak ageri dira irudietan. Esanguratsua da, adibidez, gerritik behera borobilean agertzen diren pertsonen irudia (12-13). Ez dute aurpeirik, ezin daitezke identifikatu. Edonor izan liteke gerraren biktima. Argi ikusten da, Mercerok (2014) iradoki bezala, egileek fokua herritar zibilarengan jarri nahi izan dutela.

Elementu paratestualak aipatu ditudala, izenburuak ere hartzaileak obran aurkituko duena iradokitzen du. Mercerok (2014) adierazi bezala, idatzizko elementu guztiak, izenburutik hasi (*Gerrak ez du izenik*) eta narrazioaren muineraino, protagonistaren amonaren “izenak izana dakar” esaeraren hausnarketatik eratortzen dira. Amonaren baieztapen hori gerrak sortzen dituen kalamitateei aurre egiteko bitarteko gisara aurkezten da, izan ere, “tristura ez badugu izendatzen, ez gara triste egongo” (9), edota “gosea ez badugu izendatzen, ez dugu goserik izango: inurri tropel bat baino ez, dantzan, gure sabelean” (6). Agian, hori da protagonista mutututa ibiltzearen arrazoia, aspaldiko hilabeteetan ez baitu hitzik esan. “1937ko martxoa da Durangon. Mirentxu aspaldian isilik dabil. Ez du hitz bakar bat ere egin, amama hil eta egun berean aita frontera joan zitzaionetik” (4), jakinarazten du narratzaileak. Agian horregatik, Durangoko herritarrak mututuz joango dira gerrak aurrera egin ahala. Baina, azkenerako aitortzen da ezarritako hitzak ezin direla ezabatu: “Beldurra, samina, gerra... ikusten hasi da. Gris eta gordin. Amamak esan bezala, izenak izana ekarri du Mirentxuren begietara” (33). Azpimarratzekoa da irudietan Mirentxuk ez duela ahorik izango eztanda arte (31). Bi orrialde oso hartzen dituen neskatoaren irudia iradokitzailea da oso<sup>113</sup>. Zabal-zabalik du protagonistak ahoa eta bertan, kolore gorriaren gainean, zartatzen ari diren etxeak antzeman daitezke. Biktimen minaz jabetzeak Mirentxu esnatzea eta lagun maiteen heriotzak eragindako trauma hori gaintitzea ekarriko du. Horrela, amarekin batera, etorkizunari aurre egin ahalko dio txikiak.

---

<sup>113</sup> Agian irakurleari Julio Gonzalezen *Oihuka ari den Montserratren burua* (1942) eskultura gogorarazten dio.

Liburuaren hasieratik bertatik, naturak garrantzi handia hartzen du. Azalean bertan, lehen esan bezala, baita aurrerago ere (21), zuhaitz batetik zintzilik ageri da neskatoa, naturaz inguratuta, eta kontakizunaren hasieran ere, enbor batean eserita dago Mirentxu, goiko posizio horretatik herriari begira (4). Beste pasarte batean inurriez inguratuta ageri da, haiekin jolasean (7), edo egurrezko zabuan kilkerrari begira (8). Natura bilatzen du neskatoak errealitatetik ihes egiteko eta aldika, ezkutatu nahi izaten duenean, etxe ondoko zuhaitzera igo eta orduak ematen ditu han igota, munduari begira (18). Aurrerago aztertuko dudan *Pikondoaren balada* lanean azalduko dudan moduan, ohikoa da pertsonaiak zuhaitzetara igotzea gizartetik urruntzeko. Aztergai dudan obra honetan, zuhaitzaz gain, bada irakurlearen arreta pizten duen elementu bat: hari gorria. Berau narrazio osoan zehar ageri da: zuhaitzetik zintzilik (5), zabua eusten (8), sabaitik zintzilikatutako paperezko hegazkinak heltzen (13-14) edota amonaren eta amaren eskuan josten ari direnean (6, 23). Mirentxu ametsetan ari denean ere, mataza gorria ageri da irudietan eta muturretako bat leihotik kanpora ateratzen da, frontean dagoen aitarengana eta hildako amonarengana doala iradokiz, txikiaren pentsamenduak bezala (10). Familiarrekiko lotura edo transmisio sinbolo gisa uler liteke hari gorria, izan ere, gauzak okertu eta gerrak eztanda egiten duenean elementu hori ez da inon ageri, ezta ebakuatuak atzerrira daramatzan itsasontzia irudikatzen denean ere. Kontakizunean haustura bat gertatzen denean hari gorria ez da inon ageri. Dena den, amaieran, berriz agertzen da, ama-alabak bonbetatik ihes eginda aurrera jarraitzen dutenean (34-35). Irudien azterketarekin jarraituz, esango nuke testuak aipatzen ez dituen ideia zenbait iradokitzen direla haien bitartez. Pasarte batean Mirentxuk hegazkinak ikusten dituela aipatzen da eta irudietan paperezko hegazkinak ageri dira sabaitik zintzilik. Neskatoa etxe barruan ageri da leihoetan marrazten. Etxe batzuk marrazten ditu neskatoak, baita pertsona bat ere (15). Baina azken horri ondo erreparatuz gero, oinarrian esbastika bat antzeman dezake irakurleak. Esbastika, etxeak eta hegazkinak lotuz gero, bonbardaketa faxistari egindako keinutzat har daiteke errepresentazio hori. Tentuz begiratu beharreko beste irudi bat itsasontzietako tximiniei darian ke hodeiak dira (17), gaztelaniazko egunkari orriekin sortutakoak baitira.

Aipatu dudan moduan, alegoria edo metaforek ez dute gerraren presentzia ezkututzen. Baina Bilbaok (Euskal Idazleen Elkarte, 2013) aitortzen duen moduan, metafora bidez Mirentxuren barne mundua azaltzen da, haurra nola sentitzen den. Zentzu horretan, tonu poetiko batean dago idatzia. Dioenez, orriotan adierazi nahi zuen gerrako paisaia iluna, tristea eta gordina izanik ere, beti dago itxaropenari leiho bat zabalik. Bilbaoren aburuz, tristuraren eta samintasunaren erdian, barne mundu alai eta aberatsa dauka Mirentxuk. Ume izaten

jarraitzen du. Aurreko ildoari tiraka, esan daiteke amaiera positiboa duela istorioak. Gerraren ondorioak irudikatzen dira, biztanleen ebakuazioa edo exilioa eta bonbardaketaren ondoriozko txikizioa batez ere, baita Mirentxurengan gerrak duen eragina ere: beldurra, samina, aitaren falta hura frontera joan delako eta eskolarik eza. Azken hori herrian dagoen isiltasunarekin eta neskatoaren bakardadearekin lotu daiteke. Amonaren galera ere gerrarekin lotu liteke agian, izan ere, aita frontera joan zen egun berean hil zela aipatzen da. Dena den, neskatoak amaren eskua heldu eta harekin egiten du aurrera, itxaropenez, obrako azken pasarteak aditzera ematen duen moduan:

Berehalako batean, amaren besoak eta magal beroa: etxeko atea zabaltzea bezala izan da. “Salbu gaude, laztana. Laster urdinduko da zerua... berriz”. Eta ama-alabak, hegazkinei eta beldurrari iskin eginez, eskutik helduta abiatu dira (34-35).

#### **6.2.3.11. Beroki gorria**

Helduei zuzendutako lanak argitaratu dituen arren, batez ere HGLri esker ezagun egin den Patxi Zubizarreta idazleak idatzi eta Yolanda Mosquerak (Amurrio, 1973) ilustratutakoa da jarraian aztertuko dudana album ilustratua, 2016an Ibaizabalek kaleratutakoa. Idazleari dagokionez, hainbat aldiz izan da saritua, besteak beste, 5 aldiz eskuratu du Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria (bera da sari hori gehiagotan irabazi duen idazlea): 1998an, *Gizon izandako mutila* obrarekin, 2006an *Pantaleon badoa* lanarekin, 2010ean *Xia Tenzinen bidaia miresgarria* liburuarekin, 2019an, *Korri, Kuru, korri!* lanarekin eta 2023an, berriz, *Zerria* obrarekin. Azken lan horrek beste sari garrantzitsu bat jaso zuen, 2023ko irailean Espainiako Haur eta Gazte Literatura Saria eskuratu baitzuen obra horrek, zeinak aurretik hirugarren sari bat zuen (Lizardi Saria). Nabarmenezkoa da ere bere hainbat lan IBBYren ohorezko zerrendan ageri direla. Tesi honenetan aztergai diren gaiak hainbat aldiz landu ditu Zubizarretak. Batetik, helduei zuzendutako *Hiru gutun Iruñetik* (2012) nobela idatzi zuen, zeinak 1936ko gerraurrera eramaten duen irakurlea. Bestetik, jarraian iruzkinduko dudana *Beroki gorria* liburuaz gain, 1993an Bapore Saria eskuratu zuen *1948ko Uda* (2015) eta euskal gatazkaren atalean aztertuko dudana *Pikolo* (2008) eman zuten argitara, biak haur eta gazteei zuzenduak. 1993an Tene Mujika ipuin lehiaketara aurkeztu eta bigarren saria eskuratu zuen lanean ere, euskal gatazka ageri da<sup>114</sup>. Moskera ilustratzailea Arte Ederretan lizentziatu

---

<sup>114</sup> Aurkeztutako lana Debako Udalak 1993an Elkarren argitaratutako *Tene Lehiaketa. 1993* liburuan aurki daiteke, edo Zubizarretak berak Elkar argitaletxean 1995ean atera zuen *Bihotzerre* ipuin liburuan, baita Mikel Sotok apailatutako *Haginetako mina* (Txalaparta, 2008) ipuin bilduman ere.

ostean, album ilustratuan eta HGL ilustratuan espezializatu zen eta bere lanekin hainbat sari eskuratu ditu, besteak beste, 2018ko Euskadi Literatura Saria ilustrazioaren alorrean *La Pequeña Roque* (Yacare, 2016) lanarekin edo aipamen bereziak Portugal, Txina, Korea, Mexiko eta Arabiar Emirerri Batuetan.

## Laburpena

Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendua dagoen 35 orrialdeko album ilustratu honek Gerra Zibilaren ondorioz Euskal Herria utzi eta erbestera alde egin behar izan zuten milaka haur horien istorioa dakar eta gerratik ihesi, *Habana* itsasontzian sartu eta Santurtziko portutik Ingalaterrara bidaltzen duten neskato baten ikuspuntutik ematen da kontakizuna.

## Harrera kritikoa

Ezer baino lehen, nabarmentzekoa da lan honek Album ilustratuen Peru Abarka Saria eskuratu zuela. Gaur egun liburua ez dago eskuragarri, eta beraz, ale bat eskuratu nahi duenak liburutegian mailegu bidez izan dezake haren berri. Dena den, lehiaketako antolatzaileek eurek obraren testu idatzia jarri zuten sarean denon eskura eta Aiako Harria Gaztelumendi irakasleak Oroimenaren harra izeneko proiekturako egindako ikus-entzunezkoa ere sarean aurki daiteke, zeinetan istorio guztia ahoz kontatuta ematen den, albumeko irudiak erakustez batera<sup>115</sup>. Sariketako epaimahaiak testua idatzita dagoen tonuaren eta estiloaren aberastasuna azpimarratu eta ixilean igaro diren gertaerak era poetikoan azaleratzeko ahalmena goraiatu zuen (Galtzagorri Elkarte, 2016). Etxanizek eta Fernández de Gamboak (2017), *CLIJ* aldizkarirako egindako erreseinan, Yolanda Mosqueraren ilustrazioen kalitatea nabarmendu zuten. Horrekin batera, istorioa ederra bezain hunkigarria dela iritzi zioten. Esan daiteke albumak arrakasta izan zuela, argitaratu eta gutxira, obran oinarritutako ikuskizuna sortu eta hainbat erritan eman baitzituzten emanaldiak<sup>116</sup>. Mondragon Unibertsitateak (2017) argitaratzen duen Irakur Gidan, 2016ko edizioan, mintzagai dudana obra sartu zuten eta irakurlea hunkitzen duen lana dela azpimarratzen da bertan<sup>117</sup>.

---

<sup>115</sup> Albumeko testu osoa irakurtzeko hona jo: <https://peruabarka.files.wordpress.com/2016/04/beroki-gorria.pdf>. Jarraian dagoen esteka honetan, berriz, ikus-entzunezkoaz gozatzeko aukera ematen da: [https://www.youtube.com/watch?v=ABG9O0d0A\\_8&t=2s](https://www.youtube.com/watch?v=ABG9O0d0A_8&t=2s). [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>116</sup> Emanaldi horietako bat sarean ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=R1f5iFF0Zow>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>117</sup> Hona hemen aipatutako gida osoa eskuragarri: <https://ebiltegia.mondragon.edu/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/1412/haur-gazte-literatur-gida-2016.pdf?sequence=1&isAllowed=y> [Azken kontsulta: 2023/10/20].

## Analisi narratologikoa

Liburuaren paratestuarekin hasi nahiko nuke iruzkina, iruditzen baitzait elementu horiek indar handia dutela eta *in media res* hasten den kontakizunari sarrera bikaina ematen diotela. Aurreko eta atzeko azalean, haurrak ageri dira, banan-banan eta ilaran, aurrera begira, eskuetan maletak dituztela. Paparrean identifikazio txartela dute guztiek eta ahorik gabe errepresentatuta ageri dira, inork hitza kendu izan balie bezala. Aurpegi ilunak nabarmentzen dira, argi utziz egitera doazen bidaiak gutxi duela plazeretik. Liburua zabaldu eta lehenengo orrian, baita edizio-orrian ere, gauza bertsua aurkituko du irakurleak: ilaran maletekin doazen pertsonak, haurrak eta hanka bat falta zaion elbarri bat. Horrek guztiak giro iluna ematen dio kontakizunari eta sarreratik bertatik, narratzaile autodiegetiko gazteak (izenik ematen ez zaion neskatoak) lehen pertsonan ematen dio azalpena irakurleari:

*Alfonso XIII* trasatlantikoak Bilbotik zortziehun lagun eramaten zituen Kuba, Mexiko edo New Yorkera. Baina orduan ez zegoen gerrarik, eta gerrarekin itsasontziak *Habana* zuen izena, Kubako hiriburuarena hain zuzen ere. Baina gu Ingalaterrara gindoazen eta bertan kasik lau mila neska-mutiko geunden (4).

Gerratik ihesi, Santurtziko portutik irten eta Ingalaterrara (Southampton hirira) bidaltzen dituzten haurren bidaia kontatzen du neskatoak eta esan daiteke umeez pairatutako ondorioetan zentratzen dela. Haur batzuek bakar-bakarrik ekiten diote bidaiari, eta protagonistak familiarrekin bidaiatzen duen arren, aita gerrak eraman zuela aipatzen du (6). Aurrerago, aita zeruan dagoela esaten du. Bidaia luzearen gogortasuna hainbat pasartetan deskribatzen da, hala nola, jende pilaketa handiak (11), haurren negar, zorabio eta gonbitoak (6, 13, 16) edo amets gaiztoak (13) aipatzean. Hainbat haurrek *Habana* itsasontzian sartu aurretik sufritutakoaren berri ere ematen du narratzaileak. Protagonista adibidez, toki batetik bestera ibili zen bonbetatik ihesi (8), baina pasarte gogorragoa da itsasontzian doan Estefana andereñoak kontatutako Agedaren istorioa:

Denok ezagutzen genituen Durango eta Gernikako triskantzak, baina Estefanak argitu zigun, joan den urtean, Otxandioko jaietan hegazkinak Errepublikaren banderarekin etorri zirela, kolore gorri-hori-moreekin, [...], baina propagandaren eta goxokien ordez, ustekabean bonbak bota zituzten eta bertakoek gorriak eta beltzak ikusi zituzten. Eta esan zigun 412 zenbakidunaren ahizpa ttikia [Agedaren ahizpa] bonbardaketan hil zela, eta hilkutxa zuri batean eraman zutela elizara. Eta Ageda horrexegatik etorri zela bakarrik *Habana* itsasontzira (8).



Ageda neskatoak berebiziko garrantzia dauka lan honetan. Batetik, bera da beroki gorria duen neska eta beraz, obrari izenburua ematen diona. Bestetik, Mosquera ilustratzaileak *collage* teknikarekin ondu dituen ilustrazioetan beroki gorria nabarmendu egiten da zenbait pasartetan eta obra osoan presente dagoen elementua da. Are gehiago, esango nuke beroki gorria itxaropenaren sinbolo dela. Hasieran, maleta baten barruan doa, bizi hobe eta seguruago baten bila abiatzen diren haurretako baten poltsan (9). Gero, itsasontzia Southampton hirira heltzean, kanpamenduan Ageda beroki gorria beste elementu batzuegatik aldatzen ibiliko da (24), itxaropena pertsonatik pertsonara jauzika dabilela iradokiz. Istorioaren amaieran, berriz, Bilboren erortzearen ondoren, protagonista eta beste haur batzuk konturatuko dira ez direla berriro etxera itzuliko eta ez dituztela gurasoak gehiago ikusiko (33). Pasarte horretan, hutsik dagoen kanpamendua ikusiko du protagonistak, lokatsetan botata dagoen beroki gorria baino ez, “zimur, zikin, odol malko handi baten antzera” (35). Uler daiteke Bilboren erortzearekin itxaropena galtzen dutela guztiek.

Lehenago, Estefana andereñoa aipatu dut eta nabarmentzekoa da pertsonaia hau dela album osoan zehar dagoen ahots heldu bakarretakoa. Horrekin lotuta, zaindari lana<sup>118</sup> egiten duen Estefanaren bidez iristen zaizkie berriak haurrei, baita gerraren berri ere. Interesgarria da Southamptonera heldu eta bertan pertsonaiek bizi dituztenak aztertzea. Lehenik eta behin, hizkuntzaren auzia aipatuko nuke, pasarte batean baino gehiagotan agerian jartzen baita pertsonaiek ingelesarekiko duten ezagutza urria (14, 33), eta horrek, are arrotzagoa bihurtzen du harrera-herria, integrazioa gehixeago zailduz. Southamptoneko portura iritsi eta kanpamendura bidean bertakoen harrera beroa jasotzen dute, narratzaileak baitio: “Jendea espaloia bi aldeetan kokatuta zegoen, banderatzak astinduka, herriko jaiak balira bezala, oso koloretsu, oso irribarretsu eta oso adeitsu. Eta orduan konturatu ginen han ez zegoela gerrarik, han ez zegoela beldurrik” (18). Dena den, egoera nolabait idiliko edo lasai hori gutxika-gutxika hausten doa. Batetik, haur batzuen atsekaberako, neba-arreba batzuk bereizi egiten dituzte, kanpamenduetan sexuaren araberako bereizketa egiten baitute (20). Bestetik, haur batzuen inozentzia galera irudikatzen da, adibidez, ume txikienak ez larritzeko, haur nagusienek negarrari eusten diotenean edota basora joaten direnean negar egitera (20, 31). Ildo beretik, nabarmentzekoa da nola ematen duen narratzaileak hilekoaren berri, nahiko modu inplizituan bada ere: “Hainbat neskatilari arima gorri-gorri atera zitzaigun, baina ez tripetatik eta ikaratu egin ginen” (26); eta nola ematen duen aditzera hankartean jartzeko eta odola biltzeko zapiak ematen dizkietela (26). Nolabaiteko erritmo bat emanez, hainbat aldiz

---

<sup>118</sup> Itsasontzian daudela, andereñoak umeei abesten dien kantua irakur daiteke (11).

esaten da egun guztiak berdinak zirela (23, 24, 28, 33), baina pasarte batean neskatoak aipatzen du batzuetan zerbait aldatzen zela. Dena den, azpimarratzekoa da egoera aspergarria aldatzen duten gertaera horiek guztiak negatiboak direla, leuzemiak jotako Joserren gaixotasuna eta heriotza kasu. Gerrarekin zuzenean lotuta ez dagoen arren, nabarmentzekoa da oso modu gordinean ematen dela Jose haurraren egoeraren berri. Leuzemia hitza esplizituki aipatzeaz gain, gainerako hurrekin jolasteko duen ezintasuna agerian jartzen da (26) eta mutikoak berak jakinarazten die beste aurrei bizitzaren azken egunetan dagoela:

Egun guztiak berdinak ziren, baina egun batean Jose oso gaixorik jarri zen eta apaizak esan zion aitortza egin behar zuela. Baina Josek ez zuen nahi izan eta esan zigun Huidobro poetaren hilobian hitz hauek daudela: «Zabaldu hilobi hau. Hondo sakonean itsasoa ikusten da», eta berak ere laster itsasoa ikusiko zuela. Eta apaizaren ordeaz, Luis joan zitzaion, eta tutore maiteari poema bat irakurtzeko eskatu zion, eta gero esan zion: -Geratu hor, mesedez, baina ni hormara begira jarriko naiz. Ez dut nahi zuk ni hiltzen ikustea (28).

Liburuan bertan, Luis izenaren ondoan oin-ohar bat dator, Lusi Cernuda (1902-1963) poeta dela zehazteko. Ingalaterran, olerkariak erbesteratutako euskal hurrekin lan egin zuen tutore gisa eta ospitalean zegoen José Sorillo haurrak Cernudaren bisita eskatu zuen, baita poema bat errexitatu ziezaion ere. Amaitzean, mutikoak goiko pasartean ageri diren hitzak esan zizkion eta gertaerak sortutako hunkipenetik abiatuta, “Niño muerto” poema idatzi zuen Cernudak, Espainiatik alde egin ostean idatzitako bigarren poema, zeinetan erbestearen gaia agertzen den<sup>119</sup>. Bide batez, Zubizarretaren album honetan badira beste pertsona batzuei egindako erreferentzia gehiago, adibidez, Vicente Huidobro poeta txiletarrari (8, 11) edo Agirre lehendakariari (6) egindakoak.

Esanguratsua da gerratik ihesi doazen mutilek gerra egitera eta presoak fusilatzeraz jolasten dutela kanpamenduan, izan ere, badirudi doazen lekura doazela, biolentzia horrek atzetik jarraitzen dituela haurrak, edo ez direla gerraren dimentsioz ohartzen, nahiz eta beste batzuk, jolas hori ikusita, gurasoekin gogoratu eta negarrari eusten saiatu (23). Dena den, ikusten da haurren egoera fisiko eta animikoa okertzen doala: “Arima mutikoen belaun urratuen antzera geneukan. Oso urratua. Oso garden. Oso-oso. Eta kanpamenduan denok ere gero eta elkarren antz handiagoa genuen” (31). Kontakizunaren amaieran, Bilboren erortzearen berri ematen da, eta gertaera horrek nola murgiltzen dituen haurrak atsekabeen:

---

<sup>119</sup> Egia bada ere *Las Nubes* (1943) liburuan “Niño muerto” izenez ageri dela poema hori, ohartarazi nahiko nuke hasieran “Elegía de un muchacho vasco muerto en Inglaterra” izena eman ziola.

Nagusiok orduantxe ulertu genuen gu ere erori ginela eta ez ginela berriro altxatuko. Ez genituela gurasoak berriro ikusiko. Ez zela egunsenti berririk izango [...] Nagusiok orduantxe ulertu genuen Bilbo mendean hartu zutela eta ez zegoela zer eginik. Ez ginela etxera itzuliko. Erori egin zela Bilbo eta ez genuela ama berriro ikusiko [...] *Habana* itsasontzian baino orru eta garrasi handiagoak entzun ziren [...] beste batzuek beren burua lurrera bota, eta kopetaz lurra jo genuen, edo, amorratuta, landareak erro eta guzti atera genituen. Eta gero asko eta asko negar batean itzuli ginen dendetara (33).

Berriz ere, gorago esan dudan moduan, protagonistak, beste haur batzuekin batera, basoa bilatzen du negar egiteko eta etsipen momentuetan arnasa hartzeko (35). Liburuko azken pasarteetan basoa ageri da, eta ilun dago zerua, beltz (34-35), halaxe baitago pertsonaien barnea ere.

Amaitzeko, gaineratu nahiko nuke istorioa haur baten begiradatik kontatua dagoela eta esango nuke egileak oso modu egokian erabi duela hizkuntza kontakizuna haur baten inozentzia eta xalotasunaren filtrotik emateko, adibidez, aipu honetan ikus daitekeen moduan: “Guk betiko izena genuen, baina gutako bakoitzaren identifikazio txartelean zenbaki bat agertzen zen, zenbakia besterik ez, eta oso gutxik genekien zortziehun arte kontaktzen, eta oso-oso gutxik lau mila arte” (4). Azkenik, aztergai dudan album ilustratuarekin amaitzeko, azpimarratuko nuke lan honek Gerra Zibileko hainbat gertakari aipatzen dituela, eta benetako gertaerak eta pertsonak hartzen dituela ahotan (Cernuda eta Huidobro poetak, Agirre lehendakaria eta José Sorillo haurra), baina agian interesgarriena erbesteratuen ihesaldia eta kanpalekuetako bizimoduari ematen zaion garrantzia da. Zubizarretak eta Mosquerak ondutako obra hau irakurle gazteekin lantzerakoan, bereziki nabarmenduko nuke duela hamarkada batzuk haur euskaldunek sufritu zutena pairatzen ari direla gaur egun milaka eta milaka ume, eta drama horrek ez duela, tamalez, etenik izan.

#### **6.2.3.12. *Pikondoaren balada***

Aurrerago aztertutako *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013) album ilustratuaren egileena da jarraian aztertuko dudan liburu hau, Leire Bilbao eta Maite Mutuberriarena, eta jada emandako informazio berbera ez errepikatzearren, laburpenera egingo dut jauzi.

## Laburpena

Errealismo fantastikora garamatzen narrazio hunkigarri honetan Martiña izeneko haur bat aurkituko du irakurleak, bere familia ezagutzera ematen duen narratzailea. Italo Calvinoren *Il barone rampante* (1957) narrazio ezaguneko Cosimo pertsonaiak bezala, osaba Lukasek etxe aurreko pikondoan igarotzen ditu egunak, irakurtzen, koplak zaharrak kantatzen eta etxekeekin berba egiten. Gerra iristen denean, Martiñaren aita gerrara abiatuko da, baina osaba, ordea, armak hartzeari uko eginez, pikondoan ezkutatuta geratuko da betiko, handik inoiz ez jaistea erabakiko baitu. 72 orrialde betetzen dituen liburu hau 10 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta gerraren aurrean pertsonaiek hartzen duten jarrera diferentea erakusten du, gerraren aurkako aldarria egiteaz gain.

## Harrera kritikoa

Obra honek izandako harrerari dagokionez, lehenik eta behin, azpimarratu beharrekoa da 2016ko Lizardi Saria eskuratu zuela. Sariketa horretako epaimahaikide izan zen Alex Gurrutxaga kritikariak (Erlo telebista, 2017) obra estilo finean idatzita dagoela eta idazlearen luma ikusten dela baieztatu zuen. Haren ustez, idazleak oso suabe egiten du aurrera eta oso gozo irakurtzen da. Xabier Mendiguren idazle eta editoreak (Erlo telebista, 2017), berriz, ilustrazio lan bikaina azpimarratu zuen. Haren aburuz, Mutuberriak irakurketa paralelo bat eskaintzen du irudietan eta horrek liburuari aberastasuna ematen dio. Galtzagorri Elkarteak (2018) erreseina bat argitaratu zuen *Behinola* aldizkariko 38. zenbakian eta ilustrazioen egokitasuna goraiatzeaz gain, emozioei ematen zaien indarra azpimarratzen du. Etxanizek (2017b, 2018) liburu hitzen poetikotasuna eta irudien erakargarritasuna jartzen du balioan, eta Mercerok (2017) Bilbaoren lanaren ekarpena eta balioa aldarrikatzen du, gogoraraziz liburuaren azalean irakurketa 10 urtetik aurrerako gazteei gomendatzen zaien arren, gaiaren eta estiloaren ezaugarriak gogoan hartuta, helduentzako ere irakurketa gomendagarria dela. Olaziregik eta Urzelaik (2018) dioten moduan, fantasia eta imajinazioz betetako testu bat izan arren, ez dio hausnarketa eginarazteari uko egiten. Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuen liburu eta OEPLik 2017ko HGLko liburu hautatuenean. Esandakoaz bat, azpimarra dezadan obra hau 2018ko Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionalerako hautatua izan zela. Dena den, Lizardi Sariaz gain kritika onak jaso dituen arren, oraingoz bi argitalpen baino ez ditu izan eta euskaraz soilik irakur daiteke obra hau.

## Analisi narratologikoa

Liburua zabaldu eta 1936an Miguel Hernándezek Ramón Sijé idazleari eskainitako elegiaren zati batek ematen dio hasiera irakurketari. Euskarara itzulita dagoen pasarte horretan, pikondoa aipatzen da jada. Jarraian, 20 kapitulu laburrak datoz eta guztietan ilustrazioak tartekatzen dira. Denbora eta espazioari dagokionez, pertsonaiak herritik kanpo dagoen Pikuenea izeneko fikziozko etxaldean bizi dira eta kontakizuna 1936ko Gerra Zibilaren jiran dago girotuta. Hainbat dira istorio honetan nabarmentzen diren pertsonaiak. Batetik, Martiña narratzaile autodiegetikoa aipatu beharko litzateke, istorioa lehen pertsonan kontaktzen duen neskatoa. Bestetik, osaba Lukas, Pikuenean bizi den gizon ameslaria; eta hirugarrenik, pikondoa bera. Hiru horien inguruan ardatzen da kontakizun osoa, eta Mercero (2017) dioen moduan, egia bada ere kontaketa osabaren biografian zentratzen dela, fokua (barne-fokalizazioa) osabak neskatoarengan duen eraginean dago batik bat<sup>120</sup>.

Martiñak dioenez, osabak txiki-txikitatik orduak pasatzen zituen pikondora igota eta halaxe ezagutu zuen berak ere, beti zuhaitzean igota eta umoreko (15). Bertatik kantuak, koplak, istorioak edo bestelako ateraldiak kontaktzen dizkio txikiari. Beraz, esan daiteke Lukasek Martiñari tradizioaren eta bizitzaren ikusmolde propio baten transmisioa egiten diola. Egileak berak, ahozko tradizioak bere lanean duen eraginaz galdetuta, honakoa aitortzen du: “Ipuin honen asmoa balada eta kantu zaharrak argitara ematea zen. Eta osaba Lukas oso pertsonaia aproposa suertatu zait kantu eta bertso zaharrak kantatu eta kontatzeko” (Euskal Idazleen elkarte, 2017). Liburu osoan zehar txertatzen dira horiek (17, 26, 34, 47, 52, 53, 62, 72), kontakizunarekin lotura estua dutenak batzuk. Txikiak arretaz entzuten ditu osaba jakintsuaren hitzak, nahiz eta etxeko guztiak ez diren iritzi berekoak: “Gauza asko dakizki osaba Lukasek. Ezertarako balio ez duten gauzak, zuzentzen zidan aitak. Eta bizitzarako baliagarriak diren gauzez zipitzik ere ez, gehitzen zuen” (11). Gainera, aitak pikondora ez igotzeko agindua ematen dio txikiari (27). Irakurritako aipuak iradokitzen duen legez, aita eta osabak ez dute berdin pentsatzen, eta hori agerian jartzen da gerrak eztanda egin eta bietako bakoitzak jarrera diferentea erakusten duenean. Lehenengoa gerrara abiatuko da, baina osaba ordea, ez, bakezalea baita (29). Biziki esanguratsua iruditzen zaizkit osabaren hitz hauek:

---

<sup>120</sup> Etxanizek (2018) Lukas osaba hartzen du protagonistatzat, baina nire ustez, esan bezala, Martiña da kontakizuneko protagonista eta narratzailea. Osabak, noski, berebiziko garrantzia du, baina osabak neskatoarengan duen eraginean jartzen da arreta.

Gerra bat irabazteko modurik onena hura saihestea da [...] Ezin da esan gerrate baten errua alde bakarrarena denik. Alde batek besteak baino makurrago joka dezake, baina, alde batek edo besteak, zeinek daukan arrazoia erabakitzeke saiakerek ezin dezakete inoiz, egundo, sekula, guda baten bortitza, krudela eta ankerra justifikatu (40).

Gainera, pozik hil nahiko luke, kausa natural batengatik (31). Desertatzeak familia lotsaraziko duela aurpegiratzen dio Martiñaren aitak, baina osabak entzungor egiten die anaiaren hitzei (31). Bi anaien arteko elkarrizketa horretan gerraren aurrean hartu litezkeen aukera kontrajarriak agertzen dira: frontera joatea edo desertatzea (etxean geratuz edo iheslari gisa alde eginez). Bide batez, Martiñak oihuka adierazten du erizain gisa aitarekin gerrara joateko prest dagoela (33) eta esanguratsua da hori, emakumeek gerran izandako paperaren berri ematen baitu.

Gerrak berarekin ekarritako giro goibel, triste eta latza ondo deskribatzen da obra honetan. Martiñak urduri sumatzen ditu etxeko guztiak eta aita inoiz baino mutuago. Pikondoa ere biluzik ageri da eta osaba, bere liburuetan inoiz baino gotortuago (29). Aita frontera joaten da eta neskatoak negarrez ematen ditu hurrengo egunak (33). Halako batean, hiru soldadu agertzen dira Pikuenean, baionetak eskuan eta osaba eramateko prest (35). Honek pikondoan jarraitzen du ezkutatuta eta esku hutsik joaten dira soldaduak. Hala ere, Martiñak ongi deskribatzen du jazoera horrek utzitako larritasuna: “Soldaduak etorri bezala joan ziren, baina berekin zekarten ezinegonaren puska bat utzi zuten etxean. Etxeko bizilagun berria bihurtu zen hilabete luzez ezinegon deszifragaitz hura” (37). Ezinegonari kezka gehi dakioke, izan ere, Martiñaren etxean egunak joan egunak etorri, aitaren berrien zain egoten dira (39). Gerra aipatu dudala, ezin protagonistek sentitzen duten bake gosez hitz egin gabe aurrera jarraitu. Honako pasarte hau azpimarragarria iruditzen zait: “Azpiratuen taldera pasatuko ginen mugimendu militarrek horrela jarraitzen bazuten. Galtzaileen taldean baina gerra gabe, eskatzen zuen gure amak” (39). Gerraosteari ere hitz batzuk eskaintzen zaizkio eta gerrarik krudelena dela aipatzen da, isilena delako (39). Gaineratzen denez, janari eta lehengai eskasia ez ziren kontu arrotza urte haietan (40). Garrantzi handiegirik ematen ez zaion arren, esanguratsua da familiak etxean ezkutatu gabe duen liburu bakarra *Biblia* izatea (28). Bestelako liburuak ere aipatzen dira, izan ere, aitaren gutunez gain, herriko maisuak liburuak eramaten dizkio Martiñari edo osabari, besteak beste, Tolstoiaren *Ana Karenina* eta Dostoievskiren obrak (42). Bide batez, maisua aipatu dudala, Martiñak jakinarazten du aste batetik bestera maisuak joateari utzi ziola, eta beraz, ez zuela aitaren gutun gehiago jaso (43). Esan gabe doa irakurlearen esku uzten dela hutsune horren interpretazioa.

Ezin aurrera egin pikondoak kontakizun honetan duen garrantziaz hitz egin gabe. Batetik, liburuaren azalean bertan (dela izenburuagatik, dela marrazkiagatik) zuhaitz horren garrantzia iradokitzen da. Bestetik, liburu barruko irudiei erreparatuz gero, haietan ere pikondora igota dagoen pertsona bat aurki daiteke ia beti. Gainera, atal bakoitzaren hasieran, kapituluaren zenbakiaz gain pikondoarekin lotutako elementuren bat agertzen da maiz. Zenbaitetan, zuri-beltzeko argazki bat txertatzen da, kontakizuna girotuta dagoen garaiko Euskal Herriko jantziak daramatzaten pertsonak erakusten dutenak alegia. Baina elementu paratestual horiez gain, testu barruan ere pikondoak berebiziko garrantzia du. Batetik, istorioko familiarentzat memoria gune antzeko bat. Martiñak kontatzen duenez, aitonak bost urtetan eraiki zuen Pikueneako etxaldea eta hango pikuak janez hartzen zuen eraikuntzan jarraitzeko indarra (9). Ildo horretan, familiaren sustraiak errepresentatzen ditu pikondoak. Horrez gain, aitonak pikondopean eman zituen bere bizitzaren azken hatsak, amonaren laztan eta txerak jasotzen (20). Gainera, amona haur minetan hasi zenean, pikondora joan eta “han erditu zen osaba Lukasez, aitita hil zen lur heze beraren gainean” (20). Bestetik, Pikondoaren adarretan aurkitzen du babesa osaba Lukasek, baina ez da bakarra, Martiña ere maiz egoten baita zuhaitz horren abaroan. Jarraian datorren pasarte honek egiaztatzen du baieztatutakoa: “Eta gerraz ahaztu nintzen erabat. Gerrak zekarren etsipen eta tristuraz ahaztu nintzen. Aitaren hutsuneaz, eta ama eta amamaren saminaz. Babestuta sentitzen nintzen pikondoaren gainean” (70). Are gehiago, kontakizunaren azken lerroetan Martiñak gerratik etxera itzultzen ari den aitaren silueta ikusten du pikondoaren gainetik, baina bere buruari pikondotik (“zorion-leku hartatik”) jaitsiko ez dela promes egiten dio (72). Agian irakurleren batek interpreta lezake txikiak, osabaren hainbeste kontu entzun eta gero, haren pausoak jarraitzea erabakitzen duela eta gerra egitea erabaki duen aitarengana joan ordez, ez ikusiarena egiten duela bakezaletasunaren aldarri gisa.

Ezin aipatu gabe utzi pikondoa paradisuarekin konparatzen dela, zerutik gertuago dagoen tokia baita, hainbat izakiri babesa edo aterpea eman dien elementua izateaz gain. Zehatzagoak izateko, Adan eta Evak pikondo-hosto bana erabili zuten gorputza estaltzeko eta Romulo eta Remo pikondoaren itzalean hazi zituen Kapitolina otsemeak (23). Pasarte horrekin batera datorren irudiari erreparatuz gero, pikondoan igota dagoen eta hankarte pikondo hosto batez estalia duen pertsona bat ikus daiteke. Gainera, ezkerreko eskua luzatuta dauka eta beste zuhaitz batean dagoen txoria ukitu nahian ari dela ditudi. Eszena horrek Miguel Ángel “Michelangelo” Buonarroti artistaren *Adanen Kreazioa* freskoa gogorarazten du, zeinak, izenak dioen moduan, Adanen sorrera erakusten baitu. Pikondoak balio sinboliko

garrantzitsua du erlijio eta kultura askotan, eta azalpen sakonetan sartu gabe, aipa daiteke, besteak beste, bakea, segurtasuna, babes, indarra, ugalkortasuna, bizitza eta jakituria irudikatzen duela. Lan honetan pikondora igotzen diren pertsonaiak ageri dira eta toki altuetara (nagusiki zuhaitzetara edo zutabeetara) igo eta gizartetik isolatzen diren pertsonaien erreferentziak aurkitzea nahiko ohikoa da literaturan edo oro har hainbat kulturatako testuetan. Estilitak deituriko monje kristauek adibidez, bizimodu aszeta zeramaten eta horietako batzuk hil arte geratzen ziren zutabeen igota. Lehenago aipatutako Italo Calvinoren Cosimo pertsonaiaz gain, Janne Teller eleberrigilearen *Ezer ez* obrako Pierre Anthon aipa daiteke, zeina bizitzak zentzua galdu duelakoan, eskola utzi eta aranondo batera igotzen baita. Zuhaitz batera igotzen ez den arren, Emile Habibi idazle eta politikariaren Said pesoptimista zutabe batera igotzen da. Lehen aztertu dudana *Gerrak ez du izenik* albumean, aldizka zuhaitz batera igo eta bertan ezkututzen den protagonista ageri da.

Aztergai dudana ipuin honetan, *Pikondoaren balada* lanean, aurretik azaldu dudana moduan, gerraren ondoriozko heriotzaz gain, aitonaren heriotza tragikoa kontatzen da. Etxeari azken teila jarri ostean, aitonak amonari irribarre bat eskaini nahi zion, baina burua biratzeaz bat, teilatutik erori eta lepo-hezurra zanpatu zuen lurraren kontra (19). Aitonaren heriotza kolpe latza izan zela esan eta nolabait heriotza hori era esplizituan adierazten bada ere, gainerko pasarteetan nahiko modu metaforikoan ematen da haren heriotzaren berri, aipu honetan ikus daitekeen moduan: “Ordua iritsi zaion piku heldua bezala, teilatutik jausi zen aitita. Eta bakarrik uzti zuen amama” (10). Bada heriotzaz hausnartzeko beste pasarterik, osabaren eta ilobaren arteko hau adibidez:

Hiltzeko modu asko dago, Martiña maitea. Sabelean labana bat sartu ahal dizute, ogia kendu, gaixotasun bat sendatu ez, etxebizitza kaxkar batean sartu, zure buruaz beste egitera bultzatu, lanaren bitartez heriotzara arte torturatu, gerrara eraman eta abar. Horietatik, gutxi baino ez dira gure estatu honetan debekatutakoak (31).

Liburuak dikotomia garbia erakusten du, hala lekuei dagokienez nola pertsonaiei dagokienez. Batetik, pikondoa eta haren inguruan biltzen diren pertsonaiak ageri dira: osaba Lukas, Martiña eta herriko maisua. Pikondoa zorion-lekua da, baita transmisio-gunea ere. Familiaren sustraiak bertan errotuta daude, herririk kanpo, naturan; eta gainera, Martiñari irakurketa ezberdinak, koplak eta kantuak transmititzen dizkiete helduek. Horri kontrajarriz, “mundu erreala” legoke, zeinetan gerra, gosea, tristura eta beldurra nagusitzen diren. Kontakizunean *aurkari* funtzioa betetzen duten bi agenteak espazio horretan kokatzen dira,



gerra eta aita hain zuzen. Azken horrek pikondora igotzea debekatzen dio neskatoari eta gerrara joateaz gain, osabaren ezagutzak mespretxatzen ditu, ezertarako balio ez dutela esanez. Beraz, esan daiteke osabak errepresentatzen duen horren aurkakoa irudikatzen dela aitaren figuraren bidez, eta horregatik iruditzen zait berak ere *aurkari* funtzioa bete lezakeela. Ondo bereizitako bi espazio badira ere, pasarte batean ikusten da gerrak eragina duela zorion-leku deitu dudan horretan, izan ere, gerra hasten denean, hosto guztiak erortzen zaizkio pikondoari (29), gerra zoko guztietara sartzen dela aditzera emanaz. Ezin ahaztu, historik gabeko zuhaitzak bizitasun falta sinboliza dezakeela. Are gehiago, udazkenak negu hotzari bide ematen dio eta alde horretatik, udazkena gerraren etorrera gisa uler daiteke kontakizun honetan. Denborarekin, Osaba pikondoan integratzen hasten da, poliki-poliki pikondoko adar eta hostoen artean desagertu arte. Gertaera horrek Martiña beldurtzen du eta irudiek ere egoera horren berri ematen dute. Hasierako orrialdeetan, pikondoa tonu berdeetan margotua ageri da, baina neskatoa beldurra sentitzen hasten denean ordea, marroi eta beltzen arteko koloreak erabiltzen ditu ilustratzaileak, harik eta Martiñak ulertzen duen arte horixe dela osabaren patua. Zozok gerrako albiste txarrak helarazten dizkiote osabari, alegia, guda laster galduko dutela eta gudariez gain, hainbat zibil hil dituztela (60). Horrek osaba Lukasen metamorfosia azkartzen du. Kontakizunaren amaieran, Martiñak osaba ezin ikus dezakeen arren, haren tokia hartzen du, pikondoaren gainetik osaba sentitu eta bakeaz gozatzeko. Azken irudian berriz ere ageri da kolore berdea, baina liburuaren hasieran osabaren hankak ageri ziren tokian, oraingoan, Martiñaren hankak dira pikondotik zintzilik ageri direnak. Egitura zirkularra ematen dio horrek kontakizunari eta transmisioaren katearen jarraikortasuna iradokitzen du. Esan daiteke amaiera zorionsua duela kontakizunak (aita ere gerratik itzultzen da).

Iruzkinarekin amaitzeko, Gurrutxagak (Erlo telebista, 2017) iradoki legez, errealismoaren eta fantasiaren arteko mugan dagoen ipuin bat da aztertu dudana eta bereizketa hori gero eta finagoa da ipuinean aurrera egin ahala. Hala ere, ez dio gogoeta eragiteari uko egiten. Poetikotasunaz baliatuz, errealitatea eta fantasia uztartzen ditu, osabaren metamorfosia gerraren aurkako aldarri moderno bihurtuz (Zarauzko Hitza, 2016). Gerrak ekarritako ezinegona, gosetea, (zibilen) hilketa, bortxazko lana eta tristura agerian jartzen dira eta jokaera antimilitarista nagusitzen da. Funtsean, gerraren zentzugabekeria agerian jarriz, bakearen aldeko deia eta gerraren aurkako aldarria da osaba Lukasek egiten duena, eta osabaren jarrera da Martiñak jarraitzen duena.

### **6.2.3.13. *Amonarenean kea***

Dani Martirena legasarrak idatzi eta Ana Ibañezek (Iruñea, 1972) ilustratutakoa da *Amonarenean kea* (Liburu iletsuak, 2020) album ilustratua. Egileek beste hiru liburu argitaratu dituzte batera haur eta gaztetxoentzat, bi autoekoizpenaren bidez, *Hankaz gora du amak mundua* (Liburu iletsuak, 2015) eta *Jonek Jone izan nahi du* (Liburu iletsuak, 2017), eta beste bat Pamiela argitaletxearekin: *Cosimoren katiuskak* (2018). Azken album horrek 2018ko Etxepare saria jaso zuen. Kazetaria ogibidez, Martirenaren idazlanak hainbat aldiz izan dira sarituak herri mailako literatur lehiaketetan. Ibañezek ere (Arte Ederretan lizentziatua), hainbat sari eskuratu ditu maila indibidualean, esaterako, Artista Gazteen Margolaritzan hirugarren saria 1998an eta Artista Gazteen Eskulturan bigarren saria 1998an. Aztergai dudan album ilustratuaren sorkuntzari dagokionez, aipatzekoa da ezohiko norabidean ondu zutela lana egileek, izan ere Ibañezek Galtzagorri Elkarteak ilustratzaileentzat antolatzen duen Marrazioak izeneko ekimen baten baitan aurkeztu zituen marrazkiak, gastronomia eta oroitzapenak oinarri hartuta, eta hortik abiatuta, argazkiarekin eta 1936ko gerrarekin lotutako kontakizuna ondu zuten egileek.

### **Laburpena**

Bost urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako 28 orrialdeko album ilustratu honek bi atal ditu eta bakoitzak sekretu bat gordetzen du. Lehenengo atalean, amonaren etxean lau lehengusu-lehengusinek igandero errepikatako ohituraren berri ematen da, alegia, nola biltzen diren txikiak amonarekin marrubi eta kremazko hostopila prestatzeko. Hain dute gustuko postrea, ezen amonak argazki zahar bat hartu eta atzeko aldean errezeta ematen dien jakitera. Baina jaki preziatu horren formula hurrengo belaunaldi gazteei transmititzeaz gain, amonak gordetako bigarren sekretua jartzen da agerian, aitonaren heriotzaren gainekoa hain zuzen, 1936ko gerrarekin zerikusia duena.

### **Harrera kritikoa**

Albumak oraindik ibilbide txikia duen harren, lorpen batzuk eskuratu ditu. Batetik, Euskadi Literatura Sarietarako hautagi izan zen eta OEPLik 2020ko liburu hautatuen zerrendan sartu zuen. Bestetik, Nafarroako Gobernuak gaztelaniaz eman zuen argitara, *Humo en casa de la abuela* (2021) izenburupean. Erakunde horrek berak, Nafarroako Memoriaren Institutuarekin batera, liburuan oinarritutako unitate didaktiko bat atera zuen 2021ean, Irantzu Senosiain eta Eneko Gamarraren egileztapean. Lehen Hezkuntzarako prestatua dagoen

materiala euskaraz eta gaztelaniaz dago eskuragarri<sup>121</sup>. Horri esker, esan daiteke liburua eskola irakurketa zirkuituan sartu dela, obraren zabalkundean eraginez. Sareetan ere oihartzuna izan du. EITBk adibidez, “Biba zuek” saioan obra azaltzeko tarte luzea eskaini zion Martirenari, baita erakunde beraren “Ahoz aho” saioan eta Euskadi Irratiko “Arratsean” programan ere. Jasotako kritikei dagokienez, Galtzagorri Elkartearen (2021b) *Behinola* aldizkariak erreseina bat argitaratu zuen 44. zenbakian eta album ilustratua ederra zela iritzi zion, haurrari obra osorik kontatuz gero, kontakizunak familia ugaritan irekita dauden zaurien eta gordetako sekretuen gainean hitz egiteko aukera ematen duela aldarrikatuz. Etxaniz eta Fernández de Gamboak (2021) egindako erreseinan ere positiboki baloratzen da obra, eta hizkera poetikoa nabarmentzeaz batera, publiko zabalarentzako interesgarria den liburu berezia dela azpimarratzen da.

### **Analisi narratologikoa**

Azal gogorreko liburua eskuetan hartu eta amantala jantzita daramaten lau neska-mutiko ageri dira. Atzeko planoan ageri diren bi etxeetako bati kea dario tximiniatik, etxe horretako sukaldean zerbait prestatzen ari direla iradokiz. Azalean hori edo krema kolorea nagusitzen da, kolore beroa, eta kontakizunaren lehenengo atalean irakurleak aurkituko duen giroa aurreratzen du: beroa, xamurra eta lasaia. Atzeko azalarekin ere gauza bertsua esan daiteke. Liburua ireki eta portadan bertan, amona baten irudia ageri da, amantala soinean eta irabiagailua eskuan duela. Marrazkia eskuz egina dagoen arren, aurpegia benetako argazki batekin osatua dago (*collage* teknika erabilia), Ibañez ilustratzailearen amonaren argazkiarekin hain zuzen. Lehen aurreratu dudan moduan, liburuak bi atal nagusi ditu. Lehenengoan, amona hil arteko igandeak oroitzen ditu protagonista eta narratzaileak, nola biltzen ziren lau lehengusu-lehengusinak amonarenean eta nola prestatzen ziren hark marrubi eta kremazko hostopila. Kontakizun xamurra da, hizkera sinplean emana. Amona nola oroitzen duen deskribatzen du neskatoak eta nola laguntzen zioten hari hostopilen prestaketan. Baina horrekin batera, amonak hostopila prestatzeko sekretua argazki zahar batean idatzi zuela ematen du jakitera protagonistak eta behin sekretuak kontatzen hasita, gerraz ere mintzatu zitzaizela. Errezetari dagokionez, bitxia da nola eman duten egileek horren berri, izan ere, liburuak gutun-azal bat dauka eta barruan, hostopilen errezeta idatzia daraman argazki bat aurki dezake irakurleak. Bitxia bada ere, aipatzekoa da errezeta hori

---

<sup>121</sup> Interesa duen edonork lotura honetan eskura dezake euskarazko unitate didaktikoa <https://drive.google.com/file/d/1xpUIZfWE0pr-45BZy7d0ZvMhVWkYWUBS/view>, eta hemen, berriz, gaztelaniazkoa: <https://drive.google.com/file/d/1CNC35ygl6tIBNjn853RnFDOIREgGOhQj/view>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

ilustratzailearen amak eskuz idatzia dela, egileek garai hartako norbaitek idatzita egon zedin nahi baitzuten (Ahoz aho, 2021). Irudiari dagokionez, benetako dokumentua da eta herriko eskolan aritzeko, Burgoseko Bañuelos de Burebara eraman zuten Antoni Benaiges i Nogués irakaslea ageri da ikasleak alboan dituela (bigarren atalean ematen da bere berri). Interesgarria da egileek errezetarekin eta argazkiarekin egin duten hautua, irakurleari sentsazioa ematen baitio garaiko dokumentu bat, benetakoa, duela eskutan. Gainera, argazkiak, istorioarekin jarraitzeko jakin-mina pizten du.

Amonak gerraz hitz hitz egiten dien pasartean hainbat dira iruzkindu beharreko kontuak. Lehenik eta behin, gerrak ekarritako iluntasuna eta gosea aipatzen da: “Oroitzen dut, amonak errana, karrketan jolasteko gogorik ez zegoela gerran. Oroitzen dut, amonak errana, gerran ez zegoela jaterik galletak edo pastelak [...] Zeharo gautu zirela egunak 1936an” (8). Bestetik, aitonaren berri ematen da, baita haren heriotzaren berri ere. Gizon ona, ameslaria eta herriko eskolako irakasle zen, harik eta 1936ko gerran preso hartu eta hil zuten arte (8-9). Atxiloketaren gaineko arazoia esplizitatzen ez bada ere, jakinarazten da ameslaria zelako hil zutela gizona, eta harrez geroztik haren hezurren bila zebilela amona (9). Aitonaren gorpua edo hezurak ez aurkitzeak eragin handia du familiarengan, izan ere, urteak pasa arren, mina eragiten die senideei: “Oroitzapenetik oroitzapenera, oraindik aurkitu ez dugun aitona dugu gure artean. Oroimenaren lapikoa, tantaz tanta, muxu pilaz zein mila minez betetzen da bihotzean” (18). Pasarte horiez gain, esanguratsua da jarraian datorren pasarte hau, zeinetan amonak transmisioaren aldeko jarrera agertzen duen:

Oroitzen dut, amonak errana orduan, sekretuak ezin direla lau haizetara hedatu. Baina oroitzen dut, amonak errana orduan, sekretuak ezin direla betiko ezkutatu. Oroitzen dut, amonak errana orduan, sekretuak egin ahal direla kontatu. Horretarako, amonak orduan erran bezala, sekretuaren jabeak baimena ematen badu (13).

Lehenago aipatu ez badut ere, behin eta berriz errepikatzen den “oroitzen dut... oroitzen dut” egitura horrek erritmoa ematen dio kontakizunari. Gainera, paralelismo horrek efektu erritmikoaz gain, efektu poetikoa eransten dio. Liburuaren bigarren atalera jauzi egin aurretik, orrialde osoa hartzen duen Mariasun Landa idazlearen hausnarketa bat dator, liburuaren bidez hurrekin edozein gai landu daitekeela aldarrikatzen duena:

Beti gorrotatu izan ditut haurrentzat idatzi diren liburu arrosak, lorez eta gozokiz jositakoak. Haurrak txikiak dira baina ez dira inolaz ere ergelak; serioak dira. Haurtzaroan emozio bortitzenak gertatzen dira, orduan, zergatik ezin dugu denetaz hitz egin hurrekin? Haurrak

amodioa, gorrotoa, edozer gauza sentitzen du, baina ezin du sentitzen duenari buruz hitz egin. Hori da haurtzaroaren drama (20).

Zubi-lana egiten duen aipu esanguratsu horren ostean, bigarren atala dator, zortzi orrialdekoa, aurreko atalarengandik ondo bereizia. Orrialdeak berde kolorekoak izateaz gain, kaligrafia desberdina da oso, makinaz idatzia baitirudi. Izenburu batek ematen dio sarrera (*Itsasoaren garia*) eta narratzaile kanpodiegetiko eta orojakileak ematen du istorioaren berri. Idazleak (Biba zuek, 2021) elkarrizketa batean esan bezala, liburuaren lehenengo atala (fikziozkoa erabat) txikiek bakarrik irakur dezaketen arren, bigarren atala ordea, irakurketa partekatua izan dadin dago pentsatua, edo hori da egileek proposatzen dutena, hau da, helduek txikiekin batera irakurtzeko edo haurrei helarazteko bigarren ataleko istorio hori. Bigarren atal hori askoz gordinagoa da, errealismo handiz kontatua, eta hasieratik bertatik suspense giroa nagusitzen da, irakurlea tentsioan jarriz. Kontakizuna Burgosko Bañuelos de Bureba herrian kokatzen da. Narratzaileak jakitera ematen duenez, eskopetez, pistolez edo fusilez hornitutako sei falangista Antoni Benaiges irakasle gazte eta errepublikarraren etxean sartu ziren gauez, indarrez eta irainka: “altxatu hadi, emakumetu ustel hori!” (1), “hireak egin dik” edo “itsasoan itoko haugu” (3) gisakoak esanez<sup>122</sup>. Biluztera behartu eta horrela atera zuten kalera, ondoren begiak estali, beste batzuekin batera atoian sartu eta herritik kanpo eramateko, La Pedrejara (7). Horiek ez dira gizonari emandako tratu-txar bakarrak, narratzaileak jakinarazten baitu gaiztakeria handiz eta fusil baten danbateko batez, masaila kolpatu eta hortzak atera zizkiotela ahotik (6), faxistek bi tiro emanaz hil aurretik (8).

Irakaslearen karakterizazioan apur bat sakontzea ezinbestekoa da, horrek ematen baitu liburuan nagusitzen den ideologiaren gaineko zantzurik. Irakasle gaztea da, errepublikarra eta aurrerakoia. Irakaskuntzak mundua alda dezakeela sinesten du, baita eskolak leku librea eta dibertigarria izan behar duela ere. Horregatik, besteak beste, ikasleak dantzara animatu eta literaturara zaletzeko ahalegina egiten du. Ikasleek ez dutenez inoiz itsasoa ikusi, haiekin txangoa egitea erabakitzen du, itsaso zabalaren zati txiki bat bederen ezagutuko zutela zin eginez. Nire ustez, metaforikoki bada ere, itsasoa ezagutzaren sinbolo izan daiteke; itsaso zabala, mugarik ez duena, baina aurrean jarri eta zati bat ezagutzeko aukera ematen duena. Irakasleak itsasoaren zati bat erakutsi nahi ziela aditzera ematen denean, ulertu daiteke ezagutza zabalaren zati bat irakatsi nahi diela ikasleei. Gainera, hondartzara iritsi arteko bidea luzea eta neketsua dela ematen da aditzera, eta horixe bera gerta daiteke ezagutzaren

---

<sup>122</sup> Esanguratsua da faxistek hika zuzentzea atxilotuari eta haien artean ere hika hitz egitea, izan ere, beste obra batzuetan, gaztelaniaz hitz egiten dute.

bidearekin ere. Irakasleak asmo ona izan arren, bere ametsak eta ikasleenak zapuzturik geratzen dira falangisten erruz. Irakaslea hiltzeko arrazoia (horrela esatea zilegi bada) esplizituki ageri da kontakizunean:

Preso zeramaten Antoni. Hiltzeraino. Gorria, duintasunik gabekoa, sozialista, edo komunista, ala anarkosindikalista zelakoan, berdin zion zer zen zehazki; horiek guztiak ziren falangisten begietara Antoniren bekatuak. Elizara ez zela bertaratzen leporatu zioten. Leporatu zioten askatasuna ahoan izaten zuela eskolakoek dantzaz egiten zuten bitartean ordoki komunal baten erdian. Leporatu zioten eskolako inprentarekin maizegi idatzi zutela haurrek ‘berdintasuna’ hitza kazeta baten itxuraz itsatsi gabeko orri solteetan. Aurpegiratu zioten haurrak itsasoa ikustera eramateko asmo hura zela asmo guztietan asmorik ankerrena (6).

Aipa dezadan, zorigaiztoko amaiera horren ostean, obraren amaieran ohar bat datorrela eta bertan Antoni Benaiges i Nogués irakaslearen gaineko informazio biografikoa ematen dela. Fusilatu zuten tokia eta data (Villafranca Montes de Oca, 1936ko uztaila) aipatzeaz gain, irakurleari jakinarazten zaio 2010ean, La Pedraja izeneko parajeen faxistek 1936ko udan hildako 104 pertsonaren hezurak aurkitu zituztela denak nahastuta, tartean irakaslearenak (8)<sup>123</sup>. Amaitzeko, azpimarratzekoa da lehenengo ataleko protagonistaren aitona bezala, bigarren kontakizuneko protagonista irakaslea zela, eta horrek paralelismo eder bat sortzen duela bi kontakizunen artean. Gainera, esan daiteke enpatia-lana errazten duela.

#### **6.2.3.14. Arrastoa**

Euskal HGLn aski ezaguna den Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) idatzia da *Arrastoa* (Alai, 2020) liburua. Helduentzako liburuak idatzi dituen arren, batez ere HGL landu du eta arlo horren gaineko ikerketa-lanak egin ditu, adibidez, *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura* (Erein, 1993) lana. Etxanizek eta López Gasenik (2011) dioten moduan, Igerabideri zor zaio aurreko mendeko azken hamarkadan haur eta gazteentzako poesiagintzaren indartzea eta prestigio-hartzea, eta bera izan da azken hamarkadetan euskarazko haur poesian eragin handiena izan duen idazlea, azken urteotan euskal HGL gehien idatzi duen sortzaileetako bat izateaz gain. Haurrentzako bere lehenengo

---

<sup>123</sup> 2023ko azaroan Patricia Font zuzendariak Antoni Benaiges irakurleari buruzko film bat egin zuen, *El maestro que prometió el mar* izenburupean (hainbat adituren artean idatzitako [*Desenterrando el silencio*] Antoni Benaiges, *el maestro que prometió el mar* liburuan oinarrituta). Filmak bost izendapen eskuratu zituen Goya sariatzen.

liburua *Begi-niniaren poemak* (Erein, 1992) izan zen eta ordutik hona etengabe argitaratu du, hala poesia lanak nola prosa lanak. Bere ibilbidean zehar hainbat izan dira jasotako sariak, besteak beste, Espainiako Kritika Saria birritan, helduei zuzendutako *Sarean leiho* (Alberdania, 1994) eta *Mailu isila* (Alberdania, 2002) lanekin; beste bi aldiz Baporea Saria, HGLko *Gau, gau, gau* (SM, 1997) eta *K herrialdea* (SM, 2007) lanekin, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998) lanarekin edo Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala *Abezedario titirijario* (Denonartean, 2017) obrari esker. Bere ibilbidean zehar hainbat aldiz hartu ditu Gerra Zibila, Frankismoa edo euskal gatazka hizpide, aurrerago aztertuko dudana *Begi bat kokotean* (Ediciones Modernas El Embudo, 2023) lanaz gain, helduei zuzendutako *Hauts bihurtu zineten* (Alberdania, 2005), *Elurra sutan* (Alberdania, 2009), *Zangoztraba* (Erein, 2014) eta *Doneaneko alaba* (Alberdania, 2021) eleberrietan heltzen baitie gatazka horiei.

## Laburpena

Gerra Zibilaren hasieran, Lekunberrira bidaltzen dute guardia zibileko detektibea, udaletxeko atezainaren hilketari iker dezan. Bertan hainbat pertsonaia ezagutuko ditu, eta horien berri emango du. Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendua dagoen liburu hau herriko aguazila den Justino pertsonaiarengan zentratua dago, baina narratzaileak, hilketaren misterioa argitzeaz gain, herrian arnasten den giroaren berri ematen du betetzen dituen 93 orrialdeetan barrena eta irakurleari erakusten zaio nola nahasten diren gauzak herrian Gerra Zibilaren etorrerarekin.

## Harrera kritikoa

Jatorrizko bertsioa euskaraz argitaratu eta urte batera, gaztelaniara itzuli zen obra, *El aprendiz de panadero* (Ediciones Paraninfo, 2021) izenburupean. Jasotako kritikei dagokienez, Etxanizek (2020) erreseina bat idatzi zuen *Argian*. Bertan, liburuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, erraz irakurtzen den nobela dela dio, eleberri bizia eta aproposa bezain interesgarria gerra aurreko giroa eta gizartea ezagutzeko. Dena den, ahulgune bat aipatzen du, protagonistak egiten duen gaztelania jasoaren erabilera arraro samar geratzen dela iruditzen baitzaio. Nobela honetako protagonista nagusia den Justinok gaztelania jasoan hitz egiten du *Kixotea* behin eta berriro irakurtzearen ondorioz. “Arraro samar geratzen da gaztelania jaso horren presentzia bestelako erdararik ez dagoen liburuan eta are arrarago euskaldun batzuei ere horrela hitz egiten dienean”, dio Etxanizek. *Behinola* aldizkariak (Galtzagorri Elkarteak, 2021a) ere erreseina bat eskaini zion Igerabideren liburuari. Gaia eta

testuingurua azaltzeaz gain, amaieran balorazio bat ematen da: “Lan interesgarria da gerra aurreko giroa eta gizartea ezagutzeko”. Horixe da ematen den balorazio bakarra, eta esango nuke iruzkin hori liburuaren erabilgarritasunari begira dagoela. Jasotako kritika horiez gain, aipatzekoa da Galtzagorri Elkartek “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela obra eta era berean, 2021-2022ko “liburu gaztea” egitasmoaren baitan proposatutako liburuetako bat izan zela berau<sup>124</sup>. Zerrenda horretan egoteak ikusgarritasuna ematen dio lanari eta gazteek irakurtzeko aukera handiagoa ere bai, izan ere, hezitzaile askok hortik hautatzen dituzte urteko irakurgaiak. Horrekin batera, Igerabideren lana OEPLik HGLko liburu hautatuekin ateratako 2020ko katalogoan sartu zuen, kalitate eta egokitasun irizpideak betetzen dituela bermatuz<sup>125</sup>. Gainera, bertan egiten den iruzkin laburrean, eleberri interesgarria dela iritzi eta horren gakoak gertaera historikoen eta intrigaren uztarketan daudela aipatzen da.

### **Analisi narratologikoa**

Laburpenean aurreratu dudan moduan, kontakizuna Euskal Herrian girotuta dago eta narratzailea 1936ko uztailan, Gerra Zibilaren atarian, Iruñetik Lekunberrira bidaltzen dutenean hasten da. Narratzaileak lehen pertsonan kontatzen du guardia zibileko detektibea dela eta bertara bidali dutela ganadu-tratantearena eginez jendearen konfiantza lortu eta udaletxeko atezaina zen Antonio Lizarralderen hilketa argi dezan. Herriko hainbat pertsonaia ezagutu eta haren berri ematen du detektibeak, baina batez ere Justino aguazila ezagutuko du irakurleak, hura baita liburu honetako protagonista. Aurreko azala hartzen duen Luis Alonsoren irudian bertan, Justino ageri da bizkarrez, mahoizko frakak jantzita eta eskuan makila daramala. Jarraian, liburua zortzi kapitulutan banatuta dago eta izenburuei erreparatuta, argi ikusten da informazioa aurreratzen dutela, “Galera” edo “Garai are zailagoak” izenburuetan ikus daitekeen moduan. Esan bezala, detektibea da istorio honetako narratzaile homodiegetikoa eta ikerketan aurrera egin ahala aurkitzen dituen arrastoen berri ematen du, baita herrian aurkitzen duen giro nahasiaren berri ere.

Pertsonaiei dagokienez, Justino protagonistarekin hasi nahiko nuke. Narratzaileak gizon kankailu moduan deskribatzen du, oso modu bitxian mintzo dena, gaztelania zaharreko esaldiak tartekatzen dituena bere euskara jatorrean. Jende askok arraro eta zorrotzat hartzen dutela aipatzen du, baina gizon garbi eta zintzotzat dutela ere (13). Zortzi urte zituela,

---

<sup>124</sup> Egitasmo hori zertan den jakiteko: <https://www.ibbygaltzagorri.eus/liburu-gaztea/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

<sup>125</sup> Irakurleak helbide honetara jo dezake OEPLiren katalogoa osorik ikusteko: [https://www.bibliotecaspublicas.es/dam/jcr:52f1d907-276a-470f-b505-1f1335733171/Seleccion\\_FLM21.pdf](https://www.bibliotecaspublicas.es/dam/jcr:52f1d907-276a-470f-b505-1f1335733171/Seleccion_FLM21.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].



tximista batek jota hil zitzaion aita eta okinarekin utzi zuten aprendiz. Langile fina izateaz gain, pertsona lasaia da, liskarretan sartzen ez dena (28). Dena den, jendeak ez du begi onez ikusten, elizaratu gabea baita (25). Donato López maisuak eragin handia du pertsonaia horrengan, eskolara sartzeaz gain<sup>126</sup>, ideia batzuk transmititzen dizkiolako. Maisua pertsona lasaia da, baina odol berokoa eta ideia politiko sendokoa, errepublikazale atea eta hezkuntza liberalaren aldekoa. Horregatik ez dio Justinori elizarako biderik erakusten. Esan behar da protagonista etxean hartzen duten okinak eta haren emazteak ere ez, ez baitira oso elizkoiak (25). Justinok pertsonaia horien bideari jarraitzen dio, Elizari dagokionez behintzat. Maila politikoan ere, handia da maisuak duen eragina, aipu honetan ikus daitekeen moduan:

Hauteskundeetan, eskuindarrek irabazi zuten Lekunberrin. Justinok ezkerrekoei eman zien botua, Donato maisuaren eraginagatik, estimu handia baitzion; maisuaren ideiak eta Kixoterenak uztartzen saiatzen zen Justino, eta bazuen buruan halako pentsamolde propio bat (33-34).

Narratzaileak aipatzen duenez, Errepublika aldarrikatu zutenean Justinok 22 urte zituen eta Lekunberriko okina zen (33-34). Justinoren alderdi langile eta humanoa hainbat pasartetan azpimarratzen da, besteak beste, Errepublikaren etorrerari elkartasun keinua egiteko ogiaren salneurria jaitsi eta beranduago diruz larri ibili arren ogiaren prezioa ez igotzea erabakitzen duenean (35). Lehen aipatu dut hizkera bitxia darabilela protagonistak eta gaineratu behar da Miguel de Cervantesen *Kixotea* liburuarekin egiten dela testuartekotasuna, adibidez, aguazil kargua hartzen duenean zina zaldun baten moduan eta Kixoteren hitzak parafraseatuz egiten duenean (35). Ostatuan neskame ari den Teresari ere, gaztelania zaharrea eta Kixoteren hitzak parafraseatuz egiten dio ezkontzeko proposamena (39), eta gobernadore zibilaria idaztean ere, Kixoteren hitzak erabiltzen ditu (51). Horrez gain, liburua bera irakurri eta pasarte batzuk ematen dira (66). Aipatzekoa da, halaber, ere Kixoteren antzeko gogoetak koadernoan idazten hasten dela Justino (66-67).

Kontakizunean zehar, hainbat aldiz saiatzen dira Justinoren zuzentasuna eta leialtasuna erosten, baina hark bere printzipioei jarraitzen die, baita alkateak eta bere idazkariak modu ilegalean dirua irabaz dezaketela esaten diotenean ere (42-49). Protagonistaren jokabide zuzenek eragina dute herritarrek dioten maitasunean, baina bestalde, horrek berak hainbat arazo ekartzen dizkio alkatearekin. Dena den, egoera okertu arren,

---

<sup>126</sup> Kontuan hartzekoa da Justinok eskola aurkitzen duenean, neskak eta mutilak gela bereizietan aurkitzen dituela, hau da, ikasleak sexuaren arabera banatuta (24). Era berean, Donato maisua gaztelaniaz zuzentzen zaio lehenik, eta Justino gazteak ulertzen ez duela ikusita, euskarara pasatzen da.

zuzentasunaren bideari eusten dio protagonistak (51). Herriko alkateak ez ezik, beste herritar batzuek ez dute begi onez ikusten Justino, esaten baita gutxi batzuentzat Justino arrisksua zela, “errepublika berrian gizakien berdintasuna aldarrikatzen zebiltzan gizatxarren parekoa” (52). 1936ko uztaileko estatu-kolpearen ostean, erreketek Lekunberrietik gertu daudela eta, arazoak saihesteko mugimendu matxinoa gorai patzen duten idatzi eta banderak udaletxean jartzeko eta herrian dauden arrasto errepublikazaleak kentzeko eskatzen diote Justinori, baina hark uko egiten die haien eskakizunei (73). Armada matxinoa herrian sartzean, haien aurrean jarri eta aurre egiten die (75) eta falangistek herria hartzean ere, haiengana joaten da herritarrek jasandako tratua gaitzestera. Irakurle gazteak agian auresan ezin dezakeen arren, espero izatekoa da Justino ez dela onik aterako, falangisten zerrendan ageri baita protagonista, masoia, anarkista eta zoroa delakoan (82). Bortizki tratatu ostean, tiro bat eman eta bertan hiltzen dute, baita bertan diren gainerako atxilotuak ere, Donato maisua barne (85).

Gorago aipatutako herriko alkateak eta haren idazkariak (eskuindarrak biak) *aurkari* funtzioa betetzen dute, baina badira iruzkintzekoak diren beste pertsonaia batzuk ere. Batetik, udaletxeko atezain Antonio Lizarralde aipatu behar da, karlista amorratua, liskarzailea eta edatera emana (5). Justinori ideia karlistak sartzen saiatzen da, baina ez du bere helburua lortzen (36). Hura da xiringa batetik azidoa sartuta hiltzen dutena. Gertaera hori liskar politikoen ondorio delakoan, Donato maisua atxilotzen dute, biek eztabaida gogorak izaten baitzituzten tabernan eta Antoniok mehatxatuta baitzeukan Donato. Ezin aipatu gabe utzi ideia politikoak tarteko, herriko agintariak eta apaizek ere begiz jota zutela maisua, baita Antonioren anaia karlistak ere, mendeku gosez agertzen baita anaiaren ustezko hiltzailearen bila. Bestetik, Teresa aipatu behar da ezinbestean, Lekunberriko ostatuko neskamea. Aurrerago aipatu dut Justinok ezkontzeko proposamena egiten diola Kixoteren estiloan, baina horrez gain, genero ikuspegitik azpimarratzekoa da ezkontzaren gainean Justinok duen ikuspegia, narratzaileak jakitera ematen baitu Justinok ez duela, ohitura zen bezala, uztargilea bidali nahi ezkontza-tratuak egitera, zuzenean adierazi nahi diolako maitasuna Teresari, bitartekorik gabe: “No han de dar los padres estado en contra de su voluntad [...] Sabido es que el verdadero amor no se divide y ha de ser voluntarioso y no forzoso” (37, 38). Ikusten den moduan, ezkontza kontuetan aurrerakoi azaltzen da protagonista. Esan gabe doa Teresarekin ezkontzen dela, baina haurdun dagoela hiltzen da, pneumoniak jota (62).

Bada istorioaren hariari erreparatuta garrantzia duen beste pertsonaia bat: alkateak eta idazkariak negozio ilegalean laguntzeko kontratatzen duten falangista, frankistekin harremanak dituen eta dirudunei tramiteak errazten dizkiena. Atezainaren laguntzaile

izendatzen duten arren, Antonio eta bera ez dira ondo konpontzen (64-65). Hainbat pasartetan ageri da herriari begira egiten duen lana: eskuindarren alde propaganda egitea eta jendea maiseatzea (65), nahiz eta esan bezala, ezkutuko negozioetan aritu alkatearekin eta idazkariarekin (68). Pertsonaiekin amaitzeko, narratzaileak berak iruzkin zehatzagoa merezi du. Hasieran, ikusle gisa jokatzeko, herritarren gaineko informazioa bilduz (Klara izeneko ostatuko langileari esker) eta bere ikerketaren berri emanaz. Dena den, gerra hasiberriak aurrera egin ahala, posizioa hartzen duela esango nuke, nahiz eta hasieran herriko gertaerak deskribatzera mugatzen den, ikusle pasibo izango balitz legez: “agintari errepublikazaleak fusilatu edo atxilotu egin dituzte berehala, eta ni zer egin ez dakidala geratu naiz” (68). Justino, Donato maisua, Klara eta beste atxilotu batzuk hiltzen dituztenean ere ezer egiteko adorerik gabe geratzen dela aipatzen du, koldar hutsa dela gaineratuz (86). Aipu honetan ikus daitekeen moduan, injustizia eta gertaera latzen aurrean ere, duda-mudan ageri da:

Baina zeren alde nago? Ez ba jakin. Guardia zibileko detektibea naiz. Berez, Errepublikaren alde egon beharko nuke. Matxinoak Mola eta horiek dira. Bestalde, ordea, ustelkeria eta azpijoko asko ikusi dut errepublikazaleen artean. Orain etorri berri diren hauek garbituko ote dute ba herrialdea? Lekunberrin egin dutena ikusita, herrialdea baino jendea garbituko dute hauek (86).

Baina liburuaren amaieran, bandoa aukeratu eta errepublikazaleen alde egiten du, nahiz eta bizirik irauteko eta kasua argitzeko falangera inkorporatzen den eta haien alde dagoen itxurak egiten dituen, gero gorriekin batu eta informazioa pasatzeko, Sasetari hain zuzen (92). Aipu honek ematen du narratzailearen posizionamenduaren berri: “Ni zalantzan ibili naiz hasieran; gizon praktikoa naiz, ez daukat garbi noren alde nagoen. Baina Justinori, Klarari, Donatori omenaldia egitea erabaki dut” (93). Bide batez, Justinok alkateari edo beste frankistei emandako erantzun edota gaitzespenetan ideologia era esplizituan transmititzen da, adibide hauetan ikus daitekeen legez: “No va bien encaminada tu actuación ni la de los que te acompañan, que no es de ley hacerse con lo que no es de uno, ni apropiarse a la fuerza de lo que los legítimos dueños no pueden retener” (80) edo “No hay para qué tomar venganza de nadie, pues no es de buenos ciudadanos tomarla de los agravios” (51). Arestian iradoki moduan, narratzailearen pentsamenduetan ere ideia batzuk transmititzen dira, pertsonaia batzuen eta besteen portaeren gaineko juzguak egitean eta horien aurrean posizioa hartzean. Narratzaileaz ari naizela, aipatu nahiko nuke irakurleari erreferentzia egiten diola, nolabait hartzaile aktibo eginez eta kontakizunean gidatuz: “Esan dugu aguazil lana, nahiz eta irabazi gutxikoa izan, irabazi askokoa ere bihur zitekeela” (42). Hurrengo atalera jauzi aurretik, esan

dezadan liburu honek amaiera irekia duela, narratzailea Saseta eta boluntarioekin geratzen dela Ernion, baina ez dela bere patuaren berri ematen, Saseta eta narratzailearen arteko elkarrizketa honi esker irakurle abilak gertatuko dena aurrean dezakeen arren:

-Zurekin geratuko naiz.

Sasetak irribarre egin dit.

-Ba al dakik azken euskaldunek, Lartaun buru zutela, Ernion egin zitetela aurre erromatarrei?

-Ez naiz historian aditua, jauna.

-Orduan ez diat esango nola amaitu zen kontua (93)

Aurreko atalera jauzi egin aurretik, aipatu behar dut misterioaren kontua guztiz argitzen zaiola irakurleari, narratzaileak ondorioztatzen baitu Donato maisua aguazil laguntzaileak hil zuela (86).

### **Kontestualizazio historikoa**

Eleberri poliziakoa dirudien lan honetan Gerra Zibilaren hasiera erakusten da, batez ere Lekunberriko giroa nola nahasten den altxamendu militarren eraginez. Hasieratik bertatik, narratzaileak aipatzen du Euskal Herrian, eta oro har munduan ere, gauzak nahasirik dabilzala, jendea aztoratuta dagoela, gorrotoa nonahi antzematen dela eta edozer gerta litekeela, baita beste gerra bat ere (5). Ostaturako gelan sartzean ere, gela iluna deskribatzen du, gerturatzen ari den garai ilunarekin konparazioa eginez (8). Are gehiago, Gerra Zibilaren aurretik mundu mailan egondako beste gatazka armatuak aipatzen dira:

Garai hartan, gizartea nahasirik zebilen, zirimola han, zirimola hemen; lehen mundu gerraren eta sobietar iraultzaren ondotik, Espainian eta Euskal Herrian gizarte-gorabehera handiak gertatzen ari ziren (33).

Tentsio-giro hori *in crescendo* doa narrazioak aurrera egin ahala, batetik gertaerak gero eta gertuago kokatzen direlako; eta bestetik, indarkeria eta arriskua gero eta handiagoa delako. Lehenengo, ondo armatutako eta antolatutako erreketek taldeak edonon ugaritzen ari direla aipatzen da (9), gero, uztailaren 19an Franco eta Molak estatu-kolpea eman dutela, Molak Iruñea kontrolpean duela eta agintari errepublikazaleak fusilatu edo atxilotu egin dituztela (68), eta azkenean, herrira heltzen da gatazkaren eragina. Jende armatuz betetako autobus eta kamioiak pasatzen hasten diren momentuan herritarren larritasuna eta izua hasten da (69-70). Beren burua arriskuan ikusten duten herritar batzuek alde egiten dute, adibidez, senargai komunistarekin batera ihes egiten duen nesken maistrak (71) edo fusila hartuta alde

egiten duen euskaltzale amorratuak (70). Beste herritar batzuk, errepublikazale edo abertzale diren gazteak, ihesi joaten dira beren armada errepublikarrari laguntzera (71). Herrian geratzea erabakitzen dutenek askotariko neurriak hartzen dituzte, adibidez, leiho ondoetan koltxoi zaharrak jarriz arriskutik babesteko asmoz edo arriskutsutzat jotzen dituzten liburu eta dokumentuak errez (71). Gerra testuinguruan ohiko bihurtzen diren etxe-miaketak hainbat pasartetan ageri dira (82, 84).

Horren beste aldean, tratu mesedegarria jasotzen dutenak leudeke, hau da, matxinatuen alde egiteagatik onurak jasotzen dituzten herritarrak. Alkatea eta idazkaria adibidez, Iruñeara abiatzen dira beste karlista batzuekin batera, Molak kargu garrantzitsuetarako izendatzen dituelako (69). Herritar batzuk, matxinatuen tratu hobea lortzeko helburuz, eskuan bandera karlistak dituztela irteten dira kalera, ongietorria egitearren, udaletxean mugimendu matxinoa gorai patzen duten idatzi eta banderak jartzeko eskatuz (73); beste batzuek, beldurrez, udaletxean eta eskolan dauden arrasto errepublikazaleak kentzeko eskatzen dute (73) eta badira kaleetan bandera nazionalak, arranoak eta geziak margotzen dituztenak ere (74). Gerrak, noski, aldaketak sortzen ditu herrian. Armada matxinoa herrian sartu eta soldaduek herriko leku nagusiak hartzen dituzte (falangistek udaletxean jartzen dute egoitza nagusia), eta nahiz eta hasieran ez duten herritarren aurkako erasorik burutzen, berehala hasten dira besteen jabetzak bereganatzen:

Okerrena, baina, etortzeko zegoen. Lekunberritik armada igaro eta ordu batzuetara, auto beltz batzuk heldu dira, alkandora urdinez eta txapela gorriz jantzitako gizonez beterik. Ihesi joandako errepublikazaleen etxeetako sarrailak lehertu, eta haietan jarri dira bizitzen (78)

Esan gabe doa alkandora urdina falangisten jantziaren bereizgarria dela eta txapel gorria erreketen janzkeraren sinbolo nabarmena. Etxebizitzen usurpazioaz gain, bestelako propietateak ere haien izenean jartzen dituzte (87) eta jendeari buruzko informazioa biltzen dute (78), pertsona horiek preso hartu edo fusilatzeke, liburuaren amaieran ikus daitekeen moduan (85-88). Ez hori bakarrik, salaketak ere aipatzen dira, esaten baita herrian bat baino gehiago garbitu dutela herriko baserritar karlista amorratu batek seinalatuta (91).

Obra honek argi uzten du kaltearen eragileak nagusiki falangistak, erreketek, karlistak eta frankistak direla (eskuindarrak), haiek baitira neurrigabeko biolentzia erabili, besteen eskubideak urratu eta azpijokotan ibiltzen direnak. Horren beste aldean, Errepublikaren alde egiten duten maisu ateo eta liberala, Justino langile zintzoa eta narratzailea bera leudeke (ezkertiarak). Hala ere, aitortu behar da pasarte batean narratzaileak

aipatzen duela ustelkeria eta azpijoko asko ikusi dituela errepublikazaleen artean ere (86). Dena den, eskuindarrak dira fusilamenduak gauzatu eta indarkeria erabiltzen dutenak. Interesgarria da azpimarratzea bestetasuna hizkuntzaren bidez egiten dela maiz, izan ere, gaztelaniaz hitz egiten die Justinok alkateari eta idazkariari (34), baita udaletxearen egoitza hartzen duten falangistei ere (80). Horiek ere gaztelaniaz mintzo dira, mespretxu zantzu argiekin: “Ya me estás cansando con tu palique, palurdo. Date la vuelta y echa a andar, si no quieres que te de un tiro aquí mismo. Vamos a dar un paseo por el pueblo” (83). Bitxikeria gisa pasa daitekeen arren, ez zait kasualitatea iruditzen guardia zibileko detektibea den narratzailea ez moldatzea ongi euskaraz hitz egiteko: “nire euskara eskasean egin dizkiot galderak” (89). Hizkuntzekin ari naizela, interesgarria da aipatzea elkarrizketa batzuetan hika aritzen direla pertsonaiak, adibidez, hika hitz egiten dio apaizak Justino gazteari (25) eta azken horrek hika egiten dio beste gazte bati (27-28).

Gerraren ondorioak aipatu ditudanean esan ez badut ere, ikusten da narratzailea komenientziaren arabera lerratzen dela alde batera edo bestera, izan ere, falangera inkorporatzea bizirik irauteko hauturik onena iruditzen zaio eta hiltzailea zepoan harrapatu nahi badu hori delako aukerarik errazena (88, 90). Gauza jakina da Gerra Zibilean komentzimenduz bandoz aldatu ziren pertsonak egon arren, beste asko eta askok bizirauteko helburuarekin egin zutela hautua, hau da, matxinatuen aldera egin zutela bizitzen jarraitzeko estrategia gisa. Liburuan hainbat gertaera historiko aipatzen dira, eta ageri diren toki guztiak errealak dira. Frontea Adunako Bekoain mendian dagoela aipatzen da (88), gorriek, Saseta buru, Zarateko bentan defentsa antolatu dutela (88), Belkoingo frontean eusten ari direla edo gorriak Andazarrate aldean gotortu direla (90), besteak beste. Erniok ere, garrantzia dauka, batez ere kontakizunaren amaieran (93). Pertsonaiei dagokienez, egia bada ere kontakizunaren parte diren pertsonaia batzuk fikziozkoak direla, horiekin batera, garaiko benetako pertsonaiak ere ageri dira, Franco, Mola eta (Cándido) Saseta komandantea kasu.

#### **6.2.3.15. *Itsas azpiko sekretua***

Lur Gallastegik (Bilbo, 1983) idatzi eta Iosu Mitxelenaren ilustrazioez hornitutakoa da *Itsas azpiko sekretua* (Ibizabal, 2020). Idazleari dagokionez, haur eta gazteei zuzendutako lanak argitaratu ditu eta horietako batekin, *Saharako itsasoa* (Elkar, 2018) eleberriarekin, Mikel Zarate Saria eskuratu zuen.

## Laburpena

Ukitu fantastikoak dituen 10 urtetik gorako irakurleei zuzendutako 121 orrialdeko abenturazko eleberri honek lagun talde batek Donostiako badian egiten duen deskubrimenduaren berri ematen du. Inguruan gertatzen diren gertaera misteriotsuak argitu nahian, uretan sartu eta ordura arte ezagutu gabeko errealitate bat jarriko zaie begien aurrean, besteak beste, haien hiriak 30eko hamarkadan sufritu zuen gerra edo Ondarretako kartzelan preso sartu zituzten emakumeen testigantza.

## Harrera kritikoa

Liburua ez dago ezein hizkuntzara itzulia eta 2020an lehenengoz argitaratu zenetik, argitalpen bakarra izan du. Xabier Etxanizen (2021) ustez, egileak darabilen hizkera sinpleak, elkarrizketen ugaritasunarekin eta kapitulu laburrekin batera, irakurketa arindu eta hasiera hasieratik harrapatzen du irakurle gaztea.

## Analisi narratologikoa

Liburua eskuetan hartu eta azalean elementu bati ematen zaio zentraltasuna, harri urdin bat itsatsita duen urrezko lepokoari. Elementu hori izango da memoriaren transmisio intrafamiliarra bideratuko duena. Horrez gain, sirena baten isatsa ageri da, baita ur azpian datzan eraikin handi bat ere (kontakizunaren amaiera aldera Ondarretako kartzela dela deskubrituko du irakurleak). Horrek guztiak eleberriaren ukitu fantastikoa aurreratzen du nolabait. Abentura liburu honen hasieran Berri Txarrak taldearen aipu bat dator epigrafe gisa: “Ta norbaitek oroituko ditu etorkizunean, ahanzturaren zingira hontan ito dituztenak”. Garrantzitsua da azaltzea *Maravillas* izeneko kantua zati bat dela hori, zeinak 14 urteko Maravillas Lambertoren eta bere aita Vicente Lambertoren heriotzak hartzen dituen hizketagai. Falangistek Gerra Zibil betean hil zituzten biak eta Berri Txarrak taldeak garai hartan gertatutakoak ez ahazteko aldarrikapena egiten du abestian. Aztergai dudan liburuko ekintza guztiak Donostian gertatzen dira eta XXI. mendean koka daiteke kontakizuna.

Intza protagonista eta narratzaile autodiegetikoak urre kolore distiratsua duen zintzilikario bat aurkitzen du etxeko ganbaran eta amari galdetuta, amonaren amonarena dela jakiten du, Pantxikerena, eta hark Karmele alaba txikiari eman ziola gerraostean elkarrengandik banatzera behartu aurretik (21). Intzak ez zekien Euskal Herrian gerrarik egon zenik ere, amak ez baitzion ordura arte inoiz gerraz hitz egin. Dena den, jakitera ematen da amak ere deus gutxi zekiela Karmeleri gertatutakoaz, ez baitzitzaien garai hartaz hitz egitea

gustatzen (22). Emaitzen kapituluan (7. atala) sakonduko dudan moduan, transmisio eten hori tesiko corpuseko beste obra batzuetan ere agertzen da. Gerra bukatutakoan, Pantxike kartzelan sartu zuten Karmele txikiarekin eta bertan hilabete batzuk pasa ostean, umezurztegi batera eraman zuten haurra. Azken horrek ez zuen ama berriz ikusi eta zintzilikarioa gorde zuen hura zelako haren oroitzapen bakarra (22). Esan bezala, lepokoa da nola edo hala transmisio familiarra ahalbideetako duena eta alde horretatik, memoria gunetzat har litekeela iruditzen zait. Amak Intzari kontatutako gauza apurren artean, aipatzekoa da gerraoste garaiko euskararen debekua eta herritar askoren hizkuntza galera (114-115). Ezin aipatu gabe utzi informazio truke horretan memoria komunikatiboa ageri dela, eta era berean, memoria filiatiboa. Baina iragana irudikatze modu berreraikitzaile horretan, informazioa bestelako iturrietatik ere jasotzen du protagonistak (memoria kolektibo kulturala). Lagunekin Urgulleko etxe batean dagoela, haizeak liburu bat jaurtitzen du haiengana eta Gerra Zibil garaiko gertaerak azaltzen dira bertan, 1937an gerra Donostiara iritsi zenekoa eta hiriaren bonbardaketa, baita “gerraren irabazleek beren ideiekin bat egiten ez zuten hamarnaka emakume espetxeratu zituzte[la]” ere (96). Jarraian, emakume haiek preso hartu zituen Ondarretako kartzelari buruzko informazioa ematen da, hala nola, noiz eraiki eta eraitsi zuten edo barrutik nolakoa zen. Garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea lapurtutako haurren berri ematen dela, hau da, kartzeletan haien amekin bizi ziren haur horietako asko lapurtu eta ez zituztela inoiz haien familiei itzuli (96-97). Informazio garrantzitsuena ordea, Intzak liburu horren barruan aurkitzen duen gutun itxurako paper bat da, zeinak egunerokoaren formatuan, Karmelek haurra zela idatzitakoa biltzen duen. 1937ko udatik 1938ko otsailera arteko tartea hartzen dute gutunek eta biziki esanguratsua iruditzen zait haurrak gerraren etorreraz idatzitakoa:

Donostia, 1937ko uda: “Denek gerra zetorrela esaten zuten. Hegazkinen zarata eta bonba hotsak entzuten hasi zirenetik, ordea, inork ez zuen berriz gerra hitza aipatu. Negarrik ere ez zen entzuten. Gero eta soldadu gehiago hasi ziren agertzen hiriko etorbideetan. Leihoak itxita izaten genituen. Bonba hotsak ugariak ziren ordurako. Trumoi hotsak ziruditen hegazkin zaratek. Gau batez, agur esan ziguten aitak eta izebak. Frontera abiatu ziren. Ama eta biok geratu ginen etxean. Itsasoak ontzi erraldoiak zeramatzan, Ingalaterrara, Frantziara, Belgikara... Baina ama eta biok etxean geratu ginen” (116-117).

Goiko pasarte horretan hainbat gauza iruditzen zaizkit iruzkintzekoak. Batetik, ontzien erreferentziarekin milaka haurren exilioari egiten zaio erreferentzia. Bestetik, azpimarratzekoa iruditzen zait izeba ere frontera abiatzen dela, tesiko corpuseko liburu



gehienetan gizonak aurkitu baititut frontean, baina gauza jakina da emakumeak ere frontean aritu zirela hainbat lanetan. Guda iristean *gerra* hitza bizilagunen ahotik ez entzutea esanguratsua iruditzen zait, aztertutako beste obra batean ere gauza bertsua aurkitu baitut. Gerraosteaz ere hitz egiten da orriotan, Karmelek amarekin batera Ondarretako kartzelan egindako egondaldia deskribatzen baitu, besteak beste, mojen mehatxuak eta tratu txarrak, euskaraz mintzatzeko debekua, lokatzez betetako janaria eta emakumeen ile mozketak (117-118). Horiakin batera, amarengandik aldenteak sortzen dion atsekabea eta beldurra deskribatzen du neskatoak (119) eta kartzela barruan gertatzen denaren gaineko informazioa eman ez dezan mehatxupean dagoenez, gutuna itsasora botatzen du, inork aurkituz gero jakin dadin Donostian eta Ondarretako kartzelan zer gertatu zen (119-120). Karmeleren desio horrek bat egiten du liburuaren hasieran ageri den epigrafearekin, baita liburuan aipatzen den kondairako sirenen eginkizunarekin ere, esaten baita kartzelan egon ziren “sirenak beraiek ibiltzen direla harriak botatzen, inork gertaturikoa ahaztu ez dezan” (96). Beraz, amaitzeko, azpimarratu nahiko nuke memoriaren transmisioa aldarrikatzen dela obra honetan eta Gerra Zibil garaian eta baita ostean ere gizarteak pairatu zituen injustiziak ahanzturan eror ez daitezela eskatzen zaiola irakurleari.

#### **6.2.3.16. Elur gorrituaren egunak**

Amaia Telleriak (Idiazabal, 1993) idatzi eta Laida Ruizek (Lazkao, 1996) irudiz jantzitakoa da jarraian aztertuko dudana liburua, 2023an Denonartean argialetxeak kaleratutakoa. Idazleari dagokionez, helduei zuzendutako *Haize-lekuak* (Alberdania, 2020) eleberria idatzi du, zeinak Gerra Zibil garaia daraman irakurlea. Horrez gain, 2021ean HGLri ekin zion eta lau obra idatzi ditu honezkero. Aztergai dudana lanak aipamen berezia lortu zuen Karmele Igartua Sorkuntza bekan, baina hura ez da bi egileek batera sortutako lehenengo lana, izan ere, pare bat urte lehenago *Zuhara. Itsasoaren deia* (Alberdania, 2021) eman zuten argitara eta 2022an, argialetxe berean, *Zuhara. Clionaren kanpaiak* liburua.

#### **Laburpena**

Hamabi urtetik gorako irakurlegoari zuzendutako 305 orrialdeko liburu honek Gerra Zibilaren etorrerak familia euskaldun batean zein eragin duen erakusten du, eta horretarako, kide bakoitzaren lekukotzak harilkatzen dira. Laburrak dira testuak eta gehiena zuri-beltzeko ilustrazioek hartzen dute.

## **Harrera kritikoa**

2023ko azaroan argitaratutako lana izanik, ibilbide laburra egin du obrak. Ez du itzulpenik izan eta edizio bakarra izan du. Dena den, OEPLIk 2023ko liburu hautatuen zerrendan sartu zuen, kalitate eta egokitasun irizpideak betetzen dituela bermatuz.

## **Analisi narratologikoa**

Zuri-beltzeko azalak egiten dio harrera irakurleari, zeinetan kontakizuneko Telleria familia agertzen den. Liburuaren hasierako orrialdean, kideak aurkezten zaizkio irakurleari, Anttoni eta Joxek osatutako bikotea eta haien lau seme-alabak: Rikardo, Bittoriano, Naxario eta Teresita. Alderdi paratestualarekin jarraituz, idazleak aitonari eskaintzen dio liburua, etxeko ahozko transmisioaren zaindari izan den horri. Liburua 6 ataletan banatuta dago, eta bakoitzean, familiako kide batek ematen du testigantza, idatzizko narrazio labur baten bidez lehenik, eta zuri-beltzeko irudien bidez gero. Egia esan, komiki gisa katalogatua izan den arren, ez da komiki konbentzional bat, testu soilarekin batera komiki tankerako pasarteak eransten direlako (zeinak hitzez adierazitakoa irudikatzen duten, noiz edo noiz bunbuiloren bat txertatuz).

Arestian esan bezala, Gerra Zibilaren etorrerak familia euskaldun baten egunerokoa nola aldatzen duen irudikatzen da aztergai dudan kontakizun honetan. Irakurlea 1936ko uztailean kokatuz, Joxe aitak Espainiako zenbait lekutan Errepublikaren aurkako altxamendu batzuk izan direla jakinarazten du, baina familiarrei lasaitasun mezua helarazten die, ez baitu uste kontua asko zabalduko denik (101). Dena den, Bittoriano semeak argi adierazten du egun pare bateko liskarrak izango zirenak ondo ari zirela luzatzen (107), eta Teresak, berriz, gerraren ondorioz senideen bizitza bortizki aldatu zela kontatzen du, baita nola estali zituen herritarren grinak, pozak eta eguneroko txiste txikiak ere (74). Naxario eta Rikardo anaiek Gabiriara alde egingo dute, izebaren etxean ezkutatzeko asmoz, baina handik, Euzko Gudarostearekin gudari abiatuko dira (107). Cayuela koronela eta erreketek herrira heldu eta familiako kamioiarekin batera, Bittoriano eramango dute Teruelera, frankistei laguntzera behartuta (105-106). “Nire anaiak gudari zebiltzan bitartean, frankistei laguntzen ari nintzen ni. Etsaia babesten” (108). Beraz, hitz horietan, argi geratzen da familia zein bandotan kokatzen den. Bide batez, gorago aipatutako Cayuela koronela Pablo Cayuela da, Gerra Zibilean Gipuzkoaren okupazioan parte hartu zuen militarra. Kontakizunaren eszenatokietako bat den Beasainen okupazioan parte hartu zuen (1936ko uztailearen 27 eta 28 bitartean).

Bittoriano semeak ematen du hobekien gerraren bilakaeraren berri, Burdin Hesiaren suntsiketa, Bilboren erorketa, presoek kartzelatzea Santoña eta Laredoko hondartzetako kontzentrazio-esparruetan eta italiar faxisten laguntza aipatzen baititu (107). Behartutako lana egiteko Kantabriatik heldutako milaka presoek iritsieraren harira, alferrez frankistak Zaragozara bidaliko du Bittoriano, bertan gertatzen dena konta dezan (108-109). Gazteak lur jota, zikin eta aurpegiak abaildutako milaka pertsona baino ez ditu ikusiko (110). Hainbat ilustraziotan irudikatzen dira alabrezko hesiaren beste aldean dauden presoak (161, 228, 229). Esanguratsua da frankisten begitarteei erreparatzea, belztuta ageri baitira, gaizkia irudikatzean egin ohi den moduan (149, 151). Ez hori bakarrik, errepublikanoak eta frankistak multzoan ageri direnean, zuriaren eta beltzaren arteko kontrastea erabiltzen da (190, 191) eta argi antzematen da frankisten gailentasuna: armak izan eta errepublikanoak menpean hartzeaz gain, handiago irudikatzen dira (191, 225). Etsaiaren karakterizazioa heterolinguismoaren bidez egiten da ere, erreketek, adibidez, gaztelaniaz mintzo baitira (15, 105).

Naxario gaztea Loiola batailoira batuko da. Rikardo anaia, berriz, Goierri konpainian sartuko da txofer lanetan aritzeko eta Amaiur batailoiarekin batuko da gero (211). Azken horrek gerraren berri emango du, besteak beste, Ormaiztegin sartu eta nazionalek egindako fusilaketen berri (211), Santoñako errendizioaren berri (213) edo Kondor Legioak eta Aviazione Legionariak Euskal Herrian egindako bonbardaketen berri: “Kondor Legioa, Aviazione Legionaria. Gure herriak bonbardatu, erraustu zituztenak. Gero gorriak izan zirela esan bazuten ere, bagenekien guk zein izan ziren” (216). Emaitzen kapituluan (7. atala) sakonduko dudan moduan, Gernika erre zutenak errepublikanoak izan zirelako akusazio zinikoa galtzaileei ezarritako zigorraren zati bat baino ez zen izan, frogatuta geratu baita faxistena izan zela egiletza. Rikardok, barrakoietan pasatako hotza, gosea eta intimitaterik eza aipatuz, hango presoek bizimoduaren berri ematen du (214). Benetan esanguratsua da pasarte horren ostean datozen ilustrazioei erreparatzea, preso egon bitartean Rikardok izandako bilakaera irudikatzen baita 4 marrazkiz osatutako sekuentzian (230-231). Horietako batean, ilea motz eta hezurretan ageri da gaztea. Baina gainera, lehenengotik laugarrenera, aurpegiera belztu egiten dela antzematen da, frankisten bandorako lanean hartzen baitute eta halaxe irudikatzen baitira lan osoan zehar frankisten aurpegiak<sup>127</sup>. Argi eta garbi “besteak” dira horiek, etsaiak. Rikardok “kabroiak” deitzen die (214). Italiar faxistak ere etsaiak dira eta “italiar alu horik” deitzen die Rikardok.

---

<sup>127</sup> Egia esan, aurpegierak, eta ez soilik frankistenek, izugarritzko garrantzia dute, ilustrazio ugaritan pertsonaien begitarteei (goibelak gehienbat) hartzen baitute garrantzia (44, 45, 53, 162, 184, 185).

Irudietako batean, EAEko 3 mapa ageri dira eta bakoitzaren alboan ageri den datetan, frankistek (horixe irudikatzen du arranoak) menpean hartutako lurraldeak irudikatzen dira, kolore beltzago batekin (224). Beste batean, armarrri frankista ageri da, “Una grande libre” lema atzean duen arranoarekin (225) eta kuarteletako batean, berriz, Francoren erretratua (177). Fronteko txikizioa irudikatzen duen argazkirik ez da falta (253, 282, 283, 286).

Naxariori dagokionez, bere esperientzia lartzaren berri ematen du, zenbat pertsona ikusi zituen hiltzen, zenbat hatz moztu behar izan zituen izoztuta zeudelako, zenbat gorpu atera zituen lubakietatik edo zenbat bala erauzi zituen gorputzetatik (280). Ilustrazioek hori guztia irudikatzen dute: hildakoak ageri dira, gorpu erauziak, buru edo hankarik gabeko gorpuak, eta baita hilerri bat ere, soldadu askoren patua iradokiz (282-283).

Hiru semeak gerran daudela, Anttoni eta Joxe gurasoek jakingo dute semeetako bat etxeratzeko aukera dutela eta Joxek baimena lortuko du semearen bila Teruelera joan dadin. Irudian, Nazario frontetik jasotzeko baimena ematen duen agiria ikus daiteke (51). Teruelen dagoela, bertan ikusitakoa deskribatzen du Joxek: “Odol usaina zegoen, odol orbanak zoruan, jendearen arropetan. [...] Zaurituak ikusten nituen alde guztietan; hiri dotorea izandako bat, txikizio betean. Lubakiak, gerrarako egokitutako eraikinak, odol-ospitaleak” (259). Hori guztia ikustean, Euzkadiko Gobernuak txanponak hartzen ditu ahotan, agortutako ametsen adibide (259). Semearen bila ari dela, Joxeren pentsamenduen berri ematen dute ilustrazioek, eta heriotza ageri da alde guztietan. Semea irudikatzen du frontean hilda, lurtean botata (274), baita hilkutxa batean sartuta ere (267). Dena den, bizirik aurkitzen du semea<sup>128</sup>. Amaitzeko, esan dezadan liburuak amaiera irekia duela, Naxario eta Teruelera haren bila joana den Jose aita elkartu eta etxerako bideari ekiten baitiote; baina irakurleari ez zaio informazio gehiago ematen gainerako anaien patuaz.

#### **6.2.3.17. Espainiako Gerra Zibila. Beste obra batzuk**

Atal honetan gehitu ditut Gerra Zibila aipatu bai baina gai zentral gisa lantzen ez dituzten obrak, hau da, gerra atzeko plano gisa edo aipamen soil gisa hartzen duten obrak. Aurreko ataleko liburuekin alderatuta, jarraian datozen hauek askoz era laburragoan azaldu ditut, batez ere gerraz ematen den informazioari erreparatuz.

---

<sup>128</sup> Ohartarazi nahiko nuke semearekin elkartu baino lehen aitak abesten duen kantua, “Askatasun eguzkia basotik irten da... Bere Argiya edonun, arin zabaltzen da” (281) Eusebio Erkiagaren 1933ko *Askatasun Bidian* antzezlanean ageri dela.

### **6.2.3.17.1. Sagitario**

Felipe Juaristik (Azkoitia, 1957) 1995ean eman zuen argitara obra hau, Desclée de Brouwer argitaletxean. 14 urtetik gorako irakurleei zuzendutako 109 orrialdeko eleberri hau zaldien gaineko istorioez bilbatua dago, baina paratestutik bertatik antzeman daiteke Gerra Zibilaren oihartzuna, izan ere, aurreko azalean Picassoren *Gernika* koadroaren erdiko zatia ageri da, aldaketa batekin: Picassok marraztutako zaldiaren ordeaz, benetako zaldi baten marrazkia ageri da. Liburuaren muinera jauzi eginda, irudi horren jatorria ematen da, Picassok *Gernika* koadroa noiz eta nola marraztu zuen azaltzen baita, azoka egunean Gernika bonbez suntsitu ostean, gobernu errepublikarrak eskatuta, Francoren soldaduen kontrako gerraren irudia eman zezakeen koadro bat pintatzeko eskatu ostean alegia (99). Horrez gain, “Gerrara joan nahi ez zuen zaldia” izeneko hirugarren kapituluan, gerra gustuko ez zuen Imanol eta bere zaldiaren istorioa kontatzen da. Bertan gerraren aurkako jarrera garbia azaltzen da, besteak beste, gerrak dakarren heriotza azpimarratuz eta oroitaraziz bizirik irtendakoak ere ez direla osorik itzultzen (38). Borrokaldi bat ere deskribatzen da, zeinetan soldatuak hankaz gora, triapak irekita eta hesteak kanpoan dituztela irudikatzen diren (61).

### **6.2.3.17.2. Munduko zazpi herrialdetako ipuinak**

Joseba Sarrionandiak (Iurreta, 1958) idatzitako liburu hau 2008an eman zen argitara, Pamiela argitaletxean. Hamabi urtetik gorako irakurlea helburu duen 109 orrialdeko obra honetan zazpi herrialdetako istorioak biltzen dira, Pedro Osés (Iruñea, 1942) ilustratzailearen irudiz lagunduta. Liburua zazpi ataletan banatuta dago eta horietako bakoitzean haur batek hartzen du hitza, norbere burua aurkeztu eta bere eskualdeko ipuin bat kontatzeko. Osamu japoniar gazteak, aitona-amonak Hiroshiman hil zirela aipatzeaz bat, parez pare jartzen ditu Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketak (1945) eta Durango eta Gernikako bonbardaketak (1937). Osamuk ez du Euskal Herria ezagutzen, baina nire ustez, aipatutako triskantzen parekatze horrek Euskal Herriarekiko gertutasun bat sortzen dio gazteari, ikusi berri duen dokumentala euskaraz ere egotea desio baitu. Antzeko triskantza jasan duten herrien arteko elkartasun edo enpatia keinu gisa irakur daiteke pasarte hori. Liburuko seigarren ipuinak ere Euskal Herriaz hitz egiten du eta agian irakurle batek baino gehiagok euskal gatazka deitu zaion auziari erreferentzia egiten diola antzemango du, nahiz eta horretarako metaforak eta sinboloak interpretatu behar diren. Angelun bizi den Marie Jeanne da ipuin honetako narratzaile heterodiegetikoa eta bere ahotik amonak kontatutako Haize Hegoaren elezaharraren berri izango du irakurleak. Erronkari eta Larrañe arteko mugan kokatutako

istorio hau herrien arteko mugez, agintarien erabaki bihurriez, erabaki drastikoek dakarten ondorioez eta herrien arteko elkartasunaz mintzo da<sup>129</sup>.

#### **6.2.3.17.3. Zer du aitonak?**

Juan Luis Mugertzak (Elgoibar, 1954) idatzi eta Txema Belaskok (Bilbo, 1950) ilustratutako 83 orrialdeko lan hau 10 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta 2010ean eman zuten argitara, Ibaizabal argitaletxean. Gai nagusia aitona Luisen zahartzea eta Peio biloba gaztearekin duen harremana den arren, pare bat pasartetan Gerra Zibila ageri da. Narratzaile orojakileak jakitera ematen duenez, gaixo dagoen aitona Luisen anaia kartzelatik pasa zen gorria zelako. Horren harira, aipatzen da amonak emandako azalpenaren aurretik Peio gazteak ez zekiela nortzuk ziren gorriak (36). Ikusten den moduan, amonak egindako memoria komunikatibo eta filiatiboa ageri da obran. Bestalde, aipatzen da amonak 8 urte zituela, Busturiatik ikusi zuela alemaniar hegazkinak azoka egunean Gernikan egindako triskantza (37). Gertaera horrek artean gaztea zen neskatoarengan betiko eragin zuen traumaren berri ematen da, esaten baita hegazkin baten zarata entzuten zuen aldiro mahaiaren azpian ezkututzen zela beldurtuta (37). Ezin aipatu gabe utzi Frankismo garaiko gizartearen zertzelada batzuk ematen direla, besteak beste, soldadutza, gosea eta filmeetan ezartzen zen zentsura aipatzen denean (62, 75-77). Arestian esan bezala, kontakizunaren muina aitonaren zahartzea da eta oso era goxoan ematen da Peio bilobak nola bizi duen aitonaren zahartzea, gaixoaldia eta heriotza. Esango nuke azken gai hori naturalizatu egiten dela, umorea lagun batzuetan, eta gai tabua bihurtu arren, heriotzaz hitz egiteko parada eskaintzen duela liburuak.

#### **6.2.3.17.4. Memoriaren zuhaitza**

Pello Añorga (Oiartzun, 1956) eta Jokin Mitxelenaren (Donostia, 1962) artean ondutako lan hau 10 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta 2012an eman zuten argitara Elkarren eskutik. Peru mutikoaren eta haren aitona Robinsonen arteko harremanean ardaztua dago kontakizuna. Liburuak hartzen dituen 56 orrialdeetan zehar Peru gaztea da narratzailea eta aitona emozio handiz erakutsitako altxorraren berri ematen du: bere jaiolekuan landatuta dagoen haritz txikia, familiaren memoriaren zuhaitza dena. Zuhaitz horren istorioa, edo hobeto esanda, “ama zuhaitza” delakoak bizi eta ikusitakoak dira orriotan azaleratzen direnak. Haritz erraldoia familiako gertaera askoren lekuko izan zen, besteak beste, kideen jaiotzena,

---

<sup>129</sup> Sarrionandiaren liburu honen gaineko iruzkin xehegoa aurki daiteke Urzelai-Vicente (prentsan) lanean.

lehen musuena edo familia-bazkariena, baita Gerra Zibilaren testigu ere. Azken horrekin lotuta, gerra garaian Sarjentuaren aginduz haritzaren azpian egindako fusilamenduak aipatzen dira, baita nola lurperatu zituzten hildakoak zuhaitzaren azpian ere, zakurrak baino okerrago (20-21). Liburuaren amaieran, haritz txikia eta familiaren memoria sasi artetik atera eta toki seguru batera eramatea proposatuko du aitona, eta ekintza horren atzean familiako memoria eta memoria horren transmisioaren aldeko aldarria ezkututzen dela esango nuke.

#### **6.2.3.17.5. *Portuak***

Oihana Arana (Eskoriatza, 2001) idazle gaztearen lehenengo literatur lana da honako hau, 90 orrialdekoa eta 13 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutakoa, Gaumin argitaletxean argitara emandakoa 2020an. Nobelaren ardatza giza-harremanei, elkarbizitzari, familiari, nerabetasunari, gorputzari, sexualitateari edota ikasketei buruz Ilargi protagonistak egiten dituen gogoetak diren arren, aitona gaixoaldiari eta heriotzari buruz hitz egiten duen pasarteetan Gerra Zibil garaiko eta Frankismo garaiko pare bat kontu tartekatzen dira. Gudak 16 urterekin harrapatu zuen aitona eta haurtzarotik gizontasunera bat-batean igarotzera behartu zuen horrek (12). Madrilera egindako ezkonbidaian frankistez inguratuta ikusi behar izan zuen bere burua eta amorrua eta beldurra sentitu arren, oharkabean igarotzen jakin zuen (66). Soldaduskaren aipamenarekin batera, aipatutako bi erreferentzia horiek dira gerraz esaten diren bakarrak, irakurlearen esku utziz hari horretatik tira egin eta gai sakontzea.

#### **6.2.4. Bigarren Mundu Gerra**

Sembla que segons quines brutalitats  
sigui impossible que succeeixin,  
però els impossibles existeixen  
i tant se val que hagin passat  
a quilòmetres de distància  
o fa mil anys.  
Ignorar-los ens apropa  
al perill d'esdevenir víctimes  
(Copons, 2000: 165).

Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) bukatu eta jarraian, Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) hasi zen. Espainiak itxurazko neutraltasun bat erakutsi zuen arren, Hego Euskal

Herrian eragin txikiagoa izan zuen Iparraldean baino, Frantzia bete-betean sartu baitzen gudan. Jarraian datorren atal honetan, sortzez euskaraz argitaratutako 5 obra aztertuko ditut. Horiez gain, gogorarazi nahi dut beste ataletan sartutako liburu gutxi batzuetan Bigarren Mundu Gerra aipatzen dela (aipamen hutsez bada ere); baina horiek, beste gerra edo gatazka bat lantzen dutenez nagusiki, dagokion atalean sartu ditut (eranskinetako katalogoan begiratuta, erraz jakin daiteke zein gatazka ageri den obra bakoitzean). Horren adibide dira *Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!*, George L. Steer. *Gernikan izan zen kazetaria*, *Behi euskaldun baten memoriak*, *Metxa esaten dioten Agirretar baten ibili herrenak*, *Euskal Herriaren Historia XXI. mendeko haurrei kontatua*, *Sasi artean Elgeta*, *Goizeko zazpiak* eta *Para bellum*.

#### **6.2.4.1. Anbroxio**

Eneko Bidegainek (Baiona, 1975) 2002an Elkar argitaletxean kaleratutakoa da jarraian aztertuko dudana eleberria. Idazleari dagokionez, *Anbroxio* izan zen bere lehen literatur lana, baina harrez geroztik hainbat eleberri, kronika liburu eta saiakera lan idatzi ditu. Bereziki aipagarriak iruditzen zaizkit *Bichta éder* (Elkar, 2023) eleberria, *Iparretarrak. Erakunde politiko armatu baten historia* (Gatuzain, 2007) lekukotza edo kronika liburua, *Gerla Handia, muga sakona. Lehen Gerla Mundialaren (1914-1918) hastapenak "Eskualduna" eta "Euzkadi" aldizkarietan* (Utriusque Vasconiae, 2009) ikerketa lana, bere tesian oinarritutako *Lehen Mundu Gerra "Eskualduna" astekarian* (Euskaltzaindia, 2013) ikerketa lan sendoa, *Lehen mundu gerra eta Euskal Herria* (Elkar, 2014) saiakera liburua eta *Patxa. Besta bai, borroka ere bai* (Gatuzain, 2010) lana. HGLren alorrean, *Mahatsaren begia* (Elkar, 2005) eleberria, Marc Armspach komikigilearen irudiak dituen *Zorionak*, *Marko* (Elkar, 2011) liburua eta Anne Baskaranen ilustrazioak dituen *Izar saltzailea* (Ikas, 2023) lana eman ditu argitara. Bistakoa den moduan, Bidegainek aski ongi ezagutzen ditu *Anbroxio* eleberria zeharkatzen duten gerra eta gatazkek.

#### **Laburpena**

Hamabi urtetik aurrerako irakurlea helburu duen 212 orrialdeko lan honek Joanes itsasuarrak bizitako une zailak deskribatzen ditu, besteak beste, Bigarren Mundu Gerra, kartzela, kontzentrazio-esparruetako miseria, gosea, okupazioa eta deportazioa. Eleberri polifonikoa ez den arren, hainbat pertsonaiaren esperientziak jasotzen dira, eta ondorioz, kontakizunak hizpide duen garaia erreturatu esanguratsua ematen da. Fikziozko



kontakizuna den arren, bikain deskribatzen da Ipar Euskal Herriko bizilagun askok jasan zuten drama latza.

### **Harrera kritikoa**

Liburu honekin Ipar Euskal Herriko gazteak euskaraz idaztera bultzatzea helburu duen Gazteluma Literatur Sorkuntzako lehenengo edizioko saria eskuratu zuen Bidegainek. Argitaratu zenetik bi argitalpen izan ditu eta ez du itzulpenik izan.

### **Analisi narratologikoa**

Liburuaren paratestuari erreparatuz gero, berehala antzematen da irakurleak barruan aurkituko duena ez dela kontakizun atsegina izango. Aurreko azalean, arantzazko alanbrez hesitutako horma bat ageri da, kontzentrazio-esparrukoa den murre sendo bat; eta horrekin batera, suntsiketa, odola eta zorigaitza iradokitzen duen beltz eta gorriaren konbinazioarekin osatutako zeru nahasia. Kontakizuna Ipar Euskal Herrian kokatuta dago nagusiki, eta oraineko planoak 2002aren bueltan girotuta dagoen arren, iraganeko planoak Bigarren Mundu Gerraren hasierara egiten du jauzi, ez ordea Aljeriako gerra, Espainiako Gerra Zibila eta Frankismoa aipatu gabe. Batetik, 2001eko irailaren 11ko atentatuak aipatzen dira (174), baita urte horretan hasitako Afganistango gerra ere (173, 159). Bestetik, pertsonaietako batek irratian entzuten dituen berriek 2002an kokatzen dute irakurlea, Askatasuna eta Segi ezker abertzaleko erakundeen ilegalizazioak aipatzen baitira. Obra 12 kapitulutan banatuta dago eta horietako bakoitzean, pertsonaia banak hartzen du garrantzia. Nork bere istorio propioa duen arren, narratzaile orojakilea haien arteko loturak agerian jartzen doa narrazioan aurrera egin ahala. Hainbat dira kontakizun honetako pertsonaiak eta ezinbestekoa iruditzen zait horien azterketa sakona egitea, bakoitzak bizi izandako garaiari buruzko informazio ugari atera baitaiteke. Joanesi dagokionez, Bigarren Mundu Gerraren alderdirik makurrena ezagutu zuen itsasuarra da. 18 urterekin armadara batzeko agindua jaso ondoren, gerrak Frantzia eta Alemaniaren arteko mugan harrapatu zuen eta Alemanek preso hartu ostean, kontzentrazio-esparrura bidali zuten. Protagonistak horietako hainbat ezagutu zituen eta toki horiei buruzko informazio zabala ematen du narratzaileak, fisikoki deskribatzeaz gain, bertako egoera gordinaren berri ematen baita:

Burdinezko hagak hamar zentimetro guziz. Zerrapoa ere burdinez. ARBEIT MACHT FREI hitz misterioitsuak idatziak ziren ate hartan, burdinez eta hizki larriz. Haiek bai hizki larriak... eta hotzak bezain beldurgarriak! Joanesek berantago jakin zuen herio zelai guzietako sarreretako

lema zela. “Lanak aske egiten gaitu” erran nahi du, alemanez. Lana ausarki ezagutu zuen eremu hartan. Askatasuna, haatik... (10).

Esanguratsua da zein izen ematen dion narratzaileak tokiari: *herio zelaia*. Izen horrekin bat datoz protagonistak ematen dituen azalpenak, 80.000 preso betetako toki hartan 25 baino gehiago hiltzen baitziren egunero, goseak, egarriak edo nekeak jota asko (11, 135). Ihes egiten saiatzen zirenei edo zorriak zituztenei tiro bat ematen zieten (11, 107), eta lehenengoak, batzuetan, gainerakoen aurrean urkatzen zituzten (108), ihes egiteko itxaropen oro deuseztatzeko. Kontzentrazio-esparruez gain, beste hainbat lekutan eduki zuten preso Joanes, Hendaiaiko *Kommandanturrean* edo Fort du Hâ-n. Toki horiek ezagunak dira, okupazio garaian bertatik pasa baitziren euskaldun asko. Kontakizunean umiliazio eta duintasun galera saiakerekin lotzen dira bi presondegiak (79-81). Gatibuak Alemaniara garraiatzeko erabiltzen ziren abereentzako trenak deskribatzen ditu narratzaileak eta benetan eszena bisualak dira: “Amesgaiztoetako tuneletik bertze amesgaiztora atera ziren. Bagoi bakoitzean zortzi zaldi kokatzen ziren, edo bertzenaz, berrogei gizon edo emazte [...]. Argal zeuden, baina halere nola posible ote zen berrogeien lekuan larogei gizon sartzea?” (83). Presoek pasatako gosea liburu osoan zehar errepikatzen den ideia da (81, 107), hainbeste ezen irakurleak ere senti dezakeen. Batzuetan, gosea pertsonifikaturik ageri da: “Petiri-Santz-ek sekulan baino hurbilagoetik jarraitu zuen. Gaur egun, Euskal Herrian bertze Sanz bat da bazterrak izuarazi nahi lituzkeena. Migeltxok euskara hezur eta larru ikusi nahi duen gisan jasan zuen Joanesek Petiri” (164)<sup>130</sup>. Aipatutako bidaia horietan, heriotza zuten bidaide nagusi, askok bizia galtzen baitzuten joan-etorri horietan (86). Esanguratsua da honako aipu hau preso en egoera latza irudikatzeko:

Izigarria zitzaion bere buruari aitortzea eta, ondorioz, hatsaren hartzea bera beldurgarri, baina bagoian norbait hiltzen zelari, norbait gutiago zuten oxigenoaren partikatze. Batzuen herioak bertzen bizia luzatzen zuen. Eta hori biziki lazarri zitzaion Joanesi (86).

Beste batzuetan, bizitza mantendu arren, duintasuna galtzen zuten presoek bidaia horietan, eta zer esanik ez behin helmugara iritsitakoan. Buchenwald kontzentrazio-esparrura iritsi baino lehenago, trenean bertan arropa kentzen zitzaien, gelditzen zitzaien duintasun apurra kenduz, beldurraren dardarari ahalkearena eta hotzarena gehituz (95). Narratzaileak egiten dituen deskribapen zehatzei esker, presoek sentitzen zuten hotza senti dezake irakurleak. Neguaren erdian, Joanesek biluzik pasa zituen lehenengo egunak eta halaxe pasa

---

<sup>130</sup> Petiri-Santz gosearen eta zorigaitzaren pertsonifikazioa da.

zuen 1943ko eguberria, kanpoan eta inolako estalkirik gabe (97-98). Nortasunaren galera erabatekoa zen, agiri guztiak kentzeaz gain, toki horiek pertsona guztiak berdintzen baitzituen. Marradun uniformeaz jantzitako ilarik gabeko preso argal argalak ziren, zenbaki hutsak, gizaki itxura oro ezabaturik zuten pertsona ikaratuak (98-100, 161), lehertu arte abereen gisan lanean jartzen zituztenak, harrobian lanean edo barrakoiak eraikitzen jipoi artean (107, 122). Narratzaileak zehazten duenez, lehen presoak 1933an sartu ziren, Hitler boterera heldu bezain laster (107), eta haien arteko bereizkuntza bakarra soinean jantzi behar zuten kolorezko hirukia zen, zeinak, preso egoteko arrazoia zehazten zuen. Baziren hiruki gorria eraman behar zuten preso politikoak (Joanes adibidez), homosexualak (hiruki larrosarekin), ijitoak, preso sozialak eta juduak. Azken horiek izar horiak ezaugarritzen zituen (153-154). Bizirik ikusi nahi ez zituzten presoak desagerrarazteko naziek baliatu zuten metodorik erabilienari buruzko pasarterik ez da falta kontakizunean. Hasieran, modu inplizituagoan egiten zaie erreferentzia gas-ganberei, adibidez, presoan barraka batez arduratzen zen *Blockführer* delakoak presoei egindako mehatxu honetan: “Hona atetik sartzen zarete eta tximiniatik ateratzen!” (109), edo desagertutako presoaz oroitzean Joanes tutu luzeetatik ateratzen zen keari begira geratzen denean (142). Dena den, istorioak aurrera egin ahala, Joanesek gorpuak kontzentrazio-esparru batetik bestera garraiatzen zituela esan eta narratzaileak aski era gordinean azaltzen du zer egiten zuten naziek presoekin:

Joanesek ulertua zuen gorpu haiek nondik ateratzen ziren. Ulertua zuen non nahi ikusten zituen tximinia haiek ez zirela okindegi batekoak. Handik ateratzen zen ke beltz hura ez zitekeen jendekiz egin sutik baizik atera. Gerla bururatu eta zenbait urteren buruan ikusi zuen zinez zer gertatu zen labe haien barnean. Buchenwald-era itzuli zelarik ulertu zuen nolaz desagertu ziren “labean” lan egiten zutenak. Ulertu zuen nolaz erotu zen handik bizirik atera zen haren Euskal Herriko laguna, bizirik egoitea ardietsi zuen bakarrenetarikoa. *Krematorium*-a, naziek jendeak erretzen zituzten lekua, beti ke eta ke ikusten zuen, gain batean. Ohikoa bilakatua zen, Joanesentzat, jendea bizirik han sartzen ikustea. Ez zekien, ordea, barne hartan zer pasatzen zen. Zekien gauza bakarra zen ez zituela handik ateratzen behin ere ikusi. Edo bai, baina gerla bururatu eta zenbait urtera baizik ez zuen baieztatu erretoki haien sekretu lazgarria [...] Hango preso langileek ez zuten hiru hilabete baino gehiago irauten postu hartan. Eta handik ez ziren bizirik ateratzen. Alemanen sekretu izigarriaren atxikitzeke molderik hoberena hiltzea zen, dudarik gabe (184-186).

1945eko udaberrian, Aliatuek Buchenwald bonbardatu eta naziek Joanes eta beste preso batzuk abandonatu ostean, protagonistak etxera itzultzea lortu zuen, ez bidean SSen kolpeak jaso eta preso batzuk Baltiko itsasoaren erdian ur hotzetara salto egitera behartzen

ikusi aurretik (200-201). Pentsatzekoa da etxera itzultzea lortzen zuten horiek trauma izugarriari egin behar izaten ziotela aurre, eta halaxe deskribatzen du narratzaileak Joanesen etxeratzea, esaten baita urteak kosta zitzaiola gerra garaikoak kontatzea eta seme-alabekin ere ez zuela horretaz hitz egin nahi, oso oroitzapen gogorak zirelako eta ez zuelako pasatako sufrimendu eta lotsa hori perpiztu nahi (102). “Ez zitzaion goxo noizbait gizontasun guzia galdu zuela aitortzea. Nola atxik burua xut, komuneko uretik edaten zuela erraitean? Nola hustu zakua, nigarrez hizpaka hasi gabe?” (103). Interesgarria da gizontasunari buruz ematen diren hitz horiei erreparatzea, eta ikustea, besteak beste, *gizontasuna* dela galtzen dena eta ez *gizatasuna*. Noiz erabaki zuen Joanesek bizitakoak kontatzea? Bada, telebistan Frantziako eskuin muturrari buruzko dokumental batean eta Jean Marie Le Pen politikari eskuindarraren ahotan entzun zuenean Alemaniako kontzentrazio-esparruetako miseriak “historiako xehetasun” bat baizik ez zirela izan (143). Beraz, ikus daitekeenez, egia ezabatzeko eskuin muturraren saiakerari aurre egin eta gertatu zirenak azaleratzeko beharrak bultzatuta ekin zion memoria traumatikoen kontakizunari.

Hil aitzin oraingo belaunaldi gazteari lekukotasun hori eman nahi zion, baizik eta gazteek jakin behar dutela zer gertatu zen garai haietan, izigarrikeria haiek ez daitezen berriz errepika. Eta eskuin muturreko ideologia horiek beti arrakasta zerbait badutela ikustean, ez zen fida geroko belaunaldiek bizi zezaketenaz (143).

Pasarte horretan, narratzaileak Joanesen pentsamenduen berri ematen du, alegia, deportatuen historia hura liburuetan egon arren, urrun senti daitezkeela; eta etxeko baten esanak, aldiz, askoz hurbilagoko (143). Ikus daiekeenez, lekukotzen transmisioan, memoria filiatiboa eta komunikatiboaren alde egiten da. Kontzentrazio-esparruetako esperientzia horrez gain, Joanesen kontakizunean badira mugalaritzari buruzko pasarte interesgarriak, Eusebiorekin batera, Itsasun bertan iheslariei muga pasatzen laguntzen ziela aipatzen baita, besteak beste, errusiarrak, frantsesak eta ingelesak (120). Ez hori bakarrik, Joxepa emaztearekin batera, etxealdean iheslariak gordetzen zituen (29). Hor ere agerian geratzen da protagonistak eta iheslariak hartzen zituzten arriskuak, alemanen eskuetan hiltzetik libratuta ere, hegoaldean Francoren tropek harrapatzeko arriskuari aurre egin behar baitzieten (20, 24). Dena den, larritasun mezu horien alboan, narratzaileak elkartasuna gauza guztien gainetik jartzen du, borrokan engaiatzeak hori eskatzen duela azpimarratuz (24-25). Kontzentrazio-esparruko pasarteetan ere, nazien ankerkeria guztiaren gainetik presoaren arteko elkartasuna gailentzen da, horri esker iraun baitzuten Joanesek eta beste batzuek bizirik (139). Joanesen kasuan, errusiarren partetik ezagututako elkartasun sekulakoa azpimarratzen da

(140). Bestetik, Joanes pertsonaiaz gain, bere biloba den Kattalinek hartzen du garrantzia kontakizun honetan. Tesia idazten ari den AEKko irakaslea da, ezkertiarra, memoria historikoaren transmisioarekin kezkatu ageri den gaztea. Lekukotza guztiek duten balioari eta haiek ikusgarri egiteari buruzko gogoetak plazaratzen ditu uneoro:

Aitatxik gerla denboran bizi izan zituenak ez kondatzea pena zen. Ez zituen beretzat atxiki behar. Orduko gertakariak anitz aipatuak badira ere, mundu guztiak baldin badakizki ere, ez da isilik egoiteko arrazoin bat. Lekukotasun guztiek badute beren balioa. Zerbait gisaz Joanesen istorioak kanpoari kondatu behar dizkio. Baina zein ote da biderik hoberena? Liburu bat? Ez, ez da ideia ona. Irakurlerik ez lezake atxeman eta gainera bere burua ez du gai senditzen. Lan kolektibo bat? Baina norekin? (17).

Kattalinek, historiaren lekukotasun horren jabe izanik, ondokoei jakinarazteko beharra sentitzen du. Kontziente da jendeak deus gutxi ezagutzen duela iragan garaiei buruz eta hala ere, ez dagoela gerra garaiko liburu edo filmen gaineko interesik. Dena den, euskaltegian gaia azaldu ostean, ikasle batzuek interesa erakutsiko dute, tartean bere ikasle Txominek, abertzalea dena (89), zeinak garai hartako euskaldunek ezagutu zuten egoerari buruz zerbait berezia egitera animatuko duen, lekukotasunak bildu eta jendeari ezagutarazteko (70). Helburu horrek bultzatuta, Euskal Herriko erresistente eta deportatuen lekukotasunekin webgune bat sortzeko prozesua jarriko dute martxan biek. Narratzaileak garbi adierazten du transmisio behar horren zergatia:

Baina XXI. mendean sarturik, joan den mende erdiko miseriak konda ditzaketen jendeak gero eta gutiago dira eta oroitzapen ilun haiek ez daitezten biktimekin batera ehortz, belaunaldi gazteei ezagutarazi behar zaizkie, haiek ondoko belaunaldiei jakinarazteko, horrelakorik ez dadin berriz gerta. Egia da deportaturik egon zirenek eta haien seme-alabek lekukotasun horien transmisioari garrantzia ematen diotela (132).

Hirugarren belaunaldiaren parte direnez eta memoria horiek transmisio familiarraren bidez jaso duten azken belaunaldia direnez, biak kontziente dira lekukotza horiek idatziz jaso eta ondorengoei transmititzeko beharraz (82). Dena den, Kattalin konbentziturik dago iraganeko istorioetan lan egiteaz gain, garrantzitsua dela oraingo gertakariak aipatzea:

Ez da dudarik, Frantziako lagun bati Euskal Herrian gertatzen diren giza eskubideen urraketak aipatu behar litzaizkiokeela; Euskal Herria ez dutela bakarrik alde bateko atentatuek zauritzen jakinarazi behar zaiola, estatuek adierazpen eta elkartzeko askatasuna ttipitu eta kendu nahi dutela eta abar. Balio luke horretaz ere mintzatzea, ohartzen baita hedabideek emaiten duten bertsio

murriz eta, ororen buru, gezurrezko ikuspegiak zer kaltea eragiten duten, Euskal Herriaz lehergailuetaz eta hilketetaz bertzerik entzuten ez duten jendeen baitan. Joanesen minak berriz gogora ekartzean, ez du ahanzten, gaur egun Euskal Herrian batzuek jendea mehatxatzen eta erahiltzen dutela “aberriaren alde”, ehunka lagunek bizkarzainak behar dituztela egun osoan eta haien aldia etorriko denaren beldurrez bizi direla, bertze batzuek Euskal Herriaren independentziaren alde izaiteagatik komisaldegia, tortura eta presondegia beha dauzkatela... Kattalinek badaki horretaz ere mintzatu behar lukeela, ez dela bakarrik iragana (144-145).

Aipu luze horretan, euskal gatazkaren testuinguruan, alde batekoek zein bestekoek eragindako kalteak jartzen dira agerian. Badago beste pertsonaia pare bat kontakizunaren harian zentralak ez izan arren, iruzkintzea merezi duena. Frantzia ipar-ekialdeko Kattalinen unibertsitateko lagun Sophie eta bere senargai Gérard dira horiek. Sophieri dagokionez, politikari lehentasunik ematen ez dioen arren, ezker ideologian kokatzen da (129-130, 173) eta gustura entzuten ditu Kattalinek bere aitonari buruz kontatzen dizkionak. Gérard, ordea, memoria historikoarekiko interesik ez duen sarjentua da, Kattalinen aitonaren istorioekiko narda adierazten duena (137, 117). Egiten den karakterizazioari erreparatuta, pertsonaia guztiz antagonikoa da. Gérarden aitonak SSekin kolaboratu zuela kontatzen du narratzaileak, beranduago frantsesek hil zutena, eta informazio horren aurrean, Kattalinen burutik pasatzen dena ematen du jakitera: “Gaur egungo gazte «normal» batek ez dezake ahalkea baizik sendi halako arbaso baten aitzinean” (165). Bi pertsonaia horien arteko eztabaida sutuak agerian jartzen du sufrimendua alde bateko zein besteko familiek jasan zutela. Dena den, ezaxola erakusten du gizonak beste batzuen sufrimenduarekiko, Kattalinek ez bezala (165-166). Jarrera errepresiboa duen gizon matxista, homofobo, biolento eta arrazista gisa deskribatzen da (174, 124, 181, 188), eta iradokitzen da eskuin muturreko alderdiari ematen diola botoa (173). Liburuek *Shoah*ri buruz kontatutakoa zalantzan jartzeaz gain (124), nolabait naziek burututako bidegabekeriei garrantzia kenduz, juduen aurkako mespretxua erakusten du (187).

Lehen esan bezala, fokua Kattalinengan jartzen duen oraineko plano euskal gatazkaren testuinguruan kokatuta dago. Analisiaren hasieran aipatu dudan moduan, neskak irratan entzuten duen berriak erakunde terrorista bateko zati direlakoan, Askatasuna eta Segiren ilegalizazioaren berri ematen du. Horren aurrean, Kattalinen haserrealdia deskribatzen du narratzaileak, uste baitu euskaldunak isilarazteko Madrilgo auzitegiak duen beste aitzakia merkeetako bat baino ez dela. Erabakia hartu zuen Baltasar Garzon epailea aipatzen da, edo neskak deitzen dion moduan, *inkisidore* eta *urde ustela* (8). Adierazpen askatasunaren aurkako neurritzat har daiteke Garzonen epaia, eta horregatik, Kattalinek uste

du “faxismoa ez zela Francorekin hobiratu” (8). Irratian berri horiek entzuten ari dela, polizia-etxe ondotik pasatzen da, *porkeriez* betetako leku hori husteko desioa agerian jarriz (8). Kontuan hartuta Gérard militarra dela, ez da harrizkoa bi pertsonaiek eztabaida sutuak izatea. Dena den, badirudi mutila dela topikoz jositako irainak egiten dituen. “Zeren eta, egia baita zuek, Euskal Herrian, terrorismoaren problema baduzuela” (118), gaineratzen dio bonbak non gordetzen dituen galdetzarekin batera. Bien ikuspegi bateraezinak kontakizun osoan ikusarazten dira, adibidez, presoan aldeko kontzertura joan eta Gérardek kriminalek zigorra merezi dutela aldarrikatzen duenean (180), nolabait, kontzertuaren helburuari aurka eginez. Pertsonaiak naziek eragindako krudelkeriez ari direla, maiz egiten da lotura euskal gatazkarekin, garai bateko ekintzak egungo egoerarekin alderatzen baitira. Adibidez, SSeK eragindako krudelkeriaz ari direla, Txominek Kattalini aipatzen dio irudi hori maiz ikusi duela Euskal Herrian eta Kattalinekin, lagunaren baieztapena berretsiz, honakoa gaineratzen du: “CRSei eta Guardia Zibilei gertatzen zaie, zenbait aldiz, bide bazterretan horrelatsu jokatzeari” (88). Beraz, Frantziako eta Espainiako polizia SSen jokabide bortitzarekin berdintzen da. Ez hori bakarrik, Guardia Zibilez mintzo direla, espainiar polizia-etxeetan egiten diren torturak hartzen dira ahotan (89). Joanesen hitzetan ere, ez da Frantziako jendarmeen inguruko irudi onik ematen, bilobari maiz errepikatzen baitzion “jendarmeak ere ustel eder batzuk zirela, Kanbokoak bereziki” eta “gune askean bezala, Pétainen zerbitzuko zeude[la]” (40). Esan gabe doa Philippe Pétain (1856-1951) bi mundu gerretan parte hartu zuen frantziar politikari eta mariskala izan zela.

Bide batez, Kattalinekin irratan entzuten dituen berriak aipatu ditudala, ezin aipatu gabe utzi Palestina eta Israelen arteko gatazka aipatzen dela, zehazki, Israeldar armadak 6 pertsona gehiago hil dituela (8). Aipatu baino, narratzailea auzi horren gainean posizionatzen da: “Garai hartan [Alemania naziaren sasoian] sufritu zutenen arbaso anitzek ahantzia dutela dirudi: Israelen politika lekuko” (82). Gogora dezadan kontakizunean gatazka dena, jada genozidio saiakeratzen hartzen dutela askok gaur egun. Aipamen txiki batean bada ere, Aljeriako gerra hartzen da ahotan, Txominek egunkarian irakurritako albistearen berri hitz egiten duenean Kattalinekin, zeinetan informatzen den Aljeriako gerla denboran frantses armadak 16 urteko neska bat preso hartu eta egun guztiz bortxatu ostean, soldaduek indarkeriazko ekintza horien ondorioz jaiotako haurra amari kendu eta abandonatuen etxera eramane zutela (64-65). Gerra testuinguruetan emakumeen gorputzekin egiten den erabilera arbuigarriaz ari naizela, bada beste pasarte bat, zeinetan esaten den 18 urteko neska prostituzioan aritzen zirela aleman soldaduen faboreak eskuratzeko (63). Analisiaren hasieran

aipatu dudan moduan, pertsonaiek Afganistango gerra hartzen dute ahotan (159, 173) eta horrekin batera, Guantanamon dauden presoek sufrimendua (159-160). Horrekin lotuta, Bush eta Hitlerren arteko eraketaz ari direla, Estatu Batuen politikak munduan zehar miseria handiak hedatzen dituela salatzen du, gaineratuz, ez dela gauza onik militarrek boterea eta eragin handia duten herri eta sistemetan (160).

Ez nuke aurrera egin nahi Kattalinen AEKko<sup>131</sup> ikasle den Jackie eta berak dakarren lekukotasuna aipatu gabe. Saran, alemanen okupazio garaian, mendian barrena juduak edo amerikarrak eramaten mugalaritzan eta mezularitzan aritutako Graxi amonaren gaineko pasarteak kontatzen ditu Jakciek, Erresistentziarekin harremanak zituelako Gestapoaren eta SSen kontrolekin gorriak ikusi zituen emakumearen pasarteak alegia. Alemanek jendea mintzarazteko erabiltzen zituzten torturak deskribatzen dira (44), baina arrisku guztien gainetik, jendearen konpromisoa jartzen da agerian: “Guzien buruan, gerla zen eta denek behar zuten beren gisan parte hartu. Tortura eta herioari ihesi zihoazenen ez laguntzea, aleman tiranoekilako kolaborazioa zen, nolabait” (36). Torturapean lortutako salaketa baten ostean, Normandiako lehorreratzearen biharamunean, SSak etxean sartu eta Hendaiara eraman zuten, bertako *komandantur*-ean alemanen torturapean informazioa eman zezan Graxik. Berak eta beste emakumeek jasotako tortura fisikoa da (49-50), baina interesgarria da nazien irainei erreparatzea, genero begirada batetik esanguratsua baita: *urdanga* (50). Era berean, azpimarratzekoa da alemanen eskuetan erori eta gero Graxik egindako ibilbidea, Alemaniara deportatu zituzten euskaldun ia gehienek egin zuten berbera baita: Hendaiatik Bordeleko Fort du Hâ presondegira (51). Handik Ravensbrück-eko kontzentrazio-esparrura bidali zuten, zeinetan gaixo zegoen ama hil zioten, iradokitzen denez, gas-ganberan (51). Joanesenetan bezala, pertsonaia honen gaineko pasarteetan goseari buruzko aipamenak aurki daitezke. Esanguratsua da, adibidez, gosea kentzeko emakume presoek kolarekin nahastutako elurra jaten zutela (128).

Jackiez aritu naizela, bada bere pasarteetan azaleratzen den gai bat, euskararekin lotura duena eta gainerako pertsonaien lekukotasunetan ere ageri dena. Euskaldun askok bezala, neskaren gurasoek ez zioten euskara irakatsi nahi izan, haur denboran euskaldun izateagatik asko sufriarazi zitelako (54). Frantses administrazioak eta eskolak euskaldun izatearen lotsa sarrarazi zutela aipatzen du liburuak (55) eta nola askok uko egin zioten

---

<sup>131</sup> Kontakizun honetan, garrantzi handia du euskaltegiak, memoria afiliatiboaren transmisio gunea baita.



ondorengoiei euskara transmititzeari<sup>132</sup>. Horren gaineko kritika zorrotza egiten du narratzaileak: “Beti errexagoa da boteretsuenaren jarraitzea, hari ipurdi milikan aritzea... kontzientziarik ez delarik [...] beren haurrei euskararik ez irakastea erabaki zutenak ez ote ziren indartsuaren aldera makurtu, ahuleziaz?” (154). Euskalduntasunarekin lotuta, frantziar estatua euskaldunak frantsesten nola saiatu zen aipatzen da (55). Frantsesik jakin gabe Frantziaren alde gerra egitera abiatu ziren gudariak aipatzen dira, Gorka Knör abeslariaren *Morts pour la patrie* abestiak oihartzun egiten duela (55). Hego Euskal Herriko egoera ere hartzen du ahotan narratzaileak, esaten baitu faxista espainiarren hertsapen gogorraren ondorioz, euskaraz hitz egiteko beldurrez egoten zela Joxepa (28). Kontakizun honek mugaren bi aldeetako egoera irudikatzen du iheslarien arrisku bikoitzaren bidez. Batean alemanen esku erortzeko arriskua zuten, eta bestean, Francoren tropen esku erortzekoa (48). Horren aurrean, euskaldunen aldeko elkartasuna jartzen da agerian, Hegoaldeko *anaiek* Iparraldekoak aterpetzen zituztela eta Iparraldekoek Gerra Zibiletik ihesi joandako nafarrak hartzen zituztela zehazten baita (65-66).

Kontakizunaren harian garrantzia duen Agustin pertsonaiari buruzko hitz batzuk esan nahiko nituzke, labur bada ere. Berau Txominen aitona da, Alemanian deportaturik egon zen gizona (58). Bilobak haren gutun bat gordetzen du, deportaziotik etxera euskaraz bidalitakoa, zeinetan “Anbroxio ontsa da” mezu laburra idatzirik duen. Liburuaren hasiera aldera ageri den pasarte horrek misterio ukitu bat ematen dio kontakizunari, izan ere, amaierara arte Txominek ez baitu jakingo Kattalinen aitona Joanek eta Buchenwaldeko kontzentrazio-esparruan berarekin egondako Agustinek gosea zutela adierazteko erabiltzen zutela ezkutuko mezu hura (196-198). Kattalinen informazioari esker, Txominek bere aitonaren historia osatu ahal izango du, oroitzapen mingarria zelako, amonak kontatu nahi izan ez zion hura alegia (73). Liburuaren amaierako Kattalin eta Txominen arteko musuak esangura sinboliko handia duela iruditzen zait, memoriaren katearen segida irudika lezakeelako, hau da, transmisioaren jarraipena.

Azkenik, eleberri historiko honen azterketarekin amaitzeko, azpimarratu nahiko nuke fokua pertsonaiatik pertsonaiara aldatzeari esker eta bakoitzaren bizipenetan sakontzeari

---

<sup>132</sup> Bidegainen liburu honetan zehaztasun gehiagorik ematen ez denez, Joseba Sarrionandiak idatzitako HGLko lan bat aipatu nahiko nuke, *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* (Xangorin, 2010), zeinetan “Zotza” ipuinean, XVIII. mendetik XX. mendera euskararen aurkako ohiko metodo pedagogikoa hartzen duen ahotan narratzaileak, Iparraldean *Anti-basque* edo *boule basque* izenarekin eta Hego Euskal Herrian *eraztuna* izenarekin ezagutzen dena. Kontakizuna 1943. urteko Zuberoan kokatuz, 7 urteko mutiko batek euskaraz mintzatzeko debekua eta *anti-basque* zeritzona nola bizi izan zuen jaso dezake irakurleak. Era berean, gomendagarria iruditzen zait Josu Martinezek zuzendutako *Bizkarsoro* (2023) luzemetraia, zeinak 1914 eta 1982 bitartean euskarak pairatutako jazarpena deskribatzen duen 5 istorio gurutzatuz.

esker, Bigarren Mundu Gerrari eta alemanen okupazioari buruzko informazio aski esanguratsua ematen dela. Egia bada ere kontakizuna hainbat gerra eta gatazkak zeharkatzen dutela (baita Euskal Herritik kanpo kokatutakoek ere), Gerra Handiak euskal herritarrengan izandako eraginean zentratzen da eta HGLn gai hori ukitzen duten obrek baino askoz informazio sakonagoa ematen du. Noiz edo noiz, Bidegainek informazio gehiegi sartzen duen irudipena dut, hau da, gai ugari sartu nahi izan dituela kontakizun bakarrean. Dena den, mintzagai duen gaiak HGLn duen agerpen urria ikusita, egileak hartutako lana eskertzekoa iruditzen zait. Euskaldunon historia ulertzeko ezinbestekoa den informazioa emateaz gain, fikzioaren bidez, irakurle gazteari indarkeriaren gainean hausnartzeko aukera ematen zaio, baita gerrek, gorrotoak eta ezinikusiak sortzen duten ondorio makurrez pentsatzeko ere. Gertaera beraren gaineko lekukotasunak biltzeaz gain, geografikoki hain gertukoak ez diren hainbat tokitako gatazka eta krimenak ditu hizpide Bidegainek, eta horrek, bide ematen dio memoria multidirekzionalari.

#### **6.2.4.2. Arriskupean!**

Jarraian aztertuko dudana eleberri hau Fernando Morillok (Azpeitia, 1974) eman zuen argitara Ibaizabal argitaletxean, 2003an, Andoni Odriozolaren (1972) ilustrazioez lagunduta. Idazleak Gaumin argitaletxea sortu zuen 2011n eta bertan argitaratu ditu haur eta gazteentzako hainbat obra. Aipatzekoa da argitaletxetik bertatik irakurketa erraza formatua bultzatu duela eta hark ere kaleratu dituela HGLko lan batzuk molde horri jarraituz. Hainbat sari jaso ditu bere ibilbidean zehar, besteak beste, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria *Izar-malkoak* (Aizkorri, 2002) liburuagatik, Igartza Saria *Ortzadarra sutan* (Elkar, 2002) liburuagatik edo Augustin Zubikarai saria *Gloria Mundi* (Tarttalo, 2004) lanagatik.

#### **Laburpena**

Hamalau urtetik gorako irakurlea helburu duen 192 orrialdeko eleberri hau Peñaflorida institutuko bedelaren heriotzarekin abiatzen da. Protagonisten aurrean hiltzen da Hermann bedela, eta gertakariak haurrengan utzitako harridurak bultzatuta, haren iragana osatzen saiatuko dira gazteak. Bedelak ezkutuan gordetako sekretu ugari aurkituko dituzte, bere benetako izena edo Bigarren Mundu Gerran naziekin izandako harremana, besteak beste.

## Harrera kritikoa

Misterio eta abentura eleberri honek hamar argitaraldi izan ditu gutxienez eta euskaraz baino ezin daiteke irakurri. Narratzaile orojakileak gidatzen du kontakizuna eta berau kapitulu laburretan antolatuta dago. Ezaugarri horrek, Xabier Etxanizen (2004b) ustez, gertakarien segida etengabea eta obraren irakurketa atsegina bultzatzen du. Horrez gain, hasi eta buka irakurtzen den liburu horietakoa dela aipatzen du, irakurlea harrapatzea lortzen omen baitu istorioak. Dena den, indargune horiekin batera, kritikariak ohartarazten du noiz edo noiz fantasiatsuegiak direla gertaera batzuk, eta ildo horretan, iruditzen zait zenbaitetan sinesgarritasun apur bat gal lezakeela istorioak. Sarean bilaketa bat eginda, ikastetxeko pare bat blog aurkitu ditut, zeinetan DBHko 2. eta 3. mailako ikasleek liburua irakurri osteko iritzia plazaratzen duten (140 iruzkin guztira)<sup>133</sup>. Liburua gustatu zaienek misterioa, abentura, entretenigarritasuna eta irakur-erraztasuna aipatzen dute. Liburuarekin disfrutatu ez dutela dioten horiek, ordea, kontakizunaren hasiera jarri dute jopuntuan, hura ulertzeko zailtasuna aipatu baitute. Horrekin batera, pare bati huts egin dio istorioaren logikak, ez baitzaie sinesgarria iruditu gazte bat CIAko ordenagailuetan sartu ahal izatea. Nola edo hala, kritika hori bat letorke Etxanizek aipatutako ahulgunearekin.

## Analisi narratologikoa

Lehenik eta behin, aipatu nahiko nuke aztergai dudan liburu honek Bigarren Mundu Gerra hartzen duela hizpide, baina Euskal Herrian girotuta dagoen arren, ez duela gerrak euskal lurretan izandako eragina irudikatzen, ez eta gerraren beraren bilakaera ere. Bigarrenik, ohartarazi nahiko nuke honako hau egile beraren *Bihotz nahasiak* (Ibaizabal, 2001) eleberriaren bigarren atala dela, trama beste bat izan arren, pertsonaiak eta espazioa berberak baitira. Gainera, kontakizunean zehar hainbat aldiz egiten zaio erreferentzia lehen liburu horri (25, 173, 190). Arestian aipatutako misterio giroa liburuaren azalean bertan eraikitzen da. Hodei beltzez inguratutako dorretxe bat ageri da gaez. Ekaitz beteko gaua dela antzeman daiteke, eta horrekin batera, esbastika bat ikus daiteke tximista forman. Paisaia gotiko horrek irakurleak liburuan aurkituko duena aurreratzen du. Liburua lau bat orrialdeko kapituluz banatuta dago eta noiz edo noiz, zuri-beltzeko marrak bat tartekatzen da, kontakizunarekin zuzenean lotzen dena eta hitzez azaltzen dena irudiz eta modu errealistan erreproduzitzen duena. Kokapen nagusia Donostia da eta euskal irakurlearentzat ezagunak

---

<sup>133</sup> Bi glog hauetatik jaso dut hartzaile gazteengan izandako harrera: Urrietako Salestar Ikastetxeko DBHko 2. mailako ikasleen blogetik (<https://salesiarhizkuntzak.blogspot.com/2014/10/arriskupean.html>) eta Alegiako Institutuko DBKko 3. mailakoenetik (<https://aralarbhigazteliteratura.blogspot.com/2015/06/arriskupean.html>).

diren erreferentziak aipatzen dira: Artzain Onaren katedrala, Ulia Mendia edo Aiete eta Gros auzoak adibidez. Istoriotik kanpo dagoen narratzaileak ematen ditu Isusko protagonistaren eta haren lagunaren ibilaren berri. Peñafloidako institutuan daudela, bertako Hermann bedela hiltzen ikusiko dute eta Isuskok haren gaineko lana egin nahi duela aprobetxatuta, Hermannen gaineko informazioa biltzen hasiko da, *hacker* abila den Iban lagunarekin eta beste ikaskide batzuekin batera. Baina agure aspertu baten biografia baino, Hermannek ondo gordetako sekretuarekin egingo dute topo eta haren iragana deskubrituko dute gazteek. Bedelaren mozorroaren azpian, Bigarren Mundu Gerra garaia bizi izan zuen Friedrich Heine izeneko alemaniar mediku eta kimikaria ezkutatzen dela jakingo dute eta gizon hark gerraren ondorioz eta nazien pertsekuzioaren ondorioz bizitakoen berri emango du Isuskok bere idazlanean:

Gero naziak etorri ziren. 1933. urtean Hitlerrek irabazi zituen hauteskundeak, alemaniar herriari burua altxatzen lagunduko zion agindupean. Harrotasuna harrokeria bihurtu zen arlo askotan. Atal guztietan barneratzen ziren naziak, eta dena nahi zuten zuzendu. Friedrich Heine jaunak ikertu besterik ez zuen nahi. Inguruan, politikaria, fikzioak, kimerak eta mozorroak: nazien ametsa eta munduaren amesgaiztoa. Gero, Bigarren Mundu Gerra hasiko zen. Friedrich Heinek ikertzen jarraitu zuen, laguntza handiagoarekin orain, bere lana gerrarako aplikagarria izan baitzitekeen. Urteak joan ziren. 1944. urte hasieran, alemaniarren indarra ez zen txikia, baina 1940an garaipena oso laburrera bereizten zuten modu berean, 19 urte horretan gorriak ari ziren ikusten. Naziak zerbait ezberdina, zerbait berria behar zuten gerra irabaziko bazuten (64-65).

Hermannek aurkikuntza garrantzitsua egin zuen, gizartearen energia arazo oro konponduko lukeen erreakzioa aurkitu baitzuen, baina kontziente zen hura gaizki erabiliz gero, erabateko suntsipena eragin lezakeela: “Hermannek uste zuen gizakiok ez geundela prest horrelako ezaguera baterako” (168). Horregatik, Adolf Hitlerren ordezkariak (H. W. Goering<sup>134</sup>) bera harrapatzeko agindua emana zuela jakitun, laborategiari su eman, ihes egin eta 1944an Donostian finkatu zen nortasun faltsu batekin, gerratik ihesi zebilela eta paperrak gerran galdu zituela esanez. Narratzaileak gaineratzen duenez, ez zen batere ezohikoa gerraren ondorioz agiriak galtzea:

Gerra basatiaren ondorioz ez zen batere ezohikoa agiriak galdu izana. Edo galdu nahi izana. Nahasmen handia zegoen. Europako udaletxe, ospitale, eliza... asko eta asko suntsituta zeuden, eta ez zen inon geratzen inolako agiririk: ez jaiotze datarik, ez gaitz-historiarik, ez bataio-dokumenturik (66).

---

<sup>134</sup> Hermann Wilhelm Göring (1893-1946) benetako pertsonaia da, eragin handia izan zuena Hitlerren erregimenean. 1938an, Hitlerrek bere ordezkari eta oinordeko izendatu zuen.

Iban eta lagunek Hermannek etxean gordetako eskuizkribua aurkituko dute, haren ohar eta aurkikuntzak dituen, baina ohartuko dira ez direla gizonaren gaineko informazio bila ari diren bakarrak. Neonaziak izango dituzte atzetik eta Isusko bahitzen saiatuko dira. Esanguratsua da haien karakterizazioari erreparatzea, izan ere, neonazietako batek gamma gurutzea izango baitu tatuatuta. Gainera, armadun gizonak gaztelania kaskarrean mintzatuko dira (84)<sup>135</sup>. Baina horiez gain, CIA ere izango dute atzetik, eta Guardia Zibilar eskatuko dio CIAko talde berezi bat heldu bitartean Heineren gaineko edozer lortzeko. Gazteak, esku artean duten dokumentuaren garrantziaz jakitun, eta lehergailuaren gaineko informazioaren erabilera okerrak sor dezakeen kalteaz jabetuta (168), Hermannen txostenetik lehergailua egiteko orriak erauzi eta gainerakoa ukitu gabe utziko dute: haren kezka existentzialak, filosofikoak, moralak, politikoak eta abar (185-186). Kontakizunak amaiera zoriontsua du, CIAk txostena hartzearekin batera, bi neonaziak ere harrapatzen baititu. Gazteek, egindako lan onaz jabetuta, detektibe agentzia bat jartzea erabakitzen dute.

Aztergai dudan liburu honetako guda nagusia Bigarren Mundu Gerra den arren, bestelako gatazka batzuk aipatzen dira, adibidez, irakasleak pertsonaietako bati galdetzen dionean ea zerk kezkatzen duen gehiago, Irakeko azken gerrak, palestinarren gatazka amaigabeek edo bikoteren batekin izan dezakeen maite-aferaren batek (21). Interesgarria da galdera horri ikasleak ematen dion erantzuna: “Beti eragiten digute gehiago hurbileko istorio txikiek urruneko tragedia handiek baino” (22). Pasarte horrek aukera eman lezake gure arazoak erlatibizatzeke eta gure inguru hurbilaz harago pentsatzera bultzatzeko. Beste pasarte batean, Ibanek laguneri kontatzen die CIA atzetik dutela eta narratzaileak lagunek pentsatzen dutenaren berri ematen du: “Nola ibiliko zen delako CIA beraien atzetik? Haiek nahikoa izan behar zuten Irak, Iran, Afganistan, Ipar Korea, Kolonbia, Israel, Palestina, Ekialdeko Timor... eta beste hamaika lekuren korapiloak nahastearekin” (121-122). Ezin uka daiteke aipu horretan AEBko inteligentzia agentzia zentrala edo gobernua bera kritikatzeko dela, beste herrialde batzuetan gerra sustatzeagatik nagusiki. Nabarmentzekoa iruditzen zaidan beste pasarte bat dago, Ander irakaslearen hitzen bueltan eraikita dagoena:

Historia zuhurra eta maltzurra da [...]. Egia izan arren beste era batekoa ere ezin duela izan. Hartu historiako liburu bat, edozein liburu. Izen ospetsuen zerrenda agertuko zaizue, izenpetuen loriarako edo gorrialdirako. Edozein modutan, beti dira gutxi. Beraiek bakarrik jasango balute bezala gizarte osoaren pisua. Agian horrela izango da. Agian ez. Kontua da nahiko nukeela

---

<sup>135</sup> Hizkuntzaren aldetiko zehaztapen hori ematen den arren, ez dago gaztelaniazko elkarriketarik; eta beraz, zuhurrak izanda, ezin daiteke heterolingüismoztat hartu.

inguratzen gaituzten hamaika istorio txikirekin ohar zaitezten. Bidean uzten ditugun horiekin guztiekin konturatu beharko zinatekete, izan diren eta izango diren hamaika mila izenik gabeko istoriorekin (20).

Aipu horretan historia monumentala ezbaian jartzen dela iruditzen zait, edo gutxienez, historia ofizialetik at geratutako istorioak erdigunera ekartzea bultzatzen dela. Mikrohistoriaren aldarrikapena irakurtzen dut lerro horietan, ahaztutako ahotsak erdigunera ekartzeko eta horiei tokia egiteko nahia. Amaitzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi HGLn ohikoa den moduan, eleberri honetan ere maitasunaren gaia agertzen dela, Isuskok Maitanerekiko sentitzen dituenak (24) eta Iban eta Nerearen arteko kontuak (80-81) aipatzen baitira. Horrekin batera, eta pare bat lerrotan bada ere, tratu txarren gaia azaleratzen da Iban pertsonaiaren bidez. Mutikoa bakarrik bizi da, eta dirudienez, gurasoak ez dira hartaz arduratzen. Ez hori bakarrik, aita alkoholikoak egurtu egiten zuela aipatzen da, eta amak garrasi egiten zuela, burutik joanda-edo (12).

#### **6.2.4.3. Azken garaipena**

Iban Zalduak (Donostia, 1966) letraz eta Julen Ribasek (Arrasate, 1991) ilustrazioz ondutako obra da hau, 2011n Ikastolen Elkarteak argitaratutakoa. Lehenago, *Xabiroi* komiki aldizkarian atalka ikusi zuen argia kontakizunak. Jada aurreko ataletan aipatu dudan moduan, Zalduak hainbat aldiz hartu ditu hizpide Euskal Herriko gatazka politiko eta armatuak, hala saiakera lanetan nola fikziozko lanetan. Izenburu guztiak berriz errepikatu ordez, helduei zuzendutako *Nola izan garen gauza. Euskal gatazkaren ipuin (ia) guztiak* (Erein, 2021) lana azpimarratu nahiko nuke, zeinetan izenburuak iradokitzen duen moduan, idazleak euskal gatazkari buruz idatzitako ipuinak bildu zituen bertan. Irakurle helduari zuzendutako ipuingintzan nabarmendu den arren, bere estilo zorrotz eta ironikoarekin, Zalduak gazteei idatzitako hiru obra ditu, jarraian aztertuko dudana gain, beste bi argitaratu baititu: *Ile luzeen kondaira* (Pamiela, 2003) eta *Kea ur gainean* (Elkar, 2002). Sariketei dagokienez, nabarmentzekoa da hiru aldiz irabazi duela Euskadi Literatura Saria, horietako bat aztergai izango dudana HGLko komikiarekin. Ribasi buruzko informazioa dagoeneko beste atal batean eman dudanez, gogorarazi nahiko nuke bere irudiak dituztela tesi honetako corpusaren parte diren eta HGLko Euskadi Literatura Saria eskuratu zuten *Santa familia* (Ikastolen Elkartea, 2017) eta *Azken garaipena* (Ikastolen Elkartea, 2011) komikiek.

## Laburpena

Hamabi urtetik gorako irakurleari zuzendutako 48 orrialdeko komiki ukroniko honek Hitlerrek Bigarren Mundu Gerra irabazi ondorengo 2052. urteko Alemanian kokatzen du irakurlea. Gertakari historiko aski ezagunaren moldaketa horrek, zientzia-fikzioaren laguntzarekin batera, bestelako gizarte bat irudikatzen du. Irakurlea Sigrid Frisch tenientearen atzetik abiatuko da, ikertzea egokitu zaion kasuaren jarraipena egiteko.

## Harrera kritikoa

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da aztergai dudan komiki honek HGLko Euskadi Saria eskuratu zuela. Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuen eta *CLIJ* aldizkariak, aldiz, 2013ko urteko 100 liburuz osatutako ohorezko zerrendan. Horrez gain, IBBYren 2014ko ohorezko zerrendan sartu zuten komikia. 2013an hirugarren argitalpen bat izan zuen eta jatorrizkoa argitaratu eta 3 urtera, galegora itzuli zuen Urco argitaletxeak. Euskadi Sarietako epaimahaiaren (Eusko Jaurlaritza, 2012) iritziz, “iragana berridatzi eta maisuki eraikitzen da arrotza ez den etorkizuneko mundua” eta modu bikainean bateratzen dira Rivasen marrazkiak Zalduaren gidoiarekin, uneoro erritmo bizia mantenduz. Mikel Ayerbek (2022) bi egileek komikigintzaren mekanismo eta baliabideekiko erakusten duten ezagutza eta trebetasuna azpimarratzen ditu eta Asun Agiriano literatur adituak (2012), berriz, irakurlea harrapatzen duen komiki borobila dela baieztatzen du. Azkenik, José Manuel López Gasenik (2017) edizioaren bikaintasuna nabarmentzen du.

## Analisi narratologikoa

Paratestuari erreparatuz gero, aurreko azalak berak aski aurreratzen du irakurleak orriotan aurkituko duena. Pistola eskuetan duen emakume bat ageri da, Sigrid Frisch tenientea, alboetan etxe orratz altuak dituela. Horietako batean, *Parteiadler* handi bat ikus daiteke (alderdi Nazional Sozialistako arranoa), eta zeruan, berriz, esbastika handi bat marrazturik duen globo aerostatikoa. Atzeko azalean, sinopsiarekin batera, eta fondoarekin apur bat kamuflatuta bada ere, hainbat pertsona ageri dira, horien artean soldadu bat eta SSetako *Oberstandartenführer* emakume bat (beste edizio batzuetan irudi horiek kendu egin dira). Atzeko eta aurreko guardetan, armadun soldadu bat ageri da, pistola eskuan duen emakumearen alboan. Portadatxoa (gazt. *portadilla*) delakoan, lehen aipatu dudan SSetako *Oberstandartenführer* emakumea ageri da, atzean *Parteiadler* handi bat duela. Esanguratsua

da nabarmentzea eskuan duen borra odoleztatuta dagoela eta odol putzu ikaragarri bat ari dela zapaltzen (aberriaren izenean isuritako odola irudika lezake horrek).

Komikiaren lehenengo bi orrialdeak zuri-beltzean datoz. Soldadu amerikarrak eta alemanak elkarren aurka borrokan ageri dira eta *Fürer*-aren arma sekretuetako baten eztandaren ondorioz, Bigarren Mundu Gerra Alemaniak irabazi duela zehazten da. Komiki bat da eta Frisch tenientea da hura irakurtzen ari dena, harik eta Ernst lankideak kasu berri bat dutela jakinarazten dion arte. Bide batez, hika hitz egiten diote elkarri (5), baita tenienteak haren semeari ere (11). Kontakizunaren kronotopoa hasieratik zehazten da, pertsonaietako batek jakinarazten baitu 2052. urteko Germanian daudela, garaipenaren CVII. urtean (10). Haur batzuek gorpu bat aurkituko dute eta tenienteak, Ernstekin batera, heriotza ikertu beharko du. Germania nazia da ekintzen gertalekua eta agerian geratzen da hori paisaia linguistikoan zein bestelako elementuetan. Batetik, komiki dendariak “Heil Hitler” batekin agurtu eta Ernstek agur naziarekin erantzungo du (6). Ez hori bakarrik, kasua ikertzerantz gerturatzen direnean, SSko *Oberstandartenführer* batekin eta bere soldaduekin egingo dute topo eta azken horiek ere agur bera errepikatuko dute (7). Bestetik, eraikin nagusietan esbastikak edota *Parteiadler*ak agertuko dira (9, 20, 35, 36). Toponimiari erreparatuz gero, esbastika handi baten eskultura erdian duen Von Paulus plaza aurkituko dugu (20). Izenaren jatorria ziurtasun osoz jakiterik ez dagoen arren, Friedrich Paulus jeneralari egin liezaioke erreferentzia, Stalingradoko inbasio frustatua zuzendu zuen alemaniarrari hain zuzen. Hori hala balitz, plazari jeneralaren izena jartzeak aditzera emango luke Alemania garaile irten zela Stalingradoko batailatik. Antzekoa esan nezake Garaipenaren plazari buruz (8).

Kontakizunaren hariarekin jarraituz, komikian irudikatzen den gizarte futuristak aurrerapen, edo hobeto esanda, aldaketa handiak pairatu ditu, ez soilik arlo teknologikoari dagokionez (ageri diren ibilgailuetan islatzen da hori hobekien), baina baita izaki bizidunen klonazio eta ugalketan ere. Horrekin lotuta dago komikia gidatuko duen gertaera nagusia: 1956. urtetik, ernaltze artifizialerako legea indarrean jarri zenetik, Reich-ean (ez eta Asia osoan ere) ez da zilbordunik jaio, baina hildakoa gaztea eta zilborduna da (11). Komikiak islatzen duen gizartean, gurasoek hazi eta obuluak bildu eta purutasun zentroetan jaiotzen dira haurrak (12), osasun eta araztasun ministerioren bermearekin (20). Bertan, gurasoen hazi eta obuluak sor daitezkeen osasun arazoez garbitu eta behin arraza-araztasuna zainduta, gurasoei itzultzen zaie haurra. Baina zientzialariek konbinaketa genetiko berezi bat aurkitzen badute, supergizakiak garatzeko zentro batera eramaten dituzte haurrak, bertan entrenatzeko. Esperimentuak gaizki irtenez gero, subjektu horiek *ezabatu* egiten dira. Jakinarazten denez,



nahaste baten ondorioz, gurasoei itzuli zitzairen haur horietako sail bat, zeinaren gainean iragana aldatzeko abilezia garatzen ari ziren (28). Horregatik arituko da SSa haur horien bila, norbaitek ume horiek iragana aldatzeko duten gaitasunaz baliatu eta Reich-ari Bigarren Mundu Gerra galaraztea okurrituko zaion beldurrez (29). Arestian aipatutako haurren gaineko kontrol hori ez da jaiotzara mugatzen. Tenienteak eta haren senar ohiak semearen atakeak ezkutuan mantendu beharko dituzte, haurra kendu, zentro batean sartu eta edonolako froga eta esperimentuak egiteko beldurrez (20). Bidenabar, dibortzioari eta umeen zaintzari buruzko eztabaida txertatzen da pasarte horretan.

Gobernuaren kontrol zorrotza gizartearen esparru guztietara zabaltzen da, jaiotzez gain bestelako arau murriztaileak aipatzen baitira komikian, hala nola, kartilla bidezko produktuen salerosketa edo errazionamendua (17). Erregimen autoritario horren aurrean, hainbat izango dira Reichak gerra galdu izana desiratu eta demokrazia eta askatasuna itzultzea gura izango dutenak (29). Naziak gauzatutako proiektuez hitz egitean juduekin egindako garbiketa aipatzen da beti, eta aztergai dudan komiki honek ere afera horri heltzen dio. Frisch tenientea eta Ernst lankidea tiro-gelan daudela, arreta deitzen du diana gisa jarrita dagoen giza irudiak, Daviden izarra baitarama paparrean, langileek bertara egin dezaten tiro (22). Lankideek agerian jartzen dute dokumentaletatik at ez dutela inoiz judu bat ikusi eta azkeneko soluzioaren baitan, juduak Madagaskarrera kanporatu zituztenetik ez dutela haien berririk izan. Horrek aditzera ematen du naziak azken muturreraino eraman zutela arraza-araztasuna (22-23)<sup>136</sup>. Baina aurrerago, begiak irekiko dizkiote Frisch tenienteari, bertsio hori gezurtatuko baitiote (28). Historian zehar, gobernuek etsaiak bilatu izan dituzte kanpoan, herritarrengan beldurra eta mesfidantza zabalduz, haien ordena eta nagusitasuna bermatzeko, edo jendearen arreta gai batera bideratu eta arazo handiago bat estaltzeko. Horixe gertatzen da komikian ere, esaten baita erregimenarentzat juduen inbasio sekretu bat argudio ezin hobea dela herriaren alarma piztu eta ez erlaxatzeko, baita momentuan duten arazo larriago bat estaltzeko ere (28).

Debekuei uko eginez, Frisch tenienteak kontzentrazio-esparrua bisitatu eta bertan aurkituko du egiaren zati bat, baita ustez Madagaskarrera erbesteratutako gorpuzkiak ere. Irudietan aski ongi irakur daiteke sarrerako “Arbeit Macht Frei” (lanak askatuko zaitu) goiburua, hainbat eta hainbat kontzentrazio-esparruren sarreran zegoen lema ezaguna. Horrez gain, bekokian Daviden izarra daramaten burezurak ikus daitezke (31). Badirudi Frisch

---

<sup>136</sup> Madagaskar plana gobernu naziak 1940an diseinatutako proiektuetako bat izan zen, zeinaren helburua europar juduak Madagaskar uhartean ghetto batean konfinatzea zen. Jakina denez, egitasmo hori ez zen burutu.

tenienteak orduan izango duela juduen patuaren berri, baina interesgarria da Stiller *Oberstandarten führer*-arekin hitz egitera joan eta aurkitutakoa aurpegiatzean azken horrek gaineratzen diona: “Hipokrisiarik ez, mesedez. Guztiok dakigu zer gertatu zen juduekin. Eta eslaviarrekin, eta afrikarrekin. Nahiz eta batzuek beren buruari aitortzeko ausardia nahikorik ez izan” (35). Pasarte horrek, nolabait, erantzukizun kolektiboaren gainean hausnartzera gonbidatzen du irakurlea. Nazien ankerkeria pasarte ugarian uzten da agerian eta horien ondorioz, irakurlea “beste” bandoan kokatzen da, protagonistarekin batera.

Ez nuke aurrera egin nahi genero aldetik biziki azpimarragarriak diren hainbat ohar egin gabe. Batetik, nabarmentzekoa da teniente emakumea ageri dela protagonista gisa eta ez dituela estereotipo sexistak betetzen. Nortasun handiko pertsonaia da, ausarta, azkarra, amatasuna eta lana uztartzen dituen, laneko kotxea gidatzen duena eta erre egiten duena. Bestetik, ezin aipatu gabe utzi SSko *Oberstandartenführer*ra ere emakumea dela eta indarkeriaz baliatzen dela bere lana burutzeko, demokrazia eta askatasunaren aldeko bakezalea torturatzeko agindua emanez adibidez (36). Komikiaren amaiera aldera, iragana aldatzea eta III. Reicha deuseztatzea lortuko dute, horixe adierazten baitute pertsonaiei aterako zaizkien zilborrek (44).

Analisiaren hastapenean aipatu dut metafikzioaren teknika baliatuta, protagonista irakurtzen ari den komikiak ematen diola hasiera kontakizunari eta gehitu behar dut amaiera ere emakumeak irakurtzen duen beste komiki batek ematen diola. Funtsean, bi komikietako kontakizuna antzekoa da, baina Bigarren Mundu Gerra Alemaniak irabazi beharrean, amaierako komikian, Sobiet Batasunak irabaziko du (46). Komikia irakurtzen ari den tenientearen izena aldaturik aurkituko du irakurleak, Tovarix tenientearekin egingo baitu topo, baita haren laguntzaile Sergeirekin ere (47). Paisaia arkitektoniko zein linguistikoak aditzera emango du Sobiet Batasuna dela gertaleku nagusia, Sobietburgo hiria hain zuzen (47), baina bikotearen zeregina berdina izango da: haur batzuek hilda aurkitutako gorpuaren nondik norakoak ikertzea. Esan dezadan Zaldua eta Rivasek metakomikiaren teknika erabili dutela. Hilda agertuko den gizonak paper zati bat izango du eskuan bildurik eta *Azken garaipena* komikiaren zati bat dela ohartuko dira gero, zeinetan Alemaniak Bigarren Mundu Gerra galtzen duen (41). Badira komikia arretaz irakurri ezean oharkabean igaro daitezkeen hainbat testuartekotasun, jarraian laburbildu nahiko nituzkeenak. Komikiaren lege orrian, Zalduak adierazten du istorioa asmatzean edo berrasmatzean gogoan izan dituela Philip K. Dick, Moebius, Jorge Luis Borges eta Victor Mora. Bada, Ayerbek (2022) bere lanean azaltzen du zein agerpen duten horiek komikian. Batetik, zientzia-fikziozko idazle den Philip

K. Dick-i dagokionez, gogoraztekoa da komiki dendako jabea Phillip Von Dicken deitzen dela eta “Burg” (*gaztelu* alemanez) duela izena dendak (39). Xehetasun horiekin aztergai dudan komikiaren hipotestua ematen da ezagutzera: 1962an Philip K. Dickenek argitara emandako *The Man in the High Castle* eleberria. Bertan ukronia bat planteatzen da, zeinetan naziek Bigarren Mundu Gerra irabazi zuten, eta errealitate askotarikoak jartzen zaizkio irakurleari begien aurrean (aztergai dudan komikian bezala). Bada bestelako loturarik aipatutako bi obren artean: Dicken eleberriak Madagascarreko afera aipatzen du, Zaldua eta Rivasen komikiak bezala. Bestetik, aztergai dudan komikiaren paratestuan Moebius aipatzen da eta Ayerbek (2022) adierazten duenez, Rivasen irudietan nabari da Jean Henri Gaston “Moebius” komikigilearen eragina. Moebiusekin jarraituz, Ayerbek (2022) gaineratzen du Jodorowsky-rekin batera ondutako zientzia-fikziozko *L’Incal* obran garrantzia hartzen duela zilborraren agerpenak (edo agerpenik ezak). Horiez gain, ezin aipatu gabe utzi Indiana Jones eta Joker pertsonaien kartela ageri dela komiki dendan (39)<sup>137</sup>. López Gasenik (2017: 318) Zalduak liburuaren paratestuan aipatzen ez duen beste erreferentzia bat gehitzen du: 1987an Alan Moore, Dave Gibbons eta John Higgins-ek argitara emandako *Watchmen* komiki liburua. Esango nuke egileek nola edo hala, komikiaren aldeko aldarria egiten dutela arestian aipatutako baliabide guztien bidez, baina baita komikizalea den eta komikiaren defentsa egiten duen protagonistaren bidez batez ere<sup>138</sup>.

Azkenik, aipa dezadan amaiera zoriontsua duela komikiak (horrela interpretatu dut neronek), iradokitzen baita gobernu nazirik gabeko gizarteak demokrazia eta askatasun handiagoa izango duela. Dena den, komikiaren logikatik bertatik, ezin daiteke amaiera itxi eta zoriontsu batez hitz egin, istorio zentralaren amaierak hasiera berri bati bide ematen baitio. Egia bada ere komikiak zientzia-fikziotik edan eta ukroniaren bidez etorkizuneko gizarte hipotetikoa irudikatzen duela, aukera eman dezake historiako gertaera latzei buruz hitz egin eta hausnarketa etiko zenbait bideratzeko.

---

<sup>137</sup> Ni neu ohartu ez naizen arren, Indiana Jonesek besoko nazia jantzita daraman susmoa du Ayerbek (2022: 468), nahiz eta berak ere onartzen duen irudia ez dela oso gardena. Gogorazten duenez, pertsonaia horrek nazien aurka borrokatzen du eta beraz, Zaldua eta Ribasek, iraganaren berridazketa egitean, erreferentzia kulturalak eguneratu dituzte keinu ironiko bat eginez.

<sup>138</sup> Aipatu ez badut ere, protagonistak komikiak irakurtzeko aholkua ematen dio semeari (12) eta komiki dendara eramaten du hura ere (33). Ez hori bakarrik, bere lankide Ernstek komiki txatxuak irakurtzeaz nekatzen ez ote den galdetzen dionean, Sigridek bere burua defendatzen du liburua balioan jarriz eta hark Jünger eta Goebbels-en nobelak irensten dituela aurpegiarazuz (5), edo amaierako komiki alternatiboan, Gorki eta Sholokhov-en nobelak irensten dituela esanez (47). Horra hor beste idazle batzuei egindako keinua.

#### **6.2.4.4. *Mattin. Basoko gidaria***

Jabier Erostarberen testua eta irudiak daramatzen tamaina handiko komikia da *Mattin. Basoko gidaria* (IZBÁ, 2014) obra. Erostarbe diseinatzaile grafiko eta ilustratzaileari dagokionez, Arte Ederretan lizentziatu zen eta HGLko hainbat liburu ilustratu dituen arren, aztergai dudan obra hau da berak idatzitako bakarra.

#### **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurleei zuzendutako obra honek Nazien okupazioa du hizpide hartzen dituen 50 orrialdeetan barrena eta istorioa *Mattin* artzain zuberotar gaztearen bidez ematen da. Aita erresistentzian sartuta dago eta semeak hegazkin naziek behera botatuko pilotu bati muga pasatzen lagundu beharko dio.

#### **Harrera kritikoa**

Lehenik euskarri digitalean ikusi zuen argia obrak, eta bi urte beranduago, bertsio fisikoan eman zen argitara (500 aleko tirada eginez). Horrez gain, aipatzekoa da autoedizioaz baliatuta, komikia ingelesera itzuli zela, *Mattin. The forest guide* (IZBÁ, 2014) izenburupean.

#### **Analisi narratologikoa**

Istoria Bigarren Mundu Gerra garaian girotuta dago eta Ipar Euskal Herria da gertaleku nagusia, Pirinio ingurua han zuzen. Altzaira, Erroimendi, Donibane Garazi, Hendaia, Bidasoako muga eta Baiona ageri dira. Azken horri dagokionez, irudietan aski erraz identifika daiteke Baiona ttipia ezaugarritzen duen katedrala eta zubia (29). Egileak berak (2014) zehazten duen moduan, komikia “Bigarren Mundu Gerran nazien aurka ari ziren talde klandestinoak Bidasoaren alde batetik bestera eramaten zituen Cometé izeneko erresistentziako sarean inspiratutako istorioa da”. Liburuko azalean, *Mattin* protagonista zuberotarra ageri da, trikimakoak jantzita Tximista txakurrarekin batera mendian korrika. Guarda delakoan datorren eskertzaren ostean, Robert Laxalt jatorri euskalduneko estatubatuar idazle eta editorearen aipu bat dator, 1957an argitaratutako *Sweet Promised Land* liburutik hartutakoa. Aipu horretan Laxaltek bere aita artzainaren berri ematen du eta nolabait aztergai dudan komikiko protagonistarekin lotura egitera eramaten du irakurlea.

Obraren hasieran, Larregainen bizi den *Mattin* mutikoaren familia aurkezten da eta esanguratsua da aipatzea haren aita Peio ez dela haiekin bizi gerraren eta alemanen okupazioaren erruz (7), erresistentzian sartuta baitabil. Kartutxoetan ageri den ahots

narratiboak garaiari buruzko azalpenak ematen ditu, kontakizunaren ulermena errazteko balio dutenak. 1940 eta 1944 urteen artean nazismoaren menpe dagoen Europa, Vichyko gobernu eta Alemaniaren okupaziopean dagoen Frantzia aurkezten zaizkio irakurleari (9). Horiez gain, aliatuen eta nazien hegazkinak ageri dira, Bigarren Mundu Gerran zehar britainiarrek erabili zuten *Havilland* hegazkin militarra, adibidez (9). Nazien jantzi eta sinboloak ere ageri dira komikian zehar, besteak beste, Manfred izeneko pilotuak besoan daraman Parteiadler delakoa (Alderdi Nazional Sozialistako arranoa) edo paparrean daraman burdinezko gurutzea<sup>139</sup>; nazien bulegoetan Hitlerren argazkiarekin batera eskegita dauden esbastikak edo koronelek uniformeetan daramaten Schutzstaffel (SSen enblema) edo Totenkopf delakoa (9, 25, 37).

Mattin protagonistak alde bateko zein besteko hegazkinak pasatzen ikusten ditu eta egun batean, naziek erasotutako hegazkin amerikar batetik bizirik irtendako pilotu eskoziarra etxean ezkutatzea erabakitzen du, gero muga pasatzen laguntzeko eta salbu jartzeko. Horrek hainbat arrisku ekarriko dizkio mutikoari, naziak haren bila ari baitira, baita inguru horietan ezkutatzen den erresistentziako buruaren bila ere (“Le Loup” edo “Otsoa” deitzen dutena). Aipatzekoa da pilotuari laguntzeko eginkizun horretan aurkari funtzioa duten hainbat pertsonaia ageri direla eta interesgarria da haien karakterizazioari erreparatzea. Naziei dagokienez (Gestapoa barne), haien arrotasuna hainbat ezaugarriekin markatzen da, baina batez ere Euskal Herriaz duten ezezagutzarik ezarekin. Bertako menditarrek sasi hizkuntza ulergaitz bat dutela aipatzen du nazietako batek (14) eta Ipar Euskal Herrian dauden koronel nazi batzuek ez dute maskaraden berririk<sup>140</sup>. Euskal kulturarekiko ezezagutza horrez gain, jarrera biolentoa eta errespeturik gabekoa erakusten dute, Baionako kommandanturreko naziek autoarekin ia-ia apaiza harrapatu ondorengo barreek erakusten duten moduan, adibidez (34). Gainera, naziak dira indarkeria zuzena erabiltzen dutenak, baita atxiloketak gauzatzen dituztenak ere (38, 42-43). Besteak beste, erresistentziaren buru den Maurice hiltzen dute Mattin aurrean dela eta mutikoa akabatzen saiatzen dira, helburua lortzen ez duten arren, dena den (48). Komikiaren hasieran aipatzen da naziak etxez etxe-miaketak egiten ari direla erresistentziaren buru den “Le Loup” deitzen duten gizon baten bila eta kontakizunaren amaiera aldera, irakurleak deskubrituko du bilatzen duten persona hori Maurice gendarmea dela (nazien laguntzale zela uste zutena). Gainerako gendarmeez, ordea, ez da irudi ona ematen, muga pasa nahi duen Mosen Txarlesen (mugalari eta kontrabandista gisa dabilena)

---

<sup>139</sup> Alemaniaren armadako mariskal gailenak, besteak beste Hermann Göring, Paul von Hindenburg edo Manfred von Richthofen, gurutze horrekin kondekoratu zituzten eta agian azken hori da obran ageri dena.

<sup>140</sup> Irudietan maskaradetako musikariak eta pertsonaiak ageri dira: Zamalzaina, kantiniarsa, gatüzaina, txerreroa, xorrotxa, jauna eta entseinaria, besteak beste (30-32, 35-36, 38-39). Horrekin batera, maskaradetako koplak ere ematen da (30).

eta hura geldiarazten eta miatzen duen gendarmearen arteko elkarrizketa honetan ikus daitekeen moduan: “Zuen lan tresna pistola da; gurea, berriz, Jaingoikoaren [sic] hitza” (19). Aurkarien taldean sar daitekeen beste pertsonaietako bat Guardia Zibila da, izan ere, Bidasoako mugan gauez alemaniarretatik ihesi doazenek erreka zeharkatu eta ihes egitea lortu dutela uste dutenean, ibaiaren beste aldean agertzen da guztiak atxilotzeko (28).

Orain arte aipatutako pertsonaiak aurkarien taldean sartu ditut Mattin protagonistaren helburua oztopatzen dutelako, hau da, batetik, pilotu eskoziarrari muga pasatzen laguntzea; eta bestetik, haren aita (erresistentzian sartuta dagoena) salbu mantentzea. Gainera, naziek Maurice hiltzen dutenean, azken horrek protagonistari aitortzen dio bere etxeakoak zaintzen dituela aita itzuli arte eta baduela bere aitaren berri (44). Beraz, naziek Maurice hiltzean, esan daiteke protagonistaren babesa eta aitarekin duten lotura desagertzen dela. Azkenik, gerrei buruzko liburuetan maiz ikusi dut kontakizunaren amaieran haurrak gerra zer den ulertzen duela, edo gutxienez, gerrari buruzko ikuspegi errealistagoa (eta idealizatu gabekoa) duela. Komiki honetan ere, eta neurri txikiagoan bada ere, Mattin mutikoak gerrako pilotuekin duen idealizazioa aldatu egiten da, konturatzen baita pilotuak ez direla ez jainko ez aingeru, pertsona arruntak baizik: “Lehen uste nuen gailu horien gidariak jainkoa edo aingeruak zirela, baina geure antzekoak dira” (50).

#### **6.2.4.5. Bigarren Mundu Gerra. Beste obra batzuk**

Horago aztertutako lau obra horiez gain, Bigarren Mundu Gerrari erreferentzia egiten dion bosgarren literatur lan bat sartu dut corpusean, baina aztergai dudana gerra gai zentral gisa lantzen ez duenez, aparteko atal honetan sartu dut.

##### **6.2.4.5.1. *Haur besoetakoa. Itsasoan urak handi***

Unai Iturriagaren gidoiarekin eta Alex Sanviren ilustrazioekin osatutakoa da jarraian iruzkinduko dudana 48 orrialdeko komikia, Ikastolen Elkarteak argitara emandakoa 2022an. Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendutako lan hau hiru albumez osatutako “Haur besoetakoa” sailaren parte da<sup>141</sup>. Haur Besoetakoa (HB) eta Lo-Li-Ta dira komiki honetako protagonista gazteak, liburuaren azalean ageri diren bi haurrak. Izen horiekin argi geratzen da Jon Mirande eta Vladimir Nabokov idazleen obrei egindako keinua; baina gainera,

---

<sup>141</sup> Hiru hauek osatzen dute “Haur besoetakoa” saila: *Haur Besoetakoa. Litxarrerien jauna* (2014), *Haur Besoetakoa. Paristik datorren artista* (2018) eta *Haur besoetakoa. Itsasoan urak handi* (2022), hirurak Iturriaga eta Sanviren artean ondutakoak.

izenburuko bigarren atalak Julen lekuonak sortu eta Xabier Letek 1976an argitaratutako abestia dakar irakurlearen gogora. Umorez eta erreferentzia irudimentsuz zipriztindutako kontakizun honetan zehar, ez dira gutxi euskal kultur sistemari egindako erreferentziak.

Aimek, hau da, aita eta amek, Haurren Hiria menpean hartu eta bi protagonistek ihes egingo dute, bizimodu hobea baten bila. Dena den, joaten diren tokira doazela, etsaiekin egingo dute topo. Hiripolisen kartzela ezagutuko dute eta basamortura ihes egin ostean, estatubatuar militarren eskuetan erori eta haien galdeketei aurre egin beharko diete. Erbesteko haurren elkarte sekretua ezagutu eta erresistentziaren parte diren umeekin egon ostean, Klubara abiatuko dira. Izen horren atzean Cuba identifika daiteke aski ongi, itsasontziko banderagatik zein hiriaren izenagatik: Labana (29). Handik etxera bueltan, itsasoaren erdian, txalupa gainean bizirauten ari diren umeak erreskatatuko dituzte eta behin jaioterrira itzulita, hiria menpean hartuta dagoela ikusiko dute. Protagonistak itsasoan dauden bitarteko pasarteetan, Joseba Sarrionandiaren letrak dituen eta Ken Zazpik musikatu zuen *Talaieroaren Gogoeta* kantua irakur daiteke (35-36), nire ustez, agerikoa den salaketa eginez. Beste batzuetan, modifikatuta ageri dira abestiak, baina parodia egiteko asmoa ezkutatu gabe. Horren adibide da Leintx uharteko gizonak abesten duten *Ikusi mendizaleak* abesti herrikoia: “Ikusi irlazaleak, koko ta palmondoak, produktibitatea igo behar dugu, ez nekea, ezta bide txarra, gora! gora! Produkzioa-a-a-a gu, Leintx-ekoak gara, herri hautatua” (6). Esan gabe doa Gipuzkoako Leintz bailarari egiten diola erreferentzia horrek, zeinetan kooperatibismoak indar handia duen.

Zorabio baten ondorioz, bi haurrak ospitalean esnatuko dira eta bertan, Hiripoliseko Harrera Sailburu den Mac On-ek ongietorria eman eta telebistaren aurrean haien drama kontatzeko eskatuko die haurrei (Emmanuel Macron-i egindako erreferentzia egon daiteke horren atzean, irudietako gizonak haren antza ere badu eta). Pasarte hori da tesiaren aztergaiari begira gehien interesatzen zaidana. Helduak iristearekin batera, haurren amesgaiztoa hasi zela kontatuko dute eta pasarte horretako binetako irudian, kontzentrazio-esparrua gogora dakarren irudia agertzen da (12). Batetik, hesitutako tokia delako, bidearen albo banatan borradun zaindariak dituena. Bestetik, sarrerako “Estudiatzeak enginen zaitu libro” horrek kontzentrazio-esparruetako “Arbeit macht frei” lema dakar gogora. Gainera, haurrek marradun uniformeak eramaten eta han sartu orduko, HHko haurrak eta DBHko haurrak bereizten dituzte, kontzentrazio-esparruetan gizonak eta emakumeak bereizten zituzten bezala. Protagonistek handik bizirik ateratzea lortuko duten arren, interesgarria da azpimarratzea Hiripolisen hainbat familia eta auzo ezagutuko dituztela,

horien artean faxistak, irudietan eskuin besoa jasota agurtzen dutenak eta talde txiki eta atzerakoi gisa definitzen direnak (14). Bertan daudela, atxilotu eta Martitzene 13 kartzelara (Martutene presondegia gogorarazten dit horrek) bidaliko dituzte bi protagonistak, zeinetan inongo itxaropenik ez duen Itxaro Peña preso ezagutuko duten, “Ezker Herrarikalekoa, H-rekin” (15). Agian irakurleren batek euskal gatazkari egindako erreferentziatzat joko du pasarte hori. Komikiaren amaieran, protagonistak etxera itzuliko dira, baina aldatuta aurkituko dute bizitokia. Irudietan, segurtasun kamerez eta jagoleez gain, alanbra-hesiz inguratutako eta banderez apaindutako hormak ageri dira (41). Banderek Alemaniako bandera nazia gogorarazten dute, esbastikaren ordeztu marra beltz bat duten arren. Antzekoa esan nezake baloiak josten ari diren haur langile presoak kontrolatzen ari diren zaindarien besokoez (44). Ildo horretan, nazien aurkako kritika sotila aurki daiteke, bereziki ondo jolastu ahal izateko begiko estalkia kentzen ez duten eta berdin jantzita dauden haur nazien irudien bidez (42).

Azkenik, Unai Iturriagaren eta Alex Sanviren komiki honen iruzkinarekin amaitzeko, aipatu nahiko nuke Bigarren Mundu Gerraz zuzenean hitz egiten ez den arren, irudiek ezinbesteko informazioa ematen dutela, zeharka eta modu alegorikoan bada ere, naziek kontzentrazio-esparruetan burututako ankerkeriez hitz egiteko parada ematen dutelako.

### 6.2.5. Frankismoa

Este canto narra a historia dunha triste ditadura  
que vivimos no pasado nunha época escura.  
Unha ditadura crue apoderouse dos pobos  
a xente pasaba fame víase terror nos ollos  
(Tanxugueiras, 2019).

1939an Gerra Zibila amaitu zen unetik 1975ean Franco hil zen arte iraun zuen Frankismoak diktadura zorrotz batean murgildu zuen Hego Euskal Herria, besteak beste, debekuak, zigorrak, errepresioa, beldurra eta heriotza ekarriz jende askoren etxera. Horiek guztiak agertuko dira jarraian aztertuko ditudan lanetan.



### 6.2.5.1. *Herrialde berdea*

1974an Turingraf argitaletxean kaleratutako ipuin hau berezia da oso, Frankismoaren amaieran Torinon (Italian) argitaratu eta klandestinoki egin baitzen haren hedapena Euskal Herrian. Liburuaren paratestuan Iharra izeneko bati ematen zaio izkribuaren egiletza, eta Xanki delako beste bati irudiena, baina horien atzean guardia zibilak hildako Jonan Aranguren (1951-1972) eta José Benito Mujika (1950-1972) etakideak ezkututzen dira hurrenez hurren. Aztergai dudan obra bi egileak hil eta gero eman zen argitara.

#### **Laburpena**

Testu laburrez eta ia orrialde osoa hartzen duten kolorezko irudiz osatua dagoen 5 urtetik aurrerako irakurleentzako obra honek Herrialde berdea izeneko toki batek kanpotik etorritako guda-mutilen ondorioz jasaten duen aldaketaren berri ematen du biltzen dituen 65 orrialdeetan barrena. Modu esplizituan adierazten ez bada ere, Frankismoaz hitz egiten du, bereziki, garai hartan Euskal Herriak jasaten zuen zapalkuntza eta askatasun faltaz.

#### **Harrera kritikoa**

Egia esan, liburua ez dago oso eskuragarri edo haren eskuragarritasuna ohiko bideetatik at dago. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean zortzi bat liburutegitan eskura daiteke maileguan (beste batzuetan dokumentala mailega daiteke) eta erosi ahal izateko, ikusi dudanez aukera gutxi batzuk daude, adibidez, Bilboko DDT Banaketak kultur kolektiboaren bitartez eskuratzea (sarean egin daiteke transakzioa) edo Euskal Memoria Fundazioaren bidez lortzea<sup>142</sup>. Dena den, esan daiteke liburua ez dela oharkabean igaro eta euskal HGL aztertu duten hainbat ikertzailek aipatu dutela haien lanetan, besteak beste, euskal HGLren historia aztertzen duten Xabier Etxanizek (1997a) eta Seve Callejak (1994), edo Eukene Martinek (1997) bere tesian. Azken horrek obraren balio pedagogioak edo eman nahi duen mezua aztertu eta abertzaletasuna areagotzeko ipuina dela azpimarratu zuen. Jose Manuel López Gasenik (2000) ere hitz batzuk eskaini zizkion aztergai dudan obrari eta narrazio tekniken aldetik liburu modernoa dela iritzi zion. Egañak (2023) idatzitako iritzi artikuluan, *Herrialde berdearen* sortze testuingurua deskribatu eta harribitxizat hartzen du obra. Liburu fisikoak Iparraldeko Ikastoletan izan zuen zabalkunderik nabarmenena eta zabalkundeaz ari naizela, ezin aipatu gabe utzi 2011n “Herrialde berdea” izeneko (helduentzako) dokumentala sortu

---

<sup>142</sup> Dena den, Ataramiñe argitaletxeak, bere webgunean liburua eskuragarri jarri zuen formatu digitalean, helbide honetan: <https://www.literaturakoadernoak.org/?p=3324>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

zela, Hibai Castroren gidoi eta zuzendaritzapean. Bertan, egileei buruzko informazioa emateaz gain, liburuari buruzko informazioa ematen da<sup>143</sup>.

### **Analisi narratologikoa**

Errealismo kritiko barruan koka daitekeen liburu honen aurreko azalean, izenburuaz gain, mendiz inguratuta dagoen kostaldeko herri bat ikus daiteke, teilatu gorriak dituen etxe zuriekin. Atzeko azalean berriz, mendi zati baten irudia ageri da, itxaropenarekin lotutako esaldi batekin batera (liburua irakurri ostean zentzua hartzen duena). Portadilla delakoan, izenburuaz gain egileak aipatzen dira, baina ez da legezko-orrian ageri ohi den argitaletxearen, argitalpen-dataren edo tokiaren gaineko informaziorik zehazten. Nabarmenezkoa da azalean ere ez dela egileen informaziorik esplizitatzen. Hitzaurre labur batek ematen dio hasiera, zeinetan kontakizuna munduko herri zapalduetako haur guztiei eskaintzen zaien. Gainera, beren herrian askatasunaren alde egiteagatik giltzapetu dituzten guztiei gorazarre eginten zaie, obraren kutsu politikoa agerian utziz. Narratzaile orojakileak (heterodiegetikoa) istoria kokatzen du hasieran, alegia, zelaiz inguratutako kostaldeko arrantzale herri txiki bat aurkezten du eta garaia eta herriaren izena zehazten ez duen arren, Frankismo garaiko Euskal Herria ageri dela esan daiteke (5). Liburuaren hasierako irudietan herri hori ageri da eta sortze prozesua irudikatzen dela esango nuke, hau da, nola eraiki zuten herri arrantzalea zelai berdearen magalean (7, 9, 11). Amaieran, berriz, irudi horiek errepikatzen dira, baina aldaketa batekin: zelai berdeak hori bihurtu dira (63, 65). Kolore aldaketa hori herriak jasan duen aldaketaren adierazle garbia da eta horren berri ematen da liburuan zehar.

Narratzaileak toki idiliko bat aurkezten du: euriaren eraginez zelai berdez inguratutako leku eder eta baketsu bat, zeinetan eguzkia irten bai baina ez dituen lurrak kiskaltzen. Herri horretan zoriontsu eta adiskidetasunean bizi da jendea eta horien artean Andoniren berri ematen da, anai-arrebekin eta gurasoekin bizi den mutiko gaztea (12, 15, 24). Hemendik aurrera, protagonistari ematen zaio hitza (narratzaile autodiegetikora pasatuz), hark bere familia aurkez dezan, baita herriko ohiturak ere. Pasarte batean aita arrantzalearekin batera ageri da Maren itsasontzian sardina eta bokarta arrantzatzen (16-17), beste batean, berriz, Miren ama eta Edurne arreba ageri dira, sareen konpontze lanetan (20-21), edo Andoni bera ikastolara joan ostean adiskideekin jolasten (22-23). Narratzaileak herri horrek antzina

---

<sup>143</sup> Dokumentala eskuragarri dago Argia aldizkariaren multimedia txokoa: <https://www.argia.eus/multimedia/dokumentala/herrialde-berdea?ids=multimedia/dokumentala/herrialde-berdea>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

jasandako guda baten berri ematen du, baita beste herrietako gatazken berri ere: “Antzina, guda eta gorrotoa ezagutu zuen, bai; herriko zaharrek maiz gogorazten zuten horrelakorik. Kanpora arrain-karreatzaileek ere, beste herrietako gudu eta porrokaldien berri bazekarten” (24). Herritarren momentuko bizimodu zorionsu hori, ordea, inork behin ere ikusi gabeko gudontzi ikaragarri baten etorrerak hausten du (25). Garrantzitsua iruditzen zait irudiei erreparatzea, ke laino beltz handi bat isurtzen duen itsasontzi beltz bat ageri baita (26). Nabarmenduko nuke, nagusitzen den beltz kolore horrez gain, zerrenda hori eta gorriak dituela itsasontziak eta irakurle gazteak agian antzemango ez duen arren, irakurle helduak Frankismoaren etorrera gisa interpreta dezakeela itsasontzi horren iritsiera.

Herritarrek harrera beroa egiten diete heldu berriei, narratzaileak esaten baitu “herri-berdeko jendea, zetozen arrotzentzat adiskide eta bihotz-oneko ze[la]” (29). Hori horrela, guda-mutil gisa aurkezten diren gizonei haien etxeak eskaini eta festa egiten dute (30). Dena den, gerra-mutilak bertan geratu ez eze, gehiago iristen dira eta jatorrizko herritarrak beren zerbitzurako hartzeaz gain, besteen jabetzen jabe egiten hasten dira, baita protagonistaren etxea hartu ere, “gudal-etxe nagusia” bertan jartzeko (31). Eragindako aldaketak oso modu bisualean adierazten dira, izan ere, guda-mutilek herria ezaugarritzen eta nortasuna ematen dioten zelai berdeak beraien herrialdeetatik ekarritako hori kolorez margotzen dituzte (31). Esan gabe doa hori kolore horren inposaketak ñabardura adierazgarria duela eta irakurle abilak erraz lot dezakeela Espainiako banderaren kolorearekin. Gainera, narratzaileak aipatzen du guda-mutilen jatorrizko herrialdeko soro eta zelaiak horiak direla (31), eta hori gutxi balitz, zelaiak margotzen ari diren hegazkin horietako bidoietan espainiako bandera antzeman daiteke (32-33), baita bestelako elementuetan ere<sup>144</sup> (46). Ikus daitekeen moduan, behin baino gehiagotan ematen dira pistak aipatu Espainiarekiko lotura hori egiteko. Koloreekin lotuta, kontraste handia egiten da jantziekin ere. Herrialde berdeko bizilagunen arropa kolore askotakoa da (23, 35), baina ezin gauza bertsua esan guda-mutilei dagokienez, horiak baitira guztiak (32-33, 50). Jantzi horiek uniformetasuna ematen die pertsoneri, norberaren ezaugarri propioak, aberastasunak hein handi batean, ezabatuz. Egia bada ere ideia batzuk modu inplizituan adierazten direla, zenbaitetan narratzailea irakurleari zuzentzen zaio, azalpen zehatzagoak emateko, honako pasarte honetan ikus daitekeen moduan:

---

<sup>144</sup> Kontraste gisa, beste pasarte batean herritarrak zelaietako kolore horia kentzen ageri dira eta bidoi horiek zerrenda gorriak eta berdeak dituzte, ikurrinari egindako keinu gisa uler daitekeena (55).

Eta zergatik hori? Galdetuko duzue. Zergatik nahi lezake herri hori batek, beti berde izan den herri bat hori bihur eraztea? Hau gertatzea gezurra dirudi. Gizon-emakume berekoitz eta handizaleek, ordea, beren bihotzetan daramate gaiztakeria; beti diru eta indar-amets bizi dira, besteen lepotik bada ere. Hortarako, euren ondotik guda-mutilak dakazte (34).

Beste batzuetan, narratzaileak zuzenean ematen ditu irakurle gaztearengan hedatu nahi diren bestelako mezuak, adibidez: “Norberaren herria zerbitzatu eta maitatzeko, beste inorenik zertan zapaldu ez zegoela ohartu ziren” (56). Jarraian datozen pasarteetan egoera okertzen da, izan ere, injustiziaren aurrean guda-mutilengana azalpenak eskatzera joaten direnak erasotu eta atxilotzen dituzte (39), baita zelaietako horia garbitzen saiatzen direnak jazarri ere (40). Atxilotetez eta zigorrez gain, torturaren erabilera iradokitzen da, esaten baita lagun en izen eta gordelekua ateratzearen jendea zigortu zutela (40). Beste asko, diru gosez edo beldurrez, beren adiskideen salatari bihurtu zirela esaten da eta herri zoriontsua beldur, errezelo eta gorroto-leku bihurtu zela (40). Andoni protagonista gaztea guda-mutil batekin hitz egitera ausartzen da, gertatzen ari denaren arrazoia argitzeko asmoz<sup>145</sup> (43) eta badirudi haren pentsaeran eragitea lortzen duela, izan ere, guda-mutilak Herrialde berdean egiten ari direnaz hausnartu eta bere gudari-taldea konbentzitzen du ez dezaten inor gehiago jipoitu eta kartzelan daudenak askatzeko (52). Ekintza horrek, ordea, errepresio handiagoa ekartzen du: heriotza, espetxea eta herritarren ihesaldia, besteak beste (57). Dena den, liburuaren amaiera aldera, Andonirekin hitz egindako guda-mutilak borrokarako deia egiten die Herrialde berdeko bizilagunei, askatasuna eta nortasuna berreskuratzeko helburuarekin, aipu honetan ikus daitekeen moduan: “Egia eta zuzena geuk ditugu; eta behar bezala, eta gure herriak burruka egiteko moduan, erabiltzen baditugu, orduan, sinetsita nago arrunt, konprenitu egin beharko dute ene anaiek; eta zuen herria berde izango da berriro, eta gure bi herriok aske eta beren buruen jabe” (59). Argi geratzen da, beraz, lan honen helburu nagusia euskal haurrak kontzientziatzea dela, protagonistak bezala, beren herriaren eta askatasunaren alde borroka dezaten. Obra alegorikotzat har daitekeen liburu honen amaieran, Herrialde berdeko bizilagunek guda-mutilen aurkako borroka abiatu dutela esaten da eta itxaropenerako atea zabaltzen da, batez ere irudien bidez iradokitzen baita herrialdea bere kolore berdea, bere nortasuna, berreskuratzen hasi dela (61-65). Horren berri ematen du ere kontrazalak, horiz margotutako zelaiaren zati bat berde bihurtu baita eta “nabaritu zuen itxaropena” irakur baitaiteke bertan.

---

<sup>145</sup> Nabarmentzekoa da hika egiten diotela elkarri (44-45).

### **6.2.5.2. Behi euskaldun baten memoriak**

Bernardo Atxagari buruzko informazioa *Sara izeneko gizona* obraren azterketari eskainitako atalean jarri dudanez, ez dut informazio berbera hemen errepikatuko. Dena den, azpimarratu nahiko nuke hala helduei zuzendutako literaturan nola HGLn Atxagak ez diola Euskal Herriak sufritutako garai gatazkatsuenak lantzeari ihes egiten, hanbatetan hartu baititu hizpide gatazka politiko eta armatuak bere lanetan. Hartzaile helduari dagokionez, bereziki aipatzekoak dira *Gizona bere bakardadean* (Pamiela, 1993), *Zeru horiek* (Erein, 1995), *Soinujolearen semea* (Pamiela, 2003) eta *Markak. Gernika 1937* (Pamiela, 2007) liburuak. HGLri dagokinez, Karlistaldien atalean landu dudana *Sara izeneko gizona* (Pamiela, 1996) liburuaz gain, atal honetan aztertuko dudana *Behi euskaldun baten memoriak* (Pamiela, 1991) aipa daiteke. Azpimarratzekoa da nobela horrek Atxagaren obran izan zuen eragina, errealismora eginiko lehen pausua izan baitzen. Obaba zikoaren ondoren, espazio eta denbora ez zehatz haien ondoren, une eta toki konkretu batean aurkitzen da irakurlea lehen aldiz Atxagaren obran (Olaziregi, 1998a; Etxaniz eta López Gaseni, 2008). Horrez gain, azpimarratzekoa da lan honetan idazleak baliatzen duen barne-ahotsaren baliabidea idazlearen ondorengo lanetan aurki daitekeela, besteak beste, lehenago aztertu dudana *Sara izeneko gizonan*.

### **Laburpena**

Izenburuak adierazten duen moduan, Atxagaren obra honek 1940an jaiotako Mo behi euskaldunaren memoriak biltzen ditu eta heziketa-aleberrizat har daiteke. Urteetan aurrera egiten ari dela kontziente izanik, bere barruko ahotsak aginduta, ordura arteko esperientziak papereratzeari ekiten dio, irakurlea gerraosteko giroan murgilduz. Zehatzagoak izateko, 12 urtetik gorako irakurlea helburu duen 178 orrialdeko lan honek Gerra Zibila eta gerraostea ditu hizpide, baina horrekin batera, protagonistak heldutasunerantz emango duen bilakaeraren lekuko izango da irakurlea, baita Balantzategi baserriko misterioarena ere.

### **Harrera kritikoa**

Ezer baino lehen, azpimarratzekoa da Atxaga dela euskal literaturako autorerik emankorrenetako bat (Aldekoa, 2008: 378) eta bera dela gehien itzultitako eta saritutako euskal idazlea (Olaziregi, 2014: 91). Aztergai dudana obraren harrerari dagokionez, ukazina da liburuak izandako arrakasta itzela. Batetik, 1991. urtean Pamiela argitaletxearen eskutik argitaratu zenetik gaur egunera arte 29 argitalpen izan ditu eta Pamielan gehien saldu den liburua izan da, 50.000 ale baino gehiagorekin (Ilintxeta, 2018). Bestetik, itzulpenei

dagokienez, gutxienez 16 hizkuntzara itzuli da. Gainera, IBBYren ohorezko zerrendan dago 1994. urtetik eta HGLko liburu onenen zerrenda ugaritan ageri da, adibidez, Julia Eccleshare editore britainiarrak HGLko historian idatzi diren 1001 libururik onenak biltzen dituen 2008ko bilduman (*1001 Children's Books You Must Read Before You Grow Up*). Esan gabe doa Galtzagorri Elkartek “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela liburua. Hori gutxi balitz, asko dira Euskal Herrian zein atzerrian obra honi buruz egindako lanak. Esandakoaz bat, eleberri honi dagokion harrera kritikoan, dela kritika publikoan, dela akademikoan, liburuak eragindako diskurtso kritiko aberatsa azpimarratu behar da, azken batean, argitalpen espezializatuetan ez ezik, unibertsitateko doktorego tesietan ere izan baitu bere lekua, Olaziregiren (1997) doktorego tesian, kasu. Kritikei begiratu bat emanda, lehenengo eta behin, azpimarratzekoa da obrak harrera beroa izan duela kritikarien aldetik. Amaia Iturbidek (1992) adibidez, haurrentzako liburu egokia dela azpimarratzen du, laxoa; ukitu ingenuo, intrasendente eta dibertigarriagatik batez ere. Egoera garrantzak samurtasunaren kotoiaz lausotzen dituela baieztatzen du, samurtasuna ironiaz nahasten den umoreaz ahaztu gabe. Angel Zelaietak (1992) defendatzen du ezin dela esan liburu hau ez dela Atxagaren beste obren mailara iristen eta gazte literatura izanagatik, balio handikoa dela iradokitzen du, alegia, ez dela hutsala eta xaloa. Gaineratzen duenez, liburuan aurki daitezkeen prosopopeia guztien atzean mami asko aurki dezake irakurleak<sup>146</sup>. Felipe Juaristiri (1992), ordea, luzeegia iruditzen zaio liburua. Aitortzen duenez, kosta egin zaio sartzea, eta kosta egin zaio bukatzea ere, istorio nagusia amaitu ondoren. Gaineratzen duenez, istorio nagusia gustatu egin zaio, baina besteak horren betegarri daudela iruditzen zaio. Kritikekin amaitzeko, esan dezadan Juan Luis Zabalari (1992) ederra iruditzen zaiola mintzagai dudana obra eta “Atxaga-garantia” gordetzen duela azpimarratzen duela<sup>147</sup>. Nazioarteko harrerari dagokionez, deigarria izan zen

---

<sup>146</sup> Zelaietak pasarte bat nabarmentzen du bereziki: narratzaileak La Vache eta bera, “hainbeste denboran elkarrekin ibilitakoak, betirako bereiziko ginen” La Vache “basurdeen taldera pasatu zelako” eta berari “zu ere erdi makala zara” esaten dionekoa. Zelaietak, galdetzen du (nire ustez erretorikoki) ea zer uler daitezkeen pasarte horretan, mami asko duen pasartea iruditzen zaiolako-edo. Bada, ene ustez, oinarrian iradokitzen dena hauxe liteke: behiala lagunak ziren bi kide, ideologia dela medio, banandu egiten direla. Batek (La Vachek) borroka hautatzen du, besteak, berriz, ez, eta idazteari ekiten dio (memoriak idazteari). Hurrenez hurren, Sarrionandia eta Atxaga irakurri dute hor askok. Baina egia esan, hautuak hautu, biek jarraitu dute adiskide izaten, eta estrapolazioak egitea zail da. Ildo beretik, aipatzekoa da Olaziregik (1998a: 160) egiten dituen adierazpenak: “*Arrazoiaren* eta *borrokaren* aldeko bi aukera hauetan ez da zail irakurketa politikoa egitea [...] Liburuaren barne horizontean euskal egoera politikoa ere iradokitzen dela baieztatzen ausartuko ginateke”.

<sup>147</sup> Zabalak egindako kritikaren harira, interesgarria da Ibon Egañak (2013: 363) bere tesian egiten duen hausnarketa. Haren ustez, Atxagari egindako kritikan garbi ikusten da idazleari loturiko kapital sinbolikoaren neurria, hau da, “Atxagaren kasuan datu biografikoetatik edo bizitzaren eta artearen harremanetik bainoago, kanonizazio instituzionaletik datorkio kapital sinbolikoa”. Gaineratzen duenez, Zabalak egindako kritikan, “argia da iruzkintzen den liburuarenak barik, kritikariak darabiltzan kontzeptuak egileari loturiko kapital sinbolikoaren adierazpen direla (“garantia”, “ziurtasun”, “zigilu”).”

Alemanian edo Frantzian izandako arrakasta (Olaziregi, 1997). Gainera, euskal gazteen artean liburu irakurrienetakotzat jo zuen Olaziregik (1998b), ahoz aho zabalduetako aholkuei esker.

### **Analisi narratologikoa**

Errealismo kritikoaren barnean koka daitekeen obra honen azalari erreparatuz gero, izenburuak irakurleak barruan aurkituko duen istorioa kokatzeko laguntza handia eskaintzen du. Batetik, behia euskalduna dela esaten da, kontakizuna Euskal Herrian girotuta dagoela iradokiz; eta bestetik, memoria-ariketa bat kausituko duela iragartzen da. Olaziregik (2000: 53) dioenez, izenburuaren ironia eta erakarmena zalantzarik gabekoak dira: harrigarriro, behi bat da memorien protagonista, eta horrek, ezer baino lehen, irribarrea eragiten du<sup>148</sup>. Atxagak berak izenburuaren zergatia azaldu zuen. Dirudenez, asteasuarra Parisen zegoen eta bi gertakarik baldintzatu zuten izenburu hori: batetik, La vache qui rit gazta-markaren publizitate-kanpainak, eta bestetik, P. A. Kropotkin anarkistaren *Memorias de un revolucionario* liburuaren irakurketak. Olaziregik (*idem*) izenburuaren balizko intertestu nagusietakoa datekeenari ere egiten dio erreferentzia: Ségur-ko Kondesaren *Mémoires d'un âne* (1860) delakoari alegia. Izenburuaz gain, Pedro Osés ilustratzailearen azaleko irudian nahiko hutsik dirudien baserri bat ageri da eta haren ondoan hiru behi: bi gorri eta beltz bat, halakoak baitira irakurleak Balantzategin aurkituko dituenak. Behi gorrien atzetik doana Mo izan daiteke, istorioko protagonista. Deskribatu dudan irudi hori da euskarazko edizio gehienek daramatena. Dena den, 1997ko berrargitalpenak Osésen ilustrazioa daraman arren, marrazkia bestelakoa da. Liburua zabaldu eta frantsesezko aipu bat ageri da hasieran, Frantziako kanta herrikoi bat hain zuzen (2008: 11)<sup>149</sup>. Jarraian, bederatzi kapitulutan banatuta dagoen obra dator. Azpimarratzekoa da atal bakoitzak, izenburuaz gain, laburpen txiki bat dakarrela hasieran. Azkena epilogo antzeko bat dela esan daiteke.

Kontakizuna gerra osteko Euskal Herrian kokatuta dago eta hori esplizituki aipatzen da liburuan: “Hogeigarren mendea da, lagun, edo zehatzago esatearren, 1940. urtea, baina hau Euskal Herria da” (23). Protagonista 1940an jaiotzen da Balantzategi<sup>150</sup> izeneko etxearen terrenoetan (31), alegia, frankismoaren hasierako urteetan. Hala ere, protagonistak bere memoriak idazteari ekiten dionean 50 urte dituela jakinarazten da. Beraz, tarte horretako

---

<sup>148</sup> Antza denez, behiaren hautapenak aukeraketa *pop* bati erantzuten dio Atxagaren liburu honetan. Xehetasun gehiagorako, ikus bedi Olaziregiren (1998a) lana.

<sup>149</sup> Liburua 1991koa den arren, azterketa egiteko erabili dudan edizioa 2008koa da, Fernando Reyren zuzenketa eta berrikuspena dituena.

<sup>150</sup> Balantzategi Bidanian (Gipuzkoan) dagoen benetako baserria da. Istorioko behietako baten izenak, Bidanik, baserria dagoen toki zehatzera eramaten du irakurlea (Olaziregi, 2008b: 212).

gertakariak eskaintzen ditu bere memorietan, hau da, 1940. urtetik 1990. urtera artekoak. Mo behi beltza da istorio honetako protagonista eta narratzaile autodiegetikoa. Pertsonaia biribila da, eleberrian garatzen doana. Hasieran behi inozo bat kausituko du irakurleak, honako aipu hauetan ikus daitekeen moduan: “Arazo asko zituen jendearen arten bizi nintzen orduan, gerraren ondorio larriak bistara zeuden garaian; baina gaztea nintzen, ergela ere bai, eta bizitza arina egiten zitzaidan” (69) edo “oso inuzentea nintzen garai hartan” (70). Hala ere, biziko dituen esperientziei esker heldutasunerantz emango duen bilakaeraren lekuko izango da irakurlea eta Mok autonomia intelektuala eta bere kabuz pentsatzeko gaitasuna erdietsiko duela ikusiko du. Bide horretan, pertsonaia ugarirekin egingo du topo, eta horietako batzuk iruzkinduko ditut jarraian. Batetik, Setatsua aipatu behar da, Moren barruko ahotsa, zeinak erabakiak hartzen laguntzen dion uneoro<sup>151</sup>. Hala ere, ez dio den-dena esaten, Mori bere kabuz pentsatzen ikasi behar duela aipatzen baitio behin eta berriz (99). Bestetik, Moren konfiantzazko laguna izango den La Vache qui rit behia ageri da, Greimas-en sailkapenari jarraiki, *laguntzaile* eta *eragile* funtzio narratiboak betetzen dituen (Olaziregi, 1998a: 159)<sup>152</sup>. Berarekin dagoen bitartean, Moren hezitzaile papera beteko du (gerraren berri emango dio) eta biek batera Balantzategiko misterioa argituko dute poliki-poliki. Olaziregik (2008b: 211) gogorarazten duen moduan, biek biziko dituzten gertaera tragikoen ondorioz, basora ihes egin beharko dute haien bizia salbatzeko, eta ihesaldi horrek bi behien arteko distantzia areagotuko du. La Vache bide biolentoagoa hautatuko du (basurdeekin batzea) eta protagonistak, berriz, bakarrik alde egingo du (152-156). Bakardade hori Morentzat mesedegarria izango dela azpimarratzen du Olaziregik (*ibidem*), helduaroranzko beste pauso bat ematea suposatuko baitu. La Vache atzean utzi eta ezkontza proposamen batetik ihes egindako Soeur Pauline Bernardette mojararekin egingo du topo Mok, eta biak batera komentu batean hartuko dute babes. Protagonistak kontatzen duenez, Paulinek “Europako beste gerra hartan” makientzat lan egin zuen (107), alegia, Bigarren Mundu Gerran. Moja horrek testuaren alderdi linguistikoa biziki aberasten du, izan ere, zubereraz hitz egiten du eta halaxe ematen dira bere elkarrizketak (35). Makiak aipatu ditudala, Serranok (2019: 81) bere tesian egindako hausnarketa ekarri nahiko nuke gogora. Dioenez, euskal literaturan makiak ez dira askotan agertu pertsonaia gisa (salbuespena diren *Behi euskaldun baten memoriak* eta Edorta

---

<sup>151</sup> Olaziregik (2008b: 211) gogorarazten duenez, barne mintzo horren erabilera giltzarri bihurtuko da Atxagak ondoren idatziko dituen lanetan, adibidez, *Gizona bere bakardadean* (Pamiela, 1993) edo *Zeru horiek* (Erein, 1995) obretan. Badirudi Atxagak HGLn egiten dituela esperientziazko ausartenak, eta gero, helduen literaturan aplikatzen dituela baliabide horiek. Baieztapen horri buruzko informazio zehatzagoa aurki daiteke Etxanizek (2007c) Atxagari buruz idatzitako liburuan.

<sup>152</sup> Hala ere, amaieran *aurkakoa* izatera igaroko da, biolentzia eta borrokaren aldeko hautua egitean (Olaziregi, 1998: 158).



Jimenezen *Azken fusila* (1993) eleberriak aipatzen ditu) eta ikertzaileak animatzen ditu haien absentziaren arrazoa ikertzera. Edonola ere, Olaziregik aztertu bezala (2008a), Juanin gisara ezaguna zen makiari egindako onemaldia da eleberria.

Istorio honetako pertsonaia gaiztoa, *aurkakoa*, hirurogei bat urteko Don Gregorio (Morentzat Antiaju Berde) faxista da, kanpotarra. Protagonistak deskribatzen duenez, oso gaiztoa da, izakirik higuinarriena (29), “neure bizitza guztian ezagutu dudan pertsonarik etsaiena”, aitortzen du (43). Horrekin batera, bere laguntzaileak (Mok *hortzaundiak* deitzen dituenak) aipatu behar dira, gaiztoak horiek ere. Aipatutako gizon horiek Balantzategiko baserria zelatatzen dute eta liburuaren amaiera aldera, Balantzategiko jabea den Geneveva atxilotzen dute (129)<sup>153</sup>, zeina alarguna den, gerra bukatzeaz zegoela senarra beste bi soldadurekin batera fusilatu baitzuten (60). Atxiloketa horrez gain, Genevevaren morroia den Usandizaga hilko dute (128). Antiaju Berde eta bere laguntzaileak Balantzategiko etsaiak direla aipatzen du Mok (100-101), bai eta sikarioak direla ere (108, 119). Gainera, baserriaz jabetu eta berehala, Bidani eta beste behi batzuk hilko dituzte eta Mok ere hortzaundien aurka borrokatu beharko du, protagonista hil nahiko baitute (49, 51, 136). Bide batez, Balantzategi da “oraindik errenditu ez den ejerzitoaren almazena” (102). Gudari horiek, aurrerago zehaztuko dudan moduan, mendian ezkutaturik ibiliko dira sabotajeak eginez.

Aurrera egin baino lehenago, azpimarra dezadan aztergai dudana obra nobela-iniziatikoa dela, zeinetan protagonistak helduarora arteko bere bizi-bidaia kontatzen duen. Heldutasunak, nork bere kabuz baliatzeko gaitasuna erdieste esan nahi du batez ere, erabakiak hartzeko gai izatea eta bizitzan autonomiaz jarduteko ahalmena eskuratzea. *Leit motiv* gisa agertzen den mezu horrek ezinbestean eramaten gaitu Kant filosofoaren *Sapere aude!* (ausartu zaitetz zeure kabuz pentsatzera) aldarriarekin lotura egitera (Olaziregi, 2008b: 211). Autonomia intelektuala erdietsi ahal izateko, hausnarketa jakituria bide bilakatuko da behiarentzat, eta Mo horixe izango da heldutasunean: bere kabuz erabakitzeko gauza den behi oso “jantzia” (Olaziregi, 1998a: 153). Liburuaren azken orrialdeetan, idazketa prozesuari buruzko gogoetak plazaratzen ditu Mo behiak eta memoriaren funtzionamenduari buruz hitz egiteaz gain, memoriaren fidagarritasuna zalantzan jartzen du:

---

<sup>153</sup> Antiaju Berdek Geneveva atxilotzen duenean, honako erreakzioa deskribatzen du Mok: “Genevevak burua altxatu zuen kolpetik eta, aspaldiko partez, hitz egiten hasi zen. Zenbat denbora ote zen ezer aditzen ez niola?... asko, dudarik gabe” (130). Orain luzatuko ez naizen arren, aurreratuko dut isiltasunaren kontu hori tesiko corpusean aztertutako zenbait obratan ikusi dudala.

Nahiz asko saiatu, lumak ez baitaki goldearen moduan aurreratzen, ez baitu memoriaren lurra xuxen eta zehazki harrotzen, baizik eta desordenan, baldarki, esan behar direnak hondoratu eta esan behar ez direnak argitara ekarriz [...]. Beraz, arindurik ez dago, gogoratzek edota gogoratua paperean jartzeko lanak ez digu inolako zamarik kentzen. Aitzitik, zama gehiago ekartzen du, askotan harakinaren atzaparra bezala sentitzen dena [...]. Nire memoriok ez dutela egia guztia ezaten, eta horretaz gainera, kezka eta galdera besterik ez didatela sortzen (170-172).

### **Testuartekotasuna eta kontestualizazio historikoa**

Arestian aipatutako lotura horiez gain, nobela testuartekotasun jokoan jositako dago, ondare unibertsaleko hainbat egile eta generorekin lotzeaz gain, euskal tradizioko intertestuak ere aurki baitaitezke. Azken horiekin hasiz, eta aukera guztiak agortzeko inongo asmorik gabe, bereziki aipagarria da Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa* liburuaren izenburua parafraseatzen dela “Poetak esan zuen moduan, ni ez naiz hemengoa” (166) aipuarekin. Esanguratsua da ere “Mundu honetan belar ederrak badira baina bihotzak dio zoaz Balantzategira” (36) aipua, J. M. Iparragirrearen “Adio Euskal Herriari” kantaren parodia, edo “Laguna defendatu egin behar da beti, otsoen kontra, sugeen kontra, arratoien kontra, behi makalen kontra, mingain gaiztoen kontra, esker txarreko jendearen kontra” (72) aipua, Gabriel Arestiren “Nire aitaren etxea” poemaren parodia. Uztapide bertsolariaren aipamena ere egiten da eta hark behin botatutako bertso baten ahapaldiak testuratu dira (171). Ez hori bakarrik, kultura herrikoiarekin lotutako bestelako erreferentziak ere ageri dira, adibidez, esaera zaharrak: “Oriko txoriak Orira nahi” (31). Horrez gain, Bernardetteren senargai Piarresen neska konkistatzeko abesten dituen kantak XVIII. mendeko euskal erromantze ezagunak dira. Besteren artean, *Amorosa konbentuan*, *Zü zira zü* eta *Xarmangarria zira* dira azpimarratzekoak (Olaziregi, 1998a: 165). Ezin aipatu gabe utzi Bernardetteren ahotik ematen diren santuen bizitzak edo *Testamentu Zaharreko* pasarteak, Babelgo dorrearen istorioa adibidez (47). Tradizio unibertsaleko beste zenbait egile ere egiten die erreferentzia Atxagak, izan ere, François Villon poeta frantsesaren poema ezaguna gogorarazten du “Où sont les neiges d’antan?” (27) dionean. Era berean, Arthur Rimbaud poeta ezagunaren obra gogorarazten du asteasuarrak “Cela c’est passé, pasa da guztia, atera naiz infernutik, begi eta bihotz berriekin ikusten dut mundua” (85) dionean. Olaziregiri (*ibidem*, 167) jarraikiz, azpimarratzekoa da liburuan parafraseatzen diren poeta guztiak Paul Verlaine-k argitaratutako *Poeta madarikatuak* (1884) liburuan azaltzen ez badira ere (salbuespen bakarra Rimbaud litzateke), guztiek dutela biografia bat gizartearen begietara *madarikatu* bihurtzen dituen:

exiliatuak (Iparragirre), kartzelatuak (Sarrionandia), homosexualak (Rimbaud) edo gaizkileak (Villon), besteak beste. Beraz, esan daiteke Atxagak *outsider* horiek gogora ekarriz, periferiako literatur tradizioei omenaldi egiten diela. Ez hori bakarrik, baiezta daiteke idazlea bazterreko memoria ari dela azpimarratzen, “counter memory” delakoa (termino foucaultiarra erabiltzearen) edo kontra-errelatoa egiteaz bat.

Girotze historikoari dagokionez, jada aurreko atalean aurreratu legez, kontakizuna 1940. urtetik 1990. urtera arte luzatzen da, baina ez dira gutxi 1936ko Gerra Zibilari egindako erreferentziak. Liburuaren hasieran, Setatsuaren bidez jakinarazten da Euskal Herria gerra batean ibili dela duela gutxi arte eta gose asko dagoela, pobrezia handia (23). La Vachek ere egoera horren berri ematen dio Mori, izan ere, duela gutxira arte Balantzategiko haranean gerran ibili direla azaltzen dio: kanoiak, fusilak, abioiak dena metrailatzen eta jendea hiltzen... (58) eta basoan hiru gizon fusilatu zituztela (60). Ez hori bakarrik, gerra 1936an hasi bazen ere oraindik ez dela amaitu aipatzen dio, ez behintzat bizi diren haranean; gaineratuz oraindik errenditu ez den eta mendian ezkututzen den batailoia Balantzategira zaldiz janari bila ezkutuan jaisten dela eta Espainiako Jeneralaren aurka ari dela (107). Mok jakitera ematen duenez, gizartea oraindik gerraren ondorio larriak jasaten ari da eta arazoek gizartea aztoratzen dute oraindik ere (69). Protagonistak berak gerra horren albo-kalteak jasaten ditu, honako aipu honetan ikus daitekeen moduan: “Gerra osteko egun haietan poza adina izan genuen pena, eta askotan, pena hori latza izan zen” (36). Protagonista eta Bernardette komentuan daudela, Père Larzabal apaiza agertzen da hauei makiekin egin beharreko lan baten azalpena emateko (108)<sup>154</sup>. Bide batez, jakinarazten denez, mendikoek sabotajeekin jarraitzen dute gerran, bonbak jarriz eta trenbideak zenbait egunez moztuz (110). Beraz, Gerra Zibilaz gain, frankismoaren hasierako urtetako egoera azaltzen da aztergai dudan liburu honetan. Atxagaren eleberri honetan espazio esanguratsuak ageri dira, hortzaundiak eta Antiaju Berde biltzen diren errota adibidez (56). Aipatu beharrekoa da errotako bihurgunean hil zutela 1957ko apirilaren 24an Juan Fernandez Ayala (1917-1957), Juanin ezizenez ezaguna zen maki kantabriarra eta modu horretan omenaldia egiten diola Atxagak (Olaziregi, 2008b: 214-215).

---

<sup>154</sup> Piarres Larzabal (1915-1988) benetako pertsonari egiten dio erreferentzia. Azpimarratzekoa da Bigarren Mundu Gerra garaian Alemanian, Polonian eta Txekoslovakian ibili zen eta Euskal Herrira itzuli zenean, nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuela (Zuloaga, d.g.).

### **6.2.5.3. 1948ko Uda**

Jada aurreko atalen batean aurkeztutako Patxi Zubizarretaren *1948ko Uda* (Erein, 2015) liburua 1994an argitaratu zen lehenengoz, SM argitaletxearen eskutik, baina hemen aztergai izan dudana 2015ean plazaratutako berrargitalpena da, zeinak aurrekoarekin alderatuta, hizkuntza eguneraketaz gain, *Egilearen hitzatzea 2015ean* testua daraman erantsita. Esan liteke obra hau mugarri bat izan zela Zubizarretaren ibilbidean, izan ere, egileak berak hitzatzean aitortzen duen legez (Zubizarreta, 2015: 66), liburu hau da idaztera eramana zuena. Ez hori bakarrik, lan honekin 1993an jasotako Bapore Sariari esker klaseak uztea eta literaturatik bizitzea erabaki zuen.

### **Laburpena**

Hamabi urtetik gorako irakurleei zuzendutako 69 orrialdeko obra honetako protagonista Beñat da, hamahiru bat urteko mutiko gaztea. Bi egun barru gizarteko etsamina daukanetz, etxean geratzen da bakarrik, ikasteko asmoz; baina, apunteak alde batera utzi eta gurasoen gelara abiatzen da aitari zigarro bat hartzeko. Aitaren tiradera zabaldu eta gazte baten egunerokoa dirudien liburuxka zahar bat aurkitzen du, kazeta paperez estalia. Kuriositatez, liburuxka irakurtzen hasten da eta bere adin bertuko mutil gazte baten 1948ko udako bizipenak aurkitzen ditu. Kontu batzuk ezagunak eta hurbilekoak zaizkio, maitasunak eragindako zirrara adibidez; baina beste batzuk ordea, ez: gerra edo diktadura, besteak beste.

### **Harrera kritikoa**

Gorago aipatu bezala, liburu honek Bapore Saria jaso zuen 1993an eta lehenengoz argitaratu zenetik, 4 argitalpen izan eta gero, moldaketa batzuen ostean berriz argitaratu zen 2015ean. Lehen argitalpen hura katalanera itzuli zuen Jordi Vidalek *L'estiu de 1948* (La Galera, 2003) izenburupean. Harrera kritikoa dagokionez, Iñaki Aldekoak (Euskal Idazleen Elkarte, 2015) iradokitzen duen legez, liburuaren muinaz gain, paratestuak ere (portadak hain juxtu) garrantzia dauka eta obrari diseinua ematen dion argazkia bikain aukeratuta dagoela azpimarratzen du. Juaristik (1994) dioenez, aita bere egunerokoa kontaktzen duena, azken finean, lehen amodioaren kronika intimoa besterik ez da. Baina, horrez gain, obra osoa kontuan hartuta, liburua Juaristik aipatzen duen hori baino gehiago da. Aldekoaren (Euskal Idazleen Elkarte, 2015) aburuz, ederki dago eramanda gaztetasunaren, maitasunaren eta munduaren deskubrimendua; eta gaineratzen duenez, liburu honetan zoragarriki adierazten du

Zubizarretak Beñat gazteak helduarora ematen duen transformazioa. Azkenik, Albisturrek (2017) liburuak didaktismo implizitu kutsu nabarmena duela nabarmentzen du.

### **Analisi narratologikoa**

Mintzagai dudan obra eskuetan hartu eta Pablo Caracolen portadako zuri-beltzeko argazkiak erakartzen du lehenbizi irakurlearen arreta. Bertan, lehen begiratuan, ortozik dauden bi hanka ageri direla dirudi, zapata pare baten alboan. Baina potreta bigarren aldiz begiratu gero, ikus daiteke ezkerrekoa ez dela oin bat, esku bat baizik. Zubizarretak (Euskal Idazleen Elkarte, 2015) adierazten duen legez, argazkiak ongi islatzen du garai hartan azpikoz gora edo itzulipurdikatua egon zela errealitatea. Lehen edizioko portadarekin alderatuta, aztergai dudan edizioko azala ezberdina da oso. 1994an argitaratutako liburuak Antton Olariagaren ilustrazioa dakar eta bertan, zigarroa ahoan duen mutil bat ageri da, kaxoitik 1948 urtea idatzita duen liburu gorri bat ateratzen duela. Aztergai dudan ediziora itzulita, liburuaren lehen orriak pasata, irakurleak Miguel Delibesen epigrafe batekin egingo du topo, zeinak gerraosteko gose eta itzalak ekartzen dituen gogora (9). Behin nobela errealista honen bihotzera jauzi eginda, bi plano dira nagusi. Batetik, Beñat protagonistaren istorioa genuke, narratzaile orojakile estradiegetikoak kontatua; eta bestetik, haren aitaren gazte garaira garamatzen kontakizuna, aita berak lehen pertsonan idatzia eguneroko forman. Bi plano horiek txandaka harilkatuz josten da nobela osoa. Denbora kronologikoari dagokionez, Beñaten kontakizunak bi eguneko iraupena du (larunbatetik igandera) eta XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera koka daiteke istorioa. Bere aita Josebaren egunerokoak berriz, gerraosteko garaira eramaten du irakurlea<sup>155</sup>. Kontaketa 1948ko uztailaren 2an hasi eta urte bereko uztailaren 19an bukatzen da, nahiz eta kantu zati bat ageri den 1948ko uztailaren 31ko data duen atalean. Aipatzekoa da egunerokoarekin batera, Mexikotik bidalitako 1948ko irailaren 21eko data duen gutun bat aurkitzen duela protagonistak. Kontakizuna Euskal Herrian girotua dago, Larrañetan zehazki. Berau fikziozko espazio literarioa da, baina egileak berak liburu amaieran aditzera ematen duen moduan, bere jaioterri mozarrotua da, Ordizia<sup>156</sup>.

Pertsonaiei dagokienez, Beñat protagonistaz gain bere aitari ere lerro batzuk eskaini behar zaizkiola iruditzen zait, bera baita Beñatek irakurtzen duen egunerokoaren jabea. Azpimarratzekoa da honek ez duela gogoko garai hartaz mintzatzea, izan ere, Beñati “gerra

---

<sup>155</sup> Bitxikeria modura bada ere, aipatzekoa da idazle implizituak oin-ohar baten bidez adierazten duela eguneroko forman ematen den testuaren ulergarritasuna erraztearren, ortografia moldatua izan dela, eta beraz, zuzendu egin direla *1948'ko, guizona, neska-rengana, dijoa* eta horrelako formak, egunerokoa idatzi zen garaiko euskara idatziaren ezaugarri direnak alegia. Era berean, metairuzkin horrek egiantzekotasuna ematen dio istorioari.

<sup>156</sup> Lehenago aztertutako egile beraren *Gizon izandako mutila* obran ere Larrañeta ageri da.

garaiko istoriorik latzenak amak kontatzen zizkion, seguruenik aita baino gazteagoa zelako eta hainbeste sufritu ez zuelako” (34). Aitak gerrako kontuak ez kontatzeak transmisioari uko egitea esan nahi du, hau da, memoria komunikatiboari. Amak, berriz, ez dio uko egiten, ama bezala inportantea iritziko diolako gerraren sarraskiak transmititzeari. Memoriaren transmisio filiatiboa ageri da obra honetan. Gertaera traumatikoak kontatu ahal izateko hartu beharreko distantziaz geroago jardungo badut ere, aipatzekoa da sufrimendua handiegia denean edo gertakizunak gertuegi daudenean belaunaldiak behar izaten direla minari aurre egiteko. Nioen bezala, aitak bere memoriak transmititu nahi ez dizkion arren, zeharka bada ere transmititu egiten dizkio, egunerokoaren bidez 1948ko gizartea ezagutzeko parada baitu Beñatek. Agian irakurleren batek esango luke kasu honetan memoria indibidual baten transmisioa egiten dela, testuinguru sozialaren gaineko informazioa islatzeaz gain aitak maitasun kontuak ere jakitera ematen dituelako. Ikuspuntu horretatik begiratuta, baieztapen horrekin akort egongo nintzateke.

Gerra osteko giroaz gain, ikasketez, eta batez ere maitasunaz, mintzo da liburua. Beñaten aitak neska bat ezagutu zuen liburu dendan, Euskal Herritik artzain joan eta gero Mexikon aberastutako Don Miguelen anaia indianoaren alaba Juana Echenique<sup>157</sup> eta egunerokoan deskribatzen ditu neska horrek eragiten dizkion emozioak (28). Beñatek arretaz irakurtzen ditu bere aitak neskarekiko sentitzen dituenak, eta narratzaileak aditzera ematen duenez, sentimendu horiek ez zaizkio arrotz protagonistari, honek antzekoa sentitzen baitu Estibaliz gertu duenean (29, 50). Esanguratsua da, halaber, nola biltzen diren maiteminduek bi herriren artean dagoen bide bateko eserlekuan, eta nola puskatzen duten eserlekuaren gainean dagoen farolako bonbilla ilunpean musukatzeko (41). 1948ko irailaren 21ean Juanak Beñaten aitari Mexikotik bidalitako gutunean ere maitasun adierazpenak ageri dira (54-56). Juanak elkarrekin pasatako momentuak oroitzen ditu, penaz eta minez, itsaso zabal bat baitute bi maiteminduek tartean. Bitxia da Joanaren hizkera, euskaraz idatzi arren, Mexikoko hizkeratik eratorritako hitzak tartekatzen dituelalako, besteak beste: *desavalorinatu*, *solololesote mío*, *retezoriontsu* edo *corajudoa*. Gutunean Pío Baroja idazlearen *Zalacáin, el aventurero* liburua hartzen du ahotan igorleak, bera Katalina eta Joseba bere Zalacáin txikia dela aipatuz. Beste pasarte batean ere egiten zaio aipamenik obra horri, Juana Echeniquek aipatutako liburua irakurtzen duela ematen baita jakitera, eta agian horregatik maite du Beñaten aitak idazle hori (30). Joanaren gutunaren berri izan aurretik, irakurleak auresan

---

<sup>157</sup> Emigrazio mota hau XIX mendean zehar gertatu zen eta XX. mendeko lehenengo hamarkadetara arte luzatu zen (Paliza, 2009).

dezake neskatoak Euskal Herritik alde egin duela, izan ere, horren berri ematen du Beñaten aitaren egunerokoari amaiera ematen dion kantuak: “Maitetxo itsasoan dago, itsasontzi batean; Maitetxo itsasoan dago, urrutirako bidean” (53). Esan gabe doa aipu horrek kantu herrikoi ezagunarekin egiten duela lotura. Liburuak bestelako erreferenteak aipatzen ditu, adibidez, Txirrita bertsolaria (27) edo *Mila gau eta bat gehiago* liburuko Xerazade (57).

Ez nuke genero aldetik aztertzeko interesgarria izan litekeen pasarte bat aipatu gabe utzi nahi. Berau Beñaten kontakizunari dagokio eta obraren bukaera aldera aurki daiteke: “Beñatek, orain bai, gurasoak etxera bidean imajinatu zituen: aita eta beste gizonen bat aurretik, gauean telebistan emango zuten futbol partidaz mintzo; ama beste emakumeren batekin, mantsoago, modaz edo lan kontuez” (52). Aipu horretan argi bereizten dira gizon eta emakumeen interes ezberdinak: lehenengo kasuan futbola, eta moda zein lan kontuak emakumeen kasuan.

Beñatek goitik behera irakurtzen du aitaren egunerokoa, azken honen gaztaroko munduaren eta berearen arteko alderaketak eginez; eta astelehenean duen gizarteko azterketa prestatu ez, baina aipu honek adierazten duen moduan, argi geratzen zaio diktadura zer den: “Gizarteko azterketan *diktadura* zer den galdetzen badidate [...] horrela erantzungo dut: *Diktadura* da musuak eta kantuak debekatzeko diren garaia” (43). Nire ustez, aipu horrekin egileak debekua gaian jartzen du arreta, hau da, diktadura debekuen garai gisa definituz, Frankismoaren irudi ezkorra ematen du. Liburuko atal hau Beñat bere egunerokoa idazten hasten denean amaitzen da (62) eta nire ustez, gertaera honek egitura zirkularra ematen dio istorioari, izan ere, bere aitaren istorioa ere horrela hasten baita, nagusiak koadernoaren oinarri eta bertan bere eguneko kontuak idazteari ekiten dihonean (13). Horrela, bi plano narratiboan artean dagoen paralelismoa indartzen dela iruditzen zait. Eta ez hori bakarrik, Joanak Joseba maiteari gutuna idazten dion moduan, Beñatek ere, eskutitza idazten dio hainbeste maite duen Estibalizi (59-60).

Obraren azken lau orrialdeak egilearen epilogoak betetzen ditu, *Egilearen hitzatzeak 2015ean* deituriko atalak hain zuzen. Bertan, Zubizarreta lehen pertsonan zuzentzen zaio irakurleari eta hainbat azalpen ematen ditu. Batetik, liburuaren sortze-testuingurua azaltzen du laburki: noiz bukatu zuen idazten (1993an), nola egin zuen izenburuaren hautaketa, orduko hartan non zebilen lanean, nola jakinarazi zioten bere lana saritua izan zela eta abar. Bestetik, kontakizunaren eszenatokia Larrañeta dela aipatzen du, baina aitortzen du, funtsean, bere jaioterri mozarrotua dela, Ordizia (66). Horrez gain, Milan Kundera idazle txekiarraren ideia

bat ekartzen du gogora, zeinak bere ustez, ondo deskribatzen baitu gure gizartearen gabezia handienetako bat: “Zenbat eta azkarrago bizi, orduan eta gehiago ahanzten dugu” (66). Zubizarretak bat egiten du adierazpen horrekin eta honakoa aitortzen du: “Esango nuke harrezkero amnesia horixe izan dela nire lan askoren pizgarria” (66)<sup>158</sup>. Gaineratzen duenez, herrian jasotako adineko lekukoen kontakizunak benetan latzak dira, eta ezagutu beharrekoak. “Beharbada goiztxo da 1936ko gerraren mendeurrena hizpidera ekartzeko; baina, aldi berean, beranduegi da mindura eta oinaze hura guztia oroitzeko” (67), adierazten du idazleak<sup>159</sup>. Atal honen amaiera aldera, Anton Garciak (txikitan *Habana* itsasontzian La Rochelle-ra eraman zuten gizonak) egileari kontatutako pasarte ilun eta gogor bat edesten da:

Behin neska batekin jostatzen ari nintzela, halako zarata bat entzun nuen, eta une batetik bestera ezin ezer ikusi... lehegailu bat izan zen eta espantsioaren indarrak tokitara bidali ninduen [...] neskatila desagertuta zegoen! Jaiki naiz eta burdinazko habe batean haragi zatitxoak ikusi ez ditut ba! Txiki-txiki eginda zegoen, han-hemenka sakabanatuta. Neskabila zen, neskatila gajoa (68).

Gainera, gizon horren aita, herritar baten salaketa medio, Burgosko Haza de Roa herrian fusilatu zutela aipatzen da, eta hildakoaren aitak gorpua sorbaldan jaso eta berak lurperatu behar izan zuela, nahiz eta ez zioten gurutzea ipintzen utzi<sup>160</sup> (68). Garciak bere azal propioan bizi izan zuen gerra, baina okerrena ondoren etorri zitzaion, honako aipu honek adierazten duen legez: “Gerran baino gehiago, gerra ondorenean hasi zen niretzat tragedia, orduantxe ezagutu nuen miseria” (69). Liburuari bukaera (nire ustez) solemnea emateko, Zubizarretak Ordiziako memoria historikoa lantzen duen dokumental baterako sortutako hitzak datoz, errepresioari, askatasunik ezari eta ahanzturari buruzkoak alegia (69).

### **Kontestualizazio historikoa**

Nobelatxo honetan 1948ko bizimodua islatzen da. Garai zaila, Gerra Zibilaren miseriak jasaten dituen gizartea ageri baita orriotan, gudako zauriak sendatu ez eta diktadura zorrotzean murgildurik dagoena. Debekuak dira horren islarik garbienak. Josebaren

---

<sup>158</sup> Baieztapen bertsua egin izan du askotan Saizarbitoriak, bere memoria txarrak idaztera bultzatu duela esanez.

<sup>159</sup> Zubizarretak autofikzioa darabil amaieran, XXI. mendeko eleberri zenbaitek, Gerra Zibila tratatu dutenek alegia, erabilitako baliabidea. Gurean Kirmen Uribe (Ondarroa, 1970) da gehien erabili duena, dudarik gabe, bere eleberri guztietan.

<sup>160</sup> Pentsa daiteke errepublikarra zelako ez ziotela utzi gurutzea jartzen. Hala ere, liburuan aipatzen den legez, gorpua non zegoen jakitearren, josteko makina baten hanka utzi zuten zutik bertan. Bitxikeria modura bada ere, aipatuko dut Asier Mendizabal eskultore ordiziarrek josteko makinaren irudiarekin eskultura bat jarri zuela Haza de Roako hilerrian, eta beste bat Ordizian (68). “Gutxienez, istorioen bitartez Historia harilkatu behararren metafora ederra da” (69).



egunerokoan jakitera ematen denez, eskolan gaztelaniaz bakarrik hitz egin zitekeen eta euskaraz egitea gogor zigortzen zen. Martin lagunari adibidez, euskaraz berba egiteagatik mihia zulatu zioten konpasarekin (21), eta beste bati isuna jarri zion treneko begiratzailleak euskaraz hitz egiteagatik (43). Honakoa dio Josebak: “Amak esaten du kalean nahi dutena egingo dugula; etxean, ordea, lasai asko gurean mintzatuko garela” (43). Hala ere, jakitera ematen denez, Josebak eta Martinek euskaraz egiten dute, nahiz eta ahopeka berba egiten ibili behar diren (43). Horrez gain, gauza jakina da Frankismo garaian euskarazko izenak aldatu egiten zituztela eta horren berri ere ematen da, Beñatek Joseba eta Larrañeta<sup>161</sup> izenez ezagutzen dituenak José eta La Reineta izendapenez ageri baitira egunerokoan (22). Ez hori bakarrik, esplizituki aipatzen da euskal izenak debekatuta daudela (48). Beñat gaztea gehien harritzen duen gertaera pelikulen sailkapenaren kontua da, haietan azaltzen ziren muxu, igurtzi eta zirrien araberkoa baitzen filmen klasifikazioa. Gainera, aitaren egunerokoan irakurtzen duen legez, Frankismo garaian helduak elizara joan behar izaten ziren zinemara joan baino lehenago eta ezin zuten edozein film ikusi (40). Horrekin, elizak eguneroko bizitzan zuen eragina suma daiteke. Gerra ondoko errazionamenduari, estraperloari eta kontrabandoari ere keinu egiten zaio. Batetik, olio estraperloan zekarren gizona aipatzen da, tren geltokian mikeleteek harrapatzen dutena (37). Bestetik, Beñaten aitaren osaba bat gerra ondorenean kontrabandoan aritu zela aipatzen da (26)<sup>162</sup>. Aipatutako pasarte horietan eguneroko bizitza ageri da, edo nahiago bada, fronte domestikoa irudikatzen du egileak.

Frankismo garaian tuberkulosia eguneroko kontua zen eta ez ziren gutxi izan tuberkulosiak eramandako pertsonak<sup>163</sup>. Obra honetan tuberkulosiak jota hiltzen den 7 urteko Agueda neskatala ageri da (17). Pasarte benetan hunkigarria da. Kontatzen denez, Agustinek hiltzear dagoen arreba tapaki batzuetan bildu eta auzokideen etxera eramaten du Aguedak azken agurra eman diezaien. Denek dakite txikia hiltzera doala, baina hala ere, aski era naturalean jokatzeko dute. Hau da agurrean neskatalak botatzen dituen hitzak: “Aingeru ilehori batek bihar berarekin eramango nauela esan dit. Horrexegatik etorri naiz gaur zuek agurtzera” (18). Gauza jakina da liburuan irudikatzen den garaian jende andana hil zela. Arestian aipatutakoa ez da irakurleak obran aurki dezakeen heriotza bakarra, zenbait pasarte baitaude Heriorekin lotuak. Beñaten amak adibidez, pasadizo odoltsu baten berri ematen dio, zeinak

---

<sup>161</sup> Eszenatoki hau berriro ere agertuko da hurrengo atal batean aztertuko dudana Zubizarretaren *Pikolo* liburuan.

<sup>162</sup> Gerra aurretik osaba zertan ibiltzen zen ere aipatzen da, umore finez aipatu ere, esaten baita *Comando Cagalera* delako batean aritzen omen zela borrokan eta taldea hala deitzen zela erasoan hasi aurretik denak kaka dariola egoten zirelako (26).

<sup>163</sup> Tuberkulosiaren aurkako kanpaina erregimen frankistak Gerra Zibilaren hasieratik abian jarritako kanpaina sanitario nagusietako bat izan zen (Molero, 1994: 199).

garai hartako gerra giroagatik biztanleek bizi zuten urduritasuna eta larritasuna adierazten duen. Lehenengo eta behin, aipatzen da auzuneko loroa aldika zalaparta batean “abioiak, abioiak” esaka hasten zela, gerra garaian hegazkin bonbaketariak hurbiltzean jendeak beldurrak airean dena alde batera utzi eta hori oihukatzen zuelako mundu guztia bonbetatik babes zedin (45). Kontuan hartuta loroek behin eta berriz entzundakoa errepikatzen dutela, ezin daiteke ukatu hegazkinen alarma hori askotan pizten zela. Bestalde, kontaktzen denez, behin hegazkinen harrabotsa entzun zen herrian eta jendea trenaren tunelean babestu zen. Baina zoritxarrez, une hartan bertan trena heldu zen eta bonbetatik babesean zeuden guztiak eraman zituen aurretik, txikizio ikaragarri eta odoltsua eraginez (46). Goiko lerroetan aipatutako horregatik guztiagatik, irakurleak primeran jaso dezake gerraosteko garaia berri, baina badago guztia laburbiltzen duen pasarte azpimarragarri bat:

Gerraondoa zen eta, halako sasoi mingarri guztiak bezalaxe, ia gerra bera baino latzagoa: gerraren zauriak oraindik sendatu gabe zeuden; jateko gutxi zegoen (galdetu bestela katuei); eguna joan eguna etorri, familiako askoren berririk ez zen iristen, eta, iritsiz gero, ez ziren oso gozoak izaten...; kalean ez zegoen edozein kantu abesterik, eta aitak zioenez, “kantatzea ere debekatzen hasten den momentutik, malo (34).

Ezin aipatu gabe utzi Beñaten aita gaztetxoa zenean, ulertzen ez zituen zenbait gauza gertatzen zirela bere inguruan. Adibidez, pasarte batean honen aita gauetan irratitari pega-pega eginda eta Radio Paris entzuten egoten zela ematen da aditzera, eta honakoa dio semeak: “Aitak esaten du hemengo berriak ezagutzeko kanpoko irratiak sintonizatu beharra dagoela, baina nik ez diot oso ondo ulertzen” (39). Aipatzen den irradi hori benetakoa da. Kontuan hartzekoa da diktadura frankistak martxan jarritako zentsurak zorrotz zaintzen zituela hedabide guztiak eta beren interesen aldekoa ez zen ezin hedabideren aurka gogor egin zuela. Autoritate frankistentzat nahiko erraza zen erbesteratuek atzerrian argitaratutako liburu eta aldizkarien etorrera saihestea. Hala ere, Gerra Zibileko galtzaileetako askok aukera txiki bat zuten diktadura frankistaren urte zailenetan beren aberria garaileen errepresaliak saihesteko utzi behar izan zutenen ahotsa eta iritzia entzuteko, izan ere, nahiz eta erregimen frankistak ahalegin handiak egin uhinak interferitzen, ia ezinezkoa zen etxe askotan atzeritik igortzen zituzten irratiak saihestea. Igorpen horiei esker, herrialdean bertan gertatzen zenaren berri izan zezaketen herritarrek (Moreno, 2004). Diktadura garaian Radio Paris izenarekin ezagun egin ziren ORTF delakoaren gaztelaniazko saioak (Office de Radiodiffusion-Télévision Française, Frantzia irratia eta telebistaren horniketa publikoaz arduratzen zen erakunde nazionala), zeinetan Frantziako egunkarietan Espainiari buruz

esandakoak jakitera ematen ziren. Aztergai dudan liburuan esaten denez, Beñaten aitak gauez entzuten du irratia, eta arrazoia garbia da: Radio Parisen saioak 23:00 eta 24:00 bitartean ematen ziren.

Amaiera zoriontsua duen Zubizarretaren liburu honetan iragana irudikatzeko modu berreraikitzailea erabiltzen dela, orainaldian kokatzen den Beñat protagonistak iraganeko gertakariak ezagutzen dituelako aitaren egunerokoa miatuz. Prozesu berreraikitzaile horretan, dela aitaren egunerokoak dela gutunak garrantzi handia dauka eta liburuan testu-genero bat baino gehiago txertatzeaz gain, egiantzekotasuna ematen dio istorioari, batik bat lehen mailako informazio-iturri gisa jokatzeko duten dokumentuak direlako, maila fikzionaletan bada ere. Era berean, Beñat protagonistarekin batera, irakurlea ikerketa-prozesuaren parte izatera bultzatzen da. Amaitzeko, esan dezadan arin irakurtzen den liburu honek parez pare jartzen dituela adin bertsuko bi mutilek bizitako maitasun kontuak. Dena den, aitaren egunerokoaren bidez, Frankismo garaiko gizartearen berri jasotzen du Beñatek (eta liburuaren irakurleak). Debekuek, zentsurak, askatasunik ezak, errepresioak, zigorrek, miseriak eta beldurrak ezaugarritutako garai bat irudikatzen du egileak eta memoria historikoa jaso eta transmititzeko beharra azpimarratzen du bereziki Zubizarretaren obrak.

#### **6.2.5.4. *Ikastola armairu barruan***

Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984) idatzi eta Patxi Peláezek ilustratutako *Ikastola armairu barruan* (Elkar/Katxiporreta/Ikastolen Elkarte, 2016) ipuina 10 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta “Lur eta Amets. Euskal Herriaren historia. Ipuinak” bildumaren parte da, zeina guztira 9 ipuinez osatua dagoen. Euskal gatazkari lotutako atalean, bikote artistiko honek ondutako beste obra bat aztertuko dut, kolekzio beraren parte dena alegia<sup>164</sup>. Alberdik, bere aldetik, 2007an ekin zion literatura idazteari, *Aulki bat elurretan* (Elkar, 2007) argitaratzearekin batera. Harrez geroztik helduentzako zein haur eta gazteentzako literatura eman du argitara, baita hainbat sari eskuratu ere: Euskadi Literatura Saria HGL sailean *Besarkada* (Elkar, 2015) album ilustratuarekin, edo saiakeraren alorreko Euskadi Literatura Saria emakume bertsolarien testigantzak biltzen dituen *Kontrako ezarririk* (Susa, 2019) lanarekin, besteak beste.

---

<sup>164</sup> Lur eta Amets protagonista diren literatur lanez gain, kolekzio beraren parte diren bestelako liburuak daude, testu-liburuak, *Lur eta Amets. Euskal Herriaren historia* (Elkar/Katxiporreta/Ikastolen Elkarte, 2015) izenekoa adibidez, zeinetan berrehun orrialdetan Euskal Herriko historiaren berri ematen den euskaldunen ikuspuntutik. Karlismaldiak eta foruen galera, Lehen eta Bigarren Mundu Gerrak, Gerra Zibila, Frankismoa eta euskal gatazka. Horiei guztiei buruzko informazioa ematen da. Proiektu honen baitan, animaziozko film hezitzaileak ere ekoitzi dituzte.

## **Laburpena**

Arestian esan bezala, 10 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago ipuina eta 33 orrialdeetan barrena, Frankismo garaia gerturatzen du irakurlea. Lur eta Amets neba-arrebak dira protagonistak, amona Andererekin batera Sarako bizilekua utzi eta ikastola martxan jartzeko Donostiara abiatzen direnak. Bertan hainbat gauza ikasiko dituzte, baina batez ere, diktaduraren ondoriozko debekuez jabetuko dira.

## **Harrera kritikoa**

Egia esan, argialetxeak berak egindako promozio kanpainez eta sareetan zein paperean egindako berri informatiboez gain, ezer gutxi aurkitu dut, eta beraz, zaila da obrak izandako harrera kritikoa erreparatzea. Euskaraz soilik irakur daiteke istorioa eta 2016an lehenengoz argitaratu zenetik, ez du argitalpen gehiagorik izan.

## **Analisi narratologikoa**

Aurreko azalean bertan Frankismo garaiko beldurra irudikatzen dela esango nuke, etxea miatzera joana den soldadu bat eta haren presentziaren aurrean beldurrez ageri diren Andere amona eta haurrak ageri baitira. Armatutako soldadu frankistak (txapelan arranoa antzematen baita) aurpegikera serioa du eta besteen etxean indarrez sartuko dela dirudi. Liburuaren barnera jauzi eginda, kontakizuna Ipar Euskal Herrian hasten da, Saran bizi den Andere amonak Donostian zigilatutako gutuna jaso eta bilobekin batera Gipuzkoako hiriburura joatea erabakitzen duenean, bertan ikastola berriz ere martxan jartzeko. Kontakizuna diktadura frankistaren lehenengo urteetan girotua dago, 1940. urtearen bueltan, narratzaile orojakileak jakitera ematen baitu pertsonaia nagusiak Saratik Donostiara bidaiatzen ari diren egun berean Franco eta Hitler Hendaiako tren geltokian elkartzekoak direla (6). Gainerako ekintza guztiak, ordea, Donostian gertatzen dira.

Gipuzkoako hiriburura eramango dituen autoaren zain daudela, amonak ordura arte isildutakoa azaltzen die bilobei: gerra aurretik, Errepublika garaian, Donostiako ikastola batean lanean aritu zela, baina atxiloketa eta fusilamenduen ondorioz, arriskua begien aurrean ikusi eta dena bertan behera utzi behar izan zutela, Ipar Euskal Herrira ihes egiteko (4). Irudietan, amonaren oroitzapenak irudikatzen dira: Sutan dagoen hiria bonbardatzen ari diren hegazkinak ageri dira eta argi antzematen da hegazkin faxistak direla (5). Pasarte horiek dira Gerra Zibilaz mintzo direnak. Behin Donostiara lekualdatuta, protagonista gazteek Frankismoa biziko dute. Alde batetik, euskararen debekua ageri da orriotan, adibidez, amonak

Ametsi ahoa estali eta ohartarazten dionean ezin duela kalean *Donostiako hiru damatxo* abesti herrikoia kantatu (8). Halaber, Lur harrituta ageri da kaleetako euskararen presentzia ezaren aurrean (8), eta horiez gain, esanguratsua da aipatzea Donostiako etxean amonak ezkutatuta dituen liburu debekatuak: *Xabiartxo*, *Martin txilibitu* eta *Umeen laguna* (12). Debekuen gainera, amonak ikastola klandestinoak jartzen du martxan bere etxean, baita gau-eskolak ere. Lehenengoari dagokionez, bitxia da amonak ikasleei ematen dien jarraibide sorta, inork galdetuz gero eskolan beharrean amonaren etxean daudela esan behar baitute, zigorrik jaso ez dezaten (16). Gau-eskolei dagokienez, esanguratsua da amonak andereñoen buruz dioena, alegia, dakiena erakusten diela haiek “egunen batean Francoren armairu zaharra ireki dezaten” (30). Klandestinitatean aritzeak pertsonaiengan sortzen duen alerta egoera ere agerian jartzen du ipuinak, esaten baita poliziaren pausua entzun orduko ikastola armairu barruan ezkutatu behar dutela (24). Beste alde batetik, afektu adierazpen publikoen debekua ere ageri da orriotan. Horren adierazle da Gorkak Lurri eskua eman eta apaiz batek haiek eskuak bereiztearekin batera egiten dien errieta, bekaturako bidean daudela esanez (22).

Armairuak, edo armairu itxiaren metaforak, garrantzi handia hartzen du ipuinean, izenburutik bertatik. Bilobetako batek diktadura zer den galdetzen duenean amonaren erantzuna honakoa da: “Armairu itxi batean bizitzea bezalako zerbait” (4). Poliziaren gainean ematen duen definizioan ere armairuaren metafora baliatzen da, horiek baitira, amonaren esanetan, “armairua itxita mantentzeaz arduratzen direnak” (8). Haurrek ere, polizia etxea miaztera doala igartzen badute, armairu barruan sartu behar dute eskola-material guztia (hortik ikastola armairu barruan sartzearen ideia). Polizia (frankista) aipatu dudala, amonak *grisak* deitzen dituenak, azpimarratzekoa da beraiek direla gaizkia errepresentatzen dutenak, beldurra eta ezinegona eragiteaz gain, haiek baitira armaturik ageri direnak (9, 27). Gainera, *aurkari* funtzioa betetzen dute, amonaren jarduna oztopatu nahi baitute. Horiekin batera, Franco eta Hitler aipatuko nituzke, bilobek amonari horiek nortzuk diren galdetuta, beldurrez eta amorruz, erantzuten baitie biboteak jantzitako deabruak direla (7). Irudian bi diktadoreak ageri dira, esbastika handi bat eta bi banderak atzean dituztela, espainiarra eta nazia (7). Irudiei erreparatuta, lehen esan bezala, hegazkin faxistak ageri dira herria bonbardatzen, beraz faxistak irudikatzen dira kaltearen eragile gisa.

Mintzagai dudan ipuinari amaiera eman aurretik, ezin aipatu gabe utzi Lauaxeta pare bat aldiz hartzen dela hizpide. Andere andereñoak (amonak) Lauaxetaren *Mendigoxaliarena* poema ematen die haurrei ikas dezaten eta gaineratzen die olerkaria Francoren tropek hil zutela (26). Argi dago, beraz, kaltearen eragileak nortzuk diren ipuin osoan zehar. Lehenago

aipatu dut amonak ematen diela Gerra Zibilaren berri, baita diktadura garaiko zenbait gauzaren gaineko azalpena ere. Memoriaren transmisio horretan, harreman filiatiboa gauzatzen da (amonak bilobei egindakoa) eta memoria komunikatiboa da ageri dena. Iraganaren transmisioaz ari naizela, bilobez gain, ikastolako ikasleak ere aipatu beharko nituzke, amonak, andereñoaren eginkizunean sartuta, bilobei eta gainerako ikasleei Urgull inguruan izandako borrokaldiaren berri ematen baitie (18). Diktadura modu esperientzian bizi dute protagonistek eta azaldu dudan moduan, haurren ezjakintasunaren aurrean, inguruan bizi duten arriskuez ohartarazten die amonak. Azkenik, azpimarratuko nuke amaiera irekita uzten den arren, itxaropenerako bide ematen duela. Batetik, amonak bilobari segurtatzen dio egunen batean jendaurrean euskaraz abestu ahal izango duela, baita askatasunaren aldeko Lauaxetaren kantua ere (28). Bestetik, amonak etxeko sukaldean lan eta lan jarraitzen duela aipatzen da, amesgaiztoa arrakalatu nahian (32), hau da, bizi duten egoera politikoa aldatzeko lanean.

#### **6.2.5.5. *Hari single bat***

Idoia Garzesek (Lasarte, 1973) idatzi eta Leire Urbeltzek ilustrazioekin osatutakoa da *Hari single bat* (Erein, 2019) obra. Idazleari dagokionez, esan beharra dago ez duela obra oparoa argitaratu, hainbat sariketetara aurkeztutako mikroipuin eta ipuin laburrak alde batera utzita, hemen aztertuko dudana gain, 2019ko Agustin Zubikarai Saria eskuratu zuen *Mendiko gaitza* (Elkar, 2020) helduentzako obra eta *Kukuaren kantua* (Elkar, 2022) argitaratu baititu, azken hori haur eta gazteei zuzendutakoa.

#### **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurleei zuzendutako 140 orrialdeko eleberri honek Arrako izeneko neska gazte batek amaren baserri zaharrera egindako bidaia du abiapuntu. Bertan ganbaran gordetako amonaren kutxa aurkituko du eta aurkikuntza horrek bere familiaren iraganean murgilduko du neskatoa, besteak beste, familiak Gerra Zibil garaian eta osteko urteetan pairatutakoak ezagutuko baititu.

#### **Harrera kritikoa**

Lehenik, azpimarratzekoa da mintzagai dudana lanak Lizardi Saria irabazi zuela. Sariketako epaimahaia osatu zuten Yolanda Arrietak, Miren Agur Meabek, Ramon Olasagastik eta Alex Gurrutxagak fantasiak eta giro onirikoak istorioan duten tokia eta

ametsen eta errealtatearen arteko nahasketa azpimarratu zuten, gaineratuz idazketari darion erritmoak gozagarri egiten duela irakurketa (Txintxarri, 2019). *Behinola* aldizkariak erreseina bat eskaini zion liburuari 43. zenbakian, obrak biltzen dituen gaiak (1936ko estatu kolpea, ondorengo gerra eta gerraostea, gurasoekiko komunikazioa, mitologia, eta feminismoa) nabarmenduz eta Urbeltzen ilustrazioek duten ukitu psikodelikoa eta marrazki batzuek iradokitzen duten 60ko hamarkadako estetika aipatuz (Galtzagorri Elkarteak, 2021a).

### **Analisi narratologikoa**

Liburua eskuetan hartu eta azalak berak transmisioaren gaiari egiten dio erreferentzia. Batetik, izenburuak berak *haria* aipatzen du, literaturan maiz transmisioaren sinbolo izan den elementua. Bestetik, irudian Arrako protagonista ageri da bizkarrez, eskuetan lore sorta bana daramala. Irakurketa sinboliko bat eginez, interpreta liteke lore-sorta bakoitza familiaren adar bana dela, gerratik irabazle irtendako aitaren familiakoa bata eta galtzaile irtendako amaren familiakoa bestea; baina neskatoak, biak batuta (horixe adierazten dute mototsaren alde banatan daramatzan loreek, historia hori berea ere badela), transmisio horrekin aurrera egiten duela, hau da, hariari jarraipena ematen diola. Bidenabar, ezin aipatu gabe utzi izenburuak Itoiz taldearen *Ezekielen prophesia* kantuekin egiten duen lotura (*Hari single bat zara betiko*). Errealtatea eta fantasia uztartzen dituen 29 kapitulu laburrez osatutako eleberri honetan narratzaile heterodiegetiko eta orojakileak ematen du protagonistari gertatzen zaizkionen berri. Espazio eta kronologia zehatzik aipatzen ez den arren, kontakizuna Euskal Herri garaikidean girotua dago.

Oporretan dagoela, amaren baserri zaharrera joan eta amonaren kutxa aurkitzen du ganbaran. Barruan aurkitutako elementu guztietatik ardatzari ematen zaio garrantzia, iruteko erabiltzen den zurezko makilari. Narratzaileak jakitera ematen duenez, ardatza belaunaldiz belaunaldi igaro zen familiako amen eskuetatik alabenera, harik eta transmisioa eten zen arte. Elementu horrek beste berezitasun bat du, Arrakok eskuetan hartu eta berak nahi gabe iruten hasten baita. Ez hori bakarrik, neskatoak kutxa barruan sartu eta denboran atzera eginez amonarengana bidaiatzea lortzen du (52). Ardatzarekin batera, protagonistak 1937ko ekaineko zuri-beltzeko familia-argazki zahar bat aurkitzen du, amonaren familiarena (55). Aurkikuntza horietatik abiatuta, neskatoa galderak egiten hasiko da, etxean inoiz kontatu ez dioten errealtatearen berri jakin nahiko baitu.

Interesgarria da Arrakoren gurasoek hartzen duen jarrera, alabaren galderak erantzun beharrean aldarrikatzen baitute hobe dela sufrimendu garaiak ahaztea (64). Osabak, ordea,

bestelako jarrera bat erakusten du, hura baita amonaren iraganaz hitz egiten diona. Errepresaliatu familia batekoa zen amonak latzak ikusi zituen familia aurrera ateratzeko, “senarra txakurra bezala bide bazterrean akabatu” (65) ondoren, lau umerekin aurrera egin behar izan baitzuen. Egia esan, aitzak iraganeko kontuak ahaztu egin behar direla uste badu ere, ama zalantzati agertzen da, hainbat pasartetan zalantzati ageri baita egia kontatzeari dagokionez. Batzuetan, mingarri egiten zaiolako eta ez duelako alaba penatu eta sufriarazi nahi isiltzen ditu gertatutakoak (65), iruditzen baitzaio hobe dela isilik gelditzea eta haria etenda iraganarekin haustea (78). Dena den, beste pasarte batean ozen oihukatzen du esanez “ahantzurara kondenatzeak ez du[ela] lortuko betiko ahanzteak” (65). Azkenean, baina, ama Arrakoren birramonak pairatutakoa kontatzen hasten da: “Ilea arras moztu zioten eta kalean ibilarazi zuten beste emakume batzuekin batera [...]. Errizino-olioa edatera derrigortu zituzten, eta denen aurrean paseatu, denen aurrean lotsagarri uzteko, gainean egiten baitzuten kaka eta pixa, larriari ezin eutsiz” (78-79). Birraitonaren desagertzearen berri ere amaten da, esaten baita gauzez baserrian sartutako 8 gizonek betiko eraman zutela, hura eragozten saiatu zen semeetako bati eskopetarekin jipoa eman eta gero (81). Gainera, familiak ez zuen inoiz gorpua berreskuratu eta galdetzen ibili zirenean mehatxuak jaso zituen (82). Alabak galdetuta, indarkeria horren zergatia ematen du amak:

Abertzaleak zirelako, gorriak akaso, inorekin ezkontzen ez zirelako, inbidiagatik, inori gaizki begiratu ziotelako [...] ez dago hura ulertaraziko duen arrazoirik. Aitonarekin batera herrian beste bost gizon eraman zituzten, gau-uxaldia eginda, hala esaten zuten haiek, basapiztuez inguruak garbitu zituztela (83).

Protagonistaren aitaren familiak, ordea, bestelako bizipenak izan zituen Gerra Zibil garaian, eta baita ondorengo urteetan ere, garaileen aldekoak izan zirelako eta ez zutelako galtzaileek bizi izandako umiliaziorik eta zigorrik jaso, nahiz eta jakin bazekiten auzokideak jazarriak, menderatuak eta azpiratuak izateaz gain piztiei baino tratu txarragoa emanaz pertsona-izaera bera ere ukatu zietela (100). Dena den, jakitera ematen da aitaren gurasoek kontua ahaztu nahi izan zutela eta aitari ere oso mingarri zaiola bere aitona-amonen iragana. Horren harira, nabarmendu nahiko nukeen ideia bat jartzen da agerian, alegia, ez zirela kanpotik etorri behar izan izuzko errepresioa ezartzeko (92), edo beste hitz batzuetan esateko, auzokoak izan zirela indarkeriazko egoera hori ahalbidetu zutenak. Aitona-amonen jokabide hori mingarria izan arren, Arrakok eskerrak ematen die gurasoei, zauriak ixteko egiten den bezala, oroitzapenak kanpora atera behar direlako zornatu ez daitezen (134).



Liburuaren hasieran, Arrako neskatoa ez dabil ondo historiako ikasgaiari (36), baina kontakizunaren erdialdera, ordea, aditzera ematen da 1936ko gerra eta ondorengo garaia interesatzen zaiola (91), zenbaki eta data hutsen ordean neskatoak historia begi berriekin ikusten duelako; hain zuzen, arbasoen historia ezagutu ostean gertu sentitzen duelako, iragana presente bihurtu zaiolako eta bere egiten duelako hori guztia (87-88). Horrekin lotutako pasarte labur baina esanguratsu bat dago, ekartzea merezi duena: “Iragana hilda dagoela esango dizu jendeak. Pasatako gauzak pasatuta daudela. Baina hori gezurra da. Iragana bakoitzaren barruan bizi da; baina, kontuz, ez zara-eta iraganean bizi behar. Egunerokoa bizi behar da [...], eta jada zure ondoan ez daudenak gogoan eduki” (93). Iragana ezagutzeko beharraz gain, bada eleberri honetan aldarrikatzen den beste gai bat: Mikrohistoriaren beharra eta emakumeen memoriaren aldarrikapena. Urrezko hizki larriz garaileek idazten den historiaren beste aldean, historiak ahanzturara kondentatzen dituen galtzaileak daudela gogorarazten du narratzaileak eta horren guztiaren gainean, galtzaile partikular batzuk jartzen ditu agerian, bizirik iraun eta aurrera atera ahal izateko bereak eta bi egin behar izan zuten emakumeak, haiek eurek egindakoari garrantzirik eman ez arren familia aurrera ateratzeko erresistitu zutenak (89-90). Esango nuke transmisioa dela aztergai dudana lan honen gai nagusia. Arrakok, kutxan sartu eta iraganera jauzi eginda amonarekin elkartzen denean, iruten ikasten du, amona irakasle duela (117). Amonak esplizituki esaten dio haria puskatzen bada ere, bi muturrak hartu eta berriz batu daitezkeela (120-121):

Amonak kontatu zion haria izpi luze eta mehea dela. Izan daitezkeela lotura, batzen dituen lehena eta oraina, eta baita geroa ere, nahi izanez gero. Batzuetan sendoa dela, eta besteetan ahula. Inoiz korapila daitezkeela, eta baita eten ere. Nahi gabe edo nahita (124).

Ezin ukatu sinbolismo handia duela pasarte horrek, izan ere, Arrakoren amak eten duen kate horren aurrean, amona eta bilobak puskatutako haria lotu eta transmisioa bermatzen dute. Biloba da hariaren azken muturra, zeinaren bidez transmisioa bermatuta geratzen den. Garrantzitsua da ere amonak erantzukizunaz dioena: “Gure segida izateak ez duelako esan nahi gure ekintzen arduradun zein erantzule zarenik” (125). Horrekin, aitaren aldeko familiak gerrako galtzaileekin erakutsitako jarrera gaitzesgarria Arrakoren ardura ez dela erakutsi nahi dio amonak. Azkenik, liburuan zehar aurki daitezkeen zenbait testuartekotasun aipatu nahiko nituzke. Batetik, Picassoren *Guernica* ikus daiteke Arrakoren etxeko horman ageri den irudian, nahiz eta tonu arrosa, urdin eta laranja ageri den (28-29). Artelan hori bera ageri da berriz ere amonaren ardatzak gidatuta, neskatoak aurkitzen duen “Infernuko ahoa” kobazuloaren paretetan (70). Bestelako loturak ere egiten dira, esate baterako Erpurutxo,

Hansel eta Gretel (111), Ariadne greziar mitologiako pertsonaia, Teseo eta Minotauro (30-31) edo euskal tradizioko Mamurra izeneko jeinu txikiak (53) azaltzen baitira.

#### **6.2.5.6. Sasi artean Elgeta**

Koldo Izagirrek (Altza-Antxo, 1953) gidoia egin, Dani Fanok (Donostia, 1968) irudiz jantzi eta Ekaitz Agirre “Garluk” (1979) koloristak kolorez hornitutakoa da komiki hau, Ikastolen Elkarteak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak argitaratutakoa 2021ean (lehenago *Xabiroi* komiki-aldizkarian kaleratu zen atalka). Idazleari dagokionez, *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* (Elkar, 1991) liburua aztertzerakoan aipatu ditudan lanez gain, ezin aipatu gabe utzi Izagirrek berak Elgetari buruzko liburu biografikoa eman zuela argitara *Elgeta, sariaren sustraiak* (Trikitixa Elkarte, 2001) izenburupean. Aipatzekoa da ere Fanok koordinazio lanak egin dituela *Xabiroi* aldizkariaren sorreratik bertatik (2005).

#### **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurleari zuzendutako 46 orrialdeko komiki honek Jazinto Rivas “Elgeta” (1906-1964) trikitilari ezagunaren ibilerak kontatzen ditu. Kontakizunak protagonistaren umezarotik hiltzen den arteko tartea hartzen duen arren, bereziki Bigarren Errepublikaren aldarrikapenak, Gerra Zibilak eta osteko diktadura garaiak hartzen dute garrantzia.

#### **Harrera kritikoa**

Ez da ezein hizkuntzara itzuli eta 2021ean lehen aldiz kaleratutakoa izaki, ez da harriztekoa argitalpen bakarra eduki izana. Dena den, esan liteke komikiak ikusgarritasuna izan duela, batez ere Elgetak duen ospe eta garrantziak bultzatuta, literatur sistema barruko eragileen eskutik baino, ikusgarritasun hori euskal kulturgintzako bestelako adierazpideetatik heldu zaion arren. Ildo horretan, Andoni Tolosa “Morau” (2021) idazle eta musikariak Elgetaren figura goraiatu eta haren gaineko lan gutxi dagoela aipatu ostean, izugarri estimatzen du hizpide dudan komiki hau argitara emateko hartutako lana. Asier Sarasua filologo eta blogariak (2022), berriz, egileek burututako kalitatezko lana nabarmentzeaz eta komikia gomendatzeaz gain, kontakizunak dauzkan elipsiek ulermenean sortzen duten zailtasuna azpimarratzen du.

## Analisi narratologikoa

Komikiaren muinean sartu aurretik, nabarmendu nahiko nuke Elgetaren garaiko Eibarko hizkeran idatzita dagoela eta egileek egindako hautu horrek, nire ustez, sinesgarritasuna ematen diola kontakizunari. Horrez gain, euskalkien arteko aldeak antzematen dira, pertsonaia guztiek ez baitute Eibarko euskararen hitz egiten. Billabonako mojak adibidez, gipuzkeraz egiten du (7), baita Donostiako alkateak ere (20). Erregistro aldaketak ere islatzen dira, adibidez, hitanoaren erabilerarekin. Bidenabar, aipa dezadan Badihardugu euskara elkarteko Asier Sarasua eta Aintzane Agirrebeña filologo eibartarrek parte hartu zutela hizkera egokitzapenean. Euskaraz gain, badira latinezko esamolde batzuk, Luzifer pertsonaiak ekoizten dituenak (1924, 26), eta gaztelania ere ageri da frankismo garaia irudikatzen den binetetan, paisaia linguistikoan zein jendearen ahotan (34). Lehen aurreratu bezala, komikiak Jacinto Rivas “Elgeta” trikitilari sozialista famatuaren ibilerak kontatzen ditu. Lehenengo orrialdeetan, Elgeta ageri da haurra dela, Intxuzabalgo baserrian, trikitia eskuan duela (azaleko irudiak ere protagonistaren marrazkia dakar, instrumentua gainean duela). Protagonistaren datu biografikoak ematen dira, hala nola, jaiotze data edo adoptatua izan aurretik zeukan jatorrizko izena (Jacinto Rivas Sainz). Baina horren ostean, komikiak salto bat egin eta errepublika garaia irudikatzen du. Kartelez betetako Eibarko kaleak ikus daitezke eta garaia buruzko informazio aski esanguratsua ematen da horien bidez. Apirilaren 12ko data duen batek, mitin bat iragartzen du, hauteskundeetan bozka ezkerari ematea eskatzeaz batera. Beste batean, berriz, gizon bat ageri da txapela buruan eta ikurrina atzean duela; eta hirugarren kartel batean, honakoa irakur daiteke: “Zoaz Alfonsito, alde. Eibarren inork ez zaitu maite” (15). Horrez gain, bi gizon ageri dira mitina ematen, errepublikaren alde eta erregea kentzeko boto eske. Gogora dezadan Alfonso XIII.a Espainiako errege izan zela harik eta 1931ko apirilaren 14an Bigarren Errepublika aldarrikatu zen arte, eta Eibar izan zela errepublikaren aldarrikapena egin zuen lehenengo herria. Komikian, Elgeta beste gizon batzuekin biltzen da gauzez eta haiek Eibarren errepublika proklama dezala eskatzen diote. Irudietan horixe ikusten da, alegia, udaletxetik espainiar bandera kendu eta bandera errepublikanoa jarri dutela (20). Esango nuke komiki osoan zehar oso argi geratzen dela agerian protagonistaren konpromiso politikoa.

Genero aldetik, iruzkintzekoak diren hainbat pasarte daude. Bineta batean, trikitiaren soinuarekin dantzan ari diren emakume batzuk ageri dira eta esanguratsua da abesten ari direnari erreparatzea: “Munduak bihar dau laster andraren botua: libre izateko da askatzen lotua” (21). Horrekin batera, Estatutuaren alde bozkatzera animatzen duen kartel bat ageri da,

baina kartela bera baino, interesgarria dena haren ondoan ageri den pintada da, zeinetan “Eta androk zuen neskame” irakur daitekeen (21). Euskal Herrian emakumeei ez zitzairen boto eskubiderik aitortu 1931ko urrira arte eta komikian emakumeen sufragioaren aldeko aldarrikapena islatzen da, baita garai hartan emakumeari esleitzen zitzaion rol tradizionalaren salaketa ere.

Komikian hainbat elipsi egiten dira eta narratzailearen funtzioa betetzen duen kartutxorik ez dagoenez (maiz irudiaren zehazgabetasuna zehaztu eta ainguraketa funtzioa egiten duena), kontakizunaren haria ondo jarraitu ahal izateak ahalegin berezia eskatzen dio irakurleari. Ausartuko nintzateke esatera (gehiegizko) elipsi horren ondorioz, garaiko erreferentzia historiko batzuk oharkabean pasatzen direla irakurle gazteenen begietatik. Zehatz ditzadan zeintzuk diren Elgetari bizitzea tokatu zitzaizkion eta komikian islatzen diren gertaera horiek. 1934ko iraultzaz gain (22), 1936an gobernuak agindutako amnistia ageri da, horrela uler baitaiteke Luzifer libertarioa kartzelatik irtetea (25-26). Bineta batean pertsonaia horren ehorzketa ageri da eta lurperatzen ari direla, honakoa adierazten du batek bandera errepublikar artean: “Gaur hemen Eibarko historixia edertu zeban kamarada bat lurperatuko dogu” (20).

Gerra Zibila, eta batez ere, diktadura garaia irudikatzen da, horiek baitira Elgetak hurbiletik bizi izan zituen gatazkak. Bineta batean, Guardia Zibila ageri da, Arrasate eta Elorrio artean dagoen Kanpantzar mendatetik gora furgonetetan, armak eskuan hartuta; eta jarraian, horiek ageri dira jendea atxilotzen, kolpatzen eta tirokatzen (22-23). Haiek dira indarkeria erabiltzen dutenak aztergai dudan komikian. Francoren aldeko aldarriek (32), haren erretratuak (35)<sup>165</sup>, udaletxean jarritako bandera espainiarrak (33) edo gaztelaniaz hitz egiteko aginduak (36) irudikatzen dute ongien diktadura garaia, baita horren aurkako erreakzioek ere. Horrekin lotuta, bizikletan doala diktaduraren aurkako eta langileen egunaren aldeko aldarriak dituen panfleto batzuk botatzen dituen emakumea aipatuko nuke: “Mayatzak 1. Langileen eguna. Etxeko lanik ez! Danok kalera! Diktadurarik ez! Andraliberaziñua!” (42). Aldarri horrek, lehenago aipatu dudan emakumeen aldarrikapenarekin bat egiten du. Esanguratsua da, besteak beste, Donostia irudikatzen deneko pasarte, Kontxako badia bandera espainiarrez beteta ageri baita. Era berean, adierazgarria da La Perlako sarreran bi banderatxo espainiarren artean irakur daitekeen kartela: “Honor a los voluntarios Españoles de la División Azul” (34). Horrekin, egileek Bigarren Mundu Gerrari erreferentzia egiten

---

<sup>165</sup> Pilota partida bat ageri da irudietan eta pilotakada batek Francoren argazkia jo eta kristala hausten duela ikusten da (35). Esanguratsua oso, batez ere, Francoren irudi bat kaltetzeak duen esanahi ideologikoagatik.

diote. Dibisio urdina Espainiar Estatuko boluntarioz osatutako talde bat izan zen, Alemania nazinari laguntza eman ziona eta 1941etik 1943ra bitartean aktibo egon zena.

Arestian aipatutako testuinguru horretan, behin baino gehiagotan agertzen da Elgeta protagonistaren parte-hartzea edo posizionamendua, baita engaiamendu horren ondoriozko kartzelaldia ere. Interesgarria da Eibarko don Francisco apaizari arreta jartzea. Errepublikazaleek sinbolo erlijiosoak kenduko dituzten beldur ageri da hasieran (17), baina elizara jendea erakartzeko Elgeta kontratatzeke asmoa adierazten du (39), nahiz eta jakin badakien errerepublikazalea dela. Ez hori bakarrik, gorrien alde egiten du katoliko tradizional zaleen aurrean (42). Esan daiteke neutraltasun zantzu batzuk agertzen dituela herriko apaizak. Aurrera egin baino lehen, ez nuke aipatu gabe utzi nahi goian aipatutako tokiez gain, bestelako leku batzuk ageri direla, adibidez, Eibarko herriko plaza (17) eta San Andres eliza (39). Iruñea ere ageri da, Errekoleten Plaza identifika baitaiteke irudietako batean (25). Bertako pertsonak ere ageri dira komikian, hala nola Akilino Amuategi eibartar politikari sozialista, protagonista borroka politikoan sartzeraz animatzen duena (37), Toribio Etxeberria politikari sozialista eta idazle Eibartarra (22) edo Romano Etxaburu “Txapasta” pilotari eibartarra (16, 33). Bertakoak ez diren arren, komikian ageri dira Elgetaren ikasle izandako eta gerora ezagun egin zen Faustino Azpiazu “Sakabi” trikitalaria (9), Agirre Lehendakaria (28) eta Donostiako alkate Fernando Sasiaín, izena aipatzen ez den arren, garaia kontuan hartuta, ziurtzat eman daitekeena (20). Horiekin batera, ezin Juan de los Toyos aipatu gabe utzi, komikian izena aipatzen ez den arren, bera da Eibarko udaletxeko plazan bandera errepublikarra jartzen ari direnetako bat (20).

Komikiaren amaierak tonu tristea dauka, ez gizartearen egoera soziopolitikoagatik, ezpada protagonistaren beraren patuagatik: ospitalean egon eta gero (41), handik alde egin eta etxera bidean dagoela ikusten da irudietan, baina aditzera ematen da ez dela bizirik heltzen, komikiko azken orrialdeetan emakume bat ageri baita atsekabe aurpegiz eta negarrez protagonista besoetan hartuta (46). Ez nuke aipatu gabe utzi nahi komikian zehar hainbat abesti zati ageri direla (20, 29, 32), baita bestelako erreferentzia literarioak ere. Adibidez, Luzifer tabernariak Paul Lafargue kubatarrar sozialistaren *Alperkerixa Eskubidea* ematen dio Txapastari (15), *Le Droit à la paresse* izenburupean 1883an argitaratutako obra. Esanguratsua da ere Jon Zabalo “Txiki” irudigilearen marrazkiak dituen kartela, zeinetan Estatutuaren aldeko botoa eskatzen den (21). Amaitzeko, ohartarazi nahiko nuke komiki honetan Elgetak trikitiaren arloan sartutako berrikuntzetako batzuk eta arloan izandako aitzindaritzak aipatzen

direla, baita berrikuntza horiek gizartean sortutako erantzuna ere, nahiz eta analisisan alderdi hori azaldu gabe utzi dudana.

#### **6.2.5.7. *Begi bat kokotean***

Lehenago aztertutako obra batean aurkeztutako Juan Kruz Igerabidek Elena Odriozolaren (Donostia, 1967) ilustrazioen laguntzarekin ondutako liburua da honakoa, 2023an Ediciones Modernas El Embudo argitaletxean kaleratutakoa. Odriozolari dagokionez, bera da aipatu berri dudana argitaletxearen egilea (Gustavo Puerta eta Marta Ansónekin batera). 1997tik jardun osoz aritu da ilustratzaile lanetan eta Mariasun Landaren zein Juan Kruz Igerabideren hainbat lan jantzi ditu irudiz, baita bere egiletzako zenbait obra argitaratu ere. Bi aldiz eskuratu du Ilustrazioko Euskadi Saria, baita Espainiako Ilustrazio Sari Nazionala ere. Horiez gain, azpimarratzekoa da Hans Christian Andersen sarietarako hautagai izan dela 4 aldiz eta finalista 2 aldiz (azkena 2024an), eta 12 aldiz hautagai Astrid Lindgren Memorial Award sarietan.

#### **Laburpena**

115 orrialdeko lan hau 10 urtetik gorako irakurleriari zuzenduta dago eta Igerabidek bere haurtzaroko oroitzapenak baliatuz eraiki du narrazioa. Frankismo garaiko eguneroko bizitza marrazten du egileak orriotan, betiere ume baten begietatik. Erlijioaren eta elizaren presentzia, adiskidetasuna, maitasuna, herriko festak, garaiko janzkera, eskola, askatasunik eza, heriotza eta gaixotasunak dira, besteak beste, orriotan mintzagai hartzen direnak.

#### **Harrera kritikoa**

2023ko urrian argitaratutako liburua izaki, ibilbide laburra dauka aztergai dudana lanak, baina dagoeneko bi hizkuntzatan aurki daiteke, euskaraz gain gaztelaniazko itzulpena argitaratu baitzuen argitaletxe berak, *Con el ojo en el cogote* izenburupean. María Asuero irakasle eta liburuzainak liburuaren eskuizkribua landu zuen ikasleekin eta hark dioenez (2023), protagonistaren eta irakurleen arteko distantzia tenporala handia izanda ere, ikasleek lotura estua sentitu zuten pertsonaia nagusiarekiko. Oroitzapenaren eta fikzioaren arteko itunari buruz Igerabidek epilogoan egiten dituen hausnarketak ere ongi baloratu zituen Asuerok, izan ere, ikuspuntuaren garrantziari buruzko eztabaida ederra sortu zuen. Horrez gain, irakurle gazteengan haien aitona-amonen bizimoduarekiko interesa piztu zuen liburua. Asuerok ondorioztatzen duenez, harrera ona izan zuen Igerabideren obrak gazteengan.

Bestalde, Mikel Ayerbe literatur kritikariak (2023) liburuak sortu dizkion emozio gazi-gozoez hitz egiten du, kontakizunak bere familiako kide helduagoen oroitzapenak gogora ekarri dizkiola aipatzeaz batera. Horrekin batera, obrak eragindako katarsiari egiten dio erreferentzia. Beraz, esan daiteke Igerabideren lan honek publiko zabalarengan eragiteko gaitasuna izan dezakeela, haur zein helduengan.

### **Analisi narratologikoa**

Berezia da Igerabidek ondutako liburu hau. Bera da protagonista eta gaztaroko oroitzapenak kontatzen ditu liburuan. Narratzaile autodiegetikoa da beraz. 50eko eta 60ko hamarkadako kontakizunak biltzen dira orriotan, diktadura frankistaren garai betean Gipuzkoako herri txiki batean (deskribapenengatik Aduna izan daitekeena) gertatzen direnak, egileak berak gibelsolasean zehazten duen moduan (114). Aurreko zein atzeko azalean, kontakizuneko ekintzak irudikatzen dituen haurra ageri da eta irudi horiek berak tartekatzen dira 24 kapituluetan zehar. Paratestuko alderik interesgarrienetako bat, ordea, azalaren barnealdean eta guarda delakoetan datozen argazkiek osatzen dute. Liburuak mintzagai duen garaiko zuri-beltzeko hainbat argazki datoz, irakurle gazteari garaiko gizartea irudikatzen laguntzen diotenak. Kontakizuna diktadura garaian girotuta badago ere, badira Gerra Zibilari egindako aipamenak. Gudak gizonengan eragindako ondorio negatiboak nagusitzen direla esango nuke. Protagonistaren aita, adibidez, kamioiak gidatzen ibili zen, zaurituekin, baita andazain ere (92) eta gerratik bueltan mutil isila bihurtu zen (11), pentsa daiteke bertan bizitako miserien erruz. Esplizituki aipatzen da aita garaituen bandokoa dela (115) eta suposatzekoa da galtzaileen aldean egoteak ez ziola gerraosteko bizimodua erraztu. Badira iruzkintzekoak diren beste bi pertsonaia errepublikazale, Daniel eta Oscar, aitaren lagunak biak, harekin batera ingelesezko edo frantsesezko irratia entzutera biltzen direnak (24-25). Abertzale eta erlijiozalea da Oscar, zeinaren aita alkate nazionalista izateagatik fusilatu zuten (24-25). Daniel, berriz, bere ideiak ezkutatzen ez dituen gizon gisa deskribatzen du protagonistak (24). *Pitas* eskale herrariak ere garrantzia hartzen du pare bat pasartetan. Etsipena eta mina nabari zaion itxura eskaseko gizon gisa deskribatzen da, galtzaileen artean gerran ibilitakoa, familia eta baserria kendu ostean edanari eman ziona (23). Gerrak zeharo kolpatu eta higitutako pertsonaia da.

Garai hartako goseari (60) eta errazionamenduari egiten dio erreferentzia narratzaileak, azaltzen duenean errazionamendu garaian jakiak ezkutatzen zirela baserrietan (30). Adierazpen askatasunik ezaz ere hitz egiten du protagonistak, besteak beste, norberaren

ideiak aldarrikatzeko ezintasunaz (24) edo euskaraz hitz egiteko debekuaz (25). Tentuz ez ibiltzeak ekar zitzakeen arriskuak agerian jartzen dira hainbat pasartetan, narratzaileak kontaktzen baitu aitaren lagun Danielek bere ideiak ezkutatu ez eta norbaitek salatu ostean Guardia Zibilak atxilotuta eraman zuela (73-74). Horrekin batera, interesgarria da nabarmentzea nola gordetzen dituen aitak paper batzuk Guardia Zibila etxetik gertu dabilela entzutean (73) eta protagonistak, zergatia ulertzen ez badu ere, Danielek oparitutako erlojua, errepublikaren aldeko aldarria idatzita daukana, etxean gorde beharko du (72). Debekuekin batera, noski, ez dira garai hartako herritarrek bete behar zituzten aginduak falta, eskolan *Cara al sol* kantatzeko agindua, adibidez, edo hura ez betetzeak zekartzan ondorioak (25). Interesgarria da azpimarratzea protagonistak amaren eskutik jasotzen dituela Gerra Zibilari buruzko pasadizoak, adibidez, zauritutako soldadu bati lagundu zionekoa edo baletatik babesteko, baserriko leihoetan lastairak jarri eta lurtean arrastaka ibiltzen zirenekoak (20). Memoria filiatiboaren eta komunikatiboaren adibide da amaren eta semearen arteko memoria mota hori. Bada beste pasarte bat ezinbestean aipatu behar dena, euskal gatazkaren hasieraren berri ematen baitu:

Aita kamioiarekin N1ean zehar zetorrela, guardia zibilaren kontrol batean gelditu behar izan zuen, ilaran. Ezustean, auto batetik pistola bat agertu zen; guardia zibil batek tiroa jaso zuen, eta autoa ziztuan ihesi abiatu zen. Handik pixka batera, Tolosako Bentaundin metrailatu omen zuten autoa (73).

Gertakizun horrek ETaren lehenengo atentatua dakar gogora, 1968koa, zeinetan kotxean zihoazen bi etakidek (Txabi Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa) José Pardines polizia hil zuten Aduna inguruko kontrol batean. Ordu gutxira Guardia Zibilak Etxebarrieta hil zuen Tolosako Benta Haundin, liburuan aipatzen den tokian. Kontakizuneko jazoera horren ostean, aita Oscar eta Daniel lagunekin bildu zela kontaktzen du protagonistak eta bi lagunek bat egiten dute bide horretatik oso oker doazela baieztatzean (74). Protagonistak ez du ulertzen zer gertatzen den eta bere bideari jarraitzen dio azalpenik eskatu gabe: “Ni eskolara abiatu nintzen, arratsaldeko saiora. Ez nekien zer ote zen hasi berri zen hura, zer ote zihoan hain gaizki; umeok ez genekien ezer misterio hartaz; gerrarekin zerikusia zuela eta berriro hasia zela, besterik ez. Isilik egotea onena” (74). Ikusten den moduan, kontakizun honetako haurrei nahiko arrotza zaie gerra, haiek gerra egitera jolasten dute (101), baina ez dute benetako gerraz informazio askorik.



Gerrarekin lotuta batzuetan baina baita bestela ere, heriotza ageri da hainbat pasadizotan. “Itotakoak” kapituluak (37-42) adibidez, oso modu esplizitu eta naturalean hitz egiten da gaiaz, taburik gabe. Era bertsean kontatzen du protagonistak amona bere aurrean hil zela (82) eta aitonaren heriotzaz (88) edo amaren heriotzaz (110) mintzatzeaz gain, istripuz hil ziren beste haur batzuen heriotzak hartzen ditu ahotan (38, 85). Liburuaren hasieran bertan, protagonistak 5 urteko Miren gelakide eta lagun minaren heriotzaren berri ematen du eta gertaera hark sortu zituen erreakzioak deskribatzen: “Mutikook negar egin genuen; neskek, gehiago” (9). Bestelako gai serioak ageri dira tartekatuta. Horietako bat pedofiliarekin lotutakoa da, zeinetan sakristian bakarrik daudela aprobetxatuta, lehen jaunartzea egiteko prestatzen ari diren haurrei biluzteko eskatzen dien diakonoak (71-72). Iruzkintzea merezi duen beste bat desberdina edo kanpoko izateagatik onartua ez izateari buruzko gogoetak dira (70), egungo eskoletako errealtate anitza kontuan hartuta, zinez eta minez haur eta gaztetxoekin lantzea merezi duen gaia. Aurrera egin aurretik, eta labur bada ere, ez nuke aipatu gabe utzi nahi liburuak irudikatzen duen garaiko haurrek ezagutzen zituzten sortzaileak edo haien lanak aipatzen direla, besteak beste, Pako Ibañez, Imanol eta Amaia Zubiria abeslariak (27) edo Verne, Salgari, Joxe Miel Barandiaran eta Migel Strogoff idazleak (62-63).

Azkenik, oroitzapenaren eta fikzioaren arteko itunari buruz Igerabidek epilogoan egiten dituen hausnarketak iruzkindu nahiko nituzke. Bertan memoriaren garrantzia azpimarratzen du: “Zertarako gogoratu? Izateko. Oroitzapenik gabe, ez gara, pertsona gisa desagertu egiten gara. Oroitzen dugulako gara [...]. Oroitzapen batek beste bat eragiten du” (112). Horrekin batera, haurtzaroa idatziz gogoratzeak ekintza horiek berriz bizitzeko ematen duen aukeraz mintzo da egilea eta irakurleari ohartarazten dio liburu haurtzaroko oroitzapenekin josi duela, baina horrek ez duela esan nahi kontatzen den guztia gertatu zen moduan azaltzen denik, izan ere, memoria tranpatia da batzuetan. Ildo horretan, historiaren eta literaturaren arteko aldeaz honako baieztapena eginez ematen dio amaiera liburuari:

Eskolan eta unibertsitatean irakasten den historia dokumentuetan eta proba zorrotzetan oinarritzen da. Alabaina, denok dakigu dezente aldatzen dela kontalariaren arabera [...]. Literaturak harago jotzen du: gertaeren bizipena interesatzen zaio, gertaeren emozioa. Gertaera berberak ez die berdin eragiten guztiei (114).

### 6.2.5.8. Frankismoa. Beste obra batzuk

Badira zenbait euskal obra diktadurari buruz mintzo direnak, baina Francok 1939 eta 1975 bitartean ezarri zuen diktadurari aipamena egin ordez, gobernu mota horri egiten diote erreferentzia. Horrelakoak, ez dutenez Euskal Herriari esplizituki edo metaforikoki egindako keinurik, corpusetik kanpo utzi ditut. Dena den, jarraian aztertuko dudana obra Euskal Herrian girotuta dago, baina Frankismoari egindako erreferentzia ez denez kontakizunaren muina, aparteko atal honetan ematea erabaki dut.

#### 6.2.5.8.1. 20 Ipuin eta antzerkitxo bat ikastolatarako

Anastasio Albisuk 1975ean Juan José Garmendiaren laguntzarekin argitaratutako 145 orrialdeko ipuin bilduma da jarraian iruzkinduko dudana, izenburuak adierazten duen moduan, ikastolako haurrentzako 20 ipuin eta antzerki obra bat biltzen dituena. Hitzaurrean zehazten den moduan, ipuin batzuk Joxe Migel Barandiaranek argitara emandako moldaketak dira, eta beste batzuk, berriz, egileak aitarengandik jasotakoak. Dena den, tesiari begira interesgarriena liburuaren amaieran datorren “Euskal-Erriaren Etorkizuna...!” antzerki obra da (119-145. or.), zeinetan frankismoari egindako aipamen txiki bat aurki daitekeen. Egia da gai hori ez dela antzezlanaren muina, baina tesiko corpusean antzerkiak duen agerpen urriaz jakitun, ezinbestekoa iruditzen zait lan honen berri ematea. Oharretan zehazten den moduan, ikastolako haurrei ematen zaie protagonismoa, baina irakasleek ere badute haien rola antzerki-lanean. Horiez gain, ezin txistularia aipatu gabe utzi, euskal kantutegian aski ezagunak diren abestiak kantatzen baitituzte pertsonaiek txistulariak lagunduta (*Gernikako arbola*, *Agur Xiberua*, *Aitorren hizkuntz zaharra* eta *Zazpiak bat*). Antzerkiaren hasieran, Euskal Herria aurkezten zaio ikusleari (bere antzinatasuna, natura berdea, biztanleen janzkera eta abar). Jarraian, Aitor agertzen da eszenatokian (euskaldunen aita), Euskal Herriaren etorkizunaz duen kezka zein den jakinarazteko. Jarraian, zazpi euskal probientziek hartzen dute hitza, haien burua aurkezteko. Naparro-ren hitzak ekarri nahiko nituzke hona, esanguratsuak baitira:

Prantzi ta España-arteko bidea nintzalako-edo, nik jaso bear izan nituan, bai alde bateko ta bai besteko erasorik aundienak.. Euskal-erria'k ala ere, ez du gure Erregeen-babesean aiñeko batasunik ezagutu. Baiñan batasun orrek etzuan, bear-aiña, iraun, eta orduan galdu genduan, zoritxarrez, gure askatasuna, Ta gure askatasunarekin gure izkuntza ere..! (127).

Euskal Herriaren zatiketa hainbat aldiz hartzen da hizpide, bertsolariak ere gai horri buruzko bertsoak botatzen baititu: “Gure betiko etsaiak, orde ausi-nairik gure erria, muga biurtu ziguten eta zatitu Euskal-erria..!” (128). Andereñoen (rol hori irakasleak bete behar duela zehazten da antzezlanaren hasieran) hitzetan ere horrelako adierazpen ugari aurki daitezke, adibidez: “Baiñan gure erri onek, Gipuzko'k ezik, muga zabalegiak izan ditu atzerrietako erriekin. Eta ortik asi zan, asi ere, gure Ama-Euskara'ren naigabea. Muga-errietatik kanpora bota bait-zuten lenengo” (133). Ildo horretan, ez dira gutxi Euskal Herriaren batasunaren (eta “Zazpiak bat” leloaren) defentsan egiten diren aldarrikapenak (130), eta lanaren amaieran berriro ere indartzen da ideia hori:

ZAZPIRAK-BAT dira oraindik... Baiñan gure etsaiak ez daude lo. Gure batasuna etzaie atsegin, eta alegin guztiak egiten ari dira gure batasun ori austearren. Eta euskaldun geranon artean, sotu digute burrukarik gaiztoena..! Bai, andereño, bai..! Arriskoan dago gure batasuna (140).

Horrez gain, euskararen aldeko jarrera antzematen da antzerki obra osoan zehar eta frankismo garaian hizkuntza horrek bizitako egoerari egiten zaio erreferentzia. Irakasleak, erdal herriek euskaldunekiko izan duten gorrotoaz ari dela, adierazpen hauek egiten ditu:

Gaur-bertan ez du gure Euskera'k, erriko eskolaetan, sarrerarik. Eta oraindik urte gutxi, zigorkatu egiten zuten eskola oietan, euskeraz itzegiten zuan oro. [...] Ta au da okerrena: ontzat ematen zutela, orduko euskaldun askok eta askok, irakasle aien jokabidea (134).

Adierazpen horiez gain, irakasleak euskararen galera prozesua deskribatzen du, besteak beste, nola egin zioten uko bertakoek euskara esparru akademiko eta formalean erabiltzeari, nola utzi zioten beste askok euskara erabiltzeari edo nola erdaldundu ziren herri asko etorkinen etorreragatik (134-135). Horren aurrean, ikastolan eta ikastolatik kanpo euskarari eusteko gonbidapena egiten zaie haurrei, baina baita entzuleari (gurasoei) ere (137-138). Antzerki lanak duen asmo moralizatzailea edo helburu didaktikoa oso agerian geratzen da hasieratik bertatik eta ikasbideak modu esplizituan ematen dira, baita abestien bidez ere. Gainera, andereñoek mezu ideologikoa azpimarratzen dute etengabe eta halako mezua emanaz ematen zaio amaiera antzezlanari:

Euskaldunok alkaturik biziko geran artean, ez da munduan, Euskal-erria menderatuko duan erririk. Baiñan sakabanatzen baldin ba'gera, etsairik txikienak menderatuko gaitu orduan, ez bait-gera iñor banaka. Baiñan ez aaztu, euskaldun maiteok, euskera dala, gu-danok lotzen gaituan lokarri bakarra. Euskal-erria'k ba, euskerak iraungo duan artean iraungo du, ta ez geiago..! (144).

## 6.2.6. Euskal gatazka

Larunbata ta berriro bidean  
Kamioiak pasa, kotxeak pasa  
Infinitora jartzen naiz begira  
Oroitzapenak nahasten dira

Berrogehi minutuz  
Milaka taupada

Begietara begiratzean  
Hitz egin gabe ulertzen zaitut  
Kristal lodiak ezin du aita  
Gure irrifarra inoiz gelditu  
(Ken Zazpi, 2001).

### 6.2.6.1. *Ainhoari gutunak*

Joseba Sarrionandiak (Iurreta, 1958) idatzitako lan hau 1990ean eman zuen argitara Elkar argitaletxeak, idazlea erbestean zela (Martuteneko kartzelatik ihes egin eta gero). Sarrionandia aski ezaguna da euskal letretan, baita atzerrian ere, besteak beste, bere ibilbide biografikoak haren irakurle ez den jendearen arreta ere bereganatu baitu. Musikari ugari baliatu ditu bere hitzak gerora ezagunak egin diren kantuak sortzeko eta hainbat sortzailek erabili ditu bere lanak ikuskizunak taulartzeko. Sarrionandiak berak atzerriko autore andana eman du ezagutzera euskaraz, hala hizkuntza hegemonikoetan idatzitako egileen lanak itzuliz nola hizkuntza gutxituetako literaturaren berri emanez. Genero anitz landu ditu (poesia, nobela, ipuingintza eta saiakera, besteak beste) eta arras oparoa da hainbat aldiz saritua izan den bere ibilbide literarioa. Helduei zuzendutako lanen artean, Euskadi Saria eskuratu zuen *Moroak gara behelaino artean?* (Pamiela, 2010) saiakera lana, Kritika Saria lortu zuten *Atabala eta euria* (Elkar, 1986) ipuin liburua eta *Lagun izoztua* (Elkar, 2001) eleberria, *Ni ez naiz hemengoa* (Pamiela, 1985) saiakera lana edo *Kolosala izango da* (Txalaparta, 2003) eleberria aipa daitezke. Esango nuke azken hori irakurle gazteek bereganatu duten lana dela, baina jatorriz helduei zuzendutako lana izaki, ez dut tesiko corpusean sartu. HGLri dagokionez, gaur gaurkoz 8 liburu eman ditu argitara, nahiz eta bestelako testu laburrak ere argitaratu dituen<sup>166</sup>. Zalantzarik gabe baieztatu daiteke idazle kakonikoa dela iurretarra eta

---

<sup>166</sup> “Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan” izeneko artikuluan (Urzelai-Vicente, prentsan) Sarrionandiak HGLn egindako ekarpenaren berri eman nuen.

gaineratuko nuke bere lanetan hainbat aldiz hartu duela hizpide euskal gatazka, baita nazioa, kartzela edo erbestea ere. Tesi honetan, *Ainhoari gutunak* lana aztertzeaz gain, *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak* (Pamiela, 2008) lana aipatuko dut, euskal gatazkarekin lot daitekeen ipuin bat ageri baita.

## **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurleria helburu duen 74 orrialdeko liburu honek iheslari batek Ainhoa izeneko neskatoari bidaltzen dizkion gutunak biltzen ditu. Eskutitzen edukia askotarikoa da. Horietako batzuetan presondegia bihurtzen da hizketagai eta kartzelak nolakoak diren, espetxeetan jaiotzen diren haurren errealitatea edo sakabanaketa politikaz hitz egiten da. Beste gutun batzuek erbestez, mugalariez, norberaren sustraiez eta aberriaz hausnartzera daramate irakurlea. Baina errealitatean ardaztutako gai politiko edo sozial horien alboan, ukitu fantastikoagoa duten ipuinak biltzen dituzten gutunak jasotzen ditu liburuak.

## **Harrera kritikoa**

Aztergai dudana lana italieraz (2015ean kaleratua) eta katalanez (2022an argitaratua) aurki daiteke, azken hori Eider Eibarren ilustrazioez lagunduta. Euskarazkoak 12 berrargitalpen izan ditu. Jatorrizkoa argitaratu eta hamarkada batzuk beranduago, beste hizkuntza batzuetara itzuli izana, dozena bat berrargitalpenekin batera (azkena 2019an) liburuak izan duen harrera onaren seinale da. Sarrionandiaren argitalpen guztiek euskal letretan izan ohi duten oihartzuna ikusita, esan daiteke haren lanak ez direla inoiz oharkabean igarotzen. Xabier Etxanizek (1991) obrari interesgarri irizten dio, batez ere hainbat generoren artean egiten den nahasketagatik. Itzulitako bertsioek izandako harrerari dagokionez, ezin izan dut informazio askorik aurkitu, katalanezko bertsioaren gaineko iritzia plazaratu zuen Jaume Cela idazle eta irakaslearena (2022) salbu, zeinak balorazio ona egin eta bai diseinuaren eta baita edukiaren gaineko edertasuna azpimarratzen duen.

## **Analisi narratologikoa**

Liburua eskuetan hartu eta izenburuak berak iradokitzen du genero epistolarra baliatu duela egileak. Horrek, nolabaiteko intimotasuna sortzen du irakurlearen eta testuaren artean, azalean ageri den Ainhoa hurrari zuzendutako gutunen hartzaile bihurtzen baitu irakurlea. Arestian aurreratu dudana moduan, euskal gatazka deitu zaion horri buruz hitz egiten da liburu honetan: gatazkaren jatorriaz, euskal preso politikoez kartzelatan bizi duten egoeraz, presondegietan jaiotzen diren umeez, motxiladun haurren egoeraz, euskal presoen

sakabanaketa politikaz edo gatazkaren ondoriozko ihesaldiaz eta erbesteaz, besteak beste. Egileak berak (1545 argitaletxea, 2022) elkarrizketa batean argitu zuen nor den idazketa prozesuan zehar buruan izan zuen interlokutore imajinario hori. Azaldu zuenez, Martutenetik irten eta Euskal Herrian emandako tarte horretan urtebete inguruko haur bat bizi zen etxe batean egon zen. Ostean, hainbat etxetan egon zen eta gehienetan haur txikiak bizi ziren bertan. Haur horiekiko lotura berezi bat sentitzen zuela eta, mundua azaltzeko beharra sentitu zuen eta haur euskaldun horiek izan zituen buruan idaztean. Liburua 28 gutunez osatuta dago eta horiek dira narratzaileak, justiziatik ihesean ari den iheslariak, Ainhoa neskatoari idazten dizkionak<sup>167</sup>. Beste lagun batekin batera, poliziarengandik ihesean zebilela bere gurasoek ostatu eman ziotela kontatzen dio lehenengo gutunean, eta nola zaintzen zuten ibiltzen ere ez zekienean (7-8<sup>168</sup>). Gutun horretan bertan antzematen da narratzaileak lehen planoan jarri nahi dituela euskal gatazkaren alderdi zehatz baten ondorioak bizi dituzten haurrak, hau da, euskal militanteen seme-alabak (kartzeletan jaiotako umeak, motxiladun haurrak edo euskal militanteei etxea eman dieten familietako haurrak), iradokitzen baitu Euskal Herriko neska-mutilen artean ikusezin geratzen dela haien errealitatea (9). Esanguratsua da ere ondorengo pasarteak:

Beste haur askorekin konfunditzen zaitut, gure herriaren aldeko burrukan, poliziengandik ihes dabilzan euskal militanteei etxea eman dietan familietako haurrei Ainhoa esaten diet. Aita edo ama presondegi hurrinen batetan zergatik daukaten apenas ulertzen duen haurrari; edota izeba edo neba aspaldian non dagoen ez dakienari Ainhoa deitzen diot. Espainiar eta frantziar gobernuen legeak eta larderia euria bezain ohizko eta naturalak balira bezala jasaten dituzten haurrek Ainhoa dute izena. Egunkarira, irratora, telebistara edo leihotik kalera begira, begiak zabal zabalik lehor eta arreak dituzten haurrak Ainhoa dira. Gure gerlako haurrari izkiriatu nahi diot (9).

Nabarmentzekoa da *gure gerla* darabilela Sarrionandiak euskal gatazkari erreferentzia egiteko eta horrek narrazioaren aurrean jartzen duen begirada zein den iradokitzen du. Gainera, Ainhoari bidalitako gutunen igorlea kartzelatik pasatakoa da eta hori bihurtzen da hizketagai zenbait eskutitzetan. Presondegia zein gogorra den azaltzen dio txikiari (35) eta euskaldunentzat gartzela norbere erreferentzietatik apartatzea zaila dela erakusten dio (35-36). *Gerrako haurrei* buruz hitz egiten dio, hau da, espetxeetan jaiotzen diren haur euskaldunei buruz (42). Horrekin batera, gobernuak sakabanaketa politikarekin duen jarrera aipatzen du

---

<sup>167</sup> *Habanako gaukaria* trilogian ere Ainhoa neskatoa ageri da, baina Sarrionandiak berak (1545 argitaletxea, 2022) argitzen du horko neskatoak ez duela zerikusirik mintzagai dudan obrako protagonistarekin.

<sup>168</sup> Aipu guztiak 1991ko ediziotik hartu ditut.

(35-36) eta gobernuaren presioen aurrean amorerik ematen ez duten presoak edo *euskal erresistentzia* humanizatzeko eta duintzeko ahalegina egiten du:

Espainiar gobernuak edo bankeroek *fanatiko* eta *terrorista* direla esaten dute, iraultzaileek *emankor* eta *heroe* direla. Baina gure presoek badakite ez direla ez *terrorista* ez *heroe*, giza tamainuko euskal neska mutilak direla soilik. Eta giza tamainuan duintasun asko kabitzen da (36).

Esan dudana baieztatzen duen beste pasarterik bada, hala nola, El Puerto de Santa Marian zegoela eritutako txoria zaindu zueneko pasarte edo Carabancheleko espetxean zela, patiora erori eta zauritutako kurloi-kumeak hezi eta sendatzen zuten preso ugari zeudela kontatzen duen atala (21-22). Gutun batzuetan erbesteaz hitz egiten da (edo *herbestea* hartzen da mintzagai, Sarrionandiak bere lanetan darabilen grafia hobetsi nahi bada)<sup>169</sup> eta atzerrialdian dagoenak pairatzen dituenak aipatzen dira: erdaretan adierazi beharra eta ondoriozko ama-hizkuntzaren (euskara) galera adibidez (12). Egoera horrekin lotuta, norberaren sustraiez eta aberriaz hitz egiten du narratzaileak (14, 19-20). Euskal Herriaren zatikatzea aipatzeaz batera, mugen aurkako aldarria egiten da, baita nork bere herritartasuna aukeratzeko eskubidea aldarrikatu ere (33-34):

Eta egunen batez Euskal Herria erdibituko duen mugarik ez da izanen eta –ametsetan bezala– mundu zabalean ez da mugarririk altzatuko, eta nahi duena frantsesa izanen da, eta nahi duena espainola, eta inork ez digu euskaldun izatea debekatuko (34).

Mugalariak ere hartzen dira ahotan, esaten baita sarritan hurrek gidatzen dituztela gaez muga igarotzeko batzen diren militante klandestinoak: “Gau ilunetan, berriz, militante klandestinoak –paparrean sugearen eta aizkoraren sinboloa daramatela– hirunaka edo launaka batzen dira muga iragaiteko, eta sarritan haur haietako batek gidatzen ditu” (33). Esanguratsua da nola egiten zaien erreferentzia etakideei. Beste gutun batzuetan ipuinak bidaltzen dizkio neskatoari eta horiek, narratzailearen aburuz, bidaia inizatikoak dira, haur protagonistak familiaren babesa utzi eta arriskuen eskualdera abiatzen delako. Neskatoari etxetik irten, mundu zabalaren aurrean jarri eta lurralde ezezagunean eta bakardadean galtzea beharrezkoa dela azpimarratzen dio, nahitaezkoa dela arriskua, beldurra eta oroimina sentitzea etxera su berriarekin itzultzeko eta ondorengoei suaren balioa adierazteko (23-24). Pasarte horrek lehenago aztertu dudana Sarrionandiaren *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*

---

<sup>169</sup> Erbesteak Sarrionandiaren lanean izan duen eragina eta isla aztertzen du Nerea Eizagirrek 2024an aurkeztuko duen doktorego tesiak.

(Pamiela, 2008) laneko bi istoriorekin lotura dauka, hain zuzen, Iglutik irten eta galduta ibili ostean itsasoa deskubritzen duen Ukalik txikiaren istorioarekin eta suaren bila abiatu eta hura lortuta etxera itzultzen den neska xibaroaren kontakizunarekin. Horrek erakusten du zein den idazle iurretarrak bere irakurleei eman nahi dien mezua. Ipuinak baliatuz, zenbaitetan Euskal Herriko historiaz hitz egiten da, nahiko modu metaforikoan bada ere. Horren adibide da 14. gutuna, zeinetan euskal gatazkari egindako erreferentzia irakur baitaiteke lerro artean:

Antigualean Inperio arrotz batek gure herria okupatu zuelarik, jendea errebelde altzatu zen herriska eta mendietan [...] gure jendeak ez zuen apenas harmarik [sic] Enperadoreari aurre egiteko, eta bere armada handiak bere larderia ezarri zuen nahinon [...] errebelde batzu oihanaren bihotzean zihoaztela, suge bat agertu zitzaian [...] sugea aizkora bat inguraturaz zutitzen zen. Eta sugeak esan zuen: «Har ezazue aizkora hau» [...]. Eta harrez gero gure herriko burrukariak, aizkora harekin, gerla krudel eta luzeari hasiera emanaz, Enperadorearen soldadoei kontra egiten zieten. Behin eta berriro burrukatu ziren, eta erori ziren soldadoak, eta erori ziren errebeldeak, eta gerlak horrela iraun zuen hamaika eta gero beste hamaika urtetan zehar. Harik eta Enperadorearen harmada gogaitu zen arte [...]. Eta gure herri tipira bakea itzuli zen askatasunarekin batera. Eta burrukan ihardunak ziren neska mutilak iada beren etxeetarantza zihoaztela [...] sugea agertu zitzaian berriro, esanaz: «Itzul egidazue utzi nizuen aizkora». Eta errebelde garaile haiek, harriturik, aizkora izugarri hura han bertan lurrean utzi zuten (37-38).

Ezin uka daiteke goiko aipuak euskal gatazkari erreferentzia egiten diola<sup>170</sup>. Interesgarriena amaierako mezua da, nire ustez, iradokitzen baita bere buruaren defentsan altxatu den herriak biolentzia eta armak utziko dituela mandatari arrotzak garaitu ostean. Esan gabe doa liburu hau argitaratu zen garaian borroka armatua bete-betean zegoela Euskal Herrian. Aztergai dudan liburu honetan, Sarrionandiaren lanetan ohikoa den moduan, ugariak dira beste testuekin egiten diren loturak edota beste arte adierazpide batzuetako erreferentziekin egiten diren konexioak. Zinema mutuarekin lotzen diren Stan Laurel eta Oliver Hardy “Argala eta Lodia” (61), Charlie Chaplin (57) edo John Wayne (61) aktoreez mintzo da narratzailea, baita Telesforo Monzonek idatzi eta Mikel Laboak ezagutzera eman zuen *Haize Hegoa* kantuz ere (63). Beste gutun batean, haurtzarora hizpide hartu eta gai horri buruz Rainer Maria Rilke poetak esandakoen berri ematen da (31). Irakurketa gomendioak egiten dizkio zenbaitetan igorleak, adibidez, Antoine de Saint-Exupéry-ren *Printze tipia* eta Atxagaren *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (65). Horrez gain, literatura

---

<sup>170</sup> Irakurle helduak lerro arteko irakurketa hori egingo duen arren, gerta liteke hartzaile gazteari oharkabean igarotzea lotura hori. Bide batez, aizkora hartu eta gerra piztera bultzatzen duen sugearen agerpenak Adan eta Evaren mitoa gogorarazi liezaioke irakurleren bati.



unibertsaleko (inoiz literatura “unibertsalik” egon dela onartuz gero) klasiko bihurtu diren *Gulliverren bidaiak* liburuari buruz hitz egiten dio, azalduz, haurrentzat idatzia ez izan arren, ustekabean bihurtu zela haien gustuko (53). Gulliverrek egindako lau bidaiak aipatu eta *houyhnhnms* edo zaldi arrazionalen lurraldera egindako bidaian egiten du azpimarra; eta puntu honetan, Sarrionandiaren irakurle trebeak iurretarraren *Hnuy illa nyha majah yahoo* (1995) poema liburuarekin egingo du lotura ezinbestean, bereziki zaldiak Gulliverri agurrean botatzen dizkion berbekin. Aipagarria da ere *Robinson Crusoe* liburuari egiten zaion gorazarrea (52), eta bide batez, aipatu nahiko nuke Sarrionandiaren HGLko *Izeba Mariasunen Ipuinak* (1989) lanean ere aurki dezakeela irakurleak Daniel Defoeren obraren aipamena. Zenbaitetan, aipatzen diren obretako marrazkiak txertatzen dira (51, 54, 58, 62).

Narratzaileak haur literaturaren sorrerari buruz hitz egiten dio Ainhoari, gogoraraziz XVII eta XVIII. mendeko haurrentzako literatura gehiena guztiz umekeriazkoa, moralista eta aspergarria zela eta irakurleak asperdurara eramaten zituela amets egitera bultzatu beharrean. Ondorioz, umeei jende helduarentzako liburuak hartu zituzten, horietako asko gaur egun HGLko obra nagusi bihurtu direnak (irabazitako literatura). Haurrei zuzendutako liburu sinplisten ordean, honakoa aldarrikatzen du idazleak: “Hauxe da liburu hobereen ezaugarria: imitazioa eragitea. Irakurleari, leitzearen atseginez gainera, berrizkiriatzeko desira biztea. Literaturarik hobereena kutsakorra da, eritasunik latzenak bezala” (52). Pasarte horien bidez haurren duintasuna eta literatura gozagarriko duten eskubidea aldarrikatzen du. Baina ez hori bakarrik, goiko lerroetan aipatu dut hainbat pasartetan umezaroaren gaia ageri dela eta zehaztu dezaket haurren aldeko deia ere aurki dezakeela irakurleak:

Sarritan nagusiek idiota balira bezala hitz egiten diegu haurrei, erdipertsonak balira bezala, munduan biziko ez balira bezala. Nagusiek asmatu ditugu *umekeriak*, ez haurrek. Umea, bere tipitasunean, pertsona osoa da eta munduarekiko bere jakinmina ase ezinezkoa [...]. Haurren pertsonalitatea zabalik dago, bilakatzen, osatzen ari da [...]. Horregatik ez dizut, Ainhoa, nagusiek haurrei ohi duten bezala panpinei edo pinpilinpausei buruz izkiriitzen (31-32).

Umeei etengabe galderak egiteko duten jaidura hori gorai patzen da liburuan eta erraz antzematen da gai “serioei” buruz hitz egiteko jarrera edo inguratzen gaituen errealitateari buruz hitz egiteko nahia. Horren adibide da, besteak beste, gorago aipatu dudana 14. gutuneko edukia. Horrekin batera, Txema Larreak argitaratutako elezaharren liburu ipuin bat laburbiltzen du narratzaileak gutunean, eta hor ere irakurketa politikoa egin daiteke, Espainiako erregearekin ezkontzeko Espainiara Baxenabarre eraman zuen printzesaren

kontakizuna ageri baita (eta zehazten da ondoren Frantziak Espainiari irabazi ziola gerrate batean)<sup>171</sup>. Baina Euskal Herriak bizitako gerrez gain, narratzailea atzerriko gatazkei buruz mintzo da eskutitzetan. Vietnamgo pobrezia, guda eta iparramerikarrek jaurtitako milioika tona lehergailu aipatzen dira (39-40), baita Namibiako gerra ere. Sahararik, Afganistandik, Palestinatik, Perutik, Sri Lankatik, Guatemalatik edo Turkiatik heltzen diren haurrak hartzen ditu ahotan narratzaileak, desagertu edo haur trafikoan zein haur prostituzioan erortzen direnak (41-42). Sahara bihurtzen da mintzagai gutun batean eta Euskal Herria bezala, koloretako mapetan existitu ez arren, bere independentziaren alde borrokan ari den herri gisa definitzen du narratzaileak. Sahara Mendebaldeko independentziaren aldeko borrokari buruzko datuak emateaz gain, espainiarren 1884ko okupazioa aipatzen da, euskaldun zenbaitek bertan izan zuten inplikazioa saihestu gabe (43-44). Bitxikeria bada ere, Narratzaileak Sahararrek tearekin egiten duten erritu baten berri ematen dio Ainhoari (45), Sarrionandiaren jarraitzaile abilak Gose taldearen *Bederatzi te kikara* abestiarekin lotuko duena. Ezin aipatu gabe utzi hainbat pasartetan gu geu izateko eta geure gisara pentsatzeko (Kanten *sapere aude* aldarria) gomendioa ematen duela narratzaileak. Nork bere luma kantaria eta doinu propio bat asmatzeko ahalmena duela iradoki eta besteen eruedetara ez makurtzea aholkatzen du (69-72). Azkenik, orain arte aipatutakoa kontuan hartuta, argi ikusten da gutunetan gai ugari hartzen direla ahotan eta estiloa ere aldatu egiten da eskutitz batetik bestera. Errealismo zurrunenari jarraikiz ondutako estiloa darabil batzuetan idazleak, baina bada fantasiatik edaten duen kontakizunik ere, estilo poetiko bati atxikitzen zaiona. “Egin ezazu lo, Ainhoa, nik bisita egingen dizut ametsean. Zure ametseko gau zohardian izarniatzen den izar hurrin, gorrizta eta motel hori naiz” (29). Horrelako pasarteetan, beste erritmo bat hartzen du kontakizunak.

#### **6.2.6.2. Pike eta Pitito**

Xabier Agurrutzak idatzi eta Kutxi Romerok irudiz hornitutakoa da jarraian aztertuko dudana obra, Txalaparta argitaletxeak 1994an kaleratutakoa. Idazleari dagokionez, aitortu behar dut jarraian aztertuko dudana liburuaren egiletza izan dela egileari buruz aurkitu dudana informazio bakarra. Dirudienez, ez du beste libururik idatzi.

---

<sup>171</sup> Printzesa horren arima Haize hegoa deitzen dela aipatzen da eta horrek Sarrionandiaren *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak* (2008) obrako Marie Jeanneren elezahararekin lotura egiten du.

## **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurlea helburu duen 101 orrialdeko liburu hau osaba eta iloba txikiaren arteko harremanean zentratzen da. Mikel iloba jaiotzen den momentutik, orduak pasako ditu Fermintxo osabak txikiarekin eta kontatuko dizkion ipuinei esker, errealitateaz jabetzen joango da Mikel.

## **Harrera kritikoa**

Egilearekin aipatu dudan moduan, aitortu behar dut ez dudala liburuari egindako kritika edo erreseinarik aurkitu, eta beraz, zaila dela harrerari buruzko daturik ematea. Dena den, aipatzekoa da obra hau ez dela oharkabean pasa, euskal gatazkara hurbiltzen diren lanen bilketa egiten saiatu diren hainbat adituk aipatu baitute, besteak beste Xabier Etxanizek (2007b) eta Eider Rodriguezek (2019). Dirudenez, edizio bakarra izan du obrak eta ez da beste hizkuntza batera itzuli.

## **Analisi narratologikoa**

Kontakizuna Euskal Herrian girotuta dago (Iriburu eta Berriain dira gertaleku nagusiak) eta ematen diren erreferentziengatik, 80ko edo 90eko hamarkadan koka daiteke kontakizuna. Fermintxo osaba da istorio honetako narratzaile autodiegetikoa (Pitito ilobarentzat) eta fokua Mikel ilobarekin (Pike deitzen dio bere buruari) duen harremanean jartzen da; baina tarteka, euskal gatazkari egindako erreferentziak aurki daitezke orriotan. Liburuaren hasieran, Pike haurra Berriaingo eskolan dabilela aipatzen du osabak eta Olentzero bisitan joan zaiola. Horrekin lotuta, ia oharkabean pasa zaidan eta Etxanizek (2007b) aipatutako pasarte honetan, Euskal Herriak jasaten duen zapalkuntzari keinu egiten zaio: “Olentzero, begi gorri, / Hik ekarri duk Eguberri, / Baita ere zonbat irri, / Alaitzeko Euskal Herri, / Ez egon triste, / ez larri, / Bizia duk miresgarri, / Itxaropena piztuz gogoan, / Libertatea duk sarri” (38-39). Osabak ipuinak kontatzen dizkio txikiari eta kapitulu oso bat hartzen duen “Potoloterria” atalean (39-48), demokrazian eta bakean bizi zen herria aurkezten dio, harik eta herritarrek ulertzen ez zuten hizkuntza batean mintzo zen izaki kanpotarra bere herriko eredia inposatzen saiatu zen arte. Herriko gidaritza hartu nahi zuen Errege delako horren etorreraren ostean, herrialde bereko milaka izaki agertu eta garai latzak ekarri zituzten Potoloterrira. Ondorio latz horiek frankismo garaia gogorarazten dute:

Potolotarren etxe borobilak ia ia desagertu ziren. Eskola karratuetan haurrek hizkuntza berria ikasten zuten. Potolera (honela deitzen baitzen potolotarren hizkuntza) laborari eta baserritar

ezjakinek baino ez zuten hitz egiten. Laster gauza borobilak eramatea debekatu zuten. Ideia borobilak pentsatzea ere bai. Kantu, dantza eta bertso txapelketa haiek ahanzturan erori ziren, eta horrela dena. Potolotar batzuk, ilustratuenak, gizarte berrian integratzen saiatu ziren. Horretarako, haien buruak karratzen entseiatu behar zuten. Karratuki mintzatzen ere bai, zuzenki bizi. Honela Potoloterria ia ia desagertu zen. Haien izaera ere aldatu zuen egoera triste honek. Argaldu ziren, eta malenkoniatsu bihurtu. Triste, ixilak ziren gogoan pena luze eta etsi bat beti. Potoloterria, Karratulandiako probintzia ttipi bihurtu zen. Sei eskualdeak ezabatuak izan ziren, eta laukitan banatu zituzten potolotarren mendi, erreka eta basoak. Lehenengo bidezidor eta xendera bihurriak, karratubide zabal eta zuzenen bidez desagertu ziren. Gero gerrak etorri ziren (46).

Azpimarratzekoa da osabaren istorio horretan potolotar gazteek hitz berriak sortu zituztela (adibidez, elkartasuna eta borroka), eta ekintzak burutu ostean, azkenean, potolotarrek irabazi eta bakoitzak nahi zuen moduan bizitzeko eskubidea lortu zutela, ez ordea heriotzarik gabe (47-48).

Lehenago aipatu dudan moduan, euskal gatazkari egindako hainbat erreferentzia ageri dira. Presoak hamaikagarren aldiz gose-greban ari direla aipatzen da (55), eta horren harira, presoan aldeko manifestazioarekin egingo dute topo osabak eta ilobak. Irudietan manifestazioko irudi bat ageri da, zeinetan *Ez!* dioen kartel baten atzetik doan pertsona multzo bat ageri den (56). Manifestazioa abiatu eta gutxira, poliziaren hainbat kamioneta agertuko dira (57). Etxera bidean, ikusitakoaren gaineko galderak egingo ditu txikiak:

-Zendako itten zuten oihu?

-Lagun batzuk preso dituztelakotz, hemendik oso urrun, eta ezin ikusi...

-Eta argiak?

-Hori polizia duxu.

-Gaixtoak dira?

-Zuk zer uste duxu, Pike? (57-58).

Haurrak isiltasunarekin erantzungo dio osabaren galderari, baina azpimarratzekoa da osabak ez duela balio-iritzirik emango. Dena den, ezin esan osabak bere ideologia transmititzen ez dionik, kontatzen dizkion ipuinek funtzio hori betetzen baitute (haurraren pentsaeran eragitea). Gainera, denbora ugari pasatzen du osabak iloba txikiarekin. Manifestazioa aipatu dudala, ez nuke aipatu gabe utzi nahi presoan aldeko bestelako bilkurak aipatzen direla, esate baterako “Euskal Herrian noizbehinka egin ohi diren manifestazio nazional horietariko bat” (78). Bertan, osabak Txileko erresistentziak argitaratutako Txileko

poster bat erosi zuen, zeinetan hiru haur txiro ageri ziren, txiletar iraultzaileek idatzitako honako esaldiarekin: “El bienestar de los ricos de este mundo descansa sobre esta situación. Estos niños sabrán cambiarla” (79). Narratzaileak kontatzen duenez, iloba maiz geratzen zen posterrari begira eta pobreziaren zergatiaz galdetuta, osabak erantzun biribila ematen zion: batzuk pobreak direla beste batzuk aberatsak direlako (80). Ikusten den moduan, osabak uneoro hartzen du jarrera kritikoa inguratzen dituen gauzekiko eta txikiak, poliki-poliki bereganatzen ditu osabaren mezuak. Pobreziarekin jarraituz, Iriburuko Udala bere eremuetan zeuden ijito eta portugaldar pobre guztiak kanporatzen hasi zela aipatzen du osabak eta gaineratzen du *Txapelokerrak* (halaxe deitzen dio Guardia Zibilari) zirela horretaz arduratzen zirenak (80). Pike ere giroan zegoen arrazakeriaz kutsatzen hasi zela kontatzen du osabak eta bere jarrera aldatzeko asmoz egindako errietaren berri ematen du, esaten baitio bera eta posterreko haurrak ijitoak direla (81-82). Pentsatzekoa da osabaren hitz horiek eragin nabarmena dutela haurraren pentsaeran.

Bestelako gizarte arazoak ere aipatzen dira, adibidez, euskararen egoera diglosikoa eta gaztelaniaren nagusitasuna (89-90). Hizkuntza aipatu dudala, esan dezadan osaba eta ilobaren arteko hizkuntzak berezitasun bat duela, haien arteko elkarrizketak euskalkian emateaz gain, “Olentzero torriko da ta manen dizkit jostailu aunitz” (35), xuka egiten diolako Pititok Pikeri, harik eta gutun batean esaten dion arte jada mutil egin dela eta hortik aurrera toka egingo diola (97). Ez nuke aurrera egin nahi heriotzak kontakizun honetan duen presentziaz hitz egin gabe. Pikek hiru urterekin galduko du amona, minbiziak jota (50). Hasieran, txikiak ez du ulertuko zergatik ez den itzultzen amona, baina Pitito osabak ipuin bat kontatuko dio, zeinetan azalduko dion amona izarretara joan delako ezin dela bertatik itzuli (51-53). Beranduago, Pikereren beste osaba bat hilko da eta txikiak osaba amonarekin batera izarretara joan den galdetuko du (69). Pasarte horretan ikusten da txikiak heriotza guztiz ulertzen ez duen arren, osabaren ipuinei esker itzulezintasunaren kontzeptua bereganatu duela.

Egun batean, Pititoren lagun bat (Kalparluzea) haien etxean agertuko da, Iñaki eta Josu erori direla eta, berehala alde egin behar dutela ohartaraziz: “Oraintxe bertan Iriburutik heldu nauk, tiroka sartu dittuk zakurrak horko pisu batean” (95). Egia esan, ez da esplizituki esaten nortzuk diren erori direnak eta zein lotura duten horiek osabarekin, baina narratzailearen hitzek pista batzuk eman ditzakete osabaren ihes egiteko beharraren zergatia ulertzeko: “Kalparluzerekin mintzatu nintzen: ez zegoen duda izpirik, gure arteko negozio ezkutuek agerian behar zuten, nonbait... hanka egin behar genuen, eta segundurik galdu gabe!” (96). Bide batez, azpimarratzekoa da *zakurrak* deitzen diola Kalparluzeak poliziari.

Aditzera ematen da ihesera jotzen duela osabak eta urteak igarotzen dituela etxera itzuli gabe, alde egitean Pike txikia baita, baina itzultzean, berriz, ez. Tarte horretan, gutunak bidaliko dizkio osabak eta horietan ere, nabari da ilobarengan eragiteko duen asmoa:

Gaanean bere burua ezartzen duenak, azpian dena zapaltzen dik. Herria, Pike, harrespil haundi eta borobila duk. Harri ezberdinak diaudek, batzuk ttipiak, bertzeak handiak. Den-denak beharrezko dituk herriaren osatzeko. Den-denak gaituk beharrezko. Herriaren harrespil honetan, ez diagok goi-behekorik, ezta nagusi-morroirik ere (98).

Esan bezala, urte luzez etxetik kanpo egon ostean, osaba berriz itzuliko da herrira eta bertakoek harrera beroa egingo diote pankarta artean. Kontakizunak amaiera zoriontsua du, osaba etxera itzuli, familiarekin elkartu eta ilobaren neska-laguna ezagutuko baitu.

### **6.2.6.3. *Harri barruko bihotz-borrokak***

Juan Luis Zabalak (Azkoitia, 1963) idatzitako ipuin bilduma da *Harri barruko bihotz-borrokak* (Elkarlanean, 1999) eta elkarren arteko lotura estua daukaten hiru kontakizun biltzen ditu. Bigarrena, “Barruan daukadan guztia” izena daramana, *Gara* egunkarian argitaratu zen atalka eta hau izan zen idatzi zuen lehenengoa. Beste biak ondoren etorri ziren, jada sortuta zeukan ipuinaren osagarri gisa. Egileari dagokionez, heldu zein gazteentzako idatzi du eta hainbat genero landu ditu bere ibilbidean zehar, besteak beste, poesia, komikia, biografia eta eleberrigintza. Hainbat sari eskuratu ditu bere lanengatik, esaterako Azkue Saria (*Zigarrokin ziztrin baten azken keak* nobelarekin), Tene Mujika Saria (*Sakoneta* lanarekin), Felipe Arrese Beitia Saria (*Hautsia natza* poema liburuagatik), Zilarrezko Euskadi Saria (*Txistu eta biok* eleberriarekin) edo Espainiako Kritika Saria *Galdu arte* (Susa, 1996) nobelarekin, zeina 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkada hasieran Azkoitiko gaztetxean girotutako eleberria izanik, euskal gatazkaren oihartzuna jasotzen duen (GALEk eta KKA taldeek eragindako hilketak, ETArekin lotutako pintadak, Espainiako Polizia Nazionaleko GEO delakoek Pasaiako badian egindako hilketak, kale borroka, preso eta errefuxiatuen aldeko aldarrikapenak, independentziaren aldeko borroka edo poliziaren interbentzio gogorrak, besteak beste).

### **Laburpena**

Hamar urtetik gorako irakurleei zuzendutako 94 orrialdeko liburu errealista honetako hiru istorioetako pertsonaiak berberak dira, baita espazioa eta gertaera nagusiak ere. Ipuin

batetik bestera aldatzen dena fokalizatzen duen *subjektua* da, hau da, protagonista da diferentea dena, ikuspuntua. Lehenengoan, “Bihotza galdu zait” deiturikoan, Jakes kantautore gaztea da narrazioaren protagonista eta kontalaria; eta berak lehen pertsonan emandako lekukotzei esker bere arazo eta zalantzen berri izango du irakurleak. “Barruan daukadan guztia” atalean, berriz, Xabat txirrindularia da narratzaile eta pertsonaia nagusia. Bertan barruan duen guztia emateko prest dagoen mutilaren duda eta borrokak aurkituko ditu irakurleak, eta azkenik, “Harri kozkor bat naiz” istorioan, Maddi narratzaile autodiegetikoak hartzen du zentraltasuna, torturatua izan den neska gazteak. Hiru kontakizunak 90eko hamarkadan girotuak daude eta garaiko giro politiko horretan pertsonaia bakoitzak bere burua nola ikusten duen azaleratzen da.

### **Harrera kritikoa**

Liburuaren gaineko kritikei begiratu bat emanda, lehenik eta behin, Zabalak gaiaren hautaketan asmatu duela azpimarratuko nuke. Hainbat kritikarik (Etxaniz, 2000; Rojo, 1999; Argia, 1999) aipatzen dutenez, lan honetan gazteak arduratzen dituzten kezkek ageri dira (amodioa, adiskidetasuna eta konpromisoak adibidez) eta ez dira HGLn gai tabuztat hartu izan diren sexua, gizarte gatazka, tortura edo kale borroka ezkututzen, ez eta bigunkeriak tratatu ere. Gai horiek lantzeko hartutako hautuagatik eta lantzeko maneragatik liburu ausarta, gazteen benetako munduan kokatutakoa eta interesgarria irizten diote Zabaletarenari. Etxaniz eta López Gasenik (2005) ere liburuaren gogortasuna jartzen dute agerian. Rojok (1999) liburuaren alderdi literarioa goraiatzeaz bat, liburuan idazle baten eskua ikus daitekeela baieztatzen du, dela hizkeran dela erritmo eta estiloaren aldetik. Gainera, narratzaile ezberdinen erabilerak obrari mesede egiten diola aitortzen du, gertakari eta errealitate berberaren aurrean herri honetan dauden ikuspegi diferente batzuk azaltzen direlako (kale borroka eta borroka armatuaren defendatzaileak eta jokabide horrekin kritikoak direnak esate baterako). Ildo horretan, errealitate berberaren aurrean ematen den ikuspegi ugaritasun horrek irakurleari gogoeta eginarazten dion era berean, irakurketa atseginagoa eskaintzen duela iruditzen zaio eta ondorioz, irakurlearen interesa amaieraraino mantentzen dela.

### **Analisi narratologikoa**

Liburua eskuetan hartu eta, lehenik eta behin, izenburuak bereganatzen du irakurlearen arreta. Nire ustez, zinez interesgarria da Zabalak tituluarekin egindako hautua eta sinbolikoki oso esanguratsua da. Batetik, harriak kale borrokaren sinbolo gisa irudikatzen dira, beraz, kale borroka oroimen gune gisa ageri da. Ezaguna den moduan, harriak herri

menderatuen defentsa-sistema dira<sup>172</sup>. Bestetik, *harri barruko bihotzak* dio izenburuak, eta horrek adierazten du gogortasun horren barruan bihotzak daudela, hau da, sentimenduak; ideal baten alde borrokan ari direnak alegia. Obra hiru istorio independentez osatuta badago ere, funtsean bakarra osatzen dute, ikuspegi aldaketa izan ezik, kronotopoa, gertaera nagusiak eta pertsonaiak berberak direlako hiruretan. Denborari dagokionez, liburuan data baten erreferentzia zehatza aipatzen ez bada ere, pista ugari daude kontakizunak urte jakin batean girotzeko. Erreferentzia historikoak hurrengo atalean landuko ditudan arren, aurreratuko dut kontakizuna 90eko hamarkadan girotuta dagoela. Espazioari dagokionez, atxilotuak preso eramaten dituzten Madril eta Alcalá izan ezik, gainerako guztia Azkoitian, Azpeitian eta Urraki mendian gertatzen da. Beraz, oro har ekintzak Euskal Herrian, Gipuzkoan nahiago bada, kokatzen dira.

Pertsonaiak aztertzeraz igaroz gero, istorio bakoitzeko hiru protagonista autodiegetikoak iruditzen zaizkit iruzkindu beharrekoak. Jakes kantautoreari dagokionez, ezinegenez beteta dagoen gazte bat da, bizitzeko ilusioa galdu duena: “Ez dakit, beraz, zer egin, nora jo. Zeregin askotan eta maitale askoren geletan utzi ditut bihotz puska txikiak, eta orain ezer gabe geratu naiz, bihotzik gabe, barru-hutsik, ezertarako ilusiorik gabe” (27). Iparra galduta ageri da, beraz, protagonista gaztea. Jakitera ematen denez, Jakesek egin dituen emanaldien erdia baino gehiago “mobida politiko eta erreibindikatioetan” (19) egin ditu, izan ere, “horrela dira kontuak herri honetan: mobida politiko eta sozialei estu-estu lotuta egon da beti musika” (20). Haatik, protagonista ez da eroso sentitzen horietan, ez baitator bat kantaldi horien antolatzaileen ikuspegi politikoarekin. Honakoa aitortzen du: “Horrelako kantaldietan parte hartzeak ez du derrigor ETAREN edo kale borrokaren alde zaudenik esan nahi [...] baina, nahi ez bada ere, halako gertutasun bat markatzen du horrek” (20). Protesta egitea ondo dagoela iruditzen zaio, baina uste du edozein modu ez dela zilegi (20). Horrekin guztiarekin nekatua dago Jakes gaztea eta konpromiso zein lotura guztietatik ihes egin nahi du. Horregatik, kantari izateari utzi, kontzertuak emateari uko egin, bigarren diskoaren grabaketa alde batera utzi eta tabernako lanarekin konformatzen da, “esplikaziorik eman beharrik gabe, ezereen alde eta ezereen aurka egon beharrik gabe, inori ezer zor izan gabe” (13). Ildo beretik, biziki esanguratsua da ere jarraian dagoen pasartea, zeinetan kritika zorrotz bat egiten den. Protagonistak Real Madrid eta Atlético de Madriden arteko futbol partidua ikusi eta *lehiaketa kutre horietako bati* begira geratu dela kontatzen du, honako aitortza eginez:

---

<sup>172</sup> Adibidez, aski ezaguna da Lehenengo Palestinar Intifada (1987-1993) “Harrien Matxinada” izenez ere ezagutzen dela, errebolta hartan harriek palestinarrak gazteek israeldar armadaren aurkako defentsa-sistema gisa izan zuten ospeagatik.



Ongi pasatu dut, batez ere libre sentitu naizelako, euskal kantaria izatearen zamatik libre behingoz. Ez dut gehiago horrelakorik nahi: jatortasuna, abertzaletasuna, zintzotasuna, erromantizismoa, elkartasuna, militantzia, koherentzia...Utikan denak! Apur ditzagun kateak! Murgil gaitzezen itsu-itsuan eta gozo-gozo kapitalismo basatiaren eta espainiar inperialismo zapaltzailearen simaurtegian! (10).

Istoriorearen amaiera aldera, Jakesen hiru lagun (Txuspi, Maddi eta Ander) atxilotu dituztela aipatzen da, molotov koktelekin Aldi Baterako Laneko Enpresa bateko bulegoa erretzea leporatuta (19) eta horren aurrean kritiko ageri da protagonista: “Ez dut ulertzen jende horren burubidea [...] beren mobida hori hondamena baino ezin sor dezakeen sorgin-gurpil gaizto madarikatua iruditzen zait, zirti-zarta etengabe eta mingarria” (19). Aurrerago esaten denez, atxilotutako gazteak Madrilera eramaten dituzte eta Maddi torturatu egiten dute (26). Ondorengo pasarte honetan irakur daitekeenez, gertaera horrek Jakesi gogoeta eginarazten dion arren, ez du, dena den, protagonista jokabidez edo ikuspegiz aldatzera bultzatzen:

Niri kontu horiek guztiak oso urrun geratzen zaizkit: aberria, euskara, feminismoa, antimilitarismoa, presoak, okupazioa... Indibidualistegia naizelako? [...] Oso zaila da gizartea alda daitekeela sinestea. Bide batzuk, gainera, ez zaizkit egokiak iruditzen. Maddiri egin diotena ikaragarria da, baina gauza ikaragarri asko gertatzen dira herri honetan, eta ez dira beti poliziak eta agintariak horien errudunak (27).

Ikusten denez, Jakesek haustura moduko bat sentitzen du bere testuinguruarekiko. Ez du bat egiten lagunaren zenbait jokabiderekina eta eten bat egiteko premia sentitzen du. Agian irakurleren batek pentsa lezake protagonistak bere barruko korapiloak askatzeko modua kantua eginez eta abestuz lortzen duela, baina horretarako gogoia galdu duenez, burua ezin altxa dabilela. Ados egongo nintzateke baieztapen horrekin, izan ere, bere izeba Bitoriana kontrola galdutako auto batek harrapatuta hiltzen den gauean protagonistak berak dio hari eskainitako kantu bat sortzen duela eta “ederra d[el]a gaurkoa bezalako gauetan gitarrari heldu eta harekin batera negar egin ahal izatea” (33). Negarraren eta kantua bidez ateratzen ditu, beraz, barneko penak. Bidean, iruzkintzekoak iruditzen zaizkit izeba hil osteko protagonistaren hitz hauek: “ez dakit ez ote nukeen hobe izango neure etxean egon, bakarrik, lasai negar egiteko lotsarik gabe” (28). Genero ikasketei eskainitako atalean (5.2.) landutakoaren ildotik, gizarte heteropatriarkalaren begietan, gizonak espazio publikoan (behintzat) negarrari eusteko gai izan beharko liriteke eta ideia horren eragina antzeman daiteke protagonistaren jarreran. Maitasunaz, sexu-harremanez eta aurreiritziei buruzko

pasarte batzuk daude kontakizun honetan. Azken horri dagokionez, Txema eta protagonista Bilboko neska *pija* banarekin oheratzen dira eta mespexuz erabiltzen duten adjektibo despektibo hori erabiltzeari buruzko hausnarketak plazaratzen ditu Jakesek, iruditzen baitzaio beste kultura, zaletasun eta joera batekoak izanda ere, ez dagoela jendea hain zakar gutxieteko motiborik (17). Ipuin honekin amaitzeko, aipatzekoa da azkenean Jakesek bigarren diskoa kaleratzen duela, *Zalantzaren argitan* izenburuarekin eta bere izeba zenari eskainia (94). Izenburu horrek, berriro ere, protagonistaren hasierako egoera gogorarazten du, zalantza eta itaunez betetako abelera, baina bere bidea apur bat ezagutzen hasten dela iradokitzen du, nire uste apalean bederen.

Bigarren istoriora jauzi eginez gero, pertsonaia biribil batekin egingo du topo irakurleak, Xabat protagonistarekin alegia. Honek txirrindularirik onena izan nahi du eta beti dago prest barruan daukan guztia emateko<sup>173</sup>. Hala ere, kontziente da horretarako gauza asko laga behar dituela alde batera, parrandak eta kontzertuak adibidez (40). Horrek zalantzak sortzen dizkio gazteari, barruan dauzkan gauzarik ederrenak usteltzen ari zaizkiola iruditzen baitzaio (41). Erru sentimendu bat ere badu, izan ere, batzuetan lotsatu egiten da postuei, markei zein bihotz-taupaden maiztasunari ematen dieten garrantziaz eta tristeza iruditzen zaio kontu horiek inoren bizitzaren ardatz bihurtzea (47). Kuadrillako Txuspi, Maddi eta Anderren atxilotetek ordea, protagonistaren bizitzan norabide aldaketa bat ekarriko dute, baita ideologia aldaketa bat ere (*eragile* funtzioa dute, beraz). Egia da hasieran zalantzati jokatu duela Xabatek, baina poliki-poliki aldaketa nabarmen bat kausituko du irakurleak. Lehenengotan, ertzainei *Zipaio* deitzea kosta egiten zaiola aitortuko du (54) edo nahiko balu ere guztiz bateraezinak direla txirrindulari profesionala izatea eta lagunaren kausaren alde borroka egitea, honako pasartean irakur daitekeen legez:

Iritzia eskatuko didate gai askori buruz, baina benetan pentsatzen edo sentitzen dudana esateko beldurra izango dut, jendea nire aurka ez jartzeko [...] Euskal Herriaren alde edo gizarte hobe baten alde barruan daukan guztia emateko prest dagoenak ezin du bere gaztaroa bizikleta baten gainean eman [...] ondoen ordaintzen dion enpresaren publizitatea soinean duela eta, aukeratzen badute, Espainiako selekzioaren koloreak defendatzeko prest [...] ezin diet lagundu (56).

Baina gero, lagunak atxilotuta daudela jakiteak, eta bera bizikletan ari den bitartean haiek ertzainen igurtzi zein *zipaioen hostiakoak* jasotzen ariko direla pentsatzeak, berekoi sentiarazten du, ezdeus, nazkagarri (55, 58). Gainera, Madrilan bere lagunak torturak jasan

---

<sup>173</sup> Hauxe da ipuin osoan zehar *leit motiv* gisa behin eta berriz errepikatzen den ideia (41, 46, 50, 80).

dituztela jakiten du: poltsa, kolpeak, pistola ahoko zuloan eta borra Maddiren baginan (60). Orduan bai, bizikleta bigarren mailara pasa eta indar guztiak bere lagunei elkartasuna adieraztera bideratzen ditu (60). Engaiamendu hori gehiago indartzen da maite duen Naiara eta bere bi lagun atxilotzen dituztenean, eta honako aitoren hau egiten du amaiera aldera: “Nazkatu naiz ardi otzana izaten otso putakumez betetako mundu zikin honetan” (74). Naiara maitalea aipatu dudala, ezin aipatu gabe utzi paparrean presoan pina daraman neska gisa karakterizatzen dela eta 6 urtez aita kartzelan izan zuela aipatzen da (53). Neskaren konpromiso politikoaren harira, honako baieztapena egiten du protagonistak (Naiara eta bere arteko harremanaz ari dela): “Nork geure zaletasunak eta geure kontuak izan ditzakegu eta elkarrekin primeran konpondu. Zergatik ez ba?” (53). Elkarbizitzaren aldeko aldarria irakurtzen dut nik lerro horietan (Jakesen kontakizunean ere aurkitu dut horren aldeko pasarterik). Bukatzen joateko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi ondorrengo aipuan Xabatek politikarien gainean egiten duen kritika zorrotza: “ETAk su-etenean jarraitzen du, baina beste batzuk ez dira konponbiderako borondate handirik erakusten ari” (80). Kritikarekin batera, aipuak gazteak inguruarekiko duen frustrazioa iradokitzen duela iruditzen zait. ETAren borroka egiteko moldeaz ere hausnarketa egiten du gazteak: “Abertzalea naiz, eta aurrerazalea, ezkertiarra. Gogorak eta mingarriak iruditu izan zaizkit beti ETAren atentatuak, oso doilorrak eta injustuak ere bai batzuk, asko, baina, erabat ez bada ere, puntu nagusietan behintzat, bat etorri naiz ETAk borrokarako izan dituen arrazoiekin” (69-70). Azkenik, istorio honen amaieran irakur daitekeenez, Xabatek ez daki etorkizunak zer ekarriko dion, baina gauza bat argi dauka: benetan sentitzen eta sinesten dituen gauza guztietan barruan daukan guztia ematen ahaleginduko dela (80). Gaztearen konpromiso irmoarekin amaitzen da, beraz, bigarren kontakizun hau.

Hirugarren eta azken ipuinean, Maddi kementsu eta engaiatua ezagutuko du irakurleak. Atal hau oso motza da, baina ez haatik, hutsala. Gizartearen bazterreko eremutik borrokan ari den protagonista lau baten inguruan ardaztua dago, bere baloreez ziur dagoen Maddi gaztearen gainean alegia. Pasarte batean protagonistak ederki autokarakterizatzen du bere burua: “Langabetua naiz, gaztea, emakumea, lesbiana, euskalduna, euskaltzalea, ezkertiarra, abertzalea” (83). Borroka galduetatik datorrela azpimarratzen du eta dioenez, horrek marka utzi du bere baitan, gauzak ikusteko modu bat eman baitio (83). Lanean belauniko kakak garbitzen aritutakoa da eta egindakoaren trukean nagusien umiliazioa jaso du. Aldi berean, bide bazterreko harri kozkor bat baino ez dela gogorarazi diote edo inor ez dela sentiarazi. Hala ere, Maddik harri kozkorren duintasuna aldarrikatzen du, nahiz eta

aitortzen duenez, borroka horrek tortura, hildura eta kartzela ekarri dizkion sari gisa (84). Baina protagonistak ez du etsitzen, izan ere, mila bider jaiota ere, behin eta berriz izango litzateke harri kozkor (83). Kritika eta hausnarketa interesgarri zenbait aurki daitezke ipuin honetan. Horietako bat demokraziaren gainekoa da:

Demokrazia batean bizi gara. Bozketa bidez hautatzen ditugu gure agintariak eta, berdintasunez, diskriminaziorik gabe, giza eskubideak errespetatzen dira. Libre gara nahi duguna pentsatzeko eta nahi dugun bezala bizitzeko. Nork sinesten du hori? Ezta behin eta berriro gogorarazten digutenek ere (86).

Pasarte horren ostean, Maddik gogoan daukan pasadizo bat kontatzen du: nola hasi ziren tabernako gizonak telebistako aktore bati gaizki esaka, depilatzeko makina baten eta argaltzeko metodo baten beharrean zegoela esanez, edo hura ez emakume ez ezer ez zela iradokiz (86-87). Hori guztia, noski, kritika zorrotza egiteko baliatzen du Maddik, adierazpen askatasunaren izenean edonork edonoren aurka jardutea onartzen dela iruditzen baitzaio. Aurreko atal batean aipatu dudan moduan, Maddi torturatu egiten dute eta espero litekeen moduan, badago horren gaineko hausnarketarik: “Ez naiz ni torturatu duten bakarra [...] ezta azkena ere, kate luzea da hau” (90). Kale borrokari ere hitz batzuk eskaintzen zaizkio eta haren inguruko ikuspegi diferenteak azaltzen dira (89). Atal honekin amaitzeko, Maddi pertsonaiaren karakterizazioan arreta jarri nahiko nuke, ez baita ohikoa pertsonaia femenino homosexual batekin aurkitzea HGLn (gehienetan, harreman sexu-afektibo heterosexuala agertzen da esplizituki, eta sexuari erreferentzia egiten ez zion kasuetan, berriz, heterosexualitatea asumitu ohi da). Ez hori bakarrik, hainbat arrazoigatik bazterretatik mintzo den ahotsa da Maddi eta posizio horretatik egiten du bere existentziaren aldarrikapena.

### **Kontestualizazio historikoa**

Aurreko atalean esan bezala, hiru kontakizunak 90eko hamarkadan girotuta daude (1998tik 1999ra bitartean zehatzagoak izateko). Batetik, “Barruan daukadan guztia” atalean, Xabat protagonistak honakoa kontatzen du: “Behin bakarrik izan dut orain artean boza emateko aukera, joan den urrian, eta EHri eman nion. ETAren su-etenak zalantzak urratu zizkidan” (70). EH, Euskal Herritarrok taldea, 1998an sortu eta 2003an geratu zen legez kanpo eta liburu hau 1999an argitaratu zenez, bi urte horien artean koka daiteke. Bada, kontuan hartuz Xabatek urrian izan zuela bozkatzeko aukera, 1998ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan behar dira, urte horretako urriaren 25ean ospatu zirenak alegia. ETAren su-etenari dagokionez, 1998ko irailekoa da aukera bakarria, ordura

arteko historiako su-etenik luzeena, 14 hilabeteko tregoa izan zuena. Beraz, bada argudiorik kontakizunak urte horren bueltan kokatzeko. Norbaiti datu nahikoa irudituko ez balitzaio, narrazioan zehar aipatzen diren musikari zein idazleei errepara diezaieke. Adibidez, Anari abeslaria ageri da (22), zeina 1997an hasi zen musika munduan<sup>174</sup>. Edo zehatzagoa dena, Joxe Azurmendiren *Oraingo gazte eroak* liburuko aipu bat agertzen da (85) eta obra hori 1998an eman zen argitara. Aipatutako urte horiek nahiko gatazkatsuak izan ziren, eta halaxe irudikatzen da obran. Batetik, euskal gatazkari eskainitako atalean (3.2.) azaldu dudan moduan, ETA oraindik indarrean zegoen. Liburuan ETAk su-etena sinatu duela aipatzen bada ere, ezin ahaztu urte batzuk lehenago hainbat bahiketa eta atentatu odoltsu egin zituela, eta su-etena iragarri eta urte batera akordioa hautsi eta borroka armatuari ekin ziola berriz. Bestetik, kale borroka puri-purian zegoen garai hartan eta horixe irudikatzen du Zabalak protagonisten ekintzekin. Gainera, ezin aipatu gabe utzi garai hartako gizartean hainbat borroka (bere zentzurik zabalenean) zeudela eztabaidaren erdigunean, antimilitarismoa, presoen afera, okupazioa, euskara edo feminismoa kasu. Nire ustez inkonformismoa eta dialogorik eza aipa daitezke XX. mendeko azken hamarkada deskribatzeko, eta horixe adierazten du kontakizuneko protagonistetako batek: “ETAk su-etenean jarraitzen du, baina beste batzuk ez dira konponbiderako borondate handirik erakusten ari” (80).

#### **6.2.6.4. Txakurraren alaba**

Esango nuke irakurlea epel uzten ez duen eleberria dela Xabier Mendiguren Elizegi idazle eta editorearen *Txakurraren alaba* (Elkarlanean, 2000). Aurreko atal batean erakutsi dudan moduan, Mendigurenek behin baino gehiagotan hartu ditu hizpide Euskal Herriko gatazka historiko politikoak, baina aurrez bere idazle ibilbidea laburbildu dudanez, ez ditut horiek berriz aipatuko.

### **Laburpena**

Hamasei urteko Teresa Márquez protagonistaren istorioa kontatzen da hamar urtetik gorako irakurleriari zuzendutako obra honetan. Aita guardia zibila da eta familiarekin Zaragozatik Euskal Herrira mugitu da bizitzera. Hasieran arrotz egingo zaio bizitoki berria, besteak beste, paisaia desberdina, bestelako gizarte eta kultura bat, ezagutzen ez duen hizkuntza bat edo jende berria aurkituko duelako. Toki berri batera egokitzeak dakarren

---

<sup>174</sup> Egia da urte hori baino lehenago hainbat taldetan aritu zela, baina Anari gisa, hau da, bakarlari gisa 1997an hasi zen.

*handicap* horrez gain, Teresak beste zailtasun batzuei aurre egin beharko die, izan ere, bere identitatea erdi-ekutuan eraman beharko du aitaren lana dela-eta. Edonola ere, poliki-poliki bizileku berrira ohitzen joango da eta ordura arte ezagutu gabeko errealitate batean murgilduko da. Euskal Herrian dagoen gatazka politikoaz eta indarkeriaz mintzo da 188 orrialdeko liburu hau.

### **Harrera kritikoa**

Liburu honek izandako harrerari dagokionez, aitortu behar dut zaila egin zaidala balorazio orokor bat egitea, oso iritzi kontrajarriak aurkitu baititut. Lehenik eta behin, aipatzekoa da izenburua ez dela oharkabea pasa. Rojok (2000) titulu deigarria irizten dio egileak hautatutakoari eta Jon Benitok (2000) ere txundigarritzat du zoologiaz gutxi esan nahi duen izenburu hau. Baina aipatutako ezaugarri horretatik at, oro har ez dago bat-etortzerik kritikarien artean. Rojok dioenez (2000), istorioa interesgarria izan zitekeen, idazleak benetan istorio hori kontatu izan balu. Bere ustez, Mendigurenek istorioa erabili du Euskal Herriaren egoeraz hitz egiteko, ikuspuntu zehatz bat agertuz, esfortzu handirik gabe talde politiko batek duenarekin erraz identifika daitekeena. Gaineratzen duenez, tesi ideologikoa azaltzeari garrantzirik handiena emateak nobelaren planteamendu osoa mugatzen du. “Zein da ondorioa? Euskal Herriaren egoeraz aritzen diren elkarrizketa batzuk, hizkuntzaren aldetik hitzaldi politikotik oso hurbil daudenak, narrazioaren aztarna txikiak dituen marko batean txertatuak”, adierazten du. Bestalde, arestian azaldutako kritika zorrotz horren ordez, Benitok (2000) mintzagai dudana bezalako obren beharra azpimarratzen du, besteak beste, munduaren eta gertakarien konplexutasunari aitzakiarik ez botatzeko. Dioenez, *oportunoa* (eta ez *oportunista*) da liburuari lot dakioken adjektibo nagusia eta obrak Euskal Herriko testuinguruan sakontzeko aukera paregabea eskaintzen duela adierazten du. Azkenik, liburu honek eguneroko batailari ikuspuntu berri bat ematen diola gaineratzen du, eta baita, batzuetan hainbeste behar dugun elkar ulertzea eta ikuspuntu osotasuna; gertakarien aurpegiak ezagutzeko, agerian daudenak eta ez daudenak.

### **Analisi narratologikoa**

Aurreko atalean aipatu dudana legez, euskal gatazkaz ari den nobela errealista honen izenburuak hartzailearen arreta bereganatzen du berehala. Izenburu anbigua da eta agian irakurle gaztetxoek eta helduagoek ez dute zentzu berean ulertuko. Pentsatzekoa da lehenengok literalki hartuko dutela eta bigarrenek ordea, idazleak benetan adierazi nahi izan duena jasoko dutela. Hala ere, istorioan murgildu ahala guztiek ulertuko dute izenburu horren

izena eta izana. Obra 4 kapitulu nagusitan banatuta dago eta epilogo batek ematen dio amaiera. Oso esanguratsuak dira atal horien izenburuak<sup>175</sup>. Eguraldi aldaketa bat iragartzen dute, edo beste modu batera esanda, ekaitzaren faseei egiten die erreferentzia. Gainera, istorioaren haria jarraitzen dute, izan ere, continuum horretan zenbat eta txarragoa izan giro atmosferikoa, protagonistak bizi duen egoera ere gero eta bortitzagoa da. Elementu paratestualekin jarraituz, liburuaren azala apaintzen duen argazkia esanguratsua iruditzen zait. Bertan ahoa estalita duen neska bat agertzen da, nahiko haserre dirudiena, bide batez. Nire ustez, narrazioko protagonistak sentitzen duen haserre eta ezintasuna bikain irudikatzen du horrek. Obra bi planotan eraikia dago. Batetik, narrazio nagusia dago, Teresa protagonista Euskal Herrira datorrenean hasi eta lehenengo hilabeteko gertakizunak kontatzen dituena. Bestetik, epilogo eran ematen den atala dago. Berau protagonistak kontatzen du, baina arestian aipatutako gertaerak eman eta urte batzuetara, honako aipu honetan ikus daitekeen moduan: “Urte batzuk igaro dira ordutik, horrelako historia bat euskaraz idazteko gauza izan arte behar izan ditudanak” (187). Espazio eta denborari dagokionez, kontakizuna Euskal Herrian girotuta dago. Donostia ageri da batez ere, baina ondoko herri txiki eta nekazariak ere aipatzen dira. Garaiari dagokionez, XX. mendeko azken hamarkadan dago girotuta. Batetik, deskribatzen den giro sozio-politikoak hori pentsatzera eramaten du irakurlea, baina bestetik, Donostiako Loretopean dagoen Eduardo Txillida donostiarraren *Besarkada* eskultura aipatzen da (35), eta hau 1992an eraiki zen. Hori gutxi balitz, Mendigurenek liburuaren amaieran egiten duen sinaduran 1999ko data dator.

Pertsonaiak aztertzeraz igaroz gero, hainbat dira iruzkindu beharrekoak. Lehenik eta behin, liburuko narratzaile eta protagonista den 16 urteko Teresa Márquezekin hasiko naiz. Narratzaile autodiegetiko honek lehen pertsonan kontatzen duenari esker, bere buruan dauden galdera, zalantza eta kontraesanen berri dauka irakurleak etengabe, baita neskatoa bizi den testuinguruaren berri ere. Teresak zubi lana egiten du liburu honetan, edo bi mutur kontrajarri lotzen dituen soka gisa ageri da. Eztabaida guztien erdian dagoela ere esan daiteke. Adibidez, protagonistaren institutuan A eta D ereduak daude eta ikasleak ez dira ikasgai bakarrean ere nahasten. Hala ere, Teresa batxilergo artistikoa egiten ari da eta ikasle gutxi direnez, talde bakarra osatu behar dute bi ereduok. Eskolak zein hizkuntzatan emango dituzten erabaki behar dute eta D ereduok gehiago diren arren, ikasgaiak gaztelaniaz ematea erabakitzen dute, Teresak ez dakielako euskaraz (30). Hemen ikusten da protagonista eztabaidaren

---

<sup>175</sup> Hauek dira aipatutako izenburuak: “Lehen partea. Lanbroa”, “Bigarren partea. Langarra”, “Hirugarren partea. Zaparrada”, “Laugarren partea. Erauntsia” eta “Epilogo. Ekaitzaren ostean”. Izenburu horiek liburuak aurrera egin ahala hartzen duen tentsio gero eta ageriagoa uzten dute bistan.

jomuga izateaz gain, euskarazkoak versus gaztelaniazkoak sailkapen horretatik apur bat kanpo geratzen dela, edo nahiago bada, banaketa horren erdi-erdian (artistikoan bi eredu-takoak nahastuta daudelako). Ikasleen arteko eztabaida honetan kritika zorrotzak egiten direla iruditzen zait, batez ere honako pasarteetan: “Orduan zein da konponbidea: gehiengoak gutxiengoak nahi duena egitea, ezta?” (28) edo “Hauxe dela demokraziaren ederra espainolentzat: espainol baten eskubidea nahikoa, euskaldun guztien eskubideak zapaltzeko” (30). Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi erabateko kontraesana eta talka aurkitzen duela etxean jaso duen heziketaren eta kalean, eskolan edo euskaltegian aurkitzen duenaren artean. Bi izate guztiz kontrajarri, hasieran bederen uztartu ezinak diruditenak, eta horien erdian Teresa, bi muturrak lotu nahian.

Protagonistak esaten duen moduan, matxista samarrak dira gurasoak, eta nahiko antigoalekoak (11). Gurasoentzat nahikoa omen da alabak senar ona lortzea, eta beraz, ez omen zaie garrantzitsua iruditzen alabak karrera ona izatea (11). Horrez gain, protagonistak aditzera ematen du gurasoak ez direla bertakoekin erlazionatzen (116). Badago pasarte bat zeinetan esaten den amak euskal sukaldaritza deskubritzen duela eta etxean gauza berriak prestatzen hasten dela, baina aitak protestatu egiten duela (56). Agian batek pentsa lezake aitak euskalduna den zer edo zeri uko egin nahi diola. Gainera, *fatxa samarra* (96), estua eta agintzailea dela deskribatzen du Teresak (188). Ez hori bakarrik, jakitera ematen denez, aitak gomendioen zerrenda luzea ematen dio alabari (ez esateko inori non bizi diren edo aitak zertan egiten duen lan, edota kotxea hartzerakoan aulki azpian begiratzeko beti), eta horregatik, alabari iruditzen zaio ia hobea litzatekeela kontzentrazio-esparru batean bizitzea (7). Dirudienez, amari ere ez zaio toki berria gustatzen, baina jarraian ikus daitekeenez, senarrak ez dio protestatzen uzten: “Zirudienez aitak ongi leziatu zuen kexurik txikiena ez egiteko, nire aurrean behinik, eta isilik onartu zuen dena, halako jarrera otzan eta esaneko batekin, familian berezkoa behar duena nonbait” (9). Ez hori bakarrik, Teresaren adierazpenei jarraiki, esan daiteke aitak beti duela azken hitza etxekoan erabaki guztien gainean (48). Beraz, ama isil eta otzan bat ageri da, senarraren aginduei men egiten diona. Teresak liburuaren amaieran dioenez, ama etxekoandretzan katigatua bizi da (188). Arestian esandakoa kontuan hartuta, protagonistaren aitak *aurkari* funtzioa betetzen duela iruditzen zait, alabaren askatasuna eta integrazioa bera zailtzen duelako. Momentu batean esaten da Teresaren komunitatearen goiko terrazatik itsaso zati bat ikus daitekeela eta honakoa aipatzen du protagonistak: “Leiho bat iruditzen zitzaidan, askatasunera zabalik zegoena” (12). Ikus daitekeen moduan, hainbat pasartek iradokitzen dute Teresari itogarri zaiola etxeko giro hori



eta horregatik, ihesean joango balitz bezala, toki berriak deskubritzeari ekingo dio. Horrela ezagutuko du bizi den hiria eta alboko herriak<sup>176</sup>.

Hasieran, Yolandaren eskutik ezagutuko ditu Donostiako txoko batzuk. Hau Teresaren aitaren lankide baten alaba da eta atsegina izan arren, bere erresuminak ezinegona sortzen dio protagonistari (20). Kanean doazela, kartelak itsasten ari diren gazte batzuk ikusten dituzte eta honakoa adierazten du Yolandak: “Euskaldun putakume hauek, gorrotoa digute denek” (13). Gainera, bertakoak euskaraz hitz egiten entzuten dituen aldiro beraz gaizki esaka aritzen direla iruditzen zaio beti (19). Ez hori bakarrik, narratzaileak kontatzen duenez, betidanik bizi izan da Euskal Herrian, baina bertatik hanka egiteko gogo du, aspertuta omen dagoelako horrenbeste gorroto eta ezinikusirekin<sup>177</sup> (20). Yolandaren jarrera horrek gogoeta interesgarriak eginarazten dio protagonistari: ea nor den elkarrenganako gorroto horren sortzailea edo ea berak ere egunen batean hala pentsatuko duen, adibidez (14). Eta azkenean, lagunaren jarrera kritikiko horrek berarekin irteteko gogo kentzen dio Teresari (15). Lehenengo manifestazio eta istiluak Yolandarekin dagoenean ikusten ditu eta honakoa adierazten du protagonistak: “Gaezan ezin nuen burutik kendu ikusitako hura [...] poliziarri harrika, nik ulertzen ez nuen aldarrikapen bat zela-eta. Zehatzago esanda, nire kontrako aldarrikapen bat zela-eta; baita nire familiaren eta herriaren kontrakoa ere” (21). Horrek pentsarazten dio ea nola den posible herri horren eta askatasunaren izenean horrelako indarkeria, ezinegona eta amorrazioa egotea (22) eta gaineratzen du fanatismoaren edo ikuspegi ideologiko faltsutu baten ondoriozkoa zela entzun eta sinetsi izan zuela beti, baina susmoa zuela bazela beste zerbait horren atzean, alegia, izango zituztela beren arrazoiak, “arrazoi okerrak seguru asko baina ez derrigor zentzugabeak” (22). Yolanda aipatu dudala, ezin Andoni aipatu gabe utzi, helburu politikoa duten pintaketak egiten dituen institutuko ikaskidea. Oso pertsonaia interesgarria iruditzen zait, bera baita Teresarengan ikuspegi aldaketa esanguratsua eragingo duen mutila. Honen eskutik ezagutuko du etxean ezkutatu dioten (beste) errealitate bat. Jakin daitekeenez, bera da eskolako lehen egunean protagonistarengana hurbildu eta bere burua aurkeztzen duena (30), eta baita eskolak zein hizkuntzatan erabaki behararen ondorioz sortzen den istiluaren erruduna bera ez dela esaten diona ere (31). Teresa liluratzen du eta honi erakargarri gertatzen zaio Andoni (66). Behin,

---

<sup>176</sup> Turistez betetako eta postaletan agertzen den Donostia ezagun horren orde, protagonistak ondoko herri txiki eta nekazariak nahiago ditu: baserriak, plazak pilotalekuekin, euskaraz mintzo den bertako jendea edo bertako ezaugarri propioak (18). Nire ustez ezaugarri hau protagonistak gauza berriak ezagutzeko duen borondatearen isla izan daiteke, alegia, erakusten ez den horren atzean dagoena deskubritu nahi duela iradoki dezake.

<sup>177</sup> Yolandaren jarrera oso bitxia iruditzen zait. Batetik, gorroto eta ezinikusi horretatik ihes egin nahi du, baina bestetik, badirudi ez dela konturatzen aldi berean gorrotoaren jasaile eta eragile dela. Euskaldunek bera gorroto dutela adierazten du, baina era berean, Yolandak ere euskaldunenganako gorrotoa adierazten du.

Carmenekin paseatzen ari dela, pintaketa bat egiten ikusten dute mutila, “mural bat txakurren aurka, ea behingoz joaten diren” (67). Carmenek *txakurra* hitzaren esanahia azaltzen dionean oso gaizki hartzen du protagonistak (69) eta gogoeta interesgarriak plazaratzen ditu:

Txakur bat. nire aita. Nola zen posible inork horrela pentsatzea? Nola zen posible pertsoneri txakur deitzea, eta gainera akabatzen saiatzea? Hantxe zegoen nire aita: maite ninduen, kezkatu egiten zen besteekin. Ez zen txakur bat! Eta horrela pentsatzen zutenak nire inguruan zeuden, hori zen okerrena (69).

Horrez gain, atsekabetuta sentitzen da, “Txakurrak eta txakurren etsaiak barne, denak ere inkomunikazio batean sartuta” omen daudelako (70) eta ezin duelako bere benetako identitatea askatasunez bizi. Liburuaren hasieran jakin daitekeenez, protagonistak 12 urte zituenean familia osoa Leondik Zaragozara mugitu zen eta 4 urte beranduago Euskal Herrira. Bizitoki aldaketa horrek eta lagunak bigarren aldiz utzi beharrak lur jota eta beldurtuta uzten du Teresa (8). Batetik, jakin badaki nebak gaizki pasa zuela lehenengoz aldatu zirenean, norekin irten ez zuenez ez baitzen etxetik irteten (9) eta beldur da berari ere ez ote zaion gauza bera gertatuko. Bestetik, lehenago jada iradoki dudan legez, Euskal Herria toki arriskutsu gisa ageri da: “Amari izugarritzko beldurra ematen ziola Euskal Herriak. Gure aldaketa baino lehen ere, telebistan atentatu baten berri ematen zuten bakoitzean estu eta larri jartzen zen” (9) edo “Atentatuak egiazkoak ziren ordea, errealitate odoltsu eta izugarria, arrisku bat hor zegoena eta inola ere ahaztu behar ez nuena” (63) pasarteetan irakur daitekeen moduan. Teresak adierazten duenez, tentsioa sortarazten dioten gurasoen paranoia eta segurtasunaren obsesio horietatik ihes egin nahi du (63). Hala ere, istorioak aurrera egin ahala Euskal Herria gogoko duela ikus daiteke eta primeran integratzen dela gizartean: “Gero eta neureago sentitzen nuen herri txiki hau” (185). Horrekin lotuta, ezin aipatu gabe utzi euskal gizarteak *eragile* funtzioa betetzen duela, eta integrazioak edo onartua izateak, berriz, *objektuarena*.

Euskarari dagokionez, hizkuntza honen aldeko jarrera erakusten du hasieratik bertatik eta gogotsu eta borondatez ekiten dio hura ikasteari. Batetik, institutuan euskaratik salbuetsita egon arren, idazkaritzan euskarako ikasgaiari matrikulatzen saiatzen da (23, 35), uste baitu salbuetsitako bakarra izatea hesi bat altxatzea bezalakoa dela, desberdintzeko modu bat, eta ez du hori nahi (24). Bestetik, idazkaritzan ezezkua jaso arren, AEK-ko euskaltegian matrikulatu eta egunero jasotzen ditu eskolak (37). Ez hori bakarrik, bertan beste planeta batean dagoela eta ahaleginak merezi duela adierazten du Teresak (57). Euskaltegiak

berebiziko garrantzia du, izan ere, bertan euskara ikasteaz gain, hausnarketa interesgarriak sortzen zaizkio ikaskideekin izandako hartu-emanen ondorioz. Adibidez, Teresak jakitera ematen du ikaskideen artean denetariko iritziak daudela, baina orokorrean denek pentsatzen dutela euskaldunak herri zapaldua direla eta askatasun-eskubidea ukatzen zaiela (72). Horren aurrean protagonistak zera pentsatzen du: “Haiek baldin baziren zapalduak, ni izango nintzen noski zapaltzailea, Estatu zanpatzailearen ordezkaria” (72). Hala ere, aitortzen du ez dutela diferente edo burlaz tratatu: “bazirudien haien hizkuntza ikasi nahi hutsak ezabatu egiten zituela muga guztiak, haien pareko bihurtzen ninduela, ahaztarazi egiten zuela ni espainiarra izatea, edo hirugarren mailako zertzelada bihurtzen zuen bestela” (73). Eskolako ariketa bezala gutun bat idazteko agintzen diote euskaltegian eta Teresak ezagutzen ez duen eta Jaengo kartzelan preso dagoen Larraitzen anaia Estebani idazten dio, honelako galdera interesgarria eginez: “Ez da posible bakea eta askatasuna?” (121). Horrez gain, bestelako hausnarketa interesgarriak ere egiten ditu:

Zer neukan nik esateko preso bati, kriminal bati, terrorista bati? Haren etsaia nintzen ni gainera: espainol bat, eta gainera txakur baten alaba. Ezinezkoa zen elkarbizitza. Bestalde, ordea, gutuna idatzita zegoen, eta kontrakoa frogatzen zuen horrek: beharbada posible zela elkarbizitza hori, etsaiak izanda ere (122).

Gutuna bidaltzearen ekintza hori garrantzitsua iruditzen zait oso, izan ere, preso batekin estreinako kontaktua izateaz gain, gero azalduko dudan moduan, arazoak ekarriko dizkio aitarekin. Euskaltegiaren gain, istorio honetan Donostiako Loretopeak eta bertan dagoen *Besarkada* eskulturak ere berebiziko garrantzia du. Liburuaren hasiera aldera esaten denez, Teresa Txillidarekin txoratuta dago (43) eta *Besarkada* eskulturak bere bizitza markatzen duela uste dut, edo bere jokabidean eragiten duela bederen. Txillidaren obra horren xehetasunak hurrengo atalean emango ditudan arren, aurreratuko dut eskultura hori ikusitakoan Teresak honako erabaki hau hartzen duela: “Beti egon behar duela zirrikitu bat kontrakoak elkar ulertzeko, etsaitasuna ez dela nahitaezkoa, eta neure buruari agindu nion nik behintzat aurkituko nuela adiskidetasunerako tarte bat” (35). Gainera, hurrengo egunean bertan, euskara ikasteko hautua egiten du. Aipatu beharreko beste toki garrantzitsu bat Gladys-Enea da, errepresio frankistari dagokion oroimen gune seinalatua. Arratsalde batean Carmen ikaskidearekin joaten da bertara eta hark azaltzen dio ofizialki Cristina Enea deitzen dela tokia, baina jendeak hala deitzen diola Guardia Zibilak manifestazio antinuklear batean hildako Gladys neskaren omenez (158). Istorioan paper erabakigarria jokatzen duela iruditzen zait, hausnarketa esanguratsu bati bide ematen baitio, toki horretan jabetzen baita protagonista

Guardia Zibilaren aldetiko torturaren erabileraz. Teresaren galderei erantzunez Carmenek atxilotuak torturatu egiten dituztela baieztatzen dionean (159), protagonistak adierazten du legearen aurkakoa dela, salatu egin behar dela edo polizia torturatzailerak lanetik bota behar direla (159). Gainera, Carmenek azaltzen dio terrorismo edo antzeko gauzetako susmagarri ia guztiak modu sistematikoan torturatzen dituztela eta torturak nola gauzatzen dituzten argitzen dio (160-161). Orduantxe konturatzen da Teresa aita torturatzailer bat izan daitekeela. Eta ez hori bakarrik, gogora ekartzen du aitak pozez beterik pastelak eraman zituela etxera gazte batzuk atxilotu eta hurrengo egunean (161-162). Horrek guztiak izugarritzko ezinegona sortzen dio, erruduntasun sentimendua pizten baitio gertakariak (162).

Aurrera egin baino lehenago, liburuan askotan lantzen den identitatearen gaiari lerro batzuk eskaintzea gustatuko litzaidake<sup>178</sup>. Edurne irakasleak adibidez, euskalduna euskaraz dakiena dela adierazten du, eta berdin dela zein den hiztunaren jatorria, erlijioa edo ideologia, gaineratuz abizenak maiz ez datozela beti bat haien jabearen hizkuntzarekin (73). Ikus daitekeenez, euskal identitatea hizkuntzak markatzen du nagusiki, ez hiritarraren jatorriak (abizena, bizilekua), euskal abertzaletasun tradizionalan bezala (EAJ). Alde honetatik, liburuan 1960ko hamarkadaren ostean giltzarri bihurtzen den euskal identitate kontzeptuari egingo lioke erreferentzia, ETA sortu ostean, Krutwig eta Txillardeggi bezalako intelektualek iradokitako identitate kulturalago bati<sup>179</sup>. Izan ere, Anthony D. Smithek esan bezala (1992: 91) nazionalismoa kultura forma bat da. Ikuspuntu hau, dagoeneko *Euzko-Gogoa* aldizkariaren lanetan defendatutakoarekin bat datorrena (ikus Gandarias, 2018), Mendigurenen liburuan esaten denarekin bat dator. Bestalde Martak, euskaltegiko ikaskide katalanak, adierazten du argi duela bera ez dela espainiarra eta ondo iruditzen zaiola euskaldunek ere ez badute espainiarra izan nahi (76). Protagonistaren eta lau urte nagusiagoa den Fran nebaren arteko elkarrizketa ere biziki interesgarria iruditzen zait. Teresak bere arazoa kontatzen dio, alegia, beti isil-gordeka ibili behar dela edo ezin duela harremanetan sakondu: “nola izango nituen adiskide neure aitari txakur deitzen ziotenak?” (84). Sustrai

---

<sup>178</sup> Obra osoan zehar sarritan planteatzen den galdera nagusietako bat da ea identitatea zenbateraino den aldakorra edo ea berau osatzerik dagoen.

<sup>179</sup> Irakurleak gai honetan sakondu nahiko balu, Iñaki Aldekoaren *Gure hirurogeiak* (UPV/EHU, 2015) lanera jo lezake. Era berean, aztergai dudana obra honek (euskal) identitateaz hitz egiten duenez eta Txillida eskultoreari erreferentzia egiten dionez, interesgarria iruditzen zait Luxio Ugartek idatzitako *La reconstrucción de la identidad cultural vasca: Oteiza/Chillida* (Siglo XXI, 1996) lana, bi eskultoreek urteetan mantendu zuten eztabaida artistiko, ideologiko eta politikoa ikuspuntu antropologiko zabal batetik aztertzen duena. Bakoitzak euskal nortasun kulturalaren ikuspegi antagoniko bana irudikatzen zuen. Oteitzak kanpoko esku-hartzeetatik babestu beharreko sustrai estetiko autoktonoak defendatzen zituen. Chillidak, berriz, ustezko euskal ariman sustraitzeari muzin egin gabe, mundura zabaldu eta nolabaiteko asmo kosmopolita adierazten zuen hizkuntzaren alde egiten zuen.

faltaren faktoreaz ere hitz egiten dute (85). Franek aipatzen du pertsona bat nekez izan daitekeela bi tokitakoa eta beraz, arrebak hautu bat egin behar duela, baina hala ere, identitatea norberak eraiki behar duela baieztatzen dio (86). Aurrekoarekin estuki lotuta dago jarraian datozen lerroetan azalduko dudana. Bada, protagonistak kontatzen duenez, urriaren 12a, Pilarika eguna, bere egunik gogokoena izan da beti (47) eta egun horretan Zaragozara joatea erabakitzen du. Pasarte hori oso esanguratsua iruditzen zait, izan ere, Teresak aitortzen du zerbait hautsia dela bere barnean eta Zaragozarekiko lehen zuen lotura hori jada ez dela hain sendoa (51). Ez hori bakarrik, gaineratzen du etorkizun hurbila Euskal Herrian duela, nahiz eta honakoa adierazi: “Beharbada herri hark ez ninduen batere maite, nor nintzen ere jakin gabe, baina nik behintzat ez nuen gorrotatu nahi, hori garbi nekien” (51). Urte Berri egunean bere lagun Rosa Donostiara etortzen zaionean bisitan, are gehiago indartzen da sentimendu hori. Batetik, lehen Donostiako hizkera arrotz egiten bazitzaion, orain Rosarena egiten zaio bitxi: “Neu aldatuko nintzen bitarte horretan: neure ahotsa eta belarria” (127). Bestetik, Rosak Zaragozara joateko gonbitea egiten dionean Teresak ez du gogorik adierazten (127). Gainera, ez daki nola eman lagunari bere kezka eta zalantzen berri:

Ez nekien nola aipatu Rosari nire duda-mudak, harreman hasi berri haiek, bihotzean min eman eta kontraesan larriak sortzen zizkidatenak, ez konpondu eta ez azaldu ezin nituenak. Eta neure buruari azaltzeko gauza ez banintzen, are gutxiago Rosari, nire mundutik baitzeturren bera, arazo honetan egia argi eta garbi erabakita zegoen mundu batetik: han oso ondo zekiten zein ziren pelikulako gaiztoak, eta zer pentsatu behar zen haietaz (128).

Goiko pasartean argi ikus daiteke Teresa kontraesanez beteta sentitzen dela, izan ere, jada ez da zaragozarra sentitzen eta geroa Euskal Herrian irudikatzen du, baina jakin badaki ez dela guztiz bertakotu<sup>180</sup> eta ezin duela bere izatea edo identitatea askatasunez bizi (besteek zer esango dutenaren beldur)<sup>181</sup>. Ezinbestean aipatu beharreko beste pasarte bat dago, protagonistaren bizitzan erabakigarria baita. Lehen aipatu dudan moduan, Teresak kartzelan dagoen Estebani gutun bat bidaltzen dio. Bada, Teresaren aitari gutun horren kopia bat bidaltzen diote eta hau bere onetik ateratzen da, alabari terrorista bati idatzi diola esanez eta tratu txar fisikoak emanez. Pasarte honek bikain adierazten du aitaren haserrealdia:

---

<sup>180</sup> Agian irakurleren bati erbestera joaten den jendea etorriko zaio gogora, edo Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa*, izan ere, protagonista ez da Zaragozako sentitzen, baina dirudienez, ezta euskalduna ere.

<sup>181</sup> “Zer egingo zenukete nire aita nor den jakinez gero? [...] Eta nitaz, zer esango zenukete? Segituko al nuke izaten Zaragozako neska jator hori, euskaraz ikasten ari dena, ala etsaia izango nintzateke segituan, txakurraren alaba?” (74).

Isildu egingo ditut hortik aurrerako kolpe eta zafraldi guztiak [...] baita irainen zerrenda luzea ere, bai terroristei, noski, bai niri ere, haietako bat banintz bezala. Eta luzeago jarraituko zuen, sukaldetik dena entzuten zegoen ama atera ez balitz, gehiago eraman ezinik, aita familiakoaren esku zigortzaile hura geldiaraztera (135).

Horren aurrean, Teresa akabatuko duelakoan, amak gelditzeko eskatzen dio senarrari; baina orduan, aitak ama berbalki erasotzen du (136). Aitak kontuak eskatzen dizkio amari haien alabaren ekintzengatik. Ez hori bakarrik, protagonistak esplizituki adierazten du ordutik aurrera bere bizimodua dezente aldatu zela, izan ere, aitaren aginduz, institutura joateko bakarrik irten zitekeen etxetik eta irtetekotan, amarekin izan behar zuen; “Zu etxean, amarekin” (140). Kartzelaldi baten moduan bizi du Teresak hori (aurreko lerroak kontuan hartuta, aitak *aurkari* funtzioa betetzen du, lehenago ere arrazoitu dudan moduan). Aitak ezarri nahi dion *apartheid mentalaren* aurka borrokan ari dela aipatzen du (147), eta hortik aurrera etxeko giroa itogarria dela azpimarratzen du behin baino gehiagotan (143, 147), baina batez ere, aita lanetik itzultzen denean (144). “Etxe barruraino sartu zitzaigun estatu poliziala, geure harreman guztietan geneuzkan susmoa eta errezeloa, birus bat kutsatu baligute bezala” (146). Gainera, azpimarratzekoa da Guardia Zibilak komunikazioaren sekretuaren eskubidea urratu izanak pentsarazten diola “gure demokrazia hura, hain harro ginduzkana, ez zela beharbada behar lukeen eta nahi nukkeen bezain perfektua” (143); eta Euskal Herriko berrietan arreta gehixeago jartzen hasten da. Orduan izaten du etxeko egunkarietan nahiko zokoratuta dauden albisteen berri, tartean tratu txarren salaketak)<sup>182</sup>. Liburuan *in crescendo* doa Teresaren sekretua agerian geratzeko arriskua eta estasi edo gainezkaldi hori liburuaren amaiera aldera gertatzen da. Koldo euskaltegiko ikaskidea fidantzapean libre uzten dute eta protagonistak haren ongietorrian parte hartzen du. Prestaketak egiten ari direla, ordea, Juankar ikaskideak Teresa txakur bat dela esan eta Koldo salatu izana leporatzen dio (174). Hala ere, Andoni (*laguntzaile* funtzioa betetzen duena) haren defentsan irteten da eta leporatzen dion hori gezurra dela adierazten du. Pertsonaia horrek azpimarratzen du geure ekintzen erantzule izan behar dugula, ez gure gurasoen ekintzena; eta geure sorlekua aukeratzen ez dugun arren, geure ideiak eta lagunak aukera ditzakegula (176). Horren ostean, guztiek barkamena eskatzen diote Teresari eta taldean onartzen dute.

---

<sup>182</sup> Hemen ez naiz gai honen gainean luzatuko, baina obra osoan zehar argi ikusten da Teresa protagonistak begirada kritikoa eskaintzen duela, kontatu diotena edo ordura arte sinestarazi diotena zalantzan jarriz uneoro. “Kontuz ibili beharra dago hemen jatorrizko bertsiokak eta manipulazioak bereizteko, bizitzaren edozein arlotan” (187), gatzigatzen du protagonista gazteak.

Teresari etxean egin dioten transmisioari buruz hitz egitea ezinbestekoa iruditzen zait. Aditzera ematen denez, Teresak arrastaka darama gurasoen (batez ere aitaren) herentzia. Baieztapen hori oso ondo antzematen da obra osoan zehar, baina bereziki esanguratsuak dira amaiera aldera, Koldok bere atxiloketan pasatakoak kontatu eta tortura motak esplizituki azaldu ostean egiten dituen adierazpenak (177). Dioenez, erantzule sentitzen da bere patxadagatik, kontzientzia onagatik edo aitak eramandako pastelak jateagatik atxilotuak Madrilera zeramatzen bitartean. Sentimendu kontrajarriak ditu, izan ere, iruditzen zaio bere aita dela legearen beso armatua, munstro bat, baina hala ere bere aita (177). Dena den, garbi dauka horrek dena aldatzen zuela (179). Interesgarria iruditzen zait nola gertatzen den protagonistaren ikuspegi aldaketa eta nola jartzen duen zalantzan ordura arte ikasitako guztia:

Aita eta txakurra ideiak elkarturik ikustean, burura zetorkidan ezinbestean *txakurraren* beste adiera mingarri eta lotsagarri hura. Pertsonen txakurra deitzea ere, gorrotoaren emaitza besterik ezin zitekeen izan. Hala ere, nondik zetorren gorroto hura? Irrazional hutsa zen, ala bazuen oinarriren bat? Haritik tiraka, aitaren lan zehatza zein ote zen pentsatzen jarri nintzen [...] ordura arte beti pentsatu izan nuen jendeari laguntzeko zegoela, gaizkileak atxilotuz eta. Gaizkilea zer zen oso modu zabalean uler zitekeen Euskal Herrian, itxura denez, zaku horretan sartzen baitzen gure Estatu ereduarekin bat ez zetozen guztiak. Nik neuk ikusi nuen, ordea, Institutuan eta Euskaltegian, asko zirela bat ez zetozenak. Denak ez ziren terroristak izango, baina bai susmagarri, eta haien susmoaren atzetik ibili behar, txakurra erbiaren usnan bezala. Txakurrak (144).

Koldoren ongi etorriaren ostean, Teresa etxera itzultzen da eta aitari non egon den aitortzen dio. Ez hori bakarrik, biak eztabaida gogor batean ari direla, alabak torturen kontua aurpegiratzen dio (180-181) eta egoera biziki bortitza deskribatzen da. Agian irakurleren batek pentsatuko luke istorioaren amaieran Teresak uko egiten diola familiarengandik jasotako herentzia horri, aitaren aurka eginez eta “identitate espainiarra” ukatuz, baina nik ez nuke inola ere baieztapen horrekin bat egingo, izan ere, uste dut liburuari amaiera ematen dion azken pasarteak aurkakoa adierazten duela: “Gauza askoren nahasketa nintzen ni, eta askoz gehiago nahastuko zitzaizkidan gero, baina inoiz ez nuen onartuko neure izatea dimentsio bakarrera mugatzea, eta ni inorentzat “txakurraren alaba” izatea” (188). Baieztapen horretan ñabardura askoko (euskal) identitatea aldarrikatzen du protagonistak. Gainera, azpimarratzen du arazoa ez dela euskaldun eta txakurraren alaba izatea (185), Estatuak ordaindu eta antolatutako sarraski hartara dedikatzea baizik (186). Aita eta alabaren arteko hartu-emanari dagokionez, Teresak aipatzen du aitarekiko harremanak erabat aldatzen direla.

Dioenez, hasieran gorrotoa sentitzen du, baina gero, errukitu egiten da, izan ere, aita borrero gisa ikusten du, baina baita biktima gisa ere, berak zuzentzen eta kontrolatzen ez duen mekanismo baten zati txikia zen neurrian (186). Gainera, baja hartu ostean sekzioz aldatu eta bulegoetara pasatzen dela jakinarazten da (186).

Atal honekin bukatzen joateko, ezin aipatu gabe utzi obra honen amaierak zalantzi utzi nauela. Ez daukat ziur Mendiguren idazleak zer adierazi nahi izan duen obra honetan, hau da, egia da elkarbizitzarako dei bat egiten dela, ezberdinen arteko elkar-ulertzea eta errespetua aldarrikatuz. Egia da ere amaieran Teresa gizartean integratzen dela eta lagunek bera den bezala onartzen dutela. Baina, era berean, ezin ukatu protagonistak prezio bat ordaintzen duela horregatik; edo niri bederen hori iruditzen zait. Zein da aipatu prezio hori? Bada, Teresak euskara ikasi, ondo menperatu eta erabili egiten du. Gainera, ezker abertzalearen ideologiaren inguruan koka daitezkeen lagunekin ibiltzen da eta presoekin zein preso ohiekin erlazionatzen da. Ezin ahaztu hasieratik bertatik Andoni gogoko duela eta amaieran esaten denagatik, haren mutil-laguna dela dirudi (187). Eta ez hori bakarrik, Euskal Herrian dagoenetik lagun erdaldunekin duen harremana askoz txikiagoa da, hala Zaragozako adiskideekin nola Donostian bizi den Yolandarekin (guardia zibilaren alaba dena, kasualitatez). Hori gutxi balitz, Teresa eta bere aitaren arteko harremana nahiko aldatzen da eta aipatu dudan moduan, aita bulegoetan lan egitera igarotzen da. Horregatik, iruditzen zait integrazioa baino hobeto, aproposagoa dela *asimilazio* hitza erabiltzea. Bukatzeko, eta aurreko ildo beretik, “gu” versus “bestea” dikotomia horretan, hasiera batean Teresa protagonista “bestea” izan daiteke irakurlearentzat, euskal literaturan tradizionalki Guardia Zibila (eta baita bere familia) antagonista izan baita, bestea, ezagutzen ez dena. Baina, hala ere, mintzagai dudan obra honetan nahiko humanizatzen da pertsonaia hori<sup>183</sup>. Kontakizunak aurrera egin ahala, ordea, esango nuke protagonistaren bestetasun hori desagertuz doala, hau da, “gutako” bat bihurtzen dela. Halaber, Teresarentzat ere hasieran euskaldunak badira besteak, gero, aldaketa bat antzeman daiteke. Mendigurenen obra honetan, beraz, “bestea”-ren aurkezpena egile inplizituaren ideologiatik, ezker abertzaleatik, egiten da. Esan bezala, “bestea”, asimilatzen den neurrian, “geure” egiten dugu, “gu” kolektiboko kide bihurtu, ezabatu. “Besteak” hasieran hitz egiten badu ere, poliki poliki bere ikuspuntua, mundu ikuskera, aldatuz doa, nahiz bere estigma, “txakurraren alaba” izatea, alegia, ez duen

---

<sup>183</sup> Pasarte batzuetan, guardia zibilaren rolaz at, alabarekin jolasten duen aita ageri da, alaba zaintzen duena edo bere mazarraiekin harro-harro agertzen dena (179). Nire ustez bi aldeak humanizatzen dira, izan ere, guardia zibilaz gain euskal preso politikoak ere gerturatzen zaizkio irakurleari. Eta nola ez, obra honetan bien arteko lotura egiten duen Teresa protagonista humanizatzen da batez ere. Aipatutako lotura hori egiteko ezinbestekoa da bestea humanizatzea.



galtzen. Biktima/biktimario, etxe/kanpotar edo errepresio/errepresaliatu gisako dikotomiak testu honetara aplikatuz gero, bistan da zalantzarako edo termino binarioak auzitan jartzeko aukera gutxi eskaintzen dela. Ausartuko nintzateke esatera ideologia fikzioari gailentzen zaiola kontakizun honetan.

### **Oroimen gunek eta kontestualizazio historikoa**

Ezinbestean iruzkindu beharreko zenbait espazio daude liburuan, jarraian azalduko ditudanak. Batetik, Donostiako Loretopean dagoen *Besarkada* eskultura ageri da. Altzairuzko obra hau Txillidak eraiki zuen 1992an hildako Rafael Ruiz Balerdi margolari eta lagunaren omenez eta lagun baten besarkada, adiskidetzea edo elkar aditzea artearen hizkuntza unibertsalaren parte dela gogorarazi nahi du. Iruditzen zait mintzagai dudan eskultura hori, eta oro har Loretopea, memoria gune gisa har daitekeela. Bestetik, Protagonistak eta Carmen ikaskideak bisitatzen duten Gladys-Enea aipatu behar da. Tokia Cristina Enea deitzen da ofizialki, baina jendeak Gladys-Enea deitzen dio guardia zibilak manifestazio antinuklear batean hildako Gladys neskaren omenez. Gladys del Estal (Venezuela, 1956) egiatar ekintzaile ekologista zen eta guardia zibilak hil zuen 1979ko ekainaren 3an Tuteran manifestazio baten aurka egindako kargan<sup>184</sup>. Nire ustez espazio hau memoria gune garrantzitsua da. Espazio zehatzak alde batera utzita, aurreko atalean esan bezala, kontakizuna 1992 eta 1999 urteen artean girotuta dago eta Mendigurenek Euskal Herriko gizartearen zati bat islatzeko ahalegina egiten duela iruditzen zait. Euskal Herri gatazkatsu bat deskribatzen du egileak. Batetik, manifestazio eta istilu gogorrak ageri dira. Teresak kontatzen duenez, istiluak lehenengo aldiz ikusten dituen egunean burutik kendu ezin dituen irudiak geratzen zaizkio iltzatuta, batez ere manifestariak poliziarri harrika ikusten dituenen<sup>185</sup>. Bestetik, identitatearen eta Euskal Nazioaren aferari ere keinu egiten zaio nobela labur honetan. Esaten denez, euskaltegian orokorrean denek pentsatzen dute euskaldunak herri zapaldua direla eta askatasun-eskubidea ukatzen zaiela. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi Euskal Herria toki arriskutsu bezala ageri dela hasieran. Protagonistaren amari adibidez, izugarritzko beldurra ematen dio Euskal Herriak, bertan gertatutako zenbait atentatu ikusi baititu telebistan. Ez hori bakarrik, Teresak esaten du atentatuen errealitatea egiazkoa dela eta

---

<sup>184</sup> Interesgarria da oso *Argia* astekariarekin batera argitaratzen den *Larrun* aldizkarian (240. zenbakian) Gladys del Estalen gainean kaleratutako hamabost orrialdeko erreportajea. Bertan, biografia emateaz gain, bere erailketari buruzko datu zehatzak ematen dira, baita gertaerak mundu mailan izandako oihartzunaren gaineko xehetasunak ere. Irakurleak informazio hori eskuratu nahiko balu, helbide honetara jo lezake: [https://www.argia.eus/astekaria/docs/2638/pdf/Larrun\\_240.pdf](https://www.argia.eus/astekaria/docs/2638/pdf/Larrun_240.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20]. Era berean, interesgarria da 2019an Bertha Gaztelumendik zuzendutako *Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa* dokumentala.

<sup>185</sup> Gogora bitez aurretik landu dudana *Harri barruko bihotz-borrokak* liburuan harrien bidezko defentsa-sistemari buruz esandakoak.

Euskal Herrian presente dagoen arrisku bat dela. Ezin ukatu kontakizunak hartzen dituen garai haiek gogorrak izan zirela, aurreko atal batean azaldu dudan moduan (3.2.), 90eko hamarkada indarkeria handiko garaia izan baitzen, atentatu odoltsuak, bahiketa luzeak eta errepresio handia egon baitzen. Gai horrekin lotuta, aurrerago azaldu dudan “dena ETA da” leloaren oihartzuna izan litekeenari erreferentzia egiten zaiola iruditzen zait, izan ere, Carmenek protagonistari azaltzen dio terrorismo edo antzeko gauzetako susmagarria guztiak modu sistematikoan torturatzen dituztela. Azkenik, euskal gizarteko sektore handi batek oraindik ere ozen egiten duen aldarrikapen bat islatzen du Mendigurenek, Guardia Zibila Euskal Herritik kanporatzeko eskakizuna hain zuzen.

#### **6.2.6.5. *Tunelaz bestaldean***

Joxerra Garziak (Legazpi, 1953) 2000. urtean SM argitaletxean kaleratutakoa da honako liburu hau. Egilea aski ezaguna da bertso munduan, ia denetik egin baitu alor horretan. *Hitzetik Hortzera* bertso-programaren sortzaile, zuzendari eta aurkezle izan zen Euskal Telebistan. Horrez gain, Euskadi Irratiko bertso-irratsaioa zuzendu eta aurkeztu zuen, eta bertso txapelketetan antolatzaile, aurkezle, gai-jartzaile eta epaile aritzeaz gain, hainbat liburu argitaratu ditu bertsolaritzaz eta ahozkotasanaz. Literatur esparruari dagokionez, aforismo liburu bat, pare bat poesia liburu (horietako batekin Irun Hiria poesia saria eta Kritikaren saria eskuratu zituen) eta haur eta gazteei zuzendutako hiru obra eman ditu argitara: *Gau bat gauekoen artean* (Erein, 1988) eta Bapore Saria eskuratu zuten *Malen laberinto madarikatuan* (SM, 1986) eta *Tunelaz bestaldean* (SM, 2000).

#### **Laburpena**

Hamabi urtetik gorako irakurlea helburu duen eleberri honek euskal presoek jasaten duten urruntze politikaren gaia dakar 107 orrialdeetan barrena. Martin da istorioko protagonista nagusia, ama urruneko kartzelan duen gaztea. Amarekiko distantzia fisiko horrek ondorioak izango ditu bere eguneroko bizitzan eta inguruan duen egoerarekin lotutako hausnarketa interesgarriak plazaratuko ditu mutikoak.

#### **Harrera kritikoa**

Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuen eleberria eta arestian aipatu dudan moduan, mintzagai dudan liburuarekin Bapore Saria eskuratu zuen Garziak (eta Euskadi Sarietan finalista geratu zen). Lehenengoz argitaratu zenetik, 3 edizio izan ditu

obrak, baina euskaraz soilik irakur daiteke Martinen istorioa. Xabier Etxaniz (2001) kritikariak aipatzen duenez, estilo atsegina eta hizkuntza zaindua erabiliz, egileak moralkeriarik gabeko istorio bat dakarkio irakurleari, gogoeta eginaraztea bultzatzen duen kontakizun bat hain zuzen. Felipe Juaristik (2001), ordea, egileak poesia egiteko duen bertutea goraiatu ostean, liburuak duen idazketa sinbolikoan jartzen du arreta eta istorioa ulertu ahal izateko liburuak eskatzen duen irakurketa sinbolikoa azpimarratzen du. Azkenik, Julen Gabiria idazleak (d.g.) Garziaren idazle dohainak laudatzen ditu, eta horrekin batera, liburuak irakurlea hausnarketa egitera bultzatzen duela azaltzen du.

### **Analisi narratologikoa**

Martin mutikoa da eleberri errealista honetako narratzaile autodiegetikoa eta lehen pertsonan ematen du inguruan gertatzen zaionaren berri. Hiru urte zituen ama preso eraman zutenean (14) eta dioenez, artean hiru urte bazituen ere, primeran gogoratzen du momentu hura, une traumatikoa izan zen seinale: “Ni indarka munduratu ninduen munstroa [medikuaz ari da] aingerutxo bat zen ama eramatera etorri ziren maskaradunen aldean” (18). Esanguratsua da nola egiten den poliziaren karakterizazioa. Bere jaiotza kontatzen duen pasarteetan, genero aldetik oso interesgarriak diren ohar batzuk egin nahiko nituzke. Batetik, aipatzen da semea jaiotzeaz zela, medikuak kanpora bidali zuela aita, ikuskizun ezatsegina saihets zezan (16)<sup>186</sup>. Bestetik, itxarongelan dagoen aita batek beste aita bati galdetzen dio jaio berri den haurra neska ala mutila izan den, eta neska dela erantzutean, gaineratzen dio hobe dela horrela, hartara ez dituelako erditzean bere aitak pasatu dituenak pasatu beharko (17). Ziur naiz lerro horiek irakurle bat baino gehiagoren irribarrea eragingo dutela, ironikoa baita inolako min fisikorik pairatu ez duen aita izatea gaizki pasa duena erditze prozesuan. Esan bezala, Martinek urrutiko kartzela batean preso dauka ama eta aitarekin bizi den arren, urruti sentitzen du hura ere. Horren gaineko gogoeta interesgarriak plazaratzen ditu protagonistak: “Aukeran hobe da noski hurbil egotea, baina urruti ere ez dago berez hain gaizki. Txarra, benetan txarra, ez urruti ez hurbil da. Hurbil egonda urruti sentitzea. Hor ez baitira kontrakoak elkartzen. Elkar engainatu nahirik dabilta hor kontrakoak” (11). Horren aurrean, Martinek kontrakoekin elkartzen dakiten gauza, pertsona eta sentimenduak izugarri maite dituela azpimarratzen du (8). Amaren egoerari buruz hitz egiten ari dela dirudien arren, Euskal Herriko egoerari buruz ari dela antzematen da. Dudako Herria da istorioaren kokagune

---

<sup>186</sup> “Amaren hamabigarren bultzaldian -edo hamaseigarrenean, aidanez: ez nituen amaren bultzaldiak kontatu-, burukaskoa atera nuen” (16). Narratzailearen hitz horietan, Anjel Lertxundiren liburuaren oihartzuna iritsi zait niri.

nagusia, baina narratzailearen deskribapenei esker, garbi ikusten da Euskal Herria dagoela izendapen horren atzean:

Baijerri eta Ezerriren artean dago Dudako herria. Batzuek herri denik ere ez dute uste. Halakoentzat, Baijerri eta Ezerriren arteko gutzia dudakoa da, minuskulua, hutsaren hurrengoak. Amak -eta, berriz, beti letra larriz idazten dute duda: Duda. Eta herri deitzen diote: dudako Herria (19).

Gainera, narratzaileak kontatzen du izebak Dudako Herriaren borroka hitz egiten diola (57). Kronologiari dagokionez, 90eko hamarkadan girotutako kontakizuna izan liteke, pista hori ematen baitute, besteak beste, narratzaileak deskribatzen dituen pezeta txanponek (32). Martin aitarekin bizi den arren, urrun sentitzen du hura eta haien arteko harremana ez dirudi ona denik (29). Aitak ez dizkio galderak erantzuten txikiari (12), eta horrek frustrazioa eragiten dio. “Aitak, izan ere, ez dit ia deus esaten aspaldion. Noiz edo noiz, egin diodan galderari erantzuteko une egokia ez dela esaten dit [...] Noiz edo noiz, amarengana joateko gogorik dudan ere galdetzen dit, baina ez dut uste axola dionik gogorik dudan edo ez dudan” (19). Martin ama bisitatzea joan eta kartzelan geratuko litzateke harekin (19). Aitarekin batera, naturreko irakasleak ere ez dizkio galderak erantzuten (7), eta horrek, lehen aurreratu bezala, galbidean barrena dabilenaren sentsazioa sortzen du mutilarengan. Aitarekin duen harremanera itzuliz, badirudi beldur apur bat diola: “Hitz egingo nioke, baina ez dakit ondo hartuko lukeen edo petraldu eta kristonak esango lizkidakeen” (11). Ildo beretik, honako parsarte hau esanguratsua da: “Ez diot esan ama, urruti badago ere, bera baino hurbilago sentitzen dudala. Egunen batean topatuko dut hori esateko une egokia ere. Baina niri ahotsa potolotzen edo bestela aitari mehetzen zaionean beharko du izan” (13). Aita autoritarioa dela irudi lezake, baina ez dirudi horrela denik, izan ere, gurasoek Andoni laguna askotan zigortu eta jotzen dutela (zaplaztekoak aipatzen ditu) kontatzen duenean (12), honako gogoeta hau egiten du: “Nik ere estimatuko nuke aitak tarteka zigortuko edo joko banindu. Hartara hurbil sentituko nuke agian” (14). Ikusten denez, uneoro ageri da aitarekiko distantzia horri egindako aipamenik, eta baita, aita hurbil sentitzeko desira ere. Dirudienez, izeba Arantxa da protagonistak uneoro alboan duen pertsona heldu bakarra eta bera dela amaren kartzelaratzearren arrazoiaz hitz egin diona (20). Dena den, zergatia ez zaio inoiz irakurleari esplizitatzen.

Amaren karakterizazioari dagokionez, emakume indartsua dela ematen du. Narratzaile gazteak jakitera ematen duenez, kartzelara bisitan doazenean inoiz kexatzen ez den ama da

familiakoak kontsolatzen aritzen dena eta negargura arrastorik erakusten ez duena (78-79). Uniformez jantzita ibiltzen dela zehazten da. Protagonistak aski ongi deskribatzen du ama preso dagoen emakumezkoentzako kartzela: Handia, hotza eta iluna, baina batez ere arrotza. “Arrotza da hizkuntzaz, eta hizkuntza berean hitz egiten dutenek ere arrotzei hitz egiten zaien bezala hitz egiten diote han elkarri” (78). Kartzelako funtzionarioen deskribapena ematean ere, arrotzasun hori azpimarratzen da:

Gu amarekin gauden bitartetxoan, funtzionario arrotz bat egoten da gurekin. Ez dakit zertarako, ez du ematen gure hizkuntza ulertzen duenik. Guk ere ez harena, baina denbora amaitu dela adierazteko «eguraldi zoragarria gaurkoa» esango baligu ere bere hizkuntzan, berehala ulertuko genioke alde egiteko ordua dela esaten ari zaiguna (78).

Presondegiaren deskribapen horrekin batera, ezin aipatu gabe utzi urruntze politikak familiarrengan eragiten duen zama gehigarria, 789 kilometrora dagoen kartzelara joateko, 8 orduko bidaia egin behar baitute istorio honetako senideek (76). Bidean doazela, protagonistak argi dauka amaren aurrean izan beharreko jarrera: Tristurak irentsi, aurpegi alaia jarri eta ama animatzen ahalegindu behar da. Negargura sartuz gero, ezkutuan egin behar du eta inoiz ez presoaren aurrean. “Horixe behar zuela amak une horretan, animoa, ez genuela eskubiderik gure pena eta mixeriak amari kontatzeko” (77). Beraz, badirudi antzezpena egin behar duela familiak, amaren zigorra astunagoa egin ez dadin.

Aitarekin bizi duen egoerak bultzatuta, baina baita aitaren eta izebaren artean sexu-harreman bat dagoelakoan, Martinek etxetik alde egin eta tunel azpian ezagututako kale-kantariarengana joango da. Interesgarria da pertsonaia honen deskribapenean apur bat sakontzea. Kanpoan urte asko emandako gizona da, bertakoa. Bere buruarekin ados egon ez eta emaztea, protagonistaren adin bertsuko semea eta lanpostu ona alde batera utzi zituen (67). Maitasunari buruz mintzatuko zaio gazteari, maitatzeko moduez edo maitasunak berak duen konplexutasunaz. Horrekin batera, daukaguna maitatzeari buruz hitz egingo dio eta azalduko dio norberaren ezinegonen arrazoia ezin dela bilatu besteengan, ezta lanean ere, sekretua ez baita kanpoan bilatu behar, norberaren barruan baizik (91). Musikariaren hitzek eragina izango dute Martinen jarrera aldaketan. Hasieran, konfiantzazko inor ez duela eta bakarrik dagoela irudituko zaion arren, adiskideak laguntzeko prest daudela konturatu eta haien beharraz jabetuko da: “Lehen ere banituen lagunak, baina orain arte ez nekien hainbeste behar eta maite nituenik” (102). Maitasun mota horrez gain, maitasun erromantikoa sentituko du Martinek eta sentitzen dituenak deskribatuko ditu: Saioa eta bere begiek topo egiterakoan

edo dantzan ari direnean sentitzen duen zirrara (54), edo Malenekin dantzatzean sentitutako kitzikapena (61).

Aztergai dudan liburuarekin amaitzeko, Garziak darabilen hizkuntzari erreparatu nahiko nioke. Lehenago ere aipatu dut eleberri honetan metaforekin jokatzeko duela egileak eta gehitu nahiko nuke hizkuntza aldetik aberatsa iruditu zaidala bere idazmoldea, hizkuntza poetikotik gertukoa sarri. Ez dira gutxi emozioak adierazteko naturako elementuekin egiten diren konparazioak, adibidez, deskribatzen denean enarak argindarraren harietan pausatzen diren moduan pausatzen direla tristuraren txoriak izebaren ezpainetan (36), edo esaten denean zuhaitzetako txorien txioa baino ozenago entzuten dela izebaren tristura (37). Sinestesiatzat har daitezkeen deskribapenak ere ageri dira, adibidez, aita eta semearen arteko isiltasuna altzairuzkoa bihurtzen dela esaten denean (29).

#### **6.2.6.6. *Kixmi elurpean***

Arrate Egañarena (Errenteria, 1963) da jarraian aztertuko dudana obra, Elkarrek argitara emandakoa 2005ean. 1999an Manuel Ortégaren irudiz lagunduta, *Printzesa puzkertia* kaleratu zuen SM argitaletxean (2017an Ereinek berrargitaratu zuena), eta orduz geroztik, haur eta gazteei zuzendutako hogeita bat lan kaleratu ditu. Ibilbide horretan zehar, bere lana hainbat aldiz izan da saritua. Arestian aipatutako lanarekin Bapore Saria eskuratu zuen, HGLko *Giltza* (Erein, 2011) obrarekin Lizardi Saria, *Angelitos negros* (1992) izenekoarekin Salamancako Atenea saria, eta Donostia Hiria Saria, berriz, *La visita* (1992) ipuinarekin eta *Egia* (Alberdania, 2012) antzerki obrarekin.

#### **Laburpena**

Denboran urte batzuk atzera eginez, hamabi urtetik aurrerako irakurlea helburu duen 193 orrialdeko eleberri honek 1997ko Euskal Herrira daroma irakurlea. Hainbat gazteren errealitatea ematen da istorioan, baina batez ere, Pelloren eta Kixmiren berri. Egun batetik bestera, bat-batean aldatuko zaie bizitza eta nork bere aldetik ekin beharko dio irtenbidea topatzeari.

#### **Harrera kritikoa**

Euskaraz baino ez dagoen liburu honek zazpi argitalpen izan ditu 2005ean lehenengoz argitaratu zenetik. Xabier Etxanizek (2005c) eleberri entretenigarri, atsegina eta

interesgarritzat du obra, noizean behin umorezko pasarteak tartekatuz, gazteen gai eta hizkeratik gertu dagoena. Aipatzekoa da Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela mintzagai dudan eleberri hau.

### **Analisi narratologikoa**

Marimar Agirreren azaleko irudiak giro hotz batean kokatzen du irakurlea eta liburuak duen abentura kutsua aurreratzen du. Elurtutako paisaia, gauaren erdian aurrera doan furgoneta bat ageri da. Seinale batek inguruan oreinak dabilzala ohartarazten du eta horrek, elurrarekin batera, arriskutsu egiten du bidea. 1997ko urtezahar-gaua da eta narratzaileak urte hartako gertaerak aipatzen ditu: Ullrich-en Tourraren garaipena, Dolly ardi klonatuaren jaiotza, Guggenheim museoaren inaugurazioa eta Lady Diren heriotza susmagarria, besteak beste (8). Garai hartan bogan zeuden musika taldeen aipamenek giro horretan laguntzen dute, Muguruzatarrak, Itoiz, Lete (133) eta Hertzainak (69) aipatzen baitira. Aurrerago zehaztuko dudan moduan, garai hartako giro gatazkatsua primeran irudikatzen da, pertsonaiek lotura zuzena edo zeharkakoa izango baitute harekin. Kokapenari dagokionez, Euskal Herria da gertaleku nagusia eta ematen den toponimiagatik eta bestelako erreferentziengatik, pertsonaiak Errenterian bizi direla esan daiteke.

Institutuko azken urtean dabilen Pello da kontakizun honetako narratzaile autodiegetikoa eta lehen pertsonan ematen du inguruan gertatzen denaren berri. Bere buruaz ematen dituen deskribapenengatik, nortasun bereziko mutila dela esan daiteke: “Jende gutxi ezagutzen ninduen, nire lagunak sobera ezagunak izan arren [...]. Nire gelako kideek ez ninduten kalean agurtzen” (23). Badirudi beste gazteek bezalakoa izan nahi duela, baina hori lortzeko bidea ez zaio zuzena iruditzen: “Astapotroa izan behar besteak bezalakoa izateko, onetsia izateko, neska-lagunak mirets zintzan eta joan ez zedin” (15). Pellok harreman bat dauka bera baino bi urte gazteagoa den Kixmirekin (Eire jaiotzez) eta harekin erabat maiteminduta egoteaz gain, lehen sexu harremana izango du. Hala ere, neska galtzeko beldurrak jeloskor jarriko du mutila (13). Antzematen da Pellok bere maskulinitasunaren gaineko hausnarketak egiten dituela, arestian aipatutakoez gain, honako galderak egiten baitizkio bere buruari: “Eta Kixmi? Zergatik ez nintzen benetakoagoa harekin? Nire ahuleziak erakusteko ikaraz? Neskaren aurrean, egia esateko, nire alde indartsuena nabaritu nahi nuen, makal batekin zebilela pentsa ez zezan” (23). Argi geratzen da ez duela den bezalakoa agertu nahi neskaren aurrean, honako aipuetan ikusten den moduan: “Ez nuen inolaz ere egia aitortu nahi. Sobera zekien hark ahula nintzela, erromantiko hutsa. Ez nuen nitaz zuen ideia hura

indartu nahi” (127); edo “Nik esan nahi nion beste mutil haiek guztiak bezalako nintzela: ausarta, borrokalaria, heroi gazte bat..., eta ez kuraki bat” (131).

Kixmi ere ez dirudi sentimenduak erraz kanporatzen duen horietakoa denik (30). Dena den, amarekin gaizki moldatzen den arren, latzak datozkionean harekin hitz egiteko beharra sentitzen du beti (164-165)<sup>187</sup>. Genero aldetik esanguratsua da hori, tesiko corpuseko beste lan batzuetan urrun dagoen amarekin hitz egiteko beharra (eta aitarekiko distantzia) errepikatzen baita. Arestian aipatutako lehen sexu harreman hori bi gazteentzat izango da berezia, ez soilik estreinako aldia izango delako bi gaztetxoentzat, baina baita Pellok haurdun utziko duelako Kixmi (31). Esan gabe doa lehen harreman horri buruzko deskribapenak ageri direla orriotan (34-36), baita lehen muxuari buruzkoak ere (108). Pellok haurdunaldiarekin ardura hartu eta neska laguntzeko prestutasuna adieraziko du, nahiz eta Kixmik gaineratik kendu nahiko duen. Horrekin lotuta, interesgarria da mutilaren hitzak hona ekartzea: “Popatik hartzera bidali nuen jende guztia. Haiek ez ziren “emakumeen gauzak”! Zein mendetan geratu ziren bizitzen? [...] Ardura hartu besterik ez nuen nahi” (46). Neskak Baionan abortatzea erabakiko du<sup>188</sup>, eta dirua lortzeko, Pellok gurasoak drogu eta lapurreta planifikatuko du. Momentu horretatik aurrera konplikazioak pilatuz joango zaizkie bi gazteei. Lehenengo, lapurtutako bitxiak diruagatik aldatuko dien saltzailea haien aurrean hilko da (121), eta gero, Baionara bidean doazela, orein baten aurka talka egingo dute. Azken hori inflexio puntua izango da bi gazteentzat, etxera itzuli eta gurasoei haurdunaldiaren berri emango baitiete. Gainera, Pellok bere izaeraren gainean beharrezkoa duen kanpo balidazioa jasoko du Kixmiren partetik: “Hori gustatzen zait zugandik [...] sentimenduak azaltzeaz ez zarela lotsatzen, lasaia eta baketsua zarela, ez beste astakirten horiek bezala, ahobero harroak. Gizontasuna bortizkeriaz erakutsi behar beti” (144). Are gehiago, mutilak aldatzeko asmo irmoa duela aitortzen dionean, neskak agerian jarriko dio berriz ere den moduan maite duela (145).

Atal honekin amaitzeko, testuinguru historikoari buruzko xehetasunak eman aurretik, ez nuke aipatu gabe utzi nahi liburu honek aukera ona ematen duela gizonei esleitzen zaizkien estereotipoei buruz hitz egin eta horiek zalantzan jartzeko. Protagonistak beste mutilengandik bereizten duen nortasun berezia dauka eta haren ustez bere jokabidea zuzena den arren, aldatu

---

<sup>187</sup> Amarekiko haserre horren jatorria garbi adierazten da liburuan, protagonistak esaten baitu aita kartzelan egon zenean beste batekin ibili zela ama (93). Labur bada ere, aipatu nahiko nuke bikotekidea preso izan duten emakume askok gai hau aipatu dutela askotan, alegia, zein gaizki ikusita dagoen bikotekidearekin harremana haustea hura preso dagoen bitartean, edo hare, kartzelatik irten eta gutxira, emakumeak harremana uztea erabakitzen duenean.

<sup>188</sup> Azpimarratzekoa da, paragrafo bakarrean bada ere, zein xehe eta gordin deskribatzen den abortua egiteko prozedura (60).



egin nahiko du, ustez gizon bati dagokion portaera (berak ere mespretxatzen duena) izan dezan. Baina Kixmiren kanpo balidazioari esker bada ere, Pellok kemena eta ausardia baliatuko ditu bere ekintzen ardura hartzeko eta gurasoei haurdunaldiaren berri emateko.

### **Kontestualizazio historikoa**

Lehen esan bezala, kontakizuna 1997ko Euskal Herrian girotuta dago eta ugariak dira euskal gatazkari egindako erreferentziak, izan ere, pertsonaia nagusiak giro horretan murgildurik bizi dira bete-betean. Batetik, Kixmiren aita kartzelatik pasatakoa dela aipatzen da eta informazio hau gaineratzen du protagonistak: “Sarritan aritua zela herriko pintadetan. Hortaz, “presoak kalera” pintada ikustean hark egina ote zen pentsatzen nuen, edo pareta handi bateko marrazki eder hura, barrote arteko begi urtsuak (12)”. Ikusten denez, herriko paisaiak ere aipatu giro nahasi hori irudikatzen du. Kontakizunaren unean Kixmiren aita aske dagoen arren, kartzelarekin duen loturak hautsi gabe dirau, bi gazteek larrutan egin zuten unean preso bat bisitatzera joana zela aipatzen baita (32). Bestetik, preso dauden beste pertsonaia batzuk ageri dira, adibidez Indio izeneko baten anaia: “Zenbait urte zeramatzan Indioren anaiak barruan, epaiketaren zain. Behin batean, torturatu egin zutela salatu zuen egunkarian. Ez genuen gure artean aipatu: gordinegia edo” (20). Aurreko pasartean torturak era esplizituan aipatzen diren arren, beste pasarte batzuetan inplizituki aipatzen da atxilotuari informazioa ateratzeko modu anker hori:

Triku, kartzelan egondako bat. Egun batzuk baino ez omen zituen igaro barruan, baina aldatuta irten zen, politika alde batera utzi zuen betiko. Barruan “beratu” egin zutela esaten zen, nahiz eta berak ez zion inori kontatu zer egin zioten. Hobe ez jakitea (74).

Ikusten den moduan, gordinegia delakoan, protagonistak nahiago du zehaztasunen berri ez izan. Kontakizuna girotuta dagoen garaian ugariak izaten ziren manifestazioak, eta beste horrenbeste manifestariet poliziarekin izandako liskarrak. Kale borroka dei daitekeen horren deskribapen nahiko luzea aurki daiteke orriotan. Hasieran, manifestariet ahoskatzen dituzten goiburuak aipatzen dira: “Presoak kalera, amnistia osoa!”, “Zuek faxistak zarete terroristak!” edo “Ez, ez, ez, herriak ez du barkatuko!” (47) adibidez. Horrekin batera, presoek argazkiak daramatzaten afixak aipatzen ditu narratzaileak (48). Baina aurrerago, manifestazioak hartzen duen bide biolentoaz jakinarazten du. Manifestariak barrikadak altxatzen eta inguruko zaborrontziak pilatzen hasiko dira, aspaldian ez bezalako hesiak egiteko: “Aspaldian ez ziren behar bezalako hesiak ipintzen, baina gau hartan animoak gori-gori zeuden, zuela gutxiko tortura kasuengatik akaso” (49-50). Ibilgailuen erreketari ere

ekingo diote bertaratutakoek: “Errepidean, autobus bat erretzen hasi ziren eta kontenedoreak zeuden pilatuta, sekulako hesia osatuz. Gurasoek deskribatzen zizkiguten barrikada historiko haietako bat zirudien, Francoren garaikoa edo” (52). Pello eta lagunak istulu horietan aktiboki hartuko dute parte, telefono kabina lurrera bota (52) eta poliziarengandik ihesi arituko baitira, haien pilotakadetatik, sutetik eta poliziaren ke poteek eragindako hodei trinkoetatik ihesi (57). Aipa dezadan *txakurrak* deituko diela Pelloren lagunak poliziei (58). Istilu horren erdian, amorruek janda dabilen eta inork baino ozenago oihu egiten duen pertsonaia bat ageri da, Indioa, preso zegoela torturatu zutenaren anaia. Portaera horren aurrean, Mireia lagunak Indioari errepikatzen zizkion hitzen berri ematen du narratzaileak, “gatazkak konpontzeko hitz egin behar dela, indarkeria ez dela irtenbide bakarra, ezta egokiena ere”, baina jakinarazten du mutilaren mina handiegia zela (48). Presoen sakabanaketa ere hartzen da hizpide liburuan, Kixmirekin batera, Pellok gose-greba egingo baitu sakabanaketaren amaiera eskatzeko (108). Ez nuke aipatu gabe utzi nahi Irlandako gatazkarekin alderaketa txiki bat egiten dela, bere presentzia aipu honetara mugatzen bada ere: “Eta [Kixmi] Irlandan jaioa denez, ondo ulertzen du hemen pairatzen ari garen egoera, han beraiek ere borroka gogorra baitute independentzia lortzeko” (92). Beraz, aipu horrekin narratzaileak ulertzera ematen du independentziaren lorpena dela Euskal Herriko gatazkaren arrazoia.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi drogen presentziak testuinguru historikoaren girotzean duen garrantzia. “Zurumurruek zioten poliziak berak saltzen zuela, edo poliziak sarrarazten zuela gameluen bitartez droga kopuru izugarria herrian, gazteak iraultzatik at uzteko” (70). Horixe adierazten du protagonistak gurasoak drogatuta eta lapurreta egin ahal izateko gamelu bila ari dela. Badirudi kalean nabari daitekeela drogaren presentzia, orratzarekin drogak hartzen dabilen jendea aipatzen baitu narratzaileak, baita praktika horrekiko nazka ere (74). Ez hori bakarrik, badirudi kontakizun honetako gazteek eurek zuzeneko kontakturen bat edo beste dutela haiekin: “Geuk ez genuen, egia esateko, droga askorik kontsumitzen, alkohola eta noizbehinka txirriren bat [...]. Ez genituen sakonki ezagutzen drogen eraginak; eta, ikusitakoagatik hain larriak ez baziruditen ere, kontuak zer pentsatua ematen zuen” (70-71).

#### **6.2.6.7. Osaba Patxiren koaderno**

Imanol Azkue (Zumaia, 1965) idazleak eta Txiki Agirre “Keixeta” (Zestoa, 1963) ilustratzaileak osatutako lana da jarraian aztertuko dudana, 2007an Zumaiako Inpernupe

Kultur Elkartek argitara emandakoa. Idazleari dagokionez, helduentzako idatzi duen arren, *Egunerokoa ez dena* (Erein, 2005) narrazio lana kasu, gehienbat haur eta gazteentzat idatzi du. Bereak dira, besteak beste, Lizardi Saria irabazi zuen *Kea airean bezala* (Elkar, 2006) eta *Gaur egun handia da* (Erein, 2003), baina baita hurrengo atalean aztertuko dudan *Oihanaren koaderno* ere (Inpernupe Kultur Elkartea, 2008). Ilustratzaileari dagokionez, pintura eta eskultura lanak egiten ditu batez ere, eta hainbat erakusketatan izan du aukera bere lanak ezagutzera emateko. Liburuak ilustratzen ez dituen arren, aztergai dudan lanaz gain hurrengo atalean iruzkinduko dudan obra ere jantzi du marrazkiz.

## **Laburpena**

Bost urtetik gorako irakurleei zuzendutako lan labur honek (15 orrialde baino ez ditu) osaba kartzelan duen Oihana txikiaren pasadizoak kontatzen ditu, hala kartzelari buruz osabak oparitutako koadernoan idazten duena nola bestelako gertaera barregarriak.

## **Harrera kritikoa**

Benetan zaila da liburu honek izan duen harrera neurtzea, ez baitut informazio askorik aurkitu. Herri mailako kultur elkarte batek argitaratutako lana izan arren, Elkar argitaletxearen katalogoan eskuragarri dago eta hor egoteak zabalkunderako aukera ematen du. Horrez gain, EAEko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegietan 19 ale daude mailegarri, nahiz eta gehienak Gipuzkoakoak diren eta horietako asko liburutegi berean egon eskuragarri (adibidez, horietako 5 Aizarnazabalgo liburutegian daude). *El Diario Vasco* egunkariaren (2007) arabera, liburuak 1.500 aleko tirada izan zuen. Dena den, eskuragarritasunaren edo tiradaren datuak ez du balio liburuak izandako harreraren gaineko balorazio bat egiteko. Prentsan edo literaturan espezializatutako aldizkarietan begiratuta ere, ez dut aipamenik topatu, salbuespenak salbuespen. *Garan* (2007), *El Diario Vascon* (2007) eta *Argian* (Iparragirre, 2007) adibidez, obraren berri laburra ematen da, inolako baloraziorik gabe. Egia da *Garan* liburua berezia dela aipatzen dela, baina koaderno itxura duelako aipatzen du hori anonimotasunean mantentzen den erreseina egileak.

## **Analisi narratologikoa**

Testuaren azterketan sartu aurretik, obraren kanpo paratestuari erreparatu nahiko nioke. Liburuaren aurkezpen publikoan (Hitzanews, 2007) editoreak eta egileak azaldu zutenaren arabera, garai hartan Inpernupe Kultur Elkarteko kide zen 2022an zendu zen Patxi Aristi, Frantzian atxilotu eta kartzelaratu, gero Espainiara estraditatu eta liburuaren argitalpen

urtean espetxean zegoena. Iradokitzen dutenez, kide horrekin lotuta dago aztergai dudan liburuko Patxi pertsonaia, istorioan kartzelan dagoena. Liburuko azalean Oihana haurra ageri da orri zuri batean idazten eta kontrazalean ere irudi bera errepikatzen da. Lanak bi orrialde hartzen dituen (bata hitzek osatzen dute eta bestea ilustrazioak) 8 atal laburrez osatuta dago. Arestian esan bezala, guztira 15 orrialde ditu ipuinak, baina bukaeran orri zuri batzuk datoz, irakurleak bete ditzan. Istoriotik kanpo dagoen narratzaile orojakileak ematen du kontakizunaren berri. Oihana protagonistak, kartzelan dagoen osaba Patxi bisitatzen dagoela, uztaidun koaderno gorri bat jasotzen du opari, bertan osabari kontatu nahi diona idaz dezan (aztergai dudan lan honek ere portada gorria du). Narratzaileak Oihanari gertatzen zaizkionak kontatzen ditu eta orriaren amaieran, neskatoak berak koadernoan idatzitakoa ematen da jakitera, letra mota diferente batekin. Bertan, umorezko hainbat pasarte kontatzen ditu Oihanak, noiz edo noiz irakurlearen barrea eragiten dutenak, adibidez, festetan gurasoengandik aldendu eta denbora luzez haiek aurkitu gabe egon ostean txikiak honakoa idazten duenean: “Gaur gurasoak galdu egin dira. Beldurtuta zeuden. Ni ez” (11). Horrelako pasarteetan, neskatoaren xalotasuna antzeman daiteke. Esan bezala, osaba Patxi preso dago eta ez da horren gaineko pasarterik falta. Familiarekin batera kartzelan egon ostean, Oihanak koadernoan idazten du kotxean sartu bezain pronto eta presondegiak sortutako sentazioaren berri ematen du: “Kartzelan gauza bakarra dago ona: osaba Patxi” (1). Modu sotilean bada ere, irudietan kartzela ageri da, osabari egindako bisita irudikatzen duen ilustrazioetan Oihana eta Patxi ageri baitira barroteak dituen leiho txikiaren ondoan (2). Txikiak kartzelatik kanpo ikusi nahi du osaba, horixe ematen baitute aditzera Oihanak hari emandako koadernoko azken orrian idatzitakoek: “Etorri gurekin, osaba Patxi” (13). Dena den, irekita uzten da amaiera, irakurleak ez baitaki noiz arte geratuko den osaba kartzelan. Lan honen iruzkinarekin bukatzeko, aipatzekoa da azken atalaren izenburuak “Zure txanda” duela izena eta irakurleari zuzentzen zaiola narratzailea: “Oihanak bezala, idatzi edo marraztu zure egunerokoa” (15). Jarraian, irakurlea idaztera gonbidatzen duten orri zuri batzuk datoz.

#### **6.2.6.8. Oihanaren koaderno**

Aurreko atalean iruzkindutako *Osaba Patxiren koaderno* obraren jarraipena da orain aztertuko dudan lan hau, egiletza eta pertsonaia berberak dituen eta 2008an argitara eman zena, Inpernue Kultur Elkartearen eskutik hau ere.

## **Laburpena**

Bost urtetik gorako irakurleei zuzendutako 28 orrialdeko lan labur honetan kartzelan dagoen Patxi osaba eta haren iloba Oihana dira pertsonaia nagusiak. Kartzelan dagoela ilobak oparitutako koadernoan osabak idazten dituenen berri jasoko du irakurleak. Imanol Azkuek eta Txiki Agirre “Keixeta”-k urtebete lehenago argitara emandako ipuinak Oihanak osabak oparitutako koadernoan idatzitakoak jakitera ematen bazituen, oraingo honetan Patxik koadernoan idazten duena ematen da ezagutzera.

## **Harrera kritikoa**

Aurreko obrarekin esandakoa errepikatu behar dut aztergai dudan honekin ere, alegia, zaila dela harreraren gaineko balorazio sendoa egitea. Zumaiako hainbat dendatan eskuragarri egoteaz gain, Txalaparta eta Elkar argitaletxeen katalogoan eskuragarri dago, baita EAEko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegietan ere (guztira 19 ale daude eskuragarri). Prentsan edo literaturan espezializatutako aldizkarietan begiratuta ere, ez dut iruzkin edo erreseina kritikorik aurkitu.

## **Analisi narratologikoa**

Liburuaren analisisian sartu baino lehenago, argitu nahiko nuke lan honetan osaba Patxik hartzen duela zentraltasuna (urtebete lehenago argitaratutako obrak, berriz, Oihanarengan jartzen zuen fokua) eta 2022an zendu zen Patxi Aristiri egiten diola erreferentzia, 22 urtez kartzelan egon zen zumaiarrari. Aurreko liburuarekin alderatuta, oraingo honetan askoz presenteago dago presondegia, bertan espetxeratuta dagoen osaba Patxiren egunerokotasuna kontatzen baita. Azalean bertan kartzelan dagoen osaba Patxi ageri da, idazten. Kontrazalean, berriz, irudi hori ageri da, baina horrez gain, barraskilo itxurako forma hartuz, Patxi Aristik Salamancan dagoen Topas espetxetik 2008an idatzitako bertsoa dator: “Ezetz asmatu zein galdera den erantzun nahi nizukeena? Zein da hegoak lotu ezkerre hegan egiten duena? Nork jar dezake zalantzan inoiz garena edo ez garena? Gurea dena eskuratzeko zertan eskatu baimena? Asmatzaileei pa haundi bana burdin artetik barrena”. Hitz aldarrikatzaile horiek irakurtzeko doinua ere proposatzen dute egileek, “Mutil koxkor bat itsu aurreko” doinua hain zuzen. Liburuaren barnera jauzi eginda, ipuina 14 atal laburretan antolatuta dago. Lehen orrialdean, istoriotik kanpo dagoen narratzaile orojakileak jakinarazten du Oihanak, kartzelan dagoela, osabari koaderno berde bat oparitu diola, eta

hortik aurrera, osabak koadernoan idazten duenaren berri izango du irakurleak (liburu honen azala ere berdea da, ilobak osabari oparitutakoa bezalaxe).

*Coadernos Rubio* delakoekin kaligrafia nola ikasi zuen kontatzen dion pasarte salbu, gainerako guztiak espetxeko kontuekin lotuta daude. Batetik, kartzela nolakoa den deskribatzen dio osabak ilobari: “Kartzela batez ere hormak dira, paretak, eta, tarteka, irekita baino denbora gehiago itxita egoten diren ateak eta leihoak. Porlana, burdina, alanbreak, txarrantzak... Eremu tristea kartzela, hemen bizi garenon alaitasunarengatik ez balitz” (5). Pasarte horren ostean datorren irudian, alanbraz hesitutako hormigoizko kartzela ageri da. Pareta zartatuta ageri da eta hori bat dator osabak aipatzen duenarekin, alegia, hormigoizko hormak ere azkenean pitzatu egiten direla. Ilun dago zerua, eta horrek, kartzela barneko giroa adieraz lezake (6). Esanguratsua da osabak kartzelaren funtzio nagusiari buruz dioena, “okerrak zuzentzeko omen da kartzela” (5), *omen* partikula horrek, nire ustez, nolabaiteko zalantza edo desadostasuna adierazten duelako. Eguraldiaz mintzo dela, kartzelako negu hotzak aipatzen ditu eta nola arropa ugari jantzita ere ez zaien hotza gorputzetik joaten (9). Bestetik, laguntasunari buruzko pasarteak idazten dizkio ilobari, azpimarratuz zein garrantzitsua den lagunak izatea eta horiek zaintzea, bizitzako unerren batean, denok beharko baititugu adiskideak alboan gu zaintzeko (8). Horrekin lotuta, kartzelan ezagututako pertsona batzuk lagun min bihurtu direla kontatzen dio: “Euskaldunez gain, alproja-jende asko ere badago hemen [kartzelan]; pertsona onak dira” (8). Eta gaineratzen dio bertako lagunak adiskide baino gehiago direla, maiz tokatzen zaielako ama, aita, seme edo anaia izatea, triste daudenean besarkatu eta goxatzeko, zauri irekiak sendatzen laguntzeko; pozik daudenean elkarrekin barre egiteko eta abar. Beraz, esan daiteke presoen alderdi humanoa ematen dela. Interesgarria iruditzen zait urrutze politikaren berri (era nahiko inplizituan bada ere) ematen den pasarte: “Harritu egiten dira, beti daukagulako bisita, huts egin gabe, eta jendeak egiten dituelako 500, 700, 1.000 kilometro gu ordu erdiz ikusteko. Esaten dute oso lagun onak izan behar dugula, lagunek hori egiteko” (8).

Espero litekeen moduan, askatasunaren gaineko aipamenik ez da falta ipuinean. “Gutunak” (11-12) atalean, adibidez, Oihana ilobari azaltzen dio zein gustura hartzen dituen haren gutunak eta horiek txori txiki batek ekartzen dizkiola aipatzen du. Aditzera ematen denez, txikiaren gutunei esker osabak harekin bidaiatzen duela imajina dezake (11). Horrekin batera, zapalkuntzarekin edo askatasunaren ukapenarekin lot daitezkeen hitzak idazten ditu Patxik koadernoan: “Nahiko lukete irudimena ere preso hartu, baina hori ezinezkoa da” (11). Bide batez, esanguratsua da ilustrazioetan irudikatzen dena (12): Txori bat ageri da ziega

barruan, barrotez hesitutako leiho ondoan. Hegazti horrek askatasuna irudika lezake, izan ere, osabaren esanetan, txoria da ilobaren gutuna kartzelara eramaten duena eta beraz, hura da kanpoko munduaren berri, aske diren pertsonen berri, ematen duena. Askatasun galeraren gaia ageri da ere “Galtzea” atalean (13-14), zeinetan Patxik txikiari aipatzen dion nahita ere inor ezin daitekeela kartzela barruan galdu. Pasarte horrek 2007ko liburuari (*Osaba Patxiren koaderno*) egiten dio erreferentzia, aztergai dudan honetan bezala, Oihana herriko jaietan galdu zenekoa hartzen baita ahotan.

Lehen aipatu dudan moduan, kartzela fisikoki nolakoa den azaltzen dio osabak ilobari, baina horrez gain, barruko funtzionamenduaren berri edo egunerokoaren berri ere ematen dio: 4 modulutan banatuta bizi diren 600 presoek, horietatik 7 euskaldunak (15-16); egunean presoek patiora ateratzen uzten dieten 2 orduz (15-16), kartzelan egiten duten ikastaroez (25-26), ospatzen saiatzen diren jai egunez, adibidez, Aberri Eguna eta Martxoaren 8a (17), presondegi osoan dagoen ekonomato izeneko denda bakarraz eta denda horrek dituen mugez (17-18), zazpi egunean behin jaso dezaketen lagunen bisitez eta hamabostean behin familiarekin egin dezaketen aurrez aurrekoek edo astean behin 5 minutuz etxera deitzeko duten aukeraz (15-16). Ikus daitekeen moduan, nahiko erretratu zabala marrazten dio osabak ilobari. Gertukoekin egoteko duen ageriko ezintasun horrez gain, protagonistak ez du inoiz 27 hilabeteko Itzurun semea kartzelatik kanpo ezagutu, izan ere, jakinarazten da Patxik 16 urte daramatzala presondegian (15-16). Halaber, esanguratsua da kartzelan daudenen aldarrikapenak (eskubidea, maitasuna, elkartasuna, adiskidetasuna, konpromisoa eta harrotasuna) eta kartzelan falta direnak (erosotasuna, intimitatea eta lasakeria) aurrez aurre jartzen direnoko pasarte (19-20). Aldarrikapenak aipatu ditudala, ezin aipatu gabe utzi presoak etxeratzearen aldeko aldarrikapenei egiten zaien aipamena. Batetik, osabak kontatzen du eguraldiaren iragarpena ikusten duenean Euskal Herriari begiratu eta bertara joatea amesten duela. Pasarte hori ilustratzen duen irudian, Iberiar Penintsulako mapa ageri da, eta Euskal Herria berdez ageri da, bi gezik apuntatua (9-10). Euskal irakurleak erraz antzeman dezake Euskal Herriko preso eta iheslariak etxeratzea aldarrikatzen duen banderari egiten diola erreferentzia. Bestetik, “Etxera!” atala (21-22) aipatu beharko nuke, izenburutik bertatik aldarrikapen kutsua duena. Bertan osabak aipatzen du bere aurpegia toki askotan ageri dela “Etxera!” hitzarekin batera eta hark etxera itzultzeko gogo bizia duela (21). Irudietan, berriz, Oihana haurra ageri da osabaren argazkia duen kartelarekin eta behean, “Etxera” jartzen duela ikus daiteke (22). Esan daiteke, beraz, neskatoa bete betean inplikaturik dagoela presoen aferan. Ez nuke aurrera egin nahi nire ustez ipuinari sinesgarritasuna ematen dion pasarte bat

aipatu gabe. Gauza jakina da haurrek helduok baino beldur edo erreparo txikiagoa dutela galderak egiteko eta ulertzen ez dutenaren aurrean berehala ekoizten dutela *zergatik?* galdera. Bada, istorio honetako Oihana neskatoak itaun hori egin zion osabari lehenengo aldiz bisitan joan zitzaionean eta honela ematen du osaba Patxik gertakizun horren berri:

Erantzun nezakeen Espainiari gerra egin niolako; erantzun nezakeen lagun batek mesede bat eskatu zidala, eta lagunei beti lagundu behar zaiela; erantzun nezakeen gizarte hobea amesten nuela, eta dudala. Baina ez.

-Eta zuk zer uste duzu? Zergatik nagoela hemen? -erantzun nizun.

Begiak jaitsi, irribarre egin eta ez zenekiela erantzun zenidan. Orain ez didazu horrelakorik galdetzen; badakizun seinale (23).

Pasarte horren osteko irudietan osaba eta iloba ageri dira, barroteek bereizten dutela (24). “Laster arte” deitzen den azken atalean (27-28), osabak koadernoko orriak amaitu zaizkiola aipatzen dio Oihanari eta ea hurrena bera joaten zaion bisitan. Esan daiteke, beraz, amaiera ireki horrekin, istorioak itxaropenari ate bat irekitzen diola. Mintzagai dudan liburu honen azterketari amaiera emateko, azpimarratu nahiko nuke ipuinak kartzelako errealitate gordina jartzen diola irakurle gazteari begien aurrean, baina alderdi negatiboekin batera, laguntasuna, zaintza eta elkartasuna bezalako balioak aldarrikatzen direla.

#### **6.2.6.9. *Pikolo***

Jada lehenago aipatu dudan autore batena da jarraian datozen lerroetan aztergai izango dudan obra, Patxi Zubizarreta idazleak Jokin Mitxelena ilustratzailearekin batera ondutako ipuina baita *Pikolo* (Alberdania, 2008). Obra honen gaineko gaztelaniazko azterketa kritikoa *Anuario de investigación en literatura infantil y juvenil* (ANILIJ) aldizkarian argitaratu nuen 2019an (ikus Urzelai, 2019). Dena den, jarraian datozen lerroetan informazio zehatzagoa eskainiko dut.

#### **Laburpena**

Obra honetako protagonista eta narratzailea Extremaduratik Euskal Herrira etorritako 7 urteko Manuel da. Aita guardia zibila da eta Larrañetako kuartelera lekualdatu dutenez, mutikoa harekin batera joango da bizitoki berrira. Protagonistak bere egunerokoan lehen pertsonan kontatutakoari esker, Manuelen egonaldiaren berri izango du irakurleak, esate baterako, nola sentitzen den bizitoki berrian edo nolako harrera egiten dioten eskolako



ikaskideek; baina baita txikiari sortzen zaizkion zalantza eta buruhausteen berri ere. Labur esanda, 8 urtetik gorako irakurleei zuzendutako 88 orrialdeko obra honetan euskal gatazkaz hitz egiten da, guardia zibil baten semearen bidez.

### **Harrera kritikoa**

Lehenik eta behin, aipatzekoa da Angel Erro idazleak gaztelaniara (bikain) itzuli zuela *Pikolo* liburua 2010ean, Lóquez argitaletxearen eskutik. Bigarrenik, liburuaren gainean egindako kritikari dagokionez, obra ausarta irizten diote askok<sup>189</sup>. Iritzi horretakoa da, besteak beste, José Manuel López Gaseni (2009). Haren aburuz, idazleak “arriskua hartu du bonba batek birrindutako kuartel baten irudiak begi-ninietan grabatuta utzitako ezinegona definizio altuko literatura bihurtzeko erabakia hartzean”. Gainera, ikuspuntu dibergente bat aukeratu duela aipatzen du, gatazka hori bizi eta beren bizitzetan integratu zein automatizatu duten herritar askoren kontzientzia inarrosle gisa. Bide bertsutik jotzen du Miren Amurizak ere (2017), obra honek deseroso sentiarazi duela aitortzen baitu, eta hain zuzen horregatik gustatu zaiola. Dirudienez, beraz, mintzagai dudan obrak helduaren barrenak astintzeko ahalmena du. Amurizak ipuina haur eta gazteentzat egokia izateaz gain, irakurle helduarentzat ere aproposa dela iradokitzen du. Dioenez, lehenengoen mutiko ikaratu baten kontakizuna irakurriko lukete, baina bigarrenek ordea, Legutioko atentatuaren testigantza<sup>190</sup>. Kritikari zenbaitek idazleak hautatutako fokalizazioa eta erabilitako pertsona gramatikala egokiena den eztabaidatu dute. López Gaseniri (2009) adibidez, iruditzen zaio hirugarren pertsonako narrazio fokalizatua askoz sinesgarriagoa gertatuko zela, Manuelen lehen pertsonako egunkaria baino; baina, Zubizarreta bera ez dator bat baieztapen horrekin, izan ere, uste du sinesgarriagoa dela lehen pertsonan ematea, Manuelek berak kontatua (Azurmendi, 2009). Etxanizek (2011b: 81) aipatzen duen legez, obra honek gazteari tresna kognitibo-afektiboak eskura jartzen dizkio, gizartean indartzen ari diren eta bidegabekoak diren portaerak zalantzan jartzen laguntzeko. Aditu horrek gaineratzen duenez, ipuin hau irakurketa literarioak baloreen

---

<sup>189</sup> Azpimarragarriak iruditzen zaizkit Zubizarreta idazleak elkarrizketa batean adierazitako honako hitzak: “Liburua dela eta, nire inguruko askok hitz bat aipatu didate: ausardia. Nik ez dut horrela sentitzen, baina uste dut esanguratsua dela, adierazten duelako nola ez ditugun askatzen barruko sentimendu oso errotu batzuk, nola ditugun hor gordeak” (Azurmendi, 2009).

<sup>190</sup> Obraren amaiera aldera, atentatu bat egiten dute protagonista nagusia bizi den Larrañetako kuartelean eta guardia zibil bat hiltzeaz gain, beste pertsona batzuek ere kalte fisikoak jasaten dituzte. Plano fikzionalen gertatzen den jazoera honek lotura zuzena du benetako gertakari batekin, izan ere, 2008ko maiatzaren 14an ETak bere gain hartutako atentatu bat izan zen Legutioko kuartelean, zeinetan guardia zibil bat hil zen. Bertan umeak ere bizi ziren, beraz, ezin erlazioa ukatu. Gainera, Zubizarretak berak behin baino gehiagotan baieztatu du aipatutako lotura, adibidez honako hitz hauetan ikus daitekeen legez: “Pero él «tenía la necesidad de contarlo» desde hace tiempo, una necesidad que se aceleró a partir del atentado con coche bomba contra la casa cuartel de Legutiano (Álava), en la que vivían niños” (Montero, 2008).

heziketan duen garrantziaren adibide garbia da eta *Pikolo* balore jakin batzuk transmititzen dituen literatura atsegingarri eta ona dela defendatzen du.

Hala ere, kritikari guztiak ez datoz bat aurreko baieztapenarekin. Aitor Renteria zenak (2009) gogor kritikatu zuen obra, izan ere, haurrentzako izanik, kezka, haserrea eta nazka eragin zion liburuak. Haren ustez, “egia erdiak erdi egiak bihurtuz, gertakari eta jokabideak helburuen ildora tolestean direlarik, hitzen jolasa ez da literatura, propaganda politikoa baizik”. Egileei aurpegiratzen die Guardia Zibilak Euskal Herrian daukan historia luze eta beltza ezagutzera ez ematea, hala nola, ez ematea aditzera torturaren erabilera izan dela behin eta berriz erabilitako tresna, edo ezer ez aipatzea nazioarteko salaketan inguruan. Gainera, harrigarria iruditzen zaio ipuinean euskaldunak izatea tortura erabiltzen dutenak, non eta eskolan; eta baita haiek izatea protagonista gaztea “ziegan” sartzen dutenak. Ez hori bakarrik, Renteriak gaineratzen du, hori gutxi balitz, eskolako irakaslea ETAko ekintzaile bihozgabea bihurtzen dutela egileek. Arestian aipatutakoagatik, galdetzen du ea etikoa ote den horrelako “liburu-manipulazio-propaganda” ezartzea apaletan salgai. Azkenik, ipuinak erakusten omen duen duintasun faltak harritu eta inarrosi duela azpimarratzen du eta defendatzen du gatazka gainditzea eta konponbide politikoa atzematea eskatzen duen gizarteak beste ipuin bat merezi duela, ez haurren manipulazioa. Aipa dezadan Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela liburua.

### **Analisi narratologikoa**

Ezer baino lehen, aztergai dudana obra errealdismo kritikoaren baitan kokatzen dela aipatu behar da. Gorago esan bezala, euskal gatazkaz hitz egiten da, baina baita eskola-jazarpenari, existentziari edo maitasunari buruz ere. Zentzu horretan, euskal HGLn harrera hain ona izan duen poetika jarraituko luke obrak, 1984an Mariasun Landaren *Txan fantasma* (Elkar, 2011) liburu gogoangarriak euskaraz abiatutako poetika, hain justu (Olaziregi, 1999: 30-33). Elementu paratestualetatik, batez ere kontrazalean datorren Carmen Martin Gaiteren aipua azpimarratuko nuke, honakoa dioena: “Haurren galderei erantzun egin behar zaie, eta egia esan nahi ez baldin badiezu, akaso zuk zeuk ez dakizulako, kontaezu egia dirudien ipuin bat”. Nire ustez aipu horrekin egileak hein handi batean aldarrikatu nahi izan du haurrei ezin zaiela errealditatea ezkutatu eta zenbait gai tabu bihurtu. Denbora kronologikoari dagokionez, egia da ipuinean ez dagoela datu edo erreferentzia zehatzik, baina hurrengo atalean azalduko dudana moduan, XXI. mendean, eta zehatzago, 2008. urtean, koka daitekeela iruditzen zait. Espazioari dagokionez berriz, kontakizuna Larrañeta herrian

kokatzen da (fikziozko espazio literarioa<sup>191</sup>) eta bertan dago hala Manuelen eskola nola Larrañetako kuartela. Azken hau, eta oro har Euskal Herria, toki arriskutsu gisa deskribatzen da behin eta berriro. Batetik, arriskua nahiko era sinbolikoan irudikatzen da hasieratik, izan ere, mutikoak eta aitak lehenengo istripua izaten dute hain juxtu Euskal Herrira iritsi bezain pronto, haien kotxeak basurde batekin talka egitean (14). Bestetik, aitak esplizituki esaten dio semeari arriskuz beteta bizi direla (16) eta ezin dela inorekin fidatu (39)<sup>192</sup>. Ondorioz, semeari kontuz ibili behar duela ohartarazten dio. Ez hori bakarrik, kotxea hartzen duten bakoitzean aitak kotxepean begiratzen du lehegailurik dagoen egiaztatzeke (79). Gainera, arrisku handiago horren truke Manuelen aitak diru gehiago irabaziko duela esaten da (20). Ezin aipatu gabe utzi Larrañetako kuartelean atentatu bat izaten dutela eta guardia zibil bat hiltzeaz gain, biak ala biak zauriturik irteten direla (80). Eskolak ere, hasieran bederen, ez dirudi oso leku baketsu eta segurua denik. Alde batetik, Manuelen irakasleak protagonista erabiltzen du honi kuartelaren gaineko informazioa ateratzeko eta atentatua planifikatzeko; eta bestetik, eskola-jazarpena jasaten du bertan. Gainera, Manolo izeneko dortoka eskolan hiltzen da, ustez ikaskide batek pozoituta (62).

Pertsonaiak aztertzeraz igaroz gero, hainbat dira aztertu beharrekoak. Batetik, 7 urteko Manuel protagonista (eta narratzaile autodiegetikoa) ageri da, amonaren zaintzaz arduratu behar den ama Extremaduran utzita aitarekin Euskal Herrira lekualdatu den mutikoa. Hasieran, arrotz egiten zaio bizitoki berria eta bakarrik sentitzen da errealitate berriaren aurrean. Aitak ez dio azalpen handirik ematen eta ez dizkio itaunak erantzuten. “Eta pentsatu nuen begiak tapatzen dizkieten bezala tapatzen dizkidala aitak galderak” (17). Horren aurrean, umeak bakarrik ekiten dio galderen erantzunak bilatzeari. Mutikoaren eguneroko forman idatzitako kontakizun honetan maiz aurki daitezke bere zalantzaren berri ematen duten pasarteak: “Ez dakit zer disimulatu behar dudan” (10) edo “ez dakit ongi zer esan nahi duen eta Ebari galdetu beharko diot [...] Nik ez dut piperrik ere ulertzen eta hori ere Ebari galdetu behar diot” (57) edo “Zer naiz ni? Zer disimulatu behar dut?” (57). Arestiko lerroetan ikus daitekeen legez, ulertzen ez dituen gauza asko Ebak azaltzen dizkio<sup>193</sup>. Eskolako hiru ikaskidek (Kepa, Peio eta Gaizka) infernu bilakatzen dute bere egunerokotasuna, Manueli

---

<sup>191</sup> Ohar bitez eszenatoki hau lehenago aztertutako Zubizarretaren *1948ko uda* liburuan agertu dela ere.

<sup>192</sup> Adibide bat aipatzearen, aitak ohartarazten dio ezin duela lurreko ezer hartu edo ukitu, neskatala batek, lurrean zegoen zapata kaxa bati ostikoa eman eta barruan zegoen bonbak eztanda egitearen ondorioz hanka bat galdu zuelako (39).

<sup>193</sup> Bestelako kontuen berri ere ematen dio Ebak, adibidez, liburuen berri. Leo Meter idazlearen *Barbarari Gutunak* liburua erakusten dio, jakitera emanez gerraren ondorioz etxetik urrun dagoen aita batek bere alabari kartzelatik bidalitako gutunak agertzen direla. Horrela, paralelismo bat egiten da liburu horretako aita-alaben eta aita kartzelan duen Ebaren artean.

dioten gorrotoa behin eta berriz agerian utziz. Adarra jotzen diote, petardoak botatzen dizkiote, eskuekin pistola irudikatu eta kanoia Manueli zuzentzen diote (22), kuartelaren eta eskolaren artean dagoen zubia pasatzen uzteagatik egunero-egunero euro bat eskatzen diote zerga gisa (18) edo ahoa komuneko paperez estali, bizikletako puzgailua ipurtzulotik sartu eta hiru bider puzten dute (24)<sup>194</sup>, besteak beste. Protagonistak hori guztia beldurrez eta era traumatikoan bizi duela esan genezake, izan ere, narrazioan zehar behin eta berriz gogorarazten du ahoa komuneko paperez estalita izatearen sentsazioa (46, 49, 76). Esanguratsua iruditzen zait aipatzea urduritasun eta ikaraz betetako egoerak oso modu fisikoan adierazten dituela haurrak, fraketan txiza edo kaka egitearekin adibidez (23, 36, 76), eta horrek txarrago sentiarazten duela, besteak beste, hiru ikaskide horien burlak areagotzen direlako. Manuel txikiak etsaitzat ditu aipatutako ikaskide horiek, honako aipu honetan ikus daitekeen legez: “[aitak] lapurrak eta gaizkileak harrapatzen dituela, eta ETAkoak, eta esan dut aitak esaten duela horiek direla gure etsaiak, eta Escalerita Rock-ekoak<sup>195</sup> [...] baina nire benetako etsaia Kepa da, eta bere lagunak” (30). Ezin aipatu gabe utzi Manuelek aitaren pistola ezkutuan hartu eta eskolara eramaten duela Kepa eta haren lagunari susto bat emateko asmoz (51). Beraz, aipatu berri ditudan eskolako ikaskide horiek *aurkari* funtzioa dute kontakizunean.

Dena den, ikaskide guztiek ez dute protagonistarekiko jarrera bera erakusten, Manuelek Eba ikaskidearengan aurkitzen baitu adiskidetasuna (*laguntzaile* funtzioa betetzen du neskak). Azken hori Keparen arreba eta Euskal Herritarrok taldekoa izateagatik atxilotu eta Sevillako kartzelan gatibu dagoen preso politiko baten alaba da<sup>196</sup>. Esan daiteke Manuel eta Ebaren arteko harremanari esker hasten dela protagonista inguratzen duen errealitatearen jabe egiten. Neskatoaren eskutik ezagutzen du preso politikoen familien errealitate gordina: preso dagoenarekiko urruntasuna, komunikatzeko zailtasunak edo kartzelara egindako bidaiak luzeak besteak beste; baina hari esker ere izaten du Manuelek *vis a vis* moten berri (65) edo presoen aldeko bilkuren berri (40), eta ulertzen du zergatik deitzen dioten beste ikaskideek *pikolo* (69). Badirudi protagonistak etxean falta duen afektua eta arreba Ebarengan aurkitzen duela. Hark bere etxeko atak zabaltzeaz gain etxerako lanak egiten laguntzen dio (34).

---

<sup>194</sup> Ekintza hori gizontasun galera (saiakera) gisa interpreta liteke, uzkitik zerbait sartzea maskulinitate galera gisa irakurria izan baita kulturalki. Bidenabar bada ere, aipatu nahiko nuke egile beraren *Matias Ploff-en erabakiak* (Erein, 1992) lanean, Aldanondo pertsonaiak Matiasi harekin puzgailuaren jolasa frogatuko duela iradokitzen diola, hau da, puzgailua ipurditik sartu eta bere gorputza airez beteko duela.

<sup>195</sup> Halaxe deitzen dio aitak Euskal Herritarrok taldekoei.

<sup>196</sup> Ebak protagonistari bere aitaren berri ematen dion pasartearen adierazpen askatasunarekin lotutako erreferentzia bat aurkitu dut, izan ere, neskatoak honakoa aipatzen du: “Epaileak esan zuen ezin zuela pentsatu pentsatzen zuena eta gau batean guardiak etxera etorri ziren [...] eta aita preso eraman zuten” (40).

Gainera, Manuelek neska ausart eta atsegin gisa deskribatzen du eta Ebak “salbatzaile” papera jokatzen duela irudi liezaioke irakurle bati baino gehiagori, izan ere, Peiok Manuel ikastetxeko aldageletan giltzapetzen duenean bera da handik ateratzen duena (35), edo bere neba Kepak Manuel bakean uztea lortzen duena (70). Horregatik guztiagatik, protagonistak bere bi sekretuak, egunerokoa eta pikondoko txabola, konpartitzen ditu Ebarekin. Ezin ukatu, beraz, Manuelentzat izugarritzko garrantzia duela pertsonaia honek, maite duen pertsona izateaz gain (65) Larrañetan duen lagun bakarra delako. Esan daiteke Eba dela protagonista eguneroko herstura eta bakardadetik ateratzen duena, ondorengo hitzek iradokitzen duten legez: “Ebarengana joan naiz. Lagun batekin egoteko beharra neukan” (34).

Iruzkindu beharreko hurrengo pertsonaia Manuelen aita da, aurreiritziz betetako gizon serio eta mesfidatia. Diskurtsoan zehar ez du garapenik jasaten, beraz, pertsonaia laua da. Zazpi urteko semea eskua lokira eramanez agurtzen du (25), burua tente eramateko eta begirada ez jaisteko (5) agintzen dio, baita inorekin ez fidatzeko ere (39). Gainera, ez dirudi begi onez ikusten duenik semea eskolako lagunekin erlazionatzea (43) eta euskararenganako erdeinua adierazten du, besteak beste, Manuelek *Euskadi* jartzen duen kartela ozen irakurtzen saiatzen denean eten eta irain bat botatzen duenean *Vascongadas* hitza haserre oihukatuz (12). Liburuan deskribatzen den aita ez da batere afektiboa eta ez die 7 urteko semearen beharrei erantzuten. Protagonistak behin baino gehiagotan ematen du jakitera ezin dizkiola aitari ikaskideekin dituen arazoek berri eman edo ez dela zenbait galdera egitera ausartzen, haren erreakzioaren beldur. Manuelen ama ez dago haiekin eta dirudienez, mutikoak bere laguntza behar du (28). Ama fisikoki alboan behar du, izan ere, “telefonozko musuak ez dira berdinak” (30). Bakardade horren aurrean, jada aipatu dudana legez, Eba ikaskideak berebiziko garrantzia du. Pertsonaiekin amaitzeko, iruditzen zait basurdeek paper garrantzitsua jokatzen dutela ipuin honetan, behin baino gehiagotan egiten baita haien aipamena. Maila sinboliko batean ulertu behar da animalia horien agerpena, ezezagunaren edo arriskuaren metafora bezala alegia. Baieztapen hori egiteko honako argudio hauetan oinarritzen naiz: Batetik, lehenago aipatu dudana legez, basurdeak dira protagonistak eta bere aitak Euskal Herrira heltzean errepidean aurkitzen duten lehenengo oztopo edo arazoa. Bestetik, Manuelek adierazten du Kepa eta bere lagunak atzetik doazkiola eta basurdeei oroitarazten diotela (18). Ezin ahaztu mutil horiek direla protagonista jazartzen dutenak eta beraz, Manuelek haiengandik ihes egin nahi duela. Gainera, narrazioan zehar txabolatik agian basurdeak edo terroristak ikusiko dituela eta aitari abisatu ahal izango diola aipatzen du haurrak (20). Ebak ere kontatzen dio inoiz ez duela basurderik ikusi, baina osabaren baserrian txikizio asko egin

izan dutela (41). Labur esateko, Euskal Herria leku babesgabe bezala ageri da ipuinean, zeinetan bertan bizi diren pertsonaiek basurdeengandik eta atentatuak egin nahi dituztenengandik babestu behar dituzten haien buruak.

Sinbolo eta metaforez mintzatu naizela, kuartelaren eta eskolaren artean dagoen zubia ere aipa daiteke, bien arteko muga markatzen duena. López Gasenik (2009: 54) adierazi bezala, muga horren izaera azpimarratzeko, Manuelek eskolara joateko zubia zeharkatu nahi duen bakoitzean, beste aldeko ume jazarleei zerga ordaindu behar die. Nire ustez, zubiak bi mundu (guztiz ezberdinak) banatzen dituen sinbolo gisa jokatzeko du, baina baita lotune bezala ere. Hau da, errealitate diferente horien arteko soka da zubia, zeinari esker bi aldekoek bestea ezagutu dezaketen. Hurrek Manueli zubia zeharkatzeagatik eskatzen dioten diruari dagokionez, agian irakurleren bati ETAk enpresariei eskatzen zien “iraultza-zerga” delakoa datorkio gogora, zeina talde armatuak erakundea finantzatzeko zuen moduetako bat izan zen. Nire ustez, ez da kasualitatea idazleak *zerga* hitza baliatu izana ikaskideek Manueli eskatzen dioten diruari erreferentzia egiteko. Era berean, Manuelen dordokaren hilketa ere mehatxuaren logika horren baitan uler liteke. Leku fisikoez ari naizela, pikondoko txabolak ere berebiziko garrantzia du, halaxe da behintzat protagonistarentzat<sup>197</sup>. Batetik, bertan hartzen du babes protagonistak eta toki altua denez, iruditzen zaio agian handik ikus ditzakeela basurdeak edo terroristak (20). Bestetik, Manuelek dioenez, toki sekretua da txabola (38) eta ezkutuan Ebarekin elkartzen da bertan. Gainera, pikondoaren azpian lurperatzen du hildako Manolo dortoka (66) eta memoria gune gisako bat izan liteke espazio hori. Horregatik guztiagatik, Manuel gustura sentitzen da bertan (36). Bere espazio pribilegiatua da, besteek inbaditzen ez dutena, harik eta atentatuak txiki-txiki eginda uzten duen arte, irudian ikus daitekeen moduan (83).

Gorago aipatu dudan legez, arriskuaren beldur hori hasiera hasieratik ageri da, baina kontakizunak aurrera egin ahala, Manueli Larrañeta ez zaio hain toki arriskutsua iruditzen (72). Adierazpen hori egiten du haurrak hain juxtu ikaskideen zirrikak jasotzen ez dituenean, txizarik ateratzen ez zaionean, ikaskideek haien askari handira gonbidatzen dutenean edo besteak patioan jolasten ari diren bitartean bera gustura euskara ikasten ari denean (73). Funtsean, bere inguruan integratuta dagoen momentuan sentitzen da seguruago. Hala ere, Pilar Egunean, lasaitasun edo bake egoera hori urratzen duen kuarteleko atentatu gogorra

---

<sup>197</sup> *Pikondoaren balada* lana iruzkindu dudanean zehaztu dudanean moduan, zuhaitz horrek balio sinboliko garrantzitsua du erlijio eta kultura askotan. Tesiko corpusean ere, hainbat obratako pertsonaiak pikondoan babesten dira egunerokoak ekartzen dizkien arriskuetatik salbu jartzeko.

gertatzen da. Kuartela behera erortzen da, denak harrapatuta geratzen dira, Manuelen Lupus maskota eta Francisco Montoro<sup>198</sup> guardia zibila hil egiten dira, aita ubeldura eta zauriz josita irteten da (79) eta hiru lagun ospitalera eramaten dituzte larriki zaurituta (80). Manuel txikia ere kaltetuta irteten da leherketatik, konortea galdu eta ospitalean esnatzen baita beso igeltsatuarekin (80). Narratzaileak adierazten duenez, suhiltzaileek esaten dute gertaera hark gerra ematen zuela eta oso gogorra egin zitzaiela zaurituak hondakinen artetik salbatzea (81). Gainera, jakitera ematen da atentatuaren ostean Manueli psikologoak pilula batzuk ematen dizkiola (82) eta gauetan amesgaiztoak izaten dituela (84). Pentsa daiteke gertakariak trauma eragin diola txikiari.

Beraz, argi dago indarkeria eta heriotza oso presente daudela ipuinean eta ez hitzetan soilik, izan ere, Mitxelenak ilustratutako irudietan ere ageri da. Irudi batean atentatuan hildako guardia zibilaren hileta-elizkizuna ageri da, bandera espainiarraz estalitako hilkutxa eta guzti (78) eta beste irudi batean leherketaren unea ikusten da (77), eta dena txiki-txiki eginda geratu dela (87). Dena den, irudietan ez da ez hildakorik ez eta odolik ageri. Atentuari buruz aritu naizenean aipatu ez badut ere, Kepa ikaskidea ere kalteturik ateratzen da leherketa hartatik (kasualitatez kuartelaren inguruan baitzebilan). Manuel asko pozten da Kepa ospitalean larri egon arren onik irtengo dela jakiten duenean (81, 84). Esanguratsua iruditzen zait pasarte hau gogora ekartzea, izan ere, Kepak protagonistari eragindako maltzurkeriak eginda ere, Manuelek ez dio txarrik desio. Arestian aipatutakoa ez da ipuinean aurki daitekeen gorrotoaren aurkako aldarri bakarra, eta hori frogatzeko ondorengo lerroetan azalduko ditudan hiru pasarteetan oinarritzen naiz. Batetik, Eba eta Kepa, amarekin batera, Sevillako kartzelan preso dagoen aita bisitatzera joaten direnean, mutikoak aitaren haserrearen lortzeko helburuarekin, azken horri aipatzen dio Eba pikolo baten semearen laguna dela (69). Aitak, haserretu ez “eta esan zuen ez dituela poliziak maite, baina pertsonak errespetatu behar direla, eta polizien seme-alabak berdin” (69). Bestetik, ipuinaren amaieran, Manuel eta bere aita eskolako lagunak agurtzera doazenean, protagonista (beso igeltsatuarekin) teilatura igo, Keparen diaboloa berreskuratu eta Ebari ematen dio honek bere anaia Kepari itzul diezaion (86). Hirugarrenik, atentatua prestatu zuena Manuelen eskolako maisua dela jakiten dutenean, aita irainak botatzen hasten da eta euskaldun guztiak zaku berean sartzen ditu. Horren aurrean, umeak honako hau adierazten du: “Gero esan zuen denak berdina direla. Baina nik badakit ez dela egia. Nik Eba ezagutzen dut” (82). Nire aburuz, eta aipatu berri dudanaekin

---

<sup>198</sup> Nire aburuz, hildako guardia zibilaren izena aipatzeak are irudi gogorragoa ematen du, pertsona bati izen-abizenak emateak ezagunagoa, eta beraz gertukoagoa, egiten duelako haren heriotza. Baina hau, noski, nire iritzia baino ez da.

estuki lotuta, aitak bi multzotan sailkatzen du inguruko jendea: euskaldunak “bestea” dira, gaiztoak, eta haiekin erlazionatzea saihestu behar dute. Adibidez, aitak (Eba preso politiko baten alaba dela jakin aurretik ere) ez du begi onez ikusten bere semea Ebaren etxera joan izana (43), edo esan bezala, irakaslea ETAKoa dela jakin eta guztiak (pentsatzekoa da euskaldun guztiak adierazi nahi duela) horrelakoak direla adierazten du (82). Haien aldekoen edo “gutarren” taldean sartzen ditu, esaterako, Gasteizko Sansomendi auzuneko kuartelean bizi diren guardia zibilak eta haien familiak. Manuel protagonistak ordea, jada aipatu dudan legez, ez du banaketa zorrotz hori egiten<sup>199</sup>. Dena den, iruzkintzekoa da ipuinaren amaiera aldera aitak jarrera aldaketa txiki bat erakusten duela eta Manuelek penaz agurtzen duela Larrañetako eskola (86).

Istorioaren amaieran gertakari azpimarragarri bat dagoela iruditzen zait. Manuelek, karga negatiboz betetako *Pikolo* ezizena onartu, bere egin eta balio positibo-afektiboa ematen dio. Haurra aitarekin doa kotxez Caceresera eta azken honi Adriano Celentano italiar abeslaria entzutea gustatzen zaiola aipatzen du, gaineratuz momentu horretan kantari horren “*Questa piccolissima serenata*” abesten ari dela. Kepak *pikolo* deitzen ziola gogorarazten du, baina aitak *piccolo mio*. Eta horrek italieraz *txikia* esan nahi duela argitzen du (88). Beraz, Etxanizek (2008: 80) iradokitzen duen moduan, narrazioaren hasierako *Pikoloa* bere aitaren *Piccolo* bihurtzen da. Esandakoa kontuan hartuta, obra honek amaiera positiboa duela iruditzen zait, protagonistak “arazoarekin” bizitzen ikasten baitu, arazoa ulertuta, noski, kontakizunaren logika barruan, hau da, aitaren lanak eta *Pikolo* baten semea izateak sortzen dion arazo gisa. Amaiera zoriontsua duela esatea gehiegi iruditzen zait, indarkeriazko egoera horrek bultzatuta aita eta semeak Euskal Herritik alde egiten baitute. Ipuinaren azken lerroetan, azpimarra berezia merezi duen bizitzari buruzko gogoeta interesgarri bat ageri da. Manuelek bizitako momentuak benetan gogorrak direla ikus dezake irakurleak eta mutikoak hainbat aldiz jartzen ditu agerian egoera horiek sortutako gogoetak, adibidez: “Existitzea polita da eta bat-batean gogorra bihurtzen da. Baina gero igoal berriro ere bihurtzen da polit” (47) edo “Batuetan, existitzea oso gogorra da, maite dituzunak existitzen ez direlako. Batuetan, existitzea oso gogorra da, maite dituzunak oso urrun daudelako (62)”. Eta bukaeran, honako hau aipatzen du: “Nik uste dut hobe dela existitzea ez existitzea baino. Nahiz eta batuetan existitzea oso gogorra izan” (88). Bizitzak momentu gogorrak eta

---

<sup>199</sup> Bitxia da Manuelek eskolako hastapeneko egunean egiten duen gogoeta: Larrañetako eskolako haurren izenak oso arraroak iruditzen zaizkio, baina azpimarratzen du Caceresen zein Larrañetan haurrak berdin jaisten direla patiora atsedenerako txirrinak jotzen duenean: ziztu bizian eta algaraka (6). Nire ustez, egileak azpimarratu nahi izan du haurrak haurrak direla eta jatorria alde batera, denak berdinak direla.



zailtasunak ekarri arren, horiei aurre egin eta bizitzen jarraitzeak merezi duela iradokitzen da arestian aipatutako hitzen bidez. Azkenik, aipatzekoa da biolentzia horren guztiaren aurrean, Zubizarretak bizitzeko eskubidea jartzen duela edozein ideia-aren edo politikaren gainetik. Gainera, indarkeriaren aurrean jarrera aktibo bat hartzera bultzatzen du irakurlea, aldi berean literaturak ideia batzuk transmititzeko, gogoeta eginarazteko edo balore batzuk proiektatzeko duen balioa aldarrikatuz (Etxaniz, 2011: 80).

### **Kontestualizazio historikoa**

Aurreko atalean esan dudan moduan, ipuinean ez dago datu zehatzik kontakizuna garai jakin batean kokatzeko, baina egiten diren adierazpenengatik XXI. mendeko lehen hamarkadan, eta zehatzago, 2008. urtean koka daitekeela iruditzen zait. Ez dirudi esandakoa oso zentzugabea denik, batez ere, ipuineko atentatuaren eta Legutioko Guardia Zibilaren kuarteleko atentatuaren arteko lotura zuzena onartuz gero, lehenago esan dudan moduan, egileak berak esplizituki aitortutakoa. Azken hori 2008ko maiatzean izan zen. Gainera, pertsonaietako bat Euskal Herritarrokekoa izateagatik atxilotu zutela aipatzen da eta talde horrek bizi laburra izan zuen, 1998an sortu eta 2003ko martxoan Espainiako Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi baitzuen. Beraz, horrek ere narrazioa denboran kokatzeko pistarik ematen du. Lehenago aztertu ditudan zenbait liburutan ikusi dudan moduan, hemen ere Euskal Herria toki arriskutsu gisa ageri da, batez ere ETAk atentatuak egiten dituelako. Horren gaineko azalpena jada eman dudanez, ez dut berriz errepikatuko, baina azpimarratuko dut euskal preso politikoek jasandako urrutze politika ere aipatzen dela *Pikolon*. Azaldu dudan legez, Larrañeta espazio fiktizioko guardia zibilen kuartela ageri da kontakizunean, baina bada benetakoa den beste toki bat: Gasteizko Sansomendi auzoko kuartela. Aurrera egin baino lehenago, ezin esan gabe utzi liburuko pasarte baten harira Zubizarreta idazleak elkarrizketa batean aipatutakoa. Larrañetako eskolako patioko teilatuan baloi pila bat dago harrapatuta eta haurrek ezin dituzte hartu, harik eta Manuelek guztiak berreskuratzea lortzen duen arte (9). Hau da pasarte horri buruz idazleak egindako adierazpen esanguratsua:

Eso refleja muy bien la situación que vivimos. Tenemos muchos problemas encajados y creo que tenemos que poner una escalera adecuada, que parta desde lo más bajo, desde los niños, para poder subir, coger esos balones y poder seguir jugando con ellos (Montero, 2008).

Goiko aipu horrek iradokitzen du idazleak orduko gizartea islatu nahi izan duela bere liburuan, zehazki, euskal gatazkarekin eta giro politikoarekin lotutakoa. Ezeren errurik ez duen mutiko inuzenteak pairatzen ditu gatazkaren ondorioak eta liburuak erakusten du

gatazka horretan inongo agentziarik ez duen haurra kaltetun irteten dela. Euskal literaturan, oro har, normalean euskaldunon ikupegitik kontatu da euskal gatazka eta Zubizarretak, berriz, beste ikuspegi bat eskaintzen du, beste errealitate batetik abiatzen baita gaiaz hitz egiteko. Ildo horretan, esango nuke euskal irakurleak gutxiago ezagutzen duen “beste aldea” eta horien sufrimendua (guardia zibilaren semearena) ezagutzera gonbidatzen duela liburu honek eta irakurlea deseroso kokatzea lortzen duela. Deseroso, batetik, haur euskaldunek Manuel protagonistaren aurka erabiltzen duten jazarpenaren aurrean, eta bestetik, pertsonaia helduek sortzen duten biolentziagatik, hau da, atentatuagatik. Azpimarragarria da obra honetan euskaldunak direla torturatzailleak eta kaltearen eragileak eta min egin nahi izatearen arrazoa guardia zibil baten semeari dioten gorrotoa dela. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi atentatuaren agentzia ETari egozten zaiola esplizituki. Bitxia da etakide den Manuelen irakasleak kontakizunean erakusten duen humanitate apurra (termino horietan hitz egitea zilegi bada), ikaslea eta bere aita atentatutik babesteko helburuz, etxerako lan berezia jartzen baitio Manueli, leherketak ez ditzan kuartelean harrapatu (74, 81). Gantxegik (2017) azaldutakoaren ildotik, irakasleak afektua dionez txikiari, ezin du hain erraz deshumanizatu, eta beraz, jada ez dago ziur helburuak bitartekoak justifikatzen dituenik. Humanizatzeari ari naizela, protagonistaren aita den guardia zibilak jarrera biolentoa eta gorrotozkoa duen arren, obraren amaieran aitaren papera jartzen da agerian (semearekiko afektu edo maitasun keinu bat erakusten duela iruditzen zait) eta biktima gisa irudikatzen da berau. Azkenik, obraren analisiarekin amaitzeko, azpimarratuko nuke ezeren gainetik bizitzeko eskubidea eta ezberdinen arteko errespetua aldarrikatzen dela.

#### **6.2.6.10. Zer da, ba, maitasuna?**

Miren Agur Meabek idatzi eta Concetta Probanzak (Urretxu, 1969) ilustratutakoa da *Zer da, ba, maitasuna?* (Elkar, 2008) obra. Idazleari buruz lehenagoko atal batean hitz egin dudanez, Probanzaren ibilbidean aipagarriak diren datu batzuk emango ditut labur-labur. Arte Ederretan graduatutako marrazkilaria eta ilustratzailea da eta hainbat idazleren obretan aurki daitezke bere irudiak, besteak beste, Juan Kruz Igerabide, Toti Martinez de Lezea, Ana Urkiza, Pello Añorga, Pako Aristi, Ixiar Rozas edo Enkarni Genuarenetan. 2004an, Patxi Ezkiagaren olerkiak lagun, *Mahats-denboran* (2004) argitaratu zuen, bere pinturen bilduma jasotzen duen artista liburua. Komikigintzan ere aritu da eta alor horretan hainbat sari eskuratu ditu, besteak beste, Portugalete Hiria saria eta INJUVE saria, biak 1998an.

## Laburpena

12 gorako irakurleei zuzendutako nobela honek elkarren osagarri diren 2 istorio biltzen ditu eta liburuaren alde batetik zein bestetik has daiteke irakurlea obraz gozaten. Bi protagonista nerabe ditu lan honek, eta ondorioz, bi ikuspegi eskaintzen dira. Poesia maite duen Berezi neskatoa eta musikan aritzen den Mister X mutikoa dira pertsonaia nagusiak eta maitasuna nola bizi duten kontatzen da lan honetan. Izenburuan bertan iradokitzen den moduan, maitasunaz hitz egiten du obrak, baina hori ez da lantzen den gai bakarra, pobrezia, gerra, heriotza, genero-indarkeria, adierazpen-askatasuna, eskola-jazarpena, giza eskubideak edo ingurumena ere ageri baitira. Liburuak nobela dirudien arren, poema ugari tartekatzen dira, baita abesti, gutun eta marrazkiak ere. Labur esateko, bi gaztek maitasuna eta bestelako gaiak nola bizi dituzten erakusten du obra honek 158 orrialdeetan barrena.

## Harrera kritikoa

Mintzagai dudan liburuak harrera ona duela esan daiteke. Euskaraz argitaratu eta hiru urtera, Meabek berak gaztelaniara itzuli zuen bere lana, *Qué es el amor, sino...?* (Lóquez, 2011) izenburupean eta urte batzuk beranduago, katalanezko itzulpena argitaratu zen, *Què és l'amor, sinó...?* (Edicions 96, 2014) izenburupean. Euskarazko bertsioak bederatzia argitalpen izan ditu gutxienez eta liburuari egindako kritiketan, formaren aldetik liburuak duen berezitasuna azpimarratu da. Karmele Igartua irakasleak (2014) Meaberen idatz-estiloa eta liburua aurkezteko forma goraiatu zituen, obra irakurtzeko planteatzen den jolasa berritzailetzat joz. Xabier Olasok (2009) ere, berezitasun horri egin zion erreferentzia, baita Bilbaok (2008) ere. Azken horrek liburuak biltzen dituen genero ezberdinen arteko batura positibotzat jo zuen, gaineratuz, irudimen handiz ondutako marrazkiek liburua aberasten dutela. Aipatzekoa da Galtzagorri Elkarteak ezinbestean irakurri beharreko “Ezinbestekoak” liburu-zerrendan sartu zuela Meabe eta Probanzaren lana eta sare-sozialetara joz gero, ikus daiteke eskola batzuetan liburua landu edo proposatu dela, gazteek egindako hainbat *booktuber* aurki baitaitezke sarean. Ez hori bakarrik, irakurketa zaletasuna bultzatzeko helburuz Euskal Herriko ikastoletan antolatzen den Juul kanpainako 2019ko edizioan, bigarren postua eskuratu zuen aztergai dudan obrak (12 eta 16 urte bitarteko kategorian)<sup>200</sup>. Sariketa horri erreparatzea interesgarria iruditzen zait oso, izan ere, berariazko hartzaileak eurak dira liburu gustukoena hautatzen dutenak.

---

<sup>200</sup> Orrialde honetan kontsulta daitezke edizio horretako liburu irabazle guztiak kategoriaz kategoriaz [https://www.nafarroakoikastolak.net/Argazkiak/11\\_JUUL%202019%20Liburu%20Hautatuena%20ikastoletan.pdf](https://www.nafarroakoikastolak.net/Argazkiak/11_JUUL%202019%20Liburu%20Hautatuena%20ikastoletan.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/21].

## Analisi narratologikoa

Liburua eskuetan hartu eta azalak berak aditzera ematen du edozein aldetik has daitekeela kontakizuna irakurtzen, izan ere, bi istorioek lotura duten arren, beregainak dira erabat. Orrialdeen zenbaketa modu beregainean egiten da, hau da, Bereziaren kontakizunak 1etik 81era doan numerazioa dauka, eta Mister Xrena ere 1etik hasten da, 77. orrialdean amaiera emanez<sup>201</sup>. Atal bakoitzak 28 kapitulu labur hartzen ditu, eta kapitulu amaieran, azkenengoan izan ezik guztietan, poema bat dator. Gehienez orri bat okupatzen duten kapituluak zenbakituta ageri dira (1etik 28ra), baina kapitulutik kapitulura txertatzen diren poemak A-tik Z-ra zerrendatuta ageri dira. Horiez gain, kapitulu guztietan irudiak aurki daitezke. Egitura zinez berezia eman dio Meabek obra honi. Kontakizuna toki eta garai zehatz batean kokatzeko datu nahikorik ematen ez bada ere, XX. mendeko azken urteen eta XXI. mendeko lehen hamarkadaren arteko Euskal Herrian girotuta dagoela esan daiteke. Batetik, atentatuak aipatzen dira, eta 3.2. atalean esan dudan moduan, 2010etik aurrera ETAk ez zuen atentaturik gauzatu. Bestetik, egunkariak ixten direla aipatzen du pertsonaietako batek eta aipatutako atalean azaldu dudan moduan, *Egin* egunkaria eta *Euskaldunon Egunkaria* 1998an eta 2003an itxiarazi zituzten hurrenez hurren. Azkenik, eta kronologia zehatza zehazteko balio ez badu ere, aipa daiteke pertsonaietako batek eta bere lagunak erabiltzen duten MP3a 1998tik aurrera merkaturatu zela (eta 2017an jada ez zirela ia erabiltzen).

Esan bezala, bi dira liburu honetako pertsonaiak: Berezi eta Mister X<sup>202</sup>, institutuan gelakide diren gazteak (12-16 urtekoak, beraz). Bereziak poesia eta argazkilaritza gustuko dituen ikaslea da. Mister Xk, ordea, jate txer batean lan egiten du eta musikaria da. Bereziaren deskribapenen arabera, umoretsua, adeitsua eta berritsua izateaz gain, dotore idazten du (B/12). Atal bakoitzean, barne-fokalizazioa erabiliz, lehen pertsonan kontatzen dute bizi dutena (narratzaile autodiegetikoak dira), baina funtsean, batak bestearekiko dituen sentimenduak dira agerian jartzen direnak. Maitasuna zer den galdera, liburuko izenburuan bertan egiten den itauna, *leit motiv* gisa errepikatzen da obra osoan zehar eta bi protagonistek ederki ematen dute haren berri. Pertsona bat uneoro buruan iltzatuta izatea (M/71), pasioa eta erakarpena (M/60), harekin bizi nahi izatea baina aukeratzen uztea eta bakoitzari bere espazioa uztea (M/68-69), inperfekzioak onartzea (M/68) edota barkatzen jakitea (M/71), besteak beste. Hori guztia da maitasuna Mister Xrentzat. Bereziaren kontakizunak, ordea,

---

<sup>201</sup> Aipu eta erreferentzietako orrialdeak ematean, nahasterik egon ez dadin, *B* jarri dut dena delako orrialdea Bereziaren kontakizunari badagokio, eta *M* berriz, Mister Xrenari badagokio.

<sup>202</sup> Nabarmentzekoa da ez direla protagonisten benetako izenak aipatzen eta ematen zaien deiturek batak bestearekiko duen miresmen eta lilura adierazten duela.

maitatzeak ondorio edo alde ezkorrek ere izan ditzakeela erakusten du, jelsia (B/56), desamodioa (B/53) eta ondoeza (B/51), besteak beste. Esan gabe doa liburuak amaiera zoriontsua duela, elkarrenganako maitasuna adierazten baitiote elkarri. Maitasunaren gaiaz gain, bien kontakizunetan badira euskal gatazkari egindako erreferentzia batzuk, baita bestelako gai sozialei egindako aipamen ugari ere. Bereziaren kontakizunari dagokionez, “Kronika beltza” kapituluan (B/45-46), euskal gatazka politiko-armatuari egiten zaio erreferentzia, gertatu diren atentatuez hitz egiten baitu neskatok:

Pasa den astean atentatua egon zen. Hildakorik ez, zorionez. Ertzainak zaurituta. Izugarria da hemen jazotzen ari dena. Ez dago eskubiderik. Ez dago heriotzarik mintzen ez nauenik. Biharamunean, poliziaren bost furgoi ikusi nituen gure kaleko aldapan. Jendea ere bai etxe baten aurrean, auzokoak eta kazetariak. Albotik pasatzean entzun nien esaten goizeko ordu bietatik zebiltzala bosgarren pisuko etxebizitza bat miatzen, eta gazte bat esku-burdinak jarrita eramane zutela (...) hurrengo zapatuan, gaueko ordu txikietan amumak deitu zigun telefonoz. Koktel bat jaurti zutela bere etxepeko aurrezki-kutxan eta sua zabaltzen ari zela (...) Ordubetean konpondu zen kontua. Ez, oker diot; horrelakoak ez dira ordubetean konpontzen. Aste guztia igaro genuen kedarra kendu ezinik. Ikusten ez bazen ere, hantxe zegoelako kedara beltza, gortinetan, hormako paperean, apaingarrietan eta altzarrietan. Garbitu, eta berezi pausatzen zen kedarra. Trapua pasatu, eta berezi agertu. Beldurra legez. Haserrea, nazka, sufrimendua legez. Horiexek dira benetako kalteak. Amumak orain ez du bakarrik egon gura izaten (B/45-46).

Aipuan ikus daitekeen moduan, protagonistak gertutik bizi ditu gatazkaren ondorioak (atentatuak eta kale borroka) eta egoera horretaz kexu da. Heriotza guztiek mintzen dutela aipatzen du, eta esanguratsua da hori, atentatuen aurkako jarrera garbia erakusten baitu. Horrekin batera, azpimarratzekoa da kedarrak daukan esanahia, behin eta berezi garbitu arren, ez baitute kentzea lortzen. Noski, kedarraz mintzo denean gatazkaren ondorioz bizi duten egoeraz ari da Berezi, hildakoak, sufrimendua, beldurra, haserrea eta nazka eragiten duen situazio batez. Mister Xren atalean ere aurki daiteke euskal gatazkaren gaineko erreferentziarik. “Pankartak” izeneko kapitulu laburrean (M/42), mutikoak kartzelaz, presoan aldeko bilkurez, pankartez, urruntze politikaz, torturez eta injustiziez hitz egiten du:

Ostiralero biltzen dira pankartadunak, plazan, isilik. Nire gurasoak ere egoten dira batzuetan, lagun bat kartzelan baitaude. Barreka agertzen dira argazkian (preso gehienak bezala). Ezin ulertu nik. “Zergatik dago irribarrez?”, galdetu nien behin. “Askatasuna espero duelako, ez errukia”, erantzun zidaten. Bitartean, bada nor usteldu kartzelatan, nor hil errepideetan, nor galdu erbestean, nor torturatu komisaldegietan... Ez dago eskubiderik. Izugarria da hemen gertatzen ari dena. Ez dago injustiziarik salatuko ez dudarik. Egiak esango ditut, gitarra kentzen

ez badidate. Kenduko didate gitarra, baina ez plaza. Kenduko didate plaza, baina ez ahotsa. Eta ahotsa kentzen badidate, beste eztarri batek kantatuko du egia (M/42).

Gabriel Arestiren “Aitaren etxea” poemaren oihartzuna dakarte aipu horretako azken hiru lerroek eta iradokitzen dute protagonistak, Arestik bezala, bere ahotsa/musika erabiliko duela salaketak egiteko. Gainera, kapitulu horren ondoren “Hitzak” izeneko poema dator eta bertan “hitzak harri, hitzak herri” erako formulak erabiltzen dira (M/43), euskal irakurleak Arestiren *Harri eta Herri* poesia liburuarekin lotuko duena. Beste atal batean, atentaturik edo zuzeneko biolentziarik ageri ez den arren, 3.2. atalean azaldu dudak bezala, Euskal Herrian ixtera behartutako bi egunkarien itxierak lotura zuzena du euskal gatazkarekin, eta horixe da hemen islatzen dena:

Astero ariketa txatxu bat egiten baitugu Hizkuntzako irakaslearekin: eskua sartu poltsa batean, txartel bat atera hitz bat idatzita duena, eta hitz horri buruzko testu bat prestatu hurrengo asterako. Metodo infantil samarra iruditzen zait niri. Aukera ematen digu, dena den, nahi duguna esateko. Gora adierazpen-askatasuna (hemen egunkariak ixten baitituzte begi-kliska batean, giltzarrapoa eta kitto). Ba, bai (M/11).

Hain gertutik bizi ez dituzten egoera gogorrez ere hitz egiten dute bi protagonistek eta hausnarketa interesgarriak aurkezten dira bien kontakizunean. Batetik, pobreziaren gaia ageri da hainbat pasartetan, adibidez, Berezik gobernuz kanpoko erakunde bateko aldizkarian irakurritako lekukotasunen berri ematen duenean. XXI. mendean botikarik erosi ezinda hiltzen diren haurrak, zabortegetan bizi diren haurrak eta arma fabriketan lanean hasteko eskola uzten duten umeak aipatzen ditu (B/22). Injustizia horien guztien aurrean, jarrera kritikoa agertzen du neskatoak, bai eta argazkien bidez munduari miseria hori erakusteko gogoia ere (B/23). Ametsetan ere, Bereziri loa galarazten dio leher eginda baina biziraun nahian dagoen neskatoak (B/15). Mister Xk, telebistako erreportaje bat aitzakia hartuta, haur soldaduen patu latzaz hitz egiten du eta esanguratsua da nola egiten den haur horien eta Mister Xren bizimoduaren arteko kontrastea (M/19-21). Tartekatzen diren poemetan ere gerrako umeak hartzen dira mintzagai (B/65). Bestetik, ustelkeria, giza eskubideak, demokrazia eta boterea hartzen dira ahotan, bereziki Mister Xren kontakizunean (M/71). Horiez gain, espekulazioaz (M/24), berotze globalaz, animalien ehizaz (M/44), etorkinen bizimodu gogorraz (M/31) edo hizkuntzen heriotzaz (M/47) mintzo dira protagonistak. Haur eta gazteei gertuagokoak zaizkien bizipenak ere ez dira falta, pasarte batzuetan eskola-jazarpenaz, beldurraz eta suizidioaz hitz egiten baita (M/36-38).

Ez nuke aurrera egin nahi genero ikuspuntutik azpimarragarriak diren zenbait kontu iruzkindu gabe. Batetik, “Zifrak” izeneko kapituluan, senar edo lagun ohien eskuetan, tiroz, erreta, aiztoz edo kolpez hil diren emakumeak aipatzen dira, baita Burundin astero bortxatzen dituzten neska eta emakumeak ere. Gainera, Euskal Herrian bertan, sexu-merkataritzan aritzera behartzen dituzten emakumeak aipatzen dira, argi utziz ekintza horiek ez direla gugandik urrun soilik gertatzen. Alderdi paratestualari erreparatuz gero, irudiak iradokitzaileak dira oso, emakume aurpegiez gain haien aurka egindako erasoen berri ematen duten egunkarietako orriak agertzen baitira (B/74-75). Bestetik, urtean 2 milioi neskari klitoria eta beheko ezpainak erauzten dizkietela aipatzen da, eta tradizio edo fede horren aurrean, erabateko errefusa adierazten du Berezik (B/49). Arestian heriotzarekin lotutako hainbat pasarte daudela aipatu dut, baina heriotza presente dago Bereziren bizitzan, eta horren berri ematen da, xamurtasun eta inozentzia handiz eman ere. Neskatoak ez du ulertzen amak negar egiten duela minbiziaren erruz gutxi falta zaiolako biziari agur esateko (B/39). Dena den, beste pasarte batean ikus daiteke erabat normalizatua duela amaren heriotza, baita hilerrriak eta hilobiak ere. Gainera, maite ditugun pertsonen galeraren aurrean hartu beharreko jarrera zein den erakusten du Berezik, maitasunez eta positibotasunez (B/36-37).

Mintzagai dudan liburu honetan, ugariak dira idazle, abeslari edo margolari famatuei egiten zaizkien aipamenak. Bereziren kontakizunak Silvio Rodriguez-en aipu bat dakar epigrafe gisa (B/5), Markos Zapiain-en *Errua eta maitasuna* liburuko aipu bat, zeinak Virginia Woolf hartzen duen ahotan (B/5), Pedro Salinas idazlea aipatzen da (B/26), baita Miquel Martí i Pol poeta eta idazlea (B/9), Itxaro Borda idazle baionarra (B/46), Sylvia Plath poeta eta eleberrigilea (B/61) eta Li Po txinatar olerkaria (B/66) ere. Margolariak ez dira falta, Picasso (B/29, 40), Klimt (B/44), Chagall (B/50, 61) eta Frida Khalo (B/68) aipatzen baitira. Horiez gain, *Mila gau eta bat gehiago* liburua (B/58), *Jane Eyre* filma (B/71) eta *Peter Pan* istorioko Wendy pertsonaia (B/32) ageri dira. Azken hori marraztuta ere ageri da, baita Picassoren “Bi emakume hondartzan korrika” koadroa ere (B/40). Bereziren kontakizunean bezala, Mister Xreanean ere aurki daiteke idazle, musikari eta marrazkilarien aipamenik: Epigrafe gisa Eduardo Mazo poetaren aipu bat dator, herri kanta batekin batera (M/5), protagonistak *Eperra* euskal abesti herrikoia zati bat erreztatzen du (M/9), baita Pirritx eta Porrotx pailazoen ateratako *Maite zaitut* (M/17), Gorka Knörren *Itsasoari begira* abestia (M/69) eta Oihenartek idatzi eta geroago Pier Paul Berzaitzek musikatutako *Baratze bat* poemaren hasiera ere (M/24). Horiez gain, Itoizen *Lau teilatu* abestia (M/33), *Printze Txikia* liburua (M/44) eta Li Po idazle txinatarraren aipu batzuk (M/57-58) ageri dira. Ez hori

bakarrik, azken horri dagokionez, jakitera ematen da Joseba Sarrionandiak itzuli zituela haren olerki batzuk (M/49). Ageri diren marrazkilarien artean, Helene Funke aipa daiteke (M/52). Testuartekotasunez aritu naizela, obra honetan Meaberen beraren beste lan batzuei egiten zaie erreferentzia. “Kaierdun emakumea” izeneko poema (B/13) eta “Ni ez naiz Wendy” (B/32) poema beranduago argitaratutako *Bitsa eskuetan* (Susa, 2010) poema-liburuan sartu zituen, “Definizioa” izeneko poeman hain zuzen ere (gehikuntza eta hitz-ordena aldaketa txiki batekin)<sup>203</sup>. “Itsasargian ala karabanan?” kapituluan (M/68-69), berriz, Mister Xk aipatzen du Berezirekin karabanan bizi nahiko lukeela, eta gero, itsasargian egonkortzea gustatuko litzaiokeela. Meaberen irakurleak agian bere bi obrekin egingo du lotura, *Urtebete itsasargian* (Elkar, 2006) eta *Errepidea* (Erein, 2010) lanekin hain zuzen, lehenengoan pertsonaia nagusia faroan bizi da eta bigarrenean, ordea, karabana batean. Ezin aipatu gabe utzi marrazkietako batean Meabe bera identifika daitekeela, egileak bezala, irudiko pertsonak partxea baitarama ezkerreko begian (M/28). Horrez gain, aipamena merezi du pasarte batean Berezik daraman sonbreiru moreak (B/77), izan ere, Meabek (2016) mintegi batean aitortu zuen moduan, bere pertsonaia femeninoek daramaten kapela morea sormenaren sinbolo da eta elementu horren kolorea ez da ausazkoa, historian zehar transmititu diren emakume ereduaren gaineko kezka baitu sorburu. Idazle lekeitiarrak bereziki zaintzen ditu pertsonaia femeninoak eta bere obran ohiko da (emakume) gorputzari arreta eskaintzea. Ildo horretan, obra honetan ere ez dira falta gorputzari (B/48, 75), hilekoari (M/52) edo sexualitateari egindako erreferentziak. Are gehiago, HGLn oraindik ere nahiko tabu den masturbazioa ageri da hainbat pasartetan, hala neskatoaren (B/48-49) nola mutikoaren (M/45) atalean eta irudiek gorputz biluziak eta genitalak erakusten dituzte, masturbazio betean.

Liburuaren iruzkinarekin amaitzeko, azpimarratu behar da egitura berezia duen obra honek 54 poema, 56 narrazio, estilo askotako marrazki ugari eta abestien letrak barne hartzen dituela. Funtsean istorioa bakarra izan arren, bi narratzaile (bi pertsonaia dinamiko eta biribil) eta bi ikuspegi eskaintzen dira, obrari nolabaiteko polifonia emanez. Horrela, nerabezeroaren ikuspegi bikoitza ematen da: maskulinoa eta femeninoa. Bi pertsonaien hizkera ere desberdina da, izan ere, neskatoaren hizkera zainduagoa da, poetikoagoa eta kritikoagoa izateaz gain. Generoari dagokionez, eleberria dela esan daiteke, baina poema-liburua ere bada. Prosan idatzitako pasarte batzuk kazetaritza-estiloari jarraitzen diote, baina prosa poetikoa da beste batzuetan. Gutun bat (B/29-30), koadroen deskribapenak (B/40, B/61),

---

<sup>203</sup> Interesa duenak Susa argitaletxeko lotura honetan aurki dezake Meaberen *Bitsa eskuetan* obra osoa eskuragarri: <https://www.susa-literatura.eus/liburuak/poes5603>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].



egunkari zatiak (B/74-75) eta bestelako testu informatiboak (B/42) aurki daitezke Meabek eta Probanzak ondutako lan honetan, eta irudiak txertatzeaz gain, hitzen eta letren arteko disposizioarekin ere jolasten da.

#### **6.2.6.11. Larunbatean Bukowskin**

John Andueza (Oregon, 1966) film-zuzendari, aurkezle, gidoilari eta kazetariak idatzitakoa da *Larunbatean Bukowskin* (Elkar, 2012) eleberria, argitaratutako fikziozko bere lehenengo liburua. Literaturaren alorrean, helduei zuzendutako lanak idatzi ditu, esaterako, *Prime-time* (Elkar, 2014) eta *Danba!* (Elkar, 2017) nobela beltzak, baina HGL idatzi du batez ere. Harenak dira, besteak beste, *San Ferminetan*, *Lesakan* (Elkar, 2014), *Lepoan hartu* (Elkar, 2016), *Luaren itzala* (Elkar, 2022) edo aurrerago aztertuko dudana *Para bellum* (Elkar, 2023) obrak. Berak sortutako film laburrekin eta dokumentalekin sari eta aipamen ugari jaso ditu bere ibilbidean zehar, baina horrez gain, hiru aldiz gailendu da hainbat ipuin lehiaketatan.

#### **Laburpena**

Hamabi urtetik goako irakurleei zuzendua dagoen 208 orrialdeko eleberri honek Donostiako Bilintx institutuan ikasten duen DBHko 4. mailako gazte talde baten bizipenak kontatzen ditu, baita ikastetxean biltzen diren irakasle eta ikasle-talde mota ezberdinen berri eman ere. Ikaskide batek nesken aldagelan ezkutuko kamera bat jarri eta grabatutako bideoa zabalduko du. Horrek ikaskide guztiengan eragingo du, baita ikasturtea eskola berrian hasiko duen Aitor “Xato” protagonistarengan ere.

#### **Harrera kritikoa**

Lehenengoz argitaratu zenetik 13 argitalpen izan ditu obra honek, baina ez da erdaretara itzulia izan. Felix Ibargutxik (2014) eta Garak (2014) egindako erreportaje banatan arrakastatsutzat hartzen da eleberria. Dena den, erreseina luzeagoa eskaini zion Xabier Etxanizek (2012c) entretenigarritzat du obra, baina pertsonaien garapen urria, argumentuaren sinpletasuna eta ondorioz aurreikus daitekeena eta amaiera zorionsuaren desegokitasuna (eleberriaren tonuari bestelako amaiera dagokiola iruditzen zaio) aipatzen ditu. Horiez gain, Galtzagorri Elkarteak bere webgunean egindako balorazio bat aurkitu dudala, zeinetan kritika negatibo bat aurki daitekeen, anonimoan mantentzen den erreseina egileari gehiegizkoa

iruditzen baitzaio ingelesetik hartutako hitz edo esamoldeen erabilera<sup>204</sup>. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi Marta Maza (2019) bibliotekari dokumentalistaren datuen arabera, 2018an Donostiako Udal Liburutegi Sarearen Haur Liburutegi Nagusian mailegatutako liburu guztietatik mintzagai dudana izan zela gehien mailegatu zen bigarren liburua.

### **Analisi narratologikoa**

Liburuaren azterketarekin hasi aurretik, aipatzekoa da mintzagai dudan honek Anduezak argitaratutako *San Ferminetan, Lesakan* (Elkar, 2014) obrarekin lotura duela, bigarren honetan berriro ere ageri baitira Donostiako Bilintx institutuko DBH 4ko ikasleak. Dena den, pertsonaia batzuk errepikatzen diren arren (irakasleak), protagonistak eta trama bera desberdinak dira. Aztergai dudana obra 2011. urteko Donostian girotuta dago eta gertaera nagusiak Bilintx institutuaren bueltan jazotzen dira. Liburuko azalak berak janzkera eta estilo ezberdineko hainbat pertsona erakusten ditu. Lehenengo planoan “Xato” deitzen duten Aitor protagonista ageri da, duela gutxi familiarekin Donostiara lekualdatu den 15 urteko gazte arrasatearra. Mutikoa DBHko 4. mailan hasiko da eta istoriotik kanpo dagoen narratzaile orojakileak bertan ezagutuko dituen irakasle eta ikaskideen berri emango du. 51 kapitulu laburrez osatua dagoen liburu honek nerabeen arteko harremanak, eskolako anekdotak, sexu harremanak, drogak eta bestelako gaiak ditu hizpide, baina gertaera zehatz bat da kontakizuna gidatzen duena: Mikel ikaskideak (Ugutzen konplizitatearekin) boligrafo txiki baten barruan ezkutatutako kamera bat sartuko du nesken aldagelan eta Nerea biluzik grabatzeaz gain, edukia beste ikaskideen artean zabalduko dute bi mutilek, dirua irabazteko asmoz. Gainera, tranpa bat prestatu eta poliziak Javi ikaskidea hartuko du erruduntzat, harik eta eleberriaren amaieran benetako errudunak harrapatzen dituzten arte.

Arestian aipatutako gertaerak ikaskideengan sortutako erreakzioak azaleratzen ditu liburuak eta intimitate urraketaren gaia hainbat aldiz ageri da. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Elena pertsonaia, Ugutzi argazki intimoak ateratzen utzi ostean egindakoaz damutzen den ikaskidea. Era berean, interesgarria da hasieran erruduntzat hartutako Javiri ezarritako zigorra eta amaieran harrapatzen duten Mikel eta Ugutzi ipinitako zigorra erkatzea (behin betiko kanporatzea eta 15 eguneko kanporatzea hurernez hurren), iradokitzen baita Ugutzen familia ezaguna izateak eragina duela zigorraren murrizketan (190). Dena den, obrak ez du ezkututzen bi mutilei ezarritako zigorrez gain gertaerak errudunen familiarengan duen eragin

---

<sup>204</sup> Esteka honetan irakur daiteke aipatutako erreseina laburra: <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/larunbatean-bukowskin?p=1&a=0&g=0&j=&t=Larunbatean%20Bukowskin&u=0&n=>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

negatiboa. Mikeli dagokionez, ama alargunarekin batera Etxalarrera joaten da bizitzera eta mutikoa konturatzen da amaren bizimodua hankaz gora jarri duela (195), alegia, berak egindako kalte batengatik amak jasoko duela zigorra. Ugutzek ZIUra bidaliko duen jipoi latza jasoko du, iradokitzen denez, Nerearen neba den Anderren eskutik (205-207). Era berean, ezin aipatu gabe utzi biktima nagusia den Nerearengan (eta haren familiarengan) gertaerak izango duen eragin erabatekoa. Egia esan, faltan bota dut fokua Nerearengan jartzea eta hark pairatutako ondorioez apur bat gehiago sakontzea, liburuak horretarako aukera bikaina eskaintzen baitu. Nolanahi ere den, kontakizunak amaiera zorionsua du (edo positiboa nahiago bada, interpretatzen bada nereak arazoarekin bizitzen ikasten duela), abenduaren 3an (bide batez, euskararen nazioarteko egunean), Pipi, Joseba eta Mohamedek Donostiako Bukowski tabernan (benetako espazioa) ematen duten kontzertura batera joaten baitira Nerea eta Xabat protagonista (208). Iradokitzen den moduan, haserre eta amorru guztiaren gainetik, bizimodu (publiko) eta normala egiteko gai da pribatutasuna urratu dion gertaeraren ostean.

Orain arte ez dut azaldu liburuak euskal gatazkarekin egiten duen lotura, baina hainbat pasarte dira iruzkindu beharrekoak. “Sarri Sarri” izena daraman kapituluaren (64-72), ikasleak euskarako ikasgaiaren daude irakasleak etxean irakurtzeko eskatutako Joseba Sarrionandiaren *Akordatzen* (Txalaparta, 2004) autobiografia saio motza lantzen. Idazlearen gainean hizketan ari direla, Sarrionandiak *Moroak gara behelaino artean* (Pamiela, 2010) lanagatik Euskadi Literatura Saria eskuratu duela aipatzen du ikaskide batek, baina sariaren dirua ukatu nahi diotela (65). Horren harira, beste ikaskide batek aipatzen du bere garaian Sarrionandia kartzelan sartu zutela ETAKoa zelako (66) eta ildo horri tiraka, Sarrionandiaren ihesaldiaz hitz egiten dute, baita haren exilio sekretuaz ere (67). Imanol Larzabal ere aipatzen dute ikaskideek (Sarrionandiak Iñaki Pikabearekin batera kartzelatik ihes egiteko erabili zuen baflea harena baitzen), eta nola egin behar izan zuen alde Euskal Herritik ETAK hil egin nahi zuelako, Yoyesen omenez abestu zuelako (66). Horrekin batera, Yoyes ETAK akabatutako buruzagi ohia zela argitzen da aztergai dudan liburuan (66). Ikasleen eta irakaslearen arteko interakzio horretan hausnarketa interesgarriak plazaratzen dira. Nerea ikaskideak adibidez, Sarrionandiaren aipatu liburutik gehien gustatu zaion pasartearen ozen irakurtzen du: “ETAKoa nintzela, ETAK nire lagun baten aita hil zuela akordatzen naiz, eta itzelezko tristura eta hondamendi sentazioa sentitu nuela” (70). Hori entzutean, Xatori datorkion burutazioaren berri ematen du narratzaileak: “Kontradizio itzela. ETAKoa izan eta ETAK egindako ekintza batengatik damutu” (70). Orobat, interesgarria da ikasle batek ETAKoa izatea oso konplikatu dela esan eta gero irakasleak ikasleei adierazten dizkien hitzak aztertzea:

Konplikatua bai bederen, Nerea. Oso erabaki konplikatua. Hasteko, non aurkezten du batek bere burua ETAkoa izateko? Eta behin ETAn sartuta, zergatik aurrera jarraitu lagunari aita hil eta damu zarenean? Lehenengo ekintza. Adrenalina berezia polizien atzaparretatik ihes egiterakoan. Lehenengoaren ostean, beste ekintza bat. Eta agian, beste bat. Eta halako batean gauzak ez dira hain ondo atera. Atzerrira hanka egin behar. London, Belfast, Paris. Atxiloketak Frantzian. Jendarmeen interrogatorioa. Itziarren semeak laguna salatu nahi ez eta kartzelara eramán dute... Sarri eta Pikabeak zorte ona izan zuten. Martutenetik Imanolen bafleetan ospa egin zuten. Beste batzuk espetxean usteldu dira, hogeita hamar urte preso (71).

Goiko ipuan ikus daitekeenez, irakasleak etakide izatearen alderdi makurra jartzen du agerian eta etakide zenbaitek bizi izan zuten dilema jartzen du begi-bistan. Memoriaren transmisio horretan harreman afiliatiboa nagusitzen da eta memoria komunikatiboa zein kulturala agertzen da. Iruzkindu dudán kapituluaz gain, bada osoki euskal gatazkari lotuta dagoen beste bat. “Agiri historikoa” izeneko kapituluán (124-127), ETAk borroka armatua behin betiko uzten duela aditzera ematen duen jakinarazpenak hartzen du nagusitasun osoa. Narratzaile orojakileak 2011ko urriak hogeian kokatzen du irakurlea. Etxera heldzean, protagonistak telebistari begira aurkitzen ditu etxeak. ETAREN komunikatua ari dira ematen telebistan eta narratzaileak egoera deskribatzen du:

Pantailan hiru pertsona azaldu dira eskularru beltzak, jertse beltzak, txapela beltzak eta kaputxa zuriak jantzita. Mahaiaren ezker aldean ikurriña, eta eskuinaldean Nafarroako bandera eta arranoaren bandera horia ageri dira. Atzeko horma urdinaren erdian oihal bat zintzilikatu dute, *ETA bietan jarrai* leloarekin eta aizkora eta sugearen anagramarekin. Hiru kaputxadunek pegatina bana daramate itsatsita bularrean eslogan eta anagrama berberarekin. Hirukotearen erdian dagoen emakumeak euskaraz irakurri du” (124-125).

Jarraian, hemen errepikatuko ez dudán agiri osoa ageri da<sup>205</sup>, inolako egokitzapenik gabe, zeinetan ETAk berak taldearen ibilbide armatuaren behin betiko amaiera iragartzen duen eta Espainiako eta Frantziako gobernuei dei egiten dien elkarrizketa prozesua zabaltzeko, gatazkaren ondorioei konponbidea emateko (125-26). Pasarte horren ostean, narratzaileak familiaren erreakzioa deskribatzen du: hasierako ixiltasuna, geroko aitaren hasperena eta haren “Ufa, azkenean!” (127). Horren ostean, narratzailearen hitz hauek ematen diote amaiera kapitulari: “Bi mila eta hamaikagarren urteko urriaren hogeia. Ostegun historiko bedeinkatua” (127). ETAk jardun armatua betiko utzi izana positiboki baloratzen da, beraz, kontakizun honetan. Euskal gatazkaren eta pribatutasunaren urraketaren auzi horiez

---

<sup>205</sup> Irakurleak agiri osoa irakurri nahiko balu, webgune honetara jo lezake: <https://goiena.eus/debagoiena/1386609160946-etaren-agiria>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

gain bestelako gaiak ere ageri dira, besteak beste, drogen gaia azaltzen da hura saltzen aritzen den Mohammed gaztearen bidez (150), baita heriotza zigorrarena ere (181-182). Azken horrekin lotuta, heriotza presente dago, adibidez, aita minbiziak jota hil zen Ainhoari buruzko pasarteetan (149). Liburuan hainbat testuartekotasun aurki ditzake irakurleak, gehienak euskal kulturarekin lotutakoak. Lehenago aipatu dudan “Sarri Sarri” izeneko kapituluan, esaterako, euskal irakurleak berehala identifikatuko du Kortatu taldearen abesti ezaguna, zeina *Chatty Chatty* abestiaren musikaren gainean eraikia dagoen. *Libertadea* euskal kanta ezaguna (194), Ken Zazpi taldearen *Ilargia* (41), Mikel Laboren *Komunikazio-inkomunikazio* abestia (154-155), Telmo Esnaolen “Urte berri on amona” filma (147) edo Cervantesen *Kixotea* (Xatok Nereari Dulzinea deitzen dionean (161)) dira irakurleak identifikatuko dituenetako batzuk. Euskal talde edo abeslarien aipamena ez da falta, besteak beste, Ken Zazpi, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Fermin Muguruza, Gatibu (154-155) eta RIP (liburuko azalean) aurki baitaitezke. Azkenik, liburuaren azterketarekin amaitzeko, aipatu nahiko nuke hainbat testu-genero baliatzen direla, besteak beste, bertsoak (21), abestiak (157-158, 192, 194), poiliziaren galdeketa eta txosten poliziala (167-170, 171-172), e-mailak (143-145, 159-160), ETAREN agiria (125-126) eta *Berria* egunkariko kronika (205) txertatzen baita kontakizunean. Gainera, letrakerarekin ere jolasten da, ez baitira berdina ematen testu nagusia eta barruan ageri diren pintadak, bertsoak, e-mailak eta abarrak.

#### **6.2.6.12. *Kandela bat pizteko behar dena***

Aztergai dudan Mikel Antzaren (Donostia, 1961) ipuin hau Aratamiñek eman zuen argitara 2012an, Iker Morenoren (Burlata, 1986) irudiz hornituta. Idazleari dagokionez, Mikel Albisu idazle eta antzerkigilea (etakide ohia) dago ezizen horren atzean, 2004tik 2019ra preso egon zena. Helduei zuzendutako hanbat lan idatzi ditu, hala nola *Beteluko balnearioko mirakulua* (Susa, 1985) antzezlan, bortizkeriak zeharkatutako *Odolaren usaina* (Susa, 1987) ipuin bilduma, *Ametsak ere zain* (Susa, 2015) poema liburua, *Bakarmortuko kronikak* (Ataramiñe, 2011) lana edo *Ospitalekoak* (Susa, 2010) eta *Atzerri* (Susa, 2012) eleberririk. Antzaren lanetan oso presente dago kartzela, baita bortizkeria eta gerra ere.

#### **Laburpena**

Bost bat urtetik gorako irakurlea helburu duen 25 orrialdeko ipuin hau preso dagoen izebaren eta bere iloba txikiaren arteko harremanean zentratzen da, baina baita presoak sentitzen duen horretan ere.

## **Harrera kritikoa**

Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko elkarte batek argitaratutakoa izanik, ez da harrizkoa HGLri zuzendutako aldizkari espezializatuek lan hau aipatu ez izana. Prentsako kritikari begiratu bat emanda ere, argitalpenaren berri ematen duten albisteez gain, ez dut bestelako iruzkinik aurkitu.

## **Analisi narratologikoa**

Narratzaile orojakileak izeba baten eta haren ilobaren arteko harremana kontatzen du. Kartzelan dago lehena, eta hamar urte dituen neskatoak halaxe ikusi du beti izeba, lau urte zituela kartzelako lokutorioan ezagutu zuenetik: preso. Espetxeko hainbat irudi ageri dira eta leihoetako burdinazko barrote lodiak (3, 13) edo kamera eta alanbrez jositako horma altuak (6) ikus daitezke. Presoaren egoera gogorra deskribatzen da, nola sentitzen duen izebak “espetxeak bere garro likitsekin irensteak daukala” (7), nola pasa behar dituen polizien araketak (8), nola ari zaion lausotzen oroimena zigor-ziegan pasatako denbora luzeagatik (7) eta nola baliatu behar duen oroimena etsipenean ez erortzeko (18). Urruntze politikaren ondorioz, ilobak izeba ikusteko egin beharreko bidaia luze eta neketsuak ere aipatzen dira, bai eta presoak ikusi aurretik pasa beharreko miaketa eta segurtasun neurriak ere (12). Bukatzeko, azpimarratzekoa da irudietan otsoak ageri direla polizia irudikatzen (8, 15) eta animalia horrek gaizkia sinbolizatzen duela, literatur tradizioan ohikoa den moduan.

### **6.2.6.13. *Hiru sopranoak***

Xabier Mendigurenek idatzi eta Alex Orbek (Barakaldo, 1973) irudiz jantzitakoa da jarraian aztertuko dudana, Elkarrek 2015ean argitara emandakoa. Idazleari dagokionez, aurreko atal batean erakutsi dudana moduan, Mendigurenek behin baino gehiagotan hartu ditu hizpide Euskal Herriko gatazka historiko politikoak, baina aurrez bere idazle ibilbidea laburbildu dudanez, ez ditut horiek berriz aipatuko. Orberri dagokionez, marrazki bizidunak egin izan ditu eta HGLko liburu ugari ilustratu ditu, besteak beste, Xabier Mendigurenen lanez gain, Katixa Agirre, Antton Kazabon, Unai Elorriaga edo Yolanda Arrietarenak.

## **Laburpena**

Hamabi urtetik gorako irakurlea helburu duen 82 orrialdeko eleberri labur honetan futboleko taldean elkar ezagutu eta harrez geroztik lagun minak diren hiru neskato dira

protagonistak: Ane, Aiora eta Aisha (Hiru sopranoak). Haien arteko laguntasun harremanaren berri ematen da, baina baita bakoitzak dituen gatazka eta bestelako kontuen berri ere.

### **Harrera kritikoa**

Lehenengoz 2015ean argitaratu zenetik bi argitaraldi izan du liburuak eta gaur gaurkoz euskaraz soilik irakur daiteke. Xabier Etxanizen (2016a) ustez, anbiziotsua da Mendigurenen obra, nerabezaroan ohikoak diren arazoak ikusarazteaz gain, beste hainbat problematika erakusten dituena. Kritikariak faltan bota du lehenengoei toki handiagoa egitea kontakizunean, gaiak sakonago landu ahal izateko; baina gainerakoan, irakurketa arina eta atsegingarria dela iruditzen zaio. Etxanizek, Fernández de Gamboarekin batera (2020), liburuaren gaineko azterketa sakonagoa argitaratu zuen futbola eta euskal HGL hizpide dituen lanean. Bertan kritikariak gaineratu zuten, irakurle gaztearentzako onuragarria da egileak liburuan planteatu dituen galderei erantzun irmo bat ez ematea, hartara errealitatea ezagutu eta nork bere irizpidea gara dezala bultzatzen baita, dena zuri ala beltz eman ordez, errealitateak dituen ertz anitzak ikusarazten direlako.

### **Analisi narratologikoa**

Obra hau 5 atal nagusitan banatuta dago eta lehenengoan, Ane narratzaileak liburuan aurkituko duena aurkezten dio irakurleari: hiru sopranoen historia, Beasaingo futbol taldean ezagutu eta harrez geroztik lagun minak diren hiru neskatoren historia. Fokalizazioa aldatuz joango da protagonista batetik bestera. Neskatoetako bakoitzak bere gatazka pertsonala bizi du etxean. Aita kartzelan zela jaio zen Aiora (31). Albaceteko kartzelan dago preso eta horregatik, hilabetean behin futboleko partida galtzen du alabak, aita bisitatzera joaten denean hain zuzen. “Beti eduki omen zuten aita urruti, Espainiako hegoaldeko kartzela batean edo bestean, eta hara joaten omen zen ama, hilean behin edo bitan, bisitan” (31). Aitaren kondena zehatza aipatzen ez bada ere, nahiko modu esplizituan adierazten da zergatia:

Inork ez zuen galdetu zergatik zegoen preso. Bazirudien ez zegoela galdetu beharrik, denek zekitelako, edo gauza horietaz hitz egitea sobran dagoelako, edo itsusia delako, edo auskalo zergatik. Kontuak kontu, esan gabe ulertzen zuten denek Aioraren aita ETAKoa zela, edo ETAREN ingurukoa, edo dena delakoa (29).

Anek jakin nahiko luke zer egin zuen Aioraren aitak zigor hori merezi izateko, baina ez da galdetzera ausartzen (33). Aipa dezadan galderak ez egitearen auzia tesiko corpuseko beste lan batzuetan ere ageri dela. Dena den, narratzaileak jakinarazten du aita kartzelan

edukitzeaz lotsatzen ez den arren eta asko maite duen arren, Aiorari ez zaiola horretaz hitz egitea gustatzen (30). Txikiari mingarria egiten zaio aita urrutiko kartzelan edukitzea eta hilabetean behin soilik ikusi ahal izatea. Aitarekin dituen enkontru horien berri ere ematen da: “Bisita batzuk erdian kristala daukazula egin behar dituzu, eta beste batzuk gela batean elkartuta, elkar besarkatzeko moduan” (31). Baina bada urruntze politikak eta aita kartzelan edukitzeak alabarengan sortzen duen nahigabea hobeto adierazten duen pasarterik, honako hau adibidez:

Txikia nintzela, ez nuen ulertzen, beste umeez aita etxean edukita, nirea zegatik bizi zen hain urruti. Gero, urteekin, gauzak ikasten zoaz, eta barneratzen. Baina hala ere, ez da erraza [...] gogorra da aitarik gabe haztea. Edo aita hilean behin ikusiz bakarrik. Gogorra da bera han sufritzen dagoela jakitea. Gogorra da egun osoko bidaia horiek egitea, ordu erdi egoteko elkarrekin. Gogorra da espetxeko giro hori, poliziekin, barroteekin, sarrailekin [...] urte mordoxka bat [geratzen zaio] oraindik, gauzak aldatzen ez badira (33).

Ikus daitekeen moduan, narratzaile gaztea egoeraz kontziente da, jakin baitaki Aioraren aita ez dela laster itzuliko etxera. Preso askoren familiak Mirentxin gidariak izeneko boluntario taldearen laguntza izan du kartzelara bidaiak egiteko, eta horren berri ere ematen da kontakizunean<sup>206</sup>:

Mirentxin deitzen diegu karteletara eramaten gaituzten furgonetei. Amak esaten dit garai batean autobusez joaten zirela, kartzela berean preso asko zeudenean, baina, sakabanaketarekin, preso apur batzuk daude kartzela bakoitzean, eta familia bakoitza bere kasa joateko, garestiagoa eta nekagarriagoa da. Bai zeure kotxean baldin bazoaz, bai trenez edo hegazkinez baldin bazoaz. Horregatik dira hain inportanteak Mirentxin furgonetak, presoek lagunak eta senideak bisitan eramateko (35).

Jarraian, Aneren kontakizun propioan sakondu nahiko nuke, gogoeta interesgarriak plazaratzen baitira haren bidez. Neskatoak amarekin bizi dela kontatzen du, baita aita nola hil zuten ere: “Nire aita hilda dago. Aspalditik. ETAren bonba batek hil zuen. Okerrena edo bitxiena da ez zela beraren kontrako bonba bat. Politikari baten kontrako lehegailua jarri zuten, eta eztanda egin zuen momentuan nire aita parean gertatu, eta akabatu egin zuen” (57). Gertaera horrek bere amarengan eragindakoa ere azaltzen du neskatoak:

---

<sup>206</sup> Presoen senitartekoak kartzelara eramaten dituen furgoneta Mirentxin izenez ezagutzen da eta gidari lana egiten duen boluntario taldea, berriz, Mirentxin gidariak. Sare hori 1999an sortu zen eta dispersioaren amaierara arte egon da martxan.



Amak kontu hau ez du garbi azaltzen, baina badirudi bai bera bai aita abertzaleak zirela; gehiegi sartu gabe, baina abertzaleak. Gertatu zena gertatu eta gero, ordea, zer pentsatu behar du batek? Gu euskaldunak gara, ezin ditugu gure sustraiak ukatu; baina ezin ditugu, ezta ere, aita hil zutenak defenditu, ezta haien ideien alde egin ere. Ez dauzkat ideiak batere argi, amak ere ez, esango nuke. Biktima elkartearen bileretara joan denean ere, deseroso sentitu dela esango nuke, eta ez du nahi izan ni edo Iker halakoetara joaterik.

-Gorroto zuloan itotzeko, bat nahikoa.

Esanez bezala, berak ezin duela ebitatu barrua herraz erreta edukitzea, baina, ahal den neurrian, gu sentipen horretatik libre haztea nahiko lukeela. Ahal duen neurrian... Orain, berriz, ezin du. Ezin (59).

Azal dezadan ama-alabak Eguberri bezperan Ordiziara joan eta amnistiaren aldeko olentzero taldearekin egiten dutela topo (56). Irudietan ikurrina eta presoak etxeratzearen aldeko kartela ikus daitezke (54-55). Batzuek presoan aurpegia daramate makilaren puntan, eta beste batzuek, zelda batean sartuta dagoen Olentzero bat garraiatzen dute. Emakume batek piztutako kriseilua darama, Etxerat Elkartek (Euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagunaren elkartea) bere egin duen ikurra hain zuzen. Deskribatutako irudi hori bera ageri da liburuaren atzeko azalean. Jendetza horren albotik pasatzen ari direla, Ane eta bere ama agurtzera gerturatzen da Aiora, baina hura joan eta gero, amak, suminduta, Aneri eskutik tira egin eta doinu lehor batez etxera doazela esaten dio (56). Horrez gain, alabak futboleko lagunekin Euskal Selektzioaren nesken partidua ikustera joan nahi dutela jakinarazten dionean, Amak Aiorarekin joatea debekatzen dio (61). Beraz, ikusten den moduan, amak ez du alaba gorrotozko eta herrazko gurpil horretan sartu nahi, baina aldi berean, ezin dio amorrua alabari ezkutatu.

Urtezaharrean, Aiora aita bisitatzera joaten da amarekin batera Albaceteko kartzelara, baina etxera itzultzean, istripua izan eta Iruñean ingresatzen dituzte biak (66-67). Beste pasarte batean, Ane leihotik begira ari dela, apurtutako auto bat ikusten da kanpoan, kea dariola (58). Urruntze politikak eragindako istripuez beste ezer esaten den arren, gaia ezagutzen duen euskal irakurleak badaki zein ohikoak diren istripuak presoan familiarren bizitzan. Irudian hiru lagunak ageri dira ospitalean eta Aiorak hanka igeltsatuta duela ikus daiteke. Bide batez, ohe gainean Unai Iturriagaren eta Alex Sanviren *Haur besoetakoa. Lixarrerien jauna* (Ikastolen Elkartea, 2014) liburua duela antzematen da (70)<sup>207</sup>. Ospitaletik

---

<sup>207</sup> Lehenago aipatu ez badut ere, eleberriarren hasieran eskolan idazle baten bisita izan duela aipatu eta irakurritako liburuaren argumentua ematen du Ane narratzaileak. Gehiago zehazten ez den arren, liburu hori Mendigurenek idatzitako *Miss Txatarra* (Elkar, 2007) da (Etxaniz eta Fernández de Gamboa, 2020).

bueltan, etxera iritsi eta Anek bere ama aurkitzen du Aiorarenarekin hizketan. Pasarte honetan irakurleak deskubrituko du bi emakumeak lagun minak zirela garai batean, baina bakoitza bere aldetik joan zela mutiletan hasi zirenean. Alabak lagunak zirela jakin eta Aneren aitaren heriotzaren berri izan ostean, Aioraren amak bere txikitako lagunaren etxera joateko erabakia hartu zuen, heriotza sentitzen zuela adierazteko (76). Norabide anitzeko barkamen eske bat kausi daiteke elkartzeko honetan, izan ere, Anek barkamena eskatzen dio amari ezkutuan joateagatik Iruñeara Aiora bisitatzera, eta amak honako hau erantzuten dio: “Asko daukagu elkarki barkatzeko. Denok” (76). Baina jarraian datorren pasarteak adierazten du hobekien liburuak helburu duen barkamen mezua. Aiorak lagunei aipatzen die urtero presoan etxeratzea eskatzeko Bilboko manifestaziora joaten dela eta egun berezi horretara ez joan ahal izateak izugarritzko pena ematen diola (72). Horren aurrean, amak Aneri proposatzen dio biak joatea Bilboko manifestaziora, Aioraren ordeztuz (77). Interesgarria da amaren esanak hona ekartzea: “Mina ematen didan arren, uste dut arrazoia dutela. Arantxak ere eskubidea du bere senarra etxean edukitzeko. Edo etxetik gertuago behintzat” (77). Dena den, kotxez joatea erabakitzen du, ez baitu “jende horrekin” autobusean joan nahi (77). Baldintza batzuekin bada ere, amaren jarreran aldaketa nabarmena antzematen da: alabari Aiorarekin ibiltzea debekatu eta presoan aldeko manifestazioa ikusterakoan etxera joatetik, manifestaziora *motu proprio* joatea erabakitzen baitu. Bilboko manifestazio baketsu hori hitzen bidez deskribatzen da, baina baita irudien bitartez ere. Mirentxin furgonetak, presoan senideak, adin guztietako jendea, irribarreak, txaloak, besarkadak eta muxuak aipatzen dira eta irudietan argi ikus daitezke ikurrinak eta presoak etxeratzearen aldeko kartelak (78-82). Manifestazioan aurrera emozioaren emozioz negarrez eta txaloka doazen Ane eta Aisha aipatzen ditu narratzaileak, baina baita nola berradiskidetzen diren Ane eta Aioraren ama ere (82).

Iruzkina hasieran aipatu dut kontakizun honek hiru protagonista dituela, baina orain arte apenas aipatu dut Aisharen gaineko ezer. Bere kontakizunak askorako emango lukeen arren, alderdi interesgarrienak laburbilduko ditut, ez baitaude euskal gatazkarekin lotuta. Gurasoak Maroko eta Aljeria arteko herri txiki batekoak izan arren, alaba erabat bertakotutako neska da, txikitatik lagunarte euskalduna izan duena (21)<sup>208</sup>. Dena den, egun batetik bestera, entrenamenduetara joateari utziko dio, haren aitaren ustez, futbola ez delako emakumeentzat eta Aishak emakumeen ardurak hartu behar dituelako bere gain (43). Lagunekin geratzeari ere utziko dio eta beloa jartzen hasiko da (47). Lagunaren portaera

---

<sup>208</sup> Haren aitak, ordea, euskara, gaztelania eta frantsesa nahastuz hitz egiten die alabaren lagunei (15), eta ezaugarri hori, guztiz bertakotu ez den seinale gisa irakur daiteke.

aldaketaz kezkatuta, baina agian Aishak bide hori hartzea aukeratu duela pentsatuz, Anek hausnarketa interesgarriak plazaratzen ditu, besteak beste, norberak hautuak egiteko duen askatasunaz edo inguruak gure pentsatzeko moduan duen eraginaz (49). Liburuaren hasieran galdera bat planteatzen da, ea libre al garen benetan nahi dugun bidea hautatzeko (7) eta liburuan zehar galdera horren erantzunaren bila arituko da irakurlea. Aisharen istorioak arrazekeria lantzeko bide ematen du, izan ere, bi lagunek bereizkeriarik egiten ez duten arren, Aneren amak ez du begi onez ikusten alabak “lagun moroak” izatea eta “moro baten kotxean” itzultzea etxera (20). Nolanahi ere, badirudi amaiera aldera iritziz aldatzen duela Aneren amak, Bilboko manifestaziora berak eramaten baititu autoz (78). Ez nuke iruzkina amaitu nahi liburuan ematen diren bestelako mezu batzuk aipatu gabe. Kontakizunaren hasieran aipatzen da futbolak elkartu zituela hiru neskek eta honela deskribatzen du narratzaileak zaletasun hori: “Masaren kirol nagusia, mutilen kasuan, baina zoro batzuen denbora-pasa arraroa, neskek baldin badira” (10). Egia esan, antzeman nezake egileak aipu horrekin izan zezakeen asmoa, nolabaiteko kritika egitearena akaso, baina nik neuk ez dut uste hori denik modurik egokiena. Konbentziturata nago futbolearen aritzen diren neskek arrarotasun gisa aurkeztea baino eraginkorragoa dela adierazpen espliziturik ez egitea eta futbolearen aritzen diren hiru neska erakustea, besterik gabe, bestelako zehaztapen edo iritzirik eman gabe.

#### **6.2.6.14. Haizea**

Hodei Garciak idatzitakoa da jarraian iruzkinduko dudan ipuina, Mikel Fernándezen eta Oihan Meñakaren ilustrazioak dituen eta 2016an argitaratu zutena Ataramiñe Kultur Elkartek<sup>209</sup> eta Etxerategen.

#### **Laburpena**

Hogeita bi orrialdeko lana da, eta paratestuan edo argitaletxeen webgunean zehazten ez den arren, esango nuke bost bat urtetik gorako irakurleari zuzendutakoa dela. Testu txiki baten ostean, orrialde osoa hartzen duen irudi batek jarraitzen dio beti eta nahiko egitura sinplea dauka. Ama Huelvako kartzelan preso duen neskatua da kontakizun honetako protagonista eta bere egunerokoa islatzen da ipuinean, baita amarekin duen harremana ere.

---

<sup>209</sup> 2002an elkarteak martxan jarri zenetik 50 bat liburu argitaratu ditu, “Literatura koadernoak” izeneko bilduman, horietako batzuk haurrei zuzenduta.

## Harrera kritikoa

Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko elkarte batek argitaratutakoa izanik, ez da harrizkoa HGLri zuzendutako aldizkari espezializatuek lan hau aipatu ez izana. Prentsako kritikari begiratu bat emanda ere, argitalpenaren berri ematen duten albisteez gain, ez dut bestelako iruzkinik aurkitu.

## Analisi narratologikoa

Liburuko azalak berak irakurleak barruan aurkituko duena aurreratzen du. Batetik, kartzela atzean duela, aitaren eskutik doan neskato bat ageri da. Bestetik, neskato hori bera ageri da autobusean sartuta, Huelvara bidean; eta ez hori bakarrik, aita eta alaba bazkaltzen ari direla, aulki huts bat ageri da, etxean norbait falta dela irudikatzen duena. Lehenengo orrialdean, Haizea izeneko neskatoak hartzen du hitza eta irakurleari zuzenduz, eskolan kontatutako pasartearen berri ematen du (eskolako arbelean 2015eko data ikus daiteke). Aitarekin eta ama preso duten beste haur batzuekin batera, Huelvan dagoen ama bisitatzeko autobusez egindako bidaia luze eta aspergarriaren berri ematen du (3). Esanguratsua da azpimarratzea istorio honetan bi emakume direla kartzelan daudenak, normalean gizonak irudikatzen baitira espetxean. Dena den, narratzaile autodiegetikoaren hitzetan ez da esplizituki esaten ama kartzelan dagoela:

Huelva deitzen den hiri batera iritsi eta eguzkitan bazkaldu genuen. Gero amatxorekin jolasten aritu ginen, baina gizon gaizto batek, segituan jolasa bukatzeko esan eta ama eraman zuen. Andereño zergatik gizon hark ez dio amari gurekin denbora gehiagoz jolasten uzten? (5).

Irudian, malkotan dagoen Haizea ageri da eta bere pentsamenduen berri ematen duen binetan, kartzelako funtzionario bat ageri da familiari alde egiteko ordua dela adieraziz (6). Aipatzekoa da *gizon gaiztoa* deitzen diola neskatoak kartzelako funtzionarioari eta poliziarri (9). Kontatzen ari den bitartean, galdera ugari egiten dizkio irakasleari, adibidez, zergatik ez duen amak parkera eramaten, zergatik ez den ama etxera joaten edo zergatik ezin den ama etxe handi horretatik (horrela egiten dio Haizeak erreferentzia espetxeari) irten (7). Hala irudietan nola protagonistaren hitzetan ikusten da bere eskolako gelan aniztasuna dagoela, bai jatorriaren aldetik (ikurrina hori, gorri eta berdea marrazten duen Baasim beltzarana ageri da), eta baita gorputzei dagokienean ere (gurpil aulkidun haur bat ageri da). Horrekin lotuta, jolasean aritzeko rolak erabakitzen ari direla, Haizeak aita izan nahi duela adierazten die lagunei eta horrek ikaskideen ezadostasuna pizten du. Pasarte horretan, genero-rolak

eztabaidan jartzeko ahalegina antzeman dezake agian irakurleren batek, baina nire ustez, egileak horretarako aukera galtzen du (15-17). Azkenik, ama etxera itzultzen ez den arren, esan dezadan kontakizunak amaiera positiboa duela, eta zoriontsu, haurrak amak egindako kometa jasotzen duela opari.

#### **6.2.6.15. *Nemo kapitainaren azken bidaia***

Castillo Suarezek (Altsasu, 1976) idatzi eta Aitziber Alonsok (Donostia, 1971) ilustratutakoa da jarraian aztertuko dudana obra, 2017an Erein argitaletxean kaleratutakoa. Idazleari dagokinez, HGLko hamar bat obra idatzi ditu, horien artean, Lizardi Saria eskuratu zuen *Ebelina Mandarina* (Erein, 2010), *Erikaren titilikak* (Aizkorri, 2013) edo *Agur, agur!* (Erein, 2015). Horiez gain, helduei zuzendutako poema-liburuak eta albumak kaleratu ditu, besteak beste, *Zerua berun* (Ibaizabal, 2014), zeinarekin Peru Abarka Album Lehiaketa irabazi baitzuen; *Alaska* (Elkar, 2023), *Irautera* (Elkar, 2019), *Souvenir* (Elkar, 2008) edo *Bala hutsak* (Elkar, 2006). Ilustratzaileari dagokionez, nabarmentzekoa da 2011 eta 2014 bitartean Galtzagorri Elkarteko lehendakari izan zela. Euskal idazle ugariaren lanak jantzi ditu irudiz, besteak beste, Yolanda Arrietarenak, Antton Kazabonenak eta Aitor Aranarenak.

### **Laburpena**

Zazpi urtetik gorako irakurlea helburu duen 59 orrialdeko lan honek aita kartzelan duen Nadia neskatoaren istorioa dakar eta horren bidez, motxiladun haurren errealitatea ematen da ezagutzera. Kartzelara bidaiak, bisitak eta sakabanaketa politikaren ondorioak ditu hizpide eleberriak, hori guztia Nadia protagonistaren begiradatik eskainia.

### **Harrera kritikoa**

Liburuak edizio bakarra izan du eta ez da ezein hizkuntzara itzuli. Imanol Mercero (2017) obrak gordetzen duen sinbolismoa azpimarratzen du ezeren gainetik eta arin irakurtzen den liburu honetako pertsonaiak txera handiz aurkezten direla iruditzen zaio. Merceroren bide bertsutik jotzen du ere *Behinola* aldizkarian (Galtzagorri Elkarte, 2018) argitaratutako iruzkinak, protagonistaren sentipenak irudikatzeke egileak sinbolismorako izan duen joera azpimarratzen baitu. Erkuden Ruiz (2017) kazetariak egileari egindako elkarrizketan zehazten duenez, ume eta helduek elkarrekin egin beharreko istorio bat eskaintzen du liburuak, batez ere kontakizunak hartzaile gazteengan sortuko dituzten galderengatik. Xabier Etxanizek (2017a), literatur lan gomendagarria eta konprometitua dela aipatzearekin batera, Alonso

ilustratzailearen lana goraiatu eta pena adierazten du, bere ustez, erakutsi baino iradoki egiten duten irudiek eginkizun zentralagoa merezi zutelako obran. Azkenik, aipatzekoa da Galtzagorri Elkarteak “Ezinbestekoak” zerrendan sartu zuela liburua eta OEPLik 2017ko HGLko liburu hautatuen zerrendan.

### **Analisi narratologikoa**

Liburuaren azalak (hala izenburuak nola irudiek) obra osoan zehar egiten den testuartekotasun joko bati egiten dio keinu, eta irakurle trebeak berehala egingo du lotura Julio Vernerren Nemo kapitainarekin (*Hogei mila legoako bidaia itsaspetik*). Konexio horretan sartu aurretik, alderdi paratestualari lotuko natzaio. Liburuaren eskaintzan, hiru pertsona aipatzen dira, motxiladun haurrak direnak edo izan direnak. Egileak berak (Erein, 2017; F. I., 2017) liburuaren aurkezpen ekitaldian azaldu zuenez, Altsasuko eskolan tailer bat egiten ari zela, 6 urteko Xabier Beaumont haurrak aita Valentziako Picassent-eko kartzelan zeukala aipatu zion eta gertaera horrek bultzatu zuen Suarez aztergai dudana liburua idaztera. Liburua idatzi zuenean, Nafarroan bakarrik 90 haur zeuden egoera horretan, hau da, senitarteko zuzen bat zutenak kartzelan (Euskal Herri osoan 300 bat haur). Egileak berak aitortu zuenez, hainbat familiaren laguntza izan zuen idazketa prozesuan eta gaiaren sentikortasunaren ondorioz, hiru urte behar izan zituen egindakoa argitara emateko.

Amarekin bizi den Nadia neskatoa da istorio honetako protagonista eta narratzaile autodiegetikoa eta aita kartzelan izateak bere egunerokotasunean nola eragiten duen erakusten dio irakurleari. Neskatoak inoiz ez du bere aita kartzelatik kanpo ikusi (9) eta preso egoteko arrazoiari buruzko datu askorik ematen ez den arren, euskal irakurle helduak erraz antzemango du kontakizun honek benetako gertaera batekin egiten duen lotura: “Dakidana da ni jaio baino lehen aitak egunkari batean egiten zuela lan. Egun batetik bestera, egunkaria itxi, eta aita kartzelan sartu zuten. Ez dakit askoz gehiago, ez dudalako inoiz galdetu” (44). Euskal gatazkaren bilakaerari eskainitako atalean azaldu bezala, Euskal Herrian bi egunkari itxi zituzten ustez ETArekin lotura zutelakoan (nahiz eta bi kasuetan, handik urte batzuetan lotura hori gezurtatu eta itxiera bidegabekoa izan zela ebatzi zuten): *Egin* 1998an eta *Euskaldunon Egunkaria* 2003an. Hala lehenengoan nola bigarreanean, hainbat langile espetxeratu eta bestelako zigor ekonomikoak ezarri zizkieten. Aztergai dudana obrako Nadiaren kontakizunean aski ongi irudikatzen da urruntze politikak presoaren familiarengan sortzen duen zigor gehigarria. Kartzela guztiak urruti daudela kontatzen du neskatoak eta bidaia luze eta aspergarriak egin behar dituela aita ikusi ahal izateko (22), zeinetan batzuetan zorabiatu

eta botaka ere egiten duen (22). Ondorioz, Nadiak uko egin behar izaten dio zenbait gauzari: “Batuetan, ernegatu egiten naiz, larunbatetan pilota partida izaten dudalako, eta ezin dudalako jokatu, baina ez diot inori esaten amorratuta nagoela, amorrua joan egiten delako aita aurrez aurre ikusten dudanean” (9). Errealitatea gertutik ezagutzen duen edonork dakien bezala, presondegira egindako bidaia luze horietan istripuak izan dituzte familiarrek, eta horri ere egiten zaio erreferentzia. Pasarteetako batean, furgonetako gorpila lehertzen zaio familiari (59). Beste pasarte batean, berriz, bisitan doazeneko eguraldi kaskarra deskribatzen du Nadiak eta irudiek galerna indartsuaren itzalean gouez doan kotxe bat erakusten dute, harrotutako itsasoaren magaletik pasatzen (11-12). Pasarte horrek kontraste egiten du liburuaren amaieran aurki daitekeen irudiarekin. Bertan, eszena bera ageri da, baina pertsonaiak egun argiz ari dira bidaiatzen eta bare dago itsasoa. Eguraldi aldaketaz gain, ezberdintasun txiki bat antzeman daiteke: Itsasoan urpekari bat ikus daiteke, ur gainean (58). Pasarte hori esanguratsua da, protagonistak baitio aitaren bila doazela kartzelara. Beraz, esan daiteke irudiok, eguraldiarekin, pertsonaien aldartea deskribatzen dutela. Nadiak zehaztasun handiz kontatzen duen beste alderdi bat aitarekin duen harremana da. Hilean bitan ikusten dute elkar (10) eta neskatilak dioenez, zaila da hura ikustea, batez ere, segurtasun-neurri ugari pasa behar dituztelako:

Aita ikustea ez da gauza erraza. Zain egon behar izaten dugu plastikozko aulki berde batuetan haren izena esan arte: “Nemo kapitaina!”. Haren izena esaten dutenean, eskotillak ireki [...] eta sar gaitezke urpekarian, baina lehenago arku baten azpitik pasatu behar izaten dugu. Batuetan, zarata egiten du arkuak [...] orduan ezin dugu aurrera egin. Amari pi-pi-pi egiten dio bere bularretakoak, metalezko uztaiak dituelako. Komeriak izaten ditugu urpekarian sartzeko metalezko zerbait eramanez gero soinean [...] *Nautilusen* entzuten diren hots guztiak dira desatseginak [...] bisita bukatu dela esaten digutenean, orduan ez zait batere gustatzen [...] berehala pasatzen da denbora, eta lehorreratu egin behar dugu txirrinak jotzen duenean (27-29).

Irakurleak berehala hautemango du Julio Vernerren liburuarekin duen testuartekotasun agerikoa. Bideabar, horrelako deskribapenetan testua tonu fantastikora gerturatzen da eta nire ustez, sinesgarritasuna ematen dio kontakizunari, betiere haur baten ikuspuntutik kontatuta dagoela kontuan hartzen badugu. Gainerakoan, narrazioak errealismora jotzen du. Nadiak aitarekin eta Nemo kapitainarekin egiten duen loturan sakondu nahiko nuke apur bat. Nadiaren aita, Mikel, kartzelaz kanpoko bizitzatik inkomunikatuta bizi da, bakarrik, isiltasunean eta liburuz inguratuta bizi den *Nautilus* urpekariko Nemo kapitaina bezala: “Ez zaizkit kartzelak gustatzen, hotzak eta zikinak direlako [...] aita ere bakarrik egoten da, ordu

askoan inorekin hitz egin gabe, irakurtzen” (10). Presondegiaren hoztasun hori behin baino gehiagotan aipatzen du neskatoak: “Nire lagun Arratek esaten duen bezala, hozkailuen antza dutelako kartzelek: Kartzela nolakoa den jakin nahi baduzu, zabaldu hozkailua, sartu barrura bost minutuan, eta, gero, esango didazu zer sentitzen den” (53). Urpekariko kamarotea da Nadiarentzat aitaren gela eta txikiak ez ditu horiek gustuko: “Asperten ari naiz kamarotean. Jolastu egin nahi dut [...] ez nago gustura. Amak eta aitak ez didate begiratzen. Eta nik haiekin jolastu nahi dut. Hitz egin, gutxienez. Gorroto ditut kamaroteak” (45-47). Aitarekiko bizi duen inkomunikazio-egoera edo distantzia fisikoa txikiaren hitzetan behin baino gehiagotan errepikatzen den arazoa da. Batzuetan, bien artean paratutako kristal zikinak galarazten ditu haien arteko musuak eta gela berean egonda ere, telefono baten bidez entzun behar dituzte elkarren hitzak (45)<sup>210</sup>. Ez hori bakarrik, aitarekin egoteko denbora mugatuaren erruz, Nadiak ez dauka aitari esan beharrekoak aipatzeko denborarik (47). Kartzelartzelara egindako bisitez gain, astean behin bost minutuz egindako telefono deia aipatzen du protagonistak (40). Horietan, haurrak ez diez dizkio gauza tristeak kontatzen, alaiak bakarrik (40). Aurrera egin aurretik, ez nituzke kartzelako zaindariak aipatu gabe utzi nahi. Batetik, Nadia eta aitaren arteko pribatutasuna hausten dute, neskatoaren gutun guztiak irakurtzen baitituzte: “Kartzelako zaindarien nire gutun guztiak irakurtzen dituzte, eta apurtu egiten dituzte ez badute ulertzen zer jartzen duen” (39). Baina bestetik, haiek dira aitarekin denbora gehiago egotea galarazten diotenak: “Zaindarien ezetz esaten dute etengabe. Ez dakite besterik esaten: «Ez» edo «Debekatuta dago»” (47). Horregatik, “*Nautilusen* [espexean] entzuten diren hots guztiak dira desatseginak” neskatoarentzat (28). Aitaren eta Nemo kapitainaren arteko konparazio hori obra osoan zehar egiten da eta esan daiteke liburuaren izenburutik hasi eta kontakizunaren amaierara arte mantentzen dela testuartekotasun joko hori (paratestuak barne). Vernerren liburua bera esplizituki aipatzen da, Nadiak zehazten baitu bere libururik maiteena den hori eramanez diola aitari kartzelara (31). Horrez gain, iruzkintzekoa da urpekari bati buruzko Joxean Ormazabalaren poema aipatzen duela Nadiak, moldatu eta bere egiten duena: “Eguzkiak aldika-aldika burua ateratzen du lainoen artetik. Nik ere nahi nuke egun goibel bakoitzeko muxu bat, bihotza berotzeko” (16)<sup>211</sup>. Lerro artean, txikiak duen aitaren absentzia eta haren muxuen beharra irakur daitekeela uste dut. Are gehiago, esango

<sup>210</sup> Pasarte horretako irudian (46) urpekariko kamarotea ageri da. Kristalaren alde batean, urpekari bat (Nadiaren aita) ikus daiteke, buzo eta jantzi guztiak jantzita dituela. Kristalaren beste aldean, ordea, paretan eskegitako telefono bat ageri da. Irudi horrek ondo adierazten du Nadiak aitarekiko sentitzen duen inkomunikazioa, ezin baitio aurpegia ikusi, ez ukitu, ez eta beste aldera pasa ere.

<sup>211</sup> Euskal tradizioko bestelako erreferentziak txertatzen dira kontakizunean zehaztuz, adibidez, Deabruak Teilatuetan taldearen *Zuentzat* eta *Gaur ez zaitut ikusi* kanta edo Bide Ertzean taldearena (10-11, 55).



nuke aitaren absentzia horri aurre egiteko txikiak asmatzen duen mekanismo edo estrategia dela urpekariarekin egiten duen jolas hori.

Senitartekoren bat urrutiko kartzelan izatea zama astuna da familia askorentzat, baina Nadiak eta haren amak sare oso baten sostengua dute egunerokoari aurre egiteko. Batetik, amonaren laguntza dute, batzuetan, kartzelatik itzuli eta etxeko lanak eginda edo afaria prest izaten baitute (19). Bestetik, beste preso batzuen senide eta lagunak aipatuko nituzke, eta horiek guztiak eramaten dituen furgoneta (10, 21). Elkartasunaz ari naizela, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Nadiak Flavia izeneko ikaskidearekin sortzen duen harreman estua. Errumaniatik etorritako neska da. Haren aitak familia guztiak baino lehenago emigratu zuen Euskal Herrira, eta beraz, Faviak, Nadiak bezala, badaki zer den aita urruti edukitzea (23). Hemen luzatuko ez naizen arren, interesgarria da Flaviaren istorioaren hariari tira eginez, bere egoera familiarrari buruz hitz egitea irakurle gazteekin. Bi hurrek egiten duten hiztegiari mami dezente atera dakioke, hala bertan definitzen dituzten hitzengatik (alaitasuna, tristura, beldurra eta hira, besteak beste) edo amaieran gehitzen dituzten oharrengatik, ingurunearekiko konpromisorik eza eta gizakiaren esku-hartze gehiegizkoa salatzen baitute horietan (33-35), umore tonu txiki batekin bada ere.

Kontakizun osoan zehar haurraren begirada xaloa nabari den arren, batzuetan, heldutasun handia erakusten du Nadiak. Neskatoak badaki aitak urteak eman ditzakeela preso, eta amaren mina saihesteko, ez da aita aske noiz geratuko den galdetzeraz ausartzen (30). Baina galdetzen ez duen arren, egoeraz kontziente da eta inguruko elkarrizketez ohartzen da: “Heldu askok uste dute umeek ez dutela ezer entzuten. Parkeko elkarrizketak ere ez. Baina umeok abilitate handia dugu behar ez ditugun gauzak entzuteko. Eta nahi ez ditugunak ere bai. Eta hori helduek ez dakite. Eta jakin beharko lukete” (40). Liburuaren amaieran, amak aita etxera itzuliko dela jakinarazten dio eta azpimarratzekoak dira neskaren hitzak: “Negarrez hasi naiz ni ere, eta pentsatu dut beteko dela, behingoz, horrenbeste aldiz amestu dudana: aitak eramango nauela ikastolako atarira, eskutik helduta. Berdin zait ume txikien gauza dela esaten badidate. Hori da nire ametsa, eta kito” (50). Nadiak gauza asko galdu du aita espetxean edukitzeagatik: eguneroko gauza arruntak, ia oharkabean igarotzen direnak eta sarri baloratu ere egiten ez ditugunak. Horiek dira protagonistak aitarekin egin nahi dituenak. Kontakizunak amiaera zoriontsua duen arren, irakurleak badaki beste haur asko eta asko espetxetara joaten direla senitartekoren bat ikustera (53). Mintzagai dudan liburuaren azterketari amaiera emateko, azpimarratuko nuke obrak ondo islatzen duela kartzelako errealitatea eta senideren bat urrutiko kartzelaren batean preso edukitzeak

haurrengan sortzen duen mina. Fikziozko pertsonaia bat eraiki du Castilok lan honetan, baina funtsean, Euskal Herriko edozein haur motxiladunen istorioa izan zitekeen.

#### **6.2.6.16. *Maritxipi eta Amatxo***

Joxemari Carrere (Pasai Donibane, 1963) ipuin kontalari eta antzerkilariak idatzitako obra da hau, Mikel Orbegozoren ilustrazioak dituena. Obra hau 2018an eman zuen argitara Sare Herritarrak (*Sare* izen soilaz ere ezagutzen dena) eta etakide izateagatik zigortutako Sara Majarenasek kartzelan idatzitako ipuin bat du oinarri. Lertxundik (2018) azaltzen duenez, Sara Majarenasek bere alaba Izarrentzako ipuinak idazteari ekin zion Picassenteko kartzelan. Ipuin horiek preso zegoen Mikel Orbegozori bidaltzen zizkion eta berak marrazkiak bidaltzen zizkion bueltan. Behin aske eta etxean zegoela, ipuina aurkitu zuen, Orbegozok bidalitako gutun-azalean sartuta. Joxemari Carrererekin harremanetan jarri eta *Maritxipi eta Amatxo* ipuina jaio zen. Bide batez, aipatu nahiko nuke Mikel Orbegozok helduei zuzendutako hiru komiki idatzi zituela Ataramiñeko literatura koadernoetan argitaratzeko, hirurak espetxeko bizimoduaz dihardutenak: *Ilargiraino* (2015), *Preso nago* (2010) eta *Preso nago 2* (2013)<sup>212</sup>.

#### **Laburpena**

Preso dagoen ama baten eta harengandik urrun bizi den Maritxipi alabaren arteko harremanean zentratuz, 17 orrialde dituen ipuin honek haur motxiladunen errealitatea jartzen du irakurle gaztearen begien aurrean. Paratestuan edo argitaletxeen webgunean zehazten ez den arren, esango nuke 5 urtetik gorako irakurleari zuzendutakoa dela.

#### **Harrera kritikoa**

Egia esan, ez dut liburu honek izandako harrera kritikoa gaineko balorazio bat egiteko adina material aurkitu, baina esan dezaket ipuin honen argitalpena ez dela oharkabean igaro. Agian ikusgarritasun horretan eragin du egilearen historia pertsonalak, haren bikotekide ohiak 2 urteko alabari labankadaz eraso egin eta zauri larriak eragin baitzion 2017an. Kasua nahiko mediatikoa bihurtu zen eta hedabideek Majarenasen bizitza pribatu zein publikoari buruzko berriak argitaratu dituzte harrez geroztik. Dena den, ezin aipatu gabe utzi obraren eskuragarritasuna nahiko mugatuta dagoela gaur egun, Sare Herritarraren webgunearen bidez ez bada, zaila baita ale bat eskuratzea.

---

<sup>212</sup> Interesgarria da komiki horietatik abiatuta, Iratxe Retolazak (2017) kartzelako sorkuntza artistikoen inguruan eta euskal idazle presoek kartzelan idatzitako lanez idatzitako artikulua.

## Analisi narratologikoa

Oihana Muxikak Sare Herritarraren izenean idatzitako hitzaurrean, obraren sortze testuingurua azaltzen du. Horrez gain, Muxikak jakitera ematen duenez, nahiz eta irakurleak Maritxipiren abenturak izan irakurgai kontakizunean, bertan kontaktzen direnak beste haur motxiladun askorenak izan zitezkeen. Obra argitaratu zen urtean gurasoetako bat preso zuten euskal haurren kopurua ematen du, 106, eta *motxiladun haur* gisa ezagutzen diren horiei ezarritako zigor hirukoitzaz mintzo da:

Egunerokoan ama-aita aldamenean izan gabe hazi beharra; guraso presoegi egokitu dieten salbuespen legedia dela eta, “noiz etorriko da amatxo-aitatxo etxera?” galderari ezin erantzutea; eta gainera, gurasoekin egon ahal izateko, kontaktzen dizkietena baino askoz kilometro gehiago egin behar izatea (2).

Orri berean, Sareren logoa ageri da, motxiladun haurrei<sup>213</sup> erreferentzia egiten dien motxila arrosarekin. Hitzaurrearen amaieran esaten denez, benetako elkarbizitzan eta bakean oinarritutako jendarteak eraiki nahi badugu, ipuin honen moduko bukaera izan behar du preso eta iheslarien auziak. Aurrera dezadan kontakizunaren amaieran kartzelatik irten eta bere alabarekin elkartzen dela preso dagoen ama. Ipuinarekin hasi aurretik, Sara Majarenasen bigarren hitzaurre bat ageri da, helduari zuzendua, zeinetan galdetzen duen ea nola azal dakiokeen haur bati kartzelan jaio dela eta 3 urte betetzean kartzela utzi behar duela derrigor. Kontakizunera jauzi eginda, berau 7 ataletan banatuta dago eta atal oro irudiz lagunduta dator. Narratzaile orojakileak hartzen du hitza eta kartzelan dagoen Sara amaren eta etxean bizi den Maritxipi alabaren arteko harremanaren berri ematen du. Pasarte batzuetan kartzela deskribatzen da, amaren ziegako “gizatasunik gabeko ohe txiki eta hotza” (5), leihoko barroteak edo kanpoko arantzazko hesia (13), adibidez. Beste batzuetan, telefono edo gutun bidezko komunikazioa aipatzen da, eta zein pozik hartzen dituzten batak bestearen asteroko gutunak. Urruntze politikaren ondorioz haurrak egin behar dituen bidaia luzeen gaineko aipamenik ez da falta (10, 14), ez eta askatasunaren aldeko mezurik ere, “libre izatea munduko gauzarik politena da” (10) edo “ez dago munduan harresirik irudimena eta maitasuna giltzapetuko duenik” (12) esaldietan ikus daitekeen moduan. Azkenik, aipa dezadan kontakizunak amaiera zoriontsua duela, izan ere, kartzelatik irten eta alabarekin elkartzen da ama.

---

<sup>213</sup> *Motxiladun haurra* esaten zaio kartzelan preso dagoen senide bat ikusteko urruneko kartzeletara joan behar izaten duen haurrari.

### **6.2.6.17. “Lekukoa” bilduma: *Sasieskola, Mehatxua eta Esanezinak***

Jarraian datozen lerroetan, Garbiñe Ubedak (Ibarra, 1967) 2018 eta 2021 bitartean Elkarren argitaratutako “Lekukoa” trilogia aztertuko dut. *Sasieskolak* (Elkar, 2018) ematen dio hasiera Larraitz gaztea protagonista duen kontakizunari eta *Mehatxua* (Elkar, 2019) eta *Esanezinak* (Elkar, 2021) liburuek ematen diote jarraipena. Aipatu lanez gain, helduei zuzendutako obra gutxi batzuk idatzi ditu, besteak beste, Augustin Zubikarai saria eskuratu zuen *Hobe isilik* (Elkar, 2013) eleberria. Bertan, Gerra Zibilean aritu ostean Bigarren Mundu Gerraren akabuan Frantzian desagertutako aitonaren arrastoaren atzetik abiatzen da protagonista, familiako sekretuez, memoriaz edo bestelako argi-ilunez hausnartzeaz batera.

#### **Laburpena**

Bildumako lehenengo eleberriak 1984. urteko Euskal Herrian kokatzen du irakurlea. Eskolatik piper egin ostean, Martin mutil-lagunarekin mendira joan eta Guardia Zibilaren erailketa baten lekuko izan da 16 urteko Larraitz protagonista. Ekintza horrek ondorioak ekarriko dizkio neskari eta gertatutakoa ahazten saiatuko den arren, patuak behin eta berriz gogoraraziko dio ikusitakoa. Hiru eleberri errealistak 12 urtetik gorako irakurleari zuzendutakoak dira eta laurogei bat orrialdekoak dira.

#### **Harrera kritikoa**

Euskaraz baino ezin daitezke irakurri Ubedak gazteentzako idatzitako hiru eleberri hauek, eta gutxienez hiru argitalpen izan dituen lehen liburua salbu, gainerako biek bakarria izan dute. Badirudi lehenak izan duela oihartzunik handiena haren hartzaileengan.

#### **Analisi narratologikoa**

Hiru liburuetan Larraitz gaztea da narratzaile autodiegetikoa eta fokua berarengan jarrita dago kontakizun osoan zehar. Liburuko irudi edo argazki bakarria azalean aurki dezake irakurleak eta hiruretan protagonista ageri da. Laburpenean esan bezala, kontakizuna 1984ko Euskal Herrian girotuta dago eta Larraitzek mutil-lagunarekin batzeko sasieskola egiten duen unean abiatzen da. Bikotearen arteko harremanari buruzko datu ugari ematen den arren, interesgarriena, nire ustez, liburu osoan zehar Euskal Herriko giro sozio-politikoaz ematen den deskribapena da. Batetik, ZEN plana ezagutzen duen galdetzen dio Martinek Laraitzi eta horrek kaleko pintadetan eta jendearen ahotan baino ez duela entzun kontatzen du (47). Argi dezadan aipatu berri dudana ZEN plan hori (Zona Especial Norte) Espainiako Gobernuak

1983an diseinatutako egitasmo bat izan zela, ETaren aurkako indarkeriaren kontra egitea helburu zuena. Hainbat pasartetan ikus daiteke Larraitzek inguruko errealitateaz duen ezezagutza (egoerarekiko distantzia gisa uler daiteke hori), azaldutako planari buruzko informazio urriaz gain, ez baitu beste pertsonaiek gatazkarekin lotuta erabiltzen dituzten erreferentzia eta terminoen berri: “komandoko hiru kideen artean “legal” bakarra hura zela entzun nuen, zer esan nahi ote zuen ez nekien arren” (59). Bestetik, ihes egin eta sasira jo edo beste aldera pasa behar izan zuen sozio bat aipatzen du Martinek (25-26) eta gaiaren inguruan neskak egin nahi dizkion galdera interesgarriak aurkezten dira:

Nola egiten zen ihes. Justuki nork egin behar izaten zuen. Sasian zer zegoen, eta sasia baino apur bat lehenago. Nola egiten ahal zen harako hautua. Edozein ametitzen ote zuten. Zein zen sasiko egunerokoa. Gaez bizi ote ziren. Noiz egiten ote zuten lo... Ihes egitea lortzen ez zuen iheslariari zer gertatzen zitzaion besterik ez nekien. Haien irudiez josita zeudelako kaleak. Horma-irudietan, pankartetan, karteletan, tabernetan eta nonahi aurki zitekeelako horren erreferentziarik. Jakin-mina inoiz baino isilago eramaten ikasi nuen haren aurrean. Burura etorritako galdera guzti-gutiak irensten nituen. Baita diskretuenak ere. Umea, artaburua, lotsagabea edo kontakatilia emango nuen beldurrez (26).

Zentral nuklearren aurkako manifestazio bat ere aipatzen da, zeinetan elkar ezagutu baitzuten Larraitz eta Martinek (23). Dena den, esanguratsuena, eta hiru eleberrietako haria gidatzen duena, bi gazteek mendian daudela ikusten duten hilketa da, zeinetan Guardia Zibilak (*txapelokerrak* ere deitzen die protagonistak) segada bat egin eta gelditutako kotxearen barrukoak tiroz hiltzen dituen (41). Bide batez, heterolinguismoarekin lotuta, aipatzekoa da guardia zibiletako batek besteari esaten dizkion hitzak gaztelaniaz ematen direla: “deja aquí la pistola” eta “pon ahí un par de granadas” (42). Larraitzen kontakizunak argi uzten du konfrontaziorik gabeko ekintza bat izan zela, zeinetan kotxea geratu eta barrukoek ezer egin aurretik Guardia Zibilak biolentzia erabili zuen segada hartan (56-57). Hala ere, bestelakoa da egunkarietan ematen den bertsio ofiziala: “Tres muertos en un enfrentamiento con la Guardia Civil” eta “Mueren tres terroristas en un tiroteo” (54-55). Esanguratsua da ohartaraztea gaztelaniazko hedabidea dela “bertsio ofiziala” (gezurra) zabaltzen duena. Era berean, bertsio ofizialaren sinesgarritasun falta (60) eta berripaperen fidagarritasuna jartzen da zalantzan. Gertakarien biharamuna borroka egun gisa deskribatzen da eta hildako gazteena bertakoa izateak herrian sortutako haserrea irudikatzen da, “Herriak ez du barkatuko” (59) leloaren baitan laburbil daitekeena. Pintaketak, errepedeen oztopatzea, barrikadak, suteak, askatasunaren aldeko eta errepresioaren aurkako manifestazioak, areto

publiko eta banketxeetako ateen hondaketa edota fabriken itxiaraztea aipatzen dira, bai eta poliziaren erantzun gogorra horren guztiaren aurrean: gomazko pilotak, ke poteak, porra kolpeak eta atxiloketak (61). Larraitzek bertsio ofizialaren osagai probokatzailea agerian jarri eta jendearen amorruaren zergatia azaltzen du:

Gertaera argitzeko ahaleginak galarazteaz gain, istorio merkeegi bat harilkatzen zuelako egiaren kaltean. Poliziaren jarduna zurriz zuelako erabat. Epai beharrik gabe sententziatzen zituelako hildakoak. Tiroketaren ardura osoa egosten zuelako, eta beraz, beren heriotzaren errua” (60).

Mintzagai dudan lehen liburuak argi erakusten du indarkeriazko ekintza bakoitzak sortutako sorgin-gurpila, Guardia Zibilaren ekintzei haien gaineko atentatu batekin erantzungo baitio erakunde armatuak (terminologia hori erabiltzen da); eta hiru militante hil izanaren ordainetan egindako sarraski horrek, era berean, atxiloketak, tortura salaketak eta kartzelaratzeko gehiago ekarriko ditu (68). Bi aldeek egindako ekintzen aurrean, biziki azpimarragarriak dira Larraitzen hitzak, batez ere indarkeriaren erabileraz eta haren justifikazioaz aipatzen dituenak:

Izan baitzitekeen “gudari bat, borrokan eroria” batzuentzat, eta era berean “terrorista hutsa”, bertsio ofizialaren alde lerratzen zirentzat. Eta batzuek zein bestek, datuak urri izanik ere, aurretiko usteen araberako justifikazioa aurkituko zioten heriotzari (69).

Ez nuke iruzkinarekin luzatu nahi, baina interesgarria litzateke Larraitzek bere inguruarekin duen harremanean sakontzea, hainbat gatazka ageri direlako horietan. Batetik, agerikoa da gurasoekin duen harremana ez dela oso estua. Molde zaharreko aita hotza eta edanera emana, futbolaz baino kezkatzen ez diren neba pareta eta ama tradizional eta agintzailea aurkezten ditu narratzaileak, haren ustez, “behar den bezalako” eta “probetxuzko” emakumea izateko eskuliburua besterik ez diona eskaini (28, 75, 76, 88). Bestetik, ez dirudi adinkideekin dituen harremanak oso emankorrak direnik. Mutilak neskak ganadua balira bezala sailkatzen ikusten ditu eta neskak, berriz, mutilengatik burua galduta (28), unibertso paralelo batera mudatuak (65-66). Bost bat urte nagusiagoa den Martinekin duen harremana ere ez da emankorra, hilketaren lekuko izan eta gutxira harremana hautsi behar dutela esaten baitio mutilak (46). Hutsitako harreman horien ondorioz, adiskidetasunari buruzko galderak planteatzen ditu protagonistak (78). Bada ezinbestean iruzkindu beharreko pertsonaia bat, Jon Mikel Kilopondio, Larraitzen institutuko fisikako irakaslea eta Guardia Zibilaren sarekadan hildako kidearen anaia. Protagonistak zama jasanezin gisa eramango du ikusitakoa, eta azkenean, hari kontatuko dio sarekadan gertatutakoa. Sekretua partekatzeak haien arteko

harremana indartuko du. Irakaslea, hildako anaiarekin harreman onik ez izan arren (93), haren hilketa argitzen saiatuko da, “noizbait, hark zioen moduan «batek daki zein mendetan», polizien krimenak ere argitzen hasteko abagunea suertatuko zelakoan” (95). Horretarako, Larraitzen lekukotza ezinbesteko izango da, ikusitakoa zehatz mehatz deskribatzeaz gain tokia ere erakutsiko diolako (92). Guardia Zibilak hiru komandokideak hildako toki hori memoria gune garrantzitsua da Kilopondioentzat, haren hitzetan ikus daitekeen moduan: “Hilketa gertatu zeneko ingurura iristeak ez zigun batere onik egin. Aitzitik, oinaze guztiak berritu zituen, ezinak eta amorruek azalarazi, mamuek haizatu” (93).

Lehen liburua amaiera ireki horrekin bukatzen da, baina bigarrenak, *Mehatxua* eleberriak, aipatutako harreman horri heldu eta ikerketan pausu bat aurrerago egiten du. Institutuko irakaslearekin harreman sentimental bat duela pentsatuta, amak Nizako aldirietara bidali du Larraitz, uda osoa pasatzera eta lan egitera. Ezagutzen ez duen amaren gaztetako lagunaren etxean geratzera behartu dute eta distantziak lekuko izandako gertaeratik aldentzen lagunduko diola pentstazen duen arren, han ere ezin izango dio iraganari ihes egin, etxeko telefonoan gaztelaniazko mehatxu dei anonimo bat jasoko baitu: “Hola, hija de puta. Sabemos todo de ti. Eres una mentirosa y una hija de puta. Como se te ocurra volver, te vamos a matar” (33). Horrek zeharo izutuko du protagonista eta Martinekin zebilenean hark jasotzen zituen dei anonimoez eta haren hitzez oroituko da:

Aipatzen zuen gazteak otzanduz neutralizatzen direla borrokak, zeinahi borroka, sistemaren aurka altxatzen den borroka oro. Eta zenbaitetan amua botatzea izaten zutela helburu, poliziak atzapar luzeak zituen arren, sugeari burua behin betiko moztetik lortzen ez zuelako (35)<sup>214</sup>.

Norbaitek Martin eta bere sekretuaren berri duela jakiteak informazio hori nola atera duten pentsatzera eramango du Larraitz eta bururatzen zaizkion aukeren artean, mutila sarekada batean harrapatu, atxilotu edota torturatu ahal izan dutela aipatzen du (36). Esan daiteke susmoek neskaren ezinegona larriagotuko dutela, ez baitu jakingo deien atzean Guardia Zibila<sup>215</sup> (37) ala Martin dagoen (68-69). Martini ez bezala, Larraitz irakasleari galderak egitera ausartuko da (80) eta bien artean gertakarien gaineko hipotesi gero eta sendagoak eraikiko dituzte (74, 79). Bigarren liburu honetan, aurrekoan bezala, irekita uzten da amaiera, irakurleak ez baitu jakingo ziurtasun osoz nor eta nola egon zen pertsona bakoitza inplikaturaren sarekadan, ez eta nork egin zion mehatxu Larraitzi telefonoz.

---

<sup>214</sup> Esan gabe doa zeri egiten dion erreferentzia sugearen erreferentzia horrek.

<sup>215</sup> Susmoak aipatu ditudala, interesgarria da poliziak drogarekin negoziatzen duen susmoa aipatzen dela (42).

Sailari itxiera ematen dion *Esanezinak* izeneko hirugarren liburuak, aurreko biek zabalduak bideari jarraitzen dio. Trilogia gidatzen duen segadari buruzko informazioa ematen da berriro, alegia, nola hil zituen poliziak hiru gizon eta nola jarri zizkieten armak hilotzei, eszenatokia manipulatu, fusilamenduaren tankerarik izan ez zezan, tiroketa hura kotxe barruko gizonak hasi zutela eman zezan. Gertatutakoari buruz hainbat pertsonaiak duen susmo eta usteak agertuko dira, eta amaieran, Larraitzek deskubrituko du zein ardura izan zuen bakoitzak segada hartan. Azpimarratzekoa da kaltetu ugari utziko dituela gertakariak. Batetik, txofer lana soilik egin behar zuen gizona beste bi komandokideekin batera hilko du Guardia Zibilak. Hildakoaren anaia Kilopondioak galera hori sufrituko du eta anaiari zer gertatu zitzaien argitzeko abiatuko duen ikerketa prozesuak ez dio mina arintzen lagunduko. Bestetik, segadaren lekuko izateak zauri sakona utziko du Larraitzengan eta gainera, telefonoz jasotako mehatxuak are gehiago aztoratuko du<sup>216</sup>. Martini ere aski buruhauste ekarriko dizkio gertakizunak, batez ere inplikazio zuzena izango duelako gertaeran. Bera izango da Kilopondioaren anaia txofer lanetan sartuko duena; baina gainera, okerreko pertsonari (kalpar-luzeari) emango dio komandoaren planen berri eta azken horrek Guardia Zibila abisatuko du. “Mundua zure neurrira egina zela uste izan zenuen. Bazinela nor, bazenuela piezak mugitzeko gaitasunik, zu zerorri amarruan eroritako hamaikagarren pieza besterik ez zinela jabetu gabe” (55). Larraitzen hitz horiek ondo islatzen dute mutilaren patua. Kalpar-luzeak egindako jukutriagatik mendeku hartu nahiko du Martinek, baina Larraitzek saihestu egingo du hori. “Esango niokeen, beharbada mendekuak ere ez ziola minik samurtuko, ez behintzat bere ahozabalaren kontzientzia txarra estaltzeko adina” (64). Dena den, Larraitzek Fer txibatoa den zurrumurrua zabalduko du, kalpar-luzeak herritik ihes egin dezan (67-68), baina horrek Martinen mendekutik babestuko duen arren, herritik alde egin behar izatea ezin da positiboki baloratu. Martinek ere ihesari emango dio, bere izena polizia txostenetan agertzen hasiko baita (81).

Esan daiteke kontakizun honetan Guardia Zibila dela kaltearen eragile nagusia. Gertakariak manipulatu eta bertsio faltsuak sustatzeaz gain, azpijokotan eta droga kontuetan nahastuta dabilzala iradokitzen da. Horrekin lotuta, iruditzen zait ez dela kasualitatea Guardia Zibilari komandoaren inguruko informazioa pasako dion kalpar-luzeak izen erdalduna, Fer (Fernandoren laburdura), edukitzea. Bide batez, Larraitzek argi adierazten du

---

<sup>216</sup> Amaiera aldera, irakurleak jakingo du Martinek erakundeko kontaktuari Larraitzen zenbakia eman eta hark deitu ziola poliziarena eginez. Nabarmentzekoa iruditzen zait ETArri erreferentzia egiteko erabiltzen den termino eufemistikoa: *erakunde* (60).



zer aterako duen mutilak informazio truke, “salatari guztiek irabazten dutena irabaziko zuela: negoziarako droga, dirutza, mesedeak” (60). Esan gabe doa nor iradokitzen den kalpar-luzearen negoziokide. Guardia Zibila aipatu dudala, bada pasarte bat zeinetan autobusean doazenek beldur bera adierazten duten kuartel baten ondotik pasatzean (39). Esanguratsua da oso erritar guztiek izu bera partekatzea eta zerbaitegatik deitzen dio *etsai* Guardia Zibilari Larraitzek (55).

Amaitzeko joateko, segadari buruzko kontakizunaz gain, mintzagai dudan hirugarren liburu honetan Larraitzek bere familiari buruzko sekretua ezagutuko du, jakingo baitu zaintzera bidali duten heldua ezagutzerik izan ez zuen amona Petraren ahizpa dela eta hura nola hil zen ezagutuko du. Bikoterik izan gabe haurdun geratu eta apaizak haurra ebatsi ziola aipatzen da, baita erotu eta etxetik alde egin ostean hilda agertu zela ere. Interesgarria da gertaeraz protagonistak egiten duen gogoeta, bikain irudikatzen baita amonaren gazte garaiko gizartea: “Bere buruaz beste egin zuela pentsa zitekeen, norbaitek hil zuenik baino errazago. Bekatua bekatuaren gainean, ordukoen ikuskeran... Tabua tabuaren gainean” (34). Azkenik, aipatu nahiko nuke liburuak amaiera positiboa duela, gertatutakoa atzean utzita, egia argitzearen ordeztasuna hautatuko dutelako Larraitz eta irakasleak.

#### **6.2.6.18. *Antipodak***

Jarraian aztertuko dudan liburua 2021ean Gaizka Arostegik Ibaizabal argitaletxean kaleratutako eleberria da. Jada mintzatu naiz idazle honi buruz, Guda Karlistekin lotutako atalean esan bezala, *Karlisten altxorra* (Elkar, 2014) argitaratu baitzuen Julen Ribas ilustratzailearekin batera.

#### **Laburpena**

Hamalau urtetik gorako irakurlea helburu duen 222 orrialdeko eleberri honek errealitate zeharo desberdinetik abiatzen diren Jon eta Oliva gazteen maitasun istorioa kontatzen du. Bata etakide izategatik aita preso duen 19 urteko gaztea da, eta bestea, Intxaurrendoko kuartelean bizi den guardia zibil baten alaba. Kontakizunak aurrera egin ahala, 80ko hamarkadako Donostiako giro nahasia ezagutuko du irakurleak eta euskal gatazkaren unerik gogorrean murgilduz, gatazka horrek hainbat pertsonaiarengan duen eragina ezagutuko du.

## **Harrera kritikoa**

Karla Fernández de Gamboa kritikariak (2022) Arostegik eleberrri historikoak idazteko duen gaitasuna aldarrikatu eta testuingurua deskribatzeko egilearen prosak duen sinesgarritasuna nabarmendu zuen. Horrekin batera, kontakizunak Shakespeareren tragedia famatuarekin duen oihartzuna aipatu zuen, Romeo eta Julietak bezala, aztergai dudan eleberriko protagonistek munduaren aurka egin beharko baitute haien maitasun istorioak aurrera jarrai dezan. Fernández de Gamboak aipatzen duenez, ez da erraza euskal gatazka inpartzialtasunez irudikatzea, baina egilea gatazkaren alde desberdinean dauden pertsonen oinazea islatzen saiatzen da. Hori horrela, haren ustez, irakurle gazteari zuzenean bizi gabeko garai konplexua gerturatzen dio, hartaz hausnartzeko eta eztabaidatzeko bide emanez. Aipatzekoa da OEPLIk 2021ko HGLko liburu hautatuen zerrendan sartu zuela lana.

## **Analisi narratologikoa**

Liburuaren lehenengo orrialdeak kronotopo zehatza marrazten du irakurlearen gogamenean: “Donostia. 80ko hamarkada: berunezko urteak” (7). Ima Mendiolaren irudia daraman azalak garai hartako eszena gogor bat islatzen du: gizon baten bularra zeharkatzen ari den bala bat, pintadak dituen adreiluzko horma bat eta atsekabe aurpegiz malko bat isurtzen ari den neska gaztea agertzen baitira. Guardia Zibilaren segada batean balaz jositako bi etakideren hilketarekin hasten da narrazioa, eta gertakari horrek sortutako tentsio eta istiluak, kale borroka, deskribatzen da jarraian. Lan egiten duen kopia dendatik irten ostean, istiluek kalean harrapatu eta Guardia Zibilarengandik ihesi dabil 19 urteko Jon protagonista gaztea. Istoriotik kanpo dagoen narratzaile orojakileak Jon inguratzen duen giroa deskribatzen du: Molotov koktelak, ke-poteak, gas negar-eragileak, gomazko balak, poliziarengatik ihesaldiak eta abar. Egoera nahasi horretatik irten nahian dabilen gazteak institututik ezagutzen duen eta nora joan ez dakien Olivarekin egiten du topo, eta ihes egiten laguntzen dio. Orduan ereiten da liburuko kontakizuna gidatuko duen haria. Jon, laburpenean aurreratu dudan moduan, etakide izateagatik urte luzez aita kartzelan duen 19 urteko gaztea da. Amak, Pilik, torturak jasan zituen gaztetan, atxilotu eta ziegan sartu zutenean (35). Ikus daitekeenez, bertan jasandako tortura eta umiliazioek orbain sendaezinak utzi zizkieten pertsona argal, lirain eta erakargarri gisa deskribatzen den emakumeari (33, 35). Horren harira, interesgarria da narratzaileak aipatzen duena: “Bere gizonik gabe pasatako egun bakoitza tanta bat ozpin da sekula sendatuko ez den zauri sakonean [...]. Gustura dabil atxilotutako heroia den emaztearen papera antzetzten. Badaki bera ere ikur bat dela askorentzat” (36). Bere lanbidea

ere (abokatua da) horrekin lotuta dago, bulego batean egiten baitu lan, “senarraren egoera berean dauden beste gizon-emakumeen alde” (41). Oliva, ordea, Intxaurrendoko kuartelean bizi den Guardia Zibilaren sarjentu baten alaba da. Narratzaileak zehaztasun handiz kontatzen du zer nolakoa izan zen neskaentzat bizitoki aldaketa: “Mendien artean galdutako herri koskor batean, familiak gorrotoaren aurpegia ezagutzeko aukera aparta eduki zuen. Edonon nabaritzen zuten [...]. Askorentzat arrotzak ziren. Etsaiak” (58-59). Egoera horrek ama eta alaba tristetu eta aita aberetu zuela aipatzen du narratzaileak (59). Kuarteleko giroak zeharo itotzen du Oliva (85) eta Jonen amak bezala, Olivarenak, Rociók, aspaldi galdu zuen irria (66). Narratzaileak guardia zibilen emazteen egoera zaila aipatzen du, zeinak baztertuta dauden eta gutxitan irteten diren kuarteletik. Etsipenari aurre egiteko, emakumeek elkarren babesa behar dutela aipatzen du narratzaileak (72). Bide horretan, esanguratsuak dira Rociók alabari esaten dizkion hitzak: “Ikasi, maitea, gogor ikasi. Edozer emango nuke zulo honetatik irteteko aukeraren bat izan zenezan” (67). Ikusten denez, bi emakumeak gogoz kontra daude kuartelean bizitzen. Bertara bizitzera joateko arrazoi gisa atentatu bat aipatzen da, zeinak hiru hildako utzi zituen. *Atentatu* hitzarekin batera *sarraski* aipatzen da eta nahiko modu bisualean irudikatzen da gertaera:

Atentatua gertatu zen, gauaren sabela urratu zuen eztanda itzela. Iluntasuna garrasiz eta negarrez bete zen ta zeruak odolaren kolorea hartu hartu zuen. Hiru gorpu lurrian geratu ziren, bizirik gabe, lehegailuaren indarrak txikituta. Hotza zen goizalde madarikatu hartan, gaurko modura, eta izarrek beste aldera begiratu zuten haien zoritxarra ez ikusteko, herriko jendeak egin zuen bezala (59).

Goiko aipuan ikus daitekeenez, narratzaileak gertaerari buruzko epaiak ematen ditu, atentatua madarikatuz eta herritarren ezaxola salatuz. Aurrera egin aurretik, aipatzekoa da deskribatutako bi familiak aitaren egoerak baldintzatuta bizi direla. Jonen kasuan, aita kartzelan egoteak emaztearen eta bi semeen atsekabea eragiten du eta Olivari dagokionez, berriz, aitak hartutako erabakiak emaztearen eta alabaren zorientasuna lermatzen du. Bi protagonistek errealitate erabat desberdina bizi duten arren, antagonikoa ia, desio berdinak batzen ditu, izan ere, biek nahi dute bizi duten errealitatetik ihes egin eta munduko beste muturrera joan, antipodetara (hortik dator liburuaren izenburuaren zergatia). Ideia hori behin eta berriz errepikatzen da narrazioan zehar, hala Jonen gogoan nola Olivarenean (37, 52, 59, 80, 83, 96, 118). Bi gazteen arteko harremana zailtasunez josita egongo da hasieratik, batez

ere familiaren edo inguruaren eraginez<sup>217</sup>. Gainera, nor bere aldetik borroka propioari egin beharko dio aurre. Olivak irain eta mespretxuak saihestu eta zorionsu izateko asmoz, bere sekretua (aitaren lanbidea) giltzapean gordeko du (60), nahiz eta inguruan beti aurkituko duen zama hori pisutsuago egingo duen gertaerarik, adibidez, ikastetxean bertan aurkituko dituen irain eta mehatxuz betetako pintadek (81). Dena den, Joni aitaren lanbidea aitortuko dio eta horrek bi gazteen bideak bereiziko dituen arren, handik gutxira elkar onartuko dute. Inguruak ordea, ez dio barkatuko guardia zibil baten alaba izatea. Honakoak Olivaren hitzak dira: “Lur honek su eta gar markatzen gaitu. Ez digu benetan izan nahi duguna izaten uzten” (113). Eskolan adibidez, Mikelen lagunek neska ospitalera bidaliko duen jipoia emango diote (142-144) eta aitak, polizia kotxe azpian jartzen dizkieten lehergailuez ohartaraziz, uneoro gogoraziko dio Euskal Herrian gorroto dituztela eta hilik nahi dituztela (100). Jonek, berriz, alde bateko zein bestekoen indarkeriazko ekintzak jasan beharko ditu, gehienetan, Olivarekiko duen loturagatik. Lana ere galduko du, arrazo beragatik (92). Ez hori bakarrik. Istiluek kalean harrapatu eta poliziarengandik ihesi doala, Mikel anaia nagusiarekin eta haren lagunekin topo egingo du eta anaiak molotov koktel batekin ibilgailu bat nola erretzen duen ikusiko du, baita barrikadak kentzera irten den gizonaren gorputza ere (11-12). Beranduago konturatuko da ospitalean dagoen guardia zibil horrek lehen mailako erredurak dituela gorputzaren ehuneko berrogeian (42). Gainera, protagonistak kalte horren egiletzan inplikaturik aurkituko du bere burua, ekintzaren unean anaiaren alboan baitzegoen (44). Horrek Jonen larrigura handituko du, jakingo baitu polizia bi gazteren bila ari dela. Bide batez, esanguratsuak dira oso gertaerari buruzko Jon eta Mikel anaiaren arteko elkarrizketak. Hilzorian dagoen poliziaren larritasunaz ari direla, aurkako ikuspegia erakusten dute bi anaiek “Bat gutxiago orduan [...]. *Pikolo* bat besterik ez da” (45) dio anaia zaharrenak (pertsone hori deshumanizatuz), baina Jonek, ordea, poliziaren alderdi humanoa azpimarratzen dio: “Hori baino zerbait gehiago ere bada [...]. Pertsone bat” (45). Adierazpen horien aurrean, dezepzioa adieraziko dio Mikelek eta bere iritzia garbi adieraziko dio, borroka egiteko arrazoiak aipatzeaz batera:

Hau gerra bat da, tregoirik gabeko borroka bat, eta egurra eman behar diogu etsaiari [...] Mendekua hartu beharra dago. Edozein tresna zilegi dugu gatazka honetan. Gure herriaren askatasunaren alde dihardugu. Bai eta presoak kalera ateratzeko ere. Aita ahaztu al duzu akaso? (45-46).

---

<sup>217</sup> Bi protagonisten familiek Jon eta Olivak batak bestea erabiliko duela uste dute, informazioa atera eta aurka egiteko (173, 176).

Esanguratsua da anaiak baliatzen duen terminologiari erreparatzea. Aurrerago ere, elkarrizketa bera berrartzen dutenean, guardia zibil guztiak etsaitzat hartzen ditu, “denak arerioak dira gerra honetan” (79). Testuinguru horretan, Mikelek borrokari lotuta eta etsaiari egurra ematen ikusten du bere burua (77). Bide batez, Jon protagonistak ez du uste aita presondegitik ateratzeko modurik onena pertsona bat akabatzea denik (46) eta ez zaio iruditzen bera gerra batean dagoenik (79). Terminologiaz ari naizela, bi mutilen amak *txakur* hitza erabiltzen du poliziarri erreferentzia egiteko (34). Olivaren aitak *terrorista* deitzen die etakideei (175) eta Mikelek, berriz, *gudari* deitzen die horiei (133). Ez nuke aurrera egin nahi guardia zibilez edo poliziez, oro har, egiten den karakterizazioan sakondu gabe. Olivarekin harreman sentimentala hasi nahi duen Antonio Ortiz tenientea izan ezik (73), kuarteleko gainerako guardia zibilen gaineko irudi txarra ematen da hasieratik, harropuzkeria aipatzen baita haien ezaugarri nagusi gisa (74, 120). Olivaren aitaren katakterizazioak ere bide horri jarraitzen dio. Bibote mardula duen gizon zangarra da (68) eta erakusten dituen jokabideengatik eta narratzaileak ematen duen deskribapenengatik, esker txarrekoa, mozkorra eta maitasun zaintzurik erakusten ez duen gizona dela esan daiteke (68, 71). Horrez gain, gizon tradizionala da, alabaren bikotekideak aitari baimena eskatu behar diola uste duen horietakoa, zeinak uste baitu ikasteak ez diola alabari askorako balioko (101). Horrek kontraste egiten du emaztearen iritziarekin, esan bezala, alaba ikastera animatzen baitu, bizi den zulotik ateratzeko bidea dela iruditzen baitzaio. Kontakizunak aurrera egin ahala, aitaren agresibitatea handitzen joango da eta egoerak eztanda egingo du bere alabarekin dabilen mutilaren familia nor den konturatzean (175). Horrek Olivaren etxean sortutako eztabaidaren erdian, senarrak zaplazteko bat eman eta indarkeriaz tratatuko du emaztea (176-177). Alaba ere izutuko du eta mehatxu egingo dio, gurasoekin batera jaioterrira itzultzen ez bada Jonek gorriak ikusiko dituela esanez (185). Dirudienez, amak Olivaren hautua babesten ez duen arren, haren egoera ulertzen duela dirudi (115). Aitarekin amaitzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi kontakizunean zehar jarrera matxista ugari agertzen dituela azpimarratu gabe: “Jainkoak alaba bat bidali zidan zigor gisa... Nik semea nahi nuen... Nire leinua harrotasunez aterako zuen mutiko zintzo bat” (109-110). Horrelako baieztapenek laburbiltzen dute aitak alabarekiko duen estimua. Antonio tenientea salbuespen gisa aipatu dut. Teresak begirunea dion pertsona bakarra izateaz gain, narratzaileak aipatzen du kuarteleko gainerako guardia zibilen artean Antonio bera ez dagoela ongi ikusia, ez dagoelako bere komandantzia gertatzen diren zenbait gauzen aurrean beste aldera begiratzeko prest (120, 159). Dena den, kontakizunaren amaiera aldera haren alderdi makurra agerian geratuko da, besteak beste, Oliva harengandik urruntzeagatik Jon jipoitu, bahitu eta pistolaz mehatxatu ostean (203-208).

Pasarte horretan gertatutakoa salatzen duen protagonistak duen ezintasuna jartzen du agerian narratzaileak: “Legeak eta Justiziak oso zerikusi eskasa dute askotan Euskal Herrian” (211). Horrez gain, tenienteak Jonek bere anaia salatu duela zabalduko du eta faltsua den leporatze horrek berebiziko eragina izango du Jonengan, anaiaren eta amaren haserrea jasatearekin batera, begirada gaiztoak eta bere aurkako pintaketak jasan beharko baititu, *txibato* deitzen dioten eta mehatxu tonua duten pintadak alegia.

Aurreko lerroan justiziarik eza aipatu dudanez, gai horretan apur bat sakondu nahiko nuke, liburuan zehar hainbat aldiz jartzen baita agerian Gobernuaren edo poliziaren gehiegikeria eta inpunitatea. Mikelek erretako guardia zibila hil eta armak hartzeko proposamenari baietz esan (157) eta gutxira, oraindik etxean dela, guardia zibilak atea behera bota eta oso modu bortitzean sartuko da hura atxilotzera (163), behiala, Jon haurra zela aita atxilotu zuten etxean. Indarkeria erabiliz tokia miatu (164), Mikel atxilotu eta Lege Antiterrorista ezarriko diote eta narratzaileak horren ondorioak aipatzen ditu: inkomunikazioa (167). Horrekin lotuta, Donostiako kuartelaz ari dela, honako adierazpenak egiten ditu narratzaileak: “Leku horren zoritxarreko ospea denon ahotan dabil. Argia ez da hango ziega ilunetan sartzen. Ez eta legearen bermea ere. Handik mugitzen omen dira errepresioaren eta gerra zikinaren hari nahasiak” (169-170). Mikelekin batera haren lagun batzuk atxilotuko dituzte eta kuartelean tratu txarrak jasan ondoren, guztiak Madrilera eramango dituzte, Audientzia Nazionalera. Bertan, Mikelek torturapean aitortuko du berak bota zuela guardia zibila hil zuen *koktela* (186). Bide batez, guardia zibilaren hileta elizkizuna deskribatzen du narratzaileak eta eszena gogor hori primeran irudika dezake irakurleak (152-153). Gainera, aipatzen du Olivaren familia Euskal Herrian dagoenetik sarritan bizi izan dituztela hiletak (153), eta horrek, garraztasun handiagoa ematen dio gertakariari. Torturen gaia berrartuz, ezin ahaztu Jonen amak ere, lehenago esan bezala, torturak jasan zituela ziegan sartu zutenean. Eta ez hori bakarrik, amak semeari gogorarazten dio aita Donostiako kuartelean torturatu zutela eta Olivaren aita izan zitekeela atxilotetaren edo torturen erantzule (106). Ikus daitekeenez, ugariak dira poliziarengandik torturak jasotako pertsonaiak eta amak bidegabekeria horren aurka egingo du lan, narratzaileak dioenez: “sarri borrokatu behar izan du Gobernuak torturak eta bidegabekeriak babesteko erditu omen duen legedi berezi horren aurka” (167).

Jonen aita kartzelan dagoela aipatu dut lehenago, baina ezer gutxi iruzkindu dut pertsonaia horri buruz. Espetxez espetxe eduki duten presoak da eta hura ikusteko familiak kilometro ugari egin behar izan ditu (187-188). Kontakizunean aita Donostiatik 920 kilometrora dagoela aipatzen da (123). Kartzelara bidean istripuz hil diren familiak ere

hartzan dira ahotan (188). Horrekin batera, familiako kideek espexera sartzeko jasan beharreko miaketa iraingarriak aipatzen dira (192) eta Jonek aitari egindako bisita deskribatzen da, zeinetan kristalak haien arteko kontaktu zuzena oztopatzen duen (195). Pasarte horretan, semea guardia zibil baten alabarekin maiteminduta dabilela jakinda ere, jarrera ona erakusten du eta badirudike ez duela gaizki hartzen Jonek Olivagatik sentitzen duena (199). Ez hori bakarrik, ematen du ez dela kartzelatu zuteneko gazte engaiatu hura, azken hilabeteetan hausnarketa sakonari ekin ostean bere buruari zintzo begiratu eta gaztetatik barneratuta zituen ziurtasun batzuk pikutara joan baitzaizkio. Tarteka, dena zentzurik gabeko amesgaizto bat iruditzen zaio presoari (197). Interesgarria da presoaren aukerez egiten diren hausnarketak hona ekartzea, Jonen aita bidegurutze batean aurkitzen baita. Batetik, zigorra betetzeko falta zaion denbora kartzelan sartuta eman lezake, eta horrek, inguruko begirunea bermatuko lioke etxera itzultzerakoan. Ongietorria edo omenaldia jasoko luke herriko tabernan, zeinetan bere argazkia txalo artean hormatik kenduko lukeen heroi baten legez. Bestetik, irteera indibidualak askoren ezinikusia ekarriko ziokeen (200). Narratzaileak aipatzen duenez, bide horretatik abiatu diren gutxi batzuek lehen maite eta miresten zituztenen gorrotoa eta errefusa jaso dituzte eta bakarren batek garestiago ordaindu du prezioa (200-201). Agian irakurle bati baino gehiagori burura datozkio Nanclares bidea hartu eta burkideen mespretxua jasan zuten preso ohien izenak.

Aztergai dudan liburuak gatazkak eragindako beste gertaera eta pertsonaia batzuk aipatzen ditu. Olivaren institutuko irakasleak adibidez, mehatxuak jasoko ditu (84). Enpresari baten bahiketaren berri ematen da (90) eta xantaiari ezetz esan dion enpresariaren bahiketaren aurka isiltasunean protesta egiteko bildu den talde txiki bat aipatzen du narratzaileak. Talde horren aurrean, askoz jendetsuagoa den beste talde bat biltzen da, presoan argazkiak daramatzana eta garrasika ari dena, poliziak karga hasten duen arte (111-112). Narratzaileak ez du horri buruzko epairik ematen, baina argi ikus daiteke bi taldeen arteko kontrastea. Talde txikia eta isila bata (beldurra gainean duena), talde handia eta aldarrikatzeko beldurrik gabekoa bestea. Nire ustez, irakurlearengan erru kolektiboaren eta erantzukizun kolektiboaren gaineko hausnarketa pizten du pasarte horrek, alegia, zergatik biltzen den hain jende gutxi enpresari baten bahiketa salatzeke eta zergatik hainbeste jende presoan alde egiteke.

Hogei kapitulutan banatuta dagoen kontakizun honetan euskal gatazkak zeharkatutako pertsonen mina ageri da eta esango nuke eguraldia erabiltzen duela idazleak pertsonaien aldartearen berri emateko. Gaiari buruzko filmetan topiko bihurtu den arren, nire ustez bikain funtzionatzen duen teknika da. Euskal Herri ilun, hotz eta euritsua ageri da gehienetan, eta

halaxe daude kontakizuneko pertsonaiak, etengabeko iluntasunean murgilduta. Liburuaren amaieran, eta gogoz kontra bada ere, Oliva bere jaioterrira itzultzen da gurasoekin, baina kuarteletik irteten ari direla, Jon gaztea autoaren aurrean pausatu eta berarekin geratzeko eskatzen dio neskari<sup>218</sup>. Mutila paretik kentzea lortzen dute, ez ordea bi maitale gazteek berriz elkar egongo direla promes egin baino lehen (221). Amaiera irekita utziz bukatzen da kontakizuna. Agian irakurleren batek pentsatuko du Oliva jaioterrira itzuli eta Euskal Herrian bizitakoaz ahaztuko dela, baina bada hori gezurtatzen duen aipu bat: “Olivak esaldi horretaz hausnartzen du [azken finean, jaioterrira bere lurra dela]. Nongoa ote da bera? Zein ote du bere aberria? Auskalo. Arrotz sentitzen da han eta hemen” (212). Ikus daitekeen moduan, bizitako esperientziak neska gaztea aldatu dute.

Azkenik, aipatu nahiko nuke idazlea hizkera poetikora gerturatzen dela askotan, batez ere pertsonaiak mugitzen diren giroa edo haien sentimenduak adierazteko orduan: “Oliva negarrez hasten da. Gaua argirik eta esperantzarik gabeko zulo bat da. Jaio aurretik zendutako ametsen hilerria” (61), irakur dezakegu pasarte batean. Beste pasarte batzuetan bi gazteen maitemina deskribatzen da eta prosa poetikora gerturatzen da idazlea, honako aipuan ikus daitekeen moduan: “Zoriontsuak izan dira Jonekin pasatu dituen egun hauek. Arrosak negu partean loratu dira eta giroa kolorez eta lurrinez bete da [...]. Haien arteko amodioa sustraiak ari da botatzen lur latz horretan” (87). Horrelako pasarte laburrek lehen deskribatutako giro ilunean eten bat hartzeko aukera ematen diote irakurleari.

#### **6.2.6.19. *Para bellum***

John Anduezarena (Oregon, 1966) da jarraian aztertuko dudana obra, aurrerago iruzkindutako *Larunbatean Bukowskin* (Elkar, 2012) eleberraren egile berarena.

#### **Laburpena**

Gorrotoak eta mendeku nahiak zeharkatzen du hamabi urtetik gorako irakurlea helburu duen 178 orrialdeko eleberrari hau. Bi familia dira protagonista nagusiak, Txapartegi baserriko sendia batetik, eta Otalorakoak bestetik. Lagun minak ziren Batista eta Pablo, bi baserrietako semeak, etsai bihurtuko ditu Gerra Zibilak eta etsaigo hori ondorengoengan haziko da, herra kide guztiengan zabalduz.

---

<sup>218</sup> Horixe erakutsi baitiote etxean, maite duenaren alde borrokatu behar dela (214). Bitxia da nola egiten duen bere Jonek gurasoengandik entzundako maxima, ziurrenik konpromiso politikoarekin lotutako ideia maitasunaren alorrera eramaten baitu gazteak.



## Harrera kritikoa

2023ko azaroan argitaratutako lana izanik, ez da harritzekoa argitalpen bakarra eduki izana eta euskaraz bakarrik argitaratu izana. Era berean, ez da harritzekoa promozio eta difusiorako artikuluetatik kanpo agerpen urria eduki izana.

## Analisi narratologikoa

Kontakizunaren muinean sartu aurretik, ezinbestekoa da alderdi paratestualari erreparatzea, istorioari sarrera bikaina egiten baitiote orain aipatuko ditudan elementuek. Liburuaren azal-hegalean, egilearen hitz batzuk datoz eta esanguratsua da honako esaldi hau, liburuaren mamiarekin lotura baitu: “Ikasi dut, ezinbestean, biolentziak biolentzia gehiago eragiten duela eta zurrumbilo horretan azkenean denok ateratzen garela galtzaile”. Esango nuke kontakizuna bera baieztapen horren adibide garbia dela. Horrekin batera, lanaren hasieran datozen bi epigrafeek ildo beretik jotzen dute. Publio Flavio Vegecioren aipuak zuzenean egiten du lotura eleberriaren izenburuarekin: “Si vis pacem, para bellum. Bakea nahi baduzu, prestatu gudarako”. Bigarrenak, ordea, euskal miliziano anonimo batek Elgetan 1937. urtean idatzitako hitzak jasotzen ditu: “Tiro hotsak gertutik entzun. Jakingo balu jendeak ze hotza, ze zitala den heriotza, ez litzateke gerrarik hasiko inun”. Uler daiteke azken epigrafe horren hautuarekin gerraren aurkako ikuspegia eman nahi duela egileak. Obrak 5 kapitulu ditu eta horien barruan izenbururik gabeko hainbat azpiatal labur datoz. Izenburuek ezbeharra aurreratu eta kontakizunaren tonua irudikatzen dutela esango nuke: “Intxortako sarraskiaren balada”, “Begia begi truk”, “Mendekuaren kiratsa”, “Si vis pacem” eta “Inork idatzi nahiko ez lukeen epilogo”. Iruñe Izquierdoren azaleko irudian bi haur ageri dira baserri bat atzean dutela, kontakizunaren lehen ataleko protagonistak hain zuzen, Elgetako Txapartegi baserriko Batista Zabala eta haren lagun min Pablo Agirre, Otalora baserrikoa. Liburuaren hasieran, gertaleku nagusia Gipuzkoa mendebaldeko herri hori den arren, aurrerago Donostia eta Elgeta tartekatzen dira. Kontakizuna 1922an hasten da, bi protagonistek 12 urte dituztela. Elgeta da kokalekua eta eskasia garaia deskribatzen du narratzaile orojakileak. Estraperloan aritzen diren gizonak aipatzen ditu, edariak, olioak, azukrea, oihalak edota armak kontrabandoan eramaten dituztenak alde batetik bestera (9-10).

Dena den, berehala egiten du salto 1936ko uztailean. Hilabete horretako altxamendu militarren berri eman aurretik (21), narratzaileak Gerra Zibilaren ondorioak aurreratzen ditu: “Basakeriak mina eta samina eragiten ditu beti. [...] Guda orok mendeku gosea esnarazten du bihotz hautsietan. Eta, halabeharrez, azkenean den-denak ateratzen dira

galtzaile” (21). Batista eta Pablo matxinatuen aurka egiteko batailoietan sartuko dira, euskal gudarostearekin bat egiteko (22, 25). Gerra Zibilari buruzko deskribapenik ez da falta: Lubaki suntsituetakoko egoera gogorra, etenik gabeko indarkeria, odolaren gorriaz lohitutako zelai berdeak, tropa frankisten gudari eta milizianoen aurkako atsedetik gabeko erasoak eta aire bonbardaketak aipatzen dira, besteak beste (24). “Txikizioa, hondamendia. Hildakoen gorpu puskek ikusten ziren nonahi, zaurituen garrasiak entzuten ziren han eta hemen. Desesperantza lege bihurtu zen Intxorta magalean eta soldaduak uzkurtuta adorea galtzen ari ziren” (24). Gerraren bilakaerari dagokionez, Intxortako batailak hartzen du garrantzia, nola hausten duten gudaroste frankistek Intxortako frontea gudari eta miliziano errepublikanoen erretreta eraginez (28). Kontakizunaren hasieratik, frankistak ageri dira indarkeriaren eta jazarpenaren erantzule eta “besteen” multzoan sartzen dira, espainiarrekin eta falangistekin batera. Batistak *sasikume* deitzen die frankistei (25) eta narratzaileak, berriz, *soldadu arrotz* gisa deskribatzen ditu gudari frankistak (33). Indarkeriaren erabileraz gain, basakeria eta mendeku gose aseezina erakusten dute frankistek:

Faxistek erresistentzia osoa deuseztatu zuten. Garaileek neurrik kanpoko mendeku gosea erakutsi zuten Emilio Mola jeneralak aginduta: damu zitezela Elgetako herritarrak azken bederatzi hilabeteetan Espainiako armadaren kontra egindako erresistentziagatik; sufri zezatela denek mendikatearen konkistan hildako soldaduek isuritako odolaren ordainetan (28).

Narratzaileak gaineratzen duenez, gorrotoa bazter guztietara hedatu zen eta oinazearekin batera, mendekua bihurtu zen lege. “Gizon jipoituak, gizon atxilotuak, gizon fusilatuak. Emakume kolpatuak, emakume zaurituak emakume bortxatuak” (28). Militarrek ezarritako tiranokeria eta galtzaileei eragindako giza eskubideen urraketa sistematikoa azpimarratzen du narratzaileak (29). Liburuaren lehen ataleko protagonistek zuzenean pairatuko dituzte frankisten ekintzak. Basoan daudela, bi lagunak tirokatu eta larri zauritutako Pablo harrapatuko dute, eta astebetetz torturatu eta gero, Pablok Batista lagun mina salatzea lortuko dute, 24 urteko Batista aurkitu eta tiroz hiltzeko, emaztea haurdun duela (31). Bide batez, azpimarratzekoa da falangistek gaztelaniaz hitz egingo diotela Batistari (31). Intxortako fronteari buruzko informazioa emateaz gain, narratzaileak zeruan barrena Durangora eta Gernikara bidean doazen hegazkin frankistak aipatzen ditu, nahiz eta ez duen gehiago zehazten (29). Gerra Zibilari buruzko atalarekin amaitzeko, Francok 1939ko apirilaren lehen gaztelaniaz idatzitako berria ageri da, zeinarekin gerraren amaiera iragarri zuen (34). Jakinarazpen horrekin Gerra Zibilari amaiera eman zioten frankistek. Gudaren ondorioz, hildakoak lurperatzeko milaka hilobiak aipatzen ditu narratzaileak eta esanguratsua

da honako aipu hau: “Hildakoei agur esan, isuritako malkoak lehortu, eta zauri guztiak gauek egunera sendatzeko agindua eman zuten, nahiz eta jakin ez zela batere erraza izango hondamendi hura gainditzea” (45). Kantauri itsasaldeko errepide bazterretan desagertutako fusilatuen gorpuak aipatzen ditu narratzaileak, baita kartzelatan usteltzen ari ziren presoek zerrendak, kale gorrian geratutako alargunak eta umezurtzak ere (45). Agian irakurleen bati tesiaren sarreran aipatutako “ahantzura paktua” oroitaraziko dio baieztapen horrek. Gerra Zibila amaitu ostean, bost urtez luzatu zen Bigarren Mundu Gerra aipatzen du narratzaileak, zehaztapen gehiagorik eman gabe (45).

“Intxortako sarraskiaren balada” izeneko lehenengo kapituluak Gerra Zibila badu hizpide, “Bergia begi truk” izeneko bigarrenak gerraostea irudikatzen du. Francoren aldeko aldarriak ageri dira nonahi eta narratzaileak argi uzten du zein diren diktadorearen zapalkuntza inposatu zutenak gizartean: militarrek, apezpikuak eta oligarka aseezinak (39-40). Pablo, bizimodu hobea lortzeko helburuarekin, frankisten zirkulura hurbildu eta enpresari bihurtuko da Donostian. Agintari ustelen patrikak diruz betez aberastu egin zela esaten du narratzaileak (46), eta beraz, galtzaileen taldeak irabazleenera pasatuko da. Txapartegi baserriko familiari dagokionez, Batistaren emazte Luxiak frankista guztiekiko gorrotoa eta Oalora baserrikoekiko mespretxua zein gorrotoa transmitituko dio semeari, senarra hiltzearen erantzule egingo baititu guztiak (43-44). Kontakizuna osoki Euskal Herrian giroa dagoen arren, pare bat pasartetan Euskal Herritik kanpoko gertakariak aipatzen dira; adibidez, 1964an Bob Dylanek sortutako *The times they are a-changin* abestia aipatzearekin batera<sup>219</sup>, hamarkada horretako gertakari batzuk zerrendatzen ditu narratzaileak, besteak beste, 1968ko maiatzeko Parisko protesta jendetsuak edo Vietnam Napalm zikinaz kiskali zutenekoa (55). Liburuaren erditik aurrera, denboran jauzi txiki bat egin eta euskal gatazka irudikatzen da. “Geroz eta sarriago entzuten zituen [Nikolasek] hiru letrak inguruan. ETA: Euskadi Ta Askatasuna. Azken urteetan iraultza armatua indarra hartzen joan zen erregimen frankistaren kontrako euskal erresistentzian” (57). Badirudi nola edo hala ETAREN sorreraren arrazoia azaltzen dela aipu horrekin. Sorrera ez ezik, borroka moldeen gaineko tirabira irudikatzen da bi pertsonaiaren arteko elkarrizketan, biolentzia sistematikoki erabiltzeari buruz eztabaidatuko baitute (58). Ildo horretan, 70eko hamarkadako ETAREN banaketa aipatzen da, alegia, ETA erakundea bi bandotan banatu zela: miliak eta polimiliak (85).

---

<sup>219</sup> Noiz edo noiz, abesti zatiak ageri dira, Iparragirrenen *Gitarra zahartxo bat* (20), *Cara al sol* himnoa (28), Gabon-kantak gaztelaniaz (42-44), *Eusko gudariak* (114), *Ai Maialen, Maialen* (129) edo Mikel Laboaren *Hegazti errariak* (108).

Txapartegi baserriko Nikolas ETAn sartuko da 35 urterekin (59). Hasieran, sabotaje ekintzak egin eta armak mugaz bestaldera eramango ditu (59), baita gertuko beste talde armatu iraultzaileekin kolaboratu ere: Irlandako Irish Republican Army taldearekin, Italiako Brigade Rosse-rekin eta Alemaniako Rote Armee Fraktion delakoarekin (59-60). Aurrerago, aita salatu zuen Pablo Agirre enpresaria bahitzeko agindua jasoko du, iraultza-zerga eskatzeko (60). Aitaren heriotza mendekatzeko aukera ikusita, zeregina onartuko du, eta mendian erabat isolatuta, ia 24 orduz beso bat eskuburdinekin hormara lotuta edukiko du Pablo (68-69), harik eta gauzak okertu eta salatua izateko beldurrez, tiroz hilko duen arte (72). Baionara ospa egingo du, 3 urteko ihesaldian, 1977ko urrian Espainiako Gobernu berriak amnistia osoa aldarrikatu arte (85). Dena den, handik gutxira berriz sartuko da komando batean eta hainbat ekintza burutuko ditu, besteak beste, Guardia Zibil baten hilketa eta droga salmentarekin nahastutako gizon batena (85-86). Horren ostean, ihesari ekingo dio berriro, klandestinitatean bizitzeko (86). Pertsona bati bizia kentzeak sufrimendua eragiten duen horrengan sortzen duena deskribatzen du narratzaileak eta zehazten du horixe gertatu zitzaioela Nikolasi Pablo hil eta gero:

Aurrez aurre dagoen pertsona bat tiroz erasotzea ez da huskeria, ez da erraz ahazteko moduko bizipena. Batez ere lehenengo aldiz egiten denean. Amesgaizto itsusiak agertzen dira bisitari gauerdian, bakerik ematen ez duten barne-ausikiak (77).

Aitaren heriotzak Feliperengan amorraren hazia landatu zuela kontatzen du narratzaileak (76) eta argi ageri da pertsonaien artean belaunaldiz belaunaldi eraikitzen den gorroto katea. Euskal gatazkaren bilakaera azaldu dudanean esan bezala (3.2. atala), 80ko hamarkada indarkeria handiko garaia izan zen eta horregatik, berun urteak izendapena erabili izan da une horri erreferentzia egiteko. Kontakizunean, narratzaileak berunaren urtea aipatzen du (89) eta Euskal Herriko giroa ederki laburbiltzen du, honako aipuan ikus daitekeen moduan: “Nahasmena gizartean: krisia, langabezia, drogak. Istiluak lantokietan: kaleratzeak, lan uzteak, grebak. Zalaparta politikoa: manifestazioak, protestak, errepresioa. Biolentzia: balak, bonbak, iraultza-zerga. Zigorra: atxiloketak, torturak, espetxea” (102). Horrekin batera, pertsonaia askok bizi duten beldurra aipatzen du, adibidez, Felipek sentitzen duena, egunero kotxe azpian begiratu behar baitu lehegailu bat jarri ez diotela ziurtatzeko (102). Indarkeriazko testuinguru horretan, 1983ko GALen sorrera deskribatzen du narratzaileak, nola jarri zuen Madrileko Gobernuak ezkutuko operatiboa martxan, bahiketak eta atentatuak eginez, *Frantziako Santutegian* (Ipar Euskal Herrian) ETako militanteak erasotzeko, mertzenarioei ordainduz maiz (97-98). “Abian zen Estatuaren estoldetatik bultzatutako gerra

totala”, gaineratzen du narratzaileak (98). Ez dezadan aipatu gabe utzi liburuan aipatzen den Luis Carrero Blanco almirantearen aurkako atentatua (1973an ETAk eragindakoa). Gaineratzen denez, atentatu horren ostean laster etorri ziren odolkiak ordainetan, Francok Txiki eta Otaegi fusilatzeko agindua eman baitzuen (78). Ikus daitekeen moduan, alde bateko ekintzei beste aldeko ekintzek erantzun zioten, indarkeriazko sorgin-gurpila etengabe elikatuz. Narratzaileak zehazten duenez, urteek aurrera egin ahala gero eta gehiago ziren ETaren jomugan zeudenak, besteak beste, poliziak, militarrek, enpresariak, erakundeetako ordezkariek, politikariak, eta kazetariak (99). Bestalde, poliziaren gogortasuna irudikatzen da, esaten baita etakideek eta ingurukoek gehiegi nabarmendu gabe jarduten zutela, jakin baitzekiten “gehiegi nabarmen ziren horiek poliziak atxilotzen zituela, eta komisariatan gertatutako makina bat bidegabekeria kontatzen ziren han-hemenka, entzute soilarekin oilo-ipurdia jartzen zuten tortura basatien errelatoak eta ahoz-ahoko kronikak” (57). Horregatik, jendarmeez erakundearekin kolaboratzen zuen Bernadette (Nikolasen maitalea) hiltzen dutenean, Nikolas ezin izango da azken agurra ematera joan (91).

Aitaren heriotzagatiko gorrototik abiatuta, Felipe prest agertuko da GALi ordaintzeko, azken horrek mertzenarioak eta bestelako baliabideak bidera ditzan ETaren aurkako borrokan, baina emazteari ezer ez aipatzea erabakiko du, guda egitea gizonen kontua delakoan (98). Poliziak Nikolas bahituko du (109) eta hari tratu bortitza eman diezaiotela eskatuko dio Felipek poliziarri, bere familiarri egindako kalteagatik damu dadin Nikolas (110). Guardia Zibilak Nikolasi eragindako tortura guztiak esplizitatzen ditu narratzaileak, zehazten baitu 1985ean Intxaurren bahituta izan zuten tartean etengabeko torturak jasanarazi zizkiotela; alegia, “amaierarik gabeko sufrikarioa, gizatasunaren akabera” (112). Sei guardia zibilek txandaka torturatuko dute Nikolas: plastikozko poltsa buruan jarrita arnasa galaraziz eta itolarrian jarriz, tinpanoak hautsi eta leherrarazi arte kolpatuz, barrabiletan deskarga elektrikoak emanez, makila luze bat ipurditik sartuz uzkia odoletan utzi arte, zangotik zintzilikatuta edukiz edota burua ur azpian sartuz (112). Gainera, narratzaileak iradokitzen duenari jarraikiz, guardia zibilek masakrearekin gozatuko dute (112) eta tortura basatien ondorioz bihotzak eztanda eginda hilko dute Nikolas Intxaurren ziegari ilunean (113).

Ezbeharren kateak jarraipena izango du beste pertsonaiengan. Batetik, Nikolasen emaztea tuberkulosiak jota hilko da eta bien seme Telmo alkoholiko bihurtuko da. Narratzaileak gizon zikin eta arriskutsu gisa deskribatzen du (121), dena gaizki egiten zuen alproja bat (122). Gaztaroan emakume bat haurdun utziko du, baina umea jaio eta gutxira alde egingo du, Unai haurra Temorekin utziz (122). Unai semea zaintza eta maitasunik gabe

haziko da eta droga salmentan sartuko da gaztetatik (122, 124). Pertsonaia honekin paradoxa bitxia egiten da, Nikolas aitonak droga-saltzaile bat hil baitzuen ETA erakundeak aginduta, baina bere iloba horretan nahastuta dagoela jakingo du irakurleak (134). Bestetik, Otolora baserriko Elena (Pabloren biloba), ertzaintzaren narkotikoen kontrako saileko inspektorea, Unairen atzetik ibiliko da eta mutila droga ezkutalekuan gordetzen ari dela harrapatuko du, baina Telmo agertu eta Ibai eta Elena tiroz hil ondoren (azken horrek urtebeteko haurra zuela), Unai semeari alde egiten utzi eta bere buruaz beste egingo du (172-174). Amaiera negatiboa duen kontakizun hau 2023ko azaroan amaitzen da (177).

Fikzioa eta historia nahasten dituen eleberri honekin amaitzeko, azpimarratu nahiko nuke euskal gatazkaren alde batekoek zein bestekoek baliatutako biolentzia eta eragindako mina irudikatzearekin batera argi ageri dela indarkeriazko ekintzek horrelako ekintza gehiago baino ez dutela ekartzen, alegia, sorgin-gurpila etengabe elikatu baino ez dutela egiten. Alde horretatik, Andueza idazleak berak (Erdaide, 2023) azaltzen du bere ustez inor ez dela bizi inguruko ekintzekiko egoera neutro batean, eta horregatik, oso zaila egin zaiola obra hau idaztea, ez zuelako alegatu bat egin nahi, alegia, ez zuela inoren alde egin nahi. Gaineratzen duenez, bere asmoa inoren ekintzak justifikatu gabe alde bateko zein besteko mina irudikatzea izan da.

#### **6.2.6.20. Euskal gatazka. Beste obra batzuk**

Atal honetan bildu ditut euskal gatazka gai zentral gisa ez duten arren, testuinguruan edo aipamen laburren baten bitartez gai hori hizpide hartzen duten zenbait obra, jatorriz euskaraz sortutakoak.

##### **6.2.6.20.1. *Marigorringoak hegan***

Patxi Zubizarretak idatzi eta Jose M. Lavarellok ilustratutako 31 orrialdeko lan hau 5 urtetik gorako irakurleei zuzenduta dago eta Giltza-Edebé argitaletxean eman zen argitara 1994an. Kontakizunak mahaigaineratzen duen ideia nagusia da ea helburuak bitartekoak justifikatzen dituen, eta galdera hori euskal gatazkara mugatzea irakurketa mugatua eta erredukzionista egitea litzatekeen arren, ezin ukatu gai horri bete-betean eragiten diola. Modu sinbolikoan bada ere, hainbat ikertzailek (Etxaniz, 1996; Rodriguez, 2019) euskal gatazkari egindako erreferentzia gisa irakurri dute Zubizarretaren obra. Kontakizuneko narratzaile autodiegetikoa neskato gazte bat da eta bizilagunak lehortearen ondorioak pairatzen ari direla

azaltzen du. Horrekin batera, formula magiko baten berri ematen du: Marigorringoa eskuan jarri eta abestu ostean eskuan geratzen bada, orduan euria egingo du, eta animaliak hegan egiten badu, berriz, ez du euririk egingo (10). Neskatoak jakinarazten du urte lehor horretan marigorringoak ez direla eskuan geratzen (11), baina amona Paulak dioena gogorarazten du, tximeleta bat hiltzen denean zerua triste jarri eta euria egiten duela (18). Lehorte egoera horretan, tximeleta bat haurraren gelara sartzen da eta intsektua hiltzeko liburu bat eskuan duela, txikia pentsakor geratzen da, marigorringoa zapalduz gero euria egingo duela irudikatuz. Azkenean, baina, animalia aske uztea erabakitzen du eta bere harridurarako, egun horretan euria egiten du. Kontakizun labur honetan protagonistak erakusten du euria egiteko behar handia egonda ere, ez zaiola bidezkoa iruditzen tximeleta hiltzea eta beraz, helburu hori lortzeko bitarteko guztiak ez direla zilegi (ez behintzat helburua lortzeko norbaiti bizia kendu behar bazaio).

#### **6.2.6.20.2. Nire eskua zurean**

Mariasun Landak (Errenteria, 1949) idatzi eta Antton Olariagak (Usurbil, 1946) ilustratutako 56 orrialdeko lan hau 12 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta 1995ean eman zen argitara Erein argitaletxean. Gai nagusia jeloskortasuna eta familia-harremanak diren arren, badago aipu txiki bat liburua sail honetan sartzeko bide ematen duena. Xabi da istorio honetako narratzaile autodiegetiko gaztea eta egunerokoaren teknika erabilia, amak mutil-laguna duela konturatzeak sortzen dion amorrua eta horren ondoriozko ihesaldia kontatzen du. Aztergai dudan gaiari dagokionez, Irene pertsonaia azpimarratuko nuke, Xabiren amaren lagun mina; izan ere, haren bidez ETAko militante izandako eraildako pertsonaia bat agertzen da kontakizunean (40-41). Pasarte horrekin lotuta, eta bitxikeria modura bada ere, obra honen gaztelaniazko bertsioan egin den aldaketa batez ohartarazi nahiko nuke, autozentsurarekin lotura duena. Erka bitez jarraian datozen bi pasarteak: “Lehenago nobio bat izan zuela, ETAko militantea gainera, eta haren faltan bizi zela Irene gaixoa” (Landa, 1995: 41) eta “Que alguna vez tuvo un novio, alguien metido en política, alguien al que habían asesinado y al que ella no podía olvidar” (Landa, 1998: 49). Ikusten den moduan, gaztelaniazko autoitzulpenean “ETAko militantea” “politikan sartutako norbaitekin” ordezkatu da. Adibide txiki baina esanguratsu horrek Urribarriren (2013) esana berresten du, alegia, itzulpenei aplikatutako zentsura ez dela gertaera historiko hutsa, gaurkotasun osoa

baitu<sup>220</sup>. Bide batez, Landaren obraz ari naizela, ohartarazi nahiko nuke Asun Balzola ilustratzailearekin batera ondutako *Amona, zure Iholdi* (Erein, 2000) ez dudala gatazkari buruzko lanen atalean sartu baitut ez dagoela arrazoi nahikorik pentsatzeko kontakizuneko Martin hurrak parkean aurkitzen duen pistola euskal gatazkarekin lotuta dagoela.

#### **6.2.6.20.3. Benetako lagunen aterbea**

Pako Aristik 1998an Ibaizabal argitaletxean kaleratutako lana da 173 orrialdeko eleberri hau eta 12 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago. Joxetxo da istorio honetako protagonista eta narratzaile autodiegetikoa, hainbat urte kanpoan eman eta gero, bere jaioterria den Azpeitira itzultzen den 60 bat urteko gizona. Narrazioan zehar bost kidez osatutako bere txikitako lagun taldea aurkezten du, bai eta haiekin batera bizitako txikitako abenturak ere. Maitasun kontuak, bihurrikeriak eta bestelako pasadizoak aurki ditzake irakurleak orriotan. Esan bezala, hainbat urteren ondoren herrira itzultzen da Joxetxo eta lagunaren egoeraren berri ematen du. Tesi honetako aztergaiari dagokionez, interesgarria da Joxin lagunaz aipatzen duena, izan ere, jakinarazten du 10 urtez kartzelan egon zela, bai eta langileen borrokan hasi eta borroka berriago batean sartu zela gero: “gure Euskal Herri honen independentziarena” (162). Ez hori bakarrik, beste pertsonaia batek honakoa gaineratzen du: “Ia Espainia osoan ibili zitean batetik besta, espetxez espetxe, zigoretik zigorera, familia eta lagunengandik ahal zuten urrunena edukiz” (163). Ikus daitekeen moduan, aurreko aipuetan euskal gatazkari eta urrutze politikaren aferari egiten zaio erreferentzia.

#### **6.2.6.20.4. Gerturik daukagu odola**

Joxean Sagastizabalek (Eibar, 1956) idatzi eta Asisko Urmenetak (Iruñea, 1965)<sup>221</sup> ilustratutakoa da 83 orrialdeko lan hau, Pamiela argitaletxean argitara emandakoa 1999an, eta 12 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago. Benetan obra bitxia da, banpiroei buruzko eleberri erotiko eta fantastikoa izan arren, Euskal Herriko egoera politikoa eta euskal gatazkaren oihartzuna entzun baitaiteke, parodia, satira, umore eta ironia guztiaren atzean

---

<sup>220</sup> Jatorrizko testuan ageri zen elementu bat gaztelaniara itzultzen ez bada, edo elementu hori manipulaturik ageri bada, baliagarria izan ohi da ikertzea ea fenomeno hori xede-kulturaren ezaugarri jakin batzuek azal dezaketean, hala nola zentsura publiko esplizitu bat egotea, gizartean gai jakin baten inguruan indarrean dauden tabuak egotea, HGLk izan behar dituen ezaugarrien gaineko ikuskera ezberdina egotea, edo, oro har, haurren unibertsoaren gaineko bestelako ikusmoldea egotea (Martens, Soto eta Tena, 2016: 44-45).

<sup>221</sup> Zehatzagoak izateko, azaleko irudia Absurderena da, Asisko Urmeneta eta Marko Armspach-ek osatutako kolektiboarena, eta liburu barneko irudiak, berriz, Asisko Urmenetarenak.



bada ere. Etxanizek (2005b) dioen moduan, zalantzarik gabe obra hau da Euskal Herriko egoera politikoa gehien desmitifikatzen duen HGLko obretako bat. Ukitu iluneko azalean bertan antzematen da liburuaren tonua zein den. Protagonista ageri da hilerri batean, *Bakarka* liburua eskuan duela. Esan gabe doa liburu hori dela euskara bakarka ikasteko metodoa. Izenburuari erreparatuz gero, euskal irakurleak berehala antzemango du *Eusko gudariak* kantuari egiten diola erreferentzia eta gudarien ereserkiko metafora literalki hartuta eraikitzen da kontakizuna (alegia, odola aberriaren alde ematearen ideiatik abiatuta). Lege orriaren aurretik datorren portadatxo edo fatxada delakoan, azaleko irudia errepikatu ordez, tonu sexual handiko irudi bat gailentzen da, arreta ematen duena, kontuan hartuta gazteei zuzendutako obra bat dela<sup>222</sup>.

Istoriaa Euskal Herrian girotuta dago eta Rodolfo da protagonista eta narratzaile autodiegetikoa, Euskaltegian 4 urtez ibili eta gero, zomorro batek kosk egin eta banpiro bihurtu ostean euskara ikasteko metodoa aurkitzen duen ikaslea. Euskara euskaldun RH negatiboen odolean dagoela jakitean hainbat neurri hartuko ditu Lehendakariak, adibidez, odol banku bat sortzea, herritarrak berehala euskalduntzeko. Euskalduntzeko metodo hori, ordea, ez da guztien gustukoa izango. Euskaltegiako irakasle batzuek, lana galtzeko beldurraren aurrean, klandestinitatera ezkutatu eta Igor-gogor komandoa sortuko dute, eta erasoak burutuko dituzte euskalduntze modu hori eteteko helburuz. Esan gabe doa talde honen errepresentazioak etakideak ekartzen dituela gogora: aurpegi estaliak dituzte, talde-buruaren deiadarra entzutearekin batera ukabila altxatzen dute eta ekintzak burutzen dituzte (40-41). Lehenago aipatu dut umore eta satiraz zipriztindutako eleberria dela mintzagai dudana, baina esango nuke baliabide horiek kritika egiteko baliatzen direla. Ertzainen karakterizazioari erreparatzea aski da ezaugarri hori antzemateko (31). Esanguratsua da, adibidez, hirukotean sexua praktikatzen ari direla, Lourdes ertzainak Rodolfori belauniko jartzeko eskatzean azken horrek “zapalketa polizialaren mende” jartzen dela adierazten duela (47). “Maskuria-Enean”<sup>223</sup> dagoen Lehendakariari erreparatzea ere interesgarria da, esaten baita odola edan arren ez duela euskalduntzea lortzen (70), kritikaz betetako pasarte zalantzarik gabe. Irakurlearen barrea eragiten duten pasarteak hainbat dira,

---

<sup>222</sup> Biluzik dauden gizon bat eta bi emakume ageri dira. Emakumeetako bat lurrean eserita dago, batek hanketatik heltzen dio, besteak ordea, titipuntak estutzen dizkio. Neska horrek txapela gorria eta porra bat dauka gerriari lotuta, ertzaina baita (4-5). Lege orriaren ostean datorren irudian emakume hori agertzen da, eta porraren heldulekuarekin masturbatzen ari da (7). Eszena hori liburuaren erdialdera deskribatzen da, ekintza sexuala nola gauzatzen duten deskribatzen baita (46-47). Ikus daitekeenez, nola edo hala erridikulizatu egiten da ertzaina. Liburuan zehar, hala testuan nola irudietan, sexu-eszena ugari agertzen dira, baita felazioak, masturbatzeko modu diferenteak edo larrutan egiteko modu diferenteen azalpenak ere (23-24, 25, 27, 48, 58-59).

<sup>223</sup> Ohar bedi zein izen (barregarria) ematen zaion EAEko lehendakariaren bizitoki ofiziala den Ajuria Eneari.

adibidez, emakume birjinak aurkitzeko helburuz ustez birjina delakoan elkarrizketatzen duten Nere Azpitarte Zabala aipatzen denean (55). Azkenik, aipatu nahiko nuke liburu bitxia dela, irakurlea epel uzten ez duena.

#### **6.2.6.20.5. *Kandinskyren tradizioa***

Euskal Herriko memoria historikoari buruz asko idatzi duen Ramon Saizarbitoriaren (Donostia, 1944) lehenengo HGLko obra da 84 orrialdeko eleberri errealista hau<sup>224</sup>, Ereinen argitaratua 2003an. Hamalau urtetik gorako irakurleei zuzendutako obra honetan euskal gatazka ez da gai zentral gisa ageri, baina pertsonaia nagusiek bizi duten testuinguruan agertzen da. Miren gaztea da kontakizuneko protagonista eta Aitorrekin duen harremana deskribatzen du lehen pertsonan, besteak beste, lehen amodioa, lehen sexu harremana, harekin dituen liskarrak eta abandonu sentimendua. Nobelaren amaiera aldera, bikotea hoteleko ohean dagoela, bonba batek eztanda egiten du (67) eta narratzaileak jakinarazten du dauden tokitik gertu izan dela leherketa, poliziaren eta anbulantziaren sirena hotsak entzuten baititu (70). Horrekin batera, leherketaren ostean hoteletik metro gutxira Guardia Zibilak jarritako polizia kontrola (72) aipatzen da, baita ertzainen kontrola ere (73-74). Ikus daitekeen moduan, arestian aipatutako gertakari horiek ez dute kontakizunaren norabidean aldaketarik eragiten, baina euskal gatazkaren oihartzuna antzeman daiteke testuinguruan.

#### **6.2.6.20.6. *Goizeko zazpiak***

Nora Arbelbidek (Uharte Garazi, 1980) idatzitako 260 orrialdeko intrigazko eleberri hau 12 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta 2006an eman zen argitara Elkarren. Euskal gatazkaz mintzo ez den arren, testuinguruan agertzen da, zeharka bada ere. Gazteluma Saria eskuratu zuen kontakizun hau XXI. mendeko lehen hamarkadako Lineria izeneko fikziozko herrian girotua dago, baina ematen diren erreferentzia eta deskribapen guztiek argi uzten dute Ipar Euskal Herria dela kokalekua. Narratzaile orojakileak ematen du jakitera Super Zazpiak musika taldea bahitu dutela eta kazetaria den Argitxu protagonistak, Iñaki lagunarekin batera, bahiketa argitu eta erreportajea eginez eskusiba ematea duela helburu. Euskal Herriko zazpi probintzietako kideekin osatutako taldearen bahiketaren ikerketaren

---

<sup>224</sup> Ur Apalategik (2009) esan bezala, idazle donostiarrak beti erabili du Historia bere estetika errealistaren berme gisa eta esango nuke Saizarbitoriaren obraz hitz egiterakoan memoria historikoaren gaiari ematen dion zentraltasuna aipatu behar dela ezinbestean, hainbat baitira Gerra Zibilean edo euskal gatazkan oinarritutako lanak, lehenago aipatutako Arroitzaren tesiak (2015) erakusten duen moduan.

berri ematen zaio irakurleari, baita gertaerak inguruan sortzen duen erreakzioen berri ere. Liburuaren bukaeran bahiketa muntaia izan dela argitzen den arren, euskal gatazkarekin lotutako ekintza bat izan dela iradokitzen da, esaten baita terroristak daudela bahiketaren atzean (41). Batetik, bahituak aurkitzeko polizia-antiterrorista aritzen da lanean (36), Kastileoneko (Espainia dago izen horren atzean) zerbitzuekin batera (51). Bestetik, euskal preso politikoekin hainbestetan erabili diren leloak agertzen dira musika taldearen aldeko aldarrietan, adibidez, hainbat kapituluren hasieran epigrafe gisa errepikatzen den, “Gorri, Juju, Amaia la Bomba, Seastian, Leantxa, Marijo, Pelot askatu +X egun” egitura duen aldarrian (48, 55, 66, 72, 89, 125, 188, 231), hau da, bahituak askatzea eskatzen duen adierazpenean, bahiketatik zenbat egun igaro diren zehazten duena; edo elkarretaratzetako pankarta eta elkartasun mezuetan adierazten duten “Etxean behar ditugu. Utz lineria bakean” (45) eta “Lineriko presoak etxera” (84) aldarrikapenetan. Ezin aipatu gabe utzi bahitzaileek diru eske bidalitako gutun anonimoa eta haien eskaeraren aurrean politikarien negoziatzeko ukapena (161). Gatazkarekin lotutako bestelako oihartzunak ere badira, maparekin galduta kotxean doazen bidaiarien pentsamendu honetan ikus daitekeen moduan: “nazionalista terrorista horiek bide seinaleak beltzez tindatu dituzte” (85). Ildo bertsutik, jakinarazten da kanpotarrek ez dutela herriarekiko interesik izan harik eta *terrorismo* hitza entzun duten arte (37). Albistegietan aipatzen diren hitzek ere gatazka testuinguru horren berri ematen dute: “Terreur, terrorismo beldurra, Secuestro, prise d’otage, bahiketa” (39) edo “La Linery, terre de sécession. Le Pays a peur. Son terrorisme resurgit” (40). Borroka armatuari buruzko gogoetaren bat edo beste tartekatzen da ere, adibidez, pertsonaietako batek dioenean ez duela zentzurik bonbak jartzea independentzia lortzeko (246). Gerra zikina eta GALen garaia ere aipatzen da (nahiz eta G.U.A.L.L. izena ematen zaion erakunde horri), gaineratuz arrazoi argirik gabe tiroz hil zutela jendea (134).

Euskal gatazkaz gain, Bigarren Mundu Gerra ere aipatzen da, nahiz eta alemaniarrei Üllimanan deitu, zehazki haien erruz giroa usteldu eta herritarrak abere bihurtarazi zituztela azalduz (134). Ez hori bakarrik, protagonistak elkarrizketatzen duen Marixan ibarneburutarrak aipatzen du gerra garaian ahizpa eraman zutela, auzokide batek Üllimanei gutun anonimo bat bidalita salatu eta gero, lehenik Rabenbükera eta gero Muthausen-era (224). Horren harira, elkarrizketatzaileari gaineratzen dio garai horri buruzko beste erreportaje bat egin beharko lukeela, hori ere haien historia delako, ez urruneko tokietan gertatutako zerbait (224). Bide batez, Marixanen kontakizun hori memoria komunikatiboaren adibide da. Azkenik, ez nuke aipatu gabe utzi nahi kazetarien eginkizunari buruzko

hausnarketak eta kazetaritzaren inguruko gogoeta zenbait ageri direla liburu osoan zehar, bestelako gaiekin batera: politikarien ustelkeria, krisialdia, langabezia, ekonomiaren hazkundera, errentagarritasuna, merkatu-legeak, gehiegizko informazioa, kontsumismoa eta kontsumo kultura, kolonizazioa, hizkuntza asimilazioa (frantsesaren eta gaztelaniaren nagusitasuna euskararen kaltetan), prekarietatea, familia ereduak edo bikote harremanak, besteak beste<sup>225</sup>.

#### **6.2.6.20.7. Zimaren abenturak**

Belen Gonzalezek (Lazkao, 1956) idatzi eta Kepa Etxeberriak (Donostia, 1975) ilustratutako 116 orrialdeko lana da hau, 2008an Ataramiñek argitara emandakoa. Bederatzi ataletan banatutako ipuina da. Zima neskatoa da protagonista eta egiten dituen bidaien berri ematen du narratzaile orojakileak. Uharte batean altxor bat aurkitzen du: Euskal Herriko altxorrik preziatuena den pergamino bat. Baina idatzita dagoen esaldia ulertu ez eta hura argitzeko asmoz Euskal Herrira itzultzen da. Bertan, fraideekin eta euskal gaietan adituak diren beste hainbatekin elkartzen da eta inskripzioko esanahia argitzeko helburuarekin, sare bat jartzen dute martxan. Interesgarria da pertsonaia batek aipatzen duena, esaldiaren kopiak egin eta kideen artean banatuko dituela esaten baitu, honakoa gaineratuz: “Gure artean, ezkutatuta dabilen Sarriri agindu bera emango diogu, berak ongi ezagutzen baititu euskararen bide zidorrak” (113). Pasarte horretan, interesgarriena ez da Joseba Sarrionandiari egiten zaion erreferentzia (irudietan erraz antzeman daiteke iurretarraren aurpegia), baizik eta gure artean postposizio sintagma, pertsonaia hori, iheslaria, mugalaria, komandokidea edo haien gertuko norbait dela ematen baitu aditzera. Horrekin batera, Bakartxo izeneko neska batek jakinarazten du espetxean dauden kideei ere helaraziko diela eta irudietan espetxean dauden bi kide ageri dira, paretan ikurrina dutela (113). Azkenik, Txomin izeneko beste batek urtebete barru berriz biltzea proposatzen du eta narratzaileak irakurleari jakinarazten dio “berak bestelako lanetan ari ziren kideengana itzuliko zela esan eta alde egin zue[la]” (114). Egia da euskal gatazkaren gaia oso modu azalekoan baino ez dela aipatzen, baina ipuin honek gatazkaren lanketari bide eman liezaioke.

---

<sup>225</sup> Nazioaz ematen den ikuspegian sakontzeko, egileak darabilen hizkuntzan edo obraren formari buruzko bestelako xehetasunetarako, irakurleak Gema Lasarteren (2011) tesira jo dezake.

#### **6.2.6.20.8. Pistolak eta epistolak**

Joan Mari Irigoienek (1948-2023) 2014an Elkar argitaletxean argitaratu zuen 230 orrialdeko eleberri hau eta 12 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago. Benetan lan bitxia iruditzen zait, guztiz politikoa, azaletik bertatik irakurtzeko gogoia pizten duena. Hizki larriz idatzitako “Ez irakurri. Debekatua” ohar gorri batek erakartzen du irakurlearen arreta lehen begi-kolpean. Atzeko planoan, koaderno orri batean idatzitakoak irakur daitezke, zeinetan egilea liburuaren hartzaileari zuzen zaion. Liburuaren eskuetara heldu denez gero eta ez irakurtzeko dioen oharrari kasurik ez egitea erabaki duenez gero, aholku batzuk emango dizkiola aipatzen du eta horrekin batera, lanean zehar hizpide izango dituen gaietako batzuk zeintzuk izango diren aipatzen dizkio. Liburuaren barnealdera jauzi eginda, Alberto Ruiz-Gallardón fiskal eta politikariaren Kode Penalaren sei adibide ematen dira, zeinetan legearen zentzugabekeria eta gehiegikeriak agerian jartzen diren: “Poliziak bere autoritateaz abusatzea eta indarkeria erabiltzea ez dira delitu. Autoritateari aurre egiten badiozu, zuloan sar zaitzakete, lau urterako” (8). Ondoren, irakurle gazteari zuzendutako atarikoia dator (liburuko azalean ematen den testu zatiaren bertsio osoa) eta bertan egileak argi uzten du irakurlea limurtu nahi duela, gai batzuei buruz pentsarazteko eta aholku zenbait emateko.

Urunia izeneko fikziozko hirian kokatzen da trama nagusia, baina izen horrek Iruñeari egiten dio erreferentzia, egileak berak aipatzen baitu datu hori (20). Gainera, Nafarroako hiriburuarekin lotzen duten erreferentziak ematen dira, adibidez, auzoen izenak (163). Isteriozko pertsonaia nagusietako bat den Don Pedro Aizcorreta alkate autoritarioa (botereaz eta bere buruaz maitemindutako gizona) Yolanda Barcinari ematen dion izena da eta esplizituki adierazten du egileak hala deituko diola 1999tik 2011ra Iruñeko alkate izan zenari (20). Denborari dagokionez, aurreko datuek iradokitzen duten moduan, eleberria XXI. mende hasieran dago girotua (25) eta gehiago zehaztu nahi izatekotan, lehenengo hamarkadara mugatu daiteke kontakizuna, izan ere, egileak berak aipatzen du liburuaren 2011n idatzia izan zela (141). Aipatzen diren gertaera gehienak garai horretakoak dira. Esan daiteke lan honek Euskal Herriko egoera soziopolitikoaren irrimarra egiten duela eta parodia eta ironia bezalako baliabideak erabilia, hainbat auzi salatzen dituela: inposizio linguistikoa eta hizkuntza eskubide urraketak (19), armen salerosketak (100, 153-154, 222), monarkia (222), ertzainen gehiegikeria (102) eta poliziaren torturak (196, 204), boterearen gehiegikeriak, politikariaren ustelkeria edo gizarte kontrola, besteak beste. Tesiko aztergai zehatzari dagokionez, Gerra Zibilari egindako aipamen pare bat aurki dezake irakurleak obra honetan, aipu honetan ikus daitekeen legez:

Ezin inola ere ahanz 1936ko gerra, zeinean nafar batzuek bertzeak menderatu baitzituzten. Garbitu ere bai anitz. Baina gerrak ez dira irabazten, eta gero, bat-batean, ahanzten... baizik eta garaileek beren politika egiteko modua ezar dezaten. Horrela sendotu zuten frankistek beren eremua Nafarroan urte luzeetan, eta horrela irabazi zituzten lehen hauteskunde demokratikoak, hurrengoak eta hurrengoak: irabaziko ez zituzten, bada, demokraziaren jokia abantailaz jokatzen zuten-eta...(28).

Beste pasarte batean, 1936ko gerran sekulako garrantzia izan zuen Ezkaba mendiko gotorlekua (San Kristobal) aipatzen da eta jakinarazten da frankistek errepublikar ugari hil zituztela bertan, tartean idazlearen osaba, nazionalista izateagatik atxilotu eta libre zela esan ostean tiroz hil zutena (116). Ez hori bakarrik, hiltzaileen artean egungo eskuineko militante askoren guraso eta aitona-amonak daudela iradokitzen da eta horrelako kontuak egungo eskoletan irakatsi beharko lirakeela aldarrikatzen da (117). Arestian aipatutakoarekin lotuta, galtzaileek haien historia idazteko beharraz hitz egiten da, hau da, haien ikuspuntutik idatzitako historiaren beharraz, eta euskaldunok geure historia kontatzen hasi behar gara aldarrikatzen da (196-19). Demokraziari kritika zorrotza egiten zaio orriotan, besteak beste, kapitalaren diktadura estaltzen duen mozorroa dela esanez. Euskal gatazkari egindako keinu edo aipamen laburrak aurki daitezke aztergai dudan liburuan. Bestelako azalpenik ematen ez bada ere, Felipe González izenaren ondoan GAL ageri da, nahiko modu bitxian bada ere:

Guztiak omen gara berdinak konstituzioaren aitzinean, baina zu ez zara azaburua ez artaburua, eta argi ikusi duzu jada ezetz [...] ez da berdina, halaber, izen-deitura batzuk edo bertzeak izatea: Felipe González edo Gonzalo De Felipe... partida batean berdin ez den bezala IRABAZtea, ADOS- tea edo GALTzea: "1", "X", "2"... (114-115).

Beste pasarte batean *Euskaldunon Egunkariak* jasan zuen jazarpena eta itxiera kontatzen da eta Juan del Colmo (Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Juan del Olmori ematen zaion izena) seinalatzen da itxieraren erruduntzat. Horrez gain, egunkariaren zuzendaritzako kideak atxilotu eta torturatu zituztela aipatzen da, eta horrekin lotuta, boterearekin ez lerratzeak dakartzan arriskuez ohartarazten da: “Hain da, izan ere, arriskutsua, boterearen aurkako politikan sartzea. Hain da, izan ere, kaltegarria. Hain da zuhurgabea” (101). Istorioan aipatzen da zenbait kolektibok zigor gehigarria jasoko dutela eta horien artean euskalduntasuna agertzen da (40), euskal gatazkarekin lotu daitekeena nire ustez, historiak frogatu duenez gero autoritatearen kontrako erasoetan euskalduna izateak eragin negatiboa izan ohi duela (terrorismozat hartu izan direlako horrelako erasoetako asko eta asko). Liburuaren hasieran, poliziari muturrekoren bat eman dioten langileak hartzen ditu

ahotan eta irakurleari adierazten dio adibide horrekin ez dela borroka-mota hori proposatzen ari. Esanak esan, honakoa gaineratzen du egileak: “Antzekorik proposatu nahiko banizu, gainera, zeharka adieraziko nizuke, ongitxo dakit-eta -euskaldun izateak zenbat balio duen...!-garzonsauroen eremuan sar naitekeela” (17). Horrekin batera, oin-ohar bat txertatzen du, Garzón epaileak hainbat tortura kasurekin ez ikusiarena egin zuela salatzeke (17). Beste pasarte batzuetan ere hartzen dira torturak hizpide, adibidez, hiriko alkateak *bainerak*, *poltsak* eta *pikanak* izeneko tortua mota *zaharrak* atzean utzi behar dituztela aipatzen duenean (35). Ez hori bakarrik, kontakizuneko poliziek atxilotuak torturatzen dituztela iradokitzen da hainbat pasartetan (196, 204) eta aipatzen da talde terroristen aurkako borrokan torturarik ankerrenak eta arma guztiak erabiltzeko prest daudela politikariak (100).

Bukatzen joateko, agerian jarri nahiko nuke liburuak politikari ugari aipatzen dituela, betiere kritika gogorra egiteko. Horien artean Makiavelo (174), Stalin (219, 220) edo Berlusconi (29, 174) dira aipagarrienak. Horiez gain, hainbat filosofo aipatzen dira, besteak beste, Miletoko Tales, Parmenides, Pitagoras, Descartes, Diogenes, Habermas (11) edo Lao Tse (15); baita Marx eta Engels, Trotski, Bakunin, Sabino Arana, Krutwig edo Saseta eta Sarasketa bezalako pentsalari edota iraultzaileak ere (13). Fisikariak ez dira falta, Einstein edo Bohr aipatzen baitira (12), ezta literaturaren alorreko pertsonak ere, Mario Benedetti idazle uruguaytarraren (230), Kafka idazlearen (230) edo Verlaine, Baudelaire eta Rimbaud poeta frantsen (168) alboan Jose Luis Otamendi (170), Koldo Izagirre edo Juan Mari Lekuonaren (173) liburu bana aipatzen baita. Azkenik, azpimarratu nahiko nuke Irigoienek liburu honek hausnartzeko eta gogoeta egiteko gai ugari dakartzala. Kontakizunean zehar etenak egin eta irakurleari zuzenduz, haren parte-hartzea bultzatzen du. Liburuaren amaiera aldera, mundua aldatzeko tresna berriak sortzeaz hitz egiten du egileak eta demokraziak eskaintzen dituen zirrikituak ahalik eta hobekien aprobetxatzeaz mintzo da. Ez hori bakarrik, Gene Sharpek idatzitako *Indarkeriarik gabeko ekintzen politika* saiakera kontuan hartzera animatzen du idazlea (221). Esandakoak esanda, irakurlea epel uzten ez duen lana da eta gazteak mugiarazi nahi dituen.

#### **6.2.6.20.9. Martxa eta borroka!**

Uxue Alberdik idatzi eta Patxi Peláezek ilustratutako lan hau 10 urtetik gorako irakurleei zuzendua dago eta 2016an eman zen argitara, Elkar/Katxiporreta/Ikastolen Elkartearen eskutik. “Lur eta Amets. Euskal Herriaren historia. Ipuinak” bildumaren parte da,

Frankismoaren atalean aztertutako *Martxa eta borroka!* obra bezala. Aztergai dudan 32 orrialdeko ipuin honetan Frankismoari egindako aipamen txiki bat eta euskal gatazkari egindako keinu txiki bat aurki daitezke. Narratzaile orojakileak ematen duen kontakizuna Euskal Herrian girotua dago, zehazki Elgoibarren. Herriaren izena aipatzen ez bada ere, Deba ibaia eta Maalako zubia aipatzen dira, baita uholde ikaragarri bat ere (1983ko abuztuan Elgoibarrek izugarrizko uholdeei egin behar izan zien aurre Deba ibaiak gainezka egin zuenean). Liburuaren hasieran, Lur eta Amets protagonistak Andere amonarenean daude zuri-beltzeko telebistari begira eta egutegiak 1983ko abuztua dela ematen du jakitera. Biloben asperguraren aurrean, amonak Frankismo garaia ekartzen du gogora, euskarazko telebistarik ez zuten garaia, gaineratuz 8 urte lehenago, 1975eko azaroaren 20an, zuri-beltzeko telebistak jakinarazi zuela “Españoles, Franco ha muerto” (1) eta xanpain botila hustu zuela orduan.

Aurrerago, soldaduskara deitu duten Lur eta Ametsen lehengusu Felix etxean agertu eta hurrengo eguneko Hertzainak taldearen kontzertuko kartelak pegatzera joaten da protagonistekin batera. Interesgarria da irudiei erreparatzea horman ageri diren kartelak zeintzuk diren ikusteko. Hertzainaken kartel bat, OTANen aurkako afixa bat, emakumeen bortxaketen eta tratu txarren aurkako bat, Euskadiko Mugimendu Komunistak eta Euskadiko Gazteria Gorriak sinatutako soldaduskaren eta ejerzitoaren aurkako beste bat<sup>226</sup> eta euskal gatazka islatzen duen beste bat, zeinetan “4 urtemuga eta kapitalaren aurka. Biolentzia egitea ahaztu gabe!” jartzeaz gain, “Pasaiko hilketa” irakur daiteen, Eskorbuto, RIP eta bestelako taldeen izenekin batera (7). Aipatzekoa da ere, afixak jartzeaz gain, lehengusuak soldaduskaren aurkako pintaketa bat egin (7-8) eta udaltzain-buruak kalabozoan sartzen dituela hiruak. Bertan neska gazte batekin egiten dute topo eta agian irakurle bat baino gehiagoren harridurarako, lehengusuak esplizituki adierazten du neska heroinazalea dela eta monoarekin dagoela, hori zer den azaltzeaz batera (11). Halaber, irudietan hotzikaraz dagoen neskaren begizuloak antzeman daitezke (12, 14). Esango nuke ipuin honen gaia elkartasuna dela, izan ere, monoa pasatzen ari den neska laguntzeaz gain, uholdearen ondorioz kaltetutako gaztetxea denen artean konpontzea eta Hertzainaken<sup>227</sup> kontzertua bertan ematea lortzen dute (29). Horrez gain, esango nuke soldaduskaren aurkako mezua eman nahi duela ipuinak, lehengusuaren ukoaz gain, hari bidalitako gutuna ibaira botatzen baitute, kalabozoko giltzekin batera (29). Ekintza hori indarkeriaren aurkako aldarrizat har litekeela iruditzen zait. Mezuez

---

<sup>226</sup> Euskadiko Gazteria Gorria (EGG) Euskadiko Mugimendu Komunita (EMK) alderdiko gazteen erakundea izan zen, 1975. urtean *Jaiki Gazteria* aldizkaria kaleratu zuena. Kartelak Eduardo Serra ministroaren karikatura dakar.

<sup>227</sup> Bitxikeria modura bada ere, aipatzekoa da ipuinean Hertzainak taldeko Gari abeslaria eta Josu ezagutzen dutela bi anai-arrebek eta haien errepresentazioak ageri direla irudietan (23, 25, 26).



ari naizela, izenburua bera azpimarratuko nuke “martxa eta borroka”, zeinak jaiak borroka ideologiko-politikoarekin uztartzea eskatzen zuen 80ko hamarkadako aldarriari egiten baition erreferentzia (egun ere zenbait sektorek baliatzen dutena). Horrez gain, gaztetxean bildutakoek abesten duten Hertzainaken *Pakean utzi arte* (31) edota amonaren kamisetan ikus daitekeen nuklearren aurkako kamiseta (28) aipatuko nuke, baita biloben purrustaden aurrean amonak murmurikatzen duen “gazte gara gazte eta ez gaude konforme” (5), Lourdes Iriondoren injustiziaren aurkako kantu ezagunari egindako erreferentzia garbia. Azkenik, adierazi nahiko nuke kontakizun osoan zehar transmititzen diren mezu horiek narratzaileak eman baino, irudien bidez edo elkarrizketen bidez ematen direla.

#### **6.2.6.20.10. *Santa familia***

Eider Rodriguezek (Errenteria, 1977) idatzi eta Julen Ribasek (Arrasate, 1981) ilustratutako komiki hau 2017an eman zen argitara Ikastolen Elkartearen eskutik eta hamabi bat urtetik gorako irakurleei zuzendua dago. Familia tradizionalari egindako kritika aurki dezake irakurleak orriotan, betiere ironia eta umorez zipriztindurik. 2018an Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria eskuratu zuen lan honetan euskal gatazka ez da inondik inora gai zentral gisa ageri eta ezin esan daiteke bere oihartzunak eraginik duenik kontakizunean, obrak betetzen dituen berrogeita zortzi orrialdeetan keinu bakarra ageri baita, bineta bakarrean, eta bisualki egiten zaio erreferentzia euskal gatazkari. Pasarte horretan, 1977ko Pasaia ageri da eta zubi baten azpian *amnistia* hitza ageri da gorritz margotua, azpian Eduardo Txillidak 1977an diseinatutako Amnistiaren Aldeko Batzordeen ikurra duela (11). Pasaia linguistikoaren parte den irudi horrek kontakizuna bere testuinguru sozio-politikoan kokatzen laguntzen du, baina horrez gain, ez dago inolako aipamen edo hausnarketarik narratzaile edo pertsonaiaren aldetik; eta arestian esan bezala, irudi horrek ez du bestelako eraginik istorioaren garapen edo traman. Hori horrela, eta euskal gatazkaren erreferentzia hain azalekoa izanda, ez naiz komikiaren azterketa xehean sartuko. Dena den, irakurleak obraren gaineko azterketa zehatzagoa nahiko balu, Urzelai-Vicenteren (2022) artikulura jo lezake. Egia bada ere komiki honek euskal gatazka lantzeko aitzakia txiki bat eskain dezakeela, aitortu behar dut obra hau egokiagoa dela bestelako gai batzuk lantzeko: familia ereduak, gurasotasuna, nerabezaroko identitate krisiak, edertasun kanonak, harreman motak edo jatorriak eragindako bizi-maila besteak beste.

#### 6.2.6.20.11. Txori mezulariak

Ipuin hau Joseba Erostegi “Eltzikorta” (Antzuola, 1953) preso ohiak idatzi eta Lorea Erostegik ilustratutakoa da eta Ataramiñek eman zuen argitara 2018an. Egileari dagokionez, 1997an atxilotu zuten Ortega Lara kartzela funtzionario ohiaren bahiketaren harira eta 22 urte eman zituen preso Euskal Herritik kanpoko espetxeetan. Sormen lanei dagokienez, jarraian aztertuko dudanarekin batera, *Amonaren ipuin magikoak* izeneko ipuina argitaratu zuen 2019an, hori ere Lorea Erostegiren irudiz jantzita. Berez, 32 orrialde hartzen dituen istorioak ez dauka loturarik euskal gatazkarekin, baina paratestuan (eskertzan eta hitzaurrean) ematen den informazioak, aldiz, bete-betean egiten dio erreferentziak gai horri. Egileek egindako eskaintza banak ematen dio hasiera liburuari. Familia eta lagunak aipatzeaz batera, motxiladun haurrei, espetxealdian Joseba Elosegiri idatzi zioten umeei, euskal preso eta iheslari guztiei eta Mirentxin gidariei egiten zaie eskaintza. Jarraian datorren hitzaurrean, argitaletxearen izenean, obraren sortze testuingurua azaltzen zaio irakurleari. Funtsean, kontakizunaren oinarrian preso dagoen osabaren eta haren ilobaren arteko mezuak daudela azaltzen da. Horrekin batera, irakurleari ohartarazten zaio kolorez adierazita dauden hutsune batzuk aurkituko dituela narrazioan zehar eta berak bete beharko dituela horiek (tokien eta pertsonaien izenak). Planteamendu horrek irakurlearen parte hartzea bultzatzea izan lezake helburu, eta era berean, istorioa gertuagokoa egitea (egia esan, planteamendu horrek ez nau asko konbentzitu). Ia-ia orrialde guztiek testua eta irudiak tartekatzen dituzte, eta azken horri dagokionez, badirudi haur batek egindakoak direla. Hasieran, istorioa Euskal Herrian kokatzen du narratzaileak eta izenik ematen ez zaion haur baten jaiotza deskribatzen da. Hurrengo orrialdeetan, ume horren hazte prozesua irudikatzen da. Txikiak Mari Domingi eta Olentzerori opariak eskatuko dizkio: berarentzat eta udaro haien etxean hartzen duten Sumaya Sahararrantzat bizikleta bana. Oparia lagunari bidali ondoren, beste lagun batekin batera mendira abiatuko da, Mari Domingiri eta Olentzerori eskerrak emateko asmoz. Mendizale batek azalduko die okilek mezuak helarazten dizkiela Mari Domingiri eta Olentzerori eta haien eskertza txoriei kantatuz gero, hegaztiak helaraziko diela mezua biei. Aipatzekoa da okila dela liburuaren azalean ageri den hegaztia eta izenburuari erreferentzia egiten diola horrek, okilak baitira txori mezulariak. Bi haurrek mendian ikasitakoa kontatuko die herriko gainerako haurrei eta horiek ere, handik aurrera, Mari Domingiri eta Olentzerori gutunak idatzi ostean, zuhaitzean dabiltzan txoriei esango diete zein opari nahi duten. “Eta hala bazan edo ez bazan... bakoitzaren desirak sar daitezela gutun azaletan, ateratzeko, LIBRE, Euskal Herriko zelai zabaletan!” (32). Liburuari amaiera ematen dion azken mezu horretan, agian

euskal gatazkarekin egindako lotura txiki bat aurkituko du irakurleren batek. Lerro horiek hitzaurreko esaldi honekin egiten dute lotura: “Kasu honetan, espetxearen errealitatea, bere zerumuga urratzen duen burdin elorri arantzez josia, gainditu du txori mezularien hegaldi txikiak” (4). Azkenik, esan dezadan hizkerari dagokionez, esaldi laburrez osatutako kontakizuna dela eta galdera-erantzun estiloan eraikitzen dela narrazio osoa. Egia da sei urtetik gorako irakurlea helburu duela, baina nire ustez, nahiko sinplea da hizkuntza aldetik, sinpleegia agian.

#### **6.2.6.20.12. Amonaren ipuin magikoak**

Arestian aztertutako obra bezala, honako hau ere Joseba Erostegei “Eltzikorta”-k idatzi eta Lorea Erostegei irudiz jantzitakoa da, Ataramiñek argitara emandakoa 2019an. Hogeita zazpi orrialdeko ipuin honetan, aurrekoan bezala, hutsune batzuk utzi dira, irakurleak nahi dituen pertsonaia eta tokiekin betetzeko (aipatu dudan moduan, mekanismo horrek ez nau batere konbentzitu eta uste dut oraingo honetan gehiago astuntzen dela irakurketa). Hitzaurreak, aurreko obraren ildoari eusten dio. Espetxealdian bidelagun izan dituen lagunei eta senideei eskerrak emateaz gain, Mirentxineko gidariei eskaintzen die bi egileek obra:

Ipuineko ontziak, kontakizuneko protagonistak urrutiko lurraldera eramaten dituen bezala, Mirentxin ontziak mila bidai egiten ditu etxeakoak eta lagunak eramanaz elkartasunaren eta maitasunaren bideetatik sakabanaketaren lur arrotzera, bisita bakoitza egun magiko bihurtuz (5).

Inguruko hurrei euskal mitologiarekin lotutako ipuinak (Anbotoko Mari, Basajaun, Basandere, Jentilak) eta egindako bidaiak kontatzen dizkien amona ageri da, Mirentxin ontzian sartu eta istorioen bidez bidaia magikoak egiten dituen hurrekin batera. Euskal Herritik abiatu eta urrutiko lurraldeak bisitatuko dituzte amonarekin batera, lagun berriak ezagutzuz, hizkuntzak eta dantzak ikasiz eta Pirritx, Porrotx eta Marimototxen abestiak kantatuz (23). Egia da istorioak berak ez duela loturarik euskal gatazkarekin, baina aurreratu dudan moduan, elementu paratestualek errealitate horri erreferentzia egiten diote. Ez hori bakarrik, azalean eta liburu barruan hainbat aldiz (10, 24, 27) ageri den Mirentxin ontziaren kaskoan euskal presoek etxeratzearen aldeko bandera antzeman dezake irakurleak, *Mirentxin* izenaren alboan bi gezi ageri baitira. Ontziaren goiko aldean, berriz, lauburua ageri da ikurrinarekin batera.

## 7. ANALISIAN LORTUTAKO EMAITZAK

Jarraian datorren atal honetan, analisi kritikotik eratorritako emaitza azpimarragarrienak laburbildu ditut, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartuz.

Guztira 77 obrak osatu dute tesiko corpusa eta horiek izan dira xeheki aztertu ditudanak. Azpimarratzekoa da liburu batzuetan gerra edo gatazka bat baino gehiago hartzen dela hizpide. Gerra Karlistak aipatzen dituzten hamabi obra aztertu ditut. Horietako zortzitan Lehen Gerra Karlista ageri da eta Bigarren Gerra Karlista, berriz, lautan. Mundu gerrei dagokienez, hutsune nabarmena aurkitu zuen Etxanizek (2016b), eta horren aurrean, irabazitako literaturaren barruan koka daitezkeen lan batzuk eta itzulpen bidez sartutako beste batzuk aipatu zituen. Nire corpusean, ordea, jatorriz euskaraz idatzitako HGLko lanak soilik sartu ditut. Lehen Mundu Gerrari dagokionez, esanguratsua da ezein liburutan ez dela gai zentrala izan, nahiz eta bost liburutan aurkitu dudan horren aipamenik. Itzulpen bidez sartu dira guda horri buruzko lanak euskal HGL sistemara, baina ez dira Euskal Herrian girotutakoak. Bestalde, Bigarren Mundu Gerrak lehenengoak baino presentzia altuagoa duen arren, corpusa ez da oso zabala: hamahiru obrak egiten diote aipamena, baina horietako lautan du nolabaiteko zentraltasuna. Galiziar HGLn mundu gerrek izandako agerpena aztertu zuen Neirak (2016) datu antzekoak lortu zituen literatur sistema horri dagokionez, jatorriz galizieraz idatzitako Lehen Mundu Gerrari buruzko obra bakarra aurkitu baitzuen, eta Bigarren Mundu Gerraren kasuan, berriz, bederatzi. Gainerakoak itzulpen lanak zirela baieztatu zuen.

Gerra Zibilak edo memoria historikoak HGLn izan duen errepresentazioari buruzko lau monografiko idatzi ziren, zeinetan euskal HGL ere aztertzen den (Roig, Lucas eta Soto, 2008; Roig, Ruzicka eta Ramos, 2012; Roig eta Ruzicka, 2014; Krawatzek eta Friess, 2022). Lan horiek bat datoz baieztatzean gutxi direla euskal HGLn 1936ko gerrari buruzko liburuak. Orotara, lau baino ez dituzte aipatzen (nire corpusaren parte direnak). Dena den, tesi honek frogatzen du monografiko horietan esaten dena ez dela betetzen corpus honetan; izan ere, tesian egindako azterketak erakusten du, zalantzarik gabe, Gerra Zibila dela tesi honetako corpusean gehien ageri den gaia, hogeita hamar agerpenekin (horietako hamaseitan gai zentrala da). Datu horrek bat egiten du helduen literaturakoekin, eta gaineratzekoa da Euskal Herriak jasandako gerretatik Gerra Zibila dela diskurtso memoristiko handiena sortu duena (Olaziregi eta Otaegi, 2011). Esan gabe doa helduei zuzendutako literaturan HGLn baino askoz gehiagotan agertzen dela mintzagai dudan gaia. Aitortu behar dut maiz ez dela erraza

Gerra Zibilaren eta Frankismoaren arteko bereizketa egitea, askotan jarraipen moduan ageri baita kontakizunean. Dena den, azken horri dagokionez, hemeretzi liburutan agertzen da eta esan daiteke horietako zazpitan zentraltasuna duela. Inguruko HGLri begiratu bat emanaz gero, 1936-2008 bitarteko epean Gerra Zibilarekin lotutako gaztelaniazko berrogeita bost obra, katalanezko berrogeita lau eta galizierazko hogeita sei aipatzen dira Roig, Ruzicka eta Ramosen (2012) ikerketan, eta beraz, ikus daitekeenez, euskal HGLk Espainiar Estatuko beste hizkuntzek baino gutxiagotan hartu du hizpide 1936ko gerra. Azkenik, euskal gatazkak kontuan hartzeko agerpena izan du, izan ere, gai horri hogeita zortzi lanek egin diote aipamena eta horietatik hamabitan kontakizunaren hari narratiboan eragina dauka. Ikerketa honek erakutsi du euskal gatazka uste baino gehiagotan ageri dela euskal HGLn, nahiz eta ez den iristen, inondik inora, helduen literaturan gaiak izan duen agerpen kopurura, ehundik gora baitira euskal gatazka ardatz hartzen duten proposamen literarioak<sup>228</sup>.

Berariaz aztergai izan ditudan gatazka horiez gain, analisiak erakutsi dit horiekin batera Euskal Herritik kanpoko beste gerra edo liskar politiko batzuk ageri direla. Nabarmentzekoa da *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak* lanak parez pare jartzen dituela Hiroshima eta Nagasakiko bonbardaketak batetik, eta Durango eta Gernikako bonbardaketak bestetik; eta nire ustez, antzeko triskantza jasan duten herrien arteko elkartasun edo enpatia keinu gisa irakur daiteke pasarte hori. Kontinentez aldatuta, Afrikako gerrak hartzen dituzte ahotan *Metxa izeneko agirretar baten ibili herrenak* (zehazki Frantziaren koloniak ziren Maroko eta Afrika iparraldea aipatzen ditu) eta *George L. Steer, Gernikan izan zen kazetaria* (Abisiniako eta Arrifeko gerra) eleberriek. *Anbroxio* liburuak Aljeriako eta Afganistango gerrez gain (azken horrekin lotuta 2001eko irailaren 11ko atentatuak aipatzen dira), Palestina eta Israelen arteko gatazka luzea dakar gogora, baita Guantanamo kartzelan dauden presoek sufrimendua ere. Horren harira, ezin aipatu gabe utzi mintzagai dudana obra honek AEBren politikak munduan zehar miseria handiak hedatzen dituela salatzen duela, orduko AEBko presidente Bush seinalatuz kaltearen erantzule gisa. Baina Bidegainena ez da AEB seinalatzen duen liburu bakarra, *Antipodak* eleberriak ere Gobernu Sandinistaren aukako erasoekin lotuta amerikarrek eta errusiarrek Nikaraguan egindako froga atomiko bana aipatzen baitu. *Para bellum* lanak, berriz ere, AEB interpelatu du, Vietnam Napalm zikinaz kiskali zutenekoa gogora ekarriz. Horrez gain, 1968ko maiatzeko Parisko protesta jendetsuak edo ETArekin kolaboratzen zuten beste talde armatu iraultzaileak aipatzen ditu, nolabait,

---

<sup>228</sup> Euskal gatazka mintzagai duten obren zerrenda ugari eman dira argitara eta era berean, ez dira gutxi gai horrek helduen literaturan izan duen agerpena kritikoki aztertu duten literatur adituak (besteak beste, 1.3 atalean aipatu ditudanak).

hango gatazken oihartzuna ekarriz: Irlandako Irish Republican Army taldea, Italiako Brigade Rosse eta Alemaniako Rote Armee Fraktion dira izendatzen direnak. Irlandako gatazkari beste lan batean egiten zaio erreferentzia, *Kixmi elurpeanen* hain zuzen.

Aipamen hutsez bada ere, ezin aipatu gabe utzi *Arrastoa* obrak Errusiar Iraultza dakarrela gogora. Esanguratsua iruditzen zait oso *Ainhoari gutunak* liburua, Vietnamgo pobrezia eta guda, Namibiako gerra eta Sahara Mendebaldeko independentziaren aldeko borroka aipatzen dituelako. Ez hori bakarrik, Saharatik, Afganistandik, Palestinatik, Perutik, Sri Lankatik, Guatemalatik edo Turkiatik heltzen diren haurrak hartzen dira ahotan, desagertu edo haur trafikioan zein haur prostituzioan erortzen direnak. Azpimarragarriak iruditzen zaizkit datu horiek, irakurle gazteari erakusten baitiote bere adin bertsuko haurrek beste testuinguru (geografiko eta ekonomiko) batzuetan bizi duten egoera latza. Antzeko bideari heltzen dio ere *Zer da, ba, maitasuna?* obrak, besteak beste, haur soldaduak, gerrako haurrak edo pobrezian murgilduta bizi diren umeak ahotan hartzen dituenen. Azkenik, *Arriskupean* eleberriak egiten duen ekarpena nabarmendu nahiko nuke. Irakeko azken gerra, palestinarren gatazka amaigabea edo bikotearekin izan dezakeen maite-aferara parez pare jarritz, pertsonaiak aitortzen du beti eragiten digutela gehiago hurbileko istorio txikiek urruneko tragedia handiek baino; baina nire ustez, pasarte horrek aukera eman lezake gure arazoak erlatibizatzeke eta gure inguru hurbilaz harago pentsatzera bultzatzeko. Liburu berarekin jarraituz, azpimarratzekoa da hemen ere AEB seinalatzen dela kaltearen eragile gisa, esaten baita CIAk nahikoa lan duela Irak, Iran, Afganistan, Ipar Korea, Kolonbia, Israel, Palestina, Ekialdeko Timor eta beste hamaika lekuren korapiloak nahastearekin. Beraz, ikus daitekeenez, Euskal Herritik kanpoko egoera gatazkatsuen berri ematen dute corpuseko hainbat liburuk, eragindako minaren erantzuleak seinalatuz maiz.

Argitalpen datari erreparatuz gero, corpuseko obrarik zaharrena 1974koa da, Jonan Aranguren “Iharra” eta José Benito Mujika “Xenki” etakideen *Herrialde berdea* ipuina, Frankismoaren azken hondarretan argitaratutakoa. Lan azpimarragarria iruditzen zait, ez literatur balio handikoa delako, baina bai Frankismoari buruz hitz egiten duelako eta gai horren lehenengo agerpena delako euskal HGLn. Esan gabe doa atzerrian argitaratu eta klandestinoki egin zela haren hedapena Euskal Herrian. Aipatu dudan ipuina kaleratu eta urte batera, Lourdes Iriondoren *Buruntza azpian* antzerki lanak ikusi zuen argia (Bigarren Gerra Karlista hartzen duena hizpide), baita Anastasio Albisuren *20 Ipui eta antzerkitxo bat ikastolatarako* obrak ere (zeinak Frankismoari egindako erreferentzia dakarren). Dena den, Frankismoari buruzko hurrengo lanak ez ziren 90eko hamarkadara arte argitaratu.

Interesgarria da Gerra Zibilak euskal literaturan izan duen agerpen datari erreparatzea. Helduei zuzendutako euskal literaturan, gaiari buruzko lehen eleberriak 1937 eta 1957 urteen bitartean plazaratu ziren, gehienak Euskal Herritik kanpo (idazleen erbestealdiagatik edo zentsura saihesteagatik) eta 80ko hamarkadan kaleratutako hainbat nobela aipagarriren ostean, 90eko hamarkadatik aurrera izan zuten gorakada garbia (Olaziregi eta Otaegi, 2011; Serrano, 2019). Olaziregik (2014) dioen moduan, oro har berantiarra izan da euskal literatura Gerra Zibilaren gaiari heltzerako orduan, eta ziurtatu ahal izan dudanez, hala izan da ere euskal HGLn. Olaziregik (2008a) gaineratzen du agian HGLren gainean ezartzen den kontrol pedagogiko eta moralak eragina izan duela gerrak oro har landu dituzten testuen bakantasunean. 1936ko gerrari buruzko corpuseko lehenengo obra 1984an Pello Añorgak idatzitako *Pottoko* lana da eta data hori bat dator euskal HGL modernoaren sorrerarekin eta errealismo kritikoaren agerpenarekin euskal HGLn (baita oro har memoriaren ez tandarekin ere). Gerra Zibilari buruzko corpuseko hurrengo obrak 90eko hamarkadatik aurrerakoak dira. Dena den, benetako gorakada XXI. mendean ematen da, helduenean baino beranduago, beraz. Gure literatur sistema inguruko literaturekin alderatuz gero, galiziar, katalan eta espainiar HGLn, 1980 eta 1990 urteen bitartean hasten dira Gerra Zibilari buruzko obrak nabarmenki agertzen eta kopuru horrek era agerian egiten du gora hurrengo hamarkadetan (Roig, Kenfel eta Ramos, 2012; Ragueiro eta García, 2022). 1936 eta 1940ko tartean, gaiari buruzko lehen agerpenak aurki daitezke espainiar eta katalan literaturan (4 eta 2 hurrenez hurren) eta galizierazko lehen agerpena 1961ean Argentinan argitaratutakoa da (Roig, Ruzicka eta Ramos, 2012). Beraz, ikus daitekeenez, inguruko HGLrekin alderatuta ere, berantiarra da euskal HGL Gerra Zibilaren errepresentazioari dagokionez.


Euskal gatazkak gure literaturan izandako agerpen kronologikoari dagokionez, HGLn 90eko hamarkadan azaltzen dira lehen agerpenak (adibidez, gatazka gai zentrala den *Ainhoari gutunak* 1990ean, *Pike eta Pitito* 1994an eta *Harri barruko bihotz-borrokak* 1999an). Dena den, XXI. mendetik aurrera nabarmen handitzen da gai horien agerpena HGLn. Helduei zuzendutako lanekin alderatuz gero, gogoraraztekoa da 1976an jada Ramon Saizarbitoriaren *100 metro* eleberria argitaratu zela, zeinetan euskal gatazka gai zentrala den. Ez hori bakarrik, helduen literaturara mugatutako ikerketa askok (Zaldua, 2005, 2012; Gabilondo, 2006; Egaña, 2015; Zapiain, 2015; Olaziregi eta Ayerbe, 2016; Rodriguez, 2019; Olaziregi, 2019b, 2020a) erakutsi dutenez, euskal literaturak, eta batez ere 90eko hamarkadatik aurrerakoak, gaiari oso modu zabal eta askotarikoan heldu dio. Aniztasuna diodanean, ikuspuntu ideologiko desberdinetatik idatzi dela esan nahi dut, baita korrante, genero literario eta estilo

edo teknika narratibo ezberdinak erabiliz. Argitaratu diren literatur lanek ertz askotatik heldu diote gaiari eta gero eta polifonikoagoa bihurtu da gai horiek hizpide dituzten liburuen corpusa.

Euskal gatazkari buruzko literaturaz hitz egitean, askotan egin den galdera da ea desberdintasunik nabari den 2011n ETAk jardun armatua betiko utzi osteko eta aurreko obren artean. Egañak (2015: 54) aipatzen du gaiari buruzko liburuen ugaltzeak eraginik izan duela ETAk bere jarduera armatua behin betiko amaitzeko erabakia hartu izanak. Dena den, Olaziregik (2019a), post-ETA garaian argitaratutako nobela interesgarrienak aztertu ostean, baieztatzen du su-etenak gaiari buruzko literatur lanen gorakada esanguratsua eragin ez duen arren, eragina izan zezakeela garai berri honetan eztabaidagai diren gaien lanketa literarioan. Gaineratzen duenez, tipologia anitzeko biktimen agerpen agerikoagoa, gatazkaren albo-kalteak (sozialak edota familiarrak), eragindako minaren aitortpena eta bizikidetzaren aldeko apustua, sustatu beharreko jarrera eta identitate nazional zein politikoaren gaineko hausnarketa, edo indarkeriazko hamarkadek utzitako ondoriotasunarengatik ardurak dira, besteak beste, azken urteetako literatur uztan agertu diren gaiak. HGLri begiratu gero, ezin esan daiteke ETAREN jardun armatuaren uzteak gaiari buruzko obren gorakada ekarri duenik, kopurua berdina baita 2011 aurretik eta ostean argitaratutako obrei dagokienez, baita euskal gatazka gai zentral gisa lantzen duten liburuei dagokienez ere. Horrekin batera, aipatzekoa da, aurrerago zehaztuko dudan moduan, HGLk ere arestian aipatutako aniztasun horri jarraitu diola eta Olaziregik helduen literaturako azken urteetako obretan antzemandako gaiak hartu dituela mintzagai.

Liburuak plazaratu dituzten argitaletxeei begiratu bat emanez gero, Elkarrek egindako ekarpena nagusitzen da eta atzetik doazkio Pamiela, Ikastolen Elkartea, Erein, Ibaizabal, Ataramiñe eta Txalaparta.





4. irudia: Corpuseko obren argitaletxeak zehazten dituen grafikoa.


Genero literarioari erreparatuz gero, argi ikusten da narratibak duen gailentasun ia erabatekoa, baina espero izatekoa da, narrazio lanak baitira nagusi euskal HGLn (antzerki lanak ez dira produkzio osoaren %1era iristen). Corpuseko 77 obretatik, 41 eleberriak dira (horietako bat eleberriaren eta ipuinaren mugan dagoena). 14 ipuin eta 2 ipuin liburu daude, baina horiei gehitu behar zaizkie beste 2 ipuin biografiko. Ipuinak izan gabe, beste 3 biografia daude (eleberri tankera hartzen dutenak). Corpusean eleberri grafiko bat eta 3 album ilustratu daude, eta komikiak, ordea, 6. Saiakera lanei dagokienez, 2 baino ez daude (eta ez dira, inola ere, helduen literaturan aurki daitezkeen saiakera lanak, baina badute testu-liburu hutsetik aldentzen duten ezaugarriak). Antzezlan obra 2 aztertu ditut, horietako bat ipuin bilduma batekin batera datorrena. Poesiari dagokionez, lan bakarra sartu dut corpusean, baina zehaztu behar dut eleberriaren eta poema-liburuaren arteko hibrido bat dela. Espero izatekoa den moduan, irakurle gazteenei zuzendutako lan gehienak ipuinak eta album ilustratuak dira, eta adinean gora egin ahala, eleberriek hartzen dute garrantzia.

Korronte literarioari begiratu bat emanez gero, lehenik eta behin errealismoaren bidetik doazen literatur lanen nagusitasuna azpimarratu beharko nuke, gaineratuz, errealismo kritikoaren barruan kokatzen direla horietako asko. Beste gutxi batzuek, ordea, errealismo fantastikoaren emaritik edaten dute. Azken horren adibide dira, besteak beste, *Pikondoaren balada* edo *Hari single bat*. Horiekin batera, ukitu fantastikoa du ere *Itsas azpiko sekretua* eleberriak, zeinetan sirenak agertzeaz gain, Ondarretako kartzela itsas azpian agertu eta desagertzen den. Azpimarratu nahiko nuke fantasiaren erabilera horrek ez duela irakurlea bere errealitate konkretutik abstraitzeko helburua eta elementu fantastikoak txertatu arren, errealitatea islatzen dela. Are gehiago, fantasia erabiltzen da kritika soziala egiteko.

*Pikondoaren baladan*, adibidez, zuhaitzarekin fisikoki bat egiten duen osabaren bidez, eta horrekin lotuta txertatzen diren elementu fantastikoen bidez, agerian geratzen da gizarteari egindako kritika, osabak uko egiten baitio berarengandik espero den biziera jakin bati men egiteari. Genero ez ari naizela, besteengandik aldentzen da *Azken garaipena* komiki ukronikoa, corpuseko zientzia fikziozko lan bakarra baita. Azkenik, aipatzekoa da guda karlistak mintzagai dituzten obra gehienek abentura eleberrien tankera hartzen dutela.

Literatur lan batzuetan, mintzagai hartzen den garaiko benetako argazkiak, guda-kantuak, egunkarietako berriak edo bestelako dokumentu historikoak tartekatzen dira eta elementu horiek benetakotasuna ematen diote narrazioari, hau da, kontakizunaren egiantzekotasuna sendotzeko baliabideak dira. *Larunbatean Bukowskin* liburuan, adibidez, ETAREN agiria ageri da; *Urtebete itsasargianen*, Jose Antonio Agirre lehendakariak egindako zina; *Para bellumen*, Francok 1939ko apirilaren 1ean gaztelaniaz idatzitako berria, zeinarekin Gerra Zibilaren amaiera iragarri zuen; eta *Begi bat kokotean*, *Amonarenean kea*, *George L. Steer*, *Gernikan izan zen kazetaria* eta *Gerrak ez du izenik* obretan, berriz, garaiko benetako argazkiak. Azken lan horretan, Durangoko bonbardaketa islatzen da eta Gerediaga elkartearen Durango aldeko argazkiak ageri dira, marrazkilariak *collage* teknika erabilia sortutako irudietan. Elementu horiez gain, Colomerrek (2010: 167) aipatzen dituen korrante postmodernoek HGLn sartutako osagaiak ageri dira aztertutako corpuseko obretan. Batetik, liburuen eta hainbat kultur sistemen (zinema, musika edota pintura) arteko testuarteko aipamenen jokoak; eta bestetik, hainbat testu moten txertaketa (abestiak, aldizkarietako lerroburuak, asmakizunak eta abar) eta tradizio desberdinetako generoak uztartzea. Intertestualitate-jokoak bereziki azpimarragarriak dira *Urtebete itsasargianen* edo *Behi euskaldun baten memoriaken*.

Interesgarria da aztergai izan ditudan obretako egileei erreparatzea. Corpusari begiratuta, aztergai ditudan gaiak gehien landu duten idazleak maskulinoak dira eta aldea nabarmena da, bikoitza baino gehiago baita gizonen kopurua.



5. irudia: Corpuseko idazleak sexuaren arabera.

Corpuseko datu horrek bat egiten du helduei zuzendutako literaturak erakusten duenarekin. Lasartek (2013) adibidez, hainbat ikerlan akademikoren bilketa egin ostean, eta eleberrigintzara mugatuta, %13an jarri zuen emakumezkoek ekoiztutako obren kopurua. Beste aditu askok, oro har euskal literaturan dagoen emakumeen ikusezintasuna agerian jarri dute (White, 1996; Olaziregi, 1999b; Fernandez, 2017). Idazle maskulinoen gailentasun hori gerrak landu dituzten inguruko HGLn ere antzematen da, Roig, Ruzicka eta Ramosen (2012) ikerketak erakutsi duen moduan. Zehaztu nahiko nuke HGL idazten duten emakume euskaldunen kopurua txikiagoa dela inguruko literatur sistemetan baino (Olaziregi, 2005), baina badirudi alde hori txikituz joan dela poliki-poliki (Fernandez, 2017). Tesiko corpusean gehien errepikatzen diren idazleak Patxi Zubizarreta, Xabier Mendiguren eta Pako Aristi dira, eta jarraian letorke Garbiñe Ubeda. Dena den, zehaztu behar da corpusaren parte diren Ubedaren 3 eleberriek trilogia bat osatzen dutela eta ekintza beraren gainean ardaztutakoak direla hiruak. Horien ostean, corpusean sartutako 2 obra dauzkaten idazleak aipatu beharko nituzke (Leire Bilbao, Bernardo Atxaga, Miren Agur Meabe, Juan Kruz Igerabide, John Andueza, Koldo Izagirre, Yolanda Arrieta, Gaizka Arostegi edo Joseba Sarrionandia, besteak beste). Ikus daitekeenez, gehienak euskal literaturaren kanonean kokatutako idazleak dira, haien ibilbidean zehar hainbat sari jasotakoak. Era berean, azpimarratzekoa da horietako askok helduei zuzendutako lanetan ere memoria historikoaren gaiari heldu diotela behin baino gehiagotan, adibidez, Atxagak, Sarrionandiak, Mendigurenek, Igerabidek, Izagirrek edo goian aipatu ez ditudan arren corpusean ageri diren Ramon Saizarbitoriak eta Iñaki Egañak.

Arestian aipatu dut alde handiz egile maskulinoak direla nagusi corpusean, baina obraren barnera jauzi eginda, ezinbestekoa iruditzen zait begiratzea ea egile maskulinoen nagusitasunak protagonista maskulinoen gailentasuna duen ondorio, Fernandezek euskal HGL aztertzean hori antzeman baitzuen (2017). Ildo berean, Etxanizek eta Lópezek (2011) 90eko protagonisten generoari erreparatu ostean, ikusi zuten protagonista gehienak gizonezkoak zirela eta emakumezko protagonista urriak (%12) emakumeek idatzitako obretan agertzen zirela. Haur ipuingintza aztertu zuen Martinek (1997) ere protagonista femeninoen urritasuna baieztatu zuen, baita Colomerrek (1994) ere, kritika literarioak goretsitako HGLko 150 obra aztertu ondoren ikusi baitzuen %68koa zela protagonista maskulinoen kopurua. Tesiko corpusari dagokionez, honako datu hauek atera ditut<sup>229</sup>:

---

<sup>229</sup> Ohartarazi behar dut pertsonaien batura eginez gero, liburu baino pertsonaia gehiago ateratzen direla, kontakizun batzuetan protagonista bat baino gehiago ageri baita.

Emakume idazlea	Protagonista femeninoa	19
	Protagonista maskulinoa	11
Gizonezko idazlea	Protagonista femeninoa	21
	Protagonista maskulinoa	38

1. taula: Protagonisten sailkapena sexuaren arabera.

Goiko taulan ikus daitekeen moduan, protagonista guztien artean %45 femeninoak dira. Datu hori esanguratsua iruditzen zait oso, erdia baino gutxiago diren arren, aurreko datuekin alderatuta, gorakada esanguratsua baita. Gainera, kontuan hartuta gerrei eta gatazkei buruzko literatur lanak direla, iragana irudikatzeko modu esperientziala ageri denean behintzat, espero izatekoa zen gizonek gatazka armatuetan izandako papera nagusitzea, historiografia ofizialak eta diskurtso politikoak batik bat horien gaineko errelatuak izan dituelako hizpide. Halaber, adierazgarria da, aipatutako ikerketek baieztatu bezala, emakumezko protagonista urriak emakumeek idatzitako obretan agertzen direla corpusean ere: emakumeek sortutako pertsonaietatik %63 dira protagonista femeninoak, eta gizonezko idazleen kasuan, berriz, %36ra jaisten da protagonista femeninoen kopurua. Baina nire ustez, sexuari erreparatzea baino interesgarriagoa da (protagonistetara mugatu gabe) emakume eta gizonak nola irudikatzen diren aztertzea, hau da, genero errepresentazioei begiratzea, estereotipoak elikatzen diren ikusteko. Horretarako, gerra karlistak hizpide dituzten obrekin hasi nahiko nuke. Gorago esan bezala, obra hauetako gehienek abentura eleberrien ezaugarriak dituzte, eta ez da kasualitatea gizonezko protagonistak (baita gizonezko pertsonaiak) izatea nagusi alde handiz (esan gabe doa pertsonaia historikoak aipatzen direnean gizonezkoak direla guztiak, Isabel II.a eta bere ama Maria Cristina izan ezik). Horiek dira armak dituztenak eta fokua haiengan jarrita dago. Gaizkileak ageri diren kontakizunetan, gizonak dira guztiak. Emakumeak ez dira pertsonaia garrantzitsu gisa ageri, ez baitute kontakizunaren norabidean aldaketarik eragiten. Batzuetan, pertsonaia kolektibo gisa ageri dira, eta garbiketa-, sukalde- eta zerbitzari-lanak dagozkie. Hori ondo ikusten da, adibidez, *Sara izeneko gizona* eleberrian. Pertsonaia indibidual gisa ageri direnean ere, zeregin horiekin lotuta ageri dira, adibidez, *Din, dan, don... Kanpai lapurrak non?* lanean. Bertan, bizilagun baten istorioak entzuten dagoen familia deskribatzen da, baina mahaiaren bueltan daudela, amantala jantzita daraman amak esne beroa prestatzen du beste guztiek gonbidatuaren istorioak entzun ditzaten goxo-goxo. Guraso bakoitzaren rola nahiko banatuta dirudite: aldizkariak irakurtzea gogoko dituen ama haurren heziketaz eta ongizateaz

arduraten da, eta aitak, berriz, haurren jarrera bertsua erakusten du (hala nola, gonbidatuak bere istorioa amaitu baino lehenago, telebistara abiatzen denean futbola ikusteko). Lan horretan bertan, pertsonaietako batek kontatzen duen istorioan, desira objektua da ageri den emakume bakana. Beste batzuetan, biktima gisa irudikatzen dira, adibidez, *Karlisten altxorran*, zorrak ordaintzeko epe handiagoaren truke oheratzeko proposamena egiten dionean emakumeari. Salbuespen bakarra Arrietaren *Argiaren alaba* da, agenzia duten pertsonaia nagusi femeninoak edukitzeaz gain, subjektu aktibo bihurtzen dira historiaren idazketan. Ez hori bakarrik, Bizenta Mogelek euskal literatur tradizioan duen garrantzia aldarrikatzen da, tradizioaren berrikusketa eta emakumeen ikusgarritasuna bultzatuz.

Lehen Mundu Gerrari dagokionez, eta *Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!* obrari erreferentzia eginez, hainbat gerratara abiatzen diren gizonak ageri dira (esfera publikoa); baina horrekin batera, nolabaiteko kontrastea eginez, etxean zain geratzen diren emakumeak irudikatzen dira (espazio pribatua). Paratestuan, eta hainbat aldiz, arropak esekitzen ageri dira emakumeak. Irudi horiek guztiek iradoki lezakete gizonak gerran egon arren, bizitzak aurrera jarraitu zuela eta emakumeek etxea gobernatzen jarraitu zutela, familia aurrera atera zedin. Gizonak etxera itzultzeko zain dauden emakumeekin batera, eta gerra testuinguruari lotuago, erizain lanetan ageri dira emakumeak. Beraz, ikus daitekeen moduan, zaintza lanetan ageri dira. Ez hori bakarrik, emakumeen bortxaketei egiten zaie aipamena, aurrerago azalduko dudan moduan, corpuseko hainbat liburutan errepikatzen dena<sup>230</sup>.

Bigarren Mundu Gerrari buruzko obretan, gizonak dira aipatzen diren pertsonaia historikoak eta haiek dira indarkeriaz baliatzen direnak. Esanguratsua da *Anbroxio* eleberria, gerrara joandako eta egoera latza pairatutako gizonaz gain, emakumeei ematen zaielako ikusgarritasuna. Batetik, bizitza arriskuan jarritz, mugalaritzan eta mezularitzan aritutako emakumeak ageri dira, emakume aktiboak beraz. Baina horrekin batera, haien biktima estatusa azpimarratzen da askotan, jasandako tortura fisikoak deskribatzeaz batera. Torturen alderdi sexualaz ezer aipatzen ez bada ere, naziek espetxeratutako emakumeei egindako irainetan konnotazio sexuala antzematen da (*urdanga* bezalako laidoetan adibidez). Gainera, liburu honetan hainbat pasarte daude gerra testuinguruetan emakumeen gorputzekin egiten den erabilera arbuigarriaz. Batetik, soldadu alemanen mesedeak eskuratzeko prostituzioan aritzen diren 18 urteko neskek aipatzen dira. Bestetik, Aljeriako gerrarekin lotuta, frantses

---

<sup>230</sup> Arestian aipatu dudana eleberri grafikoan, Aljeriako gerraren testuinguruan bada ere, aljeriarren torturak deskribatzen dira, eta emakumeak dira etsaiei barrabilak moztu eta ahoan sartzeaz arduratzen direnak. Corpuseko gainerako obrei erreparatuta, ezohikoa da emakumeen indarkeriaren erabilera hori.

armadak preso hartu eta egun guztiz bortxatu ostean haurdun utzitako 16 urteko neska baten patu lazgarriaren berri ematen da. 2052an girotutako *Azken garaipena* eleberri distopikoa salbuespena da. SSKo *Oberstandartenführer*ra emakumea da eta indarkeriaz baliatzen da bere lana burutzeko, torturatzeko agindua emanez adibidez. Gainera, paratestuan odoleztatutako borra batekin ageri da, odol putzu handi bat zapaltzen duela. Aipatzekoa da ere teniente emakumea ageri dela protagonista gisa eta ez dituela estereotipo sexistak betetzen: nortasun handiko pertsonaia da, ausarta, azkarra, amatasuna eta lana uztartzen dituen, lankide maskulinoarekin doanean laneko kotxea gidatzen duena eta erre egiten duena.

Gerra Zibilari dagokionez, frontera abiatzen diren gizonak aipatzen dira hainbat lanetan, baina hirutan, emakumeak ere gerrara abiatzen dira, erizain lanetan aritzeko (*Itsas azpiko sekretua*, *Basarri* eta *Urtebete itsasargian*). Laugarren liburu batean (*Pikondoaren balada*), protagonista den neskatoak oihuka adierazten du erizain gisa aitarekin gerrara joateko prest dagoela. Esan daiteke gerra testuinguruan emakume eta gizonei esleitzen zaizkien espazio bereizien berri ematen dutela aztertutako literatur lanek. Dena den, ez dute emakumearen parte-hartzea erizain izatera mugatzen. *Urtebete itsasargian* eleberriak milizianak aipatzen ditu, baita haiek jasotzen dituzten irainen berri eman ere, jakitera ematen baita soldaduen prostitutatza hartzen dituztela askok. Ildo horretan, eta orain arte aipatutakoa kontuan hartuta, badirudi, Rodriguez eta Etxebarrietak (2016: 10) dioten moduan, emakumeek gizonek monopolizatutako gatazketan parte hartzeko, ama, puta, emazte edo zaintzaile-garbitzaile izan behar direla. Analisisian azaldu dudana moduan, Meaberen lan horretan gerra garaian emakumeek egindako lanaren aitortza ageri da argi eta garbi, gizarteak aurrera segi zezan egin zituzten ezinbesteko lanak zerrendatzen baitira. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi mintzagai dudana eleberri horretan ez direla estereotipo sexistak indartzen, pertsonaia femenino aktibo, trebe, adimentsu eta indartsuekin batera, sentimenduak adierazi eta uneoro ausardia erakusteko beharrik ez duten pertsonaia maskulinoak ageri baitira.

Gerra Zibilari eta Frankismoari buruzko obretan, beste gerra batzuei buruzko obretan bezala, emakumei ezarritako zigorrak aipatzen dira, baina bereziki, emakume izate hutsagatik jasotako zigor gehigarriak deskribatzen dira: sexu-erasoak, bortxaketak, buru soilketak eta errizino-olioa edanarazi ostean beherakoa zutela jendearen aurrean paseatzeko beharrezkotasuna (zigor psikologiko eta publikoa). Jada azaldu dudana moduan, errizino-olioaren bidez egindako purga horrek esanahi sinboliko handia zuen, garbitasun-epurutasun dikotomiarekin lotuta eta aberriaren higienizazioarekin eta garbiketarekin lotuta (Hernández, 2003). Izaera publiko horrek bereizten zituen maiz

gizonezkoei eta emakumezkoei ezarritako zigorrak, azken horien kasuan, lotsa, gutxiespena eta iseka lotuta joaten baitzen ezarritako zigorrari. Dinamika horien guztien berri ematen dute aztertutako obrek. Eta ez hori bakarrik, espetxe-sistemarekin ere emakumeek zigor bikoitza sufritzen dutela ondorioztatu dute hainbat ikertzailek: gizonek bezala, legea edo kode penala hausteagatik, baina baita emakume gisa dagokien rola hausteagatik jasotako kondena moralagatik (Ruiz, Etxebarrieta eta Vara, 2019). Genero ikasketei eskainitako atalean (5.2.) azaldu dudan moduan, guda testuinguruetan (baita gerraosteko garaietan ere) genero gatazka nabarmenago geratzen da, gerra kontestuetan areagotu egiten baita gizon eta emakume kategorien polarizazioa, generoen arteko desberdintasunak areagotuz, estereotipoak bikoiztuz eta bi kategoria horiek hermetikoagoak eta bereziagoak bihurtuz (hortik uler daiteke emakume milizianoen figurak sortutako desoreka sinbolikoa, emakumeei zaintzaile rola baitzegokien, ez gudariarena). Gainera, Frankismo garaian, Erregimenak genero ordena berrezartzeko ahalegin sutsua egin zuen, maskulinitate eta feminitate eredu (kontserbadore) zurrunak ezarriz eta zorrotz zigortuz normatik aldentzen zen saiakera oro, tartean, normatik ateratako emakumeei zigor gehigarria jasanaraziz<sup>231</sup>. Bortxaketei dagokienez, jada aipatu dut ekintza horrek sinbologia berezia duela, izan ere, emakumearen gorputzek herriaren lurraldea pertsonifikatu ohi dute eta emakumeak bortxatuz, haien konkistaren pertsonifikazioa irudikatzen dute gizon inbaditzaileek (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015). Ildo horretan, ezin ukatu jendea kontrolpean izateko mekanismo gisa erabili direla generoarekin lotutako erasoak (Arruza, Bhattacharya eta Fraser, 2019) eta halaxe irudikatzen da aztertutako obretan. Garaiko gizartea islatzearekin batera, emakumeei esleitutako rol tradizionalekin ados ez dauden pertsonaien aldarriei leku egiten zaie, adibidez, *Urtebete itsasargianen* edo *Sasi artean Elgetan*, eta bietan espazio publikoa eskatzen duten emakumeak ageri dira.

Euskal gatazkaren irudikapenari dagokionez, esanguratsua da protagonista femeninoak nagusitzen direla corpusean, alde txikiz bada ere (%58). Kartzelan dagoen pertsonaia bat dagoenean, zein sexu nagusitzen den aztertu dut eta ikusi dut emakumeak %38 direla. Beherago zehaztuko dudan moduan, gizon ala emakume, gehienetan ez da zehazten preso egoteko arrazoi zehatza, eta beraz, ez dira indarkeriazko ekintzekin lotzen. Salbuespena da *Harri barruko bihotz-borrokak* lana, molotov koktelekin enpresa bateko bulegoa erretzea leporatuta kartzelaratzen baitute protagonistetako bat den Maddi gaztea. Pertsonaia aktiboa da, militantea, indartsua eta homosexuala; eta beraz, ez dio patriarkatuak egokitu dion rolari

---

<sup>231</sup> Daniela Bisterrek (2015) dioen moduan, Gerra Zibilean emakumearen biktima estatusa era askotakoa da, biktimizazio politiko eta historiografikoetatik hasi eta patriarkatuak eragiten dituenetara (biktimizazio gehigarri bat pairatuz horrela).

jarraitzen (Maddiren karakterizazioak kontraste egiten du obra bereko beste protagonista maskulinoetako batekin, militantzia politikotik at dagoen gazte sentikorra denez gero). *Tunelaz bestaldean* eleberriko ama, kartzelan dagoena, emakume indartsu gisa deskribatzen da, kexatzen ez dena eta negar egiten ez duena. Beraz, esan daiteke gatazkan inplikazio zuzena duten emakumeak pertsonaia indartsu gisa irudikatzen direla. Komandokideak edo gudariak, aldiz, gizonak dira guztiak. Esanguratsua da zehaztea *Metxa izeneko agirretar baten ibili herrenak* lanean komandoren batean sartuta dagoen mutilaren neska-lagunak ihes egiten duela bere burua arriskuan ikustean, nolabait iheslari bihurtuz. Dena den, ez da aipatzen emakumea komandoren batean sartu den edo zein inplikazio duen euskal gatazkarekin, eta bikotekide maskulinoari lotuta ageri da. Euskal gatazkaren testuinguruan, corpuseko zenbait emakumek zaintzaile lana hartzen dute, *Nemo kapitainaren azken bidaia* lanekoek bezala edo *Antipodak* eleberriko presoaren emazteak bezala. Azken horri dagokionez, argi eta garbi adierazten da senarraren inguruan ardatzen duela bere izate osoa, presoen abokatua izateaz gain, atxilotutako heroia den emaztearen papera antzezten duela kontatzen baitu narratzaileak. Beste batzuek kartzelan dauden gizonazkoei gutunak idazten dizkiete, adibidez, *Txakurraren alaba* eleberriko protagonistak eta beste neska gazte batek.

Indarkeriaren erabileraz nor baliatzen den aztertzean, argi ikusten da gizonak direla erantzule (arestian aipatutako Maddi pertsonaia salbuespena da)<sup>232</sup> eta emakumeak, berriz jasaile (emakumeek idatzitako literatur lanetan ageri da esplizituago emakumeen aurkako jazarpena). Ildo berean, poliziaren generoa zehazten denean, gizonak dira indarkeria erabiltzen dutenak beren lana burutzeko. Eta ez hori bakarrik, Guardia Zibilaren kasuan, lanean indarkeria erabiltzeaz gain, autoritario ageri da esfera pribatuan. Halaxe gertatzen da *Antipodak* obrako guardia zibilarekin, baita *Txakurraren alabakoarekin* ere. Bi horien kasuan, tradizionalismoa, matxismoa eta tratu txarrak gehitzen zaizkio autoritarismoari. Argi dago ezaugarri horiek (geroago azalduko ditudan beste batzuekin batera), antagonismoa markatzeko baliatzen direla obretan. Guardia Zibilen emazteen karakterizazioari erreparatuz gero, azpimarragarria da eremu domestikora mugatzen direla. *Pikolon* senarra eta seme gaztea Euskal Herrian dituela, ama zaintzen Extremaduran geratu den emakumea ageri da eta *Txakurraren alaban*, berriz, esplizituki adierazten da ama otzana eta esanekoa etxeoandretzan katibatuta bizi dela. *Para bellum* eleberrian, GAL finantzatzen duen enpresariak emazteari ezer ez aipatzea erabakiko du, kontu horiek gizonenak direlakoan.

---

<sup>232</sup> Fernandezek (2017) 1980ko hamarkadako eta 2013. urteko euskal HGL aztertu eta ondorioztatu zuen mutil gehiago ageri direla indarkeria erabiltzen; baina bilakaera antzeman zuen bi epeen artean, bi sexuen arteko desberdintasuna gero eta txikiagoa zela antzeman baitzuen.



*Antipodak* lanean, guardia zibilaren emaztea pasiboa da erabat. Senarraren erabaki guztiei men egiteaz gain, bere larruan sufrituko ditu haren mespretxu eta indarkeriazko tratuak. Beraz, ikus daitekeenez, euskal gatazkari buruzko literatur testuetan ere, gizon eta emakumeen rola nahiko bereizita irudikatzen dira, baita bakoitza ageri den espazio sinbolikoa ere. Arestian ahotan hartu ditudan gerretan bezala, euskal gatazkaren testuinguruan ere zigor fisikoak jasaten dituzte pertsonaiek eta aurrekoetan bezala, emakumeek sexu izaeradun torturak jasaten dituzte. *Harri barruko bihotz-borrokak* lanean, adibidez, esplizituki azaltzen da atxilotuta dagoen protagonistari borra baginatik sartzen diola poliziak. Baina emakumeek ez ezik, gizonezkoek ere izaera horretako zigor sexualak jasaten dituzte. *Parabellum* da ezinbestean aipatu beharreko obra, GALEk aginduta, Guardia Zibilak hamaika modutara torturatuko baitu pertsonailetako bat, besteak beste, barrabiletan deskarga elektrikoak emanez edo uzkia odoletan utzi arte makila luze bat ipurditik sartuz. Gizonezkoek pairatutako zigorrez ari naizela, interesgarria iruditzen zait *Pikolon* guardia zibilaren semea den protagonistak ikaskideengandik jasaten duen *bulling*-aren berri ematea, mehatxuez gain, puzgailua uzkiekin sartzen baitiote haurrari. Maila sinbolikoago batean bada ere, torturarekin lotu daiteke ekintza hori (gainera, loturak egin daitezke ETAk mehatxatutako enpresariei emandako tratua eta liburuaren protagonistari ematen dioten tratua artean). Azpimarra dezadan deskribatutako uzki sarketa horiek gizontasun galera (saiakera) gisa interpreta litezkeela, uzkitik zerbait sartzea maskulinitate galera gisa irakurria izan baita kulturalki.

Hainbat ikerketak iradoki dute desberdintasun formalak daudela emakumeek eta gizonek (euskal) gatazkari buruz idatzitako eleberrien artean, emakume idazleek eredu autobiografikoaren aldeko hautua egin izan baitute; eta gizonek, aldiz, egitura metafikzionalen aldekoa (Olaziregi eta Ayerbe, 2016; Olaziregi, 2019b, 2020a). HGLri dagokionez, ezin daiteke baieztapen hori egin, ez behintzat hainbat ñabardura kontuan hartu gabe. Batetik, Juan Kruz Igerabideren *Begi bat kokotean* ez da autobiografikoa *stricto sensu*, baina modus autobiografikoa erabiltzen du egileak. Ez hori bakarrik, liburuaren epilogoan aipatzen du bere haurtzaroko oroitzapenak baliatuz eraiki duela narrazioa. Horrekin lotuta, ezin aipatu gabe utzi iruzkin metafikzionalak eta idazte ekintzari buruzko hausnarketak ageri direla liburuaren amaieran (oroitzapenaren eta fikzioaren arteko itunari buruz mintzo denean), nolabait idazleak memoria horien transmisioan duen rol aktiboari erreferentzia eginez. Bestetik, Joseba Sarrionandiaren *Ainhoari gutunaken*, eskutitz bidezko komunikazioa mantentzen du narratzaileak narratarioarekin eta esfera intimoan, pribatuan, mantentzen da komunikazio hori. Imanol Azkuek idatzitako *Osaba Patxiren koadernoan*, modus

autobiografikoa baliatzen da eta gutun baten antzera funtzionatzen du protagonistak eguneroko forma ematen dion koadernoak. Corpusean ikusi dudanagatik, esan daiteke gizonezkoak direla gutun bidez edo bestelako elementuen bidez harreman intimoa sortzen dutenak narratarioarekin eta haiek direla modus autobiografiko hori gehien erabili dutenak, nahiz eta haiek diren, era berean, iruzkin metafikzionalak tartekatzen dituztenak kontakizunean.

Protagonisten azterketa berrartuz, esanguratsua da haurrak direla nagusi alde handiz (%70) eta karlistaldiei buruzko obretan protagonista maskulino helduak nagusitzen direla. Tankera biografikoa duten liburu guztietan gizonak dira protagonista eta gehienetan, pertsonaiaren helduaroan zentratzen dira. Zehaztu behar dut Arrietaren *Argiaren alaba* ez dudala biografikotzat jo, nahiz eta Bizenta Mogelen bizitzari buruzko datu batzuk ematen diren. Protagonista haurra izatea edo gazteen nagusitasuna espero izatekoa da, irakurlearen identifikazioa helburu duen ezaugarri hori egonkorra baita HGLn (Colomer, 1998; Cerrillo, 2001; Ruiz, 2002). Oro har esan daiteke pertsonaiek berariazko irakurlearen adin bertsua dutela gehienetan. Protagonista gaztearen alboan, helduak ageri dira batzuetan, koprotagonista funtzioa betez nolabait. Ezaugarri hori irakurle gazteenei zuzendutako lanetan antzeman dut batez ere. Haurrari errealitatea erakusten edo bidean aurrera egiten laguntzen ageri diren helduak dira. Obra bakarrean aurkitu dut animalia bat protagonista gisa, Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* eleberrian, zeinetan pertsonifikatutako Mo behia ageri den. Pertsonaia biribila da eta 50 urte ditu memoriak idazten hasten denean<sup>233</sup>. Juaristik (1992) gogorarazten duenez, Atxagak ez ditu animaliak pertsonaia bihurtzen kasualitatez, izan ere, animalia da mundu tolesgabe, inuzente eta kutsatu gabearen sinbolo. Nolabait esatearren, animaliak haur baten ezaugarriak izan ditzakeela iruditzen zait. Colomerrek (2010) gaineratzen duenez, pertsonifikatutako animaliak ageri dira protagonista gisa gai zailen mediazioa bideratzeko, irakurle gaztearekiko distantzia apur bat mantentzeko hain zuzen. Gerra eta heriotza, corpuseko liburuetan behin eta berriz ageri diren bi gai, konplexuak dira zalantzarik gabe, eta humanizatutako protagonisten agerpen urria harrigarria izan badaiteke ere, azpimarratu behar dut gizakiak direla gerren ondorioz hiltzen direnak.

Protagonistari begiratzea bezain garrantzitsua iruditzen zait narrazioa nork ematen duen eta zein motatako fokalizazioa erabiltzen den aztertzea, izan ere, Hanán ikertzaileak (2020) dioen moduan, irakurlearekin identifikatzen diren pertsonaiak eta ezagunak zaizkien

---

<sup>233</sup> *Basarri* lanean narratzaile homodiegetikoa idazteko makina bat da, humanizatua eta gaztea.

gatazkak irudikatzeak ez du irakurle gaztearen konexioa bermatzen. Aitzitik, pertsonaiaren begiradaren bidez haren ikusmoldea hartuz edo ikuspuntu horretatik errealitatearen deskribapena emateak legitimatu egiten du egiazkotasuna eta istorioaren bereganatzea. Corpuseko obretan narratzaile autodiegetikoa ageri da gehienetan eta haurra da kontatzen duen istorioaren protagonista, hau da, errealitatea haren ikuspuntutik ematen da. Lehen pertsonan kontatze horrek, narrazioari egiantzekotasuna eman eta testigantza-kutsua eransteaz gain, kontakizunaren fokua haurrarengandik gehiegi aldentzea saihesten du. Ez hori bakarrik, begirada neutroagoa izaki, xaloagoa, alde bateko zein besteko pertsonaiengana hurbiltzea errazten du, eta ondorioz, irakurleari errealitate beraren ertz ezberdinak erakustea ahalbidetzen du. Ezaugarri horrek lortzen duen beste efektuetako bat irakurle gazteak protagonistarekiko sentitzen duen gertutasuna da eta ondorioz, kontakizunak sortzen duen inpaktu emozional handiagoa. Ezin aipatu gabe utzi beste narratzaile mota bat dagoenetan ere, fokua haurrengan jartzen dela maiz.

Eranskin gisa gehitutako katalogoan adierazi dut liburu bakoitzak gerra edo gatazka armatuarekin lotutako zein alderdi zehatz aipatzen duen, eta analisisian luze azaldu ditut horiek. Dena den, komenigarria iruditzen zait hemen laburpen bat eskaintzea eta haur zein gazteek duten parte-hartzean sakontzea. Gerra karlistei dagokienez, aipatu dudana moduan, urria da haur eta gazteen presentzia. Iragana irudikatzekeko modu berreraikitzailea darabilten liburuetan ageri dira, eta beraz, ez dute zuzeneko loturarik gerrarekin. Horrekin esan nahi dudana da ez dutela gerraren ondorioz pairatzen. Gerran inplikaturako gizariek lapurretak, atxiloketak, heriotza, erbesteak, gosea eta ikara esperimentatzen ditu, baina esan bezala, ez da haurrik ageri zuzenean hori guztia jasaten. Lehen Mundu Gerrari buruzko liburuetan, tiroketak, bonbardaketak, gas erikorak, kartzela eta gosez gain, gerrak eragindako heriotza eta elbarritasuna nagusitzen da, eta agerian jartzen da euskaldun gizon gazteek Frantziako armadarekin borroka egiteko zuten beharrezkotasuna. Mintzagai hartu dudana guda hori ukitzen duten obretan haurrek ez dute protagonismorik, baina elementu paratestualei begiraturaz gero, *Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!* eleberri grafikoan, aurreko zein atzeko guardetan umeak ageri dira, atsekabe aurpegiarekin alde batetik bestera gerratik ihesean doazela. Marrazki horiek, noski, haurrak irudikatzen dituzte gerraren ondorioak jasaten, elementu paratestualean bada ere. Bigarren Mundu Gerran girotutako literatur lanei dagokienez, naziak eta haien indarkeriazko ekintzak aipatzen dira nagusiki. Kontzentrazio-esparruak eta gas-ganberak ageri dira liburuetan, baina zehaztu behar da horiek 12 urtetik gorako hartzaileari zuzendutako lanetan hartzen direla hizpide eta helduak ageri

direla indarkeria horren guztiaren jasaile. Espero izatekoa da adinez irakurle helduxeagoari zuzendutako lanak izatea, gordintasunez deskribatzen baita presoiei emandako tratu gizagabea, baita haiek hiltzeko modu ankerren berri eman ere. Horrez gain, noski, bonbardaketak, hilketak, atxiloketak, salaketak, etxe-miaketak eta gerrak sortutako iheslari-oldeak irudikatzen dira.

Esango nuke Gerra Zibilari buruzko obretan ageri direla bereziki haurrak kaltetun. Horrek, hein handi batean, lotura du kontakizuna haur baten ikuspegitik ematearekin. Batetik, militarren altxamendua eta estatu kolpea, frankistek egindako bonbardaketak, fusilamenduak, atxiloketak, mehatxuak eta hilketak irudikatzen dira, baita galtzaileek jasandako zigorrak ere, emakumeek pairatutako zigor gehigarriak alde batera utzi gabe (sexu-erasoak, bortxaketak eta buru-soilketak). Bestetik, errepublikanoen eta nazionalen arteko borrokaldiak deskribatzen dira, baita bi bando horietan elkarren aurka aritu ziren armada eta taldeak ere. Gainera, jendarte zibilak jasandako gosea eta beldurra azpimarratzen da kontakizunetan, irakurle gazteenek aski ongi identifika ditzaketen sentimendu eta sentsazioak. Ez hori bakarrik, askotan, hildakoak haurrak direla aipatzen da esplizituki, adibidez, *George L. Steer. Gernikan izan zen kazetarian, 1936ko gerra haurrei kontatua* lanean (zeinetan hildako haurren benetako izen-abizenak aipatzen diren), *Urtebete itsasargianen, Beroki gorrian* edo *Gerrak ez du izeniken*. Azken hiru obra horiek gertutik jarraitzen diote haur protagonistari eta gerrak haiengan izandako ondorioak erakusten dituzte: Haurrak hil egiten dituzte. Ezagutzen duten mundua atzean utzita, (erbestera) ihes egiten dute, batzuek familiarren batekin, baina bakarrik beste batzuek. Bakardadea eta beldurra sentitzen dute pertsonaia gazteek, ingurukoak hiltzen ikusten dituztelako edo ez dutelako lagunekin jolasteko aukerarik; eta gainera, ez dute oso ondo ulertzen giroa belztu duen gerraren zergatia. Heriotzak, minak edo beldurrak menperatutako gertakariak inozentzia galera dakarkiete haurrei (eta ondorioz, bat-bateko garapen psikologikoa), haien adinari ez dagokion rol bat hartu behar dutelako.

Frankismoa hizpide den liburuetan, batez ere Erregimenaren inposizioak eta debekuak azpimarratzen direla esango nuke, frankistek ezarritako zentsura, kontrola, izua eta galtzaileei ezarritako zigorrak hain zuzen. Horrekin lotuta, euskarak eta euskal kulturak jasandako errepresioaren berri ematen da aztertutako literatur testuetan. Bereziki haurrengan izandako ondorioetan zentratzen ez diren arren, ezin aipatu gabe utzi *Itsas azpiko sekretua* eleberria, Ondarretako kartzelaren harira, frankistek lapurtutako haurrez hitz egiten baita; alegia, familiarengandik betiko aldendu zituzten ume horiez. Aipatutako liburu horretan, haur txikiak amarengandik urruntzeak sortzen duen atsekabea eta beldurra transmititzen zaio irakurleari.

Azkenik, euskal gatazkari dagokionez, nabarmenduko nuke obra askotan motxiladun haurrak ageri direla protagonista eta familiar bat urrutiko kartzelan preso izateak haiengan dituen ondorioak irudikatzen direla. Horrez gain, manifestazioen eta presoek kartzelan bizi duten egoeraren berri ematen dute aztertutako liburuek, baita alde bateko zein bestekoek burututako atentatu, bahiketa, atxiloketa, mehatxu, tortura eta hilketen berri ere. Mendeku, gorroto eta ezinikusi giro horretan noraezean dabiltzan gazteak ageri dira liburuetan, indarkeriazko sorgin-gurpil horretan kateatuta aurkitzen direnak. Olaziregik (2020a: 12-13) dioenez, euskal eleberrigintzak bere egin du terrorismoaren gaineko nobelak maiz duen helburua; alegia, terrorismoaren beraren arrazoiak argitzea eta terroristaren baitan biltzen diren motibazio eta helburuetan sakontzea; nahiz eta gaineratzen duen azken urteetako euskal eleberririk biktimgan, erru eta erantzukizun kolektiboan, gerra zikinean eta jasotako oinordetza politikoan sakondu nahi izan duela batez ere. Baieztapen horrekin bat dator Egaña (2015) ere. Euskal HGLk, ordea, ez dio arestian aipatutako lehen helburu horri jarraitu, corpusean aztertutako obrek haurraren zentratu eta euskal gatazkaren ondorio askotarikoak irudikatzea izan baitute jomuga.

Kontakizunen amaierari dagokienez, beti ez da erraza aukera ezberdinen artean zein ageri den erabakitzea, maiz bukaera positiboaren eta irekiaren artekoak ageri direlako (gogora dezadan *positiboak* ez duela arazoaren amaiera esan nahi, pertsonaiek arazoarekin edo egoerarekin bizitzen ikasten dutela baizik). Beste batzuetan, iragana irudikatzeko modu berreraikitzailea ageri denean, bi plano sortzen dira eta orainaldikoak amaiera zoriontsua duen arren, gerrako testuinguruan kokatutako planoak ez dauka amaiera zehatzik, datu batzuk edo gertakari batzuk irudikatzen direlako. Kutsu biografikoa duten eleberririk gehienak protagonistaren heriotzarekin amaitzen dira, baina haatik, ezin daiteke amaiera negatibotzat hartu (ez baitu efektu hori sortzen irakurlearen). Horrekin batera, kontuan hartu behar da ea dena delako literatur testuak gai zentral gisa duen gatazka ala ez, ezin baitira berdinu modu esperientzian Gerra Zibilari buruz mintzo den obra baten amaiera eta guda horri buruzko aipamena jasotzen duen beste lan baten bukaera. Esanak esan, azpimarratu beharreko lehen datua da oso gutxi direla amaiera negatiboa duten liburuak (%4). Amaiera zoriontsuak dira gehienak, eta atzetik datoz irekiak eta positiboak (alde txikiarekin). Dena den, azpimarratzekoa da gerra edo gatazka gai zentral gisa duten eta iragana modu esperientzian irudikatzen duten liburu gehienek amaiera irekia eta positiboa dutela (hurrenez hurren). Gogora dezadan errealismo kritikoaren barnean kokatzen direla corpuseko obra asko eta beraz, Hanánek (2020) dioenaren ildotik, espero izatekoa da amaiera irekiak

nagusitzea. Ez hori bakarrik, azpimarratu nahiko nuke gerrez eta gatazkez mintzo diren liburuak direla, zeinetan heriotza oso presente dagoen; eta beraz, amaierak ezin direla beti atseginak izan, ekintzen logikarekin koherenteak baizik; eta horrek, noski, amaiera positiboetara lerratzea dakar batzuetan, baina amaiera zorigaitzokoagoetara edo irekietara beste batzuetan. Strausfeldek (1989) errealismo kritikoak ekar ditzakeen arriskuez hitz egitean, haurren erresistentzia gainditzen duten kontakizun ilunak errefusatu zituen eta horren ordez, azpimarratu zuen garrantzitsua dela itxaropena mantentzea liburuetan, optimismoak ahalbidetzen duelako, haren ustez, egoera negatibo baten aldaketa. Gatazka belikoek galiziar HGLn izandako irudikapena aztertu zuten Agrelo eta bestek (2005) ondorioztatu zuten gaia gogorra izanda ere, kontakizunetako amaierak ez zirela suntsitzaileak, itxaropenari atea zabaltzen ziotenak baizik. Esan bezala, antzekoa ondorioztatu dut euskal HGLri dagokionez.

Heriotza ageri denean, corpuseko obra gehienetan (denetan ez esateagatik), modu errealistan irudikatzen da beti. Itzulezina da, ez dago irtenbiderik, hau da, ez dago lagun maiteekin berriz elkartzeko modurik. Gerra testuinguruan, gauza bertsua esango nuke, alegia, kontakizunaren amaieran, gerraren desagerpen erabatekoa eta agertoki zoriontsua erakutsi ordez, gatazka egoera batek jendartean sortzen duen lanbroa irudikatzen dela. Ildo horretan, protagonista gaztea ageri denean, badirudi pertsonaiaren heldzea irudikatzen dela. Etxanizek eta Lópezek (2011: 157) XXI. mende hasierako HGLko liburuen amaierak aztertu eta ondorioztatu zuten gehienak itxiak eta zorionekoak zirela. Hala ere nabarmendu zuten %20 amaiera irekiak zirela eta zorigaitzeko amaierak amaiera itxien %30 (bietan, aurreko hamarkadan baino askoz gehiago zirela ikusi zuten). Dena den, gaineratu zuten, minoritarioak izanik ere, datu adierazgarriak dira, ustezko irakurlearen heldutasun psikologiko eta literario handiagoa auresuposatzen duten aldetik. Aurrekoek bezala, Colomerrek (1998) ere kontakizunetako amaierak aztertu zituen 90eko hamarkadaren amaieran eta tradizioz HGLko amaierak arazoaren desagerpena zekarten arren, ondorioztatu zuen obra garaikideetan %63an baino ez zela ezaugarri hori betetzen. Beraz, badirudi haurrak (gehiegi) babesteko helburua zuten amaiera zoriontsuen nagusitasunetik, amaiera irekiagoetara eta ez hain zoriontsuagoetara lerratzen ari dela HGL. Zentzu horretan, errealitatea den moduan erakusteko ahalegina antzematen da corpuseko obretan, nahiz eta aurkeztutako hori gerrak suntsitutako gizartea izan.

Baina obren amaiera aztertzeke interesa ez dator kontakizunaren elementu eraikitzaile gisa duen garrantzi ukaezinetik, baizik eta kontakizunak eman nahi duen mezu hezigarriagatik. HGLko ikerlanek funtsezko aztergaitzat hartu izan dituzte beti bukaerak; izan

ere, irakurleak jokabide-arauak ondoriozta ditzake, pertsonaien arrakastatik edo porrotetik abiatuta (Colomer, 2010). Obraren amaiera edozein dela ere, gatazka armatuari buruzko ikuspegi negatiboa ematen da corpuseko obra gehienetan eta gerran edo gatazkan inplikaturakoak kaltetun ateratzen dira, oro har. Beraz, irakurle gazteak inferi dezake gatazka armatuek ondorio hondagarriak dakartzatela. Salbuespen diren lanetan sakondu nahiko nuke, bertan ematen den ikuspegia argitzeko asmoz. Batetik, *Sara izeneko gizonan*, protagonista borondatez joaten da gudara eta tropak bidean aurrera egiten ikustean, edertasunaren apogeoan balitz bezala deskribatzen du ekintza hori. Amaieran, ordea, gerraren ikuspegi idealizatuaztatetik, bizimodu militarra alde batera utzi, gudan gertatutako borrokaldi, heriotza eta bestelakoak ahaztu eta etxera itzultzea baino ez du nahi. Gainera, horren guztiaren aurrean, gerraren zentzugabekeria eta jarrera antimilitarista nagusitzen da amaieran. Beraz, jarrera bilakaera horrek argi uzten du zein den eman nahi den mezua. Bestetik, *Harri barruko bihotz-borrokaren*, 3 protagonista ageri dira eta nor bere ikuspegia ematen duen arren, horietako batek borroka-molde biolentoen aurka egiten du. Beste batek, berriz, kale-borrokan parte hartzen du, baina kartzela eta tortura sufritzen ditu bere engaiamendu politikoa dela medio. Hirugarrenak, azkenik, militantzia politikoarekiko konpromisoa indartzen du lagunengatik atxilotu ondoren. Horrez gain, ez dago indarkeriaren aurkako epai irmorik. *Herrialde berdeak* beste bide batetik egiten du. Zapalkuntzaren aurkako mezua ematearekin batera, herria menpean hartu dutenek eragindako kalteak agerian jartzen dira, baina egia da ere, horien aurka borrokatzea bultzatu nahi dela irakurleak. Ezin aipatu gabe utzi lan honen helburu nagusia euskal haurrak kontzientziaztea dela, protagonistak bezala, beren herriaren eta askatasunaren alde borroka dezaten (frankismoaren amaieran idatzitako lana da). Antzeko bidetik jotzen du *Pike eta Pitito* obrak. Osabak txikiari kontatzen dion eta Frankismoarekin lotu daitekeen ipuinean, gerra edo “ekintzak” beharrezkoak izango dira herriak askatasuna lor dezan (jendea hilko den arren). Iradokitzen da osaba komandoren batean sartuta dabilela eta haren hitzetan zapalkuntzaren eta inposizioaren aurkako mezu garbiak dauden arren, ez dago borroka armatuari buruzko bestelako adierazpenik. Azkenik, *Metxa izeneko agirretar baten ibili herrenak* eleberrian, kontua ez dago hain garbi. Protagonistak harro kontatzen du Gerra Zibilean izandako parte-hartzea eta batek gaineratzen duen arren gerrak ez dakarkiola gauza onik azpian geratzen denari, ez dago indarkeriaren aurkako jarrerarik edo gerraren aurkako adierazpen garbirik, ez eta alde guztien mina islatzen duen pasarterik. Gainerako 72 obretan, gerrak edo gatazka armatuak ezinikusia, heriotza (baita gatazkan zuzenean inplikatutako gabeko haurrena ere), hondamen fisiko zein psikologikoa eta miseria dakarkie protagonistei. Gainera, bizimoduan nahi gabeko aldaketak eragiten ditu, eta haurren kasuan, baita inozentzia galera

ere. Corpuseko obretan ez dago heroirik, ezta irabazlerik ere. Gerraren aurkako jarrera argia erakusten da, haren zentzugabekeria agerian jarritz. Etengabe elikatzen den sorgin-gurpila islatzen dute obrek, alde batekoen indarkeriazko ekintzek beste aldekoen indarkeriazko ekintzak pizten dituztela erakutsiz, logika horri jarraikiz, gatazkek luze irauten dutela aditzera emateko. Indarkeriaren ordeztu, bake-kulturari datxezkion balio positiboaren multzoa transmititzen dute: bizitzarekiko errespetua, giza eskubideen defentsa, elkartasuna, justizia, tolerantzia, adierazpen askatasuna eta gatazken konponbide baketsua (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak biltzen dituen oinarritzko eskubideak).

Batzuetan protagonistarengan eragiten duten pertsonaia helduak dira ideologia edo baloreak esplizituki adierazten dutenak, dela modu berbalean, dela haien portaeraren bidez. *Pikondoaren baladan* adibidez, gerrara joateari uko egin eta pikondotik jaitsi gabe bizi den osabak ilobari esaten dio gerra bat irabazteko modurik onena hura saihestea dela eta kontakizunaren amaieran, txikiak pikondotik jaitsiko ez dela promes egiten dio bere buruari, ulertzera emanez, osabaren jokabidearekin bat datorrela. Gainera, zin egite hori gerrara joan den aita etxera itzultzen ikusten duenean gertatzen da, eta beraz, gerran parte hartu duen aitaren errefus gisa irakur daiteke txikiaren jarrera. Beste batzuetan, haur protagonista bera da ageriko epaiak ematen dituenak, adibidez, gerra oso modu negatiboan definituz, *Urtebete itsasargianeko* protagonistak egiten duen bezala, edo gisa berean diktadura definituz, *1948ko uda* eleberriko protagonista gazteak egiten duen legez. *George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria* laneko narratzaileak edota *Ikastola armairu barruan* liburuko amonak ere diktaduraren gaineko definizioa ematen dute. Interesgarria da *gerra* hitza nola definitzen den aztertzea, baita zein adjektibo kalifikatzaileekin ageri den ikustea, askotan “gerra basatia” (*Arriskupean!* eleberrian) edo “gerra nazkagarria” (*Mattin. Basoko gidaria* komikian) gisakoak aurki baitaitezke. Esan gabe doa narratzaile orojakilearen bidez mezu ideologikoak transmititzen direla, modu zuzenagoan helarazi ere. Colomerrek (2005) dioenez, narratzailea pertsonaien barnean mozorrotu edo ezkututzen da irakurleari pentsatu beharko lukeena intsinnuatzeko. Horrela, testua sermoi bihurtu gabe, irakurle gaztea helduaren iritzi horren aurka altxatzea ekiditen da. Ezin aipatu gabe utzi liburu batzuetan, *Para bellum* eleberrian kasu, paratestuan bertan irakurle gazteari ohartarazten zaiola indarkeriak ez dakarrela ezer onik eta guda guztietan denak irteten direla galtzaile. Era batera edo bestera, azpimarratzekoa da HGLn modu nabarmenagoan adierazten dela ideologia eta halaxe gertatzen dela corpuseko obretan ere.



Ideologiaz aritu naizela, ezinbestekoa da narrazioa zein ikuspuntu ideologikotatik ematen den aztertzea eta biktima/borrero dikotomia horretan bakoitza non kokatzen den ikustea. Guda karlistei buruzko lanetan ez da posizionamendu garbirik egiten. Egia bada ere protagonista gehienak karlisten aldeko lerratzen direla, karlista zein liberal, bi bandoak ageri dira indarkeriaz baliatzen. Bi obratan (*Sara izeneko gizona* eta *Argiaren alaba*) Tomas Zumalakarregi jeneral karlistari buruzko balorazio positiboa egiten da, baina karakterizazio hori ez da nahikoa irakurlearen posizionamendua lerratzeko. Lehen Mundu Gerrari dagokionez, egia bada ere Frantzia garaile irten zela, eta beraz, teorian euskaldunak irabazleen bandoan leudekeela, Frantziaren alde gerra egitera joan nahi ez zuten euskaldunen ikuspegitik ematen da kontakizuna, nolabait frantziarrak “beste” gisa irudikatuz. Bigarren Mundu Gerran girotutako lanetan, zalantzarik gabe, naziak (eta neonaziak) dira “besteak”, era guztietako ankerkeriak burutzen dituztenak; eta indarkeria hori guztia jasaten duten euskaldunen ikuspegitik ematen da kontakizuna.

Gerra Zibilari eta Frankismoari buruzko obretan emaitza esanguratsuak aurkitu ditut. Berezi azpimarragarria da biktimaren edo galtzailearen ikuspuntutik kontatua dagoela, beste hitz batzuetan esateko, fronte nazionalistaren ikuspuntutik. Galdu zen gerra ageri da, beraz, eta joera horrek bat egiten du helduen literaturan 1936ko gerra kontatzeko garaian “iloben belaunaldiak” (edo post-memoriaren belaunaldiak) hartzen duen biktimaren aldeko ikuspuntuarekin (Olaziregi 2017b: 23). Hala ere, ezin aipatu gabe utzi *Pikondoaren balada* salbuespen gisa hartu behar dela, edo ezin dela sailkapen horretan sartu, ikuspegi zabalagoa baitauka. *Hari single bat* eleberrian, egia bada ere protagonistaren aitaren familia irabazleen bandokoa dela (frankisten aldekoa), amarena galtzaileen bandokoa da eta abertzale eta gorriak izateagatik jasotako zigorrak mahaigaineratzen dira. Beraz, kontakizuna oro har alde batean edo bestean lerratu beharko banu, galtzaileen errelatuak pisu handiagoa duela iruditzen zait, protagonistak amaren familiako memoria berreraiki eta postmemoria hori jaraunsten duelako. *Behi euskaldun baten memoriak* eleberrian, protagonista behi bat izan arren, biktimen edo galtzaileen bandoan sar daiteke (modu sinbolikoan, nahi bada), izan ere, Balantzategiz jabetu nahi diren faxistek Mo hil nahi dute. Gainera, gogora dezadan eleberri ezagun horretan errenditu ez diren gudariak mendian gordeta daudela, gerra galdu duen ejerzitoa, alegia, eta horri eman nahi izan diola ikusgarritasuna Atxagak, maki ezagunen gainean eraiki duen kontakizunean. Eleberri horretan, aurkari funtzioa betetzen dutenak faxistak dira, haiek baitira indarkeria erabili eta hilketak burutzen dituztenak. Esan bezala, argi eta garbi antzematen da galtzaileen bandotik emandako ikuspuntua nagusitzen dela eta

*Urtebete itsasargian* da horren adibide garbia, López eta Etxanizek (2008: 317) diotenari jarraikiz, ematen den errelatuak ñabardura nazionalista (euskaldun) nabarmena baitu, aberriaren gaineko erreferentziak barne.

Egia esan, arestian aipatutako ikuspuntu nazionalista hori Gerra Zibilari buruzko kataluniar, galiziar eta espainiar HGLn ere antzematen da, hainbat ikertzailek jakitera eman dutenez (Valriu, 2013; Rigueiro eta García, 2020, 2022). Tesiko corpusaren azterketan ikusitakoa laburbilduz, ondoriozta daiteke, on eta txar dikotomia horretan, errepublikanoak, ezkertiarak eta jeltzaleak/abertzaleak direla onak, “gutarrak”; eta karlistak<sup>234</sup>, erreketek, falangistak, faxistak (italiar eta alemaniarak barne), Guardia Zibila, eskuina, mairuak eta Espainia bera gaiztoen taldean sartzen direla, hau da, “besteak” dira. Horiek guztiak dira indarkeriaz baliatzen direnak (eta gudariez gain zibilak hiltzen dituztenak, tartean haurrak). Pertsonaia antagoniko horien karakterizazioari erreparatuta, biolentoak, liskarzaleak, matxistak, negozio ezkutuetan dabilzanak edo manipulatzaileak dira. Pertsonaia onen multzoan sartutakoak, berriz, toleranteak, feministak, euskaldunak, zintzoak edo leialak dira eta besteen indarkeria eta debekuak jasaten dituzte. Ezaugarrien esleipen horrekin, argi antzematen da zeintzuk diren liburuak defendatzen dituzten baloreak eta transmititzen duten ideologia.

Euskal gatazka irudikatzen duten literatur testuetan, benetan bitxia eta azpimarragarria da corpuseko 2 liburutan (*Txakurraren alaba* eta *Pikolo*) komunitate ez abertzalearen ikuspuntutik ematen dela istorioa, hau da, “bestearen” (guardia zibilaren alabaren eta guardia zibilaren semearen) ikuspuntutik kontatzen dela. Esan gabe doa euskal literaturan tradizionalki guardia zibila (eta baita guardia zibilaren familia ere) antagonista izan dela, bestea, ezagutzen ez dena<sup>235</sup>. Halaber, deigarria da nola “bestearen” ikuspuntua hartzen duten eta euren familiarengatiko aldentzea irudikatzen duten. Ezin ahaztu *Txakurraren alaba* lantzean iruzkindutakoa, alegia, istorioaren hasieran “gu versus bestea” banaketa garbi ikusten bada ere, amaieran arras zaila dela sailkapen hori egitea. Eta ez hori bakarrik, kontuan hartzekoa da liburuaren amaieran protagonistak ezker abertzaleko ideologiarekin bat egiten duela, nire interpretazioaren arabera bederen. Olaziregik (2017b: 12) dioenez, nobela

---

<sup>234</sup> Ongi bereizi behar da Gerra Zibileko eta Frankismoko karlistez ari naizela, eta ez Gerra Karlistetakoez, oso bestelakoa baita haiekiko ematen den ikuspegia eta kontakizunek egiten duten posizionamendua.

<sup>235</sup> Helduen literaturaz ari dela, Gantxegik (2017) adierazten du aurkako joera erakusten dutela euskal narratibak eta gaztelaniaz idatzitakoak, eta jatorrizko hizkuntzaren arabera biktima jakin batzuekin identifikatzen direla, ia inoiz ez beste biktima batzuekin. Dioenez, gaztelaniazkoan pertsonaia nagusia ETAre indarkeriaren biktima da ia beti eta apenas egiten dira ikusgarri edo errekonozitzen dira gainerako biktimak, alegia, borroka antiterroristak sortutakoak (polizia gehiegikeriak adibidez).

anglosaxoian ez bezala, badirudi euskal nobelan azken urtera arte ez dela nagusitu biktimaren ikuspuntutik narratutako ekintzak fokalizatzeko joera eta biktimarioaren ikuspuntutik narratu dela, hau da, terroristaren ikuspuntutik. Beraz, ikus daitekeenez, ordura arte helduen literaturan apenas hartutako ikuspuntua landua zegoen jada HGLn. Noski, baieztapen honek zehaztasunak eskatzen ditu, berez ez baita “biktimarioaren” ikuspuntua irudikatzen duen protagonista heldurik azaltzen. Alderantziz, euren familiako kideak dira hemen protagonistak eta beraz, zeharkako ikuspuntua da testuotan azaleratuz doana. Agian, literatura mota honek duen helburu pedagogikoarengatik izan liteke. Zinez uste dut hipotesi hau hausnarketagai garrantzitsua dela, aipatutako Olaziregiren (2017b: 12-13) artikuluan esaten den bezala, terrorismoari buruzko eleberrigintzak helburu pedagogiko hori izaten baitu gehienetan: pertsona bat ekintza terrorista bat egitera nola hel daitekeen erakusten ahalegintzea. Aipatutakoaren ildotik, bat egiten dut Zalduak (Sautrela, 2017) helduen literaturaz ari dela ondorioztatutakoarekin, esaten baitu gatazkaren gaia tratatzerakoan arreta handiagoa jarri dela biktimarioaren figuran, alegia, mundu abertzalean, ETaren munduaren alorrean; eta ez hainbeste historia ofizialak biktimatzen hartu dituen horien inguruan, nahiz eta horren ingurukoak egon diren. Olaziregik (Sautrela, 2017) dioenez, badira ikerketak biktimizazioei buruz euskal literaturan eta erakusten dute bertute bat dutela: erdibideko eremuak edo aldeak erakusten dutela. Horixe ikusi dut arestian aipatutako bi obretan ere, zuri eta beltzaren arteko eremu gris horretan murgiltzen direla eta irakurle gazteari zer pentsatua ematen diotela.

Arestian aipatutako obrak deserosoak direla esango nuke, ausartak era berean, ohikoaz bestelako ikuspuntu bat hartzera ausartzen direlako. Gizartearen bi muturrak ageri dira bi liburuotan, baina erdiko gune hori irudikatzean, interesgarria da protagonista edo diskurtsoa bera nora lerratzen den aztertzea. Esan bezala, *Txakurraren alaban* guardia zibilaren alaba “etorkina” ezker abertzalera gerturatzen da eta familiarengandik aldenduz, onarpen bat jasotzen du euskal komunitatearengandik, hau da, ez da bere horretan mantentzen. Alde horretatik, eta ematen den mezu ideologikoari lotuta, Mendigurenen obrak manikeoa izateko arriskua duela iruditzen zait. *Pikolon*, guardia zibilaren semea aita kartzelan duen neskaren lagun min egiten da. Azken honen aitak tolerantziaren aldeko mezu garbia ematen du, polizien seme-alabak errespetatu behar direla esanez. Protagonista kaltetuta irteten den ETaren atentatuan eskolako irakaslea seinalatzen da eta haren jardunbidean arakatzen da. Badirudi irakurlea gatazkan inplikaturako agente ezberdinetara hurbildu nahi dela, baina epai irmoak eman orde, gauzak erakutsiz, balorazioetan gehiegi sartu gabe. Alde horretatik, Zubizarretaren proposamenak beste sentsibilitate bat erakusten du. Kontuan hartzekoa da bi

obretan guardia zibilak humanizatu egiten direla, eta nahiz eta perpetradore edo borrero gisa ageri diren (bereziki Mendigurenanean), biktima gisa ere agertzen direla (*Pikolon*). Nire ustez horrek indartzen du gatazka egoera batean bi aldeek pairatzen dutela kaltea eta indarkeriaren erabileraz baliatzen direla bi aldeak. Iruditzen zait askotan euskal idazleari biktimari buruz idaztea eskatzen zaiola, baina argi dago hautu hori ez dela erraza. Kritikak ongi islatzen du zailtasun hori, bi liburuek jasotako kritiketan begiratuta, berehala antzematen baita elkarren kontrakoak diren balorazioak jaso dituztela, eta ez idazmolde edo kalitate literarioari dagokionez, errelatua kontatzeko ikuspuntuagatik baizik.

Protagonista ezker abertzalearen testuinguruan kokatzen bada ere, *Antipodak* eleberriak lehen aipatu dudan biktimarioaren ikuspegia ematen du. Etakide izateagatik urte luzez aita kartzelan duen gaztea da protagonista, baina hark guardia zibil baten alabarekin duen harremanak gidatzen du kontakizuna. Hari nagusia, beraz, errealitate guztiz antagonikoa duten bi gazteen harremana da eta narratzaile orojakileak pertsonaia bakoitzak bizi duen errealitatearen berri ematen du, bi gazteek haien inguruan duten indarkeriaren berri emanez, hau da, alde batekoek zein bestekoek indarkeriaz egiten duten erabilera agerian utziz. Gainera, bi gazteak saiatzen dira haien inguruarekin hausten eta indarkeriazko sorgin-gurpil horretatik ateratzen, eta beraz, bi aldeen arteko elkargune hori neutroagoa da. Lehenago aipatu ez badut ere, *Hiru sopranoak* lanean gatazkarekiko puntu ezberdinetan kokatzen diren pertsonaiak ageri dira, baita horien elkartzea ere. Dena den, elkartze-puntu hori ez da edonolakoa. Gogorarazi behar dut obra horretan ETaren helburu ez izan arren haren bonba batek hiltzen duela narratzaile autodiegetikoaren aita, eta abertzalea zen emazteak ETakide edo ingurukoa izateagatik preso dagoen gizonaren alabarekin elkartzea debekatuko diola alabari. Amaieran, ordea, senarra hil dioten emakume alargun horrek alabaren laguna onartu ez ezik, alabarekin batera presoan etxeratzearen aldeko urteroko manifestaziora joango da. Beraz, ikusten den moduan, tolerantziaren eta barkamenaren aldeko mezuak dauden arren, bi familien elkargunearen emaitza presoan aldeko manifestazioa da, batere neutrala ez den puntua alegia. Ez nuke aurrera egin nahi *Para bellumek* ematen duen ikuspegia laburbildu gabe. Gerra Zibilari eta Frankismoari buruzko atalean galtzaileen aldeko ikuspuntua nagusitzen bada ere, euskal gatazkari dagokionean, protagonistak gerraren alde banatan kokatutako familiak direnez, narratzaile orojakileak alde batekoek zein bestekoek burututako indarkeriazko ekintzak kontatzen ditu. Guardia Zibilaren gaineko oso irudi txarra ematen da, tortura bortitzak eta hilketak egozten baitzaizkio (eta jendarmeak ere indarkeriaz baliatzen

dira, ETAko kolaboratzaile bat hiltzen baitute). Gauza bertsua esan nezake torturak eta hilketak gauzatzen dituen GALez eta bahiketak, atentatuak zein hilketak egiten dituen ETAz.

Arestian aipatutako salbuespenak kenduta, esan daiteke euskal gatazkaz mintzo diren gainerako obra gehienak ezkerreko ideologia batetik emanda daudela, ezker abertzaleko ikuspuntutik zehatzagoak izateko. Gainera, gogorarazi behar dut corpusean badirela euskal presoan alde egiten duten elkarteek argitara emandako zenbait obra eta paratestuan bertan argi ikusten da zein ikuspegi nagusitzen den obran<sup>236</sup>. Batzuetan, protagonisten gurasoak (*Zer da, ba, maitasuna?*) edo protagonista gazteak (*Hiru sopranoak* eta *Oihanaren koadernoak*) presoan aldeko manifestazioetara joaten dira, edo bestelako ekintzekin iheslariak babesten dituzte (*Ainhoari gutunak*). Beste batzuetan, esplizituki esaten da protagonistak ezkertiarak (maiz ezkertiar abertzaleak) direla (*Anbroxio* eta *Harri barruko bihotz-borrokak*). Gainera, beste askotan, protagonistak kartzelan dauka osaba/izeba (*Kandela bat pizteko behar dena, Osaba Patxiren koadernoak* eta *Oihanaren koadernoak*) edo gurasoetako bat (*Tunelaz bestaldean, Haizea, Maritxipi eta amatxo, Hiru sopranoak* eta *Nemo kapitainaren azken bidaiak*). *Larunbatean Bukowskin* ikuspuntua neutroagoa da, ez baitago alde batera edo bestera lerratzen den adierazle garbirik. Eskolan Sarrionandiaren liburua lantzen dute eta idazleak bertan egindako hausnarketetatik abiatuta, pertsonaiek ETAREN indarkeriaz hitz egiten dute. Ikasleen ekarpenak entzun ostean, irakasleak esku-hartzen du eta bere hitzetan, lerratzeko ideologiko zantzu batzuk aurki daitezke, batez ere etakideen patuaz eta preso amaitu dutenen zorte txarraz hitz egiten duenean. Dena den, esan gabe doa mintzagai dudak eleberri honetan positiboki baloratzen dela ETAREN jardun armatuaren amaiera. “Lekukoa” bildumako 3 liburuetan, ezker abertzalearen inguruan mugitzen den protagonista ez dago politikoki oso inplikaturik eta lehenengo liburuan ETAREkin lotura txiki bat duen Martinekin badabil ere, gero harengandik aldenduko da. Hala ere, argi azaltzen da Guardia Zibila “bestea” dela, hilketak burutu eta bertsio faltsua zabaltzen duena, zeinarengandik protagonista ihesi dabilen. Frantziako jendarmeak, CRSa edo politikari eskuindarrak (Jean Marie Le Pen edo Yolanda Barcina kasu) ageri direnean ere, haiekiko irudi txarra ematen da.

“Bestearen” irudikapenaz aritu naizela, ezinbestean aipatu behar dut corpuseko obretan aurkitu dudak heterolinguisismoa, Suchetek (2009) dioenez, fenomeno hori baita

---

<sup>236</sup> Olaziregik (2019a) dioenez, azken bi hamarkadetako eleberrigintzaren berezitasunetako bat da molde autobiografikora gerturatzen diren ETAREN inguruko protagonisten gaineko narrazioen agerpena. HGLn, ezaugarri hori betetzen ez den arren, ohartaraztekoa da ETAK jardun armatua utzi ostean argitaratu zirela etakide izandakoek argitaratutako gatazkari buruzko obrak (bi salbuespen izan ezik) eta gutxi batzuetan egilearen edo beste etakide baten kartzelako esperientziara gerturatzen direla kontakizunak.

“bestearen” diskurtsoa irudikatzen duen moduetako bat, alegia, alteritatea edo bestetasuna adierazteko baliabideetako bat. Funtzio hori aztertutako obretan betetzen duela ikusi dut. Azpimarratzekoa da liburu askotan gaztelaniaz ematen direla Guardia Zibilaren hitzak (*Urtebete itsasargianen* eta *Sasieskolan* adibidez) eta halaxe mintzo direla ere falangistak eta frankistak (*Negu luzearen atarian*, *Arrastoa*, *Elur gorrituaren egunak* eta *Para bellum* dira horren adibide). Batzuetan, zuzeneko elkarrizketarik ageri ez den arren, esplizituki adierazten da gaztelaniaz hitz egiten dutela aurkarien taldean sartzen diren pertsonaiek. Hori da *Tunelaz bestaldeaneko* kartzelako funtzionarioen kasua edo *Arriskupean!* eleberriko neonaziana, atzeritartasuna adierazteko asmoz, neonaziak gaztelania kaskarrean mintzatzen direla baitio narratzaileak. Ildo beretik uler daiteke Meaberen obran haur ijitoak duen hitz egiteko era, zuzeneko elkarrizketetan antzeman baitaiteke ez dela ondo moldatzen euskaraz. Hizkuntzaren erabilerak pertsonaien karakterizazioan eragiteko duen funtzioaz ari naizela, ezin aipatu gabe utzi zenbait liburutan euskalkiak erabiltzen direla pertsonaiek ezaugarritzeko, besteak beste, *Behi euskaldun baten memoriaren*, *Sasi artean Elgetan* eta *Pike eta Pititon*.

Orain arte aipatutakoa kontuan hartuta, argi dago Guardia Zibilak aurkari funtzioa betetzen duela. “Bestea” da eta *txapelokerrak*, *pikoloak*, *txakurrak* edota *gizon gaiztoak* izendapena jasotzen dute batzuetan. Antagonistak dira. Indarrez sartzen dira etxeetan, jendea mehatxatzen dute, protagonistarengandik oso gertuko pertsonak atxilotzen dituzte, tortura basatiak egiten dituzte, frogak manipulatu dituzte, eta batez ere, hilketak burutzen dituzte. Pertsonaia lauak dira. Haien karakterizazioari begiratuta, arestian aipatu dudako moduan, gaztelaniaz mintzo dira maiz eta ezaugarri erabat negatiboak esleitzen zaizkie: lanean indarkeria erabiltzeaz gain, autoritario ageri dira eremu pribatuan; tradizionalak, intoleranteak, arrazistak eta matxistak dira eta horietako zenbaitek tratatu txarrak ematen dizkiete familiako emakumezkoiei. Kontrabalore horiek Guardia Zibilari esleitzean, argi geratzen da haiekiko eman nahi den mezua. Marrazkiei dagokionez, ez dira irudikatzen, baina esanguratsua da *Kandela bat pizteko behar dena* ipuinean kartzelako funtzionarioa otso gisa irudikatuta ageri dela eta animalia horrek gaizkia sinbolizatzen duela, literatur tradizioan ohikoa den moduan. Haiekiko irudia aldatzeko balio ez duen arren, liburu batzuetan humanizatu egiten da kontakizuneko guardia zibila, bere izate osoa guardia zibil izatera mugatu beharrean, aita gisa edota biktima gisa agertzen baitira; bereziki *Pikolon*, baina baita *Antipodak* eta *Txakurraren alaba* eleberrietan ere. Azken horri dagokionez, nire ustez bi aldeak humanizatzen dira, izan ere, Guardia Zibilaz gain euskal preso politikoak ere

gerturatzen zaizkio irakurleari<sup>237</sup>. Eta nola ez, obra horretan bien arteko lotura egiten duen Teresa protagonista humanizatzen da batez ere. Aipatutako lotura hori egiteko ezinbestekoa da bestea humanizatzea. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi ETAREN eta ezker abertzale erradikalaren aldetiko indarkeriazko ekintzak ikusgai egiten direla beste obra batzuetan. Azken horiei dagokienez, egia bada ere gehienetan molotov koktelak jaurtitzen dituzten gazteen ekintzetara mugatzen dela, *Antipodak* eleberrian iskanbila horietako batean jasandako erreduren ondorioz hiltzen den guardia zibila ageri dela, kale borroka protesta zaratatsu bat baino gehiago dela erakutsiz. Gainera, gazteek guardia zibilaren alaba jazarri eta jipoitzen dute obra horretan, darabilten indarkeria, ezinikusia eta gorrotoa agerian utziz.

Kartzelan egoteko arrazoiei erreparatzea interesgarria da, preso egoteko arrazoia edo kondena zehazten den ikusteko. Gorago esan bezala, gizon ala emakume, gehienetan ez da zehazten preso egoteko arrazoi zehatza, eta beraz, ez dira indarkeriazko ekintzekin lotzen. *Harri barruko bihotz-borrokak* lanean, azaldu dudan moduan, molotov koktelekin bulego bat erretzeagatik espetxeratzen dute protagonistetako bat den Maddi gaztea. *Nemo kapitainaren azken bidaiari*, egunkari batean lan egiteagatik dago kartzelan protagonistaren aita, baina ez da egunkariaren izena zehazten, ez eta egunkari horri egozten zaizkion karguak ere. Euskal irakurle helduak berehala egingo du lotura 3.2. atalean azaldutako “dena ETA da” fenomenoarekin eta ixtera behartu zituzten bi egunkariaren kasuekin, baina baliteke irakurle gazteenei lotura horrek ihes egitea. Egunkariaren itxieraz ari naizela, azpimarratuko nuke gertakari horri beste bi lanetan ere egiten zaiola erreferentzia, *Zer da, ba, maitasuna?* lanean eta *Pistolak eta epistolak* eleberrian hain zuzen. Euskal gatazkari buruzko hiru obratan horri erreferentzia egitea esanguratsua iruditzen zait, mintzagai dudan gatazka honen harira euskal kulturak jasandako errepresioa ikusgai jartzen baitute. Ildo horretan, lotura txiki bat egin daiteke Gerra Zibila eta Frankismoa lantzen duten obrekin, lehenago adierazi bezala, garai hartan euskal kulturak jasandakoa erakusten baitute. Berrartu dezadan pertsonaien kartzelatzeaz esaten ari nintzena. *Kixmi elurpeanen*, pertsonaietako baten aita kartzelatik pasatakoa dela esaten den arren, ez da ezer gehiago zehazten, herrian pintadak egiten maiz aritu zela baino ez. *Pikolon*, zerbait gehiago zehazten da, Euskal Herritarrok taldekoa izatearekin lotuta baitago espetxeratzea. *Hiru sopranoak*, ordea, etakidea edo ETAREN

---

<sup>237</sup> Corpuseko obretan, euskal preso politikoak gizartetik erabat isolatuta dauden fanatiko edo terrorista gisa irudikatu beharrean, alderdi gizatiarra erakusten da. Adibide bat aipatzearen, esanguratsua iruditzen zait *Ainhoaren gutunak*, hedabideek edo gizarteak esleitzen dien terrorista edo heroi (ikuspuntuaren arabera) karakterizazio soil horretatik at, giza neurriko neska-mutilak baino ez direla gogorarazten baitu, eta indarkeriazko testuingurutik at deskribatzen ditu, besteak beste, eritutako txoriak zaintzen dituzten presoek hitz eginez. Beste liburu batzuetan, haurrekin maitasunez jokatzeko duten pertsonak agertzen dira.

gertuko izateagatik dago preso protagonistaren aita, baina hemen ere, ez da aipatzen zein kargu egozten dioten edo zein ekintza zehatzek bidali zuen pertsonaia kartzelara. Antzekoa gertatzen da *Larunbatean Bukowskin*, Joseba Sarrionandiaren kartzelaratzeari ETAk izatearekin lotzen baita. Ezberdina da *Oihanaren koadernoan* ematen den informazioa, neskatoak osabari bere kartzelaldiaren zergatiak galdetu osteko presoaren hausnarketetan erantzun posible batzuk ematen dituelako, arrazoiak esplizituki ematen ez den arren, Espainiari gerra egitea, lagun bati mesede bat egitea edo gizarte hobe baten alde egitea nahi zuelako erantzungo liokeela ematen baitu jakitera. Baina informazio horrez gain, paratestuak beste datu bat gehitzen du. Batetik, kontrazalean, Patxi Aristik Salamancan dagoen Topas espetxetik 2008an idatzitako bertsoa dator. Bestetik, epitestuari begira, edo liburuaren aurkezpenean aurkezleek esandakoari erreparatuta, jakin daiteke liburuko pertsonaia nagusiak 2022an zendu zen Patxi Aristi etakideari egiten diola erreferentzia, alegia, 22 urtez kartzelan egon zen zumaiarrari. Azkenik, *Pike eta Pititon*, ez da esaten osaba kartzelan egon dela, baina irakurleak badaki urte batzuk behintzat etxetik kanpo eman dituela iheslari. Kontakizunean ematen dituen datuetara mugatuta, badirudi komando bateko kidea dela. Dena den, ez zaio indarkeriazko inolako ekintzarik egozten. ETArekin beraren ekintzei dagokienez, jada aipatu dudan moduan, mehatxuak, bahiketak, atentatuak eta hilketak egozten zaizkio. Azpimarra dezadan ETArekin jardun armatuari buruzko epairik agertzen denean, mezu negatiboa nagusitzen dela beti. Pertsonaiaren baten hitzetan ETArekin aldeko balorazio positibo txikiren bat ageri bada ere, borrokarako arrazoiak eta helburu horiek lortzeko bitartekoak bereizten dira, azken hori (jardun armatua) gaitzetsiz. Horixe da *Harri barruko bihotz-borroka* kasua, zeinetan protagonistetako batek azaltzen duen ETAk borrokarako izan dituen arrazoi gehienekin bat etorri den arren, ez duela berdin pentsatzen borroka moldeez.

Ez nuke aurrera egin nahi azpimarratu gabe zenbait obrak gizartearen erantzukizun kolektiboaren gaiari heltzen diola. Euskal gatazkari buruzko literatur testuetan antzeman dut hori. Indarkeriari buruzko kontakizun horietan, perpetratzaile/delituagile eta lekuko kategoria oinarritzko gain, subjektu inplikatuak ageri da. Euskal gizartearen interpelatzen da, luzaz iraun duen indarkeriazko egoeraren aurrean hartutako jarreraz galdegiteko (isiltasunak, ezaxolak eta konplizitateak gatazkak iraunarazten baititu). Memoria Ikasketen atalean (5.1.) azaldu dudan moduan, kontzeptu horrek iradokitzen du indarkeriak eta berdintasunik ezak ezaugarritutako egoera batean inor ez dela guztiz errugabea eta denok dugula erantzukizun politikoa. Esandako hori corpuseko adibide batekin janzteko, *Antipodak* eleberria iruditzen zait esanguratsuen, zeinetan narratzaile orojakileak atentatu bat deskribatzen duen, gertaerari



buruzko epaiak emateaz batera, indarkeriazko ekintzarekiko herritarren ezaxola salatuz. Lan horretan bertan, euskal gatazkarekin zuzenean lotutako bi manifestazio jartzen dira aurrez aurre, batetik, ETaren bahiketa baten aurkako protesta isil eta txiki bat; eta bestetik, askoz jendetsuagoa eta zaratsuagoa den presoen aldeko manifestazioa. Narratzaileak epairik ematen ez duen arren, pasarte horrek erantzukizun kolektiboaren gaineko hausnarketa pizten du, alegia, zergatik ez den biltzen hainbeste jende enpresari baten bahiketa salatze eta zergatik nagusitzen den isiltasuna kasu horretan. Beste zentzu batean bada ere, *Txakurraren alaban*, protagonista erantzule sentitzen da lagunek Guardia Zibilaren torturak jasan bitartean torturatzailea izan daitekeen aitak erositako pastelak jan izanagatik eta kontzientzia lasai eduki izanagatik. *Hari single bat* eleberrian, ordea, argi azaltzen da ez garela gure arbasoek egindakoaren erantzule.

Corpuseko liburuek helarazten duten mezu ideologikoaz aritu naizenean aipatu ez badut ere, ez da oharkabean pasatzekoa memoriaren transmisioari ematen zaion garrantzia eta horrekin lotuta egiten den aldarrikapena. *1948ko udan*, transmisioaz gain, memoria historikoa *jasotzeko* beharra azpimarratzen da. *Itsas azpiko sekretuan*, berriz, transmisio horren garrantziaz gain, garai hartan gertatutakoak ahanzturan ez erortzea aldarrikatzen da eta *Memoriaren zuhaitzan*, memoria familiarrean jartzen da azpimarra. *Arriskupean!* lanean, gaiarekin lotutako hausnarketa interesgarriak planteatzen dira, historia zuhurra eta maltzurra delakoan, istorio txikiekin ohartzera bultzatzen baita irakurlea. Liburu horretan historia monumentala ezbaian jartzen dela iruditzen zait, edo gutxienez, historia ofizialetik at geratutako istorioak erdigunera ekartzea bultzatzen dela. Mikrohistoriaren aldarrikapena egiten da nire ustez, ahaztutako ahotsak erdigunera ekartzeko eta horiei tokia egiteko nahia adieraziz. Jakina da memoria tranpatia izan daitekeela maiz eta oroitzea beti dela berreraikitzea. Corpusean bada horri buruzko hausnarketa egiten duen obrarik. Agerikoena *Behi euskaldun baten memoriak* da, bere memoriak idazten ari den protagonistak idazketa prozesuari buruzko gogoetak plazaratu eta memoriaren funtzionamenduari buruz hitz egiten baitu, memoriaren fidagarritasuna zalantzan jartzearekin batera. Transmisioari garrantzia ematen zaio ere *Amonarenean kea*, *Din, dan, don...* *Kanpai lapurrak non?* eta *Hari single bat* liburuetan. Ez nuke *Anbroxio* eleberria aipatu gabe utzi nahi, transmisioaren gaia zentrala baita. Eskuin muturrak telebistan zabalduetako gezurrak ezeztatzeko helburuarekin ekingo dio protagonistak memoria traumatikoen transmisioari; belaunaldi gazteek iragana ezagut dezaten eta ez daitezen berriz errepikatu. Ez hori bakarrik, historia liburuetakoko datu soilen alboan, hurbilagoko lekukotzak eta jendearengan eragiteko gaitasun handiagoa dutenak gehitzeko

helburua antzematen zaio protagonistari. Haren ilobak ere, lekukotza guztiek duten balioa aldarrikatu eta beste pertsonaia batzuekin batera, gerra bizitakoen memoriak biltzeari eta ezagutzera emateari ekingo dio. Mintzagai dudan liburu hau interesgarria da, historiografia ofizialak alde batera utzitako lekukotasunak ezagutzera ematea aldarrikatzen baitu. Ideia hori bera corpus osora zabal nezake, izan ere, aztertutako liburuak galtzaileen historian zentratzen dira (intrahistoria erakusten dute, menderatuek jasan zuten isiltasuna hausteko) eta gerrako fase, borrokaldi eta datu kuantitatiboez gain, mikrohistorian ardatzen dira. Euskal gatazkarekin lotutako liburuei dagokienez, esango nuke Espainiar eta Frantziar Estatuak edo estatu-mailako hedabideek egin duten errelatuari erantzuteko nahia antzematen dela, baita zigorrik gabe geratu diren zenbait bidegabekeria agerian jarri eta salatzekoa ere, poliziaren tortura kasuak eta ezker abertzalearen aurkako neurri errepresiboak kasu. Ez hori bakarrik, emakumeek gerran jokaturako paperaren eta haien memoriaren aldarrikapena egiten da zenbait liburutan, haien esperientziak fikziozko lanetan erakusgai jarritz. Batzuetan, aldarrikapenak eurak ez dira esplizituak, baina beste batzuetan, ordea, bai. *Urtebete itsasargianen*, adibidez, pertsonaia femeninoetako batek zerrendatzen du emakumeen jarduna Gerra Zibil garaian, eta *Hari single bat* eleberrian, ordea, narratzaile orojakileak salaketa eran egiten du adierazpena. Bertan, hizki larriz garaileek idazten den historiaren beste aldean, historiak ahanzturara kondentatzen dituen galtzaileak daudela gogorarazten du eta horren guztiaren gainean, galtzaile partikular batzuk jartzen ditu agerian, bizirik iraun eta aurrera atera ahal izateko bereak eta bi gehiago egin behar izan zituzten emakumeak, haiek eurek egindakoari garrantzirik eman ez arren familia aurrera ateratzeko egogor egin zutenak.

Kronotopoari erreparatuz gero, aipatzekoa da kontakizunetako gertaleku nagusia Euskal Herria dela, eta askotan, benetako tokiak eta fikziozko espazio literarioak (egiantzekoak) uztartzen direla, adibidez, *Urtebete itsasargianen*, *1948ko udan*, *Pistolak eta epistolaken* edo *Goizeko zazpiak* eleberrian. Euskal Herrian girotuta ez dagoen obra bakarra *Azken garaipena* komiki ukronikoa da, 2052. urteko Germanian girotzen baita trama osoa. Gainerako kontakizunek kronologia zehatza dute eta errealismo historiko handia. Ezin aipatu gabe utzi zenbait liburutan espazio sinbolikoak ageri direla, memoria gunetzat hartu daitezkeenak. Lehenik eta behin, Gernikak duen nagusitasuna azpimarratu behar da, harriztekoa ez dena, Bizkaiko herri horrek esanahi sinboliko handia baitu. Ludger Mees historialariak (2007) baieztatzen duen moduan, Gernika da euskaldunon memoria gune nagusia eta gure memoria kolektiboan ez dago leku, pertsonaia edo sinbolorik Bizkaiko herri

horrek baino presentzia handiagoa (izan) duenik<sup>238</sup>. Bonbardaketa gertatu zenetik gaur egunera arte, euskal literaturan ugariak bezain askotarikoak izan dira mintzagai dudan tokiari aipamena egin dioten obrak (Olaziregi eta Otaegi, 2011; Retolaza, 2009), baita euskal HGLn ere, corpusaren azterketak erakutsi duen moduan. Batetik, Gernikako arbolari egindako erreferentziak aurki daitezke Jose Maria Iparragirreri buruzko 2 liburuetan eta *George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria* obran; baina bestetik, Gernikako bombardaketa ageri da 9 obra hauetan: *Beroki gorria, 1936ko gerra haurrei kontatua, Munduko zazpi herrialdetako ipuinak, Sagitario, George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria, Zer du aitonak?, Euskal Herriaren Historia XXI. mendeko haurrei kontatua, Para bellum* eta *Urtebete itsasargian*. Meaberen eleberrian, Espainiako irratiak zabalduetako gezurraren berri ematen da, alegia, Gernika gorriek erre zutela; eta Steerri buruzkoan, argi azaltzen da kazetari britainiarrek Gernika faxistek suntsitu zutela baieztatu zuela *The Times* egunkarira bidalitako artikuluan<sup>239</sup>. *Elur gorrituaren egunak*en, protagonistak Kondor Legioak eta Aviazione Legionariak Euskal Herrian egindako bombardaketak aipatzen ditu eta horrekin batera, frankistek bombardaketen gainean zabalduetako gezurra salatzen du, adieraziz gure herriak erre zituztenak ez zirela gorriak izan. Gernikako bombardaketarekin lotuta, ezin aipatu gabe utzi Picassoren margolan famatua aurki daitekeela corpuseko 4 liburutan, dela alderdi paratestualean, dela testuan bertan (*George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria, 1936ko Gerra haurrei kontatua, Sagitario* eta *Hari single bat*).

Gernikaz gain, bombardaketak jasan zituzten beste toki batzuk ageri dira, besteak beste, Durangoko, Elgetako, Eibarko, Elorrioko, Otxandioko, Bilboko, Mungiako eta Donostiako bombardaketak aipatzen baitira. Bilboren hartzea hainbat lanetan ekartzen da gogora, baita bestelako batailak ere, hala nola, Intxortakoa, Sabigainekoa, Matxixakokoa eta Brunetekoa. Santoña behin baino gehiagotan aipatzen da, dela EAJK bertan sinatutako hitzarmenagatik eta errendizioagatik, dela hango kartzelagatik. Presondegia aipatu dudala,

<sup>238</sup> Batetik, 1937ko apirilaren 26ra arte Gernika eta bere haritza euskal askatasunaren eta demokraziaren sinbolo izan zen. Bestetik, Gerra Zibileko bombardaketaren ondotik, bakearen sinbolo bihurtu zen (hein handi batean Picassoren margolanari esker). Ez hori bakarrik, bere esanahia euskal gizartetik sozialki eta geografikoki urrun dauden gizataldeetara ere heda daiteke (Mees, 2007: 531); eta hala izan dela esango nuke, Retolazari (2008) jarraikiz, Gernikako bombardaketak gertakari historiko espezifiko gisa bere ahalmen erreferentziala galdu eta sinbolo gisa funtzionatu izan duelako, bestelako gertakari traumatikoen eta haien memoriaren metafora gisa.

<sup>239</sup> Gernika erre zutenak errepublikanoak izan zirelako akusazio zinikoa galtzaileei ezarritako zigorraren zati bat baino ez zen izan. Jakina da bando errepublikanoak ahaleginak egin zituela bombardaketaren egia nazioarteko hedabideei ezagutzera emateko, eta gauza jakina da ere Francoren Estatu Nagusia gaia estaltzen saiatu zela sutuki. Horrek agerian jartzen du 1937ko apirilaren 26ko gertaera horiek maila sinbolikoan hartzen ari ziren garrantzia. Erasoak populazio zibilaren aurka egindako debaldeko eraso krudel eta iraingarriena kontsideratzen da (Olaziregi eta Otaegi, 2011: 43-44). Biziki gomendagarria iruditzen zait Xabier Irujoren *Gernika: Genealogy of a Lie* (2019) liburua, zeinetan Gernikako bombardaketaren inguruan zabaldu ziren gezurrak bildu eta aztertu ondoren (30 bat), gezurtatu egiten dituen guztiak.

Santoñakoaz gain, ezin aipatu gabe utzi aztertutako lanetan ahotan hartzen diren Ondarretakoa eta Larrinagakoa. Bigarren Mundu Gerrarekin lotuta, *Anbroxio* eleberrian, presondegi gisa funtzionatu zuten Hendaiako *Kommandanturra* edo Fort du Hâ ageri dira, toki ezagunak euskaldunon iruditerian, okupazio garaian bertatik pasa baitziren euskaldun asko. Arrazoi beragatik, ezin aipatu gabe utzi ezagunagoak diren Buchenwald eta Ravensbrück-eko kontzentrazio-esparruak, gutxienez 55 eta 12 euskaldun igaro baitziren bertatik hurrenez hurren (Gogora, 2020). *Goizeko zazpiak* eleberriak, Ravensbrückez gain, 115 euskaldun jaso zituen (Gogora, 2020) Mauthausen aipatzen du, nahiz eta bi kontzentrazio-esparru horiei Rabenbüke eta Muthausen izena eman eleberrian.

Euskal gatazkaren testuinguruan, aipagarria da Espainiako Auzitegi Nazionala 2 obratan aipatzen dela, batean tortura kasuekin lotuta (*Harri barruko bihotz-borrokak*); eta bestean, ezker abertzalearen aurkako zentsurarekin lotuta (*Anbroxio*). Gatazkari buruzko obra askotan ETA aipatzen da eta taldea bera memoria gune gisa har daiteke. Gabilondok memoria gune sinboliko eta ezkor bat dela dio, “espainiar guztiei historia saltorik gabe era traumatikoan gogorarazten diena, hots diktaduratik demokraziara trantsiziorik izan ez dela gogorarazten diena” (2013:99). Ildo horri lotuta, antzera uler daiteke corpusean behin baino gehiagotan aipatzen den GAL erakundea. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi *Txakurraren alaba* eleberrian espazio sinboliko garrantzitsuak ageri direla, besteak beste, Donostiako Loretopean dagoen Txillidaren *Besarkada* eskultura, zeinak lagun baten besarkada, adiskidetzeta edo elkar aditzea artearen hizkuntza unibertsalaren parte dela gogorarazi nahi duen. Argia da, beraz, elementu eskultoriko horrekin, edo espazioaren hautaketa horrekin, narrazioak eman nahi duen mezua (elkar ulertze ideologikoa eta errespetuan oinarritutako elkarbizitza). Mintzagai dudan eleberri horretan bertan, Gladys-Enea parkea (ofizialki Cristina Enea) bisitatzen du protagonistak; eta nire ustez, toki horren hautaketa ez da ausazkoa, Guardia Zibilak manifestazio antinuklear batean hildako Gladys gaztearen kasua ekartzen baitu gogora, poliziaren indarkeria gogorarazten duen memoria gune bihurtuz parkea. Oroitaraztekoa da obra horretan Guardia Zibilaren gaineko ikuspegi ezkorra ematen dela, eta aipatutako espazioaren hautapenak indartu egiten duela hori.

Gerra Zibilera itzulita, *Habana* itsasontzia azpimarratu beharreko memoria gunea iruditzen zait, aztertutako 4 liburutan ageri baita eta haurren ebakuazio zein erbestearekin lotzen baita zuzenean. Elementu garrantzitsua da, izan ere, ederki irudikatzen du haurrek bizitako erbestealdi bikoitza. Batetik, Euskal Herria utzi eta leku ezezagun batera abiatzeagatik; baina bestetik, gurasoak atzean utzi eta haiekin berriz elkartzeko ziurtasunik

gabe alde egiteagatik. Datuen arabera, 17.000 haur baino gehiago irten ziren Bizkaitik *Habana* itsasontzian eta orotara, 30.000 ume baino gehiago erbesteratu zituzten Hego Euskal Herritik 1936 eta 1937 bitartean (West, 2023). Itsasontziez ari naizela, azpimarratzekoa da zenbait obratan Eusko Gudarostearen hainbat itsasontziren izenak aipatzen direla, baita batailoien eta haien buruena ere (besteak beste, *Metxa izeneko agirretar baten ibili herrenaken* eta *Urtebete itsasargianen*). Aipatzekoa da literatur lanetan agertutako memoria gune gehienak, eta bestelako espazio fisikoak, fronte nazionalistari dagozkiola, hau da, euskal nazionalismoaren memoria kolektiboan garrantzia dutenak direla. Goian aipatutakoez gain, ezin ahaztu hainbat lanetan ageri den Bilboko Carlton hotela, Eusko Jaurlaritzaren egoitza izan zelako ezaguna dena; *Eusko Gudariak* kantua<sup>240</sup>, *Gudaria*<sup>241</sup>, *Emakumea*; edo pertsonaia historikoetara jauzi eginez, maiz aipatzen den Jose Antonio Agirre lehendakaria<sup>242</sup>, Esteban Urkiaga “Lauaxeta” olerkaria, Jose Ariztimuño “Aitzol” idazlea edo *Urtebete itsasargian* eleberrian aipatzen diren beste hainbat. Bide batez, esan gabe doa corpuseko liburuetan, pertsonaia historikoak tartekatzen direla fikziozko pertsonaiekin batera. Esanguratsua da faxistek Juan Fernandez Ayala “Juanin” maki kantabriarra hildako tokiari egiten dion aipamena *Behi euskaldun baten memoriak*, Atxagak hari egindako omenaldi xumetzat har baitaiteke, liburu horri dagokion analisisian azaldu dudan moduan. Pertsonaia horiez gain, noski, Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan garrantzia izan zuten gizasemeak hartzen dituzte ahotan obrek, hala nola, Francisco Franco, Emilio Mola, edo Luis Carrero Blanco; baita, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan, Adolf Hitler ere. Gerra Karlistekin lotuta, Tomas Zumalakarregi da gehien ageri den pertsonaia historikoa<sup>243</sup>. Memoria gunez aritu naizela, iruditzen zait ezin dudala aipatu gabe utzi *Xabiartxo* euskal testuliburu klasikoa, euskaldun askoren iruditeria kolektiboan memoria gune garrantzitsua dena, bere garaiko hezkuntza sistema eta euskaldun askoren haurtzaroa oroitarazten duena, baita, horrekin batera, gerra garaian eta ondorengo urteetan euskarak pairatu zuen zapalkuntza ere. Corpuseko 2 obratan egiten zaio erreferentzia, batean amonak ezkutatuta duelako (*Ikastola armairu barruan*), eta bestean, frankistak etxean sartu eta sutara botatzen dutelako (*Negu luzearen atarian*).

---

<sup>240</sup> *Eusko gudariak* da euskal abertzaletasun erradikalaren sinbolo erabilienetako bat (Casquete, 2012: 345).

<sup>241</sup> Corpusean *gudariak* bi adiera ezberdini egiten dio erreferentzia. Gerra Zibilekin lotutako liburuetan, Eusko Gudarosteko kideak izendatzeko erabiltzen da deitura hori; baina euskal gatazkarekin lotutako lanetan, ordea, ETako kideei erreferentzia egiteko.

<sup>242</sup> Meesek (2012) dioenez, lehenengo lehendakaria izateaz gain, zalantzarik gabe aro garaikideko euskal politikari errespetatuena eta ezagunena izan zen, baita ziuurren XX. mendeko garrantzitsuen ere.

<sup>243</sup> López de Maturanak (2012: 762) dioenez, jeneral karlista gipuzkoarra mito karlista bihurtu zen berehala, baina horrez gain, bera da ideologia desberdinetako historialari eta literatoek gehien aipatu duten euskal pertsonaia historikoa.

Euskal gatazkarekin lotutako obretan, deigarria da batzuetan isilean gordetzen direla euskal gatazkan inplikaturako agenteak eta beste batzuetan, nahiko era ezkutuan aurkezten direla. *Begi bat kokotean* liburuak, adibidez, ETAREN lehenengo atentatua hartzen du hizpide, baina ez ditu ez Txabi Etxebarrieta etakidea ez eta José Pardines polizia aipatzen, jazoera gertatu zen tokia baino ez: Tolosako Benta Haundi, zeina memoria gunetzat har daitekeen, toki horretan omenaldiak egin baitzaizkio bertan hildako Etxebarrietari. *Zimaren abenturak* lanean Joseba Sarrionandiari erreferentzia egiten zaio, baina ezkutatuta dabilen eta euskararen bidezidorrak ondo ezagutzen dituen *Sarri* baino ez da aipatzen. *Pistolak eta epistolak* lanean, berriz, letrakerarekin eta hitzekin jolastuz, Felipe González eta GAL elkarren ondoan jartzen dira, Espainiako presidente ohiak GALEkin izandako inplikazioa salatuz, lerro artean bada ere. Antzeko joko iradokizailleak erabiltzen dira ere Juan del Olmo eta *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera lotzeko, baita osteko tortura kasuen erantzule egiteko ere. *Pistolak eta epistolaken* eta *Anbroxion*, Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzón epailea jartzen da jopuntuan, Askatasuna eta Segiren ilegalizazioaren erantzule nagusia izateagatik, adierazpen askatasunaren aurkako erabakiak hartzeagatik (euskal hedabideak itxiz) eta hainbat tortura kasurekin ez ikusiarena egiteagatik. Izenak eta gertaerak modu agerikoenean aipatzen dituen *Larunbatean Bukowskin* eta *Antipodak* eleberriak dira (12 eta 14 urtetik gorako irakurleei zuzendutakoak hurrenez hurren). Lehenengoari dagokionez, batetik, Joseba Sarrionandiaren kartzelatzea ETAKoa izatearekin lotzen da eta haren ihesaldi eta erbestealdi sekretuaz hitz egiten da. Bestetik, Sarrionandiaren ihesaldiarekin lotuta, Imanol Larzabal aipatzen da, jakitera emanez ihesaldia posible egin zuela, nahiz eta alde egin behar izan zuen gero, ETAREN mehatxuen ondorioz. Horiez gain, benetako beste izen bat hartzen da ahotan, Yoyes, jakinarazteko berau ETAK akabatu zuela. *Antipodaki* dagokionez, Txiki eta Otaegiren fusilamendua aipatzen da, baita Luis Carrero Blancoren aurkako atentatua ere.

Istorioetan lantzen den gaia edozein delarik ere, badaude ezaugarri zenbait oro har obra guztietan errepikatzen direnak. Batetik, aztertutako obra (ia) guztietan gerrak edo gatazkak eragindako heriotza ageri da, baina horrez gain, harrigarria iruditu zaidana zera izan da: gatazka eremutik kanpo hildako norbaiten berri ematen duela protagonistak berak edo narratzaileak. Batzuetan, aitona-amonak hiltzen zaizkio protagonistari (heriotza naturalagatik normalean, baina baita auto batek harrapatuta edo eroriko baten ondorioz ere). Bestetan, gurasoak dira hiltzen direnak (gaizkileren batek hilda edo auto-istripuz adibidez) edo beste heldu batzuk dira hiltzen direnak (erditzean edo auto batek harrapatuta kasu). Gainera, gaixotasunen ondorioz hiltzen diren pertsonaiak aipatzen dira, tartean hiru haur txiki,

leuzemiagatik, meningitisagatik eta tuberkulosiagatik hiltzen direnak. Heriotza horiek iraganeko planoan gertatzen diren arren, kontakizunean bere tartea eskaintzen zaiela esango nuke, eta beraz, irakurle gaztearengan eragiteko efektua dutela iruditzen zait. Heriotza horiez gain, aipatzekoa da obra gutxi batzuetan etxe-animaliak hiltzen direla. Lanari ekin nionean ez nuen uste hainbesteko presentzia izango zuenik heriotzak, ez behintzat gerra testuingurutik at, ezta berau hain modu esplizituan agertuko zenik. Nire ustez ezaugarri positiboa da hori, sarri aipatu izan baitira heriotza txikitatik lantzeak dakartzan onurak. Dena den, kontuan hartu behar da 6 urteak bete aurretik haurra ez dela itzulezintasuna zertan den ulertzeko gai, uste izaten baitu gaur hilik dagoena bihar berriro bizirik egon daitekeela. Patxi Izagirre psikologo klinikoa eta Ane Izagirre psikologiako ikaslea (Hik hasi, 2018) heriotzaren afera tabu izateari uztearen alde agertzen dira eta hurrekin gai hori txikitatik modu naturalean hitz egiteak duen garrantzia azpimarratzen dute. Diotenez, normalean 8 urte ingururekin hasten dira haurrak heriotzarekiko kezka edo herstura agertzen eta garai hau une aproposa izan daiteke gaiari heltzeko eta zerbait normala balitz bezala hartzeko. Gaineratzen dutenez, “bizitzarako heztea esan nahi du, nolazpait, haur eta nerabeekin heriotzaren gaia lantzeak, maila psikologikoan heriotzaren kontzientzia edukitzeak zerikusi handia izan baitezake bizitzaren esnagailu moduan”.

Arestian aipatutako esnatze hori aztertutako zenbait obratan ageri da eta esplizituki aipatzen da pertsonaiak mutututa dabilzala gerraren hasieratik. *Gerrak ez du izeniken* oso esanguratsua da bonbardaketak eragindako kalteez ohartu arte haurrak ahorik ez izatea irudietan. Errealitateaz jabetzean ordea, inozentziaren mundutik esnatu eta oihu egingo du txikiak. *Itsas azpiko sekretua* eleberrian, esanguratsua da bizilagun guztiak *gerra* hitza ahoan edukitzea uneoro, baina bonbardaketak hastean, hau da, guda iristean, *gerra* hitza bizilagunen ahotik ez entzutea. Gerra bizi ostean ere, pentsatzekoa da bizirik irautea lortzen zuten horiek trauma izugarriari egin behar izaten ziotela aurre, horixe baita liburuetan irudikatzen dena, pertsonaia askok uko egingo baitiote gerrako esperientzia lazarriak kontatzeari. *Begi bat kokoteanen*, zergatia ondo azaltzen ez den arren, gaztea mutil isila bihurtzen da gerratik bueltan, pentsa daiteke bertan bizitako miserien erruz. Ildo beretik, *Anbroxion*, protagonistari urteak kostako zaio gerra garaikoak ondorengoei kontatzea, oroitzapenen gogortasunagatik eta horiek gogora ekartzek sortzen duen sufrimendu zein lotsagatik. Azkenik, *Hari single bat* lanean, transmisio katea eten egiten da arbasoek gerran bizitako momentu latzak gogoraraziz sufrimendua ondorengoei ez transmititzeko helburuz. Eleberri horretan, abertzale eta ezkertiarra izateagatik jasandakoa berriz gogora ez ekartzeko isiltzen da protagonistaren

amaren aldetiko familia. Baina aitaren familia, aldiz, garaileen bandoan kokatzen da eta aitak gurasoen memoria alabari transmititzeari uko egingo dio, ez horrenbeste bizipenen laztasunagatik, baina bai arbasoek egindako ekintzez lotsatzen delako eta erantzukizun kolektiboa sentitzen duelako nolabait. Assmannen (2010) hitzak jarraituz, ahazteko modu pasiboaren adibide lirateke arestian aipatutako isiltze horiek.

Corpuseko obra gehienetan, iragana irudikatzeko modua esperientziala edo berreraikitzailea da. Euskal gatazka mintzagai duten liburu guztietan modu esperientziala nagusitzen da, espero izatekoa dena, testuinguru horretan bertan idatziak izan direnez gero. Gainerako gerrez hitz egiten duten lanetan, ordea, bi moduak aurki daitezke. Iragana irudikatzeko modu esperientzialean, bi plano sortzen dira eta oraineko planotik abiatutako kontakizuneko protagonistak iraganeko gertakariak ikertu edo ezagutzen ditu. Memoriaren transmisio horretan, argazkiak ageri dira maiz memoriaren pizgarri (*Hari single bat* eta *Amonarenean kea*); baina beste batzuetan, familiar baten gutuna (*Itsas azpiko sekretua*), egunerokoa (*1948ko uda*) edo bestelako elementu bat da bitartekari lana egiten duena.

Nire ustez, corpuseko obrak egoki egokitzen dira hartzailearen adinera, eta horren arabera neurtu egiten dute erakutsi beharreko indarkeria edo gordintasuna. Dena den, azpimarratuko nuke heriotza eta indarkeria espero baino gehiagotan ageri dela aztertutako lanetan. Gerraren eremu semantikoari erreparatuz gero, azpimarratzekoa da *borroka*, *gatazka*, *hilketa*, *fusilamendua*, *bonbardaketa*, *atentatua*, *atxiloketa*, *errepresioa*, *tortura*, *heriotza*, *inbasioa*, *indarkeria*, *terrorea* edo *suntsiketa* bezalako hitzak ageri direla eta gerrako semantika zabalaz gain, eszena bortitzak agertzen direla. Oro har ez da eufemismorik baliatzen horiei erreferentzia egiteko. Hamabi urtetik gorako irakurlea helburu duen *Beroki gorrian* adibidez, aita hilda dagoela esan beharrean, hura gerrak eraman zuela eta zeruan dagoela jakinarazten du narratzaileak, baina ezin esan kontakizun horretan heriotza ezkututzen denik, beste haur pertsonaia batzuen heriotzaren berri era esplizituan ematen baita. Antzekoa esan nezake 8 urtetik gorako irakurleei zuzendutako *Pikolo* obraz; bertan, atentatuaren osteko guardia zibilaren hilketaren berri emateko *ez da existitzen* eufemismoa baliatzen baitu narratzaile autodiegetikoak. Hala ere, ilustrazioan guardia zibilaren hileta-elizkizuna ageri da, hilkuxa eta guzti. Bistakoa da obra horretan elipsi batzuk egiten direla, eta hutsune batzuk sortzen direla, irakurle helduak aski ongi bete ditzakeenak baina hurrek ulertuko ez dituztenak agian (adibidez, aitak ez dionean protagonistari erantzuten zer gertatzen den terroristek haien kotxeko matrikula apuntatzen badute).



Eufemismoen erabilera antzeman dut liburu batzuetan ETari erreferentzia egiteko orduan. Batzuetan, bere izenez egiten zaio erreferentzia erakunde armatuari (*Larunbatean Bukowskin, Hiru sopranoaken, Pikolon* edo *Harri barruko bihotz-borrokaken*), baina beste batzuetan, ordea, aipamena saihesten da. Horren adibide dira “Lekukoa” trilogiako eleberriak, zeinetan ETari erreferentzia egiteko *erakunde armatua, komandoa*, edo *sugea* bezalakoak erabiltzen diren, nahiz eta gainerakoan esplizituki ematen den hilketa eta bestelakoen berri. *Ainhoari gutunaken* termino eufemistikoaren bidez egiten zaie erreferentzia etakideei, adibidez, *paparrean sugearen eta aizkoraren sinboloa daramaten militante klandestinoak* perpausarekin. Eufemismotzat hartu ezin daitekeen arren, errealitate gordina leuntzeko funtzioa du 7 urtetik gorako irakurleei zuzendutako *Nemo kapitainaren azken bidaiari* baliatzen den testuartekotasun jokoak eta aitaren kartzelaldia urpekariaren jolasaren bidez irudikatzen dituzten narratzaile autodiegetiko gazteak erabiltzen duen baliabideak (eta fantasiaren erabilera). Antzeko zerbait esan daiteke 5 urtetik aurrerako hartzailea helburu duen *Haizea* ipuinaz, *etxe handia* terminoarekin egiten baitio erreferentzia kartzelari, eta *gizon gaiztoarekin*, berriz, kartzelako funtzionarioari. *Tunelaz bestaldean* ama atxilotzen dutenei *maskaradunak* deitzen die protagonistak eta 5 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako *Kandela bat pizteko behar dena*, kartzelako funtzionarioen ordez, otsoak ageri dira irudietan<sup>244</sup>.

Zenbait liburutan konparaketak eta metaforak erabiltzen dira inpaktu emozionala arintzeko. *Nemo kapitainaren azken bidaiari* eta *Gerrak ez du izenik* adibidez, sinilara jotzen da gosea, beldurra edo tristura bezalako sententzio abstraktuak definitzeko eta sentiarazteko. Errekurtso horren bidez, espazio sinbolikoak sortzen dira helburu jakin batekin. Fikzioan dauden espazio sinbolikoek esanahia duten lurraldeak ezartzen dituzte, errealitatea eraldatu egiten dutenak berau ikusgai jarri ahal izateko, izendaezinari izena eman ahal izateko edo definitzen zailak diren emozioak azaltzeko. Esan gabe doa *Nemo kapitainaren azken bidaiari* sinbolismoak obra osoa hartzen duela, pertsonaiaren kartzelaldia urpekariarekin parekatzerakoan. Modu horretan, irakurleak naturaltasun handiagoz gaindi dezake preso dagoen pertsonaiaren inkomunikazioa. Antzekoa esan nezake *Pikondoaren baladan* eraikitzen

---

<sup>244</sup> Bitxia da corpuseko obretan “bestea” irudikatzen animaliekin egiten den erabilera. *Urtebete itsasargianen, Espainia aldetik orroka datorren zezena* da “bestea”, hau da, gaizkia. Obra horretan bertan, *otso, deabru* eta *piztia* deitzen die protagonistak guardia zibilei eta bularra ematen ari den amak otsoez ohartarazten dio haurrari. *Behi euskaldun baten memoriaken* ere otsoak ageri dira eta protagonistak haiei egiten die aurre. *Pikolon*, basurdeengandik babestu behar du bere burua protagonistak, eta obra horren analisisian (5.2.6.9.) azaldutako irakurketa sinbolikoa onartuz gero, basurdeak eta terroristak parez pare jartzen dira, biak ala biak bihurtuz kaltearen erantzule eta protagonistaren etsai. Azkenik, *Harri barruko bihotz-borrokaken, otso putakumeak* deiturarekin egiten dio protagonistak erreferentzia poliziari.

den espazio sinbolikoari buruz. Hanánek (2020) dioen bezala, sinbolikotasunak, bere anbiguotasunagatik, eduki sakonak, arketipikoak eta emozionalak konektatzea ahalbidetzen du eta subkontzienteak errazago ulertzen dituen azalpenak ebatzen ditu.

Irudiei dagokienez, indarkeria ez da testu idatzian bezain agerikoa, hau da, indarkeriazko eszenak deskribatzen direnean, normalean, horiek ez dira modu bisualean islatzen, salbuespenak salbuespen. Egia esan, irakurle helduagoari zuzendutako lanetan marrazkiek agerpen txikiagoa dutenez gero, emaitza hori espero izatekoa da, horiek baitira bortiztasuna errealismo handienarekin irudikatzen dituzten literatur lanak. Dena den, kontuan hartzekoa da irudiaren bidez ez bada ere, maiz oso modu bisualean deskribatzen direla borrokaldiak eta horien ondoriozko heriotza masiboa, baita datu zehatzak eman ere. Horren adibide da 12 urtetik aurrerako irakurleari zuzendutako *Sara izeneko gizona*, zeinetan arrano baten ikuspuntua hartuz, borrokaldiak utzitako triskantza deskribatzen den, animalia sarraskijalea odolez blaitutako gorpuz gorpu arituko baita ase arte, ikusten duen guztiaren berri emanez. Beste adibide bat aipatzearren, antzera gertatzen da *Sagitarion* ere, 14 urtetik aurrerako gazteentzako lan honetan deskribatzen den borrokaldian tripak irekita eta hestek kanpoan dituztela irudikatzen baitira soldaduak. 6 urtetik gorako haurrentzat idatzitako *Gerrak ez du izeniken*, ordea, esan daiteke ia aurkakoa egiten dela, alegia, hildakoak edo gai zentrala den bonbardaketa ez dira hitzez esplizitatzen, baina bonbardaketa irudien bidez ageri da (haietan hildakoak ageri ez diren arren). 12 urteko irakurleari zuzendutako *Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!* lanean, aski ongi deskribatzen dira gerraren ondorioak, hildakoak eta elbarriak nagusiki; eta irudietan, errealismo handikoak ez diren arren, hilkutxak edo hildakoak ageri dira (arestan aipatu dudan moduan, 8 urteko hartzailea helburu duen *Pikolon* ere hileta-elizkizuna irudikatzen duen ilustrazioa ageri da, hilkutxa eta guzti). Modu ageriagoan irudikatzen dute ilustrazioek indarkeria *Mattin. Basoko gidaria* (10 urtetik gorakoentzat) eta *Azken garaipena* (12 urtetik gorakoentzat) komikietan. Lehenengoan, odolez zipriztindutako hildakoak ageri dira irudietan, eta bigarrean, naziek aberriaren izenean isuritako odola irudika lezakeen odol putzu ikaragarri bat, baita juduen burezurak kontzentrazio-esparruko sarreran ere.

Ez nuke aurrera egin nahi azpimarratu gabe batzuetan umorea eta ironia erabiltzen dela kritika egin eta egoera zenbait barregarri uzteko. Umore eta satiraz zipriztindutako *Gerturik daukagu odola* eleberrian, adibidez, aski da ertzainen karakterizazioari erreparatzea erridikulizazioaren bidez zapalketa polizialaren aurkako salaketa antzemateko. Eleberri horretan, *Eusko gudariak* kantua letrak gordetzen duen metafora literalki hartzearen

ondorioz sortutako egoera barregarriak gudarien kantua bera, bere esanahia (aberriaren alde odola ematea), kuestionatzeko balio lezake. *Goizeko zazpiak* eleberrian, ironia fina eta umorea lagun, euskal gatazkaren parodia bat eskaintzen du idazleak, zenbait zentzugabekeria agerian jartzeko eta erakunde armatuek egindako hilketak salatzen. Bide batez, obra horretan eraldatuta ageri dira indarkeria erabiltzen duten taldeen izenak, nahiz eta erraz identifika daitezkeen (adibidez, GAL beharrean, G.U.A.L.L. izena ematen zaio erakundeari eta Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan, Üllimanak dira giroa usteldu eta herritarrak abere bihurtarazten dituztenak). Antzeko baliabideak erabiltzen dira *Pistolak eta epistolak* eleberrian, politikari eta epaileen izenak eraldatuta ageri baitira. Hemen ere gizarteari egindako kritika zorrotza aurki dezake irakurleak. Baliabide linguistikoez ari naizela, aipatzekoa da gaiari hurbiltzeko eta enpatizatzen estrategiak bikaina dela *Behi euskaldun baten memoriaren* kontalariak hartzen duen ikuspuntu ironikoa, Olaziregik (2002b) bere lanean deskribatzen duena alegia.

Gerra eta gatazkaz gain, badira obra askotan errepikatzen diren gaiak. Batetik, laguntasuna aipatzeko nuke, ez baitira gutxi gai hori hizpide hartu eta lagunak eduki eta zaintzearen garrantziaz ohartarazten dutenak. Adiskidetasunaren aurkako poloan, eskola-jazarpena genuke, baina berau bi obratan baino ez da agertzen eta ezberdin izatearekin lotuta dago: *Pikolon* guardia zibilaren semea izateagatik jazartzen dute protagonista ikaskide euskaldunek eta *Pottokon*, berriz, lodia izateagatik. Bestetik, maitasuna corpuseko liburu ugarian ageri da, dela bikote helduak ageri direlako, dela protagonistek lehen maitasun esperientziak bizitzen dituztelako. Colomerrek (1998: 229) dioen moduan, 10-12 urteko tarte horretan hasten da agertzen haur-maitasuna HGLn. Esanguratsua da aztertutako liburuetan maitasun harremanak eta desira sexualak eurak beti direla heterosexualak, salbuespen bakar bat izan ezik. Corpus osotik Maddi da homosexual bakarra, baina hark ez du maitasun harremanik eta ez du beste norbaitekiko desirarik adierazten. Beraz, homosexualitatea inguruko errealitatearen parte den arren eta gure inguruko jendarte demokratikoetan ikusgarritasuna duen arren, ez da ageri gai gisa corpuseko narrazioetan, ez eta familia egituretan ere. Datu horrek bat egiten du De Sousak (2012) espainiar estatuko 2000 eta 2007 urteen arteko HGLko 95 lan aztertu ostean ateratako ondorioekin. Aztertutako corpusean, esanguratsua da obra gutxi batzuetan gerrak edo gatazkak maitasuna eragozten duela, dela bikoteetako bat hiltzen dutelako, edo dela bietako batek alde egin beharra duelako egoera gatazkatsuen erruz. Ezin aipatu gabe utzi kontakizun batzuetan protagonistaren (eta irakurlearen) pentsaeran edo gatazkarekiko jarreraren eragina duen bigarren mailako pertsonaia

bat ageri dela. Bitxia bada ere, zenbait obratan ikusi dudan ezaugarri bat iruzkindu nahiko nuke. Protagonista mutila denean, ikuspegi aldaketa eragiten duena neska bat da eta protagonista hartaz maitemintzen da (*Antipodak*, *Harri barruko bihotz borrokak* edo *Pikolo* liburuan adibidez). Pertsonaia nagusia neska denean ere gauza bera gertatzen da, baina mutil bat da hura maitemintzen duena (*Txakurraren alaba* da horren adibiderik garbiena). Harreman horiek eragiten dute, hein handi batean, gatazka beste toki batetik bizi dutenen errealitatea ezagutzea. Maitasunaren gaiarekin batera, eta askoz neurri txikiagoan bada ere (lau bat obratan), sexuak eta sexualitateak agerpen txiki bat egiten du.

Zenbait obratan, agerian uzten dira gizarte patriarkalaren arrakalak eta pertsonaien hausnarketen bidez, horiei buruzko gogoeta kritikoak egiten dira. Ildo horretan, esanguratsua iruditzen zait *Urtebete itsasargian* eleberria, emakumeen rolen gainean hitz egiteko parada eskaintzen baitu. Horrekin batera, azpimarratzekoa da *Harri barruko bihotz-borrokak* lana, izan ere, protagonista femeninoak sexismoari edo emakumeen gorputzek jasaten duten kontrolari buruzko kritikak plazaratzen ditu. Ez nuke *Kixmi elurpean* aipatu gabe utzi nahi, maskulinitate hegemonikoari jarraitzen ez dion protagonistaren (hausnarketen) bidez, eredu eta ikuskera zabalagoei atek irekitzen baitizkio.

Gorago, familiak aipatu ditudala, aztertutako obra askotan garrantzia ematen zaie familia harremani. Maiz familia barneko gatazkak irudikatzen dira (jelosiak, haurren kustodiak, gurasoetako baten alkoholismoak edo guraso eta seme-alaben arteko komunikaziorik ezak sortutakoak). Corpuseko obratan inkomunikazioak garrantzia hartzen du, eta ez soilik haurren eta gurasoen arteko harreman horretan. Inkomunikazioa ageri da ere protagonistaren eta inguratzen duen egoera politiko gatazkatsuaren arteko harreman horretan.

Haurrek inguruarekiko eta helduekiko sentitzen duten ulertezintasuna corpusean maiz agertzen den gaia da. Are gehiago, pertsonaia askok, haur zein gazte, helduek haien galderak erantzuteko duten ezintasuna salatzen dute kontakizunean. *Tunelaz bestaldean* eleberrian adibidez, aitak ez dizkio galderak erantzuten semeari, eta horrek, frustrazioa eragiten du txikiarengan. *Begi bat kokoteanen*, haur protagonistak ez du ulertzen zergatik gorde beharko duen errepublikaren aldarrria daraman erlojua, eta galdera askorik ez egiten ikasiko du. Jarrera horrek, noski, bizi duen errealitatea ulertzea galarazten dio. *Hiru sopranoak*en, protagonistetako batek pertsonaia baten kartzelatzearen arrazoia jakin nahi du, baina dakien bakarra da ezin duela itaun hori formulatu. Aurrekoarekin lotuta, liburu gutxi batzuetan esplizituki adierazten da hurrei ez zaiela egia ezkutatu behar. *Metxa izeneko agirretar baten*

*ibili herrenak* laneko protagonistari errieta egingo diote hurrei Gerra Zibilean herrian egin ziren fusilamenduei buruzko informazioa emateagatik, eta hurrei gauza gordinegiek onik egiten ez diela esango dioten arren, bide beretik jarraituko du protagonistak. *Amonarenean* kean esplizituagoa da mezua, Mariasun Landaren aipu bat erreproduzitzen baita kontakizunean bertan, zeinetan liburu arrosa eta gozoegiak kritikatzear batera, liburuen bidez hurrekin edozein gai landu daitekeela aldarrikatzen duen. Antzera gertatzen da *Ainhoari gutunaken*, narratzaileak liburu sinplista, aspergarri eta moralisten orde, umeen galderei erantzuna ematen dieten liburuak babesten baititu, zeinetan gauza serio eta mundutarrei buruz hitz egiten den. Are gehiago, umeek etengabe galderak egiteko duten jaidura hori goraiatzeaz gain, erraz antzematen da idazleak gai serioei buruz hitz egiteko hartutako jarrera edo inguratzan gaituen errealitateari buruz hitz egiteko nahia. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi *Behi euskaldun baten memoriaken* bizitzaren aurrean jarrera kritikoa hartzearen aldeko apustua egiten dela, irakurleari bere kabuz pentsatzera animatzeaz batera.

Drogak edo droga-menpekotasuna bost liburutan hartzen da hizpide eta horietako batean, euskal gatazkaren testuinguruan, Guardia Zibila droga kontuetan nahastuta dabilela iradokitzen da. HGLn agerpen txikiagoa duten pedofilia, hilekoa eta abortua behin baino ez dira hartzen hizpide: *Begi bat kokoteanen*, *Beroki gorrian* eta *Kixmi elurpeanen* hurrenez hurren (lehen 10 urtetik gorakoei zuzendutakoa da eta beste biak 12 urtetik aurrerakoentzat). Maiz, HGLn ohikoa den moduan, protagonisten gatazka intrapsikikoetan barneratzen dira literatur lanak eta kontakizunean zehar barne-gatazka horiek argitzen joaten dira. Horien bidez protagonistak heldutasunerantz egiten duen bidea irudikatzen da.

Identitatearen gaia (euskalduntasunarekin lotuta) obra batean baino gehiagotan ageri da, besteak beste, *Urtebete itsasargianen*, *Txakurraren alaban* eta *Hiru sopranoaken*. Kultura ezberdinetako pertsonaien arteko elkartzea irudikatzen da liburu batzuetan eta horrek memoria multidirekzionala ahalbidetzen du. Gainerako taldeekiko interakzio dialektikoaren bidez, talde sozial ezberdinak birdefinitzen dira eta literatur testuek irakurleari erakusten diote identitateak inoiz ez direla itxiak, beti baitago “besteak” kontsideratzen ditugun horiekin batzen gaituen loturarik. Gainera, gogora dezadan obra askok Euskal Herriatik urrun dauden herrialdeetako esperientziak ekartzen dituztela gogora, maiz haien arteko loturak eginez, adibidez, *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak* lanean (parez pare jartzen baititu Hiroshima eta Nagasakiko bombardaketak, eta Durango eta Gernikako bombardaketak). Esan gabe doa Euskal Herrian zentratzen diren liburu askotan bertako hainbat gatazka politiko-armatu harilkatzen direla eta segida moduan aurkezten direla batzuetan, Frankismo garaiko errepresio

gogorra eta ETaren jardun armatua kasu (*Para bellumen*, adibidez, erregimen frankistaren kontrako euskal erresistentzia gisa azaltzen da borroka armatua). Polifoniaren bidez, elkarren artean ezberdinak diren ahotsak tartekatzen dira eleberrietan, istorioa interpretatzeko ikuspuntuak biderkatuz. Ildo horretan, interesgarria da *Harri barruko bihotz-borrokak*, baita, neurri txikiagoan bada ere, *Hiru sopranoak*; euskal gatazkari buruzko eleberri horietan ezberdin pentsatzen duten 3 protagonista aurkezten baitzaizkio irakurleari, gai beraren gaineko ikuspuntu aniztasuna sortuz.

## 8. ONDORIOAK

Tesi honekin hainbat helburu bete nahi izan ditut. Batetik, ikergai nagusia HGL izan denez gero, euskarazko HGLri buruzko hurbilpen teoriko eta praktikoa garaikideen bilakaeraren berri eman nahi izan dut. Bigarren kapituluaren erakutsi dudana moduan, sorkuntzatik beretik eztabaidatua eta zalantzan jarria izan da HGLren existentzia bera, baina gaur egun, ukazina da sistema beregaina osatzen duela eta gero eta garrantzi handiagoa hartu duela, dela merkatuari dagokionez, dela eremu akademikoari dagokionez. Arloari buruzko doktore tesien azterketatik (2.3. atala) ondoriozta daitekeen moduan, 90eko hamarkadatik hasita poliki-poliki ugaitu egin dira HGLri buruzko ikerketak eta askotariko hurbilpenetatik heldu dioten arren, euskal eremuan kritika akademikoa gutxi egin da, nahiz eta azken urteetako tesietan apur bat igo den. Kritika literarioari eskainitako atalean (2.2.) azaldu dudana moduan, azken urteotan liburuek izandako bilakaera kuantitatibo zein kualitatibo ez da kritika literarioan islatu. Horrekin batera, burututako ikerketak agerian utzi du HGLrekin lotutako kritikak neutraltasun gehiegizkoan geratzen direla maiz eta forma literarioari erreparatu beharrean, erabilgarritasun didaktikoan zentratzen direla. Horrek agerikoa den arazoa dakar, izan ere, HGLren funtzioez aritu naizenean (2.4. atala) azaldu dudana moduan, testu literarioak instrumentalizatu egiten dira, literaturaren eta gozamen estetikoaren kaltetan.

Bestetik, euskarazko HGLn memoria historikoaren errepresentazioa nola egin den aztertzea izan dut xede, alegia, zenbat eta nola landu dituen euskal HGLk Guda Karlistak, Lehen Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, Frankismoa eta euskal gatazka. Horretarako, lehenik eta behin, euskal literaturan eta HGLn oro har memoria historikoa nola landu den berriaz aztertu duten lanen azterketa burutu dut eta horien berri eman dut lehenengo kapituluaren (1.3. atalean). Aurrekari gisa hartutako lan horiek guztiak bat datoz baieztatzean helduei zuzendutako euskarazko literaturak 90eko hamarkadatik aurrera modu zabal eta askotarikoan heldu diola gaiari, baina gure HGLn, ordea, gutxi izan direla Euskal Herriko gatazka politiko armatuak hizpide hartu dituzten lanak. Dena den, ikusita galiziar, katalan eta espainiar literaturan 1980. eta 1990. urteen bitartean hasten direla Gerra Zibilari buruzko obrak nabarmenki agertzen, euskal literaturan ere tarte horretan gaiari buruzko HGL lanak ugaltzen hasi ziren irudipena nuen, nahiz eta ikerketa-lanek euskarazko izenbururik apenas eman. Ez hori bakarrik, euskal gatazkaren kasuan, behin eta berriz esan izan da euskal literaturak ez diola nahikoa erreparatu gaiari, nahiz eta azken hamarkadetan beste horrenbeste aldiz gezurtatu duten hainbat eta hainbat ikertzailek baieztapen oker hori. Nire lehenengo hipotesia zen helduen literaturan gertatutakoa HGLn errepikatuko zela,

alegia, ikerketa sistematiko baten faltak elikatu duela urritasunaren uste oker hori. Alde horretatik, tesi honen ekarpena azpimarratu nahiko nuke, Euskal Herriko gatazka armatuei buruz mintzo diren 77 obra aurkitu eta horien analisi kritiko sakon eta sistematikoa eskaini baitut. Horrek gezurtatu egiten du aurreste kolektibo bat, zeinak dioen euskal HGLk uko egin diola bertako gerra eta gatazkak irudikatzeari. Beraz, helburu kuantitatiboari dagokionez, argi geratu da helduen literaturako kopurura iristen ez den arren, euskal HGLk heldu egin diola gure iragan gatazkatsuen errepresentazioari, batez ere XXI. mendetik aurrera, helduen literaturan eta inguruko HGLko sistemetan baino beranduago bada ere. Euskal gatazkari dagokionez, frogatu dut ETAk jardun armatua betiko uzteak ez duela eragin gai hori hizpide duten liburuen gorakadan, kopurua berdina baita 2011 aurretik eta ostean. Dena den, adierazgarria da azken urteotan etakide ohiek idatzi edota ilustratutako liburuak argitaratu direla.

Helburu kualitatiboari dagokionez, corpusa aztertzekeo analisi eredu bat sortu dut (5. kapituluaren aurkeztutakoa), zeina narratologiaren, Memoria Ikasketen eta Genero Ikasketen gurutzaketatik eratortzen den. Batetik, Memoria Ikasketen arloan baliatzen diren kontzeptu eta tresna metodologikoak tesiko corpusean nola aplikatu daitezkeen erakustea izan dut xede. Lanean zehar aipatu dudana moduan, Memoria Ikasketetan diharduten ikertzaileek helduei zuzendutako literaturara jo dute gehienbat gertaera historiko traumatikoen irudikapenak aztertzekeo. Baina frogatu dudana moduan, HGL ere baliabide aproposa da gertaera horien memoria errepresentatzeko, eta mintzagai dudana ikerlerroko tresna teoriko metodologikoak HGLn aplikatuz gero, emaitza interesgarriak lor daitezke. Bestetik, genero ikuspuntutik egindako analisi kritikoa HGLn eta bereziki nire tesiko corpusean nola balia daitezkeen zehaztea izan dut helburu eta erakutsi dut testuek helarazten dituzten genero-rolak eta estereotipoak identifikatzeko balio dezakeela. Erakutsi dudana moduan, narratologiarekin uztartutako analisi eredu gurutzatu hori, hiru arlotako ekarpenekin sortutakoa, oso emankorra izan da.

Lanari ekin nionean, mintzagai ditudan gaiak HGLra estetika errealista baten eskutik sartu direlako hipotesitik abiatu nintzen, errealismo kritikotik eta errealismo fantastikotik hain zuzen, korrante literario horiek baitira euskal HGL modernoaren hastapenean errealtateko alderdirik konplexuenak irudikatzekeo idazleek erabili zuten modua (2.5. atalean azaldu dudana bezala). Suposizio hori bete egin dela frogatu dut, izan ere, agerikoa da errealismoaren bidetik doazen literatur lanen nagusitasuna. Corpuseko obra gehienak errealismo kritikoa barruan kokatzen dira, baina badira errealismo fantastikoa emaririk edaten duten obra gutxi batzuk



ere. Hipotesi horrekin batera, dena den, uste nuen liburuetan sinbolo eta metaforen bidez irudikatuko zirela gerren alderdirik gordinenak (heriotzak, bonbardaketak eta bestelako sarraskiak), auresuposatzen bainuen ez zirela hain gordin eta esplizituki irudikatuko, ez hitzaren bidez, ezta irudien bidez ere. Dena den, ikerketak erakutsi du uste hori ez dela betetzen. Egia bada ere obrak hartzailearen adinera egokitzen direla eta horren arabera neurtu egiten dutela irudikatu beharreko indarkeria, horrek ez dakar errealtate gatazkatsua isilean gordetzea. Are gehiago, benetan harritu nau adinean behera egin arren, gatazka armatuari muzin egiten ez zaiola ikusteak. Aztertutako liburuek gerrek eragiten duten sufrimenduaren testigantza helarazten diote irakurle gazteari; hau da, gerrarena eta haren eskutik doan heriotzarena. Horiek ez dira gai tabua HGLn, eta beraz, corpusak frogatzen du HGLk gai zailez hitz egiteko balio duela. Ez hori bakarrik, azaldu dudan moduan, liburuetan bertan, egileek horren aldarrikapena egiten dute eta plano fikzionaletik kanpo, HGLra dedikatzen diren idazle eta adituek hainbat aldiz defendatu dute poetikoki landuz gero, edozein gai dela egokia haur eta gazteentzat. Euskal letretan Mariasun Landa da esandako horren adibiderik garbiena. Haurrek, inguruan duten errealtatea ulertzen ez badute ere, galderak egiten dituzte (tesiko corpuseko protagonista gazteek bezala), zer gertatzen den jakin nahi dutelako. Eta helduak, dela lan literarioen bidez, dela haien mediazioaren bidez, eskaera horri erantzuteko prest agertu behar dira (informazioa emanez, baina gorrotorik helarazi gabe). Landak (2018) aldarrikatu bezala, haurrek fikzioa behar dute errealtateaz jabetzeko eta literaturaren lengoaiak eginkizun horretarako hainbat dohain ditu, esaterako, hausnarketa patxadatsua bideratzeko gaitasuna, irakurlearengan barne-elkarrizketa pertsonal eta besterenezina sortzeko ahalmena, dibagatzeko gonbita edo gure esperientziak besteek kontatutakoekin alderatzeko gaitasuna. Arestian aipatutako ideiarekin lotuta, azpimarratzekoa da fikzioaren bitartez haurrak babesten dituela literaturak, kontakizuna plano fikzionaletan geratzen delako eta umeak ez duelako heriotza, gerra, indarkeria edo dena delako min hori kudeatu behar bizitza errealean, ez behintzat hura zuzenean jasango balu bezala.

Tesian aztertutako gatazka armatuetako bakoitzari dagokionez, bistakoa da Gerra Karlista ez dela gai popularra helduen literaturan, baina euskal HGLk aukera ematen du guda horri erreparatzeko. Corpuseko bestelako gatazkekin alderatuta, agerikoa da bestelako tratamendua jaso duela gaiak, abenturazko eleberrien tankera hartuta, helburua ez baita galtzaile irtendako horien memoria eta esperientziaren berri ematea izan. Euskal gizartean, gai horrek ez du eztabaidarik pizten eta ez da diskurtso politikoaren erdigunean dagoen auzia; horregatik, espero izatekoa da corpuseko obrak ur handiagoetan sartu ez izana. Lehen eta

Bigarren Mundu Gerrei dagokienez, harritzekoa da euskal HGLn izan duten agerpen urria (lehenengoak bereziki), kontuan hartuta Ipar Euskal Herrian ere euskal idazleak eta euskaraz ikasten duten ikasleak (irakurle potentzialak) daudela. Gerra Zibilari eta Frankismoari heltzean, azpimarragarria da liburuek Gernikari egitea erreferentzia etengabe eta gudariak goraiapatzearekin batera, galtzailearen duintasuna aldarrikatzea. Herri galtzaileari ematen zaio hitza, hau da, galtzailearen diskurtsoa nagusitzen da; eta horrek adieraz lezake behiala isilpean mantendutako testigantzak erdigunera ekartzeko euskal gizarteak erakusten duen nahia. Gauza bertsua esan nezake euskal gatazkaz ere, instituzio publikoak isiltzen saiatu diren hainbat gertaera salatzen baitute literatur lanek, besteak beste, poliziaren tortura kasuak edo euskal preso politikoek eta haien familiek jasandako zigor gehigarriak. Era berean, gaiari buruzko helduen literaturarekin erkatuta, esanguratsua da kontakizunetan haurrak izatea protagonista eta euskal gatazkak haiengan izandako eraginean zentratzea, duela gutxira arte haien testigantzak ez baitira maiz jarri lehen planoan fikziotik at. Hein batean, isilpean geratutako ahotsei hitza emateko nahia ikusten da corpusean. Horri lotuta, Espainiar testuinguruan ez, baina euskaldunean ikusgarritasun txikiagoa izan duten esperientziak azaleratu dituzte corpuseko obrek, hain zuzen, Guardia Zibilak jasandako indarkeria edo ETAko biktimek pairatutakoa irudikatzean.

Berariaz aztertutako gatazka politiko-armatu horiez gain, corpuseko obretan zein beste gatazka ageri diren ikertzea izan da beste helburuetako bat, alegia, Euskal Herritik kanpoko gatazka historiko zein garaikideak ageri diren, langile gatazkak tokirik duen edo genero gatazkarik ageri den aztertzea, besteak beste. Erakutsi dudan moduan, ez dira gutxi geografikoki urrun gertatutako gatazkak aipatzen dituzten literatur lanak eta ikusten da euskal HGLk mundu zabalean gertatzen diren egoeren berri eman nahi diela irakurle gazteei. Gainera, kontuan hartuta gaur egun eskoletan dagoen aniztasuna, bereziki jatorriarekin lotutakoa (eta ahaztu gabe haur asko testuinguru gatazkatsuetatik datozela), interesgarria da obretan ematen den kulturarteko ikuspegia. Ez hori bakarrik, corpuseko obrek Rothbergekin (2009) planteatutako memoria multidirekzionala bideratzen dute. Ezin uka daiteke Euskal Herrian oinarritutako kontakizunetan ere, mintzagai hartzen diren gaiak beste testuinguru batzuetara estrapola daitezkeela, besteak beste, gerrek antzeko ondorioak sortzen dituztelako kokapena edozein dela ere. Era berean, interesgarria da liburuen bidez haurrak ohartzea gaur egun Euskal Herrira datozen etorkinen antzera, behiala euskaldunek atzerrira emigratu behar izan zutela, ezagutzen zuten mundua atzean utzi eta gatazketatik ihesi, bizitza hobe baten bila

abiatzeko<sup>245</sup>. Genero gatazkei dagokienez, erabateko garrantzia hartzen dute corpuseko obra askotan eta emakumeen testigantza eta bizipenek badute enuntziatorako lekurik aztertutako obretan. Frogatu dudan moduan, emakume idazleen presentziak eragina izan du protagonista femeninoen agerpenean, eta horrekin batera, emakumeen memorien eta testigantzen errepresentazioan. Hori horrela, eta arestian isilpean geratutako ahotsen ikusgarritasunaz esandakoari helduz, corpusaren analititik ondoriozta daiteke askotariko ahotsak azaltzen direla eta literaturak beste egia batzuk kontatzeko balio duela, historiak bere diskurtso epikotik ezabatu dituenak baina gureak ere badirenak<sup>246</sup>.

Era berean, corpuseko obretan gatazkaren alde desberdinetan posizionatzen diren eta ideologikoki ezberdin pentsatzen duten pertsonaiak eta diskurtsoak azaltzen dira. Horrekin lotuta, diskurtso politikoak maiz aldarrikatu duen adostasunetik eta adiskidetzetik sortutako errelatuaz edo kontakizun bakarrak hitz egin ordez, aztergai izan ditudan literatur lanek biktima eta sufrimendu guztiak barne hartuko dituen errelatu anizkoitza irudikatzen dute; izan ere, literaturak, Erlil (2011) eta Neumann (2010) bezalako ikertzaileek maiz defendatu duten moduan, erraz eman dezake ikuspuntu aniztasuna eta mikrohistorian sartzeko, konplexutasuna ertz ezberdinetatik azaltzeko, talkak erakusteko edo kontraesanetan sakontzeko parada ematen du. Gatazken izaera poliedrikoa eta konplexua erakusteko eta istorio pluralak kontatzeak iraganean gertatutakoa ezagutzeko aukera ematen du eta momentura arte egin ez diren zenbait elkarrizketa aurrera eramateko. Zalduak (2012) iradokitzen duen moduan, batzuetan historialarien lanetatik baino, eleberrien bidez ezagut daiteke herri baten historia hobeto. Egañak (2015) dioen bezala, Euskal Herrian gertatutakoa historiaren edo egiaren parametroetan kokatu beharrean errelatuarenean eta kontakizunarenean kokatu izanak fikzioa eta errealtatea hurbilarazi ditu, eta diziplina kulturei (literaturari bereziki) errelatua osatzeko autoritatea aitortu zaie, euskal literaturari esparru literario hutsa gainditzen duen lekua aitortzeaz batera. Zalduak (2005, 2012) gaineratzen du, errelatu bakarraren eskari hori auzi politiko eta historikoa dela, baina literaturak, ordea, errelatuak, errelatu anitzak, sortu behar dituela; eta erantzunak baino, fikzioak zalantzak eta galderak sortu behar dituela (ez baitu Egia bilatzen, beste askoren arteko egia txikiak baizik). Aniztasuna behar du literaturak, bestela, propaganda bihurtzeko arriskua dauka.

---

<sup>245</sup> Corpuseko obrek Nazio Batuen Erakundeak onartutako Garapen Iraunkorrerako helburuak lantzeko bide ematen dute; hamaseigarren helburua batez ere (bakea, justizia eta instituzio sendoekin lotutakoa), baina baita bosgarrena ere (genero berdintasunarekin lotutakoa).

<sup>246</sup> Ildo horretan, eta Gayatri Spivak-en galdera buruan izanda, alegia, subalternoak hitz egin dezakeen, esango nuke diskurtso hegemonikoak entzungor egiten dien horiei hitza emateko aukera eskaintzen duela literaturak.

Literaturak aurreiritziak sortzen dituzten harresi mentalak eraisteko ahalmena dauka, gorrotoak eta ezjakintasunak trabatutako errekonozimendua bideratzeko. “Bestearen” egoera ulertzeko sentsibilitatea garatzea ahalbidetzen du, hau da, bestearen esperientzia irudikatzen laguntzen du eta ondorioz, ezagutzeko eta horretaz hausnartzeko aukera ematen du. Nussbaumek (1995) adierazi bezala, hein handi batean, imajinazio narratiboaren bidez gertatzen da lan literarioen irakurketaren eta emozioen lanketaren arteko harremana. Are gehiago, imajinazio morala lantzea ahalbidetzen du, eta azken horrek hezkuntza etikoa susta dezake. Literaturak esperientzia etiko bat sortzeko eta enpatia lantzeko aukera ematen du, hau da, beste pertsona batzuen tokian jartzeko parada, izan ere, obra bat irakurtzean, sufritzen duen subjektuarekin denbora pasatzen du irakurleak eta bere irudimenean bada ere, haren mina partekatzen gonbidatzen du fikzioak. Bestearen mina ez errekonozitzeak “bizitza prekarioen” ideia elikatzen du, hau da, Judith Butlerrek (2004) azaldukoaren ildotik, bizitza batzuei balio txikiagoa ematen zaie, eta beraz, haien minak edo heriotzak ikusgarritasun publiko txikiagoa jasotzen du (horixe ikusten da, hain zuzen, corpuseko obretan pertsonaia batzuk “beste” gisa hartzean). Aurreko hariari jarraituz, esan dezadan fikzioa irakurtzeak eskatzen duen imajinazio-prozesu horrek irakurlearen ezagutza historiko eta kulturala handitzen duela eta aurrez ezarritako arau moraletan ñabardurak sartzen gonbidatzen. Gainera, historiak eskaintzen dituen zifren eta datuen alboan, literaturak emozioetara heltzeko gaitasuna du. Ezin aipatu gabe utzi, Sarah Ahmedek (2004) baieztatu bezala, emozioek botere soziala dutela, izan ere, mobilizazio politikorako bide izan daitezke.

Tesiko aztergai nagusia literatur testuak izanik, Erlén (2010) eta Halbwachsen (1968) hitzak neure eginez, azpimarratu nahiko nuke literatura memoria kulturalaren bitartekari boteretsua dela, izan ere, fikzioak ahalmena du belaunaldi orok gordeko dituen iraganeko esperientziak sortzeko eta moldatzeko. Literaturak memoria kulturala eraikitzen du eta azken horrek oroimen kolektiboa (epe luzekoa, politikoa). Baieztapen horri gehituko nioke literatura memoria horren transmisiorako baliabide bikaina dela, bitarteko aproposa, irakasteaz eta jarrera kritikoa bultzatzeaz gain, atsegin emaile izan daitekeelako era berean. Eleberriek testu mailako memoria eredu berriak sortzen dituzte. Memoria errepresentazioak konfiguratu dituzte, kulturalki emandako diskurtsotik elementuak hautatu eta orrazten dituztelako. Nobelek benetakoa eta alegiazkoa, oroitutakoa eta ahaztutakoa konbinatzen dute, eta baliabide narratiboen bidez memoriaren lanketa esploratzen dute imajinazioa erabiliz, iraganari buruzko ikuspuntu berriak eskainiz. Azken horiek irakurleak iraganari buruz duen ulermenean eragin dezakete eta ondorioz, baita kulturaren nagusi diren memoriaren bertsioetan

ere. Hori dela eta, literatura inoiz ez da diskurtso kulturalen isla soila, memoria kulturalaren negoziazioan proaktiboki eragiten baitu (Neumann, 2010). Hirschen (2008) hitzak parafraseatuz, beste pertsona batzuen oroitzapenak geure egin ditzakegu, izan ere, gertaera traumatikoen oroitzapenek bizirik irauten dute horiek lehenengo pertsonan bizi izan ez zituztenen bizitzak markatzeko. Horrela, post-memoriaren belaunaldiak istorio katastrofikoak jaraunsten ditu (*memoria protesiko* izendapena eman zaiona), ez bilketa zuzenaren bidez, baizik eta istorio edo post-memoria bidez, familiaren baitan edo oro har kulturen transmititutako herentzia gisa. Baina literatur lanek memoria kulturean eragiteko, Arroita (2015) dioen moduan, lanek oinarrizko bi baldintza bete behar dituzte: batetik, jendartearen harrera garrantzitsua izatea; eta bestetik, memoriaren bitarteko gisa hartzea obra hori. Horregatik, corpuseko obra bakoitzaren analisisian, liburuak izandako harrera aztertzea izan dut jomuga. Memoria historikoaren gaiak euskal HGLn tokia duen arren, berau ez da nagusi eta Instituzioak ez ditu obra horiek bedainkatu helduen literaturan bezala. Baieztape horri, dena den, ñabardura batzuk gehitu behar zaizkio. Batetik, corpuseko liburuen egileei erreparatuta, horietako asko euskal idazle kontsaktuak dira eta hainbat aldiz izan dira sarituak haien ibilbidean zehar. Bestetik, aztergai izan ditudan liburuak eurak sarituak izan dira, HGLko Euskadi Sariarekin edo bestelako sariarekin. Dena den, salbuespenak salbuespen, bereziki *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Urtebete itsasargian*, ezin esan corpuseko obrak kanonikoak direnik eta euskaldunen oroimenean gordetako testuak direnik. Aipatutako bi obra horiek lirarteke aktiboki zirkulatzen duen memoriaren adibide.

Aztertutako liburuen helburua, irakurlearengan gozamina sortzeaz gain, iraganarekiko lotura afektiboa sortzea da, baita irakurle gazteengan sentsibilitate etiko eta politiko batzuk sustatzea ere. Ildo horretan, irakurlearengan erreakzio jakin batzuk sortzeko helburua duten liburuek estrategia narratibo eta erretoriko jakin batzuk baliatzen dituzte horretara orientatzeko. Dena den, beste kontu bat da helburu hori lortzen duten edo irakurleak bestelako erreakzio batzuk izaten dituzten. Oso zaila da neurtzea zein neurritan lortzen duen testu jakin batek irakurlearen transformazioa. Ideologiari dagokionez, ezinbestekoa da liburu baten proposamen ideologikoa eta haren irakurketak sortzen duen efektu ideologikoa bereiztea, izan ere, bakoitzaren nortasunaren eta esperientziaren arabera (partaide garen markoaren arabera), obrak oihartzun ezberdina izango du irakurlearengan eta irakurle bakoitzak ematen dion esanahiaren arabera izango da obraren irismen ideologikoa. Edonola ere, azpimarratu nahiko nuke liburuek helarazten duten ideologia (inplizitua) lokalizatzen ikastea garrantzitsua dela, besteak beste, irakurlea ez dadin irakurtzen duen horren menpe geratu. Lluhek (2003)

dioen moduan, konpetentzia ideologikoak liburuak aurkezten dizkion balio sistema ebaluatzea eta interpretatzea ahalbidetzen dio irakurleari, horrela, irakurle kritiko bihur dadin. Baloreez ari naizela, aztertutako obretan gure gizarteak ontzat ematen dituen balio etikoak ageri dira (besteak beste, tolerantzia, elkartasuna, errespetua eta askatasuna) eta horrek narrazioek duten helburu hezigarri eta pedagogikoa iradokitzen du, baita jardunbide etikoarekin konprometituta dauden herritarrak sortzeko asmoa ere. Era berean, gizarte batek bere burua nola ikusi nahi duen inferi daiteke. Ikerlan honetan aztertutako obretatik ondorioztatu daiteke haur eta gazteei gerraren edo gatazkaren gaia eskaintzen zaienean ez dela soilik etorkizuneko belaunaldietako biztanleen idiosinkrasian ager dadin; izan ere, hura berriro errepika ez dadin egiten da eta historia eredu izan dadin egindako akatsetatik ikasteko.

Corpusaren azterketan (6.2. atala) aurkeztutako obra guztiak HGLkoak datezke, baina zinez uste dut helduen gozamenerako ere baliagarri suerta daitezkeela, izan ere, kalitatezko obra batek HGLk duen hartzaile bikoitzari erantzuten dio, berariazko hartzaileari eta bitartekariari. Ez hori bakarrik, benetan uste dut aztertutako liburuetan agertzen diren zenbait lotura edo erreferentzia ez dituztela jasoko irakurle gazteenek (agian zenbait helduk ere ez), beste literatur sistema batzuetako erreferentziak dakartzatelako edota egiten diren lotura guztiak jaso ahal izateko aurrezagutza dezente eskatzen zaizkiolako irakurleari. Alde horretatik, irakurle inplizitu jantzia auresuposatzen dute corpuseko testu askok. Hori dela eta, tesi lan honetan liburu bakoitzaren azterketa deskriptibo xehea eskaini dut, nire azalpenek bitartekariei testuen lanketan lagunduko dielakoan. Bide batez, esan gabe doa zein garrantzitsua den bitartekariak gidaritza egokia egitea irakurle gazteenekin, irakurketa osteko haien erantzunak edota hausnarketak bideratu eta eztabaidatzeko. Bestalde, irakurle jantziatz gain, corpuseko obrek irakurle aktiboa eskatzen dute, eduki sinbolikoak, zenbait elipsi, hutsune eta indeterminazio-gune zentzuz betetzeko.

Ikerketa honen ekarpen nagusia Euskal Herriko gatazka armatuak HGLn nola errepresentatu diren aztertzea izan da, eta aldi berean, gai horiek jorratzen dituzten obrak egon badaudela frogatzea. Beraz, gutxi edo asko (gerra edo gatazkaren arabera), mintzagai ditudan gaiak lantzen dituzten liburuak egon badaude, baina ikusi beharko da zein jokabide hartzen duten obren zirkulazioan eta kontsumoan eragina duten agenteek, hau da, obraren eta haurraren arteko bitartekari lana egiten dutenek (gurasoek, irakasleek zein bestelako hezitzaileek) eskura jarri nahi dieten errealitate hori edo haientzat gogorregia delako ustean ezkutuan mantenduko duten. Egia esan, memoria historikoa eskolan lantzeko egin diren proposamen didaktikoen azterketa burututako atalean (4. kapitulua) ikusten da gaia lantzeko

borondatea egon badagoela, baina era berean, agerikoa da gatazka batzuk lantzea beste batzuk jorratzea baino zailagoa dela, hain zuzen, euskal gatazka. Batetik, adinean behera egin ahala, zailagoa da horren lanketa egiten duen materialik aurkitzea. Bestetik, adierazgarria da *Herenegun!* programa didaktikoak sortutako polemika, ikusten baita ez dagoela adostasun bateraturik gaia lantzean hartu beharreko ikuspuntuaren gainean. Memoria historikoaren errepresentazioa hezkuntza sisteman aztertu eta lantzeak irizpide didaktiko sendo eta gaurkotuez garatutako unitate didaktikoak eta estrategia didaktikoa eskatzen ditu. Doktore-tesi honetan ez dut xeheki adierazi Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikertaldean hainbat ikerketa-proiekturen baitan garatzen ari garen egitasmo didaktikoa. Bertan dihardut ikerketan eta urteak daramatzagu proposamen didaktikoak sortu, landu eta adin desberdinetako ikasleen artean jorratzen. Emaitzak aurki kaleratuko ditugu, 2024ko udazken honetan, eta lan zinez aitzindaria izango da egituraketa didaktikoari begira. Taldean egindako ikerlanaren fruitu izango da eta bertan parte hartzen dugun ikertzaile gehienok jada Euskal Herriko unibertsitate-sistemako didaktika sailetan lanean dihardugunez, etorkizuneko gure jardun profesionala seriotasunez garatzeko ezinbesteko pauso gisara ere kontsideratzen dut.

Esandakoaz bat, euskal gatazkari buruz mintzatu naizen atalean (3. kapitulua) azaldu dudan moduan, ikusten da diskurtso politikoan eta gizartean oro har oraindik ere eztabaida batzuek piztuta dirautela. Euskal gatazkaren memoria oso gai sentikorra da oraindik, memoria bizia da, hau da, biktima eta biktimarioak bizirik daude, eta horrek, eragina izan dezake (ildo horretan, ulergarria izan liteke irakasleek eragozpenak izatea euskal gatazkari buruzko obrak lantzerakoan). Ez dago errelatu partekaturik. Liburuen corpusari dagokionez, ikusten da adinean behera joan ahala jaitsi egiten dela gatazkaren gordintasuna irudikatzen duten obren kopurua. Esanak esan, Veltek (2019) baieztatzen du Hego Euskal Herrian bederen tabu sentazioa dagoela gazteen artean, baita diskurtso ofizial askotan ere, eta horren aurrean, hezkuntza arautua izan daitekeela trauma edo ezintasun pertsonaletatik eta interes politikoetatik aparteko transmisio kanal nagusietako bat. Beharra argia da, eta beraz, hezkuntza arautuak bermatu beharko luke memoria historikoaren transmisioa egiten dela, errelatuen aniztasunetik, errespetutik, elkar-ulertzetik eta enpatiatik. Horretarako, literatur testuak oinarri hartzen dituzten proposamen didaktikoak baliabide ezin interesgarriagoak izan daitezke. Funtsean, HGLk Euskal Herriko bakegintzari ekarpena egiten dio eta hori zabaltzea da hezitzaileon erronka.

Lan honek hainbat hutsuneri aurre egitea izan du xede. Dena den, azterketan sakondu eta ur handitan sartu ahala, galdera berriak sortu dira. Horietako batzuk bidean zehar erantzun ditut, baina beste batzuk erantzun gabe geratu dira, etorkizuneko ikerketen abiapuntu izango direlakoan. Tesiko corpora 2023ko abendura mugatu dudan arren, aztergai izan ditudan gaiak lantzen dituzten obra literarioek ez dute inolaz ere corpus itxia osatzen, denborarekin zerrenda luzatzen joango baita. Urrutira joan gabe, 2024ko apirilean jada euskal gatazkari buruzko beste lan bat argitaratu da: Iraitz Lizarragak idatzi eta Izaro Lizarragak ilustratutako *Zenbat lo* (Txalaparta, 2024) liburua, 8 urtetik aurrerako irakurleriari zuzendutakoa, preso zegoela poliziarengandiko tortura bortitza jasan zuen Nekane Txapartegiren eta bere alabaren bizitzako pasarte batzuetan oinarritutako istorioa kontatzen duena. Beraz, argi dago etorkizun hurbilean, argitalpen berriak ikertzea ezinbestekoa izango dela, diakroniarekin lotutako aldaketarik eman den aztertzeko. Horrez gain, abiatutako ikerketa-lerro honek inguruko literatur sistemetako HGLn euskal gatazkaren gaia nola irudikatu den aztertzeko ernamuin izan nahiko luke, ikusi baitut, lan batzuk (gutxi bada ere) argitaratu direla jada. Hortxe daude, besteak beste, Asun Balzolak idatzitako *El efecto Guggenheim Bilbao* (2003), Santiago Herraizen *Amordazados* (2002), Lucía Baquedanoren *El pueblo sombrío* (2002), Jordi Sierra i Fabraren *El temps de l'oblit* (1993), Fernando Lalanaren *El zulo* (1996) eta Marilar Aleixandrek galizieraz idatzitako *Rúa carbón* (2005). Era berean, tesiko corpusean jatorriz euskaraz sortutako obrak aztertu ditudanez, etorkizuneko ikerketa batean euskarara itzulitakoak ikertu beharko lirakeela uste dut. Horietako asko, Mundu Gerrekin lotutakoak batez ere, ez dira Euskal Herrian ardaztutako kontakizunak<sup>247</sup>, baina badira Gerra Karlistekin lotutako bi obra gutxienez hemen girotutakoak direnak, Silvia Lizarragak idatzi eta Roland Deaucou marrazkilariak ilustratutako *Gau bat Karlismoaren Museoa* eta *Altxor karlista bat Lizarran* lanak, Nafarroako Gobernuak 2021ean eta 2023an argitaratutakoak hurrenez hurren. Gauza bertsua esan nezake Gerra Zibilari buruz, adibide bat aipatzearen, 2015ean argitaratu zuen CEAR Euskadi erakundeak *Asylum* komikia, Javier de Isusik idatzi eta Bego Montoriok itzulitakoa, zeinetan asilo batean bizi den adineko pertsona batek 15 urte zituela 1936ko Otxandioko jaietan gertatutako bonbardaketa gogorarazten duen. Bestalde, tesi honetan Euskal Herrian gertatutako gatazka politiko-armatuen errepresentazioetara mugatu banaiz ere, uste dut interesgarria izan litekeela ikerketa hau bestelako gatazka politiko-armatu

---

<sup>247</sup> Lehen Mundu Gerrarekin lotuta, aipatzekoak dira *Gerrako zaldia* (Alberdania/Erein, 2012) edo *1880tik irekia* (Pamiela/Kalandraka, 2020); eta Bigarren Mundu Gerrarekin, berriz, *Hitlerrek untxe arrosa lapurtu zuenean* (Alfaguara/Desclée de Brouwer, 1988), *Izar bat naiz* (Elkar, 1995), *Otto. Ilaunezko hartz baten autobiografia* (Ikas, 2006), *Hegoak astinduz* (Harriet Ediciones, 2017) edo *Leihoko neska* (Ibaizabal, 2020).



garaikideen irudikapen literarioekin erkatzea, adibidez, Irlandako gatazkarekin, ziur bainago literatur sistema ezberdinen arteko erkaketak emaitza aberatsak ekarriko lituzkeela.

Azkenik, azpimarratu nahiko nuke Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal HGL garaikidean nola egin den aztertzea helburu izan duen tesi honek corpus zabal baten aurkezpena izan duela emaitza nagusi, baina egindako ekarpena aberasteko ezinbestekoa dela narratologiatik abiatuta, Memoria Ikasketak eta Genero Ikasketak lagun, HGLren ikerketan aurrera egitea.

## 9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

### 9.1. Corpusean sartutako literatur obrak

- Agurrutza, X. (1994). *Pike eta Pitito* (K. Romero, Ilus.). Txalaparta.
- Alberdi, U. eta Peláez, P. (2016). *Ikastola armairu barruan*. Elkar/Katxiporreta/Ikastolen Elkarte.
- Alberdi, U. eta Peláez, P. (2016). *Martxa eta borroka!* Elkar/Katxiporreta/Ikastolen Elkarte.
- Albisu, A. (1997). *20 Ipui eta antzerkitxo bat ikastolatarako*. Juan José Garmendia.  
<https://www.euskerazaleak.biz/PDF/Euskerazaintza%20Liburuak/20%20ipui%20eta%20antzerkitxo%20bat%20Ikastolarako.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Andueza, J. (2012). *Larunbatean Bukowskin*. Elkar.
- Andueza, J. (2023). *Para bellum*. Elkar.
- Antza, M. eta Moreno, I. (2012). *Kandela bat pizteko behar dena*. Ataramiñe.  
<http://www.literaturakoadernoak.org/?p=1321>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Añorga, P. (1999) [1984]. *Pottoko* (J. Mitxelena, Ilus.). Ekarlanean.
- Añorga, P. eta Mitxelena, J. (2012). *Memoriaren zuhaitza*. Elkar.
- Arana, O. (2020). *Portuak*. Gaumin.
- Arbelbide, N. (2006). *Goizeko zazpiak*. Elkar.
- Aristi, P. (1996). *Din, dan, don... Kanpai lapurrak non?* (J. I. Mendizabal, Ilus.). Elkar.
- Aristi, P. (1998). *Benetako lagunen aterbea*. Ibaizabal.
- Aristi, P. (2011). *Jose Maria Iparragirre. Haizearen semea* (J. C. Nazabal, Ilus.). Elkar.
- Arostegi, G. (2021). *Antipodak*. Ibaizabal.
- Arostegi, G. eta Ribas, J. (2014). *Karlisten altxorra*. Elkar.
- Arrieta, Y. (2014). *Argiaren alaba*. Autoedizioa.
- Atxaga, B. (1991). *Behi euskaldun baten memoriak*. Pamiela.
- Atxaga, B. (1996). *Sara izeneko gizona*. Pamiela.
- Azkue, I. eta Agirre, T. (2007). *Osaba Patxiren koaderno*. Inpernupe Kultur Elkarte.
- Azkue, I. eta Agirre, T. (2008). *Oihanaren koaderno*. Inpernupe Kultur Elkarte.
- Bidegain, E. (2002). *Anbroxio*. Elkar.
- Bilbao, L. eta Mutuberria, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela.
- Bilbao, L. eta Mutuberria, M. (2017). *Pikondoaren balada*. Elkar.
- Carrere, J. eta Orbegozo, M. (2018). *Maritxipi eta Amatxo*. Sare Herritarra.
- Durruty, B. (2016). *Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!* Denonartean.
- Egaña, A. (1999). *Basarri* (I. Aiestaran, Ilus.). Sendoa.

- Egaña, A. (2005). *Kixmi elurpean*. Elkar.
- Egaña, I. (2001). *Euskal Herriaren Historia XXI. mendeko haurrei kontatua* (Tasio, Ilus.). Txalaparta.
- Egaña, I. (2004). *1936ko gerra haurrei kontatua* (E. Montorio, Ilus.) Txalaparta.
- Epaltza, A. (1994). *Lur zabaletan*. (A. Urmeneta, Ilus.). Pamiela
- Erostarbe, J. (2014). *Mattin. Basoko gidaria*. IZBÁ.
- Erostegi, J. (2018). *Txori mezulariak* (L. Erostegi, Ilus.). Ataramiñe. <https://archive.org/details/TxoriMezulariak/mode/2up>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Erostegi, J. (2019). *Amonaren ipuin magikoak* (L. Erostegi, Ilus.). Ataramiñe. <https://archive.org/details/amonarenipuinak/mode/2up>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Gallastegi, L. (2020). *Itsas azpiko sekretua* (I. Mitxelena, Ilus.). Ibaizabal.
- Garzia, J. (2000). *Tunelaz bestaldean*. SM.
- Garzes, I. (2019). *Hari single bat* (L. Urbeltz, Ilus.). Erein.
- Garcia, H. (2016). *Haizea* (M. Fernández eta O. Meñaka, Ilus.). Ataramiñe eta Etxerat. <https://archive.org/details/HaizeaAE/page/n7/mode/2up> [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Gonzalez, B. (2008). *Zimaren abenturak* (K. Etxeberria, Ilus.). Ataramiñe. <https://ia902303.us.archive.org/15/items/ZimarenAbenturak/zimarenabenturak.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Ibañez, A. eta Martirena, D. (2020). *Amonarenean kea*. Liburu Iletsuak.
- Igerabide, J. K. (2020). *Arrastoa*. Alai.
- Igerabide, J. K. (2023). *Begi bat kokotean* (E. Odriozola, Ilus.). Ediciones Modernas El Embudo.
- Iharra eta Xenki (1974). *Herrialde berdea*. Turingraf.
- Irigoién, J. M. (2014). *Pistolak eta epistolak*. Elkar.
- Iriondo, L. (1979). *Buruntza azpian*. Gero-Mensajero.
- Iturriaga, U. eta Sanvi, A. (2022). *Haur besoetakoa. Itsasoan urak handi*. Ikastolen Elkartea.
- Izagirre, K. (1991). *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak*. Elkar.
- Izagirre, K.; Fano, D. eta Garluk (2021). *Sasi artean Elgeta*. Ikastolen Elkartea eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartea.
- Jimenez, E. (2004). *George L. Steer; Gernikan izan zen kazetaria* (E. Montorio, Ilus.). Txalaparta.
- Juaristi, F. (1995). *Sagitario*. Desclée de Brouwer.
- Landa, M. (1995). *Nire eskua zurean* (A. Olariaga, Ilus.). Erein.
- Meabe, M. A. (2006). *Urtebete itsasargian*. Elkar.

- Meabe, M. A. eta Probanza, C. (2008). *Zer da, ba, maitasuna?* Elkar.
- Mendiguren, X. (1981). *Iparragirre* (A. Dominguez, Ilus.). Elkar.
- Mendiguren, X. (2000). *Txakurraren alaba*. Elkarlanean.
- Mendiguren, X. (2010). *Negu luzearen atarian* (J. C. Nazabal eta J. A. Lopetegi, Ilus.). Elkar.
- Mendiguren, X. eta Orbe, A. (2015). *Hiru sopranoak*. Elkar.
- Morillo, F. (2003). *Arriskupean!* Ibaizabal.
- Mugertza, J. L. (2010). *Zer du aitonak?* (T. Belasko, Ilus.) Ibaizabal.
- Olaizola, J. M. “Txiliku” (2011). *Jose Miguel Barandiaran. Herria bihotzean zuen jakintsua* (J. C. Nazabal eta J. A. Lopetegi, Ilus.). Elkar.
- Rodriguez, E. eta Rivas, J. (2017). *Santa familia*. Ikastolen Elkartea.
- Sagastizabal, J. (1999). *Gerturik daukagu odola* (A. Urmeneta, Ilus.). Pamiela.
- Saizarbitoria, R. (2003). *Kandinskyren tradizioa*. Erein.
- Sarrionandia, J. (1991). *Ainhoari gutunak*. Elkar.
- Sarrionandia, J. (2008). *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak* (P. Osés, Ilus.). Pamiela.
- Suarez, C. (2017). *Nemo kapitainaren azken bidaia* (A. Alonso, Ilus.). Erein.
- Telleria, A. eta Ruiz, L. (2023). *Elur gorrituaren egunak*. Denonartean.
- Ubeda, G. (2018). *Sasieskola*. Elkar.
- Ubeda, G. (2019). *Mehatxua*. Elkar.
- Ubeda, G. (2021). *Esanezinak*. Elkar.
- Zabala, J. L. (1999). *Harri barruko bihotz-borrokak*. Elkarlanean.
- Zaldua, I. eta Ribas, J. (2011). *Azken garaipena*. Ikastolen Elkartea.
- Zubizarreta, P. (1994). *Marigorringoak hegan* (J. M. Lavarello, Ilus.). Giltza-Edebé.
- Zubizarreta, P. (1997). *Gizon izandako mutila*. Pamiela.
- Zubizarreta, P. eta Mitxelena, J. (2008). *Pikolo*. Alberdania.
- Zubizarreta, P. (2015) [1994]. *1948ko uda*. Erein.
- Zubizarreta, P. eta Mosquera, Y. (2016). *Beroki gorria*. Ibaizabal.

## 9.2. Aipatutako bibliografia

- Agiriano, A. (2012). Beste generoak. *Behinola*, 25, 47-48.
- Agiriano, A. (2017ko maiatzaren 3a). *Asun Agirianok "Ez da konprenitzen ahal gerra!" eleberria izan du mintzagai.* Sautrela. <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/sautrela/bideoak/osoa/4877663/bideoa-ez-da-konprenitzen-ahal-gerra-eleberri-gafrikoa-mintzagai/> [Azken kontsulta: 2023/12/30].
- Agirre, L. (Zuz.) (2015). *Gatazka ezpalak*. Jakin.
- Agnew, K. eta Fox, G. (2001). *Children at War. From the First World War to the Gulf*. Continuum.
- Agra, M. J. eta Franco-Vázquez, C. (2014). Imagery in the Spanish Children's Literature. In B. A. Roig eta V. R. Kenfel (Ed.), *The Representations of the Spanish Civil War in European Children's Literature (1975-2008)* (289-303 or.). Peter Lang.
- Agrelo, M. E.; Lago, J.; Mociño, I.; Neira, M.; Raviña, A.; Roig, B. A. eta Soto, M. I. (2005). Tratamento dos conflitos bélicos na literatura infantil e xuvenil en lingua galega. In V. R. Kenfel; L. Lorenzo, C. Vázquez (Ed.), *Mundos en conflicto: representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil* (71-91 or.). Universidad de Vigo.
- Ahmed, S. (2004). *The Cultural Politics of Emotion*. Edinburgh University Press.
- Ahoz aho (2021eko otsailaren 16a). *Etxeko sekretuak, belaunaldiz belaunaldi, gehien bat amonek kontatu dituzte.* EITB. <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ahoz-aho/bideoak/osoa/7848248/bideoa-dani-martirenari-elkarrizketa-amonarenean-kea-liburuari-buruz/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Aldekoa, I. (2008). Haur eta gazte literatura euskaraz. In *Euskal literaturaren historia* (374-379 or.). Erein.
- Alvarez, A. (2015eko maiatzaren 17a). Jostuna klasikoak harilkatzen. *Argia*, 2.461, 26. [https://www.argia.eus/astekaria/docs/2461/azala/2461\\_argia.pdf](https://www.argia.eus/astekaria/docs/2461/azala/2461_argia.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Albistur, E. (2012). *Euskal gatazka haur eta gazte literaturan* [Argitaratu gabeko master amaierako lana, Pabe eta Aturri eskualdeko unibertsitatea eta Michel Montaigne Bordale 3-ko unibertsitatea].

- Albistur, E. (2017). *L'évolution du didactisme dans la littérature de jeunesse basque de la fin du XIXème siècle* [Doktore-tesia]. Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA). <https://hal.inria.fr/tel-02867076/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Aldalur, M. (1997ko urtarrilaren 1a). Irakurleak pentsatzen duena. *Euskaldunon Egunkaria*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=2663>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Aleksievitx, S. (2017) [1985]. *Gerrak ez du emakume aurpegirik* (I. Sancho, Itz.). Elkar.
- Alexander, J.; Eyerman, R.; Giesen, B.; Smelser, N. eta Sztompka, P. (Ed.) (2004). *Cultural Trauma and Collective Identity*. University of California Press.
- Alonso, I. (2008). *Euskal literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan* [Doktore-tesia]. UPV/EHU. <https://www.educacion.gob.es/teseo/imprimirFicheroTesis.do?idFichero=beN12bISXgQ%3D>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Alonso, A.; Arrieta, Y. eta Valverde, M. (d.g.). *Gerrak ez du izenik*. *Pamiela*. <http://www.pamiela.com/es/literatura-2/haur-eta-gazte-literatura/tamaina-handia-kalandra-ka/gerrak-ez-du-izenik-detail>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Alzola, N. (2004). *Propuestas éticas en libros-álbum de literatura infantil: diseño y aplicación de un modelo para el análisis de valores* [Doktore-tesia]. UPV/EHU.
- Amuriza, M. (2017ko urtarrilaren 20a), *Pikolo*. Berria. <https://www.berria.eus/paperekoa/1777/014/002/2017-01-20/pikolo.htm>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Apalategi, J. (2000). Bakea eta gerra euskal haurren gogoetan. *Uztaro*, 33, 99-120.
- Apalategi, U. (1998). Atxaga post-obabarra edo literatura autonomoaren heteronomizazioa. *Uztaro*, 27, 63-82.
- Apalategi, U. (2009). Gerra Zibila Saizarbitoriaren *Bihotz bi*-n literaltasuna, alegoria eta beste zenbait hipotesi. *Euskera*, 54(2), 1109-1126.
- Arendt, H. (1987). Collective Responsibility. In J. W. Bernauer (Ed.), *Amor Mundi. Explorations in the Faith and Thought of Hannah Arendt* (43-50 or.). Martinus Nijhoff Publishers.
- Aresti, N. (2014). The battle to define Spanish manhood. In A. G. Morcillo (ed), *Memory and Cultural History of the Spanish Civil War: Realms of Oblivion* (147-177 or.). Brill.
- Argia (1999ko uztailearen 4a). *Erreseinak*. [http://www.argia.eus/argia-astekaria/1722?%20botua=0&artikulua\\_id=1260](http://www.argia.eus/argia-astekaria/1722?%20botua=0&artikulua_id=1260). [Azken kontsulta: 2022/03/14].

- Arnal, J. I. (2011). *El tratamiento de la muerte en el álbum infantil. Obras publicadas en castellano (1980–2008)* [Doktore-tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/7663>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Arrieta, L. (2015). ETA y la espiral de violencia. Estrategias y víctimas. In M. P. Rodríguez (Ed.), *Imágenes de la memoria: víctimas del dolor y la violencia terrorista* (21-51 or.). Biblioteca Nueva.
- Arrieta, Y. (2020ko azaroak 6). *Atzekoz aurrera. Yolanda Arrieta. Idazlea / I. Tubiak egindako elkarrizketa.* Berria. <https://www.berria.eus/paperekoa/1888/040/001/2020-11-06/garrantzitsua-da-jakitea-gau-zak-nork-egiten-dituen.htm>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Arriolabengoa, Y.; Etxaniz, X.; Irastorza, T.; Lasa, J. I. eta López Gaseni, J. M. (1983). *Euskal letren dantza 1983an. Literatur produkzioaren azterketa kritikoa.* Hordago.
- Arroita, I. (2015). *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria ikasketen ikuspegitik* [Doktore-tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15964>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Arroita, I. eta Otaegi, L. (Ed.) (2015). *Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontraera historiko-politikoak.* UPV/EHU.
- Arruza, C.; Bhattacharyak, T. eta Fraser, N. (2019). *Feminismoa %99ren alde* (D. Sarriugarte, Itz.). Txalaparta.
- Asiain, M. A. (2017). *Cherche pas à comprendre! Zer berri, 126, 15.* <https://www.zerberri.eus/ZB/ZEBERRI-126.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Assmann, A. (2010). Canon and Archive. In A. Erll eta A. Nünning (Ed.), *A Companion to cultural memory studies* (97-107 or.). De Gruyter.
- Assmann, J. (1995) [1988]. Collective and Cultural Identity (J. Czaplicka, Itz.). *New German Critique, 65*, 125-133.
- Assmann, J. (2010). Communicative and Cultural Memory. In A. Erll eta A. Nünning (Ed.), *A Companion to cultural memory studies* (109-118 or.). De Gruyter.
- Asuero, M. (2023ko abenduaren 28a). Ediciones Modernas El Embudo. <https://modernaselembudo.acblnk.com/show/2461843/0KVdiqlQJfSi8NgETLN3gZsFN4LJH/0fe883c7181fda792d465fc6d520006b/>. [Azken kontsulta: 2023/12/30].
- Ayerbe, M. (2016). *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan. Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai* [Doktore-tesia]. UPV/EHU eta Université Michel de Montaigne - Bordeaux III. <https://addi.ehu.es/handle/10810/19554> [Azken kontsulta: 2023/10/20].

- Ayerbe, M. (2019). La reescritura del pasado violento y la ficcionalización del presente conflictivo: las narrativas de Edurne Portela e Iban Zaldúa. *Olivar*, 19(30).
- Ayerbe, M. (2022). Azken garaipena de Iban Zaldúa y Julen Ribas: un cómic ucrónico futurista. In M. Neira; B. A. Roig eta I. Soto (Koord.), *Cómic e literatura* (463-472 or.). Xerais.
- Ayerbe, M. (2023ko abenduaren 28a). Ediciones Modernas El Embudo. <https://modernaselembudo.acblnk.com/show/2461843/0KVdiqlQJfSi8NgETLN3gZsFN4LJH/0fe883c7181fda792d465fc6d520006b/>. [Azken kontsulta: 2023/12/30].
- Azurmendi, N. (2009ko otsailaren 16a). *Hurrei gordintasuna ere eman behar zaie; badakite hor dagoela, ez dira tontoak*. El Diario Vasco. <https://www.diariovasco.com/20090216/cultura/hurrei-gordintasuna-eman-behar-20090216.html>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Bakhtin, M. (1989) [1975]. *Teoría y estética de la novela*. *Trabajos de investigación* (H. S. Kriúkova eta V. Cazcarra, Itz.). Taurus.
- Bakhtin, M. (1984) [1921]. *Problems of Dostoevsky's Poetics* (C. Emerson, Itz.). University of Minnesota Press.
- Bal, M. (1990). The Point of Narratology. *Poetics Today*, 11(4), 727–753.
- Baumgärtner, A. C. (1974). *El libro juvenil alemán hoy*. Friedrich Verlag.
- Barandiaran, A. (2011). *Gatazka Nafarroako euskal literaturan*. UPV/EHU.
- Benito, J. (2000). *Historia ez oso fiktizioa*. Gara. <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/txakurraren-ala-ba>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Biba zuek (2021eko otsailaren 9a). *Dani Martirena: “Liburuak baditut idatzita baina ez dut nire burua idazletzat hartzen”*. EITB. <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/oso/7832606/bideoa-amonarenean-kea-liburua-aurkeztu-du-dani-martirena-kazetariak/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Bidegain, E. (2007). *Iparretarrak: erakunde politiko armatu baten historia*. Gatuzain.
- Bilbao, A. (2008ko urriaren 25a). *Nerabeak “Zer da ba, maitasuna?” galdezka, Meabek idatzi eta Probenzak marraztutako liburuan*. Gara. <https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20081025/103209/eu/Nerabeak-Zer-da-ba-maitasuna-galdezka-Meabek-idatzi-eta-Probenzak-marraztutako-liburuan>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].



- Bister, D. (2015). Espainiako Gerra Zibila eta frankismoa jasatea emakume gisa: “Silencio Roto” (2001a) eta “Si te dicen que caí” (1989). In I. Arroita eta L. Otaegi (Arg.), *Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra Zibilaren errepresentazio artistikoak vs. kontaera historiko-politiko* (213-225 or.). UPV/EHU.
- Bortolussi, M. (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Alhambra.
- Burke, P. (1989). History as social memory. In T. Buthler (Arg.), *Memory, History, Culture and the Mind* (97-113 or.). Blackwell.
- Buruaga, M. (2021eko ekainaren 1a). *Protesta artean inauguratu dute Biktimen Oroimenerako Zentroa*. Alea. <https://alea.eus/gasteiz/1622537076534-terrorismoa-biktimak-memoriala-inaugurazioa-pr otestak>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Butler, J. (2004). *Precarious Life: The Powers of Mourning and Violence*. Verso.
- Calleja, S. eta Etxebarria, I. (itzulpena eta sarrera) (1994). *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Labayru Ikastegia/Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Cano, H. eta Gurrutxaga, M. (2017). *Tigre batekin bizi*. Elkar.
- Carretero, M. (2003). De víctimas a héroes: Mundos secundarios y fantasía liberadora en la literatura infantil inglesa. In J. S. Fernández; A. I. Labra eta E. Laso (Ed.), *Realismo social y mundos imaginarios: Una convivencia para el siglo XXI* (533-543 or.). Universidad de Alcalá de Henares.
- Caruth, C. (Ed.) (1995). *Trauma: Explorations in Memory*. Johns Hopkins University Press.
- Caruth, C. (1996). *Unclaimed Experience: Trauma, Narrative and History*. Johns Hopkins University Press.
- Casquete, J. (2012). Eusko gudariak. In S. De Pablo, J. L. De la Granja, L. Mees eta J. Casquete (Koord.), *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco* (345-356 or.). Tecnos.
- Cela, J. (2022ko azaroaren 10a). *Cartes a l’Ainhoa*. El diari de l’educació. <https://diarieducacio.cat/cartes-a-lainhoa/>. [Azken kontsulta: 2023/11/21].
- Cerrillo, P. C. (2001). Lo literario y lo infantil: Concepto y caracterización de la literatura infantil. In P. C. Cerrillo eta J. García Padrino (Ed.), *La literatura infantil en el siglo XXI* (79-94 or.). Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Cerrillo, P. C. (2007). *Literatura infantil y juvenil y educación literaria. Hacia una nueva enseñanza de la literatura*. Octaedro.
- Cerrillo, P. C. (2013). *LIJ. Literatura mayor de edad*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

- Cerrillo, P. C. eta Sotomayor, M. V. (Arg.) (2016). *Censuras y LIJ en el siglo XX. En España y 7 países latinoamericanos*. Ediciones de Castilla-La Mancha.
- Cervera, J. (1991). *Teoría de la Literatura Infantil*. Ediciones Mensajero.
- Chambers, A. (1985). *Booktalk: Occasional Writing on Literature and Children*. Bodley Head.
- Chambers, A. (2007). *Dime: Los niños, la lectura y la conversación* (A. T. Amieva, Itz.). Fondo de Cultura Económica.
- Chaney, D. (1994). *The Cultural Turn: Scene-setting Essays on Contemporary Cultural History*. Routledge.
- Chueca, J. (2016). *La Represión de las mujeres durante la Guerra Civil y el franquismo* [Bideo-dokumentala]. <https://humanidadesdigitales.uc3m.es/s/hismedi-g/item/2756>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Chueca, J. eta Fernandez, L. (1997). *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*. Euskaldunon Egunkaria.
- Cohen, S. (2001). *States of Denial: Knowing about Atrocities and Suffering*. Polity Press.
- Colbert, D. (2013). *Memory of the Peripheries: Narrative Constructions of History in Contemporary Spanish, Basque, Catalan, and Galician Novels* [Doktore-tesia]. Brown University. <https://repository.library.brown.edu/studio/item/bdr:320511/PDF/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Collinge, D. (2015). *The Turning Wheel of Hostility: The E.T.A. in Literature and Film in Spain Since the 1970s* [Doktore-tesia]. University of Michigan.
- Colomer, T. (1994). A favor de las niñas. El sexismo en la literatura infantil. *CLIJ*, 57, 7-24.
- Colomer, T. (1998). *La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual*. Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Síntesis.
- Colomer, T. (2001). La selección de obras de referencia histórica. In P. C. Cerrillo eta J. García Padrino (2001). *La literatura infantil en el siglo XXI* (67-78 or.). Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Colomer, T. (2002). *Siete llaves para valorar las historias infantiles*. Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Colomer, T. (2005). *Andar entre libros. La lectura literaria en la escuela*. Fondo de cultura económica.
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual* (2. edizio berriua eta zabaldua). Síntesis.

- Consejo, E. (2011). Peritextos del siglo XXI. Las guardas en el discurso literario infantil. *Ocnos*, 7, 111-122.
- Copons, Jaume (2000). *H. Bass. Un passat ocult*. Edicions Baula.
- Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas* (2011). La Guerra Civil en la literatura vasca, 45, 37-148.
- Davis, C. eta Meretoja, H. (Ed.) (2020). *The Routledge Companion to Literature and Trauma*. Routledge.
- De Pablo, S. (2012). *The Basque Nation On-Screen*. Center for Basque Studies.
- De Sousa, S. S. (2012). *Los valores en narraciones infantiles y juveniles escritas en castellano y publicadas entre los años 2000-2007*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU.
- Díaz-Plaja, A. (2011). *Escrito y leído en femenino: novelas para niñas: Análisis y valoración en su contexto*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Dominguez, U. (2015). *Euskal Herriko gatazka politikoa. Haur eta gazte literaturaren tabuak*. [Gradu amaierako lana]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15411>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Eagleton, T. (2010) [2007]. *Cómo leer un poema*. Akal.
- Eco, U. (1979). *Lector in fabula*. Bompiani.
- Egaña, I. (2005). Despertando del letargo. Identidad, conflicto, literatura. *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas*, 32, 137-155.
- Egaña, I. (2013). *Kritikarako hurbilketa literaturaren soziologiatik. Egunkari eta aldizkarietako euskal literatur kritiken analisisa (1975-2005)*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibon\\_Egana\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibon_Egana_TESIA.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Egaña, I. (2015). Ihesaren fantasia. Azkenaldiko euskal nobela eta indarkeria politikoa. In L. Agirre (Zuz.), *Gatazka ezpalak* (53-67 or.). Jakin.
- Egaña, I. eta Zelaieta, E. (koord) (2006). *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Egaña, I. (2023ko martxoaren 4a). *Hay que soñar*. Naiz. <https://www.naiz.eus/eu/iritzia/articulos/hay-que-sonar>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- El Diario Vasco (2017ko azaroaren 23a). “Osaba Patxiren koadernoak” kalean. <https://www.diariovasco.com/20071123/gipuzkoa/osaba-patxiren-koadernoak-kalean-20071123.html>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

- Elustondo, M. A. (2019). Irantzu Mendia. Emakumeen memoria kolektiboa ikergai. *Argia*, 2.567, 12-16. [https://www.argia.eus/astekaria/docs/2657/pdf/Argia\\_2657-12-16.pdf](https://www.argia.eus/astekaria/docs/2657/pdf/Argia_2657-12-16.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Epelde, E.; Aranguren, M. eta Retolaza, I. (2015). *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro Feminista.
- Erdaide, A. (2023ko azaroaren 13a). *John Andueza. Idazlea*. Deia. <https://www.deia.eus/ortzadar/2023/11/13/indarkeriaren-dinamika-martxan-jartzen-denea-n-7510931.html> [Azken kontsulta: 2023/12/10].
- Erein (2017ko maiatzaren 4a). Nemo eta Printzesa puzkertia liburuen aurkezpen ekitaldia. <https://vimeo.com/215991335>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Erl, A. (2010). Literature, Film, and the Mediality of Cultural Memory. In A. Erl eta A. Nünning (Ed.), *A Companion to cultural memory studies* (389-398 or.). De Gruyter.
- Erl, A. (2011). *Memory in Culture* (S. B. Young, Itz.). Palgrave Macmillan.
- Erl, A. eta Nünning, A. (Ed.) (2010). *A Companion to cultural memory studies*. De Gruyter.
- Erl, A. eta Rigney, A. (2006). Literature and the Production of Cultural Memory: Introduction, *European Journal of English Studies* 10(2), 111–15.
- Erl, A. eta Sommer, R. (Ed.) (2019). *Narrative in Culture*. De Gruyter.
- Erlo telebista (2017), *Leire Bilbaok jaso du "Pikondoaren balada" lanagatik irabazi duen XXXV. Lizardi saria*. <https://zarauzkohitza.eus/komunitatea/erlo-telebista/1493370316116-bideoa-leire-bilbaok-jaso-du-xxxv-lizardi-saria>. [Azken kontsulta: 2022/03/14].
- Erostarbe, J. (2014). Mattin, basoko gidaria" komikia. *Jabier Erostarbe. Estudio grafiko*. <https://jabiererostarbe.wordpress.com/2014/04/09/mattin-basoko-gidaria-komikia/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Errazkin, M. (2009). 1936ko Gerrako garaituen eta Frankismo-garaiko biktimen memoria kolektiboa. In M. Errazkin eta J. Agirre (Arg.), *1936ko Gerra Euskal Herrian: historia eta memoria* (117-154 or.). UEU.
- Escarpit, R. (1971). *Sociología de la literatura*. Oikos-tau.
- Escarpit, R. (1974). *Hacia una sociología del hecho literario* (L. A. Gil, Itz.). Edicusa.
- Esnaola, E. (2017). *Luhuso. ETA-ren armagabetze zibilaren kontakizuna*. Berria/Elkar/Jakin.
- Estornés, I. eta Ibargutxi, F. (d.g.). Zubikarai Bedialauneta, Agustín. In Auñamendi Entziklopedia.

<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/zubikarai-bedialauneta-agustin/ar-148400/>.

[Azken kontsulta: 2023/10/20].

Etxaniz, X. (1991). Ainhoari gutunak. *CLIJ*, 29, 64.

Etxaniz, X. (1996). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU.

[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier\\_Etxaniz\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier_Etxaniz_TESI.pdf).

[Azken kontsulta: 2023/10/20].

Etxaniz, X. (1997a). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Pamiela.

Etxaniz, X. (1997b). *Din dan don... kanpai lapurrak non?* Egunkaria.

<https://www.ibbygaltzagorri.eus/liburu-gaztea/2023-2024/liburuak/ezinbestekoak/din-dan-don-kanpai-lapurrak-non>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

Etxaniz, X. (2000). Literatura ausarta. *Behinola*, 3, 54-55.

Etxaniz, X. (2001). Tunelaz bestaldean. *CLIJ*, 138, 66.

Etxaniz, X. (2002). Euskarazko haur eta gazte literaturaren kritika gaur egun. *Oihenart*, 19, 69-76.

Etxaniz, X. (2004a). La ideología en la literatura infantil y juvenil. *CAUCE*, 27, 83-96.

[https://cvc.cervantes.es/literatura/cauce/pdf/cauce27/cauce27\\_06.pdf](https://cvc.cervantes.es/literatura/cauce/pdf/cauce27/cauce27_06.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].

Etxaniz, X. (2004b). Arriskupean! *CLIJ*, 171, 63.

Etxaniz, X. (2005a). Gure arteko haur eta gazte literatura, *Tantak*, 33, 89-101.

Etxaniz, X. (2005b). La violencia en la literatura infantil y juvenil vasca. In R. V. Kenfel, C. Vázquez eta L. Lorenzo (Ed.), *Mundos en conflicto: Representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil* (185-191 or.). Universidad de Vigo.

Etxaniz, X. (2005c). Kixmi elurpean. *CLIJ*, 187, 57.

Etxaniz, X. (2007a). Negar egiteko garaian. *Behinola*, 15, 54-55.

Etxaniz, X. (2007b). *Literatura eta ideologia*. Utriusque Vasconiae.

Etxaniz, X. (2007c). *Bela Kabelatik Ternuara. Atxagaren Haur eta Gazte Literatura*. Pamiela.

Etxaniz, X. (2011a). Sarrera. In J. Kortazar (Zuz.), X. Etxaniz (Alearen zuz.) eta J. M. López Gaseni (Alearen zuz.), *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia* (13-96 or.). UPV/EHU.

Etxaniz, X. (2011b). La transmisión de valores en la literatura, desde la tradición oral hasta la LIJ actual. *Ocnos*, 7, 73-83.

- Etxaniz, X. (2012a). Basque Children's and Young People's Literature. In M. J. Olaziregi (Ed.), *Basque Literary History* (291-310 or.). University of Nevada, Reno. Center for Basque Studies.
- Etxaniz, X. (2012b). Lurdes Iriondo: *Buruntza azpian* (1979). In J. Kortazar (Ed.), *Eguno euskal antzerkiaren historia* (104-112 or.). UPV/EHU.
- Etxaniz, X. (2012c). Larunbatean Bukowskin. *Behinola*, 26, 48-49.
- Etxaniz, X. (2014). *Abenturak bizi-bizi*. Gara.  
[https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara\\_2014-06-29-07-00/hemeroteca\\_articles/abenturak-bizi-bizi](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-06-29-07-00/hemeroteca_articles/abenturak-bizi-bizi). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Etxaniz, X. (2016a). Hiru sopranoak. *CLIJ*, 271, 70.
- Etxaniz, X. (2016b). Mundu-gerrak euskal hgl-n: itzulpenaren nagusitasuna. In B. A. Roig, I. Soto eta M. Neira (Ed.) (2016), *Reflexos das dúas Guerras Mundiais na LIX* (141-150 or.). Edicións Xerais de Galicia.
- Etxaniz, X. (2017a). Nemo kapitainaren azken bidaia. *CLIJ*, 280, 64.
- Etxaniz, X. (2017b, urriaren 7a). *Pikua bihotza bihotzean*. Gara.  
[https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-10-07/hemeroteca\\_articles/pikua-bihotzean](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2017-10-07/hemeroteca_articles/pikua-bihotzean). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Etxaniz, X. (2018). Pikondoaren balada. *CLIJ*, 281, 59.
- Etxaniz, X. (2020ko uztailaren 12a). 1936ko uztail itogarrian jazo. *Argia*, 2.694, 48.  
[https://www.argia.eus/astekaria/docs/2694/pdf/2694\\_Argia-48.pdf](https://www.argia.eus/astekaria/docs/2694/pdf/2694_Argia-48.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Etxaniz, X. (2021). Itsas azpiko sekretua. *CLIJ*, 301, 60.
- Etxaniz, X. eta Fernández de Gamboa, K. (2017). Panorama País Vasco: Cambiando. *CLIJ*, 279, 40-46.
- Etxaniz, X. eta Fernández de Gamboa, K. (2020). Futbola euskal haur eta gazte literaturan. Xabier Mendigurenen "Hiru sopranoak". In M. M. Boillos eta J. Kortazar (Arg.), *Eguno euskal literatura eta futbola II* (71-84 or.). UPV/EHU.
- Etxaniz, X. eta Fernández de Gamboa, K. (2021). Panorama País Vasco: El resurgir de la literatura juvenil. *CLIJ*, 303, 47-55.
- Etxaniz, X. eta López Gaseni, J. M. (2005). *90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura*. Pamiela.
- Etxaniz, X. eta López Gaseni, J. M. (2007). Hizpide. Begirada historiko bat haur antzerkiaren gainean. *Behinola*, 8, 21-32.

- Etzaniz, X. eta López Gaseni, J. M. (2008). 1936ko gerra euskal haur eta gazte literaturan. Orbaindu gabeko zauria. In B. A. Roig, P. Lucas eta I. Soto (Koord.), *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil* (137-146 or.). Edicións Xerais de Galicia.
- Etzaniz, X. eta López Gaseni, J. M. (2011). *XXI. mende hasierako Haur eta gazte Literatura*. Arabako Foru Aldundia.
- Etxebarria, I. (2000). Sorne Unzueta “Utarsus” (1900). In E. Garmendia, J. Elortza, J. M. Satrustegi eta I. Etxebarria, *Bidegileak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Eskuragarri:  
<http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/sustapena/datos/SORNE%20UNZUETA.pdf>.  
 [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Etxeberria, F.; Martín, C. eta Pego, L. (Zuz.) (2017). *Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)*. Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHU.  
[https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/11369/AZKEN\\_TXOSTENA\\_Tortura\\_eta\\_tratu\\_txarrak\\_\(2017-12-18\).pdf?1521099415](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/11369/AZKEN_TXOSTENA_Tortura_eta_tratu_txarrak_(2017-12-18).pdf?1521099415). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Etxeberria, H. (2011ko abenduaren 8a). *Gatazkaren letrak*. Zuzeu.  
<https://zuzeu.eus/kultura/gatazkaren-letrak/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Euskal Idazleen Elkarte (2013ko azaroaren 8a). *Leire Bilbaori elkarrizketa*. Hitzen Uberan.  
<http://uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/leire-bilbaori-elkarrizketa-2>.  
 [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Euskal Idazleen Elkarte (2017ko urtarrilaren 10a). *Leire Bilbao: “Ekintza gutxi ditu ipuinak, eta barne gogoeta asko”*. Hitzen Uberan.  
<http://www.uberan.eus/?kaia/item/leire-bilbao-ekintza-gutxi-ditu-ipuinak-eta-barne-gogoeta-asko>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Eusko Jaurlaritza (2007). Euskadi Literatura Sariak, Haur eta gazte literaturari dagokion saria.  
<http://www.argia.eus/albistea/miren-agur-meabek-eta-juan-basek-irabazi-dute-euskadi-literatur-saria>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Eusko Jaurlaritza (2012). Euskadi Literatura Sariak (2012).  
<https://www.euskadi.eus/informazioa/2012-euskadi-literatura-sariak/web01-a2kulsus/es/>.  
 [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Eusko Jaurlaritza (2016). *Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, bake eta bizikidetzaren arloan sortutako dokumentuen bilduma*.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc\\_compilacion\\_docs/eu\\_def/adjuntos/2.%20Iragana%20argitzea.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc_compilacion_docs/eu_def/adjuntos/2.%20Iragana%20argitzea.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].



- Eusko Jaurlaritza (2020). Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenei buruzko XXV. txostena. 2019ko barne merkataritza. [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_lib\\_barnemerka\\_2019/eu\\_def/adjuntos/txostena-argitalpenak-barne-merkataritza-2019.pdf](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_lib_barnemerka_2019/eu_def/adjuntos/txostena-argitalpenak-barne-merkataritza-2019.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Eusko Jaurlaritza (d.g.). *Eusebio Erkiaga (1912-1993)*. Hiru.eus <https://www.hiru.eus/eu/literatura-vasca/eusebio-erkiaga-1912-1993?inheritRedirect=true>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Euskosare (2007ko abenduaren 5a). *Miren Agur Meabe*. <https://www.youtube.com/watch?v=ZpDuXnQ1Hp8>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Even-Zohar, I. (1990). Polysystem Studies. *Poetics Today*, 11(1). <https://www.jstor.org/stable/i303085>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Ewers, H. H. (2012). *Fundamental Concepts of Children's Literature Research. Literary and Sociological Approaches*. Routledge.
- Ezkerra, E. (2019). *Acts of re-membering: representations of the past in Irish and Basque literature*. [Doktore-tesia]. University of Illinois.
- Faber, S. (2014). Actos afiliativos y postmemoria: asuntos pendientes. *Pasavento. Revista de Estudios Hispánicos*, 2(1), 137-155.
- Felman, S. (2002). *The Juridical Unconscious: Trials and Traumas in the Twentieth Century*. Harvard University Press.
- Felman, S. eta Laub, D. (1992). *Testimony: Crises of Witnessing in Literature, Psychoanalysis, and History*. Routledge.
- Fernandez, E. (2017). *Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera* [Doktore-tesia]. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/22706>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Fernández de Gamboa, K. (2022). *Maitasunaren indarra*. El Correo. <https://www.elcorreo.com/zurekin/maitasunaren-indarra-20220414140942-nt.html>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Fernández Vázquez, M. (2017). Conflictos sociales en tres novelas juveniles premiadas. In C. Franco-Vázquez eta B. A. Roig (Ed.), *Educación literaria y artística: conflictos sociales y bélicos* (35-47 or.). Graó.
- Fernández-Zabala, N.; Urzelai-Vicente, A. eta Villagrán-Arrastoa, A. (2022). Haur eta Gazte Literatura gisa sailkatutako euskal liburuen zentsura txostenen azterketa (1975-1983



- epealdia). In A. Gandara (Ed.), *Euskal liburuaren Frankismo osteko zentsura (1975-1983)* (115-184 or.). UPV/EHU.
- Forster, E. M. (1985) [1927]. *Aspects of the novel*. Harcourt.
- Franco-Vázquez, C. eta Roig, B. A. (Ed.) (2017). *Educación literaria y artística: conflictos sociales y bélicos*. Graó.
- Gabilondo, J. (2006). *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. UPV/EHU.
- Gabilondo, J. (2013). *New York-Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz*. UPV/EHU.
- Gabiria, J. (d.g.). Hitzak dastatuz. *Deia*.  
<https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/tunelaz-bestaldean>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Galtzagorri Elkarte (2002). Historia, aurreiritziak eta zalantzak. *Behinola*, 7, 85-86.
- Galtzagorri Elkarte (2016). *Peru Abarka Album Lehiaketarako ilustratzaileen deialdia*.  
<https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/dokumentazio-gunea/hemeroteka/peru-abarka-album-lehiaketarako-ilustratzaileen-deialdia> [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Galtzagorri Elkarte (2018). *Behinola*, 38, 46-58.
- Galtzagorri Elkarte (2021a). *Behinola*, 43, 46-59.
- Galtzagorri Elkarte (2021b). *Behinola*, 44, 46-59.
- Galtzagorri Elkarte (d.g.). *Ez da konprenitzen ahal gerra!*  
<https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/ez-da-konprenitzen-ahal-gerra> [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Gandarias, Z. (2018). *Why Euzko-Gogoa? The Basque Intellectual and Cultural Identity in the Diasporic Journal Euzko-Gogoa (1950-1960)*. [Doktore-tesia]. University of Nevada.  
<https://addi.ehu.es/handle/10810/33104> [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Gantxegi, I. (2017). *Hacia un reconocimiento de las víctimas de la violencia de intencionalidad política mediante la lectura de la narrativa literaria vasca*. [Doktore-tesia]. Deustuko Unibertsitatea.
- Gantzarain, X. (2018). *Zuloa*. Elkar.
- Gara (2007ko azaoaren 21a). *Inpernupek "Osaba Patxiren koaderno" haurrentzako liburua kaleratu berri du*.  
<https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20071121/49371/eu/Inpernupek-Osaba-Patxiren-koaderno-haurrentzako-liburua-kaleratu-berri-du>. [Azken kontsulta: 2023/11/04].

- Gara (2014ko apirilaren 9a). *John Anduezak eta Jon Eugik gazteentzako abentura liburu bana eman dute*.  
[https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara\\_2014-04-09-07-00/hemeroteca\\_articulos/john-anduezak-eta-jon-eugik-gazteentzako-abentura-liburu-bana-eman-dute](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-04-09-07-00/hemeroteca_articulos/john-anduezak-eta-jon-eugik-gazteentzako-abentura-liburu-bana-eman-dute).  
 [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- García Padrino, J. (2001). *Así pasaron muchos años... (En torno a la Literatura Infantil Española)*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- García Padrino, J. (2001). La investigación de la Literatura Infantil en España: en busca de una identidad científica. In P. C. Cerrillo eta J. García Padrino (Ed.), *La literatura infantil en el siglo XXI* (13-26 or.). Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Genette, G. (1972). *Figures III*. Seuil.
- Genette, G. (1982). *Palimpsestes. La Littérature au second degré*. Seuil.
- Genette, G. (1987). *Seuils*. Seuil.
- Ginzburg, C. (1994). Microhistoria: dos o tres cosas que se de ella, *Manuscrits*, 12, 13-42.  
<https://ddd.uab.cat/pub/manuscrits/02132397n12/02132397n12p13.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Gizapedia (2022). Gatazka kognitiboa. <https://gizapedia.org/gatazka-kognitiboa>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Gobodo-Madikizela, P. (2015). Interrupting Cycles of Repetition: Creating Spaces for Dialogue, Facing and Mourning the Past. In *Breaking Intergenerational Cycles of Repetition: a Global Dialogue on Historical Trauma and Memory* (113-134 or.). Verlag Barbara Budrich.
- Gogora. Memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen institutua (2020). *Euskaldunen deportazioa Hirugarren Reicheko esparruetara (1940-1945)*.  
[https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora\\_dokumentuak/eu\\_def/Euskaldunen-deportazioa-1940-1945.pdf](https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_dokumentuak/eu_def/Euskaldunen-deportazioa-1940-1945.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Greimas, A. J. (1966). *Sémantique structurale: Recherche de méthode*. Larousse.
- Grutman, R. (1997). *Des langues qui résonnent: L'hétérolinguisme au XIXe siècle québécois*. Fides.
- Gurrutxaga, A. (2018). Bi protagonista argiarentzat: Yolanda Arrietaren *Argiaren alaba*. In B. A. Roig, I. Soto eta M. Neira (Koord.), *As mulleres como axentes literarias na lix do século XXI* (245-251 or.). Xerais.
- Gurrutxaga, A. (2020). *Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*. Alberdania.
- Gurrutxaga, A. (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Anthropos.

- Gutierrez, M. J. eta Ezeizabarrena, M. J. (2022). *Hotsetik hitzera. Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek?* Erein.
- Halbwachs, M. (1968) [1950]. *La mémoire collective*. Presses Universitaires de France.
- Halbwachs, M. (1994) [1925]. *Les cadres sociaux de la mémoire*. Albin Michel.
- Hamilton, C. (2007). *Women and ETA: The Gender Politics of Radical Basque Nationalism*. Manchester University Press.
- Hanán, F. (2020). *Sombras, lecturas y tabús en los libros infantiles*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Held, J. (1981). *Los niños y la literatura fantástica. Función y poder de lo imaginario*. Paidós.
- Hernandez Abaitua, M. (2011). *Narrazio tailerra*. Erein.
- Hernández, F. (2003). *Mujeres encarceladas. La prisión de Ventas: de la República al franquismo, 1931-1941*. Marcial Pons.
- Hernández, M. C. (2019). *Ethics and Aesthetics in Contemporary Basque Narrative: Three Portrayals of Terrorism* [Doktor-tesia]. University of Cincinnati.
- Hertzainak (1991). No time for love [abestia]. In *Onena*. Elkar.
- Hik hasi, (2018ko ekainaren 27a). *Heriotzaren lanketa. Bizitza kontzienteagoa egiteko*. 230, 9-11. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6947731>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Hirsch, M. (1997). *Family frames: photography, narrative, and postmemory*. Harvard University Press.
- Hirsch, M. (2008). The Generation of Postmemory. *Poetics today*, 29(1), 103-128. [https://warwick.ac.uk/fac/cross\\_fac/ehrc/events/memory/poetics\\_today-2008-hirsch-103-28.pdf](https://warwick.ac.uk/fac/cross_fac/ehrc/events/memory/poetics_today-2008-hirsch-103-28.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Hirsch, M. (2012). *The Generation of Postmemory: Writing and Visual Culture after the Holocaust*. Columbia University Press.
- Hitzanews (2007). *Osaba Patxiren koadernoak*. <https://www.youtube.com/watch?v=QFEK1U2zNfA>. [Azken kontsulta: 2023/11/04].
- Hron, M. (2018). Teaching about Torture, or, Reading between the Lines in the Humanities. In A. S. Moore eta E. Swanson (Ed.), *Witnessing Torture* (183-209 or.). Palgrave Macmillan.
- Hunt, P. (1991). *Criticism, theory, and children's literature*. Basil Blackwell.
- Hunt, P. (1995). *Children's literature: the development of criticism*. Routledge.

- Hunt, P. (2005). War in Children's Literature-Why?. In V. R. Kenfel, C. Vázquez eta L. Lorenzo (Ed.), *Mundos en conflicto: Representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil (13-27 or)*. Universidad de Vigo.
- I. F. (2017ko maiatzaren 5a). *Aita kartzelan daukan ipuina egin du Castillo Suarezek*. El diario vasco. [https://www.erein.eus/media/recortes\\_prensa/recorte\\_prensa1221\\_2.pdf](https://www.erein.eus/media/recortes_prensa/recorte_prensa1221_2.pdf) [Azken kontsulta: 2023/11/04].
- Ibargutxi, F. (2014ko apirilaren 8a). “*Bukowski tribua*” osatu nahi du John Anduezak. El diario vasco. <https://www.diariovasco.com/20140408/mas-actualidad/cultura/bukowski-tribua-osatu-nahi-201404081654.html>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Igartua, I. (1997). Dostoievski en Bajtín: raíces y límites de la polifonía. *Epos: Revista de filología*, 13, 221-235.
- Igartua, K. (2014). *Zer da, ba, maitasuna?* Idazten. <https://www.idazten.com/index.php/eu/literaturaz-mainmenu-492/liburu-iruzkinak/1433-1-iburuak-2510533>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Ignatieff, M. (1998). *The Warrior's Honor: Ethnic War and the Modern Conscience*. Henry Holt.
- Ilintxeta, R. (2018). Pello Elzaburu. Editore euskaldun (eta periferiko) baten memoriak. *Argia*, 2.600, 12-16.
- Imaz, J. (2010eko ekainaren 9a). *Bazen behin... Gipuzkoa*. Noticias de Gipuzkoa. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/cultura/2010/06/09/bazen-behin-gipuzkoa-4555346.html>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Iparragirre, P. (2007ko abenduaren 16a). *Kartzelan duen osabaren oparia*. Argia. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2115/osaba-patxiren-koaderno>. [Azken kontsulta: 2023/11/04].
- Ipupomamua (2011eko apirilaren 2a). *Gipuzkoako historia kontatuko dute ipuinen bidez*. EITB. <https://www.eitb.eus/eu/bideoak/osoak/631214/ipupomamua-gipuzkoako-historia-kontatuko-dute-ipuinen/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Iser, W. (1978). *The Act of Reading: A Theory of Aesthetic Response*. Johns Hopkins University Press.
- Iturbe, A. (2005ko otsailan 10a). *Ez barrio sesamo, ez ipuin bat*. Ikasbil. <https://www.ikasbil.eus/eu/dokutekako-fitxa?articleId=16521142>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

- Iturbide, A. (1992ko martxoaren 10a). Samurtasunaren zelaian. *Egin*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5629>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Izquierdo, J. (2021). Lastres de impunidad. Sombras de amnistía y espanto de victimarios en la España «democrática», *Papeles del CEIC*, 1, 1-16.
- Jauss, H. R. (1970). Literary History as a Challenge to Literary Theory (E. Benzinger, Itz.). *New Literary History*, 2(1), 7-37.
- Jimenez, E. (1991ko maiatzaren 26a). Norbera den umearentzat. *Argia*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=3334>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Juaristi, F. (1992ko otsailaren 1a). Ingenuitatearen omenez. *Euskaldunon Egunkaria*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=2450>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Juaristi, F. (1999). Zilar bila. *Behinola*, 1, 56.
- Juaristi, F. (2001). Egiten ez duen eguraldia bezala. *Diario Vasco*. <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/tunelaz-bestaldean>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Juliá, S. (2003). Echar al olvido. Memoria y amnistía en la Transición a la democracia. *Claves de la razón práctica*, 243, 248-269.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- Ken Zazpi (2001). Malen [abestia]. In *Atzo da bihar*. Gor.
- Ken Zazpi (2005). Zapalduen olerkia [abestia]. In *Gelditu denbora*. Elkar argiak.
- Ken Zazpi (2007). Gernikan [abestia]. In *Argiak*. Elkar Argiak.
- Kenfel, V. R.; Lorenzo, L.; Vázquez, C. (Ed.) (2005). *Mundos en conflicto. Representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil*. Universidad de Vigo.
- Kenfel, V. R.; Vázquez, C. eta Lorenzo, L. (Ed.) (2006). *Anuario de Investigación en Literatura Infantil y Juvenil*, vol. 4. Universidad de Vigo.
- Kenfel, V. R. eta Lorenzo, L. (2016). Preliminary study review of death in literature and films for children and a study of the fluxes of translation. In R. Oittinen eta B. A. Roig (Ed.), *A Grey Background in Children's literature: Death, Shipwreck, War, and Disasters / Literatura infantil y juvenil con fondo gris: muerte, naufragios, guerras y desastres* (21-40 or.). Iudicium Verlag.
- Kenfel, V. R. eta House, J. (Ed.) (2020). *Death in Children's Literature and Cinema, and its Translation*. Peter Lang.

- Kidd, K. B. (2005). "A" is for Auschwitz: Psychoanalysis, Trauma Theory, and the Children's Literature of Atrocity. *Children's Literature*, 33, 120-149.
- Kidd, K. B. (2011). *Freud in Oz: At the Intersections of Psychoanalysis and Children's Literature*. University of Minnesota Press.
- Knörr, G. (1975). Azken agurraren negarra [abestia]. In *Nik nahi dudana*. Artezi.
- Kohut, H. (1984). *How Does Analysis Cure?* University of Chicago Press.
- Kortazar, J. (Zuz.); Etxaniz, X. (Alearen zuz.) eta López Gaseni, J. M. (Alearen zuz.) (2011). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. UPV/EHU.
- Kortazar, J. eta Serrano, A. (Arg.) (2012). *Gatazken lorratzak. Euskal arazoen isla narratiban 1936tik gaurdaino*. Utriusque Vasconiae.
- Krawatzek, F. eta Friess, N. (Ed.). *Youth and Memory in Europe. Defining the Past, Shaping the Future*. De Gruyter.
- Kundera, M. (2009). *El arte de la novela*. Tusquets.
- Kurtz, J. R. (Ed.) (2018). *Trauma and Literature*. Cambridge University Press.
- Laboa, M. eta Atxaga, B. (2000). Gure hitzak [abestia]. In *Gernika Zuzenean 2*. Elkar.
- Laboa, M. (1980). Liluraren kontra [abestia]. In *Lau bost*. Xoxoa. Jatorrizko testua: B. Brecht.
- LaCapra, D. (1994). *Representing the Holocaust: History, Theory, Trauma*. Cornell University Press.
- LaCapra, D. (2001). *Writing History, Writing Trauma*. Johns Hopkins University Press.
- LaCapra, D. (2004). *History in Transit: Experience, Identity, Critical Theory*. Cornell University Press.
- Landa, M. (1998). *Mi mano en la tuya*. Alfaguara.
- Landa, M. (2018). *Txikiaren handitasuna literaturan*. Erein.
- Landsberg, A. (2004). *Prosthetic Memory: The Transformation of American Remembrance in the Age of Mass Culture*. Columbia University Press.
- Langenohl, A. (2010). Memory in Post-Authoritarian Societies. In A. Erll eta A. Nünning (Ed.), *A Companion to cultural memory studies* (163-172 or). De Gruyter.
- Lasagabaster, J. M. (2002). Literatur Kritika eta Teoriaren irakaskuntza unibertsitatean. *Oihenart*, 19, 15-26.
- Lasarte, G. (2013). *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* [Doktore-tesia]. UPV/EHU.  
[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema\\_Lasarte\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Gema_Lasarte_TESIA.pdf)  
 [Azken kontsulta: 2023/10/20].



- Lasarte, G. (2013). Genero eta sexuaren berridazketa: Itxaro Borda eta polizia eleberrien kasua. *Euskera*, 58(2), 753-783. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/77845.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Lasarte, G. eta Serrano, A. (2016). Maskulinitate berriak Euskal Haur eta Gazte Narratiban: *Matias Ploff-en erabakiak, Alex eta Kea airean bezala* eleberrietako pertsonaiak biluzten. *Euskera*, 61(2), 515-549. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80979.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Letria, J. J. eta Letria, A. (2022). *Gerra. A fin de cuentos*.
- Lertxundi, A. (2018ko abenduaren 1a). “*Maritxipi eta Amatxo*”: nola azaldu haur bati kartzela zer den eta ama utzi behar duela? Naiz. <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20181201/maritxipi-eta-amatxo-haur-bati-kartzela-eta-derrigorrezko-banaketa-zer-diren-azaltzeko-ipuina-aurkeztu-du-sarek>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Levi, P. (1975). *II sistema periodico*. Einaudi.
- Liikanen, E. (2015). *El papel de la literatura en la construcción de la memoria cultural: tres modos de representar la Guerra Civil y el franquismo en la novela española actual* [Doktore-tesia]. Universidade de Santiago de Compostela. <https://minerva.usc.es/xmlui/handle/10347/13619>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Llera, F. J. (2009). La Transición y la autonomía actual. In J. L. De la Granja eta S. De Pablo (Koord.), *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX* (117-144 or.). Biblioteca nueva.
- Llona, M. (2013). From militia woman to *emakume*: myths regarding femininity during the Civil War in the Basque Country. In A. Morcillo (Ed.), *Memory and Cultural History of the Spanish Civil War. Realms of Oblivion* (179-213 or.). Brill Publishers.
- Lluch, G. (1999). La comunicación literaria y el tipo de lector modelo que propone la actual Literatura Infantil. *Educación y Biblioteca*, 11(105), 20-27.
- Lluch, G. (2003). *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Lluch, G. (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes. Los comités de valoración en las bibliotecas escolares y públicas*. Ediciones Trea.
- Lluch, G. (2012). La narrativa para los adolescentes del siglo XXI. In B. A. Roig, I. Soto eta M. Neira (Ed.), *A narrativa xuvenil a debate* (39-55 or.). Edicions Xerais de Galicia.
- Lluch, G. (2015) *Entrevista a Gemma Lluch*. Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <https://www.youtube.com/watch?v=yEU2cHHVtHw>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

- Lluch, G. eta Sanz, A. (2021). *Analizar relato #LIJ*. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Lluch, G.; Chaparro, J.; Rincón, M. C.; Rodríguez, C. eta Victorino, A. (2009). *Cómo reconocer los buenos libros para niños y jóvenes. Orientaciones de una investigación de Fundalectura*. Fundalectura.
- López de Maturana, V. (2012). Tomás Zumalacárregui. In S. De Pablo, J. L. De la Granja, L. Mees eta J. Casquete (Koord.), *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco* (762-775 or.). Tecnos.
- López Gaseni, J. M. (2000). *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura. Funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak* [Doktore-tesia]. UPV/EHU. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/manu\\_lopez\\_gaseni\\_TESI\\_S.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/manu_lopez_gaseni_TESI_S.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- López Gaseni, J. M. (2001). Haur eta gazte literaturaren kritika: gogoeta batzuk. *Behinola*, 5, 37-41.
- López Gaseni, J. M. (2005). Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan. *Utriusque Vasconiae*. <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/35427/Autoitzulpengintza%20euskal.pdf?sequence=1>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- López Gaseni, J. M. (2009). Arriskua hartuta. *Behinola*, 19, 53-54.
- López Gaseni, J. M. (2011), *Urtebete itsasargian* (2006). Miren Agur Meabe. In Kortazar, Jon (Zuz.); Etxaniz, X. (Alearen zuz.) eta López Gaseni, J. M. (Alearen zuz.). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia* (223-229 or.). UPV/EHU.
- López Gaseni, J. M. (2017). Azken garaipena (2011). In J. Kortazar (Zuz.), *Egungo euskal komikiaren historia* (317-321 or.). UPV/EHU.
- López Gaseni, J. M. eta Etxaniz, X. (2008). Urtebete itsasargian. Miren Agur Meaberen gazte eleberraren azterketa. In B. A. Roig, P. L. Dominguez eta I. Soto (Koord.), *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil* (313-318 or.). Xerais.
- López, R. (1990). Introducción a la literatura infantil. Secretariado de Publicaciones de la Universidad de Murcia.
- Luki, M., Egaña, I. eta Agirrezabal, L. (2022ko uztailaren 29a). Ibilbideak I: Mariasun Landa (12. atala) [Audio bidezko podcasteko atala]. *Gonagorri*. Galtzagorri Elkarte. <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/gonagorri-podcast-a/ibilbideak-i-mariasun-landa>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].



- Madigan, T. (2020). Theories of Cultural Trauma. In C. Davis eta H. Meretoja (Ed.), *The Routledge Companion to Literature and Trauma* (45-53 or.). Routledge.
- Maia, J. (2017). *Berriak jaio ginen*. Lanku.
- Malpica, M<sup>a</sup> R. eta Montijano, M<sup>a</sup> P. (2005). El cuento en el aula de lengua: cómo afrontar el conflicto y la violencia educando en valores para la paz. In V. Rudzicka, C. Vázquez eta L. Lorenzo (Ed.), *Mundos en conflicto: Representación de ideologías, enfrentamientos sociales y guerras en la literatura infantil y juvenil* (621-635 or.). Universidad de Vigo.
- Manterola, E. (2012). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulua. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa* [Doktore-tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/12382>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Martens, H.; Soto, J. eta Tena, R. (2016). El estudio de la censura de libros infantiles en la España franquista: una propuesta metodológica. In P. Cerrillo eta C. Sánchez (Ed.), *Prohibido leer. La censura en la literatura infantil y juvenil contemporánea* (43-51 or.). Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Martin, E. (1997). *Euskal haurtzaroaren asmakuntza 1976-1990 urte bitarteko ipuingintzan isladatu denez*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU.
- Maza, M. (2019ko urtarrilaren 25a). *2018an gehien mailegatu direnen zerrenda*. <https://www.scoop.it/topic/haur-literatura>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Meabe, M. A. (2016). *El cómo, quién, qué, dónde, porqué y para qué de mis libros juveniles*. Fundación Cuatrogatos. <https://www.cuatrogatos.org/detail-articulos.php?id=826>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Mees, L. (2003). *Nationalism, Violence and Democracy. The Basque Clash of Identities*. Palgrave Macmillan.
- Mees, L. (2007). Guernica/Gernika como símbolo. *Historia Contemporánea*, 35, 529-557. <https://addi.ehu.es/handle/10810/38094>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Mees, L. (2012). José Antonio Aguirre. In S. De Pablo, J. L. De la Granja, L. Mees eta J. Casquete (Koord.), *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco* (57-84 or.). Tecnos.
- Mendiguren, X. (1994). Haur literaturaren argitalpengintza. In Haur literaturaz (1993ko urrian Gasteizen egindako jardunaldiak). *Hegats*, 9, 49-61.
- Mendoza, A. (2001). Sobre la reorientación de la crítica en Literatura Infantil y Juvenil. In P. C. Cerrillo eta J. García Padrino (Ed.), *La literatura infantil en el siglo XXI* (27-39 or.). Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

- Mendoza, A. (2004). *La educación literaria. Bases para la formación de la competencia lecto-literaria*. Aljibe.
- Mercero, I. (2014ko apirilaren 20a). *Izenik gabe, itzalak sortzen dira*. Berria. <https://www.berria.eus/paperekoa/1648/028/005/2014-04-20/izenik-gabe-itzalak-sortzen-dira.htm>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Mercero, I. (2015eko abenduaren 6a). *Euskadi Saria 2015*. Berria. <https://www.berria.eus/paperekoa/1978/047/002/2015-12-06/euskadi-saria-2015.htm>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Mercero, I. (2017ko maiatzaren 28a). *Paradisua galduaren bila*. Berria. [https://www.berria.eus/paperekoa/2174/045/001/2017-05-28/paradisua\\_galduaren\\_bila.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/2174/045/001/2017-05-28/paradisua_galduaren_bila.htm). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Mercero, I. (2017ko ekainaren 11). *Preso politikoa*. Berria. [https://www.ibbygaltzagorri.eus/fitx/irudiak/nemo\\_kapitainaren\\_azken\\_bidaia.pdf](https://www.ibbygaltzagorri.eus/fitx/irudiak/nemo_kapitainaren_azken_bidaia.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Mínguez, X. (2014). Exploring Education and Children's Literature. In A. Reyes-Torres; L. S. Villacañas de Castro eta B. Soler-Pardo (Ed.), *Thinking through Children's Literature in the Classroom* (26-42 or.). Cambridge Scholars Publishing.
- Mínguez, X. (2012). Exploring Education and Children's Literature. In A. Reyes-Torres; L. S. Villacañas de Castro eta B. Soler-Pardo (Ed.), *Thinking through Children's Literature in the Classroom* (26-39 or.). Cambridge Scholars Publishing.
- Mínguez, X. (2015), Una crítica para la literatura infantil y juvenil desde la educación literaria, *AILIJ*, 13, 109-126.
- Moeller, S. D. (2016). *Compassion Fatigue: How the Media Sell Disease, Famine, War and Death*. Routledge.
- Mondragon Unibertsitatea (2017). *Haur eta Gazte Literatura. Irakur Gida 2016*. <http://ebiltegia.mondragon.edu/xmlui/bitstream/handle/20.500.11984/1412/haur-gazte-literatur-gida-2016.pdf?sequence=1&isAllowed=y> [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Montero, Y. (2008ko abenduaren 5a). *Zubizarreta convierte al hijo de un guardia civil en protagonista de su último cuento*. El País. [https://elpais.com/diario/2008/12/05/paisvasco/1228509612\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2008/12/05/paisvasco/1228509612_850215.html). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Morcillo, A. (2010). *The Seduction of Modern Spain. The Female Body and the Francoist Body Politic*. Bucknell University Press.

- Moreno, F. (2004). *Radio París*. Biblioteca virtual Miguel de Cervantes. <https://www.cervantesvirtual.com/obra/radio-paris--0/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Moreno, V. (2003). Los supuestos valores de la crítica. *CLIJ*, 156, 28-36.
- Muñoz, B. eta Sotomayor, M. V. (2021). *La literatura infantil y juvenil de exilio republicano de 1939*. Renacimiento.
- Muñoz, Jokin (2003). *Bizia lo*. Alberdania.
- Murua, I. (2014). *The End of ETA (2007-2011): Narratives from the Media and from the Actors* [Doktore-tesia]. University of Nevada. [https://scholarworks.unr.edu/bitstream/handle/11714/2379/Murua\\_unr\\_0139D\\_11659.pdf?sequence=1](https://scholarworks.unr.edu/bitstream/handle/11714/2379/Murua_unr_0139D_11659.pdf?sequence=1). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Neira, M. (2015). *Narrativa infantil e xuvenil en galego. Mulleres e Guerra civil (1936-1939)* [Doktore-tesia]. Santiago de Compostela. <http://hdl.handle.net/10347/14774>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Neira, M. (2016). Conflictos bélicos na LIX galega. As dúas guerras mundiais: crónica da ausencia e da participación. In B. A. Roig, I. Soto eta M. Neira (Ed.) (2016), *Reflexos das dúas Guerras Mundiais na LIX* (89-115 or.). Edicións Xerais de Galicia.
- Neumann, B. (2010). The Literary Representation of Memory. In A. Erll eta A. Nünning (Ed.), *A Companion to cultural memory studies* (333-343 or.). De Gruyter.
- Nora, P. (1989). Between Memory and History: Les Lieux de Mémoire, *Representations* 26, 7-24.
- Nora, P. (1996). *Realms of Memory: Rethinking the French Past. Vol. 1, Conflicts and Divisions*. Columbia University Press.
- Nünning, A. (2004). Where Historiographic Metafiction and Narratology Meet: Towards an Applied Cultural Narratology, *Style*, 38(3), 352-37.
- Nünning, A. (2009). Surveying Contextualist and Cultural Narratologies: Towards an Outline of Approaches, Concepts and Potentials. In S. Heinen eta R. Sommer (Ed.), *Narratology in the Age of Cross-Disciplinary Narrative Research* (48-70 or.). Walter de Gruyter.
- Nussbaum, M. C. (1990). *Love's Knowledge: essays on philosophy and literature*. Oxford University Press.
- Nussbaum, M. C. (1995). *Poetic justice: the literary imagination and public life*. Beacon Press.
- Nussbaum, M. C. (1997). *Cultivating Humanity: A Classical Defense of Reform in Liberal Education*. Harvard University Press.

- Nussbaum, M. C. (2013). *Political Emotions: Why Love Matters for Justice*. The Belknap Press of Harvard University Press.
- Oiz, J. (1992ko otsailaren 29a). Agirrek Euzkadi merezi du. *Euskaldunon Egunkaria*, 382, 25. <https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/?u=1992&h=02&e=29&bilatu=alea&orridata=19920229&ikusi=25>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Olaso, X. (2009). Zer da, ba, maitemina? *Behinola*, 19, 67.
- Olaziregi, M. J. (1997). *Literatura eta irakurlea. Testu-estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/MARIA\\_JOSE\\_OLAZIRE\\_GI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/MARIA_JOSE_OLAZIRE_GI.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Olaziregi, M. J. (1998a). *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Erein.
- Olaziregi, M. J. (1998b). *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*. Bergarako Udala.
- Olaziregi, M. J. (1999a). *Euskal eleberriaren historia*. Labayru.
- Olaziregi, M. J. (1999b). Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura. *Oihenart*, 17, 1-77.
- Olaziregi, M. J. (2000). Literaturaren irakaskuntza bigarren hezkuntzan. Testu-iruzkinerako metodologia eta iradokizunak. *Hegats*, 28, 39-73.
- Olaziregi, M. J. (2002a). Euskal kritikaren argiak eta itzalak. *Oihenart*, 19, 27-48.
- Olaziregi, M. J. (2002b). *Leyendo a Bernardo Atxaga*. UPV/EHU.
- Olaziregi, M. J. (2003a). Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa. *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian* (I-II), 2, 203-221. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54862.pdf>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Olaziregi, M. J. (2003b). La romantización del mundo en la Literatura Infantil de Bernardo Atxaga. In J. S. Fernández, A. I. Labra eta E. Laso (Ed.), *Realismo social y mundos imaginarios: Una convivencia para el siglo XXI* (432-442 or.). Universidad de Alcalá de Henares.
- Olaziregi, M. J. (2005). Evolución y actualidad de la literatura infantil y juvenil en lengua vasca, *Lapurdum*, 10, 137-152.
- Olaziregi, M. J. (2008a). La Guerra Civil y sus representaciones. In B. A. Roig, P. L. Dominguez eta I. Soto (Koord.), *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil* (13-27 or.). Xerais.

- Olaziregi, M. J. (2008b). Una vaca amiga de los maquis. A propósito de *Memorias de una vaca*, de Bernardo Atxaga. In B. A. Roig, P. L. Dominguez eta I. Soto (Koord.), *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil* (207-216 or.). Xerais.
- Olaziregi, M. J. (2009). La recuperación de la memoria histórica en la novela contemporánea vasca, *Euskera*, 54, 2-2, 1027-1047.
- Olaziregi, M. J. (2010). Las representaciones de la diáspora en la literatura infantil y juvenil vasca. *AILIJ*, 8, 111-121.
- Olaziregi, M. J. (2011a). *Literaturas Ibéricas y memoria histórica*. Eusko ikaskuntza.
- Olaziregi, M. J. (2011b). Basque Narrative about the Spanish Civil War and Its Contribution to the Deconstruction of Collective Political Memory. In S. Ott eta S. de Pablo (Ed.), *War, Exile, Justice and Everyday Life, 1936-1946* (117-132 or.). Center for Basque Studies, University of Nevada.
- Olaziregi, M. J. (2012). Worlds of Fiction: An Introduction to Basque Narrative. In M. J. Olaziregi (Ed.), *Basque Literary History* (137-200 or.). Center for Basque Studies, University of Nevada.
- Olaziregi, M. J. (2014). Gernika Revisited: Representation of the Spanish Civil War in Basque Children's and Young People's Literature. In B. A. Roig eta V. Ruzicka (Arg.), *The Representations of Spanish Civil War in the European Children's Narratives (1975-2008)* (87-101 or.). Peter Lang.
- Olaziregi, M. J. (2017a). Literature and Political Conflict: the Basque Case. In X. Irujo eta M. J. Olaziregi (Ed.), *The International Legacy of Jose Antonio Agirre's Government* (251-277 or.). Center for Basque Studies, University of Nevada Press.
- Olaziregi, M. J. (2017b). Literatura vasca y conflicto político. *Diablotexto Digital*, 2, 6-29. <https://ojs.uv.es/index.php/diablotexto/article/view/10144/10632>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Olaziregi, M. J. (2019a). Cualquier tiempo pasado fue peor. Reflexiones sobre la narrativa vasca post-ETA. *Olivar*, 19(30).
- Olaziregi, M. J. (2019b). Narrativas vascas actuales, filiaciones y afectos a flor de piel. In H. González; A. Calderón; D. Jarzombkowska eta K. Moszczynska (Koord.), *Memoria encarnada: Género y silencios en España y América Latina, siglo XXI* (49-74 or.). Padilla Libros Editores & Libreros.
- Olaziregi, M. J. (2019c). Narrativa Vasca y memoria histórica: recordar para convivir, *eHumanista/IVITRA* 15, 342-361.
- Olaziregi, M. J. (2020a). Euskal narratiba eta memoria historikoa. *Hermes*, 67, 10-15.

- Olaziregi, M. J. (2020b). Kirmen Uriberen *Mussche*, paperezko hilobi bat Robertentzat. In M. J. Olaziregi eta A. Elizalde (Ed.), *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa* (145-158 or.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Olaziregi, M. J. (2022) Iragan gatazkatsuen irudi espektralak Jaioren eleberrietan. In A. Elizalde (Ed.), *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua* (49-63 or.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Olaziregi, M. J. eta Ayerbe, M. (2016). El conflicto de la escritura y la reescritura de la identidad: análisis de la narrativa de escritoras vascas que abordan el conflicto vasco. In K. Morszczyńska, K. Kumor, A. Garrido eta A. Calderón (Ed.), *Identidad, género y nuevas subjetividades en las literaturas hispánicas* (45-66 or.). Instituto de Estudios Ibéricos. Universidad de Varsovia.
- Olaziregi, M. J. eta Elizalde, A. (Ed.), (2020). *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Olaziregi, M. J. eta Otaegi, L. (2011). La representación del bombardeo de Gernika en la literatura vasca. In M. J. Olaziregi (Ed.), *Literaturas ibéricas y memoria histórica*. Eusko ikaskuntza.
- Olaziregi, M. J. eta Urzelai, A. (2018). Con voz de mujer: última literatura infantil y juvenil en euskera. In B. A. Roig; I. Soto eta M. Neira (Koord.), *As mulleres como axentes literarias na lix do século XXI* (123-139. or.). Xerais.
- Oittinen, R. eta Roig, B. A. (Koord.) (2016), *A Grey Background in Children's Literature: Death, Shipwreck, War, and Disasters / Literatura infantil y juvenil con fondo gris: muerte, naufragios, guerras y desastres*. Iudicum Verlang.
- Oizmendi telebista (2015). “Yolanda Arrieta; Argiaren alaba”. <https://vimeo.com/125137550>. [Azken kontsulta: 2019/06/04].
- Otamendi, M. (2013ko urriaren 9a). *GAL 30 urte. Ondorioak*. Berria. <https://www.berria.eus/GAL/ondorioak.php>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Panisello, S. (2022). Euskal Herritarren erbestealdia eta deportazioa ikuspegi historiko batetik. In M. Azkarate (Ed.), *Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak* (177-190 or.). Gara.
- Paul, L. (1999). From Sex-Role Stereotyping to Subjectivity: Feminist Criticism. In P. Hunt (Ed.), *Understanding Children's Literature* (112-123 or.). Routledge.
- Pennebaker, J. W.; Paez, D. eta Rimé, B. (Ed.) (1997). *Collective Memory of Political Events*. Lawrence Erlbaum.
- Pérez, J. A. (1989). Del amor en tiempos de iniciación. *CLIJ*, 14, 14-19.



- Poling, D. A. eta Hupp, J. M. (2008). Death Sentences: A Content Analysis of Children's Death Literature. *The Journal of Genetic Psychology*, 169(2), 165-176.
- Portela, E. (2015). Entrevista a Jokin Muñoz. In M. P. Rodríguez (Ed.), *Imágenes de la memoria: víctimas del dolor y la violencia terrorista* (209-215 or.). Biblioteca Nueva.
- Portela, E. (2016). *El eco de los disparos. Cultura y memoria de la violencia*. Galaxia Gutenberg.
- Ramblado, M. C. (2014). Locks of hair/locks of shame? Women, dissidence, and punishment during Francisco Franco's dictatorship. In A. G. Morcillo (Ed.), *Memory and Cultural History of the Spanish Civil War. Realms of Oblivion* (401-434 or.). Brill.
- Regueiro, B. eta García, P. (2020). La Guerra Civil española en la literatura juvenil del siglo XXI: pacifismo y pluralidad. *Didáctica*, 32, 195-205.
- Regueiro, B. eta García, P. (2022). Anti-militaristic and Pacifist Values across Spanish Children's Literature. In F. Krawatzek eta N. Friess (Ed.), *Youth and Memory in Europe. Defining the Past, Shaping the Future* (151-165 or.). De Gruyter.
- Reizabal, L. (2015). *Genero berdintasunean hezteko gida*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Renteria, A. (2009ko martxoaren 25a). *Pikolo txikiak*. Euskal Idazleen Elkarte. <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/patxi-zubizarreta-dorronsoro/hemeroteka/pikolo-txikiak>. [Azken kontsulta: 2019/04/15].
- Resina, J. R. (Ed.) (2000). *Disremembering the Dictatorship: The Politics of Memory in the Spanish Transition to Democracy*. Rodopi.
- Retolaza, I. (2008). Rememorando el bombardeo de Gernika: Lecturas, representaciones y miradas literarias. Iº Congreso Internacional de Literatura y Cultura Españolas Contemporáneas. <https://www.aacademica.org/000-095/29.pdf> [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Retolaza, I. (2009). Gernikako bonbardaketa euskal literaturan. Errepresentazio eta begirada poetikoak. *Euskera*, 54, 2-2, 1079-1108.
- Retolaza, I. (2017). "Preso nago" (2010); "Preso nago 2" (2013). In J. Kortazar (Zuz.) eta I. Retolaza (Alearen zuz.), *Egungo euskal komikiaren historia* (297-315 or.). UPV/EHU.
- Rigney, A. (2010). The Dynamics of Remembrance: Texts Between. In A. Erll eta A. Nünning (Ed.), *A Companion to cultural memory studies* (345-353 or.). De Gruyter.
- Rodríguez, B. M<sup>a</sup> (2016). La muerte y su traducción en la literatura infantil contemporánea. In R. Oittinen eta B. A. Roig (Koord.), *A Grey Background in Children's Literature: Death, Shipwreck, War, and Disasters / Literatura infantil y juvenil con fondo gris: muerte, naufragios, guerras y desastres* (271-283 or.). Iudicum Verlag.

- Rodriguez, E. (2019). Relatar desde el margen: género, identidad sexual e infancia en la literatura acerca del conflicto vasco. *Fontes Linguae Vasconum*, 128, 505-526.
- Rodriguez, Z. (2015). Gatazka, normalizazioa eta feminismoa. In L. Agirre (Ed.), *Gatazka ezpalak* (83-99. or.). Jakin.
- Rodriguez, Z. eta Etxebarrieta, O. (2016). *Borroka armatua eta kartzelak*. Zarautz.
- Roig, B. A.; Lucas, P. eta Soto, I. (Koord.) (2008), *A Guerra Civil española na narrativa infantil e xuvenil*. Edicións Xerais de Galicia.
- Roig, B. A.; Kenfel, V. R. eta Ramos, A. M. (Ed.) (2012), *La guerra civil española en la narrativa infantil y juvenil (1936-2008)*. Tropelias & Companhia eta Servizo de Publicacións e Intercambio Científico.
- Roig, B. A. eta Kenfel, V. R. (Ed.) (2014), *The Representations of the Spanish Civil War in European Children's Literature (1975-2008)*. Peter Lang.
- Roig, B. A.; Soto, I. eta Neira, M. (Ed.) (2016), *Reflexos das dúas Guerras Mundiais na LIX*. Edicións Xerais de Galicia.
- Roig, B. A. (2017). Conflictos sociales y bélicos en la planificación de la educación literaria. In C. Franco-Vázquez eta B. A. Roig (Koord.), *Educación literaria y artística: conflictos sociales y bélicos* (151-167). Graó.
- Rojo, J. (1997ko urtarrilaren 16a). Literatura txikia. *El Correo*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=2132>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Rojo, J. (1999ko abuztuaren 4a). Literatura ausarta. *El Correo*. <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/harri-barruko-bi-hotz-borrokak>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Rojo, J. (2000ko abenduaren 2a). leberriaren itxurapean. *El Correo*. <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/txakurraren-ala-ba>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Rojo, J. (2014ko urriaren 18a). Eleberriaren sukaldea. *El Correo*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=6285>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Romero, A. (2013). El proceso de negociación entre el Gobierno y ETA durante la etapa de José Luis Rodríguez Zapatero (2004-2011). *Historia Actual Online*, 30, 39-51. <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/50449>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Rothberg, M. (2009). *Multidirectional Memory. Remembering the Holocaust in the Age of Decolonization*. Stanford University Press.



- Rothberg, M. (2019). *The Implicated Subject. Beyond Victims and Perpetrators*. Stanford University Press.
- Ruiz, E. (2017ko maiatzaren 19a). *Nemo kapitaina bisitatzera joaten den haurraren istorioa*. Guaixe. [https://www.erein.eus/media/recortes\\_prensa/recorte\\_prensa1221\\_4.pdf](https://www.erein.eus/media/recortes_prensa/recorte_prensa1221_4.pdf) [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Ruiz, F. J. (2002). *Análisis de narraciones infantiles para niños de 6-12 años, escritas en castellano entre 1990-98*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU.
- Ruiz, M. (2017). *Kartzela genero-erakunde bezala: bereizkeriak, erresistentziak eta agentzia Euskal Herrian espeteratutako emakumeen artean*. UEU.
- Ruiz, M.; Etxebarrieta, O. eta Vara, L. (Ed.) (2019). *Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismitik birpentsatzeko*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Sala, T. (2000). Mariasun Landa, “Haur eta gazte literatura onak ez du hel aspertzen”. *Euskonews & Media*, 98. <https://www.euskonews.eus/0098zbk/frelkar.htm>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Sánchez, C. (2018). “Historia de la literatura infantil y juvenil: Europa y España”. In E. P. Jiménez-Pérez eta S. Fabregat (Koord.), *La literatura infantil y juvenil: investigaciones* (11-22 or.). Octaedro.
- Sarasua, A. (2022). *Sasi artean Elgeta” komikian jaso dute ‘Elgeta’ trikitilariaren bizitza Fanok eta Izagirrek*. Eibar.org. <https://eibar.org/blogak/sarasua/sasi-arteana-elgeta-komikian-jaso-dute-elgeta-trikitilariaren-bizitza-fano-izagirre-badihardugu>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Sareinak (2007ko martxoaren 3a). Sareinen manifestua. *Sareinak. Feminismo literarioak*. <https://sareinak.net/acerca-de/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Sarland, C. (1999). The Impossibility of Innocence: Ideology, Politics and Children’s Literature. In P. Hunt (Ed.), *Understanding Children’s Literature* (39-55 or.). Routledge.
- Sarlo, B. (2005). *Tiempo pasado. Cultura de la memoria y giro subjetivo. Una discusión*. Siglo Veintiuno Editores.
- Sautrela (2017ko apirilaren 22a). *Zenbat eta nola idatzi da euskal gatazkaren inguruan?* Eitb. <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/sautrela/bideoak/osoak/4784901/bideoa-euskal-gatazka-eta-literaturaren-harremanari-heldu-dio-sautrelak/>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Serrano, A. (2019). *1936ko gerra euskal nobelagintzan: memoria ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/38590>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

- Shavit, Z. (1986). *Poetics of Children's Literature*. The University of Georgia Press.
- Showalter, E. (1985). *The New Feminist Criticism: Essays on Women, Literature and Theory*. Pantheon Books.
- Smith, A. D. (1992). *National Identity*. Nevada University Press.
- Sontag, S. (2003). *Regarding the pain of others*. Farrar/Straus/Giroux.
- Soriano, M. (1975). *Guide de la littérature pour la jeunesse. Courants, problèmes, choix d'auteurs*. Flammarion.
- Soriano, M. (1995). *La literatura para niños y jóvenes. Guía de exploración de sus grandes temas*. (G. Montes, Itz. eta Egok.). Ediciones Colihue.
- Strausfeld, M. (1989). El realismo crítico en la literatura infantil-juvenil. *CLIJ*, 4, 83-87.
- Suchet, M. (2009). La traduction, une éthique de la ré-énonciation. *Nouvelle revue d'esthétique*, 3, 31-35.
- Tanxugueiras (2019). Autocracia [abestia]. In *Contrapunto*. Calaverita Records.
- Todorov, T. (2017). *La literatura en peligro*. Galaxia Gutenberg.
- Toledo, A. (Ed.) (2009). Gerra zibila eta euskal literatura. *Euskera*, 54, 2-2.
- Tolosa, A. (2021eko urriaren 28a). *Elgeta*. Gara. [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2021-10-28/hemeroteca\\_articles/elgeta](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2021-10-28/hemeroteca_articles/elgeta) [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Torrealdai, J. M. (2003). *Bidegileak. Martin Ugalde (1921)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Txalaparta (2020ko martxoaren 2a). "Patria" baino askoz hobea: Euskal Herriko gatazkari buruzko literatura euskaraz. Txalaparta.eus. <https://www.txalaparta.eus/eu/berriak/patria-baino-askoz-hobea-euskal-herriko-gatazkari-buruzko-literatura-euskaraz>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Txintzarri (2019). *Idoia Garzesek irabazi du Lizardi Saria, "Hari single bat" lanarekin*. <https://txintzarri.eus/lasarte-oria/1550230764391-idoia-garzesek-irabazi-du-lizardi-saria-hari-single-bat-lanarekin-19685>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Ulanowicz, A. (2018). *Second-generation Memory and Contemporary Children's Literature. Ghost Images*. Routledge.
- Uribarri, I. (2013). Censura(s) en la traducción al/del vasco. *Quaderns*, 20, 31-45.
- Urzelai, A. (2019). La representación del conflicto vasco en tres libros de la LIJ escrita en euskera. *AILIJ*, 17, 169-184.

- Urzelai-Vicente, A. (2021). Escribir desde los márgenes. Autoras que escriben sobre escritoras. In C. Duraccio (Ed.), *Escritoras y fronteras geosimbólicas* (395-410 or.). Dykinson.
- Urzelai-Vicente, A. (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen *Santa Familia* komikian/Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In B. A. Roig, M<sup>a</sup> I. Soto eta M. Neira (Koord.), *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia.
- Urzelai-Vicente, A. (prentsan). Leiho irekiak, itsasoan barna abiatu eta mundua ezagutzeko. Joseba Sarrionandiaren ekarpena Haur eta Gazte Literaturan. In Olaziregi, M. J. eta Eizagirre, N. (Ed.), *Joseba Sarrionandia, bitakora kaiera*. UPV/EHU.
- Valriu, C. (1994). *Història de la Literatura Infantil i Juvenil Catalana*. Pirene.
- Valriu, C. (2013). Guerra Civil i narrativa juvenil catalana: testimoni i literatura. *Revista de filología románica*, 30(2), 309–323.
- Van Alphen, E. (2006). Second-Generation Testimony, Transmission of Trauma, and Postmemory. *Poetics Today*, 27(2), 473-488.
- Vásquez, M. (2002). Fundamentos teóricos para una interpretación crítica de la literatura infantil. *Comunicación*, 12(2), 121–144.
- Vásquez, M. (2003a). La actual narrativa infantil y juvenil española. *Revista de Filología y Lingüística de la Universidad de Costa Rica*, 29(1), 61-84.
- Vásquez, M. (2003b). El realismo en la narrativa de Juan Farias. In Fernández, J. S.; Labra, A. I. eta Laso, E. (Ed.), *Realismo social y mundos imaginarios: Una convivencia para el siglo XXI* (249-259 or.). Universidad de Alcalá de Henares.
- Vásquez, M. (1993). Literatura infantil y crítica literaria. *Primeras Noticias*, 121, 48-54.
- Velte, S. (2019). Euskal gatazka armatuaren historia hezkuntzako edukietan: azterketa diskurtsibo bat. *Tantak*, 31(2), 41-73.
- West, J. (2023ko martxoaren 19a). *Beldurretik ihesi, elkartasunera*. Berria. [https://www.berria.eus/euskal-herria/beldurretik-ihesi-elkartasunera\\_1332291\\_102.html](https://www.berria.eus/euskal-herria/beldurretik-ihesi-elkartasunera_1332291_102.html). [Azken kontsulta: 2023/03/19].
- White, L. (1996). *Emakumeen hitzak euskaraz / Basque women writers of the twentieth century*. [Doktore-tesia]. Nevadako unibertsitatea.
- Winter, J. (2006). *Remembering War: The Great War between Memory and History in the 20th Century*. Yale University Press.
- Winter, J. (2010). Sites of memory and the Shadow of War. In E., Astrid eta A. Nünning (Ed.), *A Companion to cultural memory studies* (61-74 or.). De Gruyter.

- Zabala, J. L. (1992ko urtarrilaren 26a). Tamaina ttikiko desertua, oasis inguratua. *Argia*. Eskuragarri: <https://kritikak.armiarma.eus/?p=3349>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Zaldua, I. (2001). *Traizioak*. Erein.
- Zaldua, I. (2004). *Itzalak*. Erein.
- Zaldua, I. (2005). *Animalia disekatuak (Libeloak, panfletoak eta beste zenbait taxidermia-lan)*. Utriusque Vasconiae.
- Zaldua, I. (2012). *Ese idioma raro y poderoso. Once decisiones cruciales que un escritor vasco está obligado a tomar*. Lengua de Trapo.
- Zaldua, I. (2014). *Inon ez, inoiz ez*. Elkar.
- Zaldua, I. (2016). Conflicto (vasco) y literatura (en euskera), 1973–2013: Sherezade al revés. *Bulletin of Hispanic Studies*, 93(10), 1141-1156.
- Zaldua, I. (2018). *Como si todo hubiera pasado*. Galaxia Gutenberg.
- Zaldua, I. (2021). *Nola izan garen gauza. Euskal gatazkaren inguruko ipuin (ia) guztiak*. Erein.
- Zapiain, M. (2015). *Saizarbitoria eta iragana*. Susa.
- Zavala, A. (1997). Euskal Erriyari ongi nai diyon batek. In *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* (129-132 or.). Sendoa. [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/auspoa/25065.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/25065.pdf). [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Zelaieta, A. (1992ko otsailaren 22a). Behi baten anabasisa. *Euskaldunon Egunkaria*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=2452>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- Zubeldia, I. (2006). *Haur literatura aztergai*. EGAN.
- Zulaika, J. (2006). *ETAren hautsa*. Alberdania.
- Zuloaga, E. (d.g.). Larzabal, Piarres. In *Auñamendi Entziklopedia*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/artikuluak/artikulua.php?id=eu&ar=86796>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].
- 1545 argitaletxea (2022ko abenduaren 26a). *Zortzi ate: Joseba Sarrionandiarekin solasean*. [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=mjiO7qzqlNE>. [Azken kontsulta: 2023/10/20].

## I. ERANSKINA: OBREN KATALOGOA


### Karlisten altxorra

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Lehen Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Gaizka Arostegi eta Julen Ribas
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 135 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2014, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Karlistak, liberalak, Fernando VII.a, Karlos Maria Isidro Borboikoa, borrokaldia, heriotza, odola eta erbetea.



### Sara izeneko gizona

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Lehen Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Bernardo Atxaga
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 150 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1996, Pamiela
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Karlistak, liberalak, Tomas Zumalakarregi, Fernando VII.a, Karlos Maria Isidro Borboikoa, Maria Cristina, Isabel II.a, Espartero, San Faustoko bataila, fusilamenduak, tiroketak, heriotza, ihesaldiak, presoak, traizioak, mesfidantza giroa eta gosea.




### Buruntza azpian

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Lehen Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Lourdes Iriondo
- **Adina:** +8
- **Orrialde kopurua:** 113 or.
- **Genero literarioa:** Antzerkia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1975, Gero-Mensajero
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Gudari karlista, liberalen erasoak, erreketak, atxiloketak, ihesa, ikara eta etsaien hilketa/ barkamena.



### Argiaren alaba


- **Errepresentatutako gatazka(k):** Lehen Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Yolanda Arrieta
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 159 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2014, Autoedizioa
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Bilboren setioa eta bonbardaketa, eraikinen suntsiketa, zaurituak, presoak, hildakoak, Lutxanako gudua, Bergarako hitzarmena. Tomas Zumalakarregi, ihesa, erbetea, izurriak, kontrabandoa eta lapurretak.





### Jose Maria Iparragirre. Haizearen semea

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Lehen Gerra Karlista
  - Bigarren Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Pako Aristi
- **Adina:** +8
- **Orrialde kopurua:** 30 or.
- **Genero literarioa:** Ipuin biografikoa
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2011, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Tiroketa, erbestea eta foruen galera.



### Iparragirre

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Lehen Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Xabier Mendiguren
- **Adina:** +9
- **Orrialde kopurua:** 107 or.
- **Genero literarioa:** Biografia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1981, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Karlistak, Tomas Zumalakarregi, Bergarako besarkada, erbestea eta foruzaletasuna.




### Gizon izandako mutila

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Lehen Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 124 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1997, Pamiela
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Isabel II.a, Fernando VII.a, desertzioa eta errefuxiatu karlistak.




### Din, dan, don... Kanpai lapurrak non?

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Bigarren Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Pako Aristi
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 63 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1996, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Liberalak, karlistak, Santa Kruz apaiz gerrillaria eta bere idazkari Kaperotxipi, borrokaldia, sarraskia, balak, kanoikadak, zaurituak, garrasiak, fusilamendua, hilketa eta erbestea.



### Lur zabaletan

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Bigarren Gerra Karlista
- **Egilea(k):** Aingeru Epaltza
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 172 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1994, Pamiela
- **Gatazkaekin lotuta ageri diren alderdiak:** Heriotza, hondamendia eta emigrazioa.




### Cherch'pas à Comprendre! Ez da konprenitzen ahal gerra!

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Lehen Mundu Gerra
  - Bigarren Mundu Gerra
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
  - Aljeriako gerra
- **Egilea(k):** Begoña Durruty
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 58 or.
- **Genero literarioa:** Eleberri grafikoa
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2016, Denonartean
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:**
  - Lehen Mundu Gerra: Gosea, lubakiak, tiroketa, desertzioa, iheslariak, kartzela, elbarritasuna eta heriotza.
  - Gerra Zibila: Heriotza.
  - Frankismoa: Gaztelaniaz egiteko obligazioa, *Cara al sol* kantatzeko agindua, bekatuaren itzala eta elizaren eragin erabatekoa.
  - Bigarren Mundu Gerra: Zaurituak.
  - Aljeriako gerra: Elbarritasuna, indarkeria, emakumeen bortxaketa, tortura, hildakoak, migratzaileak eta sufrimendua.



### George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Lehen Mundu Gerra
  - Bigarren Mundu Gerra
  - Gerra Zibila
  - Abisiniako gerra
- **Egilea(k):** Edorta Jimenez
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 50 or.
- **Genero literarioa:** Biografia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2004, Txalaparta
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:**
  - Lehen Mundu Gerra: Bonbardaketa eta gas erikorrak.
  - Bigarren Mundu Gerra: Zibilen aire-bonbardaketak eta suntsiketa.
  - Gerra Zibila: Militarren altxamendua, Gernikako, Durangoko, Otxandioko, Eibarko, Bilboko eta Gerrikaitzeko bonbardaketa; Franco, faxistak, errepublikarrak, Euskal Armada, diktadura (oro har, ez frankismoa) eta hilketa.
  - Abisiniako gerra: Mussolini, italiar faxistak, hilketa eta erbestea.



### Arrastoa

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Lehen Mundu Gerra (aipamen hutsa)
  - Errusiako Iraultza (aipamen hutsa)
  - Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Juan Kruz Igerabide
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 93 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2020, Alai
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Errepublikaren aldarrikapena, 1936ko estatu-kolpea, salaketak, etxe-miaketak, etxebizitzaren usurpazioa, atxiloketak, fusilamenduak, tiroketak, indarkeria, izua, ihesa, karlistak, erreketek, falangistak, errepublikazaleak, matxinatuen alde egiteagatiko onurak, Franco, Mola eta Sasetak.



### Amonarenean kea

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Ana Ibañez eta Dani Martirena
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 28 or.
- **Genero literarioa:** Album ilustratua
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2020, Liburu iletuak
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Falangistak, errepublikarrak, mehatxuak, irainak, indarkeria, hilketa, fusilamendua, fusilatutako eta agertu gabeko hezurak, umiliazioa eta gosea.



### Urtebete itsasargian

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Miren Agur Meabe
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 132 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2006, Elkar
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Gerra Zibilaren bilakaera Euskal Herrian, emakumeen papera gerran eta horren aldarrikapena, gudariak, milizianak, emakumeak, emakumeen aurkako erasoak (sexu-erasoa, bortxaketa eta buru-soilketa), Gernikako eta Durangoko bonbardaketak, Bilboren erortzea, erasoak, salaketak, atxiloketak, indarkeria, fusilamenduak, hilketak, ebakuazioak (*Habana* itsasontzia), erbesteratzea, gosetea, errazionamendua eta euskal kulturak eta politikak pairatutako kalteak (euskararekin lotutako errepresioa eta adierazpen askatasuna).






### Gerrak ez du izenik

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Leire Bilbao eta Maite Mutuberria
- **Adina:** +6
- **Orrialde kopurua:** 36 or.
- **Genero literarioa:** Album ilustratua
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2013, Pamiela
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Frontera joan beharra, Durangoko bonbardaketa eta osteko txikizioa, eskolarik eza, beldurra eta samina.



### Pottoko

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Pello Añorga eta Jokin Mitxelena
- **Adina:** +8
- **Orrialde kopurua:** 69 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1984, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Bonbardaketa, metraila, erreketeta, heriotza, suntsipena, mina, nahigabea eta zaurituak.



### Pikondoaren balada

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Leire Bilbao eta Maite Mutuberria
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 72 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2013, Pamiela
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Altxamendu militarra, desertzioa, hilketa, gudaria, bortxazko lana, gerraostea eta gosetea.



### Negu luzearen atarian

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Xabier Mendiguren
- **Adina:** +6
- **Orrialde kopurua:** 32 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2010, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** 1936ko estatu-kolpea, frankistak, errepublikarrak, gudaria, Elgeta/Intxortako frontea, bonbardaketa, tiroketa, beldurra, izua, gosea, etxe-miaketa, jabetza-apropiazioa eta liburuaren erreketeta.



### Elur gorrituaren egunak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Amaia Telleria eta Laida Ruiz
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 305 or.
- **Genero literarioa:** Komikia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2023, Denonartean
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Errepublikaren aurkako altxamendua, frontea, Euzko Gudarostea, Loiola eta Amaiur batailoia, Goierri konpainia, gudariak, Franco, frankistak, erreketek, Cayuela koronela, Kondor Legioa eta Aviazione Legionaria, italiar faxistak, Bilboren erorketa, Burdin Hesiaren suntsiketa, bonbardaketak, fusilamenduak, Santoñako errendizioa, Santoña eta Laredoko kontzentrazio-esparruak, behartutako lana, presoak eta heriotza.



### Beroki gorria

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta eta Yolanda Mosquera
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 35 or.
- **Genero literarioa:** Album ilustratua
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2016, Ibaizabal
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Durangoko, Gernikako eta Otxandioko bonbardaketak, Bilboren erorketa, ihesaldia, tiroketak, heriotza, beldurra, atsekabea, Jose Antonio Agirre lehendakaria, erbestea (*Habana* itsasontzia), (haur) errefuxiatuak, kanpalekuetako bizimodua eta umezurztasuna.



### 1936ko gerra haurrei kontatua

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Iñaki Egaña
- **Adina:** +13
- **Orrialde kopurua:** 65 or.
- **Genero literarioa:** Saiakera
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2004, Txalaparta
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: Bigarren errepublika, 1933ko hauteskundeak, 1936ko estatu-kolpea, 1936ko uztaileko Donostiako matxinatuen erasoak, Euskal Armada, gudaria, Elgetako, Elorrioko, Otxandioko, Gernikako, Durangoko, Bilboko eta Mungiako bonbardaketak; Eibarreko triskantza, Matxitxakoko gudua, Intxortako frontea, Sabigaineko erasoak, Sollubeko, Jatako eta Bizkargiko batailak; Santoñako errendizioa, heriotza, atxiloketa, espetxea, heriotza-zigorra, fusilamendua, desagertuak, indarkeria, emakumeen bortxaketak, haurren ebakuazioak eta erbestea (euskal exodoa).
  - Frankismoa: Mendekua, euskararen debekua, ikastolen itxiera, ikurrinaren erreketak, langileen eskubideen zapalkuntza, kontrola, erreketak, izua, gosetea eta errazionamendua.




### Jose Miguel Barandiaran. Herria bihotzean zuen jakintsua

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** J. M. Olaizola “Txiliku”
- **Adina:** +8
- **Orrialde kopurua:** 32 or.
- **Genero literarioa:** Ipuin biografikoa
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2011, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Bigarren errepublika, komentuen erreketeta, Gerra Zibila, ihesaldia, salaketa, miaketa, bonbardaketa eta heriotza.




### Behi euskaldun baten memoriak

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Bigarren Mundu Gerra
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Bernardo Atxaga
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 178 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1991, Pamiela
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Bigarren Mundu Gerra: Makiak.
  - Gerra Zibila: Gudariak, kanoiak, fusilak, metrailaketa, fusilamenduak, hilketak, gosetea eta pobrezia.
  - Frankismoa: Makiak, sabotajeak, bonbak, faxistak, etxe-miaketa, atxiloketa, hilketa eta tristura.



### Sasi artean Elgeta


- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Bigarren Mundu Gerra
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Koldo Izagirre, Dani Fano eta Ekaitz Agirre “Garluk”
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 46 or.
- **Genero literarioa:** Komikia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2021, Ikastolen Elkarte eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarte
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Bigarren Mundu Gerra: Dibisio Urdina.
  - Gerra Zibila: 1931ko hauteskundeak eta bigarren errepublikaren aldarrikapena, 1934ko Iraultza, 1936ko amnistia legea, Jone Antonio Agirre lehendakaria, atxiloketa, kartzela, tiroketa eta hilketa.
  - Frankismoa: Diktadura eta euskararen debekua.





### Hari single bat

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Idoia Garzes
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 140 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2019, Erein
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Hilketak, mehatxuak, jazarpena, errepresaliatuak, gorpuen desagerpena, umiliazioa, emakumeei ezarritako zigorra (ilea arras moztea eta errizino-olioa ematea) eta transmisio etena (sufrimenduarekin lotuta).




### Ikastola armairu barruan

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Uxue Alberdi eta Patxi Peláez
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 33 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2016, Elkar/Katxiporreta/Ikastolen Elkarte
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: Bonbardaketak, atxiloketak, fusilamenduak eta ihesa.
  - Frankismoa: Euskararen debekua, ikastola klandestinoak, gau-eskolak, afektu adierazpen publikoen debekua, *Grisak* (Trafikoko eta Armadun Polizia), Lauaxetaren hilketa, Franco eta Hitler.




### Itsas azpiko sekretua

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Lur Gallastegi
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 121 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2020, Ibaizabal
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: Frontea, Donostiako bonbardaketa, kartzelatzea eta erbatea.
  - Frankismoa: Ondarretako kartzela, emakume presoak, emakumeen ile mozketak, mojen mehatxuak eta tratu txarrak, lapurtutako haurrak, euskararen debekua eta hizkuntza galera.



### Basarri

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Andoni Egaña
- **Adina:** +8
- **Orrialde kopurua:** 99 or.
- **Genero literarioa:** Biografia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** Sendoa, 1999
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: Eusko Gudarostea, Bilboren hartzea, Telesforo Monzon, *Sarastone* itsasontzia, ihesaldia eta gorrotoa.
  - Frankismoa: Diktadura, Franco, atxiloketak, lan-batailoiak (behartutako lana) eta adierazpen askatasunik eza.




### Sagitario

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Felipe Juaristi
- **Adina:** +14
- **Orrialde kopurua:** 109 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1995, Desclée de Brouwer
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Gernikako bonbardaketa, Picassoren *Gernika* koadroa, heriotza eta Franco.




### Munduko zazpi herrialdetako ipuinak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Joseba Sarrionandia
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 109 or.
- **Genero literarioa:** Ipuin liburua
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2008, Pamiela
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Durangoko eta Gernikako bonbardaketak.




### Memoriaren zuhaitza

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila
- **Egilea(k):** Pello Añorga eta Jokin Mitxelena
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 56 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2012, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Fusilamenduak.




### Zer du aitonak?

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
- **Egilea(k):** Juan Luis Mugertza
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 83 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2010, Ibaizabal
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: Kartzela, Gernikako bonbardaketa eta trauma.
  - Frankismoa: Zentsura, soldadutza eta gosea.



### Portuak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Gerra Zibila/Frankismoa
- **Egilea(k):** Oihana Arana
- **Adina:** +13
- **Orrialde kopurua:** 90 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2020, Gaumin
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Frankistak, beldurra eta soldaduska.




### Herrialde berdea

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Frankismoa
- **Egilea(k):** Iharra eta Xenki
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 65 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1974, Turingraf
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Indarkeria, okupazioa, menderakuntza, inposaketa, salaketa, espetxea, atxiloketa, zigorra, jazarpena, eraso, hilketa, ihesaldia, gorrotoa, beldurra eta mesfidantza.



### 1948ko uda


- **Errepresentatutako gatazka(k):** Frankismoa
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 69 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2015, Erein
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: Bonbardaketa eta fusilamendua.
  - Frankismoa: Diktadura, debekuak, askatasunik eza, zentsura, euskararen debekua, euskaraz hitz egiteagatiko zigorra, errepresioa, salaketak, fusilamenduak, miseria, errazionamendua, estraperloa, kontrabandoa eta erbestea (*Habana* itsasontzia).






### 20 Ipui eta antzerkitxo bat ikastolatarako

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Frankismoa
- **Egilea(k):** Anastasio Albisu
- **Adina:** Zehaztugabea
- **Orrialde kopurua:** 145 or.
- **Genero literarioa:** Antzezlan (ipuinak ez dira gerrari buruzkoak)
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1975, Juan José Garmendia
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Askatasun galera, euskaraz hitz egiteagatik zigorra, hizkuntza galera eta Euskal Herriaren zatiketa.




### Begi bat kokotean

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
  - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Juan Kruz Igerabide
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 115 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2023, Ediciones Modernas El Embudo
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila eta Frankismoa: Fusilamendua, tiroketa, etsipena, gosea, errazionamendua, adierazpen askatasunik eza, euskaraz aritzeko debekua, eskolan *Cara al sol* kantatzeko agindua, errepublikazaleak, salaketa eta atxiloketa.
  - Euskal gatazka: Tiroketa eta metrailaketa.



### Euskal Herriaren Historia XXI. mendeko haurrei kontatua

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Lehen Gerra Karlista
  - Bigarren Gerra Karlista
  - Lehen Mundu Gerra
  - Bigarren Mundu Gerra
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
  - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Iñaki Egaña
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 74 or.
- **Genero literarioa:** Saiakera
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2001, Txalaparta
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Lehen Gerra Karlista: Karlistak, liberalak, Tomas Zumalakarregi, Karlos Maria Isidro Borboikoa, Foruak, Bergarako hitzarmena, gudarien atzerriratzea.



- Bigarren Gerra Karlista: Antonio Dorregarai jeneral karlista eta haren laguntzaile Nikolas Olló; Gerardo Martínez Velasco eta Antonio Lizarraga jeneral karlistak, Eustakio Llorente buruzagi karlista, Manuel Santa Cruz apaiz gerrillaria; foruen galera, atzerriratzea, euskararen aurkako jazarpena/debekua eta soldadutzaren beharrezkotasuna.
- Lehen Mundu Gerra: Frantziako armadarekin borroka egiteko beharrezkotasuna eta heriotza.
- Bigarren Mundu Gerra: Hitler, Alderdi Nazia, menderakuntza eta Aliatuak.
- Gerra Zibila: Errepublikaren aldarrikapena, 1936ko hauteskundeak, Franco, Durangoko eta Gernikako bonbardaketak, Jose Antonio Agirre lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza, atzerriratzea, heriotza eta kartzela.
- Frankismoa: Ikurrinaren debekua eta euskal kutsuko aldarrikapen edo jarduera ororen aurkako jazarpena.
- Euskal gatazka: Borroka armatua, Carrero Blancoren hilketa eta heriotza.

Metxa esaten dioten Agirretar baten ibili herrenak

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Bigarren Gerra Karlista
  - Lehen Mundu Gerra (abesti baten bidez)
  - Bigarren Mundu Gerra
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
  - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Koldo Izagirre
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 126 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1991, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Bigarren Gerra Karlista: Karlistak, liberalak, Duque de Granada eta Marques de Valdespina.
  - Bigarren Mundu Gerra: Sasiko lana, naziak, erresistentzia, Pétain mariskala.
  - Gerra Zibila: Bruneteko gerra, Matxitxakoko gerra, Intxortako ofentsiba, Bizkaia itsasontzia, Amaiur eta Kirikiño batailoiak, Alejo Bilbao komandantea, Bizente Egia kapitaina, Kondor Legioa, erreketek, Santoñako eta Larrinagako kartzela, fusilamenduak eta salaketak.
  - Frankismoa: Adierazpen askatasuna eta euskararen debekua.
  - Euskal gatazka: Iheslariak, sasiko lana, miaketak eta atxiloketa.



Mattin. Basoko gidaria


- **Errepresentatutako gatazka(k):** Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea(k):** Jabier Erostarbe
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 50 or.
- **Genero literarioa:** Komikia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2014, IZBÁ
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Hitler, Vichy-ko gobernuak, Alemaniaren okupazioa, naziak eta haien sinbologia, Gestapoa, Aliatuak, erresistentzia, etxe-miaketak, iheslariak, mugalariak, jazarpena, atxiloketa eta hilketa.






### Anbroxio

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Bigarren Mundu Gerra
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
  - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Eneko Bidegain
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 212 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2002, Elkar
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:**
  - Bigarren Mundu Gerra: Kontzentrazio-esparrua, *Shoah*, gas-ganbera, atxiloketa, tiroketa, urkamendua, jipoiak, behartutako lana, nazien torturak, salaketa, etxe-miaketak, beldurra, gosea, nortasunaren galera, tratu inhumanoa, heriotza, trauma, deportazioa, erresistentzia, mugalaritza, iheslariak, Hitler, naziak, SSak, Gestapoa, alemanen okupazioa, Aliatuak eta Philippe Pétain.
  - Gerra Zibila eta Frankismoa: Franco, faxismoa eta euskaraz hitz egiteko debekua.
  - Euskal gatazka: Askatasuna eta Segi ezker abertzaleko erakundeen ilegalizazioa, giza eskubideen urraketak, adierazpen askatasuna, bi aldeetako atentatuak, mehatxuak, hilketak, kartzela, terrorismoa, espainiar polizia-etxeetako torturak, independentziaren aldeko borroka, presoen aldeko kontzertua, Madrilgo auzitegia eta Baltasar Garzon epailea.



### Azken Garaipena

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea(k):** Iban Zaldúa eta Julen Rivas
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 48 or.
- **Genero literarioa:** Komikia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2011, Ikastolen Elkartea
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Naziak eta haien proiektuak (purutasun zentroak), gobernuaren kontrol zorrotza, SSak eta juduen aurkako jazarpena (azken soluzioa eta kontzentrazio-esparruak).



### Arriskupean!

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea(k):** Fernando Morillo
- **Adina:** +14
- **Orrialde kopurua:** 192 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2003, Ibaizabal
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** 1933ko Alemaniako hauteskundeak, Hitler, H. W. Goering, naziak eta neonaziak.

Fernando Morillo

### *Arriskupean!*



Q4in

ibaizabal


### Haur besoetakoa. Itsasoan urak handi

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea(k):** Unai Iturriaga eta Alex Sanvi
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 48 or.
- **Genero literarioa:** Komikia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2022, Ikastolen Elkartea
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kontzentrazio-esparrua (sinbolikoki) eta faxistak.




### Nemo kapitainaren azken bidaia

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Castillo Suarez eta Aitziber Alonso
- **Adina:** +7
- **Orrialde kopurua:** 59 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2017, Erein
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Kartzela, inkomunikazioa (presoarekin egoteko denbora mugatua eta senideekiko distantzia fisikoa), urruntze politika eta kartzelara egin beharreko bidaia luzeak, motxiladun haurrak eta zentsura (egunkari baten itxiera).




### Oihanaren koaderno

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Imanol Azkue eta Txiki Agirre "Keixeta"
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 28 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2008, Inpernue Kultur Elkartea
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Kartzela, presoak, kartzelako bizimodua, *vis a vis*ak, familia eta lagunekin egoteko murriztapena, askatasun galera, erosotasun eta intimitate eza, urruntze politika, presoekiko elkartasuna eta konpromisoa, eta presoen Euskal Herriratzea.




### Osaba Patxiren koaderno

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Imanol Azkue eta Txiki Agirre "Keixeta"
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 15 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2007, Inpernue Kultur Elkartea
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela.




### Ainhoari Gutunak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joseba Sarrionandia
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 74 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1990, Elkar
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Kartzela, preso politikoak, sakabanaketa politika, presondegietan jaiotzen diren umeak, motxiladun haurrak, euskal militanteak, militante klandestinoak (etakideak), mugalariak, iheslaria, erbestea, Euskal Herriaren zatikitzea eta independentziaren aldeko borroka.




### Hiru sopranoak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Xabier Mendiguren eta Alex Orbe
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 82 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2015, Elkar
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta kotxe istripuak, kartzelan jaiotzen diren haurrak, motxiladun haurrak, Mirentxin furgoneta, presoen etxeratzearen aldeko manifestazioa, presoen inkomunikazioa eta ETaren bonbak eraildako familiarra.



### Pikolo

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta eta Jokin Mitxelena
- **Adina:** +8
- **Orrialde kopurua:** 88 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2008, Alberdania
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Atentatua (kuartelean) eta ondoriozko hilketa, kartzela, preso politikoak, urruntze politika, *vis a vis*-ak, presoen aldeko bilkurak, manifestazioak, terrorista/etakidea, mehatxuak (guardia zibilaren semea izateagatik), gorrotoa, ezinikusia eta adierazpen askatasuna.



### Tunelaz bestaldean


- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joxerra Gartzia
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 107 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2000, SM
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta motxiladun haurrak.






### Txakurraren alaba

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Xabier Mendiguren
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 188 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2000, Elkarlanean
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Manifestazioak, kale borroka, istiluak, atentatuak, pintaketak, erailketak, atxiloketak, kartzela, presoak, presoen ongietorriak, terroristak, terrorismoa, Guardia Zibilaren errepresioa eta torturak, espainiar eta euskaldunen arteko ezinikusia (inkomunikazioa), gorrotoa eta zapalkuntza.



### Harri barruko bihotz-borrokak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Juan Luis Zabala
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 94 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1999, Elkarlanean
- **Gerrarekin lotuta lantzen diren alderdiak:** Militantzia, konpromiso politikoa, kale borroka, atentatuak, borroka armatua, ETaren su-etena, bahiketa, atxiloketak, kartzela, tortura, isolamendu-erregimena eta ertzainen jipoiak.




### Zer da, ba, maitasuna?

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Miren Agur Meabe eta Concetta Probanza
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 158 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria + poema-liburua
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** Elkar, 2008
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Atentatua, molotov koktela, polizia miaketak, atxiloketa, presoen aldeko bilkurak, errepideetako istripuak (urruntze politika), polizia-etxeetako torturak, erbesteartzea eta egunkarien itxiera.




### Larunbatean Bukowskin

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** John Andueza
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 208 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2012, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** ETaren indarkeriazko ekintzak, ETaren borroka armatuaren behin betiko uztea, Yoyesen hilketak, Imanol Larzabalen ihesaldia (mehatxuengatik), Joseba Sarrionandiaren kartzelako ihesaldia, erbestealdia, atxiloketa eta kartzela.




“Lekukoa” bilduma: *Sasieskola, Mehatxua eta Esanezinak*

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Garbiñe Ubeda
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 80-90 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:**
  - 2018, Elkar
  - 2019, Elkar
  - 2021, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - *Sasieskola*: Guardia Zibilaren segada, tiroketa, hilketa, egunkariaren manipulazioa, kale borroka, manifestazioak, atxiloketak, kartzelaratzak, poliziaren errepresioa, tortura salaketak, etakideak, Guardia Zibilaren aurkako atentatua (ETAk eraginda), gudaria/terrorista, iheslariak eta ZEN plana.
  - *Mehatxua*: Segada, tiroketa, hilketa (Guardia Zibilak eraginda) eta mehatxua.
  - *Esanezina*: Segada, tiroketa, hileta (Guardia Zibilak eraginda) eta mehatxua.



Antipodak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Gaizka Arostegi
- **Adina:** +14
- **Orrialde kopurua:** 222 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2021, Ibaizabal
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kale-borroka, molotov koktelak, ke-poteak, gas negar-eragileak, gomazko balak, Guardia Zibilaren segada, manifestazioak, atxiloketak, bahiketak, etxe-miaketa, atentatua, hilketa, tratu txarrak, torturak, umiliazioak, errepresioa, xantaia, kartzela, urruntze politika, inkomunikazio egoera, presoengietorriak, gerra zikina, etakidea, errefuxiatua, gorrotoa eta ezinikusia.




### Para bellum

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Frankismoa
  - Bigarren Mundu Gerra (aipamen hutsa)
  - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** John Andueza
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 178 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2023, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: 1936ko altxamendu militarra, Eusko Gudarostea, bonbardaketak, emakumeen bortxaketak, eskubideen urraketa, atxiloketak, kartzela, tiroketak, fusilamenduak, hilketak, frankistak, gudariak, milizianoak, Intxortako bataila, Durangoko eta Gernikako bonbardaketak (iradoki egiten da), Emilio Mola, Franco, mendeku gosea eta indarkeria.
  - Frankismoa: Franco eta zapalkuntza.
  - Euskal gatazka: 1977ko Espainiako amnistia legea, GAL, ETA, ETAre enpresarien bahiketa eta iraultza-zerga, iheslariak, klandestinitatea, etakidea, sarekada, tiroketak, atxiloketak, Guardia Zibilaren torturak, hilketak, mendekua, gorrotoa, beldurra, Txiki eta Otaegiren fusilamendua eta Luis Carrero Blancoren aurkako atentatua.




### Kixmi elurpean

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Arrate Egaña
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 193 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2005, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, tortura, presoan aldeko manifestazioak, kale borroka, pintadak eta gose-greba (presoen sakabanaketarekin amaitzea eskatzeko).



### Pike eta Pitito


- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Xabier Agurrutza
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 101 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1994, Txalaparta
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Manifestazioa, presoan gose-greba, urruntze politika, ihesaldia eta poliziaren tiroketa.





### Kandela bat pizteko behar dena

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Mikel Antza eta Iker Moreno
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 25 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2012, Aratamiñe
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta familiarrek kartzelara egin beharreko bidaia luzeak.



### Pistolak eta epistolak

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Gerra Zibila
  - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joan Mari Irigoien
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 230 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2014, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Gerra Zibila: Menderakuntza, atxiloteta, hilketa eta frankistak.
  - Euskal gatazka: Poliziaren torturak, GAL, Euskaldunon Egunkariaren itxiera, Juan del Olmo eta Baltasar Garzón.



### Martxa eta borroka!

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Frankismoa
  - Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Uxue Alberdi eta Patxi Paláez
- **Adina:** +10
- **Orrialde kopurua:** 32 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2016, Elkar/Katxiporreta/Ikastolen Elkarte
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Frankismoa: Francoren heriotza.
  - Euskal gatazka: Pasaiako segada (1984koa).



### Kandinskyren tradizioa

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Ramon Saizarbitoria
- **Adina:** +14
- **Orrialde kopurua:** 84 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2003, Erein
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Bonba eta leherketaren osteko Guardia Zibilaren kontrola.




### Goizeko zazpiak

- **Errepresentatutako gatazka(k):**
  - Euskal gatazka
  - Bigarren Mundu Gerra
- **Egilea(k):** Nora Arbelbide
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 260 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2006, Elkar
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:**
  - Euskal gatazka: Gerra zikina, borroka armatua, bahiketa, polizia-antiterrorista, politikarien negoziatzeko ukapena, terroristak eta terrorismoa.
  - Bigarren Mundu Gerra: Alemanen tratu gizagabea, salaketa, atxiloketa eta kontzentrazio-esparrua.



### Haizea

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Hodei Garcia, Mikel Fernández eta Oihan Meñaka
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 22 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2016, Ataramiñe
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta espetxera egindako bidaia luzeak.



### Maritxipi eta amatxo

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joxemari Carrere eta Mikel Orbegozo
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 17 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2018, Sare Herritarra
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, presoeri ezarritako salbuespen legedia, motxiladun haurrak, urruntze politika eta familiak egin beharreko bidaia luzeak.



### Nire eskua zurean

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Mariasun Landa
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 56 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1995, Erein
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** ETAko militantea.






### Txori mezulariak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joseba Erostegi "Eltzikorta"
- **Adina:** +6
- **Orrialde kopurua:** 32 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2018, Ataramiñe
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, motxiladun haurrak eta Mirentxin gidariak.




### Amonaren ipuin magikoak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joseba Erostegi "Eltzikorta"
- **Adina:** +6
- **Orrialde kopurua:** 27 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2019, Ataramiñe
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta Mirentxin gidariak.




### Zimaren abenturak

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Belen Gonzalez eta Kepa Etxeberria
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 116 or.
- **Genero literarioa:** Ipuin liburua
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2008, Ataramiñe
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, klandestinitatea eta Joseba Sarrionandia.




### Benetako lagunen aterbea

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Pako Aristi
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 173 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1998, Ibaizabal
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Kartzela, urruntze politika eta independentziaren aldeko borroka.



### Santa familia

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Eider Rodriguez eta Julen Ribas
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 48 or.
- **Genero literarioa:** Komikia
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 2017, Ikastolen Elkartea
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Amnistiaren Aldeko Batzordeen ikurra.



### Gerturik daukagu odola

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Joxean Sagastizabal
- **Adina:** +12
- **Orrialde kopurua:** 83 or.
- **Genero literarioa:** Eleberria
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1999, Pamiela
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Gudaria.



### Marigorringoak began

- **Errepresentatutako gatazka(k):** Euskal gatazka
- **Egilea(k):** Patxi Zubizarreta
- **Adina:** +5
- **Orrialde kopurua:** 31 or.
- **Genero literarioa:** Ipuina
- **Lehen argitalpen data eta argitaletxea:** 1994, Giltza-Edebé
- **Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak:** Helburuak bitartekoak justifikatzen dituen ala ez.



## II. ERANSKINA: ANALISIRAKO BALIATUTAKO ESKEMA

- Obraren izenburua
- Errepresentatutako gatazka(k)
- Egilea(k)
- Adina
- Genero literarioa
- Lehen argitalpen data eta argitaletxea
- Gatazkarekin lotuta ageri diren alderdiak
- Sariak eta bestelako errekonozimenduak
- Itzulpenak
- Edizio/argitalpen kopurua
- Pentsak edo kritika akademikoak egindako balorazioa
- Argumentua
- Korrante literarioa
- Alderdi paratestuala
  - Peritestua
  - Epitestua
- Kronotopoa
  - Denbora
  - Espazioa
    - Erreala
    - Fikziozkoa
      - Egiantzekoa
      - Ez egiantzekoa (fantasiazkoa)
- Iragana irudikatzeko modua
  - Esperientziala
  - Berreraikitzailea
  - Monumentala
  - Historizista
  - Antagonikoa
  - Erreflexiboa
- Memoria guneak

- Fokalizazioa
  - Finkoa/ aldakorra
  - Barne-fokalizazioa/ kanpo-fokalizazioa/ zero fokalizazioa
- Narratzailea
  - Heterodiegetikoa / homodiegetikoa / autodiegetikoa
  - Narratzailearen funtzioa, ikuspuntua eta balio-iritziak
- Polifonia
- Pertsonaiak
  - Indibiduala / kolektiboa
  - Sexua eta adina
  - Biziduntasuna
  - Lauak/biribilak
  - Funtzio aktantziala
  - Genero politika
  - Pertsonaia maskulino eta femeninoen karakterizazioa (irudietakoa barne)
    - Ezaugarri fisikoak
    - Ezaugarri psikologikoak
    - Rol banaketak
  - Pertsonaia femeninoen presentzia/absentzia (ikusgarritasuna)
  - Biktimarioa/biktima
  - Subjektu inplikatuak
- Denboraren tratamendua
  - Linealtasuna
  - Analepsiak / prolepsiak
  - Elipsiak
- Amaiera
  - Zoriontsua / positiboa / negatiboa / irekia
  - Gerraren ondorioak
- Gerraren eremu semantikoa<sup>248</sup>
- Testuartekotasuna eta bestelako erreferentziak
- Testuaren irakurlea: Irakurle inplizitua

---

<sup>248</sup> *Borroka, gatazka, hilketak, bonbardaketak, atentatuak, atxiloketak, errepresioak, tortura, heriotza, inbasioak, indarkeria, terrora* edo *suntsiketak* bezalako hitzak ageri diren edo eufemismoak baliatzen diren horiei erreferentzia egiteko.

- Hizkuntzaren erabilera (heterolinguismoa<sup>249</sup>, erregistroak, ironia eta baliabide umoristikoak) eta erabilera horren funtzioa
- Memoria mota
  - Filiatiboa/ afiliatiboa
  - Kolektiboa
    - Komunikatiboa
    - Kulturala
  - Multidirekzionala
- Erabilitako indarkeria mota
  - Fisikoa/ psikologikoa
  - Zuzena/ zeharkakoa
- Indarkeria erabiltzeko arrazoiak: ideologikoak/ pertsonalak
- Taldearen erantzuna indarkeriaren aurrean: isiltasuna/ errefusa/ tolerantzia/onarpena /sostengua
- Elkarrizketarik al dago gerraren edo gatazkaren alde desberdinetan daudenen artean?
- Balio ideologiko, moral eta didaktikoak (inplizituak/ esplizituak)

---

<sup>249</sup> *Heterolinguismo* hitza Rainier Grutman literatur ikertzaileak garatu eta baliatu zuen lehenengo aldiz 1994an argitara emandako doktore-tesian eta harrez geroztik, kontzeptua eremu askotan erabili da, batez ere Itzulpen Ikasketetan, interesgarria baita aztertzea nola itzuli diren heterolinguismoa baliatzen duten testuak. Honela definitu zuen kontzeptua Grutmanek (1997): “Par hétérolinguisme, par contre, j'entendrai la présence *dans un texte* d'idiomes étrangers, sous quelque forme que ce soit, aussi bien que de variétés (sociales, régionales ou chronologiques) de la langue principale”. *Elebitasun* kontzeptuak konnotazio politikoak dituelakoan, termino horretatik bereizten du *heterolinguismoa*, egileak defendatzen duenez, heterolinguismoak ezaugarri literarioari egiten diolako erreferentzia, hau da, fenomeno testualari soilik egiten dio erreferentzia. Myriam Suchet ikertzaileak testu heterolingueak landu ditu eta hark (2009) dioenez, fenomeno hori “bestearen” diskurtsoa irudikatzen duen moduetako bat da, alegia, alteritatea edo bestetasuna adierazteko baliabideetako bat.